

Joanes Leizarraga

**IESUS KRIST
GURE IAUNAREN
TESTAMENTU
BERRIA**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Bertsio informatiko honen egilea: Josu Lavin; Urkiola,
1-1K 48990 - Getxo (Bizkaia)

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00536.htm>

**IESUS KRIST
GURE IAUNAREN
TESTAMENTU
BERRIA**

MATTH. XVII.

*Haur da ene Seme maitea, zeinetan
neure atsegin ona
hartzen baitut, huni beha zakizkiote.*

ROXELLAN.

Pierre Hautin, Inprimizale

1 5 7 1

A tresillustre Dame leanne d'Albret, Roine de Nauarre, Dame souueraine de Bearn, &c. son treshumble & tresobeissant seruiteur lean de Liçarrague de Briscous desire grace & paix en Iesus Christ.

Madame, ie seroye à bon droit blasmé de temerité, de ce que vous estant comme incogneu i'ay esté si hardi que de vous dedier ceste translation Basque du nouveau Testament, si pour le moins ie n'amenoye quelque excuse de ceste mienne hardiesse. Entre les autres raisons qui m'ont induit à ce faire, cestes-cy m'ont esmeu le plus, assauoir, vostre tresrenommee humanité & pieté. Quant à l'humanité, encores que ma condition soit telle, qu'il sembloit qu'elle ne deust iamais paruenir iusques à moy, toutes-fois i'en ay senti infinis effects, mesmement en ce qu'il a pleu à vostre Maiesté m'ordonner gages, & me faire entretenir en vostre pays de Bearn: mayant par ce moyen donné grande occasion & ouuerture pour sortir des perplexitez d'esprit ausquelles i'estoye presque du tout plongé, & de la captiuité où i'estoye detenu, la

souuenance de laquelle me fait encores dresser les cheueux en la teste. Quant à la pieté, elle a engendré vne si grande reuerence de vous és cœurs des gens de bien, que mesme ceux qui ne vous cognoissent point de face, ne peuuent assez admirer vostre vertu, pour les louanges qu'on vous donne à bon droit d'estre tant affectionnee à restablir les ruines du temple de Dieu: lequel ayant esté presque du tout abbattu & demoli, est reedifié par vostre moyen, & reprend son ancienne beauté qu'il a euè autresfois du temps des Apostres. Pour le moins ie puis mettre en auant vostre pays de Bearn, lequel ayant esté autant farouche & rebelle à la parole de Dieu, qu'autre qu'on pourroit alleguer, neantmoins aujourd'huy, par la grace de Dieu, qui s'est serui de vostre zele, prudence & magnanimité, est si bien appriuoisé, que la parole de Dieu y est paisiblement & en grande edification preschee, & la discipline ecclesiastique deuèment exercee. Mais quoy? ce n'est pas à moy d'entrer si auant au discours de vos louanges, de peur que la clarté d'icelles soit aucunement obscurcie par l'insuffisance de mon style. M'arrestant donc ici,

encores m'oseie promettre que ce qui a esté dit me pourra defendre contre quelques vns, qui font profession de mesdire & blasmer mesmes les plus droites & entieres volontez. Car y peut-il auoir petitesse de condition ou autre telle chose, qui m'ait deu empescher de dedier vne œuure si sainte à vne Roine dont le saint zele & la pieté sont tant recommandez par tout le monde? Si on replique qu'un autre eust mieux fait cela que moy, ie pourray faire seruir à ma defense ce que dit vn iour vn nommé Pædaretus, lequel ayant failli à estre esleu au nombre des trois cens Magistrats de la ville de Sparte, s'en retoutna tout ioyeux en sa maison, disant qu'il s'esioüissoit de ce qu'il s'estoit trouué en la ville trois cens hommes meilleurs que luy. Aussi puis-ie bien dire, que s'il se feust trouué mille personnes qui m'eussent releué de ceste miemne peine, qui est plus grande qu'on ne penseroit point de prime face, i'en eusse esté autant ioyeux, que i'ay esté marri de ce qu'autre que moy ne s'est mis en auant pour commencer. De ceci pourront rendre tesmoignage ceux qui principalement m'ont incité à prendre ceste charge. Et afin que

ie die ce qui en est, encores que voz grandes vertus, Madame, & principalement celles desquelles i'ay parlé, & les exhortations vehementes de monsieur de Gramont (qui estoit pour lors vostre Lieutenant general) ensemble les frequentes sollicitations de messieurs de Belsunce & de Meharin, & de quelques autres mes amis, ne fussent que trop suffisantes pour m'es-mouuoir: toutesfois quand ie consideroye que mesme de nostre temps tant de sçauans person-nages se sont employez à la traduction du nouveau Testament tant en Latin, François qu'en autres langues fort riches & vsitees: & que depuis les mesmes traducteurs, & apres eux les autres ont trouué plusieurs choses à redire, tant au sens qu'au langage, me voyant moins que rien en comparaison d'eux, n'ayant que le seul zele & desir de profiter: & craignant que t'effect ne peust respondre à ma volonté, ie m'arrestoye tout court: & peu s'en fallut que ie ne desistasse entierement, voyant mon entreprise d'autant plus grande, que la langue en laquelle i'ay escrit est des plus steriles & diuerses, & du tout inusi-tee, pour le moins en traduction. Toutesfois

m'assurant que les Basques, entre toutes autres nations, n'estoyent point si barbares que de ne pouuoir recognoistre le Seigneur en leur langue, & voyant, l'occasion qui se presentoit, esperant aussi qu'il y auroit de plus suffisans que moy qui tiendroyent la main à l'œuure (comme il s'est trouué quand par ordonnance du Synode de vostre pays de Bearn, it a esté question de reueoir & conferer la besoigne) m'appuyant apres Dieu sur vostre autorité, accompagnée d'infinies vertus, à la fin ie me resolu de faire ce qui seroit en moy, & rapporter de bon cœur ce qu'il a pleu à Dieu me donner pour l'edification de son Eglise. Mais encores ce qui me donna plus grande assurance, fut l'esperance que i'eu que par ce moyen la pure parole de Dieu auroit entrée & accroissement au pays des Basques, & que pour ce faire ceci vous seruiroit comme d'une trompette, par laquelle Dieu vous appelle pour faire la guerre à Satan en vostre royaume de Nauarre, aussi bien que vous l'avez faite & continuez en tous les autres lieux de vostre domination. Au reste, quant à la diligence que i'ay prise, & au fruict qu'elle peut apporter les

autres en iugeront. le diray seulement ceci, que me souuenant tousiours de l'expres commandement de Dieu, qui est de ne rien oster ni adious-ter à sa parole, ie l'ay fait le plus fidelement qu'il m'a esté possible. Il reste que ie supplie vostre Maiesté de prendre le tout en bonne part, regardant plustost à la grandeur & dignité de l'œuure, qu'aux imperfections & à la petitesse du Translateur. Cependant ie prie Dieu, Madame, qu'il vous maintienne longuement pour se seruir de vous à sa gloire, & au salut de vos poures suiets, vous gouuernant en toutes choses par son saint Esprit, avec Monsieur & Madame vos heureux enfans. A la Rochelle le vingt deuxieme d'Aoust, 1571.

GUZIZKO ANDRE NOBLE Ioana Albrete Nafarroako Regina Bearnoko Andre gehien &c, denari, bere zerbitzari guzizko xipiak eta guzizko obedientak, Ioanes Leizarraga Beraskoizkoak, Iesus Kristen gratia eta bakea desiratzen.

ANDREA, zeren ni zure ezagun gabea bezala naizelarik, Testamentu berriaren heuskarazko translatione hunen zure Maiestateari dedikatze-ra ausartu izan naizen, merezi onez arintasunez

akusa ahal neinde, baldin neure ausartgoa hunez zerbait exkusa bereren eman ezpaneza. Bada, niri haur eragin draudaten anhitz berze razoinen artean izan dirade, zure humanitate handi jende prestu guziez laudatua, eta lainkoazko zure zelo handia. Zure humanitateaz den bezenbatean, ene manera halako bazen ere, non ezpaitzuen irudirik ere zure humanitatea sekulan enegana hel ahal leitela, guziagatik ere anhitz aldez hura baliatu izan zait, eta prinzipalki, zure maiestatearen plazera hala izanik gaje ordena lekidan, zure Bearnoko herrian entretenitu izan naizen bezenbatean: ezen halaz eman izan zait, ithoa bezala azpitik nendukaten gogo-arranguretarik, eta orhoitzeak ere buruko biloa latz eraziten drautan kaptibitatezko suiektionetik ilkiteko okasione eta moien. Eta zure zelo lainkoazkoaz den bezenbatean, hark du enjendratu zu baitharra jende prestuen bihotzetan halako reberentia bat, non are zure ezagutzea eztutenek ere ezin asko mirets baitezakete zure berthutea, zuri zuzen onez emaiten zaizkizun laudorioakgatik zeren hain afektionatu erakusten zaren lainkoaren tenpleko gauza gaizkituen drezatzen, eta

zeren hark, kuasi desegin eta arrasatu izanik, orain zure moienez reedifikatzen delarik, rekrutatu baitarama bere leheneko edertasun Apostoluen denboran ohi zuena. Hunetakotzat exemplutan frangoki allega ahal dezaket zure Bearno-ko herria: hura behin berze erran ahal daitenik batre bezain lainkoaren hitzaren rezebitzera behatu gaitzetako eta rebelerakutsi izanik. guziagatik ere, lainkoa zure zeloaz, zuhurtziaz eta gogo-handitasunaz zerbitzatu izanik halakara mansotu eta ematu izan da, non egungo egunean Bearno guzian lainkoaren hitza paisibleki eta edifikatone handitan predikatzen baita, baieta disziplina eklesiastikoa egiazki eta bide bezala obserbatzen. Baina zer? etzait niri eman zure laudorien aipatzez hain aitzina abanzatzea, hetango klaretatea neure minzatzeko insufizientiaz ilhun eztezadanzat. Baina hunetan jelditzen naizela ere, esporzu dut ezen, ahal lirakeen borondaterik zuzenenez eta hobenez ere gaizki minzatziaz berze ofiziorik egiten eztuten batzuetarik, ia erran izan denak ere defenda ahal nezakela. Ezen ahal datekea ene konditio-nezko baxotasunik ezpa hunelako berze gauza-

rik batre, ni hain obra saindu baten, bere zelo eta afektione sainduagatik mundu guzietan hanbat laudorio emaiten zaion Regina bati dedikatzetik gibeleratzeko nuenik? Eta baldin edozeinek replikatu nahi balu eta erran, ezen egin izan dena, nik baino hobeki berze batek egin ukan lukeela: hunetan, aplika ahal dezaket neure defensionetan Pædaretus deitzen zen Esparta hiriko batek egun batez erran ukan zuena: zaku-sanean ezen hiriko hirur-ehun majistratuetarik bat izatera, etzela hura elejitu izan biltzarretik alegeraki bere etxerat itzuli izan zen, zioela, ezen atsegin handia luela zeren hirur-ehun gizon hura baino prestuagorik hirian eriden izan ziraden. Segur nik ere erran ahal dezaket ezen milla eriden izan balirade ere, ni arindu nendukeitenik pena hunetarik (zein izan baita nehork lehen bizitik estima ahal lizakeen baino handiago) nik ukan nukeela hanbat atsegin nola ukan baitut atsekabe zeren nizaz berzerik hatse baten egite-ra abanzatu izan ezten. Hunezaz testimoniaje ekar ahal diezakede prinzipalki kargu hunen hartzera inzitatu ukan nautenek. Eta dena den bezala erran dezadanzat, Zure berthute handiak,

Andrea, eta prinzipalki nik orain aipatu dituda-
nak, baieta orduan zure Loktenent jeneral-Agra-
mondeko launaren ezhortatione handiak, eta
Belzunzeko eta Meharineko launen eta zenbeit
berze ene adiskideren sollizitatze ardurazkoak,
ene goga eraziteko asko eta sobera izanagatik:
hala ere konsideratzen nuenean, nola gure den-
boran ere anhitz personaje iakinsurik Testamen-
tu berriaren translationean enplegatu izan den,
hanbat Latinez, Franzesez, nola anhitz berze len-
goaje abratsez eta pratikatuz: eta gero nola
Translatazale berek eta haien ondoan berzek
anhitz gauzatan, bai sensuan bai lengoajea zer
erran eriden ukan duten: eta ikusirik ezen hala-
koekin konparatzera ez-deus baino ezdeusago
ninzela, eta neure buruari kuasi gogo nahiaz eta
probetxu egiteko desiraz berzerik eznakusolarik,
eta nik hala borondate ukanagatik, beldurrez
gauza ez ledin moldez burutan ilki: karguaren
hartzera bathirik ezin naidikeen, eta guti falta
zedin non ezpainendin xoil gibelera, nakusanean
hanbatez ene entrepresa handiago, zenbatez nik
eskribatu dudan lengoaje mota baita, esterilene-
tarik eta dibersenetarik: eta oraino, translatione-

tan behinzat, usatu gabea. Alabaina segur iza-
nez ezen Heuskaldunak berze natione guzien
artean ezgarela hain basa, non gure lengoajez
ezin ezagut eta lauda dezagun gure lainko
launa: eta ikusirik ezen okasionea presentatzen
zela, baieta esperanzaz ezen ni baino sufizienta-
gorik ere izanen zela obran esku edukiren luenik
(nola eriden ere izan baita Bearnoko sinodoaren
ordenanzaz lan egin bisitatu eta koneritu behar
izan denean) azkenean, lainkoaz landan, zure
anhitz berthuterekilako autoritate handian
esporzu harturik, gogo egin nezan, neure ahal
guziaren egitera, eta lainkoak eman plazer ukan
drautan guziaren borondate onez haren Elizaren
edifikationetan enplegatzera. Baina are gehienik
bihotz eman ukan zerautana zen nik nuen espe-
ranza, ezen moien hunez lainkoaren hitz purak
ukanen luela sartze eta abanzamendu Heuskal-
herrian: eta hunetakotzat zu Andrea, hunez zer-
bitzaturen zinadela tronpeta baten anzora, zei-
nez lainkoak deitzen baitzaitu hala zure Nafarro-
ako resuman ere Satani gerla egitera, nola egin
eta egiten ere baitraukazu zure dominationeko
berze leku guzietan. Goitikora, nik obra hunetan

ezarri ukan dudan dilijentiaz eta penaz baieta hunetarik ethor ahal daitekeen emendioaz den bezenbatean, berzek iujeaturen dute. Haur bai erranen dut, ezen bethi orhoitik nola lainkoaren manu expresa den haren hitzari deus edeki ezta-kion ez eratxeki: hala egin ahal dudan fidelkiena egin ukan dudala. Hunen, gainean zure maiestateari suplikamenduz nagoka, dena onetakotz othoi rezebitu nahi duzun, obraren handitasunera eta dignitatera behatzenago duzularik ezen ez Translatazalearen imperfektionetara eta xipitasunera. Hanbatekin lainkoari othoitz egiten draukat, Andrea, nahi zaituen othoi bere Espiritu sainduaz bethi illuminatzen zaituelarik, zure dohain-onetako haur laun Andrekin batean, bere gloriaren abanzamendutan eta zure suieten edifikationetan luzaki konserbatu. Roxellan Agorri-laren 22, 1 5 7 1.

Aduertissement à ceux qui ne sçauent point le Basque, pour le sçauoir lire.

Les mots Basques se prononcent avec toutes leurs lettres, à la façon Latine, comme ils s'escruiuent: u voyele se prononce à pleine bouche comme si c'estoit ou.

HEUSKALDUNEI

Heuskarazko hitzak, nola eskribatzen, hala letra guziekin Latinen angora pronuntiatzen ere dirade: eta u bokala, betheki, ou baliz bezala. Berzalde Testamentu berriaren heuskarazko translatione hunetan hitz bakoitz batzu letra xeheagoz textu artean ezarri ikan dirade, eza-gun denzat ezen hek teztuan aditzen diraden hitzak izanagatik, eztiradela ordea textu gorputz berekoak, baina deklaragarri iarriak. Gainerakoaz den bezenbatean, batbederak daki heuskal herrian kuasi etxe batetik berzera ere minzatzeko maneran zer differentia eta dibersitatea den: razoin hunegatik sensu egiazkotik aldaratu gabe, lengoajeaz den bezenbatean ahalik gehiena guziei adi eraziteari iarreiki izan gaitzaitza, eta ez xoil edozein leku iakineko lenhoaje bereziri: eta badakigu ezen denborarekin anhitz hitz eta minzatzeko manera, eridenen dela obra hunetan berzela hobeki erran zatenik: halakoe-tan, gauka zeren den dakitenetarik batbedera, orhoituren da, othoi, ezen hunelako gaukak,

guziz lengoaje oraino usatu gabe batetan, ezin behingoaz halako perfektionetan iar daitezkeela, nola behar bailizateke: guziagatik ere minzateko maneran anhitz arrastatu gabe, lainkoaren hitz purari iarreikiteko desira dutenek, esporzu dugu eridenen dutela (suporturekin) zerzaz kontenta. Eta baldin esperanza dugun bezala, oraindrano egin den hunetan heuskaldunak gozorik edo edifikationerik hartzen badu, hunetan enplegatu izan diradenek bihotz harturen dute, oraindanik gogo ere duten bezala, egin denaren berriz ikusteko eta korrijitzeko: baieta, baldin launak hala plazer badu, pasaje difizilenen deklaragarri anotationen ezarteko. lainkoak othoi, haren desohoretako den doktrina guzia ekagut erazirik eta konfunditurik, haren ohoretako dena bethi entreteni eta abanza dezala Iesus Krist bere Seme gure launaren izenean. Amen.

BATBEDERAK IAKITEKO, eta maiz irakurtzeko duen Adbertimendua nola Iesus Krist den lainkoaren Legearen fina, eta gure salbatzeko moien bakoitza.

Iainko gauza guzien Kreazale eta obrero guzizko perfektoak eta exzellentak, bere goitiko

kreaturetan mirakuluzko baino mirakuluzkoago erakutsi izanik, are berze guzien gaineko eta bere obra guzien monstraburu bezala, kreatu ukan zuen gizona ere, guzizko exzellentia perfektionetako bat hura baithan kontenpla ahal ledinzat: ezen kreatu ukan zuen bere imajinara eta irudira, halako maneraz non lainkoaren gloriako klaretateak hura baithan klaroki argitzen baitzuen. Eta perfektionetako estatu ezarri izan zen hunetan iraun erazi ahal zezakeon moienaz, bethi humilia ledin lainkoaren maiestate sainduaren aitzinean, hura bethi remerziamenturekin magnifikatzen eta laudatzen luelarik: eta ezlezan bere burua baithan bere gloriarik batre bilhatzera presumi: baina nola gauza guzia garaitik eman izan baitzen, hala goiti bethi beha lezan, laudorio guzia apartenitzen zaion lainkoa baithan glorifika ledinzat. Baina dohakabeak bere baithan zerbait izan nahiz, bertan has zedin ezagutze gabetzen, eta nondik ona heldu zaion ahanziten, eta ingratasunezko hautenetate batez bere Kreazalearen eta gratia guzien emaitzearen kontra entepreni zezan urgulutsuturik alxatzera. Eta halakotz trebuka zedin bere gal-

tzapenetan, bere lehen kreationeko dignitate eta exzellentia guzia gal zezan, bere gloria guziaz billuz eta gabe zedin, hura baithan ezarri izan ziraden donoetarik aldara eta erauz zedin, bere urguluan konfus izateko, eta bortxaz sendi lezan amorioz aditu nahi ukan etzuen, nola bereberez etzen ez egundano ere izan banitate bai-zen, berthute guzitako launa asistitu eta baliatu izan zaion bezenbatean baizen. Hunen gainean has zedin lainkoa haren begitan hartzen, eta (nola merezi ere baitzuen) bere obratan desabotatzen, ikusirik ezen haren imajina eta irudia hura baithan ez eztau izan zela, eta haren ontasunezko gratia guziak iraungi izan ziradela. Eta nola lainkoak gizona ezarri eta ordenatu ukan baitzuen, aita bat bere haur guzizko maitean bezala, hura baithan delekta ledin eta atsegin har ahal lezanzat: berzaldera bere desobedientiarene kausaz hiragun zekion, eta abominationetan eta begitan har zezan, halako maneraz non hura baithan lehen laket eta plazent zaion guzia, egin baitzekion desplazent, eta delektatzen ohi zuenak tharrita baitzezan: aitatasunezko begi eme batez behatzen ohi zuena detestationetan

harturik eta abhorriturik begietako ere sobera izan zaio. Eta labor erraitera, gizona zena zen bezala bere apartenentia, dependentia, bere egitate bere pensamendu, bere minzate eta izate guziarekin gaizetsi ukan du lainkoak, bere etsai eta kontrast espezial anzo: bai erraiterano ezen urriki zuela zeren gizona egin ukan luen. Eta konfusione hunetara iraitzi izan zen ondoan bere irudiko jenerationean enjendratzeko abundant izan da bere hazi maradikatuan, arraza biziatuan, gaixtoan, korrumpituan, ontasun oroz desprobedituan, gaixtakeriaz abratsean eta abundantean. Guziagatik ere laun miserikordio-soak (zeinek ezpaitu onhesten solament, baina bera baita onherizte eta karitate) bere ontasun handiagatik onhetsi izateko digne etzena ere onhetsi nahiz eztitu xoil galdu sunsitu ez abismatu ukan gizonak, haien inikitateak merezi bezala: baina emetasunez eta patientiaz sustengatu eta suportatu ukan ditu, harengana konbertitzeko eta aldaratu izan ziraden obedientiara itzultzeko espatio eta leku emanez. Eta lainkoak irudirik batre egin gabe, haiei manifestatu nahi ezpaltzaue bezala, gizonak ixilik utziten baizituen ere

zein bere desiren eta guthiziazko afekzionen ondoan ioaitera, deus bere hitzazko legerik ez gaztigurik ez korrektionerik ez gidamendurik batre gabe, guziagatik ere hek haren bide bezala bilhatzera erideitera, ezagutzera eta ohoratzerantz inzitatu behar ziratekeen abertimendurik asko eman ukan draue. Ezen leku orotan eta gauza guzietan drezatu eta altxatu ukan ditu bere enseignak eta armoriak, bai hain gauza klarotan, non ezin baitzateken nehor, hain frangoki bere magnifizientia erakusten zuen laun subirano baten bide bezala ezagutu gabeaz exkusarik batre ahal lukeenik. Ezen munduko ingurune eta kornu guzietan bai zeruan bai lurrean eskribatu eta engrabatu bezala ukan du bere puisanzaren, ontasunaren, kuhurtziaren eta eternitatearen gloria. Eta S. Paulek egiazki erran ukan du ezen launa, bere hitzaren ezagutzea igorri ukan etzeraren jendeak baithara ere, eztela egundano berarrazko testimoniaje gabe izan: ikusirik ezen lurraren alde batetik berzeranoko kreatura guziak ahal ziratekeela lainkoaren gloriarez testimonio eta mezu gizon guziak baithara, haren bilha eraziteko, eta eriden ondoan, hain laun

onaren, hain puisantaren, hain zuhurraren eta eternalaren dignitateari zaion bezala rezebi eta ohora eraziteko, eta inkisitione hunen egiteko kreatura hetarik batbederak zerbizatzen zuen. Ezen xoritxoek ere kantatzen zeraukaten lainkoari: abre guziak, zein bere legean beharra zutenaren peituia ezaguturik, hari aiuta eskez bezala zaizkan: Elementek beldur eta obedientia erakusten zeraukaten: mendiek bere hotsaz laudorio emaiten zeraukaten: errekek eta ithurriek, zeinek bere moldean begitharte eta dilijentiarekin obedientia erakusten eta rendatzen zeraukaten: belharrek eta lorek bere propietatetan eta usainetan abanzamendu eta leialtate elegranzarekin erakusten zeraukaten. Eta ezagutze hunen ukaitera hain urrun ioan gaberik ere gizonetarik batbederak bere baithan eriden ahal zezakeen, gu guziok haren berthute gutan habitatzen denaz substantiatzen eta konserbatzen garen bezenbatean. Eta are bere klementia eta ontasun infinitoa gizonen artean manifesta lezanzat, etzaio asko izan, erran den kreaturezko manera hunetan guzien instruitzea: baina are bere boza espezialkiago adi erazi drauka edozein populu

bereziri, zein bere borondate onez eta liberalitate gratiazkoz lurreko natione guzien artean elejitu eta hautatu ukan baitzuen eta hek ziraden Israeleko haurrak, haei espezialki eta klaroki bere hitzaz manifestatu izan zaie, eta bere obra mirakuluzkoez deklaratu ukan draue zer zakian egiten: ezen hek Egipteko rege Faraoren suiek-tionean marruskatuak esklabo zeuden lekutik idokirik, largoan eta libertate osoan ezarri ukan ditu: eta lagundu izan zaie bera ere haien artean ihesi balebila bezala: hazi eta substantiatu ukan ditu desertuan: lur prometatu zeraueneko pose-sor egin ukan ditu: triunfa eta biktoria eskuetara eman ukan draue. Eta berze nationendako deus ezpaliz bezala Israeleko lainko expresuki eta bereziki deithu nahi izan den bezala, nahi ukan du Israel ere haren populu berezi dei ledin, baina halako konditionerekin, non ezlezaten berze launik ezagut ez berze lainkorik rezebi. Eta allianza haur iragan eta konfirmatu izan da Testamentuzko instrument autentikoz eta hark berak eman ukan drauen testimoniaje expresez: guziakgatik ere gizonak, nola bere arraza maradikaturat aur-diten baitute guziek, eta nola bere Aita Adamen

sukzesor eta primu baitirade: erran diraden eta anhitz berze egin izan zaiene remonstranzaz eztute konturik egin: eta lainkoak adbertimenduz eman zerauen doktrinari etzaizka behatu nahi izan. Kreatura guzietan lainkoaren magnifientia eta gloria eskribatua bezala testifikatzen eta erakusten bazen ere, etzaie Jentilei deus probetxatu izan halakotz lainkoaren glorifika eraziteko. Legeak ez Profetek eztute deus autoritate-rik ukan luduak baithara, haien bide zuzenera erekarteko eta gidatzeko. Guziak izan dirade itsu argira, gor adbertimenduetara, eta gogortuak manamenduetara. Salbu, mirakulu etsirik, eta ardura rezebitzen zituzten ungi handiez garaithu izanik, Jentilei bortxa izan baitzaie, hanbat on emaiten zerauen unigigile subiranoaren ezagutzera. Baina hek ere bide zen gloria lainko egiazkoari eman bidean imajinatu ukan dute lainko bat bere plazerera, eta beren fantasia erhoak bere banitatean eta gezurrean burutan eman zerauenaren araura. Eta ez lainko bat solament, baina haien otrekuidanza eta ausartgoa erhoak imajinatu eta egin ukan ahal duen bezenbat ere bai: hanbatetarano non ezpaitzen populurik ez

rejonerik on irudi zaionaren araura lainko berri-rik egiten etzuenik Eta handik idolatria traido-reak eta maradikatuak hartu ukan du bere boga, eta hark itzuli ukan ditu lainko egiazkoaganik: eta berek plazer zuten moldera egin ukan zituz-ten imajinen ondoan irion izan dirade. Eta luduez den bezenbatean, launak bere zerbitzariez igor-ten zerauzten adbertimenduak rezebitu, akzep-tatu eta landatu ukan badituztere: bertan hautsi eta falsifikatu ukan draukate fedea lainkoari, eta aldaratu izan dirade harenganik arinzki: eta hau-tsi eta menospreziatu ukan dute haren Legea, eta hura hiragundurik gogongaraitik hari iarreiki irudi egin ukan dute: estranjertu eta urrundu izan dirade lainkoaren etxetik: eta haren boron-datearen kontra Jentilen manera berean idola-tratuz hek ere lainko arrotzen ondoan disolutoki laster egin ukan dute. Kausa hunegatik gikonek, hanbat luduek nola Jentilek lainkoagana hurbil-tzeko moienik ukaitekotz behar eta nezesario izan da Allianza berri bat, segurik eta hauts ezin leitenik egin ledin: eta haren fundatzeko eta kon-firmatzeko, bi partiden, lainkoaren eta gizonen artean akordu ezartera iar leiten ararteko eta

moienazale baten beharra izan da: berzela, gizona bethi lainkoaren hiran eta indignationea, gelditzen zen: eta etzuen trebukatu eta erori izan zen malediktione, miseria eta konfusione handitik hura releba ez idoki ahal lezakeen moienik batre. Behar handi eta ondikozko hunen remediagarri Ararteko iarri behar izan dena da, Iesus Krist gure laun eta Salbadore lainkoaren Seme bakoitz egiazkoa eta eternala: hura bere Aitare partez gizoni behar izan zaie igorri eta eman, berzela galdua eta desolatua gelditzen zen mundua redemi lezandat: eta munduaren hatseandantik bethiere hura baithan izan da Adam lehen gizonan egin izan zen perditionearen reparatzeko esperanza guzia eta bakoitza: Adami berrari ere, erori izan zen sarrienaz, konsola eta konfortagarri hala prometatu izan zaion, deklaratu izan kaionean, nola emaztearen sabeletiko haziak sugaren burua porroskaturen eta zathituren zuen: eta hura erran nahi zen nola birjina baten sabeletik sorthurik Iesus Kristek Satanen puisanza guzia abatituren eta deseginen zuen. Gero promes hura bera largokiago arranberritu izan zaion Abrahami, lainkoak erran ukan zerau-

kanean, ezen lurreko nazione guziak haren hazian benedikatuak izanen liradela: eta hunez erran nahi zuen, ezen Iesus Krist haragiaren araura Abrahamen hazitik ethorriko zela: eta haren benedikzioneaz eta reparuaz sanktifikatuak izanen liradela hura rezebituren luten guziak.

Manera berean eta hitz beretan Abrahamen seme Isaak-i ere kontinuatu izan zaion. Gero anhitz Profetaren testimoniajez eta anhitz aldiz denunziatu, arranberritu eta konfirmatu izan da promes hura bera: bai hanbaterano, non konfidanza eta seguranza handiagogarri, klaroki aitzinetik deklaratu izan baitzen, norenganik, zer denboratan eta zer lekutan Iesus Krist sortzeko zen, zer afliktione eta zer herio mota sufritu behar zuen, zer gloriatan resusziaturen zen haren resuma zerik izanen zen: eta bereak zer salbamendutara gidaturen zituen.

Lehenik Esaias Profeta baithan, nola Iesus Krist launa birjina bataganik sorthuren zen aitzinetik erran izan zen, lioela, Huna birjina izorraturen da eta erdiren seme batez, eta hari eritziren zaio Emmanuel. Moises baithan errana zegoen

zer denboraz, Jakob onak zioenean, Iudaren leinutik ezta eszeptroa edekiren, ez haren exerzitoaren gidaria, non igorteko dena igor eztadin: eta hura date jenden ustekaria eta esporzua. Eta haur hala berifikatu eta eriden izan da Iesus Kristethorri izan den denboran. Ezen Romanoek gobernamentu oroz Iuduak billuzirik hogeit hamar hamazazpi urtheren ingurunea aitzinetik, ordenatu ukan zuten Herodes haien gaineko rege, estranjer zelarik, Antipater Idumeakoaren Seme, eta haren ama zen Arabiako. Zenbeit orduz lehen ere gerthatu izan zen Iuduak rege gabetu izan baitziraden, baina egundano etziraden Konseiller, Gobernadore ez Lege ezarlerik gabe ikusi izan orduan bezala. Berze deskriptione bat ere egiten da Daniel baithan hirurogei eta hamar astezko kontuaren gainean. Mikeasek haren sortzeko lekua klaroki erakusten drauku, dioenean, Eta hi Bethlehem Efrata, ezaiz xipiena milla Iudakoan artean, hireganik ilkiren ziaitadak Israelen dominazale izanen dena: eta haren ilkitea duk eternitateko egunen hatseandanik. Eta gure delibrantzatan sufritu behar zituen afliktionez, eta gure redentionetan iragan behar zuen

herioaz den bezenbatean, Esaias eta Zakarias seinalatuki eta largoki minzatu izan dirade. Haren resurrektionekeo gloriaz eta haren resuma-ren kalitateaz, eta hark bere populuari ekarri behar zeraukan salbamendu gratiazkoaz Esaia-sek, Hieremiasek, bai eta Zakariasek betheki eta klaroki traktatu ukan dute. Eta lainkoaren Espirituaz konplitu izanik persona saindu hauek testifikatu eta deklaratu ukan dituzten promes haultan, lainkoaren haurrak eta elejituak repausatu eta konsolatu izan dirade: eta halaz hazi, sustengatu eta entretenitu ukan dute bere esperanza, launak prometatzen zerauenaren konplimendua-ren beha zaudelarik eta konplimendu hunen ikusteko desira ukan dute anhitz regek eta profetak: baina desir zutena begiz ezin ikusiagatik fedez eta espirituz konprehenditzen eta ardies-ten zutelarik. Eta are Mesias handi hunen ethortea desir handirekin berant esten zutenak, lainkoak manera oroz konfirmago litzanzat eman ukan draue bere Legea eskribuz, anhitz zeremonia eta anhitz purifikazione eta sakrifizio hartan konprehenditzen zelarik: eta hek guziak etziraden Kristen moienez ethorteko ziraden on han-

dien figura eta seignale baizen: ezen figura haien gorputza, egia eta konplimendu guzia Krist bera zen. Ezen Legeak ezin nehor perfektionetara hel ahal zezakeen: baina solament Krist erakusten zuelarik harengana nehor drezatzen eta gidatzen zuen: ezen S. Paulek dioen bezala, Krist zen xedea, fina eta konplimendu guzia. Halaber anhitz aldiz eta anhitz sasoin ez igorri ukan draue edozein Rege, Prinze eta Kapitain hek etsaien menetik delibraturik, bake onetan goberna litzatenzat, eta edeki izan zaizten gauzak rekrubaturik, haien resumaren triunfa eraziteko berze populu guzien artean haien balentiaz aipa eta lauda eraziteko: Mesias handi hunetarik rezebitzeko zituzten gratia mirakuluzkoetarik zerbeit gozo moien harzaz rendi erazi liezenzat, nola hura baithan desplegatu behar baitzen lainkoaren resumaren berthute eta puisanza guzia Baina denboraren konplimendua, eta aitzinetik lainkoak ordenatu ukan zuen terminoa ethorri izan denean, Mesias handi hanbat prometatu eta hanbat desiratu haur ethorri izan da: eta akabatu eta konplitu ukan du gure redentionetan eta salbamendutan behar izan den guzia. Eta hura

eman izan zaie ez Israelekoei solament, baina natione eta rejione orotako jende mota guziei, haren moienez natura humanoa lainkoarekin rekonzilia eta bake ledinzat. Eta gauza hauen deklarazale Iesus launak, nola bera baitzen fundament bakoitza ordenatu ukan ditu bere Apostoluak, eta mundu unibersoan bere gratiaren publikatzeko kargu eta manamendu eman ukan draue. Gero Apostoluek bere karguaz bidezki eta konplitu ki akita eta deskarga litezenzat, eztute bere enbaxadoregoaren ahozko predikationez exekututzen pena eta dilijentia ezarri ukan solament: baina are Moisesen eta Profeten exenplura predikatzen zuten doktrinaren memoria behiereko utzi lezatenzat, eskribuz ere hura ezarri eta utzi ukan dute: eta bere eskribuetan deklaratu ukan dute lehenik Iesus Krist gure launak gure salbamendukotzat egin eta sufritu ukan duena: gero erakutsi ukan dute hark zer montatzen duen, eta hartarik zer probetxu rezebitzen dugun, bai eta zer molde z hartzeko eta aplikatzeko dugun. Eta somario haur guzia deitzen da Testamentu berria: eta berri deitzen da Testamentu zaharraren respektuz: eta zaharra, berri-

ra raportatu eta itzuli behar zen bezenbatean, bere baithan infirmo eta inperfekt zen: harren iragan eta abolitu izan da figura baizen etzen bezenbatean. Baina haur da berria eta eternala, eta hunetako Arartekoa Iesus Krist denaz geroz, iagoitik zaharturen ez faltaturen eztena, ezen hark ratifikatu eta konfirmatu ukan du bere herioaz, eta herio harzaz beraz leheneko Testamentuaren azpian restanza gelditzen ziraden transgresione guzien barkamendua betheki konplitu ukan du. Eskripturak Testamentu berri haur Ebanjelio ere deitzen du, zein erran nahi baita hanbat nola berri ona eta alegera: zeren hunetan erakusten eta deklaritzen baita, nola Iesus Krist lainko biziaren Seme bakoitza naturala eta eternala, lainko bere Aitaren adoptionezko haur gu egin genzanzat, gizon egin izan den. Hura da bada gure Salbadore bakoitza, eta hura baithan dugu osoki eta konplituki gure redentione, bake, iustitia, sanktifikazione, salbamendu, bizitze eta izate guzia: hura hil izan da gure bekatuakgatik, resusztatatu gure iustifikazioneagatik, igan izan da zeruetara guri han sartzeko entrada egitera, guretako eta gure izenean posesione

hartzera, bethi bere Aitaren aitzinean gure Adbo-
kat eta Sakrifikadore anzo asistitzera: haren
eskuinean da iarria Rege anzo, gauza guzien gai-
neko laun eta labe ezarri izanik, bai zeruan bai
lurrean gauza guziak repara litzanzat. Eta ez Ain-
geru ez Patriarka ez Profeta, ez Apostolu guziek
gauza hautarik batre ezin egin ahal zukeiten:
eztirade hartakotzat lainkoaz ordenatu izan. Eta
nola Testamentu zaharrean anhitz Profetaren
testimoniajez, anhitz aldiz Mesiasa prometatu
izan baitzen: halaber testimoniaje segurez eta
gerthuz deklaratu izan da Iesus Krist zela Mesias
hura, eta ez berzerik: eta hura zela ethorri behar
zen hanbat desiratua. Ezen lainko launak bere
bozaz eta Espirituaz, bere Aingeruez, Profetez
eta Apostoluez bai eta bere kreatura guziez han-
bat konplitu ki zertifikatu eta seguratu ukan
gaitu, non nehorere lainkoaren puisanza klaroki
manifestatuaren eta deklaratuaren kontra iakia-
ra alxatzen lizela eta hari resistitzen leraukala
baizen ezin kontrasta bailaite. Lehenik lainko
eternalak bere boz propiaz (baita dudarik batre
gabe egia reboka ezin daitena) testifikatu ukan
drauku, zioela, Huna ene Seme maitea zeinetan

hartzen baitut neure atsegin ona huni beha zakizkiote. Espiritu sainduak ere testifikatzen drauku guri zein gure bihotzetan S. Ioanek dioen bezala. Halaber Aingeru Gabrielelek, Maria birjinari harengana igorri izanik, erran zeraukan, Horra konzebituren dun eure sabelean, eta erdiren aiz seme batez, eta deithuren dun haren izena Iesus: ezen hura izanen dun handi, eta eritziren ziaion subiranoaren Seme: eta emanen diraukan lainko launak bere Aita Dabid-en thronoa: eta regnaturen din Iakob-en etxearen gainean eternalki, eta haren resumaren finik eztun izanen. Mandatalgoa haur bera sustantiaz egin izan zaion Iosefi: halaber artzainei ere erran izan zaienean, nola Salbadorea sorthu izan zaien zein baita Krist launa: eta etzen Aingeru batez ber ekarri izan berri haur, baina aprobatu ere bai Aingeruezko konpainia handi batez, eta hek guziek eman ziezoten gloria launari: eta deklarazaten bakea lurrean. Simeon iustoak ere profetiazko espirituz haur bera klaroki eta goraki ezagutu eta aboatu ukan du: ezen haurra besoetan zadukala erran ukan zuen, launa, orain uziten duk eure zerbitzaria eure hitzaren araura

bakez: ezen ikusi die ene begiek hire salbagarria, zein preparatu baituk populu guzien begit-harte aitzinean. Ioanes Baptista ere, zakusanean Jesus harengana ethorten zela Iordanean, bide bezala minzatu izan zen, zioela, Huna Iainkoaren Bildotsa, munduaren bekatuak kenzen dituen. Apostoluek ere aboatu, predikatu eta testifikatu ukan dute, nola gure salbamendutako behar zen guzia, eta aitzinetik Profetez erran izan ziraden gauka guziak konplitu izan diraden Jesus Krist Iainkoaren Seme egiazkoan. Eta launak gure denborarano tzstimonio izateko ordenatu ukan zituenek ere halaber irakatsi ukan dute bere eskribuez, irakurzalek klaroki ezagut ahal dezaket bezala. Testimoniaje hauk iunktatzen eta bardinzen dirade guziak hanbat ungi eta xuxenki, non hain konformitate handitik ageri baita klaroki, ezen erran den guzia segur dela eta egiazko: ezen ezlizate posible gezurrean hunelako konsentimendu bat eta konformitate bat ahal lizaten. Baina are ez solament Aitak, Semeak, Espiritu sainduak, Aingeruek Profetek eta Apostoluek ekarri ukan dute Jesus Kristez testimonia-jerik asko, baina haren obra berek ere erakusten

dute haren berthute guzizko exzellenta eta mirakuluzkoa. Eriek, mainguek, itsuek, gorrek, mutuek, paralitioek, sorhaioek, lunatikoek, demoniatuek, bai eta harzaz resuszitu izan diraden hilek ere asko seignale klarorik eman ukan dute Jesus Kristez: berzalde, hura bere berthutez resuszitu izan da, bere izenean bekatuak barkatu ukan ditu. Eta hunetarakotz etzuen kausa gabe erraiten, ezen asko testimonio on zituela bere Aitak egitera eman zerautzan obrak. Are gehiago, gaixtoak eta haren gloriaren etsai berak ere egiaren klaretateaz benzutu izanik bortxatu izan dirade anhitz gauzaren konfesatzera eta aboatzera, hala nola, Kaifas, Pilate, haren emaztea eta anhitz berzerik. Ezta zertako nehork hemen deabruen ez espiritu satsuen testimoniajerik allega dezan, Jesus Kristek berak haien testimoniajea iraitzi ukan duenaren gainean. Bada, hitz gutitan erraitera, elementek eta kreatura guziek Jesus Krist launari gloria eman ukan draukate. Haren manura haizeak zesatu izan dirade, itsaso gaiztua ematu, arrainak bere sabelean didrakma ekarri, harriak hari testimoniaje ekartera urratu izan dirade, tenpleko bela

artetik erdiratu, iguzkia ilhundu, monumentak ireki, eta anhitz gorputz resusztatatu. Eta ezta deus izan ez zeruan, ez lurrean Iesus Krist bere lainko bere laun bere labe ezagutu eta aboatu eztuenik eta hura dela salbamendu humanoaren egitera lainko Aitak huna beherera igorri ukan duen Enbaxadore handia. Gauza hauk guziak deklaratu, erakutsi, eskribatu eta signatu izan zaizkigu Testamentu hunetan, zeinez Iesus Kristek bere lainko Aitaren resumako heredero egiten baikaitu eta testamentu egiten duen batek bere herederoei bezala, bere borondatea deklaritzen drauku obratan ezar dezagunzat. Eta guziak deitzen gara heretaje hunetara pertsonetako akzeptionerik ez konsiderationerik batre gabe, arra ala emea, xipia ala handia, zerbitzaria ala nabusia, majistrua ala diszipulua, bereterra ala laikoa. Hebraikoa ala Grekoa, Franzesa ala Latina igorten zaiona egiazko konfidanzarekin rezebituren duenik, ez presentatzen zaiona besarkaturen duenik batre ezta arbuiatzen ez iraitzen denik: eta labur erraitera, bere Aitaz emaiten den anzora Iesus Krist ezaguturen, aboaturen eta rezebituren duenik batre ezta iraitzi-

rik izanen. Bada hain zinez eta hain zudu handiaz guziei bardinzki dohakunaz geroz eta guziak Kristino estimatzen garenaren gainean, sufrituren dugu hain iustoki eta hain zuzen onez guziei bardin apartenitzen zaikun Testamentu konplitu haur edeki, estal, korrunki edo ezezta dakigun? Helas, Testamentu haur gabe, lainkoaren resuman parterik ez ikustekorik batre ezin dukegu: haur gabe, Iesus Kristek egin drauzkigun on handiez eta promesez, bai eta hark preparatu draukun gloriar eta dohainontasunaz eskaz eta ignorant gelditzen gara: haur gabetarik ezin dakikegu zer lainkoak manatzen draukun ez zer defendatzen: haur gabetarik, ona gaixtotik, ez klareta ilhunetik, ez lainkoaren manamenduak gizonen ordenanzetarik ezin diszerni ez berez ahal ditzakegu. Ebanjelioa eta haren ezagutzea gabe, guziak gara inutil eta bano: Ebanjelioa eta haren ezagutzea gabe kristino ezin garate: hura gabe abarastun guzia paubrezia baizen ezta eta gizonen zuhurtzia guzia, erhogoa lainkoaren aitzinean: eta puisanza guzia, flakatasun: eta gikonen aitzinean iustifikagarri dena, lainkoaren aitzinean kondemngarri. Baina Ebanjelioaren

ezagutzeaz, lainkoaren haur egiten gara, eta Jesus Kristen haurride, sailduen burjeskide, zeruetako resumako habitant, lainkoaren herederok Jesus Kristekin. Eta Ebanjelioaren ezagutze hunez paubreak, abrats bilhatzen dirade: flakuak, boheretsu: erho estimatuak, zuhur: bekatoreak dirade iustificatzen, desolatuak konsolatzen, dudan zeudenak segurutzen, suiektionean ziradenak libertatean iarten. Ebanjelioa da bizitzeko eta egiazko hitza: hura da lainkoaren puzantza, sinhesten duten guzien salbatzekotzat: hura da lainkoaren eszientiazko gako zeruetako resumako bortha fidelei, bekatutarik laxatzen dituelarik, irekiten drauena, eta sinhesterik eztutenei, beren bekatuetan estekatzen dituelarik, ersten drauena. Dohatsu dirade hura enzuten eta begiratzen duten guziak, ezen halaz erakusten dute lainkoaren haur diradela? Baina maradizatu dirade hura enzun nahi eztutenak eta hari iarreiki nahi etzaizkonak, ezen halaz erakusten dute beabruarenak diradela. O Kristinoak, adi othoi hemen, eta ikas ezazue, ezen segura da, ignoranta bere ignorantiarekin galduren dela, eta itsuari iarreikiten zaion itsua, bere itsu-aitzi-

nekoarekin batean hobira eroriren dela. Ezta bide bat, egia bat bizitze bat eta salbamendu bat baizen, eta hura da fedea eta lainkoaren promeszeko seguranza, baina hura nehork ezin duke Ebanjelioa gabe, haren enzutetik eta intellijentiatik fede bizia emaiten da esperanza segurekin, lainkoa baitharako karitate perfektorekin, eta hurkoa baitharako amorio egiazko batekin. Non dela bada, edo zertan dela erran ahal daite zuen esperanza, baldin Ebanjelio saindu hunen enzuteaz, ikusteaz, irakurtzeaz eta memoriotan harturik obratan ezarteaz errekeiturik ez konturirik egiten ezpaduzue? Mundu hunetako traktuetan bere afektioneak ezarten dituztenek, eriden edo pensa ahal dezaten moien oroz ez gorputzik ez onik batre gupida eztutelarik, bere borondate pausatuaren iragaiteari eta konplitzeari darreitzza, eta guzia, begi erts-ireki arte baten seguranzarik eztuen gorputz miserable eta gaixo hunen zerbitzatzeagatik Eta damnatione eternalaren menetik ilkirik bizitze eternalaren ukaiteko eta sekulakotz zeruetako resuman heretatzeko moiena Ebanjelioan irakasten zaikunaren gainean, hain erraxki ahal daidigularik, denbora

duguno, hain inportantia eta mengoa handitako Ebanjelio, huni iarreikiteaz eta behatzeaz erre-keiturik eztugu eginen? Mundu hunetan bizi beharrezko moien xipitako ofizioetan ere, bada-kusagu zenbat denbora eta zenbat pena nehork ezarten duen: eta estatu handiagotako nahi dira-denak, anhitz denbora eta on despendatzen dutelarik, gau eta egun tormentatzen dirade nondik mundu hunetako eszientia haize eta lanho baizen eztiradenetan abanza ahal daitez-keen. Eta gu zenbatez zinezago enplegatzeko gara lainkoak bere Ebanjelio saildu hunetan rebelatu eta deklaratu drauzkigun misterio eta sekretu handi hautako ezagutzearen ukaiten? Eri denak edo zenbeit atxakia gorputzean duenak, enzun ez pensa ahal dezan remediartzeko moie-nik eztu enseiatu gaberik utziten: eta gure ari-metako eritasunen eta atxakia handien senda-tzeko eta remediartzeko moien bakoitza, eta behar dugun on guziaren konplimendua Ebanje-lioan presentatzen baitzaiku, hain behar handian eta ondikozkoan notxalent eta ansikabe izanen gara? Ez segur, lainkoaren diradenak. Ezen ezta deus Ebanjelio saildu hunetarik lainkoaren hau-

rrak erauz, ez harzara ez urrund ahal ditzakenik: ez gaitzesi edo menospreziatu izatek: ez eskar-niok, ez mundu hunetako onen eta ohoren galtzek. Badakigu bide haur bera dela Jesus Krist launa iragan den bidea, haren diszipulu nahi bagara, hari iarreiki behar gaitzaitza: eta Ebanjelioari iarreikiteagatik gizonez iniuriatu, menospreziatu, gaitzerran eta iraitzi izatea, etzaiku gaitzi izateko ez eztugu refusatzeko, lainkoaren iujemenduan ohoratuak prezatuak eta glorifikatuak izanen garela seguranza emaiten zaikunaren gainean. Bada ezagutze hunetarik gibeleratzeko gaitu persekutionek edo azotatu eta iraitzi izatek edo abastasunen edo onhasunen galtzek? Ez: ezen badakigu gu herri batetarik iraitziak izanagatik launarena dela lurra: eta lur guzitik iraitziak garen orduan ere, alabaina lainkoaren resumatik ezgarela iraitziak izanen: eta pillatuak eta paubretuak garen orduan ere, Aita bat badugula gure hatzeko asko abratsik segur gara: eta are Jesus Krist paubre egin izan dela haren paubre izateari patientiarekin iarreiki gakitonzat. Bada seguranza hunetarik aldaraturen gaitu afliktionez presoindetik, estiratu izatek,

edo berze tormentak? Ez, ezen badakigu haur dela Iesus Kristen exenplura lainkoaren haurren gloria eternalera heltzeko bidea, eta eztela heriorik ere egiazko bizitzea edeki ahal diezakegunik. Ezta zer, Iesus Kristo launa bethi iabeturen zaizu promes draukun bezala, ezen seguratzen gaitu munduaren finerano gurekin izanen dela, eta hura gurekin denaren gainean, ezin hel daki-digu hain munduko egitate gaitzik ez malediktio-ne handirik, non gure probetxutan benedikatua eta sanktifikatua ezten, ez hain gaitz handirik, non gure emendiotan ea gure hobeagoatik ezten. Ezgaitzela bada deskonforta, mundu guzia bere bothere eta indar ororekin gure kontra altxatua ikus genezan orduan ere: ezen promesak ezin falta daidi, zeinetan erraiten baitzaiku ezen launa garaitik trufaturen dela, haren kontra altxaturen diraden biltzarre eta enseiuguziez. Eta lainkoaren zerbitzari egiazkoak gure begien aitzinean esteiari hiltzen edo martiritzen dakuskigunean ere ezgaitzela, esperanza guzia galdu baliz bezala, deskonsola: ezen latinez lehen eskribatu duen doktor kristinoetarik batek, Tertulianek, egiazki erran ukan duen

bezala, Elizaren aitzinaratzeko eta abanzatzeko hazia lainkoaren hitzaren sustengatzeagatik hiltzen diraden Martirioen odola da: eta hala bethi forogatu izan da, eta munduaren finerano hala izanen ere da. Are badugu konsolatione handiago bat eta fermuago bat ere, eta hura da, mundu hunez etsirik, eta gure espirituko begiak ikus ahal daitezkeen gauza orotarik retiraturik, gure afektione prinzipal guzia sekulako izate gloriakoan sosega eta pausa dezagun, bethi patientiarekin lainkoaren iujemendu handi, gizonen entrepresa guziak moment batez berzaldera itzuliren dituenaren beha gaudelarik. Haur izanen da, lainkoaren resuma orain esperanzaz dakusaguna, klaroki manifestaturen denean: eta Iesus Krist munduaren iujeatzera bere maiestate handian bere Aingeruekin agerturen denean. Orduan itzurterik batre gahe Rege handi hunen throno iudizialaren aitzinean konparitu behar ukanen dute on eta gaixto guziek personalki. Eta Testamentu hunetan fermu egon diratenak, eta lainko Aitaren borondatearen, begiratzen enplegatatu diratenak, izanen dirade eskuineko aldean egiazko haur anzo, eta rezebituren dukeite ukan

dukeiten fedearen fina, baitate salbamendu eternala. Eta nola Iesus Kristo eta haren doktrina menospreziatzen zirela zakuatenean ez tirate haren aithortzera eta konfesatzera ahalke izan, hala partizipante ere izanen dirate haren glorian, eta harekin batean eternalki koroatuak, Baina Ebanjelio saindu haur menospreziatu eta iraitzi dukeiten gaixto desobedientak eta reprobatuak: halaber, bere ohoren, abastasunen eta estatu handien entretenitzeagatik, Iesus Kristekin humiliatu eta beheratu nahi izan ez tiratenak: eta gizonen beldurragatik lainkoaren beldurra utzi ukan dukeitenak, Aita egiazkoaren desobedient eta bastard anzo, izanen dirate ezkerreko aldean eta, iraitziren dirate malediktionetara, eta bere desleialtatearen rekompensamendutan rezebituren dukeite damnatione eternala. Orain bada othoi, Kristinoak aditzen duzuenaz geroz, nola Iesus Kristek presentatzen drauzuen bere Ebanjelioa, zeinetan baita lainkoaren promes eta gratia guzien konplimendua, deklaritzen drauzuelarik nola bere Aitaz igorririk lurrera iautsi izan den, eta gizonen artean konbersaturik, aitzinetik haren Legean eta Profetetan erran izan zen

bezala, nola gure salbamendutako behar izan den guzia konplitu ukan duen, segur baino segurago izateko zarete, ezen Ebanjelioan paradisu-ko thesaur guziak zabaltzen eta irekiten zaizkiuzela, eta lainkoaren on handiak despleгатzen, bai eta bizitze eternala erakusten eta emaiten.

Ezen haur da bizitze eternala, lainko egiazkoaren beraren eta Iesus Krist hark igorri duenaren ezagutzea: Iesus Krist haur baithan ordenatu ukan drauku lainkoak gure salbamenduaren hatsea, artea eta fina. Haur da bere Aitaren seme maite sakrifiziotan Isaak sakrifikatua, eta halere ezpaita herioaren puisanzaren meneko gelditu izan. Haur da begiraz dituen ardigura handia duen Iakob artzain iratzarria. Haur da bere gloria guziarekin bere anaie baxoen eta on-beharren ezagutzea eta rezebitzea laido izan etzaion Iosef anaie gogabera eta ona. Haur da bethierekotzat behingoaz sakrifizio egin ukan duen Melkisedek Sakrifikadore eta Ipizpiku handia. Haur da bere Legea gure bihotzezko tauletan bere Espirituaz eskribatzen duen Moises Lege-ezarle subiranoa. Haur da lur prometatura gure gidatzeko Kapitain eta Gidazale Iehosuak

fidela. Haur da puisanza desobedient guzia bere
suiektionera erekartan duen Dabid biktoriosoa
eta noblea. Haur da bake eta prosperitate one-
tan bere resuma gobernatzen duen rege Sala-
mon triunfanta eta magnifikoa. Haur da bere
herioaz bere etsaiak akablatu eta desegin dituen
Sanson erskona eta berthutetsua. Eta gehiago
dena, Iesus Krist haur baithan berean erideiten
da nehork pensa edo desira ahal lezakeen on
guziaren konplimendua. Ezen haur humiliatu eta
beheratu izan da, gure exaltatzeagatik eta gora-
tzeagatik: suiet egin izan da, gure libertatetan
ezarteagatik: paubre egin izan da. gure abra-
tseagatik: saldu izan da, gure redemitzeagatik:
kaptibo egin izan da, gure delibratzeagatik: kon-
demnatu izan da, gure kondemnationetarik ido-
kitateagatik: malediktione egin izan da, gure bene-
dikatzegatik: bekatuen kausazko sakrifizio egin
izan da, gure iustificatzeagatik: desfiguratu izan
da, guri itxura emaitagatik: hil izan da, guri bizi-
tze ligunzat. Halako maneraz non hunen beraren
moienez izan baita gogorgoa ematu, haserreta-
suna amatigatu, ilhuna klartu, iniustitia iustifika-
tu, flakeza indartsutu, deskonfortua konfortatu,

bekatua enpatxatu, menosprezioa menosprezia-
tu, beldurra aseguratu, zorra kitatu, nekea aise-
tu, trailla arindu, tristitia alegeratu, maledik-
tionea benedikatu, ezina erraxtu, desordrea
arengatu, zathitua unitu, laidoa anoblitu, deso-
bedientia asuietitu, mehatxua mehatxatu,
enbuskada enbuskatu, garaita garaithu, bortxa
bortxatu, konbata konbatitu, mendekioa mende-
katu, tormentua tormentatu, damnationea kon-
demnatu, abisimea abismatu, ifernua enferratu,
herioa heriotara eman, mortala inmortalitu: eta
labur eraitera, hurrupatu eta iretsi ukan du mise-
rikordiak miseria guzia, eta ontasunak dohaka-
betasun guzia. Ezen gure kontra konbatitzeko
deabruaren harma eta gure kontra kolpatzeko
herio ezten ohi ziraden gauza guziak Iesus Kris-
tez egin izan zaizkigu, gure probetxua ahal dai-
dikegun bezalako exerzitio: halako manieraz non,
glorifika ahal baikaitezke Apostoluarekin, diogu-
la, O ifernua, non da orain hire biktoria? o herioa,
non da hire eztena? Bada elejitu guziei prometa-
tu izan zaien Kristen Espiritu hunetarik heldu da,
ezpaikara gu gehiagorik bizi, baina Krist bizi
baita gutan, eta espirituz ia oraindik iarriak

baikara zeruetan diradenen artean, mundua gehiagorik mundu etzaikun bezenbatean, hartan oraino konbersatzen badugu ere, baina kontentamendu dugularik gauza guzietz, herriz, lekuz, bizitzeko konditionez, habillamenduz, biandaz eta berze hunelako gauzaz: ezagutze hunekin konfortatuak erideiten gara tribulationean, alegera tristetan, dohatsu gaitzetsiak eta menospreziatuak garenean abundos eta bihotz onetako, paubrezian eta peituan: finean bizi erideiten gara herioan ere. Bada hitz gutitan erraitera, guzaz onik izatekotz, Eskriptura guzian dilijentki bilhatu eta eriden behar duguna da. Iesus Krist gure launa, eta haren moienez lainko Aitaz presentatzen eta emaiten zaizkigun on gratiazkoak eta konplituak ungi eta egiazki ezagut ditzagun. Ezen nehork Legea eta Profeta guziak ungi mira eta konsidera ditzanean, eztu eridenean hitz bat ere hunetara beha eztagoenik eta hunetara gidatzen ezgaituenik. Bada intellijentiatako eta zuhurtziatako thesaur guziak Iesus Krist launean gordeak diradenaz geroz eztugu zertako berze, xedetara buru dagigun, baldin gure nahi propiz iakiara eta dakusagularik, egiazko argitik aldara-

turik eta erauzirik, gezurrezko ilhunbeari, gure damnationetan iarreiki nahi ezpagaizkio. Eta hunetakotzat dio S. Paulek ezen eztuela deus iakitera ez ezagutzera estimatu ukan Iesus Krist baizen, eta hura kruzifikatua. Ezen haragiaren opinioneari ezagutze hunen beharkia gauza komuna eta gauza baxoa dela iruditzen bazaio ere, halakoa da, non asko baita eta merezi baitu, gure mende guzia hartara gogoatuki aplikatu dezagun. Eta eztukegu gure denbora galdu, gure adimendu eta afektione guzia hartan probexatzen eta abanzatzen enplegatzen dukegun orduan. Lainkoaren ezagutze egiazko haur hain konplimendu handitako denaz geroz, hunen egiazki ukaitea baizen, gure arimen doktrina espiritualarenzat, zer berzerik mundu hunetan desira ahal genezake? hunez lainkoaren imajinara transformatzen garela, eta haren iustotasunean partizipatu egin izanik, haren irudi gloriuzkoa gutan inprimitzen dela, eta Iesus Kristen moienez haren haur eta heredero eginik zeruetarako resuma konplutuki posedituren dugula seguratzten garenaren gainean? Bada egundanoz geroztik lainkoa bethi ezagutzera eman izan da

eta kontenplatzera: baina guzietako klarokiena
Jesus Kristen begithartean. Harren ezta sori lain-
koak eman draukun moien hunetarik den gutie-
na ere aldara ez erauz gaitezten. Baina da guziz
nezesario gure adimendua bere ahal guziaz
Eskripturan arrasta eta funda dadin, ikas deza-
gunzat Jesus Krist launaren, gure remedio bakoit-
zaren ezagutzen, harzaz lainko Aita perfektione
guzia bera baithan duenagana gida gaitezentzat
ezen hura da bidea, egia eta bizitzea, nehor ezta
haren moienez baizen Aitagana ioaiten. Bada
berriz erraitera, huna non konsistitzen den seku-
la hunetan gizonak konprehendi ahal dezaketen
eta ikasi behar duten sapientia: zeini ez Ainge-
ruk ez gizonak, ez hilek ez bizik ezpaitrauka deus
eratzekiteko ez edekiteko. Haur da bada xedea,
non gure adimendua arrastatu eta pausatu
behar baitugu, deus hunekin guretik nahasteka-
tu gabe, ez eta huni eratzeki lekidion doktrinarik
batre rezebitu gabe. Ezen gure salbamenduko
beharkian, hunetan irakasten zaikunaz berzalde
sillaba baten ere irakastera iarten lizatena,
behar da maradikatutan eduki lainkoaren eta
haren Elizaren aitzinean.

*TESTAMENTU ZAHARRAK
eta berriak irakasten draukuten
guziaren somarioa.*

Testamentu zaharreko liburuek irakasten gaituzte ezen Adamek, Noek, Abrahamek, Isaak-ek, Jakob-ek, Dabid-ek eta berze gure Aitek adoratu ukan duten lainkoa, dela egiazko lainko bat bera, bothere guzitako eta eternal: bere ontasun handiagatik zerua eta lurra eta hetan diraden gauza guziak bere Hitzaz kreatu dituen, zeinaganik gauza guziak heldu baitirade, eta hura gabe deusek izaterik eztu. Zeinek egiten baitu iustitia eta miserikordia, baieta goitiko gauza guziak gauza guzietan eta leku guzietan, berak plazer duen bezala. Eta ezta nehor hain ausartik izateko, non hari derron, zergatik egiten duena, hunela edo hala egiten duen.

Gehiago, liburu hek deklaratzan draukute, nola lainko guzizko gorak eta bothere guzitakok, berze gauzak kreatu zituen ondoan, kreatu ukan zuen Adam lehen gizona, bere irudi eta imajina espiritualera, hura egiten zuelarik gauza

guzien iabe lurrean. Baina deabruaren inbidiaz eta enganioz desobedientiatan eror zedin Adam bere Kreazalearen manamenduaren iragaitez eta haustez: eta bere bekatuaz halako kotsua eta pozoina mundura eman ukan du, non haren arrazatik heldu garen guziok gure naturaz lainkoaren hiraren eta punitionearen digne baikara: herioaren eta damnationearen suiet, eta deabruaren tiraniaren eta botherearen meneko egin izanik.

Halaber, liburu noble eta exzellent hetarik ezagutzen dugu, nola lainkoak lehenago prometatatu ukan zerauen Adami, Abrahami, Isaak-i, lakob-i, Dabid-i, eta anhitz berze lehenagokori, ezen igorriren luela dohain onezko hazia, Iesus Krist bere Seme gure Salbadorea: eta hark delibraturen eta idokiren lituela bekatutarik eta deabruaren tiraniatik eta suiektionetik, fede biziz eta obratzen luen sinhestez promes hek sinhetsiren lituzten guziak, hura baithan berean ezarten lutelarik bere konfidanza eta esperanza guzia, eta prometatu izan zaien bezala delibraturen eta libertatetan ezarriren ere baliradela.

Gehiago liburu hek aditzera emaiten draukute eta irakasten gaituzte nola lehenagoko Aita Israelitak, prometatu izan zaien delibrantzaren begira zeuden bizkitartean (zeren gizona baita hanbat natura fierretako eta korrupitutako, non ezpaitu bere burua hain bekatore ezagutu nahi non Redenptore prometatuaren behar den) lainko launak eman ukan zuen bere Legea Moisesez, bi harrizko taulatan eskribatua: harraz gizonak ezagut lezatenzat zer den bekaturia eta gizonaren bihotzeko eta gogoko malitia eta gaixtatasuna, halatan afektionatukiago eta ondikoizago Iesus Kristen ethortea desira lezatenzat, hark bekaturaren menetik delibra eta redemi litzanzat, Legeak ez Legeko sakrifizioek ezin zitzakeiztenaz geroz, ezen hek deus etzuten zerbitzatzun Iesus Kristek bekaturaren abolitzeko eta iraungiteko bere gorputz propriaz egin behar zuen egiazko oblatio-naren representatzeko baizen.

Testamentu berriko liburuez den bezenbatean, hek aditzera eta ezagutzera emaiten draukute, nola Iesus Krist Rege eta Mesias handi prometatu izan zena (zein baita lainko egiazko gauza guziaren gainetik laudatzekoa) Testamen-

tu zaharreko liburuetan figuratua eta representatua, nola azkenekotz haren Aitak bere baithan ordenatu eta arrastatu zuen denboran mundu hunetara igorri ukan duen: baitzen inikitate eta gaixtakeria guziak regnatzen zuen denbora. Bada Iesus Salbadorea igorri izan da, eta haragi humano harturik, eta herio eta pasione iraganik resusztatua izan da: ez nehork egin ahal litukeen obra onen kausaz (ezen guziak ziraden bekato-re) baina bere erranetan eta eginetan bethiere egiati den lainkoak bere gratia prometatu zuenaren abراساتun handiak eman lietzagunzat, eta bere miserikordiaz salba genzanzat.

Bada Testamentu berrian klaroki erakusten zaiku, nola Iesus Krist egiazko Bildotsa, eta gizonen bekatuak edekiten dituen egiazko oblatio-nea, ethorri izan den bere Aitaren eta gure artean bakearen egitera, eta harekin gratiatan eta amoriotan gure ezartera: gure bekatuak bere odolaz ikuzirik eta garbiturik, eta gu deabruaren suiektionetik delibraturik eta idokirik adopta eta lainkoaren haur egin genzanzat, eta bere Aitaren Resuma zabaleko eta konplituko herederokide berekin egin genzanzat.

Eta lainkoak egin drauzkigun on handi eta exzellent hauk ezagut ditzagunzat, emaiten drauku bere Espiritu saindua, zeinek sinhets eraziten baitrauku lainko Aita baithan, eta hark igorri duen Rege eta Mesiasa baithan. Ezen segur, Espiritu sainduaren operationea gabe (zeinek instruitzen eta sinhesten dugun gauza guziaz zertifikatzen eta segurutzen baikaitu) ezin sinhests genezake nola Mesiasa igorri ukan duen lainkoak mundu hunetara, ezeta nola Mesias hura Iesus den. Ezen S. Paulek erraiten duen bezala, Nehork ezin egiazki konfesa dezake, Iesus lainko eta laun dela eta hark salbatzeko botherea duela, baldin Espiritu sainduaren moienez eta inspirationez ezpada. Espiritu hunek berak testifikatzen eta sinhests eraziten drauka gure espirituari, ezen lainkoaren haur garela, eta erausten eta zabaltzen du gure gainera S. Paulek Korinthianoetarako epistolan eskribatzen duen karitate eta amorio handia. Fediaz eta karitateaz berzalde, Espiritu hunek berak emaiten drauku esperanza ukaiteko berthutea, baita seguranzarekin bizitze eternalaren eta sekulakoaren begira egoite bat, eta bizitze hartako segu-

ranza emaiten drauku, prestuzko beharkian bahi on batek seguranza emaiten duen anzora: eta anhitz berze dohain eta gratia espiritual ere emaiten drauku S. Paulek Galatianoetarako epistolari erraiten duen bezala. Bada fedearen fruktua eta irabazia ezta guti estimatzeko, ez berthute xipitako: ezen Iesus Krist launa baithara dugun fedeaz (zein karitatezko obrez erakusten baita, hartara nehor inzititzen duelarik) iustifikatzen eta sanktifikatzen gara: erran nahi da, ezen lainkoak, Iesus Krist gure launaren Aitak (zein gure Aita ere baita, Iesus Kristez egin izan zaikun adoptionearen kausaz) bere gratia puragatik eta ontasunagatik iusto eta saindu gadutzala Iesus Krist bere Seme gure launaren mereziaren eta satisfakzioaren berthutez, gure bekatuez estimationerik ez konturik batre egiten eztuelarik, eta haien kausaz eta respetuz herio eta pena eternalera kondenatzen ezgaituelarik.

Gehiago, ethorri izan da mundu hunetara Iesus Krist, harzaz eta hartan hure bekatuetarik purgaturik eta sanktifikaturik, ungi egiteko exemplu hura baithan har genezanzat, haren boron-

dateari iarreikiz, obra onik eginez, haragiaren obra eta egitate guziez renuntiatuz, eta gogo eta borondate prest eta deliberatu batez launa, berak manu bezala, zerbitzatuz, gure bizi guzian iustoki eta sainduki gure izatea iraganez: gu iaio gabe lainkoak guzaz eginen ziradela preparatu eta ordenatu zituen obra onez bethi erakusten dugularik ezen fedezko gratia eta dohain hunetara deithuak garela. Eta obra on hauk egiten eztituenak, erakusten duke klaroki, ezen eztu-keela hark Iesus Kristek gutarik batbederaganik galdegiten duen fedea.

Salbadore hunegana bada ioan eta retiratu behar gara, huni bihotz on eta libre batez iarreiki behar gaitzaitza, irakats gaitzanzat: ezen hura da gure Majistrua eta labea emerik eta gogaberarik, baieta gure exenplua eta patroina, harenaganik ungi bizitzeko manera ikasi behar dugu.

Eta berzalde, hura da gure arimen Ipizpikua eta Pastora, hura da berak bere borondate propioz guregatik bere odola isuri duen Sakrifikadore handia, lainkoaren eta gure arteko Arartekoa eta bake ezarlea, lainko Aitaren eskuinean iarria dena, gure Adbokat eta Ararteko guregatik inter-

zeditzen eta othoitz egiten duena: eta gauza segura eta gerthua da, berak seguratu eta irakatsi gaituen bezala, ezen hark bere Aitaganik inpetraturen duela, zerere hari berari edo haren izenean haren Aitari eska bagakitza, baldin eskez gaudenean sinhesten badugu, hala eginen draukula: ezen hala promes drauku eta bere hitzaren labe da. Bada bekatutan eror bagaitez, eztagigula dudarik egiazko dolurekin (zeinetara bere predikationen hatseandanik Iesus Kristek gomitatzen eta exhortatzen baikaitu) eta egiazko federekin throno realera ioaitera, non hura baita iarria, ez rigorez usat dezanzat, baina eskaturen diradenei gratia dagienzat: eta halatan miserikordia eginen drauku: ezen hura ethorri izan da mundura, bere gratiaz bekatoreak salba ditzanzat.

Iesus Krist haur bera da bere Aitaz determinatu eta ordenatu izan zaion denboran, ethorriren ere dena, eta bere thronoan maiestate handirekin iarririk, gizon guziak iujeaturen dituena, eta batbederari ungia bada gaizkia bada, egin dukeenaren araura rendaturen draukana. Eta bere eskuinekoei, bizitze eternalaren begira

egon diratenei, erranen draue, Zatozte, bizitze eternalaren ukaiteko ene Aitaz elejitu izan zaretenak, har ezazue posesione munduaren kreatio-netik preparatu eta asignatu izan zaizuen resuman. Eta berzaldera, haren ezkerrean diratenei, erranen draue, Parti zaitezte eneganik, kreatura maradikatuak eta reprobatuak, eta zoazte deabruari eta haren aingeruei prest eta paratua dauen su eternalera. Eta orduan date munduaren fina, Iesus Kristek bere etsai guzien gainean biktoria ukanik, Iainko bere Aitari, orain harenganik dadukan resuma rendatu eta eman draukeon.

Eta erran diraden gauza hauk ezagut ditza-gunzat, Iainkoaren borondate ona izan da, haren Espiritu sainduaz eman lekizkigun Bibleko liburuak eskribuz, eta hetango doktrinaren predikationea lizen, eta doktrinarekin Sakramenduak, doktrina hartango egia zigilatua bezala lizenzat. Bada hauk guziak egin izan dirade ezagut eta sinhets dezagunzat ezen eztela Iainko egiazko bat eta prometatu bezala hark igorri duen Iesus Krist bat baizen, eta sinhestez bizitze eternala Iesus Krist hunez dugunzat.

Hunez berze fundamentik ezin nehork ezar dezake Jesus Kristen Elizan, zeinen gainean Eliza fundatua baita, eta S. Paulek desiratzen du, hunez berze federik, edo Jesus Kristez den salbamenduaz berzerik predikaturen duen guzia lainkoak desegin, abisma eta sunsi dezan, are zerutik ethorri Aingeru bat baliz ere.

Bada lainko Aitari, zeinaganik eta zeinez eta zeinenak baitirade gauza guziak, eta Jesus Krist haren Seme gure laun eta redentptoreari, eta Espiritu sainduari dela ohore eta gloria sekula sekulakotz. Amen.

TESTAMENTU BERRIKO

liburuen izenak.

Ebanjelioa S. Mattheuen araura.	28 kap.
Ebanjelioa S. Mark-en araura.	16 kap.
Ebanjelioa S. Luk-en araura.	24 kap.
Ebanjelioa S. Ioanen araura.	21 kap.
Apostoluen Akteak.	28 kap.

S. PAULEN EPISTOLAK.

Romanoetara. 16 kap..

1 Korinthianoetara. 16 kap.

2 Korinthianoetara.	13 kap.
Galatianoetara.	6 kap.
Efesianoetara.	6 kap.
Filipianoetara.	4 kap.
Kolosianoetara.	4 kap.
1 Thesalonizeanoetara.	5 kap.
2 Thesalonizeanoetara.	3 kap.
1 Timotheogana.	6 kap.
2 Timotheogana.	4 kap.
Titegana.	3 kap.
Filemongana.	1 kap.
Hebraikoetara.	13 kap.

EPISTOLA KATHOLIKOAK.

S. Iakesek.	5 kap.
1 S. Pierrisek.	5 kap.
2 S. Pierrisek.	3 kap.
1 S. Ioanek.	5 kap.
2 S. Ioanek.	1 kap.
3 S. Ioanek.	1 kap.
S. Iudak.	1 kap.
Apokakalipsea.	22 kap.
<i>Guzietan.</i>	260 kap.

IESUS KRISTEN EBANJELIO SAINDUA S. MATHEUEN ARAURA

KAP. I.

*1 Iesus Kristen burhaso eta haragiaren arauetzko aitzinekoak. 18
Nola hura Espiritu sainduaganik konzebiturik, Maria birjina Iosefen emazteaganik iaio izan den. 21
Zergatik izen eman zaion Iesus. 23
Emmanuel.*

1 Iesus Krist Dabid-en semearen, Abrahamen semearen jenerationeko Liburua.

2 Abrahamek enjendra zezan Isaak. Eta Isaak-ek enjendra zezan Iakob. Eta Iakob-ek enjendra zitzauden Iuda eta haren anaieak.

3 Eta Iudak enjendra zitzauden Fares eta Zara Thamarganik. Eta Faresen enjendra zezan Esrom. Eta Esromek enjendra zezan Aram.

4 Eta Aramek enjendra zezan Aminadab. Eta Aminadab-ek enjendra zezan Naason. Eta Naason-ek enjendra zezan Salmon.

5 Eta Salmonek enjendra zezan Booz Rakabganik. Eta Boozek enjendra zezan Obed Ruthganik. Eta Obed-ek enjendra zezan Iese.

6 Eta Iesek enjendra zezan Dabid regea. Eta Dabid regeak enjendra zezan Salomon uriasen *emazte izanaganik*.

7 Eta Salomonek enjendra zezan Roboam. Eta Roboamek enjendra zezan Abia. Eta Abiak enjendra zezan Asa.

8 Eta Asak enjendra zezan Iosafat. Eta Iosafatek enjendra zezan Ioram. Eta Ioramek enjendra zezan Ozias.

9 Eta Oziasek enjendra zezan Iotham. Eta Iothamek enjendra zezan Akaz. Eta Akazek enjendra zezan Ezekias.

10 Eta Ezekiasen enjendra zezan Manase. Eta Manasek enjendra zezan Amon. Eta Amonek enjendra zezan Iosias.

11 Eta Iosiasen enjendra zezan Iazim. Eta Iazimek engrendra zezan Iekonias eta haren anaieak, Babilonerat eramanez zezan zezan.

12 Eta Babilonerat eraman izan ziraden ondoan, lekoniasek enjendra zezan Salathiel. Eta Salathielek enjendra zezan Zorobabel.

13 Eta Zorobabelek enjendra zezan Abiud. Eta Abiud-ek enjendra zezan Eliazim. Eta Eliazimek enjendra zezan Azor.

14 Eta Azorek enjendra zezan Sadok. Eta Sadok-ek enjendra zezan Akim. Eta Akimek enjendra zezan Eliud.

15 Eta Eliud-ek enjendra zezan Eleazar. Eta Eleazarek enjendra zezan Mathan. Eta Mathanek enjendra zezan Iakob.

16 Eta Iakob-ek enjendra zezan Iosef Mariaren senharra, zeinaganik iaio izan baita Iesus, zein erraiten baita Kristu.

17 Bada Abrahamganik Dabidganako jenerazione guziak, *dirade* hamalaur jenerazione. Eta Dabidganik Babilonerat eraman izan ziraden arteranokoak, hamalaur jenerazione. Eta Babilonerat eraman izan ziradenetik Kristuganakoak, hamalaur jenerazione.

18 Bada Iesus Kristen sortzea hunela izan da. Ezen Maria haren ama Iosefekin fedatua zela,

hek elkargana gabe, izorra eriden zedin Espiritu sainduaganik.

19 Orduan bere senhar Iosefek, zeren iusto baitzen eta ezpaitzuen hura difamatu nahi, sekretuki utzi nahi ukan zuen.

20 Baina gauza hauk gogoan zerabiltzala, huna, launaren Aingerua ager zekion ametsetarik, zioela, Iosef Dabid-en semea, ezaizela beldur eure emazte Mariaren hartzera: ezen hartan konzebitu dena, Espiritu sainduaganik duk.

21 Eta erdiren duk seme batez eta deithuren duk haren izena Iesus. Ezen hark salbaturen dik bere populua haien bekatuetarik.

22 Bada haur guzia egin izan da, launak Profetaz erran ukan zuena konpli ledinzat, zioela,

23 Huna, birjina bat izorra izanen da, eta erdiren da seme batez, eta deithuren dute haren izena Emmanuel, zein erran nahi baita hanbat nola, lainkoa gurekin.

24 Lotarik iratzarturik bada Iosefek egin zezan Aingeruak manatu zeraukan bezala, eta har zezan bere emaztea.

25 Eta etzezan hura ezagut, bere lehen semeaz erdi zedino: eta deizezan haren izena Iesus.

KAP. II.

1 Krist Bethlehemen iaio. 11 eta Orientetik ethorri Zuhurrez adoratu.

13 Gero Iosefek hala manamendu ukanik Iesus eta haren ama Maria harturik Egiptera ihes egiten. 16 Herodesek haur xipiak hiltzen. 21 Iosef ama-semekin Egiptetik itzulirik, Nazarethera ethorten.

1 Iaio zenean bada Iesus Bethlehem Iudeakoan rege Herodesen denboran, huna, Zuhurrak Orientetik ethor zitezen Ierusalemara,

2 Zioitela, Non da Iuduen rege iaio dena? ezen ikusi dugu haren izarra Orientean, eta ethorri gara hura adora dezagunzat.

3 Bada rege Herodes enzunik *hori* trublaz zedin, eta Ierusalemeko guzia harekin.

4 Eta bildurik Sakrifikadore prinzipal guziak eta popularen Eskribak, informa zedin hetarik non Krist sortzeko zen.

5 Eta hek erran ziezoten, Bethlehem Iudeakotan, ezen hunela eskribatua duk Profetaz,

6 Eta hi Bethlehem Iudako lurra, ezaiz Iudako gobernadoreen arteko xipiena, ezen hireganik ilkiren duk, Israel ene populua bazkaturen duen gobernadorea.

7 Orduan Herodes sekretuki Zuhurrak deithurik informa zedin hetarik dilijentki, izarra agertu izan zaien denboraz:

8 Eta hek Bethlehemerat igorriarik, erran zizuten, loanik informa zaitezte dilijentki haurtxoaz: eta eriden dukezuenean, iakin erazi iezadakue, nik ere ethorriarik adora dezadan hura.

9 Hek bada regea enzunik parti zitezten: eta huna, Orientean ikusi ukan zuten izarra haien aitzinean ioaiten zen, haurtxoa zen lekuaren gainera ethorriarik geldi zedino.

10 Eta izarra ikusirik bozkario handiz boz zitezten hagitz.

11 Eta etxera sarthurik eriden zezaten haurtxoa bere ama Mariarekin: eta ahozpez adora

zezaten hura, eta bere thesaurak desplegaturik presenta zietzoten estrenak, urhe, enzensu, eta mirha.

12 Eta dibinoki ametsetan adbertitu izanik ezlitezten Herodesgana itzul, berze bidez retina zitezten bere komarkarat.

13 Bada hek retiratu eta, huna, launaren Aingerua agertzen zaio Iosefi, dioela, laikirik haritzak haurtxoa eta haren ama, eta ihes egik Egiptera: eta aizen han *nik* darrakeadano: ezen Herodesek bilhaturen dik haurtxoa hiltzeko.

14 Iosefek bada iratzarri eta, har zitzan haurtxoa eta haren ama gauaz, eta retina zedin Egiptera.

15 Eta egon zedin han Herodesen finerano, launak Profetaz erran zuena konpli ledinzat, zioela Egiptetik deithu ukan dut neure Semea.

16 Orduan Herodesek ikusirik nola Zuhurrez enganatu izan zen, aserre zedin hagitz: eta *bere jendea* igorririk hil zitzan Bethlehemen eta haren aldiri guzietan ziraden haur bi urthetako eta behereko guziak, Zuhurretarik dilijentki informatu izan zen denboraren araura.

17 Orduan konpli zedin launak Hieremias Profetaz erran ukan zuena, zioela,

18 Boza Rhaman enzun izan da, deithore eta nigar eta auhen handi. Rakel bere haurrakgatik nigarrez egon, eta ezta konsolatu nahi izan, zeren eztiraden.

19 Baina Herodes hil eta, huna, launaren Aingerua ager zekion ametsetan Iosefi Egipten,

20 Zioela, iaikirik har itzak haurtxoa eta haren ama eta ioan adi Israeleko lurrerat, ezen haurtxoaren arimaren ondoan zabiltzanak hil izan dituk.

21 Hark bada iratzarri eta, har zitzan haurtxoa eta haren ama, eta ethor zedin Israeleko lurrera.

22 Baina enzunik ezen Arkelausek regnatzen zuela Iudean bere aita Herodesen lekuan, beldur zedin hara ioaitera: eta ametsetan dibinoki adbertiturik retira zedin Galileako bazterretarat.

23 Eta *hara* ethorrik habita zedin Nazareth deitzen den hirian: Profetez erran izan zena konpli ledinzat, ezen Nazareno deithuren zela.

KAP. III.

1 Ioanesez penitentia eta Kristen ethortea predikatzen. 4 Ioanesez beztidura eta bianda. 6 Bekatuen konfesioa. 7 Ioanesez Fariseuak reprotxatzen. 8 Penitentiazko fruktuak. 9 Abrahamen haur. 10 Aizkora arbore erroan. 11 Urez eta Espiritu sainduazko Baptismoa. 12 Bahea eskuan, lastoa surako, eta bihia granerako. 13 Krist batheiatu.

1 Bada denbora hartan ethor zedin ioanes baptista, predikatzen zuela ludeako desertuan:

2 Eta ziola, Emenda zaitetze: ezen zeruetako resuma hurbil da.

3 Ezen haur da Esaias Profetaz erran izan zena, ziola, Desertuan oihuz dagoenaren boza da, Apain ezazue launaren bidea, zuzen itzazue haren bideskak.

4 Ioanes hunek bada zuen bere abillamendua kamellu biloz, eta larruzko gerrikoa bere gerrun-

zean inguru: eta haren bianda zen othiz eta basa eztiz.

5 Orduan ethor zedin harengana Ierusalem eta Iudea guzia, eta Iordanaren inguruko komarka guzia.

6 Eta batheiatzen ziraden harenganik Iordanean, bere bekatuak konfesatzen zituztela.

7 Ikusirik bada anhitz Fariseuetarik eta Sadduzeuetarik ethorten ziradela haren baptismora, erran ziezen, Biperakasta, nork abisatu zaituzte hira ethortekoari ihes dagiozuen?

8 Egin itzazue bada fruktuak emendamen-duaren digneak.

9 Eta eztezazuela presumi zeurok baithan erraitera, Abraham dugu aita: ezen badiotsuet, lainkoak harri hautarik ere Abrahami haur suszita ahal diezakeola.

10 Bada ia aizkora arboren errora ezarria da: beraz arbore fruktu onik egiten eztuen guzia pikatzen da eta sura egoitzen.

11 Egia da, nik batheiatzen zaituztet urez emendamentutara: baina ene ondoan ethorten dena, ni baino borthitzago da, zeinen zapaten

ekarteko ezpainaiz digne: hark batheiatu zaituzte Espiritu sainduaz eta suz.

12 Bere bahea bere eskuan du, eta garbitu-
ren du bere larraina: eta bilduren du bere ogi-
bihia granerera: baina lastoa xoil erreren du
behinere hiltzen ezten suan.

13 Orduan ethor zedin Jesus Galileatik lorda-
nera Ioanes gana, harengatik batheia ledin zat.

14 Baina Ioanesek hagitz enpatxatzen zuen
hura, zioela, Nik behar diat hirengatik batheiatu,
eta hi ethorten aiz enegana ?

15 Eta ihardesten zuela Iesusek erran ziezon,
Utzak oraingotz: ezen hunela konplitu behar
diagu iustitia guzia. Orduan utzi zezan *egitera*.

16 Eta Jesus batheiatu zenean, bertan ilki
zedin uretik: eta huna, ireki izan zaizkan zeruak,
eta ikus zezan lainkoaren Espiritua uso kolunba
baten gisan iausten eta haren gainera ethorten

17 Eta huna boz bat zerutik, zioela, Haur da
ene Seme maitea, zeinetan neure atsegin ona
hartzen baitut.

KAP. IIII.

1 Krist desertuan barur egin ondoan Satanez tentatu. 11 Eta Aingeruez zerbitzatu. 17 Predikatzen hasi. 18 Gero Pierris eta Andriu, lakes eta Ioanes deithurik. 23 Ebanjelioa du Galilean predikatzen eta eri anhitz sendatzen.

1 Orduan Iesus eramán zedin Espirituaz desertura, deabruaz tenta ledinzat.

2 Eta barurtu zituenean berrogei egun eta berrogei gau, finean gose zedin.

3 Eta ethoririk harengana tentazaleak erran zezan, Baldin lainkoaren Semea bahaiz, errak harri hauk ogi egin ditezen.

4 Baina hark ihardesten zuela erran zezan, Eskribatua duk, Ezta gizona ogi beretik biziko, baina lainkoaren ahotik ilkiten den hitz orotarik.

5 Orduan hura du eramaiten deabruak Zibitate saindura, eta du ezarten tenpleko pinakle gainean.

6 Eta diotso, Baldin lainkoaren Semea bahaiz, egotzak eure burua beherera: ezen eskribatua duk, Ezen kargu emanen drauela hizaz bere Aingeruei, eta bere eskuetan eramanez autela, eure oinaz harrian behaztopa ezadinzat.

7 Erran ziezon lesusek, Berriz eskribatua duk, Eztuk tentaturen eure lainko launa.

8 Berriz hura du eramaiten deabruak guzizko mendi gora batetara, eta erakusten drautza munduko resuma guziak eta hetako gloria:

9 Eta diotso, Hauk guziok emanen drauzkiat, baldin ahozpez adora banezak.

10 Orduan diotso lesusek, Habil Satan, ezen eskribatua duk: Eure lainko launa adoraturen duk, eta hura bera zerbitzaturen duk.

11 Orduan utziten du hura deabruak: eta huna, Aingeruak ethor zitezenez, eta zerbitzatzen zuten hura.

12 Eta enzun ukan zuenean lesusek, ezen loanes presoner zela, retira zedin Galileara.

13 Eta utzirik Nazareth, ethor zedin eta habita Kapernaum itsas aldekoan, Zabulongo eta Nefthalingo bazterretan:

14 Konpli ledinzat Esaias Profetaz erran izan zena, zioela,

15 Zabulongo lurra eta Neftalingo lurra itsasorako bide *aldean* Iordanaz berze aldetik, Jentilen Galilea:

16 Populu ilhunbean zetzanak argi handi ikusi ukan du: eta herioaren rejonean eta itzailean zeunzanei argi altxatu izan zaie.

17 Orduan-danik has zedin Iesus predikatzen, eta erraiten, Emenda zaitetze: ezen hurbil da zeruetako resuma.

18 Eta Iesusek Galileako itsas aldean zabilala, ikus zitzaizen bi anaie, Simon, Pierris erraiten dena, eta Andriu haren anaia, egoizten zutela sarea itsasora (ezen peskadore ziraden.)

19 Eta dioste, Zatozte ene ondoan, eta eginen zaituztet giza peskadore.

20 Eta hek bertan utzirik sareak iarreiki izan zaizkan.

21 Eta handik aitzinago iraganik, ikus zitzaizen berzerik bi anaie, lakes Zebedeoren *semea*, eta loanes haren anaia, unzi batetan bere aita Zebedeorekin, bere saren adobatzen ari ziradela: eta dei zitzaizen.

22 Eta hek bertan unzia eta bere aita utzirik iarreiki izan zaizkan.

23 Eta inguratzen zuen Galilea guzia lesusek, haien sinagogetan irakasten ari zela, eta resumako Ebanjelioa predikatzen zuela, eta sendatzen zuela eritasun mota guzia, eta langore mota guzia populuaren artean.

24 Orduan io zezan haren famak Siria guzia: eta presenta zietzoten gaizki zeuden guziak, eritasun dibersez eta tormentaz edukiak, eta demoniatuak, eta lunatikoak, eta paralitikoak: eta sendatzen zituen.

25 Eta jendetze handi iarreiki zekion Galileatik, eta Dekapolistik, eta Ierusalemetik, eta Iudeatik, eta Iordanaz berze aldetik.

KAP. V.

*3 Dohatsuak zein diraden. 13
Apostoluak deitzen Iurreko gatz eta munduko argi. 14 Mendi gaineko zibitateak ezin estal, eta nehork ez kandela bizia gaitzurupean ezarten.*

16 *Obra onak.* 17 *Krist zertara ethorri.* 19 *Fidelen eginbidea.* 21 *Hilitezka, gaitzerizteaz, adulterioaz.* 29 *Eskuineko begiaz eta eskuaz.* 31 *Senhar emazten separationeaz.* 33 *Ez iniuriatzeko.* 39 *Iniuria sufritzeko.* 44 *Etsaiak onhesteko, eta persekutatzaleakgatik othoitz egiteko.* 48 *Perfektioea.*

1 Iesus bada ikusirik jendetzeak, igan zedin mendi batetara: eta iarri zenean hurbildu izan zaizkan bere diszipuluak.

2 Eta bere ahoa irekirik irakasten zituen, erraiten zuela,

3 Dohatsu *dirade* *espirituz* paubreak: zeren haien baita zeruetako resuma.

4 Dohatsu *dirade* nigarrez daudenak: zeren hek konsolaturen baitirade.

5 Dohatsu *dirade* emeak: zeren hek lurra heretaturen baitute.

6 Dohatsu *dirade* iustitiaz gose eta egarri diradenak: zeren hek aseren baitirade.

7 Dohatsu *dirade* miserikordiosoak: zeren haei miserikordia eginen baitzaie.

8 Dohatsu *dirade* bihotzez xahu diradenak: zeren hek lainkoa ikusiren baitute.

9 Dohatsu *dirade* bakea prokuratzen dutenak: zeren hek lainkoaren haur deithuren baitirade.

10 Dohatsu *dirade* iustitiagatik persekutatzten diradenak: zeren haien baita zeruetako resuma.

11 Dohatsu izanen zarete nehork iniuria erran draukezuenean, eta persekutatu zaitukez-tenean, eta hitz gaixto guzia erran dukeitenean zuen kontra, gezurrez ene kausaz.

12 Boz eta alegera zaitetze, zeren zuen saria handi baita zeruetan: ezen hala persekutatu ukan dituzte zuen aitzineko Profetak.

13 Zuek zarete lurreko gatza: eta baldin gatza gezat badadi, zerzaz gazituren da? ezta gehiagorik deusgai kanporat iraitzeko eta gizonez ohondikatu izateko baizen.

14 Zuek zarete munduko argia. Ezin estal daite zibitate mendi gainean iarria.

15 Eta eztute iraixekiten kandela eta hura ezarten gaitzurupean, baina kandelerean, eta argi egiten draue etxeko guziei.

16 Hala argi begi zuen argiak gikonen aitzinean, zuen obra onak ikus ditzatenzat, eta glori-fika dezaten zuen Aita zeruetan dena.

17 Eztuzuela uste ezen Legearen edo Profeten abolitzera ethorri naizela: eznaiz ethorri abolitzera, baina konplitzera.

18 Ezen egiaz diotsuet, iragan daiteno zerua eta lurra, iota bat edo puntu huts bat ezta Legetik iraganen, gauza guziak egin diteno.

19 Nork ere beraz hautsiren baitu manamendu xipien hautarik bat, eta irakatsiren baititu hunela gizonak, xipien deithuren da *hura* zeruetako resuman: baina nork ere eginen baititu eta irakatsiren, hura handi deithuren da zeruetako resuman.

20 Ezen erraiten drauzuet, baldin abundosago ezpada zuen iustitia Eskribena eta Fariseuena baino, zuek etzaretela sarthuren zeruetako resuman.

21 Enzun ukan duzue nola erranizan izan zaien lehenagokoei, Eztuk hilen: eta nork ere

hilen baitu, *hura* iudizioz punitu izateko digne date.

22 Baina nik erraiten drauzuet, ezen nor ere aserretzen baitzaio bere anaieri kausa gabe, iudizioz punitu izateko digne datela: eta nork ere erranen baitrauka bere anaieri, Raka, *hura* konseilluz punitu izateko digne datela: eta nork ere erranen baitrauka, Erhoa, suzko gehennaz punitu izateko digne datela.

23 Beraz baldin eure oblationea eramaiten baduk aldarera, eta han orhoit bahadi ezen hire anaieak baduela zerbait hire kontra,

24 Utzi ezak han eure oblationea aldare aitzinean, eta habil: lehen apointadi eure anaierekin, eta orduan ethorririk presenta ezak eure oblationea.

25 Aizen adiskide eure partida kontrastarekin fitetz, harekin bidean aizeno, ezemon eure partida kontrastak iujeari, eta iujeak ezemon sarjeantari, eta presoinean ezar ezadin.

26 Egiaz erraiten drauat, ezaiz ilkiren handik, renda diroano azken pelata.

27 Enzun ukan duzue ezen lehenagokoei erran izan zaiela, Eztuk adulteriorik iaukiren.

28 Baina nik erraiten drauzuet, Nork ere begiesten baitu emazterik, hura guthizia dezan-zat, hanbatez adulteratu dukeela harekin bere bihotzean.

29 Bada baldin eure begi eskuinak trebuka eraziten bahau, idoki ezak hura, eta iraitzak eureganik: ezen hobe duk hiretako, gal dadin hire menbroetarik bat, eta eztadin hire gorputz guzia egotz gehennara.

30 Eta baldin eure esku eskuinak trebuka eraziten bahau, trenka ezak hura, eta iraitzak eureganik: ezen hobe duk hiretako, gal dadin hire menbroetarik bat, eta eztadin hire gorputz guzia egotz gehennara.

31 Halaber erran izan da, Nork ere utziren baitu bere emaztea, bemo separationeko letra:

32 Baina nik diotsuet, ezen nork ere utziren baitu bere emaztea, salbu paillardizaren kausaz, adulterio egin eraziten draukala: eta nor ere utziarekin ezkunduren baita, hark adulterio iaukiten duela.

33 Berriz enzun ukan duzue, ezen lehenago-koei erran izan zaiela, Ezaiz desperiuraturen,

baina rendaturen drautzak launari eure iuramendu prometatuak.

34 Baina nik diotsuet eztezazuen iura batre, ez zeruaz, ezen lainkoaren thronoa da.

35 Ezeta Lurraz, ezen haren oinetako alkia da: ezeta Ierusalemek, ezen rege handiaren zibitate da.

36 Halaber eure buruaz eztuk iuraturen, ezen bilo bat xuri ezpa beltz ezin daidik.

37 Baina biz zuen hitza bai, bai: ez, ez: eta hauzaz goitikoa, gaixtotik da.

38 Enzun ukan duzue, ezen erran izan dela, Begia begiagatik, eta hortza hortzagatik.

39 Baina nik erraiten drauzuet, Eztiezozuela resisti gaizkiari: baina baldin norbeitek io baheza eure eskuineko mathelan, itzul iezok berzea ere.

40 Eta hiri auzi egin nahi drauanari, eta eure iaka edeki, utzi iezok mantoa ere.

41 Eta nork ere nahi ukanen bai hau bortxatu lekua baten *egitera*, albeitindoa harekin biga.

42 Eskatzen zaiianari emok: eta hireganik maillebatu nahi duena eztezala iraitz.

43 Enzun ukan duzue ezen erran izan dela, On eritziren draukak eure hurkoari, eta gaitz eritziren draukak eure etsaiari.

44 Baina nik erraiten drauzuet, Onhets itzazue zuen etsaiak, benedikaitzazue maradikatzen zaituztenak, ungi egiezue gaitz daritzuenei: eta othoitz egizue oldartzen zaizkizuenakgatik, eta persekutatzen zaituztenakgatik.

45 Zuen Aita zeruetan denaren haur zaretenzat: ezen *hark* ilki eraziten du bere iguzkia gaixtoen eta onen gainera, eta igorten du uria iustoen eta iniustoen gainera.

46 Ezen baldin zuei on daritzuenei on badaritzazue, zer sari ukanen duzue? eztute publikanoek ere hori bera egiten?

47 Eta baldin zuen anaiei solament begitharte egiten badrauezue, zer gehiago egiten duzue? eztute publikanoek ere horrela egiten?

48 Zareten bada zuek perfekt, zuen Aita zeruetan dena perfekt den bezala.

KAP. VI.

*1 Elemosinaz. 5 Othoitzaz. 14 Elkarri
nola barkatzeko. 16 Baruraz. 19
Thesaur egiteaz. 24 lainkoa eta
abrastasunak ezin zerbitza. 25
Bizitze tenporalaz artharik ez
ukaiteko. 33 lainkoaren resuma eta
hartarako eginbidea lehenik
bilhatzeko.*

1 Begirauzue zuen elemosina eztagizuen gizonen aitzinean hezaz ikus zaiteztenzat: ezpe-re saririk eztuzue ukanen zuen Aita zeruetan dena baithan.

2 Bada elemosina egiten duanean, eztezala tronpeta io erazi eure aitzinean, hipokritek egiten duten bezala sinagogetan eta karriketan, gizonez estima ditezenzat: egiaz diotsuet rezebitzen dutela bere saria.

3 Baina hik elemosina egiten duanean, ezalbeileki hire ezkerak, zer egiten duen hire eskuinak.

4 Hire elemosina sekretuan denzat: eta eure Aita sekretuan dakusanak, rendaturen drauk agerrian.

5 Eta othoitz egiten duanean, ezaizela hipokritak bezala: haei laket ziaiek kongregationetan eta karrika kantoinetan zutik daudela othoitz egitea, gizonez ikus ditezenzat: egiaz erraiten drauzuet ezen rezebitzen dutela bere saria.

6 Baina othoitz egiten duanean, sar adi eure ganberatxoan, eta eure bortha ertsirik, othoitz egiok eure Aita sekretuan denari: eta eure Aita sekretuan dakusanak rendaturen drauk agerrian.

7 Bada othoitz egiten duzuenean, eztezazuela anhitz edas Paganoek bezala: ezen uste dute bere anhitz edasteaz enzunen diradela.

8 Etzaretela beraz hetarat irudi: ezen badaki zuen Aitak zeren behar zareten, eska zakizkioten baino lehen.

9 Hunela beraz zuek othoitz egizue, Gure Aita zeruetan aizena, sanktifika bedi hire izena:

10 Ethon bedi hire resuma. Egin bedi hire borondatea zeruan bezala lurrean ere.

11 Gure eguneko ogia iguk egun.

12 Eta kita ietzaguk gure zorrak, nola guk ere gure zordunei kitatzen baitrauegu.

13 Eta ezgaitzala sar erazi tentationetan, baina delibra gaitzak gaixtotik. Ezen hirea duk resuma, eta puisanka, eta gloria sekulakotz. Amen.

14 Ezen baldin barka badietzezue gizonei bere faltak, barkaturen drauzue zuei ere zuen Aita zerukoak.

15 Baina baldin barka ezpadietzezue gizonei bere faltak, zuen Aitak ere eztrauzkizue barkaturen zuen faltak.

16 Gehiago, barur dagizuenean, etzaretela itxura tristetako hipokritak bezala: ezen desgizatzen dituzte bere begitharteak, barur diradela gizonei ageri diradenzat: egiaz erraiten drauzuet, ezen rezebitzen dutela bere saria.

17 Baina hik barur egiten duanean unka ezak eure burua, eta ikuz ezak eure begithartea:

18 Gizonei barur aizela ageri ezakienzat, baina eure Aita sekretuan denari: eta eure Aita sekretuan dakusanak rendaturen drauk agerrian.

19 Eztitzazuela egin zuen thesaurak lurrean, non zerrenak eta herdoillak goastatzen baititu, eta non ohoinek zulhatzen eta ebaisten baitituzte.

20 Baina egin itzazue zuen thesaurak zeruan, non ez zerrenek ez herdoillak ezpaitu goastatzen, eta non ohoinek ezpaitute zulhatzen ez ebaisten.

21 Ezen non baita zuen thesaura, han izanenda zuen bihotza ere.

22 Gorputzaren argia da begia, beraz baldin hire begia simple bada, hire gorputz guzia argi datek:

23 Baina baldin hire begia gaixto bada hire gorputz guzia ilhun datek: beraz baldin hitan den argia ilhunbe bada, ilhunbe hura zein handi *date*?

24 Nehork bi nabusi ezin zerbitza ditzake: ezen edo batari gaitz eritziren drauka, eta berzeari on: edo batarekin edukiren du eta berzea menospreziaturen. Ezin zerbitza ditzakezue lainzoa eta abrastasunak.

25 Halakotz erraiten drauzuet, eztuzuen art-harik zuen bizitzeaz, zer ianen duzuen eta zer

edanen: ezeta zuen gorputzaz, zerzaz beztituren zareten: ezta bizia bianda baino gehiago, eta abillamendua baino gorputza?

26 Konfideraitzazue zeruko xoriak, ezen ezte ereiten, ez errekeitatzen, ezeta graneretara biltzen, eta zuen Aita zerukoak hatzen ditu hek: etzarete zuek anhitzez hek baino exzellentago?

27 Eta nork zuetarik artha ukanez eratxeki, ahal diezakeo beso bat bere handitasunari?

28 Eta beztiduraz zergatik zarete arthatsu? ikas ezazue nola landako floreak handitzen diraden : ez nekatzen dirade, ez iruten dute.

29 Baina erraiten drauzuet are Salomon ere bere gloria guziarekin eztela beztitu izan hetarik bat bezala.

30 Bada baldin landako egun belhar dena, eta bihar labeen ezarten dena, lainkoak hala inguru beztitzen badu: eza zuek anhitzez areago, fede xipitakoak?

31 Eztuzuela beraz artharik erraiten duzuela, Zer ianen dugu, edo zer edanen dugu, edo zerzaz beztituren gara?

32 (Ezen gauza hauk guziak Paganoek bilhazten dituzte) ezen badaki zuen Aita zerukoak, ezen gauza hauen guzion beharra baduzuela.

33 Baina bilha ezazue lehenik lainkoaren resuma eta haren iustitia, eta gauza hauk guziak emanen zaizkizue gainerako.

34 Etzaretela bada arthatsu biharamunaz: ezen biharamunak beretako artha ukanen du: egunak asko du bere afliktioneaz.

KAP. VII.

1 Ez iudikatzeko. 6 Gauza saindua orei ez emaitako. 7 Eskatzeko, bilhatzeko, bulkatzeko. 12 Eskripturaren somarioa. 13 Bortha hersia eta zabala. 15 Profeta falsuak. 16 Arborearen fruktua. 21 Aita zerukoaren borondatea eginen duena salbaturen. 22 Mirakulu falsu egilez. 24 Hartoka edo sable gaineko etxeaz.

1 Eztezazuela iudika, iudika etzaiteztenzat.

2 Ezen zer iujemenduz iudikaturen baituzue, iudikaturen zarete: eta zer neurritz neurthuren baituzue, aldiz neurthuren zaizue.

3 Eta zergatik behatzen duk eure anaieren begiko fitsera, eta eure begiko gapirioari eza-tzaio ohartzen?

4 Edo, nola diotsok eure anaieri, Uztak idoki dezadan fitsa hire begitik, eta horra, gapirioa hire begian?

5 Hipokrita, idokak lehenik gapirioa eure begitik, eta orduan behaturen duk, idoki dezan fitsa eure anaieren begitik.

6 Ezteiezuela gauza saindua orei, eta eztitzazuela egotz, zuen perlak urden aitzinera: bere oinez ohondika eztitzaten, eta itzulirik zathika etzaitzaten zuek.

7 Eska zaitzte eta emanen zaizue: bilha ezazue, eta eridenen duzue: bulka ezazue, eta irekiren zaizue.

8 Ezen eskatzen den guziak, rezebitzen du: eta bilhatzen duenak, erideiten du : eta bulkatzten duenari, irekiren zaio.

9 Ezen nor da zuetarik gizona, baldin bere semea ogi eska badakio, harri emanen draukana?

10 Eta, baldin arrain eska badakio, ala suge bat emanen drauka?

11 Beraz zuek gaixto zaretelarik baldin bada-kizue gauza onen zuen hurrei emaiten: zenbaitz areago zuen Aita zeruetan denak emanen drauzte gauza onak eskatzen zaizkionei?

12 Bada gizonak zuei egin dietzazuen nahi dituzuen gauza guziak, egin ietzezue zuek ere haei halaber: ezen haur da Legea eta Profetak.

13 Sar zaitetzte bortha hersitik: ezen bortha largoa eta bide zabala da perditionetara irioiten duena, eta anhitz dirade hartarik sartzen diradenak.

14 Ezen bortha hersia da eta bide hersia bizi-tzera eramaiten duena: eta guti dirade hura erideiten dutenak.

15 Begirauzue bada profeta falsuetarik, zein ethorten baitirade zuetara ardi abiturekin: baina barnean otso harrapari dirade.

16 Bere fruktuetarik ezaguturen dituzue hek. Ala biltzen dute elhorrietarik mahatsik, edo kar-duetarik fikorik?

17 Hala arbore on guziak fruktu onak egiten ditu, eta arbore gaixtoak fruktu gaixtoak egiten ditu.

18 Arbore onak fruktu gaixtorik ezin daidi, eta arbore gaixtoak fruktu onik ezin daidi.

19 Frukto onik egiten eztuen arbore guzia pikatzen da eta sura egoizten.

20 Bere fruktuetarik beraz ezaguturen dituzue hek.

21 Niri launa, launa, erraiten drautan guzia ezta sarthuren zeruetako resuman, baina ene Aita zeruetan denaren borondatea egiten duena.

22 Anhitzek erranen draut egun hartan, launa, launa, eztugu hire izenean profetizatu, eta ezitugu hire izenean deabruak egotzi kanpora, eta eztugu hire izenean berthute anhitz egin?

23 Eta orduan erranen drauet klaroki, Egundano etzaitzuet ezagutu: parti zaitezte enegantik inikitate egiten duzuenok.

24 Nork ere bada enzuten baititu ene hitz hauk, eta hek egiten, hura dut konparaturen

gizon zuhur bere etxea arroka gain batetan edifikatu duenarekin:

25 Eta erori izan da uria, eta ethorri izan dirade ur sobernak, eta eraunsi ukan dute haizek, eta io ukan dute etxearen kontra: eta ezta erori izan: ezen arroka gainean fundatua zen.

26 Eta nork ere enzuten baititu ene hitz hauk, eta ezpaititu egiten, konparaturen da gizon erho bere etxea sable gainean edifikatu duenarekin.

27 Eta erori izan da uria, eta ethorri izan dirade ur sobernak, eta haizek eraunsi ukan dute, eta io ukan dute etxe haren kontra, eta erori izan da, eta haren desegitea handi izan da.

28 Eta gerta zedin propos hauk akabatu zituenean lesusek, populua miraz baitzegoen haren doktrinaz.

29 Ezen irakasten zituen autoritate zuenak bezala, eta ez Eskribek bezala.

KAP. VIII.

*2 Sorhaioa. 5 Zenteneraren muthil
eria eta fedea. 11 Jentilen*

*bokationea eta luduen iraitzea. 13
Sinhestea. 14 Pierrisen ama
ginharreba, baieta anhitz demoniatu
eta eri sendatu. 19 Kristi iarreikiteko
borondate zuen Eskriba. 21 Bere
aita ohortze beharrez konjit eskez
zegoen diszipulua. 24 Itsasoko
tenpestatea Kristek zesa eraziten.
28 Eta bi demoniatu sendaturik,
deabruei urdetara ioaitera konjit
emaiten.*

1 Eta menditik iausti zenean jendetze handi iarreiki zekion.

2 Eta huna, sorhaio batek ethorririk adora zezan hura, zioela, launa, baldin nahi baduk, xahu ahal nirok.

3 Eta eskua hedaturik hunki zezan hura lesusek, zioela, Nahi diat, aizen xahu. Eta bertan xahu zedin haren sorhaiotasuna.

4 Orduan diotso lesusek, Begirauk nehorri ezterroan: baina habil, eta erakutsiezok eure burua Sakrifikadoreari, eta presenta ezak Moise-

sek ordenatu duen oblationea, haei testimoniajentan *denzat*.

5 Eta sarthu zenean Iesus Kapernaumen, ethor zedin harengana Zentener bat othoitz egiten zeraukala,

6 Eta ziola, launa, ene muthilla diatzak etxean paralitiko, gaizki tormentatua.

7 Eta diotso Iesusek, Nik ethorririk sendaturen diat hura.

8 Eta ihardesten zuela Zentenerak erran zezan, launa, ez nauk digne ene atharbean saradin: baina errak solament hitza, eta sendaturen baita ene muthilla.

9 Ezen ni ere gizon nauk *berzeren* meneko, ditudalarik neure azpiko jendarmesak, eta erraiten diarokat huni, Oha, eta ioaiten duk: eta berzeari, Athor, eta ethorten duk: eta neure zerbitzariari, Egik haur, eta egiten dik.

10 Eta *haur* enzunik Iesusek mirets zezan: eta dioste zarreizkonei, Egiaz erraiten drauzuet, eztudala Israelen ere hain fede handirik eriden.

11 Baina badiotsuet ezen anhitz Orientetik eta Okzidentetik ethorriren diradela, eta iarriren

diradela Abrahamekin Isaac-ekin eta Jakob-ekin zeruetako resuman:

12 Eta resumako semeak egotziren diradela kanpoko ilhunbera: han izanen da nigar eta hortz garraskots.

13 Eta erran ziezon Iesusek Zentenerari, Oha eta sinhetsi duan bezala egin bekik. Eta senda zedin haren muthilla ordu hartan berean.

14 Eta Iesusek Pierrisen etxera ethorririk, ikus zezan haren ama-ginharreba ohean zetzala, eta helgaitzak zadukala.

15 Eta hunki zezan haren eskua, eta utzi zezan helgaitzak, eta iaiki zedin, eta zerbitza zitzan.

16 Eta arratsa ethorri zenean, presenta ziezoten anhitz demoniatu: eta egotz zietzen kanpora espirituak hitzaz, eta gaizki zeuden guziak senda zitzan:

17 Konpli ledinzat Esaias profetaz erran izan zena, zioela, Hark gure langoreak hartu ukan ditu, eta gure eritasunak ekarri ukan ditu.

18 Eta ikusirik Iesusek jendetze handi bere inguruan, mana zitzan *diszipuluak* ioan litezen berze aldera.

19 Eta hurbildurik Eskriba batek erran ziezon, Majistrua, iarreikiren natzaik hiri, norat ere ioanen baitaiz.

20 Eta diotso Iesusek, Azeriek zulhoak zitie eta zeruko xoriek ohatzeak, baina gizonaren Semeak eztik non bere burua reposa dezan.

21 Gero bere diszipuluetarik, berze batek erran ziezon, launa, permeti iezadak behin ioan nadin neure aitaren ohorztera.

22 Eta Iesusek erran ziezon, Arreit niri, eta uzki hilak bere hilen ohorztera.

23 Eta unzian sarthu zenean iarreiki izan zaizkan bere diszipuluak.

24 Eta huna, tormenta handi bat altxa zedin itsasoan, hanbat non unzia bagaz estaltzen baitzen: baina bera lo zetzan.

25 Eta hurbildurik bere diszipuluek iratzar zezaten, ziotela, launa, begira gaitzak, galdu gihoazak.

26 Eta dioste, Zergatik zarete izi fede xipitakoak? Orduan iaikirik mehatxa zitzan haizeak eta itsasoa: eta sosagu handia egin zedin.

27 Orduan jendek mirets zezaten, ziotela, Zerik da haur, non haizek ere eta itsasoak obeditzen baitute?

28 Eta iragan zenean berze aldera, Jerjesenen rejionera, aitzinera ethorri izan zaizkan bi demoniatu thunbetarik ilkirik, guzizko terribleak, hanbat non nehor ezin iragan baitzaiten bide hartarik.

29 Eta huna, heiagora egin zezaten, zioitela, Zer da gure eta hire artean, Iesus lainkoaren Semea? ethorri aiz huna ordu baino lehen gure tormentatzera?

30 Eta zen hetarik urrun urdalde handi bat alha zenik:

31 Eta deabruak othoiztez zaizkan, zioitela, Baldin kanpora egoizten bagaituk, permeti iezaguk urdalde hartara ioaitera.

32 Eta dioste, Zoazte. Hek bada ilkirik ioan zitezen urdaldera: eta huna, urdalde hura guzia oldar zedin garaitik behera itsasora, eta hil zitezen uretan.

33 Orduan urdaineak ihes egin zezaten: eta ethorririk hirira, konta zitzaten gauza guziak, eta zer demoniatuei heldu izan zaien.

34 Eta huna, hiri guzia ilki zekion Iesusi aitzinera: eta ikusi zutenean hura, othoitz egin ziezoten retira ledin haien komarketarik.

KAP. IX.

2 Iesusek paralitikoa sendatzen. 9 Mattheu deitzen. 12 Fariseuei ihardesten. 14 Baieta Iohanesen diszipuluei. 22 Odola zarion emaztea sendatzen. 27 Itsu bi argitzen. 32 Demoniatu mutua sendatzen. 35 Hor emen ari predikatzen eta sendatzen. 38 Gero du Ebanjelioaren abanzamendutan othoitz egitera exhortatzen.

1 Orduan sarthurik unzira iragan zedin berze aldera, eta ethor zedin bere hirira.

2 Eta huna, presenta ziezoten paralitiko bat ohean zetzanik: eta ikusirik Iesusek haien fedea, erran ziezon paralitikoari, Auk bihotz on, seme, barkatu zaizkik eure bekatuak.

3 Eta huna, Eskribetarik batzuk erraiten zuten bere baithan, Hunek blasfematzen du.

4 Eta ikusirik Iesusek haien pensamenduak, erran zezan, Zergatik gaixtoki pensatzen duzue zuen bihotzetan?

5 Ezen zein da erratxago, erraitea, Barkatu zaizkik eure bekatuak: ala erraitea, laiki adi eta ebil adi?

6 Dakizuenzat bada ezen gizonaren Semeak baduela autoritate lurrean bekatuen barkatze-ko (orduan diotso paralitikoari) laiki adi, har ezak eure ohea, eta habil eure etxerat.

7 Orduan iaikirik ioan zedin bere etxerat.

8 Eta jendetzek *hori* ikusirik mirets zezaten, eta glorifika zezaten lainkoa, zeinek eman ukan baitraue halako autoritatea gizonei.

9 Eta handik iragaiten zela Iesusek ikus zezan gizon bat peaje lekuan iarria Mattheu deitzen zenik, eta diotso, Arreit niri. Eta iaikirik iarreiki zekion:

10 Eta gertha zedin Iesus *haren* etxean mahainean iarririk zegoela, huna, anhitz publikano eta bizitze gaixtotakorik ethorririk, iar baitzi-

tezen mahainen lesusekin eta haren diszipunuekin.

11 Eta *hori* ikusirik Fariseuek erran ziezen haren diszipunuei, Zergatik publikanoekin eta bizitze gaixtotakoekin iaten du zuen majistruak?

12 Orduan lesusek *hori* enzunik erran ziezen, Oso diradenek eztute medikuren beharrik, baina eri diradenek.

13 Baina zoazte, eta ikas ezazue zer den, Misericordia nahi dut eta ez sakrifizio. Ezen eznaiz ethorri iustoen deitzera, baina bekatoren, emendamendutara.

14 Orduan ethor zitezen harengana loanesen diszipunluak, zioitela, Zergatik guk eta Fariseuek barur egiten dugu maiz, eta hire diszipunuek ezpaitute barurik egiten?

15 Eta erran ziezen lesusek, Ezkonduaren ganberako jendek dolurik ekar ahal dirote, ezkondua hekin deno? Baina ethorriren dirade egunak edekiren baitzaie ezkondua eta orduan barur eginen baitukeite.

16 Halaber nehork eztrauka eratxekiten oihal pedazu latz bat abillamendu zar bati: ezen kon-

pligarri eratzekiak edekiten du abillamendutik, eta gaizkitzenago da ethendura.

17 Eta eztute ezarten mahatsarno berria zahagi zarretan: ezpere lehertzen dirade zahagiak, eta mahatsarno isurten, eta zahagiak galzten: baina mahatsarno berria zahagi berrietan ezarten dute, eta biak begiratzen dirade.

18 Gauza hauk haei erraiten zerauztela, huna, iaun batek ethorririk adora zezan hura, zioela, Ene alaba orain hil izan duk: baina ethorririk ezarrak eure eskua haren gainean, eta bizi-ko baita.

19 Eta iaikirik Iesus iarreiki zekion, eta haren diszipuluak.

20 (Eta huna, hamabi urthez odol iariatzez erizen emazte batek gibeletik ethorririk hunki zezan haren abillamendu ezpaina.

21 Ezen erraiten zuen bere baithan, Baldin solament hunki badezat haren abillamendua, sendaturen naiz.

22 Orduan Iesusek itzulirik eta hura ikusirik erran zezan, Aun bihotz on, alaba, eure fedea salbatu au. Eta senda zedin emaztea ordu berean).

23 Eta lesusek ethorrik iaun haren etxera eta ikusirik soinuariak, eta jendetzea tumultu ari zela,

24 Dioste, Retira zaitetze, ezen ezta hil neskatxa: baina lo datza. Eta trufatzen ziraden harzaz.

25 Eta idoki izan zenean jendetzea, sarthurik, har zezan haren eskua: eta iaiki zedin neskatxa.

26 Eta laster zegian fama hunek lur hartan guzian.

27 Eta Iesus handik iragaiten zela, iarreiki izan zaizkan bi itsu oihuz zeudela, eta zioitela, Auk pietate guzaz, Dabid-en semea.

28 Eta ethorri zenean etxera, ethor zitezen harengana itsuok, eta dioste lesusek, Sinhesten duzue hori ahal daididala? Diotsote, bai launa.

29 Orduan hunki zitzan haien begiak, zioela, Zuen fedearen araura egin bekizue.

30 Eta ireki zitezen haien begiak, eta debeta zitzan mehatxurekin lesusek, zioela, Begirauzue nehork eztakian.

31 Baina hek ilkirik barreia zezaten haren fama herri hartan guzian.

32 Eta hek ilkiten ziradela, huna, presenta ziezoten gizon mutu demoniatu bat.

33 Eta deabrua kanpora egotzi izan zenean, minza zedin mutua: eta mirets zezaten jendetzek, zioitela, Egundano ezta agertu hunelako gauzarik Israelen.

34 Baina Fariseuek erraiten zuten, Deabruen prinzearen partez kanpora egoizten ditu deabruak.

35 Eta inguratzen zituen Iesusek hiri eta burgu guziak, irakasten ari zela haien sinagogetan, eta predikatzen zuela resumako Ebanjelioa eta sendatzen zuela eritasun mota guzia eta langore mota guzia populuan.

36 Eta ikusirik *Iesusek* jendetzeak, konpasio-
ne har zezan hezaz, zeren baitziraden errebelatuak eta barreiatuak ardi artzainik eztutenak bezala.

37 Orduan dioste bere diszipuluei, Segur uzta handi da, baina langile guti.

38 Othoitz egiozue bada uzta labeari, irion ditzan langileak bere uztara.

KAP. X.

1 Sendatzeko dohainak. 2 Apostoluen kontua eta izenak. 7 Hek igorri predikatzeraz. 11 Bakea haien rezebitzalen. 16 Zuhur eta simple izateko. 17, 21 Persekutionez. 20 Espiritu saindua Apostoluetan minzo. 27 Ilhunbean eta beharrira errana. 28 Noren nehor beldur izateko den. 29 Bi parra-xori. 30 Gure biloak kontatuak. 32 Kristen aboatzeaz, edo ukatzeaz. 34 Bakeaz, ezpataz. 35 Disensioenez. 37 Ahaidei baino Kristi hobe eritziteko. 38 Nork bere krutzea hartzeko eta Kristi iarreikiteko. 39 Biziaren galtzea edo begiratzea. 40 Profeten rezebitzea.

1 Orduan bere hamabi diszipuluak beregana deithurik, eman ziezen bothere espiritu satsuen kontra, haien kanpora egoizteko, eta eritasun mota guziaren eta langore mota guziaren sendatzeko.

2 Bada hamabi Apostoluen izenak dirade hauk: lehena, Simon erraiten dena Pierris, eta Andriu haren anaia: lakes Zebedeoren semea, eta Ioanes haren anaia.

3 Filipe eta Bartholomeo: Thomas eta Mattheu publikanoa: lakes Alfeoren *semea* eta Lebeo, izen goitiko Thaddeo.

4 Simon Kananeoa, eta Iudas Iskariot, hura traditu ere zuena.

5 Hamabi hauk igor zitzan Iesusek, eta eman ziezen manamendu, zioela, Jentiletarat etzoaztela, eta Samaritanoen hiritan etzaitzela sar:

6 Bainaitzitik zoazte Israeleko etxeko ardi galduetara.

7 Bada partitu eta, predika ezazue, erraiten duzuela, Zeruetako resuma hurbil da.

8 Eriak senda itzazue, sorhaioak xahu itzazue, hilak resuszita itzazue, deabruak kanpora egotz itzazue: dohainik rezebitu duzue, eta dohainik emazue.

9 Eztagizuela probisionerik urhez, ez zilharrez, ez kobrez zuen gerrikoetan:

10 Ezeta maletaz bidekotzat, ez bira arropaz, ez zapataz, ez uhez, ezen langilea bere biziaren digne da.

11 Eta zein ere hiritan edo burgutan sarthuren baitzarete, informa zaitzte nor den hartan dignerik, eta zaudete han parti zaitzeten.

12 Eta zenbeit etxetan sarthuren zaretenean, saluta ezazue hura.

13 Eta baldin etxea digne bada, ethor bedi zuen bakea haren gainera: baina baldin digne ezpada, zuen bakea zuetara itzul bedi.

14 Eta nork ere rezebituren ezpaitzaitzte, eta ez zuen hitzei behaturen, etxe edo hiri hartarik ilkitean iharros albeitzinezate zuen oinetako erhautsa.

15 Egiaz erraiten drauzuet, emekiago trakturen diradela Sodomako eta Gomorhako lurrekoak iudizioko egunean, ezen ez hiri hura.

16 Huna, nik igorten zaitzitet zuek, ardiak otsoen artera bezala: zaretan bada zuhur sugeak bezala, eta simple uso kolunbak bezala.

17 Eta begira zaitzte gizonetarik: ezen liuraturen zaituzte konsistorioetara, eta bere sinagogetan azotaturen zaituzte.

18 Eta gobernadore tara eta regetara eramanen zarete ene kausaz, hek eta Jentilek testimo-niaje *haur dutenzat*.

19 Baina liura zaiteztenean, eztuzuela artharik nola edo zer minzaturen zareten: ezen ordu hartan berean emanen zaizue zer minza zaitezketen.

20 Ezen etzarete zuek minzo zaretenak, baina zuen Aitaren Espiritu zuetan minzo dena.

21 Eta liuraturen du anaieak anaiea heriotara, eta aitak haurra: eta altxaturen dirade haurrak aita-amen kontra, eta hil eraziren dituzte.

22 Eta guziez gaitzetsiak izanen zarete, ene izenagatik: baina nork ere perseberaturen baitu finerano hura salbaturen da.

23 Eta persekutaturen zaituztenean hiri hartan, ihes egizue berze batetara: ezen egiaz erraiten drauzuet, eztituzue inguraturen Israeleko hiri guziak, non ethor eztadin gizonaren Semea.

24 Ezta diszipulua majistruaren gaineko, ezeta zerbitzaria bere iaunaren gaineko.

25 Asko du diszipuluak bere majistrua bezaladen: eta zerbitzariak, bere iauna bezala: baldin

Aitafamilia bera Beelzebub deithu badute, zenbatez gehiago haren domestikoak?

26 Etzaretela beraz haien beldur: ezen ezta deus estalirik agerturen eztenik, ezeta deus sekreturik iakinen eztenik.

27 Ilhunbean erraiten drauzuedana, errazue argian: eta beharrira enzuten duzuen, predika ezazue etxe gainetan.

28 Eta etzaretela beldur gorputza hiltzen dutenen, eta arima ezin hil dezaketenen: bainaitzik zareten beldur arima eta gorputza gehenan gal ahal ditzakenaren.

29 Bi parra-xori eztirade dirutxo batetan saltzen? eta hetarik bat ezta lurrera eroriren, zuen Aita gabe.

30 Etare zuen buruko bilo guziak kontatuak dirade.

31 Etzaretela beraz beldur: parra-xoriek baino zuek gehiago balio duzue.

32 Bada nork ere aboaturen bainau gizonen aitzinean, aboaturen dut nik ere hura ene Aita zeruetan denaren aitzinean.

33 Baina nork ere ukaturen bainau gizonen aitzinean, ukaturen dut nik ere hura ene Aita zeruetan denaren aitzinean.

34 Eztuzuela uste ezen bakearen ezartera, ethorri naizela lurrera: eznaiz ethorri bakearen ezartera, baina ezpataren.

35 Ezen ethorri naiz gizonaren bere aitaren kontra gudutan ezartera, eta alabaren bere amaren kontra, eta errenaren bere ama-ginharreba-
ren kontra.

36 Eta gizonaren etsai beraren domestikoak *izanen dirade*.

37 Aita edo ama ni baino maiteago duena, ezta ene digne: eta semea edo alaba ni baino maiteago duena, ezta ene digne.

38 Eta bere krutzea hartzen eztuena, eta niri ondotik eztarreitana, ezta ene digne.

39 Bere bizia begiraturen duenak, galduren du hura: eta bere bizia galduren duenak ene kausaz, begiraturen du hura.

40 Zuek rezebitzen zaituztenak, ni rezebitzen nau: eta ni rezebitzen nauenak, ni igorri nauena rezebitzen du.

41 Profetaren izenean Profeta bat rezebitzen duenak, Profetaren saria rezebituren du: eta iustoaren izenean iusto bat rezebitzen duenak, iustoren saria rezebituren du.

42 Eta nork ere edatera emanen baitrauka beire bat ur hotz huts xipi hautarik bati diszipuluren izenean: egiaz diotsuet, eztuela bere saria galduren.

KAP. XI.

2 Ioanes Baptistak Kristgana igorten. 3 Haren mandatalgoa. 13 Legea eta Profetak. 14 Elias. 16 Merkatuan iarririk dauden haurrak. 18 Kristezko eta ioanesezko reputationea. 20 Korazini, Bethsaidari, eta Kapernaumi egiten zaien reprotxua eta mehatxua. 24 Sodoma. 25 Xipiei Ebanjelioa deklaratu. 26 Nekatuak eta kargatuak Kristek beregana deitzen. 29 Haren uztarria.

1 Gero gertha zedin lesusek bere hamabi diszipuluei manamendu emaitea akabatu zuenean, parti baitzedin handik irakats eta predika lezantzat haien hirietan.

2 Eta loanesez presoindegian enzunik Kristen obrak, igorriarik bere diszipuluetarik biga,

3 Erran ziezon, Hi aiz ethorteko zen hura, ala berze baten begira gaude?

4 Eta ihardesten zuela lesusek erran ziezen, Zoazte eta konta ietozue loanesi, enzuten eta ikusten dituzuen gauzak:

5 Itsuek ikustea rekrubutzen dute, eta mainguak badabiltza, sorhaioak xahutzen dirade, eta gorrek enzuten dute, hilak resuszititzen dirade, eta Ebanjelioa paubrei denuntiatzen zaie.

6 Eta dohatsu da eskandalizaturen eztena nitan.

7 Eta hek ioaiten ziraden bezala, has zedin lesus erraiten populuari loanesez, Zeren ikustera ilki izan zarete desertura? haizeaz erabilten den kanabera baten?

8 Baina zeren ikustera ilki izan zarete? gizon abillamendu preziosoz beztitu baten? huna, abi-

Ilamendu preziosoak ekarten dituztenak, regen etxetan dirade.

9 Baina zeren ikustera ilki izan zarete? Profeta baten? bai diotsuet eta Profeta bainoagoaren.

10 Ezen haur da zeinez eskribatua baita, Huna, nik igorten diat neure mandataria hire begitharte aitzinean, zeinek hire bidea apaindu-ren baitu hire aitzinean.

11 Egiaz erraiten drauzuet, ezta ilki emazte-tarik iaio diradenen artean nehor, loanes Baptista baino handiagorik: guziagatik ere zeruetako resumako xipiena hura baino handiago da.

12 Eta loanes Baptistaren egunetarik orain-drano, zeruetako resumari bortha egiten zaio, eta keixuek harrapatzen dute hura.

13 Ezen Profeta guziek eta Legeak loanesga-nano profetizatu ukan dute.

14 Eta, baldin nahi baduzue rezebitu, haur da Elias ethorteko zena.

15 Enzuteko beharririk duenak, enzun beza.

16 Baina norekin konparaturen dut jeneratio-ne haur? Merkatuan iarririk dauden, eta bere lagunei oihuz dagozten haurtxoak bezalako da,

17 Zeinek baitioite, Xirula soinu egin drauzuegu, eta etzarete danzatu: eresiz kantatu drauzuegu, eta eztuzue deithorerik egin.

18 Ezen ethorri da loanes iaten ez edaten eztuela, eta erraiten dute, Deabrua du.

19 Ethorri da gizonaren Semea iaten eta edaten duela, eta dioite, Horra, gizon gormanta eta hordia, publikanoen eta bizitze gaixtotakoen adiskidea. Baina iustificatu izan da sapientia bere hurrez.

20 Orduan has zekien *hunela* reproxatzen haren berthuterik anhitz egin izan zen hiriei, zeren emendatu etziraden:

21 Malediktione hiri Korazin, malediktione hiri Bethsaida: ezen baldin Tiren eta Sidonen egin izan balirade zuek baithan egin izan diraden berthuteak, aspaldi zakurekin eta hautsekin emendatu ziratekeen.

22 Etare diotsuet, Tir eta Sidon iudizioko egunean zuek baino emekiago traktatuak izanen diradela.

23 Eta hi Kapernaum zerurano altxatu izan aizena ifernurano beheraturen aiz: ezen baldin Sodoman egin izan balirade hi baithan egin izan

diraden berthuteak, egungo egunerano egon zatean.

24 Etare badiotsuet, ezen Sodomakoak hi baino emekiago traktatuak izanen diradela iudizioko egunean.

25 Denbora hartan ihardesten zuela Iesusek erran zezan, Aita, zeruko eta lurreko launa, eskerrek rendatzen drauzkiat, zeren estali baitrauztek gauza hauk zuhurrei eta adituei, eta manifestatu baitrauztek haur xipiei.

26 Bai Aita, zeren hala izan baita hire plazer ona.

27 Gauza guziak niri neure Aitaz eman zaizkit: eta nehork eztu ezagutzen Semea Aitak baizen: ezeta Aita nehork eztu ezagutzen Semeak baizen, eta nori ere Semeak manifestatu nahi ukanen baitrauka.

28 Zatozte enegana fatigatuak eta kargatuak zareten guziak, eta nik pausu emanen drauzuet zuei.

29 Har ezazue ene uztarria zuen gainera, eta ikas ezazue eneganik ezen eme naizela eta bihotzez humil: eta zuen arimenzat pausu eridenen duzue.

30 Ezen ene uztarria aisit da, eta ene karga arin.

KAP. XII.

1 Diszipuluak Sabbath egunean buruka idokiten ari. 7 Misericordia eta Sakrifizioa. 8 Sabbathoa. 13 Esku eiharduna sendatu. 11 Ardi lezera eroria. 15 Kristek eriak sendatzen. 21 Jentilen esperanza. 22 Demoniatua sendatu. 24, 31 Blasfemia. 25 Resuma zathitua. 28 Iainkoaren Espiritua. 33 Arbore ona edo gaixtoa. 39 Ionasen signoa. 41 Ninibakoak. 42 Egu-erdi aldeko regina. 43 Espiritu gaixtoak. 49 Kristen egiazko ahaideak zein.

1 Denbora hartan ioaiten zen Iesus ereinze-tan gaindi Sabbath egun batez: eta haren diszi-puluak ziraden gose, eta has zitezen buruka ido-kiten, eta iaten.

2 Eta Fariseuek ikusirik erran ziezoten, Horra, hire diszipuluek egiten die Sabbathoan egin sori eztena.

3 Baina hark erran ziezen, Eztuzue irakurri Dabid-ek gosez egin zuena eta harekin ziradene-
nek?

4 Nola sarthu izan zen lainkoaren etxean, eta propositionezko ogiak ian zituen: hetarik iatea ez haren, ez harekin ziradenen, Sakrifikadoren bai-
zen sori etzelarik?

5 Edo eztuzue irakurri Legean, nola Sabbath *egunetan* Sakrifikadorek tenplean Sabbath eguna hausten duten, eta hogen-gabe diraden?

6 Bada erraiten drauzuet, ezen tenplea baino handiago bat hemen dela.

7 Eta baldin bazinakite zer den, Misericordia nahi dut eta ez sakrifizio, etzintukezten konden-
natu hogen-gabeak.

8 Ezen Sabbathoaren ere laun da gizonaren Semea.

9 Eta handik partiturik haien sinagogara ethor zedin.

10 Eta huna, zen *han* gizon bat eskua eihar zuenik: eta interroga zezaten, ziotela, Sori da

Sabbath *egunean* sendatzea? *haur zioiten*, hura akusa lezatenzat.

11 Eta hark erran ziezen, Nor izanen da zue-tarik gizona, ardi bat duenik: eta, baldin hura Sabbathoan lezera eror badadi, harturen eta altxaturen eztuena?

12 Eta zenbatez da gizona ardia baino gehiago? Beraz sori da Sabbathoetan ungi egitea.

13 Orduan diotso gizon hari, Heda ezak eure eskua. Eta heda zezan, eta berzea bezain senda zedin.

14 Eta Fariseuek ilkirik har zezaten konseillu, haren kontra, nolatan hura hil lezaketen.

15 Baina Iesusek *hori* ezaguturik leku egin zezan handik: eta iarreiki zekion jendalde handia, eta hek guziak senda zitzan.

16 Eta mehatxurekin debeta zitzan ezlezaten manifesta.

17 Konpli ledinzat Esaias profetaz erran izan zena, zioela,

18 Huna, ene zerbitzari elejitu dudana, ene maitea, zeinetan hartzen baitu bere atsegina ona ene arimak: ezarriren dut neure Espiritua haren

gainean, eta iujemendu Jentilei predikaturen draue.

19 Eztu ihardukiren, ezeta oihurik eginen, eta nehork eztu karriketan haren boza enzunen.

20 Kanabera zarthatua eztu xehaturen, eta kea darion lihoa eztu iraungiren: iujemendua biktoriatan ilki erazi diroeno.

21 Eta haren izenean Jentilek esperanza ukanen dute.

22 Orduan presentatu izan zaio demoniatu itsu eta mutu bat: eta senda zezan hura, halako maneraz non itsu eta mutu *zena* minzo baitzen eta ikusten baitzuen.

23 Eta espanta zedin populu guzia, eta erraiten zuen, Ezta haur Dabid-en semea?

24 Baina Fariseuek *hori* enzunik, erraiten zuten: Hunek eztitu deabruak kanpora egoizten Beelzebub deabruen prinzearen partez baizen.

25 Baina Iesusek ezagaturik haien pentsamenduak, erran ziezen, Bere kontra partitua den resuma guzia, deseginen da: eta bere kontra partitua den hirik edo etxek, eztu iraunen.

26 Eta baldin Satanek Satan kanpora egoizten badu, bere kontra partitua da: nolatan beraz iraunen du haren resumak?

27 Eta baldin nik Beelzebub-en partez kanpora egoizten baditut deabruak, zuen semek noren partez kanpora egoizten dituzte? Halakotz hek zuen iuje izanen dirade.

28 Baina baldin nik lainkoaren Espirituaz kanpora egoizten baditut deabruak, beraz ethorri da zuetara lainkoaren resuma.

29 Ezpa nolatan nehor sar ahal daite borthitz baten etxera, eta haren ostillamendua pilla, baldin lehen esteka ezpadeza borthitza? eta orduan haren etxea pillaturen duke.

30 Enekin eztena ene kontra da, eta enekin biltzen ari eztena barreiatzen ari da.

31 Halakotz erraiten drauzuet, bekatu eta blasfemio guzia barkaturen zaie gizonei: baina Espirituaren *kontretako* blasfemia barkaturen etzaie gizonei.

32 Eta nor ere minzaturen baita gizonaren Semearen kontra, barkaturen zaio hari: baina nor ere minzaturen baita Espiritu sainduaren

kontra, etzaio barkaturen hari ez sekula hune-
tan, ez ethorteko denean:

33 Edo egizue arbore ona, eta haren fruktua
on: edo egizue arbore ustela, eta haren fruktua
ustel: ezen fruktutik arborea ezagutzen da.

34 Biperen kasta, nolatan ungi minza ahal
zaitezke gaixto zaretelarik? ezen bihotzeko
abundantiatik ahoa minzo da.

35 Gizon onak bihotzeko thesaur onetik ido-
kiten ditu gauza onak : eta gizon gaixtoak the-
saur gaixtotik idokiten ditu gauza gaixtoak.

36 Baina badiotsuet, ezen gizonen erran
dukeiten hitz alfer guziaz, kontu rendaturen
dutela iudizioko egunean.

37 Ezen eure hitzetarik iustificaturen aiz, eta
eure hitzetarik kondemnaturen aiz.

38 Orduan ihardets zezaten Eskribetarik eta
Fariseuetarik batzuk, zioitela, Majistrua, nahi
gendikek hireganik zenbeit signo ikusi.

39 Baina hark ihardesten zuela erran ziezen,
Nazione gaixtoa eta adulteroa signo eskez dago:
baina signorik etzaio emanen, Ionas profetaren
signoa baizen.

40 Ezen hala nola Ionas balenaren sabelean hirur egun eta hirur gau izan baitzen: hala izanen da gizonaren Semea lurraren bihotzean, hirur egun eta hirur gau.

41 Ninibako gizonak iaikiren dirade iudizioan natione hunekin, eta kondemnaturen dute haur: zeren hek emendatu baitziraden Ionasen predikationera, eta huna, Ionas bainoagoa hemen.

42 Egu-erdiko regina iaikiren da iudizioan natione hunekin, eta *hark* kondemnaturen du haur: zeren ethor baitzedin lurraren bazterretik Salomonen sapientiaren enzutera, eta huna, Salomon bainoagoa hemen.

43 Bada espiritu satsua ilki denean gizonaganik, leku leihorrez dabila, pausu bilha, eta eztu erideiten.

44 Orduan erraiten du, Itzuliren naiz neure ilki naizen etxera. Eta ethorri denean, erideiten du hutsa, eskobaturik eta apaindurik.

45 Orduan ioaiten da, eta hartzen ditu berekin berzerik zazpi espiritu bera baino gaixtoagoak, eta sarthurik habitatzen dirade han, eta gizon haren fina hatsea baino gaixtoago da: hala natione gaixto huni ere helduren zaio.

46 Eta hura oraino populuari minzo zaiola, huna, haren ama eta anaieak zeuden lekorean, harekin minzatu nahiz.

47 Eta zenbeitek erran ziezon, Hara, hire ama eta hire anaieak lekorean diaudek, hirekin minzatu nahiz.

48 Baina hark ihardesten zuela erran ziezon *hura* erran zionari, Nor da ene ama, eta nor dirade ene anaieak?

49 Eta hedaturik bere eskua bere diszipuluen gainera, erran zezan, Huna ene ama eta ene anaieak.

50 Ezen nork ere eginen baitu ene Aita zeruetan denaren borondatea, hura da ene anaie, eta arreba, eta ama.

KAP. XIII.

*3 Hazi ereillearen konparationea. 18
Haren deklarationea. 10, 14 Zergatik
Krist konparationez minzo den. 21
Persekutionea. 22 Mundua,
abrastasunak. 24 Hirakaren*

*konparationea. 31 Mustarda
bihiarena. 33 Altxagarriarena. 44
Thesaur landan gordearena. 45
Perlana. 47 Itsasora egotzi sarena.
54 Krist bere herrian menospreziatu.*

1 Egun hartan berean Iesus etxetik ilkirik, iar zedin itsas kostan.

2 Eta bil zedin harengana jendetze anhitz, hanbat non unzi batetara sarthurik iar baitzedin: eta jendetze guzia itsas kostan zegoen.

3 Eta erran zizeen anhitz gauza konparationez, zioela, Huna, ereille bat ilki zedin ereitera.

4 Eta ereitean *hazitik* batzu eror zitezen bide bazterrera: eta xoriak ethorri izan dirade, eta iretsi ukan dituzte hek.

5 Eta batzu erori izan dirade leku harrizuetara, non ezpaitzuten heuragi lurrik: eta bertan ilki zitezen, zeren ezpaitzuten lur barnerik.

6 Gero iguzkia goratu eta, erre izan dirade, eta zeren ezpaitzuten errorik, eiarthu izan dirade.

7 Eta batzu erori izan dirade elhorri artera: eta handitu izan dirade elhorriak, eta itho ukan dituzte hek.

8 Eta batzu erori izan dirade lur onera: eta fruktu renda zezaten, batak ehun, berzeak hirurogei, eta berzeak hogeia eta hamar.

9 Enzuteko beharririk duenak, enzun beza.

10 Orduan hurbildurik diszipuluek erran ziezoten, Zergatik konparationez minzo atzaie?

11 Eta hark ihardesten zuela, erran ziezen, Zeren zuei eman baitzaizue zeruetako resumako sekretuen ezagutzea, baina haei etzaie eman.

12 Ezen nork ere baitu, hari emanen zaio, eta hanbatez gehiago ukanen du: baina nork ere ezpaitu, hari duena ere edekiren zaio.

13 Halakotz konparationez minzo natzaie: zeren dakusatelarik ezpaitute ikusten, eta enzuten dutelarik ezpaitute enzuten, ez aditzen.

14 Hala konplitzen da hetan Esaiasen profetia, zeinek baitio, Enzutez enzunen duzue, eta ez adituren: eta dakusazuela ikusiren duzue eta etzaizkiote oharturen.

15 Ezen gizendua da populu hunen bihotza, eta beharriez gogorki enzun ukan dute, eta

begiak ertsi ukan dituzte: begiez ikus, eta beharriez enzun, eta bihotzaz adi eztezaten, eta konberti eztitezen, eta senda eztitzadan.

16 Bada dohatsu dirade zuen begiak, ezen ikusten dute: eta zuen beharriak, ezen enzuten dute.

17 Ezen egiaz erraiten drauzuet, anhitz Profetak eta iustok desiratu ukan dutela ikustera *zuek* ikusten dituzuen gauzen, eta ezpaitituzte ikusi: eta enzutera, enzuten dituzuen gauzen, eta ezpaitituzte enzun.

18 Zuek bada enzuzue ereillearen konparatonea.

19 Noiz ere nehork enzuten baitu resuma hartako hitza, eta ez aditzen, ethorten da Gaixto hura, eta harrapatzen du haren bihotzean erein zena: haur da bide bazterrean hazia rezebitu duena.

20 Eta leku harrizuetara hazia rezebitu duena, haur da, hitza enzuten, eta hura bertan bozkariorekin rezebitzen duena:

21 Baina eztu errorik bere baithan, halakotz da iraute gutitako: eta tribulationerik edo perse-

kutionerik hitzagatik heltzen denean, bertan eskandalizatzen da.

22 Eta elhorri artera hazia rezebitu duena, haur da hitza enzuten duena, baina mundu hunetako arthak, eta abrastasunezko enganioak ithotzen dute hitza, eta frukturik eztu egiten.

23 Baina lur onera hazia rezebitu duena, haur da hitza enzuten eta aditzen duena, zeinek fruktu ekarten baitu eta egiten, batak ehun, eta berzeak hirurogei, eta berzeak hogeia eta hamar.

24 Berze konparatione bat proposa ziezen, zioela, Konparatu da zeruetako resuma hazi ona bere landan erein duen gizonarekin.

25 Baina gizonak lo zeunzala, ethor zedin haren etsaia, eta erein zezan hiraka, ogi artean: eta ioan zedin.

26 Eta handitu zenean belharra, eta fruktu egin zuenean, orduan ager zedin hiraka ere.

27 Orduan ethoririk aitafamiliaren zerbitzariak erran ziezoten, launa, eztuk hazi ona erein eure landan? nondik du beraz hiraka?

28 Eta hark erran ziezen, Gizon etsaiak hori egin du. Eta zerbitzariak erran ziezoten, Nahi duk bada goazen eta bil dezagun hura?

29 Eta hark erran ziezen, Ez: hirakaren biltzean ogia ere idoki eztezazuen harekin batean.

30 Utzitzazue biak elkarrekin handitzera uzta-arterano: eta uzta denboran, erranen drauet biltzalei, Bil ezazue lehenik hiraka, eta hers ezazue azautoz erratzekotzat: baina ogia bil ezazue ene granerera.

31 Berze konparatione bat proposa ziezen, zioela, Konparatu da zeruetako resuma, mustarda bihi gizon batek harturik bere landan erein duenarekin.

32 Zein baita hazi guzietako xipiena, baina handitu denean, berze belharrak baino handiago da: eta arbore bilhatzen da, hanbat non ethorten baitirade zeruko xoriak, eta ohatzeak egiten baitituzte haren adarretan.

33 Berze konparatione bat erran ziezen, *zioela*, Konparatu da zeruetako resuma altxagariarekin, zein emazte batek harturik hirur neurri irinen barnean gorde ukan baitu, guzia altxa dadin arterano.

34 Gauza hauk guziak erran zietzen Iesusek konparationez jendetzei, eta konparatione gabe etzaien minzaten.

35 Konpli ledinzat Profetaz erran izan dena, zioela, Irekiren dut konparationez neure ahoa: deklaraturen ditut munduaren fundatzetik gorderik egon izan diraden gauzak.

36 Orduan utzirik populua ethor zedin etxera Iesus: eta ethorri izan zaizkan bere diszipuluak, zioitela, Deklara iezaguk landako hirakaren konparationea.

37 Eta hark ihardesten zuela erran ziezen, Hazi ona ereiten duena da gizonaren Semea.

38 Eta landa da mundua: eta hazi ona, resumako haurrak dirade: eta hiraka, Gaixtoaren haurrak dirade:

39 Eta hura erein duen etsaia, da deabrua: eta uzta, munduaren fina da: eta uzta biltzaleak, Aingeruak dirade.

40 Bada hala nola biltzen baitute hiraka, eta suan erratzen, hala izanen da mundu hunen finean.

41 Igorriren ditu gizonaren Semeak bere Aingeruak, eta bilduren dituzte haren resumatik eskandalo guziak, eta inikitate egiten dutenak.

42 Eta egotziren dituzte labe daixekanera: han izanen da nigar eta hortz garraskots.

43 Orduan iustoeke argituren dukeite iguzkiak bezala, bere Aitaren resuman. Enzuteko beharrik duenak enzun beza.

44 Berriz konparatu da zeruetako resuma thesaur landa batetan gorderik dagoenarekin, hura eridenik gizon batek estali ukan du: eta harzazko bozkarioz ioaiten da, eta duen guzia saltzen du, eta landa hura erosten.

45 Berriz konparatu da zeruetako resuma gizon marxant perla ederren bilha dabilanarekin

46 Zeinek prezio handitako perla bat eriden zuenean, ioanik sal baitzezan zuen guzia, eta eros baitzezan hura.

47 Berriz konparatu da zeruetako resuma sare itsasora egotzi batekin, eta *gauza* mota guzietarik biltzen duenarekin:

48 Zein bethe izan zenean idoki baitzezaten ur ezpondara: eta iarririk bil zitzaten onak unziatara, eta gaixtoak kanporat iraitz zitzaten.

49 Hala izanen da munduaren finean: ethorriren dirade Aingeruak, eta separaturen ditukeizte gaixtoak iustoen artetik.

50 Eta egotziren ditukeizte labe daixekanera: han izanen da nigar eta hortz garraskots.

51 Erraiten draue Iesusek, Aritu dituzue gauza hauk guziak? Diotsate, Bai launa.

52 Eta hark erran ziezen, Halakotz Eskriba zeruetako resuman irakatsia den guzia, konparatu da zenbeit aita familia bere thesauretik gauza berririk eta zaharrik idokiten duen batekin.

53 Eta gertha zedin konparazione hauk akabatu zituenean, Iesus iragan baitzedin handik.

54 Eta ethorri zenean bere herrira, irakasten zituen hek beren sinagogetan: *hanbat* non espantatuak baitzeuden, eta erraiten baitzuten, Nondik huni sapientia haur eta berthuteak?

55 Ezta haur xarpanter- seme? ezta horren ama Maria deitzen, eta horren anaieak lakes eta loses eta Simon eta Iuda?

56 Eta horren arrebak eztatze guziak gu baithan? nondik bada huni gauza hauk guziok?

57 Eta eskandalizatzen ziraden hartan. Eta Iesusek erran ziezen, Ezta Profetarik ohoregabe bere herrian eta bere etxean baizen.

58 Eta etzezan egin han berthute anhitzik, haien inkredulitatearen kausaz.

KAP. XIII.

2 Herodesek Kristez duen opinioea.

3, 10 Ioanes Baptistaren

hatzamaiteko eta hiltzeko kausa. 13

*Krist desertura retiratzen. 17 Borz
ogiezko eta bi arrainezko mirakulua.*

23 Mendian Kristek othoitz egiten.

26 Eta itsas gainez zabilala. 30

Pierris hundatzetik begiratzen. 31

Fedea duda gabe izateko.

1 Denbora hartan enzun zezan Herodes Tetrarkak Iesusen fama:

2 Eta erran ziezen bere zerbitzariei, Haur Ioanes Baptista da, hura resusztatuta izan da hiletarik, eta halakotz berthutek obratzen dute huntan.

3 Ezen Herodesek hatzamanik Ioanes esteka zezan, eta presoindegian ezar, Herodias haren anaia Filiperen emaztearen kausaz.

4 Ezen erraiten zeraukan hari Ioanesez, Eztuk sori hori duan.

5 Eta hura hil nahi zuelarik popularen beldur zen, zeren Profeta bezala baitzadukaten hura.

6 Bada Herodesen sor eguneko besta egiten zenean, danza zedin Herodiasen alaba artean: eta Herodesen gogara egin zezan.

7 Nondik iuramendurekin prometa baitziezon, emanen zeraukala zer ere eska bailedi.

8 Hark bada aitzinetik amaz instruitu izanik, Indak (dio) hemen platean loanes Baptistaren burua.

9 Eta triste zedin rege: baina zinaren, eta harekin mahainean iarririk zeudenen kausaz, mana zezan eman lekion.

10 Eta igor zezan loanesi presoindegian buruaren edeki erazitera.

11 Eta ekarri izan da haren burua platean, eta eman zekion neskatxari, eta *hark* presenta ziezon bere amari.

12 Gero ethor zitezen haren diszipuluak, eta eramane zezaten haren gorputza, eta ohortz zezaten: eta ioanik konta ziezoten Iesusi.

13 Eta *hori* enzunik Iesus parti zedin handik unzi batetan leku desertu batetara apart: eta

enzunik jendetzeak oinez iarreiki izan zaizkan hirietarik.

14 Eta ilkirik Iesusek ikus zezan jendetze handi bat eta konpasiōne har zezan hezaz, eta haien arteko eriak senda zitzañ.

15 Eta arrats aldean ethorri izan zaizkan bere diszipuluak, zioitela, Leku desertua duk haur, eta ordua ia iragan, eiek konjit jendetzei, burguetarat ioanik iateko eros dezatenzat.

16 Baina Iesusek erran ziezen, Eztute ioaiteko mengoarik, eiezue zeurok iatera.

17 Eta hek diotsote, Eztiagu hemen borz ogi eta bi arrain baizen.

18 Eta hark erran ziezen, Ekaztazue huna.

19 Eta populua belhar gainean iartera manaturik, eta borz ogiak eta bi arrainak harturik, begiak zerurat goititurik, gratiak renda zitzañ, eta hautsirik eman zietzen diszipuluei ogiak, eta diszipuluek jendetzei.

20 Eta ian zezaten guziek, eta resasia zitezten: eta goiti zitzaten zathi soberatuetarik hamabi saski betherik.

21 Eta ian zutenak ziraden borz milla gizonen ingurua, emazteak eta haurrak gabe.

22 Eta bertan lesusek bortxa zitzaiz bere diszipuluak unzian sartzera, eta haren aitzinean berze aldera iragaitera: populuari konjiteko leion bizkitartean.

23 Eta konjiteko emaniko populuari, igandekin zedin mendira bereziki, othoitz egin lezanzat. Eta arrastu zenean berbera zen han.

24 Eta unzia ia itsasoaren artean zen, bagez tormentatua: ezen haize kontra zen.

25 Eta gauaren laugarren beillan ioan zedin hetara Iesus, itsas gainez zabilala.

26 Eta hura ikusirik itsas gainez zabilala, diszipuluak trublak zitezten, erraiten zutela, Fantosma bat da, eta beldurtiz oihu egin zezaten.

27 Baina bertan minza zekien Iesus, zioela, Esporza zaitezte: ni naiz etzaretela beldur.

28 Eta ihardesten zeraukala Pierrisek erran zezan, launa, baldin hi bahaiz, mana nezak hiregana ethortera ur gainez.

29 Bada hark erran zezan, Athor. Eta iautsirik unzitiko Pierris ioan zedin ur gainez, Iesusgana ethor ledinzat.

30 Baina haizea sendo ikusirik, izit zedin: eta hundatzen hasi zenean oihu egin zezan, zioela, launa, salba nezak.

31 Eta bertan Iesus eskua hedaturik lotzekion, eta diotso, O fede xipitakoa, zergatik dudatu duk?

32 Eta sarthu ziradenean unzira, sosega zedin haizea.

33 Orduan unzian ziradenek ethoririk adora zezaten hura, zioitela, Egiazki lainkoaren Seme aiz.

34 Eta berze aldera iraganik ethor zitezen Jenesaretko lurrera.

35 Eta hura ezagutu ukan zutenean leku hartako gizonak, igor zezaten inguruko aldiri guzietara, eta presenta zietzoten eri ziraden guziak.

36 Eta othoitz egiten zeraukaten solament hunki lezaten haren abillamendu ezpaina, eta hunki ukan zuten guziak, senda zitezen.

KAP. XV.

*3 Gizonen doktrinaz. 12
Eskandalizatzeaz. 13 Landare
erroetarik idokiren denaz. 18 Zerk
nehor satsutzen duen. Kananearen
alaba sendatu. 24 Krist norgatik
igorri izan den. 26 Haurren ogiaz. 28
Fedeaz. 30 Kristek eriak sendatzen.
36 Zazpi ogiezko mirakulua.*

1 Orduan ethorten dirade Iesusgana Ierusalem-
metar Eskriba eta Fariseu batzu, dioitela,

2 Zergatik hire diszipuluek iragaiten dute
aitzinekoen ordenanza? ezen ezititue ikutzen bere
eskuak ogia iaten dutenean.

3 Eta hark ihardesten zuela erran ziezen, Eta
zuek zergatik iragaiten duzue lainkoaren mana-
mendua zuen ordenanzaz?

4 Ezen lainkoak manatu ukan du, dioela,
Ohoraitzak eure aita eta ama. Eta, Aita edo ama
maradikaturen duena, herioz hil bedi.

5 Baina zuek diozue, Nork ere erranen bai-
trauka aitari edo amari, Eneganik den dono

guzia probetxaturen zaik: ohora ezpadeza ere bere aita edo bere ama *hogen gabe date*.

6 Eta ezdeustu ukan duzue lainkoaren manamendua zuen ordenanzaz.

7 Hipokritak, ungi profetizatu ukan du zuezaz Esaiasek, dioela,

8 Populu haur ahoz hurbiltzen zait, eta ezpainez ohoratzen nau: baina hauen bihotza urrun da eneganik.

9 Baina alferretan ohoratzen naute, irakasten dituztela doktrinatzat gizonen manamenduak.

10 Eta populua beregana deithurik erran ziezzen, Enzun ezazue eta adi ezazue.

11 Eztu ahoan sartzen denak satsutzen gizona: baina ahotik ilkiten denak satsutzen du gizona.

12 Orduan hurbildurik bere diszipuluek erran ziezoten, Ezagutu duk nola Fariseuak propos horienzunik eskandalizatu izan diraden?

13 Eta hark ihardesten zuela erran zezan, Ene Aita zeruetakoak landatu eztuen landare guzia erroetarik idokiren da.

14 Utzitzazue, itsurik itsuen gidari dirade: baldin itsuak itsua gida badeza, biak hobira eroriren dirade.

15 Orduan ihardesten zuela Pierrisek erran ziezon, Deklara iezaguk konparatione hori.

16 Eta Iesusek erran zezan, Oraino zuek ere adimendu gabe zarete?

17 Oraino eztuzue aditzen ezen ahoan sartzen den guzia, sabelera ioaiten dela, eta retreitera egoitzen dela?

18 Baina ahotik ilkiten diradenak, bihotzetik partitzen dirade, eta hek satsutzen dute gizona.

19 Ezen bihotzetik partitzen dirade pensa-mendu gaixtoak, hiltzekak, adulterioak, paillardizak, ohoinkeriak, testimoniaje falsuak, gaitze-rraitekak.

20 Hauk dirade gizona satsutzen dutenak: baina eskuak ikuzi gaberiko iateak, eztu gizona satsutzen.

21 Eta ilkirik handik Iesus ioan zedin Tireko eta Sidongo komarketarat.

22 Eta huna, emazte Kananea bat aldiri heta-rik ilkirik, oihuz iar zedin, ziotsola, Auk pietate

nizaz Dabid-en seme launa, ene alaba duk dea-bruaz gaizki tormentatua.

23 Baina hark etziezon ihardets hitzik. Orduan hurbildurik bere diszipuluek othoitz zegioten, zioitela, Emok konjit: ezen oihuz diaok gure ondoan.

24 Eta hark ihardesten zuela erran zezan, Eznaiz igorri Israeleko etxeko ardi galduetara baizen.

25 Eta hark ethorririk adora zezan hura, zioela, launa, aiuta nezak.

26 Eta hark ihardesten zuela erran zezan, Eztun gauza bidezkoa haurren ogiaren hartzea, eta xakurrei egoiztea.

27 Baina hark erran zezan, Hala duk, launa, baina xakurrek ere bere nabusien mahainetik erorten diraden apurretarik iaten die.

28 Orduan ihardesten zuela lesusek erran ziezon, O emaztea, handi dun hire fedea: egin bekin nahi dunan bezala. Eta senda zedin haren alaba orduandanik.

29 Eta partiturik handik Iesus ethor zedin. Galileako itsas aldera: eta iganik mendira, iar zedin han.

30 Orduan ethor zedin harengana anhitz jendetze, zutela berekin maingurik, itsurik, muturik, hebainik eta anhitz berzerik: eta ezar zitzaten Iesusen oinetara, eta senda zitzan.

31 *Hala* non populuak mirets baitzezan zakuskianean mutuak minzaten, hebainak sendaturik, mainguak zabiltzala, itsuek ikusten zutela: eta glorifika zezaten Israeleko lainkoa.

32 Orduan Iesusek beregana deiturik bere diszipuluak erran zezan, Konpasiōe dut populu hunezaz: ezen ia hirur egun du enekin dagoela, eta eztute zer ian dezaten: eta eztitut barurik igorri nahi, bidean flaka eztitezenzat.

33 Eta bere diszipunuek diotsote, Nondik guri hanbat ogi desertuan hunanbat jenderen resasiatzeko?

34 Eta dioste Iesusek, Zenbat ogi dituzue? Eta hek erran ziezoten, Zazpi, eta arraintxo batzu.

35 Orduan mana zezan populua lurrean iartera.

36 Eta harturik zazpi ogiak eta arrainak, gra-tiak rendaturik hauts zitzan, eta eman zietzen bere diszipunuei: eta diszipunuek populuari.

37 Eta ian zezaten guziek, eta resasia zitezten: eta goiti zitzaten zathi soberatuetarik zazpi saski betherik.

38 Eta ian zutenak ziraden, laur milla gizon, emazteak eta haurrak gabe.

39 Orduan konjit emanik jendetzeari, igan zedin unzi batetara: eta ethor zedin Magdaleko bazterretara.

KAP. XVI.

4 Ionasen signoa Fariseuei emaiten.

6 Haien altxagarria. 13 Jendek Kristez duten reputationea. 16 Krist prometatu izan zena, nola Iesus den.

17 Fedea lainkoaganik heldu. 18 Harriaren ganean Eliza. 19 Gakoak.

Lotzea. Laxatzea. 21 Kristek aitzinetik bere herioa erraiten. 23

Pierris Sathan deithu. 24 Kristi iarreiki nahi zaionak zer egiteko. 25 Bizitzearen galtzea edo erideitea.

1 Eta ethorririk Fariseuek eta Saduzeuek, tentatzen zutela rekiri zezaten zenbeit signo zerutik erakuts liezen.

2 Baina hark ihardesten zuela erran ziezen, Arratsean, erraiten duzue, Denbora eder *eginen du*: ezen gorri da zerua.

3 Eta goizean *diozue*, Egun tenpestate *eginen du*: ezen zerua orzgorri gaitz da. Hipokritak, zeruaren irudiaz, iujeatzen dakizue, eta denboretako signoez ezin dirozue?

4 Jeneracione gaixtoa edo adulteroa signo eskez dago, eta signorik etzaio hari emanen lonas profetaren signoa baizen. Eta hek utzirik ioan zedin.

5 Eta ethorri ziradenean haren diszipuluak berze aldera, ahanz zekien ogi hartzera.

6 Eta Iesusek erran ziezen, Gogoauzue eta begira zaitzte Fariseuen eta Saduzeuen altxagarritik.

7 Eta hek ihardukiten zuten bere artean, zioitela, *Hori dio*, zeren ogirik hartu eztugun.

8 Eta Iesusek ezaguturik erran ziezen, Zer dihardukazue zeuron artean, fede xipitakoak, zeren ogirik hartu eztuzuen?

9 Oraino eztuzue aditzen, eta etzarete gehiagorik orhoit borz milla *gizonen* borz ogiez, eta zenbat saski goititu zintuzten?

10 Ezeta laur milla *gizonen* zazpi ogiez, eta zenbat saski goititu zintuzten?

11 Nola eztuzue aditzen ezen eztrauzuedala ogiz erran, begira zindeizten Fariseuen eta Saduzeuen altxagarritik?

12 Orduan adi zezaten ezen etzuela erran, begira litezen ogi altxagarritik, baina Fariseuen eta Saduzeuen doktrinatik.

13 Eta ethorri zenean Iesus Zesareako bazter Filiperenetara, interroga zitzan bere diszipuluak, erraiten zuela, Ni nor naizela dioite gizonek, gizonaren Semea?

14 Eta hek erran zezaten, Batzuk, Ioanes Baptista: eta berzek, Elias: eta berzek, Hieremias, edo Profetetarik bat.

15 Dioste, Eta zuek nor naizela diozue?

16 Ihardesten zuela Simon Pierrisek erran zezan, Hi aiz Krist lainko biziaren Semea.

17 Eta ihardesten zuela Iesusek erran ziezon hari, Dohatsu aiz Simon Ionaren semea: ezen

haragiak ez odolak eztrauk *hori* rebelatu, baina ene Aita zeruetan denak.

18 Baina are nik erraiten drauat, ezen hi aize-la Pierris, eta Harri hunen gainean edifikaturen dudala neure Eliza: eta ifernuko borthak etzaiz-kala hari garaithuren.

19 Eta hiri emanen drauzkiat zeruetako resu-maren gakoak, eta zer ere lothuren baituk lurrean, lothua izanen duk zeruetan: eta zer ere laxaturen baituk lurrean, laxatua izanen duk zeruetan.

20 Orduan mana zitzan expresuki bere diszi-puluak nehuri ezlerroten, hura zela IESUS KRIST.

21 Orduandanik has zedin Iesus bere diszipu-luei deklaritzen, ezen behar zuela ioan Ierusalem-era, eta anhitz sufritu Anzianoetarik eta Sakri-fikadore prinzipaletarik, eta Eskribetarik, eta heriotara eman *behar zela*, eta hereneko egu-nean, resuszitate.

22 Eta hura apartaturik has zekion Pierris reprotxatzen, zioela, Euroraz auk pietate, launa: etzaik hiri hori helduren.

23 Eta hark itzulirik erran ziezon Pierrisi, Gibelerat adi eneganik Satan, enpatxu atzait:

ezen eztituk aditzen lainkoaren *diraden* gauzak, baina gizonen *diradenak*.

24 Orduan Iesusek erran ziezen bere diszipuluei, Baldin nehor ene ondoan ethorri nahi bada, renuntia beza bere buruaz, eta har beza bere krutzea, eta berrait niri.

25 Ezen nork ere nahi ukanen baitu salbatu bere bizia, galduren du hura: eta nork ere galduren baitu bere bizia ene kausaz, eridenen du hura.

26 Ezen zer probetxu du gizonak baldin mundu guzia irabaz badeza, eta bere arima gal badeza? edo zer emanen du gizonak bere arimaren rekonpensamendutan?

27 Ezen gizonaren Semea ethorriren da bere Aitaren glorian bere Aingeruekin: eta orduan rendaturen drauka batbederari bere obren araura.

28 Egiaz diotsuet, badirade hemen present diradenetarik batzu, herioa dastaturen eztutenik, gizonaren Semea bere resumara ethorten ikus diroiteno.

KAP. XVII.

*2 Krist transfiguratu. 5 Hura
enzuteko. 11 Elias. 13 Ioanes
Baptista. 15 Lunatikoa sendatu. 17
Apostoluen inkredulitatea. 20
Fedearen botherea. 21 Orationea
eta barura. 22 Kristek bere pasionea
aitzinetik erraiten. 25 Tributa
pagatzen.*

1 Eta sei egunen buruan, har zitzan Iesusek Pierris eta Iakes eta Ioanes haren anaia, eta eramane zitzan apart mendi gora batetara.

2 Eta transfigura zedin haien aitzinean, eta argi zedin haren begithartea iguzkia bezala, eta haren abillamenduak xuri zitezen argia bezala.

3 Eta huna, ikus zitzaten Moises eta Elias harekin minzo ziradela.

4 Eta ihardesten zuela Pierrisek erran ziezon Iesusi, launa, on duk gu hemen garen: nahi baduk, egin ditzagun hemen hirur tabernakle, bat hire, eta bat Moisesen, eta bat Eliasen.

5 Oraino hura minzo zela, huna, hodei argi batek estal zitzan hek: eta huna boz bat hodeietik, zioela, Haur da ene Seme maitea, zeinetan neure atsegin ona hartzen baitut: huni beha zakizkiote:

6 Eta *hori* enzunik diszipuluak eror zitezen, bere begitharten gainera, eta izit zitezen hagitz.

7 Orduan ethorririk lesusek hunki zitzan hek, eta erran ziezen, laiki zaitezte, eta etzaretela beldur.

8 Eta goititurik bere begiak nehor etzezaten ikus lesus bera baizen.

9 Eta menditik iausten ziradela, mana zitzan lesusek, zioela, Nehori ezterrozuela bisioea, gizonaren Semea hiletarik resuszita daiteno.

10 Eta interroga zezaten bere diszipuluek, zioitela, Zergatik beraz Eskribek erraiten dute ezen Elias behar dela lehen ethorri?

11 Eta ihardesten zuela lesusek erran ziezen, Elias ethorriren bada lehen, eta bere estaturako ditu gauza guziak:

12 Baina erraiten drauzuet ezen Elias ia ethorri dela, eta hura eztute ezagutu ukan, baina

egin dute harzaz nahi ukan duten guzia: hala gizonaren Semeak ere sufrituren du hetarik.

13 Orduan adi zezaten diszipunuek ezen loanes Baptistaz erran zerauela.

14 Eta ethorri ziradenean populuagana, ethor zedin harengana gizon bat, haren aitzinean belhaurikatzen zela,

15 Eta zioela, launa, auk pietate ene semeaz, ezen lunatiko duk eta gaizki tormentatzen: ezen maiz erorten duk sura, eta maiz urera.

16 Eta presentatu diraueat hura hire diszipunuei, eta ezin sendatu die.

17 Eta ihardesten zuela lesusek erran zezan, O nazione sinheste gabea eta bihurria, noizdrano finean zuekin izanen naiz? noizdrano finean suportaturen zaituztet? ekardazue hura huna.

18 Eta mehatxa zezan deabrua lesusek, eta ilki zedin harenganik: eta senda zedin muthilla orduandanik.

19 Orduan ethorririk lesusgana apart diszipunuek erran ziezoten, Zergatik guk ezin kanpora egotzi ukan dugu hura?

20 Eta lesusek erran ziezen, Zuen sinheste gabeagatik: ezen egiaz diotsuet, baldin mustar-

da bihi bat *den* bezenbat fede baduzue, erranen draukazue mendi huni, Iregan adi hemendik hara: eta iraganen da, eta etzaizue deus inposiblerik izanen.

21 Baina *deabru* mota haur ezta ilkiten orationez eta barurez baizen.

22 Eta hek Galilean usatzen zutela, erran ziez lesusek, Izanen da, gizonaren Semea liuratuaren baita gizonen eskuetara:

23 Eta hilen dute hura: baina hereneko egunean resusziaturen da: eta triste zitezzen hagitz.

24 Eta ethorri izan ziradenean Kapernaumera, ethor zitezzen Pierrisgana didrakmak rezebitzen zituztenak, eta erran ziezoten, Zuen majistruak didrakmak eztitu pagatzen?

25 Dio, Bai. Eta etxean sarthu izan zenean, aitzin zekion IESUS, ziola, Simon, zer irudi zaik? Lurreko regek norenganik hartzen dituzte tributak eta taillak? bere haurretarik, ala berzetakoetarik?

26 Diotsa Pierrisek, Berzetakoetarik. Diotsa lesusek, Beraz libre dituk haurrak.

27 Baina eskandaliza eztizagunzat, itsasora ioanik, egotzak amua: eta lehen iganen den

arraina har ezak, eta haren ahoa irekirik eride-
nen baituk estaterra bat: harturik hura eman
iezek enegatik eta hiregatik.

KAP. XVIII.

*1 Zeruetako resuman nor gehien. 4
Humilitatea. 5 Xipiaren rezebitzea
Kristen izenean. 6 Ez nehor
eskandalizatzeko. 10 Xipiak ez
menospreziatzeko. 11 Zertara Krist
ethorri. 12 Ardi errebelatua. 15
Korrektione fraternala. 17
Exkomunikationea. 21, 35
Barkatzea. 23 Bere zerbitzariei
kontu eskez dauen regearen
konparationea.*

1 Ordu hartan berean ethor zitezen Iesusga-
na diszipuluak, zioitela, Nor da handiena zerue-
tako resuman?

2 Eta deithurik haurtxo bat beregana Iesu-
sek, ezar zezan hura haien artean.

3 Eta erran zezan, Egiaz erraiten drauzuet, baldin konberti ezpazaitzte, eta haurtxoak bezalaka ezpazaitzte, etzarete sarthuren zeruetako resuman.

4 Nork ere bada bere burua humiliaturen baitu haurtxo haur *den* bezala, hura da handiena zeruetako resuman?

5 Eta nork ere rezebituren baitu hunelako haurtxo bat ene izenean, ni rezebitzen nau.

6 Baina nork ere eskandalizaturen baitu ni baithan sinhesten duten xipi hautarik bat, hark hobe luke urka lekion bere lepoan asto-errota harri bat, eta hunda ledin itsas hundarrean.

7 Malediktione munduari eskandaloen kausaz: ezen nezesario da eskandaloak datozen, badarik ere malediktione gizon hari, zeinez eskandalo ethorten baita.

8 Baldineta eure eskuak edo eure oinak trebuka eraziten bahau trenka ezak hura eta iraitzak eureganik, hobe duk hire, maingurik edo eskubakoitzdun bizitzean sar adin, ezen ez bi eskuak edo bi oinak dituala suko gehennara iraitz adin.

9 Eta baldin eure begiak trebuka eraziten bahu, idokak hura, eta iraitzak eureganik: hobe duk hire, begi batarekin bizitzean sar adin, ezen ez bi begiak dituala suko gehennara iraitz adin.

10 Begirauzue menosprezia eztezazuen xipi hautarik bat: ezen erraiten drauzuet hauen Aingeruek bethiere dakusatela ene Aita zeruetan denaren begithartea.

11 Ezen ethorri izan da gizonaren Semea galdu zenaren salbatzera.

12 Zer irudi zaizue? baldin gizon batek ehun ardi baditu, eta hetarik bat errebela badadi, ezti-tu laurogei eta hemeretziak utziten, eta mendietara ioanik eztu errebelatu zena bilhatzen?

13 Eta baldin gertha badadi eriden dezan hura, egiaz erraiten drauzuet ezen bozkario gehiago duela harzaz, ezen ez laurogei eta hemeretzi errebelatu etziradenez.

14 Halaber ezta zuen Aita zeruetan denaren borondatea xipi hautarik bat gal dadin.

15 Eta baldin hire anaiek hire kontra faltatu badu, oha eta reprehendi ezak hura, hire eta haren beraren artean: baldin behatzen bazaik, irabazi duk eure anaiea.

16 Baina baldin behatzen ezpazaik, har itzak eurekin oraino bat edo biga: biga edo hirur testimonioren ahoan hitz guzia fermu denzat.

17 Eta baldin haei behatzen ezpazaie, errok Elizari: eta baldin Elizari behatzen ezpazaio, albeiheduka pagano eta publikano bezala.

18 Egiaz erraiten drauzuet, zer ere lothuren baituzue lurrean, lothua izanen da zeruan: eta zer ere laxaturen baituzue lurrean, laxatua izanen da zeruan.

19 Berriz diotsuet ezen baldin zuetarik bigek konsenti badezate lurraren gainean, eska ditezen gauza guzia eginen zaiela ene Aita zeruetan denaz.

20 Ezen non baitirade biga edo hirur bildurik ene izenean, han naiz haien artean.

21 Orduan harengana hurbildurik Pierrisek erran zezan, launa, zenbatetarano bekatu eginen du ene kontra ene anaiek, eta barkaturen draukat? *ala* zazpitarano?

22 Diotso IESUSEK, Eztiosat zazpitarano, baina zazpitan hirurogei eta hamarretarano.

23 Halakotz da konparatu zeruetako resuma bere zerbitzariekin kontu egin nahi ukan duen rege batekin.

24 Eta kontu egiten hasi zenean, presenta zekion bat, hamar-milla talent hari zor zeraukanik.

25 Eta zeren hark ezpaitzuen nondik paga, mana zezan haren iaunak sal ledin hura, eta haren emaztea, eta haurrak, eta zituen gauza guziak: eta *zorra* paga ledin.

26 Halakotz zerbitzari hunek bere burua lurrera egotzirik suplikatzen zuen hura, zioela, launa, auk patientia enegana, eta guzia pagaturren drauat.

27 Orduan konpasion harturik zerbitzari haren iaunak, utzi zezan, eta *zorra* kita ziezon.

28 Baina ilkirik zerbitzari hunek eriden zezan bere zerbitzari kidetarik bat, ehun dinero zor zeraukanik: eta hura hatzamanik ithotzen zuen, zioela, Paga nezak zor duanaz.

29 Eta bere zerbitzari-kideak haren oinetara bere burua egotzirik othoitz egiten zeraukan, zioela, Auk patientia enegana, eta guzia pagaturren drauat.

30 Baina hark etzuen egin nahi ukan, aitzitik ioanik ezar zezan hura presoinean, zorra paga liroeno.

31 Bada ikusirik haren zerbitzari-kidek zer egin izan zen, triste zitezen hagitz: eta ethorririk deklarara ziezoten bere iaunari egin izan zen guzia.

32 Orduan hura deithurik bere iaunak diotsa, Zerbitzari gaixtoa, zor hura guzia kitatu drauat, zeren othoitz egin baitrautak:

33 Ez-auena hik ere eure zerbitzari-kideaz pietate ukan behar, nik ere hizaz pietate ukan dudan bezala?

34 Orduan aserreturik bere iaunak sarjeantei hura eman ziezen, hari zor zeraukan guzia paga liezakeono.

35 Hala ene Aita zeruetan denak ere eginen drauzue zuei, baldin batbederak bere anaieri gogotik faltak barka ezpadietzozue.

KAP. XIX.

2 Eriak sendatu. 3, 7 Separationezko letra. 12 Xikiratua. 13 Eskuen inpositionea. 14 Haur xipiak. 17 Manamenduen begiratzea. 21 Perfekt izatea. 23 Abratsak. 29 Guzia Kristgatik utzi dukeenaz.

1 Eta gertha zedin, Iesus propos hauk akabaturik parti baitzedin Galileatik, eta ethor baitzedin Iudeako bazterretara, Iordanaren berze aldeaz.

2 Eta iarreiki zekion jendetze handi, eta senda zitzan han.

3 Orduan ethor zitezen harengana Fariseuak tentatzen zutela, eta ziotsatela, Utzi ahal diro gizonak bere emaztea ezeinere kausagatik?

4 Baina hark ihardesten zuela erran ziezen, Eztuzue irakurri ezen Kreazaleak hatsetik egin zituela arra eta emea?

5 Eta erran zuela, Halakotz utziren ditu gizonak aita eta ama, eta iunktaturen zaio bere emazteari, eta izanen dirade biak haragi bat.

6 Bada gehiagorik eztirade biga, baina haragi bat. Beraz lainkoak iunktatu duena, gizonak eztezala separa.

7 Diotsate, Zergatik beraz Moisesek manatu ukan du separationeko letraren emaitera, eta haren utzitera?

8 Dioste, Moisesek zuen bihotzeko gogortasunagatik permetitu drauzue zuen emazten utzitera: baina hatsetik etzen hala.

9 Eta erraiten drauzuet ezen nork ere utziren baitu bere emaztea, paillardizagatik baizen, eta berze batekin ezkonduen baita, adulterio iaukiten duela: eta utzi denarekin ezkonduen date-nak adulterio iaukiten dukeela.

10 Diotsate bere diszipuluek, Baldin horlako bada gizonaren emaztearekilako beharkia, eztuk on ezkonzea.

11 Baina hark erran ziezen, Eztute guziek ardiesten hitz haur, baina eman izan zaienek.

12 Ezen badirade xikiratuak amaren sabeletik hala iaio izan diradenak: eta badirade xikiratuak, gizonez xilkiratu izan diradenak: eta badirade xikiratuak zeruetako resumagatik bere

buruak xikiratu ukan dituztenak. Har ahal dezanak, har beza.

13 Orduan haurtxoak presentatu izan zaizkan eskuak gainean ezar lietzenzat eta othoitz legianzat: eta diszipuluek mehatxa zitzaten.

14 Baina Iesusek dioste, Utzitzazue haurtxoak, eta enegana ethortetik eztitzazuela enpatxa: ezen hunelakoen da zeruetako resuma.

15 Eta eskuak gainean ezarri zerauztenean, parti zedin handik.

16 Eta huna, zenbeitek hurbildurik erran ziezon, Majistru ona, zer ungi eginen dut bizitze eternala dudanzat?

17 Eta hark erran ziezon, Zergatik deitzen nauk on? eztuk nehor onik bat baizen, *eta hura*, lainkoa: baldin bizitzean sarthu nahi bahaiz, begiraitzak manamenduak.

18 Diotso, Zein? Eta Iesusek erran zezan Eztuk hilen, Eztuk adulteraturen, Eztuk ebatsiren, Eztuk testimoniaje falsurik erranen.

19 Ohoraitzak aita eta ama. Eta, Onhetsiren duk eure hurkoa eure burua bezala.

20 Diotso gizon gazteorrek, Horiak guziak begiratu zitiat neure gaztetasunetik: zer oraino falta zait?

21 Diotso lesusek, Baldin perfekt izan nahi bahaiz, oha, sal ezak duana, eta eman iezek paubrei: eta ukanen duk thesaur bat zeruan: eta athor, arreit niri.

22 Eta enzun zuenean gizon gazteorrek hitz hori, ioan zedin tristerik: ezen on handiak zituen.

23 Orduan lesusek erran ziezen bere diszipuluei, Egiaz erraiten drauzuet, ezen abratsa nekez sarthuren dela zeruetako resuman.

24 Eta berriz diotsuet, erraxago dela kable bat orratzaren xulhotik iragan dadin, ezen ez abratsa lainkoaren resuman sar dadin.

25 *Gauza hauk* enzunik haren diszipuluak espanta zitezen hagitz, zioitela, Nor da beraz salba ahal daitenik?

26 Eta lesusek *hetarat* behaturik, erran ziezen, Gizonak baithan hori inposible da: baina lainkoa baithan gauza guziak posible dirade.

27 Orduan ihardesten zuela Pierrisek erran ziezon, Huna, guk utzi zitiagu gauza guziak, eta iarreiki gaitzaizkik hiri: zer izanen da beraz gure?

28 Eta lesusek erran ziezen, Egiaz diotsuet, ezen zuek niri iarreiki zaizkidatenok, rejeneratio-nean iarriren denean gizonaren Semea bere maiestatearen thronoan, iarriren zaretela zuek ere hamabi thronoen gainean, iujeatzen dituzue-la Israeleko hamabi leinuak.

29 Eta nork ere utzi baituke etxerik, edo anaierik, edo arrebarik, edo aita, edo ama, edo emaztea, edo haurrik, edo landarik ene izenaren kausaz, ehunetan hanbat rezebituren duela, eta bizitze eternala heretaturen.

30 Baina anhitz lehen *diradenak*, izanen dirade azken: eta azkenak, lehen.

KAP. XX.

1 Langileak mahastira alokatzen. 15

Begi malignoa. 18 Bere pasionea

lesusek aitzinetik deklaratzan. 20

Zebedeoren emaztearen rekesta. 28

Krist gure ministre eta redemptore.

30 Itsu bi argitzen.

1 Ezen, konparatu da zeruetako resuma aita-familia batekin, zein ilki izan baita argiaren begian langile alokatzera bere mahastikotzat.

2 Eta langilekin akordaturik dinero batetan eguneko, igor zitzan bere mahastira.

3 Eta ilkirik hirur orenen inguruan, ikus zitzan berze alfer zeuden batzu plazan.

4 Eta erran ziezen, Zoazte zuek ere *ene* mahastira, eta bide datena emanen drauzuet.

5 Eta hek ioan zitezen. Berriz ilkirik sei eta bedratzi orenen inguruan, egin zezan molde berean.

6 Eta hameka orenen inguruan ilkirik, eriden zitzan berze alfer zeuden batzu, eta dioste, Zergatik hemen zaudete egun guzian alfer?

7 Diotsate, Zeren nehork ezpaikaitu alokatu. Dioste, Zoazte zuek ere *ene* mahastira, eta bide datena rezebituren duzue.

8 Eta arrastu zenean, erran ziezon mahasti iabeak bere rezebidoreari. Dei itzak langileak, eta paga iezek alokairua, hasirik azkenetarik lehenetarano.

9 Eta ethorri ziradenean hameka orenen inguruan *alokatuak* rezebi zezaten dinero bana.

10 Eta ethoririk lehenek ere, uste ukan dute gehiago rezebituren zutela: baina rezebi zezaten hek ere dinero bana.

11 Eta rezebitu zutenean, murmuratzen zuten aitafamiliaren kontra,

12 Zioitela, Azken hauk oren bat egin die *lanean*, eta gure bardin egin dituk, ekarri baitugu egunaren karga, eta beroa.

13 Eta hark ihardesten zuela hetarik bati erran ziezon, Adiskidea, eztrauat hiri bidegaberik egiten: ez aiz dinero batetan enekin akordatu?

14 Har ezak hire dena, eta habil: baina nahi diarokat azken huni eman, hiri bai bezenbat.

15 Ala eznaiz haizu nahi dudanaren egitera neure onez? ala hire begia gaixto da, zeren ni on bainaiz?

16 Hala izanen dirade azkenak, lehen: eta lehenak, azken: ezen anhitz dirade deithuak, baina guti elejituak.

17 Eta Iesusek Ierusalem-era igaitean, har zitzan hamabi diszipuluak apart bidean, eta erran ziezen,

18 Huna, igaiten gara Ierusalem-era, eta gizonaren Semea liuraturen zaie Sakrifikadore prinzi-

palei eta Eskribei, eta hura kondemnaturen dute hiltzera:

19 Eta hura dute liuraturen Jentilei, eskarnia, eta azota, eta kruzifika dezatenzat: baina here-neko egunean resusziaturen da.

20 Orduan ethor zedin harengana Zebedeoren semen ama bere semekin, gurtzen, eta zerbait eskatzen zaiola.

21 Eta hark erran ziezon, Zer nahi dun? Diotsu, Ordena ezak iar ditezen ene bi seme hauk, bata hire eskuinean, eta berzea ezkerrean, hire resuman.

22 Eta ihardesten zuela Iesusek erran zezan, Eztakizue zeren eskez zaudeten: edan ahal dirozue nik edateko dudan kopa? Eta batheia ahal zaitezketen ni batheiatuaren naizen baptismoaz? Diotsote, Bai.

23 Orduan dioste, Ene kopa edanen baduzue, eta ni batheiatuaren naizen baptismoaz batheiatuaren bazarete: baina ene eskuinean edo ezkerrean iartea, ezta ene emaiteko, baina *emanen zaie* ene Aitaz apaindurik dauenei.

24 Eta *hura* enzunik *berze* hamarrak bekaitz zitezen bi anaiez.

25 Iesusek bada hek beregana deithurik, dio, Badakizue ezen nationetako prinziek seignoria-tzen dutela haien gainean: eta handiek authori-tatez usatzen dutela haien gainean.

26 Ordea ezta hala izanen zuen artean: baina nor ere handi nahi izanen baita zuen artean, biz zuen muthil:

27 Eta nor ere nahi izanen baita zuen artean lehen izan, biz zuen zerbitzari.

28 Hala nola gizonaren Semea ezpaita etho-rri zerbitzatu izatera, baina zerbitzatzera, eta bere biziaren ranzoinetan anhitzengatik emaitera.

29 Eta hek lerikotik partitzen ziradela, jende-tze handi iarreiki zekion.

30 Eta huna, bi itsu bide bazterrean zeude-nek, enzunik ezen Iesus iragaiten zela, oi-hu egin zezaten, zioitela, Auk pietate guzaz Dabid-en seme launa.

31 Eta jendetzeak mehatxatzen zituen hek ixil litezenzat, baina hek oi-hu gehiago egiten zuten, zioitela, Auk pietate guzaz Dabid-en seme launa.

32 Eta gelditurik lesusek dei zitzan, eta erran zezan, Zer nahi duzue dagizuedan?

33 Diotsote, launa, gure begiak ireki ditezen.

34 Eta konpasiune harturik lesusek hunki zitzan haien begiak: eta bertan ikustea rezebi zezaten haien begiek, eta hari iarreiki zekizkion.

KAP. XXI.

7 Kristek Ierusalem bere sartzea egiten. 12 Saltzaleak eta erosleak tenpletik egoizten. 14 Eriak sendatzen. 16 Bere rezebitzaleak sustengatzen. 19 Fikotzea eihartzen. 22 Fedearen indarra orationean. 25 Ioanesen Baptismoa. 31 Iainkoaren borondatea egiten dutenak. 32 Iudu inkredulak. 33 Mahasti alokairutan emanaren konparationea. 42 Har kantoin nabusia. 43 Iuduak iraizten, eta Jentilak rezebitzen.

1 Eta Ierusalemeko aldera ziraudean, eta
ethor zitezenean Bethfajera, Olibatzetako mendi
aldera, orduan Iesusen igor zitzaizun bi diszipulu,

2 Erraiten zerauela, Zoazte zuen aurkako
burgura, eta bertan eridenean duzue asto eme
bat estekatua, eta ume bat harekin: laxaturik
ekar itzadazue.

3 Eta baldin nehork deus badarrazue, errazue
ezen launak behar dituela: ezen bertan igorriren
ditu hek.

4 Bada haur guzia egin izan da Profetaz erran
zena konpli ledinzat, zioela,

5 Errozue Siongo alabari, Huna, eure regea
ethorten zain mansorik, eta asto emearen, eta
uztarrikoaren ume arraren gainean iarria.

6 Diszipuluak bada ioan zitezenean, eta egin
zezaten Iesusen ordenatu zerauen bezala.

7 Eta ekar zitzaizun astoa eta umea, eta ezar
zitzaizun haien gainean bere abillamenduak, eta
iar erazi zezaten haien gainean.

8 Eta jendetze handik heda zitzaizun bere abi-
llamenduak bidean, eta berzek adarrak pikatzen
zituzten arboretarik, eta bidean hedatzen.

9 Eta aitzinean ioaiten eta iarreikiten zen populua oihuz zegoen, zioela, Hosanna Dabid-en semea: benedikatu *dela* launaren izenean ethorten dena, Hosanna leku gorenetan *aizena*.

10 Eta sarthu zenean hura Ierusalemen, zibitate guzia mobi zedin, zioela, Nor da haur?

11 Eta populuak erraiten zuen, Haur da Iesus Profeta Galilean *den* Nazareteko.

12 Eta sar zedin Iesus lainkoaren tenplean, eta egotz zitzaizkan kanpora tenplean saltzen eta erosten ari ziraden guziak: eta kanbiadoreen mahainak itzul zitzaizkan, eta uso kolonbak saltzen zituztenen kadirak.

13 Eta dioste, Eskribatua da, Ene etxea, orationetako etxe deithuren da: baina zuek hura gaixtagin leze egin duzue.

14 Orduan ethor zitezenez harengana itsuak eta mainguak tenplean: eta senda zitzaizkan hek.

15 Baina ikusirik Sakrifikadore prinzipalek eta Eskribek *hark* egin zituen mirakuluak, eta haurrako oihuz zeudela tenplean, eta erraiten zutela, Hosanna Dabid-en semea: gaitzi zekien.

16 Eta erran ziezoten, Badanzuk hauk zer dioiten? Eta Iesusek erran ziezen, Bai: eztuzue

egundano irakurri, Haurren eta edoskiten dutenen ahotik konplitu ukan duk laudorioa.

17 Eta hek utzirik, ilki zedin hiritik kanpora Bethaniarat: eta ostatu har zezan han.

18 Eta goizean hirirat itzultzen zela, gose zedin.

19 Eta ikusirik fikotze bat bidearen gainean, ethor zedin hartara, eta etzezan deus hartan eriden historik baizen: eta diotsa, Gehiago frukturik hireganik sor ezta dila sekulan. Eta eihar zedin bertan fikotzea.

20 Eta hori ikusirik diszipuluek mirets zezaten, zioitela, Nolatan bertan eihartu izan da fikotzea?

21 Eta ihardesten zuela lesusek erran ziezen, Egiaz erraiten drauzuet, baldin fede baduzue, eta duda ezpadezazue, ez solament fikotzeari *egin izan zaiona* eginen duzue, baina are baldin mendi huni badarrozue, Khen adi, eta iraitz adi itsasora eginen da.

22 Eta zerere galde eginen baituzue orationean sinhesten duzuela, rezebituren duzue.

23 Eta ethorri zenean tenplera, Sakrifikadore prinzipalak eta populuko Anzianoak, hura irakas-

ten ari zela, ethor zitezen harengana, zioitela, Zer autoritatez gauza horiak egiten dituk? eta nork hiri eman drauk autoritate hori?

24 Ihardesten zuela lesusek erran ziezen, Interrogaturen zaituztet nik ere zuek gauza batez, zein badarradazue nik ere erranen drauzuet, zer autoritatez gauza hauk egiten ditudan.

25 Ioanesen Baptismoa nondik zen? zerutik ala gizonetarik? Eta hek bazihardukaten berak baithan, zioitela, Baldin erran badezagu, Zerutik: erranen drauku, Zergatik bada hura eztukue sinhetsi?

26 Eta baldin badarragu, Gizonetarik: beldur gara komunaren: ezen guziek dadukate ioanes Profetatan.

27 Eta ihardesten zeraukotela lesusi, erran zezaten, Etzeakiagu. Erran ziezen hark ere, Eztrauzuet nik ere erraiten zer autoritatez gauza hauk egiten ditudan.

28 Baina zer irudi zaizue, Gizon batek zituen bi seme: eta hurbildurik lehenagana, erran zezan, Seme habil, egun travailla adi ene mahastian:

29 Hark ihardesten zuela erran zezan, Eztiat nahi: baina gero urrikiturik, ioan zedin.

30 Gero hurbildurik berzeagana, erran ziezon halaber. Eta hark ihardesten zuela erran zezan, Ni *nichoak* iauna, Eta etzedin ioan.

31 Bi hautarik zeinek egin zuen *bere* aitaren borondatea? Diotsate, Lehenak. Dioste lesusek, Egiaz erraiten drauzuet ezen publikanoak eta paillardak aitzinzen zaizkizuela lainkoaren resu-mara.

32 Ezen ethorri da loanes zuetara iustitiazko bidez, eta eztuzue hura sinhetsi: baina publika-noek eta paillardek sinhetsi ukan dute: eta zuek *hori* ikusirik, etzarete emendatu gero, haren sin-hestera.

33 Berze konparatione bat enzuzue. Zen aita-familia bat, zeinek landa baitzezan mahasti bat, eta hura hesiz ingura baitzezan, eta hartan hobi bat egin zezan lakotzat, eta edifika zezan dorre bat, eta aloka ziezen laborariei: eta kanporat ioan zedin.

34 Bada fruktuen sasoina hurbildu zenean, igor zitzan bere zerbitzariak laborarietara, fruk-tuen rezebitzera.

35 Eta laborariak harturik haren zerbitzariak, bata zaurt zezaten, eta berzea hil, eta berzea lapida.

36 Berriz igor zezan berze zerbitzaririk lehenak baino gehiago, eta haei halaber egin ziezen.

37 Azkenean igor zezan hetara bere semea, erraiten zuela, Ondraturen dute ene semea.

38 Baina laborariak ikusirik semea erran zezaten bere artean, Haur da primua, zatozte, hil dezagun haur, eta gatxetzan hunen heretajeari.

39 Eta harturik hura iraitz zezaten mahastitik kanpora, eta hil zezaten.

40 Dathorrenean bada mahasti iabeak zer egingen draue laborari haei?

41 Diotsate, Gaixto hek gaizki deseginen: eta bere sasoinen fruktuak renda dietzoioten berze laborariri bere mahastia alokaturen.

42 Dioste lesusek, Egundano eztuzue irakurri Eskripturetan, Edifikazalek arbuiatu duten harria kantoin buru egin izan da: Haur launaz egin izan da, eta da gauza miragarria gure begien aitzinean?

43 Halakotz diotsuet ezen edekiren zaizuela lainkoaren resuma, eta emanen zaiola, hartako fruktuak eginen dituen populuari.

44 Eta harri haren gainera eroriren dena, zat-hikaturen da: eta noren gainera eroriren baita, hura du xehaturen.

45 Eta enzun zitzatenean Sakrifikadore prinzipalek, eta Fariseuek haren konparationeak, ezagut zezaten ezen hezaz minzo zela.

46 Eta hatzaman nahi zutelarik, populuaren beldur izan ziraden, zeren Profeta bezala hura baitzadukaten.

KAP. XXII.

2 Ezteien konparationea. 9 Jentilen bokationea. 11 Ezteietako arropa. 17 Tributak nori emaiteko. 23 Resurrektioniaz Krist interrogatzen. 32 Iainkoa, biziien Iainko. 36 Legeko manamendu handia. 37 Iainkoaganatko eta hurkoaganatko

*amorioa. 41 Iesusek Fariseuak
Kristez interrogatzen.*

1 Orduan Iesus ihardesten zuela, berriz minza zekien konparationez, zioela.

2 Konparatu da zeruetako resuma, bere semearen ezteiak egin zituen rege batekin.

3 Eta igor zitzan bere zerbitzariak ezteietara gomitatuen deitzera: baina etziraden ethorri nahi izan.

4 Berriz igor zezan berze zerbitzaririk, zioela, Errezue gomitatuei, Huna, aprestatu dut neure barazkaria, ene zezenak eta harakei gizenduak harakeitatu dirade, eta guzia prest da: zatozte ezteietara.

5 Baina hek konturik egin gabe ioan zitezten: bata bere bordarat, eta berzea bere merkatalgo-arat.

6 Eta berzek hatzamanik haren zerbitzariak iniuria eta hil zitzaten.

7 Eta rege enzunik *hori* aserre zedin: eta igor-
ririk bere jendarmesak, desegin zitzan gizerhail-
le hek, eta haien hiria erra zezan.

8 Orduan dioste bere zerbitzariei, Ezteiak prest badirade, baina gomitatu ziradenak, ez tirade digne izan.

9 Zoazte bada bide kantoinetara, eta eridene dituzuen guziak dei itzazue ezteietara.

10 Eta zerbitzari hek ilkirik bidetara, bil zitazten eriden zituzten guziak, hanbat gaixtoak nola onak: eta bethe zedin ezteien lekua, mahainean iarririk zeudenez.

11 Eta sarthu zenean rege mahainean iarririk zeudenen ikustera, ikus zezan han gizon bat eztei arropaz beztitua etzenik.

12 Orduan diotsa, Adiskidea, nola huna sarthu aiz eztei arropa eztuala? Eta ahoa boza zekion.

13 Orduan erran ziezen regek zerbitzariei, Oinetan eta eskuetan estekaturik, ken ezazue, eta egotzazue kanpoko ilhunbera: han izanen da nigar eta hortz garraskots.

14 Ezen anhitz dirade deithuak, eta guti elejituak.

15 Orduan apartaturik Fariseuek konseillu har zezaten nola hura hatzaman liroiten hitzean.

16 Eta igorten dituzte harengana bere diszi-
puluak Herodianoekin, dioitela, Majistrua, bazea-
kiagu egiati aizela, eta lainkoaren bidea egiazki
irakasten duala, eta nehoren ansiarik eztuala:
ezen ezago gizonen aparentiara beha:

17 Erraguk bada, zer irudi zaik? bidezko da
Zesari tributaren emaita, ala ez?

18 Eta ezagaturik lesusek haien malitia, dio,
Zergatik tentatzen nauzue hipokritak?

19 Erakustazue tributeko moneda. Eta hek
presenta ziezoten dinero bat.

20 Eta erraiten draue, Norena da imajina
haur eta eskribua?

21 Diotsate, Zesarena. Orduan erraten
draue, Renda ietozue beraz Zesaren diradenak,
Zesari: eta lainkoaren diradenak, lainkoari.

22 Eta *hori* enzunik, mirets zezaten: eta hura
utzirik ioan zitezten.

23 Egun hartan ethor zitezten harengana
Saduzeuak, resurrektionerik eztela dioitenak,
eta interroga zezaten,

24 Zioitela, Majistrua, Moisesek erran dik,
Baldin norbeit hil bada haurrik ukan gabe, haren

anaieak alianzagatik harturen du haren emaztea, eta leinu eginen drauka bere anaieri.

25 Eta zituan gure artean zazpi anaie: eta lehena ezkondurik hil ziedian: eta leinurik etzuenaren gainean, utzi ziezoan bere emaztea bere anaieri.

26 Eta halaber bigarrenak eta hirugarrenak, zazpigarrenerano.

27 Eta guzien ondoan hil ziedian emaztea ere.

28 Resurrektioanean bada, zazpietarik zeinen emazte izanen da? ezen guziek ukan die hura.

29 Eta ihardesten duela Iesusek dioste, Huts egiten duzue Eskripturak eta lainkoaren berthutea iakin gabez.

30 Ezen resurrektioanean eztu nehork emazterik hartzen ez emaiten ezkonzaz: baina dirade lainkoaren Aingeruak zeruan bezala.

31 Eta hilen resurrektioenez den bezenbatean, eztuzue irakurri zer lainkoaz erran izan zaiuen, dioela,

32 Ni naiz Abrahamen lainkoa, eta Isaak-en lainkoa, eta Iakob-en lainkoa? lainkoa, ezta hilen lainkoa, baina biziena.

33 Eta *hori* enzunik jendetzeak espanta zitez-
zen haren doktrinaz.

34 Fariseuak bada, enzunik ezen Saduzeuak
ixildu zituela, bil zitezzen elkargana.

35 Eta interroga zezan hetarik batek, Legeko
doktorak, tentatzen zuela hura, eta zioela,

36 Majistrua, zein da manamendu handia
Legean?

37 Eta lesusek erran ziezon, Onhetsiren duk
eure lainko launa eure bihotz guziaz, eta eure
arima guziaz, eta eure pensamendu guziaz.

38 Haur duk manamendu lehena eta handia.

39 Eta bigarrenak hura irudi dik, Onhetsiren
duk eure hurkoa eure burua bezala.

40 Bi manamendu hautarik Lege guzia eta
Profetak dependitzen dituk.

41 Eta bildu ziradenean Fariseuak, interroga
zitzan lesusek,

42 Zioela, Zer irudi zaizue Kristez? noren
seme da? Diotsate, Dabid-en.

43 Eta dioste, Nola beraz Dabid-ek Espirituz
deitzen du hura laun? dioela,

44 Erran drauka, launak ene launari, lar adi ene eskuinean, ezar ditzakedano hire etsaiak hire oinen eskabella.

45 Beraz baldin Dabid-ek deitzen badu hura laun, nola da haren seme?

46 Eta nehork ezin ihardets ziezoion hitzik: ez nehor etzekion bentura gehiagorik egun harzaz harat interrogatzera.

KAP. XXIII.

2 Irakastunetarik zer hartu behar den. 4 Karga pizuen emaitiaz. 5 Fariseuek zergatik obrak egiten. 8 Doktor bakoitza Krist. 9 Iainkoa gure Aita. 10 Doktorak. 13 Zeruetako resumaren erstea. 16 Tenpleaz iuratzea. 23 Mentaren detxematzea. Iujemendua. Misericordia. 27 Sepulkre xurituak. 31 Iuduek hil Profetak. 36 Iuduen destruktioea.

1 Orduan lesus minza zekien jendetzei eta bere diszipuluei.

2 Zioela, Moisesen kadiran iarten dirade Eskribak eta Fariseuak:

3 Zerere bada erranen baitrauzue begira dezazuen, begira ezazue eta egizue: baina haien obren araura eztagizuela: ezen erraiten dute, eta ez egiten.

4 Ezen karga pizuak eta iasan ezin daitezkenak biltzen dituzte, eta ezarten gizonen soineta-ra: baina bere erhiaz hunki nahi eztituzte.

5 Eta bere obra guziak egiten dituzte gizonez ikus ditezenzat: ezen zabaltzen dituzte bere filakterioak, eta luzatzen dituzte bere beztimendetako bazterrak.

6 Eta on darizte lehen plazei banketetan, eta lehen kadirei sinagogetan,

7 Eta salutationei merkatuetan, eta gizonez deithu izateari Majistrua, Majistrua.

8 Baina zuek etzaitezela dei Majistru: ezen bat da zuen doktora, Krist: eta zuek guziok, anaie zarete.

9 Eta zuen aita eztezazuela nehor dei lurrean: ezen bat da zuen Aita, zeruetan dena.

10 Eta etzaitezela dei doktor: ezen bat da zuen doktora, Krist.

11 Baina zuen artean handien dena, biz zuen zerbitzari.

12 Ezen bere burua goraturen duena, beherraturen da: eta bere burua beheraturen duena, goraturen da.

13 Baina malediktione zuen ganean Eskriba eta Fariseu hipokritak: zeren ersten baituzue zeruetako resuma gizonen aitzinean: ezen zuek etzarete sartzen, eta sartzen diradenak eztituzue utziten sartzera.

14 Malediktione zuen ganean Eskriba eta Fariseu hipokritak, ezen iresten dituzue *ema* alhargunen etxeak, are luzaki othoitz egin irudiz: halakotz duzue kondemnatione handiagoa rezebituren.

15 Malediktione zuen ganean Eskriba eta Fariseu hipokritak, ezen itsasoa eta leihorra inguratzen dituzue, proselito bat dagizuenzat, eta egin denean, gehennako seme egiten duzue doblaz zeurok baino areago.

16 Malediktione zuen ganean gidariitsuak, zeinek baitiozue, Nork ere iuraturen baitu ten-

pleaz, ezta deus: baina nork ere iuraturen baitu tenpleko urheaz, zordun da.

17 Erhoak eta itsuak, zein da handiago urhea, ala urhea sanktifikatzen duen tenplea?

18 Eta *erraiten duzue*, nork ere iuraturen baitu aldareaz, ezta deus: baina nork ere iuraturen baitu haren ganean den oblationeaz, zordun da.

19 Erhoak eta itsuak, zein da handiago oblationea, ala oblationea sanktifikatzen duen aldarea?

20 Beraz aldareaz iuratzen duenak, iuratzen du harzaz, eta haren ganean diraden gauza guziez.

21 Eta nork ere iuratzen baitu tenpleaz, iuratzten du harzaz, eta hartan habitatzen denaz.

22 Eta iuratzen duenak zeruaz, iuratzen du lainkoaren thronoaz eta haren ganean iarririk dagoenaz.

23 Malediktione zuen ganean Eskriba eta Fariseu hipokritak: ezen detxematzen dituzue menta eta anisa eta kuminoa, eta utziten dituzue Legeko gauza pizuagoak, *hala nola*, iuje-

mendua eta miserikordia eta leialtatea: gauza hauk egin behar ziraden, eta hek ez utzi.

24 Gidariitsuak, eltzoa irazten duzue: eta kamelua iresten.

25 Malediktione zuen gainean Eskriba eta Fariseu hipokritak: ezen koparen eta plataren kanpoko aldea xahutzen duzue: baina barnetik dirade arrauberiaz, eta ekzesez betheak.

26 Fariseu itsua, xahu ezak lehenik koparen eta plataren barnekoa, haien kanpoko ere xahu dadinzat.

27 Malediktione zuen gainean Eskriba eta Fariseu hipokritak: ezen sepulkre xurituak irudi duzue, hek kanpotik eder erakusten dirade: baina barnetik hilen hezurrez eta satsutasun oroz betheak dirade.

28 Halaber zuek ere kanpotik gizonei erakusten zarete iusto, baina barnean hipokrisiaz eta inikitatez betheak zarete.

29 Malediktione zuen gainean Eskriba eta Fariseu hipokritak: ezen Profeten sepulreak edifikatzen dituzue, eta iustoen monumentak ornatzen.

30 Eta diozue, Baldin gure aiten egunetan izan bagina, ezkinen haien lagun izanen Profeten odolean.

31 Halatan testifikatzen duzue zeuron buruen kontra, ezen Profetak hil dituztenen seme zaretela.

32 Zuek ere betha ezazue zuen aiten neurria.

33 Sugeak, bipera kastak, nola itzuriren zaizkiote gehennako iujemenduari?

34 Halakotz huna, nik igorten ditut zuetara Profetak eta Zuhurrak eta Eskribak eta hetarik *batzu* hilen dituzue eta kruzifikaturen: eta hetarik *batzu* azotaturen dituzue zuen sinagogetan, eta persekutaturen hiritik hirira:

35 Dathorrenzat zuen gainera lurraren gainean isuri izan den odol iusto guzia, Abel iustoa-ren odoletik, Zakaria Barakiaren semearen odolera-nokoa, zein hil ukan baituzue tenplearen eta aldarearen artean.

36 Egiaz diotsuet, ethorriko dirade gauza hauk guziak nazione hunen gainera.

37 Ierusalem, Ierusalem, Profetak hiltzen eta hiregana igorriak lapidatzen dituana, zenbatetan bildu nahi ukan ditut hire haurrak, oilloak bere

xitoak hegalen azpira biltzen dituen bezala, eta ezpaituk nahi ukan?

38 Horra, gelditzen zaizue zuen etxea desert.

39 Ezen badiotsuet, eznauzue ikusiren hemendik harat derrakezueno, Benedikatu *dela* launaren izenean ethorten dena.

KAP. XXIII.

*2, 15 Iuduen destruktioea. 3
Kristen adbenimendua. 5, 24 Krist
falsuak. 6, 29 Munduaren fineko
signoak. 12 Inikitatea, Karitatea. 13
Perseueraturen duena. 14
Ebanjelioaren predikationea. 31
Aingeruek bilduren elejituak. 32
Fikotzearen konparationea. 35
Iainkoaren hitza egiazko. 37 Noeren
egunak. 39 Dilubioa. 42 Beillatzeko.
43 Gauazko ohoina. 45 Zerbitzari
leiala. 48 Zerbitzari gaixtoa.*

1 Eta tenpletik ilkirik Iesus retiratzen zen: eta hurbildu izan zaizkan bere diszipuluak tenpleko edifizioen hari erakustera.

2 Eta Iesusek erran ziezen, Eztakuskizue gauza hauk guziak? egiaz erraiten drauzuet, ezta geldituren hemen harria harriaren gainean, desegin eztadin.

3 Eta hura iarririk zegoela Olibatzetako mendi gainean, ethor zekizkion diszipuluak apart, zioitela, Erraguk, noiz gauza hauk izanen dirade? eta zer signo hire ethortearenik eta munduaren finarenik *izanen da?*

4 Eta ihardesten zuela Iesusek erran ziezen, Begirauzue nehork seduzi etzaitzaten.

5 Ezen anhitz ethorriren dirade ene izenean, erraiten dutela, Ni naiz Krist: eta anhitz seduziturren dute.

6 Eta enzunen dituzue gerlak eta gerla hotsak: begirauzue trubla etzaitzaten: ezen gauza *hauk* guziak egin behar dirade, baina ezta oraino izanen fina.

7 Ezen altxaturen da nationea nationearen kontra, eta resuma resumaren kontra: eta iza-

nen dirade izurriteak, eta goseteak, eta lur ikarazteak lekutik lekura.

8 Baina hauk guziak dolore hatseak *dirade*.

9 Orduan liuraturen zaituzte afliktionetara, eta hilen zaituzte, eta jende guziez gaitz etsiak izanen zarete ene izenagatik.

10 Eta orduan eskandalizaturen dirade anhitz, eta batak berzea tradituren du, eta batak berzea gaitzetsiren du.

11 Eta anhitz profeta falsu altxaturen dirade eta seduzituren dute anhitz.

12 Eta zeren multiplikaturen baita inikitatea, hozturen da anhitzen karitatea.

13 Baina nork perseueraturen baitu finerano, hura salbaturen da.

14 Eta resumako Ebanjelio haur predikaturen da mundu unibersoan, nazione guziei testimonia-jetan: eta orduan ethorriko da fina.

15 Dakusazuenean bada desolationearen abominationea, Daniel profetaz erran izan dena, leku sainduan dagoela (irakutzen duenak adi beza)

16 Orduan ludean *diratenek*, ihes albeilegite mendietarat:

17 Eta etxe gainean *datena*, ezalbeiledi iauts deusen bere etxetik eramaitera:

18 Eta landan *datena*, ezalbeiledi gibelerat itzul bere abillamenduen hartzera.

19 Dohain-gaitz emazte izorren eta eredoskiten dukeitenen egun hetan.

20 Othoitz egizue bada zuen ihes egitea ezten neguan, ezeta Sabbath *egunean*.

21 Ezen tribulatione handia orduan izanen da, nolakorik ezpaita izan munduaren hatsetik oraindrano, ez izanen.

22 Eta baldin laburtu izan ezpalirade egun hek nehor salba ezlaite, baina elejituakgatik, egun hek laburturen dirade.

23 Orduan baldin nehork badarrazue, Huna hemen Krist, edo han: ezalbeitzinezate sinhets.

24 Ezen altxaturen dirade krist falsuak, eta profeta falsuak, eta eginen dute signo handi eta mirakulu: bai posible baliz, elegituen ere seduzigarri.

25 Huna, aitzinetik erran drauzuet.

26 Beraz baldin nehork erran badiezazue, Hara, desertuan da, etzaitzeltela ilki, Hara, ganbratxoetan *da*: eztezazuela sinhets.

27 Ezen hala nola xistmista ilkiten baita Orientetik, eta erakusten Okzidenterano: hala izanen da gizonaren Semearen ethortea ere.

28 Ezen non ere izanen baita sarraskia, hara bilduren dirade arranoak ere.

29 Eta bertan egun hetako tribulationearen ondoan, iguzkia ilhunduren da, eta eztu emanen ilhargiak bere ergia, eta izarrak eroriren dirade zerutik, eta zeruetako berthuteak ikaraturen dirade.

30 Eta orduan agerturen da gizonaren Semearen signoa zeruan: eta orduan plaignituraren dirade lurreko leinu guziak, eta ikusiren dute gizonaren Semea datorkela zeruko hodeietan bothere eta gloria handirekin.

31 Eta igorriren ditu bere Aingeruak tronpeta soinu handirekin, eta bilduren dituzte haren elejituak laur haizetarik, zeruen bazter batetik haien berze bazterrererano.

32 Bada fikotzetik ikas ezazue konparatio-nea, ia haren adarra ninikatzen denean eta hostatzen, badakizue uda hurbil dela.

33 Hala zuek ere dakuskizuenean gauza hauk guziak, albeitzinekite ezen borthan hurbil datela.

34 Egiaz erraiten drauzuet, eztela iraganen mende haur, gauza hauk guziok egin daitezkeno.

35 Zerua eta lurra iraganen dirade, baina ene hitzak eztirade iraganen.

36 Baina egun harzaz eta orenaz den bezenbatean, nehork eztaki, ez zeruetako Aingeruek ere, ene Aitak berak baizen.

37 Baina nola *baitziraden* Noeren egunak, hala izanen da gizonaren Semearen ethortea ere.

38 Ezen hala nola dilubioaren *aitzineko* egunetan iaten baitzuten eta edaten, ezkonzen baitziraden eta ezkonzaz emaiten, Noe arkan sar zedin egunerano.

39 Eta ezpaitzezaten ezagut dilubioa ethor zedino, eta guziak eraman zitzakeeno: hala izanen da gizonaren Semearen ethortea ere.

40 Orduan biga izanen dirade landan: bata rezebituren da, eta berzea utziren.

41 Bigek ehoren dute errotan: bata rezebituren da, eta berzea utziren.

42 Beilla ezazue bada, ezen eztakizue zer orduz zuen launa ethorteko den.

43 Eta hura iakizue, ezen baldin baleaki aita-familiak zein goait aldiz ohoina ethor leiten, beilla liroela, eta ezliroela bere etxea zulhatzera utzi.

44 Halakotz zuek ere zaudete prest: ezen uste eztuzuen orduan gizonaren Semea ethorriren da.

45 Eta zein da zerbitzari leiala eta zuhurra, nabusiak muthillen konpainiaren gaineko ezarri duena, haei denboran bitanza deienzat?

46 Dohatsu *da* zerbitzari hura bere nabusiak dathorreanean, hala egiten eridenen duena.

47 Egiaz erraiten drauzuet, ezen bere on guzien gaineko hura ezarriren duela.

48 Bada baldin erran badeza zerbitzari gaixto hark bere bihotzean, Luzatzen du ene nabusiak ethortera:

49 Eta has badadi zerbitzari lagun en zehatzen, eta iaten eta edaten hordiekin:

50 Zerbitzari haren nabusia ethorriren da hark uste eztuen egunean, eta eztakian orenean:

51 Eta bereziren du hura, eta hipokriten kontuan ezarriren: han izanen da nigar eta hortz garraskots.

KAP. XXV.

1 Hamar birjinak. 13 Beillatzeko. 15 Zerbitzariei eman izan zaizten talentak. 18, 24 Zerbitzari gaixtoa, 31 Azken iudizioa. 34 Iainkoaren benedikatuak. 35 Miserikordiazko obrak. 41 Maradikatuak.

1 Orduan konparaturen da zeruetako resuma hamar birjina bere lanpak harturik esposoaren aitzinera ilki diradenekin:

2 Eta hetarik borzak ziraden zuhur, eta borzak erho.

3 Erhoek, bere lanpen hartzean, etzezaten har oliorik berekin.

4 Baina zuhurrek har zezaten olio bere unziotan bere lanpekin.

5 Eta nola esposoak ethortera beranzen baitzuen, guziak logale zitezen, eta loak har zitzen.

6 Eta gau-herditan oihu egin zedin, Huna, esposoa heldu da, ilki zaitezte haren aitzinera.

7 Orduan iaiki zitezen birjina hek guziak, eta apain zitzaten bere lanpak.

8 Eta erhoek zuhurrei erran ziezen, Iguzue zuen oliotik: ezen gure lanpak iraungiten dirade.

9 Baina ihardets zezaten zuhurrek, zioitela, Ez, beldurrez asko eztugun gure eta zuen: baina aitzitik zoazte saltzen dutenetara, eta erosazue zeurondako.

10 Eta hek eroatera ioaiten ziradela, ethor zedin esposoa: eta prest ziradenak sar zitezen harekin ezteietara, eta erts zedin bortha.

11 Gero bada ethorten dirade berze birjinak ere dioitela, launa, iauna, ireki iezaguk.

12 Baina hark ihardesten duela, dio, Egiaz diotsuet, etzaitzuet ezagutzen.

13 Beilla ezazue bada: ezen eztakizue gizonaren Semea ethorriren den eguna ez orena.

14 Ezen *gauza haur* gizon bat bezala *da*, zeinek lekorerat ioaiten dei baitzitzan bere zerbitzariak, eta bere onak eman baitzietzen.

15 Eta batari eman zietzon borz talent, eta berzeari biga, eta berzeari bat: batbederari bere anziaren araura: eta ioan zedin lekorrerat bertan.

16 Eta ioan zedin borz talentak rezebitu zituenak, eta trafika zezan hezaz, eta egin zitzan berze borz talent.

17 Halaber biga *rezebitu* zituenak ere, irabaz zitzan berze biga.

18 Baina bat rezebitu zuenak ioanik aitzur zezan lurrean, eta gorde zezan bere nabusiaren dirua.

19 Eta denbora handiaren buruan ethorten da zerbitzari haien nabusia, eta kontu egiten du hekin.

20 Orduan ethorririk borz talentak rezebitu zituenak presenta zietzon berze borz talent, zioela, Nabusia, borz talent eman drauzkidak, huna, berze borz talent irabazi zitiat hezaz.

21 Erran ziezon bere nabusiak, Ungi, zerbitzari ona eta leiala: gauza gutian izan aiz leial, anhitzaren gaineko ezarriren aut: sar adi eure nabusiaren alegrian.

22 Gero ethorririk bi talentak rezebitu zituenak ere diotsa, Nabusia, bi talent eman drauzkidak, huna, berze biga irabazi zitiat hezaz.

23 Erran ziezon bere nabusiak, Ungi, zerbitzari ona eta leiala, gutiaren gainean izan aiz leial, anhitzaren gaineko ezarriren aut: sar adi eure nabusiaren alegranzen.

24 Baina ethorririk talent bat rezebitu zuenak ere diotsa, Nabusia, ezagutzen nian ezen gizon gogorra inzela, erein eztuan lekuan biltzen duala, eta barreiatu eztuan lekuan elkarganatzten duala.

25 Hunegatik beldurrez ioanik gorde diat hire talenta lurrean: huna, baduk eura.

26 Eta ihardesten zuela bere nabusiak erran ziezon, Zerbitzari gaixtoa eta laxoa, bahakian ezen biltzen dudala erein eztudan lekuan: eta elkarganatzten dudala barreiatu eztudan lekuan.

27 Beraz behar erauen eman ene dirua kanbiadorei, eta ethorririk nik rezebitu bainukeen neurea lukururekin.

28 Edeki ezozue bada huni talenta, eta emozue hamar talentak dituenari.

29 Ezen duen guziari emanen zaio, eta hanbat gehiago ukanen du: baina deus eztuenari, duena ere edekiren zaio.

30 Eta zerbitzari alferra egotzazue lekoreko ilhunbera: han izanen da nigar eta hortz garraskots.

31 Bada gizonaren Semea dathorrenean bere glorian, eta Aingeru saindu guziak harekin, orduan iarriren da bere gloriaren thronoan.

32 Eta bilduren dirade haren aitzinera natione guziak, eta bereziren ditu batak berzetarik, artzainak ardiak akerretarik beretzen dituen bezala.

33 Eta ezarriren ditu ardiak bere eskuinean, eta akerrak bere ezkerrean.

34 Orduan erranen draue Regek bere eskui-nekoei Zatozte ene Aitaren benedikatuak, hereta ezazue munduaren foundationetik preparatu zaizuen resuma.

35 Ezen gose izan naiz eta eman drautazue iatera: egarri izan naiz, eta eman drautazue edatera: arrotz ninzen, eta rezebitu nauzue,

36 Billuzi, eta beztitu nauzue: eri, eta bisitatu nauzue: presoindagian ninzen, eta enegana ethorri izan zarete.

37 Orduan ihardetsiren draukate iustoek, dioitela, launa, noiz ikusi augu goserik, eta bazkatu augu: edo egarririk eta edatera eman drauagu?

38 Eta noiz ikusi augu arrotz, eta rezebitu augu? edo billuzi, eta beztitu augu?

39 Edo noiz ikusi augu eri, edo presoindagian eta ethorri gara hiregana?

40 Eta ihardesten duela Regek erranen draue, Egiaz diotsuet, ene anaie xipien hautarik bati egin draukazuen bezenbatean niri egin drautazue:

41 Orduan erranen draue ezkerrekoi ere, Maradikatuak, parti zaitetze eneganik sekulako sura, deabruari eta haren aingeruei preparaturik dauenera.

42 Ezen gose izan naiz, eta eztrautazue eman iatera: egarri izan naiz, eta eztrautazue eman edatera.

43 Arrotz ninzen, eta eznauzue rezebitu: billuzi, eta eznauzue beztitu: eri eta presoindagian, eta eznauzue bisitatu.

44 Orduan hek ere ihardetsiren draukate, erraiten dutela, launa, noiz ikusi augu gose edo egarri, edo arrotz, edo billuzi, edo eri, edo presoindagian, eta ezaugu zerbitzatu?

45 Orduan ihardetsiren draue, erraiten duela, Egiaz diotsuet xipien hautarik bati egin eztraukazuen bezenbatean, niri ere eztrautazue egin.

46 Eta ioanen dirade hauk tormenta eternalera: baina iustoak bizitze eternalera.

KAP. XXVI.

1 Iesusek aitzinetik erraiten nola hil bebar zuen. 3 Haren kontra konseillu edukeiten. 14 Iudasek hura saltzen. 17 Kristek Bazkoa iaten. 26 Zenaren institutionea. 30 Kantikoa ian ondoan. 31 Apostoluen eskandalizatzea. 34, 70 Pierrisen ukatzea. 37 Triste Krist. 40

Diszipuluak lo. 41 Beillatzeko eta othoitz egiteko. Espiritua eta haragia. 48 Iudasek Krist traditzen. 57 Krist Kaifasgana eraman izan. 59 Testimonio falsuak. 63 Iesusek Krist dela aithortzen. 67 Iesus thustatzen eta bufetatzen.

1 Eta gertha zedin akabatu zituenean Iesusek propos hauk guziak, erran baitziezen bere diszipuluei.

2 Badakizue ezen bi egunen buruan Bazko egiten dela, eta gizonaren Semea tradituren dela kruzifika dadinzat.

3 Orduan bildu izan dirade Sakrifikadore prinzipalak eta Eskribak eta populuko Anzianoak Sakrifikadore prinzipal Kaifas deitzen denaren salara.

4 Eta konseillu eduki zezaten fineziaz Iesusen hatzamaiteko eta hiltzeko.

5 Baina erraiten zuten, Ez bestan, tumultorik eztenzat populuaren artean.

6 Eta Iesus Bethanian Simon sorhaioaren etxean zela,

7 Ethor zedin harengana emazte bat, boeita bat ungentu prezio handitakorik zuela, eta huts zezan, hura iarririk egon eta, haren buru gainera.

8 Eta *hori* ikusirik, haren diszipuluei gaitzi zekien zioitela, Zertako da goastu haur?

9 Ezen ungentu haur *prezio* handitan saldu ahal zatekeen, eta eman paubrei.

10 Eta *hori* ezaguturik lesusek dioste, Zergatik fatigatzen duzue emazte haur? ezen obra on bat enegana obratu du.

11 Ezen bethiere paubreak ukanen dituzue zuekin: baina ni eznauzue bethi ukanen.

12 Ezen hunek ungentu hunen ene korputz gainera hustea ene ohorztekotzat egin du.

13 Egiaz erraiten drauzuet, non ere predikaturen baita Ebanjelio haur mundu guzian, hunek egin duena ere kontaturen da hunen memorio-tan.

14 Orduan ioan izan da hamabietarik bat ludas Iskariot deitzen zena, Sakrifikadore prinzipaletara.

15 Eta dioste, Zer eman nahi drautazue, eta nik hura zuei liuraturen baitrauzuet? Eta hek asigna zietzoten hogei eta hamar diru *peza*.

16 Eta geroztik aizina bilha zabilan, hura tradi lezanzat.

17 Eta altxagarri gaberiko ogien bestako lehen *egunean* ethor zitezen diszipuluak Iesus-gana, ziotsatela, Non nahi duk apain diazagun iatera Bazkoa?

18 Eta hark erran ziezen, Zoazte hirira edozeingana, eta errozue, Majistruak zio, Ene denbora hurbil duk, hi baithan eginen diat Bazkoa neure diszipuluekin,

19 Eta diszipuluek egin zezaten Iesusek ordenatu zerauen bezala, eta apain zezaten Bazkoa.

20 Bada arrastu zenean, iar zedin mahainean hamabiekin.

21 Eta hek alha ziradela, erran zezan, Egiaz erraiten drauzuet, ezen zuetarik batek tradituren nauela.

22 Orduan triste zitezen hagitz, eta haszekion hetarik batbedera erraiten, Ala ni naiz, launa?

23 Baina hark ihardesten zuela erran zezan, Nork ezarten baitu enekin eskua trenpatzeko platean, hark tradituren nau.

24 Segur, gizonaren Semea badoa harzaz eskribatua den bezala: baina malediktione gizon haren gainean zeinez gizonaren Semea traditzen baita: on zukeen gizon hark baldin sorthu izan ezpaliz.

25 Eta ihardesten zuela ludasek, zeinek hura traditzen baitzuen, erran zezan, Majistrua, ni naiz? Diotsa, Hik erran duk.

26 Eta hek alha ziradela har zezan Iesusek ogia, eta gratiak rendaturik, hauts zezan, eta eman ziezen bere diszipuluei, eta erran, Har ezazue, ian ezazue, haur da ene gorputza.

27 Eta harturik kopa, eta gratiak rendaturik, eman ziezen, erraiten zuela, Edan ezazue hunetarik guziok.

28 Ezen haur da ene odol Testamentu berrikoa anhitzenatik isurten dena bekatuen barkamendutan.

29 Eta badiotsuet, ezen eztudala edanen hemendik harat aihen fruktu hunetarik, zuekin

berririk neure Aitaren resuman hura edanen dudan egunerano.

30 Eta kantikoa erranik ioan zitezen Olibatzetako mendirat.

31 Orduan dioste Iesusek, Zuek guziok gau hunetan eskandalizaturen zarete nitan: ezen eskribatua da, Ioren dut artzaina, eta barreiatu-
ren dirade arthaldeko ardiak.

32 Baina resuszita nadin ondoan, zuen aitzinean ioanen naiz Galileara.

33 Eta ihardesten duela Pierrisek diotsa, Guziak hitan eskandaliza baditez ere, ni iagoitik eznaitek eskandaliza.

34 Diotsa Iesusek, Egiaz erraiten drauat, ezen gau hunetan oillarrak io dezan baino lehen hiruretan ukaturen nauala.

35 Diotsa Pierrisek, Are baldin hirekin hiltzera behar badakit ere, ez aut ukaturen. Halaber diszipulu guziek ere erran zezaten.

36 Orduan ethor zedin Iesus hekin Jethsemane deitzen den leku batetara: eta dioste diszipuluei, Iar zaitetze hemen, haraxe ioanik othoitz daididano.

37 Eta harturik Pierris eta Zebedeoren bi semeak, has zedin tristetzen eta guziz keixatzen.

38 Orduan dioste lesusek, Alde guzietarik triste da ene arima heriorano: zaudete hemen, eta beilla ezazue enekin.

39 Eta aitzinaxiago ioanik, ahozpez iar zedin, othoitz egiten zuela, eta zioela, Ene Aita, baldin posible bada, iragan bedi eneganik kopa haur: guziagatik ere ez nola nik nahi baitut, baina nola hik.

40 Gero ethorten da diszipuluetara, eta erideiten ditu lo daunzala: eta diotsa Pierrisi, Horrela oren bat ezin beillatu duzue enekin?

41 Beilla ezazue eta othoitz egizue, sar etzaitzten tentationetan: ezen espiritua prompto da, baina haragia flaku.

42 Berriz bigarren aldian ioan zedin, eta othoitz egin zezan, erraiten zuela, Ene Aita, baldin posible ezpada kopa haur iragan dadin eneganik, hura edaten dudala baizen: egin bedi hire borondatea.

43 Gero itzulirik erideiten ditu berriz lo daunzala: ezen haien begiak sorthatuak ziraden.

44 Eta utzirik hek, berriz ioan zedin, eta othoitz egin zezan heren aldian, hitz berak erraiten zituela.

45 Orduan ethorten da bere diszipuluetara, eta dioste, Lo egizue gaurgero, eta reposa zaitzte: huna, hurbildu da orena, eta gizonaren Semea liuratzan da gaixtoen eskuetara.

46 laiki zaitzte, goazen: huna, hurbildu da ni traditzen nauena.

47 Eta hura oraino minzo zela, huna, ludas hamabietarik bat, ethor zedin, eta harekin jendetze handia ezpatekin eta uhekin, Sakrifikadore prinzipalen eta populuko Anzianoen partez.

48 Eta hura traditzen zuenak, eman zerauen seignale, zioela, Nori ere pot eginen baitraukat, hura da: zatxetzate hari.

49 Eta bertan hurbildurik Iesusgana, erran zezan, Majistrua, Ungi hel dakiala. Eta pot egin ziezon.

50 Orduan Iesusek erran ziezon Adiskidea, zertan aiz hemen? Orduan hurbildurik ezar zitzaten eskuak Iesusen gainean, eta lot zekizkion.

51 Eta huna, Iesusekin ziradenetarik batek, abanzaturik eskua, idoki zezan bere ezpata, eta

iorik Sakrifikadore prinzipalaren zerbitzaria, edeki ziezon beharria.

52 Orduan diotsa Iesusek, Itzul ezak eure ezpata bere lekura: ezen ezpata harturen duten guziak, ezpataz hilen dituk.

53 Uste duk ezin othoitz daidiodala orain neure Aitari, eta baitinguzket bertan hamabi lejione baino gehiago Aingeru?

54 Nolatan beraz konpli litezke Eskripturak, *diotenean*, ezen hunela behar dela egin?

55 Ordu hartan berean erran ziezen Iesusek jendetzei, Gaixtagin baten ondoan bezala ilki izan zarete ezpatekin eta uhekin, ene hatzamai-tera: egun oroz zuen artean iarten ninzen, irakasten ari ninzela tenplean, eta eznauzue hatzaman.

56 Baina haur guzia egin izan da, konpli litezenezat Profeten Eskripturak. Orduan diszipulu guziek, hura abandonaturik, ihes egin zezaten.

57 Baina Iesus, hatzaman zutenek, eraman zezaten Kaifas Sakrifikadore subiranoagana, non Eskribak eta Anzianoak bilduak baitziraden.

58 Eta Pierris iarreikiten zaion urrundantik Sakrifikadore subiranoaren salarano, eta barne-

ra sarthurik, iar zedin zerbitzariekin, fina ikus lezanzat.

59 Eta Sakrifikadore prinzipalak eta Anzianoak eta konseillu guzia testimoniaje falsu bilha zabiltzan Iesusen kontra, hil erazi lezatenzat:

60 Eta etzezaten eriden: eta anhitz testimonio falsu ethorri bazen ere etzezaten eriden *moldezkorik*. Baina finean ethorririk bi testimonio falsuk erran zezaten,

61 Hunek erran du, Desegin ahal dirot Iainkoaren tenplea, eta hirur egunez hura reedifika.

62 Orduan iaikirik Sakrifikadore subiranoak erran ziezon, Eztuk deus ihardesten? zer *da* hauk hire kontra testifikatzen dutena?

63 Eta Iesus ixilik zegoen. Orduan ihardesten duela Sakrifikadore subiranoak diotsa, Adiuratzan aut Iainko biziaren partez, erran diezaguan, eia hi aizenez Krist Iainkoaren Semea.

64 Diotsa Iesusek, Hik erran duk: baina are diotsuet, Hemendik harat ikusiren duzue gizonaren Semea iarririk dagoela *Iainkoaren* botherearen eskuinean, eta zeruko hodeietan ethortendela.

65 Orduan Sakrifikadore subiranoak erdira zitzan bere abillamenduak, erraiten zuela, Blasfematu du, zer gehiago testimonio behar dugu? huna, orain enzun ukan duzue hunen blasfemia.

66 Zer irudi zaizue? Eta hek ihardesten zute-la, erran zezaten. Hil merezi du.

67 Orduan thu egin ziezoten begithartera, eta bufeta zezaten, eta berzek zihorrez ukaldi eman ziezoten,

68 Zioitela, Krist, profetiza iezaguk, nor den io auena.

69 Eta Pierris iarririk zegoen lekorean salan: eta ethor zekion neskato bat, zioela, Hi ere Iesus Galileanoarekin inzen.

70 Baina hark uka zezan guzien aitzinean, zioela, Etzeakinat zer dionan.

71 Eta hura korralerat ilkiten zela ikus zezan berze *neskato* batek: eta erran zizezen han ziradenei, Haur ere Iesus Nazarenorekin zen.

72 Eta berriz uka zezan iuramendurekin, *zioela*, Eztezagut gizona.

73 Eta apur baten buruan ethor zitezen present izan ziradenak, eta erran ziezoten Pierrisi,

Egiazki hi ere hetarik aiz: ezen eure minzatzeak ere deklaritzen au.

74 Orduan has zedin maradikatzen eta arnegatzen, *zioela*, Eztezagut gizona. Eta bertan oillarrak io zezan.

75 Orduan orhoit zedin Pierris Iesusek erran zeraukan hitzaz, zeinek erran baitzeraukan, Oillarrak io dezan baino lehen, hiruretan ukaturen nauk. Eta kanporat ilkirik nigar egin zezan mingi.

KAP. XXVII.

*2 Krist Pilatgana eraman izan. 5
Iudasek bere burua urkatu. 16 21
Barabbas. 26 Krist azotatu eta
kruzifikatzeko liuratu. 29 Elhorriz
koroatu. 30 Thustatu eta eskarniatu.
34, 48 Binagrez eta behazunez
eradan. 38 Bi gaixtaginekin
kruzifikatu. 45 Herri guzia ilhundu.
46 Kristek krutzean othoitz egin. 50
Espiritua rendatu. 51 Haren herioko*

*mirakuluak. 54 Zentenera. 60
Iosefek Krist ohortze. 64 Sepulkreko
goardak.*

1 Gero goiza ethorri zenean, konseillu eduki zezaten Sakrifikadore prinzipal eta populuko Anziano guziek Iesusen kontra, hura heriotara eman lezatenzat.

2 Eta estekaturik eraman zezaten, eta liura ziezoten Pontio Pilate gobernadoreari.

3 Orduan Iudasek, hura traditu zuenak, zaku-sanean hura kondemnatu zela urrikiturik, itzulzietzen hogeit hamar diruak Sakrifikadore prinzipalei eta Anzianoei.

4 Zioela, Bekatu egin dut, odol inozentaren traditzeaz. Baina hek erran zezaten, Zer dohaku guri? hik dakusala.

5 Eta diruak iraitzirik tenplean, retira zedin, eta ioanik, urka zezan bere burua.

6 Orduan Sakrifikadore prinzipalek diruak harturik erran zezaten, Ezta sori hauk thesaurerean ezar ditezen, ezen odol prezioa da.

7 Eta konseillu harturik, eros zezaten hezaz topinagile baten landa estranjeren ohortz leku.

8 Halakotz deithu izan da landa hura, odol-landa, egungo egunerano.

9 Orduan konpli zedin Hieremias profetaz erran izan zena, zioela, Eta hartu ukan dituzte hogei eta hamar diruak, estimatu izan denaren prezioa, zein estimatu izan baita Israeleko haurrez:

10 Eta eman dituzte hek tupinagile baten landaren erosteko, launak niri ordenatu zerautan bezala.

11 Eta Iesus eraman zedin Gobernadorearen aitzinera, eta interroga zezan Gobernadoreak, zioela, Hi aiz Iuduen Regea? Iesusek erran ziezon, Hik diok.

12 Eta akusatu izanik Sakrifikadore prinzipalez eta Anzianoez, deus etzezan ihardets.

13 Orduan diotsa Pilatek, Eztanzuk zenbat gauza hire kontra testifikatzen duten?

14 Eta etziezon ihardets hitz batetara ere: *hala* non miresten baitzuen Gobernadoreak hagitz.

15 Bada bestan kostumatu zuen Gobernadoreak populuari berek nahi zuten presoner baten largatzera.

16 Eta orduan bazuten presoner notable bat, Barabbas deitzen zenik.

17 Bildu ziradenean bada hek, erran ziezen Pilatek, Zein nahi duzue larga diezazuedan? Barabbas, ala Iesus, deitzen dena Krist?

18 Ezen bazeakian inbidiaz hura liuratu zute-la.

19 Eta hura alki iudizialean iarririk zegoela, igor ziezon bere emazteak, zioela, Eztuala hik deus iusto horrekin, ezen anhitz iragan diat egun ametsetarik horrengatik.

20 Orduan Sakrifikadore prinzipalek eta Anzianoek burutan eman ziezoten populuari Barabbasen eska litezen, eta Iesus hil erazi leza-ten.

21 Eta ihardesten zuela Gobernadoreak erran ziezen, Biotarik zein nahi duzue larga diezazue-dan? Eta hek erran ziezoten, Barabbas.

22 Erran ziezen Pilatek, Zer eginen dut beraz Iesusez Krist deitzen denaz? Diotsate guziek, Kruzifika bedi.

23 Eta Gobernadoreak dioste, Baina zer gaiz-ki egin du? Orduan hek ohiu gehiago egiten zuten, erraiten zutela, Kruzifika bedi.

24 Eta ikusirik Pilatek ezen etzuela deus probetxatzen, baina tumultoa handitzenago zela, ur harturik ikuz zitzan eskuak populuaren aitzinean, zioela, Inozent naiz ni iusto hunen odoletik: zuek ikusazue.

25 Eta ihardesten zuela populu guziak erran zezan, Horren odola dela gure gainean eta gure haurren gainean.

26 Orduan larga ziezen Barabbas: eta Iesus azotaturik liura ziezen kruzifika ledinzat.

27 Orduan gobernadorearen jendarmesek eramanik Iesus pretoriora, bil zezaten haren aitzinera banda guzia.

28 Eta billuzi zutenean eman ziezoten soine-
ra eskarlatazko manto bat.

29 Eta elhorrizko koroa bat plegaturik ezar zezaten haren buru gainean, eta kanabera bat haren eskuinean: eta haren aitzinean belhauri-
katuz trufatzen ziraden harzaz erraiten zutela, Ungi hel dakiala, Iuduen Regea.

30 Eta thu eginik haren kontra, har zezaten kanabera hura, eta haren buruari zeraunsaten.

31 Gero harzaz trufatu ziradenean, eraunz ziezoten mantoa, eta bezi zezaten bere abillamenduez: eta eraman zezaten kruzifikatzera.

32 Eta ilki ziradenean eriden zezaten gizon Zireniano Simon deitzen zenbat: haur bortxa zezaten haren krutzearen eramaitera.

33 Eta ethorri ziradenean Golgotha deitzen den lekura (zein erran nahi baita hanbat nola bur-hezur lekua)

34 Eman ziezoten binagre edatera behazunarekin nahastekaturik: eta dastatu zuenean etzuen edan nahi ukan.

35 Eta kruzifikatu zutenean parti zitzaten haren abillamenduak, zorthe egotzirik: konpli ledinzat Profetaz erran zena, Partitu ukan dituzte ene abillamenduak, eta ene arroparen gainean zorthe egotzi ukan dute.

36 Eta iarririk zeudela begiratzen zuten hura han.

37 Eta ezar zezaten haren buru garaian haren kausa eskribaturik, HAUR DA IESUS IUDUEN REGEA.

38 Orduan kruzifikatu izan dirade harekin bi gaixtagin bata eskuinetik eta berzea ezkerretik.

39 Eta iragaiten ziradenek iniuriatzen zuten hura, bere buruak higitzen zituztela,

40 Eta zioitela, Hik tenplea desegiten duanorrek, eta hirur egunez edifikatzen, enpara ezak eure burua: baldin lainkoaren Semea bahaiz, iaitsu adi krutzetik.

41 Halaber Sakrifikadore prinzipalek ere trufatzen ziradela Eskribekin eta Anzianoekin, erraiten zuten.

42 Berzeak enparatu ditu, bere burua ezin enpara diro: baldin Israeleko Rege bada, iaitsu bedi orain krutzetik, eta sinhetsiren dugu hori.

43 Fida da lainkoa baithan, enpara beza orain, baldin haren gogarako bada: ezen errandu, lainkoaren Semea naiz.

44 Hura bera, harekin kruzifikatu ziraden gaixtaginek ere reprotxatzen zeraukaten.

45 Baina sei orenetarik bedratzi orenetarano lur guziaren ganean ilhunbe egin zedin.

46 Eta bedratzi orenen inguruan oihuz iar zedin Iesus ozengi, zioela, Eli, Eli, lama sabaxthani? erran nahi baita, Ene lainkoa, Ene lainkoa, zeren abandonatu nauk?

47 Eta han present ziradenetarik batzuk *hori* enzunik, zioiten, Elias deitzen du hunek.

48 Eta bertan laster eginik hetarik batek, eta esponjia bat harturik binagrez betherik, eta ezarririk kanabera baten inguruan, edatera eman ziezon.

49 Eta berzek erraiten zuten, Utzak, dakusagun, eia ethorriren denez Elias horren enparatzera.

50 Eta orduan lesusek berriz ozengi oihu eginik, espiritua renda zezan.

51 Eta huna, tenpleko bela erdira zedin bizathitara, garaitik behererano, eta lurra ikara zedin, eta harriak, erdira zitezen.

52 Eta monumentak ireki zitezen, eta anhitz Saindu lo zeunzanen gorputzak iaiki zitezen.

53 Eta monumentetarik ilkirik haren resurrektione ondoan, sar zitezen zibitate saindura, eta ager zekizkien anhitzi.

54 Eta Zentenera, eta harekin Iesusen begirale zeudenak, *lur* ikaratzea eta egin izan ziraden gauzak ikusirik, izi zitezen hagitz, erraiten zutela, Egiazki lainkoaren Semea zen haur.

55 Han ziraden halaber anhitz emazte urrundanik beha zeudela, zein iarreiki izan baitzaizkan Iesusi Galileatik, hura zerbitzatzen zutela.

56 Hetarik zen, Maria Magdalena, eta Maria lakesen eta Iosesen ama, eta Zebedeoren semen ama.

57 Eta arrastu zenean, ethor zedin gizon abrats bat Arimathiatik, Iosef deitzen zenik, hura ere Iesusen diszipulu izan zen.

58 Haur ethor zedin Pilatgana, eta eska zekion Iesusen gorputzaren: orduan mana zezan Pilatek renda ledin gorputza.

59 Eta gorputza harturik Iosefek mihise xuri batetan barna ezar zezan.

60 Eta ezar zezan bere monument berri arroka batetan ebakia zuenean: eta harri handi bat monument borthara itzulirik, ioan zedin.

61 Eta Maria Magdalena eta Maria berzea ziraden han iarriak sepulkre aurkan.

62 Eta biharamunean, zein baita *Sabbathoaren* preparatione ondoan, bil zitezen Sakrifikadore prinzipalak, eta Fariseuak Pilatgana.

63 Erraiten zutela, launa, orhoitu gaituk nola abusari hark bizi zela erran zezan, Ondoko heren egunean resuszitaturen naiz.

64 Mana ezak bada begira dadin sepulkrea heren egunerano, haren diszipuluek gauaz ethorrik, hura ebats eztezaten, eta populuari derrotten, Resuszitu da hiletarik: eta *halaz* baitate azken errorea lehena baino gaixtoago.

65 Eta erran ziezen Pilatek, Badituzue goardak: zoazte, segura zaitzete dakizuen bezala.

66 Hek bada ioanik segura zezaten sepulkrea, harria zigilaturik, goardekin.

KAP. XXVIII.

1 Emazteak sepulkrrera ethorri. 2 Lurra ikaratu, eta Aingerua zerutik iautsi. 6 Krist resuszitu. 9 Emaztei bidera ilki. 17 Diszipuluei agertu, eta hezaz adoratu. 19 Bere Apostoluak predikatzen eta batheiatzen artzera igorri.

1 Eta Sabbath azkenzean asteko lehen argitu behar zen *egunean*, Maria Magdalena eta Maria berzea ethor zitezen sepulkrearen ikustera.

2 Eta huna, lur ikaratze handi bat egin zedin: ezen launaren Aingerua iausts zedin zerutik, eta ethoririk aldara zezan harria borthatik, eta iarri-rik zegoen haren gainean.

3 Eta zen haren ikartzea xistmista bezala, eta haren abillamendua xuri elhurra bezala.

4 Eta haren beldurrez, izi zitezen goardak, eta hilak bezalaka zitezen.

5 Baina ihardesten zuela Aingeruak erran zie-zen emaztei, Zuek eztuzuela beldurrik: ezen badakit Iesus kruzifikatu izan denaren bilha zabilatzatela:

6 Ezta hemen: ezen resusztatatu izan da, erran zuen bezala: zatozte ikusazue launa ezarri izan zen lekua.

7 Eta bertan ioanik errezue haren diszipuluei, ezen resusztatatu dela: eta huna, zuen aitzinean doa Galileara: han hura ikusiren duzue. Huna, erran drauzuet.

8 Eta bertan partiturik monumentetik iziaper eta bozkario handirekin, laster egin zezaten haren diszipunuei deklaratzera.

9 Baina hek haren diszipunuei deklaratzera zioazela, huna, Iesus aitzinera ethor zekien, zioela, Ungi hel dakizuela. Eta hek hurbildurik lot zekizten haren oinei, eta adora zezaten hura.

10 Orduan dioste Iesusek, Eztuzuela beldurrik: zoazte, deklaratu iezezue ene anaiei, doazen Galileara: eta han ikusiren naute.

11 Hek partitu eta, huna, goardetarik batzu ethor zitezten hirira, eta deklaratu zitezten Sakrifikadore prinzipalei egin izan ziraden gauza guziak.

12 Orduan bildurik Anzianoekin, eta konseillu harturik, diru soma ona eman zitezten jendarme-sei:

13 Zioitela, Errazue, Haren diszipunuek gauaz ethorririk, hura ebatsi ukan dute gu lo gaunzala.

14 Eta baldin hori gobernadoreak enzun badeza, guk sinhets eraziren draukagu, eta egitekotarik idokiren zaituztegu.

15 Eta hek dirua harturik egin zezaten irakatsi izan ziraden bezala: eta publikatu izan da propos haur luduen artean egungo egunerano.

16 Baina hameka diszipuluak ioan zitezen Galilearat, mendira, non ordenatu baitzarauen lesusek.

17 Eta hura ikusirik adora zezaten: eta batzuk duda zezaten.

18 Eta hurbildurik Iesus minza zekien, zioela, Eman izan zait niri bothere guzia zeruan eta lurrean.

19 Zoazte bada eta irakats itzazue jende guziak: batheiatzen dituzuela Aitaren eta Semearen eta Espiritu sainduaren izenean:

20 Irakasten dituzuela *nik* manatu drauzuedan guziaren begiratzen: eta huna, ni zuekin naiz bethiere munduaren finerano. Amen.

IESUS KRISTEN EBANJELIO SAINDUA S. MARK-EN ARAURA

KAP. I.

*4 Baptismoa. 5 Konfesionea. 6
Ioanesen beztidura eta ianharia. 9
Kristek, batheiatu, 13 eta tentatu
izan den ondoan, 14 Predikatzen:
17, 19 Apostoluak deitzen: 21, 39
Sinagogetan irakasten. 24 Deabruak
hura ezagutzen. 25 Gero Kristek
demoniatua, eta 30 Pierrisen ama-
ginharreba sendatzen. 35 Desertuan
othoitz egiten, 40 Sorhaioa
sendatzen.*

1 Iesus Krist Iainkoaren Semearen Ebanjelio hatsea:

2 Eskribatua den bezala Profetetetan, Huna, nik igorten diat neure mandataria hire begitharte

aitzinean, zeinek apainduren baitu hire bidea
hire aitzinean

3 Desertuan oihuz dagoenaren boza *da*,
Apain ezazue launaren bidea, plana itzazue
haren bideskak.

4 Batheiatzen ari zen loanes desertuan, eta
predikatzen zuen emendamendutako baptismoa
bekatuen barkamendutan.

5 Eta ioaiten zen harengana Iudeako herri
guzia eta Ierusalemekoak: eta batheiatzen zira-
den guziak harenganik Iordaneko flubioan, bere
bekatuak konfesatzen zituztela.

6 Eta zen loanes beztitua kamelu biloz, eta
Iarruzko gerriko batez bere gerrunzean inguru,
eta othi eta basezti iaten zuen.

7 Eta predikatzen zuen, zioela, Ethorten da ni
baino borthitzago dena ene ondoan, zeinen
zapatetako hedearen beheiturik ezpainaiz laxa-
tzeko digne.

8 Egia da, nik batheiatzen zaituztet urez,
baina hark batheiatzen zaituzte Espiritu sain-
duaz.

9 Eta gertha zedin egun hetan, Iesus ethor baitzedin Nazareth Galileakotik, eta batheia baitzedin Ioanesganik Iordanean.

10 Eta bertan ilkiten zela uretik, ikus zitzan zeruak erdiratzen, eta Espiritu saindua uso kolunba bat bezala haren gainera iausten.

11 Eta boz bat egin zedin zeruetarik, zioela, Hi aiz ene Seme maitea zeinetan hartzen baitut neure atsegin ona.

12 Eta bertan Espirituak irion zezan hura desertura.

13 Eta egon zedin han desertuan berrogei egun, tentatzen zela Satanez: eta zen basa bestiekin, eta Aingeruek zerbitzatzen zuten.

14 Eta Ioanes hatzaman ikan zenean, ethor zedin Iesus Galileara, predikatzen zuela lainkoaren resumaren Ebanjelioa:

15 Eta zioela, Konplitu da denbora, eta hurbil da lainkoaren resuma: emenda zaitzte, eta sinhets ezazue Ebanjelioa.

16 Eta Galileako itsas bazterrean zabilala ikus zitzan Simon eta Andriu haren anaiea, sareak itsasora egoizten zituztela (ezen peskadore ziraden)

27 Eta erran ziezen Iesusek, Zatozte ene ondoan eta eginen zaituztet giza peskadore.

18 Eta bertan utzirik bere sareak iarreiki izan zaizkan.

19 Eta handik aitzinaxiago ioanik, ikus zitzan lakes Zebedeoren *semea* eta Ioanes haren anaia, hek ere unzian bere sareak adobatzen zituztela.

20 Eta bertan dei zitzan hek: eta bere aita Zebedeo unzian utzirik langilekin, iarreiki izan zaizkan.

21 Gero sartzen dirade Kapernaum-en, eta bertan Sabbath *egunean* sarthurik sinagogan, irakasten ari zen.

22 Eta espantaturik zeuden haren doktrinaz, ezen irakasten zituen autoritate zuenak bezala, eta ez Eskribek bezala.

23 Eta zen haien sinagogan gizon bat espiritu satsua zuenik, eta oihuz iar zedin,

24 Zioela, Ah, Zer da hire eta gure artean Iesus Nazarena? gure desegitera ethorri aiz? ba zeakiat nor aizen, *hi aiz* lainkoaren saindua.

25 Eta mehatxa zezan hura Iesusek, zioela, Ixil adi, eta ilki adi horrenganik.

26 Eta espiritu satsua hura zathiturik, eta ozengi oihuz iarririk, ilki zedin harenganik.

27 Eta espanta zitezen guziak, hala non bere artean galdez baitzeuden, zioitela, Zer da haur? zer doktrina berri da haur? authoritatez espiritu satsuak ere manatzen baititu eta obeditzen baitute ?

28 Eta io zezan haren famak bertan Galilea inguruko komarka guzia.

29 Eta bertan sinagogatik ilkirik, ethor zitezen Simonen eta Andriuen etxera lakesekin eta loanesekin.

30 Eta Simonen ama-ginharreba zetzan helgaitzarekin: eta bertan minzatu izan zaizkan harzaz.

31 Orduan hurbildurik goiti zezan hura eskuetik harturik, eta bertan utzi zezan helgaitzak: eta *hark* zerbitza zitzan.

32 Eta arratsean, iguzki sartzean, ekarten zerautzaten geizki zeuden guziak eta demoniatuak.

33 Eta hiri guzia borthara bildua zen.

34 Eta senda zitzan erharzun dibersez eri ziraden guziak: eta anhitz deabru kanpora egotz

zezan, eta etzituen deabruak minzatzera utziten nola hura ezagutu ukan luten.

35 Gero goizean oraino ilhun handia zela iai-kirik ilki zedin, eta ioan zedin leku desertu bate-tara, eta han othoitz egiten zuen.

36 Eta iarreiki izan zaizkan Simon eta harekin ziradenak.

37 Eta eriden zutenean, erran ziezoten, Guziak hire bilha diabiltzak.

38 Orduan dioste Goazen hurbilengo burgue-tara: han ere predika dezadanzat: ezen hartako-tzat ilki izan naiz.

39 Eta predikatzen zuen haien sinagogetan, Galilea guzian: eta deabruak kanpora egoizten zituen.

40 Eta ethor zedin harengana sorhaio bat, othoitz egiten zeraukala, eta hari belhaurikaturik ziotsala, Baldin nahi baduk xahu ahal nezakek.

41 Orduan Iesusek konpasionen harturik eta eskua hedaturik, hunki zezan hura, eta erran ziez-on, Nahi diat, aizen xahu,

42 Eta *hori* erran zuenean, bertan ioan zedin harenganik sorhaiotasuna, eta xahu zedin.

43 Eta hura mehatxaturik bertan igor zezan kanporat:

44 Eta erran ziezon, Begirauk nehoi deus ezterroan: baina oha, eta erakuts akio Sakrifika-doreari, eta presenta itzak eure garbitzeagatik Moisesek manatu dituen gauzak haiei testimonia-jetan.

45 Baina hura ilkirik has zedin anhitz gauza-ren publikatzen, eta beharkiaren manifestatzen, hala non gehiagorik agerriz Iesus ezin sar bai-tzaiten hirira, baina lekorean leku desertuetan zen, eta ethorten ziraden harengana alde guzie-tarik.

KAP. II.

3 Kristek paralitikoa sendatzen. 5 Bekatuak barkatzen. 14 Mattheu, eta 17 Bekatoreak deitzen. 19 Ezkonduaz. 20 Barur eta afliktione ethorri beharrez. 21 Abillamendu zarreko pedazu gogorraz. 22 Zahagi zarretako mahatsarno berriaz. 23

*Diszipuluak Sabbathoan buruka
idokiten ari. 25 Dabid-ez 26
Propositioneko ogiez. 27
Sabbathoaz.*

1 Eta berriz sar zedin Kapernaumen *zenbeit* egunen buruan, eta enzun izan da ezen etxean zela.

2 Eta bertan anhitz bildu izan dirade *hanbat* non bortha aldiriek ere ezin eduki baitzitzakeizten: eta deklaritzen zerauen hitza.

3 Orduan ethor zitezen *batzu* herengana, ekarten zutela laurez eramaiten zen paralitiko bat.

4 Eta zeren ezin hurbil baitzakidizkion jendetzearen kausaz, ager zezaten Iesus zen etxe gaina, eta hura zulaturik, erauts zezaten paralitikoa zetzan ohea.

5 Orduan Iesusek haien fedea ikusirik, erran ziezon paralitikoari, Seme, barkatu zaizkik eure bekatuak.

6 Eta Eskribetarik batzu ziraden han iarriak, eta ihardukiten zuten bere bihotzetan, *hunela*,

7 Zergatik haur hunela blasfemio erraiten ari da? Nork bekatuak barka ahal ditzake lainkoak berak baizen?

8 Eta bertan ezaguturik lesusek bere espirituz, ezen hala zihardukatela berak baithan, erran ziezen, Zergatik horrelako gauzez dihardukazue zuen bihotzetan.

9 Zein da erratxago, erraitea paralitikoari, Barkatu zaizkik bekatuak, ala erraitea, laiki adi, eta har ezak eure ohea, eta ebil adi?

10 Dakizuenzat bada ezen gizonaren Semeak baduela bothere bekatuen barkatzeko lurrean (diotsa paralitikoari)

11 Hiri diosat, laiki adi, eta har ezak eure ohea, eta habil eure etxerat.

12 Eta bertan iaiki zedin, eta ohea harturik, ilki zedin guzien presentian: hala non guziak espantatuak baitzeuden, eta glorifikatzen baitzuten lainkoa, erraiten zutela, Egundano hunelako gauzarik eztugu ikusi.

13 Eta ilki zedin berriz itsas alderat: eta populu guzia ethorten zen harengana, eta irakasten zituen hek.

14 Eta urrutu iragaiten zela, ikus zezan, Lebi Alfeoren semea peaje lekuan iarririk, eta erran ziezon, Arreit niri. Eta iaikirik iarreiki zekion.

15 Eta gertha zedin, Iesus haren etxean mahainean iarririk zegoela, anhitz publikano eta jende bizitze gaixtotako iar baitzedin Iesusekin eta haren diszipunuekin, ezen anhitz ziraden eta iarreiki izan zaizkan.

16 Eta Eskribek eta Fariseuek ikusirik publikanoekin eta jende bizitze gaixtotakoekin iaten zuela, erran ziezen haren diszipunuei, Zergatik publikanoekin eta bizitze gaixtotakoekin iaten du eta edaten?

17 Eta *haur* enzunik Iesusek dioste, Oso diradenek eztute medikuren beharrik: baina eri diradenek: *ezen ez naiz ethorri iustoen deitzera: baina bekatoren, emendamendutara.*

18 Eta loanesen eta Fariseuen diszipunuek barur egiten zuten: eta *hek* ethorten dirade eta diotsate, Zergatik loanesen eta Fariseuen diszipunuek barur egiten dute, eta hire diszipunuek ezpaitute barurik egiten?

19 Eta erraiten drauelesusek: Ezteietako jendek barurik ahal daidite ezkondua hekin deno ? ezkondua berekin duteno barurik ezin daidite.

20 Baina ethorriren dirade egunak edekiren baitzaie ezkondua, eta orduan barur eginen dute egun hetan.

21 Eta nehork oihal pedazu latz bat eztu iosten abillamendu zar batetan, ezpere haren konpligarri berri hark edekiten drauka zarrari, eta gaizkoatzenago da ethendura.

22 Halaber nehork eztu ezarten mahatsarno berria zahagi zarretan: ezpere mahatsarno berriak lehertzen ditu zahagiak eta mahatsarno isurten da, eta zahagiak galtzen dirade baina mahatsarno berria zahagi berrietan ezarri behar da.

23 Eta gertha zedin hura iragaiten baitzen Sabbath *egun batez* ereinzetan gaindi, eta has zitezen haren diszipuluak bidean zioazela buruka idokiten.

24 Eta Fariseuek erran ziezoten, Horra, zergatik egiten dute Sabbathoan egin sori eztena?

25 Eta hark erran ziezen, Eztuzue egundano irakurri ukan, zer egin zuen Dabid-ek nezesitate

zuenean, eta gosetu zenean bera eta harekin ziradenak?

26 Nola sarthu izan zen launaren etxean Abiathar Sakrifikadore prinzipalaren denboran: eta propositioneko ogiak ian ukan zituen, Sakrifikadoren baizen iateko sori etziradenak, eta *nola* harekin ziradenei ere eman zerauen?

27 Gero erran ziezen: Sabbathoa gizonagatik egin izan da, ez gizona Sabbathoagatik.

28 Bada gizonaren Semea Sabbathoaren ere iabe da.

KAP. III.

1 Esku eiarha sendatzen. 6 Konseillu Kristen kontra 10 Eriak sendatzen, 11 Espiritu satsuek Krist ezagutzen. 14 Kristek Apostoluak predikatzeko ordenatzen. 16 Apostoluen izenak. 22 Blasfemio. 24 Resuma zathitua. 29 Espiritu sainduaren kontretako blasfemioa. 35 Kristen egiazko ahaideak zein diraden.

1 Gero sar zedin berriz sinagogan, eta zen han gizon bat eskua eihartua zuenik.

2 Eta gogoatzen zuten eia Sabbathoan sendaturen zuenez akusa lezatenzat.

3 Eta diotsa gizon esku eihartua zuenari, laiki adi artera.

4 Gero dioste, Sabbathoan ungi egitea da sori, ala gaizki egitea? persona baten enparatzea, ala hiltzea: baina hek ixilik zeuden.

5 Eta hetarat inguru behaturik aserrerekin, eta haien bihotzeko obstinationeaz kontristaturik, diotsa gizonari, Heda ezak eure eskua: Eta heda zezan, eta haren eskua, berzea bezain senda zedin.

6 Orduan ilkirik Fariseuek, bertan Herodianoekin konseillu eduki zezaten haren kontra, hura hil lekatenzat.

7 Baina Iesus bere diszipunuekin retina zedin itsas alderat: eta iarreki zekion jendetze handia Galileatik eta Iudeatik.

8 Eta Ierusalemetik, eta Idumeatik, eta Iordanaz berze aldetik: eta Tireko eta Sidoneko inguruetan habitatzen ziradenetarik jendetze handi,

ezunik zein gauza handiak egiten zituen, ethor zitezen harengana.

9 Eta erran ziezen bere diszipuluei unzixo bat bethi prest eduki lekion, jendetzearen kausaz, hers ezlezatenzat.

10 Ezen anhitz sendatu ukan zuen, *hala* non afliktionetan ziraden guziak oldartzen baitziraden harengana hunki lekatenzat.

11 Eta espiritu satsuek hura ikusten zute-nean, haren aitzinera bere buruak egoizten zituzten, eta oihu egiten zuten, zioitela, Hi aiz lainkoaren Sem 12 Bain

12 Baina hark hagitz mehatxatzen zituen, manifesta ez lezatenzat.

13 Gero igan zedin mendi batetara, eta dei zitzan beregana nahi zituenak: eta ethor zitezen harengana.

14 Eta ordena zitzan hamabi harekin izateko, eta predikatzera igorteko:

15 Eta luten bothere eritasunen sendatzeko, eta deabruen kanpora egoizteko.

16 Lehenik Simon, (zeini izen eman baitziezon Pierris:)

17 Eta lakes Zebedeoren *semea*, eta loanes lakesen anaia, (eta haei izen eman ziezen Boanerjes, erran nahi baita, igorziri semeak)

18 Eta Andriu eta Filipe, eta Bartholomeo, eta Mattheu, eta Thomas, eta lakes Alfeoren *semea*, eta Thadeo, eta Simon Kananeoa,

19 Eta Iudas Iskariot, zeinek bera traditu ere baitzuen.

20 Eta ethor zitezen etxera: eta berriz jendetze handi bat bil zedin, hala non ogiaren iateko *artea* ere ezin har baitziroiten.

21 Eta *haur* enzun zutenean haren ahaideak ilki zitezen hatzaman lezatenzat: ezen erraiten zuten, zoratu zela.

22 Eta Ierusalemetik iausti izan ziraden Eskribek erraiten zuten, ezen Beelzebub zuela, eta deabruen prinzearen partez deabruak kanpora egoizten zituela.

23 Eta hek beregana deithurik, erran ziezen konparationez, Nolatan Satanek Satan kanpora egotz ahal dezake.

24 Ezen baldin resuma bat bere kontra partitua bada, ezin dauke resuma hura.

25 Eta baldin etxe bat bere kontra partitua bada, ezin dauke etxe hura.

26 *Hala* baldin Satan ere altxa badadi eta partitua bada bere kontra, ezin dauke, baina fin du.

27 Ezin nehork borthitz baten ostillamenduak, haren etxera sarthurik, pilla ahal ditzake, baldin lehen borthitza esteka ezpadeza: eta orduan haren etxea pillaturen du.

28 Egiaz erraiten drauzuet, ezen bekatu guziak gizonen semei barkaturen zaiztela, eta blasfematu ditukeizten blasfemio guziak:

29 Baina nork ere blasfematuren baitu Espiritu sainduaren kontra eztu barkamendurik ukanen sekulan, baina izanen da kondemnatione eternalaren hogendun.

30 Ezen erraiten zuten, Espiritu satsua du.

31 Ethorten dirade bada haren anaieak eta haren ama: eta lekorean zeudela igor zitzaten *batzu* harengana, haren deitzera.

32 Eta iarririk zegoen haren inguruan jendeztea, eta *hek* erran ziezoten, Huna, hire amak eta hire anaiek lekorean galdegiten aute.

33 Orduan ihardets ziezen, zioela, Nor da ene ama, edo ene anaieak?

34 Eta inguru behatu zuenean haren inguruan iarririk zeuden diszipuluetara, dio, Huna ene ama, eta ene anaieak.

35 Ezen nork ere egine baitu lainkoare borondatea, hura da ene anaie eta ene arreba, eta ama

KAP. IIII.

3, 14 Ereillearen konparationea. 18 Elhorriak. 19 Abrastasunak, Guthiziak. 21 Kandela eraxekia. 24 Neurria. 26 Hazi lurrera egotzia. 31 Mustarda bihia. 38 Kristek unzian lo egiten. 39 Haizea eta itsasoa zesa eraziten 40 Fedea.

1 Gero berriz has zedin irakasten itsas bazterrean: eta bil zedin harengana jendetze handi, hala non bera unzira sarthurik, iarririk baitzego-

en itsasoan: eta populu guzia itsas kostan leiho-
rrean zen.

2 Eta irakasten zerauen konparationez anhitz
gauza, eta erraiten zerauen bere doktrinan,

3 Enzun ezazue, Huna, ereille bat ilki zedin
ereitara.

4 Eta gertha zedin ereitean, parte bat eror
baitzedin bide bazterrera, eta ethor zitezen zeru-
ko xoriak, eta irets zezaten hura.

5 Eta berze *parte bat* eror zedin leku harri-
zuetara, non ezpaitzuen lur anhitzik: eta bertan
ilki zedin, zeren ezpaitzuen lur barnetasunik.

6 Baina iguzkia goratu zenean, erre zedin:
eta zeren errorik ezpaitzuen, eihar zedin.

7 Eta berze *parte bat* eror zedin elhorri arte-
ra, eta elhorriak handi zitezen, eta itho zezaten
hura, eta etzezan frukturik eman.

8 Eta berzea eror zedin lur-onera, eta eman
zezan fruktu goratzen eta handitzen zenik, eta
ekar zezan *bihi* batak hogeit eta hamar, eta ber-
zeak hirurogei, eta berzeak ehun.

9 Orduan erran ziezen, Enzuteko beharririk
duenak, enzun beza.

10 Eta bera zela, interroga zezaten haren inguruan hamabiekin ziradenek, konparatio-neaz.

11 Eta erran ziezen, Zuei eman zaizue lainko-aren resumako sekretuaren ezagutzea: baina lekorean diradenei konparationez gauza guziak traktatzen zaizte:

12 Dakusatela ikus dezatenzat, eta eztakiz-kion ohar: eta danzutela enzun dezaten, eta adi eztezaten: konberti eztitezen eta bekatuak barka eztakizkien.

13 Eta erran ziezen, Eztakizue konparatione haur? Eta nolatan konparatione guziak ezaguti-ren dituzue?

14 Ereilleak hitza ereiten du.

15 Bada hauk dirade bide bazterrera *hazia rezebitzen* dutenak, zeinetan ereiten baita hitza: baina enzun dutenean, bertan ethorten da Satan, eta kenzen du haien bihotzetan erein zen hitza.

16 Eta hauk dirade halaber leku harrizuetara *hazia rezebitzen* dutenak: eta enzun dutenean hitza, bertan bozkariorekin rezebitzen dute hura.

17 Eta ez tute errorik berak baithan, baina iraute gutitako dirade: gero heltzen denean tribulationerik edo persekutionerik hitzagatik, bertan eskandalizatzen dirade.

18 Eta hauk dirade elhorri artera hazia rezebitzen dutenak, hauk dirade, *diot*, hazia enzuten dutenak:

19 Baina mundu hunetako ansiek, eta abras-tasunezko enganioak, eta berze gauzetako gut-hiziek barnerarik ithotzen dute hitza, eta fruktu gabetzen da.

20 Eta hauk dirade lur onera hazia rezebitu dutenak, zeinek hitza enzuten baitute, eta rezebitzen, eta fruktu ekarten, batak hogeit eta hamar, eta berzeak hirurogei, eta berzeak ehun.

21 Erran ziezen halaber, Ala kandela ekarten da gaitzurupean, edo ohapean ezar dadinzat? eza kandelerean ezar dadinzat?

22 Ezen ezta deus sekreturik agerturen eztenik, edo estal ahal daitenik: baina kanpora ethorri *behar da*.

23 Baldin nehork enzuteko beharrik badu, enzun beza.

24 Gehiago erran ziezen, Gogoazue zer enzuten duzuen: zer neurritz neurturen baituzue, neurturen zaizue, eta emendaturen zaizue, zuei enzuten duzuenoi.

25 Ezen duenari, emanen zaio: eta deusik eztuenari, duena ere edekiren zaio.

26 Gehiago erraiten zuen, lainkoaren resuma da, gizon hazia lurrera egotzirik gau eta egun lotzaten eta iaikiten lizaten baten anzora.

27 Eta hazia ilkiten eta hatzen lizen, hark ezlakiala nola,

28 Ezen bere buruz lurrak fruktu ekarten du, behin belhar, gero buru, gero ogi bihi bethea buruan.

29 Eta agertu denean fruktua, bertan *gizonak* du ezarten igiteia: zeren prest baita uzta.

30 Gero zioen, Zer irudi duela erranen dugu lainkoaren resumak? edo zer konparazionez konparaturen dugu hura?

31 *Hura da* mustarda hazi bihi bat bezala, zein lurrean ereiten denean, baita lurrean diraden hazi guzietako xipiena:

32 Baina erein den ondoan, goratzen da, eta berze belhar guzietako handiena egiten da: eta

adar handiak egiten ditu *hala* non zeruko xoriek ohatzeak egin ahal baititzakeizte haren itzalean.

33 Eta anhitz hunelako konparationez traktatzen zerauen hitza, enzun ahal ziroitenaren araura.

34 Eta konparatione gabe etzaien minzaten: baina apartean bere diszipunuei deklaritzen zerauzten gauza guziak.

35 Eta erran ziezen egun hartan, arrastu zenean, Iragan gaitezen *uraren* berze aldera.

36 Eta populua utzirik har zezaten hura unzian zen bezala: baina berze unxitxoak ere baziraden harekin.

37 Orduan altxa zedin haize buhunba handi bat, eta bagak sartzen ziraden unzira, *hala* non ia bethatzen baitzen.

38 Eta hura unziaren gibleko aldean zetzan lo bururdi baten gainean: orduan iratzartzen dute, eta diotsate, Majistrua, eztuk ansiarik zeren galduak goazen?

39 Eta iratzarri zenean mehatxa zezan haizea, eta erran ziezon itsasoari, Ixil adi, eta geldi adi. Orduan zesa zedin haizea, eta trankilitate handi egin zedin.

40 Eta erran ziezen Zergatik zarete horrela izior? nola eztuzue federik?

41 Eta izi zitezen izidura handiz: eta erraiten zuten elkarren artean, Baina nor da haur, hai-zeak eta itsasoak, ere obeditzen baitute?

KAP. V.

*2 Demoniatua sendatzen. 7
Deabruak Krist ezagutzen 9
Lejionea. 13 Deabruak
permissionerekin urdetara sartzen. 25
Odol iariatzez eri zen emaztea. 26
Haren dispendio medikuetan egina.
34 Haren fedea. 39 Lo datzala
erraiten hil denaz. 41 Iairusen alaba
resusztatzen.*

1 Eta ethor zitezen itsasoaren berze aldera, Gadarenoen komarkara.

2 Eta ilki zenean unzitik, bertan aitzinera ethor zekion thunbetarik espiritu satsua zuen gizon bat:

3 Zeinek *bere* egoitea baitzuen thunbetan, eta kadenaz ere nehork ezin esteka ziroen.

4 Zeren anhitzetan zepoz eta kadenaz estekatu izan zenean hauts baitzitzan kadenak, eta zathika zepoak: eta nehork ezin zeba zezakeen.

5 Eta bethiere egun eta gau mendietan eta thunbetan zen oihuz zegoela, eta bere buruari harriz zeraunsala.

6 Eta ikusi zuenean Iesus urrundarik, laster egin zezan eta gur zekion:

7 Eta oihuz boz goraz erran zezan, Zer da hire eta ene artean, Iesus lainko subiranoaren Semea? adiuratzen aut lainkoaren *partez* eznezan tormenta.

8 (Ezen erraiten zeraukan, Ilki adi espiritu satsua, gizon horrenganik)

9 Orduan interroga zezan hura, Nola *da* hire izena? Eta ihardets zezan, zioela, Lejio *diat* izen: ezen anhitz gaituk.

10 Eta othoitz handi egiten zeraukan, ezlitzan igor komarka hartarik kanpora.

11 Eta zen han mendi aldean urdalde handi bat alha zenik.

12 Eta othoitz egin ziezoten deabru *hek* guziek, zioitela, Igor gaitzak urdetara, hetara sar gaitezenezat.

13 Eta permeti ziezen bertan lesusek. Eta ilkirik espiritu satsuak lar zitezzen urdetara, eta oldar zedin urdaldea gainetik behera itsasora (eta baziraden bi millaren ingurua) eta itho zitezzen itsasoan.

14 Eta urdeak bazkatzen zituztenek ihes egin zezaten, eta ekar zitzaten berriak hirira eta kanpokoetara: Orduan ilki zitezzen ikustera zer egin izan zen.

15 Eta ethorten dirade Iesusgana, eta ikusten dute demoniatu izan zena iarririk eta beztiturik eta zenzaturik, lejionea ukan zuena *diot*: eta izi zitezzen.

16 Eta *haur* ikusi zutenek erran ziezen haei, nola demoniatuari heldu izan zaion, eta urdez.

17 Orduan *hek* has zekizkion othoitz egiten parti ledin haien komarketarik.

18 Eta hura sarthu zenean unzira, othoiztez zaion demoniatu izan zena harekin lizen.

19 Baina lesusek etziezon permeti, aitzitik erran ziezon, Habil eure etxerat euretara, eta

konta iezek zein gauza handiak launak egin drauzkian, eta *nola* hizaz pietate ukan duen.

20 Ioan zedin bada, eta has zedin predikatzan Dekapolisen zein gauza handiak egin zerautzan Iesusek: eta guziek miresten zuten.

21 Eta iragan zenean Iesus unzian berriz berze aldera, populu handi bil zedin harengana, eta zen itsas bazterrean.

22 Eta huna, ethor zedin sinagogako prinzipal lairus deitzen zenbat, eta ikusi zuenean hura, egotz zezan bere burua haren oinetara.

23 Eta othoitz handi egiten zeraukan, zioela, Ene alabatxoa hurrenean duk: *othoitz egiten drauat*, ethor adin, eta ezar ditzan eskuak haren gainean, senda dadinzat eta bizi den.

24 Eta ioan zedin *Iesus* harekin, eta populu handi zarreion, eta hertsen zuten.

25 Eta emazte bat zen odol iariatzea hamabi urthe *hetan* zuenik:

26 Eta anhitz sufritu ukan zuen anhitz medikutarik, eta berea guzia despendatu zuen, eta etzen deus probetxatu, baina gaizkoatuago izan zen.

27 *Hura* lesusez minzitzen enzunik, ethor zedin jendetzean gibeletik, eta hunki zezan haren arropa.

28 Ezen erraiten zuen, Baldin haren abillamenduak hunki baditzat ber, sendaturen naiz

29 Eta bertan agor zedin haren odol ithurria: eta sendi zezan *bere* gorputzean sendatu zela plaga hartarik.

30 Eta bertan lesusek bere baithan ezaguturik harenganik ilki izan zen berthutea, itzulirik jendetzean, erran zezan, Nork hunki ditu ene abillamenduak?

31 Eta erran ziezoten bere diszipunuek, Bada-kusak jendetzeak hertsen auela, eta diok, Nork hunki nau?

32 Eta inguru behatzen zuen, haur egin zuena ikus lezanzat.

33 Eta emaztea beldurrik eta ikararik, nola baitzakian *hura* baithan egin izan zena, ethor zedin, eta egotz zezan bere burua haren aitzinera, eta erran ziezon egia guzia.

34 Eta hark erran ziezon, Alaba, eure fedea salbatu au, habil bakerekin, eta aizen sendo eure plagatik.

35 Oraino hura minzo zela ethor zitezen *batzu* sinagogako prinzipalarenetik, zioitela, Hire alaba hil duk, zergatik fatigatzen duk Majistrua?

36 Eta lesusek erraiten zen hitz haur enzun zuen bezain sarri, diotsa sinagogako prinzipalari, Eztuala beldurrik, sinhetsak solament.

37 Eta etzezan permeti nehor iarreiki lekion Pierris, eta lakes, eta loanes lakesen anaiea bai-zen.

38 Gero ethor zedin sinagogako prinzipalaren etxera, eta ikus zitzan tumultoa, eta nigarrez zeudenak, eta dolu handi ekarten zutenak.

39 Eta sarthurik dioste, Zergatik tormenta-tzen zarete, eta nigarrez zaudete? neskatxa ezta hil, baina lo datza.

40 Eta irriz zeuden harzaz: baina hark guziak idokirik kanpora, har zitzan neskatxaren aita eta ama, eta harekin ziradenak, eta sartzen da neskatxa zetzan lekura.

41 Eta harturik neskatxaren eskua, diotsa, Talitha-kumi: erran nahi baita, Neskatxa (hiri diosnat) iaiki adi.

42 Eta bertan iaiki zedin neskaxa, eta bazabilan: ezen hamabi urthetakoa zen: eta espantamendu handiz espanta zitezzen.

43 Eta hagitz manatu ukan ditu, nehork haur ezlakian: eta erran zezan iatera neskaxari eman lekion.

KAP. VI.

2 Krist bere herrian ez rezebitzen. 3 Baina harzaz dirade eskandalizatzen. 6 Nazarenoen inkredulitatea. 7 Apostoluak igorten. 12 Emendamendua. 13 Oliostatzea. 17 Ioanes presoner egin. Herodias. 20 Herodes Ioanesen beldur. 27 Ioanesi burua edeki. 29 Haren gorputza ohortze. 30 Apostoluak predikatzetik itzuli. 35 Borz ogiezkoko mirakulua. 48 Apostoluen itsasoko tormenta. 49 Fantosma. 50 Fedea. 56 Eriak sendatu.

1 Gero parti zedin handik, eta ethor zedin bere herrira, eta bazarreitzan bere diszipuluak.

2 Eta ethorri zenean Sabbathoa, has zedin sinagogan irakasten, eta enzuten zutenetarik anhitzek miresten zuten, zioitela, Nondik huni gauza hauk? eta zerik da huni eman izan zaion sapientia haur, eta are hunelako berthuteak hunen eskuz egiten baitirade?

3 Ezta haur xarpanter? Mariaren seme, lake-sen eta losesen eta ludaren eta Simonen anaie? eztirade hunen arrebak ere hemen gu baithan? Eta eskandalizatzen ziraden hartan.

4 Eta erraiten zerauen lesusek, Ezta Profeta bat desohoratzen bere herrian, eta ahaiden artean, eta bere etxean baizen.

5 Eta ezin egin zuen han berthuterik batre, zenbeit eri bakoitz, eskuak haien gainean ezarri-rik, senda baitzitzan baizen.

6 Eta miraz zegoen haiek inkredulitateagatik, eta inguratzen zituen burguak inguru, irakasten ari zela.

7 Orduan dei zitzan hamabiak, eta has zedin haien igorten bira: eta eman ziezen bothere espiritu satsuen gainean.

8 Eta mana zitzan ezlezaten deus har bideko-tzat, makila hutsa baizen: ez maletarik, ez ogirik, ez dirurik gerrikoan.

9 Baina sandaleak iaunziak lituzten eta bira arropaz ezlitezen bezi.

10 Eta erraiten zerauen, Non ere sarthuren baitzarete etxe batetarra, zaudete han handik ilki arterano.

11 Eta nork ere rezebituren ezpaitzaituzte, eta zuek ez enzunen, handik partitzean, iharros ezazue zuen oinen azpiko erhautsa, testimonia-jetan haien kontra. Egiaz diotsuet, emekiago traktatuak izanen diradela Sodomakoak eta Gomorhakoak iudizioko egunean, ezen ez hiri hura.

12 Eta *hek* partiturik predikatzen zuten *bat-bedera* emenda ledin.

13 Eta deabru anhitz kanpora egoizten zuten: eta unktatzen zuten olio z anhitz eri, eta sendatzen zituzten.

14 Eta enzun zezan rege Herodesek minzatzan (ezen haren izena zen famatua) eta erran zezan, loanes batheiatzen ari zena, resuszitatatu

izan da hiletarik, eta halakotz berthutek obratzen dute hartan.

15 Berzek zioiten, Elias da: Eta berzek zioiten, Profetada, edo Profetetarik bat bezalako.

16 Bada *hori* enzunik Herodesek dio, Haur da loanes nik burua edeki draukadana, hura resusizatu da hiletarik.

17 Ezen Herodes hunek jende igorririk harzezan loanes, eta esteka zezan presoindegian, Herodias bere anaie Filiperen emaztearen kausaz, zeren hura emazte hartu baitzuen.

18 Ezen erraiten zeraukan loanesek Herodesi, Eztuk sori euri anaieren emaztea duan.

19 Halakotz Herodias aiher zaion, eta hil erazi nahi zuen, baina ezin zezakeen.

20 Ezen Herodes beldur zaion loanesi, ezaguririk ezen hura *zela* gizon iustoa eta saindua, eta ohore ekarten zeraukan: eta hura enzunik anhitz gauza egiten zuen, eta gogotik hura enzuten zuen.

21 Bada egun karazkoa ethorri zenean, Herodesek bere sor eguneko banketa egiten zeraueanean prinziei eta kapitainei eta Galileako prinzipalei:

22 Eta sarthurik Herodiasen alaba danzatu zenean, eta Herodesi eta harekin mahainean iarririk zeudenei atsegina egin zerauenean, Regek diotsa neskatxari, Eska akit zer ere nahi baitun, eta emanen draunat.

23 Eta zin egin ziezona: Eskaturen aitzaitadan guzia emanen draunat, neure resumaren erdira no.

24 Eta hark ilkirik erran ziezona bere amari, Zer eskaturen naiz? Eta hark erran zezan, loanes Baptistaren buruaren.

25 Eta bertan sarthurik afektionatuki Regegana, eska zekion, zioela, Nahi diat orain bertan eman diezadan platean loanes Baptistaren burua.

26 Eta Regek hagitz tristeturik, zinagatik eta harekin mahainean iarririk zeudenakgatik, eztu iraitzi nahi ukan.

27 Eta bertan Regek, igorririk borreroa, mana zezan ekar ledin haren burua: hark bada ioanik edeki ziezona burua presoindegian.

28 Eta ekar zezan haren burua platean, eta eman ziezona hura neskatxari, eta neskak eman ziezona bere amari.

29 Eta *hori* enzunik haren diszipuluak ethor zitezen, eta eraman zezaten haren gorputza, eta ezar zezaten thunban.

30 Eta bil zitezen Apostoluak Iesusgana, eta konta ziezoten egin eta irakatsi zuten guzia.

31 Eta erran ziezen, Zatozte zeurok apart leku desertu batetara, eta reposa zaitezte guti bat: ezen anhitz ziraden ethorten eta ioaiten ziradenak: eta iateko aizinarik ere etzuten.

32 Ioan zitezen bada leku desertu batetara unzian apart:

33 Baina ikus zitzan populuak ioaiten, eta ezagut zezaten hura anhitzek: eta oinez hiri guzietarik laster egin zezaten hara, eta aitzin zekizten haei, eta bil zitezen harengana.

34 Orduan ilkirik ikus zezan jendetze handia Iesusek, eta konpasionerik har zezan hezaz: ezen ardi artzain gabeak bezala ziraden: eta has zekien anhitz gauzaren irakasten.

35 Eta nola ia berandua baitzen, ethorri izan zaizkan bere diszipuluak, erraiten zutela, Desertu duk leku haur, eta ia berandua duk:

36 Eiek konjit, inguruko herrietarat eta burguetarat ioanik, beren ogi eros dezatenzat: ezen zer ian dezaten eztie.

37 Eta hark ihardesten zuela erran ziezen, Eiezue zuek iatera. Orduan diotsate, *Ala* ioanik erosiren dugu ber-ehun dineroren ogia, eta emanen drauegu iatera?

38 Eta hark dioste, Zenbat ogi dituzue? zoazte eta ikar ezazue. Eta iakin dutenean dioite, Borz, eta bi arrain.

39 Orduan mana zitzan, iar erazi litzaten guziak mahaintaraz belhar ferde gainean.

40 Eta iar zitezen arenkaz, ehuna, eta berrogei eta hamarna.

41 Eta borz ogiak eta bi arrainak hartu zitue-nean, begiak zerurat altxaturik, gratiak renda zitzan, eta hauts zitzan ogiak: eta eman zietzen bere diszipunuei, haei aitzinera ezar lietzenzat: eta bi arrainak parti zietzen guziei.

42 Eta ian zezaten guziek, eta resasia zitezzen.

43 Eta goiti zezaten zathietarik hamabi saskitara, eta arrainetarik *zerbait*.

44 Eta ian zutenak ziraden borz milla gizonen ingurua.

45 Gero bertan bere diszipuluak sar erazi zitzan unzira, eta aitzinean ioan erazi *itsasoaren* berze aldera Bethsaida alderat, berak populuari konjit lemon bizkitartean.

46 Eta hek igorri zituenean, mendira ioan zedin othoitz egitera.

47 Eta arrastu zenean, unzia zen itsasoaren erdian, eta hura bera leihorrean.

48 Eta ikus zezan pena zutela, aurrhikiten: (ezen haize-kontra zuten) eta gauaren laurgarren beilla irian ethor zedin hetara, itsas gainez zabilala: eta nahi zituen hek iragan.

49 Baina hek hura ikusirik itsas gainez zabilala, uste zuten fantosma bat zela: eta oihu egin zezaten,

50 Ezen guziek ikusten zuten hura, eta trublazitezen: baina bertan minza zekien, eta erranziezen, Esporza zaitezte, ni naiz, etzaretela beldur.

51 Orduan igan zedin hetara unzira: eta sosegaz zedin haizea: non are tinketz espantago baitzitezen berak baithan, eta mirets zezaten.

52 Ezen etzuten aditu ogiez *egin izan zena*: zeren haien bihotza gogortua baitzen.

53 Eta berze aldera iragan ziradenean, ethor zitezen Jenesarethko lurrera, eta portu har zezaten.

54 Eta unzitik ilki ziradenean, bertan ezagut zezaten hura.

55 Eta laster egin zutenean inguruko komarka hura guzia, has zitezen ohetan erien ekarten, non zela hura enzuten baitzuten, *hara*.

56 Eta nora ere sar baitzedin burguetara, edo hirietara, edo parropioetara, plazetan ezarten zituzten eriak, eta othoitz egiten zeraukaten haren arropa ezpaina berere hunki lezaten: eta hunkitzen zuten guziak sendatzen ziraden.

KAP. VII.

*2 Eskuak ikuzi gaberik iatea. 4, 8
Gizonen manamenduak eta doktrina.*

*10 Aitametaratko eginbidea. 15
Nehor satsutzen duten gauzak zein.
21 Bihotzetik heldu diraden gauzak.*

25 Kananea. 27 Haurren ogia. 32
Gor eta mothel zena sendatu. 36
Jesus laudatu eta magnifikatu.

1 Orduan bil zitezen harengana Fariseuak, eta Ierusalemetik ethorri izan ziraden Eskriba batzu.

2 Eta *hek* ikusi zutenean haren diszipulueta-rik batzuk esku komunez (erran nahi baita, ikuzi gabez) iaten zutela ogia, arrangura zitezen.

3 Ezen Fariseuek eta ludu guziek, maiz eskuak ikuzirik baizen, eztute iaten, aitzinekoen ordenanzak edukiten dituztela.

4 Eta merkatutik *itzultzzen*, *diradenean*, ikuziak ezpadirade, eztute iaten. Anhitz berze gauzarik ere bada begiratzeko hartu dutenik, nola baitirade goporren ikutzeak, eta kubenak, eta kobrezko unzienak, eta ohenak.

5 Gero interrogatzen dute Fariseuek eta Eskribek, Zergatik hire diszipuluak eztabiltza aitzinekoen ordenanzen araura, baina eskuak ikuzi gabe iaten dute ogia?

6 Baina hark ihardesten zuela erran ziezen, Segurki ungi profetizatu ukan du Esaiasek zue-

zaz hipokritoz, eskribatua den bezala, Populu hunek ezpainez ohoratzen nau, baina haien bihotza urrun da eneganik.

7 Baina alferretan zerbitzatzan naute, irakasten dituztela doktrinatzat gizonen manamenduak.

8 Ezen lainkoaren manamendua utzirik, gizonen ordenanza edukiten duzue, *hala nola*, kuben eta goporren ikutzeak: eta hunelako berze gauzarik anhitz egiten duzue.

9 Erraiten zerauen halaber, Ungi *nonbait* iraitzen duzue lainkoaren manamendua, zuen ordenanza begira dezakuenzat.

10 Ezen Moisesek erran du, Ohoraitzak eure aita eta eure ama: eta, Aita edo ama maradikaturen duena, herioz hil bedi.

11 Baina zuek diozue, Baldin norbeitek aitari edo amari baderro, Eneganik *izanen den* korbana (erran nahi baita donoa) probetxaturen zaik, *hogen gabe date hura*.

12 Eta eztuzue permetitzen hark deus gehiagorik egin diezon bere aitari edo bere amari:

13 Ezdeusten duzuela lainkoaren hitza *zeurok* ordenatu duzuen ordenanzaz: eta hunelako berze gauzarik anhitz egiten duzue.

14 Gero deithurik populu guzia beregana, erran ziezen, Beha zakizkidate guziak, eta adi ezazue.

15 Ezta deus gizonaren kanpotik, hura baithan sartzen denik, hura satsu ahal dezakenik: baina harenganik ilkiten diraden gauzak dirade, gizona satsutzen dutenak.

16 Nehork enzuteko beharririk badu enzun beza.

17 Gero etxean sarthu zenean populutik *retiraturik* interroga zezaten bere diszipunuek konparationeaz.

18 Eta dioste, Horrela zuek ere adimendu gabe zarete? Eztuzue aditzen, ezen kanpotik gizona baithan sartzen diradenetarik deusek, ezin hura satsu dezakela?

19 Ezen ezta sartzen haren bihotzera, baina sabelera, eta ilkiten da kanpora retreitera, xahutzen dituela bianda guziak.

20 Ziosten bada, Gizonaganik ilkiten dena da, gizona satsutzen duena.

21 Ezen barnetik, gizonen bihotzetik ilkiten dirade pensamendu gaixtoak, adulterioak, pailardizak, hiltzekak,

22 Ohoinkeriak, abaritiak, gaixtakeriak, enganioa, insolentia, bekaizteria, gaitzerraitea, superbia, erhotasuna:

23 Gaixtakeria hauk guziak barnetik ilkiten dirade, eta satsutzen dute gizona.

24 Eta handik iaikirik ioan zedin Tireko eta Sidongo komarketarat: eta etxe batetan sarthurik, etzuen nahi nehork iakin lezan: baina ezin estali izan da.

25 Ezen harzaz enzunik emazte batek, zeinen alabatxoak baitzuen espiritu satsua, ethorririk egotz zezan bere burua haren oinetara,

26 (Eta emaztea zen Grek, nationez Sirofeni-siana) eta othoitz egiten zeraukan kanpora egotz lezan deabrua haren alabaganik.

27 Eta lesusek erran ziezon, Utzan behin haurrak resasia ditezen: ezen eztun gauza bidezkoa haurren ogiaren hartzea, eta xakurrei egoiztea.

28 Eta hark ihardets zezan, eta erran ziezon, Hala duk launa: badarik ere xakurrek iaten die mahain azpian haurren apurretarik.

29 Orduan erran ziezon, Hitz horrengatik oha, ilki dun deabrua hire alabaganik.

30 Eta ioan izan zenean bere etxera, eriden zezan deabrua ilki zela, eta alaba ohe gainean zetzala.

31 Gero partiturik Tireko eta Sidongo koarterarik, ethor zedin Galileako itsasora, Dekapolisko komarken arteaz.

32 Orduan presentatzen draukate gor nekez minzo zenbat, eta othoitz egiten eskua gainean ezar liezon.

33 Eta hura jendetzetik apart harturik, ezar zitzan bere erhiak haren beharrietan: eta thu eginik, hunki zezan haren mihia.

34 Gero zerurat begiak altxaturik suspirio egin zezan, eta erran ziezon Effata, erran nahi baita, Ireki adi.

35 Eta bertan ireki zitezen haren beharriak, eta laxa zedin haren mihiko etxekidura, eta minzo zen klaroki.

36 Eta mana zitzan nehori ezlerroten: baina zenbat ere hark defenda baitziezen, ungiz gehiago publikatzen zuten.

37 Eta guziz mirakulu esten zuten, zioitela, Ungi gauza guziak egin ditu: gorrei enzun eraziten draue, eta mutuak minza eraziten ditu.

KAP. VIII.

5 Zazpi ogiezeko mirakulua. 11 Fariseuak signo eskez egon. 15 Fariseuen eta Herodianoen altxagarria. 22 Itsua sendatzen. 27 Kristezko reputationea. 29 Iesus dela Krist. 31 Kristek bere pasionea aitzinetik deklaritzen. 33 Pierris Satan deitzen. 34 Kristi iarreikitea, Krutzearen ekartea. 35 Biziaren salbatzea eta galtzea. 38 Kristez ahalke izatea.

1 Egun hetan, guzizko jendetze handia zen bekala, eta ezpaitzuten zer ian lezaten, dei zitzan beregana Iesussek bere diszipuluak, eta erran ziezen,

2 Konpasione dut populua: ezen ia hirur egun du enekin daudela, eta eztute zer ian deza- ten.

3 Eta baldin igor baditzat barurik *zein* bere etxerat, flakaturen dirade bidean: ezen horietar- rik batzu urrundarik ethorri izan dirade.

4 Eta ihardets ziezoten bere diszipuluek, Nondik hauk hemen nehork resasia ahal litzake ogiz desertuan?

5 Eta interroga zitzan, Zenbat ogi dituzue? Eta hek erran zezaten, Zazpi.

6 Orduan mana zezan populua iar ledin lurrean: eta harturik zazpi ogiak, gratiak rendatu eta, hauts zitzan, eta eman zietzen bere diszipu- luei, presenta litzatenzat: eta presentatu zituz- ten populuaren aitzinean.

7 Bazituzten halaber arrain guti batzu, eta gratiak rendaturik, erran zezan hek ere presenta litzaten.

8 Ian zezaten bada, eta resasia zitezen: eta altxa zitzaten zathi soberatuetarik zazpi saskita- ra.

9 Eta ian zutenak ziraden laur millaren ingu- rua, gero eman ziezen konjit.

10 Eta bertan unzira sarthurik bere diszipuluekin, ethor zedin Dalmanutha bazterretara.

11 Eta ethor zitezen Fariseuak, eta has zitezen harekin ihardukiten, hari zenbeit signoren zerutik galdez kaizkala, hura tentatzen zutela.

12 Orduan barnadanik bere espirituan suspirio eginik, erran zezan, Zergatik jeneratione haur signo galdez dago? egiaz diotsuet jeneratione huni signorik etzaiola emanen.

13 Eta hek utzirik, unzian berriz sarthurik iragan zedin berze aldera.

14 Eta ogi hartzera *diszipuluei* ahanz zekien: eta ogi bat baizen etzuten berekin unzian.

15 Eta mana zitzan, zioela, Gogoauzue eta begira zaitetze Fariseuen altxagarritik, eta Herodesen altxagarritik.

16 Eta bazihardukaten elkarren kontra, zioitela, Zeren ogirik eztugun *da hori*.

17 Eta *hori* ezagutu zuenean lesusek, erran ziezen, Zer dihardukazue, zeren ogirik eztuzuen? oraino eztuzue konsideratzen ez aditzen? oraino gogortua duzue zuen bihotza.

18 Begiak dituzuelarik, eztakusazue? eta beharriak dituzuelarik, eztanzuzue? eta etzarete orhoit?

19 Borz ogiak hautsi nerauztenean borz milla *gizonei* zenbat saski zathiz beterik altxatu zentuzten? Diotsate, Hamabi.

20 Eta zazpiak laur milla *gizonei hautsi nerauztenean* zenbat saski zathiz betherik altxatu zentuzten? Eta hek erran ziezoten, Zazpi.

21 Eta erran ziezen, Nola eztuzue aditzen?

22 Eta ethor zedin Bethsaidara: eta presenta ziezoten itsu bat, eta othoitz zegioten, hura hunki lezan.

23 Orduan itsuaren eskua harturik, eraman zezan burgutik kanpora: eta haren begietara thu eginik, eta eskuak haren gainean ezarririk, interroga zezan, deus balakusanez.

24 Eta *hark* begiak altxaturik erran zezan, Badiakuskiat gizonak, ezen ohartzen nitziaiek arboreak diruditela dabilzala.

25 Gero berriz ezar zitzan eskuak haren begien gainean, eta *berriz* goiti beha erazi ziezon: eta senda zedin, eta ikusten zituen urrundantik ere klaroki guziak.

26 Orduan *Iesusek* igor zezan hura bere etxerat, zioela, Ezadila burgura sar, eta nehoi ezterroala burguan.

27 Eta Iesus eta haren diszipuluak *handik* ilkirik ethor zitezen Filiperen Zesarea *deitzen* deneko burguetara: eta bidean interroga zitza bere diszipuluak, zioetela, Nor naizela ni dioite gizonak?

28 Eta hek ihardets zezaten, Ioanes Baptista, eta berzek Elias, eta berzek Profetetarik bat.

29 Orduan hark dioste, Eta zuek ni nor naizela diozue? Eta ihardesten duela Pierrisek diotsa, Hi aiz Krist.

30 Orduan debeta zitza mehatxurekin nehoi *hura* ezlerroten harzaz.

31 Eta has zedin haien irakasten, ezen behar zela gizonaren Semeak anhitz sufri lezan, eta reprobata ledin Anzianoez, eta Sakrifikadore prinzipalez, eta Eskribez, eta hil ledin, eta hereneko egunean resuszita ledin.

32 Eta klaroki propos hunez minzaten zen. Orduan aparta zezan Pierrisek, eta has zekion reprotxatzen.

33 Eta hark itzulirik, eta bere diszipuluetarat behaturik reprotxa zezan Pierris, zioela, Gibeletarat adi eneganik Satan: ezen eztituk aditzen lainkoaren diraden gauzak, baina gizonen *diradenak*.

34 Gero populua beregana deithurik bere diszipuluekin, erran ziezen, Nork ere nahi baitu ene ondoan ethorri, renuntia beza bere buruaz, eta har beza bere krutzea, eta berrait niri.

35 Ezen nork ere nahi ukanen baitu bere bizia salbatu, galduren du hura: baina nork ere galduren baitu bere bizia enegatik eta Ebanjelio-gatik, salbaturen du hura.

36 Ezen zer probetxu du gizonak, baldin mundu guzia irabaz badeza, eta bere arima gal badeza?

37 Edo zer emanen du gizonak bere arimaren rekompensamendutan?

38 Ezen nork ere ahalke izanen baita nizaz eta ene hitzez jeneratione adultera eta bekatore hunetan, gizonaren Semea ere ahalke izanen da harzaz, dathorreanean bere Aitaren glorian Aingeru sainduekin.

KAP. IX.

2 Kristek transfiguratzen. 7 Hari behatzera hodeietik manatzen. 11 Elias, Ioanes Baptista. 17 Demoniatua. 23 Sinhestea. 29 Othoitza eta barura. 31 Kristek bere pasionea aitzinetik erraiten. 36 Haur bat besoetara hartzen. 41 Kristen izenean emaita. 43, 45, 47 Eskandalizatzen duen eskuaz, oinaz eta begiaz. 44 Hiltzen ezten harraz. 50 Bakez izateko.

1 Erraiten zerauen halaber, Egiaz erraiten drauzuet, ezen badiradela hemen present diradenotarik batzu, herioa dastaturen eztutenik, lainkoaren resuma bothererekin ethorririk dakuskeiteno.

2 Eta sei egunen buruan har zitzan Pierris, eta lakes eta ioanes, eta eraman zitzan mendi gora batetara apart hek berak, eta transfigura zedin haien aitzinean.

3 Eta haren abillamenduak argi zitezen, eta hagitz xurit elhurra bezala, halaka non bolazalek lurraren gainean ezin hain xuri egin bailezake.

4 Gero ager zekien Elies Moisesekin, eta minzo ziraden Iesusekin.

5 Orduan Pierrisek hitza harturik diotsa Iesu-si, Majistrua, on duk gu hemen garen: egin ditza-gun bada hirur tabernakle, bat hire, eta bat Moisesen, eta bat Eliasen.

6 Eta zer minzo zen etzakian: ezen izituak ziraden.

7 Eta egin zedin hodei bat hek estali zituenik: eta ethor zedin boz bat hodeietik, zioela, Haur da ene Seme maitea: huni beha zakizkiote.

8 Eta bertan inguru behaturik, etzezaten ikus nehor gehiagorik, Iesus bera baizen berekin

9 Eta hek menditik iausten ziradela, mana zitzan, nehuri ezlietzoten erran ikusi zituzten gauzak, gizonaren Semea hiletarik resuszitate lizenean baizen.

10 Eta *hek* erran haur eduki zezaten berak baithan, elkarri galde egiten zeraukatela, zer erran nahi zuen, hiletarik resuszitate hark.

11 Gero interroga zezaten, ziotela, Zergatik dioite Eskribek ezen Elias lehen ethorri behar dela?

12 Eta hark ihardesten zuela erran ziezen, Segur Eliasek lehen ethorri bere estaturako ditu gauza guziak: eta eskribatua den bezala gizonaren Semeaz, *behar da* anhitz sufri dezan, eta ezdeusetan eduki dadin.

13 Baina erraiten drauzuet ezen Elias ethorri izan dela, eta hari egin nahi zeraukaten guzia, egin draukatela, harzaz eskribatua den bezala.

14 Eta diszipuluetara ethorri, ikus zezan jendetze handi bat haien inguruan, eta Eskribek hekin zihardukatela.

15 Eta bertan jendetze guzia, hura ikusirik, espanta zedin: eta *harengana* laster eginez saluta zezaten.

16 Orduan interroga zitzan Eskriba hek, Zer dihardukazue zuen artean?

17 Eta ihardesten zuela jendetzekoetarik batek, erran zezan, Majistrua, ekarri diat neure semea hiregana, zeinek baitu espiritu mutu bat.

18 Eta non ere har baiteza, zathikatzen dik: eta orduan haguna diariok, eta garraskots bere

hortzez egiten dik, eta eiarthu dihoak: eta erran diraeat hire diszipuluei egotz lezaten kanpora, eta ezin egin die.

19 Eta hark ihardesten zuela erran zezan, O nazione sinheste gabea, noizdrano finean zuekin izanen naiz? noizdrano finean suportaturen zai-tuztet? ekarzue hura enegana.

20 Orduan ekar zezaten harengana: eta ikusi zuenean, bertan espirituak zathika zezan hura, eta lurrera eroririk iraulzkatzen zen haguna lario-la.

21 Orduan interroga zezan *iesusek* haren aita, Zenbat denbora du haur heldu zaiola? Eta hark diotsa, Haurra-danik.

22 Eta anhitzetan sura egotzi dik eta urera, desegin lezanzat: baina deus ahal badagik, hel akigu, guzaz konpasionen harturik.

23 Eta *iesusek* erran ziezon, Baldin hori sin-hets ahal badezak, gauza guziak dituk posible sinhesten duenaren.

24 Eta bertan haur aitak oihuz zegoela niga-rrekin erran zezan, Sinhesten diat, launa, hel akio ene inkredulitateari.

25 Eta ikusirik lesusek ezen populualasterka elkarganutzen zela, mehatxa zezan espiritu satsua, ziotsala, Espiritu mutua eta gorra, nik aut manatzen, Ilki adi horrenganik, eta gehiagorik ez adila sar hori baithan.

26 Eta *espiritu*a oihu eginik eta hura gaizki zathikaturik, ilki zedin: eta *haurra* hila bezalaka zedin, *hala* non anhitzek erraiten baitzuten ezen hil zela.

27 Baina lesusek haren eskua harturik, xuxent zezan hura, eta iaiki zedin.

28 Eta etxean sarthu zenean, bere diszipuluek interroga zezaten apart, Zergatik guk hura ezin kanpora egotzi dugu?

29 Eta erran ziezen, *Deabru* mota hura berzela ezin ilki daite orationez eta barurez baizen.

30 Eta handik ilkirik, elkarrekin zabiltzan Galilean gaindi: eta etzuen nahi nehork iakin lezan.

31 Ezen irakasten zituen bere diszipuluak, eta ziosten, Gizonaren Semea liuraturen da gizonen eskuetara, eta hilen dute: baina hilik, here-neko egunean resuszitaturen da.

32 Baina hek erran haur etzuten aditzen, eta beldur ziraden haren interrogatzera.

33 Eta ethor zedin Kapernaumera: eta etxera zenean, interroga zitzan, Zer bidean ihardukiten zenduten elkarren artean?

34 Eta hek ixil zitezen: ezen elkarren kontra iharduki zuten bidean, zein zen berzeak baino handiagoa.

35 Eta iarri zenean, dei zitzan hamabiak, eta erran ziezen, Baldin nehor lehen izan nahi bada, guzietako azkenen izanen da, eta guzien zerbitzari.

36 Eta haurtxo bat harturik ezar zezan haien artean, eta hura besoetara harturik, erran ziezen,

37 Nork ere hunelako haurtxoetarik bat rezebituren baitu ene izenean, ni rezebitzen nau: eta nork ere ni rezebitzen bainau, ez nau ni rezebitzen, baina ni igorri nauena.

38 Eta ihardets ziezon loanesek, ziola, Majistrua, ikusi diagu zenbeit hire izenean deabruak kanpora egoizten zituenik, zein ezpeitarreiku guri: eta debetatu diagu hura, zeren ezpeitarreiku guri.

39 Eta lesusek dio, Eztezazuela hura debeta: ezen ezta nehor ene izenean berthuterik egiten

duenik, eta bertan nizaz gaizki minza ahal daite-
nik.

40 Ezen gure kontra eztena, gure alde da.

41 Ezen nork ere edatera emanen baitrauzue
beire bat ur ene izenean, zeren Kristenak zare-
ten, egiaz diotsuet, eztuela galduren bere saria.

42 Eta nork ere eskandalizaturen baitu ni
baithan sinhesten duten xipi hautarik bat, hobe
luke errota harri bat haren lepoaren inguruan
ezar ledin, eta itsasora egotz ledin.

43 Eta baldin eure eskuak trebuka eraziten
bahau, trenka ezak hura: hobe duk hire, esku
bakoitzdun bizitzean sar adin, ezen ez bi eskuak
dituala: gehennara ioan adin, behin ere iraungi-
ten ezten sura.

44 Non haien harra ezpaita hiltzen, eta sua
ez iraungiten.

45 Eta baldin eure oinak trebuka eraziten,
bahau, trenka ezak hura, hobe duk hire, maingu-
rik bizitzean sar adin, ezen ez bi oinak dituala
gehennara egotz adin, behin ere iraungiten
ezten sura.

46 Non haien harra ezpaita hiltzen, eta sua
ez iraungiten.

47 Eta baldin eure begiak trebuka eraziten
bahau, idokak hura, hobe duk hire, begi bakoitz-
dun lainkoaren resuman sar adin, ezen ez bi
begiak dituala suko gehennara egotz adin:

48 Non haien harra ezpaita hiltzen, eta sua
ez iraungiten.

49 Ezen batbedera suz gazituren da: eta
sakrifizio guzia gatzez gazituren da.

50 Gauza ona da gatza, baina baldin gatza
gezat badadi zerzaz hura gazituren duzue?
Auzue zeurok baithan gatz, eta bake auzue elka-
rren artean.

KAP. X.

*2 Senhar emazten separationenez. 13
Kristi presentatu izan zaizkan
haurrez. 16 Eskuen inpositionez. 21
Kristi iarreikitez. 33 Kristek
aitzinetik deklaritzen nola hil behar
den. 35 Zebedeoren semen rekesta.
45 Krist gure ministre. 46 Itsua
argitu.*

1 Gero handik partiturik, ethor zedinludeako aldirietara Iordanaren berze aldeaz: eta berriz jendetze bil zedin harengana: eta ohi bezala berriz irakasten zituen.

2 Orduan ethoririk Fariseuek interroga zezaten tentatzen zutela, Sori da gizonak bere emaztea utzi dezan?

3 Baina hark ihardesten zuela erran zezan, Zer manatu drauzue Moisesek?

4 Eta hek erran zezaten, Moisesek permetitu dik separationeko letraren eskribatzera, eta *emaztearen* utzitera.

5 Eta ihardiesten zuela lesusek erran ziezen, Zuen bihotzeko gogortasunagatik eskribatu drauzue manamendu hori.

6 Baina kreatione hatsetik, arra eta emea egin zituen lainkoak.

7 Hunegatik, utziren ditu gizonak bere aita eta ama, eta iunktaturen zaio bere emazteari.

8 Eta biak izanen dirade haragi bat. Beraz gehiagorik eztirade biga, baina haragi bat.

9 Bada lainkoak iunktatu duena gizonak eztezala separa.

10 Eta etxean berriz diszipuluek gauza har-
raz beraz interroga zezaten.

11 Eta *hark* erran ziezen, Nork ere utziren
baitu bere emaztea, eta berze bat emazte hartu-
ren, adulterio iaukiten du haren kontra.

12 Eta baldin emazteak utzi badeza bere sen-
harra, eta berze batekin ezkon badadi, adulterio
iaukiten du.

13 Orduan presenta zietzoten haurtxo *batzu*,
hek hunki litzanzat: baina diszipuluek mehatxa-
tzen zituzten, hek presentatzen zituztenak.

14 Eta hori ikus zezanean lesusek, faska
zedin eta erran ziezen, utzitzazue haurtxoak
enegana ethortera, eta eztitzazuela enpatxa:
ezen horlakoan da lainkoaren resuma.

15 Egiaz erraiten drauzuet, nork ere ezpaitu
rezebituren lainkoaren resuma haurtxo anzo,
ezta hartan sarthuren.

16 Eta hek besoetara harturik, eskuak haien
gainean ezarririk, benedika zitzan.

17 Eta hura ilkiten zela bideari *lekionzat*, nor-
beitek harengana laster eginik, eta haren aitzin-
ean belhaurikaturik, interroga zezan, Majistru

ona, zer eginen dut bizitze eternala hereta deza-danzat?

18 Eta lesusek erran ziezon, Zergatik deitzen nauk on? eztuk nehor onik bat baizen, *eta hura*, lainkoa.

19 Manamenduak badakizkik, Eztezala adultera, Eztezala hil, Eztezala ebats, Eztezala testimoniaje falsurik erran, Damurik eztagioala *nehori*, Ohoraitzak eure aita eta ama:

20 Eta hark ihardesten zuela erran ziezon, Majistrua, horiak guziak begiratu zitiat neure gaztetasunetik.

21 Eta lesusek harenganat behaturik, onhets zezan, eta erran ziezon, Gauza baten peitu aiz, habil, dituanak sal itzak, eta eman ietzek paubrei: eta ukanen duk thesaur bat zeruan: eta athor, arreit niri, krutzea harturik.

22 Eta hura faskaturik hitz hunez, ioan zedin tristerik: ezen on handiak zituen.

23 Orduan inguru behaturik lesusek dioste bere diszipuluei, O zein nekez onhasundunak, lainkoaren resuman sarthuren diraden!

24 Eta diszipuluak espanta zitezen hitz hauzaz. Baina lesusek berriz ihardesten zuela erran

zieren, Haurrak, zein gaitz den abastasunetan fida diradenak, lainkoaren resuman sar ditezen.

25 Erraxago da kable bat orratzaren zulhotik iragan dadin, ezen ez abratsa lainkoaren resuman sar dadin.

26 Baina hek are espantago zitezten, bere artean zioitela, Eta nor salba ahal daite?

27 Baina hetarat behaturik lesusek dio, Gizonak baithan inposible da, baina ez lainkoa baithan: ezen gauza guziak posible dirade lainkoa baithan.

28 Orduan Pierris has zedin hari erraiten, Huna, guk utzi zitiagu gauza guziak, eta iarreiki gaitzaizkik hiri.

29 Eta ihardesten duela lesusek dio. Egiaz diotsuet, nehor ezta utzi duenik etxea, edo anaieak, edo arrebak, edo aita, edo ama, edo emaztea, edo haurrak, edo landak, ene eta Ebanjelioaren amorekatik.

30 Rezebi eztezan orain denbora hunetan ehunetan hanbat, etxe eta anaie, eta arreba, eta ama, eta haur, eta landa, persekutionekin, eta sekula ethortekoan bizitze eternala.

31 Baina anhitz lehen *diradenak*, izanen dirade azken: eta azkenak lehen.

32 Eta ziraden bidean igaiten ziradela Ierusalemera: eta haien aitzinean ioiten zen Iesus, eta espantatzen ziraden, eta zarreitzola ziraden beldur. Eta harturik berriz hamabiak, has zekien ethorri behar zaizkan gauzen erraiten:

33 *Zioela*, huna, igaiten gara Ierusalemera: eta gizonaren Semea liuraturen da Sakrifikadore prinzipalen eta Eskriben eskuetara, eta hiltzera kondemnaturen dute, eta Jentilen eskuetarako dute:

34 Eta *hek* eskarniaturen dute hura, eta azotaturen, eta thu eginen draukate, eta hilen dute: baina hereneko egunean resusziaturen da.

35 Orduan ethorten dirade haregana lakes eta Ioanes Zebedeoren semeak, dioitela, Majistra, nahi gendikek zer ere eskaturen baikara, egin iezagun.

36 Eta hark erran ziezen, Zer nahi duzue dagizuedan?

37 Eta *hek* erran ziezoten, Eman iezaguk, bata hire eskuinean, eta berzea hire ezkerrean iar gaitezen hire glorian.

38 Eta lesusek erran ziezen, Eztakizue zeren eskez zaudeten: edan ahal dirozue nik edaten dudan kopa, eta ni batheiatzen naizen baptismoaz batheia ahal zaitezket?

39 Eta hek erran ziezoten, Bai. Eta lesusek erran ziezen, Nik edaten dudan kopa edanen baduzue, eta ni batheiatzen naizen baptismoaz batheiatzen bazarete:

40 Baina ene eskuinean edo ene ezkerrean iartea, ezta ene emaitako, baina *emanen zaie* preparatu izan zaienei.

41 Eta *hori* enzunik hamarrak has zitezzen faskatzen lakesez eta loanesez.

42 Baina lesusek hek beregana deithurik dioste Badakizue ezen nationen gainean seignoriatzea laket zaienek, haien gainean seignoriatzen dutela, eta haien artean handi diradenek autoritatez usatzen dutela haien gainean.

43 Baina ezta hala izanen zuen artean: aitzitik nor ere nahi izanen baita handiena izan zuen artean, izanen da zuen zerbitzari.

44 Eta nor ere nahi izanen baita zuen artean izan ehen, izanen da guzien zerbitzari.

45 Ezen gizonaren Semea ere ezta ethorri zerbitzatu izatera, baina zerbitzatzera, eta bere biziaren anhitzenegatik ranzoinetan emaitera.

46 Orduan ethorten dirade lerikora: eta hura lerikotik ilkiten zela, eta haren diszipuluak eta jendetze handia, Bartimeo Timeoren seme itsua zegoen iarririk, bide bazterrean, eskez:

47 Eta enzunik ezen Iesus Nazareno zela, has zedin oihu egiten eta erraiten, Iesus Dabid-en semea, auk pietate nizaz.

48 Eta mehatxatzen zuten anhitzek ixil ledin: baina hark ungiz oihu gehiago egiten zuen, Dabid-en semea, auk pietate nizaz.

49 Orduan Iesusek gelditurik, mana zezan, dei ledin. Eta dei zezaten itsua, ziotsatela, Esporza adi, iaiki adi: deitzen au.

50 Eta hura, bere mantoa egotzi zuenean, iai-kirik ethor zedin Iesusgana.

51 Eta ihardesten zuela erran ziezon Iesusek, Zer nahi duk dagiadan? Eta itsuak diotsa, Majis-trua, ikustea rezebi dezadan.

52 Eta Iesusek erran ziezon, Oha, eure fedea salbatu au. Eta bertan rezebi zezan ikustea, eta iairreikiten zaion Iesusi bidean.

KAP. XI.

1. 15 Kristek bere sartzea Ierusalemen egiten. 13 Fikotzea eihartzen. 15 Marxantak tenpletik iraitzen. 17 Etxe orationekoa. 22 Iainkoaren fedea, 24 nezesario orationean: 25 Othoitz egiterakoan barkatzeko. 28 Fariseuek Krist tentatzen. 30 Ioanesen baptismoa.

1 Eta Ierusalemera, Bethfaje eta Bethania Olibatzetako mendi aldekoetara hurbiltzen zira-denean, igor zitzan bere diszipuluetarik biga,

2 Eta erran ziezen, Zoazte zuen aurkan den burgura: eta hartan sarthuren zareten bezain sarri, eridenen duzue asto ume bat estekatua, nehor oraino gainean iarri izan etzaionik: laxaturik hura ekardazue.

3 Eta baldin nehork badarrazue, Zergatik hori egiten duzue? errazue ezen launak duela haren beharra: eta bertan hura igorriren du huna.

4 Parti zitezten bada, eta eriden zezaten asto umea estekaturik, bortha aldean kanpotik bi bideren artean: eta laxa zezaten hura.

5 Eta han zeudenetarik batzuk erran ziezen, Zer ari zarete, laxatzen baituzue asto-umea?

6 Eta hek erran ziezen, Iesusek manatu zituen bezala: eta ioaitera utzi zitzaten.

7 Eta ekar zezaten asto-umea Iesusgana, eta ezar zietzoten beren abillamenduak gainean, eta iar zedin haren gainean.

8 Eta anhitzek beren abillamenduak heda zitzaten bidean: eta berzek adarrak ebakiten zituzten arboretarik eta bidean hedatzen.

9 Eta aitzinean zioazenek, eta iarreikiten zira-denek, oihu egiten zuten, zioitela, Hosanna, benedikatu dela launaren izenean ethorten dena.

10 Benedikatu *dela* gure aita Dabid-en resuma launaren izenean ethorten dena: Hosanna leku gorenetan *aizena*.

11 Eta sar zedin Ierusalemen Iesus, eta tenplean: eta gauza guzietara inguru behaturik, eta ia berandua zela ilki zedin Bethaniarat hamabiekin.

12 Eta biharamunean ilki izan ziradenean Bethaniatik, gose zedin.

13 Eta urrundarik ikusirik fikotze hostodun bat, ethor zedin eia deus hartan eriden zezake-nez: eta hartara ethorririk, etzezan deus eriden hostorik baizen: ezen etzen fiko denbora.

14 Orduan ihardesten zuela lesusek erran ziezon fikotzeari, Hemendik harat hireganik sekulan frukturik nehork ian eztezala. Eta *haur* enzun zezaten haren diszipuluek.

15 Eta ethorten dirade Ierusalemera: eta Iesus tenplean sarthurik, has zedin saltzen eta erosten ari ziradenean kanpora egoizten, eta kanbiadoreen mahainak, eta uso kolunba saltzalen kadirak itzul zitzaizkion.

16 Eta etzuen permetitzen nehork unzirik erabil lezan tenpletetik.

17 Eta irakasten ari zen, zioztela. Ezta eskribatua, ezen Ene etxea orationetako etxe deithuren dela natione guzietan? baina zuek hura gaixtagin leze egin duzue.

18 Eta *haur* enzun zezaten Eskribek eta Sakrifikadore prinzipalek, eta bilha zabiltzan nolatan hura hil lezaketen: ezen beldur zaizkan,

zeren populu guzia mirakuluz baitzegoen haren doktrinaz.

19 Eta arratsa ethorri zenean, ilki zedin *Jesus* hiritik.

20 Eta goizean aldetik iragaiten ziradela ikus zezaten fikotzea erroetarano eihartua.

21 Orduan orhoiturik Pierrisek erran ziezon, Majistrua, huna, *hik* maradikatu duan fikotzea eihartu duk.

22 Eta ihardesten zuela Iesusek erran ziezen, Auzue lainkoaren fedea.

23 Egiaz erraiten drauzuet, nork ere erranen baitrauka mendi huni, Ken adi, eta iraitz adi itsasora: eta ezpaitu dudarik eginen bere bihotzean, baina sinhetsiren baitu ezen erraiten duena eginen dela, zer ere erranen baituke eginen zaio.

24 Halakotz erraiten drauzuet, zerere othoitz egiten duzuela eskaturen baitzarete, sinhetsazue ezen rezebituren duzuela: eta eginen zaizue.

25 Baina othoitz egiten iar zaiteztenean, barka ezazue baldin deus baduzue nehoren kontra: zuen Aita zeruetakoak ere, zuei barka dietzazuen zuen faltak.

26 Ezen baldin zuek barka ezpadezazue: zuen Aita zeruetan denak ere eztrauzkizue barkaturen zuen faltak.

27 Orduan ethorten dirade berriz Ierusalem-era: eta tenplean zabilala, ethor zitezen harengana Sakrifikadore prinzipalak, eta eskribak, eta Anzianoak

28 Eta erran ziezoten, Zer autoritatez gauza horiak egiten dituk? eta nork eman drauk autoritate hori gauza horiak egin ditzan?

29 Eta Iesusek ihardesten zuela erran ziezen, Interrogaturen zaituztet nik ere zuek gauza batez: eta ihardestazue, eta erranen drauzuet zer autoritatez gauza hauk egiten ditudan.

30 Ioanesen baptismoa zerutik zen, ala gizonetarik? ihardestazue.

31 Eta bazihardukaten elkarren artean, zioitela, Baldin erran badezagu, Zerutik: erranen du Zergatik beraz eztuzue sinhetsi hura?

32 Baina baldin erran badezagu, Gizonetarik populuaren beldur gara: ezen guziek zadukaten ioanes egiazko Profeta izan zela.

33 Eta ihardesten zutela erran ziezoten Iesusi, Etzeakiagu. Eta Iesusek ihardesten duela

dioste, Nik ere eztrauzuet erranen zer authoritatez gauza hauk egiten ditudan.

KAP. XII.

*1 Mahastia laborariei alokatu. 10
Harria edifikazalez arbuiatu. 14
Tributa pagatzeko denez. 20 Zazpi
anaieren emazte izanaz. 25
Resurrektioneaz. 28 Manamendu
prinzipalaz. 33 Iainkoaganatko eta
hurkoaganatko amorioaz. 35 Krist
Dabid-en seme. 38 Eskribetarik eta
Fariseuetarik begiratzeko. 42
Trunkora emaiten zuen alargunaz.*

1 Gero has zekien konparationez erraiten, Mahasti bat landa zezan gizon batek, eta ingura zezan hesiz, eta egin zezan hobi bat lakotako, eta edifika zezan dorre bat, eta aloka ziezen laborariei, eta kanporat ioan zedin.

2 Eta igor zezan laborarietara sasoinan zerbitzaria, laborarietarik rezebi lezanzat mahastiko fruktutik.

3 Baina hek hura harturik zaurt zezaten, eta igor zezaten hutsik.

4 Eta berriz igor zezan hetara berze zerbitzari bat eta harri ukaldiz hauts ziezoten burua, eta igor zezaten desonestki traktaturik.

5 Eta berriz berze bat igor ziezen, eta hura hil zezaten: eta anhitz berzerik, batzu zehatzen eta berzeak hiltzen zituztela.

6 Oraino bada bere seme maite bat ukan eta, hura ere igorri ukan du hetara azkenik, zioela, Ahalke izanen dirade ene semearen.

7 Baina laborari hek erran zezaten bere artean, Haur da primua: zatozte hil dezagun haur, eta gure izanen da heretajea.

8 Eta harturik hura hil zezaten, eta iraitz zezaten mahastitik kanpora.

9 Zer eginen du bada mahasti iabeak? Ethorriren da, eta deseginen ditu laborariak, eta emanendu mahastia berzeri.

10 Eta Eskriptura haur ere eztuzue irakurri? Edifikazalek arbuiatu duten harria, kantoin buru egin izan da:

11 launaz egin izan da haur, eta da gauza miragarria gure begien aitzinean?

12 Aiher ziraden bada haren hatzamaitera, baina populuaren beldur ziraden: ezen ezagutu zuten haien kontra konparatione haur erran zuela: eta hura utzirik ioan zitezten.

13 Gero igor zitzaten harengana Fariseuetarik eta Herodianoetarik batzu, hura hatzaman lezatenzat hitzean.

14 Eta hek ethorrorik diotsate, Majistrua, bazekiagu ezen egiati aizela, eta nehoren ansiarik eztuala: ezen ezago gizonen aparentiara beha, baina egiazki lainkoaren bidea irakasten duk: Bidezko da tributaren Zesari emaita, ala ez? emanen dugu, ala eztugu emanen?

15 Eta hark, ezaguturik haien hipokrisia, erran ziezen, Zergatik tentatzen nauzue? ekardazue dinero bat, ikus dezadanzat.

16 Eta hek presenta ziezoten: orduan dioste, Norena da imajina haur eta eskribua? Eta hek erran ziezoten, Zesarena.

17 Eta ihardesten zuela lesusek erran ziezen, Renda ietzozue Zesarenak Zesari: eta lainkoarenak lainkoari. Eta mirets zezaten haren gainean.

18 Orduan ethor zitezen harengana Saduzeuak, zeinek erraiten baitute eztela resurrektionerik, eta interroga zezaten, zioitela,

19 Majistrua, Moisesek eskribatu ukan diraukuk, baldin zenbeiten anaiea hil bada, eta utzi badu emaztea, eta haurrik utzi ezpadu, hardezan haren anaiak haren emaztea, eta egin diezozon leinu bere anaieri.

20 Zituan bada zazpi anaie: eta lehenak har ziezana emazte, eta hiltzean etziezana leinurik utzi.

21 Eta bigarrenak har ziezana hura, eta hil ziedian, eta hark ere etziezana leinurik utzi: eta hirugarrenak halaber.

22 Eta har ziezatean hura zazpiek, eta leinurik etziezatean utzi: guzietako azkenenik hil ziedian emaztea ere.

23 Resurrektionean bada, resusztatut dirateanean hetarik zeinen emazte izanen da? Ezen zazpiek hura emazte ukan die.

24 Orduan ihardesten zuela lesusek erran ziezen, Eztuzue halakotz huts egiten zeren ezpaitakizkizue Eskripturak, ezeta lainkoaren berthutea?

25 Ezen hiletarik resuszitate diratenean, eztu nehork emazterik harturen, ez emanen ezkon-zaz: baina izanen dirade zeruetako Aingeruak bezala.

26 Eta hilez den bezenbatean, ezen resuszi-tatzen diradela, eztuzue irakurri Moisesen libu-ruan, nola berroan hari minzatu izan zaion lain-koa, zioela, Ni *naiz* Abrahamen lainkoa, eta Isaac-en lainkoa, eta Jakob-en lainkoa?

27 Ezta hilen lainkoa, baina bizen lainkoa: zuek beraz hagitz enganatzen zarete.

28 Eta ethor zedin Eskribetarik zenbeit, hek disputatzen enzunik, eta ikusirik ezen ungi ihar-detsi zerauela, *hark* interroga zezan, Zein da manamendu guzietako lehena?

29 Eta lesusek ihardets ziezon. Manamendu guzietako lehena *duk*, Behadi Israel, gure lainko launa, laun bakoitz bat duk.

30 Onhetsiren duk bada eure lainko launa, eure bihotz guziaz, eta eure arima guziaz, eta

eure pensamendu guziaz, eta eure ahal guziaz: haur *duk* lehen manamendua.

31 Eta bigarrenak hura irudi *dik*, Onhetsiren duk eure hurkoa eure burua bezala: hauk baino berze manamendu handiagorik eztuk.

32 Orduan erran ziezon Eskriba hark, Ungi, Majistrua, egiazki erran duk, ezen lainko bat dela eta harzaz berzerik eztela:

33 Eta haren onhestea bihotz guziaz, eta adi-mendu guziaz, eta arima guziaz, eta indar guziaz: eta hurkoaren onhestea bere burua bezala, gehiago dela ezen ez holokausta eta sakrifizio guziak.

34 Eta lesusek ikusi zuenean ezen hark zuhurki ihardetsi zuela, erran ziezon, Ezaiz urrun lainkoaren resumatik. Eta nehor gehiagorik etzaion ausart interrogatzera.

35 Eta ihardesten zuela lesusek erraiten zuen, tenplean irakasten ari zela, Nola dioite Eskribek ezen Krist Dabid-en seme dela?

36 Ezen Dabid-ek berak erran du Espiritu sainduaren inspirationez, Erran drauka launak ene launari, lar-adi ene eskuinean, ezar ditzakedano hire etsaiak hire oinen eskabella.

37 Beraz Dabid-ek berak deitzen du hura laun: nondik da beraz haren seme? Eta jendetze anhitzek enzuten zuen hura gogotik.

38 Eta erraiten zerauen bere doktrinan, Begirauzue Eskriba arropa luzekin ebili nahi diradene-tarik, eta salutationei merkatuetan *on darizte-netarik*,

39 Eta lehen kadirei sinagogetan, eta lehen plazei banketetan:

40 Iresten dituztela *ema* alhargunen etxeak, are luzaki othoitz egin irudiz: hauk rezebituren dute kondemnatione handiagoa.

41 Eta lesusek trunkoaren aurkan iarririk zegoela, gogoatzen zuen nola populuak diru emaiten zuen trunkora, eta anhitz abratsek emaiten zuten anhitz.

42 Eta ethorririk *emazte* alhargun paubre batek eman zitzan bi peza xipi, baitziraden kadrant bat.

43 Orduan bere diszipuluak beregana deithu-rik erran ziezen, Egiaz diotsuet, ezen alhargun paubre hunek gehiago eman duela ezen ez trun-kora eman duten guziek.

44 Ezen guziek soberaturik zutenetik eman ukan dute, baina hunek eman du bere paubre-ziatik zuen guzia *baieta*, bere sustantia guzia.

KAP. XIII.

2, 14 Ierusalemaren destruktioea. 6 Kristen adbenimenduko signoak. 9 Persekutioneak. 10 Nazione guzietan Ebanjelioa predikatzeko. 11 Espiritu saindua minzaturen. 22 Mirakulu falsuak. 26 Kristen iudizioratko ethortea. 31 Hitzaren fermetatea. 33 Beillatzeko eta othoitz egiteko.

1 Eta ilkiten zela tenpletik, erran ziezon bere diszipuluetarik batek, Majistrua, ikuskik zer harriak eta zer edifizioak *diraden hauk*.

2 Orduan Iesusek ihardesten zuela erran ziezon, Badakuskik edifizio handi hauk? eztuk geldituren harria harriaren gainean desegin eztadin.

3 Eta iarririk zegoela Olibatzetako mendian tenplearen aurkan, interroga zezaten apart Pierresek eta lakesek, loanesek eta Andriuek,

4 *Zioitela*, Erraguk noiz gauza horiak izanen diraden, eta zer signo *izanen den* gauza horiak guziak konplituren diradenean.

5 Eta Jesus, ihardesten zerauela, has zedin erraiten, Begirauzue nehork seduzi etzaitzaten:

6 Ezen anhitz ethorriren dirade ene izenean, dioitela, Ni naiz *Krist*: eta anhitz seduzituren dute.

7 Baina danzuzkizuenean gerlak eta gerla famak, etzaitzela trubla: ezen *gauza hauk* egin behar dirade: baina ezta oraino *izanen* fina.

8 Ezen altxaturen da nationea nationearen kontra, eta resuma resumaren kontra: eta izanen dirade lur ikaratzeak lekutik lekura, eta goseteak eta nahastekamenduak: doloren hatseak, hauk.

9 Baina begira eiezue zuek zeuron buruei: ezen liuraturen zaituzte konsistorioetara eta sinagogetara: azotaturen zarete, eta gobernadoreen eta regen aitzinera eramanez zarete ene kausaz, haei testimoniajetan.

10 Eta nazione guzietan behar da lehenik predikatu Ebanjelioa.

11 Eta hatzamanik eramanen zaituztenean etzaretela aitzinetik ansiatan zer erranen duzuen, eta ezalbeitzinezate medita: baina zer ere emanen baitzaizue ordu hartan, hura albeitzinarrate: ezen etzarete zuek minzo zaretenak, baina Espiritu saindua.

12 Orduan liuraturen du anaieak anaiea heriotara, eta aitak haurra: eta altxaturen dirade haurrak aita-amen kontra, eta hil eraziren dituzte.

13 Eta gaitzetsiak izanen zarete guziez, ene izenagatik: baina nork ere perseberaturen baitu finerano, hura salbaturen da.

14 Dakusazuenean bada desolationearen abominationea, Daniel Profetaz erran izan dena, behar ezten lekuan dagoela (irakurtzen duenak adi beza) orduan ludean diratenek, ihes albeilegite mendietarat:

15 Eta etxe gainean datena, ezalbeiledi iaute etxerat, eta ezalbeiledi sar deusen bere etxetik eramaitera.

16 Eta landan datena ezalbeiledi gibelerat itzul, bere abillamenduaren hartzera.

17 Baina dohaingaitz *emazte* izorren eta eredoskiten dukeitenen egun hetan.

18 Othoitz egizue bada zuen ihes egitea ezten neguan.

19 Ezen izanen dirade egun hek *halako* tribulatione, nolakorik ezpaita izan lainkoak kreatu dituen gauzen kreatze hatsetik oraindrano, eta ezpaita izanen.

20 Eta baldin launak laburtu ezpalitu egun hek, nehor ezlaite salba: baina elejitu dituen elejituakgatik, laburtu ditu egun hek.

21 Eta orduan baldin nehork badarrazue, Huna hemen Krist, edo, Hara han: ezalbeitzinezate sinhets.

22 Ezen altxaturen dirade Krist falsuak, eta profeta falsuak: eta eginen dituzte signoak eta mirakuluak seduzitzeko, baldin posible baliz, elejituen ere.

23 Baina zuek begirauzue. Huna, aitzinetik erran drauzkizuet gauza guziak.

24 Halaber egun hetan tribulatione haren ondoan, iguzkia ilhunduren da: eta ilhargiak eztu bere argia emanen.

25 Eta zeruko izarrak eroriren dirade, eta zeruetan *diraden* berthuteak ikaraturen dirade.

26 Eta orduan ikusiren dute gizonaren Semea datorkela hodeietan bothere eta gloria handirekin.

27 Eta orduan igorriren ditu bere Aingeruak, eta bilduren ditu bere elejituak laur haizetarik, lur bazterretik zeru bazterrerano.

28 Bada fikotzetik ikas ezazue konparatio-nea. Haren adarra ia ustertzen eta hostatzen denean, badakizue ezen uda hurbil dela.

29 Hala zuek ere ikus dezazuenean gauza hauk egiten diradela, iakizue ezen hurbil datela borthan.

30 Egiaz erraiten drauzuet, ezen eztela iraganen mende haur, gauza hauk guziak egin diteno.

31 Zerua eta lurra iraganen dirade, baina ene hitzak eztirade iraganen.

32 Baina egun harzaz eta orenaz nehork eztaki, ez eta zeruan diraden Aingeruek ere, ez eta Semeak ere, Aitak *berak* baizen.

33 Begirauzue, beilla ezazue eta othoitz egizue, ezen eztakizue denbora noiz daten.

34 *Hala da* nola kanporat ioan lizen gizon batek, bere etxea utzirik, eta emanik bere zerbitzariari autoritate: eta zeini bere lana, borthal-zainari beilla lezan manatu balerauka.

35 Beilla ezazue beraz: ezen eztakizue noiz etxeko iauna ethorriren den, arratsean, ala gauherditan, ala oillaritean, ala goizean:

36 Ustegaberik dathorreanean, lo zaunzatela eriden etzaitzaten.

37 Eta zuei erraiten drauzuedana, guziei erraiten drauet, Beilla ezazue.

KAP. XIII

1 Konseillu Kristen kontra. 12 Bazkoa. 10, 18 Iudasek Krist traditzen. 22 Zenaren institutionea. 30 Pierrisi aitzinetik erraiten nola ukaturen zuen. 32 Krist baratzean. 34 Triste Krist. 38 Beillatzeko eta othoitz egiteko. 44 Iudasen pot

egitea. 50 Apostoluek ihes egiten. 53 Kaifasgana Krist eraman izan. 61 Ixilik egoiten. 62 Hura dela Krist berak aithortzen. 65 Krist thustatzen eta bufetatzen.

1 Zen bada Bazkoaren eta ogi altxagarri gabekoen *besta* bi egunen buruan: eta Sakrifikadore prinzipalak eta Eskribak zabiltzan bilha nolatan hura fineziaz hatzamanik hil lezaketen.

2 Eta zioiten, Ez bestan, populuak tumultorik eztenzat.

3 Eta *Jesus* Bethanian Simon sorhaioaren etxean zela eta mahainean iarririk zegoela, ethor zedin emazte bat aspik garbizko ungentu prezio handitako boeita bat zuela: eta hautsirik boeita, huts zezan haren buru gainera.

4 Eta ziraden batzu berak baithan gaitzi zaie-nik, eta erraiten zutenik, Zertako ungentu goas-tatze haur egin izan da?

5 Ezen haur hirur-ehun dinero baino gehiagotan saldu ahal zaten, eta eman paubrei. Eta bazadasaten haren kontra.

6 Baina lesusek dio, Utzazue hori, zergatik faskatzen duzue? obra on bat enegana egin du.

7 Ezen paubreak bethiere ukanen dituzue zuekin, eta noiz ere nahi ukanen baituzue, haei ungi ahal daidiezue: baina ni eznauzue bethi ukanen.

8 Hunek ahal duena egin du: abanzatu da ene gorputzaren unktatzera ene ohorztekozat.

9 Egiaz erraiten drauzuet, non ere predikatu-
ren baita Ebanjelio haur mundu guzian, hunek egin duena ere kontaturen da hunen memorio-
tan.

10 Orduan ludas Iskariot hamabietarik bat ethor zedin Sakrifikadore prinzipaletara, hura liura liezenzat.

11 Eta hek *hori* enzunik alegera zitezen, eta prometa ziezoten diru emaitera: eta bilha zabi-
lan nolatan hura denbora moldezkoz tradi leza-
keen.

12 Eta altxagarri gabeko *ogien* lehen egu-
nean, Bazkoa sakrifikatu behar zutenean, erran ziezoten bere diszipunuek, Non nahi duk ioanik apain dezagun ian dezanzat Bazkoa?

13 Orduan igor zitzaizen bere diszipuluak, eta erran zieten, Zoazte hirira, non bathuren baitzaizue gizon bat, pegar bat ur daramala: zarrizate hari.

14 Eta nora ere sarthuren baita, errozue aita-familiari: Majistruak zioke, Non da neure diszipuluekin Bazkoa ianeren dudana ostatu?

15 Eta hark erakutsiren drauzue ganbera handi bat paratua eta apaindua: han apain ieza-guzue.

16 Parti zitezene bada haren diszipuluak, eta ethor zitezene hirira: eta eriden zezaten erran zerauen bezala, eta apain zezaten Bazkoa.

17 Eta arrastu zenean, ethor zedin hamabiekin.

18 Eta hek mahainean iarririk zeudela, eta alha ziradela, dio Iesusek, Egiaz erraiten drauzuet, zuetarik batek tradituren nau, zeinek iaten baitu enekin.

19 Eta hek has zitezene tristetzen: eta hari erraiten bata berzearen ondoan, Ni naiz? eta berzeak, Ni naiz?

20 Eta hark ihardesten zuela erran ziezen, Hamabietarik batek, enekin platean trenpatzen duenek *tradituren nau*.

21 Segur gizonaren Semea badoa, harzaz eskribatu den bezala: baina malediktione gizon haren gainean, zeinez gizonaren Semea tradituren baita: on zukeen gizon hark baldin iaio ezpalliz.

22 Eta hek alha ziradela, har zezan lesusek ogia eta gratiak rendaturik hauts zezan: eta eman ziezen, eta dio, Har ezazue, ian ezazue: haur da ene gorputza.

23 Eta kopa hartu zuenean, gratiak rendaturik, eman ziezen: eta edan zezaten hartarik guziek.

24 Eta dioste, Haur da ene odol Testamentu berrikoa, anhitzengatik isurten dena.

25 Egiaz diotsuet, ezen eztudala edanen hemendik harat aihenaren fruktutik, hura berririk lainkoaren resuman edanen dudan egunerano.

26 Eta kantikoa erranik ioan zitezen Olibatzetako mendirat.

27 Orduan dioste lesusek, Guziak eskandalizaturen zarete nitan gau hunetan: ezen eskribatua da, loren dut artzaina, eta barreiaturen dirade ardiak.

28 Baina resuszita nadinean aitzinduren natzaizue Galileara.

29 Eta Pierrisek erran ziezon, Baldin guziak eskandaliza baditez ere, ni ez ordea.

30 Orduan diotsa lesusek, Egiaz erraiten drauat ezen egun, gau hunetan bigetan oillarrak io dezan baino lehen, hiruretan ukaturen nauala.

31 Baina hark ungiz hagitzago erraiten zuen, Baldin hirekin hil behar banu ere, ezaut ukaturen. Eta halaber guziek ere erraiten zuten.

32 Gero ethorten dirade Jethsemane deitzen den leku batetara: eta dioste bere diszipuluei, lar zaitetze hemen, othoitz daididano.

33 Eta hartzen ditu Pierris eta lakes eta loanes berekin, eta has zedin izitzen, eta guziz keixatzen.

34 Eta dioste, Alde guzietarik triste da ene arima heriorano: zaudete hemen, eta beilla eazue.

35 Eta aitzinaxiago ioanik, bere burua lurrera egotz zezan, eta othoitz egin zezan, baldin posible baliz iragan ledin harenganik oren hura:

36 Eta erran zezan, Abba, Aita, gauza guziak posible dituk hire: transporta ezak eneganik kopa haur: badarik ere ez nik nahi dudana, baina hik nahi duana.

37 Gero ethor zedin, eta eriden zitzan lo zeunzala: eta diotsa Pierrisi, Simon lo atza? oren bat ezin beillatu duk?

38 Beilla ezazue, eta othoitz egizue, sar etzaitetzen tentationetan: espiritua prompto *da*, baina haragia flaku.

39 Eta berriz ioanik othoitz egin zezan, eta propos bera erran zezan.

40 Gero itzulirik eriden zitzan berriz lo zeunzala: ezen haien begiak kargatuak ziraden, eta etzakiten zer ihardets zezakeoten.

41 Eta ethor zedin heren aldian, eta dioste, Lo egizue gaurgero, eta reposa zaitetze: asko *da*, ethorri *da* orena: huna, liuratzen *da* gizonaren Semea gaixtoen eskuetara.

42 Iaiki zaitetze, goazen: huna, ni traditzen nauena hurbildu *da*.

43 Eta bertan, hura oraino minzo zela, ethor zedin ludas, baitzen hamabietarik bat, eta harekin jendetze handia ezpatekin eta uhekin, Sakrifikadore prinzipalen, eta Eskriben, eta Anzianoen partez.

44 Eta eman zerauen, hura traditzen zuenak elkarren artean seignale, zioela, Nori ere pot eginen baitraukat, hura da, hari zatxetzate, eta eramazue segurki.

45 Eta ethorri zenean, bertan harengana hurbildurik diotsa, Majistrua, Majistrua, eta pot egin ziezon.

46 Orduan hek ezar zitzaten bere eskuak haren gainean, eta hatzaman zezaten.

47 Eta han ziradenetarik zenbeitek, ezpata idokirik io zezan Sakrifikadore prinzipalaren zerbitzaria, eta edeki ziezon beharria.

48 Eta ihardesten zuela lesusek erran ziezen, Gaixtagin baten ondoan bezala ilki zarete ezpatekin eta uhekin ene hatzamaitera?

49 Egun oroz zuen artean ninzen tenplean irakasten ari ninzela, eta ez nauzue hartu. Baina *behar da* konpli ditezen Eskripturak.

50 Orduan hura utzirik *haren diszipulu* guziek ihes zegiten.

51 Eta gizon gazte bat iarreiki izan zaion *gorputz* billuziaren gainean inguru mihise batez estalirik, eta hatzaman zezaten hura gizon gazte batzuk.

52 Baina hura, utzirik mihisea, billuzgorririk itzur zekien.

53 Orduan eraman zezaten Iesus Sakrifikadore subiranoagana: eta bil zitezen harekin. Sakrifikadore prinzipal guziak, eta Anzianoak, eta Eskribak.

54 Eta Pierris urrundarik iarreiki zekion Sakrifikadore subiranoaren sala barnerano: eta zegoen iarririk zerbitzariekin, berotzen zela su bazterrean.

55 Eta Sakrifikadore prinzipalak, eta konsistorio guzia Iesusen kontra testimoniaje bilha zabilzan, hura hil erazi lezatenzat: eta etzuten erideiten.

56 Ezen anhitzek falsuki testifikatzen zuten haren kontra: baina etziraden konforme haien testimoniajeak.

57 Orduan batzuk iaikirik falsuki testifika zezaten haren kontra, zioitela,

58 Guk enzun dugu hori erraiten, Nik deseginen dut tenple eskuz egin haur, eta hirur egunez berze eskuz egin ezten bat edifikaturen dut.

59 Baina hala ere haien testimoniajea etzen konforme.

60 Orduan Sakrifikadore subiranoak artera iaikirik interroga zezan Iesus, zioela, Eztuk deus ihardesten? zer *da* hauk hire kontra testifikatzen dutena ?

61 Baina hura ixilik zegoen, eta etzezan deus ihardets. Berriz Sakrifikadore subiranoak interroga zezan hura, eta erran ziezon, Hi aiz Krist *Iainko* Benedikatuaren Semea?

62 Eta Iesusek erran ziezon, Ni nauk, eta ikusiren duzue gizonaren Semea iarririk dagoela *Iainkoaren* botherearen eskunean, eta ethorten dela zeruko hodeietan.

63 Orduan Sakrifikadore subiranoak bere arropak erdiraturik erran zezan, Zer gehiago testimonio behar dugu?

64 Enzun duzue blasfemia: zer irudi zaizue? Eta hek guziek haren kontra iujea zezaten, hil merezi kuela.

65 Eta has zitezen batzu haren kontra thu egiten: eta haren begithartearen estaltzen, eta haren bufetatzen: eta hari erraiten, Profetiza ezak. Eta ofizierek zihor ukaldi emaiten zeraukaten.

66 Eta Pierris behereko salan zegoela, ethor zedin Sakrifikadore subiranoaren neskatoetarik bat:

67 Eta ikusi zuenean Pierris berotzen zegoela, hari begira iarririk erran zezan, Eta hi Iesus Nazarenorekin inzen.

68 Baina hark uka zezan, zioela, Eztinat eza gutzen, ez etzeakinat hik zer dionan. Eta ilki zedin korralerat, eta oillarrak io zezan.

69 Eta neskatoa berriz hura ikusirik, has zedin han ziradenei erraiten, Haur hetarik da.

70 Baina hark berriz uka zezan. Eta apur baten buruan berriz han ziradenek erran ziezoten Pierrisi, Egiazki hetarik aiz, ezen Galileano aiz, eta hire lengoajeak irudi dik.

71 Orduan hura has zedin maradikatzen eta arnegatzen, zioela, Eztut ezagutzen *zuek* diozuen gizon hori.

72 Eta berriz oillarrak io zezan: eta orhoit zedin Pierris Iesusek erran zeraukan hitzaz, Oillarrak bigetan io dezan baino lehen, hiruretan ukaturen nauk. Eta kanporat ilkirik nigar egin zezan.

KAP. XV.

1 Kristek, pilatgana eraman izanik, 2 lудuen rege dela aithortzen. 7 Barabbas. 15 Pilatek Barabbas largatzen, eta Krist kruzifikatzeko liuratzen. 19 29 Krist eskarniatzen eta otrajeatzen. 24 Kruzifikatzen, 27 Gaixtaginekin. 33 Herri guzian ilhundu. 37 Kristek espiritua rendatu. 39 Zentenera. 40 Emazteak. 43 Kristen sepultura.

1 Eta bertan goizean konseillu edukirik Sakrifikadore prinzipalek Anzianoekin eta Eskribekin

eta konsistorio guziarekin, estekaturik Iesus eraman zezaten, eta liura ziezoten Pilati.

2 Orduan interroga zezan, hura Pilatek, Hi aiz luduen Regea? Eta hark ihardesten zuela erran ziezon, Hik diok.

3 Eta anhitz gauzaz akusatzen zuten hura Sakrifikadore prinzipalek.

4 Eta Pilatek berriz interroga zezan, zioela, Eztuk deus ihardesten? huna, zenbat gauzaz hire kontra testifikatzen duten.

5 Baina Iesusek deus etzezan gehiagorik ihardets: *hala* non miresten baitzuen Pilatek.

6 Eta bestan largatzen ohi zerauen presoner bat, zeinen ere eska bailitez.

7 Eta zen Barabbas deitzen zenbat presoner seditoneko lagunekin, heriotze mutinationez egin zuenik.

8 Eta oihuz iarririk populua has zedin eskatzen *egin liezen* bethiere egin ukan zerauen bezala.

9 Eta Pilatek ihardetsi zerauen, zioela, Nahi duzue larga diezazuedan luduen Regea?

10 (Ezen bazeakian nola hura inbidiaz liuratu zuten Sakrifikadore prinzipalek)

11 Eta Sakrifikadore prinzipalek inzita zezaten populua lehen Barabbas larga liezen.

12 Eta Pilatek ihardesten zuela, berriz erran ziezen, Zer bada nahi duzue dagiodan Iuduen Rege deitzen duzuen huni?

13 Eta hek berriz oihu egin zezaten, Kruzifika ezak.

14 Eta Pilatek erraiten zerauen, Baina zer gaizki egin du? Eta hek hanbat oihu gehiago egin zezaten, Kruzifika ezak.

15 Pilatek bada populuaren gogara egin nahiz, larga ziezen Barabbas, eta Iesus azotaturik liura ziezen kruzifika ledinzat.

16 Orduan jendarmesek eraman zezaten hura sala barnera, zein baita pretoria, eta dei zezaten banda guzia.

17 Eta bezi zezaten hura eskarlataz, eta inguru ezar ziezoten *buruan* elhorri plegatuzko koroa bat.

18 Eta has zitezen haren salututzen, *zioitela*, Ungi hel dakiala, Iuduen Regea.

19 Eta bazeraunsaten haren buruari kanabera batez, eta thu egiten zuten haren kontra, eta belhaurikaturik reberentia egiten zeraukaten.

20 Gero harzaz trufatu ziradenean, eraunz ziezoten eskarlatazkoa, eta bezi zezaten bere abillamenduez: eta kanporat eraman zezaten kruzifika lezatenzat.

21 Eta bortxa zezaten bideazko Simon Zire-niano *deitzen* zenbat, landetarik heldu zela, (zein baitzen Alexandreren eta Ruforen aita) haren krutzea eraman lezanzat.

22 Gero eraman zezaten Golgothako lekura, zein erran nahi baita, Bur-hezur lekua.

23 Gero eman ziezoten edatera mahatsarno mirharekin nahasteka, baina hark etzezan har

24 Eta kruzifikatu zutenean, parti zitzaten haren abillamenduak, zorth e egotzirik haien gainean, nork zer ioan lezakeen.

25 Ziraden bada hirur orenak hura kruzifikatu zutenean.

26 Eta zen haren kausaren inskriptionea *hunela eskribatua*, IUDUEN REGEA.

27 Eta harekin kruzifika zitzaten bi gaixtagin: bata haren eskuinean, eta berzea ezkerrean.

28 Eta konpli zedin Eskriptura dioena, Eta gaizkigilekin estimatu izan da.

29 Eta iragaiten ziradenek iniuriatzen zuten bere buruak higitzen zituztela, eta zioitela, He, tenplea desegiten eta hirur egunez edifikatzen duana.

30 Enpara ezak eure burua, eta iausti adi kruzetik.

31 Halaber Sakrifikadore prinzipalek ere eskarnioz elkarri erraiten zeraukaten Eskribekin, Berzeak enparatu ditu, bere burua ezin enpara dezake.

32 Krist Israeleko Regea iausts bedi orain kruzetik, ikus eta sinhets dezagunzat. Harekin kruzifikatu izan ziradenek ere iniuriatzen zuten.

33 Baina sei orenak ziradenean, ilhunbe egin zedin lur guziaren gainean bedratzi orenetarano

34 Eta bedratzi orenetan oihu egin zezan lesusek ozengi, Eloi, Eloi, lammasabachthani? erran nahi baita, Ene lainkoa, Ene lainkoa, zeren abandonatu nauk?

35 Eta han ziradenetarik batzuk enzun zute-nean, zioiten, Huna, Elias deitzen du.

36 Laster egin zezan bada batek, eta esponjia bat betherik binagrez, eta ezarririk kanabera baten inguruan, eman ziezon edatera, zioela,

Utzazue: dakusagun eia ethorriren denez Elias horren kenzera.

37 Eta lesusek oihu handi bat eginik, espiritua renda zezan.

38 Eta tenpleko bela erdira zedin bi zathitara garaitik behererano.

39 Eta ikus zezanean haren aurkan zegoen Zentenerak, ezen hala oihu eginik espiritua rendatu zuela, erran zezan, Egiazki gizon haur lainkoaren Semea zen.

40 Eta baziraden emazteak ere urrundarik beha zeudela, zeinen artean baitzen Maria Magdalena, eta Maria lakes xipiaren eta losesen ama, eta Salome.

41 Eta hek, Galilean zenaz geroztik iarreiki izan zaizkan eta zerbitzatu ukan zuten: eta anhitz berze *emazte* harekin batean Ierusalemerra igan izan ziradenik.

24 Eta arrastu zenean (zeren Sabbathoaren aitzinetik den preparationeko eguna baitzen)

43 Ethorririk Iosef Arimatheakoa, konseiller ohoratua, hura ere lainkoaren resumaren begira zegoena, ausart zedin Pilatgana sartzera, eta eska zekion Iesusen gorputzaren.

44 Eta Pilatek miresten zuen baldin ia hil baliz: eta Zentenera deithurik, interroga zezan hura, eia bazuenez heuragirik hil zela.

45 Eta *gauza* ezagaturik Zenteneraganik, eman ziezon gorputza Iosefi.

46 Eta *hark* mihise bat erosirik, eta hura erautsirik estal zezan mihiseaz: eta ezar zezan arroka batetan ebakia zen monumentean: eta itzuliz ezar zezan harri bat monument borthan.

47 Eta Maria Magdalena eta Maria Iosesen *ama*, beha zeuden non ezarten zen.

KAP. XVI.

2 Emazteak sepulkrera ethorten. 6 Aingerua hei minzutzen. 9 Krist Magdalenari agertzen, 12 Gero bi bideazkori, 14 eta Apostolu inkredulei. 15 Apostoluak ditu predikatzer a eta batheiatzera igorten. 16 Sinhesteaz eta Baptesmoaz. 17 Mirakuluez. 19 Kristen aszensioneaz.

1 Eta Sabbathoa iragan zenean, Maria Magdalenak eta Maria lakesen *amak* eta Salomek eros zitzaten unguentu aromatikoak, ethorririk hura enbauma lezatenzat.

2 Eta guziz goiz astearen lehen egunean ethorten dirade monumentera, iguzkia ia ilki zenean

3 Eta erraiten zuten elkarren artean, Nork aldaraturen drauku harria monument borthatik?

4 Eta miratu zutenean, ikus zezaten harria aldaratua zela: ezen guziz handia zen.

5 Gero monumentera sarthurik, ikus zezaten lagun gazte bat eskuineko aldean iarria, abillamendu xuri luze batez beztitua: eta izi zitezzen

6 Baina hark dioste, Etzaitezela izi: Iesus Nazareth kruzifikatu izan denaren bilha zabilzte, resuszitate da: ezta hemen, huna lekua non ezarri ukan zuten.

7 Baina zoazte, erran iezezue haren diszipuluei eta Pierrisi, ezen zuen aitzinean ioaiten dela Galileara: han hura ikusiren duzue, erran drauzuen bezala.

8 Eta hek bertan partiturik ihes egin zezaten monumentetik: ezen ikarak eta iziapenek har zitzan: eta nehoi deus etzeraukaten erraiten: ezen beldur ziraden.

9 Eta Iesus resusztatatu zenean, asteko lehen egun goizean, ager zekion lehenik Maria Magdalenari, zeinetarik zazpi deabru kanpora egotzi baitzituen.

10 Hark ioanik kontatu zezaten, Iesusekin izan ziradenei, zeinek dolu ekarten baitzuten eta nigar egiten.

11 Eta hek enzun zezatenean ezen bizi zela, eta hark ikusi kuela, etzezaten sinhets.

12 Gero gauza hauen ondoan hetarik bi ioaiten ziradenei ager zekien berze formatan, kanporat partitzen ziradela.

13 Eta hek itzuli ziradenean kontatu zezaten berzei: baina etzitzaten hek ere sinhets.

14 Azkenik, elkarrekin iarririk zeudela hamekei ager zekien, eta reprotxa zezaten haien inkredulitatea, eta bihotz gogortasuna: zeren hura resusztatutik ikusi ukan zutenak ezpaitzitzuten sinhetsi.

15 Eta erran ziezen, Zoazte mundu orotara, eta predika ieozue Ebanjelioa kreatura guziari

16 Sinhetsiren duena eta batheiatoren dena salbaturen da: baina sinhetsiren eztuena kondemnatuena da

17 Eta signo hauk sinhetsi dukeitenei iarreikiren kaizte Ene izenean deabruak kanpora egotziren dituzte, lengoaje berriz minzaturen dirade:

18 Sugeak kenduren dituzte: eta baldin zer-bait heriotarakorik edan badezate, eztraue kalterik eginen: erien gainean eskuak ezarriren dituzte, eta sendaturen dirade.

19 Eta launa gauza hauzaz haei minzatu izan zaienean, goiti zerurat altxa zedin, eta iar zedin lainkoaren eskuinean.

20 Hek ere partiturik predika zezaten leku guzietan, launak hekin obratzen zuela, eta hitza konfirmatzen zuela iarreikiten ziraden signoez.

IESUS KRISTEN EBANJELIO SAINDUA S. LUK-EN ARAURA

KAP. I.

1 Zakarias, Elisabet. 13 Zakarias, loanes eritziren zaion seme bat prometatu. 15 Hura nolako izanen. 20 Zakarias bere inkredulitateagatik denboratakotz mututu. 24 Elisabethek konzebitu. 28 Aingeru Gabrielek Maria salutatzen, eta Kristen konzebitzeaz eta sortzeaz adbertitzen. 35 Iainkoaren Semea. 39 Mariak Elisabeth bisitatzen, 46 eta kantikoaz launa laudatzen. 68 Zakariasen kantikoa. 57 loanesen sortzea. 76 Haren ofizioa.

1 Zeren anhitzek esku ezarri baitu narracione baten eskribatzera konplutuki gure artean zertifikatu izan diraden gauzez,

2 Ezagutzera eman draukuten bezala lehen hatsetik ikusi dituztenek eta hitzaren ministre izan diradenez.

3 Niri ere on iruditu izan ziaitadak guzia hatsetik finerano dilijentki konprehenditurik, hiri punktuz puntu *hezaz eskribatzera*, o Theofile guzizko exzellentea:

4 Hobeki ezagut dezanzat ikasi dituan gauzen egia.

5 HERODES Iudeako regeren egunetan zen Zakarias deitzen zen Sakrifikadore bat, Abiaren araldetik: eta haren emaztea zen Aaronen alabearik, eta haren izena Elisabeth.

6 Biak ziraden iusto lainkoaren aitzinean, launaren, manamendu eta ordenanza guzietan reproxurik gabe zabilzanak.

7 Eta haurrik etzuten, zeren Elisabeth esteril baitzen, eta biak baitziraden adinez aitzinartuak.

8 Gertha zedin bada, hark lainkoaren aitzinean bere aldian sakrifikadoregoa exerzitzen zuenean,

9 Sakrifikadoregoaren ofizioko kostumaren araura, zorthea eror baitzekion launaren tenplean sarthurik enzensamenduaren egiteko.

10 Eta populu guziak kanpoan othoitz egiten zuen enzensamendua egiten zen orduan.

11 Eta ager zekion launaren Aingerua, zegoela enzensamenduko aldarearen eskuinean.

12 Eta Zakarias trubla zedin *hura* ikusirik, eta izidura bat eror zedin haren gainera.

13 Orduan erran ziekon Aingeruak, Eztuala beldurrik Zakarias: ezen enzun izan duk hire othoitzza, eta Elisabeth eure emaztea erdiren zaik seme batez: eta hari izen emanen draukak loanes

14 Eta bozkario eta alegranza ukanen duk, eta anhitz haren sortzearen gainean alegeraturaren dituk,

15 Ezen handi izanen duk launaren aitzinean, eta mahatsarnorik ez *berze* arnorik eztik edanen: eta Espiritu sainduaz betheren datek bere amaren sabeleandanik.

16 Eta anhitz Israeleko haurretarik konbertituren dik beren lainko launagana.

17 Eta hura ioanen duk haren aitzinean Elia-sen espiriturekin eta berthuterekin, konbertititzantzaiten bihotzak semetara eta desobedientak iustoen zuhurtasunera: launari populuungi instruitu bat apain diezozat.

18 Orduan erran ziezozon Zakariasek Aingeruari, Nolatan hori ezaguturen dut? ezen ni nauk zahar, eta ene emaztea duk bere egunetan aitzinaratua.

19 Eta ihardesten zuela Aingeruak erran ziezozon, Ni nauk Gabriel lainkoaren aitzinean asistitzen naizena, eta igorri izan nauk hirekin minzatzera, eta berri on hauen hiri deklaratzera.

20 Eta horra, mutu izanen aiz eta ezin minzaturen aiz, gauza hauk egin ditezen egunerano: zeren ezpaitituk sinhetsi ene hitz bere denboran konplituren diradenak.

21 Eta populua zegoen Zakariasen begira, eta miresten zuen nola hark hanbat beranzen zuen tenplean.

22 Eta ilki zenean ezin minza zekidien, eta ezagut zezaten ezen *zenbeit* bisione ikusi zuela

tenplean: ezen keinuz aditzera emaiten zerauen, eta mutu gelditu ikan zen.

23 Eta gertha zedin, haren ofizioko egunak akabatu ziradenean, bere etxerat itzul baitzedin.

24 Eta egun haien ondoan haren emazte Elisabethek konzebi zezan: eta estal zedin borz hilebethez, zioela,

25 Segur, hunela egin ukan draut launak, bisitatu nauen egunetan, ene laidoa gizonen artetik ken lezanzat.

26 Eta seigarren hilebethean igor zedin Gabriel Aingerua lainkoaz Galileako hiri Nazareth deitzen denera:

27 Dabid-en etxetiko Iosef deitzen zen gizon batekin fedatua zen birjina batgana: eta birjina-ren izena zen Maria.

28 Eta Aingeruak hura baithara sarthurik, erran zezan, Salututzen aut gratia egin zainana: launa *dun* hirekin, benedikatua hi emazten artean.

29 Eta hura, *Aingerua* ikusirik trubla zedin haren erranaren gainean, eta pensatzen zuen zerik lizen salutatione hura.

30 Orduan diotsa Aingeruak, Maria, eztunala beldurrik, ezen eriden dun gratia lainkoa bait-han.

31 Eta horra, konzebituren dun *eure* sabe-lean, eta erdiren aiz seme batez eta deithuren dun haren izena Iesus.

32 Hura izanen dun handi, eta eritziren ziaion Subiranoaren Seme: eta emanen diraukan lainko launak bere aita Dabid-en thronoa.

33 Eta regnaturen din Iakob-en etxearen gainean eternalki, eta haren resumaren finik eztun izanen.

34 Erran ziekon orduan Mariak Aingeruari, Nola izanen da hori, gizonik ezagutzen eztudana-z geroz.

35 Eta ihardesten zuela Aingeruak erran zie-zon, Espiritu saindua hire gainera ethorriren dun eta Subiranoaren berthuteak itzal eginen draun eta halakotz hitarik sorthuren den saindua, lainkoaren Seme deithuren dun.

36 Eta hara, Elisabeth hire lehen gusua, hark ere konzebitu din seme bat bere zahartzean, eta hil haur din seigarrena esteril deitzen zenak.

37 Ezen eztun deus inposiblerik izanen lainkoa baithan.

38 Eta erran zezan Mariak, Huna launaren neskatoa: egin bekit hire hitzaren araura. Eta parti zedin harenganik Aingerua.

39 Eta iaikirik Maria egun hetan ioan zedin mendietara lehiatuki ludako hiri batetara.

40 Eta sar zedin Zakariasen etxera, eta saluta zezan Elisabeth.

41 Eta gertha zedin, enzun zezanean Elisabethek Mariaren salutationea, iauz baitzedin haurra haren sabelean, eta bethe zedin Espiritu sainduaz Elisabeth:

42 Eta oihuz iar zedin boz handiz, eta erran zezan, Benedikatua hi emazten artean, ezen benedikatua *dun* hire sabeleko fruktua.

43 Eta nondik haur niri, ethor dadin ene launaren ama enegana?

44 Ezen huna, hire salutationearen boza ene beharrietara heldu izan den bezain sarri, iauzi izan *dun* bozkarioz haurra ene sabelean.

45 Eta dohatsu *aiz* sinhetsi baitun, zeren konplituren baitirade launaz erran zaizkinan gauzak

46 Eta dio Mariak, Magnifikatzen du ene ari-
mak launa.

47 Eta alegeratu da ene espiritua lainko ene
Salbadorea baithan.

48 Zeren behatu ukan baitu bere neskatoa-
ren beheratasunera: ezen huna, hemendik harat
dohatsu erranen naute jeneratione guziek.

49 Ezen gauza handiak egin drauzkit bothe-
retsu denak: eta haren izena saindu *da*:

50 Eta haren miserikordia *da* jenerationetarik
jenerationetara haren beldurra dutenetara.

51 Botheretsuki egin ukan du bere besoaz:
desegin ditu superboak beren bihotzeko pensa-
menduan.

52 Egotzi ditu botheretsuak thronoetarik, eta
goratu ditu xipiak.

53 Gose ziradenak bethe ditu onez: eta abra-
tsak igorri ditu hutsik

54 Sustengatu ukan du Israel bere haurra,
bere miserikordiaz orhoit izanez.

55 Gure aitei minzatu zaien bezala, Abrahami
eta haren haziari iagoitikotz.

56 Eta egon zedin Maria harekin hirur hilebet-
heren ingurua: gero itzul zedin bere etxerat.

57 Eta konpli zedin Elisabethen ertzeko denbora: eta erdi zedin seme batez.

58 Eta enzun zezaten haren auzoek eta ahaidetik, nola frangoki launak bere miserikordia deklaratu zuen harengana, eta alegeratzen zira-den harekin.

59 Eta gertha zedin, zortzigarreneko egunean ethor baitzitezen haurtxoaren zirkonziditzera, eta deitzen zuten hura bere aitaren izenez, Zakarias.

60 Baina ihardesten zuela haren amak erran zezan, Ez, baina deithuren da loanes.

61 Eta erran ziezoten, Eztun nehor hire ahaidetan izen horrez deitzen denik.

62 Orduan keinu egin ziezoten haren aitari, nola nahi luen hura dei ledin.

63 Eta *hark* tableta batzuren eskaturik eskriba zezan, zioela, loanes da horren izena. Eta mirets zezaten guziek.

64 Eta ireki zedin bertan haren ahoa, eta haren mihia *laxa zedin*: eta minzo zen laudatzen zuela lainkoa.

65 Eta izidura ethor zedin aldiri hetako guzien gainera, eta ludako herri mendizu orotan publika zitezen hitz hauk guziak.

66 Eta enzun zituzten guziek, ezar zitzaten bere bihotzean, erraiten zutela, Nor haurtxo haur izanen da? Eta launaren eskua zen harekin.

67 Orduan haren aita Zakarias bethe zedin Espiritu sainduaz: eta profetiza zezan, zioela,

68 Laudatu *dela* Israeleko lainko launa, zeren bisitatu eta redemitu baitu bere populua.

69 Eta alxatu baitrauku salbamendutako adarra Dabid bere zerbitzariaren etxean.

70 Nola minzatu izan baita bere Profeta saindu bethidanik izan diradenen ahoz.

71 Salbu izanen ginela gure etsaietarik eta guri gaitz zarizkuten guzien eskutik.

72 Gure aitei miserikordia legienzat, eta orhoit lizen bere alianza sainduaz:

73 *Eta* gure Aita Abrahami egin zeraukan iuramenduaz:

74 *Ezen* emanen zeraukula, beldur gabe gure etsaien eskuetarik delibraturik, hura zerbitza ginezan,

75 Saindutasunetan eta iustitiatan haren aitzinean, gure biziko egun guzietan.

76 Eta hi haurtxoa, Subiranoaren Profeta deithuren aiz: ezen ioanen aiz launaren begithar-te aitzinean, haren bideak apain ditzanzat,

77 *Eta* eman diezoanzat salbamenduko eza-gutzea haren populuari, haien bekatuen barkamenduaz.

78 Gure lainkoaren afektione miserikordioso-az, zeinez bisitatu ukan baikaitu, Orientak garaitik:

79 Argi dagienzat ilhunbean eta herioaren itzalean iarririk daudenei, gure oinen bakezko bidera xuxenzeagatik.

80 Eta haurtxoa handitzen eta espirituz fortifikatzen zen: eta egon zedin desertuetan Israeli manifestatu behar izan zaion egunerano.

KAP. II.

1 Munduaren deskriptioea. 10 Krist Salbadorea sorthu dela artzainei deklaratzeko. 14 Aingeruen kantikoa.

21 Krist zirkoziditu eta Iesus deithu.
22 Mariaren purgationea. 28 Krist
Simeonek besoetara hartu,
Simeonen kantikoa. 36 Ana
profetesa. 40 Krist haurra. 46
Doktorekin disputatzen. 48 Haren
haurgoaz.

1 Eta gerta zedin egun hetan ethor baitzedin ordenanza bat Zesar Augustoren partez, eskribuz iar ledin mundua oro.

2 (Lehen deskriptione haur egin zedin Zirenus Siriako gobernadore zenean)

3 Eta ioaiten ziraden guziak eskributan iartera, batbedera zein bere hirirat.

4 Igan zedin bada Iosef ere Galileatik, Nazaretheko hiritik, Iudeara, Dabid-en zibitate Bethlehemi deitzen denera (zeren baitzen Dabid-en etxetik eta arrazatik)

5 Eskributan iar ledinzat Maria emaztetan eman izan zaionarekin, zein baitzen izorra.

6 Eta gertha zedin *hek* han ziradela, konpli baitzitezen haren ertzeko egunak.

7 Eta erdi zedin bere seme lehen iaioaz, eta bandatoz troxa zezan hura, eta ezar zezan manjederan, zeren ezpaitzen haiendako lekurik ostalorian.

8 Eta ziraden komarka berean artzain kanpoetan zeunzanak, eta gauazko beillak bere arthaldearen gainean begirutzen zituztenak.

9 Eta huna, launaren Aingerua ustegaberik ethor zekien, eta launaren gloriak argi zezan haien inguruan, eta izidura handiz izi zitezzen.

10 Orduan erran ziezen Aingeruak, Etzaretela beldur: ezen huna, ebanjelizatzen drauzuet bozkario handi populu guziaren izanen dena:

11 Ezen Dabid-en zibitatean iaio zaizuela Salbadorea, zein baita Krist launa.

12 Eta haur ukanen duzue seignale, eridenen baituzue haurra bandatoz troxatua, manjederan ezarria.

13 Eta bertan Aingeruarekin egin zedin armada zelestial multzo bat, laudatzen zutela lainkoa, eta zioitela,

14 Gloria *zeru* guziz goretan lainkoari, eta lurrean bake, gizonak baithara borondate ona.

15 Eta gertha zedin, hetarik Aingeruak zerurat ioan ziradenean, erran baitzezaten artzainek elkarren artean, Goazen bada Bethlehemerano, eta dakusagun egin izan den gauza haur, zein launak iakin erazi baitrauku.

16 Eta ethor zitezen lehiatuki, eta eriden zitzaten Maria eta Iosef, eta haurtxoa manjederran ezarria.

17 Eta ikusi ukan zutenean, publika zezaten haurtxoaz erran izan zaiena.

18 Eta enzun ukan zituzten guziek mirets zezaten haei artzainez erran izan zaizten gauzen gainean.

19 Eta Mariak begiratzen zituen gauza hauk guziak, bere bihotzean ehaiten zituela.

20 Eta itzul zitezen artzainak, glorifikatzen eta laudatzen zutela lainkoa, enzun eta ikusi ukan zituzten gauza guziez, erran izan kaien bezala.

21 Eta konplitu izan ziradenean haurtxoaren zirkoziditzeko zortzi egunak, orduan deithu izan da haren izena Iesus, nola deithu izan baitzen Aingeruaz, sabelean konzebi zedin baino lehen.

22 Eta konplitu izan ziradenean Mariaren purifikatoneko egunak Moisesen legearen arauetz, eraman zezaten haurtxoa, Ierusalemera, launari presenta liezotenzat.

23 (Nola baita eskribatua launaren Legean, Ar ume-unzia irekiten duen guzia, saildu launari deithuren zaio)

24 Eta eman lezatenzat oblationea, launaren Legean erran denaren araura, turturela pare bat, edo bi uso kolunba ume.

25 Eta huna, zen gizon bat Ierusalemen Simeon deitzen zenik: *eta zen* gizon haur iusto eta lainkoaren beldur, Israeleko konsolationearen begira zegoena: eta Espiritu saildua zen haren gainean.

26 Eta denuntiatu izan zaion dibinoki Espiritu sailduaz, etzuela heriorik ikusiren, non lehen ikus ezlezan Krist launarena.

27 *Hura* bada ethor zedin Espirituaz *mobiturik* tenplera: eta sartzen zutela Iesus haurra bere aita-amek, haren kausaz egin lezatenkat Legeko kostumaren araura:

28 Hark orduan har zezan hura bere besoetara, eta lauda zezan lainkoa, eta erran zezan,

29 launa, orain utziten duk eure zerbitzaria,
eure hitzaren araura bakez.

30 Ezen ikusi die ene begiek hire salbagarria,
31 Zein preparatu baituk populu guzien
begitharte aitzinean.

32 Argi jentilei argitzekoa, eta Israeleko hire
populuaren gloria.

33 Eta haren aita eta ama miraz zeuden har-
zaz erraiten ziraden gauzez.

34 Eta benedika zitzan Simeonek, eta erran
ziezon haren ama Mariari, Huna, ezarri izan dun
haur anhitzen destruktionetan, eta anhitzen
resurrektionetan Israelen, eta signotan zeini
nehor kontrastaturen baitzaio:

35 Are eurorren arima ere iraganen din ezpa-
ta batek, ager ditezenzat anhitz bihotzetako
pensamenduak.

36 Bazen profetesa bat ere *Ana deitzen zenik*
Fanuel-en alaba, Aser-en leinuko, zein baitzen ia
adin handitakoa, eta bizi izan zen senharrarekin
zazpi urthez bere birjinitateaz geroztik.

37 Eta laurogei eta laur urtheren inguruko
alharguna zelarik, etzen partitzen tenpletik,

barurez eta orationez zerbitzatzen zuela *lainkoa* gau eta egun.

38 Hunek ere bada ordu berean ethorririk, laudatzen zuen launa, eta harzaz minzo zaien redentionearen begira Ierusalemen zeuden guziei.

39 Eta akabatu zutenean guzia launaren Legearen araura, itzul zitezzen Galileara, bere Nazaretheko hirira.

40 Eta haurtxoa handitzen zen eta espirituz fortifikatzen, eta bethatzen zen sapientiaz: eta lainkoaren gratia zen haren gainean.

41 Eta ioaiten ziraden haren aita-amak urthe oroz Ierusalemera Bazko bestan.

42 Eta hamabi urthetara heldu zenean, igan zitezzen hek Ierusalemera bestako kostumaren arauetz:

43 Eta *hartako* egunak konplitu ziradenean, hek itzultzen ziradela, azken zedin Iesus haurra Ierusalemen: eta etzakion ohart Iosef, ez bere ama:

44 Baina ustez hura konpainian zen, ioan zitezzen egun baten bidean: eta haren bilha zabil-tzan ahaiden eta ezagunen artean.

45 Eta erideiten etzutenean, bihur zitezen Ierusalem-era, haren bilha zabiltzala.

46 Eta gertha zedin, hirur egunen buruan eriden baitzezaten hura tenplean, iarririk zegoela doktoren artean, haei behatzen zaiela eta hek interrogatzen zituela.

47 Eta espantatzen ziraden hura enzuten zuten guziak, haren iakinaren eta respostuen gainean.

48 Eta hura ikusirik espanta zitezen: eta erran ziezon bere amak, Seme, zergatik horrela egin draukuk? huna, hire aita eta ni keixurik hire bilha giniabiltzan.

49 Orduan dioste, Zergatik da ene bilha baitzinabiltzaten? etzinakiten ezen neure Aitaren egitekoetan *okupatua* behar dudala izan?

50 Baina hek etzezaten adi erran zerauen hitza.

51 Orduan iauts zedin hekin, eta ethor zedin Nazarethera: eta zen haien suiet: eta haren amak begiratzen zituen hitz hauk guziok bere bihotzean.

52 Eta Iesus abanzatzen zen sapientiaz eta handitez, eta gratiaz lainkoa baithan eta gizonak baithan.

KAP. III.

*2 Ioanes predikatzen hatsen. 3
Penitentiatako Baptismoa. 6
Lainkoaren salbagarria. 8
Emendamentutako fruktuak.
Abrahamen haurrak. 9 Aizkora
erroari. 11 Karitatea. 12
Publikanoak. 14 Jendarmesak. 16
Ioanesek Kristez testifikatzen.
Ioanesen eta Kristen Baptismoa. 17
Bahea. bihia. lastoa. 20 Herodesek
Ioanes presoindegian ezarten. 21
Krist batheiatu, 23 haren jenealojia.*

1 Eta Tiberio Zesaren enperadoregoaren hamaborzgarren urthean, Pontio Pilate Iudeako gobernadore zenean, eta Herodes Galileako tetrarka, eta haren anaie Filipe halaber Iturea

eta Trakonite komarkako tetrarka, eta Lisania Abilineko tetrarka,

2 Eta Anas eta Kaifas Sakrifikadore subirano ziradenean: eman zekion lainkoaren hitza loanes Zakariasen semeari desertuan.

3 Eta ethor zedin lordanaren inguruko komarka guzira, predikatzen zuela emendamendutako Baptismoa bekatuen barkamendutan:

4 Nola baita eskribatua Esaias profetaren hitzen liburuan, dioela, Desertuan oihuz dagoenaren boza *da*, Apain ezazue launaren bidea, plana itzazue haren bideskak.

5 Haran guzia betheren *da*, eta mendi eta mendiska guzia beheraturen *da*, eta makur diraden gauzak xuxenduren dirade, eta bide ikezuak planaturen,

6 Eta ikusiren du haragi guziak lainkoaren salbagarria.

7 Erraiten zerauen bada harenganik batheia litezenzat ethorten ziraden jendetzei, Bipera kasta, nork abisatu zaituzte ethorteko den hirari ihes egiten?

8 Egin itzazue bada fruktu emendamendua-
ren digneak: eta etzaitzeltela has erraiten zeurok

baithan, Abraham dugu aita: ezen badiotsuet, lainkoak harri hautarik ere Abrahami haur suszita, ahal diezakeola.

9 Bada ia aizkora ere arboren errora ezarria da: beraz arbore fruktu on egiten eztuen guzia pikatzen da, eta sura egoizten.

10 Orduan interroga zezaten jendetzek, zioitela, Zer eginen dugu beraz?

11 Eta ihardesten zuela erran ziezen, Bi arropa dituenak eman biezoz eztuenari: eta iatekorik duenak, halaber egin beza.

12 Ethor zedin publikanoetarik ere batheia litezenzat: eta erran ziezoten, Majistrua, zer eginen dugu?

13 Eta hark erran ziezen, Deus ordenatu zaiuzen baino gehiago eztezazuela erekar.

14 Interroga zezaten jendarmesek ere, zioitela, Eta guk zer eginen dugu ? Eta dioste, Nehor eztezazuela tormenta, ez iniuria: eta kontenta zaitetze zuen gajez.

15 Eta populua beha zegoela, eta guziek bere bihotzetan pensatzen zutela loanesez, eia hura lizatenez Krist,

16 Ihardets zezan Ioanesez, erraiten zeraue-
la guziei, Egia da nik batheiatzen zaituztet urez:
baina heldu da ni baino borthitzago dena, zeinen
zapatetako hedearen laxatzeko ezpainaiz digne:
hark batheiatzen zaituzte Espiritu sainduaz eta
suz.

17 Zeinen bahea haren eskuan *izanen baita*,
eta garbitzen du xahu bere larraina: eta bildu-
ren du bihia bere granerera: baina lastoa xoil
erreren du bihinere hiltzen ezten suan.

18 Bada anhitz berze gauzaz ere exhortatzen
zuela ebanjelizatzen zeraukan populuari.

19 Baina Herodes tetrarka harzaz reprehen-
ditzen zenean, Herodias bere anaie Filiperen
emazteagatik, eta berak egin zituen gaixtakeria
guziakgatik,

20 Eratxeki zezan haur ere *berze* guzien gai-
nera, ezar baitzezan Ioanes presoindegan.

21 Eta gertha zedin populu guzia batheiatzen
zela, eta Iesus batheiatzen othoiztez zegoela,
ireki baitzedin zerua:

22 Eta iauts baitzedin Espiritu saindua forma
Bisibletan uso kolunba baten gisan, haren gaine-
ra, eta boz bat zerutik egin baitzedin, zioela, Hi

aiz ene Seme maitea, hitan hartzen diat neure atsegin ona.

23 Eta Iesus bera hatsen zen hogei eta hamar urtheren inguruko izaten, seme (estima-tzen zuten bezenbatean) Iosefen, Iosef zen Heli-ren *seme*:

24 *Heli* Matthaten: *Matthat*, Lebiren: *Lebi*, Melkiren: *Melki*, Ianaren: *Iana*, Iosefen:

25 *Iosef*, Matthatiaren: *Matthatia*, Amosen: *Amos*, Nahumen: *Nahum*, Esliren: *Eslia*, Nagjeren:

26 *Nagjer*, Maathen: *Maath*, Mattathiaren: *Mattathia*, Semeiren: *Semei*, Iosefen: *Iosef*, Iuda-ren:

27 *Iuda*, Iohanaren: *Iohana*, Rhesaren: *Rhesa*, Zorobabelen: *Zorobabel*, Salathielen: *Salathiel*, Neriren:

28 *Neri*, Melkiren: *Melki*, Adiren: *Adi*, Kosamen: *Kosam*, Elmodamen: *Elmodam*, Eren:

29 *Er*, Ioserren: *Iose*, Eliezeren: *Eliezer*, Ioramen: *Ioram*, Matthaten: *Matthat*, Lebiren.

30 *Lebi*, Simeonen: *Simeon*, Iudaren: *Iuda*, Iosefen: *Iosef*, Ionamen: *Ionam*, Eliazimen:

31 *Eliazim*, Melearen: *Melea*, Mainanen: *Mainan*, Mattatharen: *Mattatha*, Nathanen: *Nathan*, Dabid-en:

32 *Dabid*, Ieseren: *Iese*, Obed-en: *Obed*, Boozen: *Booz*, Salmonen: *Salmon*, Naasonen:

33 *Naason*, Aminadab-en: *Aminadab*, Aramen: *Aram*, Esronen: *Esron*, Faresen: *Fares*, Iudaren:

34 *Iuda*, Iakob-en: *Iakob*, Isaak-en: *Isaak*, Abrahamen: *Abraham*, Thararen: *Thara*, Naxoren:

35 *Naxor*, Saruk-en: *Saruk*, Ragauren: *Ragau*, Falek-en: *Falek*, Heberen: *Heber*, Saleren:

36 *Sale*, Kainanen: *Kainan*, Arfakad-en: *Arfakad*, Semen: *Sem*, Noeren: *Noe*, Lamek-en:

37 *Lamek*, Mathusalaren: *Mathusala*, Henoken: *Henok*, Iared-en: *Iared*, Mahalaleel-en: *Mahalaleel*, Kainanen:

38 *Kainan*, Henosen: *Henos*, Seth-en: *Seth*, Adamen: *Adam*, Iainkoaren.

KAP. IIII.

2 Krist desertuan tentatu. 4 Bizitzea
Iainkoa baithan. 8 Iainkoa bera
adoratzeko eta zerbitzatzeko , 12
eta ez hura tentatzeko. 21 Kristezko
profetiak konplitu. 24 Profetarik bere
herrian ez gogarakorik. 26 Elias. 27
Naaman Sirianoa. 28 Nazarenoak
Kristez eskandalizatzen. 31 Kristek
Sabbathoez irakasten, eta 38
demoniatua, Pierrisen ama
ginharreba, 40 eta anhitz berzerik
sendatzen. 41 Deabruak Krist
ezagutzen eta aithortzen. 43 Krist
zertara igorri izan den.

1 Eta Iesus Espiritu sainduaz bethea parti
zedin Iordanetik, eta eraman zedin Espiritu beraz
desertura,

2 Eta *han* tenta zedin deabruaz berrogei egu-
nez: eta etzezan deus ian egun hek zirauteno,
baina hek iragan eta, gero gose zedin.

3 Orduan erran ziezon deabruak, baldin lainkoaren Semea bahaiz, errok harri huni ogi bilha dadin.

4 Eta ihardets ziezon lesusek, zioela, Eskribatua duk, ezen eztela ogi berez biziko gizona, baina lainkoaren hitz guziaz.

5 Orduan eramanik hura deabruak mendi gora batetara, erakuts zietzon munduko resuma guziak denbora moment batez.

6 Eta diotsa deabruak, Emanen drauat bothere hori guzia, eta *resuma* horien gloria: ezen niri eman izan ziaitadak, eta nahi dudanari emaiten diarokat.

7 Hik bada baldin adora banezak, hire izanen dituk guziak.

8 Eta ihardesten zuela lesusek erran ziezon, Gibelerat adi eneganik Satan: ezen eskribatua duk, Adoraturen duk eure lainko launa, eta hura bera zerbitzaturen duk.

9 Orduan eraman zezan Ierusalemera, eta ezar zezan tenpleko pinakle ganean: eta erran ziezon, Baldin lainkoaren Semea bahaiz, egotzak eure burua hemendik beherera.

10 Ezen eskribatua duk, bere Aingueruei kargu emanen drauela hizaz, hire begiratzeko:

11 Eta eskuetan eramanen autela, eure oinaz harrian behaztopa ezadinzat.

12 Baina ihardesten duela Iesusek diotsa, Errana duk, Eztuk tentaturen eure Iainko Iauna.

13 Gero tentatione guzia akabatu eta, deabrua parti zedin harenganik denbora batetarano-kotz.

14 Eta itzul zedin Iesus Espirituaren berthutez Galileara: eta haren fama ioan zedin inguruko komarka orotara.

15 Eta hura ari zen irakasten haien sinagogetan, guziek ohoratzen zutela.

16 Ethor zedin bada Nazarethera non hazi izan baitzen: eta sar zedin bere kostumaren araura Sabbath egunean sinagogan: eta iaiki zedin irakurtzera.

17 Eta eman zekion Esaias profetaren liburu-a: eta desplegatu zuenean liburua, eriden zezan lekua, non eskribatua baitzen,

18 Iauaren Espiritua da ene gainean, zeren unktatu bainau: paubrei ebanjelizatzer-a igorri nau, bihotzez hautsien sendatzer-a,

19 Kaptiboei larganzaren, eta itsuei ikustearen rekubramenduaren predikatzer, eta zaurtuen delibrantzatan ezartera, eta launaren urthe bozkariotakoaren predikatzer.

20 Eta plegaturik liburua rendatu zeraukanean ministreari, iar zedin: eta sinagogako guzien begiak haren gainera finkatuak ziraden.

21 Orduan has zekien erraiten, egungo egunean konplitu da Eskriptura haur zuen beharrietan.

22 Eta guziek testimoniaje emaiten zeraukaten, eta miraz zeuden haren ahotik ilkiten ziraden hitz gratiazkoez, eta erraiten zuten, Ezta haur Iosefen semea?

23 Eta erran ziezen, Frangoki erranen drautazue konparatione haur, Medikua, senda ezak eure burua: zerere gauza enzun baitugu egin izan diradela Kapernaum-en, egin itzak hemen ere eure hirian.

24 Eta dioste, Egiaz diotsuet, ezen Profetarik batre eztela gogarakorik bere herrian.

25 Baina egiaz erraiten drauzuet, anhitz *ema* alhargun zen Eliasen egunetan Israelen, zerua ertsi izan zenean hirur urthe eta sei hilebetheta-

kotz, *hala* non egin baitzedin gosete handia lur guziaren gainean.

26 Baina hetarik batetara ere etzen igorri izan Elias, Sarepta Sidoniako *hirira* baizen, emazte alhargun batgana.

27 Eta anhitz sorhaio zen Israelen Eliseo profetaren denboran, baina hetarik batre etzen xahutu izan Naaman Siriakoa baizen.

28 Orduan bethe zitezten guziak aserretasunez sinagogan, gauza hauk enzuten zituztenean.

29 Eta iaikirik egotz zezaten hura hiritik kanpora, eta eraman zezaten mendi gainera (zeinen gainean haien hiria edifikatua baitzen) gainetik behera egotz lezatenzat.

30 Baina hura haien artetik iraganik, ioan zedin.

31 Eta iauts zedin Kapernaum Galileako hirira, eta han irakasten zituen Sabbathoetan.

32 Eta espantatuak zeuden haren doktrinaren gainean: ezen autoritaterekin zen haren hitza.

33 Eta zen sinagogan gizon bat deabru satsuaren espiritua zuenik, eta iar zedin oihuz ozengi,

34 Zioela, Ah, zer da hire eta gure artean, Iesus Nazarenoa? gure desegitera ethorri aiz? bazeakiat nor aizen: *hi aiz* lainkoaren saildua.

35 Eta mehatxa zezan hura Iesus, zioela, Ixil adi, eta ilki adi horrengatik. Eta deabrua, hura artera egotzirik, ilki zedin harengatik, eta kalterik batre etziezon egin.

36 Eta espantamendu iar zedin guzietan, eta minzo ziraden elkarren artean, zioitela, Zer hitz da haur, autoritaterekin eta bothererekin manatzen baititu espiritu satsuak, eta ilkiten baitirade ?

37 Eta io zitzan haren famak herriaren inguruko komarka guziak.

38 Eta iaikirik Iesus sinagogatik, sar zedin Simonen etxean: eta Simonen ama-ginharreba edukiten zen helgaitz handi batez: eta othoitz zegiotez harengatik.

39 Eta haren garaitik zegoela mehatxa zezan helgaitza: eta utzi zezan hura *helgaitzak*: eta *hark* bertan iaikirik zerbitza zitzan.

40 Eta iguzki sartzean, anhitz eritasun motaz eririk zuten guziek ekar zitzaten harengana: eta

hark eskuak hetarik batbederari gainera ezarririk senda zitzan.

41 Deabruak ere ilkiten ziraden anhitzenagatik, oihuz zeudela, eta zioitela, Hi aiz Krist lainkoaren Semea. Baina *hark* mehatxatzen zituela, etzituen utziten erraitera, ezen bazeakitela hura zela Krist.

42 Eta argitu zenean ilkirik ioan zedin leku desertu batetara, eta jendetzeak haren bilha zabitzan, eta ethor zitezen hura baitharano: eta bazadukaten hura hetarik parti ezledinzat.

43 Baina hark erran ziezen, Berze hiriei ere ebanjelizatu behar drauet lainkoaren resuma: ezen hartakotzat igorri izan naiz.

44 Eta predikatzen zuen Galileako sinagogetan.

KAP. V.

*3 Kristek populua irakasten. 5
Arranzalek anhitz arrain hartu. 13
Kristek sorhaioa sendatu, 16 eta
desertuan othoitz egiten. 18*

*Paralitikoa. 20, 24 Fedea. Bekatuen
barkamendua. 27 Mattheu deithu.
31 Oso diradenez. 32 Iustoez.
Bekatoez. 34 Ezkonduaz. 35
Baruraz. 36 Abillamenduko pedazu
berriaz. 37 Mahatsarno berriaz, 39
eta zaharraz.*

1 Eta gertha zedin, populuak hura hertsen zuela lainkoaren hitzaren enzuteagatik, bera Jenesarethko lak bazterrean baitzegoen:

2 Eta ikus zitzan bi unzi lak bazterrean zeudela: eta hetarik ilkirik arranzalek sareak ikutzen zituzten:

3 Eta sarthurik unzi hetarik batetara, zein baitzen Simonena, othoitz zegion lurretit retina lezan apur bat: gero iarririk unzitik irakasten zituen jendetzeak.

4 Eta minzatzetik ixildu zen bezala, erran ziezion Simoni, eramak barnago, eta largaitzazue zuen sareak hatzamaitera.

5 Orduan ihardesten duela Simonak diotsa, Majistrua, gau guzian nekaturik eztiagu deus hartu: baina hire hitzera largaturen diat sarea.

6 Eta hori egin zutenean, enserra zezaten arrain mola handi bat: eta ethenzen zen haien sarea.

7 Eta keinu egin ziezen berze unziko lagunei, ethorririk lagun lekizten: eta ethor zitezen, eta bethe zitzaten bi unziak hundatzerano.

8 Eta *hori* ikusirik Simon Pierrisek egotz zezan bere burua Iesusen belhaunetara, zioela, Parti adi eneganik, launa, ezen gizon bekatorea nauk *ni*.

9 Ezen izidura batek har zezan hura eta harekin *ziraden* guziak, hartu zituzten arrain hatzamaitearen gainean, halaber lakes eta loanes Zebedeoren seme Simonen lagun ziradenak ere.

10 Orduan erran ziezon Simoni Iesusek, Eztuala beldurrik, oraindanik gizon hatzamaile izanen aiz.

11 Eta unziak leihorrera zituztenean guzia utzirik, hari iarreiki izan zaizkan.

12 Eta gertha zedin *hura* hiri batetan zela, huna, gizon sorhaiotasunez bethe bat *ethor baitzedin*: eta ikusi zuenean Iesus, bere burua begitharte gainera egotzirik othoitz zezan hura,

zioela, launa, baldin nahi baduk, xahu ahal neza-
kek.

13 Eta *Iesusek* eskua hedaturik hunki zezan hura, zioela, Nahi diat, aizen xahu. Eta bertan sorhaiotasuna parti zedin harenganik.

14 Eta hark mana zezan nehorri ezlerron: baina oha, *diotsa*, erakutsiezok eure burua Sakrifikadoreari, eta presenta ezak eure xahutzeagatik Moisesek ordenatu duen bezala haei testimoniajatan.

15 Eta harzazko proposa geroago aitzinago hedatzen zen, eta jendetze handiak biltzen ziraden enzutera, eta bere eritasunetarik harzaz senda litezenzat.

16 Baina bera retiratua zegoen desertuetan, eta othoitz egiten zuen.

17 Eta gertha zedin egun batez hura irakasten ari zela, fariseuak eta Legeko doktorak baitzeuden iarririk, zein ethor baitzitezzen Galileako eta Iudeako eta Ierusalemeko burgu guzietarik: eta launaren berthutea zen haien sendatzeko.

18 Orduan huna batzu, dakarkeitela ohean gizon bat zein baitzen paralitiko: eta zabiltzan

hura barnera ekarri nahaiz, eta haren aitzinean ezarri nahiz.

19 Eta erideiten etzutenean nondik hura barnera liroiten, jendetzearen kausaz, iganik etxe gainera, teuletarik erauts zezaten ohetxoarekin artera, lesusen aitzinera:

20 Eta haien fedea ikusi zuenean, erran ziezion, Gizona, barkatu zaizkik eure bekatuak.

21 Orduan has zitezen pensatzen Eskribak eta Fariseuak, zioitela, Nor da blasfemioak erraiten dituen haur? Nork barka ahal ditzake bekatuak lainkoak berak baizen?

22 Eta lesusek ezaguturik haien pensamenduak, ihardesten zuela erran ziezen, Zer pensatzen duzue zuen bihotzetan?

23 Zein da erraxago, erraitea, Barkatu zaizkik eure bekatuak: ala erraitea, laiki adi eta ebil adi?

24 Dakizuenzat bada ezen gizonaren Semeak baduela autoritate lurrean bekatuen barkatze-ko (diotsa paralitikoari) Hiri erraiten drauat iaiki adi, eta eure ohetxoa harturik habil eure etxerat.

26 Eta bertan iaikirik haien aitzinean, eta altxatu zuenean *bera* zetzan ohetxoan, ioan zedin bere etxerat, glorifikatzen zuela lainkoa.

26 Eta izidura batek har zitzan guziak, eta glorifikatzen zuten lainkoa: eta bethe zitezen beldurtasunez, erraiten zutela, Segur ikusi ditugu egun nehork uste etzitukeen gauzak.

27 Eta gauza haien buruan ilki zedin, eta ikus zezan publikano Lebi deitzen zenbat, peaje lekuan iarririk, eta erran ziezon, Arreit niri.

28 Eta *hura* gauza guziak utzirik iaiki zedin, eta iarreiki izan zaion.

29 Eta egin ziezon banket handi bat Lebig bere etxean, eta zen publikanoezko eta berze hekin mahainean iarririk zeudenezko konpainia handi bat.

30 Eta hetarik Eskriba eta Fariseu ziradenek murmuratzen zuten haren diszipunen kontra, zioitela, Zergatik publikanoekin eta jende bizi gaixtotakoekin iaten eta edaten duzue?

31 Eta ihardesten zuela lesusek erran ziezen, Oso diradenek eztute medikuren beharrik: baina gaizki daudenek.

32 Eznaiz ethorri iustoen deitzera, baina bekatoren, emendamendutara.

33 Eta hek erran ziezoten, Zergatik loanesen diszipuluek barur egiten dute maiz eta othoitz egiten, halaber Fariseuenek ere: baia hirek iaten eta edaten dute?

34 Eta hark erran ziezen, Barur erazi ahal ditzakezue ezkonduaren ganberako jendeak ezkondua hekin deno?

36 Baina ethorriren dirade egunak edekiren baitzaie ezkondua, orduan barur eginen dute egun hetan.

36 Gero konparatione bat ere erran ziezen, Nehork eztrauka eratxekiten abillamendu berri baten pedazua abillamendu zar bati: ezpere berriak ethenzen du: eta zarrarekin ezta akordatzzen berritik *den* pedazua.

37 Eta nehork eztu ezarten mahatsarno berria zahagi zarretan, ezpere mahatsarno berriak zathituren ditu zahagiak eta bera isuriren da, eta zahagiak galduren dirade:

38 Baina mahatsarno berria zahagi berrietan ezarteko da: eta biak begiratzen dirade.

39 Eta ezta nehor zaharretik edaten duenik, bertan berritik nahi duenik: ezen erraiten du, Zaharra hobe da.

KAP. VI.

1 Diszipuluak buruka idokiten ari. 9 Esku eiarha sendatu. 12 Kristek othoitz egiten. 14 Apostoluen izenak. 18 Eri anhitz sendatu. 20 Paubreak. 20 Kristgatik aflijituak. benedikatu. 23 Alokairuaz. 24 Abratsez. 27 Etsaien onhesteaz. 34 Prestatzeaz. 35 lainkoaren haur nolatan izanen. 35 Miserikordioso izateko. 37 Ez iujeatzeko baina barkatzeko, eta emaiteko. 42 Fitsa begian. Gapirioa. 43 Fruktutik arborea ezagutzen. 45 Bihotzetik heldu eginak. 49 Enzuna egiten dutenak, eta eztutenak.

1 Gertha zedin bada Sabbath *egun* bigarren lehenean, hura iragaiten baitzen ereinezetan gaindi: eta buruka idokiten ari baitziraden haren diszipuluak, eta iaten eskuez bihiturik.

2 Eta Fariseuetarik batzuk erran ziezen, Zergatik egiten duzue Sabbathoan egin sori eztena?

3 Orduan ihardesten zuea Iesusek erran ziezen, Eztuzue haur ere irakurri zer egin zuen Dabid-ek gosetu zenean bera eta harekin ziradenak?

4 Nola sarthu izan zen lainkoaren etxean eta propositioneko ogiak hartu zituen, eta ian zituen, eta eman ziezen harekin ziradenei ere: hetarik iatea Sakrifikadoren baizen sori eztelarik.

5 Gero erraiten zerauen, Gizonaren Semea iabe da Sabbathoaren ere.

6 Eta gertha zedin berze Sabbath batez ere hura sar baitzedin sinagogara, eta irakasten baitzuen: eta zen han gizon bat eta haren esku eskuina zen eihar.

7 Eta gogoatzen zuten hura Eskribek eta Fariseuek eia Sabbathoan senda lezakeenez, akusatione eriden lezatenzat haren kontra.

8 Baina bazeakizkian haien pensamenduak, eta diotsa gizon esku eiharra zuenari, laiki adi, eta ago zutik artean. Eta hura iaikirik egon zedin zutik.

9 Erran ziezen bada lesusek, Interrogaturen zaituztet *gauza batez*, Sabbathoetan ungi egitea da sori ala gaizki egitea? persona baten enparatzea ala galtzea?

10 Eta hetara guzietara inguru behaturik, diotsa gizonari, Hedezak eure eskua: eta hark egin zezan hala: eta senda zedin haren eskua berzea bezain.

11 Eta bethe zitezen erauzimenduz, eta elkarrekin minzo ziraden, zer leidioten Iesusi.

12 Eta gertha zedin egun hetan, ioan baitzedin mendira othoitz egitera, eta gau guzia *han* iragan zezan lainkoari othoitz egiten zeraukala.

13 Eta argitu zenean dei zitzan bere diszipuluak, eta hetarik hauta zitzan hamabi, zein Apostolu ere dei baitzitzan,

14 (Simon, Pierris ere deithu zuena, eta Andriu haren anaia: Iakes eta Ioanes: Filipe eta Bartholomeo:

15 Matheu eta Thomas: lakes Alfeoren *semea*, eta Simon Zelotes deitzen dena,

16 Iudas lakesen *anaiea*: eta Iudas Iskariot, traidore ere izan zena)

17 Eta iautsirik hekin, geldi zedin leku plano batetan, bere diszipunuzko konpaniarekin, eta populu mulzo handirekin Iudea guzitik, eta Ierusalemetik, eta Tirko eta Sidongo itsas bazterretik, zein ethorri baitziraden hura enzun lezatenzat, eta bere eritasunetarik senda litezenzat:

18 Eta espiritu satsuez tormentatzen ziradenak: eta senda zitezen.

19 Eta populu guzia hura hunki nahiz zabilan: ezen berthute harenganik ilkiten zen: eta sendatzen zituen guziak.

20 Orduan hark bere begiak diszipunuetarat altxaturik, erraiten zuen, Dohatsu *zarete* pau-break: zeren zuen baita lainkoaren resuma.

21 Dohatsu *zarete* orain gose zaretenok: zeren aseren baitzarete. Dohatsu *zarete* orain nigarrez zaudetenok: zeren irri eginen baituzue.

22 Dohatsu izanen zarete, gizonek gaitzetsiren zaituztenean, eta iraitziren eta iniuriaturen

zaituztenean, eta zuen izena gaixto bezala iraitziren dutenean, gizonaren Semearen kausaz.

23 Alegera albeitzinteizte egun hartan, eta bozkarioz iauz: ezen huna, zuen saria handi *da* zeruetan: ezen halaber egiten zerauezen profetei haien aitek.

24 Baina malediktione zuei abratsoi: ezen baduzue zuen konsolationea.

25 Malediktione zuei betheak zaretenoi: ezen gose izanen zarete. Malediktione zuei orain irriz zaudetenoi: ezen auhen eta nigar eginen duzue,

26 Malediktione zuei, gizon guziek onharranen zaituztenean: ezen molde berean egiten zerauezen profeta falsuei haien aitek.

27 Baina zuei diotsuet danzuzuenoi, Onhets itzazue zuen etsaiak: ungi egiezue gaitzesten zaituztenei.

28 Benedikaitzazue zuek maradikatzen zaituztenak: eta othoitz egizue oldartzen zaizkizuenakgatik.

29 Eta mathela batean ioiten auenari, paraiezok berzea ere: eta eure mantoa edekiten drauanari, iaka ere eztiezoala debeta.

30 Eskatzen zauan guziari emok, eta eurea edekiten drauanari, ezakiola *haren* eska.

31 Eta nola nahi baituzue egin diezazuen zuei gizonek, zuek ere egiezue haiei halaber.

32 Ezen baldin onhesten badituzue zuek onhesten zaituztenak, zer esker dukezue? ezen bizitze gaixtotakoek ere bere onhesleak onhesten dituzte.

33 Eta baldin ungi badagiezue zuen ungi gilei, zer esker dukezue? ezen bizitze gaixtotakoek ere hura bera egiten dute.

34 Eta baldin presta badiezezue rendaturen drauzuela esperanza duzuenei, zer esker dukezue? ezen bizitze gaixtotakoek ere bizitze gaixtotakoei prestatzen draue, ordaina rezebi dezatenzat.

35 Bada onhets itzakue zuen etsaiak, eta ungi egiezue: eta presta ezazue, deus handik esperanza gabe: eta zuen saria izanen da handi, eta izanen zarete Subiranoaren seme: ezen hura benigno da ingratetara eta gaixtoetara.

36 Zareten beraz miserikordioso, zuen Aita ere miserikordioso den bezala.

37 Eztezazuela iudika, eta etzarete iudikatur-
ren: eztezazuela kondemna eta etzarete kon-
demnaturen: barka ezazue, eta barkaturen zai-
zue.

38 Emazue eta emanen zaizue: neurri ona
galkatua, eta higitua, eta mukurru doana ema-
nen zaizue zuen Golkora: ezen neurtzen duzen
neurri beraz, neurthuren zaizue zuei ere aldiz.

39 Halaber erraiten zerauen konparatione
bat, Posible da itsuak itsua gida ahal dezan? ezti-
ra biak hobira eroriren?

40 Ezta diszipulua bere majistruaren gaine-
ko: baina nor ere *izanen baita diszipulu* perfekt,
izanen da majistru bezala.

41 Eta, zergatik dakusak eure anaieren begi-
ko fitsa, eta eure begiko, gapirioari ez atzaio
ohartzen ?

42 Edo nola ahal derrakeok eure anaieri,
Anaie, utzi nezak idoki dezadan hire begian den
fitsa, eurrorrek hire begian den gapirioa ikusten
eztuanean? Hipokrita, idokak lehenik gapirioa
eure begitik: eta orduan ikusiren duk idoki dezan
eure anaieren begiko fitsa.

43 Segur ezta arbore ona, fruktu gaixtoa egiten duena: ez eta arbore gaixtoa, fruktu ona egiten duena.

44 Ezen arbore guzia fruktutik ezagutzen da. Ezen elhorrietarik eztute biltzen fikorik, ezeta saporretarik, mendematzen mahatsik.

45 Gizon onak bere bihotzeko thesaur onetik idokiten du gauza ona: eta gizon gaixtoak bere bihotzeko thesaur gaixtotik idokiten du gauza gaixtoa: ezen bihotzeko abundantiatik haren ahoa minzo da.

46 Baina zergatik deitzen nauzue launa, launa: eta ez egiten, *nik* erraiten ditudanak?

47 Enegana ethorten den guzia, eta ene hitzak enzuten eta hek egiten dituenak: erakutsiren drauzuet nor irudi den.

48 Irudi du etxe bat edifikatzen duen gizona, zeinek aitzurtu eta barna ireki baitu, eta ezarri fundamenta arroka baten gainean: eta soberna ethorriarik, flubioak erezarri ukan drauka etxe hari, eta ezin higitu du: ezen arroka gainean fundatua zen.

49 Baina enzun ukan dituenak, eta ez egin, irudi du fundament gabe bere etxea lur gainean

edifikatu duen gizona: zeini erezarri baitrauka flubioak, eta bertan erori izan da, eta etxe haren desegitea handi izan da.

KAP. VII.

2 Zenteneraren zerbitzariaz, 9 eta fedeaz. 11 Alhargunaren semea resusztatuta. 16 Krist Profeta. 19 Ioanesez Iesusgana igorten. 22 Paubrei, Ebanjelioa zaie predikatzen. 23 Kristean eskandalizaturen eztena dohatsu. 29 Iainkoaren iustificatzea. 32 Merkatuko haur iarririk daudenez. 36 Kristek Fariseuarekin iaten. 37 Emazte bekatoresa. 41 Bi zordunak. 47 Onheriztea. 48 Bekatuen barkamendua. 50 Sinhestea.

1 Eta akabatu zituenean bere hitz guziak populuak zanzuela, sar zedin Kapernaumen.

2 Eta Zentener baten zerbitzaria eri izanez hiltzera zohian, zein baitzuen guziz maite.

3 Eta hark enzun zuenean lesusez, igor zitzan harengana luduen Anzianoak, othoiztez zaiola, ethorririk senda lezan haren zerbitzaria.

4 Eta hek ethorri ziradenean Iesusgana, othoitz zegioten afektionatuki, zioitela, ezen digne zela nehork hura aithor liezon.

5 Ezen maite dik, *zioiten*, gure nationea eta sinagoga bat hark edifikatu diraukuk.

6 Iesus bada ioan zedin hekin. Baina ia etxetik urrun handi etzela, Zentenerak igor zitzan adiskideak harengana, ziotsala, launa, ezadila neka: ezen eznauk digne ene atharbe pean saradin.

7 Halakotz neure burua ere eztiat digne estimatu hiregana ethorteko: baina errak hitza, eta sendaturen baita ene muthilla.

8 Ezen ni nauk *berzeren* meneko gizon, ditudalarik neure meneko jendarmesak: eta huni erraiten diarokat, oha, eta badihoak: eta berzeari, Athor, eta ethorten duk: eta neure zerbitzariari Egik haur, eta egiten dik.

9 Eta gauza hauk enzunik lesusek mirets zezan harzaz: eta itzulirik erran ziezon berari

zarreikan konpaniari, Erraiten drauzuet, Israelen ere eztudala hain fede handirik eriden.

10 Eta igorri izan ziradenek, etxera itzuli ziradenean, eriden zezaten zerbitzari eri izana sendorik.

11 Eta gertha zedin biharamunean Iesus ioaiten baitzen Naim deitzen zen hirira: eta ioaiten ziraden harekin haren diszipuluetarik ungisko, eta jendetze handia.

12 Eta hiriko portaleari hurbildu zaion bezala, huna, eramaiten zuten hil bat, bere ama alhargunaren seme bakoitza, eta hiritik konpania handia zen harekin.

13 Eta *alhargun* hura ikusi zuenean launak, konpasiune har zezan haren gainean, eta erran ziezon, Eztaginala nigarrik.

14 Eta hurbildurik hunki zezan kutxa, (orduan gorputza zaramatenak geldi zitezten) eta erran zezan, Gizon gaztea, hiri diosat, iaiki adi.

15 Eta iar zedin hil izana, eta has zedin minzaten. Eta eman ziezon hura bere amari.

16 Eta har zitzan guziak beldur batek, eta glorifikatzen zuten lainkoa, erraiten kutela,

Segur Profeta handi bat iaiki izan da gure artean, eta segur lainkoak bisitatu du bere populua.

17 Eta io zezan harzazko fama hunek Iudea guzia eta inguruko komarka guzia.

18 Eta konta zietzoten loanesi bere diszipuluek gauza hauk guziak.

19 Eta deithurik bere diszipuluetarik biga loanesek igor zitzan Iesusgana, zioela, Hi aiz ethorteko zen hura, ala berze baten begira gaude?

20 Eta ethorririk harengana gizon hek erran zezaten, loanes Baptistak igorri gaitik hiregana, dioela, Hi aiz ethorteko zena, ala berze baten begira gaude?

21 Eta ordu berean anhitz senda zezan eritasunetarik, eta plagetarik, eta espiritu gaixtoetarik eta anhitz itsuri ikustea eman ziezen.

22 Gero ihardesten zuela Iesusek erran ziezen, Ioanik konta ietozue loanesi ikusi eta enzun dituzuen gauzak: ezen itsuek ikustea dutela rezebitzen, mainguak diradela ebiltzen, sorhaioak diradela xahutzen gorrek dutela enzuten, hilak diradela resuszitatzen, paubrei zaiela Ebanjelioa predikatzen.

23 Eta dohatsu da eskandalizaturen eztena nitan.

24 Eta partitu ziradenean loanesen mandatariak, has zekion, loanesez populuari erraiten, Zeren ikustera ilki izan zarete desertura? kana-bera haizeaz erabilten den baten?

25 Baina zeren ikustera ilki izan zarete? gizon abillamendu preziosoz beztitu baten? huna, abillamendu preziosoetan, eta delizioetan diradenak, regen palazioetan dirade.

26 Baina zeren ikustera ilki izan zarete? Profeta baten? bai diotsuet eta Profeta bainoagoaren.

27 Haur da zeinez eskribatua baita, Huna, nik igorten diat neure mandataria hire begitharte aitzinean, zeinek hire bidea apainduren baitu hire aitzinean. 28 Ezen erraiten drauzuet, emaztetarik iaio diradenen artean eztela Profetarik batre loanes Baptista baino handiagorik: badarik ere lainkoaren resuman xipien dena hura baino handiago da.

29 Orduan populu guziak *hori* enzunik eta publikanoek iustificatzen zezaten lainkoa, batheiatu izanik loanesen baptismoaz.

30 Baina Fariseu eta Legeko doktor harengatik batheiatu etziradenek lainkoaren konseillua arbuia zezaten bere buruen kontra.

31 Orduan erran zezan launak, Norekin bada konparaturen ditut jeneratione hunetako gizonak? eta zer irudi dute?

32 Merkatuan iarririk dauden, eta bata berzeari oihuz dagozkan haurtxoak bezalako dirade zeinek baitioite, Xirula soinu egin drauzuegu, eta etzarete danzatu: eresiz kantatu drauzuegu eta eztuzue nigarrik egin.

33 Ezen ethorri da loanes Baptista, ogirik iaten eztuela, ez mahatsarnorik edaten, eta diozue, Deabrua du.

34 Ethorri da gizonaren Semea iaten eta edaten duela: eta diozue, Huna gizon gormanta eta hordia, eta publikanoen eta bizitze gaixtotakoen adiskidea.

35 Baina iustificatu izan da sapientia bere haur guziez.

36 Eta othoitz egin ziezon Fariseu batek harekin ian lezan, eta sarthurik Fariseuaren etxean, iar zedin mahainean.

37 Eta huna, hirian emazte bizitze gaixtotako zen batek iakin zuenean, ezen hura Fariseuaren etxean mahainean iarria zela, ekar zezan boeita bat ungentu,

38 Eta gibeletik haren oinetara zegoela, has zedin nigarrez zegoela haren oinen nigar uriz arregatzen: eta ixukatzen zerauzkan bere buruko adatsaz, eta pot egiten zerauen haren oinei, eta ungentuz ungenstatzen zituen.

39 Orduan *hori* ikusirik hura gomitatu zuen Fariseuak erran zezan bere baithan, ziola, Hunek, baldin Profeta baliz balakike segur nor eta nolakoa den haur hunkitzen duen emaztea: ezen bizitze gaixtotakoa da.

40 Eta ihardesten zuela Iesusek erran ziezon, Simon, badiat zerbait hiri erraitekori. Eta hark dio, Majistrua, errak.

41 Hartzedun batek zitian bi zordun, batak zian zor borz-ehun dinero, eta berzeak berrogei eta hamar.

42 Eta hek ez ukanez nondik paga, kita ziez-ean biei. Hautarik bada, errak, zeinek hura mai-teago ukanen du?

43 Eta ihardesten zuela Simonek erran zezan, Uste diat ezen gehiago kitatu izan zaionak. Eta hark erran ziezon, Bidezki iujeatu duk.

44 Eta emazteaganat itzulirik erran ziezon Simoni, Badakusak emazte haur? hire etxean sarthu izan nauk, urik ene oinetara eztuk eman: baina hunek ene oinak nigar uriz arregatu zitik, eta bere buruko adatsaz ixukatu.

45 Pot bat niri eztrautak eman, baina haur, sarthu naizenaz geroztik, eztuk ene oinei pot egitetik gelditu.

46 Olio ez burua eztuk unktatu: baina hunek ungentuz unktatu zitik ene oinak.

47 Halakotz erraiten drauat barkatu zaizkala bere bekatu anhitzak, ezen hagitz onhetsi dik: eta gutiago barkatzen zaionak gutiago onhesten dik.

48 Gero emazteari erran ziezon, Barkatu zaizkin eure bekatuak.

49 Eta has zitezen elkarrekin mahainean iarririk zeudenak, bere artean erraiten, Nor da haur bekatuak ere barkatzen baititu?

50 Baina emazteari erran ziezon, Eure fedek salbatu au: oha bakerekin.

KAP. VIII.

1 Kristek predikatzen. 3 Emaztek
Kristi zerbitzu egiten. 5, 11
Ereillearen konparationea. 10
Iainkoaren resumako sekretuen
ezagutzea. 13 Tentationez 14
Ansiez. Abrastasunez. Boluptatez. 16
Lanpa. 21 Kristen ama eta anaieak.
24 Kristek haizeak mehatxatzen. 27
Demoniatua sendatzen. 37
Gadarenoek Krist arbuiatzen. 41
Iairusen alaba. 43 Emazte odol
iariatzez eri zena sendatu. 48
Fedeak enparatzen. 50 Krist
sinhestearen galdez egon. 52
Hilagatik nigarrez. Io datzala Kristek
erraiten.

1 Eta gero gertha zedin hura ioaiten baitzen
hiriz hiri, eta burguz burgu, predikatzen eta

ebanjelizatzen zuela lainkoaren resuma eta hamabiak *ziraden* harekin:

2 Eta emazte batzu harzaz espiritu gaixtoetarik, eta eritasunetarik sendatuak, Maria deitzen zena Magdalena, zeinaganik zazpi deabru ilki izen baitziraden,

3 Eta Ioana Herodesen prokuradore. Kuz *deitzen zenaren* emaztea, eta Susana, eta berzerik anhitz bere onetarik hura aiutatzen zutenik.

4 Eta nola jendetze handia biltzen baitzen, eta hiri guzietarik anhitz harengana ioaiten, erran zezan konparationez,

5 Ilki zedin ereille bat bere haziaren ereitera: eta ereitean parte bat eror zedin bide bazterre-ra: eta aurizki izan zen, eta zeruko xoriek irets zezaten hura.

6 Eta berze *parte bat* eror zedin harri gainera, eta sorthurik eihar zedin, zeren ezpaitzuen hezetasunik:

7 Eta berze *parte bat* eror zedin elhorri arte-ra: eta harekin batean sorthurik elhorriek itho zezaten hura.

8 Eta berzea eror zedin lur onera: eta sorthurik egin zezan fruktu ehunetan hanbat. Hauen

erraiten oihuz zegoen, Enzuteko beharrik duenak, enzun beza.

9 Eta interrogatzen zuten bere diszipuluek erraiten zutela, zerik zen konparatione hura.

10 Eta hark erran ziezen, Zuei eman zaizue lainkoaren resumako misterioen ezagutzea: baina berzei konparationez, dakusatelarik ikus eztezaten, eta danzutelarik adi eztezaten.

11 Haur da bada konparationea, Hazia da lainkoaren hitza.

12 Eta bide bazterrekoak dirade, enzuten dutenak: gero ethorten da deabrua, eta kenzen du hitza haien bihotzetik, sinhetsirik salba ezтитеzenzat.

13 Eta harri gainekoak dirade, enzun dute-nean bozkariorekin rezebitzen dutenak hitza: baina hauk errorik ezтute, hauk denboratakotz sinhesten дute, eta tentationeko denboran retiratzen dirade.

14 Eta elhorri artera erori dena, hauk dirade enzun dutenak: baina partitu eta, ansiez eta abrastasunez eta bizitze *hunetako* boluptatez ithotzen dirade, eta ezтute frukturik ekarten.

15 Baina lur onera *erori* dena, hauk dirade bihotz honestean eta onean hitz enzuna edukiten dutenak eta fruktu patientiatan ekarten dutenak

16 Eta nehork argia biztu duenean, eztu hura unzi batez estaltzen, edo ohe azpian ezarten: baina kandeler gainean ezarten du, sartzen diradenek argia ikus dezatenzat.

17 Ezen ezta sekreturik, agerturen eztenik: ez estalirik, ezaguturen, eta argira ethorriren eztenik.

18 Ikus-azue bada nola enzuten duzuen: ezen nork ere baitu hari emanen zaio: eta nork ere ezpaitu, duela uste duena ere edekiren zaio hari.

19 Orduan ethor zitezen harengana haren ama eta haren anaieak, eta jendetzearen kausaz ezin hers zekidizkion.

20 Eta deklaratu zekion, erraiten zeraukatela, Hire ama, eta hire anaieak lekorean diaudek, hi ikusi naiz.

21 Baina hark ihardesten zuela erran ziezen, Ene ama eta ene anaie dirade lainkoaren hitza enzuten eta egiten dutenak.

22 Eta gertha zedin egun batez, hura sar baitzedin unzian eta haren diszipuluak: eta erran ziezen, Iragan gaitezen lakaren berze aldera. Eta parti zitezen.

23 Eta unzian hek ioaiten ziradela, loak har zezan: eta iauts zedin haizezko tormenta bat lazera: eta *urez* bethatzen ziraden, eta peril zuten.

24 Orduan hurbildurik iratzar zezaten hura, zioitela, Majistrua, Majistrua, galdu gihoazak. Eta hark iratzarririk mehatxa zitza haizea eta uraren tenpesta: eta zesa zitezen, eta sosagu handia egin zedin.

25 Eta erran ziezen, Non da zuen fedea? Hek iziturik zeudela mirets zezaten, zioitela elkarren artean, Baina nor da haur, haizeak eta ura mantzen baititu eta obeditzen baitute?

26 Gero tira zezaten Gadarenoen komarkarat, zein baita Galilearen aurkaz aurk.

27 Bada hari lurrera ilki eta, bat zekion hiri hartako gizon denbora luzez geroz deabrua zuen bat: eta abillamenduz etzen beztitzen, eta etxetan etzen egoiten, baina thunbetan.

28 Eta *hark* ikusi zuenean Iesus, heia goraz zegoela, egotz zezan bere burua haren aitzinera, eta ozengi erran zezan, Zer da hire eta ene artean, Iesus lainko subiranoaren Semea? othoitz egiten drauat, eznezala, tormenta.

29 Ezen manatzen zuen espiritu satsua gizonaganik ilki ledin: ezen denbora luzez eduki zuen hura: eta estekaturik kadenaz eta zepoez begiratzzen zen: baina estekailuak zathiturik eramaiten zen deabruaz desertuetara.

30 Orduan interroga zezan hura Iesusek, zioela, Nola duk izen? Eta *hark* erran zezan, Lejione. Ezen anhitz deabru sarthu ziraden hura baithan.

31 Eta othoitz egiten zeraukaten, ezlitzan mana abismora ioaitera.

32 Eta zen han urdalde handi bat alha zenik mendian: eta othoitz egiten zeraukaten permeti liezen hetara sartzera: eta permeti ziezen.

33 Ilkirik bada deabruak gizonaganik sar zitezzen urdetara: eta urdaldea oldar zedin gainetik behera lak-era, eta itho zedin.

34 Eta urdaineke ikusi zutenean zer egin izan zen, ihes egin zezaten: eta partiturik konta zezaten hirian eta kanpoetan.

35 Orduan *jendeak* ilki zitezen egin izan zenaren ikustera, eta ethor zitezen lesusgana, eta eriden zezaten gizona zeinetarik deabruak ilki izan baitziraden, beztitua, eta zenzatua, iarri-rik zegoela Iesusen oinetara: eta izi zitezen.

36 Eta konta ziezen haei ikusi ukan zutenek ere, nola sendatu izan zen demoniatu izana.

37 Orduan othoitz egin ziezoten Gadarenoen aldiri inguruko jendetze guziak, parti ledin heta-rik: ezen izidura handik hartu zituen: eta hura unzira sarthurik, itzul zedin.

38 Eta othoitz zegion gizon hark, zeinaganik ilki izan baitziraden deabruak, harekin lizen: baina Iesusek igor zezan, zioela,

39 Itzul adi eure etxera, eta konta ezak zein gauza handiak egin drauzkian lainkoak. Ioan zedin bada hiri guzitik predikatzen zituela Iesu-sek egin zerauzkan gauza guziak:

40 Eta gertha zedin itzuli zenean Iesus, reze-bi baitzezan jendetzeak: ezen guziak haren begi-ra zeuden.

41 Orduan huna, ethor zedin Iairus deitzen zen gizon bat, eta hura zen sinagogako prinzipal:

eta egotzi zuenean bere burua lesusen oinetara, othoitz egin ziezon sar ledin haren etxera:

42 Ezen alaba bakoitz bat zuen hamabi urt-heren ingurukoa, eta hura zohian hiltzera. Eta ioaitean jendetzeak hertsen zuen.

43 Eta hamabi urthez geroztik odola baratzen etzaion, eta medikuetan bere sustantia guzia despendatu zuen, eta batez ere ezin sendatu izan zen emaztebategi,

44 Hurbildurik gibeletik hunki zezan haren arropa ezpaina eta bertan geldi zedin haren odol iariatzea.

45 Orduan dio lesusek, Nor *da* ni hunki nauena? Eta guziek ukatzen zutenaren gainean, erran zezan Pierrisek, eta harekin ziradenek, Majistrua, jendetzek hertsen eta aurizkiten aute, eta diok, Nor *da* ni hunki nauena?

46 Baina lesusek dio, Norbaitek hunki nau ezen ezagutu dut berthute eneganik ilki izan dela.

47 Emazte hura bada ikusirik ezen etzaiola estali izan, ethor zedin ikara zabilala: eta bere burua haren aitzinera egotzirik deklaratu ziezon

populu guziaren aitzinean zer kausaz hura hunki
zuen, eta nola sendatu izan zen bertan.

48 Eta hark erran ziezon, Alaba aun bihotz on
eure fedea sendatu au: oha bakerekin.

49 Oraino hura minzo zela, ethor zedin zen-
beit sinagogako prinzipalarenetik, hari ziotsala,
Hil izan duk hire alaba: eztezala fatiga Majistrua.

50 Baina Iesusek enzunik ihardets ziezon
neskatxaren aitari. Ezaizela beldur, sinhets ezak
solament, eta hura sendaturen baita.

51 Eta etxera sarthurik, etzezan nehor sar-
tzera utzi Pierris eta laces eta loanes eta neska-
txaren aita eta ama baizen,

52 Eta nigarrez zeuden guziak, eta lamenta-
tzen zuten: baina hark erran zezan, Eztagizuela
nigarrik: ezta hil, baina lo datza.

53 Eta trufatzen ziraden harzaz, hil zela iaki-
nez.

54 Eta hark, guziak kanpora iraitzirik, eta
haren eskua harturik, oihu egin zezan, zioela,
Neskatxa, iaiki adi.

55 Eta itzul zedin haren espiritua, eta iaiki
zedin bertan: eta mana zezan eman lekion iate-
ra.

56 Eta espanta zitezten haren aita-amak:
baina hark mana zitzan nehoi ezlerroten egin
izan zena.

KAP. IX.

*1 Apostoluak predikatzera igorri. 7,
18 Nehork Kristez duen opinioea.
12 Borz ogiezeko mirakulua. 20
Apostoluen aithorra. 23 Nork bere
buruaz renuntiatzeko. 26 Kristez
ahalke izatea. 28 Haren
transfigurationea. 35 Kristi
behatzeko. 42 Lunatikoa sendatu. 44
Bere pasioea Kristek aitzinetik
erraiten. 46 Zein gehien izanen lizen
Apostoluek iharduki. 53
Samaritanoek Krist ez rezebitzen. 55
Mendekioa. 56 Kristek salbatzen. 62
Eskua goldean.*

1 Gero deithurik elkarrekin bere hamabi dis-
zipuluak, eman ziezen bothere eta autoritate

deabru guzien gainean, eta eritasunen sendatze-ko.

2 Eta igor zitzan hek lainkoaren resumaren predikatzer, eta erien sendatzer.

3 Eta erran ziezen, Eztezazuela deus eraman bidekotzat, ez uherik, ez maletarik, ez ogirik, ez dirurik, eta eztuzuela bira arropa.

4 Eta zein ere etxetan sarthuren baitzarete, han zaudete, eta handik ilki albaizindezte.

5 Eta nork ere rezebituren ezpaitzaituzte, ilki-rik hiri hartarik, zuen oinetako erhautsa ere iharros ezazue testimoniajetan haien kontra.

6 *Hek* bada ilkirik ioaiten ziraden burguz burgu, ebanjelizatzen eta sendatzen zutela leku guzietan.

7 Eta enzun zitzan Herodes tetrarkak, hark egiten zituen gauza guziak: eta dudatzen zuen, zeren batzuk erraiten baitzuten, ezen loanes hiletarik resuszitatu zela.

8 Eta batzuk Elias agertu zela: eta berzek, zenbeit lehenagoko Profetarik resuszitatu zela.

9 Orduan dio Herodesek, loanesi nik burua edeki draukat: nor da bada haur, zeinez nik bai-

tanzuzkit hunelako gauzak? Eta hura ikusi nahiz zabilan.

10 Eta itzulirik Apostoluek konta zietzoten Iesusi, egin zituzten gauza guziak. Orduan hek harturik retina zedin *Iesus* apart. Bethsaida deitzen den hiriko leku desertu batetara.

11 Eta jendetzeak *hori* iakinik, iarreiki zaizkan, eta rezebitu zituenean, minzaten zaien lainkoaren resumaz: eta sendatu behar zutenak, sendatzen zituen.

12 Eta eguna has zedin beheratzen: eta hurbildurik hamabiek erran ziezoten, Eiek konjit jendetzei, ioanik inguruko burguetara eta parropioetara, retina ditezen, eta eriden dezaten iateko, ezen hemen leku desertuan gaituk.

13 Baina erran ziezen, Eiezue zuek iatera. Eta hek erran zezaten, Eztitiagu borz ogi eta bi arrain baina gehiago: Baldin guk ioanik populu hunen guziaren eros ezpadezagu iateko.

14 Ezen baziraden borz milla gizonetarano. Orduan dioste bere diszipunuei, lar erazi itzazue mahaindaraz berrogei eta hamarna.

15 Eta hala egin zezaten, eta iar zitezen guziak.

16 Orduan harturik borz ogiak eta bi arrainak, zerurat beha zegoela benedikta zitzan hek: eta hauts zitzan, eta eman zieten diszipunuei, populuaren aitzinean ezar litzatzenat.

17 Ian zezaten bada guziek, eta resasia zitezten: eta goititu izan dirade soberatu izan zaizten zathietarik hamabi saskitara.

18 Eta gertha zedin, hura apart othoitz egiten zegoela, diszipunuak harekin baitziraden eta interroga baitzitzan hek, zioela, Ni nor naizela dioite jendek?

19 Eta hek ihardesten zutela erran zezaten, Ioanes Baptista: eta berzek, Elias: eta berzek, ezen zenbeit Profeta lehenagokoetarik resuszitatu izan dela.

20 Eta erran ziezen, Eta zuek nor naizela ni diozue? Ihardesten zuela Simon Pierrisek erran zezan, Krist lainkoarena.

21 Orduan hark mehatxatzen zituelarik mana zitzan nehoi haur ezlerroten:

22 Zioela, Behar da gizonaren Semeak anhitz sufri dezan, eta reprobata dadin Anzianoez eta Sakrifikadore prinzipalez, eta Eskribez, eta hil dadin, eta hereneko egunean resuszita dadin.

23 Gero erraiten zerauen guziei. Baldin nehor hor ene ondoan ethorri nahi bada, renuntia beza bere buruaz, eta har beza bere krutzea egun oroz, eta berrait niri.

24 Ezen nork ere nahi ukanen baitu salbatu bere bizia: galduren du hura: baina nork ere galduren baitu bere bizia ene kausaz, salbaturen du hura.

25 Ezen zer probetxu du gizonak baldin mundu guzia irabaz badeza, eta bere burua destrui dezan, eta gal dadin?

26 Ezen nor ere ahalke izanen baita nizaz eta ene hitzez, harzaz ahalke izanen da gizonaren Semea, dathorrenean bere maiestatean, eta Aitarenean eta Aingeru sainduenean.

27 Eta erraiten drauzuet egiaz, badirade hemen present diradenotarik batzu, herioa dastaturen eztutenik lainkoaren resuma ikus dezaketeno.

28 Eta gertha zedin, hitz hauzaz geroztik kuasi zortzi egunen buruan, har baitzitzan Pierris eta loanes eta lakes, eta igan baitzedin mendi batetara othoitz egitera.

29 Eta othoitz egiten zegoela, haren begit-harteko forma mutha zedin, eta haren abillamendua xurit eta xist-mista bezain argit.

30 Eta huna, bi gizon minzo ziraden harekin, zein baitziraden Moises eta Elias:

31 Hauk agerturik gloriarekin, erraiten zuten, hark Ierusalemen konplitzeko zuen fina.

32 Eta Pierris, eta harekin ziradenak, ziraden logalez kargatuak: eta iratzartu ziradenean, ikus zezaten haren maiestatea, eta harekin zeuden bi gizonak.

33 Eta gertha zedin, hek partitu ziradenean harenganik: Pierrisek erran baitziezon Iesusi, Majistrua, on duk gu hemen garen, egin ditzagun bada hirur tabernakle, bat hire, eta bat Moisesen, eta bat Eliasen: Etzakiala zer minzo zen.

34 Eta hark gauza hauk erraiten zituela, egin zedin hodei bat, eta estal zitzan hek: eta izi zitezzen hodeiean sartzen ziradenean.

35 Orduan boz bat egin zedin hodeietik, zioela, Haur da ene Seme maitea, huni beha zakizkiote.

36 Eta boz hura egiten zela, eriden zedin Iesus bera: eta hek ixilik egon zitezen, eta egun

hetan etziezoten neheri deus erran ikusi zituzten gauzetarik.

37 Eta gertha zedin ondoko egunean, hek menditik iausti ziradenean, jendetze handi bat enkontrura ilki baitzekion hari.

38 Eta huna, konpainiako gizon bat oihuz iar zedin, zioela, Majistrua, othoitz egiten drauat beha-ezak ene semeaganat: ezen haur bera bai-zen eztiat.

39 Eta huna, espirituak hartzen dik, eta bertan heiagoraz iarten duk, eta zathikatzen dik haguna dariola, eta huneganik nekez partitzen duk, haur hausten duela.

40 Eta othoitz egin diraueat hire diszipuluei, egotz lezaten hura kanpora: baina ezin egin die.

41 Eta ihardesten duela lesusek dio, O natio-ne inkredula eta gaixtoa, noizdrano finean zuekin izanen naiz eta suportaturen zaituztet? Ekar-rak huna eure semea.

42 Eta oraino hurbiltzen zela hauts zezan hura deabruak eta zathika: eta mehatxa zezan lesusek espiritu satsua, eta senda zezan haurra, eta renda ziezon bere aitari.

43 Eta espanta zitezten guziak lainkoaren berthute guzizko handiaren ganean. Eta guziak mirakuluz zeudela, egiten zituen gauza guzien ganean, erran ziezen bere diszipuluei,

44 Ezar itzazue zuek hitz hauk zuen beharrietan: ezen izanen da gizonaren Semea liuraturen baita gizonen eskuetara.

45 Baina hek hitz haur etzuten aditzen, eta hetarik estalia zen, *hala* non ezpaitzuten hura senditzen: eta beldur ziraden haren interroga-tzera hitz hunezaz.

46 Gero sar zitezten elkarrekin disputan, eia hetarik zein zen handiena.

47 Eta lesusek haien bihotzeko pensamendua ikusi zuenean, haurtxo bat harturik ezar zezan bere aldean:

48 Eta erran ziezen, Nork ere rezebituren baitu haurtxo haur ene izenean, ni rezebitzen nau: eta nork ere ni rezebituren bainau, ni igorri nauena rezebitzen du: ezen nor baita xipiena zuen guzion artean, hura izanen da handi.

49 Eta ihardesten zuela loanesek erran zezan, Majistrua, ikusi diagu norbeit hire izenean

deabruak kanpora egoizten zituenik: eta debetatu diagu hura, zeren ezpaitarreik gurekin hiri.

50 Orduan erran ziezon Iesusek, Eztezazuela debeta, ezen gure kontra eztena gure alde da.

61 Eta gertha zedin, haren goiti altxatzeko egunak konplitzen ziradenean, orduan xuxent baitzezan bere begithartea *gogo eginik* Ierusalem-
mera ioaitera.

52 Eta igor zitzan mandatariak bere aitzinean, eta ioanik sar zitezzen Samaritanoen burgu batetan, *ostatu* apain liezotenzat:

53 Baina etzezaten rezebi, zeren haren begithartea baitzen Ierusalem-
merat ioiten zenarena.

54 Eta *hori* ikusirik haren diszipulu lakesek eta Ioanesek erran zezaten, launa, nahi duk derragun sua iauts dadin zerutik, eta desegin ditzan, Eliasek ere egin zuen bezala?

55 Baina itzulirik *Iesusek* mehatxa zitzan hek, zioela, Eztakizue zer espiritutako zareten.

56 Ezen gizonaren Semea ezta ethorri gizonen bizien galtzera, baina salbatzera. Eta ioan zitezzen berze burgu batetara.

57 Gero gertha zedin, hek bideaz ioaiten zira-
dela, erran baitzieron norbeitek, launa, iarreiki-
ren natzaik norat ere ioanen baitaiz.

58 Eta lesusek erran ziezon. Azeriek zulhoak
zitie, eta zeruko xoriek ohatzeak: baina gizona-
ren Semeak eztik non bere burua pausa dezan.

59 Baina erran ziezon berze bati, Arreit niri.
Eta hark erran zezan, launa, permeti iezadak
behin ioan nadin neure aitaren ohorztera.

60 Eta erran ziezon lesusek, Utzitzak, hilak
bere hilen ohorztera: baina hi habil eta denuntia
ezak lainkoaren resuma.

61 Orduan erran zezan berze batek ere,
launa, iarreikiren natzaik hiri: baina permeti
iezadak behin etxekoetarik konjit har dezadan.

62 Eta erran ziezon lesusek, Eztuk nehor bere
eskua goldean ezarten eta gibelerat behatzen
duenik propio denik lainkoaren resumakotzat.

KAP. X.

*1 lesusek hirurogei eta hamar
diszipulu ordenatzen eta igorten. 2*

Uzta handi, langile guti. 11
Erhatsaren oinetarik eragoiztea. 16
Apostoluak enzuteko. 20 Izen
zeruetan eskribatuak. 21 Xipiei
Ebanjelioa manifestatu. 27
Iainkoaren eta hurkoaren onhestea.
29 Gure hurkoa zein. 30 Gizon
zauriaz. 37 Misericordia. 38 Marthak
Krist rezebitzen.

1 Gauza hauen ondoan ordena zitzan launak berze hirurogei eta hamar ere, eta igor zitzan hek bira bere begitharte aitzinean, bera ethorteko zen hiri eta leku guzietara.

2 Eta erraiten zerauen, Uzta handi da, baina langile guti: othoitz egiozue bada uzta labeari, irion ditzan langileak bere uztara.

3 Zoazte, huna nik igorten zaituztet zuek bildotsak otsoen artera bezala.

4 Eztramazuela ez mulsarik, ez maletarik, ez zapatarik: eta nehor bidean eztezazuela saluta.

5 Zein ere etxetan sarthuren baitzarete, lehenik errazue, Bakea *dela* etxe hunetan.

6 Eta baldin han bakezko semerik batre bada, pausaturen da zuen bakea haren gainean: ezpere zuetara itzuliren da.

7 Eta etxe hartan berean zaudete, iaten eta edaten duzuela aitzinera emanen zaizuenetik: ezen langilea bere sariaren digne da. Etzaitzete-la iragan etxetik etxera.

8 Baina are zein ere hiritan sarthuren baitzarete, eta rezebituren baitzaituzte, ian ezazue aitzinera ezarten zaizkizuenetarik:

9 Eta sendaitzazue hartan diraten eriak, eta erre-zue, Hurbildu da zuetara lainkoaren resuma.

10 Baina zein ere hiritan sarthuren baitzarete, eta ezpaitzaituzte rezebituren, ilkirik hango karriketara, errazue,

11 Zuen hiritik lothu zaikun erhautsa ere iharrosten dugu zuen kontra: guziagatik ere hauriakizue, ezen hurbildu dela zuetara lainkoaren resuma.

12 Baina badiotsuet ezen Sodomakoak egun hartan hiri hura baino emekiago traktatuak izanen diradela.

13 Malediktione hiri Korazin, malediktione hiri Bethsaida, ezen baldin Tiren eta Sidonen

egin izan balirade zuek baithan egin izan diraden berthuteak, aspaldi zakurekin eta hautsekin iarririk emendatu ziratekeen.

14 Halakotz Tir eta Sidon emekiago traktuak izanen dirade iudizioan ezen ez zuek.

15 Eta hi Kapernaum zerurano altxatu izan aizena, ifernurano beheraturen aiz.

16 Zuek enzuten zaituztenak, ni enzuten nau: eta zuek iraitzen zaituztenak, ni iraitzen nau: eta ni iraitzen nauenak, ni igorri nauena iraitzen du.

17 Eta itzuli izan dirade hirurogei eta hamarrek bozkarioekin, zioitela, launa, deabruak ere suiet egiten ziaizkiguk hire izenean:

18 Eta erran ziezen, Ikusten nuen Satan xistmista bezala zerutik erorten.

19 Huna, badrauzuet bothere sugen eta eskorpionen gainean ebilteko, eta etsaiaren puzanza guziaren gainean: eta deusek eztrauzue kalterik eginen.

20 Ordea harzaz etzaitetzela alegera, zeren espirituak suiet egiten zaizkizuen: baina aitzitik alegera zaitetze, zeren zuen izenak eskribatuak baitirade zeruetan.

21 Ordu hartan berean alegera zedin Iesus espirituz, eta erran zezan, Aita, zeruko eta lurreko launa, eskerrak rendatzen drauzkiat, zeren estali baitrauztek gauza hauk zuhurrei eta adi-tuei, eta manifestatu baitrauztek haur xipiei: bai Aita, zeren hala izan baita hire plazer ona.

22 Orduan diszipuluetarat itzulirik erran zezan, Gauza guziak niri neure Aitaz eman zaizkit, eta nehork eztaki nor den Semea, Aitak baizen: eta nor den Aita, Semeak baizen, eta nori ere Semeak manifestatu nahi ukanen baitrauka.

23 Eta diszipuluetarat itzulirik, apart erran ziezen, Dohatsu *dirade* zuek dakuskizuen gauzak dakuskiten begiak.

24 Ezen erraiten drauzuet, anhitz Profetak eta regek desiratu ukan dutela zuek ikusten dituzuen gauzen ikustera, eta ezpaitituzte ikusi: eta enzuten dituzuen gauzen enzutera, eta ezpaitituzte enzun.

25 Orduan huna, Legeko doktor bat iaiki zedin, hura tentatzen zuela, eta zioela, Majistraua, zer eginez bizitze eternala heretaturen dut?

26 Eta hark erran ziezon, Legean zer da eskribatua? nola irakurtzen duk?

27 Eta hark ihardesten zuela erran zezan, Onhetsiren duk eure lainko launa eure bihotz guziaz, eta eure arima guziaz, eta eure indar guziaz, eta eure pensamendu guziaz: eta eure hurkoa eure burua bezala.

28 Orduan erran ziezon, Ungi ihardetsi duk: hori egik eta biziko aiz.

29 Baina hark bere burua iustificatu nahiz, erran ziezon Iesusi, Eta nor da ene hurkoa?

30 Eta ihardesten zuela Iesusek erran zezan, Gizon bat iausten zen Ierusalemetik Ierikora, eta eror zedin gaixtaginen artera, eta hek hura billuzirik, eta zaurthurik ioan zitezen, *hura* erdi hilik utzirik.

31 Eta enkontruz Sakrifikadore bat iauts zedin bide harzaz beraz: eta hura ikusirik berze aldetik iragan zedin.

32 Halaber Lebita bat ere leku hartara heldurik eta hura ikusirik, berze aldetik iragan zedin.

33 Baina Samaritano bat *bere* bidea iragaiten zuela, ethor zedin harengana, eta hura ikusirik konpasionen har zezan.

34 Eta hurbildurik lot zitzan haren zauriak, emanik olio eta mahatsarno, eta hura ezarririk

bere abrearen gainean, eraman zezan ostaleria-
ra, eta pensa zezan.

35 Biharamunean partitzean idokirik bi dine-
ro eman zietzon ostatuari, eta erran ziezon, Erre-
keitu emok huni, eta zer ere gehiago despenda-
turen baituk, nik itzul nadinean rendaturen
drauat.

36 Zein bada hirur hautarik irudi zaik gaixta-
ginetara erori izan denaren hurko izan dela?

37 Eta hark erran ziezon, Hari miseriordia
egin ukan draukana. Diotsa bada Iesusek, Oha,
hik ere egik halaber.

38 Eta gertha zedin hek ioaiten ziradela, hura
sar baitzedin burgu batetan: eta emazte, Martha
deitzen zen batek rezebi zezan hura bere etxera.

39 Eta hunek zuen ahizpa bat Maria deitzen
zenik, hark ere Iesusen oinetara iarririk zegoela,
haren hitza enzuten zuen.

40 Baina Martha egitekotan zen anhitz zerbi-
tzuren egiten: eta gelditurik erran zezan, launa,
eztuk hik ansiarik zeren neure ahizpak neuror
zerbitzatzera utziten nauen? errok bada ni aldiz
aiuta nezan.

41 Eta ihardesten zuela erran ziezon Iesusek, Martha, Martha, arrangura dun, eta tormentatzen aiz anhitz gauzaren ondoan:

42 Ordea gauza bat dun nezesario. Baina Mariak parte ona hautatu din, zein ezpaitzaio edekiren.

KAP. XI.

*1 Kristek irakasten othoitz egiten. 9
ardura. 14 Mutua sendatzen. 15
Blaspemioa. 21 Borthitz harmatua.
24 Espiritu gizonaganik ilkia. 28
Dohatsuak zein. 29 Iuduak signo
eskez egon. 31 Egu-erdiko regina.
32 Ninibakoak. 34 Begi sinplea edo
gaixtoa. 39 Harrapakeria.
Gaixtakeria. 42 Iujemendua.
Karitatea. 45 Legeko doktora. 46
Ezin iasan daitezkeen kargak. 47
Profeten sepulkreak. 49 Iainkoaren
sapientia. 52 Ezagutzearen gakoa.*

1 Gertha zedin halaber leku batetan othoitz egiten zegoela, zesatu zenean, erran baitziezon bere diszipuluetarik batek, launa, irakats ieza-guk othoitz egiten, ioaneseke ere bere diszipuluei irakatsi drauen bezala.

2 Eta erran ziezen, Othoitz egiten duzuenean, erran ezazue, Gure Aita zeruetan aizena, Sanktifikatua bedi hire izena, Ethor bedi hire resuma, Egin bedi hire borondatea, zeruan bezala, lurrean ere.

3 Gure eguneko ogia iguk egunekotzat.

4 Eta barka ietzaguk gure bekatuak: ezen guk ere barkatzen diraueagu guri zor draukuten guziei. Eta ezgaitzala sar erazi tentazionetan, baina delibra gaitzak gaixtotik.

5 Eta erran ziezen, Zein da zuetarik ukanen duena adiskide bat, eta ioanen dena harengana gau-erditan eta erranen draukana, Adiskidea, presta ietzadak hirur ogi:

6 Ezen ene adiskide bat ethorri izan duk bidetik enegana, eta eztiat zer aitzinean ezar diezodan .

7 Eta hark barnetik ihardesten duela erran dezan, Eznezala faska: ia bortha ertsia duk, eta

ene haurtxoak enekila dituk ohean: ezin iaiki niaitek hiri emaitera.

8 Erraiten drauzuet, baldin iaikirik eman ezpadiezo ere, zeren haren adiskide den: halere haren muthiritasunagatik iaikirik emanen drauka zenbat ere behar baitu.

9 Eta nik erraiten drauzuet, Eska zaitezte, eta emanen zaizue: bilhaezazue, eta eridenen duzue: bulka ezazue eta irekiren zaizue.

10 Ezen eskatzen den guziak rezebitzen du: eta bilhatzen duenak erideiten du: eta bulkatzen duenari, irekiren zaio.

11 Eta zein *da* zuetarik aita, semea ogi eska badakio, harri bat emanen draukana? edo baldin arrain eska badakio, ala arrainaren lekuan suge bat emanen drauka?

12 Edo baldin arraultze baten eska badadi, ala eskorpiona emanen drauka?

13 Beraz zuek baldin gaixto zaretelarik, badakizue gauza onen zuen haurrei emaiten, zenbatez gehiago zuen Aita zelestialak emanen draue Espiritu saindua eskaturen zaizkonei.

14 Orduan egotz zezan kanpora deabru bat, eta hura zen mutu: eta gertha zedin, deabrua ilki

zenean, minza baitzedin mutua: eta mirets zezaten jendetzek.

15 Eta hetarik batzuk erran zezaten, Beelzebub deabruen prinzearen partez egoizten ditu kanpora deabruak.

16 Eta berzeak tentatzen zutela, signo zertik eskez zaizkan.

17 Baina hark nola baitzekizkian haien pensamenduak, erran ziezen, Bere kontra partitua den resuma guzia, desegiten da: eta etxe bere kontra *partitua* erorten da.

18 Eta baldin Satan ere bere kontra partitua bada, nolatan haren resuma egonen da? ezen badiozue Beelzebub-en partez kanpora egoizten ditudala nik deabruak.

19 Eta baldin nik Beelzebub-en partez kanpora egoizten baditut deabruak, zuen semek noren partez kanpora egoizten dituzte? halakotz hek izanen dirade zuen iuje.

20 Baina baldin lainkoaren erhiaz kanpora egoizten baditut deabruak, segur heldu izan da zuetara lainkoaren resuma.

21 *Gizon* borthiz harmatu batek begiratzen duenean bere iauregia, bakean dirade hark dituen gauzak.

22 Baina bera baino borhitzago batek akometaturik garait badeza, haren harmadura guzia, zeinetan fida baitzen, edekiten du, eta haren ostillamendua distribuitzen.

23 Enekin eztena ene kontra da: eta enekin biltzen ari eztena barreiatzen ari da,

24 Espiritu satsua ilki denean zenbeit gizonaganik leku leihorrez dabila, pausu bilha: eta erideiten eztuenean, dio, Itzuliren naiz neure etxera nondik ilki izan bainaiz.

25 Eta ethoririk erideiten du hura eskobatua eta apaindua.

26 Eta orduan ioaiten da, eta hartzen ditu berzerik zazpi espiritu bera baino gaixtoagoak: eta sarthurik habitatzen dirade han: eta egiten da gizon haren azken konditionea lehena baino gaixtoago.

27 Eta gertha zedin gauza hauk erraiten zituela, altxaturik boza emazte batek populua-
ren artetik, erran baitziezon, Dohatsu *dituk* hi egari auen sabela, eta hik edoski dituan ugatzak.

28 Eta hark erran zezan, Baina aitzitik dohasu *dirade* lainkoaren hitza enzuten, eta hura begiratzen dutenak.

29 Eta jendetzeak biltzen ziradela, has zedin erraiten, Jenerazione haur gaixtoa da: signo eskez dago: baina signorik etzaio emanen Ionas profetaren signoa baizen.

30 Ezen nola Ionas Ninibakoei signo izan baitzaien, hala izanen zaio gizonaren Semea ere jenerazione huni.

31 Egu-erdi *aldeko* regina iaikiren da iudizioan jenerazione hunetako gizonekin, eta kondemnaturen ditu: zeren ethor baitzedin lurraren bazterretik Salomonen sapientiaren enzutera: eta huna, Salomon bainoagoa leku hunetan:

32 Ninibako gizonak iaikiren dirade iudizioan jenerazione hunekin, eta kondemnaturen dute: zeren Ionasen predikationera emenda baitzitezten: eta huna, Ionas bainoagoa leku hunetan.

33 Eta nehork kandela iraxekia eztu leku estalian ezarten, ez gaitzurupean: baina kandelerean, sartzen diradenek argia ikus dezatenzat.

34 Gorputzaren kandela, begia da: beraz baldin hire begia simple bada, hire gorputz guzia ere

argi dukek: baina gaixto bada, hire gorputza ere ilhun dukek.

35 Konsidera ezak bada hitan den argia ilhunbe ezten.

36 Beraz baldin hire gorputz guzia argi *bada*, parterik batre ilhunik eztuela: argi izanen duk guzia, kandelak *bere* klaretateaz argitzen aue-nean bezala.

37 Eta minzatu zenean, othoitz egin ziezon Fariseu batek barazkal ledin hura baithan, eta Iesus sarthurik iar zedin mahainean.

38 Baita Fariseuak *hori* ikusirik mirets zezan zeren lehenik ezpaitzedin ikuz barazkal aitzinean.

39 Eta erran ziezon launak, Baina zuek Fariseuok koparen eta plataren kanpoko aldea xahutzen duzue: baina zuen barnean dena, bethea da harrapakieriaz eta gaixtakeriaz.

40 Adimendu gabeak, kanpokoak egin duenak ezteu barnekoak ere egin?

41 Aitzitik duzuenetik emazue elemosinatan: eta huna, gauza guziak xahu ditukezue.

42 Baina malediktione zuen gainean Fariseuak: ezen detxematzen dituzue mentha eta

ruta, eta baratze behar guzia, baina utziten dituzue gibelera lainkoaren iujemendua eta karitatea: hauk egin behar ziraden, eta hek ez utzi.

43 Malediktione zuen gainean Fariseuak: ezen on dariztezue lehen iar lekuei sinagogetan, eta salutationei merkatuetan.

44 Malediktione zuen gainean Eskriba eta Fariseu hipokritak: ezen monument ageri eztatzen bezala zarete, eta haien gainean dabil-tzan gizonek ezpaitakizkitez.

45 Orduan ihardesten duela Legeko dokto-retarik batek diotsa, Majistrua, gauza horien erraitetan gu ere iniuriatzen gaituk.

46 Eta hark dio, Malediktione zuen gainean ere Legeko doktorak, ezen kargatzen dituzue gizonak karga iasaiteko nekezkoetz: baina zeurok zuen erhietarik batez eztituzue kargak hunkitzen.

47 Malediktione zuen gainean, ezen edifikatzen dituzue Profeten thunbak, eta zuen aitek hil ukan dituzte hek.

48 Segurki testifikatzen duzue *zeurok* zuen aiten obretan konsentitzen duzuela: ezen hek hil

dituzte, eta zuek edifikatzen dituzue haien thunbak.

49 Halakotz lainkoaren sapientiak ere errandu, Igorriren ditut hetara Profetak eta Apostoluak, eta hetarik hilen dute eta persekutaturen.

50 Nazione huni galdegin dakionzat, munduaren kreationeaz geroztik isuri den Profeta guzien odola:

51 Abelen odoletik Zakariasen odolera, zein hil ukan baitzuten aldareari eta tenpleari artean: are diotsuet, galde eginen zaiola nazione huni.

52 Malediktione zuen ganean Legeko dokto-rak: ezen ezagutzearen gakoak kendu duzue: zeurok etzarete sarthu izan, eta sartzen ziradenak begiratu dituzue.

53 Eta gauza hauk haei erraiten zerauzte-nean, has zekitzon Eskribak eta Fariseuak hagitz hertsen, eta propos iradokiten anhitz gauzaz.

54 Zelatan zeudela, eta zerbait haren ahotik hatzaman aiherrez zabilzala, akusa lezatenzat.

KAP. XII.

1 Fariseuen altxagarria. 5 lainkoaren beldur izateko. 8 Krist aithorturen duena. 10 Espiritu sainduaren kontretako Blaspemioa. 22 Biziaz ansiarik ez ukaitez. 31 lainkoaren resuma bilhatzeko. 33 Thesaurizatzeke non. 37, 45 Zerbitzari ona eta gaixtoa. 39 Ohoina. 42 Despenser leiala. 49 Sua lurrean. 50 Kristen baptismoa. 52 Disensione izanen Ebanjeliogatik. 58 Partidarekin apointatzeko.

1 Bizkitartean bildu izanik jendetze mulzo handiak hanbat non elkar aurizkiten baitzuten, has zekien erraiten bere diszipuluei, Lehenik begira zaitezte Fariseuen altxagarritik, zein baita hipokrisia.

2 Ezen ezta deus estalirik agerturen eztenik: ezeta deus sekreturik iakinen eztenik.

3 Halakotz ilhunbean erran dituzuen gauzak, argian enzunen dirade: eta beharrira ganberetan erran duzuen, predikaturen da etxe gainetan.

4 Eta diotsuet zuei neure adiskideoi, Etzaretela beldur gorputza hiltzen dutenen, eta gero ezpaitute zer gehiagorik egin dezaten.

5 Baina erakutsiren drauzuet noren beldur behar zareten: zareten beldur, hil dukeenean gehennara egoizteko autoritatea duenaren: are diotsuet, haren beldur zareten.

6 Eztira borz parra-xori bi dirutxotan saltzen, eta hetarik bat ezpaita ahanzirik lainkoaren aitzinean ?

7 Baina zuen buruko bilo guziak ere kontatuak dirade etzaretela beraz beldur: parra-xori araldeak baino gehiago balio duzue *zuek*.

8 Badiotsuet bada, Nork ere ni aithorturen bainau gizonen aitzinean, gizonaren Semeak ere aithorturen du hura lainkoaren Aingeruen aitzinean.

9 Baina ni gizonen aitzinean ukaturen naue-na, ukatua izanen da lainkoaren Aingeruen aitzinean.

10 Eta nork ere erranen baitu hitzik gizonaren Semearen kontra barkaturen zaio hari: baina Espiritu sainduaren kontra blasfematuren duenari, etzaio barkaturen.

11 Eta eramanen zaituztenean sinagogetara, eta majistratuetara, eta potestatetara, eztuzuela ansiarik, nola edo zer ihardetsiren duzuen edo zer erranen.

12 Ezen Espiritu sainduak irakatsiren zaituzte ordu hartan berean, zer erran behar daten.

13 Eta erran ziezon jendetzekoetarik batek, Majistrua, errok ene anaieri parti dezan enekin heretajea.

14 Baina hark erran ziezon, Gizona, nork ezarri nau ni iuje, edo partitzale zuen gainean?

15 Gero erran ziezon, Ikusazue, eta begira zaitezte abaritiatik: ezen zenbeitek *onhasunez* abundantia badu ere, bere bizia eztu bere onetarik.

16 Eta erran ziezen konparatione bat, zioela, Gizon abrats baten landek abundantki fruktu ekarri ukan dute:

17 Eta gogeta egiten zuen bere baithan, zio-ela, Zer eginen dut? ezen eztut nora bil ditzadan neure fruktuak.

18 Eta erran zezan, Haur eginen dut: deseginen ditut neure granerak, eta handiagoak eginen ditut: eta hara bilduren ditut neure fruktu guziak, eta neure onak.

19 Eta erranen draukat neure arimari, Arima, badituk on handiak anhitz urthetakoizat bilduak: reposa adi, ian ezak, edan ezak, eta atsegin har ezak.

20 Baina erran ziezon lainkoak, Erhoa, gaurko gauean eure arima edekiren zaik: eta dituan gauzak, noren izanen dirade?

21 Hala *da* onhasun handiak beretako biltzen dituen, eta lainkoa baithan abrats eztena.

22 Orduan erran ziezen bere diszipuluei, Halakotz diotsuet, eztuzuen artharik zuen bizitzeaz, zer ianen duzuen: ez eta gorputzaz zerzaz beztituren zareten.

23 Bizia bianda baino gehiago da, eta gorputza abillamendua baino.

24 Konsidera itzazue beleak, ezen eztutela ereiten ez biltzen, eta hek eztute sotorik ez gra-

nerik, eta lainkoak hatzen ditu hek, zenbatez zuek xoriek baino gehiago balio duzue?

25 Eta nork zuetarik artha ukanez eratxeki ahal diezakeo beso bat bere handitasunari?

26 Bada baldin xipien dena ere ezin badagizue, zer goitikoez arthatsu zarete?

27 Kontsideraitzazue floreak, nola handitzen diraden: eztirade nekatzen, eta eztute iruten: baina badiotsuet, are Salomon ere bere gloria guziarekin eztela beztitu izan hetarik bat bezala.

28 Bada baldin egun landan belhar dena, eta bihar labean ezarten dena lainkoak hala inguru beztitzen badu, zenbatez areago zuek fede xipitakoak

29 Zuek beraz eztagizuela galderik zer ianen duzuen edo zer edanen: eta etzaitzeltela dudan iar

30 Ezen gauza hauk guziak munduko jendek bilhatzen dituzte: baina zuen Aitak badaki, ezen hauen beharra baduzuela.

31 Bainaitzitik bilha ezazue lainkoaren resuma, eta gauza hauk guziak emanen zaizkizue gainerako.

32 Ezaizela beldur tropel xipia, ezen zuen Aitaren plazer ona izan da zuei resumaren emaitera.

33 Sal itzazue zuen onak, eta eman itzazue elemosinatan. Egin itzazue zeurondako zahar-tzen eztiraden mulsak, zeruetan thesaur nehoiz ere falta eztaiten bat: nora ohoinik ezpaita hurbiltzen, *eta non* zerrenek ezpaitu desegiten.

34 Ezen non baita zuen thesaura, han izanen da zuen bihotza ere.

35 Bira zuen gerrunzeak gerrikatuak, eta *zuen* kandelak iraxekiak.

36 Eta zuek *zareten* noiz haien nabusia ezteietarik itzul daiten begira dauden gizonetarrat irudi: dathorreanean, eta bortha bulka dezanean, bertan ireki dezotenzat.

37 Dohatsu *dirade* zerbitzari hek, zein dathorreanean nabusiak eridenen baititu iratzarriak: egiaz diotsuet gerrikaturen dela bera, eta mahai-nean iar eraziren dituela, eta aitzinaraturik zerbitzaturen dituela.

38 Eta baldin badathor bigarren beillan, eta heren beillan badathor, eta hala eriden ditzan: dohatsu *dirade* zerbitzari hek.

39 Eta haur iakizue, ezen baldin baleaki aita-familiak zer orduz ohoina ethorteko lizen, beilla lezakeela, eta ezlezakeela utzi zulhatzera bere etxea.

40 Zuek ere bada zareten prest, ezen uste eztuzuen orduan gizonaren Semea ethorriren da.

41 Orduan erran ziezon Pierrisek, launa, guri erraiten draukuk konparatione hori ala *bai* guziei ere?

42 Eta erran zezan launak, Zein da despen-ser leiala eta zuhurra, nabusiak bere familiaren gaineko ordenatu duena, denboran ordinarioa deienzat?

43 Dohatsu *da* zerbitzari hura, dathorrinean nabusiak hala egiten eridenen duena.

44 Egiazki erraiten drauzuet, ezen duen guziaren gaineko ezarriren duela hura.

45 Eta baldin erran badeza zerbitzari hark bere bihotzean, Beranzen du ene nabusiak ethortera: eta has badadi zehatzen muthillen eta neskatoen, eta iaten eta edaten eta horditzen:

46 Ethorriren da zerbitzari haren nabusia, *hark* uste eztuen egunean, eta eztakian ore-

nean: eta bereziren du hura, eta haren partea infidelekin ezarriren.

47 Eta bere nabusiaren borondatea ezagutu duen zerbitzaria, eta ezpaita preparatu, eta ezpaitu haren borondatearen araura egin, zehaturen da anhitz *ukaldiz*:

48 Baina ezagutu eztuena, eta zehatu izateko merezi dukeen gauzak egin dituen, zehaturen da *ukaldi* gutiz. Bada anhitz eman izan zaion guziari, anhitz galde egingen zaio: eta begiratze-
ra anhitz eman izan zaionari, hanbat gehiago galde egingen zaio.

49 Suaren emaitera ethorri naiz lurrera: eta zer nahi dut *gehiago* baldin ia iraxekia bada?

50 Baina baptismo batez batheiatzeko naiz, eta nola hertsen naiz *haur* konpli daiten artean?

51 Uste duzue ezen lurrean bakearen ezartera ethorri naizela? ez, diotsuet, baina dibisionearen.

52 Ezen hemendik harat izanen dirade borz etxe batetan dibisionetan diratenik, hirurak bien kontra, eta biak hiruren kontra.

53 Dibisionetan izanen da aita semearen kontra, eta semea aitaren kontra: ama alabaren

kontra, eta alaba amaren kontra: ama-ginharreba bere errenaren kontra, eta errena bere amaginharrebaren kontra.

54 Gero erraiten zerauen jendetzei ere, Ikus dezazuenean hodei bat altxatzen dela Okzidentetik, bertan diozue, uria heldu da: eta hala gertatzen da.

55 Eta hegoak draunsanean, erraiten duzue, ezen bero eginen duela: eta *hala* gerthatzen da.

56 Hipokritak, zeruaren eta lurraren itxuraren iujeatzen dakizue: eta denbora hunez nola eztuzue iujeatzen?

57 Eta nola zeuron buruz ere eztuzue iujeatzen bide dena?

58 Bada ioaiten aizenean eure partida kontrastarekin majistratuagana, enseia adi bidean haren menetik ilkiten: tira ezezan zat iujeagana, eta iujeak eman iezen sarjeantari, eta sarjeantak ezar ezezan presoindegian.

59 Erraiten drauat, ezaiz ilkiren handik azken pelata ere renda dirokeano.

KAP. XIII.

3 Penitentiara Kristek exhortatzen. 6 Fikotze fruktu gabea pikatzera manatzen. 11 Emazte kroatua sendatzen. 15 Sabbath egunean ungi egitea. 16 Mustarda bihiaren eta altxagarriaren konparationea. 24 Bortha hersia. 29 Iainkoaren resuman iartea. 34 Ierusalemaren destruktioea.

1 Eta baziraden batzu denbora hartan berean hari kontatzen zeraukatenik Galileanoez, zeinen odola Pilatek nahasi ukan baitzuen haien sakrifizioekin.

2 Eta ihardesten zuela Iesusek erran ziezen, Uste duzue ezen Galileano hauk berze Galileano guziak baino bekatoreago ziradela, zeren halako gauzak sufritu baitituzte?

3 Ezetz diotsuet: aitzitik baldin emenda ezpaiztezte guziak halaber galduren zarete.

4 Ezpa, Siloeko dorreak gainera eroririk hil ukan zituen hemezortzi hek, uste duzue Ierusa-

Iemeko habitant guziak baino hogendunago zira-dela?

5 Ezetz diotsuet: aitzitik baldin emenda ezpa-zaitezte, guziak halaber galduren zarete.

6 Erraiten zuen konparatione haur ere, fiko-tze bat zuen edozein batek landatua bere mahastian: eta fruktu bilha ethor zedin hartara: eta etzezan eriden.

7 Eta erran ziezon mahasti zainari, Huna, hirur urthe dik ethorten naizela fruktu bilha fiko-tze hunetara, eta eztiat erideiten: pika ezak: zer-tako lurra ere enpatxatzen du?

8 Eta hark ihardesten zuela erran ziezon, launa, utzi ezak are urthe hunetan, inguru aitzur-tu dukedano, eta ungarri eman dezakeodano.

9 Eta baldin ekar badeza frukturik, *ungi*, ezpere, gero pikaturen dukek.

10 Eta irakasten ari zen sinagoga batetan Sabbathoan.

11 Eta huna, emazte bat ethor zedin eritasu-nezko espiritua zuenik ia hemezortzi urthez: eta zen kroatua, eta neholetan ere ezin xuxent zeiten.

12 Eta hura ikusi zuenean lesusek dei zezan beregana, eta erran ziezon, Emaztea, laxatu aiz eure eritasunetik.

13 Eta gainean ezar zietzon eskuak, eta bertan xuxent zedin, eta glorifikatzen zuen lainkoa.

14 Baina ihardesten zuela sinagogako prinzipalak, gaitziturik zeren Sabbathoan sendatu zuen lesusek, erran ziezon populuari, Sei egun dirade zeinetan lan egin behar baita, hetan badazatozte eta senda zaitezte, eta ez Sabbath egunean.

15 Ihardets ziezon bada launak, eta erran zezan, Hipokrita, zuetarik batbederak Sabbathoan eztu laxatzen bere idia edo bere astoa man-jederatik, eta eramaiten ederatera?

16 Eta Abrahamen alaba haur, zein estekatu baitzuen Satanek, huna, hemezortzi urthe duela, etzen estekadura hunetarik laxatu behar Sabbath egunean?

17 Eta gauza hauk hark erraiten zituenean, konfunditzen ziraden hari kontrastatzen zaizkion guziak: baina populu guzia alegeratzen zen harzaz egiten ziraden gauza glorioso guziez.

18 Orduan erraiten zuen *lesusek*, Zer irudi du lainkoaren resumak? eta zerekin konparaturen dut hura?

19 Mustarda bihia irudi du, zein harturik gizon batek ezar baitzezan bere baratzean, eta haz zedin eta arbore handia egin zedin eta zeruko xoriek ohatzeak egin dituzte haren adarretan.

20 Eta berriz erran zezan, Zerekin konparaturen dut lainkoaren resuma?

21 Altxagarria irudi du, zein harturik emazte batek ezar baitzezan hirur neurri irinetan, guzia altxatu lizateno.

22 Gero iragaiten zen hirietan eta burguetan, irakasten zuela, eta Ierusalemeko bidea egiten zuela.

23 Eta erran ziezon norbeitek, launa, gutiak dira salbatzen diradenak? Eta hark erran ziezen,

24 Enseia zaitezte sartzen bortha hersitik: ezen anhitz, erraiten drauzuet, sarthu nahiz ebiliren diradela, eta ezin sarthuren baitirade.

25 Eta aitafamilia iaiki datenean, eta bortha ertsi dukeenean, eta has zaiteztenean kanpoan egoiten, eta bortharen bulkatzen, erraiten duzuela, launa, launa, ireki ezaguk: eta ihasder-

ten duela erranen drauzue, Eztakit zuek nongo zareten.

26 Orduan hasiren zarete erraiten, lan diagu hire presentian, eta edan diagu, eta gure karriketan irakatsi duk *hik*.

27 Eta erranen du, Erraiten drauzuet eztakit zuek nongo zareten: parti zaitezte eneganik inikitate egiten duzuen guziak.

28 Han izanen da nigar eta hortz garraskots: ikus ditzazuenean Abraham, eta Isaak, eta Iakob eta Profeta guziak lainkoaren resuman, eta zuek kanpora irazitzen zaretela.

29 Orduan ethorriren dirade Orientetik, eta Okzidentetik: Akilonetik, eta Egu-erditik: eta iarriren dirade mahainean lainkoaren resuman.

30 Eta huna, dirade azken, lehen izanen diradenak: eta dirade lehen, azken izanen diradenak.

31 Egun hartan berean hurbil zitezen Fari-seuetarik batzu, erraiten zeraukatela, Ilki adi, eta oha hemendik: ezen Herodesek hil nahi au.

32 Eta erran ziezen, Zoazte eta errozue azeri hari, Huna, egoizten zitiat deabruak kanpora, eta

sendatzea akabatzen diat egun eta bihar, eta hereneko egunean fin hartzen diat.

33 Baina bide egin behar diat egun eta bihar eta etzi: ezen eztuk gerthatzen Profetarik batre hil dadin Ierusalemetik lekora.

34 Ierusalem, Ierusalem, zeinek hiltzen baitituk Profetak, eta lapidatzen hiregana igorri diradenak, zenbat aldiz nahi ukan ditut bildu hire haurrak, oilloak bere xito aldea *bere* hegalen azpira bezala, eta ezpaituzue nahi ukan?

35 Horra utziten zaizue zuen etxea desert. Baina egiaz diotsuet, ezen eznauzuela ikusiren, gertha daiteno darrazuen, Benedikatu *dela* launaren izenean ethorten dena.

KAP. XIII.

2 Hidropikoa sendatu. 3 Sabbath egunez ungi egitea. 11 Humiliaturen dena. 13 Nor gomitatzeke. 16, 23 Afarira gomitatuak. 26 Kristgatik ahaidei gaitz eritziteko. 27 Kristi iarreikiteko. 28 Konparationeak. 33

*Kristen diszipulu izatekotz nola guzia
renuntiatzeko.*

1 Gertha zedin halaber hura ethorri zenean Fariseuetako prinzipal baten etxera Sabbathoan bere refektionearen hartzera, hek gogoia emaiten baitzeraukaten.

2 Eta huna, gizon hidropiko bat zen haren aitzinean.

3 Orduan ihardesten zuela lesusek erran zizuten Legeko doktorei eta Fariseuei, zioela, Sori da Sabbathoan sendatzea?

4 Eta hek ixilik egon zitezten, Eta hark hura harturik senda zezan, eta igor zezan.

5 Eta ihardesten zerauela, erran zezan, Zeinek zuetarik astoa edo idia putzura eror badakio, eztu bertan hura idokiren Sabbath egunean?

6 Eta ezin gauza hauen gainean ihardets zezakeoten.

7 Erraiten zerauen halaber gomitatu izan ziradenei konparatione bat, gogoatzen zuela nola lehen iarlekuez hautatzen ziraden, zioela,

8 Norbeitetik dei azanean ezteietara, ezadila iar lehen lekuan, gertha eztadin, hi baino ohortuago bat hark deithu duen:

9 Eta ethoririk hura eta hi deithu zaituztenak erran diezan, Emok huni lekua: eta orduan has ezadin ahalkerekin azken lekuaren edukiten.

10 Baina gomitatu aizenean, habil, iar adi azken lekuan: dathorrenean hi gomitatu auenak erran diezanzat, Adiskidea, igan adi gorago: orduan dukek ohore hirekin mahainean iarririk daudenen aitzinean.

11 Ezen bere burua goratzen duen guzia, beheraturen da: eta bere burua beheratzen duena, goraturen da.

12 Eta bera gomitatu zuenari ere erraiten zeraukan, Egiten duanean barazkari bat edo afari bat, eztitzala dei eure adiskideak, ez eure anaieak, ez eure ahaideak, ez auzo abratsak, hek ere aldiz bere aldetik gomita ezezatenzat, eta ordaina renda eztakian.

13 Baina egiten duanean banket bat, dei itzak paubreak, inpotentak, mainguak, itsuak:

14 Eta dohatsu izanen aiz: zeren ezpaitute nondik hiri *ordaina* renda: ezen hiri rendaturen zaik ordaina iustoen resurrektionean.

15 Eta gauza hauk enzunik harekin mahai-nean iarririk zeudenetarik batek erran ziezon, Dohatsu *duk* lainkoaren resuman ogi ianen duena.

16 Eta hark erran ziezon, Gizon batek egin zezan afari handi bat, eta dei zezan anhitz:

17 Eta igor zezan bere zerbitzaria afal ordutan, gomitatuei erraitera, Zatozte, ezen gauza guziak prest dirade.

18 Baina guziak has zitezen konsentimendu batez exkusutzen. Lehenak erran ziezon, Posesione bat erosi diat, eta haren ikustera ilki behar diat: othoitz egiten drauat, eduki nezak exkusaturan.

19 Eta berzeak erran zezan, Borz idi uztarri erosi zitiat, eta banihoak haien forogatzera: othoitz egiten drauat eduki nezak exkusaturan.

20 Eta berzeak erran zezan, Emazte hartu diat, eta halakotz ezin niathorrek.

21 Eta itzulirik zerbitzari hark konta zietzon gauza hauk bere nabusiari. Orduan aserreturik

aitafamiliak erran ziezon bere zerbitzariari, Habil fitetz plazetara, eta hiriko karriketara, eta pau-break eta inpotentak, eta mainguak eta itsuak huna barnera erekar itzak.

22 Eta erran zezan zerbitzariak, Nabusia, egin izan duk, manatu duan bezala eta oraino baduk leku.

23 Orduan erran ziezon nabusiak zerbitzariari, Oha bidetara eta berroetara, eta bortxaitzak, sartzera bethe dadinzat ene etxea.

24 Ezen erraiten drauzuet, gizon deithu izan ziraden hetarik batek ere eztuela ene afaritik dastaturen.

25 Eta jendetze handiak ioaiten ziraden harekin: eta itzulirik erran ziezen.

26 Baldin nehor enegana ethorten bada eta gaitzesten ezpaditu bere aita eta ama, eta emaztea eta haurrak, eta anaieak eta arrebak, etare gehiago bere arima ere, ezin date ene diszipulu.

27 Eta nork ere ezpaitakarke bere krutzea, eta ene ondoan ethorten *ezpaita*, ezin date ene diszipulu.

28 Ezen zein da zuetarik dorre bat edifikatu nahi duenik, lehen iarririk gostuak kontatzen eztituena, eia akabatzeko baduenez?

29 Fundamenta ezarri dukeen ondoan, eta ezin akabatu dukeenean, ikusiren duten guziak harzaz trufatzen has ezтитеzenzat, dioitela,

30 Gizon hunek hasi du edifikatzen eta ezin akabatu du.

31 Edo zein da regea berze rege baten kontra batailla emaitera abiatzen dena, lehen iarririk konsultatzen ez tuen, eia hamar millarekin aitzinera ilki ahal dakidionez, hogeï millarekin haren kontra ethorten denari?

32 Berzela hura oraino urrun deno, enbaxadore igorririk bake eskez iarten da.

33 Hala beraz, nork ere zuetarik bere on guziak ezpaititu renuntiatzen *hura* ezin date ene diszipulu.

34 On da gatza: baina baldin gatza gezat badadi, zerzaz gazituren da?

35 Ezta lurrekotzat, ez ongarrikotzat deusgai: baina kanporat egoizten da hura. Enzuteko beharririk duenak, enzun beka.

KAP. XV.

1 Bekatoreak Kristi behatzen. 4 Ardi errebelatua. 7, 10 Bekatore baten konbertitzeaz bozkario. 8 Drakma galdua. 11 Seme prodigoa. 17 Dolua. 20 Bekatore konbertitzen diradenetara, miserikordia.

1 Eta hurbiltzen ziraden harengana publikano eta jende bizitze gaixtotako guziak, hura enzun lezatenzat.

2 Eta murmuratzen zuten Fariseuek eta Eskribek, zioitela, hunek jende bizitze gaixtota-koak rezebitzen ditu, eta iaten du hekin.

3 Baina hark erran ziezen konparatione haur, zioela,

4 Zein gizonek zuetarik ehun ardi dituela eta hetarik bat galtzen duela, eztitu utziten laurogei eta hemeretziak desertuan eta ezta ioaiten galduaren ondoan, hura eriden dezakeno?

5 Eta eriden duenean ezarten du bere sorbal- den gainean alegerarik.

6 Gero ethoririk etxera, deitzen ditu adiskideak eta auzoak, diostela, Alegera zaitzte enekin: ezen eriden dut neure ardi galdua.

7 Erraiten drauzuet ezen hala bozkario izanen dela zeruan bekatore emendatzen den baten

ganean, *gehiago* ezen ez laurogei eta heme-retzi iusto emendamendu mengoa eztutenen ganean.

8 Edo zein emazte hamar drakma dituenek, baldin gal badeza drakma bat, eztu argia bizten eta etxea eskobatzen, eta bilhatzen dilijentki *hura* eriden dezakeno?

9 Eta eriden duenean, deitzen ditu *emazte* adiskideak eta auzoak, dioela, Alegera zaitzte enekin: ezen eriden dut galdu nuen drakma.

10 Hala, diotsuet, bozkario izanen dela lainkoaren Aingeruen aitzinean, bekatore emendatzen den baten ganean.

11 Halaber erran zezan, Gizon batek zituen bi seme:

12 Eta hetarik gaztenak erran ziezon aitari, Aita, indak onhasunetik niri heltzen zaitadan partea. Eta parti zietzen onak.

13 Eta egun gutiren buruan, guziak bildurik seme gaztenor ioan zedin herri urrun batetara: eta han irion zezan bere onhasuna, prodigoki bizi izanez.

14 Guzia despendatu ukan zuenean, egin izan zen gosete gogor bat herri hartan, eta hura has zedin behar izaten:

15 Eta ioanik leku hartako burjes batekin iar zedin, eta *hark* igor zezan bere posesionetara urden bazkatzera.

16 Eta desir zuen urdek iaten zuten maginxetarik bere sabelaren bethatzera: eta nehork etzeraukan emaiten.

17 Eta bere buruari ohart zekionean, erran zezan, Zenbat alokazer diraden ene aitaren etxean ogia frango dutenik, eta ni gosez hiltzen bainaiz!

18 laikirik ioanen naiz neure aitagana, eta erranen draukat, Aita, huts egin diat zeruaren kontra, eta hire aitzinean.

19 Eta gehiagorik eznauk digne hire seme deitzeko: egin nezak eure alokazeretarik bat bezala.

20 laikirik bada ethor zedin bere aitagana. Eta hura oraino urrun zela, ikus zezan bere aitak, eta konpasiune har zezan, eta laster eginik egotz zezan bere burua haren lepora, eta pot egin ziezon.

21 Eta erran ziezon semeak, Aita, huts egin diat zeruaren kontra, eta hire aitzinean, eta gehiagorik eznauk digne hire seme deitzeko.

22 Orduan erran ziezen aitak bere zerbitzariari, Ekarzue arropa prinzipalena, eta iaunz ezozue: eta emozue erhaztun bat bere eskura, eta zapatak oinetara:

23 Eta ekarririk aretze gizona, hil ezazue: eta iaten dugula atsegin har dezagun.

24 Ezen ene seme haur hil zen, eta harzara biztu da: galdu zen, eta eriden da. Eta has zitezten atsegin hartzen.

25 Eta zen haren seme zaharrena landan, eta ethorten zela etxeari hurbildu zaionean, enzun zitzan melodia eta danzak.

26 Eta deithurik zerbitzarietarik bat, interroga zezan hura zer zen.

27 Eta hark erran ziezon, hire anaie ethorri izan duk, eta hil ukan dik hire aitak aretze gizen bat, zeren osorik hura rezebitu duen.

28 Eta aserre zedin: eta etzen sarthu nahi izan: bere aitak bada ilkirik othoitz egin ziezon.

29 Baina hark ihardesten zuela erran ziezon bere aitari, Huna, hanbat urthe dik zerbitzatzen audala, eta egundano hire manurik eztiat iragan, eta egundano pitina bat eztrautak eman neure adiskidekin atsegin hartzeko.

30 Baina hire seme haur, zeinek iretsi ukan baitu hire onhasun guzia putekin, ethorri izan denean, hil ukan draukak huni aretze gizena.

31 Eta hark erran ziezon, Seme, hi bethi enekin aiz, eta ene guzia hire duk:

32 Eta atsegin hartu behar zuan eta alegera-tu, zeren hire anaie haur hil baitzen, eta biztu baita, galdu baitzen, eta eriden baita.

KAP. XVI.

1 Dispenser nabusia baithan akusatua. 8 Munduaren haurrak. 9

*Inikitatezko abrastasunak. 11
Leialtatea. 13 Bi nabusi ezin
zerbitza. 15 Bere buruaren
iustifikatzea. 16 Legea eta Profetak.
18 Emaztearen utzitea. 19, 20
Abrats gaixtoa eta Lazaroa. 31
Moisesen eta Profeten enzutea.*

1 Eta erran ziezen bere diszipunuei ere, Gizon abrats bat zen despenser bat zuenik, haur akusa zedin hura baithan, haren onen irioile bezala:

2 Eta hura deithurik erran ziezon, Zer danzut haur hizaz? renda ezak eure despensaren kontua: ezen gehiagorik ezin aizate despenser.

3 Orduan erran zezan bere baithan despenserak, Zer eginen dut, neure nabusiak despensaren kargua edekiten drautanaz geroz? aitzurrerik ezin daidit, eske ebiltera ahalke naiz.

4 Badakit zer eginen dudan, despensergoatik kendu naizenean rezebi nezatenzat *batzuk* bere etxetara.

5 Orduan deithurik bere nabusiaren zordunetarik batbedera, erran ziezon lehenari, Zenbat zor draukak ene nabusiari?

6 Eta hunek erran zezan, Ehun barril olio: eta hark erran ziezon, Har ezak eure zedula, eta iarririk fitetz, eskriba ezak berrogei eta hamar

7 Gero berze bati erran ziezon, Eta hik zenbat zorduk? eta hark erran zezan, Ehun neurri ogi. Orduan hark erran ziezon, Har ezak eure zedula, eta eskriba ezak laurogei.

8 Eta lauda zezan nabusiak despenser gaixtoa, zeren zuhurki egin ukan baitzuen: hunegatik mundu hunetako haurrak zuhurrago dirade, ezen ez argiko haurrak bere jenerationean

9 Eta nik erraiten drauzuet, Egin itzazue zuendako adiskideak abastasun inikoez falta zaitzetenean rezebi zaitzatenzat tabernakle eternaletara.

10 Gauza xipienetan leial dena, handian ere leial da: eta gauza xipian iniusto dena, handian ere iniusto da.

11 Bada baldin abastasun inikoetan leial izan ezpazarete, abastasun egiazkoetan nor fidaturen zaizue?

12 Eta baldin berzeren gauzan leial izan
ezpazarete, zuen dena nork emanen drauzue?

13 Zerbitzarik batek ere ezin bi nabusi zerbi-
tza ditzake: ezen edo batari gaitz eritziren drau-
ka, eta berzeari on: edo batarekin edukiren du
eta berzea menospreziaturen. Ezin zerbitza
ditzakezue lainkoa, eta abrastasunak

14 Eta gauza hauk guziak enzuten zituzten
Fariseuek ere, zein baitziraden abaritoso: eta
harraz trufatzen ziraden

15 Eta erran ziezen, Zuek zarete zuen buruak
iustifikatzen dituzuenak gizonen aitzinean: baina
lainkoak badazaguzki zuen bihotzak: ezen gizo-
nei gora zaiena, abominatione da lainkoaren
aitzinean.

16 Legeak eta Profetek *iraun dute* loanesga-
nano: denbora harraz geroztik lainkoaren resu-
ma ebanjelizatzen da, eta batbederak hura du
bortxatzen.

17 Erraxago da zerua eta lurra iragan dite-
zen, ezen ez Legearen puntu huts bat eror
dadin.

18 Nork ere utziten baitu bere emaztea, eta
berze batekin ezkonzen baita, adulterio iaukiten

du: eta senharrak utzi duenarekin ezkonzen denak, adulterio iaukiten du.

19 Zen bada gizon abrats bat, eta beztitzen zen eskarlataz eta zetaz, eta egun oroz traktatzen zen ungi eta magnifikoki.

20 Zen halaber paubre bat Lazaro deitzen zenik, zein baitzetzan haren borthan, zauriz betheha:

21 Eta zuen desir abratsaren mahainetik erorten ziraden apurretarik asetzeko, baina are orak ethorten ziraden eta haren zauriak limikatzen zituzten.

22 Gertha zedin bada hil baitzedin paubrea, eta eraman baitzedin Aingeruez Abrahamen bulharrera: hil zedin bada abrats hura ere, eta ohortze izan zen.

23 Eta ifernuetan bere begiak goiti altxaturik tormentetan zela, ikus zezan Abraham urrundantik, eta Lazaro haren bulharrean:

24 Orduan hark oihuz zegoela erran zezan, Aita Abraham, auk miserikordia nizaz, eta igor ezak Lazaro, busta dezan bere erhi mokoa urean, eta refreska diezadan mihia, ezen tormentatzen nauk gar hunetan.

25 Eta erran zezan Abrahamek, Seme, orhoit adi ezen eure onak eure bizian rezebitu dituala, eta Lazarok halaber gaitzak: eta orain haur kon-solatzen duk, eta hi tormentatzen aiz.

26 Eta berze alde, gure eta zuen artean abis-mo handi bat duk: hala non hemendik zuetarat iragan nahi diradenak, ezin baititezke, ezeta hor-tik hunat iragan.

27 Eta erran zezan *hark*, Othoitz egiten drauat beraz, Aita, igor dezan hori ene aitaren etxera.

28 Ezen bazitiat borz anaie, haei testifika die-zenzat, hek ere eztatozenzat tormentazko leku hunetara.

29 Diotsa Abrahamek, Bazitie Moises eta Pro-fetak: enzun bitzate hek.

30 Baina hark erran zezan, Ez, aita Abraham: baina baldin hiletarik zenbeit ioan badadi hetara, emendaturen dituk.

31 Eta Abrahamek erran ziezon, Baldin Moi-ses eta Profetak enzuten ezpadituzte, ezeta bal-din zenbeit hiletarik resuszita badadi ere, ez tie sinhetsiren.

KAP. XVII.

1 Eskandaloak. 3 Barkatzea. 5, 19 Fedea. 10 Noiz nehor zerbitzari inutil. 12 Hamar sorhaio sendatu. 23 Krist-falsuak. 24 Kristen eguna. 26 Noe. 27 Dilubioa. 29 Lot eta haren emaztea.

1 Gehiago dioste *bere* diszipuluei, Inposible da eskandaloak eztatozen: baina malediktione hari, norzaz ethorten baitirade.

2 Hark hobe luke baldin errota harri bat haren lepoaren inguruan ezar baledi, eta egotz ledin itsasora, ezen ez xipi hautarik bat eskandaliza dezan.

3 Begira zaitetze, Baldin hire anaiek hire kontra faltatu badu, reprehendi ezak hura, eta baldin emenda badadi barka iezok.

4 Eta baldin zazpitan egunean faltatzen badu hire kontra, eta zazpitan egunean itzultzen bada hiregana, dioela, Dolu diat: barkaturen draukak.

5 Orduan erran diezoten Apostoluek launari, Augmenta iezaguk fedea.

6 Eta erran zezan launak, Baldin fede bazindute mustarda bihi bat *den* bezenbat, erran ahal zinezakeote marzuzer huni, Erroetarik ilki adi, eta landa adi itsasoan: eta obedi zinzakeizte.

7 Baina zeinek zuetarik, zerbitzari bat due-nean laboratzen edo abren bazkatzen ari denik, landatik itzuli denean erraiten drauka bertan, Auazadi, eta iar adi mahainean.

8 Bainaitzitik eztrauka erraiten, Apain ieza-dak afaia, eta gerrikaturik zerbitza nezak, ian eta edan dukedano: eta gero ian eta edan ezak hik?

9 Eskerrik othe drauka zerbitzari hari, zeren egin baititu manatu izan zaizkan gauzak? Eztut uste.

10 Hala zuek ere, egin ditukezuenean manatu izan zaizkizuen gauza guziak, errazue, Zerbitzari inutilak gara: egin behar genduen egin ukan dugu.

11 Eta gertha zedin hura Ierusalemerrat ioaitan iragaiten baitzen Samariako eta Galileako artetik.

12 Eta hura burgu batetan sartzen zela, bathu izan zaizkan hamar gizon sorhaio, eta geldi zitezen urrun:

13 Eta altxa zezaten boza, zioitela, Iesus majistrua, auk miserikordia guzaz.

14 Eta ikusi zitunean erran ziezen, Zoazte, erakuts ietzezue zuen buruak Sakrifikadorei. Eta gertha zedin, ioaiten ziradela xahu baitzitezen.

15 Eta hetarik batek ikusi zuenean, ezen sendatu zela, itzul zedin, glorifikatzen zuela lainkoa ozengi:

16 Eta egotz zezan bere burua ahozpez haren oinetara, eskerrak emaiten zerauzkala, eta haur zen Samaritano.

17 Eta ihardesten zuela Iesusek erran zezan, Eztirade hamarrak xahutu izan? Bedratziak bada non *dirade*?

18 Batre ezta eriden izan itzuli denik, lainkoari gloria emaitera, arrotz haur baizen.

19 Eta erran ziezon hari, laikirik oha, eure fedea salbatu au.

20 Eta interrogatu izanik Fariseuez noiz ethorteko zen lainkoaren resuma: ihardets zie-

zen, eta erran, Ezta ethorriren lainkoaren resuma paradarekin:

21 Eta eztute erranen, Huna hemen, edo, hara han: ezen huna, lainkoaren resuma barnean duzue.

22 Halaber erran ziezen diszipuluei, Ethorriren dirade egunak desiraturen baituzue gizonaren Semearen egunetarik baten ikustera, eta ezpaituzue ikusiren.

23 Eta erranen zaizue zuei, Huna hemen, edo, hara han: *baina* etzoaztela, eta etzarreiztela.

24 Ezen nola xistmistak argi egiten baitu zeruaren azpian den bazter batetik, eta argitzen *berze bazter* zeruaren azpian denerano: hala izanen da gizonaren Semea ere bere egunean.

25 Baina lehen behar da anhitz sufri dezan hark, eta reprobata dadin natione hunez.

26 Eta nola egin baitzedin Noeren egunetan, hala izanen da gizonaren Semearen egunetan ere.

27 Iaten zuten, edaten zuten, emazte hartzen zuten eta ezkonzaz emaiten, Noe arkan sar

zedin egunerano: eta ethor zedin dilubioa, eta gal zitzan guziak.

28 Halaber Lot-en egunetan ere egin izan zen bezala: iaten zuten, edaten zuten, erosten zuten, saltzen zuten, landatzen zuten, edifikatzen zuten:

29 Baina Lot Sodomatik ilki zen egunean, suz eta sufrez uri egin zezan zerutik, eta guziak desegin zitzan:

30 Halaber izanen da gizonaren Semea deklaraturen den egunean.

31 Egun hartan etxe gainean datena, eta bere ostillamendua etxean *badu*, ezalbeiledi iauts haren eramaitera: eta landan dena, halaber ezalbeiledi itzul gibealekoetara.

32 Orhoit zaitezte Lot-en emazteaz.

33 Nor ere enseiaturen baita bere biziaren salbatzen, *hark* du galduren hura: eta nork ere galduren baitu, bibifikaturen du hura.

34 Erraiten drauzuet, gau hartan biga izanen dirade ohe batetan: bata harturen da, eta berzea utziren.

35 Biga izanen dirade elkarrekin *errotan* ehaiten dukeitenik: bata harturen da, eta berzea utziren.

36 Biga izanen dirade landan: bata harturen da, eta berzea utziren.

37 Orduan ihardesten dutela, erraiten draukate, Non launa? Eta hark erran ziezen, Non ere *izanen baita* gorputza, hara bilduren dirade arranoak ere.

KAP. XVIII.

1 Othoitzea. 2 Alhargunak faskatzen zuen iujea 7 Elejituei iustitia eginen. 8 Fedea. 9 Fariseuaren othoitzea, 13 Publikanoarena. 14 Humilitatea. 16 Zeruetako resuma noren: 18 eta hura nork heretaturen. 22 On guzien saltzeaz eta paubrei emaitiaz. 23 Abratsez. 28 Guziaz Kristgatik utzi dutenez. 31 Nola pasionatu behar den Kristek aitzinetik diszipunuei erraten. 35 Itsua argitu.

1 Eta erran ziezen konparatione bat ere *fin hunetarakotz* ezen bethi othoitz egin behar dela, enoiatu gabe:

2 Zioela, luje bat zen hiri batetan lainkoaren beldur etzenik, eta nehorzaz konturik egiten etzuenik:

3 Eta zen hiri hartan *emazte* alhargun bat, eta ethor zedin harengana, zioela, Egidak iustitia neure partida kontrastaz.

4 Eta *hark* etzuen deus egin nahi ukan den-bora luzez: baina gero erran zezan bere baithan, lainkoaren beldur ezpanaiz ere eta nehorzaz konturik ez egitenagatik:

5 Badarik ere zeren faskeria emaiten baitraut alhargun hunek, iustitia eginen draukat, finean ere ethorritz burua hauts eztiezadan.

6 Eta dio launak, Enzuzue zer iuje gaixto hark erraiten duen:

7 Bada lainkoak eztraue iustitia eginen bere elejitu gau eta egun hari oihuz dagozkanei, haien alde aserretzera luzatzen badu ere?

8 Erraiten drauzuet, ezen haien mendekioa eginen duela sarri. Baina gizonaren Semea dat-horreanean, eridenen othe du federik lurrean?

9 Eta erran ziezen bere buruetan iusto ziradela fida ziraden batzuei, eta berzeak deus ere estimatzen etzituztenei, konparatione haur:

10 Bi gizon igan izan ziraden tenplera othoitz egitera, bata Fariseu eta berzea publikano:

11 Fariseuak zegoela gauza hauzaz bere baithan othoitz egiten zuen, lainkoa, eskerrak emaiten drauzkiat zeren ezpainaiz berze gizon harrapariak, iniustoak, adulteroak bezala: edo publikano haur bezala ere.

12 Astean bigetan egiten diat barur, poseditzen ditudan gauza guzietarik hamarrenak emaiten zitiat.

13 Eta publikanoak urrun zegoela, etzituen are begiak ere zerurat altxatu nahi: baina bere bulharrari zeraunson, zioela, launa, amatiga akit, *othoi* niri bekatoreoni.

14 Badiotsuet, iautsi izan dela haur iustificaturik bere etxerat, eta ez berzea: ezen bere burua goratzen duen guzia, beheraturen da: eta bere burua beheratzen duena, goraturen da.

15 Eta ekarten zituzten harengana haur xipiak ere, hek hunki litzanzat: eta hori ikus zezatenean diszipuluek, mehatxa zitzaten.

16 Baina lesusek haurtxoak beregana deithurik, erran zezan, Utzitzazue haurtxoak enegana ethortera, eta ez titzazuela enpatxa: ezen hune-lakoen da lainkoaren resuma.

17 Egiaz erraiten drauzuet, nork ere ezpaitu rezebituren lainkoaren resuma haurtxoak bezala, eztela sarthuren hartan.

18 Orduan interroga zezan zenbeit iaunek, zioela, Majistru ona, zer eginez, bizitze eternala posedituren dut?

19 Eta erran ziezon lesusek, Zergatik deitzen nauk ni on? nehor eztuk onik bat baizen, *eta hura*, lainkoa.

20 Manamenduak badakizkik, Eztuk adulteraturen, Eztuk hilen, Eztuk ebatsiren, Eztuk testimoniaje falsurik erranen, Ohoraitzak eure aita eta eure ama.

21 Eta hark erran zezan, Horiak guziak begiratu zitiat neure gaztetasunetik.

22 Eta lesusek hori enzunik erran ziezon, Oraino gauza bat falta zaik: duan guzia sal ezak

eta eman iezek paubrei: eta ukanen duk thesaur bat zeruan: eta athor, arreit niri.

23 Eta hura gauza horiak enzunik, triste zedin: ezen guziz abratsa zen.

24 Eta ikusirik Iesusek hura hagitz tristetu zela, erran zezan, Zein gaitz den onhasundunak lainkoaren resuman sar ditezen!

25 Ezen erraxago da kable bat sar dadin orratzaren zulhotik, ezen ez abratsa sar dadin lainkoaren resuman.

26 Eta *haur* enzun ukan zutenek erran zezaten, Eta nor salba ahal daite?

27 Eta hark erran zezan, Gizonak baithan inposible diraden gauzak, posible dirade lainkoa baithan.

28 Eta erran zezan Pierrisek, Huna, guk utzi zitiagu gauza guziak, eta iarreiki gaitzaizkik hiri.

29 Eta hark erran ziezen, Egiaz erraiten drauzuet, nehor eztela utzi duenik etxea, edo aitamak, edo anaieak, edo emaztea, edo haurrak lainkoaren resumaren kausaz,

30 Non ungiz gehiago rezebi eztezan denbora hunetan, eta ethorteko den sekulan bizitze eternala.

31 Eta harturik hamabiak erran ziezen, Huna, igaiten gara Ierusalemera, eta konplituren zaizkio, gizonaren Semeari Profetez eskribatu izan diraden gauza guziak.

32 Ezen Jentilei liuraturen zaie, eta eskarniaturen eta iniuriaturen eta thustaturen da.

33 Eta azotatu dukeitenean, hilen dute: baina hereneko egunean resusziaturen da.

34 Eta hek gauza hautarik etzezaten deus adi: eta ziraden hitz hauk hetarik estaliak, eta erraiten ziradenak etzituzten aditzen.

35 Eta gertha zedin hura Ierikorat hurbiltzen zela, itsu bat baitzen iarria bide bazterrean eske zegoela.

36 Eta *hark* enzun zezanean populua iragaiten, galde egin zezan, hura zer zen.

37 Eta erran ziezoten ezen Iesus Nazareno iragaiten zela.

38 Orduan oihu egin zezan, zioela, Iesus Dabid-en semea, auk pietate nizaz.

39 Eta aitzinean ioaiten ziradenek mehatxatzen zuten ixil ledinzat: baina hark ungiz oihu gehiago egiten zuen, Dabid-en semea, auk pietate nizaz.

40 Eta lesusek gelditurik mana zezan ekar lekion beregana, eta hura hurbildu izan zenean, interroga zezan,

41 Zioela, Zer nahi duk dagiadan? Eta hark erran zezan, launa, bista rezebi dezadan.

42 Eta lesusek erran ziezon, rezebi ezak bista: eure fedea salbatu au.

43 Eta bertan ikus zezan, eta hari iarreikiten zaion, glorifikatzen zuela lainkoa: Eta populu guziak *hori* ikusirik eman ziezon laudorio lainkoiari.

KAP. XIX.

2 Zakeo deithu. 12 Zerbitzariei eman izan zaizten markoak. 17 Kristen etsaien punitionea 28 Krist Ierusalem sartzan. 39 Bake, Gloria. 41 Ierusalemaren destruktioea Kristek aitzinetik erraiten. 44 Bisitationezko denbora. 45 Marxantak tenpletik iraitzen:

1 Eta sarthurik lerikon, iragaiten zen.

2 Eta huna, Zakeo deitzen zen gizon bat, eta hura zen publikano prinzipal, eta abrats:

3 Eta ikusi nahiz zabilan, zein zen Iesus: eta ezin zezakeen jendetzearen kausaz: ezen thailu xipitako zen.

4 Eta aitzinera laster eginik igan zedin basa fikotze batetara, hura ikus lezanzat: ezen handik iragan behar zuen.

6 Eta leku hartara ethor zedin bezala goiti behaturik Iesusek ikus zezan hura: eta erran ziezon, Zakeo, haitsa lehiatuki: ezen egun hire etxean egon behar diat.

6 Orduan *haur* iauts zedin lehiatuki, eta rezebi zezan hura alegeraki.

7 Eta *hori* ikusirik guziek murmuratzen zuten, zioitela, Ezen gizon bizitze gaixtotako batenean sarthu zela, alojea ledinzat.

8 Eta han zegoela Zakeok erran ziezon launari, Huna, neure onen erdiak, launa, emaiten diraizteat paubrei: eta baldin deus neheri bidegabeki edeki badraukat, rendatzen diat halako laur.

9 Orduan lesusek erran ziezon, Egun salbamendua etxe huni egin izan ziaio, zeren haur ere Abrahamen seme baita.

10 Ezen ethorri izan da gizonaren Semea galdu izan zena bilha eta salba lezanzat.

11 Eta hek gauza hauk enzuten zituztela, kontinuatzun zuen, eta erran zezan konparatio- ne bat, zeren baitzen Ierusalemeko aldean, eta zeren uste baitzuten bertan lainkoaren resuma manifestaturen zela.

12 Erran zezan bada, Gizon noble bat parti zedin leku urrun batetara, resuma baten konkestatzerara, gero itzultzekotan.

13 Eta deithurik hamar zerbitzari bererik, eman zietzen hamar marko, eta erran ziezen, Trafika ezazue nathorren artean.

14 Eta bere zibitatekoek zaritzoten gaitz, eta igor ziezoten enbaxadore bat gibeletik, zioitela, Eztugu nahi horrek regna dezan gure gainean.

15 Eta gertha zedin itzuli zenean resuma konkestaturik, mana baitzezan dei lekizkion dirua eman zerauen zerbitzariak, lakianzat nork zer trafika egin zuen.

16 Ethor zedin bada lehena, zioela, launa, hire markoak hamar marko irabazi zitik.

17 Eta *hark* erran ziezon, Ungi duk zerbitzari ona: zeren gauza xipian leial izan baitaiz, auk bothere, hamar hiriren gainean.

18 Eta berzea ethor zedin, zioela, launa, hire markoak egin zitik borz marko.

19 Eta *hark* huni ere erran ziezon, Hi ere aizen borz hiriren gaineko.

20 Eta berzea ethor zedin, zioela, launa, huna hire markoa, zein eduki baitut gorderik oihal batetan:

21 Ezen hire beldur izan nauk, zeren baitaiz gizon gogorra: hartzen duk ezarri eztuana, eta biltzen duk erein eztuana.

22 Orduan *hark* erran ziezon, Eure ahotik iujeaturen aut, zerbitzari gaixtoa: bahakian ezen gizon gogorra naizela, hartzen dudala ezarri eztudana, eta biltzen dudala erein eztudana:

23 Nola beraz eztuk ene dirua bankean eman, eta nik hura lukuruarekin erekarri bainu-keen?

24 Eta present ziradenei erran ziezen, Edeki ezozue markoa, eta emozue hamar dituenari.

25 Eta *hek* erran ziezoten, launa, bazitik hamar marko.

26 Hala diotsuet, ezen duen guziari emanen zaiola, eta eztuenari, duena ere edekiren zaiola.

27 Gehiago, ene etsai nik haien gainean regna nezan nahi ukan eztuten *hek*, ekatzue huna eta hil itzazue ene aitzinean.

28 Eta gauza hauk erranik, aitzinean ioaiten zen Ierusalemerrat igaiten zela.

29 Eta gertha zedin, hurbildu zenean Bethfajera eta Bethaniara, Olibatzetako deitzen den mendi aldera, igor baitzitzan bere diszipuluetarik biga,

30 Erraiten zuela, Zoazte zuen aurkako burgura: hartan sarthu eta, eridenen duzue asto-ume ar bat estekatua, egundano nehor gainean iarri etzaionik: hura laxaturik ekardazue.

31 Eta baldin nehork galde badagizue, Zergatik laxatzen duzue? Hunela erranen draukazue, Zeren launak hunen beharra baitu.

32 Eta ioanik igorri izan ziradenek eriden zuten erran zerauen bezala.

33 Eta hek asto-umea laxatzen zutela, erran ziezen haren iabek, Zergatik laxatzen duzue asto-umea?

34 Eta hek erran zezaten, Zeren launak hunen beharra baitu.

35 Eta eraman zezaten hura Iesusgana, eta ezarririk beren abillamenduak asto-ume gainean, ezar zezaten gainean Iesus.

36 Eta hura zioala, hedatzen zituzten beren abillamenduak bidean.

37 Eta ia Olibatzetako mendi ondora hurbiltzen zela, has zedin diszipulutze guzia alegeraz lainkoaren laudatzen ozengi, ikusi ukan zituzten berthute guziakgatik,

38 Erraiten zutela, Benedikatu *dela* launaren izenean ethorten den Regea: bakea *dela* zeruan eta gloria *leku* gorenetan.

39 Orduan jendetzeko Fariseuetarik batzuk erran ziezoten, Majistrua, mehatxa itzak eure diszipuluak.

40 Eta hark ihardesten kuela erran ziezen, Erraiten drauzuet, baldin ixil baditez hauk, bertan harriek oihu egingen dutela.

41 Eta hurbildu zenean, ikusirik hiria, nigar egin zezan haren gainean, zioela,

42 O baldin hik berere ezagutu ukan bahitu eure iornata hunetan berere, eure bakearen gauzak! Baina orain estaliak diaudek hire begietarik

43 Ezen ethorriren dituk egunak hire gainera, eta eure etsaiek asetiaturen aute tranxeaz, eta inguraturen, eta hersturen alde guzietarik.

44 Eta arrasaturen aute hi, eta hire haur hitan barna diradenak: eta eztie utziren hitan harria harriaren gainean: zeren ezpaituk ezagutu eure bisitationearen denbora.

45 Eta sarthurik tenplean, has zedin, hartan saltzen eta erosten ari ziradenen kanpora egoizten.

46 Ziostela, Eskribatua da, Ene etxea orationetako etxea da, eta zuek hura gaixtagin leze egin duzue.

47 Eta irakasten ari zen egun oroz tenplean: eta Sakrifikadore prinzipalak eta Eskribak eta populuko prinzipalak hura hil erazi nahiz zabil-tzan.

48 Baina etzuten erideiten zer egin ahal leza-
keoten: ezen populu guzia zen atento haren
enzutera.

KAP. XX.

*2 Krist bere autoritateaz
Sakrifikadorek interogutzen 4
Ioanesen Baptismoa. 9 Laborariei
alokatu izan zaien mahastia. 15
Seme primua laborariak hil. 17 Harri
arbuatu izana Krist. 19
Sakrifikadorek hil nahi Krist. 22
Tributaren emaita. 27 37
Resurrektioa. 29 Zazpi senhar
ukan zituen emaztea 41 Krist Dabid-
en seme. 46 Eskribak nolako.*

1 Eta gertha zedin egun hetatarik batez, hark
populua irakasten zuela tenplean, eta ebanjeli-
zaten zegoela, ethor baitzitezen Sakrifikadore
prinzipalak eta Eskribak, Anzianoekin,

2 Eta erran ziezoten, Erraguk zer autoritatez gauza horiak egiten dituan, edo nor den hiri autoritate hori eman drauana.

3 Eta ihardesten zuela Iesusek erran ziezen, Interrogaturen zaituztet nik ere zuek gauza batez: erradazue bada niri,

4 loanesen baptismoa zerutik zen, ala gizonetarik?

5 Eta hek bazihardukaten beren artean, zioitela, Baldin erran badezagu, Zerutik: erranen du, Zergatik beraz eztuzue sinhetsi hura?

6 Eta baldin badarragu, Gizonetarik: populu guziak lapidaturen gaitu: ezen segur dadukate, loanes Profeta zela.

7 Ihardets zezaten bada, etzakitela nondik zen.

8 Orduan Iesusek erran ziezen, Nik ere eztrauzuet erranen zer autoritatez gauza hauk egiten ditudan.

9 Orduan has zedin populuari konparatione hunen erraiten, Gizon batek landa zezan mahasti bat, eta aloka ziezen hura laborariei, eta denbora luzez kanpoan egon zedin.

10 Eta sasoinean igor zezan laborari hetara zerbitzari bat, mahastiko fruktutik lemotenzat: baina hek hura zehaturik igor zezaten hutsik.

11 Eta kontinua zezan berze zerbitzari baten igortera: baina hek haur ere zehaturik eta gaizki traktaturik igor zezaten hutsik.

12 Eta kontinua zezan herenaren igortera: baina hek haur ere zaurthurik egotz zezaten kanpora.

13 Orduan erran zezan mahasti iabeak, Zer eginen dut? igorriren dut neure seme maitea: agian haur dakusatenean ohoraturen dute:

14 Baina hura ikusirik laborariak propos eduki zezaten, zioitela, Haur da primua: zatozte, hil dezagun haur, heretajea gure denzat.

15 Eta egotzirik hura mahastitik kanpora, hil zezaten. Zer bada eginen draue haei mahasti iabeak?

16 Ethorriren da eta deseginen ditu laborari hek, eta emanen draue mahastia berze batzuei. Eta *haur* enzun zutenean erran zezaten, Hala gertha eztadila.

17 Hark orduan hetarat behaturik dio, Zer da bada eskribatua den hura, Edifikazalek arbuiatu duten harria kantoin buru egin izan da?

18 Harri haren gainera eroriren den guzia, zathikaturen da: eta noren gainera eroriren baita, hura du xehekaturen.

19 Orduan aiher ziraden Sakrifikadore prinzipalak eta Eskribak haren gainean eskuen ezartera ordu hartan berean: baina populuaren beldur zitezten: ezen ezagutu ukan zuten haien kontra erran zuela konparatione haur.

20 Eta hura gogoatzen zutela, igor zitzaten espiak iusto ziradela irudi egiten zutela, hura hitzean hatzaman lezatenzat, Gobernadorearen seignorian eta botherean ezar lezatenzat.

21 Eta *hek* interroga zezaten hura, zioitela, Majistrua, bazeakiagu ungi erraiten eta irakasten duala, eta ezagoela personara beha, baina lainkoaren bidea egiazki irakasten duala.

22 Bide dugu eman tributik Zesari, ala ez?

23 Eta aditurik haien finezia, erran ziezen, Zergatik tentatzen nauzue?

24 Erakustazue dinero bat: norenak ditu imajina eta eskribua? Eta ihardesten zutela erran zezaten, Zesarenak.

25 Orduan erran ziezen, Renda ietozue beraz Zesaren diradenak, Zesari: eta lainkoaren diradenak, lainkoari.

26 Eta ezin haren hitza reprehenditu ukan dute populuaren aitzinean: eta miraz iarririk haren repostaren gainean ixil zitezten.

27 Orduan hurbil zekizkion Saduzeu batzu (zeinek ukatzen baitute resurrektionea) eta interroga zezaten.

28 Zioitela, Majistrua, Moisesek eskribatu diraukuk, Baldin zenbeiten anaiea hil badadi emazte duelarik, eta haurrik gabe hil badadi, har dezan haren anaieak haren emaztea, eta egin diezon leinu bere anaieri.

29 Bada zazpi anaie izan dituk, eta hetarik lehena emazte harturik hil izan duk, haurrik gabe.

30 Eta har ziekan hura bigarrenak, hura ere hil zidian haurrik gabe.

31 Gero herenak har ziezana hura, eta halaber zazpiak ere: eta etzazatean haurrik utzi, eta hil zituan.

32 Eta guzien ondoan hil ziedian emaztea ere.

33 Resurrektioan bada hetarik zeinen emazte izanen da? ezen zazpiak ukan die hura emazte

34 Orduan ihardesten zuela erran ziezen Iesusek, Mundu hunetako haurrek hartzen dute ezkonzaz eta hartzen dirade.

35 Baina sekula haren, eta hiletako resurrekzioaren ukaiteko digne eridenean diradenean, ez tute harturen ezkonzaz, ez ez tirade harturen.

36 Ezen gehiagorik ezin hil daitezke: ezen Aingeruen pare dirade: eta Iainkoaren seme dirade, resurrekzioezko seme diradenez geroz.

37 Eta hilak resusztatzen diradela, Moisesek ere erakutsi ukan du berro aldean, dioenean launa *de la* Abrahamen Iainkoa, eta Isaak-en Iainkoa, eta Iakob-en Iainkoa.

38 Bada Iainkoa ezta hilena, baina biziena: ezen guziak hari bizi zaizkio.

39 Eta ihardesten zutela Eskribetarik batzuk erran zezaten, Majistrua, ungi erran duk.

40 Eta gehiagorik etziraden ausartzen deusez haren interrogatzera.

41 Eta erran ziezen, Nola erraiten dute Kristo Dabid-en seme dela?

42 Ikusirik ezen Dabid-ek berak dioela Psalmuen liburuan, Erran drauka launak ene launari, lar adi ene eskuinean,

43 Ezar ditzakedano hire etsaiak hire oinen eskabella.

44 Dabid-ek beraz laun hura deitzen du, eta nola da haren seme?

45 Eta populu guziak enzuten zuela, erran ziezen bere diszipuluei.

46 Begirauzue Eskriba arropa luzekin ebili nahi diradenetarik, eta on dariztenetarik salutationei merkatuetan, eta lehen kadirei sinagogetan, eta lehen plazei banketetan.

47 Zeinek iresten baitituzte *ema* alhargunen etxeak, are luzaki othoitz egin irudiz: hek rezebituren dute damnatione handiagoa.

KAP. XXI.

2 Bi dirutxo trunkora eman zituen alhargunaz. 7 Munduaren finaren aitzineko signoez. 8 Krist-falsuez. 12 Persekutionez. 14 Iujen aitzinean ihardesteaz 19 Patientiaz. 20 Ierusalemaren destruktioneaz. 27 Azken iudizioaz. 36 Beillatzeko, eta othoitz egiteko.

1 Eta behatu zuenean ikus zitzan abratsak ezarten zituztela bere donoak trunkora.

2 Eta ikus zezan *emazte* alhargun paubre bat ere bi peza xipi ezarten zituela.

3 Eta erran zezan, Egiazki diotsuet, ezen alhargun paubre hunek berze guziek baino gehiago ezarri ukan duela.

4 Ezen hauk guziek soberaturik dutenetik ezarri ukan dute lainkoaren oblationetara: baina hunek bere paubreziatik bere sustantia zuen guzia ezarri ukan du.

5 Eta batzuk erraiten zutenean tenpleaz, ezen harri ederrez eta emaitzaz ornatua zela, erran zezan.

6 Hauk dirade miratzen dituzuenak? ethorriren dirade egunak zeinetan ezpaita geldituren harria harriaren gainean desegin eztadin.

7 Orduan interroga zezaten hura, zioitela, Majistrua, noiz bada horiak izanen dirade? eta zer signo *izanen da* horiak ethorri behar dirade-nean?

8 Eta hark erran zezan, Begirauzue seduzi etzaitezten: ezen anhitz ethorriren dirade ene izenean, dioitela, Ni naiz *Krist*: eta denbora hure hurbiltzen da: etzoaztela bada haien ondoan.

9 Eta enzun ditzazuenean gerlak eta seditio-neak ezalbeitzinteizte izit: ezen gauza hauk lehen ethorri behar dirade: baina ezta bertan fina *izanen*.

10 Orduan erran ziezen, Altxaturen da nationea nationearen kontra, eta resuma resumaren kontra:

11 Eta lur ikaratze handiak izanen dirade lekutik lekura, eta goseteak eta izurriteak, eta

izidurak: eta signo handiak izanen dirade, zerutik.

12 Baina gauza hauen guzion aitzinetik bere eskuak ezarriren dituzte zuen gainean, eta persekutaturen zaituzte, liuratzen zaituztela sinagotara eta presoindegietara, eramanik Regetara eta Gobernadoretara, ene izenagatik.

13 Eta horiak helduren zaizkizue testimonia-jetan.

14 Ezarzue bada zuen bihotzetan, aitzinetik ez pensatzera nola ihardetsiren duzuen.

15 Ezen nik emanen drauzuet aho, eta iakite zeini ezin kontrastaturen baitzaizkio, ezeta resistenturen zuei kontrastaturen zaizkizuen guziek.

16 Halaber liuraturen zarete aitez eta amez eta anaiez eta ahaidez eta adiskidez: eta zuetarik hil eraziren dute:

17 Eta guziez gaitzetsiak izanen zarete ene izenaren kausaz.

18 Baina zuen buruko bilo bat ezta galduren.

19 Zuen patientiaz poseditzazue zuen arimak.

20 Eta ikus dezazuenean Ierusalemeko jendarmeriaz inguratua, orduan albeitzinekite ezen hurbil datela haren destruktioea.

21 Orduan ludean diradenek ihes albeilegite mendietarat: eta haren artekoak retira albeilitez: eta kanpoetan diradenak ezalbeilitez hartan sar.

22 Ezen mendekiozko egunak dirade hauk, eskribatuak diraden gauza guziak konpli ditezen-zat

23 Eta dohain gaiz *emazte* izorren eta eredokiten dukeitenen egun hetan, ezen nezesitate handia izanen da lur haren gainean, eta hira populu hartan.

24 Eta eroriren dirade ezpataren ahoz, eta kaptibo eramannen dirade natione guzietara, eta Ierusalem aurizkia izanen da Jentilez, Jentilen denborak konpli daitezkeno.

25 Orduan izanen dirade signoak iguzkian eta ilhargian eta izarretan: eta lurrean afliktione nationetan ez iakinez zer egin, orroaz daudela itsasoa eta bagak:

26 Hala non gizonak hilak bezalakaturen baitirade iziduraren handiz, eta mundura ethorriren diraden *gaitzen* begira egoitez: ezen zeruetako berthuteak ikaraturen dirade.

27 Eta orduan ikusiren dute gizonaren Semea ethorten dela hodei batetan bothere eta gloria handirekin.

28 Eta gauza hauk egiten has ditezenez, xuxent albeitzinteizte, eta goiti albeitzinzate zuen buruak, ezen hurbiltzen da zuen redenptionea.

29 Eta erran ziezen konparatione *haur*, Ikusizue fikitzea eta arbore guziak.

30 Ia hostatzen diradela dakusazuenez, zeuron buruz ezagutzen duzue ezen ia hurbil dela uda.

31 Halaber zuek ere ikusiren dukezuenen gauza hauk egiten diradela, ezagut albeitzinezate ezen hurbil dela lainkoaren resuma.

32 Egiaz erraiten drauzuet ezen eztela iraganen mende haur, gauza hauk guziok egin daitezkeno.

33 Zerua eta lurra iraganen dirade, baina ene hitzak eztirade iraganen.

34 Gogoia eiezue bada zuen buruei, zuen bihotzak sortha eztitezen gormandizaz, eta hor-dikeriaz, eta bizitze hunetako ansiez: eta subitoki gainera ethor eztakizuen egun hura.

35 Ezen lazo batek bezala atrapaturen ditulur guziaren gainean habitatzen diraden guziak.

36 Beilla ezazue bada, denbora guzian othoitz egiten duzuela, ethorteko diraden gauza guziei itzurteko digne egin zaiteztenzat, eta gizonaren Semearen aitzinean egon ahal zaiteztenzat.

37 Eta egunaz tenplean irakasten ari zen, eta gauaz Olibatzetako deitzen den mendian egoitena zen.

38 Eta populu guzia goizean ethorten zen harengana, tenplean hura enzun lezanzat.

KAP. XXII.

1, 8 Bazkoa. 19 Zenaren institutionea. 20 Testamentu berria. 24 Apostoluek iharduki bere arteko gehientasunaz. 26 Krist ministre. 32 Pierrisgatik Kristek othoitz egin. 34 Pierrisen arnegamenduaz. 36 Mulsaz. Maletaz. Ezpataz. 39 Krist othoiztez egon. 43 Aingeruak

*konfortatzen, 44 odolez izerdi. 47
Iudasek traditzen. 57 Pierrisek
ukatzen. 61 Kristek Pierrisganat
behatzen. 62 Pierris nigarrez. 63
Krist eskarniatzen eta zehatzen. 70
Kristek Iainkoaren Seme dela
konfesatzen.*

1 Eta zen hurbiltzen altxagarri gaberiko ogien
besta, Bazko erraiten dena:

2 Eta zabiltzan Sakrifikadore prinzipalak eta
Eskribak nolatan hura hil ahal lezaketen: ezen
populuaren beldur ziraden.

3 Baina Satan sar zedin Iudas izen goitiko
Iskariot deitzen zenera *zein baitzen* hamabien
kontuko.

4 Eta hura ioanik minza zedin Sakrifikadore
prinzipalekin eta kapitaineekin nola hura liura lie-
zakeen.

5 Eta alegera zitezen, eta akorda zitezen hari
diru emaitera.

6 Eta *hark* prometa zezan: eta jendetzerik
ezlizenean haren haei liuratzeko denbora propi-
ren bilha zabilan.

7 Ethor zedin bada altxagarri gaberiko ogien eguna, zeinetan hil behar baitzen Bazkoa.

8 Eta igor zitzan Pierris eta loanes, zioela, loanik apainiezaguzue Bazkoa ian dezagunzat.

9 Eta hek erran ziezoten, Non nahi duk apain dezagun?

10 Hark erran ziezen, Huna, hirian sarthu eta, bathuren zaizue gizon bat, pegar bat ur daramala: hari zarreitzate sarthuren den etxera:

11 Eta errozue etxeko aita familiari, Majistruak erraiten drauk, Non da neure diszipuluekin Bazkoa ianen dudan ostatua?

12 Eta hark erakutsiren drauzue ganbera handi bat aprestatua: han apain ezazue *Bazkoa*.

13 Orduan ioanik eriden zitzaten gauza guziak erran zerauen bezala: eta apain zezaten Bazkoa.

14 Bada ordu hura ethorri eta, iar zedin mahainean, eta hamabi Apostoluak harekin.

15 Eta erran ziezen, Desirez desiratu ukan dut Bazko hunen zuekin iatera, nik sufri dezadan baino lehen.

16 Ezen erraiten drauzuet, gehiagorik ez tudala ianen hunetarik, konpli daiteno lainkoaren resuman.

17 Eta kopa harturik gratiak rendatu zitue nean erran zezan, Har ezazue haur, eta parti ezazue zuen artean. 18 Ezen erraiten drauzuet ez tudala edanen aihenaren fruktutik, lainkoaren resuma ethor daiteno.

19 Eta harturik ogia, gratiak rendatu zitue nean, hauts zezan: eta eman ziezen, zioela, Haur da ene gorputza zuengatik emaiten dena: haur egizue ene memoriotan.

20 Halaber kopa ere *eman ziezen*, afal ondolan zioela, Kopa haur *da* Testamentu berria ene odolean, zein zuengatik isurten baita.

21 Badarik ere huna, ni traditzen nauenaren eskua, enekin da mahainean.

22 Eta segur gizonaren Semea, ordenatu izan den bezala badoa: guziagatik ere malediktione gizon hari, zeinez traditzen baita.

23 Orduan hek has zekizkion bata berzeari galde egiten elkarren artean, eia zein zen heta rik hura eginen luena.

24 Eta gertha zedin kontentione bat ere haien artean, zein hetarik estimaturen zen gehien.

25 Baina hark erran ziezen, Nationen regek seignoriatzen dute haien gainean, eta haien gainean autoritate dutenak, unigile deitzen dirade.

26 Baina zuezaz ezta hala: aitzitik zuen arteko handiena biz xipien bezala: eta gobernatzen duena, zerbitzatzen duena bezala.

27 Ezen zein da handiago, mahainen iarririk dagoena, ala zerbitzun ari dena? eza mahainen iarririk dagoena? Bada ni naiz zuen artean zerbitzatzen ari dena bezala.

28 Eta zuek zarete enekin iraun duzenak ene tentationetan.

29 Nik bada disposatzen drauzuet resuma, niri neure Aitak disposatu ukan drautan bezala.

30 Ian dezazuenzat eta edan ene mahainen ene resuman, eta iar zaitezten thronoen gainean iujeatzen dituzuela Israeleko hamabi leinuak.

31 Erran zezan halaber launak, Simon, Simon, huna, Satanek bihiaren anzora zuen bahatzeko desira dik:

32 Baina nik othoitze egin diat hiregatik, falta ezta din hire fedea: hik bada noizpait konbertiturik konfirmaitzak eure anaieak.

33 Eta hark erran ziezon, launa, prest nauk hirekin eta preso indegira eta heriora ioaitera:

34 Baina Iesusek erran zezan, Hiri diosat Pie-rris, ez tik ioren egun oillarrak, hiruretan ni neza- guala uka dezakean baino lehen.

35 Gero erran ziezen, Zuek igorri zaituzteda- nean mulsa eta maleta eta zapata gabe, deusen falta izan zarete? Eta hek erran zezaten, Deusen ere.

36 Erran ziezen bada, Baina orain mulsa due- nak, har beza, halaber maleta ere: eta eztuenak, sal beza bere arropa, eta eros beza ezpata bat.

37 Ezen erraiten drauzu et oraino behar dela nitan konplitu eskribaturik dagoen haur, Eta gaixtoekin kontatu izan da. Ezen segur nizazko gauzek fin hartzen dute.

38 Eta hek erran zezaten, launa, huna bi ezpata hemen. Eta hark erran ziezen, Asko da.

39 Gero ilkirik parti zedin kostumatu bezala Olibatzetako mendirat: eta iarreiki izan zaizkan bere diszipuluak ere.

40 Eta leku hartara ethorri zenean, erran ziezen, Othoitz egizue sar etzaitezten tentationetan.

41 Orduan hura urrund zedin hetarik harri iraitzi baten ingurua, eta belhaurikaturik othoitz egiten zuen,

42 Zioela, Aita, baldin nahi baduk iragan ezak kopa haur eneganik: badarik ere ez ene borondatea baina hirea egin bedi.

43 Eta ager zekion Aingerua zerutik hura konfortatzen zuela.

44 Eta hersturatan iarririk othoitze egiten zuen zinezago, eta zen haren izerdia odol xorta gatzatu lurrera erorten diradenak bezala.

45 Gero orationetik iaikirik ethor zedin bere diszipuluetara, eta eriden zitzan tristez lo zeunzala.

46 Eta erran ziezen, Zergatik lo zaunzate? iaiki zaitzte, eta othoitz egizue sar etzaitezten tentationetan.

47 Eta hura oraino minzo zela, huna, konpainia bat, eta ludas deitzen zena, hamabietarik bat, haien aitzinean ethorten zen, eta hurbil zekion Iesusi pot legionzat.

48 Eta lesusek erran ziekon, ludas, pot batez gizonaren Semea traditzen duk?

49 Orduan haren aldean ziradenek ikusirik zer ethorteko zen, erran ziezoten, launa, ioren dugu ezpataz?

50 Eta io zezan hetarik batek Sakrifikadore prinzipalaren zerbitzaria, eta edeki ziezon eskui-neko beharria.

51 Baina ihardesten zuela lesusek erran zezan, Utzitzazue *egitera* hunadrano. Eta haren beharria hunkirik, senda zezan hura.

52 Gero erran ziezen lesusek harengana ethorri ziraden Sakrifikadore prinzipalei, eta tenpleko kapitainei, eta Anzianoei, Gaixtagin baten ondoan bezala ilki izan zarete ezpatekin eta uhekin?

53 Egun oroz zuekin ninzela tenplean, eztituzue eskuak hedatu ene gainera: baina haur da zuen oren hura, eta ilhunbearen botherea.

54 Orduan hatzamanik hura eraman zezaten, eta sar erazi zezaten Sakrifikadore subiranoaren etxean. Eta Pierris iarreikiten zaion urrundanik.

55 Eta sua biztu zutenean salaren erdian, eta elkarrekin iarri ziradenean, iar zedin Pierris ere haien artean.

56 Eta ikusi zuenean hura neskato batek su bazterrean iarria, hari begi eratxekirik erran zezan, Haur ere harekin zen:

57 Baina uka zezan harzaz, zioela, Emaztea, eztinat ezagutzen hura.

58 Eta apur baten buruan berze batek hura ikusirik erran zezan, Hi ere hetarik aiz. Baina Pierrisek diotsa, Gizona, ez nauk.

59 Eta kuasi oren baten buruan, berze batek segurutzen zuen, zioela, Segurki haur ere harekin zen: ezen Galileano da.

60 Eta Pierrisek dio, Gizona, etzeakiat zer erraiten duan. Eta bertan oraino hura minzo zela, io zezan oillarrak.

61 Orduan itzulirik launak Pierrisganat beha zezan: eta orhoit zedin Pierris launaren hitzaz, nola erran ukan zeraukan, Oillarrak io dezan baino lehen hiruretan ukaturen nauk.

62 Eta kanporat ilkirik Pierrisek nigar egin zezan mingi.

63 Eta Iesus zadukaten gizonak, trufatzen ziraden haraz, eta zehatzen zuten:

64 Eta hura inguru estalirik haren begitharteari zeraunsaen, eta interrogatzen zuten, zioitela, Profetiza ezak nor den hi io auena.

65 Eta anhitz berze gauzarik erraiten zuten haren kontra desondratzen zutela.

66 Eta argitu zenean bil zitezen populuko Anzianoak, eta Sakrifikadore prinzipalak, eta Eskribak, eta eraman zezaten hura bere konseillu barnera

67 Zioitela, Hi aiz Krist? erraniezaguk. Eta erran ziezen, Baldin erran badiezazuet, eztuzue sinhetsiren:

68 Eta baldin interroga bazaitzatet ere, eznauzue ihardetsiren, ezeta ioaitera utziren.

69 Hemendik harat gizonaren Semea iarria izanen da lainkoaren berthutearen eskuinean.

70 Orduan erran ziezoten guziek, Hi aiz bada lainkoaren Semea? Eta hark erran ziezen, Zuek diozue ezen ni naizela.

71 Eta hek erran zezaten, Zer gehiago testimoniaje falta gara? ezen geurok enzun dugu beraren ahotik.

KAP. XXIII.

1 Krist Pilaten aitzinean akusatu. 7 Herodesgana igorri izanik, 9 Ixilik egon. 11 Harzara Pilatgana igorri. 14, 20 Pilatek Krist largatu nahi, 24 hura kondemnatzen eta Barabbas largatzen. 27 Emazteak nigarrez Kristgatik. 28 Ierusalemereen destruktioneaz. 33 Krist kruzifikatu. 39 Gaixtagin harekin urkatuetarik batak hura blasfematzen, 42 Eta berzeak sinhesten. 44 Herri guzia ilhundu. 45 Tenpleko bela erdiratu. 47 Zentenerak lainkoa glorifikatzen. 51 Iosefek Krist ohorzten.

1 Gero altxa zedin haien jendetze guzia, eta eraman zezaten hura Pilatgana.

2 Eta has zitezen haren akusatzen, zioitela, Eriden ukan dugu haur populuaeren korrupitzen,

eta tributen Zesari emaitetik debetetzen ari dela, dioela, bera dela Krist Regea.

3 Orduan Pilatek interroga zezan hura, zioela, Hi aiz Iuduen Regea? Eta hark ihardesten zeraukala, erran zezan, Hik diok.

4 Eta erran ziezen Pilatek Sakrifikadore prinzipalei eta jendetzei, Hogenik batre eztut erideiten gizon hunetan.

5 Eta hek hanbat gortzenago ziraden, zioite-la, Mobitzen dik populua, irakasten ari dela Iudea guzian, Galilean hasirik hunadrano.

6 Eta Pilatek Galileaz minzaten enzun zue-nean, interroga zezan, eia Galileano zenez gizona.

7 Eta ezaguturik ezen hura Herodesen iurisdiktioneke zela, igor zezan Herodesgana, hura ere Ierusalemen zen egun hetan.

8 Eta Herodes Iesus ikusirik alegera zedin hagitz: ezen aspaldi zuela, haren ikusteko desira zuen, zeren anhitz gauza enzuten baitzuen harzaz: eta esperanza zuen zenbeit signo ikusiren zuela harzaz egiten.

9 Eta interroga zezan anhitz hitzez: baina hark etziezon deus ihardets.

10 Eta Sakrifikadore prinzipalak eta Eskribak zeuden han arrogantki hura akusatzen zutela.

11 Baina Herodesek bere jendearekin hura menospreziaturik, eta eskarniaturik, abillamendu xuri batez beztiturik, harzara igor zezan Pilat-gana.

12 Eta egun hartan berean adikisde zitezen elkarren artean Pilate eta Herodes: ezen lehen etsai ziraden elkarren artean.

13 Orduan Pilatek, deithurik Sakrifikadore prinpalak, eta Gobernadoreak, eta populua, erran ziezen,

14 Presentatu drautazue gizon haur populua-ren nahatsale bezala: eta huna, nik zuen aitzinean interrogaturik, hogenik batre eztut eriden gizon hunetan, zuek akusatzen duzuenetarik:

15 Baina ez Herodesek ere: ezen igorri ukan zaituztet harengana, eta huna, herio merezi duen gauzarik eztrauka egin.

16 Beraz gaztigatu eta, largaturen dut.

17 Eta behar zerauen bat largatu bestan.

18 Bada iar zedin oihuz elkarrekin jendetze guzia, zioela, Ken iezaguk haur, eta larga iezaguk Barabbas,

19 Zein baitzen, hirian egin izan zen zenbeit mutinationegatik eta heriotzegatik presoindegian ezarria.

20 Berriz bada Pilate minza zekien, Iesus largatu nahiz.

21 Baina hek heiagoraz iarten ziraden, erraiten zutela, Kruzifika ezak, kruzifika ezak hori.

22 Eta hark heren aldian erran ziezen, Baina zer gaizki egin du hunek? hiltzeko hogenik eztut erideiten haur baithan: gaztigaturik beraz largaturen dut.

23 Baina hek hertsen zuten oihu handiz rekeritzen zutela, kruzifika ledin: eta haien heiagorak eta Sakrifikadore prinzipalenak renforzatzen ziraden.

24 Orduan Pilatek iujea zezan egin lekien galde egiten zutena.

25 Eta larga ziezen mutinationeagatik eta heriotzeagatik presoindegian ezarri izan zena, zeinen eskatu izan baitziraden: eta eman ziezen Iesus, nahi lutena legiten.

26 Eta hura eramaiten zutela, harturik Simon Zireneano landetarik heldu zen bat, hari krutzea

ganean ezar ziezoten Iesusen ondoan eramaiteko.

27 Eta iarreikiten zaion jendetze handia populutik eta emaztetarik, hura plaignitzen eta lamentatzen zutela.

28 Baina itzulirik hetarat Iesusetik erran zezan, Ierusalemeko alabak, eztagizuela nigarririk ene ganean: baina zeuron buruen ganean egizue nigar, eta zuen haurren ganean.

29 Ezen huna, ethorriren dirade egunak zehinetan erranen baitute, dohatsu *dirade* esterilak, eta enjendratu eztuten sabelak, eta eredoski eztuten ugatzak.

30 Orduan hasiren dirade erraiten mendiei, Eror zaitezte gure gainera: eta mendiskei, estal gaitzazue.

31 Ezen baldin egur hezean gauza hauk egingiten badituzte, eiharrean zer egingen da?

32 Eta eramaiten ziraden berzerik bi gaizkigile ere harekin hil eraziteko.

33 Ethorri izan ziradenean bada Bur-hezur deitzen den lekura, han kruzifika zezaten hura, eta gaizkigileak: bata eskuinean eta berzea ezkerrean.

34 Eta iesusek erraiten zuen, Aita, barka iezek: ezen etzeakie zer egiten duten. Gero haren abillamenduak partiturik, zorte egotz zezaten.

35 Eta populua han egoiten zen beha zegoe-la: eta trufatzen ziraden harzaz Gobernadoreak ere hekin, zioitela, Berzeak enparatu ukan ditu, enpara beza bere burua, baldin haur bada Krist lainkoaren elejitua.

36 Eta trufatzen ziraden harzaz jendarmesak ere, hurbiltzen zaizkala eta binagre presentatzen zeraukatela:

37 Eta erraiten zutela, Baldin hi bahaiz Iuduen Regea enpara ezak eure burua.

38 Eta zen eskributo bat ere haren garaian, letra Grek-ez eta Latinez eta Hebraikoz eskribatua, *hitz hautan*, HAUR DA IUDUEN REGEA.

39 Eta gaizkigile urkatuetarik batak blasfematzen zuen hura, zioela, Baldin hi bahaiz Krist, enpara ezak eure burua eta gu.

40 Baina ihardesten zuela berzeak reprotxa zezan hura, zioela, Ezaiz lainkoaren berere bel-dur, ikusirik ezen kondemnatione berean aizela?

41 Eta gu behinzat iustoki: ezen egin ditugunen merezituak rezebitzen zitiagu: baina hunek eztik deus gaizkirik egin.

42 Eta erran ziezon Iesusi, Orhoit albeitiendi nizaz, launa, ethor adinean eure resumara.

43 Orduan erran ziezon Iesusek, Egiaz erraiten drauat, egun enekin izanen aizela paradisonan.

44 Eta zen sei orenen ingurua, eta ilhunbe egin zedin lur guziaren gainean bedratzi orentarano.

45 Iguzkia ere ilhund zedin, eta tenpleko bela erdira zedin artetik.

46 Eta oihu eginik boz handiz Iesusek dio, Aita, hire eskuetan ezarten diat neure espiritua. Eta haur erranik renda zezan espiritua.

47 Eta ikusirik Zentenerak zer egin izan zen, glorifika zezan lainkoa, zioela, Egiazki gizon haur iusto zen.

48 Eta espektakle hartara bildu izan ziraden jendetze guziak, ikusirik egin izan ziraden gauzak bere bulharrei zeraunstela itzultzen ziraden.

49 Eta zeuden haren ezagunak guziak urrun, eta emazte elkarrekin hari Galileatik iarreiki izan zaizkanak, gauza hauk ikusten zituztela.

50 Eta huna, Iosef zaritzan gizon bat, konseiller, gizon ona eta iustoa:

51 (Hunek etzuen konsentitu haien konseilluan ez egitatean) Iuduen Arimathea hiriko, eta hura ere lainkoaren resumaren begira zegoen:

52 Hura ethorririk Pilatgana, eska zedin Iesusen gorputzaren.

53 Eta hura erautsirik estal zezan mihise batez, eta ezar zezan monument batetan zein baitzen arroka batetan ebakia, zeinetan oraino nehor ezpaitzen ezarri izan.

54 Eta zen preparationeko eguna, eta Sabbath eguna haren *ondoan* heldu zen.

55 Eta iarreikirik harekin Galileatik ethorri izan ziraden emaztek ere mira zezaten monumenta, eta nola ezarri izan zen haren gorputza.

56 Gero itzuli ziradenean apresta zitzaten usainak eta ungentuak, eta Sabbathoan reposa zitezten, manamenduaren araura.

KAP. XXIII.

2, 9 Emaztek Krist resuszitate dela denuntiatzen. 13 Bi bideazkori Krist agertzen, 36 eta hamekei. 41 Haien inkredulitateaz. 43 Kristek resuszitatuz geroztik ian. 47 Penitentia. Bekatuen barkamendua. 48 Apostoluak Kristen testimonio. 49 Haei Espiritu saindua prometetzen. 50 Krist Apostoluak benedikaturik, 51 zerurat igaiten, 52 eta haiek adoratzten.

1 Baina asteko lehen egunean, guziz goiz ethor zitezen monumentera, ekarten zituztela apaindu zituzten usain onak: eta zenbeit *emazte* hekin.

2 Eta eriden zezaten harria monumentetik aldaratua.

3 Eta sarthu ziradenean etzezaten eriden Iesus launaren gorputza.

4 Eta gertha zedin hek halakotz duda handitan ziradela, huna bi gizon eriden baitzitezen

han, xistmist anzora argitzen zuten abillamendutan.

5 Eta nola izituak baitziraden, eta beheitzen baitziraden begithartez lurrera *gikon hek* erran ziezen, Zergatik hilen artean bilhatzen duzue bizidena?

6 Ezta hemen, baina resuszitate da: orhoitzaitezte nola erran zerauzuen oraino Galilean zela,

7 Ziola, Behar da gizonaren Semea liura dadin bizitze gaixtotakoen eskuetara, eta kruzifika dadin: eta hereneko egunean resuszita dadin.

8 Eta orhoitzaitezten haren hitzez.

9 Eta monumentetik itzuli ziradenean, kontazietzen gauza hauk guziak hamekei, eta berze guziei.

10 Eta ziraden Maria Magdalena eta Ioana eta Maria lakesen *ama*, eta berze hekin ziradenak, gauza hauen Apostoluei erraileak.

11 Eta irudi zekizten ergelkeria bezala haien hitzak, eta etzitzaten sinhets.

12 Baina Pierrisek iaikirik laster zegian monumentera, eta ikartzera beheiturik ikus zitzan mihise hutsak bere gain ezarriak: gero ioan

zedin bere baithan miresten zuela egin izan zenaz.

13 Eta huna, hetarik biga ioaiten ziraden egun hartan berean burgu batetara hirurogei estadio Ierusalemetik urrun, Emaus deitzen zenera:

14 Eta minzo ziraden elkarren artean heldu izan ziraden gauza hauzaz guziez.

15 Gertha zedin bada hek minzo ziradela eta zihardukatela, Iesus ere haei hurbildurik ioan baitzedin hekin batean.

16 Baina haien begiak lulluratuak zeuden hura ezagut ezlezatenzat.

17 Eta erran ziezen, Zerik dirade ioaiten zaretela zuen artean konpartitzen dituzuen hitz horiak, eta *zergatik* zarete triste?

18 Eta ihardesten zuela batak Kleopas deitzen zenak, erran ziezon, Hi euror aiz Ierusalem arrotz, eta eztakizkik hartan egun hautan egin izan diraden gauzak?

19 Eta hark erran ziezen, Zer gauza? Eta erran ziezoten, Iesus Nazarenoaz, zein izan baita gizon Profeta, eginez eta erranez botheretsua, lainkoaren eta populu guziaren aitzinean.

20 Eta nola hura liuratu ukan duten Sakrifika-
dore prinzipalek eta gure Gobernadorek herioa-
ren kondemnationera, eta kruzifikatu ukan
duten.

21 Eta guk esperanza gendian hura zela
Israel redemitu behar zuena: badarik ere horien
guzion gainera, egun duk heren eguna gauza
hauk egin izan diradela.

22 Baina gure arteko emazte batzuk ere izitu
gialtie, zein guziz goiz monumentean izan baiti-
rade:

23 Eta eriden ezutenean haren gorputza,
ethorri izan dituk, dioitela bisione bat ere Ainge-
ruenik ikusi ukan dutela, hura bizi dela dioitene-
nik

24 Eta ioan izan dituk gurekin ziradenetarik
batzu monumentera, eta hala eriden die nola
emaztek erran baitzuten: baina bera ez tie ikusi.

25 Orduan hark erran ziezen, O adimendu
gabeak, eta Profetek erran dituzten gauza
guzien sinhestera bihotz berantkorretakoak!

26 Etzena behar Kristek gauza horiak sufri
zitzan, eta bere glorian sar ledin?

27 Gero hasirik Moises baitharik eta Profeta guzietarik, deklaritzen zerauzten Eskriptura guzietan harzaz beraz ziraden gauzak.

28 Eta hurbil zitezen ioaiten ziraden burgura, eta hark urrunago ioaitera irudi egiten zuen.

29 Baina bortxa zezaten, zioitela, Ago gurekin: ezen arratsa duk, eta eguna duk beheratu. Sar zedin bada hekin egoitera.

30 Eta gertha zedin hekin mahainean iarririk zegoela, ogia harturik gratiak renda baitzitzan, eta hautsirik eman baitziezen.

31 Orduan ireki zitezen haien begiak, eta ezagut zezaten hura: baina hura ken zedin haien agerritik.

32 Eta erran zezaten elkarren artean, Etzena gure bihotza erratzen gutan, minzo zaikunean bidean, eta deklaritzen zerauzkigunean Eskripturak?

33 Eta iaikirik ordu hartan berean itzul zitezten Ierusalemara, eta eriden zitzaten elkargana bilduak hamekak, eta hekin ziradenak:

34 Erraiten zutela, Resuszitate da launa egiazki, eta agertu izan zaio Simoni.

35 Hek ere konta zitzaten bideko gauzak, eta nola hezaz ezagutu izan zen ogiaren haustean.

36 Eta gauza hauzaz minzo ziradela, presenta zedin Iesus bera haien artean, eta erran ziezen, Bakea *dela* zuekin.

37 Baina *hek* trublaturik eta iziturik, uste zuten espiritu bat zakusatela.

38 Orduan erran ziezen, Zergatik trublaturik zarete, eta zergatik pensamenduak igaiten dirade zuen bihotzetara?

39 Ikus itzazue ene eskuak eta ene oinak: ezen hura bera naiz ni, hazta nezazue, eta mira: ezen espirituak haragirik ez hezurrik eztu, nola nik dudala baitakusazue.

40 Eta gauza hauk erran zituenean, erakutsi zieten eskuak eta oinak.

41 Baina oraino *hek* alegeraz sinhesten etzutezela, eta miraz zeudela, erran ziezen, Baduzue hemen deus iatekorik?

42 Orduan *hek* presenta ziezoten arrain erre zathi bat, eta ezti orraze batetarik.

43 Eta harturik haien aitzinean ian zezan.

44 Eta erran ziezen, Hauk dirade erraiten nerauzkizuen hitzak, oraino zuekin ninzela, ezen

behar ziradela konplitu nizaz Moisesen Legean, eta Profetetan, eta Psalmuetan eskribaturik dau- den gauza guziak.

45 Orduan ireki zezan haien adimendua, Eskripturen aditzeko.

46 Eta erran ziezen, Hala da eskribatua eta hala behar zen Kristek sufri lezan, eta resuszita ledin hiletarik hereneko egunean.

47 Eta predika ledin haren izenean penitentia eta bekatuen barkamendua nazione guzietan, hasirik Ierusalemetik.

48 Eta zuek zarete testimonio gauza hauzaz: eta huna nik igorriren dut neure Aitaren prome- sa zuen gainera:

49 Baina zuek zaudete Ierusalemeko hirian berthutez garaitik bezi zaitzketeno.

50 Gero eraman zitzan kanporat Bethaniara- no eta bere eskuak altxaturik, benedika zitzan.

51 Eta gertha zedin hek benedikatzen zitue- la, apartaturik hetarik, goiti altxa baitzedin zeru- rat.

52 Eta hek hura adoraturik itzul zitezzen Ieru- salemera, bozkario handirekin.

53 Eta ziraden bethi tenplean, laudatzen eta benedikatzun zutela lainkoa. Amen.

IESUS KRISTEN EBANJELIO SAINDUA S. IOANEN ARAURA

KAP. I.

1 Krist lainko, 4 Bizitze, 5 eta Argi. 6 loanesek Kristez testifikatzen. 12 lainkoaren haurrak zein 17 Gratia, Kristez. 18 lainkoa nehork ez ikusi. 20 Nola loanes ezten Krist. 26, 33 Urezko baptismoa. 29 lainkoaren Bildotsa. 37 loanesen diszipuluak Kristi iarreiki. 40 Andriu, 43 Simon Zefas, Pierris. 44 Filipe deithu. 45, 49 Nathanael, eta haren fedea.

1 Hatsean zen Hitza, eta Hitza zen lainkoa baithan, eta lainko zen Hitza.

2 *Hitz* haur zen hatsean lainkoa baithan.

3 Gauza guziak *Hitz* harzaz egin izan dirade: eta hura gabe deus ezta egin, egin denik.

4 Hartan zen bizitzea, eta bizitzea zen gizonen Argia:

5 Eta Argi hunek ilhunbean argitzen du: eta ilhunbeak hura eztu konprehenditu.

6 Izan da gizon bat lainkoaz igorria, loanes deitzen zenik.

7 Haur ethor zedin testimoniaje *ekartera* Argiaz testifika lezanzat, guziek harzaz sinhets lezatenzat.

8 Etzen hura Argia, baina *igorri zen* Argiaz testifika lezanzat.

9 *Haur* zen Argi egiazkoa, mundura ethortenden gizon guzia argitzen duena.

10 Munduan zen, eta mundua harzaz egin izan da, eta munduak eztu hura ezagutu.

11 Beretara ethorri izan da, eta berek eztute hura, rezebitu.

12 Baina hura rezebitu duten guziei, eman draue pribilejio lainkoaren haur izateko, haren izenean sinhesten dutenei:

13 Zein ezpaitirade iaio odoletarik, ez haragiaren borondatetik, ez gizonaren borondatetik: baina lainkoaganik.

14 Eta Hitza haragi egin izan da, eta habitatu izan da gure artean, (eta kontenplatu ukan dugu haren gloria, gloria *diot* Aitaganik enjendratu bakoitzarena bezala) gratiaz eta egiaz bethea

15 loanesek testifikatu ukan du harzaz, eta oihu egin, zioela, Haur da zeinez erraiten-bai-nuen, Ene ondoan ethorten dena, ni baino aitzinekoago da: ezen ni baino lehen zen.

16 Eta haren abundantiatik guziek rezebitu ukan dugu, eta gratia gratiagatik.

17 Ezen Legea Moisesez eman izan da, *baina* gratia eta egia Iesus Kristez egin izan da.

18 Iainkoa nehork eztu ikusi egundano, Aitarren bulharrean den seme bakoitzak berak deklaratu *drauku*.

19 Eta haur da loanesen testimoniaje, Iuduek Ierusalemetik Sakrifikadoreak eta Lebitak igorri zituztenekoa, hura interroga lezatenzat, Hi nor aiz?

20 Eta aithor zezan, eta etzezan uka: eta aithor zezan, *zioela*, Eznaiz ni Krist.

21 Orduan interroga zezaten, Zer beraz? Elias aiz hi? Eta erran zezan, Eznaiz. Profeta aiz hi? Eta ihardets zezan, Ez.

22 Erran ziezoten bada, Nor aiz? respostu deiegunzat igorri gaituztenei: zer diok eurorrez?

23 Dio, Ni *naiz* desertuan oihuz dagoenaren boza, Plana ezazue launaren bidea, Esaias Profetak erran zuen bezala.

24 Eta igorri izan ziradenak Fariseu ziraden.

25 Eta interroga zezaten hura, eta erran ziezoten. Zergatik beraz batheiatzen ari aiz, baldin hi Krist ezpahaiz, ez Elias, ez Profeta?

26 Ihardets ziezen loanesek, zioela, Ni batheiatzen ari naiz urez, baina zuen artean da bat zuek ekagutzen eztuzuenik:

27 Hura da ene ondoan ethorten dena, zein ni baino aitzinekoago baita, zeinen zapatako hedearen laxatzeko ezpainaiz ni digne.

28 Gauza hauk Bethabaran egin izan ziraden Iordanaz berze aldean, non loanes batheiatzen ari baitzen.

29 Biharamunean ikusten du loanesek Iesus harengana ethorten dela, eta dio, Huna lainkoaren Bildotsa munduaren bekatuak kenzen dituen.

30 Haur da zeinez erraiten bainuen, Ene ondoan ethorten da gizon bat, zein ni baino aitzinekoago baita, ezen ni baino lehen zen.

31 Eta nik eznuen hura ezagutzen: baina Israeli manifesta dakionzat, halakotz ethorri naiz ni urez batheiatzera.

32 Orduan *bada* testifika zezan loanesek, zio-ela, Ikusi dut Espiritua iausten dela uso kolunba baten gisan zerutik eta egon ere bazedin haren gainean.

33 Eta nik eznuen ezagutzen hura: baina urez batheiatzera igorri nauenak, erran zerautan, Noren gainera ikusiren baituk Espiritua iausten, eta egoiten haren gainean, hura duk Espiritu sainduaz batheiatzen duena.

34 Eta nik dut ikusi, eta dut testifikatu ezen haur dela lainkoaren Semea.

35 Biharamunean berriz bazegoen loanes, eta harenik bi diszipulu:

36 Eta ikusirik Iesus ebilten, erran zezan, Hara lainkoaren Bildotsa.

37 Eta enzun zezaten hura bi diszipuluek minzaten, eta iarreiki izan zaizkan Iesusi.

38 Eta itzulirik lesusek, eta ikusirik hek zarreitzala, dioste haei, Zeren bilha zabiltzate? Eta hek erran ziezoten, Rabbi (erran nahi baita hanbat nola Majistrua) non egoiten aiz?

39 Dioste, Zatozte eta ikusazue. Ehor zitezzen eta ikus zezaten non egoiten zen: eta hura baithan egon zitezzen egun hartan: ezen hamar orenen ingurua zen.

40 Zen Andriu Simon Pierrisen anaiea, loanes minzaten enzun zuten bietarik eta hari iarreiki zaizkonetarik bata.

41 Hunek eriden zezan lehenik Simon bere anaiea, eta erran ziezon, Eriden diagu Mesias, (erran nahi baita hanbat nola Krist.)

42 Eta eraman zezan hura Iesusgana. Eta Iesusek harenganat behaturik erran zezan, Hi aiz Simon Ionaren semea: hi deithuren aiz Zefas (hanbat erran nahi baita nola harria)

43 Biharamunean Iesus ioan nahi izan zen Galileara eta eriden zezan Filipe, eta erran ziezon, Arreit niri.

44 Eta Filipe zen Bethsaidako, Andriuen eta Pierrisen hiriko.

45 Erideiten du Filipek Nathanael, eta diotsa, Eriden diagu Iesus Nazarethekoa, Iosefen semea, zeinez eskribatu baitu Moisesek Legean eta Profetek.

46 Eta erran ziezon Nathanaelek, Nazarethetik deus onik ahal date? Diotsa Filipek, Athor eta ikusak.

47 Ikus zezan Iesusek Nathanael harengana ethorten zela, eta erran zezan harzaz, Huna egiazko Israelita bat zeinetan enganiorik ezpaita.

48 Diotsa Nathanaelek, Nondik nazaguk? Ihardets zezan Iesusek eta erran ziezon, Filipek dei enzan baino lehen, fikitze azpian inzenean ikusten indudan.

49 Ihardets zezan Nathanaelek, eta erran ziezon, Majistrua, hi aiz lainkoaren Semea: hi aiz Israeleko Regea.

50 Ihardets zezan Iesusek, eta erran ziezon, Zeren erran drauadan, Ikusi aut fikitze azpian, sinhesten duk? gauza hauk baino handiagorik ikusiren duk.

51 Halaber erran ziezon, Egiaz egiaz erraiten drauzuet, Hemendik harat ikusiren duzue zerua

irekirik, eta lainkoaren Aingeruak igaiten eta iausten diradela gizonaren Semearen gainera.

KAP. II.

*1 Krist, ura mahatsarnotara
konbertiturik, 11 Bere buruaren
manifestatzen hasi: 12
Kapernaumera ioan: 13
Ierusalem-era igan. 14 Saltzaleak
tenpletik iraitzi. 16 lainkoaren etxea.
19 Tenple desegina arreginen. 23
Anhitzek Krist baithan sinhesten.*

1 Eta hereneko egunean ezteiak egin zitezten Kana Galileakoan: eta Iesusen ama zen han

2 Eta deithu izan zen Iesus ere, eta haren diszipuluak ezteietara.

3 Eta faltatu zenean mahatsarnoa, bere amak diotsa, Iesusi, Mahatsarnorik ez tie.

4 Diotsa Iesusek, Zer dut nik hirekin emaztea? oraino eztun ethorri ene orena.

5 Dioste haren amak zerbitzariei, Zer ere erran baitiezazue, egizue.

6 Eta ziraden han sei kuba harrizkorik ezarriak luduen purifikatonearen araura, zadukate-nik batbederak bira edo hirurna neurri.

7 Dioste Iesusek, Bethaitzazue kubak urez. Eta bethe zitzaten garairano.

8 Orduan dioste, Eraitsazue orain, eta ekarrozue mestedostalari. Eta ekar ziezoten:

9 Eta dastatu zuenean mestedostalak ur mahatsarno egin izan zena (eta etzakian nondik zen: baina ura karreatu zuten zerbitzariiek bazakiten) deitzen du esposoa mestedostalak,

10 Eta diotsa, Gizon guziak lehenik mahatsarno ona ezarten dik, gero ungi edan dukeiten orduan, gaixtoena: *baina* hik begiratu ukan duk mahatsarno ona oraindrano.

11 Signo hatse haur egin zezan Iesusek Kana Galileakoan, eta manifesta zezan bere gloria: eta sinhets zezaten hura baithan haren diszipuluek

12 Gero iaustu zedin Kapernaumera, bera eta haren ama eta haren anaieak eta haren diszipuluak: eta egon zitezten han, ez anhitz egun.

13 Ezen hurbil zen luduen Bazkoa. Igan zedin bada Iesus Ierusalem-era.

14 Eta eriden zitzan tenplean idi eta ardi eta uso kolunba salzaleak, eta kanbiadoreak iarririk zeudela.

15 Eta eginik azote bat kordatoz, guziak egotz zitzan tenpletik, eta ardiak eta idiak: eta kanbiadoreen moneda isur zezan, eta mahainak itzul zitzan.

16 Eta uso kolunba salzalei erran ziezen, Ken itzazue gauza hauk hemendik: eta eztagizuela ene Aitaren etxeaz merkatalgoatako etxe.

17 Orduan orhoit zitezten haren diszipuluak ezen eskribatua dela, Hire etxeazko zeloak ni ian niauk.

18 Ihardets zezaten bada luduek eta erran ziezoten, Zer signo erakusten draukuk gauza horiak egin ditzan?

19 Ihardets zezan Iesusek, eta erran ziezen, Desegin ezazue tenple haur, eta hirur egunez dut altxaturen:

20 Erran zezaten bada luduek, Berrogei, eta sei urthez edifikatu izan duk tenple haur, eta eta hik hirur egunez altxaturen duk?

21 Baina hura minzo zen bere gorputzazko tenpleaz.

22 Bada resuszitate zenean hiletarik, orhoit zitezten haren diszipuluak, nola haur erran ukan zerauen: eta sinhets zezaten Eskriptura, eta lesusek erran zuen hitza.

23 Eta Ierusalemen zenean Bazko bestan, anhitzek sinhets zezaten haren izenean, ikusirik hark egiten zituen signoak.

24 Baina Iesus bera etzaien fida, zeren hark ezagutzen baitzituen guziak:

25 Eta zeren ezpaitzuen mengoarik nehork testifika lezan gizonaz: ezen berak bazakian zer zen gizonen.

KAP. III.

1 Nikodemo gauaz Kristgana ethorten. 3 Urez eta Espirituz sortzea. 13 Zerura nor igan. 14 Sugea desertuan. 15, 16 Bizitze eternala. Iainkoaren amorioa. 17 Salbamendua. 18 Fedea. 19

*Kondemnationea. Argia. Ilhunbea.
Obrak. 22 Krist iudean batheiatzen
ari, 23 Ioanes ere. 25
Purifikazionezko kestionea. 33
Iainkoa egiati. 36 Iainkoaren hira
infidelen gainean.*

1 Zen bada Fariseuetarik edozeinbat Nikodemoko deitzen zenik, Iuduen arteko prinzipaletarik bat:

2 Haur ethor zedin Iesusgana gauaz, eta erran ziezona, Majistrua, bazeakiagu ezen Iainkoaganik majistru ethorria aizela: ezen nehork ezin egin zitzakek hik egiten dituan signo hauk, Iainkoa harekin ezpada.

3 Ihardets zezan Iesussek eta erran ziezona, Egiaz egiaz erraiten drauat, berriz iaio izanen eztenek, ezin ikus dezakela Iainkoaren resuma

4 Erran ziezona Nikodemok, Nolatan gizona iaio ahal daite zahar denean? ala berriz bere amaren sabelean sar eta iaio ahal daite?

5 Ihardets zezan Iesussek, Egiaz egiaz erraiten drauat, urez eta Espirituz iaio eztena, ezin sar daitela Iainkoaren resuman.

6 Haragitik iaio dena haragi duk: eta Espiritutik iaio dena, espiritu duk.

7 Eztezala mirets zeren erran drauadan, Berriz iaio behar zarete.

8 Haizeak nahi duen lekura diraunsak: eta haren hotsa enzuten duk: baina eztakik nondik heldu den ez norat ioaiten den: hala duk espiritutik iaio den guzia.

9 Ihardets zezan Nikodemok, eta erran ziezion, Nolatan gauza hauk egin ahal daitezke?

10 Ihardets zezan Iesusek, eta erran ziezion, Hi aiz Israeleko doktor, eta gauza hauk eztituk ezagutzen?

11 Egiaz egiaz erraiten drauat, ezen dakigun gauza erraiten dugula, eta ikusi dugun gauzaz testifikatzen dugula: baina gure testimoniajea eztuzue rezebitzen.

12 Baldin lurreko gauzak erran badrauzkizuet, eta sinhesten ezpadituzue? nolatan baldin zeruko gauzak erran badietzazuet sinhetsiren duzue?

13 Ezen nehor ezta igan zerura, zerutik iautsi dena baizen, *zein baita* gizonaren Seme zeruan dena.

14 Eta nola Moisesek altxa baitzezan sugea desertuan, hala altxa dadin behar da gizonaren Semea:

15 Hura baithan sinheste duenik batre gal eztadin, baina bizitze eternala duenzat.

16 Ezen hala lainkoak onhetsi ukan du mundua, non bere Seme bakoitza eman ukan baitu, hura baithan sinhesten duenik gal eztadin, baina bizitze eternala duenzat.

17 Ezen eztu igorri lainkoak bere Semea mundura, mundua kondemna dezanzat, baina mundua harzaz salba dadinzat.

18 Hura baithan sinhesten duenik, ezta kondemnatzen: baina sinhesten eztuena ia kondemnatua da: ezen eztu sinhetsi lainkoaren Seme bakoitzaren izenean.

19 Haur da bada kondemnationea, ezen Argia ethorri da mundura, baina onhetsiago dute gizonak ilhunbea ezen ez Argia: zeren haien obrak gaixtoak baitirade.

20 Ezen gaizki ari den guziak, gaitz daritza argiari: eta ezta argira ethorten, haren obrak reprehendi eztitezenzat.

21 Baina bidezki ari dena, ethorten da argira, haren obrak manifesta ditezenzat: zeren lainkoaren araura eginak baitirade.

22 Gero ethor zedin Iesus bere diszipuluekin Iudeako lurrera: eta han egoiten zen hekin, eta batheiatzen ari zen.

23 Eta loanes ere batheiatzen ari zen Enonen Salingo aldean, zeren anhitz ur baitzen han: eta ethorten ziraden *jendeak* eta batheiatzen ziraden.

24 Ezen oraino etzen ezarri izan loanes pre-soindegian.

25 Altxa zedin bada kestione bat loanesen diszipuluetarik Iuduekin purifikazioneaz.

26 Eta ethor zitezen loanesgana, eta erran ziezoten, Majistrua, Iordanaz berze aldean hirekin zena, zeinez hik testifikatu baituk, hara, batheiatzen ari duk, eta guziak ethorten dituk harengana.

27 Ihardets zezan loanes-ek eta erran zezan, Ezin gizonak rezebi dezake deus, baldin eman ezpadakio zerutik.

28 Zuek zeurok zaituztet testimonio nola erran dudan, Ez naiz ni Krist, baina igorri izan naiz haren aitzinean.

29 Esposa duena esposo da: baina esposo denaren adiskide han dena eta hura enzuten duena, hagitz alegeratzen da esposoaren bozagatik: beraz ene alegranza konplitu da.

30 Hark behar du handitu, eta nik xipitu.

31 Garaitik ethorri dena, guzien gaineko da: lurretik dena, lurreko da, eta lurreko gauzez minzo da: zerutik ethorri dena guzien gaineko da.

32 Eta zer ikusi eta enzun baitu hura testifikatzen du: baina haren testimoniajea nehork eztu rezebitzen.

33 Haren testimoniajea rezebitu duenak zigilatu du ezen lainkoa egiati dela.

34 Ezen lainkoak igorri duena lainkoaren hitzez minzaten da, ezen lainkoak eztrauka neurritz emaiten Espiritua.

35 Aitak maite du Semea, eta gauza guziak eman ditu haren eskura.

36 Sinhesten duenak Semea baithan, badu bizitze eternala: baina Semea obeditzen eztaue-

nak, eztu ikusiren bizitzea, baina lainkoaren hira dago haren gainean.

KAP. IIII.

7 Krist Samaritanari edatera eskez euki. 10 Ur bizia. 22 Salbamendua iuduetarik. 23, 24 Adoratione egiazkoa. 26 Iesus da Krist. 32 Haren bianda. 35 Uzta zorhi. 39 Samaritanoetarik anhitzek Krist baithan sinhesten. 42 Haien konfesioea. 45 Kristek Galileanoak rezebitzen. 46 laun baten semea sendatu. 54 Iesusen bigarren signoa.

1 Bada ezagutu zuenean launak nola enzun zuten Fariseuek ezen Iesusek diszipulu gehiago egiten zuela eta batheiatzen, ezen ez loanesek:

2 (Iesus bera batheiatzen ari ezpazen ere, baina haren diszipuluak)

3 Utzi zezan Iudea, eta ioan zedin berriz Galilearat.

4 Eta hark behar zuen iragan Samariatik.

5 Ethorten da bada Samariako hiri Sikar deitzen den batetara *zein baita* lakob-ek bere seme Iosefi eman zeraukan posesionearen aldean.

6 Eta zen han lakob-en ithurria: Iesus bada bidean unhatua berehala iar zedin ithur bazterrean: *ezen* bazen sei orenen ingurua.

7 Ethor zedin emazte Samaritana bat ur idokitera: erran ziezon hari Iesusek, Indan edatera.

8 Ezen haren diszipuluak ioan izan ziraden hirira iateko erostera.

9 Diotsa bada hari emazte Samaritana hunek, Nola hi Iudu aizelarik, edatera niri eskez aut, bainaiz emazte Samaritana? ezen ez tie konbersionerik Iuduek Samaritanoekin.

10 Ihardets zezan Iesusek eta erran ziezon, Baldin bahaki lainkoaren dohaina, eta nor den hiri erraiten draunana, Indan edatera, hi eskatu inzaiketon hari, eta eman baitzeraukenan ur bizi-tik.

11 Diotsa emazteak, launa, eztuk zerzaz idoki dezan, eta putzua duk barna: nondik duk beraz ur bizi hori?

12 Ala gure aita lakob baino handiago aiz hi, zeinek eman baitrauku putzu haur, eta berak hunetarik edan baitu, eta haren haurrek, eta haren abrek?

13 Ihardets zezan lesusek eta erran ziezon, Ur hunetarik edaten duen guzia egarrituren dun berriz:

14 Baina nork ere edanen baitu nik emanen draukadan uretik, eztun egarrituren sekulan: baina nik emanen draukadan ura, eginen dun hura baithan ur iauzten denezko ithurri, bizitze eternalakotzat.

15 Diotsa emazteak, launa, indak ur horretarik, egarri eznadin, eta ethor eznadin huna idokitera.

16 Diotsa lesusek, Habil dei ezan eure senharrak, eta athor huna.

17 Ihardets zezan emazteak eta erran ziezon, Eztiat senharrik. Diotsa lesusek, Ungi erran dun, Eztiat senharrik.

18 Ezen borz senhar ukan ditun, eta orain dunana, eztun hire senhar: hori egiaz erran dun.

19 Diotsa emazteak, launa, badiakusat ezen Profeta aizela hi.

20 Gure aitek mendi hunetan adoratu ukan die: eta zuek diozue ezen Ierusalemen dela lekua non adoratu behar baita.

21 Diotsa Iesusek, Emaztea, sinhets nezan ni, ezen ethorten dela orena noiz ezpaituzue mendi hunetan ez Ierusalemen adoraturen Aita.

22 Zuek adoratzan duzue eztakizuen, guk adoratzan dinagu dakiguna: ezen salbamendua Iuduetarik dun.

23 Baina ethorten dun orena, eta orain dun, noiz adorazale egiazkoek adoraturen baitute Aita espirituz eta egiaz: ezen Aita ere halako adorazalen galdez diagon.

24 Iainkoa dun Espiritu: eta hura adoratzan dutenek, espirituz eta egiaz adoratu behar dine.

25 Diotsa emazteak, Bazeakiat ezen Mesiasa ethorteko dela, Krist deitzen dena, hark dathorrenean deklaraturen dirauzkiguk gauza guziak.

26 Diotsa Iesusek, Ni naun *hura*, hirekin minzo naizena.

27 Eta bizkitartean ethor zitezzen haren diszipuluak, eta mirets zezaten nola emazte batekin minzo zen: badarik ere nehork etziezon erran, Zeren galdez ago? edo, Zer minzo aiz horrekin?

28 Utzi zezan bada bere unzia emazteak, eta ioan zedin hirira, eta erran ziezen leku hartako jendei.

29 Zatozte, ikusazue gizon bat zeinek erran baitrauzkit egin ditudan gauza guziak: ezta haur Krist?

30 Ilki zitezen bada hiritik, eta ethor zitezen harengana.

31 Eta bizkitartean othoitz egiten zeraukaten diszipuluek, zioitela, Majistrua, ian ezak.

32 Baina hark erran ziezen, Nik bianda bat dut iateko, zuek eztakizuenik.

33 Erraiten zuten bada diszipuluek elkarren artean, Nehork ekarri othe drauka iatera?

34 Dioste lesusek, Ene bianda da egin dezadan ni igorri nauenaren borondatea, eta akaba dezadan haren obra.

35 Eztuzue zuek erraiten, Oraino laur hilebethe dirade, eta uzta ethorriren da? Huna, erraiten drauzuet, goititzazue zuen begiak, miraitzazue bazterrak, ezen ia xuritu dirade uztaren biltzeko.

36 Eta uzta biltzen duenak, sari rezebitzen du, eta biltzen du fruktua bizitze eternalerako-

tzat: ereiten duenak bozkario duenzat, baieta biltzen duenak ere.

37 Ezen hunetan erran haur egiazko da, Bat da ereiten duena, eta berze bat biltzen duena.

38 Nik igorri zaituztet nekatu etzaretenaren biltzera: berzeak nekatu izan dirade, eta zuek haien travailluan sarthu izan zarete.

39 Eta hiri hartako Samaritanoetarik anhitzek sinhets zezaten hura baithan, emazte testifikatu zuenaren erranagatik, *zioela*, Egin dudan guzia erran draut.

40 Ethorri ziradenean bada Samaritanoak, othoitz egin ziezoten hekin egon ledin: eta egon zedin han bi egun.

41 Eta anhitzez gehiagok sinhets zezaten beraren hitzagatik.

42 Eta emazteari erraiten zeraukaten, Eztinagu goitirik hire erranagatik sinhesten: ezen geurok enzun dinagu, eta bazeakinagu ezen haur dela egiazki Krist munduaren Salbadorea.

43 Eta bi egunen buruan parti zedin handik, eta ioan zedin Galilearat.

44 Ezen Iesusek berak testifika zezan, ezen Profeta batek bere herrian ohorerik eztuela.

45 Bada ethorri izan zenean Galileara, rezebi zezaten Galileanoek, bestan Ierusalemen egin zituen gauza guziak ikusirik: ezen hek ere ethorri izan ziraden bestara.

46 Ethor zedin bada Iesus berriz Kana Galileako *hirira*, non egin ukan baitzuen ura mahatsarno. Eta zen gorte iaun bat, zeinen semea baitzen eri Kapernaumen.

47 Haur, enkunik ezen Iesus ethorri zela Iudeatik Galileara, ioan zedin harengana, eta othoitz egin ziezon iauts ledin, eta senda liezon bere semea: ezen hiltzera zioan.

48 Erran ziezon orduan Iesusek, Signoak eta mirakuluak ikus ezpaditzazue, eztezakezue sinhets.

49 Diotsa gorte iaun hark, launa, iausti adiene semea hil dadin baino lehen.

50 Diotsa Iesusek, Habil: hire semea bizi duk. Eta sinhets zezan gizonak Iesusek erran zeraukan hitza eta ioan zedin.

51 Eta ia hura iausten zela *bere* zerbitzariak bat zekizkion, eta konta ziezoten, zioitela, Hire semea bizi duk.

52 Orduan galdegin ziezen, zer orenez hobeki eriden izan zen: eta erran ziezoten, Atzo zazpi orenetan utzi zian helgaitzak.

53 Ezagut zezan bada aitak ezen oren hartan zela lesusek erran zeraukana, Hire semea bizi duk. Eta sinhets zezan berak, eta haren etxe guziak.

54 Bigarren signo haur berriz egin zezan lesusek ethorri izan zenean ludeatik Galileara.

KAP. V.

2 Ikuzgarria. 4 Aingeruak ura uherritzen. 5 Paralitikoa sendatu. 16 Krist lainkoaren Semea lduiek hil nahi. 21 Hilan resuszitatzea eta bibifikatzea. 23 Ohoratzeko Krist Aita bezala. 24 Sinhesten duenak, bizitze eternala du. 25, 29 Bizitzezko resurrektionea. 30 Kristen eta Aitaren borondatea. 32 Kristek testifikatzen. 35 Ioanes kandela bizia. 36 Kristen obrak Kristen

*testimonio. 39 Eskripturak. 41
Gizonen gloria. 42 Iainkoaren
amorioa. 46 Moisesek Kristez
eskribatu.*

1 Gauza hauen ondoan, luduen besta bat zen, eta igan zedin Iesus Ierusalemera.

2 Eta da Ierusalemen ardi plazan ikuzgarri bat Hebraikoz Beth-esda deitzen denik, borz galeria dituenik.

3 Hetan zetzan eri, itsu, maingu, menbro eihardun mulzo handia, uraren higitzearen begira zeudela.

4 Ezen Aingeru bat iausten zen ordu iakinez ikuzgarrira, eta ura uherritzen zuen: eta uraren uherritze ondoan lehen *hartara* iausten zena sendatzen zen, zer ere eritasunek baitzadukan.

5 Eta zen gizon bat han hogeit eta hemezortzi urthez erharzunak zadukanik.

6 Haur ikus zezanean Iesusek zetzala, eta ezagaturik ezen ia denbora luzea zuela, diotsa, Nahi aiz sendatu?

7 Ihardets ziezon eriak, launa, eztiat nork, ura uherritu denean, ezar nezan ikuzgarrira:

baina ni ethorten naizen bizkitartean, berze bat ene aitzinean iausten duk.

8 Diotsa Iesusek, laiki adi, altxa ezak eure ohea, eta ebil adi.

9 Eta bertan senda zedin gizon hura: eta altxa zezan bere ohea, eta bazabilan: eta zen Sabbathoa egun hartan.

10 Erran ziezoten bada Iuduek sendatu izan zenari, Sabbathoa duk, eztuk sori ohea eraman dezan.

11 Ihardets ziezen, Nork ni sendatu bainau, hark erran draut, Altxa ezak eure ohea eta ebil adi.

12 Orduan interroga zezaten, Nor da hiri erran drauan gizon hura, Altxa ezak eure ohea eta ebil adi?

13 Eta sendatu izan zenak, etzakian nor zen: ezen Iesus aparta zedin leku hartan zen jendetzetik.

14 Gero eriden zezan hura Iesusek tenplean, eta erran ziezon, Huna, sendatu aiz: gehiago bekaturik eztagiala, zerbait gaizkiago hel ezta-kian:

15 Ioan zedin gikon haur, eta konta ziezen ludeei ezen Iesus zela hura sendatu ukan zuena.

16 Eta halakotz persekutatzen zuten ludeek Iesus, eta hura hil nahiz zabiltzan, zeren gauza hauk egin baitzituen Sabbathoan.

17 Baina Iesusek ihardets ziezen, Ene Aitak oraindrano obratzen du, eta nik ere obratzen dut.

18 Halakotz bada luduak hura hil nahiz hagitzaigo zabiltzan, ez solament zeren Sabbathoa hautsi zuen, baina are *zeren* haren Aita lainkoa zela erran baitzuen, bere burua lainkoaren bardin eginez.

19 Ihardets zezan bada Iesusek, eta erran ziezen, Egiaz egiaz erraiten drauzuet, ezin daidi Semeak bere buruz deus, *erran nahi da*, baldin ikusi ezpadu Aita obratzen: ezen zer ere hark egiten baitu, hura Semeak ere halaber egiten du.

20 Ezen Aitak maite du Semea, eta berak egiten dituen gauza guziak erakusten drauzka, eta hauk baino obra handiagoak erakutsiren drauzka hari, zuek mirets dezazuenzat.

21 Ezen nola Aitak resusztatzen baititu hilak eta bibifikatzen, halaber Semeak ere nahi dituenak bibifikatzen ditu.

22 Ezen Aitak eztu iujemendu nehor, baina iujemendu guzia eman drauka Semeari:

23 Guziek Semea ohora dezatenzat, Aita ohoratzen duten bezala: Semea ohoratzen eztenak, eztu ohoratzen Aita, zeinek igorri baitu hura.

24 Egiaz egiaz erraiten drauzuet, ezen ene hitza enzuten, eta ni igorri nauena sinhesten duenak, baduela bizitze eternala, eta *haina* ezta kondemnationetara ethorriren: baina iragan da heriotik bizitzera.

25 Egiaz egiaz erraiten drauzuet, ezen ethorten dela orena, eta orain dela, noiz hilek enzunen baitute lainkoaren Semearen boza, eta enzunen dutenak biziko dirade.

26 Ezen nola Aitak baitu bizitze bere baithan, hala eman drauka Semeari ere bere baithan bizitzearen ukaitea.

27 Eta bothere eman drauka iujemendu ere egiteko, gizonaren Seme den bezenbatean.

28 Eztezazuela mirets haur: ezen ethorriren da orena zeinetan monumentetako guziek enzunen baitute haren boza.

29 Eta ilkiren dirade ungi egin dukeitenak, bizitzeko resurrektionera: baina gaizki egin dukeitenak, kondemnationeko resurrektionera.

30 Ezin daidit nik neure buruz deus: danzudan bezala iujeatzen dut: eta ene iujemendua iusto da: ezen ezabila neure borondatearen ondoan: baina ni igorri nauen, Aitaren borondatearen ondoan.

31 Baldin nik testifikatzen badut neure buruaz, ene testimoniajea ezta sinhesteko.

32 Berze bat da testifikatzen duenik nizaz, eta badakit ezen egiazko dela nizaz testifikatzen duen testimoniajea.

33 Zuek igorri ukan duzue loanesgana, eta hark testimoniaje eman drauka egiari.

34 Baina nik eztut gizonaganik testimoniajearik rezebitzen: baina gauza hauk erraiten ditut zuek salba zaiteztenzat.

35 Hura zen kandela zaxekana eta argi egi-ten zuena: eta zuek nahi izan zarete apur bate-takotz alegeratu haren argian.

36 Baina nik loanesena baino testimoniaje handiagoa dut: ezen niri Aitak konpli ditzadanzat eman drauzkidan obrek, nik egiten ditudan obra berek testifikatzen dute nizaz ezen Aitak igorri ukan nauela.

37 Eta ni igorri nauen Aitak berak testifikatu du nizaz. Eztuzue haren boza egundano enzun, ezeta haren irudia ikusi.

38 Eta eztuzue haren hitza zuek baithan egoiten dela: ezen nor hark igorri baitu, hura zuek eztuzue sinhesten.

39 Informa zaitezte dilijentki Eskripturetarik; ezen zuek uste duzue hetan bizitze eternala duzuela: eta hek dirade nizaz testifikatzen dutenak.

40 Eta etzarete ethorri nahi enegana, bizitzea duzuenza.

41 Gloriarik gizonetarik eztut hartzen.

42 Baina ezagutzen zaituztet ezen lainkoaren amorioa eztuzuela zuek baithan.

43 Ni ethorri naiz neure Aitaren izenean, eta eznauzue rezebitzen: baldin berze bat ethor badadi bere izenean, hura rezebituren duzue.

44 Nolatan zuek sinhets ahal dezakezue, batak berzeaganik gloria rezebitzen duzuelarik, eta lainkoaganik beraganik heldu den gloria ezpaituzue bilhatzen?

45 Eztuzuela uste ezen nik akusaturen zaituztedala zuek Aita baithan: bada nork akusa zaitzaten, Moises, zeinetan zuek esperanza baituzue.

46 Ezen baldin Moises sinhesten bazindute, sinhetz nindirokezue ni: ezen nizaz hark eskribatu ukan du.

47 Baina baldin haren eskribatuak sinhesten ezpedituzue, nolatan ene hitzak sinhetsiren dituzue.

KAP. VI.

*2, 14 Borz ogiezkoko mirakulua. 15
Kristek rege izatera refusatzen. 19
Itsas gainez Krist ebili. 28, 29
Iainkoaren obra. 30 Populua signo
eskez euki. 31 Mana. 33, 48 Krist ogi
bizitzekoa. 37, 65 Harengana*

*ioaitea. 38 Zertara Krist iautsi. 40,
47 Hura baithango sinhestea, bizitze
eternal eta resurrektione. 41 Iuduak
Kristez eskandalizatzen. 44 Krist
baithan sinhestea. 51 Haren
haragiaren iatea eta odolaren
edatea. 60 Diszipuluak
eskandalizatu. 66 Batzu Kristganik
retiratu. 68 Apostoluen konfesioea.
70 Iudas deabru.*

1 Gero ioan zedin Iesus Galileako itsasoaz berze aldera, Tiberiakora.

2 Eta iarreikiten zaion jendetze handia, zeren ikusten baitzituzten hark erien gainean egiten zituen signoak.

3 Orduan igan zedin mendi batetara Iesus, eta han iar zedin bere diszipuluekin.

4 Eta hurbil zen Bazko, Iuduen besta.

5 Bada begiak altxatu zituenean Iesusek eta ikusi zuenean ezen jendetze handia ethorten zela harengana, diotsa Filiperi, Nondik erosiren dugu ogi, hauk ian dezatenzat?

6 (Baina haur erraiten zuen haren enseiatzeagatik, ezen berak bazakian, zer egiteko zuen)

7 Ihardets ziezon Filipek, Ber-ehun dineroren ogiaz ezlikeie asko, den gutiena batbederak har lezan.

8 Diotsa bere diszipuluetarik batek, Andriu Simon Pierrisen anaieak.

9 Baduk hemen muthilko bat, dituenik borz ogi garagarrezkorik, eta bi arrain: baina hauk zer dirade hanbaten arteko?

10 Eta erran zezan lesusek, lar erazi ezazue jendea. Eta zen belhar handi leku hartan. lar zitezten bada borz milla gizonen kontuaren ingurua.

11 Eta har zitzan lesusek ogiak: eta gratiak rendaturik parti zietzen diszipuluei: eta diszipuluek iarririk zeudenei: halaber arrainetarik ere nahi zuten bezenbat.

12 Eta resasiatu izan ziradenean erran ziezen bere diszipuluei, Bil itzazue soberatu diraden zathiak, deus gal eztadin.

13 Bil zitzaten bada, eta bethe zitzaten hamabi saski zathiz, borz ogi garagarrezkoetarik, ian zutenei soberaturik.

14 Jende hek bada ikusi zutenean Iesusek egin zuen mirakulua, erraiten zuten, Haur da egiazki mundura ethorteko zen Profeta hura.

15 Iesusek bada ezaguturik ezen haren harrapatzera ethorteko ziradela hura rege egin lezatenzat, retina zedin berriz mendira ber-bera.

16 Eta arratsa ethor zedinean, iauts zitezen haren diszipuluak itsasora.

17 Eta sarthurik unzira, ioaiten ziraden itsasoaz berze aldera Kapernaum alderat: eta ia ilhuna zen, eta etzen Iesus hetara ethorri.

18 Eta itsasoa, haize handik erauntsiz altxatzen zen.

19 Bada hogei eta borz, edo hogei eta hamar estade bezala abiroina tiratu ondoan, ikusten dute Iesus itsas gainez dabilala, eta unziari hurbiltzen zaiola, eta izi zitezen.

20 Eta hark erran ziezen, Ni naiz, etzaretela beldur.

21 Nahi ukan zuten bada hura unzira rezebitu: eta bertan unzia arriba zedin ioaiten ziraden lekura.

22 Biharamunean itsasoaren berze aldetik gelditurik zegoen jendetzeak ikusi duenean ezen berze unzitxorik etzela han bat baizen, zeinetara haren diszipuluak sarthu izan baitziraden, eta etzela sarthu bere diszipuluekin Iesus unzitxora, baina haren diszipuluak berak ioan izan ziradela:

23 Eta Tiberiadetik berze unzitxorik ethorri zela leku *haren* aldera non ogia ian ukan baitzuten, gratiak rendaturik launak.

24 Ikus zezanean bada jendetzeak ezen Iesus etzela han, ez haren diszipuluak, sar zitezen hek ere unzietara, eta ethor zitezen Kapernaumera, Iesus bilhatzen zutela.

25 Eta hura eridenik itsasoaren berze aldean, erran ziezoten, Majistrua, noiz huna ethorri aiz?

26 Ihardets ziezen Iesusek, eta erran zezan, Egiaz egiaz erraiten drauzuet, ene bilha zabiltzate, ez zeren mirakuluak ikusi dituzuen, baina zeren ian baituzue ogietarik, eta resasiatu izan baitzarete.

27 Trabaille zaitezte ez bianda galtzen denagatik, baina bizitze eternalekotzat irauten denagatik, zein gizonaren Semeak emanen baitrauzue: ezen *Seme* haur lainko Aitak zigilatu ukan du.

28 Erran ziezoten bada, Zer eginen dugu egin ditzagunzat lainkoaren obrak?

29 Ihardets zezan Iesusek, eta erran ziezen, Haur da lainkoaren obra, sinhets dezazuen hark igorri duena baithan.

30 Orduan erran ziezoten, Zer signo bada hik egiten duk, dakusagunzat eta hi sinhets ezagun? zer obra egiten duk?

31 Gure aitek ian ukan die mana desertuan: eskribatua den bezala, Zerutiko ogia eman draue iatera.

32 Erran ziezen bada Iesusek, Egiaz egiaz erraiten drauzuet, eztrauzue Moisesek eman zerutiko ogia: baina ene Aitak emaiten drauzue zerutiko ogi egiazkoa.

33 Ezen lainkoaren ogia da zerutik iautsi dena, eta munduari bizitze draukana.

34 Erran ziezoten bada, launa, eman iezaguk bethiere ogi hori.

35 Eta erran ziezen lesusek, Ni naiz bizitzeko ogia: enegana ethorten dena, ezta goseturen: eta ni baithan sinhesten duena, ezta egarrituren iagoitik.

36 Baina erran drauzuet, ezen ikusi ere banuzuela, eta eztuzue sinhesten.

37 Aitak emaiten drautan guzia, enegana ethorriren da, eta enegana ethorten dena, eztut kanpora iraitziren.

38 Ezen zerutik iausti izan naiz egin dezadenzat ez neure borondatea, baina ni igorri naueuaren borondatea.

39 Eta haur da ni igorri nauenaren borondatea, Aitarena, zerere eman baitraut, eztezadan gal hartarik, baina resuszita dezadan hura azken egunean.

40 Halaber haur da ni igorri nauenaren borondatea, Semea ikusten eta hura baithan sinhesten duen guziak, duen bizitze eternala, eta nik resuszitaturen dut hura azken egunean.

41 Murmuratzen zuten bada luduek harzaz, zeren erran baitzuen, Ni naiz zerutik iausti naizen ogia.

42 Eta erraiten zuten, Ezta haur lesus, losefen semea, zeinen aita eta ama guk ezagutzen baititugu? Nola dio bada hunek, Zerutik iausti naiz?

43 Ihardets zezan bada lesusek eta erran zizuten, Eztezazuela murmura zuen artean.

44 Nehor ezin dathor enegana, baldin ni igorri nauen Aitak tira ezpadeza: eta nik resusztaturen dut hura azken egunean.

45 Eskribatua da Profetetan, Eta izanen dirade guziak lainkoaz irakatsiak. Nork ere beraz enzun baitu Aitaganik eta ikasi, *hura* ethorten da enegana.

46 Ez Aita ikusi duenez nehork, lainkoaganik denak baizen: hark ikusi du Aita.

47 Egiaz egiaz erraiten drauzuet, ni baithan sinhesten duen guziak badu bizitze eternala.

48 Ni naiz bizitzeko ogia.

49 Zuen aitek ian ukan dute mana desertuan, eta hil izan dirade.

50 Haur da ogia zerutik iausti dena, hunetarik ianen duena hil eztadinzat.

51 Ni naiz ogi bizia zerutik iausti naizena: nehork ian badeza ogi hunetarik, biziko da eter-

nalki, eta nik emanen dudan ogia, ene haragia da, nik munduaren bizitzeagatik emanen dudana.

52 Bazihardukaten bada lduiek elkarren artean, erraiten zutela, Nolatan hunek guri *bere* haragia eman ahal diezakegu iatera?

53 Orduan erran ziezen lesusek, Egiaz egiaz erraiten drauzuet, baldin ian ezpadezazue gizonaren Semearen haragia, eta edan ezpadezazue haren odola, eztuzue bizitzerik zuek baithan.

54 Iaten duenak ene haragia, eta edaten ene odola, badu bizitze eternala: eta nik dut resusztaturen hura azken egunean.

55 Ezen ene haragia egiazki da bianda, eta ene odola egiazki da edari.

56 Ene haragia iaten duena, eta ene odola edaten, nitan egoiten da, eta ni hartan.

57 Nola ni igorri bainau Aita bizi denak, eta ni bizi bainaiz *neure* Aitaz: hala ni ianen nauena ere, biziko da hura ere nizaz.

58 Haur da ogi zerutik iautsi izan dena: ez zuen aitek mana ian duten bezala, eta hil izan dirade: ogi haur ianen duena biziko da eternalki.

59 Gauza hauk erran zitzan sinagogan irakasten ari zela Kapernaumen.

60 Haren diszipuluetarik bada anhitzek gauza hauk enzunik erran zezaten, Gogor da hitz haur: nork enzun ahal dezake?

61 Zakialarik bada Iesusek bere baithan ezen haren diszipuluek hunezaz murmuratze zutela, erran ziezen, Hunek eskandalizatzen zaituzte?

62 *Zer date* bada baldin ikus badezazue gizonaren Semea igaiten lehen zen lekura?

63 Espiritua da bibifikatzen duena, haragiak eztu deus probetxatzen: nik erraiten drauzkizuedan hitzak espiritu dirade eta bizitze.

64 Baina badirade batzu zuetarik sinhesten eztutenik. Ezen bazakian hatseandanik Iesusek zein ziraden sinhesten etzutenak, eta zein zen hura tradituren zuena.

65 Eta erraiten zuen, Halakotz erran drauzuet ezen nehor ezin dathorra enegana, baldin ene Aitaz eman ezpazai.

66 Orduandanik haren diszipuluetarik anhitz gibelerat zitezen: eta gehiagorik etzabiltzan harekin.

67 Erran ziezen bada Iesusek hamabiei, Ala zuek ere ioan nahi zarete?

68 Ihardets ziezon bada Simon Pierrisek, launa, norengana ioanen gara? bizitze eternalezko hitzak dituk *hik*:

69 Eta guk sinhetsi eta ezagutu diagu ezen, hi aizela Krist lainko biziaren Semea.

70 Ihardets ziezen Iesusek, Etzaituztet nik hamabi elejitu, eta zuetarik bat deabru baita?

71 Eta *haur* erraiten zuen Iudas Iskariot Simonen *semeaz*: ezen *haur* zen *hura* traditu behar zuena, hamabietarik bat bazen ere.

KAP. VII.

*2 Tabernaklen besta. 5 Kristen ahaideak. 7 Zergatik hari Munduak gaitz eritzi. 12 Harzaz jendek zer opinione. 14 Krist irakasten ari. 16 Haren doktrina. 24 Iustoki iujeatzeko. 30 Kristen orena. 31 Anhitzek *hura* baithan sinhesten. 32 Haren hartzera igorri ofizierak. 39*

*Espiritu saindua. 40 Kristez iharduki.
47 Fariseuen arrogantia. 51
Nikodemoren resposta.*

1 Eta gero bazabilan Iesus Galilean: ezen etzen Iudean ebili nahi, zeren Iuduak baitzabil-tzan hura hil nahiz.

2 Eta hurbil zen Iuduen besta tabernaklen deitzen zena.

3 Erran ziezoten bada bere anaiek, Parti adi hemendik eta habil Iudearat, hire diszipuluek ere ikus ditzatenzat hire obra egiten dituanak.

4 Ezen nehork ezтик deus sekretuan egiten, estimationetan izan nahiz dabilanek, baldin gauza hauk egiten badituk, manifesta iezok eure burua munduari.

5 Ezen are haren anaiek ere etzuten sinhes-ten hura baithan.

6 Dioste bada Iesusek, Ene denbora ezta oraino ethorri: baina zuen denbora bethi da prest.

7 Ezin munduak gaitzets zaitzakezte zuek: baina niri gaitz darizt: zeren nik testifikatzen bai-tut harzaz, ezen haren obrak gaixto diradela.

8 Zuek igan zaitezte besta hunetara: ni eznaiz oraino igaiten besta hunetara, zeren ene denbora ezpaita oraino bethe.

9 Eta gauza hauk erran zerauztenean egon zedin Galilean.

10 Eta igan ziradenean haren anaieak, orduan hura ere igan zedin bestara, ez agerriz, baina ixilik bezala.

11 Iduiek bada bilhatzen zuten hura bestan, eta erraiten zuten, Non da hura?

12 Eta murmuratione handia zen populuaren artean harzaz: ezen batzuk erraiten zuten *Gizon* ona da: eta berzek erraiten zuten, Ezta: baina seduzitzen du populua.

13 Badarik ere nehor frangoki etzen minzo harzaz, Iduen beldurrez.

14 Eta besta ia erdi iragan zenean, igan zedin Iesus tenplera, eta irakasten ari zen.

15 Eta miraz zeuden Iuduak, zioitela, Nolatan hunek letrak dakizki, ikasi gabe?

16 Ihardets ziezen Iesusek, eta erran zezan, Ene doktrina ezta enea, baina ni igorri nauenarena.

17 Baldin nehork nahi badu haren borondatea egin, ezaguturen du doktrinaz, eia lainkoaganik denez, ala ni neure buruz minzo naizenez.

18 Bere buruz minzo dena, *bere* gloriaren bilha dabila: baina bera igorri duenaren gloriaren bilha dabilana, da egiati, eta iniustitiarik hura baithan ezta.

19 Eztrauzue Moisesek eman Legea? eta ezpaitu zuetarik batek ere obratan ezarten Legea? Zergatik zabilzate ni hil nahiz?

20 Ihardets zezan populuak eta erran, Deabrua duk *hik*: nor dabila hi hil nahiz?

21 Ihardets zezan Iesusek eta erran ziezen, Obra bat egin dut, eta guziak miraz zaudete.

22 Baina halere Moisesek eman drauzue Zirkonkzisionea, (ez Moisesganik denez, baina Aite-tarik) eta Sabbathoan zirkonziditzen duzue gizona.

23 Baldin Zirkonkzisionea rezebitzen badu gizonak Sabbathoan, Moisesen Legea hauts eztadinzat: aserre zarete ene kontra zeren gizon bat osoki sendatu dudan Sabbathoan?

24 Eztezazuela iujea aparentiaren araura, baina iujemendu bidezko batez iujea ezazue.

25 Erraiten zuten bada Ierusalematar batzuk, Ezta haur hiltzeko bilhatzen dutena?

26 Eta huna, frangoki minzo da, eta eztraukate deus egiten: ala egiazki ezagutu othe lukeite Gobernadorek, ezen haur dela egiazki Krist?

27 Baina haur badakigu nondik den: baina Krist dathorrenean, nehork eztu iakinen nondik daten.

28 Oihuz zegoen bada Iesus tenplean, irakasten zuela eta erraiten, Eta ni nauzue ezagutzen, eta nondik naizen badakizue, eta neure buruz eznaiz ethorri, baina da egia ni igorri nauena, zein ezpaituzue zuek ezagutzen.

29 Baina nik ezagutzen dut hura, zeren harenganik bainaiz, eta hark igorri bainau.

30 Orduan hura hatzaman nahiz zabilzan: baina nehork etzitzan eskuak ezar haren gainean, ezen etzen oraino ethorri haren orena.

31 Eta jendetzekoatarik anhitzek sinhets zezaten hura baithan, eta erraiten zuten, Kristek dathorrenean gehiago mirakulu eginen othe du, hunek egiten dituenak baino?

32 Enzun zezaten Fariseuek jendetzea hauen gainean harzaz murmuratzen: eta igor zitzaten

Fariseuek eta Sakrifikadore prinzipalek ofizierak hura hatzaman lezatenzat.

33 Erran ziezen bada Iesusek, Oraino denbora guti batetakotz zuekin naiz, gero banoa igorri nauenaganat.

34 Bilhaturen nauzue eta ez eridenen: eta non ni izanen bainaiz, *hara* zuek ezin ethor zaitezket.

35 Erran zezaten bada Iuduek elkarren artean, Norat haur ioaiteko da, guk ezpaitugu eridenen? ala Grekoen artean barreiatuak diradenetarat ioaiteko da, eta Grekoen irakastera?

36 Zerik da erran duen propos haur, Bilhaturen nauzue, eta ez eridenen: eta non ni izanen bainaiz, *hara* zuek ezin ethor zaitezket?

37 Eta bestako azken egun handian eriden zedin Iesus han, eta oihuz zegoen, zioela, Baldin nehor egarri bada, bethor enegana eta edan beza

38 Ni baithan sinhesten duenari, Eskripturak dioen bezala, ur bizizko flubioak iariaturen zaizka bere sabeletik.

39 (Eta haur erraiten zuen hura baithan sinhesten zutenek rezebitzeko zuten Espirituaz:

ezer oraino Espiritu saindua etzen *eman*, zeren Iesus oraino ezpaitzen glorifikatu)

40 Anhitzek bada jendetzekoetarik propos haur enzun zutenean, erraiten zuten, Haur da egiazki Profeta hura.

41 Berzek erraiten zuten, Haur da Krist. Eta batzuk erraiten zuten, Alabaina Galileatik ethorriren da Krist?

42 Eztu Eskripturak erraiten, ezen Dabid-en hazitik, eta Bethlehemo Dabid egoiten zen burgutik Krist ethorriren dela?

43 Disensio egin zedin bada populuaren artean harengatik.

44 Eta hetarik batzuk nahi zuten hatzaman, baina nehork etzitzan ezar haren gainea eskuak

45 Ethor zitezen bada ofizierak Sakrifikadore prinzipaletara eta Fariseuetara, eta hek erranziezen, Zergatik eztuzue hura ekarri?

46 Ihardets zezaten ofizierek, Egundano ezta hala minzatu gizonik, nola gizon haur.

47 Halakotz ihardets ziezen Fariseuek, Ezot-he zinatezte zuek ere seduzitu?

48 Ala Gobernadoretarik edo Fariseuetarik batek ere sinhetsi du hura baithan?

49 Baina populu Legea zer den eztakian haur, maradikatua da.

50 Dioste Nikodemo harengana gauaz ethorri izan zenak, zein baitzen hetarik bat,

51 Ala gure Legeak kondemnatzen du nehor, bera behin enzun gabe, eta zer egin duen ezagutu gabe?

52 Ihardets zezaten eta erran ziezoten, Ezaiz hi ere Galileako? informadi, eta iakik ezen Galileatik Profetarik eztela ilki.

52 Eta itzul zedin batbedera zein bere etxerat.

KAP. VIII.

3 Emazte adulterioan hatzamana. 12 Krist munduaren argia. 13, 18 Testimoniaje bere buruaz ekarten. 15 Nehor ez hark iujeatzen. 23 Hura ez mundu hunetarik. 24 Sinhesten eztuena, bekatutan hilen. 25 Krist nor. 28 Bere herioa Kristek aitzinetik erraiten. 30 Iudu batzuk sinhesten.

*32 Egiak libre egiten. 34 Bekatuaren
zerbitzari nor. 37, 39 Abrahamen
haur. 42 Iainkoaren haur. 44
Deabruaren haur. 57 Krist Abraham
baino lehen. 59 Iuduek Krist lapidatu
nahi.*

1 Baina Iesus ioan zedin Olibatzetako mendirat.

2 Eta argiaren begian berriz ethor zedin tenplera, eta populu guzia ethor zedin harengana: eta iarririk zegoela irakasten zituen hek.

3 Orduan dute ekarten harengana Eskribek eta Fariseuek emazte adulterioan hatzaman bat: eta hura artean ezarririk,

4 Diotsate, Majistrua, emazte haur hatzaman izan duk adulterioko egitate berean.

5 Eta Legean Moisesek manatu diraukuk hunelakoak lapida ditezen: hik bada zer diok?

6 Eta haur erraiten zuten hura tentatzen zutela, hura zerzaz akusa lutenzat. Baina Iesussek beheiti gurthurik erhiaz eskribatzen zuen lurrean.

7 Eta haren interrogatzez perseberatzen zutela, xuxendurik erran ziezen, Zuetarik bekatu gabe denak, lehenik horren kontra harria aurdigi beza.

8 Eta berriz gurthurik eskribatzen zuen lurrean.

9 Bada hori enzun zutenean, konszientiak akusatzen zituela, bata berzearen ondoan ilkiten ziraden zaharrenetarik hasirik azkenetarano: eta lesus bera geldi zedin, eta artean zegoen emaztea

10 Eta xuxendu zenean lesusek nehor etzakusanean emaztea baizen, erran ziezon hari, Emaztea, non dirade hire akusazaleak? nehork ezau kondemnatu?

11 Eta hark erran zezan, Ez nehork, launa. Eta erran ziezon lesusek, Ezaut nik ere kondemnatzen: oha, eta gehiago bekaturik eztaginala.

12 Berriz bada lesus minza zekien, zioela, Ni naiz munduaren argia: niri darreitana ezta ilhunbean ebiliren, baina ukanen du bizitzeko argia.

13 Erran ziezoten bada Fariseuek, Hik eure buruaz testifikatzen duk, hire testimoniajea eztuk sinhesteko.

14 Ihardets zezan Iesusek eta erran ziezen, Nik neuroraz testifikatzenagatik sinhesteko da ene testimoniajea: ezen badakit nondik ethorri naizen, eta norat ioaiten naizen: baina zuek eztakizue nondik ethorten naizen, ez norat ioaiten naizen

15 Zuek haragiaren araez iujeatzen duzue, nik eztut iujeatzen nehor.

16 Eta baldin iujea badezat ere nik, ene iujemendua egiazko da: ezen eznaiz neuror, baina ni eta ni igorri nauen Aita.

17 Baina zuen Legean ere eskribatua da, ezen bi gizonen testimoniajea sinhesteko dela.

18 Ni naiz neuroraz testifikatzen dudana, eta testifikatzen du nizaz ni igorri nauen Aitak.

19 Erraiten zeraukaten bada, Non da hire Aita? Ihardets zezan Iesusek, Ez ni nauzue ezagutzen, ez ene Aita: baldin ni ezagutzen baninduzue, ene Aita ere ezagut zindezakete.

20 Hitz hauk erran zitzan Iesusek thesaure-rian, irakasten ari zela tenplean: eta nehor etzakion lot, zeren oraino ezpaitzen ethorri haren orena

21 Erran ziezen bada berriz lesusek, Ni banao eta bilhaturen nauzue, eta zuen bekatuan hilen zarete: norat ni ioaiten bainaiz, zuek ezin zatozkete.

22 Erraiten zuten bada ldukek, Berak hilen othe du bere burua? erraiten baitu, Norat ni ioaiten bainaiz, zuek ezin zatozkete.

23 Orduan erran ziezen, zuek beheretik zarete, ni garaitik: zuek mundu hunetarik zarete, ni ez naiz mundu hunetarik.

24 Halakotz erran drauzuet ezen zuen bekatuetan hilen zaretela. Ezen baldin sinhets ezpadazue ni naizela *hura*, zuen bekatuetan hilen zarete.

25 Erran ziezoten bada, Hi nor aiz? Orduan erran ziezen lesusek, Hatseandanikoa, badiotsuet.

26 Anhitz gauza dut zuezaz minzatzeko eta iujeatzeko: baina ni igorri nauena egiati da: eta nik harenganik enzun ditudan gauzak munduari erraiten drauzkiot.

27 Etzezaten ezagut ezen Aitaz minzo zaiela.

28 Erran ziezen bada lesusek, Altxatu dukezuenean gizonaren Semea, orduan ezaguturen

duzue ezen ni naizela *hura*, eta neure buruz eztudala deus egiten, baina Aitak irakatsi nauen, bezala gauza hauk erraiten ditudala.

29 Ezen ni igorri nauena enekin da: ez nau utzi neuror Aitak, zeren nik haren gogarako gauzak egiten baititut bethiere.

30 Gauza hauk hark erraiten zituela, anhitzek sinhets zezaten hura baithan.

31 Orduan erraiten zerauen Iesusek hura sinhetsi ukan zuten Iuduei, Baldin zuek persebera badezazue ene hitzean, egiazki ene diszipulu izanen zarete.

32 Eta duzue ezaguturen Egia, eta Egiak zuek libre eginen zaituzte.

33 Ihardets ziezoten, Abrahamen hazia gaituk, eta nehor eztiagu zerbitzatu egundano: nola diok hik gu libre izanen garela?

34 Ihardets ziezen Iesusek, Egiaz egiaz erraiten drauzuet ezen bekatua egiten duen guzia bekatuaren zerbitzari dela.

35 Eta zerbitzaria ezta egoiten bethierekotz etxean, semea dago bethierekotz.

36 Bada baldin Semeak zuek libre egin bazaitzate, egiazki libre izanen zarete.

37 Badakit ezen zuek Abrahamen hazia zare-
tela: baina ni hil nahiz zabilzate, zeren ene
hitzak ezpaitu lekurik zuek baithan.

38 Nik erraiten dut neure Aita baithan ikusi
dudana: eta zuek egiten duzue zuen aita baithan
ikusi duzuen.

39 Ihardets zezaten eta erran ziezoten, Gure
aita, Abraham duk. Dioste Iesusek, Baldin Abra-
hamen haur bazinete, Abrahamen obrak egin
zinzakeizte.

40 Orain bada ni hil nahiz zabilzate, bainaiz,
lainkoaganik enzun dudan egia erran drauzue-
dan gizona: hori Abrahamek eztu egin.

41 Zuek egiten dituzue zuen aitaren obrak.
Eta erran ziezoten, Gu ezgaituk paillardizatarik
iaio: aita bat diagu, *baita* lainkoa.

42 Erran ziezen bada Iesusek, Baldin lainkoa
zuen aita baliz, maite nindukezue ni: ezen ni
lainkoaganik partitu eta ethorri naiz: eta eznaiz
neure buruz ethorri, baina hark igorri nau.

43 Zergatik ene lengoajea eztuzue aditzen?
zeren ezin enzun baitirokezue ene hitza.

44 Zuek, aita deabruaganik zarete, eta zuen
aitaren desirak egin nahi dituzue: hura gizerhai-

le zen hatseandanik, eta egian eztu perseberatu: ezen egiarik ezta hartan. Noiz ere erraiten baitu gezurra, bere propritik minzo da: ezen gezurti da eta gezurraren aita.

45 Eta zeren nik egia erraiten baitut, eznauzue sinhesten.

46 Nork zuetarik reprehenditzen nau ni bekatuz? eta baldin egia erraiten badut, zeren zuek eznauzue sinhesten?

47 Iainkoaganik denak, Iainkoaren hitzak enzuten ditu: halakotz zuek eztituzue enzuten, zeren ezpaitzarete Iainkoaganik.

40 Ihardets zezaten orduan Iuduek eta erran ziezoten, Eztugu ungi erraiten guk, ezen Samaritano aizela hi, eta deabrua duala?

49 Ihardets zezan Iesusek, Eztut nik deabrua: baina dut ohoratzen, neure Aita, eta zuek desohoratzen nauzue ni.

50 Eta nik eztut neure gloria bilhatzen: bada bilhatzen duenik, eta iujeatzen duenik.

51 Egiaz egiaz erraiten drauzuet, baldin nehork ene hitza begira badeza, herioa eztu ikusiren sekulan.

52 Orduan erran ziezoten Iuduek, Orain eza-gutu diagu ezen deabrua duala: Abraham hil izan duk eta Profetak: eta hik diok, Baldin nehork ene hitza begira badeza, eztu dastaturan herioa sekulan.

53 Ala hi gure aita Abraham baino handiago aiz, zein hil izan baita? Profetak ere hil izan dituk: nor hik eure burua egiten duk?

54 Ihardets zezan Iesusek, Baldin nik glorifikatzen badut neure burua, ene gloria ezta deus: ene Aita da ni glorifikatzen nauena, zeinez erraiten baituzue zuek ezen zuen Iainko dela.

55 Eta eztuzue ezagutzen hura: baina nik ezagutzen dut hura: eta baldin erran badezat ezen eztudala hura ezagutzen, izanen naiz zuek irudi, gezurti: baina badazagut hura, eta haren hitza begiratzen dut.

56 Abraham zuen aita alegera zedin ikus lezanzat ene egun haur: eta ikusi ukan du, eta alegeratu izan da.

57 Erran ziezoten bada Iuduek, Berrogei eta hamar urthe oraino eztituk, eta Abraham ikusi duk?

58 Erran ziezen Iesusek, Egiaz egiaz erraiten drauzuet, Abraham zedin baino lehen, ni naiz.

59 Har zezaten orduan harri: haren kontra aurthiteko: baina Iesus gorde zedin, eta ilki zedin tenpletik.

KAP. IX.

*1 Itsurik sorthua sendatu. 5
Munduaren argia. 18, 34 Fariseuen
inkredulitatea eta arrogantia. 28
Moisesen diszipulu luduak. 35 Itsu
argituak Krist baithan sinhesten, 38
eta hura adoratzen. 39 Krist
mundura iujemendutan ethorri.*

1 Eta iragaiten zela Iesusek ikus zezan gizon sortzetik itsu bat.

2 Eta interroga zezaten bere diszipuluek. erraiten kutela. Majistrua, Zeinek bekatu egin du, hunek ala hunen aitamek, hunela itsu sor ledin?

3 Ihardets zezan lesusek, Ez hunek bekatu egin du, ez hunen aitamek: baina *itsu iaio da*, lainkoaren obrak manifesta litezenzat hunetan.

4 Ni igorri nauenaren obrak egin behar ditut, eguna deno: badatorke gaua noiz nehork ezin obrarik baitaidi.

5 Munduan naizeno, munduaren Argia naiz.

6 Haur erran zuenean thu egin zezan lurrera, eta egin zezan lohi thutik, eta lohi harzaz frota zitzan itsuaren begiak:

7 Eta erran ziezon, Oha garbitzera Siloe, igorria erran nahi deneko ikuzgarrira. Ioan zedin bada, eta garbi zedin, eta itzul zedin ikusten zuela.

8 Bada auzoek, eta lehen ikusi zutenek ezen itsu zela, erraiten zuten, Ezta haur iarririk *ohi* zegoena eta eskatzen zena?

9 Batzuk erraiten zuten, Haur da: eta berzek, Hura dirudi, *Baina* berak erraiten zuen, Ni naiz *hura*.

10 Erran ziezoten bada, Nolatan ireki izan dirade hire begiak?

11 Ihardets zezan hark, eta erran zezan, Iesus deitzen den gikonak lohi egin du, eta frota-

tu ditu ene begiak, eta erran draut, Oha Siloeko ikuzgarrira, eta garbi adi. Bada ioanik eta garbiturik ikustea rezebitu dut.

12 Orduan erran ziezoten, Non da hura? Dio, Eztakit.

13 Eramaiten dute itsu ohi zen hura Fariseuetara.

14 Eta zen Sabbathoa lesusek lohia egin zue-nean eta haren begiak ireki zituenean.

15 Berriz bada interroga zezaten hura Fariseuek ere nolatan ikustea rezebitu zuen. Eta hark erran ziezen, Lohi ezarri ukan draut neure begien gainera, eta garbitu naiz, eta ikusten dut.

16 Erraiten zuten bada Fariseuetarik batzuk, Gizon haur ezta lainkoaganik: ezen Sabbathoa eztu begiratzen. Berzek erraiten zuten, Nolatan gizon bizitze gaixtotako batek sign hauk egin ahal ditzake? Eta disensioe zen haien artean.

17 Erraiten draukate itsuari berriz, Hik zer diok harzaz, zeren begiak ireki drauzkian? Eta hark erran zezan, Profeta dela.

18 Baina etzezaten sinhets luduek harzaz, ezen itsu izan zela, eta ikustea rezebitu zuela,

ikustea rezebitu zuenaren aitamak dei litzakete-
no:

19 Eta interroga zitzaten hek, zioitela, Haur da zuen seme zuek itsu iaio zela diozuena? nolatan bada orain dakusa?

20 Ihardets ziezen haren aitamek, eta erran zezaten, Badakigu ezen haur dela gure semea, eta itsu iaio izan dela:

21 Baina nolatan orain dakusan, eztakigu: edo nork ireki dituen hunen begiak, guk eztakigu: berak adin du: bera interroga ezazue, bera bere buruaz minzaturen da.

22 Gauza hauk erran zitzaten haren aitamek, zeren beldur baitziraden lудuen: ezen ia ordenatu zuten lудuek, baldin nehork aithor baleza hura lizela Krist, sinagogatik iraitz ledin.

23 Halakotz haren aitamek erran zezaten, Adin du, bera interroga ezazue.

24 Dei zezaten bada bigarren aldian gizon itsu izana, eta erran ziezoten, Emok gloria lainkoari: guk bazekiagu ezen gizon hori gaixtoa dela.

25 Ihardets zezan bada hark, eta erran zezan, Gaixto denez eztakit: gauza bat badakit, ezen itsu ninzelarik orain badakusadala.

26 Eta erran ziezoten berriz, Zer egin drauk? nolatan ireki ditu hire begiak?

27 Ihardets ziezen, Ia erran drauzuet, eta eztuzue enzun: zergatik berriz enzun nahi duzue? ala zuek ere haren diszipulu egin nahi zarete?

28 Orduan iniuria zezaten hura, eta erran zezaten, Aizen hi haren diszipulu: guzaz den bezenbatean, Moisesen diszipulu gaituk.

29 Guk bazeakiagu ezen Moisesi minzatu izan zaiola lainkoa: baina haur nondik den etzeakiagu.

30 Ihardets zezan gizonak eta erran ziezen, Segur, hunetan da mirakulua, zeren zuek ezpaitakizue nondik den, eta ireki baititu ene begiak.

31 Eta badakigu ezen lainkoak bizitze gaixto-takoak eztituela enzuten: baina baldin norbeit lainkoaren zerbitzari bada, eta haren borondatea egiten badu, hura enzuten du.

32 Egundano enzun izan ezta ezen nehork ireki duela itsu sorthuren begirik.

33 Baldin ezpaliz haur lainkoaganik, deus ezin laidi.

34 Ihardets zezaten eta erran ziezoten, Hi bekatutan sorthua aiz guziori, eta hik irakasten gaituk gu? Eta iraitz zezaten hura kanpora.

35 Enzun zezan Iesusek nola egotzi ukan zuten hura kanpora: eta eriden zuenean hura, erran ziezon, Sinhesten duk hik lainkoaren Semea baithan?

36 Ihardets zezan hark eta erran zezan, Eta nor da, launa, sinhets dezadan hura baithan?

37 Eta erran ziezon Iesusek, Eta ikusi duk hura, eta hirekin minzo dena duk hura.

38 Eta hark dio, Sinhesten diat, launa. Eta adora zezan hura.

39 Eta erran zezan Iesusek, Iujemendu *egite-ra* ni mundu hunetara ethorri naiz: ikusten ezutenek, ikus dezatenzat: eta ikusten dutenak itsu ditezenzat.

40 Eta enzun zezaten hori, Fariseuetarik harekin ziraden batzuk, eta erran ziezoten, Ala gu ere itsu gara?

41 Erran ziezen Iesusek, Baldin itsu bazinete, etzindukeite bekaturik: baina orain erraiten

duzue, Badakusagu: beraz zuen bekatua bada-
go.

KAP. X.

*1, 7, 9 Bortha Krist, Arthaldea. Ohoin
eta gaixtagin zein. 2, 11 Artzaina. 12
Merzenarioa. 16, 27 Kristen ardiak.
19 Disensione Kristen kausaz. 24
Iesus interrogatu, Krist denez. 26
Iuduek ez sinhesten: 31 eta Krist
lapidatu nahi. 35 Iainko zein deitzen
Eskripturan. 41 Anhitzek Krist
baithan sinhesten.*

1 Egiaz egiaz erraiten drauzuet, borthatik
ardien arthegira sartzen eztena, baina da igaiten
berzetarik, hura ohoin da eta gaixtagin.

2 Baina borthatik sartzen dena, da ardien
artzaina.

3 Huni borthalzainak irekiten drauka, eta
ardiek haren boza enzuten dute: eta bere ardiak

deitzen ditu zein bere izenez, eta eramaiten ditu kanporat.

4 Eta bere ardiak idoki dituenean, haien aitzinean ioaiten da: eta ardiak hari iarreikiten zaizka, ezen ezagutzen dute haren boza.

5 Eta arrotz bati etzaizka iarreikiren, baina ihes eginen draukate: zeren ezpaitute ezagutzen arrotzen boza.

6 Konparatione haur erran ziezen Iesusek: baina hek etzezaten ezagut zer zen haei erraiten zerauena.

7 Erran ziezen bada berriz Iesusek, Egiaz egiaz erraiten drauzuet, ezen ni naizela ardien bortha.

8 Guziak zenbat ere ene aitzinean ethorri baitirade ohoin dirade eta gaixtagin: baina ardiek eztituzte hek enzun ukan.

9 Ni naiz bortha, nitarik baldin nehor sar badadi salbaturen da: eta sarthuren da eta ilkiren da, eta bazka eridenen du.

10 Ohoina ezta ethorten *ardiak* ebats eta hil eta desegin ditzanzat baizen: ni ethorri naiz bizitze dutenzat, eta abundantia dutenzat.

11 Ni naiz artzain ona: artzain onak bere bizia ezarten du bere ardiakgatik:

12 Baina merzenarioak, eta artzain eztenak, zeinenak ezpaitirade ardiak, dakusanean otsoa heldu dela, utziten ditu ardiak, eta ihes egiten du: eta otsoak harrapatzen eta barreiatzen ditu ardiak.

13 Eta merzenarioak ihes egiten du, zeren merzenario baita, eta ezpaitu ardien ansiarik.

14 Ni naiz artzain ona, eta ezagutzen ditut neure ardiak, eta ezagutzen naiz neure *ardiez*.

15 Aitak ni ezagutzen nauen bezala, nik ere ezagutzen dut Aita: eta neure bizia ezarten dut *neure* ardiakgatik.

16 Berze ardirik ere badut zein ezpaitirade artheği hunetako: hek ere ekarri behar ditut: ezen ene boza enzunen dute, eta eginen da artheği bat *eta* artzain bat.

17 Halakotz maite nau ni Aitak, zeren nik ezarten baitut neure bizia, berriz hura har dezadanzat.

18 Nehork eztraut hura edekiten, baina nik dut ezarten hura neure buruz: bothere dut haren

ezarteko, eta bothere dut berriz haren hartzeko. Manamendu haur rezebitu dut neure Aitaganik.

19 Orduan berriz disensio egin zedin luduen artean propos haukgatik.

20 Eta erraiten zuten hetarik anhitzek, Deabrua du, eta erhotu doa: zergatik horri behatzen zaizkiote?

21 Berzek erraiten zuten, Hitz hauk eztirade deabrua duenarenak: ala deabruak itsuen begiak ireki ahal ditzake?

22 Orduan Dedikationearen *besta* egin zedin Ierusalemen, eta negua zen.

23 Eta paseatzen zen Iesus tenplean Salomonen galerian.

24 Ingura zezaten bada hura luduek, eta erran ziezoten, Noizdrano gure arima dadukak dudatan? baldin hi bahaiz Krist, erran iezaguk frangoki.

25 Ihardets ziezen Iesusek, Erran drauzuet, eta eztuzue sinhesten: nik neure Aitaren izenean egiten ditudan obrek nizaz testifikatzen dute.

26 Baina zuek eztuzue sinhesten: ezen etzaretene ardietarik, nola erran baitrauzuet.

27 Ene ardiek ene boza enzuten dute, eta nik ekagutzen ditut hek, eta iarreikiten zaizkit niri.

28 Eta nik bizitze eternala emaiten drauet haei: eta eztirade galduren sekulan: eta eztitu harrapaturen hek nehork ene eskutik.

29 Ene Aita niri *hek* eman drauzkidana, guziak *baina* handiago da, eta nehork ezin harra-pa ditzake hek ene Aitaren eskutik.

30 Ni eta Aita bat gara.

31 Har zezaten bada berriz harri luduek haren lapidatzeko.

32 Ihardets ziezen Iesusek, Anhitz obra onik erakutsi ukan drauzuet neure Aitaganik: obra hetarik zeinagatik lapidatzen nauzue?

33 Ihardets ziezoten luduek, zioitela, Obra onagatik ezaugu lapidatzen, baina blasfemioa-gatik, eta zeren hik gizon aizelarik egiten baituk eure burua lainko.

34 Ihardets ziezen Iesusek, Ezta eskribatua zuen Legean, Nik erran dut, lainko zarete?

35 Baldin hek deithu baditu lainko, zeinetara lainkoaren hitza egin izan baita, eta ezin hauts baitaite Eskriptura:

36 *Ni* Aitak sanktifikatu eta mundura igorri bainau, zuek diozue ezen blasfematzen ari naizela, zeren erran dudan, ezen lainkoaren Semea naizela?

37 Baldin neure Aitaren obrak egiten ezpadi-tut, eznezazuela sinhets:

38 Baina baldin egiten baditut, eta baldin ni sinhetsi nahi ezpanauzue, obrak sinhets itzazue: ezagut eta sinhets dezazuen ezen Aita nitan dela eta ni hartan.

39 Berriz bada hura hartu nahiz zabiltzan: baina itzur zedin haien eskuetarik.

40 Eta ioan zedin berriz Iordanaz berze alde-ra, lehen loanes batheiatzen ari zen lekura: eta egon zedin han.

41 Eta anhitz ethor zedin harengana, eta erraiten zuten, loanesek eztu signorik batre egin ukan: baina loanesek hunezaz erran dituen gauza guziak, egiazkoak ziraden.

42 Eta anhitzek han sinhets zezaten hura baithan.

KAP. XI.

1 Lazaro eri. 11 Lo etzatea, hil
izateagatik. 16 Thomas. 21, 32
Martharen eta Mariaren arrangura
Kristez. Bizitzeko resurrektioea. 26
Krist baithango fedea. 21 Martharen
aithorra. 33, 35 Krist nigarrez, 41
eta othoiztez egon, 44 Lazaro
resusztatatu. 45 Iuduetarik anhitzek
Krist baithan sinhesten. 47 Konseillu
Fariseuek Kristen kontra. 48
Romanoak. 49 Kaifasek
profetizatzen. 54 Iesus Efraimera
retiratzen.

1 Zen bada Lazaro deitzen zen gizon bat eri,
Bethaniako, Mariaren eta Martha haren ahizpa-
ren burguko.

2 (Eta Maria haur zen launa ungentuz unktatu
zuen, eta haren oinak bere *adatseko* biloez
ixukatu zituen: zeinen anaie Lazaro baitzen eri)

3 Igor zezaten bada hunen arrebek harengana,
zioitela, launa, huna, hik maite duana, eri
duk.

4 Eta *hori* enzunik lesusek erran zezan, Eritasun hori ezta heriotara, baina lainkoaren gloria-tan, *eritasun* harzaz lainkoaren Semea glorifika dadinzat.

5 Eta zituen maite lesusek Martha, eta haren ahizpa, eta Lazaro.

6 Bada enzun zuenean ezen eri zela, bi egun egon zedin, orduan non baitzen leku hartan.

7 Gero horren ondoan erran ziezen diszipuluei, Goazen ludearat berriz.

8 Diotsate diszipuluek, Majistrua, orain ziabiltzan luduak hi lapidatu nahiz, eta berriz hara ioaiten aiz?

9 Ihardets zezan lesusek, Egunean eztira hamabi oren? baldin nehor egunaz ebil badadi, ezta behaztopatzen: ezen mundu hunetako argia ikusten du.

10 Baina baldin nehor ebil badadi gauaz, behaztopatzen da: ezen argirik ezta hura bait-han.

11 Gauza hauk erraiten ditu, eta gero dioste, Lazaro gure adikisdea lo datza, baina banoa iratzar dezadan.

12 Erran ziezoten bada bere diszipulek, launa, baldin lo badatza sendaturen duk.

13 Eta *haur* erran zezan Iesusek haren herioaz: eta hek uste zuten lozko lokartzeaz erraiten zuela.

14 Orduan bada erran ziezen Iesusek klaroki, Lazaro hil da:

15 Eta alegera naiz zuengatik (sinhets deza-zuenzat) zeren ezpaininzen han: baina goazen harengana.

16 Erran ziezen bada Thomas Didimus deitzen denak diszipulu lagunei, Goazen gu ere horrekin hil gaitezenezat.

17 Etor zedin bada Iesus, eta eriden zezan hura ia laur egun zuela monumentean zela.

18 Zen bada Bethania hurbil Ierusalemaren hamaborz estadioren ingurua:

19 Eta Iuduetarik anhitz etor zitezen Mart-hagana eta Mariagana, hek konsola litzatenzat bere anaieaz.

20 Marthak bada enzun zezanean Iesus ethorten zela, aitzinera ilki zekion: eta Maria etxean iarririk zegoen.

21 Erran ziezon bada Marthak Iesusi, launa, baldin izan bahinz hemen, ene anaie etzukean hil:

22 Baina orain ere bazeakiat ezen zer ere galde eginen baitraukak lainkoari, emanen drauala hiri.

23 Diotsa Iesusek, Resusziaturen dun hire anaie.

24 Diotsa Marthak, Bazeakiat ezen resusziaturen dela resurrektionean, azken egunean.

25 Erran ziezon Iesusek, Ni naun resurrekzio-nea eta bizitzea: ni baithan sinhesten duena, baldin hil izan badere biziko dun:

26 Eta nor ere bizi baita, eta sinhesten baitu ni baithan, sekulan eztun hilen. Sinhesten dun haur?

27 Erraiten drauka, Bai, launa, nik diat sinhesten ezen hi aizela Krist lainkoaren Seme mundura ethorteko zena.

28 Eta haur erranik, ioan zedin, eta sekretuki dei zezan Maria bere ahizpa, zioela, Majistrua dun hemen, eta deitzen au.

29 Hura, *hori* enzun duenean, iaikiten da fitetz, eta ethorten da harengana.

30 Ezen oraino etzen ethorri Jesus burgura: baina zen Marthak enkontratu zuen lekuan.

31 Orduan harekin etxean ziraden luduak, eta hura konsolatzen zutenak, ikusirik ezen Maria hain fitetz iaiki, eta ilki zela, iarreiki zekizkion hari, zioitela, Monumentera ioaiten da, han nigar dagianzat.

32 Bada Mariak, ethor zedinean Jesus zen lekura, hura ikusirik, egotz zezan bere burua haren oinetara, ziotsala, launa, baldin izan bahinz hemen, etzukean hil ene anaie.

33 Iesusek bada ikus zezanean hura nigarrez legoela, eta harekin ethorri ziraden luduak nigarrez leudela, espirituz mobiturik trubla zezan bere burua:

34 Eta erran zezan, Non ezarri duzue? Erraiten draukate, launa, athor eta ikusak.

35 Eta nigar egin zezan Iesusek.

36 Erran zezaten bada lduiek, Horra nola maite zuen.

37 Eta hetarik batzuk erran zezaten, Ezin egin zirokeen itsuaren begiak ireki dituen hunek, haur ere hil ezladin?

38 Iesus bada berriz bere baithan mobitzen zela, ethorten da monumentera, eta lezea zen, eta harri bat haren gainera, ezarria.

39 Dio Iesusek, Altxa ezazue harria. Diotsa Marthak, hil izan zenaren arrebak, launa, kirestu duk gaurgero: ezen laur egunetakoa duk.

40 Diotsa Iesusek, Eztraunat erran, ezen baldin sinhets badezan ikusiren dunala lainkoaren gloria?

41 Ken zezaten bada harria, hila ezarri izan zen *lekutik*. Orduan Iesusek altxaturik goiti begiak, erran zezan, Aita, eskerrak emaiten drauzkiat, zeren enzun bainauk:

42 Eta nik baniakian ezen bethi enzuten nauala: baina inguru dagoen jendetzeagatik erran diat, sinhets dezatenzat ezen hik igorri nauala.

43 Eta hauk erranik, boz goraz oihu egin zezan, Lazaro, athor kanpora.

44 Eta hil izan zena ilki zedin, eskuak eta oinak lothuraz lothuak zituela: eta haren begit-hartea krobixet batez zen estalia. Dioste Iesusek, Laxa ezazue eta utzi ezazue ioaitera.

45 Bada ludu Mariagana ethorri ziradenetarik, eta lesusek egin zituen gauzak ikusi zituztenetarik anhitzek sinhets zezaten hura baithan.

46 Baina hetarik batzu ioan zitezen Fariseuetara, eta erran zietzen haei lesusek egin zituen gauzak.

47 Orduan bil zezaten Sakrifikadore prinzipalek eta Fariseuek konseillua, eta erraiten zuten, Zer egiten dugu, ezen gizon hunek anhitz signo egiten du.

48 Baldin hunela utzi badezagu, guziek sinhetsiren dute hori baithan: eta ethorriren dirade Romanoak, eta arrasaturen dute bai gure lekua, bai nationea.

49 Orduan hetarik batek, Kaifasek, zein baitzen urthe hartako Sakrifikadore subirano, erran ziezen, Zuek eztakizue deus:

50 Eta eztuzue pensatzen ezen probetxu dugula, gizon bat hil dadin populuagatik, eta natione guzia gal eztadin.

51 Eta haur bere burutik etzezan erran: baina nola baitzen urthe hartako Sakrifikadore subirano, profetiza zezan ezen lesusek hil behar luela nationeagatik.

52 Eta ez solament nazione harengatik, baina are lainkoaren haur barreiatuak bil litzanzat batetara

53 Bada egun harzaz geroztik konsultatzen zuten elkarrekin hura hil lezatenzat.

54 Iesus bada gehiagorik etzabilan agerriz luduen artean: baina ioan zedin handik desertuaren aldeko komarkarat, Efraim deitzen den hirira: eta han egoiten zen bere diszipuluekin.

55 Eta zen hurbil luduen bazkoa, eta igan zedin anhitz Ierusalemara komarka hartakorik bazko aitzinean, purifika litezenzat.

56 Bada Iesusen bilha zabiltzan, eta elkarren artean erraiten zuten, tenplean leudela, Zer irudi zaizue, ezen eztela ethorriren bestara?

57 Eta eman zezaten Sakrifikadore prinzipalek eta Fariseuek manamendu, baldin nehork ezagutzen balu non lizen, erakuts lezan, hatzaman lezatenzat.

KAP. XII.

3 Mariak Iesusen oinak ungenstatzen. 10 Sakrifikadorek Lazaro hil nahi. 14 Krist Ierusalem sartzan. 25 Bere biziari on edo gaitz eritzitea. 26 Krist zerbitzatzen dutenak. 27 Kristen othoitzia. 28 Boza zerutik. 31 Munduaren iujemendua. 35, 46 Argia. Ilhunbea. 36 Argia baithan sinhesteko. Krist Iuduetarik gordatzen. 42 Sinhetsi duten prinzipal batzuen fedea beldurti. 47 Krist ez munduaren iujeatzera ethorri, baina salbatzera.

1 Bada Iesus sei egun bazkoren aitzinetik ethor zedin Bethaniara, non baitzen Lazaro hil izan zena, zein resusztatutako batzuen hiletarik.

2 Egin ziezoten bada hari afari bat han, eta Marthak zerbitzua egiten zuen: eta Lazaro zen harekin mahainean iarririk zeudenetarik bat.

3 Orduan Mariak harturik libera bat ungentu aspik finez prezio handitakorik, unktu zitzaion

Jesusen oinak, eta ixuka zitzan bere adatsaz: eta etxea bethe zedin ungentuaren urrenez.

4 Orduan erran zezan haren diszipuluetarik batek, Iudas Iskariot Simonen *semeak*, hura tradituren zuenak.

5 Zeren ungentu haur ezta saldu izan hirurehun dinerotan, eta eman paubrei?

6 Eta haur erran zezan, ez paubrez hark ansiarik zuenez: baina zeren ohoin baitzen, eta mulsa baitzuen, eta ezarten ziradenak *hark* ekar-ten baitzituen.

7 Erran zezan bada Iesusek, Utzi ezak, ene sepultura eguneko hori begiratu dik.

8 Ezen paubreak bethiere ukanen dituzue zuekin: baina ni ez nauzue bethiere ukanen.

9 Orduan ezagut zezan Iuduetarik jendetze handik, ezen han zela: eta ethor zitezen ez Iesusgatik solament, baina are Lazaro ikus lezatenzat, zein *hark* hiletarik resuszitate baitzuen.

10 Eta konsulta zezaten Sakrifikadore prinzipalek Lazaro ere hil lezatenzat.

11 Ezen Iuduetarik anhitz haren kausaz ioaiten ziraden, eta sinhesten zuten Iesus baithan.

12 Biharamunean bestara ethorri izan zen jendetze handik, enzunik ezen Iesus ethorten zela Ierusalemara,

13 Har zitzaten palma adarrak, eta ilki zekiz-kion aitzinera, eta oihu egiten zuten, Hosanna, Benedikatu *dela* launaren izenean ethorten den Israeleko regea.

14 Eta eriden zezan Iesusek asto-ume ar bat, eta iar zedin haren gainean, eskribatua den bezala,

15 Ezaizela beldur Siongo alaba: huna, hire Rege ethorten dun iarririk dagoela asto-ume ar baten gainean.

16 Eta gauza hauk etzitzaten ezagut haren diszipuluek lehenetik: baina Iesus glorifikatu izan zenean, orduan orhoit zitezten ezen gauza hauk harzaz eskribatuak ziradela, eta hari gauza hauk egin zerautzatela.

17 Eta testifikatzen zuen harekin zen jendetzeak, ezen Lazaro deithu zuela monumentetik, eta hura resuszitzatu zuela hiletarik.

18 Halakotz atzinera ethorri ere izan zaion jendetzea, ezen enzun zuten, hark mirakulu haur egin zuela.

19 Eta Fariseuek erran zezaten bere artean, Eztakusazue ezen etzaretela deus probetxatzen? horra, mundua haren ondoan ioan da.

20 Eta baziraden Grek batzu igaiten ohi zira-denetarik adoratzera bestan:

21 Hauk bada ethor zitezen Filipegana zein *baitzen* Bethsaidako Galilean, eta othoitz egin ziezoten, zioitela, launa, nahi gendikek Iesus ikusi.

22 Ethorten da Filipe eta erraiten drauka Andribi, Andriuek berriz eta Filipek erraiten draukate Iesusi.

23 Eta Iesusek ihardets ziezen, zioela, Ethorri da ordua gizonaren Semea glorifikaturen baita.

24 Egiaz egiaz erraiten drauzuet, baldin ogi bihia lurrera eroririk hil ezpadadi, hura bera dago: baina baldin hil badadi fruktu anhitz ekarten du.

25 Bere biziari on daritzanak galduren du hura: eta bere biziari gaitz daritzanak mundu hunetan, bizitze eternalekotzat begiraturen du hura.

26 Baldin ni zenbeitek zerbitzitzen banau, niri iarreiki bekit: eta non ni izanen bainaiz, han

ene zerbitzaria ere izanen da: eta baldin zenbeitak ni zerbitza baneza, ohoraturen du hura *ene* Aitak.

27 Orain ene arima trublatur da: eta zer erranen dut? Aita, enpara nezak oren hunetarik: baina halakotz ethorri nauk oren hunetara.

28 Aita, glorifika ezak eure izena. Ethor zedin orduan boz bat zerutik, *zioela*, Eta glorifikatu diat, eta berriz glorifikaturen.

29 Eta jendetze han zenak, eta enzun zuenak, zioen, igorziri bat egin zuela. Berzek zioiten, Aingerua minzatu izan zaio.

30 Ihardets zezan lesusek eta erran, Ezta enegatik boz haur egin izan, baina zuengatik.

31 Orain da mundu hunen iujemendua: orain mundu hunetako prinzea egotziren da kanpora.

32 Eta nik, baldin goititua banaiz lurretik, guziak tiraturen ditut neuregana.

33 (Eta haur erraiten zuen, aditzera emaiten zuela zer herioz hil behar zuen)

34 Ihardets ziezon jendetzeak, Guk enzun diagu Legetik, ezen Krist badagoela eternalki: eta nola hik erraiten duk ezen behar dela goiti

dadin gizonaren Semea? nor da gizonaren Seme hori?

35 Erran ziezen orduan lesusek, Oraino denbora guti batetakotz Argia zuekin da: ebil zaitezte Argia duzueno, ilhunbeak ardiets etzaitzatenzat: ezen ilhunbean dabilanak, eztaki norat ioaiten den.

36 Argia duzueno sinhets ezazue. Argia baithan, Argiaren seme zaretenzat. Gauza hauk erran zitzan lesusek: gero ioanik gorde zedin hetarik.

37 Eta hanbat mirakulu egin bazuen ere haien aitzinean, etzuten sinhesten hura baithan:

38 Esaias profetaren hitza konpli ledinzat, zein erran ukan baitu, launa, nork sinhetsi ukan du gure hitza, eta launaren besoa nori rebelatu izan zaio?

39 Halakotz ezin sinhets zezaketen, zeren berriz erran baitu Esaiasek,

40 Itsutu ukan ditu haien begiak, eta gogortu ukan du haien bihotza: begiz ikus eztezatenzat, eta bihotzez adi eztezaten, eta konberti eztitezen, etasenda eztitzadan.

41 Gauza hauk erran zitzan Esaiasek, haren gloria ikusi zuenean, eta minzatu izan da harzaz.

42 Badarik ere prinzipaletarik ere anhitzek hura baithan sinhets zezaten: baina Fariseuak-gatik etzuten aithortzen, sinagogatik kanpora egotz litezen beldurrez.

43 Ezen maiteago ukan dute gizonen gloria, ezen ez lainkoaren gloria.

44 Orduan oihu egin zezan Iesusek, eta erran zezan, Ni baithan sinhesten duenak, eztu sinhesten ni baithan, baina ni igorri nauena baithan.

45 Eta ni ikusten nauenak, ikusten du ni igorri nauena.

46 Ni Argi mundura ethorri naiz, ni baithan sinhesten duenik batre, ilhunbean eztagoentzat

47 Eta baldin nehork enzun baditza ene hitzak, eta ez sinhets, nik eztut kondemnatzen hura: ezen eznaiz ethorri mundua kondemna dezadanzat, baina mundua salba dezadanzat.

48 Ni iraitzen nauenak, eta ez rezebitzen ene hitzak, badu nork hura kondemna dezan: ni minzatu naizen hitzak kondemnaturen du hura azken egunean,

49 Ezen ni neure burutik eznaiz minzatu: baina ni igorri nauen Aitak berak manamendu eman draut, zer erran dezakedan eta zer minza naiten.

50 Eta badakit ezen haren manamendua bizitze eternal dela: bada nik erraiten ditudan gauzak, nola Aitak eman baitrauzkit, hala erraiten ditut.

KAP. XIII.

5 Kristek bere diszipuluei oinak ikutzen eta ixukatzen. 12 Apostoluak xahu. 13 Krist laun. 14 Oinen ikutzea. 16 Apostoluak zerbitzari. 18, 21 Iudasen traditionea aitzinetik erran izan. 20 Kristek igorria rezebitzean, nor rezebitzen. 27 Satan Iudas baithan sarthu. 34 Onheriztea. 38 Pierrisen ukatzea aitzinetik erran.

1 Eta bazko besta aitzinean, zakiala Iesusek ezen ethorri zela haren orena iragan ledinzat mundu hunetarik Aitaganat, nola maite ukan baitzituen bereak, munduan ziradenak, finerano maite ukan ditu hek.

2 Eta afal ondoan (deabruak ia ezarri zue-nean Iudas Iskarioten, Simonen *semearen* biho-tzean, hura tradi lezan)

3 Dakialarik Iesusek gauza guzia eman drauzkala hari Aitak eskuetara, eta bera lainkoag-anik ilki dela, eta lainkoganat ioaiten dela:

4 Iaikiten da afaritetik, eta utziten du arropa: eta harturik lonjera bat, gerrika zedin *harzaz*.

5 Gero ezar zezan ur bazin batetara, eta has zedin diszipuluen oinen ikutzen, eta gerrikatua zen oihalaz ixukatzen.

6 Ethor zedin bada Simon Pierrisgana: eta hark erran ziezon, launa, hik niri oinak ikutzen drauzkidak?

7 Ihardets zezan Iesusek eta erran ziezon, Nik egiten dudana, hik eztakik orain: baina gero ezaguturen duk.

8 Diotsa Pierrisek, Eztituk ikuziren ene oinak sekulan. Ihardets ziezon Iesusek, Baldin ikuz ezpahezat, eztuk ukanen parterik enekin.

9 Diotsa Simon Pierrisek, launa, ez ene oinak solament, baina eskuak ere eta burua.

10 Diotsa Iesusek, Ikuzia denak, eztik mengo-
arik oinak ikuz ditzan baizen, baina duk xahu
guzia: eta zuek xahu zarete, baina ez guziok.

11 Ezen bazakian zein zen hura traditzen
zuen: halakotz erran zezan, Etzarete xahu
guziok.

12 Bada ikuzi zituenean haien oinak, eta bere
arropak harzara hartu zituenean, berriz mahai-
nean, iarririk erran ziezen, Badakizue zer egin
drauzuedan ?

13 Zuek deitzen nauzue, Majistrua eta launa,
eta ungi diozue: zeren bainaiz.

14 Baldin beraz nik ikuzi baditut zuen oinak
launa eta Majistrua naizelarik, zuek ere behar
drauztezue elkerri oinak ikuzi.

15 Ezen exenplu eman ukan drauzuet, nik
zuei egin drauzuedan bezala, zuek ere dagizuen.

16 Egiaz egiaz erraiten drauzuet, Zerbitzaria ezta bere nabusia baino handiago, ezeta enbaxadorea hura igorten duena bainoa handiago.

17 Baldin gauza hauk badakizkizue, dohatsu izanen zarete baldin egin baditzazue.

18 Eznaiz zuezaz guziaz minzo: nik badakit zein elejitu ditudan: baina *behar da* konpli dadin Eskriptura, Enekin ogia iaten duenak, altxatu du ene kontra bere oindogora.

19 Oraindik erraiten drauzuet egin dadin baino lehen, egin datenean, sinhets dezazuenzat ezen ni naizela.

20 Egiaz egiaz erraiten drauzuet, baldin nik norbeit igor badezat, nork ere hura rezebitzen baitu, ni rezebitzen nau: eta ni rezebitzen naue-nak, rezebitzen du ni igorri nauena.

21 Gauza hauk erran zituenean Iesus trublazedin espirituan, eta testifika zezan, eta erran, Egiaz egiaz erraiten drauzuet, ezen zuetarik batek tradituren nauela ni.

22 Orduan diszipuluek batak berzeaganat behatzen zuten, zeinez minzo zen dudatan izanez.

23 Eta zen Iesusen diszipuluetarik bat mahai-
nean haren bulharrera iarria, zein maite bai-
tzuen Iesusek:

24 Eta keinu egin ziezon huni Simon Pierri-
sek, galde legion, zein zen hark erraiten zuena.

25 Bada hark Iesusen estomakera beheratu-
rik, diotsa, launa, zein da?

26 Ihardets zezan Iesusek, Hura duk nik aha-
men trenpatua emanen draukadana. Eta busti
zuenean ahamena, eman ziezon Iudas Iskariot
Simonenari.

27 Eta ahamenaren ondoan sar zekion Satan.
Eta diotsa Iesusek, Egiten duana egik fitetz.

28 Baina mahainean ziradenetarik batek ere
etzuen aditzen zertara hura erran zeraukan.

29 Ezen batzuk uste zuten, zeren mulsa bai-
tzuen Iudasek, ezen erran zeraukala Iesusek,
Eros itzak bestakotzat behar ditugun gauzak:
edo paubrei zerbait eman liezen.

30 Hura bada ahamena harturik, bertan ilki
zedin, eta zen gaua.

31 Eta ilki zenean, erran zezan Iesusek, Orain
glorifikatu da gizonaren Semea, eta lainkoa glo-
rifikatu da hartan.

32 Baldin lainkoa glorifikatu bada hartan, lainkoak ere glorifikaturen du hura bere baithan, eta bertan glorifikaturen du hura.

33 Haurtoak, oraino apur bat zuekin naiz: bilhaturen nauzue: baina lduvei erran drauedan bezala, Norat ni ioaiten bainaiz, zuek ezin ethor zaitezket: *hala* zuei ere erraiten drauzuet orain.

34 Manamendu berri bat emaiten drauzuet, batak berzeari on daritzozuen, *nik* zuei on eritzi drauzuedan bezala, *zuek ere* elkarri on daritzozuenzat.

35 Hunetan ezaguturen dute guziek ezen ene diszipulu zaretela, baldin karitate baduzue batak berzeagana.

36 Diotsa Simon Pierrisek, launa, norat ioaiten aiz? Ihardets ziezon Iesusek, Norat ni ioaiten bainaiz, ezin orain iarreiki akidit: baina iarreikiren atzait gero.

37 Diotsa Pierrisek, launa, zeren ezin iarreiki nakidik orain? neure arima hiregatik ezarriren diat.

38 Ihardets ziezon Iesusek, Eure arima enegatik ezarriren baituk? egiaz egiaz erraiten

drauat, eztik ioren oillarrak ukatu nukeano hirur-
retan.

KAP. XIII.

*1 Kristen dibinitatea. 2 Bizitze
eternala. 6 Bidea eta egia. 9 Iainkoa
eta Krist bat. 11 Haren obrak. 14
Haren izenean eska dadinak
rezebituren. 16, 26 Konsolazalea. 21
Kristi on daritzana. 27 Kristen bakea.
30 Mundu hunetako prinzea.*

1 Eztadila trubla zuen bihotza: sinhesten
duzue Iainkoa baithan, ni baithan ere sinhets
ezazue.

2 Ene Aitaren etxean egoitzak anhitz dirade:
baldin berzela baliz erran neraukezuen, Banoa
zuei leku apainzera.

3 Eta ioan naizatenean, eta leku zuei apaindu
draukezuedanean, berriz ethorriren naiz, eta
harturen zaituztet neuregana: non bainaiz ni,
zuek ere zaretenzat.

4 Eta norat ni ioaiten naizen badakizue, eta bidea badakizue.

5 Diotsa Thomasek, launa, etzeakiagu norat ioaiten aizen: eta nolatan bidea ahal dakikegu ?

6 Diotsa Iesusek, Ni naiz bidea eta egia eta bizitzea: nehor ezta ethorten Aitagana nizaz baizen.

7 Baldin ezagutzen baninduzue ni, ene Aita ere ezagut zinezakete: eta oraindanik ezagutzen duzue hura, eta ikusi duzue hura.

8 Diotsa Filipek, launa, erakutsiezaguk Aita, eta asko ziaikuk,

9 Diotsa Iesusek, Hanbat denboraz zuekin nauk, eta ez nauk ezagutu ni? Filipe, ikusi naue-nak ni, ikusi dik Aita: eta nola hik erraiten duk, Erakutsiezaguk Aita?

10 Eztuk sinhesten ezen ni Aita baithan, eta Aita ni baithan dela? Nik zuei erraiten drauzki-zuedan hitzak, neurorganik eztitut erraiten: baina nitan dagoen Aitak egiten ditu obrak.

11 Sinhets nezazue ezen ni Aita baithan, eta Aita ni baithan *dela*: ezpere obra berakgatik sinhets nezazue.

12 Egiaz egiaz erraiten drauzuet, nork ni bait-
han sinhesten baitu, nik egiten ditudan obrak,
hark ere eginen ditu, eta hauk baino handiagoak
eginen ditu: ezen ni Aitaganat ioaiten naiz.

13 Eta zer ere eskaturen baitzarete ene ize-
nean, hura dut eginen: glorifika dadinzat Aita
Semean.

14 Baldin zerbait eska bazaitezte ene ize-
nean, nik dut eginen.

15 Baldin niri on badariztazue, ene mana-
menduak begiraitzazue.

16 Eta nik othoitz eginen draukat Aitari, eta
berze Konsolazale bat emanen drauzue, dagoen-
zat zuekin eternalki:

17 Egiazko Espiritu munduak ezin rezebi
dezakena *diot*: zeren ezpaitu ikusten hura, ez
ezagutzen: baina zuek badazaguzue hura, zeren
zuek baithan egoiten baita, eta zuetan izanen
da.

18 Etzaituztet utziren zurtz: itzuliren naiz
zuetara.

19 Oraino guti bat, eta munduak ez nau
gehiagorik ikusiren, baina zuek ikusiren nauzue:
zeren nibizi bainaiz, zuek ere biziko zarete.

20 Egun hartan zuek duzue ezaguturaren ezen ni naizela neure Aita baithan, eta zuek ni baithan eta ni zuek baithan.

21 Ene manamenduei datxetena, eta hek begiratzen dituenak, da niri on dariztana: eta niri on dariztana, ene Aitaz onhetsia izanen da: eta nik hari on eritziren draukat, eta manifestaturaren draukat hari neure burua.

22 Diotsa Iudasek, ez Iskariotek, launa, nondik da zeren guri eure burua manifestaturaren baitraukuk, eta ez munduari?

23 Ihardets zezan Iesusek, eta erran ziezon, Baldin norbeitek on badarizt niri, ene hitza begiraturaren du: eta ene Aitak onhetsiren du hura, eta harengana ethorriren gara, eta hura baithan egoitza eginen dugu.

24 Niri on eztariztanak, ene hitzak ez ditu begiratzen: eta enzuten duzuen hitza, ezta enea, baina ni igorri nauen Aitarena.

25 Gauza hauk erran drauzkizuet, zuekin nagoela.

26 Baina Konsolazaleak, Espiritu sailduak, zein igorriren baitu Aitak ene izenean, hark irakatsiren drauzkizue gauza guziak, eta orhoit era-

ziren drauzkizue erran drauzkizuedan gauza guziak

27 Bakea utziten drauzuet, neure bakea emaiten drauzuet: eztrauzuet munduak emaiten duen bezala, nik emaiten zuei. Eztadila trublazuen bihotza, eta eztadila izit.

28 Enzun duzue ezen erran drauzuedala, Banoa, eta itzuliren naiz zuetara. Baldin on bazindarizte, segur alegera zintezkete zeren erran baitut, banoa Aitaganat: ezen Aita ni baino handiago da.

29 Eta orain erran drauzuet egin dadin baino lehen, egin datenean sinhets dezazuenzat.

30 Eznaiz gehiagorik zuekin anhitz minzaturen: ezen ethorri da mundu hunetako prinzea, eta nitan eztu deus.

31 Baina *haur egiten da*, ezagut dezanzat munduak: ezen on daritzadala Aitari: eta nola manatu bainau Aitak, hala egiten dut. Iaiki zaitzte, goazen hemandik.

KAP. XV.

1, 5 Hesia, mahastizaina. 2 Xirmendua. 4 Frukto ekarteko moiena. 7 Othoizteak nola enzun daitezkeen. 12 Batak berzea maite ukaiteko. 14 Apostoluak Kristen adiskideak eta elejituak. 18 Fidelak gaitzesten munduak eta persekutatzen. 26 Espiritu saindua prometatu.

1 Ni naiz aihen egiazkoa, eta ene Aita da mahastizaina

2 Nitán frukto ekarten eztuen xirmenduguzia, kenzen du: eta frukto ekarten duen guzia, xahutzen du, frukto gehiago ekar dezanzat.

3 Ia zuek xahu zarete *nik* erran drauzuedan hitzagatik.

4 Zaudete nitán eta ni zuetan: xirmenduak berak frukturik bereganik ezin ekar dezakeen bezala, baldin aihenean ezpadago: ezeta zuek ere baldin nitán ezpazaudete.

5 Ni naiz aihena, zuek xirmenduak: nor baita-go nitan, eta ni hartan, hark ekarten du fruktu anhitz: ezen ni gabe deus ezin daidizue.

6 Baldin norbeit nitan ezpadago, egotzia da kanpora xirmendua bezala, eta eihartzen da: gero biltzen, eta sura egoizten, eta erratzen.

7 Baldin bazaudete nitan, eta ene hitzak zuetan badaude, zer ere nahi baituzue eska zaitezte, eta eginen zaizue.

8 Hunetan da glorifikatu ene Aita, fruktu anhitz dakarrazuen: eta izanen zarete ene diszipulu.

9 Ni Aitak maite ukan nauen bezala, nik ere maite ukan zaituztet zuek: zaudete ene karitatean.

10 Baldin ene manamenduak begira baditza-zue, egonen zarete ene karitatean: nik ere neure Aitaren manamenduak begiratu ditudan bezala, eta egoiten bainaiz haren amorioan.

11 Gauza hauk erran drauzkizuet zuei, ene alegranza zuetan dagoenzat, eta zuen alegranza bethe dadinzat.

12 Haur da ene manamendua, batak berzea maite duzuen, *nik* maite ukan zaituztedan bezala

13 Haur baino amorio handiagorik nehork eztu, norbeitek bere arima bere adiskideakgatik eman dezan.

14 Zuek ene adiskide izanen zarete, baldin egin badezazue zer ere *nik* manatzen baitrauzuet

15 Gehiagorik etzaituztet zerbitzari deithuren, ezen zerbitzariak eztaki haren nabusiak zer egiten duen: baina zuek deithu zaituztet adiskide, zeren neure Aitaganik enzun dudan guzia, ezagut erazi baitrauzuet.

16 Eznauzue zuek ni elejitu, baina *nik* elejitu zaituztet zuek, eta ordenatu zaituztet, ioan zaitetzenzat eta fruktu ekar dezazuen, eta zuen fruktua dagoen: zer ere eska baitzakizkiote ene Aitari ene izenean, eman diezazuenzat.

17 Gauza hauk manatzen drauzkizuet, elkar maite duzuenzat.

18 Baldin munduak gaitzesten bazaituzte, badakizue ezen *nik* zuek baino lehen gaitzetsi ukan nauela.

19 Baldin munduko bazinete, munduak bere luena maite luke: ordea zeren ezpaitzarete munduko, baina nik elejitu baitzaituztet mundutik, halakotz gaitz daritzue munduak.

20 Orhoit zaitezte nik erran drauzuedan hitzaz Ezta zerbitzaria bere nabusia baino handiago: baldin ni persekutatu banaute, zuek ere persekutaturen zaituzte: baldin ene hitza begiratu badute, zuena ere begiraturen dute.

21 Baina gauza hauk guziak eginen drauzkizue ene izenagatik, zeren ezpaitute ni igorri nauena ezagutzen.

22 Baldin ethorri ezpaninz, eta berei minzatu ezpaninzaie, bekaturik ezlukete: baina orain exkusarik eztute bere bekatuaz.

23 Niri gaitz dariztanak, ene Aitari ere gaitz daritza.

24 Baldin haien artean nehork berzek egin eztituen obrak egin ezpanitu, bekaturik ezlukete: baina orain ikusi dituzte, eta gaitz eritzi draukute niri eta ene Aitari.

25 Baina *haur da* haien Legean eskribatua dagoen hitza konpli dadinzat, *dioela*, Hogen gabe gaitz eritzi draudate.

26 Baina nik neure Aitaganik igorriren drauzuedan Konsolazalea dathorreanean, Espiritu egiazkoa *diot* zein ene Aitaganik prozeditzen baita, hark testifikaturen du nizaz.

27 Baina zuek ere testifikaturen duzue, ezen hatseandanik enekin zarete.

KAP. XVI.

*1 Afliktione fidelei asignatzen. 7, 13
Espiritu sainduaren ethortez. 9
Bekatuaz. 10 Iustitiaz. 11
Iujemenduaz. 23 Kristen izenean
eska bagaitez rezebituren. 27
Apostoluak lainkoaren onhetsiak. 28
Kristen aszensionea. 33 Bakea
Kristez munduko hersturarekin.*

1 Gauza hauk erran drauzkizuet eskandaliza etzaiteztenzat:

2 Egotziren zaituzte sinagogetarik: baina ethorriren da denbora non nork ere hilen baitzai-

tuzte uste ukanen baitu zerbitzu egiten draukala lainkoari.

3 Eta gauza hauk eginen drauzkizue, zeren ezpaitute ezagutu Aita, ez ni.

4 Baina gauza hauk erran drauzkizuet kuei, ordu hura ethorri datenean, orhoit zaiteztenzat hezaz, ezen nik erran drauzkizuedala: badarik ere gauza hauk hatseandanik eztrauzkizuet erran, zeren zuekin baininzen.

5 Baina orain banoa ni igorri nauenaganat, eta zuetarik nehork ez nau interrogatzen, Norat oha?

6 Baina zeren gauka hauk erran drauzkizuedan, tristitiak bethe du zuen bihotza,

7 Baina nik egia erraiten drauzuet, behar duzue ni ioan nadin: ezen baldin ioan ezpanadi, Konsolazalea ezta ethorriren zuetara: baina baldin ioan banadi, igorriren dut hura zuetara.

8 Eta dathorrenean hark benzuturen du mundua bekatuz eta iustitiaz eta iujemenduz.

9 Bekatuz diot, zeren ezpaitute ni baithan sinhesten.

10 Eta iustitiaz, zeren neure Aitaganat ioaiten bainaiz, eta gehiagorik ez nauzue ikusiren.

11 Eta iujemenduz, zeren mundu hunetako prinzea kondemnatu baita.

12 Oraino anhitz gauza dut zuei erraiteko, baina ezin egar ditzakezue orain.

13 Baina dathorrenean hura, Espiritu egiazkoa *diot, hark* gidaturen zaituzte egia guzitara: ezen ezta minzaturen bere buruz, baina zer ere enzun baituke erranen du: eta ethorteko diraden gauzak deklaraturen drauzkizue.

14 Hark nau glorifikaturen: ezen enetik harturen du, eta deklaraturen drauzue.

15 Aitak dituen gauza guziak, ene dirade: halakotz erran drauzuet ezen enetik harturen duela eta deklaraturen drauzuela.

16 *Denbora* guti bat, eta eznauzue ikusiren: eta berriz *denbora* guti bat, eta ikusiren nauzue: ezen ni banoa Aitaganat.

17 Erran zezaten bada haren diszipuluetarik *batzuk* elkarren artean, Zer da erraiten draukun haur, *Denbora* guti bat, eta eznauzue ikusiren: eta berriz *denbora* guti bat, eta ikusiren nauzue: eta, Ezen ni banoa Aitaganat.

18 Erraiten zuten bada, Zer da erraiten duen haur *denbora* guti bat? eztakigu zer erraiten duen

19 Ezagut zezan bada lesusek ezen interrogatu nahi zutela, eta erran ziezen, Elkarren artean hunezaz galdez zaudete, zeren erran baitut, *Denbora* guti bat eta eznauzue ikusiren: eta berriz *denbora* guti bat eta ikusiren nauzue.

20 Egiaz egiaz erraiten drauzuet, nigar eta lamentatione eginen duzue zuek, eta mundua bozturen da: eta zuek triste izanen zarete, baina zuen tristitia konbertituren da bozkariotara.

21 Emazteak, ertzen denean dolore du, zeren haren ordua ethorri baita: baina erdi denean haurtxo batez, gehiagorik ezta doloreaz orhoit, bozkarioz zeren gizon bat mundura iaio daten.

22 Zuek ere bada orain tristitia duzue: baina harzara ikusiren zaituztet, eta zuen bihotza alegeraturen da, eta zuen alegranza eztu nehork edekiren zuetarik.

23 Eta egun hartan eznauzue deusez interrogaturen. Egiaz egiaz erraiten drauzuet ezen zer ere eskaturen baitzaizkiote ene Aitari ene ize-nean, emanen drauzuela.

24 Oraindrano etzarete deus eskatu ene izenean: eska zaitetzte, eta rezebituren duzue, zuen alegranza konplitua denzat.

25 Gauza hauk konparationez erran drauzkiuzet: baina ethorten da ordua ezpainaitzaizue gehiagorik konparationez minzaturen, baina klaroki neure Aitaz minzaturen bainaitzaizue.

26 Egun hartan ene izenean eskaturen zarete, eta eztrauzuet erraiten ezen nik othoitz eginen draukadala Aitari zuengatik.

27 Ezen Aitak berak maite zaituzte, zeren zuek ni maite ukan bainauzue, eta sinhetsi baituzue ezen lainkoaganik ilki naizela.

28 Ilki naiz Aitaganik, eta ethorri naiz mundura: harzara utziten dut mundua, eta banoa Aitaganat.

29 Diotsate bere diszipuluek, Huna, orain klaroki minzo aiz, eta konparationerik batre eztuk erraiten.

30 Orain bazeakiagu ezen badakizkiala gauza guziak, eta eztuk mengoa nehork interroga azan: hunezaz diagu sinhesten ezen lainkoaganik ilki aizela.

31 Ihardets ziezen Iesusek, Orain sinhesten duzue?

32 Huna, ethorten da ordua, eta ia ethorri da, barreiatoren baitzarete batbedera zein zuenetarat, eta ni neuror utziren bainauzue: baina eznaiz neuror: ezen Aita enekin da.

33 Gauza hauk erran drauzkizuet, nitan bake duzuenzat: munduan afliktione ukanen duzue: baina auzue bihotz on, ni munduari garaithu natzaio.

KAP. XVII.

1, 10 Kristen othoitza. 2 Bizitze eternala. 4 Kristek Iainkoaren obra konplitu. 9 Kristek Apostoluakgatik othoitz egiten. 13 Kristen bozkarioa. 14 Apostoluak munduaz gaitzetsi. 25 Iainkoa munduak ez ezagutu.

1 Gauza hauk erran zitzan Iesusek, eta goiti zitzan begiak zerurat, eta erran zezan, Aita,

ethorri duk orena, glorifika ezak eure Semea, eure Semeak ere hi glorifika ezanzat.

2 Nola eman baitraukak bothere haragi guziaren *gainean*, hari eman drauzkioan guziei, bizitze eternala eman diezenzat.

3 Eta haur duk bizitze eternala, hi euror ezagut ezaten lainko egiazko, eta Iesus Krist *hik* igorri duana.

4 Nik glorifikatu aut lurraren gainean: akabatu diat egiteko eman drautan obra.

5 Eta orain glorifika nezak *hik* Aita, euror baithan, gloria harzaz zein ukan baitut hirekin mundu haur egin zedin baino lehen.

6 Manifestatu diraeat hire izena *hik* niri mundutik eman drauztan gizonei: hireak zituan, eta niri hek eman drauzkidak, eta hire hitza begiratu die.

7 Orain ezagutu die, ezen niri eman drauzkidan gauza guziak hireganik diradela.

8 Ezen niri eman drauzkidan hitzak haei eman dirauzteat: eta hek rezebitu zitie, eta ezagutu die egiazki ezen ni hireganik ilki naizela, eta sinhetsi die ezen *hik* igorri nauala.

9 Nik hekgatik othoitz egiten diat: eztiat munduagatik othoitz egiten, baina hik niri eman drauzkidanakgatik, ezen hiriak dituk.

10 Eta ene gauza guziak hire dituk, eta hireak ene, eta glorifikatu izan nauk hetan.

11 Eta gehiagorik ez nauk munduan, baina hauk munduan dituk, eta ni hiregana ethorten nauk. Aita saindua, begiraitzak eure izenean, niri eman drauzkidanak, bat diradenzat, gu bezala.

12 Hekin munduan ninzenean, nik begiratzen nitian hek hire izenean: niri eman drauzkidanak, nik begiratu zitiat, eta hetarik batre eztuk galdu izan, perditionezko semea baizen: Eskriptura konpli ledinzat.

13 Eta orain hiregana ethorten nauk, eta gauza hauk erraiten zitiat munduan, dutenzat ene alegranza konplitua berak baithan.

14 Nik eman diraueat haei hire hitza, eta munduak hek gaitzetsi ukan zitik, zeren ezpaitirade mundutik, nola ni ere ezpainaiz mundutik.

15 Eztiat othoitz egiten ken ditzan hek mundutik, baina begira ditzan gaixtotik.

16 Eztituk mundutik, nola ni ere ezpainaiz mundutik.

17 Sanktifikaitzak hek eure egiaz: hire hitza duk egia.

18 Nola ni igorri bainauk mundura, nik ere igorri zitiat hek mundura.

19 Eta hekgatik sanktifikatu diat neure burua hek ere sanktifikatuak diradenzat egiaz.

20 Eta eztiat hekgatik solament othoitz egi-ten, baina haien hitzaz ni baithan sinhetsiren dutenakgatik ere *bai*:

21 Guziak bat diradenzat, nola hi Aita *baitaiz* nitan, eta ni hitan, hek ere gutan bat diraden: sinhets dezanzat munduak ezen hik ni igorri nauala.

22 *Hik* niri eman drautan gloria, nik ere eman diraueat haei: bat diradenzat gu ere bat garen bezala.

23 Ni *nauk* hetan, eta hi nitan, perfekto diradenzat bat berean, eta ezagut dezan munduak ezen hik ni igorri nauala, eta maite dituala hek ni maite ukan nauan bezala.

24 Aita, niri eman drauzkidanak, nahi diat non bainaiz ni, hek ere diraden enekin: kontenpla dezatenzat ene gloria *hik* niri eman drauta-

na, ezen maite ukan nauk mundua funda zedin baino lehendanik.

25 Aita iustoa, munduak hi ezau ezagutu, baina nik hi ezagutu aut, eta hauk ezagutu die ezen hik ni igorri nauala.

26 Eta ezagut erazi diraeat hire izena, eta ezagut eraziren: *hik* niri on eritzi drautan onheriztea, hetan denzat, eta ni hetan.

KAP. XVIII.

1 Krist baratzean, 2 Iudasez traditzen. 13 Anasgana eta Kaifasgana eramaiten. 15 Pierrisek iarreikirik, 17, 25 harzaz ukatzen. 19 Kaifasek Krist interrogatzen, 28 gero Pilatgana dute eramaiten. 31, 37 Kristek Iuduen Rege dela konfesatzen. 37 Zertara ethorri den Krist mundura. 40 Barabbas largatu.

1 Gauza hauk erran zituenean, ilki zedin Iesus bere diszipuluekin Zedrongo torrentaz

berze aldera, non baitzen baratze bat, zeinetan sar baitzedin hura eta haren diszipuluak

2 Eta bazakian leku hura ludasek ere, zeinek traditzen baitzuen hura: ezen anhitzetan Iesus bildu izan zen hara bere diszipunuekin.

3 Iudas bada harturik soldadozko banda bat, eta Sakrifikadore prinzipaletarik eta Fariseuetarik ofizierak, ethor zedin hara lanternekin eta torxoekin eta harmekin.

4 Iesusek bada zakizkialarik haren gainera ethorteko ziradenen gauza guziak, aitzinaraturik erran ziezen, Noren bilha zabilzate?

5 Ihardets ziezoten, Iesus Nazarenoren. Dios-te Iesusek, Ni naiz. Eta hekin zegoen Iudas ere zeinek traditzen baitzuen hura.

6 Bada erran zerauenean, Ni naiz, gibelerat zitezen, eta eror zitezen lurrera.

7 Orduan berriz interroga zitzaiz, Noren bilha zabilzate? Eta hek erran zezaten, Iesus Nazarenoren.

8 Ihardets zezan Iesusek, Erran drauzuet ezen ni naizela: bada baldin ene bilha bazabilzate, utzitzazue hauk ioaitera.

9 Erran zuen hitza konpli ledinzat, Niri *hik* eman drauzkidanetarik, eztiat galdu batre.

10 Eta Simon Pierrisek nola baitzuen ezpata, idoki zezan hura, eta io zezan Sakrifikadore subiranoaren zerbitzaria, eta ebaki ziezon eskuineko beharria: eta zerbitzariaren izena zen Malkus.

11 Erran ziezon bada lesusek Pierrisi, Ezarrak eure ezpata maginan: ala eztut edanen Aitak niri eman drautan kopa?

12 Orduan bandak eta kapitainak eta luduen ofizierek elkarrekin hatzaman zezaten Iesus, eta esteka zezaten.

13 Eta eraman zezaten lehenik Anasgana: (ezen Kaifasen ginharreba zen, zein baitzen urthe hartako Sakrifikadore subirano) eta hark igor zezan hura estekaturik Kaifas Sakrifikadore subiranoagana.

14 Eta Kaifas zen konseillu eman zerauena luduei ezen probetxu zela gizon bat hil ledin populuagatik.

15 Eta iarreikiten zaion Iesusi Simon Pierris, eta berze diszipulu bat, eta diszipulu hura zen Sakrifikadore subiranoaren ezaguna, eta sar

zedin Iesusekin batean Sakrifikadore subiranoaren salan

16 Baina Pierris borthaldean kanpotik zegoen. Ilki zedin bada berze diszipulu Sakrifikadore subiranoaren ezaguna, eta minza zekion neskato borthalzainari, eta sar erazi zezan Pierris.

17 Eta erran ziezon Pierrisi neskato borthalzainak. Ez othe aiz hi ere gizon hunen diszipuluetarik? Dio hark, Ez naun.

18 Eta zeuden han zerbitzariak eta ofizierak ikatz kanborra eginik, ezen hotz ari zen, eta berotzen ziraden: eta zen hekin Pierris ere eta berotzen zegoen.

19 Sakrifikadore subiranoak bada interroga zezan Iesus bere diszipuluez eta bere doktrinaz.

20 Ihardets ziezon Iesusek, Ni publikoki minzatu izan natzaiok munduari, nik bethiere irakatsi ukan diat sinagogan eta tenplean, nora luduak alde guzietarik biltzen baitirade, eta sekretuan eznauk minzatu deus.

21 Zergatik interrogatzen nauk ni? interrogaitzak ni zer minzatu natzaien enzun dutenak: hara, hek ziakie zer erran dudan nik.

22 Eta gauza hauk hark erran zituenean, present ziraden ofizieretarik batek zihor kolpe bat eman ziezon Iesusi, zioela, Horrela ihardesten draukak Sakrifikadore subiranoari?

23 Ihardets ziezon Iesusek, baldin gaizki minzatu banaiz, testifika ezak gaizkiaz: eta baldin ungi *erran badut*, zergatik ioiten nauk?

24 Orduan igor zezan hura Anasek estekaturik Kaifas Sakrifikadore subiranoagana.

25 Eta zegoen han Simon Pierris, eta bertzen zen: erran ziezoten bada hari, Ez othe aiz hi ere haren diszipuluetarik? uka zezan hark, eta erran zezan, Ez naiz.

26 Diotsa hari Sakrifikadore subiranoaren zerbitzarietarik zenbeitek, Pierrisek beharria ebaki zeraukanaren ahaide batek, Ez aut nik hi ikusi baratzean harekin?

27 Orduan berriz uka zezan Pierrisek, eta bertan oillarrak io zezan.

28 Gero eraman zezaten Iesus Kaifasganik Pretoriora: eta zen goiza, eta berak etzitezen sar Pretoriora, satsu ezlitezenzat, baina Bazkoa ian lezatenzat.

29 Ilki zedin bada Pilate hetara kanpora, eta erran zezan, Zer akusatione dakarkezue gizon hunen kontra?

30 Ihardets zezaten eta erran ziezoten, Baldin hori gaizki-egile ezpaliz, ezkindraukean hiri liuratu.

31 Dioste orduan Pilatek, Har ezazue haur zuek, eta zuen Legearen araez kondemna ezazue. Orduan erran ziezoten Iuduek, Eztuk sori gureztat nehoren hiltzea.

32 *Haur zen* Iesusen hitza konpli ledinzat, zein erran baitzezan aditzera emaiten zuela zer herioz hil behar luen.

33 Sar zedin bada berriz Pretoriora Pilate, eta dei zezan Iesus, eta erran ziezon, Hi aiz Iuduen Regea?

34 Ihardets ziezon Iesusek, Eurorren burutik hik hori erraiten duk, ala berzek erran draue nizaz?

35 Ihardets zezan Pilatek, Ala ni Iudu naiz? eure nationeak eta Sakrifikadore prinzipalek liuratu araute: zer egin duk?

36 Ihardets zezan Iesusek, Ene resuma eztuk mundu hunetarik: baldin mundu hunetarik baliz

ene resuma, ene jendeak konbati litezkek luduei liura ez nendinat: baina orain ene resuma eztuk hemengo.

37 Erran ziezon orduan Pilatek, Rege aiz bada hi? Ihardets zezan lesusek, Hik diok ezen Rege naizela ni. Ni hunetakotzat iaio izan nauk, eta hunetakotzat ethorri izan nauk mundura, testimoniaje demodanzat egiari. Egiatik den guziak, enzuten dik ene boza.

38 Diotsa Pilatek, Zer da egia? Eta haur erran zuenean, berriz ilki zedin luduetara, eta dioste, Nik eztut erideiten haur baithan kausarik batre.

39 Eta kostuma bat baituzue bat larga diezazuedan Bazkoz: nahi duzue bada larga diezazuedan luduen Regea?

40 Oihuz iar zitezen bada berriz guziak, zioitela, Ez hori, baina Barabbas: eta zen Barabbas gaixtagin bat.

KAP. XIX.

*1 Krist azotatu. 2 Elhorriz koroatu.
10 Pilaten puisanza Kristen gainean.*

16 Krist eman izan kruzifika ledinzat.
19 Haren krutzeko eskribua. 27
Ioanesi bere ama gomendatzen
Kristek, 30 Espiritua rendatzen. 34
Haren seihetsazulhatu. 38 Iosef
Arimatheakoa. 39 Nikodemo. 40
Krist ohortze.

1 Orduan bada har zezan Pilatek Iesus, eta azota zezan.

2 Eta jendarmesek plegaturik koroa bat elhorriz ezar zezaten haren buru gainean, eta eskarlatazko abillamendu batez bezi zezaten.

3 Eta erraiten zuten, Ungi hel dakiala Iuduen Regea. Eta zihor ukaldiz zeraunsaten.

4 Ilki zedin bada berriz Pilate kanpora, eta erran zizeen, Huna, ekarten drauzuet kanpora, ezagut dezazuenzat ezen eztudala hunetan hogenik batre erideiten.

5 Ilki zedin bada Iesus kanpora, elhorrizko koroa zakarkela, eta eskarlatazko abillamendua. Eta dioste *Pilatek*, Huna gizona.

6 Baina ikusi zutenean hura Sakrifikadore prinzipalek eta ofizierek, oihu egin zezaten, zioi-

tela, Kruzifika ezak, kruzifika ezak. Dioste Pilatek, Har ezazue zeurok, eta kruzifika ezazue: ezen nik eztut erideiten haur baithan hogenik.

7 Ihardets ziezoten Iuduek, Guk Legea diagu, eta gure Legearen arauetz hil behar dik, ezen lainkoaren Seme bere burua egin dik.

8 Enzun zuenean bada Pilatek hitz haur, beldurrago zedin.

9 Eta sar zedin Pretoriora berriz, eta erranziezon Iesusi, Nongo aiz hi? Eta Iesusek repostarik etziezon eman.

10 Diotsa bada Pilatek, Niri ezatzait minzo? Eztakik ezen bothere dudala hire kruzifikatzeko, eta bothere dudala hire largatzeko?

11 Ihardets zezan Iesusek, Ezuke botherarik batre ene kontra, baldin eman ezpalitzaik gaintik: halakotz, ni hiri liuratu narauanak, bekatu handiagoa dik.

12 Handik harat bazabilan Pilate hura largatu nahiz: baina Iuduak heiagoraz zeuden, Baldin hori larga badezak, ezaiz Zesaren adiskide: ezen bere burua rege egiten duen guzia kontrastatzen ziaioz Zesari.

13 Pilatek bada enzunik hitz haur, eraman zezan kanpora Iesus, eta iar zedin alki iudizialean, Pabadura, eta Hebraikoz Gabbatha deitzen den lekuan.

14 Eta zen *orduan* Bazkoko preparatiunea, eta sei orenen ingurua: orduan dioste *Pilatek* Iuduei, Huna zuen Regea.

15 Baina hek oihu zegiten, Ken, ken, kruzifika ezak. Dioste Pilatek, zuen Regea kruzifikaturren dut? Ihardets zazaten Sakrifikadore prinzipalek, Eztiagu regerik Zesar baizen.

16 Orduan bada eman zizeen kruzifika ledinatzat. Eta har zezaten Iesus, eta eraman zezaten.

17 Eta *hura* bere krutzea zakarkela ethor zedin Bur-hezur plaza deitzen denera, eta Hebraikoz Golgotha.

18 Non kruzifika baitzezaten hura, eta harekin berzerik biga, alde batetik eta berzetik, eta Iesus artean.

19 Eta eskriba zezan titulu bat Pilatek, eta ezar zezan haren krutze gainean: eta zen eskribatua, IESUS NAZARENO IUDUEN REGEA.

20 Titulu haur bada Iuduetarik anhitzek irakurt zezaten: ezen zibitate aldean zen Iesus kru-

zifikatu zen lekua: eta zen eskribatua Hebraikoz, Grekez, eta Latinez.

21 Ziotsaten bada Pilati Iuduen Sakrifikadore prinzipalek, Eztezala eskriba Iuduen Rege: baina berak erran duela, Iuduen Regea naiz.

22 Ihardets zezan Pilatek, Eskribatu dudana, eskribatu dut.

23 Bada jendarmesek Iesus kruzifikatu zute-nean har zitzaten haren abillamenduak, (eta egin zitzaten laur parte, jendarmesetarik batberderari zeini bere partea) iaka ere *har zezaten*: eta iaka zen iostura gabe gaisetrik guzia ehoa.

24 Erran zezaten bada bere artean, Eztezagula hura erdira, baina dagigun harzaz zorthe zeinen izanen den: *eta haur*, Eskriptura konpliledinzat, dioela, Ene abillamenduak partitu ukan dituzte bere artean, eta ene abillamenduaren gainean zorthe egotzi ukan dute. Bada jendarmesek gauza hauk egin zitzaten.

25 Eta zeuden Iesusen krutzearen aldean, haren ama eta haren amaren ahizpa, Maria Kleopasena eta Maria Magdalena.

26 Ikus zitzanean bada lesusek *bere* ama, eta maite zuen diszipulua han zegoela, diotsa bere amari, Emaztea, horra hire semea.

27 Gero diotsa diszipulari, Horra hire ama. Eta orduandanik rezebi zezan hura diszipuluak beregana.

28 Gero nola baitzakian lesusek ezen *berze* gauza guziak ia konplitu ziradela, konpli ledinzat Eskriptura, erran zezan, Egarrri naiz.

29 Eta unzi bat zen han binagrez betherik ezarria. Eta hek bethe zezaten esponjia bat bina-grez, eta hisopoaren inguruan ezarririk, present-a ziezoten ahora.

30 Eta hartu zuenean lesusek binagrea, erran zezan, *Guzia* konplitu da: eta burua beheraturik renda zezan espiritua.

31 Orduan luduek ezlaudenzat krutzean gorputzak Sabbathoan, zeren orduan baitzen preparacioneko eguna: (ezen Sabbath hartako egun handia zen) othoitz zegioten Pilati hauts litezen haien zangoak, eta ken litezen.

32 Ethor zitezen bada jendarmesak, eta hauts zitzaten lehenaren zangoak, eta berze harekin kruzifikatu zenarenak.

33 Baina Iesusgana ethor zitezenean, ikusirik ia hura hil zela etzitzaten hauts haren zangoak.

34 Baina jendarmesetarik batek dardoaz haren seihetsa iragan zezan, eta bertan ilki zedin odol eta ur.

35 Eta ikusi duenak testifikatu ukan du, eta egiazkoa da haren testimoniajea: hark badaki ezen egiak erraiten dituela, zuek ere sinhets dezazuenzat.

36 Ezen gauza hauk egin izan dirade Eskriptura konpli ledinzat, Ezta hautsiren haren hezurrik.

37 Eta berriz berze Eskriptura batek erraiten du, Ikusiren dute nor zulhatu duten.

38 Gauza hauen ondoan othoitz egin ziezon Pilati Iosef Arimatheakoak (zein baitzen Iesusen diszipulu, baina ixilizko, Iuduen beldurrez) ken lezan Iesusen gorputza: eta permeti ziezon Pilatek. Ethor zedin bada eta ken zezan Iesusen gorputza.

39 Eta ethor zedin Nikodemo ere (ethorri izan zena Iesusgana gauaz lehenik) ekarten zuela mirhazko eta alosezko kuasi ehun liberatako mixtione bat.

40 Har zezaten orduan Iesusen gorputza, eta lot zezaten hura mihistoihaiez aromatezko usai-
nekin, nola kostuma baitute Iuduek ohorzteko.

41 Eta *hura* kruzifikatu izan zen leku hartan
zen baratze bat, eta baratzean monument berri
bat, zeinetan oraino ezpaitzen nehor ezarri izan.

42 Han bada, Iuduen preparationeko *eguna-*
ren kausaz, zeren hurbil baitzen monumenta,
ezar zezaten Iesus.

KAP. XX.

*1 Maria Magdalena monumentera. 3
Pierrisek eta Ioanesez hara laster
egiten. 11, 12 Bi Aingeru Mariak
ikusten. 14 Iesus hari minzutzen. 18
Hark denuntiatzen Krist resuszitate
dela. 22, 23 Kristek Espiritu saindua
eta gakoak diszipuluei emaiten. 25,
26 Thomas inkredul. 31 Ebanjelioa
zergatik eskribatu.*

1 Eta Sabbathoen lehen egunean Maria Magdalena ethorten da goizean, oraino ilhun zelarik monumentera: eta ikusten du harria monumentetik aldaratua.

2 Orduan laster egiten du eta ethorten da Simon Pierrisgana, eta berze diszipulu Iesusek maite zuenagana, eta dioste, Kendu dute launa monumentetik, eta eztakigu non ezarri duten.

3 Ilki zedin bada Pierris, eta berze diszipulu hura, eta ethor zitezen monumentera.

4 Eta lasterka zioazen biak elkarrekin: baina berze diszipulu hura aitzin zekion Pierrisi, eta lehen ethor zedin monumentera.

5 Eta beheiturik ikus zitzan oihalak aldaratuak: badarik ere etzedin sar.

6 Ethorten da orduan Simon Pierris hari darreikola, eta sar zedin monumentera, eta ikus zitzan oihalak *han* ezarriak:

7 Eta haren buru gainean izan zen krobotxeta, ez oihalekin ezarria, baina apart biribilgatu leku batetara.

8 Orduan bada sar zedin berze diszipulu monumentera lehenik ethorri izan zen hura ere, eta ikus zezan, eta sinhets zezan.

9 Ezen oraino etzakiten Eskriptura, ezen behar zela hura hiletarik resuszita ledin.

10 Itzul zitezen bada diszipuluak beretarat.

11 Baina Maria zegoen monumentaren aldean kanpotik, nigarrez: bada nigarrez zegoela, beheiti zedin monumentera:

12 Eta ikus zitzan bi Aingeru xuriz beztituak, iarririk zeudela, bata burura eta berzea oinetara, Iesusen gorputza etzan izan zen lekuan.

13 Eta *hek* erran ziezoten, Emaztea, zergatik nigarrez ago? Dioste, *Zeren* kendu baitute ene launa, eta ezpaitakit non ezarri duten.

14 Eta haur erran zuenean itzul zedin gibelerrat, eta ikus zezan Iesus han zegoela, eta etzakian Iesus zela.

15 Diotsa Iesussek, Emaztea, zergatik nigarrez ago? noren bilha abila? Hark ustez ezen baratzezaina zela, diotsa, launa, baldin hik eraman baduk hura, erradak non ezarri duan: eta nik kenduren diat.

16 Diotsa Iesussek, Maria: Itzulirik hark diotsa, Rabboni, erran nahi baita, Majistrua.

17 Diotsa Iesussek, Eznezanala hunki: ezen oraino eznaun igan neure Aitagana: baina habil

ene analetara, eta erran iezen, Igaiten naiz neure Aitagana, eta zuen Aitagana, eta neure lainkoagana eta zuen lainkoagana.

18 Ethor zedin Maria Magdalena kontatzen zerauela diszipuluei ezen ikusi zuela launa, eta *hark* gauza hek erran zerautzala.

19 Eta arrastu zenean Sabbathoen asteko lehen egun hartan, eta borthak ertsiak zeudela, non bilduak baitziraden diszipuluak luduen bel-durrez, ethor zedin Iesus eta geldi zedin haien artean, eta dioste, Bakea *dela* zuekin.

20 Eta haur erran zuenean, erakuts zietzen eskuak eta bere seihetsa: eta alegera zitezen diszipuluak ikusirik launa.

21 Eta erran ziezen berriz, Bakea *dela* zuekin: ni Aitak igorri nauen bezala, nik ere igorten zaitzuet zuek.

22 Eta haur erran zuenean, hats eman ziezen eta erran, Rezebi ezazue Espiritu saindua.

23 Noren ere bekatuak barkaturen baitituzue, barkatzen zaizte haei: eta norenak ere edukiren baitituzue, edukiak dirade.

24 Eta Thomas, hamabietarik bat, Didimus deitzen dena, etzen hekin Iesus ethorri zenean.

25 Erran ziezoten bada hari berze diszipuluak, Ikusi diagu launa. Eta hark erran ziezen, Baldin ikus ezpadezat haren eskuetan itzen seignalea, eta ezar ezpadezat neure erhia itzen lekuan, eta ezar ezpadezat neure eskua haren seihetsean, eztut sinhetsiren.

26 Eta zortzi egunen buruan berriz ziraden haren diszipuluak barnean, eta Thomas hekin: ethor zedin Iesus borthak ertsiak zeudela, eta geldi zedin *haien* artean, eta erran zezan, Bakea *dela* zuekin.

27 Gero diotsa Thomasi, Ezarrak eure erhia hemen, eta ikus itzak ene eskuak: eta heda ezak eure eskua, eta ezarrak ene seihetsean: eta ezaizela sinheste-gabe, baina sinheste-dun.

28 Eta ihardets zezan Thomasek: eta erran ziezon, Ene launa eta ene lainkoa.

29 Diotsa Iesusek, Zeren ikusi bainauk, Thomas sinhesten duk: dohatsu *dituk* ikusi ez, eta sinhetsi dutenak.

30 Bada anhitz berze signorik ere egin zezan Iesusek bere diszipuluaren aitzinean, zein ezpaitirade eskribatuak liburu hunetan.

31 Baina gauza hauk eskribatu izan dirade, sinhets dezazuenzat ezen Iesus dela Krist lainkoaren Semea, eta sinhesten duzuela bizitzea duzuenzat haren izenean.

KAP. XXI.

1 Krist agertzen diszipuluei, arrain hatzamaiten ari ziradela. 6 Arrain hatzamanak. 18 Pierrisen herioa Kristek aitzinetik erraiten, 20 eta Ioanesenaz Pierris informatzen. 25 Eskribatu ezten gauzarik anhitz egin Iesusek.

1 Gero manifesta zekien berriz Iesus diszipuluei Tiberiako itsas aldean, manifesta zedin bada hunela:

2 Ziraden elkarrekin Simon Pierris, eta Thomas Didimus deitzen dena, eta Nathanael, zein baitzen Kana Galileako, eta Zebedeoren semeak, eta haren diszipuluetarik berzerik biga.

3 Dioste Simon Pierrisek, Banoa arrainzara. Diotsate, Bagioazak gu ere hirekin. Parti zitezten, eta igan zitezten unzira bertan: eta gau hartan etzezaten deus har.

4 Baina goiza ethorri zenean, eriden zedin Iesus ur bazterrean: badarik ere etzezaten eza-gut diszipuluek Iesus zela.

5 Dioste bada Iesusek, Haurrak, iakirik batre baduzue? Ihardets ziezoten, Ez.

6 Eta hark dioste, Egotzazue sarea unziaren eskuineko aldera, eta eridenen duzue. Egotz zezaten bada, eta gehiagorik ezin hura tira zezaketen arrainen anhitzez.

7 Diotsa bada Iesusek maite zuen diszipulu hark Pierrisi, launa duk. Simon Pierris bada, enzun zuenean ezen launa zela, *bere* iupaz ingura zedin (zeren billuzgorria baitzen) eta egotz zezan bere burua itsasora.

8 Eta berze diszipuluak unzian ethor zitezten, (ezen etziraden lurretik urrun, baina ber-ehun besoren ingurua) tiratzun zutela sarea arrainez *bethea*.

9 Eta lurrera iautsi ziradenean ikus zitzaten ikatzak ezarriak, eta arraina gainean ezarria eta ogia.

10 Dioste lesusek, Ekarzue orain hartu dituzuen arrainetarik.

11 Igan zedin Simon Pierris, eta tira zezan sarea lurrera, ehun eta berrogei eta hamairur arrain handiz bethea: eta hanbat bazen ere, etzedin ethen sarea.

12 Dioste lesusek, Zatozte barazkal zaitzte. Eta diszipuluetarik batre etzaion benturatzen interrogatzera, Hi nor aiz? zakitelarik ezen launa zela.

13 Ethorten da bada Iesus eta hartzen du ogia eta emaiten draue, eta arrainetik halaber.

14 Haur *zen* ia heren aldia Iesus bere diszipuluei manifestatu izan zaiena hiletarik resusztatuz geroztik.

15 Bada barazkaldu ziradenean, diotsa Simon Pierrisi lesusek, Simon Ionaren *semea*, hauk baino hobe dariztak? Diotsa, Bai launa: hik badakik ezen on darizadala. Diotsa, Bazkaitzak ene bildotsak.

16 Diotsa are berriz, Simon Ionaren *semea*, on dariztak niri? Diotsa, Bai launa, hik badakik ezen on darizadala. Diotsa, Bazkaitzak ene ardiak.

17 Erraiten drauka herenean, Simon Ionaren *semea*, on dariztak niri? Triste zedin Pierris zeren erran baitzieron herenean, On dariztak niri? Eta erran ziezon, launa, hik gauza guziak badakizkik, hik badakik ezen on darizadala. Diotsa Iesusek, Bazkaitzak ene ardiak.

18 Egiaz egiaz erraiten drauat, gazteago inzenean, gerrikatzen inzen, eta bahindoan norat nahi baihinzen: baina zahar adinean, hedaturen dituk eure eskuak, eta berzek gerrikaturen au, eta eramanen au nahi eztukean lekura.

19 Eta haur erran zezan, aditzera emaiten zuela zer herioz glorifikaturen zuen lainkoa. Eta haur erran zuenean, diotsa, Arreit niri.

20 Itzulirik Pierrisek ikus zezan Iesusek maite zuen diszipulu hura, iarreikiten zela, zein sustengatu ere baitzen afarian haren estomak gainera, eta erran baitzezan, launa, nor da hi traditzen auena?

21 Haur bada ikusi zuenean Pierrisek, diotsa lesusi, launa, eta haur zer?

22 Diotsa lesusek, Baldin hori nahi badut dagoen nathorreno, zer mengoa duk hik? hi arreit niri.

23 Eta ilki zedin hitz haur anaien artean ezen diszipulu hura etzela hilen: baina etzeraukan erran lesusek, eztuk hilen: baina, Baldin hori nahi badut dagoen nathorreno, zer mengoa duk hik?

24 Haur da diszipulu hura zeinek testifikatzen baitu gauza hauzaz, eta gauza hauk *hark eskribatu* ditu: eta badakigu ezen egiazko dela haren testimoniajea.

25 Baina bada anhitz berze gauzarik ere lesusek eginik, zein baldin eskribatuak balirade punktuz puntu, munduak ere eztut uste eduki litzakeela eskriba litezken liburuak.

APOSTOLU SAINDUEN AKTEAK

KAP. I.

*1 Espiritu sainduaz batheiatzea. 8
Apostoluak Kristen testimonio. 9
Krist zerurat igaiten. 13 Apostoluak
Espiritu sainduaren begira egon. 16
Iudasen orde baten elejitzeaz. 18
Nola Iudasek bere burua urkatu
zuen. 24 Apostoluen othoitzza. 26
Matthias elejitu.*

1 Lehenik minzatu izan nauk, Theofile, Iesus egiten eta irakasten hasi izan zen gauza guziez.

2 Elejitu zituen Apostoluei Espiritu sainduaz manamenduak emanik, goiti rezebitu zen egunerano.

3 Zeinei erakutsi ere baitu bere burua bizirik bere pasioneaz geroztik anthitz seignale segu-

rez, berrogei egunez haei erakusten etalainkoaren resumaz minzaten zaiela.

4 Eta bildu zituenean, mana zitzan ezlitezen parti Ierusalemetik, baina iguriki lezaten Aitaren promesa, Zein, *dio*, enzun baituzue eneganik.

5 Ezen loanesez batheiatu du urez, baina zuek batheiatu zarete Espiritu sainduaz anhitz egun gabe.

6 Hek bada bildu ziradenean interroga zezaten hura, zioitela, launa, denbora hunetan bere estaturako draukak resuma Israeli?

7 Eta erran ziezen, Ezta zuei eman Aitak bere bothere propioan ezarri dituen denboren edo sasoinen ezagutzea.

8 Baina rezibituen duzue zuen gainera ethorriren den Espiritu sainduaren berthutea, eta izanen zaizkide testimonio Ierusalemen, eta Iudea guzian, eta Samarian, eta lurraren bazterrerano

9 Eta gauza hauk erran zituenean, hek zaku-satela altxa zedin: eta hodei batek harturik eraman zezan haien begietarik.

10 Eta zerurat begiak finkatuak zadutzatela hura ioaten zenean, huna, bi gizon presenta zitezzen haien aitzinean beztidura xuritan:

11 Zeinek erran ere baitzezaten, Galileako gizonak, zergatik zaudete, zerurat beha zaudetela? goiti zuetarik zerurat rezebitu den Iesus haur, hala ethorriren da nola ikusi baituzue zerurat ioaiten.

12 Orduan itzul zitezzen Ierusalemera Olibatzetako deitzen den menditik, zein baita Ierusalemeko aldean, Sabbath baten bidean.

13 Eta sarthu izan ziradenean, igan zitezzen ganbera gora batetara non baitzeuden Pierris eta Iakes, Ioanes eta Andriu, Filipe eta Thomas, Bartholomeo eta Mattheu, Iakes Alfeoren *semea* eta Simon Zelotes, eta Iuda Iakesen *anaiea*.

14 Hauk guziek perseberatzen zuten gogo batez othoitzatan eta orationetan emaztekin, eta Iesusen ama Mariarekin, eta haren anaiekin,

15 Eta egun hetan iaikirik Pierrisek diszipulu-
luek artean, erran zezan (eta zen han berean konpainia bat seiogeik personaren ingurukorik)

16 Gizon anaieak, konplitu behar zen Eskriptura haur, zein aitzinetik erran baitu Espiritu

sainduak Dabid-en ahoz, Iudasez, zein izan baita Iesusen hatzamailean gidari:

17 Ezen kontuko zen gurekin, eta rezebitu ukan zuen administratonean huretako portioea.

18 Hark bada akisitu du landa bat inikitatezko alokairutik, eta bere burua egotzirik erditik leher egin ukan du, eta urratu izan dirade haren halsar guziak.

19 Eta *gauza haur* ezagutu izan da Ierusalemeko habitant guzietz: hala non deithu izan baita landa hura haien lengoaje propioz, Hazeldama: erran nahi baita, odol landa.

20 Ezen eskribatua da Psalmuen liburuan, Egin bedi haren habitatonea desert, eta ezten han habita dadinik. Eta, Haren administratonea har dezan berze batek.

21 Behar da beraz gurekin bildu izan diraden gizon hautarik, Iesus launa gure artean ioan eta ethorri izan den denbora guzian,

22 Hasirik loanesen Baptismotik, gureganik goiti rezebitu izan den egunerano, bat egin dadin haren resurrektionearen testimonio gurekin.

23 Presenta zitzaten bada biga, Iosef Barsabas deitzen zena, zein izen goitikoak Iusto deitzen izan baita, eta Matthias.

24 Eta othoizte egiten zutela erran zezaten, Hik launa guzien bihotzak baitezaguzkik, erakutsak zein elejitu duan bi hautarik,

25 Har dezantat ministerio hunetako eta Apostolutasuneko, portioea, zeinetarik erauzi izan baita Iudas, ioan ledinzat bere lekurat.

26 Eta egotz zitzaten haien zortheak, eta eror zedin zorthea Matthiasen gainera, eta konsentimendu batez ezar zedin hameka Apostoluen kontuan

KAP. II.

*1 Espiritu saindua igorri. 4
Apostoluak lengoaje arrotzez minzo.*

*14 Pierrisen predikationea. 21
Salbamendua. 24 Kristen
resurrektionea. 36 Iesus dela Krist.*

*38 Penitentia. Baptismoa. 39
Kristezko promesak. 42 Doktrina.*

Komunionea. Ogiaren haustea.

*Orationea. 44 Bihotzezko eta
onhasunezko batasuna.*

1 Eta ethorri zenean Mendekoste eguna, guziak ziraden gogo batez leku batetan berean.

2 Eta egin zedin subitoki zerutik soinu bat botheretsuki heldu den haize baten anzora, eta bethe zezan etxe guzia non baitzeuden iarririk:

3 Eta ager zekizkien suaren anzoko mihi partituak, eta pausa zedin hetarik batbederaren gainean.

4 Eta bethe zitezen guziak Espiritu sainduaz, eta has zitezen minzaten lengoaje arrotzez, Espirituak minzatzera emaiten zerauen bezala.

5 Eta bazen Ierusalemeko egoiten ziraden ludu lainkoaren beldurra zuten gizonetarik, zeruaren azpiko natione orotarik.

6 Bada hots haur egin zenean, bil zedin jendalde bat, eta trublak zedin, zeren batbederak enzuten baitzituen bere lengoaje propioz hek minzaten.

7 Eta espantatuak zeuden guziak, eta mires-
ten zuten elkarri ziotsatela, Huna, minzo diraden
hauk guziok, eztirade Galileano?

8 Nolatan bada guk danzuzkigu batbedera
iaio izan garen lengoaje propioz *minzatzen*?
Parthianoek eta Medianoek eta Elamitek, eta
Mesopotamian egoiten diradenek, eta Iudean,
eta Kapadozian, Ponten, eta Asian,

10 Frijian eta Panfilian, Egipten, eta Libia baz-
terretan, baita Zireneko aurkan, eta Roman dau-
denek, eta Iuduek eta Proselitoek, Kretianoek
eta Arabianoek:

11 Enzuten ditugu hauk gure lengoajez
minzo diradela lainkoaren gauza magnifikoez.

12 Eta espantatuak zeuden guziak, eta etza-
kiten zer pensa, elkarri ziotsatela, Zer erran nahi
da haur?

13 Eta berzek trufatzen ziradela, zioiten,
Mahatsarno eztiz betheak dirade *hauk*.

14 Baina zutik zegoela Pierrisek hamekekin,
altxa zezan bere boza, eta minza zekien, zioela,
Gizon Iuduak eta Ierusalemen habitatzen zaren-
ten guziak, haur iakizue, eta beharriez har itza-
zue ene hitzak.

15 Ezen eztirade, zuek uste duzuen bezala hauk hordi, ikusirik ezen egunaren heren orena dela

16 Baina haur da loel profetaz erran izan dena.

17 Eta izanen da, azken egunetan (dio lainkoak) erautsiren baitut neure Espiritutik haragi guziren gainera: eta profetizaturen dute zuen semek eta zuen alabek, eta zuen gaztek bisio-neak ikusiren dituzte, eta zuen zaharrek amets-sez amets egingen dute.

18 Eta segur neure muthilen eta neure nes-katoen gainera egun hetan erautsiren dut neure Espiritutik, eta profetizaturen dute.

19 Eta egingen ditut gauza mirakuluzkoak zeruan garaian, eta signoak lurrian beherean, odol eta su eta kezko bapore.

20 Iguzkia kanbiaturen date ilhunbetara, eta ilhargia odoletara, launaren egun handia eta notablea dathorren baino lehen.

21 Eta izanen da nork ere inbokaturen baitu launaren izena, salbaturen baita *haina*.

22 Israeltar gizonak, enzun itzazue hitz hauk: Iesus Nazarenaoa, gizon lainkoaz aprobatua zuek

baithan obra exzellentez eta mirakuluz eta sig-
noz, zein egin baititu lainkoak harzaz zuen
artean, zeurok ere dakizuen bezala:

23 Haur, lainkoaren konfeillu arrastatuz eta
probidentiaz emana hartu zindutenean, gaixtoen
eskuz kruzifikaturik hil ukan duzue.

24 Zein lainkoak resuszitate baitu, herioaren
doloreak laxaturik, zeren ezpaitzen posible hura
harzaz, eduki ledin.

25 Ezen Dabid-ek erraiten du harzaz, Konten-
platzen nuen launa neure aitzinean bethiere:
ezen neure eskuineko aldean daut higi eznadin

26 Halakotz alegeratu da ene bihotza, eta
boztu da ene mihia, eta are gehiago ene haragia
pausaturen da esperanzatan.

27 Ezen eztuk utziren ene arima sepulkrean,
eta eztuk peremituren hire Sainduak korruptio-
nerik sendi dezan.

28 Ezagut erazi drauzkidak bizitzearen
bideak, betheren nauk bozkarioz eure begitharte
aitzinean.

29 Gizon anaieak, frangoki erran ahal deza-
kezuet Dabid patriarkaz, ezen hura hil izan dela

eta ohortze izan dela, eta haren sepulkrea gure artean dela egungo egunerano.

30 Bada Profeta nola baitzen, eta baitzakian ezen iuramenduz iuratu zeraukala lainkoak ezen haren gerrunzeko fruktutik, haragiaren araeuz, Krist suszitateuren zuela, haren throno gainean iar eraziteko.

31 Aitzinetik ikusirik minzatu izan da Kristen resurrektioneaz, ezen eztela utzi izan haren arima sepulkrean, eta haren haragiak eztuela ikusi korrupcionerik.

32 Iesus haur resuszitatu ukan du lainkoak, eta gauza hunez gu guziok gara testimonio.

33 Bada lainkoaren eskuinaz altxatu izan denean eta Espiritu sainduaren promesa Aitaganik rezebitu duenean, erautsi ukan du zuek orain dakusazuen eta danzuzuen haur.

34 Ezen Dabid ezta igan zeruetara: baina dio berak, Erran drauka launak ene launari, lar adi ene eskuinean,

35 Ezar ditzazuedano hire etsaiak hire oinen eskabella.

36 Segur iakin beza bada Israeleko etxe guziak, ezen hura laun eta Krist egin duela lainkoak: Iesus zuek kruzifikatu duzuen haur *diot*.

37 Eta gauza hauk enzunik bihotz-ximiko harrezaten, eta erran ziezoten Pierrisi eta berze Apostoluei, Zer egingen dugu gizon anaieak?

38 Eta Pierrisek dioste, Emenda zaitetze eta batheia bedi zuetarik batbedera Iesus Kristen izenean bekatuen barkamendutan: eta rezebituren duzue Espiritu sainduaren dohaina.

39 Ezen zuei *egin zaizue* promesa eta zuen haurrei, eta urrun diraden guziei, zenbat ere deithuren baititu gure lainko launak.

40 Eta anhitz berze hitzez testifikatzen zuen, eta exhortatzen zituen, zioela, Salba zaitetze natione gaixto hunetarik.

41 Bada gogotik haren hitza rezebitu zutenak, batheia zitezen, eta augmenta zitezen egun hartan hirur milla arimaren inguruaz.

42 Eta perseberatzen zuten Apostoluen doktrinan, eta komunikationean, eta ogiaren haustean, eta orationetan.

43 Eta arima guziari beldurtasun lot zekion, eta anhitz gauza mirakuluzko eta signo Apostoluez egiten zen.

44 Eta sinhesten zuten guziak ere elkarrekin ziraden, eta gauza guziak komun zituzten.

45 Posesioneak eta onhasunak saltzen zituzten, eta partitzen zerezten guziei batbederak beharra zuenaren araura.

46 Eta egun oroz perseberatzen zuten gogo batez tenplean, eta hausten zutela ogia etxez etxe, hartzen zuten *bere* othoranza alegrantzarekin eta bihotzezko sinplizitatekin:

47 Laudatzen zutela lainkoa, eta gratia zutela populu guzia baithan. Eta launak eratxekiten zeraukan jende salbatu izatekorik egun oroz Elizari.

KAP. III.

2 Maingua sendatu. 7 Pierrisen predikationea. 16 Fedea. 17 Iuduek ignorantiaz faltatu. 19 Penitentia. 22

Moisesek profetizatu Kristez. 26
Lehenik Iuduendako Krist igorri.

1 Bada Pierris eta Ioanes elkarrekin igaiten ziraden tenplera othoitz ordutan, *baitzen* bedratzi orenetan.

2 Eta gizon bere amaren sabeleandanik maingu zenbat ekarten zen: zein ezarten baitzuten egun oroz tenpleko bortha Ederra deitzen denean, elemosina eska lekienzat tenplean sartzen ziradenei.

3 Hark ikus zitzanean Pierris eta Ioanes tenplean sartzera zioazela, othoitz egin ziezen elemosina bat luenzat.

4 Baina harenganat begiak zorrotzurik Pierrisek Ioaneseekin erran zezan, Behezak gureganat.

5 Eta hura begira zaien zorrozki, hetarik zer bait rezebitu ustez.

6 Orduan Pierrisek erran zezan, Zilharrik ez urherik eztiat: baina zer baitut hura emaiten drauat: Iesus Krift Nazarenoren izenean iaiki adi eta ebil adi.

7 Eta hura esku eskuinetik harturik, goiti zezan, eta bertan erskont zitezen haren oin zolak eta aztalak.

8 Eta iauzirik geldi zedin zutik, eta bazabilan: eta sar zedin hekin tenplean, ebilten eta iauzten zela eta laudatzen zuela lainkoa.

9 Eta ikus zezan hura populu guziak zabilala, eta laudatzen zuela lainkoa.

10 Eta ezagut zezaten, hura ezen hura zela elemosina eskez tenpleko bortha Ederrean iarten zena: eta bethe zitezen iziapenez eta espan-tamenduz hari heldu izan zaion gauzaren gainean.

11 Eta maingu sendatu izanak Pierris eta loanes zadutzala, laster egin zezan hetara populu guziak Salomonen deitzen den galeriara, espan-taturik.

12 Hori ikusirik Pierrisek ihardets ziezon populuari, Israeltar gizonak, zergatik mirakuluz zaudete hunezaz? edo zergatik guregana begiak zorrozturik zaudete, gure berthutez edo saindu-tasunez haur ebil erazi bagindu bezala?

13 Abrahamen eta Isaak-en eta Iakob-en lainkoak, gure aiten lainkoak glorifikatu du Iesus

bere Semea, zuek liuratu eta ukatu duzuen Pila-
ten aitzinean, hark largatzeko zela iujeatu
bazuen ere.

14 Baina zuek saildua eta iustoa ukatu
duzue, eta rekeritu duzue gizerhaile bat eman
lekizuen:

15 Eta bizitzearen prinzea hil ukan duzue,
zein lainkoak hiletarik resusztatutako baitu: eta
gauza hunez testimonio gara gu.

16 Eta haren izena baithango fedeaz, ikusten
eta ezagutzen duzuen haur, fortifikatu ukan du
haren izenak: eta harzaz *den* fedeak bere men-
bro guzietako dispositione haur huni eman drau-
ka zuen guzian presentian.

17 Eta orain, anaieak, badakit ezen ignoran-
tiaz egin ukan duzuela, zuen Gobernadorek ere
bezala.

18 Baina lainkoak aitzinetik bere Profeta
guzien ahoz erran zituen gauzak, Kristek sufritu-
ren zuela, hala konplitu ukan ditu.

19 Emenda zaitezte bada, eta konberti zai-
tezte, ken ditezenzat zuen bekatuak.

20 Refrijeramendutako denborak ethorri dira-
tenean launaren presentiatik, eta igorri duke-

nean zuei aitzinetik erran izan zaizuen, Iesus Krist:

21 Zein zeruak eduki behar baitu, lainkoak, munduaren hatseandanik Profeta saildu guzien ahoz erran dituen gauza guzien restorationeko denboretarano.

22 Ezen Moisesek aitei erran ukan draue, Profeta bat suszituren drauzue zuen lainko launak zuen analetarik ni bezalakorik: enzunen duzue hura minzaturen zaitezuen gauza guzietan.

23 Eta izanean da, nor ere Profeta hari behatzen ezpaitzaio, deseginen baita popularen artetik.

24 Etare Samuelez gerozko Profeta guziek, eta geroz profetizatu duten guziek aitzinetik erran ere badituzte egun hauk.

25 Zuek zarete Profeten, eta lainkoak gure aitei ordenatu drauen alianzaren seme, ziotsala Abrahami, Eta hire hazian benedikatuak izanen dituk lurreko familia guziak.

26 Zuei lehenik lainkoak susziturik Iesus bere Semea igorri ukan drauzue, hark benedikatzat, zuetarik batbedera zuen gaixtakerietarik konbertituz.

KAP. IIII.

3 Pierris eta Ioanes presoindegian ezari. 10 Krist dela Salbadorea konfesatzen eta mantenitzen dute.

11 Harri arbuiatua zein. 17 Defendatzen zaie predikatzea. 24 Apostoluen othoitzia. 32 Nola bere artean fidelek gauzak komun zituzten. 36 Ioses izen goitikoz deithu Barnabas.

1 Baina hek populuari minzo zaizkala, ethor zekizten Sakrifikadoreak eta tenpleko Kapitaina, eta Saduzeuak,

2 Gaitziturik zeren irakasten baitzuten populuak, eta predikatzen baitzuten Iesusen izenean hiletariko resurrektionea.

3 Eta eskuak egotz zitzaten haien gainera, eta ezar zitzaten presoindegian biharamunerano. Ezen ia arratsa zen.

4 Eta hitza enzun zutenarik anhitzek sinhets zezaten: eta gizonen kontua egin zedin borz millatarano.

5 Eta gertha zedin biharamunean bil baitzitezzen haien Gobernadoreak eta Anzianoak eta Eskribak Ierusalemera:

6 Eta Anas Sakrifikadore subiranoa, eta Kai-fas eta Ioanes, eta Alexander, eta Sakrifikadoren arrazatik ziraden guziak.

7 Eta artean ezarri zituztenean, interroga zitzaten, Zer botherez edo noren izenean gauza haur egin duzue zuek?

8 Orduan Pierrisek Espiritu sainduaz hetherik, erran ziezen, Populuaren Gobernadoreak eta Israeleko Anzianoak,

9 Egungo egunean gizon inpotent bati egin izan zaion ungiuz examinatzen garenaz geroz, zer moienez haur sendatu izan den:

10 Iakizue zuek guziok eta Israeleko populu guziak, ezen Iesus Krist Nazarenoren izenean zein zuek kruzifikatu baituzue, zein Iainkoak resusztatatu baitu hiletarik, harzaz *gizon* haur dagoela sendorik zuen aitzinean.

11 Haur da harri zuegaz edifikazaleoz arbuia-
tu izan den hura, zein egin izan baita kantoin-
buru.

12 Eta ezta berzetan batetan ere salbamen-
durik: ezen berze izenik ezta zeruaren azpian
gizonei eman zaienik, zeinez salbatu behar
garen.

13 Orduan ikusirik Pierrisen minzatzeko har-
dieza eta loanesena, eta ezaguturik ezen gizon
letra-gabeak eta idiotak ziradela, miresten
zuten, eta ezagutzen zuten hek lesusekin izanak
ziradela.

14 Eta zakusatenean sendatu izan zen gizona
hekin present zela, ezin deusetan kontrasta ahal
zitakeen.

15 Orduan hek konseillutik kanpora ilkitera
manaturik: konpartitzen zuten elkarren artean,

16 Zioitela, Zer egingen drauegu gizon hoei?
ezen signo klaro bat hauzaz egin izan dela, mani-
fest da Ierusalemeko habitant guziei, eta ezin
uka dezakegu.

17 Baina gehiagorik publiko ezta din populua-
ren artean, defenda diezegun mehatxuz, ezta-

kizkion gehiagorik minza izen horretan neho-
ere.

18 Bada hek deithurik mana zitzaten nehole-
tan ere ezlitezzen minza, eta ezlezaten irakats
lesusen izenean.

19 Baina Pierrisek eta Ioanesez ihardesten
zutela erran ziezen, Eia lainkoaren aitzinean
gauza iustoa denez lehen zuei obeditzea ezen ez
lainkoari, iujea ezazue.

20 Ezen segur, ezin daidikegu enzun eta ikusi
ditugun gauzak erran eztitzagun.

21 Orduan hek mehatxurekin utzi zitzaten
ioaitera, ez eridenez nolatan puni ahal litzakeiz-
ten, populuaren kausaz, zeren guziek lainkoa
glorifikatzen baitzuten egin izan zenaz.

22 Ezen berrogei urthe baino gehiago zituen
gizonak, zeinen gainean sendatzeko signo haur
egin izan baitzen.

23 Eta ioaitera utzi zituztenean ethor zitezen
bere jendetara, eta konta ziezen zer ere Sakrifi-
kadore prinzipalek eta Anzianoek erran baitze-
rauezen.

24 Eta hek enzun zituztenean gogo batez
altxa zezaten boza lainkoagana, eta erran zeza-

ten, launa, hi aiz zerua eta lurra, itsasoa eta hetan diraden gauza guziak egin dituan lainkoa,

25 Dabid eure zerbitzariaren ahoz erran duana, Zergatik mutinatu izan dirade jendeak, eta populuek pensatu ukan dituzte gauza banoak?

26 Bildu izan dirade lurreko regeak, eta prinzeak elkarrekin bathu izan dirade launaren eta haren Kristen kontra.

27 Ezen bildu izan dituk egiaz hire seme saindu Iesusen kontra, zein unktatu baituk, Herodes eta Ponze Pilate Jentilekin eta Israeleko populuekin.

28 Egin lezatenzat zer ere hire eskuak eta hire konseilluak lehenetik egitera determinatu baitzuen.

29 Orain bada launa, beha ezak haien mehatxuetara, eta eman iezek eure zerbitzariei libertate guzirekin hire hitzaz minza ditezen:

30 Eure eskua hedaturik osasun emaitera, signoak eta mirakuluak egin ditezen Iesus hire Seme Sainduaren izenean.

31 Eta othoitz egin zutenean, ikara zedin lekua zeinetan bilduak baitziraden: eta bethe

zitezen guziak Espiritu sainduaz, eta minzaten ziraden lainkoaren hitzaz hardiezarekin.

32 Eta aralde sinhetsi ukan zutenen bihotza eta arima zen bat: eta nehork poseditzen zituen gauzatarik etzuen erraiten deus bererik zuela, baina gauza guziak zituzten komun.

33 Apostoluek ere berthute handitan testifikatzen zuten Iesus launaren resurrektioneaz, eta gratia handia zen baien guzien ganean.

34 Ezen nehork deusen beharrik etzuen haien artean: zeren landarik edo etxerik zuten guziek saltzen baitzituzten, eta saldu izan ziraden gauzen prezioa ekarten baitzuten

35 Eta ezarten Apostoluen oinetara: eta partitzen zaion batbederari, beharra zuenaren araura.

36 Iosesek bada, zein izen goitikoak dei baitzedin Apostoluez Barnabas (erran nahi baita kon-solationezko semea) Lebitak, nationez Ziprianoak,

37 Posesione bat nola baitzuen sal zezan hura, eta ekarririk dirua ezar zezan Apostoluen oinetara.

KAP. V.

1, 7 Ananias eta Sapphira haren emaztea subitoki hiltzen. 12 Anhitz mirakulu. 15 Pierrisen itzala. 17 Apostoluak presoinean ezarri. 19 Hek Aingeruak idokirik tenplean irakasten ari, 25 gero konseillura dirade eramaiten: 29 eta han Krist aithortzen dute. 34 Gamalielen konseillua. 36 Theudas. 37 Iudas Galileanoa. 40 Apostoluak alegera Iesusen izenean azotatu izanaz.

1 Baina Ananias deitzen zen gizon batek, Sapphira bere emaztearekin sal zezan posesione bat:

2 Eta aparta zezan prezioetik *parte bat*, haren emazteak ere zakialarik: eta zenbeit parte ekarrik, Apostoluen oinetara ezar zezan.

3 Eta erran zezan Pierrisek, Ananias, zergatik bethe du Satanek hire bihotza Espiritu sainduari

gezur erraitera, eta landaren preziozik apartatze-
ra?

4 Baldin begiratu bahau etzena hire geldit-
zen? eta saldurik hire botherean etzena? zer
zen zergatik gauza hori gogoan ezarri behar
auen? eztrauek gizonei gezur erran, baina lain-
koari.

5 Eta Ananias hitz hauk enzunik, eror zedin,
eta renda zezan espiritua: eta beldurtasun han-
dia iar zedin gauza hauk enzuten zituzten guzien
gainean.

6 Eta iaikirik lagun gazte batzuk har zezaten
hura, eta kanporat eramanik ohortz zezaten.

7 Eta gertha zedin kuasi hirur orenen buruan,
haren emaztea ere, zer egin zen etzakialarik, sar
baitzedin:

8 Eta erran ziezon Pierrisek, Erran iezadan
hanbatetan landa saldu duzue? Eta hark erran
zezan, Bai, hanbatetan.

9 Orduan Pierrisek diotsa, Zer *da* iunktatu
izan baitzarete zuen artean launaren espiritua-
ren tentatzera? horra, hire senharra ohortze
dutenen oinak borthan, eta eramanen aute hi.

10 Eta bertan eror zedin haren oinetara eta renda zezan espiritua. Eta sarthurik lagun gaztek eriden zezaten hura hila, eta kanporat eramanik ohortz zezaten bere senharraren aldean.

11 Eta beldurtasun handia egin zedin Eliza guziaren gainean, eta gauza hauk enzuten zituzten guzien gainean.

12 Eta Apostoluen eskuz egiten zen anhitz signo eta mirakulu populuak: (eta ziraden guziak gogo batetako Salomonen galerian.

13 Eta berzetarik batre etzen benturatzen hekin nahastekatzera: baina magnifikatzen zituen hek populuak.

14 Eta emendatzenago zen launean sinhesten zutenean konpainia, hanbat gizonez nola emaztez)

15 Hanbat non karriketara ekarten baitzituzten. eriak, eta ohetan ezarten eta likteretan, Pierris ethor ledinean haren itzala berere hetarik zenbeiten gainetik iragan ledinzat.

16 Eta biltzen zen hiri hurbiletako komuna ere Ierusalemara, ekarten zituztela eriak eta espiritu satsuez tormentatuak: eta guziak sendatzen ziraden.

17 Orduan iaikirik Sakrifikadore subiranoa, eta harekin ziraden guziak (zein baita Sadu-zeuen sekta) inbidiaz bethe zitezzen.

18 Eta egotz zitzaten eskuak Apostoluen gainera, eta ezar zitzaten presoindegi publikoan.

19 Baina launaren Aingeruak gauaz ireki zitzan presoindegiko borthak: eta hek kanpora idokirik, erran zezan,

20 Zoazte, eta tenplean zaudetela deklaira ietozue populuari bizitze hunetako hitz guziak.

21 Eta hek *haur* enzunik far zitezzen arthasean tenplean, eta irakasten ari ziraden. Eta ethorririk Sakrifikadore subiranoak, eta harekin *ziradenek* bil zezaten konseillua eta Israeleko haurren Anziano guziak: eta igor zezaten presoindegira erekar litezenzat.

22 Baina ethorririk ofizierek etzitzaten eriden presoindegian, eta itzulirik konta zezaten,

23 Zioitela, Presoindegia behinzat eriden dugu ertsia dilijentia guzirekin, eta goardak kanpotik borthen aitzinean zeudela: baina ireki dugunean, nehor eztugu barnean eriden.

24 Hitz hauk enzun eta, Sakrifikadore *subiranoa* eta tenpleko Kapitaina, eta Sakrifikadore prinzipalak, dudan zeuden hezaz zer izanen zen.

25 Baina ethoririk zenbeitek erran ziezen, Hara, presoindegian ezarri zintuzten jizonak tenplean dirade, eta irakasten dute populua.

26 Orduan tenpleko Kapitainak ioanik ofizierekin ekar zitzan bortxa gabe: (ezen populuaren beldur ziraden lapida ezlitezten)

27 Eta ekarririk hek presenta zitzaten konseiluan: eta interroga zitzan Sakrifikadore *subiranoak*,

28 Zioela, Eztrauzuegu manamendu expresez defendatu etzinezaten irakats izen horretan? eta huna, bethe duzue Ierusaleme zuen doktrinaz, eta nahi duzue gure gainera erekarri gizon horren odola.

29 Orduan ihardesten zuela Pierrisek eta *berze* Apostoluek erran zezaten, Lehen obeditu behar da Iainkoa ezen ez gizonak.

30 Gure Aiten Iainkoak resuszitatatu ukan du Iesus, zein zuek zurean urkaturik hil ukan baituzue.

31 Haur lainkoak prinze eta salbadore goratu ukan du bere eskuinaz, eman liezonzat emendamendua Israeli eta bekatuen barkamendua.

32 Eta guk ekarten draukagu testimoniaje erraiten ditugun gauza hauzaz: bai eta Espiritu sainduak, zein eman baitraue lainkoak hura obeditzen dutenei.

33 Eta hek *haur* enzunik despitez leher egiteko zeuden, eta konsultatzen zuten haien hiltzera.

34 Orduan iaikirik konseilluan Fariseu Gamaliel deitzen zen Legeko doktor batek, zein populu guziak ohoratzen baitzuen, mana zezan lekorerat apur bat retina litezen Apostoluak:

35 Gero erran ziezen, Israeltar gizonak, gogozue zeurotara, gizon hauzaz zer eginen duzuen.

36 Ezen denbora hauk baino lehen altxa zedin Theudas, zioela tiere buruaz zerbait zela, zeini lagund baitzekion gizon aralde bat, laur ehunetarano: zein hil baitzezaten, eta hari behatu, izan zaizkan guziak hautsi izan dirade eta ezdeus bilhatu.

37 Haren ondoan altxa zedin ludas Galileanoa deskriptioneko denboretan, eta erauz zezan populu handi bere ondoan: gal zedin hura ere, eta hari behatu izan zaizkan guziak desegin zitezzen.

38 Eta orain diotsuet, parti zakiztez gizon horiei, eta utzitzazue: ezen baldin gizonetarik bada konseillu edo obra hori, deseginen da:

39 Baina baldin lainkoaganik bada, eztezakezue desegin, *begirauzue* etzaitetzen lainkoagana kontrariant eriden. Eta haren opinioneko izan ziraden.

40 Orduan deithurik Apostoluak, azotatu ondoan mana zitzaten ezlitezen minza Iesusen izenean, eta utzi zitzaten ioaitera.

41 Hek bada ioan zitezen alegerarik konseilluaren aitzinetik, zeren Iesusen izenean iniuria sufritzeko ohore hura egin izan baitzaien.

42 Eta egun guziaz tenplean eta etxean etziziraden gelditzen irakastetik eta Iesus Kristen predikatzetik.

KAP. VI.

*3 Diakreak ordenatzen. 4 Orationea.
5, 8 Esteben fedez bethea. 6
Othoitzza eta eskuen inpositionea. 7
Hitzaren abanzamendua. 9
Disputatzen Estebenen kontra. 10
Haren sapientia. 11 Testimonio
falsuak haren kontra. 15 Haren
begithartea Aingeru batena
bezalako.*

1 Eta egun hetan nola diszipuluak multiplikatzen baitziraden, egin zedin Grekoen murmura-tze bat Hebraikoen kontra zeren menospreziatzen baitziraden zerbitzu ordinarioan haien *emazte* alhargunak.

2 Halakotz hamabiek diszipuluzko konpainia deithurik, erran zezaten, Ezta razoin guk lainkoaren hitza utzirik mahainak zerbitza ditzagun.

3 Hautaitzazue beraz, anaieak, zuetarik zazpi gizon testimoniaje onetakorik, Espiritu sainduaz

eta sapientiaz betheak, eta kargu haur emanen baitrauegu.

4 Eta guzaz den bezenbatean orationeari eta hitzaren administrationeari iarreikiren gniaizkio.

5 Eta propos haur konpainia guziaren gogarako izan zen: eta eleji zitzaten Esteben, gizon fedez eta Espiritu sainduaz bethea, eta Filipe, eta Prokoro, eta Nikanor, eta Timon, eta Parmenas, eta Nikolas proselito Antiokeanoa:

6 Hauk presenta zitzaten Apostoluen aitzinera, eta hek othoitze eginik eskuak gainean pausa zietzen.

7 Eta lainkoaren hitza aitzinaratzen zen, eta hagitz multiplikatzen zen diszipunuen kontua Ierusalemen: Sakrifikadoretarik ere tropel handiak fedea obeditzen zuen.

8 Eta Estebenek betherik fedez eta botherez, egiten zuen mirakulu eta signo handirik populan.

9 Eta altxa zitezen batzu, Libertinen, eta Zireneanoen eta Alexandrianoen, eta Ziliziako eta Asiako diradenen deitzen den sinagogatik, disputatzen ziradela Estebenekin.

10 Eta ezin resisti zezakeoten sapientiari eta hura minza eraziten zuen Espirituari.

11 Orduan suborna zitzaten gizon batzu erraiten zutenik, Enzun dugu hori erraiten hitz blasfemiotakorik Moisesen eta lainkoaren kontra.

12 Eta mobi zitzaten populua eta Anzianoak eta Eskribak: eta oldarturik harrapa zezaten hura, eta eraman zezaten konseillura.

13 Eta presenta zitzaten testimonio falsuak erraiten zutenik, Gizon haur ezta ixiltzen blasfemiotako hitz erraitetik leku saindu hunen, eta Legearen kontra.

14 Ezen enzun ukan dugu haur erraiten, ezen Iesus Nazareno horrek deseginen duela leku haur, eta muthaturen dituela Moisesek eman drauzkigun ordenanzak.

15 Eta begiak harenganat egotzirik, konseilluan iarririk zeuden guziek ikus zezaten haren begithartea kuasi Aingeru baten begithartea *bezalako*.

KAP. VII.

*2 Estebenen harenga. 8
Zirkonzisionea. 9 Iosef. 20 Moises.
40 Iuduak idolatre. 43 Molok.
Renfam. 45 Dabid. 51 Estebenek
Iuduak reprehenditzen. 55
Iainkoaren gloria ikusten: 59
Lapidatzen dela bere espiritua
Iaunari gomendatzen. 60 Etsaiagatik
othoitz egiten.*

1 Orduan erran zezan Sakrifikadore subiranoak, Gauza horiak horrela othe dirade?

2 Eta hark erran zezan, Gizon anaieak eta aitak, enzuzue, Gloriazko Iainkoa ager zekion gure aita Abrahami Mesopotamian zenean , Karranen habita zedin baino lehen:

3 Eta erran ziezon, Ilki adi eure herritik, eta eure ahaidetarik, eta athor *nik* erakutsiren drauadan lurrera.

4 Orduan ilkirik Kaldeoen herritik habita zedin Karranen. Eta handik, haren aita hil

zenean *lainkoak* eraman zezan hura zuek habitazten zareten lur hunetara.

5 Eta etziezon heretajerik eman hartan, ez are oinaren bethea ere: posesionetan hura emanen zeraukala prometatu bazeraukan ere, eta haren haziari haren ondoan, haurrik ezpazuen ere.

6 Baina hunela erran zezan *lainkoak*, Habitaturen duk hire hazia berzeren lurrean: eta han hura suiektionetako eginen die, eta gaizki traktaturen laur ehun urthez.

7 Baina *hek* zerbitzatu dukeiten jendea punituren diat nik, dio *lainkoak*: eta gero ilkiren dituk, eta zerbitzaturen nie leku hunetan.

8 Eta eman ziezon Zirkonzisione-zko alianza: eta hunela *Abrahamek* enjendra zezan Isaak, eta zirkonzidi zezan hura zortzigarreneko egunean: eta Isaak-ek *enjendra* zezan lakob, eta lakob-ek hamabi Patriarkak.

9 Eta Patriarkek inbidiaz mobiturik, sal zezaten Iosef Egipterat *eraman ledinzat*: baina *lainkoak* zen harekin:

10 Eta idoki zezan hura bere tribulatione guzietarik, eta eman ziezon gratia eta sapientia

Egipteko rege Faraoren aitzinean, zeinek ordena baitzezan hura Egipteko eta bere etxe guziko gobernadore.

11 Eta ethor zedin gosete bat Egipteko herri guzira, eta Kanaan-era, eta herstura handia: eta etzuten erideiten iatekorik gure Aitek.

12 Baina enzun zezanean lakob-ek bazela ogi Egipten, igor zitzan gure Aitak lehenik.

13 Eta bigarren aldian ezagut zedin Iosef bere anaiez, eta deklaratu zekion Faraori Iosefen leinua.

14 Orduan *mandatariak* igorririk Iosefek erekar zezan bere aita lakob, eta bere ahakoa guzia, baitziraden hirurogei eta hamaborz persona.

15 Iauts zedin bada lakob Egiptera, eta hil zedin hura, eta gure Aitak.

16 Eta eraman izan ziraden Sikemera, eta ezarri izan ziraden sepulkrean, zein erosi baitzuen Abrahamek diruren preziotan Emor Sike-meko *semearen* semetarik.

17 Baina lainkoak Abrahami iuratu zeraukan promesaren denbora hurbiltzen zela, augmentatu zedin populua eta multiplika Egipten:

18 Berze rege bat Iosef ezagutu etzuenik
altxa zedino.

19 Hare gure nationearen kontra fineziaz
usutzen zuela, gaizki trakta zitzan gure aitak,
bere haurren heriotara abandona eraziterano,
arraza falta ledinzat.

20 Denbora hartan sor zedin Moises, eta zen
lainkoaren gogarako: zein hirur hilebethez hazi
izan baitzen bere aitaren etxean.

21 Gero hura abandonatu izan zenean, era-
man zezan Faraoren alabak, eta haz zezan bere-
tako semetan.

22 Eta instruitu izan zen Moises Egiptekoen
sapientia guzian, eta zen botheretsu erranetan
eta eginetan.

23 Baina bethe zaionean berrogei urtheren
denbora, igan zekion bihotzera bere anaien
Israeleko semen, bisitatzera ioan ledin:

24 Eta ikusirik iniuria hartzen zuen bat,
defenda zezan eta mendeka bidegabe hartzen
zuen, Egiptianoa iorik.

25 Eta uste zuen aditzen zutela haren anaiek
ezen lainkoak haren eskuz delibranza eman
behar zerauela: baina hek etzezaten adi.

26 Eta biharamunean hek gudukatzen ziradela, eriden zedin haien artean, eta enseia zedin haien baketzen, zioela, Gizonak, anaie zarete zuek: zergatik batak berzeari gaizki egiten draukazue?

27 Baina hurkoari gaizki egiten zeraukanak bulka zezan hura, zioela, Nork ordenatu au gure gaineko prinze eta iuje?

28 Ala ni hik nahi nauk hil, atzo Egiptianoa hil auen bezala?

29 Orduan ihes egin zezan Moisesek hitz hunegatik, eta arrotz egin zedin Madiango lurrean, non enjendra baitzitzan bi seme.

30 Eta berrogei urthe konplitu zituenean ager zekion Sinako mendiko desertuan launaren Aingerua, berro batetako su-garrean.

31 Eta Moises *hori* ikusirik miraz iar zedin bisioneaz: eta konsideratzera hurbiltzen zela egin zedin harengana launaren boza,

32 *Zioela*, Ni *nauk* hire aiten lainkoa, Abrahamen lainkoa., eta Isaak-en lainkoa, eta Iakob-en lainkoa. Eta Moises ikara zabilala etzen konsideratzera benturatzen.

33 Orduan erran ziezon launak, Eraunkik eure oinetako zapatak: ezen hi aizen lekua lur saindua duk.

34 Ikusi diat, ikusi diat neure populu Egipten *denaren* afliktioea, eta haien suspirioa enzun diat, eta iautsi izan nauk haien idokitera, orain bada athor, igorriren aut Egiptera.

35 Moises arnegatu zuten haur, zioitela, Nork hi ordenatu au prinze eta iuje? haur *bada* lainkoak prinze eta liberazale igor zezan, Aingeru berroan agertu izan zaionaren eskuz.

36 Hunek kanpora idoki zitzan hek, mirakuluak eta signoak eginez Egipten, eta itsaso gorrian, eta desertuan, berrogei urthez.

37 Moises haur da erran zerauena Israeleko haurrei, Profeta bat suszituren drauzue zuen lainko launak zuen anaietarik ni bezalakorik: hari beha zakizkiote.

38 Haur da kongregationean desertuan izan zena, Aingeruarekin, zein minzaten baitzaion Sinako mendian, eta gure Aitekin *izana*, zeinek rezebitu baititu hitz biziak guri emaiteko.

39 Zeini ezpaitzaizka behatu nahi izan gure Aitak, baina refusatu ukan dute, eta itzuli izan dirade bere bihotzez Egipterat:

40 Ziotsatela Aaroni, Egin ietzaguk gure aitzinean dohazken lainkoak: ezen Moisesi, zeinek Egipteko lurretik kanpora eraman baikaitu, etzeakiagu zer heldu izan zaion.

41. Eta aretze bat egin zezaten egun hetan, eta ofrenda ziezoten sakrifizio idolari: eta delectatzen ziraden bere eskuezko obra eginetan.

42 Orduan *gibelaz* itzul zekien lainkoa, eta abandona zitzan zeruko jendarmeriaren zerbitzatzera: Profeten liburuan eskribatua den bezala, Israeleko etxea, ala ofrendatu drauzkidazue niri oblationeak eta sakrifizioak berrogei urthez desertuan?

43 Aitzitik hartu ukan duzue Molok-en tabernaklea, eta zuen lainko Renfamen izarra, eta figura hek adoratzeko egin dituzue: hunegatik irionen zaituztet Babilonez alde hartara.

44 Testimoniajeko tabernaklea gure aitekin izan da desertuan, nola ordenatu baitzuen Moisesi erran zeraukanak, hura egin lezan ikusi zuen formaren anzora.

45 *Tabernakle* hura ere gure Aitek rezebiturik eraman zezaten losuerekin Jentilen posesionera, zein iraitzi ukan baititu lainkoak gure Aiten aitzinetik Dabid-en egunetarano.

46 Zeinek eriden baitzezan gratia lainkoaren aitzinean, eta eska zedin eriden lezan tabernakle bat Iakob-en lainkoarendako.

47 Eta Salomonek edifika ziezon etxe bat.

48 Baina Subiranoa ezta eskuz egin tenpletan habitatzen nola Profetak erraiten baitu,

49 Zerua da ene thronoa, eta lurra ene oinen eskabella. Zer etxe edifikaturen drautazue niri? dio launak: edo zein da ene repausatzeko lekua?

50 Ala eztitu ene eskuak egin gauza horiak guziak?

51 Jende garhondo gogorak, eta bihotz eta beharri zirkonziditu gabeak, zuek bethi Espiritu sainduari kontrastatzen zaizkiote, zuen aitak bezala, zuek ere.

52 Profetetarik zein ez tute persekutatu zuen aitek? hil ere badituzte lustoaren adbenimendua aitzinetik erran dutenak, zeinen tradizale eta erhaile orain zuek izan baitzarete.

53 Zeinek rezebitu baituzue Legea Aingeruen ministerioz, eta ezpaituzue begiratu.

54 Eta gauza hauen enzutean, leher egiten zuten bere bihotzetan eta hortz garraskotsez zeuden haren kontra.

55 Baina nola baitzen Espiritu sainduaz bethea, zerurat begiak altxaturik ikus zezan lainkoaren gloria, eta Iesus lainkoaren eskuinean zegoela.

56 Eta dio, Huna, ikusten ditut zeruak irekiak. eta gizonaren Semea lainkoaren eskuinean dagoela.

57 Orduan hek oihu handiz iarririk bere beharriak boza zitzaten, eta gogo batez oldar zitezen haren kontra.

58 Eta hiritik kanpora iraitzirik lapidatzen zuten: eta testimonioek ezar zitzaten bere abillamenduak Saul deitzen zen gizon gazte baten oinetara.

59 Eta lapidatzen zuten Esteben, inbokatzen eta erraiten zuela, Iesus launa, rezebi ezak ene espiritua.

60 Eta belhauriko iarririk oihu egin zezan ozengi launa, ez tiezeala inputa bekatu haur, Eta haur erran zuenean lokar zedin.

KAP. VIII.

*1 Saulek Eliza persekutatzen. 5
Filipek Samaritanoei predizatzen. 9
Simon Majizianoa batheiatzen. 14
Pierris eta Ioanes Samariara igorten.
15 Othoitzza, Espiritu saindua. 16
Samaritanoak. 26 eta Eunukoa
batheiatu. 39 Filipe Espirituaz
harrapatu.*

1 Eta Saul konsent zen haren hiltzean. Eta egin zedin denbora hartan persekutione handi Ierusalemen zen Elizaren kontra: eta guziak barreia zitezzen Iudeako eta Samariako komarke-tarat, salbu Apostoluak.

2 Eta eraman zezaten Esteben *ohorztera* lain-koaren beldurra zuten gizon batzuk, eta nigar handi egin zezaten haren gainean.

3 Eta Saulek desegiten zuen Eliza, etxez etxe sartzen zela: eta tiratuz bortxaz gizonak eta emazteak presoindegian ezarten zituen.

4 Bada barreiatu izan ziradenak bazabiltzan hara huna, *lainkoaren* hitza denunziatzen zutela.

5 Eta Filipek iautsirik Samariako hiri batetara, predika ziezen Krist.

6 Eta populua gogo batez behatzen zaion Filippek erraiten zuenari, enzuten eta ikusten zituztela egiten zituen signoak.

7 Ezen espiritu satsuak, *hezaz* edukiten zira-denetarik anhitzetarik ilkiten ziraden, ozengi oihuz zeudela: eta anhitz paralitiko eta maingu senda zedin.

8 Eta alegranza handi egin zedin hiri hartan.

9 Eta Simon deitzen zen gizon bat zen, lehen-danik hirian enkantamenduz usatzen zuenik, eta Samariako populua enkantatu zuenik, zioela bere buruaz zenbeit personaje handi zela.

10 Zeini behatzen baitzaizkion xipienetik handieneranoko guziak, zioitela, Haur da lainkoaren berthute handi hura.

11 Eta hari beha zaizkan zeren denbora luzez enkantamenduz adimendutarik erauzi baitzitu.

12 Baina Filipe sinhetsi zutenean, zeinek denuntiatzen baitzituen lainkoaren resumari eta Iesus Kristen izenari apertenitzen zaizkan gauzak, batheiatzen ziraden bai gizonak bai emazteak.

13 Eta Simonek berak ere sinhetsi zezan, eta batheiatuz geroztik Filiperen aldetik etzen higitzeko: eta egiten ziraden signoak eta berthuteak ikusten zituenean, espantatzen zen.

14 Eta enzun zutenean Ierusalemenean ziraden Apostoluek, nola Samariak rezebitu zuen lainkoaren hitza, igor zituzaten hetara Pierris eta Ioanes.

15 Hauk *hara* iausti izan ziradenean othoitz egin zezaten hekatik, rezebi lezatenzat Espiritu saindua.

16 (Ezen oraino hetarik batetara ere etzen iausti izan, baina solament batheiatuak ziraden Iesus launaren izenean)

17 Gero pausa zituzaten eskuak haien gainean, eta rezebi zezaten Espiritu saindua.

18 Orduan ikusirik Simonek ezen Apostoluen eskuen pausatzez emaiten zela Espiritu saindua, diru presenta ziezen.

19 Erraiten zuela, Indazue niri ere bothere hori, nori ere eskuak gainean pausaturen baitrautzat, rezebi dezan Espiritu saindua.

20 Baina Pierrisek erran ziezon, Hire dirua hirekin gal dadila, zeren estimatu baituk lainkoaren dohaina dirutan konkestatzen dela.

21 Eztuk hik parterik ez heretajerik egiteko hunetan: ezen hire bihotza eztuk xuxen lainkoaren aitzinean.

22 Emendadi bada eure malitia horretarik, eta lainkoari othoitz egiok, eia, agian barka lekidianez eure bihotzeko pensamendua.

23 Ezen behazun guzizko karminean, eta inikitatzeko estekailluan aizela badiakusat.

24 Orduan ihardesten zuela Simonek erran zezan, Othoitz egiozue zuek enegatik launari, erran dituzuen gauzetarik batre gertha eztakidanzat,

25 Hek bada testifikaturik eta denuntiatu-rik launaren hitza, itzul zitezen Ierusalem-era, eta

anhitz Samaritanoen burgutan Ebanjelioa predika zezaten.

26 Gero launaren Aingerua minza zekion Filiperi, zioela, laiki adi, eta habil Egu-erdi alderat, Ierusalemetik Gazara iausten den bidera: hura duk desert:

27 Eta iaikirik ioan zedin, eta huna, gizon Ethiopiano Eunuko bat, Ethiopianoen regina Kandazeren azpian manamendu guzia zuenik, zein baitzen haren onhasun guziaren gaineko: eta ethorri izan zen adoratzera Ierusalemera:

28 Eta itzultzen zen iarririk zegoela bere karriot gainean, eta irakurtzen zuen Esaias profeta.

29 Orduan erran ziezon Espirituak Filiperi, Hurbil adi, eta hers akio karriot horri.

30 Eta Filipek laster eginik enzun zezan hura, irakurtzen zuela Esaias profeta: eta erran ziezon, Baina aditzen duk irakurtzen duana?

31 Eta hark dio, Eta nola ahal nezake, baldin norbeitek gida ezpaneza? Eta othoitz egin ziezon Filiperi iganik iar ledin harekin.

32 Eta Eskripturako pasaje irakurtzen zuena, haur zen, Ardi bat bezala heriotzera eraman izan

da: eta nola bildots bat motzen duenaren aitzinean mutu *baita*, hala eztu ireki ukan bere ahoa

33 Haren beheratzean haren iujemendua goratu izan da: baina haren irautea nork kontatzen du? ezen altxatzen da lurretik haren bizia.

34 Eta ihardesten zeraukala Eunukoak Filiperi, erran zezan, Othoitz egiten drauat, norzaz Profetak erraiten du haur? bere buruaz, ala zenbeit berzez?

35 Orduan irekirik Filipek bere ahoa eta hasirik Eskriptura hunetarik denuntia ziezon Iesus.

36 Eta bidean ioaiten ziradela, ethor zitezen ur batetara: orduan dio Eunukoak, Huna ura: zerk enpatxatzen nau batheiatu izatetik?

37 Eta erran zezan Filipek, Baldin sinhesten baduk *eure* bihotz guziaz, ahal aite. Eta ihardesten zuela *hark* erran zezan, Sinhesten diat lainkoaren Semea dela Iesus Krist.

38 Eta mana zezan karriota geldin ledin: eta iauts zitezen biak urera, Filipe eta Eunukoa: eta batheia zezan hura.

39 Eta igan ziradenean uretik, launaren Espirituak harrapa zezan Filipe, eta gehiagorik etze-

zan ikus hura Eunukoak: eta bere bidez ioaiten zen alegerarik.

40 Baina Filipe eriden zedin Azot-en: eta iragaitean predika zezan Ebanjelioa hiri guzietan Zesareara hel leiteno.

KAP. IX.

1 Saul Kristgana konbertitzen. 10 Ananias 11 Saulek othoitze egiten, 18 eta batheiatu, 20 Krist predikatzen. 23 Iuduek konseillu edukiten Saulen kontra. 27 Murraillan behera hura iausten. 26 Ierusalemra ethorten. 27 Apostoluetara eramaiten: 30 Gero Zesareara. 31 Elizak bakez. Iainkoaren beldurra. 32 Lideako sainduak. 33 Paralitikoa sendatu. 39 Thabita resusztatatu. 43 Pierris Iarru apainzale batenean egon.

1 Eta Saul enflanbaturik oraino mehatxuz eta hiltzekaz launaren diszipuluena kontra, ethor zedin Sakrifikadore subiranoagana.

2 Eta letra eska zekion Damaszera sinagoge-tara *ioaiteko*: baldin nehor erideiten balu sekta hunetakorik, gizonak eta emazteak estekaturik eramane litzanzat Ierusalem-era.

3 Eta ioaiten zela, gertha zedin hurbil baitze-din Damaszera: eta subitoki haren inguruan argi zedin xistmist baten anzora zerutik.

4 Eta lurrera eroririk enzun zezan boz bat zio-tsala, Saul, Saul zergatik ni persekutatzen nauk?

5 Eta erran zezan, Nor aiz launa? Eta launak erran zezan, Ni nauk Iesus hik persekutatzen duana: gogor duk hiretako akuloen kontra ostiko egitea.

6 Eta *hark* ikaraturik eta iziturik erran zezan, launa, zer nahi duk dagidan? Orduan launak hari, laiki adi eta sar adi hirian, eta erranen zaik zer egin behar duan.

7 Eta harekin ioaiten ziraden gizonak, geldi zitezene iziturik, *haren* boza bai enzuten, baina nehor ikusten etzutela.

8 Eta iaiki zedin Saul lurretik, eta bere begiak irekirik nehor etzuen ikusten: eta eskutik gidatzen zutela, eraman zezaten Damaszera.

9 Non egon baitzedin hirur egun ikusten etzuela: eta etzezan ian ez edan.

10 Eta zen Damaszen Ananias deitzen zen diszipulu bat, eta erran ziezon hari launak bisioenez, Ananias. Eta dio hark, Huna ni, launa.

11 Orduan launak hari *erran ziezon*, laikirik oha Zuzena deitzen den karrikara, eta bilha ezak ludaren etxean Saul deitzen den Tharsiano bat: ezen hara, othoitzetan diagok.

12 (Eta ikus zezan bisioenez Ananias deitzen zen gizon bat sartzen zela eta haren gainean eskua ezarten zuela, ikustea rezebi lezanzat)

13 Eta ihardets zezan Ananiasek, launa, enzun diat anhitzetarik gizon hunez, zenbat gaitz egin drauen hire sainduei Ierusalem.

14 Etare hemen badik autoritate Sakrifikadore prinzipaletarik, hire izena inbokatzen duten guzien estekatzeko.

15 Eta erran ziezon launak, Habil: ezen ene unzi elektioezko bat duk hura ekar dezanzat

ene izena Jentilen, eta regen, eta Israeleko haurren aitzinera.

16 Ezen nik erakutsiren diarokat zenbat behar duen ene izenagatik sufritu.

17 Ioan zedin bada Ananias eta sar zedin etxe hartan: eta eskuak haren gainean ezarririk, erran zezan, Saul anaie, launak igorri niauk (*zein baita* Jesus hiri ethorten ainzen bidean agertu zaiana) ikustea rezebi dezanzat, eta Espiritu sainduaz bethe adinzat.

18 Eta bertan eror zitezen haren begietarik kuasi ezkatak bezalakoak, eta ikustea rezebi zezan bertan : gero iaikirik batheia zedin.

19 Eta ian zuenean indar har zezan. Eta egon zedin Saul Damaszen ziraden diszipunuekin zenbeit egun.

20 Eta bertan sinagogetan predika zezan Krist ezen hura zela lainkoaren Semea.

21 Eta izitzen ziraden hura enzuten zuten guziak, eta erraiten zuten, Ezta haur desegin dituena Ierusalem en izen haur inbokatzen zutenak, eta hartara huna ethorri baita, hek estekaturik eraman litzanzat Sakrifikadore prinzipaletara?

22 Baina Saul geroago fortifikatzenago zen, eta konfunditzen zituen Damaszen habitatzen ziraden luduak, konfirmatuz ezen haur zela Krist.

23 Eta denbora luzeren buruan eduki zezaten luduek elkarren artean konseillu haren hiltzeko,

24 Baina Saulen ezagutzera ethor zitezen haien zelatak: eta begiratzen zituzten borthak egun eta gau, hura hil lezatenzat.

25 Baina harturik hura diszipunuek gauaz murrailatik erauts zezaten kordaz saskian ezarririk.

26 Eta Saul ethorri zenean Ierusalemera, diszipunuekin lagundu nahiz zabilan: baina guziak haren beldur ziraden, ez sinhetsiz hura diszipulu zela.

27 Baina Barnabasek harturik hura eraman zezan Apostoluetara, eta konta ziezen nola bidean ikusi zuen launa, eta hari minzatu izan zaion, eta nola Damaszen frangoki minzatu izan zen Iesusen izenean.

28 Eta zen hekin ioaiten eta ethorten zela Ierusalem.

29 Eta frangoki Iesus launaren izenean mintzatzen eta disputatzen zen Grekoen kontra: baina hek hura hil nahiz zabiltzan.

30 Hori ezaguturik anaiek eraman zezaten hura Zesareara, eta igor zezaten Tarsera.

31 Elizek bada Iudea guzian eta Galilean eta Samarian bake zuten, eta edifikatzen ziraden, lainkoaren beldurrean eabiliz, eta Espiritu sainduaren konsolationez multiplikatzen ziraden.

32 Gertha zedin, Pierris guzietarat iragaiten zela, ethor baitzedin Lidan habitatzen ziraden sainduetara ere.

33 Eta eriden zezan han Eneas deitzen zen gizon bat ia zortzi urthez ohean zetzanik, zein baitzen paralitiko:

34 Eta diotsa Pierrisek, Eneas, sendatzen au Iesus Kristek: iaiki adi, eta *eure ohea* akotra ezak eurorren. Eta bertan iaiki zedin.

35 Eta ikus zezaten hura Lidan eta Saronan habitatzen ziraden guziek, eta konberti zitezen launagana.

36 Iopen ere bazen diszipulusa Tabitha deitzen zenbat, erran nahi baita Dorkas: haur zen bethea obra onez eta elemosina egiten zituenez.

37 Eta gertha zedin egun hetan eriturik hil baitzedin: eta ikuzi zutenean, ezar zezaten ganbera gora batetan.

38 Eta zeren Lida baitzen loperen aldean, diszipunuek enzunik ezen Pierris han zela, igor zitzaaten bi gizon harengana, othoizten zutela ez lezan berant hetarano ethortera.

39 Eta iaikirik Pierris ethor zedin hekin: eta arribatu zenean, eraman zezaten ganbera gorara: eta presenta zekizkion *emazte* alhargun guziak nigarrez zeudela, eta erakusten zerautzaitela Dorkasek hekin zenean egiten zituen arropak, eta beztidurak.

40 Baina guziak kanpora idokirik Pierrisek eta belhauriko iarririk othoitz egin zezan, eta itzulirik gorputzerat, erran zezan, Tabitha iaiki adi, eta hark ireki zitzaan bere begiak, eta Pierris ikusirik iarri zedin.

41 Orduan *Pierrisek* eskua hari emanik. erai-ki zezan: gero deithurik sainduak eta *emazte* alhargunak presenta ziezen hura bizirik.

42 Eta haur ezagut zedin lope guzian eta sinhets zezaten anhitzek launa baithan.

43 Eta gertha zedin, egon baitzedin anhitz egun lopen Simon *deitzen zen* larru apainzale batenean.

KAP. X.

1 Kornelio Zentenerari Aingeruaz manatzen zaio Pierris erekar dezan. 10 Bisione Pierrisek ikusten. 23 gero Korneliogana ioanik. 34 Krist han predikatzen. 43 Barkamendua fedez. 44 Espiritu saindua Jentilen gainera iausten. 48 Eta hek dirade batheiatzen.

1 Eta gizon bat zen Zesarean, Kornelio deitzen zenik, Italiano deitzen zen bandako zentener,

2 Debota, eta lainkoaren beldurra zuena bere etxe guziarekin. eta elemosina anhitz egiten zeraukana populuari, eta lainkoari othoitz egiten zeraukana ordinarioki.

3 Hark ikus zezan bisioenez klaroki egunaren bedratzi orenen inguruan, lainkoaren Aingeru bat harengana ethorten zela, eta ziotsala. Kornelio

4 Eta hark begiak harenganat xuxendurik eta iziturik erran zezan, Zer da launa? Eta erran ziezon, Hire orationeak eta elemosinak igan dituk memoriotan lainkoaren aitzinera.

5 Orain bada igor itzak batzu lopera, eta erekar ezak Simon izen goitiko z Pierris deitzen dena.

6 Hura duk ostatur Simon larru apainzale bat baithan, zeinek baitu etxea itsas aldean: haik erranen drauk zer hik egin behar duan.

7 Eta partitu zenean Korneliori minzo zaion Aingerua, dei zitzan bere zerbitzarietarik biga, eta harekin ardura ziradenetarik hommedarmes debot bat.

8 Eta haei guzia kontatu zerauenean, igor zitzan lopera.

9 Biharamunean hek bidean zioazela, eta hirira hurbiltzen ziradela, igan zedin Pierris etxe gainera othoitz egitera sei orenen inguruan.

10 Eta gertha zedin, gosetu zenean, refektio-nea hartu nahi ukan baitzuen, eta apainzen zeraukatela eror zedin haren gainera espirituzko transportamendu bat.

11 Eta ikus zezan zerua irekia, eta iausten zaiola beregana unzi bat, mihise handi bat bezala, laur kantoinetan lothua, lurrera iausten zela.

12 Zeinetan baitzen lurreko *animal* laur oindun guzietarik, eta basa bestietarik eta herrestez dabilzanetarik, eta zeruko xorietarik.

13 Eta ethor zedin harengana boz bat, laiki adi Pierris, hil ezak eta ian ezak.

14 Orduan dio Pierrisek, Ez launa: ezen egundano eztiat ian gauza komunik edo satsurik.

15 Eta bozak berriz hari bigarren aldian *erran ziezon*, lainkoak purifikatu duena hik eztezala komunetan eduki.

16 Eta haur egin zedin hirur aldiz: gero harzara retira zedin unzia zerurat.

17 Eta Pierrisek bere baithan dudatzen zuen bezala zerik lizen ikusi zuen bisio-nea, huna, Kornelioz igorri izan ziraden gizonak, Simonen etxea galde eginik ethor zitezen borthara.

18 Eta *zenbeit* deithurik, galde egin zezaten eia Simon izen goitikozi Pierris deitzen zena han zenez ostatuz,

19 Eta Pierris gogeta zegoela bisioneaz, erran ziezon Espirituak, Huna, hirur gizon hire galdez diaudek.

20 Iaikirik bada iausti adi eta habil hekin deus dudatu gabe: ezen nik igorri zitiat.

21 Pierrisek bada iaustirik Kornelioz harengana igorri izan ziraden gizonetara, erran zezan, Huna, ni naiz *zuek* galdez zaudetena: zer da kausa zeinagatik hemen baitzarete?

22 Eta hek erran zezaten, Kornelio zentenera, gizon iustoa eta lainkoaren beldurra duena, eta luduen natione guziaz testimoniaje duena, dibinoki Aingeru saindu batez adbertitu izan duk erekar enzan hi bere etxera, eta minzatzen enzun enzan.

23 Barnera deithurik bada rezebi zitzan hek ostatuz eta biharamunean Pierris ioan zedin hekin, eta lopeko anaietarik batzuk konpainia egin ziezoten.

24 Eta biharamunean sar zitezen Zesarean. Eta Kornelio haien begira zegoen, bere ahideak eta adiskide familiarak deithurik.

25 Eta gertha zedin Pierris sartzen zen bezala, Kornelio aitzinera ilki baitzekion, eta bere burua haren oinetara egotzirik, adora zezan.

26 Baina Pierrisek goiti zezan hura, zioela, laiki adi neuror ere gizon nauk.

27 Eta harekin minzo zela sar zedin, eta eriden zezan anhitz *jende* hara bildurik:

28 Eta erran ziezen, Zuek badakizue ezteela permetitzen gizon ludu bat iunkta edo hurbil dakion estranjer bati: baina niri erakutsi draut lainkoak gizonik batre komun edo satsu ezteztan erran.

29 Eta halakotz duda gabe ethorri izan naiz deithurik. Galdez nauzue bada zer kausaz ni erekarri nauzuen.

30 Orduan Korneliok dio, Laur egun dik ordu hunetarano baininzen barur, eta bedratzi orentan niangoan, othoizte egiten neure etxean: eta huna, gizon bat presenta ziedian ene aitzinean, argitzen zuen beztiduratan:

31 Eta erran ziezan, Kornelio, enzun izan duk hire orationea, eta hire elemosinak memoriotan dituk lainkoaren aitzinean.

32 Igorrak bada lopera, eta dei erazi ezak Simon izen goitiko Pierris deitzen dena: hura duk ostatz Simon larru apainzalearen etxean itsas aldean: hura dathorreanean minzaturen zaik hiri

33 Halakotz bertan hiregana igorri diat, eta hik ungi egin duk zeren ethorri aizen. Orain bada gu guziok gaituk hemen lainkoaren aitzinean lainkoaz manatu izan zaizkian gauza guziak enzun ditzagunzat.

34 Orduan irekirik Pierrisek bere ahoa, erran zezan, Egiaz erideiten dut ezen lainkoa eztagoela personen aparentiara beha.

35 Baina natione guzietan hari beldur zaiona, eta iustitia egiten duena, dela haren gogarako.

36 Gauza haur igorri ukan draue *lainkoak* Israeleko hurrei, denuntiatzen zuelarik bakea Iesus Kristez, zein baita guzien launa.

37 Zuek badakizue zer egin izan den Iudea guzian, hasirik Galilean, Ioanesek predikatu ukan duen Baptismoaren ondoan:

38 Nola Iesus Nazareno unktatu duen lainkoak Espiritu sainduaz eta berthutez, zein ebili izan baita ungi egiten zuela eta deabruaz tormentatu ziraden guziak sendatzen zituela: ezen lainkoak zen harekin

39 Eta gu gara testimonio luduen eta Ierusalemerekin komarkan egin dituen gauza guziez.

40 Zein hil ukan baitute zurean urkaturik, eta hura lainkoak resusztatuta ukan du hereneko egunean, eta eman manifestatu izateko,

41 Ez populu guziari, baina lehendanik lainkoaz ordenatu ziraden testimonioei, guri *diot* zeinek ian eta edan baitugu harekin hura hiletarik resusztatuta izan den ondoan.

42 Eta manatu gaitu predikatzeraz populuari eta testifikatzeraz ezen hura dela bizien eta hilen iuje izateko lainkoaz ordenatua.

43 Huni Profeta guziek ere testimoniaje ekartzen draukate, ezen haren izenean bekatuen barkamendua rezebituren dutela hura baithan sinhetsiren duten guziek.

44 Oraino Pierrisek propos hauk edukiten zituela, iauts zedin Espiritu saindua hitz haur enzutenzuten guzien gainera.

45 Eta mirets zezaten Zirkonzisioneko fidel Pierrisekin ethorriek, zeren Jentilen gainera ere Espiritu sainduaren dohaina erautsi izan baitzen.

46 Ezen enzuten zituzten hek lengoajez minzaten eta lainkoaren laudatzen.

47 Orduan ihardets zezan Pierrisek, Ala nehork ura enpatxa ahal dezake batheia ezтитеzen guk bezala espiritu saindua rezebitu duten hauk?

48 Eta mana zezan batheia litezen launaren izenean. Orduan othoitz egin ziezoten zenbeit egunetakotz egon ledin.

KAP. XI.

1 Zeren Krist Jentilei predikatu derauen Zirkonzisionekoek Pierris reprotxatzen. 18 Penitentia Jentilei eman. 20 Antiokekoei Krist denuntiatzen. 25 Barnabasek Saul hetara eramaiten. 26 Lehen Kristino izena Antioken. 27 Profeta batzu Antiokera ethorri. 28 Agabusek

*gosetea denuntiatzen. 29 Iudeako
fidelak paubre.*

1 Enzun zezaten bada Apostoluek eta Iudean ziraden anaiek ezen Jentilek ere rezebitu zutela lainkoaren hitza.

2 Eta igan zenean Pierris Ierusalem-era iharduki zezaten haren kontra zirkonzisionekoek,

3 Zioitela Zirkonziditu eztiraden gizonetara sarthu izan aiz, eta hekin ian ukan duk.

4 Orduan hasirik Pierrisek deklaratu zieten *gauza guziak* bata berzearen ondoan, zioela,

5 Ni ninzen lopeko zibitatean othoitz egiten nengoela: eta adimenduz transportaturik ikus nezan bisione bat, *baitzen*, iausten zen unzi bat mihise handi bat bezalakorik, laur kantoinetan *lothua*, behehitzen, zela zerutik, eta ethor zedin eneganano.

6 Hartara begiak ezarririk gogoia eta ikus nezan lurreko *animal* laur oindunetarik, eta basa bestietarik, eta herrestez dabilzanetarik, eta zeruko xoretarik:

7 Eta enzun nezan boz bat niri erraiten zerautala, laiki adi Pierris, hil ezak eta ian ezak.

8 Eta erran nezan, Ez launa: ezen gauza komunik edo satsurik eztuk egundano sarthu ene ahoan.

9 Eta ihardets ziezadan bozak berriz zerutik, lainkoak purifikatu duena, hik eztezala satsu.

10 Eta haur egin zedin hiruretan: eta harzara retina zitezen gauza hauk guziak zerurat.

11 Gero huna, moment berean hirur gizon presenta zitezen ni ninzen etxera, Zesareatik enegana igorriak.

12 Eta erran ziezadan Espirituak hekin ioan nendin, dudarik egin gabe. Eta ethor zitezen enekin sei anaie hauk ere, eta sar gentezen gizonaren etxean:

13 Eta konta ziezagun nola ikusi zuen Aingeru bat bere etxean, presentatzen zaiola eta zio-tsala, Igorrak zenbaterebeit jende lopera, eta erekarrak Simon izen goitikozen Pierris deitzen dena.

14 Hark erranen drauzkik hitzak, zeinez salbaturen baitaiz, eta hi eta hire etxe guzia.

15 Eta minzaten has nendinean, iausts zedin Espiritu saindua haien gainera, hatsean gure gainera ere *iaustsi zen* bezala.

16 Orduan orhoit nendin launaren erranaz, nola zioen, loanesez batheiatu ukan du urez baina zuek batheiatu zarete Espiritu sainduaz.

17 Bada guri bai dohain bera lainkoak eman drauenaz geroz, guk Jesus Krist launa baithan sinhetsi ukan baitugu: ni nor ninzen enpatxa nezan lainkoa?

18 Orduan gauza hauk enzunik amatiga zitezzen, eta glorifika zezaten lainkoa, erraiten zutela, Beraz Jentilei ere lainkoak eman draue emendamendua bizitze ukaiteko.

19 Bada Estebenen kausaz ethorri izan zen tribulationeagatik barreiatu ziradenak ere ioan zitezzen Fenizerano eta Ziprerano eta Antiokerrano, nehoi deklaritzen etzeraukatelarik *lainkoaren* hitza, luduei berei baizen.

20 Baina hetarik batzu ziraden Zipriano, eta Zireniano, zein Antioken sarthurik Grekoei minzo baitzaizten denuntiatzen zutela Jesus launa.

21 Eta launaren eskua zen hekin: eta jende aralde handi bat sinhetsirik konberti zedin launagana.

22 Eta hel zedin fama Ierusalemen zen Elizarren beharrietara: eta igor zezaten Barnabas ioan ledin Antiokerano:

23 Eta arribatu zenean, eta ikusi zuenean lainkoaren gratia alegera zedin, eta exhortatzen zituen guziak, bihotzeko fermutasun batez per-seberatzera launarekin.

24 Ezen gizon ona zen eta Espiritu sainduaz eta fedez bethea: eta jendetze handia augmenta zekion launari.

25 Gero ioan zedin Barnabas Tarsera, Saulen bilha:

26 Eta hura eridenik eraman zezan Antioke-ra: eta gertha zedin urthe guzian Elizarekin kon-bersa baitzezaten, eta populu handi irakats baitzezaten, eta diszipuluak lehenik Antioken Kristi-no dei baitzitezen.

27 Eta egun hetan ia uts zitezen Ierusalemetik Profeta *batzu* Antiokera.

28 Eta hetarik Agabus deitzen zen batek iai-kirik deklara zezan Espirituaz, gosete handia izanen zela mundu orotan: eta haur hala gertha zedin Klaudio Zesaren denboran.

29 Eta diszipuluetak batbederak bere ahalar-
ren arauz, delibera zezaten aiutatan *zerbaiten*
igortera ludean habitatzen ziraden anaiei.

30 Eta hala egin zezaten, Anzianoei igorritz
Barnabasen eta Saulen eskuz.

KAP. XII.

*2 lates ezpataz hil. 3 Pierris
presoindegian ezarri: 7 Aingeruak
hura idoki. 12 Ioanes Mark. 13
Rhode. 15 Pierrisen Aingerua. 23
Herodes harabartu. 24 launaren
hitza abanzatzen. 25 Barnabas eta
Paul Ierusalemara itzuli.*

1 Eta denbora berean iar zedin rege Herodes
Elizako batzuen aflijitzen.

2 Eta hil zezan lates loanesen anaiea, ezpa-
taz.

3 Eta ikusirik *hori* laket zaiela ludei, abanza
zedin Pierrisen ere hatzamaitera: (eta ziraden
altxagarri gaberiko ogien egunak)

4 Eta hatzamanik ezar zezan presoindegian, eta eman ziezen laur laurnazko jendarmesi begiratzaera: bazko ondoan hura populuari presentatu nahiz.

5 Pierris bada begiratzen zuten presoindegian: baina Elizak harengatik ardura lainkoari othoitz egiten zeraukan.

6 Eta Herodesek hura presentatzeko zue-
nean, gau hartan lo zetzan Pierris bi jendarme-
sen artean, bi kadenaz estekatua, eta goardek
borthaitzinean begiratzen zuten presoindegia.

7 Eta huna, launaren Aingeru bat ethor zedin,
eta argi batek argi zezan presoindegian, eta iorik
Pierrisen seihetsa, iratzar zezan, zioela, laiki adi
fitetz, eta eror zekizkion kadenak eskuetarik.

8 Eta erran ziezon Aingeruak, Gerrikadi, eta
iaunz itzak eure sandaleak. Eta egin zezan hala.
Gero erran ziezon, Har ezak eure arropa, eta
arreit niri.

9 Eta ilkirik *Pierris* iarreiki zekion, eta etza-
kian egia zenez Aingeruaz egiten zena: baina
uste zuen zenbeit bisione ikusten zuela.

10 Eta iraganik lehen goardia eta bigarrena,
ethor zitezen burdinazko borthara, zibitatera

daramanera, zein bere buruz ireki baitzekien, eta ilkirik iragan zezaten karrika bat, eta bertan parti zedin Aingerua harenganik.

11 Orduan Pierrisek akordaturik erran zezan, Orain dakit egiazki ezen launak igorri ukan duela bere Aingerua, eta idoki nauela Herodesen esku-tik, eta luduen populuaren ustekari guzitarik.

12 Eta *gauza* konsideraturik ethor zedin Maria loanesen, izen goitiko Mark deitzen zena-ren amaren etxera, non baitziraden anhitz bil-duak eta othoitze egiten zeudela.

13 Eta bulkatu zuenean Pierrisek etxe aitzineko bortha, ilki zedin neskato bat behatzera, Rhode deitzen zenik.

14 Eta ezaguturik Pierrisen boza, bozkarioz etzezan ireki etxe aitzineko bortha, baina barne-ra laster eginik deklarara ziezen, Pierris borthaitzinean zegoela.

15 Eta hek erran ziezoten, Erhoa aiz. Baina hark segurutzen zuen hala zela: eta hek zioiten, Haren Aingerua dun.

16 Baina Pierrisek bulkatzez perseberatzen zuen: eta irekirik, ikus zezaten hura, eta espanta zitezen.

17 Eta haei keinu eginik eskuaz ixil litezen, konta ziezen nola launak idoki zuen presoindegitik: eta erran ziezen, Konta ietzezue gauza hauk lakesi eta anaiei. Eta ilkirik ioan zedin berze leku batetara.

18 Baina argitu zenean gudu handia zen jendarmesen artean eia Pierris zer egin zen.

19 Eta Herodesek hura galdeginik eriden etzuenean, goardez informatione eginik, mana zezan punitzera eraman litezen: eta iautsirik ludeatik Zesareara, *han* egon zedin.

20 Eta Herodesek zuen gerla egiteko gogo Tirianoen eta Sidonianoen kontra: baina hek gogo batez ethor zitezen harengana, eta irabazirik Blasto, zein baitzen regeren ganberako gehien, bake eskez zeuden: zeren haien komarka regerenetik entretenitzen baitzen.

21 Eta egun asignatu batez, Herodesek rege arropaz beztiturik, iudizioko iar lekuan iarririk, harenga bat egin ziezen.

22 Eta populua oihuz iar zedin, lainkoaren boza, eta ez gizonarena!

23 Eta bertan io zezan hura lainkoaren Aingeruak, zeren ezpaitzeraukan lainkoari gloria eman: eta harabarturik hil zedin.

24 Baina lainkoaren hitza abanzatzen zen eta multiplikatzen.

25 Barnabas ere eta Saul itzul zitezzen Ierusalemetik, kargua konpliturik, berekin harturik loanes ere izen goitiko Mark deitzen zena.

KAP. XIII.

1 Antiokeko Elizan Profeta eta doktor batzu. 2 Barnabas eta Saul predikatzen separaten. 3 Barur eta othoizte egin. 5 Salamis. 6 Bariesu profeta falsu. 12 Serjiok Krist baithan sinhesten. 14 Paulek Antioken predikatzen. 45 Iuduak hari kontrastatzen. 48 Jentilek sinhesten. 50 Persekutione Paulen eta Barnabasen kontra. 51 Ikoniora hek retiratzen. 52 Diszipuluak bozkarioz bethe.

1 Eta ziraden, Antioken zen Elizan Profeta eta doktor batzu, Barnabas, eta Simon Nijer deitzen zena, eta Luzio Zireneanoa, eta Manahen, Herodes tetrarkarekin hazi izan zena, eta Saul.

2 Hek bada launa ministerioan zerbitzatzen zutela eta barur ziradela, erran zezan Espiritu sainduak, Separa ietzadazue Barnabas eta Saul deithu ditudan obrakotzat.

3 Orduan barur eta othoizte eginik, eta eskuak haien gainean ezarririk, igor zitzaten.

4 Hek bada igorrik Espiritu sainduaz, iaute zitezen Seleuziara: eta handik enbarka zitezen Ziprera.

5 Eta ethorri ziradenean Salaminara denuntia zezaten lainkoaren hitza luduen sinagogetan: eta bazuten loanes ere lagun.

6 Gero Isla Paforano trebesatu zutenean, eriden zezaten ludu profeta falsu enkantazale bat, Bariesu deitzen zenik,

7 Zein baitzen Serjio Paul prokonsularekin. gizon zuhurrarekin. Hunek deithurik Barnabas eta Saul, lainkoaren hitzaren enzuteko desira zuen.

8 Baina resistitzen zerauen Elimas enkantazaleak, (ezen hala erran nahi du haren izenak) Prokonsula fedetik erauzi nahiz.

9 Baina Saulek (Paul ere *deitzen* denak) betterik Espiritu sainduaz, harengana begiak xuxendurik,

10 Erran zezan, O enganio eta finezia guziaz bethea, deabruaren semea, iustitia guziaren etsaia, ez aiz launaren bide xuxenen makurtzetik geldituren?

11 Orain bada huna, launaren eskua hire gainean, eta izanen aiz itsu, ikusten eztuala iguzkia denbora batetarano, Eta bertan eror zedin haren gainera lanho eta ilhunbe: eta inguru zabilan nork eskutik gida lezakeen bilha.

12 Orduan Prokonsulak ikusirik zer egin izan zen, sinhets zezan, miraz iarririk launaren doktrinaz.

13 Eta Pafotik partitu ziradenean Paul eta harekin ziradenak, ethor zitezen Perjera Panfilia-ko *hirira*: orduan Ioanes hetarik partiturik, itzul zedin Ierusalemara.

14 Eta hek Perjetik partiturik ethor zitezen Antioke Pisidiakora, eta sarthurik sinagogan Sabbath egunean, iar zitezen.

15 Orduan Legearen eta Profeten irakurtzearen ondoan, igor zezaten sinagogako prinzipalek hetara, zioitela, Gizon anaieak, baldin zuetan bada zenbeit hitz populuaaren exhortationetarik, errazue.

16 laikirik bada Paulek, eta eskuaz ixil litezen keinu eginik, dio, Israeltar gizonak, eta lainkoaren beldurra duzuenak, enzuzue:

17 Israeleko populu hunen lainkoak elejitu ukan ditu gure aitak, eta populu haur goratu ukan du, Egipteko lurrean zeudenean, eta beso gora batez idoki zitzan hek hartarik.

18 Eta berrogei urtheren denboraren inguruan haien konditioneak sufritu ukan ditu desertuan.

19 Gero desegenik zazpi natione Kanaango lurrean, zorthez parti ziezen haien lurra.

20 Eta gero guti gora, guti behera laur ehun *eta* berrogei *eta* hamar urthez eman zietzen iujeak Samuel profetaganano.

21 Gero eska zitezen rege baten, eta eman zieten lainkoak Saul Zis-en semea, Ben-iamin leinuko gizona, berrogei urthez.

22 Eta hura kendurik, eman zieten Dabid regetan: hari ere testimoniaje emanik, erran zezan, Eriden dut Dabid leseren *semea*, neure gogarako gizona, zeinek eginen baititu ene nahi guziak.

23 Hunen hazitik lainkoak *bere* promesaren araura suszitate ukan drauka Israeli Salbadorea, *baita*, Iesus:

24 Aitzinetik loanesek emendamendutako Baptismoa Israeli predikatu ukan zeraukanean haren ethorterakoan.

25 Eta akabatzen zuenean loanesek bere kursua, erran zezan, Nor naizela uste duzue? ez naiz *hura* ni, baina huna, ethorten da ene ondolan, zeinen oinetako zapata ezpainaiz digne laxa dezadan.

26 Gizon anaieak, Abrahamen arrazako semeak, eta zuen artean lainkoaren beldurra dutenak, zuei salbamendu hunetako hitza igorri izan zaizue.

27 Ezen Ierusalemeko habitantek eta haien gobernadorek hura ezagutzen etzutelarik kondemnaturik, Profeten hitz Sabbath guziaz irakurtzen diradenak konplitu ukan dituzte.

28 Eta ezeinere heriotako kausarik *hartan* eriden gabe Pilate rekeritu ukan dute hura hil lezan.

29 Eta konplitu zituztenean harzaz eskribatu ziraden gauza guziak, zuretik kendurik, ezarrezaten monument batetan.

30 Baina Iainkoak resusztatatu ukan du hura hiletarik.

31 Eta ikusi izan da anhitz egunez, harekin batean Galilearik Ierusalemera igan izan ziradenez, eta dirade haren testimonio populua baitharra.

32 Guk ere denuntiatzen drauzuegu zuei *gure* Aitei egin izan zaien promesaz den bezenbatean:

33 Ezen hura Iainkoak konplitu drauela haien hurrei, *zein baikara* gu, Iesus resusztataturik, bigarren Psalmuan ere eskribatua den bezala, Ene Semea aiz hi, nik egun enjendratu aut hi.

34 Eta *erakusteko* resuszitatu duela hura hiletarik gehiagorik sepulkrrera ez itzultzekotan, hunela erran ukan du, Emanen drauzkizuet zuei Dabid-en saindutasun segurak.

35 Eta halakotz berze leku batetan ere erraiten du, Eztuk permetituren hire Sainduak korrupcionerik ikus dezan.

36 Ezen segur Dabid bere denboran lainkoaren konseillua zerbitzaturik, lokartu izan da, eta bere aitekin ezarri izan da, eta ikusi ukan du korrupcionen.

37 Baina lainkoak resuszitatu duenak eztu ikusi ukan korrupcionerik.

38 Iakizue bada gizon anaieak, ezen hunezaz bekatuen barkamendua deklaritzen zaizuela:

39 Eta Moisesen Legeaz iustificatu ezin izan zareten gauza guzietarik, hunezaz, sinhesten duen guzia iustificatzen dela.

40 Gogoauzue bada Profetetan erran izan dena gertha eztakizuen.

41 Ikusazue menosprezatzaleak, eta mirets ezazue, eta urt zaitezte, ezen obra bat egiten dut nik zuen egunetan, obra bat *diot* zein ezpai-

tuzue sinhetsiren baldin nehork konta badiezza-
zue.

42 Gero ilki ziradenean luduen sinagogatik,
othoi zitzaten Jentilek hurreneko Sabbathoan
hitz hauk haei deklaratu lietzen.

43 Eta kongregationea barreiatu zenean,
iarreiki zekien lduetarik eta lainkoa zerbitza-
tzen zuten proselitoetarik anhitz Pauli eta Barna-
basi: eta hauk haei minzaten zaiztela, lainkoa-
ren gratian perseberatzera exhortatzen zituzten.

44 Eta hurrenengo Sabbath *egunean* kuasi
hiri guzia bil zedin lainkoaren hitzaren enzutera.

45 Baina lduak populua ikusirik inbidiaz
bethe zitezten, eta kontrastatzen zaizten Paulek
erraiten zituen gauzei, kontrastatzen ziradela
eta blasfematzen zutela.

46 Orduan konstantki Paulek eta Barnabasek
erran zezaten, Zuei behar zaizuen lehenik
denuntiatu lainkoaren hitza: baina hura arbuia-
tzen duzuenaz geroz, eta bizitze eternalaren
ukaiteko indigne zuen buruak iujeatzen dituzue-
naz *geroz*, huna, itzultzen gara Jentiletarat.

47 Ezen hala manatzen drauku launak, dioela, Ordenatu aut hi Jentilen argi izateko, salbamendu aizenzat lurraren bazterrerano.

48 Eta Jentilak *haur* zanzutenean alegera zitezen, eta glorifika zezaten launaren hitza: eta sinhets zezaten bizitze eternalekotzat ordenatu ziraden guziek.

49 Eta abanzatzen zen lainkoaren hitza komarka hartan guzian.

50 Eta Iuduek inzita zitzaten emazte debot eta honest batzu, eta hiriko prinzipalak, eta eragin zezaten persekutione Paulen eta Barnabasen kontra, eta egotz zitzaten bere komarketarik kanpora.

51 Baina hek beren oinetako erhautsa inharrosirik haien kontra, ethor zitezen Ikoniora.

52 Eta diszipuluak bethatzen ziraden bozkarioz eta Espiritu sailduaz.

KAP. XIII.

1 Ikonion anhitz konbertitu. 3 Signo eta mirakulu. 4 Ikoniokoak bi

aldetara partitzen. 5 Persekutione. 6 Paulek eta Barnabasek Listrara ihes egiten. 8 Maingua sendatu. 12 Listrakoek Barnabasi Iupiter eritzi, eta Pauli Merkurio. 13 Eta haei sakrifikatu nahi. 19 Paul lapidatu. 23 Anzianoak Elizetan ordenatzen. 27 Fedearen bortha ireki Jentilei.

1 Eta gertha zedin Ikonion elkarrekin sar baitzitezzen Iuduen sinagogara, eta minza baitzitezzen hala non sinhets baitzezan Iuduetarik eta Grekoetarik mulzo handiak.

2 Baina sinhesterik etzuten Iuduek inzita eta korrumpi zitzaten Jentilen bihotzak anaien kontra.

3 Bada denbora luzez *han* egon zitezzen konstantki minzaten ziradela, launaren gorthasunez, zeinek testimoniaje ekarten baitzaraukan bere gratiazko hitzari, eta emaiten zuen signo eta mirakulu egin ledin haien eskuz.

4 Eta parti zedin hiriko jendea *bi aldetara*, eta batak ziraden Iuduekin, eta berzeak Apostoluekin.

5 Baina altxatu ziradenean Jentilak eta luduak bere Gobernadorekin haien iniuriatzera eta lapidatzera:

6 Aditurik gauza, ihes egin zezaten Likaonia-ko hirietara, *hala nola*, Listrara eta Derbera, eta inguruko komarketara:

7 Eta han predikatzen zuten Ebanjelioa.

8 Eta Listrako gizon oinez inpotent bat zegoen iarririk bere amaren sabeleandanik maingu, egundano ebili etzen bat:

9 Hunek enzun zezan Paul minzitzen, zeinek, hari begi eratxekirik, eta ikusirik ezen fede bazuela sendatu izateko, erran baitziezon ozen-gi,

10 laiki adi eure oinen gainera zutik. Orduan *hura* iauz zedin eta ebil zedin.

11 Eta jendetzek ikusirik Paulek egin zuena, altxa zezaten bere boza, Likaoniko lengoajez, erraiten zutela, lainkoak gizonak bezalakaturik iausti dirade guregana!

12 Eta Barnabas deitzen zuten Iupiter: eta Paul, Merkurio: zeren hark hitza ekarten baitzuen.

13 Eta Jupiter-en sakrifikadoreak (zein baitzen haien hiri aitzinean) zezen koroatuak bort-haitzinerano ekarririk, nahi zuen populuarekin sakrifikatu.

14 Baina hori enzunik Apostoluak, Barnabas eta Paul, bere arropak zathiturik oldar zitezen populuaren artera, oihuz zeudela.

15 Eta erraiten zutela, Gizonak, zergatik gauza horiak egiten dituzue? zuek zareten afektione beren suiektioneko gizonak gara, deklaratzeko drauzuegula, horrelako gauza banoetarik konberti zaitezten lainko biziagana, zerua eta lurra eta itsasoa, eta hetan diraden gauza guziak egin dituenagana:

16 Zeinek iragan denboretan Jentil guziak beren bidetan ebiltera utzi ukan baititu.

17 Badarik ere bere burua eztu testimoniare gabe utzi, *guri* ungi eginez, emaiten drauzkigula zerutik uriak eta sasoin abratsak, eta bethatzen dituela biandaz eta alegantzaz gure bihotzak.

18 Eta gauza hauk erraiten zituztela, nekez amatiga zitzaten jendetzeak sakrifika ezliezen.

19 Orduan ethor zitezen Antioketik eta Ikoniotik ludu batzu, hek populua irabazirik eta Paul

lapidaturik, herresta zezaten hiritik kanpora, ustez hila zen.

20 Baina diszipuluak haren ingurura bildu ziradenean, iaikirik sar zedin hirian: eta biharamunean ioan zedin Derbera Barnabasekin

21 Eta hiri hartan ebanjelizatu zutenean, eta anhitz irakatsirik itzul zitezen Listrara eta Ikoniora eta Antiokera:

22 Konfirmatzen zituztela diszipuluen gogok, eta exhortatzen zituztela fedean persebertzera, eta *erraiten zutela*, anhitz tribulationez lainkoaren resuman sarthu behar garella.

23 Eta konpainiaren abisuz Elizetarik batbe-deratan Anzianoak ordenatu ondoan, barurekin othoitz eginik, gomenda zietzoten hek launari, zein baithan sinhetsi ukan baitzuten.

24 Gero Pisidia iraganik, ethor zitezen Fanfiliara.

25 Eta Perjen *lainkoaren* hitza denuntiatu-rik, iaust zitezen Ataliara.

26 Eta handik enbarka zitezen Antiokera, nondik gomendatu izan baitziraden lainkoaren gratiari, konplitu zuten obrakotzat.

27 Eta ethorri izan ziradenean eta bildu zute-
nean Eliza, konta zitzaten lainkoak hezaz egin
zituen gauza guziak, eta nola ireki zerauen *lain-*
koak Jentilei fedearen bortha.

28 Eta egon zitezen han denbora luzez diszi-
pulativekin.

KAP. XV.

*1 Anaie falsuek Zirkonzisione
irakasten. 7, 13 Pierrisen eta
lakesen harenga. 8, 9 Jentilek
Espiritu saindua rezebitu. 10
Legearen uztarria. 12 Gratia. 22
Jende igorri Apostoluek Antiokera.
23 Konzilioko letrak. 36 Paulen eta
Barnabasen artean kontentione
Ioanes Mark-en kausaz.*

1 Eta ludeatik iausti izan ziraden batzuk, ira-
ksten zituzten anaieak, *zioitela*, Baldin zirkonzi-
di ezpazaitetzte Moisesen maneraren araura,
ezin salba zaitezket.

2 Eta gudu eta disputa handi Pauli eta Barnabasi heldurik haien kontra, ordena zezaten igan litezen Paul eta Barnabas eta zenbeit berzerik Apostoluetara eta Anzianoetara Ierusalemara kestione hunegatik.

3 Hek bada igorririk Elizaz, iragan zitzaten Feniza eta Samaria, Jentilen konbersioea kontatzen zutela: eta eman ziezen bozkario handi anaie guziei.

4 Gero Ierusalemara arribaturik, rezebitu izan ziraden Elizaz eta Apostoluez eta Anzianoez, eta konta zitzaten Iainkoak hezaz egin ukan zituen gauza guziak.

5 Baina (*zioiten*) altxatu izan dirade Fari-seuen sektako sinhetsi zuten batzu, zioitela, ezen zirkonziditu behar zutela, eta manatu Moisesen Legearen begiratzera.

6 Orduan bil zitezen Apostoluak eta Anzianoak egiteko hunez konsideratzera.

7 Eta disputa handiren ondoan, Pierrisek iai-kirik erran ziezen, Gizon anaieak, zuek badakizue ezen haraitzinadanik Iainkoak gure artean elejitu ukan *nauela*, ene ahoz enzun lezaten Jentilek Ebanjelioko hitza, eta sinhets lezaten.

8 Eta lainkoak ezagutzen baititu bihotzak, testifikatu draue, haei Espiritu saindua eman ez guriere bezala.

9 Eta eztu diferentiarik batre egin gure eta haien artean, fedez purifikaturik haien bihotzak

10 Orain bada zergatik tentatzen duzue lainkoa, diszipuluen lepo gainean uztarriaren ezartera, zein ez gure aitek ez guk ezin ekarri ukan baitugu?

11 Baina Iesus Kristo launaren gratiaz sinheften dugu salbaturen garelako, heke ere bezala.

12 Orduan ixil zedin konpainia guzia, eta beha zaizten Barnabasi eta Pauli, zeinek kontatzen baitzuten zer signo eta mirakulu egin zuen lainkoak hezaz Jentilen artean.

13 Eta ixildu ziradenean, ihardets zezan lakesek, ziola, Gizon anaieak, enzun nezazue ni,

14 Simonek deklaratu ukan du nola lehenik lainkoak bisitatu dituen Jentilak hetarik populubat bere izeneko har lezanzat.

15 Eta hunekin akordatzen dirade Profeten hitzak: eskribatua den bezala.

16 Gero itzuliren naiz, eta berriz edifikaturen dut Dabid-en tabernakle erroia, eta haren ruinak

berriz edifikaturen ditut, eta berriz altxaturen dut hura.

17 Rekeri dezatenzat goitiko gizonek launa, eta Jentil guziek, zeinen gainean inbokatu izan baita ene izena: dio gauza hauk guziak egin dituen launak.

18 Bethidanik lainkoak badazaguzki bere obra guziak.

19 Harren nik dut estimatzen eztituela nehork faskatzeko Jentiletarik lainkoagana konbertitzen diradenak:

20 Baina eskribatzeko zaiela begira ditezen idolen satsutasunetarik, eta paillardizatarik, eta *gauza* ithotik, eta odoletik.

21 Ezen Moisesek haraitzinadanik baditu hirietarik batbederatan hura predikatzen dutenak, sinagogetan Sabbath guziaz irakurtzen denaz geroz.

22 Orduan nahi ukan dute Apostoluek eta Anzianoek Eliza guziarekin, beren artetik gizon elejituak igor litezen Antiokera Paulekin eta Barnabasekin, *hala nola*, Iuda izen goitiko Barsabas deitzen zena, eta Silas, gizon prinzipalak anaien artean.

23 Haien eskuz eskribatzen zutela segitzen dena, Apostoluek eta Anzianoek eta anaiek Antioken eta Sirian eta Zilizian Jentiletarik *diraden* anaiei, salutatione.

24 Zeren aditu baitugu ezen gutarik ilki diraden batzuk, zenbeit proposaz trublatu ukan zaitzuela, zuen arimak erauziz eta zirkonzidi zaitzten eta Legea begira dezazuen manatz, zeinei ezpaikendrauen kargurik eman:

25 Gure irudia izan da konsentimendu batez bildu garenona, elejitu ditugun gizonen zuetara igortera, Barnabas eta Paul gure maitekin,

26 *Baitirade* Iesus Krist gure launagatik bere biziak abandonatu dituzten gizonak,

27 Igorri ditugu bada Iuda eta Silas, hek ere gauza berak ahoz kontaturen drauzkizue.

28 Ezen on iruditu zaio Espiritu sainduari eta guri, ez ezartera karga handiagorik batre zuen gainera gauza nezesario hauk baizen:

29 *Baitirade*, Begira zaitzten idolei sakrifikatu diraden gauzetarik, eta odoletik, eta ithotik, eta paillardizatarik, baldin gauza hautarik zuen buruak begira baditzazue, ungi eginen duzue. Ungi duzuela.

30 Hek bada konjit harturik ethor zitezen Antioquera: eta konpainia bildurik eman zitzaaten letrak.

31 Eta irakurri zituztenean konsolationearen gainean alegera zitezen.

32 Halaber ludak eta Silasek, nola hek ere Profeta baitziraden, anhitz hitzez exhorta zitzaaten anaieak eta konfirma.

33 Eta *han* zerbait denbora egin zutenean, igorri ikan ziraden anaiez bakerekin Apostolueta-rat,

34 Guziagatik ere Silasi on irudi zekion han egoitera.

35 Eta Paul eta Barnabas ere egon zitezen Antioken, irakasten eta ebanjelizatzen zutela anhitz berzerekin ere, launaren hitza.

36 Eta zenbeit egunen buruan erran ziezon Paulek Barnabasi, Itzulirik bisita ditzagun gure anaieak launaren hitza denuntiatu dugun hiri guzietan, *eia* nola dauden.

37 Eta Barnabasek konseillatzen zuen berekin har lezaten loanes, Mark deitzen zena:

38 Baina Pauli etzaion bidezko iruditzen heta-rik ia Panfiliatik berezi zena, eta obra hartara lagundu etzituena berekin har lezaten

39 Hala iharduki zezaten bada, non bata berzeaganik separa baitzitezten: eta Barnabas Mark harturik enbarka baitzedin Ziprerat.

40 Baina Paul Silas elejiturik parti zedin, anaiez lainkoaren gratiari gomendaturik.

41 Eta iragan zitzan Siria eta Zilizia, konfirmatzen zituela Elizak.

KAP. XVI.

3 Timotheo zirkonziditu. 6 Asian predikatzea defendatu. 9 Bisione Pauli agertu Mazedoniakoez. 14 Emaztei Ebanjelioa predikatzen. 18 Pithonen espiritua zuen neskatoa sendatu. 23 Paul eta Silas azotaturik presoinean ezarri. 26 Lurra ikaratu presoinean. 30 Jeolerak bere familia guziarekin sinhetsi. 37 Paulek bere burua Romano egiten.

1 Gero arriba zedin Derbera eta Listrara: eta huna, diszipulu bat zen han Timotheo deitzen zenik, emazte fidel baten seme, baina, aita Grek baten.

2 Huni testimoniaje on ekarten zeraukaten Listran eta Ikonion ziraden anaiek.

3 Haur nahi ukan du Paulek harekin ioan ledin, eta harturik zirkozidi zezan hura leku hetan ziraden Iuduakgatik: ezen bazakiten guziek haren aita nola Grek zen.

4 Eta hirietan iragaiten ziradela irakasten zituzten *hetangoak* Ierusalemen ziraden Aposto-luez eta Anzianoez egin izan ziraden ordenanzen begiratzen.

5 Bada Elizak fedean konfirmatzen ziraden, eta kontua egun guziaz emendatzen zen.

6 Gero iraganik Frijia eta Galatiako komarka, debetatu izan ziraden Espiritu sainduaz hitzaren Asian predikatzetik:

7 Ethorri ziradenean Misiara, enseiatzen ziraden Bithiniara ioaiten: baina etziezen permeti Espirituak.

8 Baina Misia iraganik iauts zitezen Troasera.

9 Eta bisione bat gauaz ager zekion Pauli, *baitzen hunela*, Mazedoniako gizon bat presenta zedin haren aitzinean othoitz egiten zeraukala eta erraiten, Iragan adi Mazedoniarat eta aiuta gaitzak.

10 Eta bisionea ikusi ukan zuenean, bertan enseia gentezen Mazedoniara ioaiten, seguratzten genela ezen launak deithu gentuela haei ebanjelizatzer.

11 Partiturik bada Troastik, xuxen ethor gentezen Samothrazera, eta biharamunean Neapoli-sera.

12 Eta handik Filiposera, zein baita Mazedonia koartereko lehen hiria, *eta da* kolonia. Eta egon gentezen hiri hartan zenbatrebeit egun

13 Eta Sabbath egunean ilki gentezen hiritik kanpora flubio bazterrera, non izaten ohi baitzen othoitz: eta iarririk minza genkinzten hara bildu izan ziraden emaztei.

14 Eta Lidia deitzen zen Thiatira hiriko emazte eskarlata saltzale lainkoa zerbitzatzen zuen batek enzun genzan: zeinen bihotza launak ireki baitzezan, Paulez erraiten ziraden gauzen gogotzeko:

15 Eta batheiatu izan zenean *bera* eta haren familia, othoitz zegigun, zioela, Baldin estimatu baduzue launagana fidel naizela, sarthurik ene etxean, zaudete. Eta bortxa genzan.

16 Eta gertha zedin gu othoitzara gendoazela, neskato Pithonen espiritua zuen bat aitzinera ethor baitzekigun: zeinek irabazi handia emaiten baitzerauen bere nabusiei, asmatzez.

17 Haur Pauli eta guri iarreikirik, oihuz zegoen, zioela, Gizon hauk lainko subiranoaren zerbitzari dirade, zeinek salbamenduko bidea denuntiatzen baitraukute. 18 Eta haur egin zezan anhitz egunez: baina gaitziturik Paulek, eta itzulirik erran ziezon espirituari, Manatzen aut Iesus Kristen izenaren partez horrenganik ilki adin. Eta ilki zedin ordu berean.

19 Orduan haren nabusiek zakusatenean ezen haien irabazi esperanka galdu zela, hatzamanik Paul eta Silas, eraman zitzaten merkatuko plazara Majistratuetara.

20 Eta hek presentaturik Gobernadorei, erran zezaten, Jende hauk trublatzen dute gure hiria ludu diradelarik:

21 Eta denuntiatzen dituzte rezebi ez begira ditzagun sori eztiraden ordenanzak, ikusirik ezen Romano garela.

22 Eta oldar zedin komuna haien kontra: eta Gobernadorek haien arropak zathiturik mana zezaten, azota litezen.

23 Eta anhitz zauri egin zerauezenean ezar zitzaten presoindegian, manamendu eginik jeolerari, segurki hek begira litzan:

24 Zeinek halako manamendua harturik ezar baitzitzan presoindegi zolan, eta haien oinak hers zitzan zepoaz.

25 Eta gauaren erdian Paulek eta Silasek othoizten eta laudatzen zuten lainkoa: eta enzuten zituzten estekaturik zeudenek.

26 Eta subitoki lur ikaratze handi bat egin zedin, hala non iharros baitzitezen presoindegi fundamentak: eta bertan ireki zitezen bortha guziak, eta guzien estekailuak laxa zitezen.

27 Orduan iratzarturik jeolerak zakuskianean presoindegi borthak irekiak, ezpata idokirik bere burua hil nahi zuen, ustez presonerek ihes egin zuten:

28 Baina Paulek oihu egin zezan ozengi, zioela, Eztagioala deus minik eure buruari: ezen guziak hemen gaituk.

29 Orduan hura argi galdeginik oldar zedin barnera, eta ikara zabilala egotz zezan bere burua Paulen eta Silasen *oinetara*.

30 Eta hek kanpora idokirik dio, launak, zer egin behar dut salbatu izateko?

31 Eta hek erran ziezoten, Sinhets ezak Iesus Krist launa baithan eta salbaturen aiz hi eta hire etxea.

32 Eta minza zekizkion lainkoaren hitzaz hari, eta haren etxean ziraden guziei.

33 Eta *hark* hek harturik gauaren ordu hartan berean ikuz zietzen zauriak: eta batheia zedin hura eta harenak guziak bertan.

34 Eta bere etxera eramanez, mahaina ezar zieten: eta alegera zedin, zeren bere etxe guziarekin sinhetsi ukan baitzuen lainkoa baithan.

35 Eta eguna ethorri izan zenean Gobernadorek igor zitzaten sarjeantak, erran lezaten, Eiek konjit gizon horiei.

36 Orduan jeolerak konta zietzon hitz hauk Pauli, *zioela*, Igorri die Gobernadorek *erraitera*,

konjit eman dakizuen: orain beraz ilkirik zoazte bakerekin.

37 Baina Paulek erran ziezen, Publikoki azotatu gaituzten ondoan, iujemendu formarik gabe, Romano garelarik, egotzi ukan gaituzte presoindegira: eta orain ixilik kanpora egoizten gaituzte? ez balinba: baina berek ethorririk idoki gaitzate.

38 Eta reporta zietzen serjeantek Gobernadorei hitz hauk: eta beldur zitezen, enzunik ezen Romano ziradela.

39 Eta ethorririk othoitz zitzaten, eta idokirik suplika zekizten ilki litezen hiritik.

40 Orduan ilkirik presoindegitik sar zitezen Lidia baithan: eta ikusirik anaieak, konsola zitzaten hek, eta parti zitezen.

KAP. XVII.

1 Paulek Thesalonizeanoei Krist predikatzen. 4 Hetarik batzuk sinhesten. 5 Iuduak Paulen eta Silasen kontra: 6, 7 Baina lasonek

*hek rezebitzen, eta hezaz fiadore
iarten. 10 Presonerak largatu. 13
Iuduek Paul persekutatzen. 15 Paul
Atheneserat ioaiten: 17 eta han Krist
predikatzen. 23 Iainko ezagun
gabearen aldarea. 24 Iainkoaren
adoratzeko manera. 30 Penitentia.
31 Iujemendua. 34 Dionisiok eta
Damarisek sinhesten.*

1 Gero iraganik Anfipolian eta Apollonian, ethor zitezten Thesalonikara, non baitzen Iuduen sinagoga bat.

2 Eta kostumatu zuen bezala Paul sar zedin hetara, eta hirur Sabbathoz disputa zedin hekin Eskripturetarik.

3 Deklaratzen eta proposatzen zerauela, ezen behar izan dela Kristek sufri lezan eta resuszita ledin hiletarik: eta ezen haur zela Iesus Krist zein *dio*, nik predikatzen baitrauzuet.

4 Eta hetarik batzuk sinhets zezaten, eta Paulen eta Silasen konpainiako egin zitezten, eta Iainkoa zerbitzatzen zuten Grekoetarik konpainia handia, eta emazte ohoraturik ez guti.

5 Baina bekaizteriaz mobiturik ludu rebellek, eta harturik hara huna zabiltzan gizon gaixto batzu, eta populua bildurik, trubla zezaten hiria: eta lasonen etxea iaukirik, hek populura eraman nahiz zabiltzan.

6 Eta eriden etzituztenean, tira zitzaten lason eta anaietarik batzu hiriko Gobernadore tara, oihuz zeudela. Hauk mundu guzia erauzi ukan duten ondoan, huna ere ethorri izan dirade:

7 Eta lasonek beregana rezebitu ukan ditu: eta guziek Zesaren ordenanzen kontra egiten dute, dioitela berze Rege bat badela, Iesus.

8 Tharrita zezaten bada populua eta hiriko Gobernadoreak gauza hauk zanzuzkitenean.

9 Baina fiadoregoa rezebiturik lasonganik eta goitikoetarik, utzi zitzaten ioaitera.

10 Eta anaiek bertan gauaz idoki zitzaten kanpora Paul eta Silas Beroera *ioan litezenzat*: zein hara ethorri rik ioan baitzitezen luduen sinagoga-ra.

11 Eta hauk ziraden Thesalonikako noblenerik, zeinek hitza rezebi baitzezaten alegranza guzirekin, egun oroz Eskripturak bilhatzen zituztela, eiagauza hauk hala liradenez.

12 Eta hetarik anhitzek behinzat sinhets zezaten, eta emazte Grek honestetarik, eta gizonetarik ezgutik.

13 Baina iakin zezatenean Thesalonikako luduek ezen Beroen ere lainkoaren hitza Paulez denuntiatu izan zela, ethor zitezen hara ere, populua tharritatzen zutela.

14 Baina bertan Paul igor zezaten kanporat anaiek, ioan ledinzat itsas alderat bezala: baina Silas eta Timotheo egon zitezen han.

15 Eta Paulen salbura heltzeko kargua hartu zutenek, eraman zezaten hura Atheneserano: eta *hek harenganik* manamendu rezebiturik Silasgana eta Timotheogana, guziz bertan ethor litezen hura Baithara, parti zitezen.

16 Eta Paul Athenesen haien begira zegoela keixatzen zen haren espiritua hura baithan, zakusanean hiria idolatriari emana.

17 Disputatzen zen bada sinagogan luduekin, eta lainkoa zerbitzatzen zutenekin, eta merkatuko plazan egun oroz batzen zenekin

18 Orduan Epikuriano eta Estoiziano filosofo batzu disputatzen ziraden harekin: eta batzuk erraiten zuten, Zer erran nahi du edasle hunek?

Eta berzek *zioiten*, lainko arrotzen erakusle dela dirudi: zeren Iesus denuntiatzen baitzerauen eta resurrekzioa.

19 Eta hatzamanik hura eraman zezaten Marsen karrikara, zioitela, lakin ahal dezakegu zerik den hizaz erraiten den doktrina berri hori?

20 Ezen gauza arrotz batzu gure beharrietara ekarten dituk: nahi diagu bada iakin gauza horiak zer erran nahi diraden.

21 (Ezen Atheniano guziak eta han egoiten ziraden arrotzak ezeinere berze gauzatara etziratzen aplikatzen, zenbeit berriren erraitera edo enzutera baizen)

22 Orduan Paulek Marsen karrikaren erdian zegoela, erran zezan, Athenesko gizonak, gauza guzietan debotegi bezala ikusten zaituztet zuek.

23 Ezen iragaiten naizela eta zuen debotio-neak kontenplazten ditudala eriden ere badut aldare bat, zeinetan eskribatua baitzen, lainkoa ezagun gabeari. Bada ezagutu gaberik ohoratzen duzuen hura nik denuntiatzen drauzuet:

24 Mundua eta hartan diraden gauza guziak egin dituen lainkoa, zeruaren eta lurraren laun delarik, ezta eskuz egin tenpletan habitatzen.

25 Eta ezta gizonen eskuz zerbitzatu den behar *bezala*, ikusirik ezen berak emaiten drauztela guziei bizia eta respirationea eta gauza guziak.

26 Eta egin ukan du natura humano guzia odol batetarik: lurraren hedamen gauziaren gainean habita litezenzat, lehenetik sasoin ordenatuak determinaturik, eta haien habitationearen mugarriak ezarririk:

27 launa bilha lezatenzat, agian haztatuz hura eriden lezaketenez gure batbederaganik urrun ezpadere.

28 Ezen harzaz bizitzen eta higitzen eta izaten gara: zuen poetetarik ere batzuk erran duten bezala, Ezen haren leinu ere bagara.

29 Beraz lainkoaren leinu garenaz geroz, eztugu estimatu behar Dibinitateak urhea edo zilharra edo harria gizonen artez edo inbentioez moldatua irudi duela.

30 lainkoak bada ignorantiazko denborak disimulaturik, orain denuntiatzen draue gizon guziei leku guzietan emenda ditezen.

31 Zeren ordenatu baitu mundua iustoki iujeaturen duen eguna determinatu duen gizo-

naz, guziei ezagutzera emanik, hura hiletarik resusztatuturik.

32 Eta enzun zutenean hilen resurrektionea, batzu trufatzen ziraden, eta berzek erraiten zuten, Enzunen augu berriz horren gainean.

33 Eta hunela Paul ilki zedin haien artetik.

34 Batzuk halere, hari iunktaturik, sinhets zezaten: zeinetarik baitzen Dionisio Areopajita ere, eta Damaris deitzen zen emazte bat, eta berzerik hekin.

KAP. XVIII.

1 Paul Korinthion langiten, 4 Disputatzen eta Kristen predikatzen ari. 7 Handik partiturik lustoa deitzen zen batenean sartzen. 8 Krispek launa baithan sinhesten. 9 Bisione Pauli agertzen. 12 Gero da Gallionen aitzinean akusatzen. 17 Sosthenes. 18 Paulek bere burua arrada eraziten. 24 Apollos ludua Efesera ethorten

1 Gauza hauen ondoan Paul partiturik Atheastik, ethor zedin Korinthera.

2 Eta eridenik Akila deitzen zen Ponte natio-neko ludu bat, zein aitzinxetik ethorri baitzen Italiatik, eta Priszilla haren emaztea (zeren Klaudek ordenatu baitzuen ludu guziak Romarik parti litezen) retina zedin hetara.

3 Eta zereng ofizio bereko baitzen, hekin egoiten zen, eta langiten ari zen. Eta haieng ofizioa zen tabernakle egitea.

4 Eta disputatzen zen sinagogan Sabbath guziaz, eta exhortatzen zituen hanbat luduak nola Grekoak.

5 Eta ethorri ziradenean Mazedoniarik Silas eta Timotheo, Paulek Espirituaz hersturik testifikatzen zerauen luduei Iesus zela Krist.

6 Eta hek kontrastatzen eta blasfematzen ari ziradela, abillamenduak iharrosirik erran ziezen, Zuen odola zuen burun gain: xahu *naiz* ni, oraindanik Jentiletarat ioanen naiz.

7 Eta handik partiturik sar zedin Iustoa deitzen zen eta lainkoa zerbitzatzeng zuen baten etxean, zeineng etxea baitzatzekan sinagogari.

8 Eta Krispek sinagogako prinzipalak sinhets zezan launa baithan bere etxe guziarekin: Korinthianoetarik ere anhitzek enzunik sinhets zezaten, eta batheia zitezen.

9 Orduan erran ziezon launak gauaz bisionez Pauli Ezaizela beldur, baina minzadi eta ezadila ixil.

10 Ezen ni nauk hirekin, eta nehork eztrauk *eskurik* ezarriren hiri gaizki egitera: ezen populu handia diat hiri hunetan.

11 Eta egon zedin han urthe bat eta sei hilebethe, irakasten zuela haien artean lainkoaren hitza.

12 Baina Gallion Akaiako Prokonsul zenean, altxa zitezen gogo batez luduak Paulen kontra, eta eraman zezaten iudizioko iar lekura.

13 Erraiten zutela, Legearen kontra hunek inzititzen ditu gizonak lainkoaren zerbitzatzera.

14 Eta Paulek ahoa ireki nahi zuen bezala, erran ziezen Gallionek lduei, Baldin zenbeit bidegabe, edo gaixtakeria baliz, o luduak, zuzenak emaiten duen lekurano sustenga zinzakeiztet:

15 Baina baldin kestione bada hitzaz eta ize-
nez eta zuen Legeaz zeurok ikusiren duzue ezen
gauza horien iuje ni ez naiz nahi.

16 Eta ken zitzan hek iudizioko iar lekutik.

17 Orduan Grek guziek hatzamanik Sosthe-
nes sinagogako prinzipala zehatzen kuten iudi-
zioko iar leku aitzinean: eta Gallionek ansiarik
batre etzuen.

18 Baina Paul oraino denbora luzeskoz *han*
egonik, anaietarik konjit harturik, enbarka zedin
Siriarat (eta harekin Priszilla eta Akila) burua
arradaturik Zenkren: ezen bot zuen.

19 Gero arriba zedin Efesera, eta hek han utzi
zitzan: baina bera sinagogara sarthurik, disputa
zedin luduekin.

20 Eta hek othoiztez zaizkala denbora luzia-
goz hekin egon ledin, etziezen akorda.

21 Baina konjit har zezan hetarik, zioela,
Nezesarioki behar dut hurrenengo besta Ierusa-
lemen egin: baina harzara itzuliren naiz zuetara,
lainkoak plazer badu: eta parti zedin Efesetik.

22 Eta Zesareara iausti zenean, igan zedin
Ierusalem: eta Eliza salutaturik iausti zedin
Antiokera.

23 Eta zerbait denbora *han* egonik, ioan zedin xuxen xuxena Galatiako eta Frijiako komarka trebesaturik, konfirmatzen zituela diszipulu guziak.

24 Baina ludu nazionez Alexandriano Apollos deitzen zen bat, gizon elokenta, Eskripturetan botheretsua, ethor zedin Efesera.

25 Haur zen launaren bidean instruitzen hasia, eta espiritu beroz minzaten zen, eta irakasten zituen dilijentki launaren diraden gauzak, ezagutzen zuela solament loanesen Baptismoa

26 Eta has zedin frangoki minzaten sinagogan. Haur enzun zezatenean Priszillak eta Akilak berekin har zezaten, eta aitzinago deklarara ziezo ten lainkoaren bidea.

27 Eta Akaiarat iragan nahi zenean, *hura* exhortaturik anaiek eskriba zezaten diszipuluetara rezebi lezaten hura: zeinek arribatu zenean *hara*, probetxu handi egin baitziezen gratiaz sinhetsi ukan zutenei.

28 Ezen biziki garaitzen zaien luduei publikoki, Eskripturez erakusten zuela ezen Iesus zela Krist.

KAP. XIX.

*1 Paul Efesen irakasten ari. 4
Ioanesen Baptismoa 6 Eskuen
inpositionea. 11 Paulek mirakulu
egiten. 13 Deabruak ditu zehatzen
exorzistak. 19 Kuriositatezko
liburuak erre. 24 Demetriusek
seditione altxatzen. 27 Diana
Efesianoena. 29 Gaio eta Aristarke.
33 Alexandre.*

1 Apollos Korinthen zela gertha zedin, Paul garaiko bazter guziak iraganik ethor baitzedin Efesera: eta *han* diszipulu batzu eridenik erran ziezen,

2 Ala rezebitu duzue Espiritu saindua sinhetsi ukan duzuenean? Eta hek erran ziezoten, Are Espiritu saindua denez ere, eztiagu enzun.

3 Orduan dioste, Zertan bada batheiatu izan zarete? Eta hek erran zezaten, ioanesen Baptismoan.

4 Orduan Paulek erran zezan, loanesek batheiatu ukan du emendamenduko Baptismoaz, ziotsala populuari, haren ondotik ethorteko zena baithan sinhets lezaten, erran nahi baita, Iesus Krist baithan.

5 Gauza hauk enzunik bada, batheia zitezen Iesus launaren izenean.

6 Eta eskuak gainean ezarri zerauztenean Paulek, ethor zedin Espiritu saindua haien gainera, eta minzaten ziraden lengoajez, eta profetizatzen zuten.

7 Eta gizon hauk guziok ziraden hamabitarano.

8 Gero *bera* sarthurik sinagogan, Frangoki minzaten zen, hirur hilebethez disputatzen eta exhortatzen ari zela launaren resumari *dagozkan* gauzez.

9 Eta nola batzu gogortzen baitziraden eta ezpaitzuten obeditu nahi, gaizki *launaren* bidez minzaten ziradela popularen aitzinean, hetarik *bera* partiturik, separa zitzan diszipuluak, egun oroz disputatzen ari zela Tirano baten eskolan.

10 Eta haur egin izan zen bi urthez: *hala* non Asian habitatzen ziraden guziek, enzuten baitzu-

ten Jesus launaren hitza, hanbat luduek nola Grekoek.

11 Eta kostumatu etziraden berthuteak egiten zituen lainkoak Paulen eskuz:

12 *Hala* non are erien gainera ekarten baitzituzten haren gorputz gainetik krobitxetak eta konziertoak, eta ioaiten baitziraden hetarik eritasunak, eta espiritu gaixtoak hetarik ilkiten baitziraden.

13 Orduan enseia zitezen hara huna ebilten ziraden ludu exorzista batzu espiritu gaixtoak zituztenen ganean Jesus launaren izenaren inbokatzen, erraiten zutela, Koniuratzen zaituztegu Paulek predikatzen duen Jesusen partez.

14 (Eta ziraden Eszeba ludu Sakrifikadore prinzipalarenik zazpi seme, haur egiten zutenak)

15 Baina ihardesten zuela espiritu gaixtoak, erran zezan, Jesus ezagutzen diat, eta Paul bazeakiat nor den: baina zuek nor zarete?

16 Eta oldarturik hetara espiritu gaixtoa zuen gizonak, eta haei garaithurik, bortxa egin zezan haien kontra: hala non biluzgorririk eta zaurthurik ihesegin baitzezaten etxe hartarik.

17 Eta haur ethor zedin guzien ezagutzera hanbat luduen nola Greko Efesen habitatzen ziradenenera: eta eror zedin beldurra haien guzien gainera, eta magnifikatzen zen Iesus launaren izena.

18 Eta sinhetsi zutenetarik anhitz ethorten ziraden konfesatzen eta deklaritzen zituztela bere eginak.

19 Arte kuriositatezkoz usatu ukan zutenek ere, anhitzek *bere* liburuak ekarririk erre zituzaten guzien aitzinean: eta haien balioa estimaturik eriden zezaten berrogei eta hamar milla dinero-rena.

20 Hala botheretsuki augmentatzen zen launaren hitza eta konfirmatzen.

21 Gauza hauk hunela konplitu ziradenean delibera zezan Paulek Espirituaz, Mazedonia eta Akaia iraganik Ierusalem-era ioaitera, zioela, Han izan ondoan, Roma ere ikusi behar dut.

22 Eta igorrorik Mazedoniara aiutatzen zutenetarik biga *baitziraden* Timotheo eta Erasto, bera geldi zedin denbora batetakotz Asian.

23 Baina egin zedin denbora hartan truble handi bat doktrinaren kausaz.

24 Ezen Demetrius deitzen zen zilhargile, Dianaren zilharrezko tenpletxogile batek, anhitz irabaz eraziten zerauen ofiziokoei:

25 Hek bildurik, eta halako gauzetako ofizier *ziradenak*, erran zezan, Gizonak, badakizue ezen ofizio hunetarik heldu diradela gure onak:

26 Eta badakusazue eta badanzuzue nola ez Efesen solament, baina kuasi Asia guzian Paul hunek sinhets erazirik itzuli duela populu handi, erraiten duela, ezen eztiradela iainko eskuz egi-ten diradenak.

27 Eta peril da ez solament gure gauza deskrida dadin, baina are Diana handiaren tenplea gehiagorik deus estima eztadin, eta desegin eztadin haren maiestate Asia guziak eta munduak ohoratzen dutena.

28 Eta *gauza hauk* enzunik, eta hiraz bethe-rik oihuz iar zitezen, Efesianoen Diana handia!

29 Eta bethe zedin hiri guzia konfusioenez, eta oldar zitezen gogo batez teatrera, harturik Gaio eta Aristarke Mazedonianoak, Paulen bideko lagunak.

30 Eta Paul populua baithara sarthu nahi zenean, etzezaten utzi diszipuluek.

31 Baina Asiako prinzipaletarik batzuk ere, nola baitziraden haren adiskide, harengana igorriarik othoitz zegiote, ez ledin teatrera presentata.

32 Bada batzu bataz oihuz zeuden, eta berzeak berzeaz: ezen konfus zen konpainia, eta anhitzek etzakiten zergatik bildu izan ziraden.

33 Orduan jendetzetik kanpora abanza zezaten Alexandre, luduek hura bulkatzen zutela. Eta Alexandrek, ixil litezen eskuaz keinu eginik, nahi zeraukan kausa allegatu populuari.

34 Baina ezagutu zutenean ezen hura ludu zela, altxa zedin guzietarik boz bat, kuasi bi orenez oihu egiten zutela, Efesianoen Diana handia!

35 Orduan eskribariak jendetzea apazegaturik, erran zezan, Efeseko gizonak, zein da gizona eztakiana ezen Efeseko hiria dedikatua dela Diana handiaren, eta Iupiterganik iautsi izan den imaginaren zerbitzura?

36 Nehor bada gauza hautan kontrasta ezin daitenaren gainean, apazega zaitetzten beharda, eta deus desordenatuki eztagizuen.

37 Ezen ekarri ukan dituzue gizon hauk ezpaitirade ez sakrileje, ez ezpaitute zuen iainkosa difamatzen.

38 Beraz baldin Demetriusek eta harekin diraden ofizierek egitekorik badute zenbeiten kontra, gorte edukiten da, eta badirade Prokonsulak, elkar akusa bezate.

39 Eta baldin berze gauzaz deus galdegiten baduzue, kongregatione bidezki bilduan konkludi ahal daite.

40 Ezen peril da seditonez akusa ezgaitezen, egungo egunagatik, truble hunezaz razoin eman ahal dezakegun kausarik eztenaz geroz. Eta gauza hauk erran zituenean biltzarreari konjiti eman ziezon.

KAP. XX.

1 Paul Mazedonian, Grezian, eta Sirian. 9 Eutike hila resusztatatu. 16 Mendekoste eguna. 18 Efeseko Anzianoak Paulek exhortatzen. 22 Heldu behar zaizkion afliktioneak

aitzinetik erraiten. 26 Paulen hogen gabea. 29 Doktor falsuak nola izanen diraden aitzinetik Paulek deklaritzen. 31 Beillatzera exhortatzen. 34 Bere eskuez Paul travaillatu. 36 Othoitza. 37 Paulen partitzeagatik fidelak nigarrez egon.

1 Bada tumultoa apazegatu zenean, Paul diszipuluak beregana deithurik eta besarkaturik, parti zedin Mazedoniarat ioaiteko.

2 Eta komarka hetan ebili zenean, eta exhortatu zituenean hitz anhitzez, ethor zedin Greziera.

3 Eta han hirur hilebethe eginik, zeren luduek zelata egiten baitzeraukaten Siriarat enbarkatu izan baliz: haren abisua izan zen Mazedonian gaindi itzultzera.

4 Eta lagund zezan hura Sopater Beroenesak Asiarano: eta Thesalonizeanoetarik, Aristarkek eta Sekondek, eta Gaio Derbianoak, eta Timotheok: eta Asianoetarik, Tikikek eta Trofimek.

5 Hauk aitzinerat ioanik iguriki genzaten Troasen.

6 Eta gu enbarka gentezen altxagarri gaberiko ogien egunen ondoan Filipestik, eta ethor gentezen hetara Troasera, borz egunen buruan: non egon baikentezen zazpi egun.

7 Eta asteko lehen egunean ogiaren haustera diszipuluak bilduak izan eta, Paul minzo zen hekin (zeren biharamunean partitzeko baitzen) eta iraun zezan *haren* proposak gauherdi arterano.

8 Eta zen anhitz lanpa ganbera goran, non bilduak baikinaden.

9 Eta iarririk zegoela gizon gazte bat Eutike deitzen zenik leiho gainean, logale handi batek harturik, Paul luzaki minzo zela, loa garaithurik eror zedin hirugarren soillerutik beherera, eta hila altxa zezaten.

10 Baina iautsirik Paul behera zedin haren gainera, eta besarkaturik erran zezan, Etzaitez-tela trubla ezen hunen arima haur baithan da.

11 Gero iganik eta ogia hautsirik eta ianik, eta luzaki minzaturik argirano, hala parti zedin.

12 Eta gizon gazteor bizirik ekar zezaten, eta hagitz konsola zitezen.

13 Eta gu unzira ethorririk enbarka gentezen Asoserat, handik hartzeko genduen Paul: ezen hala ordenatu zuen, berak bide hura oinez egin gogoz.

14 Bada Ason gurekin bathu zenean, hura harturik ethor gentezen Mitilenera.

15 Eta handik enbarkaturik, biharamunean ethor gentezen Kiosen aurkara: eta hurrenengo egunean arriba gentezen Samosera: eta Trojillen egonik, ondoko egunean ethor gentezen Miletera.

16 Ezen deliberatu zuen Paulek Efesez aitzinago iragaitera, denborarik gal ezlezanzat Asian: ezen lehiatzen zen baldin posible balitzaio Mendekoste egunean Ierusalemen izatera.

17 Eta Miletetik *mezu* igorririk Efesera, dei zitzan Elizako Anzianoak.

18 Eta harengana ethorri ziradenean erranziezen, Zuek badakizue, Asian sar nendin lehen egunaz geroztik, nola zuekin denbora guzian izan naizen:

19 launa zerbitzatzan nuela humilitate guzirekin eta anhitz nigar xortarekin, eta luduen

zelata egoitetarik ethorri izan zaizkidan tentatio-
nekin:

20 Nola zuen probetxutako gauzetarik eztrauzuedan deus estali, zuei deklaratu eta irakatsi gabe publikoki eta etxez etxe:

21 Testifikatzen nerauela hanbat luduei nola Grekoei lainkoa baitharatko emendamendua, eta Iesus gure launa baitharatko fedea.

22 Eta orain huna, ni Espirituaz estekatua, banoa Ierusalemara, hartan heltzeko zaizkidan gauzak eztakizkidalarik:

23 Salbu Espiritu sainduak hiriz hiri testifikatzen baitraut, dioela ezen estekadurak eta tribulationeak ene begira daudela.

24 Baina eztut deusen ansiarik, eta neure bizia etzait prezioso, akaba dezadanzat neure kursua bozkariorekin, Iesus launaganik rezebitududan kargua, lainkoaren gratiaren Ebanjelioa testifika dadinzat.

25 Eta orain huna, nik badakit ezen gehiagorik eztuzuela ikusiren ene begithartea zuetarik batek ere, zeinen artetik iragan bainaiz lainkoaren resuma predikatzen nuela.

26 Halakotz testifikatzen drauzuet egungo egunean, ezen xahu naizela ni guzien odoletik.

27 Ezen eztut disimulatu zuei denuntia ezniezazuen launaren konseillu guzia.

28 Gogoia eiezue bada zuen buruei, eta art-halde guziari, zeinetan Espiritu sainduak ezarri baitzaituzte Ipizpiku, lainkoaren Elizaren bazkatzeko, zein konkestatu baitu bere odol propioaz.

29 Ezen nik badakit haur, sarthuren diradela ene ioan ondoan otso dorpeak zuen artera, gupida eztutelarik arthaldea.

30 Eta zeuron artetik iaikiren dirade gizonak denuntiatzen dituztela gauza gaixtoak, diszipuluak bere ondoan erekar ditzatenzat.

31 Halakotz beillezazue, orhoit zaretelarik ezen hirur urthez gau eta egun eznaizela zesatu nigar xortarekin zuetarik batbederaren adbertitzetik.

32 Eta orain ere, anaieak, gomendatzen zerauzkiotet lainkoari eta haren gratiaren hitzari, zein baita botheretsu zuen edifikatzen akabatzeke, eta zuei saindu guziekin heretajearen emaiteko.

33 Berzeren urhea ez zilharra ez arropa ez tut guthiziatu.

34 Baina zeurok badakizue nola ene, eta enekin ziradenen behar ziraden gauzak fornitu ukan dituzten esku hauek.

35 Guzietan erakutsi drauzu et ezen hunela travaillatuz behar diradela flakuak suportatu, eta lesus launaren hitzez orhoit izan: ezen berak erran du, Gauza dohatsuagoa dela emaita ezen ez hartzea.

36 Eta hitz hauk erran zituenean belhauriko iarririk egin zezan othoitze hekin guziekin.

37 Orduan nigar handi guziez egin zedin: eta Paulen lepora bere buruak egotziz pot egiten zeraukaten:

38 Triste ziradelarik prinzipalki erran ukan zuen hitzagatik, ezen gehiagorik haren begithartea ezlutela ikusiren. Eta unzira lagundu zaizkan.

KAP. XXI.

5 Othoitza itsas kostan. 8 Filipe Ebanjelista, 9 Haren laur alabak. 10

*Agabus profeta. 16 Mnason
diszipulu. 24, 26 Paul, bere burua
purifikatzen zuela, hatzaman. 29
Trofime. 30 Seditio Paulen kausaz
33 Armadako kapitainak Paul
kadenaz estekatzen.*

1 Eta enbarkatu genenean, hetarik separatu-
rik, xuxen-xuxena ethor gentezen Kosera, eta
biharamunean Rhodesera, eta handik Patrasera.

2 Eta *han* eridenik unzi Fenizerat trebesatzen
zuen bat *hartara* iganik parti gentezen.

3 Gero Zipreren agerrira genenean, hura
utzirik ezker, Siria alderat bela egin genezan, eta
arriba gentezen Tirera: ezen han unziak behar
zuen karga deskargatu.

4 Eta diszipuluak eridenik egon gentezen han
zazpi egun: hek Pauli erraiten zeraukaten Espiri-
tuaz, ezledin igan Ierusalemara.

5 Baina egun hek konplitu ziradenean parti
gentezen, guziek emaztekin eta hurrekin lagun-
zen gentuztela hiri lekorerano: eta belhauriko
iarririk ur bazterrean othoitze egin genezan.

6 Gero elkar besarkaturik, unzira igan gentezen, eta berzeak beretarat itzul zitezten.

7 Eta gu biajea akabaturik arriba gentezen Tiretik Ptolemaidara: eta anaieak salutaturik, egon gentezen egun bat hekin.

8 Eta biharamunean ilkirik Paul eta harekin genetak ethor gentezen Zesareara: eta sarthurik Filipe Ebanjelistaren etxean (zein baitzen zazpietarik bat) egon gentezen hura baithan.

9 Eta hunek zituen laur alaba birjina profetizatzen zutenik.

10 Eta *han* denbora ungisko egon genenean, ethor zedin ludeatik Agabus deitzen zen Profeta bat.

11 Eta guregana ethorrik eta Paulen gerrikoa harturik eta *harzaz* bere oinak eta eskuak estekaturik, erran zezan, Gauza hauk erraiten ditu Espiritu sailduak, Gerriko hunen iabe den gizona, hunela estekaturen dute Ierusalemen luduek, eta liuraturen dute Jentilen eskuetara.

12 Eta gauza hauk enzun gentuenean, othoitz egin genezon guk eta leku hartan ziradenek, ezledin igan Ierusalemera.

13 Orduan ihardets zezan Paulek, Zer ari zarete nigarrez zaudetela, eta ene bihotza erdiratzen duzuela? Ezen ni ez estekatu izatera solament, baina Ierusalemen hiltzera ere prest naiz Iesus launaren izenagatik.

14 Bada, hari burutan ezin eman genezakeonaren gainean, utzi genezan, erraiten genduela, launaren borondatea egin dadila.

15 Eta zenbeit egunen buruan *gure* hatuak harturik igan gentezen Ierusalemera.

16 Eta ethor zitezen diszipuluetarik ere *batzu* Zesareatik gurekin zakarkeitela berekin Mnason Zipriano iakin bat, diszipulu anzianoa, zein bait-han ostatuz behar baikenen.

17 Bada ethorri genenean Ierusalemera, gogotik rezebi genzaten anaiek.

18 Eta biharamunean sar zedin Paul gurekin lakes baithara, eta Anziano guziak hara bil zitezzen.

19 Eta hek besarkaturik, konta zitzan punktuz puntu lainkoak Jentilen artean haren ministerioz egin zituen gauzak.

20 Eta hek enzun zitzatenean, glorifika zezaten launa, eta erran ziezoten, Anaie, badakusak

zenbat milla diraden ludu sinhetsi dutenak: eta guziei baitaxete lainkoaren zeloa.

21 Eta enzun die erraiten hizaz, ezen hik Moisesen utzitera irakasten dituala Jentilen artean diraden ludu guziak, erraiten duala, ezen eztituztela haurrak zirkoziditu behar, eta ez tutelaren ordenanzen araura ebili *behar*.

22 Zer *egiteko* da bada? osoki populuak bildu behar dik: ezen enzunen die nola ethorri aizen.

23 Egik bada *guk* erraiten drauaguna. Laur gizon zitiagu bot egin dutenik:

24 Hek harturik purifikadi hekin, eta kontribui ezak hekin, buruak arrada ditzatenzat: eta daki ten guziek ezen hizaz enzun dituzten gauzatarik deus ez tela: baina euror ere Legea begiratzuz abilala.

25 Baina Jentil sinhetsi dutenez den bezenbatean, *guk* eskribatu diagu, eta ordenatu deus halakorik begira eztezen, baina begira litezen idolei sakrifikatuetarik, eta odoletik, eta ithoetarik, eta paillardizatarik.

26 Orduan Paul gizon hek berekin harturik, *eta* biharamunean hekin purifikaturik sar zedin tenplean denuntiatzen zuela purifikazioneko

egunen konplimendua, hetarik batbederagatik oblationea ofrenda ledin artean.

27 Eta nola zazpi egunak ia hurren iragan baitziraden, Asiako ludu batzuk hura ikusi zute-nean tenplean, mobi zezaten populu guzia, eta ezar zitzaten eskuak haren gainean:

28 Heiagoraz zeudela, Israeltar gizonak, hel zakizkigute: haur da gizona populuaren eta Legearen eta leku hunen kontra guziak leku guzietan irakasten dituen: are gehiago Grekoak ere erekarri ditu temple barnera, eta profanatu du leku saindu haur.

29 (Ezen lehen ikusi ukan zuten Trofime Efesianoa hirian harekin, zein uste baitzuten Paulek temple barnera eraman ukan zuela.)

30 Eta mobi zedin hiri guzia, eta oldar zedin populua: eta Paul hatzamanik tenpletik kanpora idokiten zuten: eta bertan borthak erts zitezen.

31 Baina hek hura hil nahiz zabiltzala, hel zedin fama *garnizoinaren* bandako Kapitainagana, ezen Ierusalemeko guzia nahasi zela.

32 Zeinek ordu berean jendarmesak eta Zentenerak harturik laster egin baitzezan hetara:

eta hek ikusi zituztenean Kapitaina eta jendarmesak geldi zitezten Paulen zehatzetik.

33 Orduan hurbildurik Kapitainak har zezan hura, eta mana zezan esteka ledin bi kadenaz: eta interroga zezan nor lizen, eta zer egin zuen.

34 Eta batzu batzaz zeuden oihuz jendetzean eta berzeak berzeaz: eta nahastekamenduaren kausaz *deus* segurik ezin ezagutuz, mana zezan fortalezara eramane ledin.

35 Eta ethorri zenean gradoetara, gertha zedin jendarmesez eramaiten baitzen jendetzearen boaldaren kausaz.

36 Ezen iarreikiten zaion populuko jendetzea heiagoraz, Ken ezak hori.

37 Eta Paulek fortalezan sartzerakoan diotsa Kapitainari, Hauzu naiz hirekin minzatzera? Hark erran ziezon, Grekik badakik?

38 Ezaiz hi Egiptiano iragan egun hautan seditione bat biztu duana, eta laur milla gaixtagin desertura retiratu dituana?

39 Eta erran zezan Paulek, Ni segur gizon ludua nauk Tarsen, Ziliziako hiri famatuan burjes iaioa: othoitz egiten drauat bada, permeti ieza-dak minza nakion populari.

40 Eta hark permetitu zeraukanean, Paulek, gradoetan zegoela, ixilzera eskuaz keinu egin ziezon populuari, eta silentio handi egin izanik, minza zedin Hebraikoen lengoajez, erraiten zuela.

KAP. XXII.

1 Paulen defenza. 12 Ananias. 21 Paul Jentilen Apostolu. 22 Populuak Paul hil erazi nahi. 24 Kapitainak hura azota eraziten. 25 Paul Romako burjes. 30 Estekaduretarik laxatu.

1 Gizon anaieak eta aitak, enzuzue orain zuek baithan emaiten dudan defenza.

2 (Eta enzun ukan zutenean ezen Hebraikoen lengoajez minzo litzaiela, hanbat silentio handiago egin zezaten: eta erran zezan,)

3 Ni naiz gizon ludua, Tarse Ziliziakoan iaioa, baina hazia hiri hunetan berean Gamalielen oinetan, aiten Legearen perfektionean instrui-

tua, lainkogana zelotako ninzela, egun zuek guziak ere zareten bezala:

4 Doktrina haur persekutatu ukan dudana heriorano, estekatuz eta presoindegietara ezarriz hanbat gizonak nola emazteak:

5 Sakrifikadore subiranoa ere testimonio dudan bezala, eta Anzianoen konpainia guzia: are hetarik guthunak anaietara harturik, Damaszerat ioaiten ninzen, han ziradenak estekaturik Ierusalem-era ekartera, puni litezenzat.

6 Eta gertha zedin bidean ioaiten eta Damaszerat hurbiltzen ninzela egu-erdi irian, subitoki zerutiko xistmist anzoko argi handi batek ingura bainenzan:

7 Eta eror nendin lurrera, eta enzun nezan boz bat, zioztala, Saul, Saul, zergatik ni persekutatzen nauk?

8 Eta nik ihardets nezan, Nor aiz launa? Eta launak erran ziezadan, Ni nauk Iesus Nazareno hik persekutatzen duana.

9 Eta enekin ziradenek, argia ikus zezaten, eta izit zitezten, baina enekin minzo zenaren boza etzezaten enzun.

10 Orduan erran nezan, Zer eginen dut launa? Eta launak erran ziezadan, laikirik oha Damaszero, eta han erranen zaizkik, egin ditzan ordenatu zaizkian gauza guziak.

11 Eta zeren *deus* ezpainuen ikusten argi haren klaretatearen kausaz, enekin ziradenez eskutik eraman izanik Damaszero ethor nendin.

12 Geroztik Ananias Legearen araura lainkoaren beldur zen gizon bat, *han* egoiten ziraden ludu guzietarik testimoniaje ona zuena, enegana ethor zedin.

13 Eta ene aldean zegoela erran ziezadan, Saul anaie, rezebi ezak ikustea. Eta nik ordu hartan berean harenganat beha nezan:

14 Eta hark erran zezan, Gure aiten lainkoak elejitu au hi bere borondatearen ezagutzeko eta lustoaren ikusteko, eta haren ahotik bozaren enzuteko.

15 Ezen testimonio izanen atzaio gizon guziak baithara, ikusi eta enzun dituan gauzez.

16 Orain bada zer beranzen duk? Iaiki adi eta batheidi, eta xahu itzak eure bekatuak, launaren izena inbokaturik.

17 Gero gertha zekidan, ni Ierusalem-era bihurtu nintzen, eta tenplean othoitz egiten nengoela transporta bainendin espirituz.

18 Eta ikus bainezan zioztana, Lehiadi eta ilki-adi fitetz Ierusalemetik, ezen ezte rezebituren *hik* nizaz emanen drauean testimoniajea.

19 Eta nik erran nezan, launa, hek bazeakie ezen ni presoindegira ezarten ari nintzela eta azotatzen nituela sinagoga guzietan hi baithan sinhesten zutenak.

20 Eta isurten zenean Esteben hire martiraren odola, ni ere present ninduan, eta konsentitzen nian haren hiltzean, eta begiratzen nitian hura hiltzen zutenen arropak.

21 Eta *hark* erran ziezadan, Habil: ezen nik Jentiletara urrun igorriren aut.

22 Eta enzuten zuten hura hitz hunetarano: orduan altxa zezaten bere boza, erraiten zutela, Ken ezak lurretik horrelakoa: ezen eztuk razoin hori bizi den.

23 Eta hek heiagoraz zeudela, eta bere arropak iharrosten eta airerat erhautsa iraitzen zutela.

24 Mana zezan Kapitainak hura fortalezara eramán ledin, eta ordena zezan azoteaz examina ledin, iakin lezanzat zer kausagatik hala oihuz leuden haren kontra.

25 Bada hede z estekatu zuten ondoan, erran ziezón aldean zaion Kapitainari Paulek, Hau zu zarete Romako *den* baten eta kondemnatu eztenaren azotatzera?

26 Eta *haur* enzun zuenean Zentenerak ioanik Kapitainagana, konta ziezón hari, zioela, Iku sak zer egiteko duan: ezen gizon haur Romako *burjes* duk.

27 Eta kapitainak ethorririk harengana, erran ziezón, Erran iezadak, eia hi Romako *burjes* aize nez. Eta hark erran zezan, Bai.

28 Eta ihardets zezan Kapitainak, Nik soma handitan burjesia hori akisitu diat. Eta Paulek dio, Eta ni iaio ere *burjes* nauk.

29 Bertan orduan retira zitezen harenganik hura examinatú behar zutenak: eta Kapitaina ere beldur zedin, ezagaturik ezen Romako *burjes* zela, eta zeren estekatu baitzuen.

30 Eta biharamunean segura iakin nahiz zer kausagatik akusatzen lizen luduez, laxa zezan

estekaduretarik: eta mana zezan, Sakrifikadore prinzipalak bil litezen, eta haien konseillu guzia: eta ekarririk Paul presenta zezan haien aitzinean.

KAP. XXIII.

1 Paul defendatzen. 2 Ananiasek muthurrean eman eraziten. 5 Eta Paulek haren iniuriatzeaz bere burua desenkusatzen. 6 Paulek Fariseu dela erraiten 8 Saduzeuen errora. 10 Paul fortalezara eramaiten. 11 launak konsolatzen. 12 Iudu batzuk bot egin haren kontra: 16 Paul hunez adbertitu, 23 Gero Felixgana eraman izan. 25 Felixi Kapitainak eskribatzen.

1 Eta begiak konseillua baitharat xuxendurik Paulek erran zezan, Gizon anaieak, nik konszientia on guzitan zerbitzatu ukan dut lainkoa egun hunetarano.

2 Orduan Ananias Sakrifikadore subiranoak mana zitzan aldean zaizkonak, hura muthurrean io lezaten.

3 Orduan Paulek erran ziezon, Zehaturen au hi lainkoak, paret xuritu: eta hi baihago Legearen arauz ene iujeatzeko, eta Legearen kontra manatzen duk ni zeha nadin?

4 Eta present ziradenek erran zezaten, lainkoaren Sakrifikadore subiranoa iniuriatzen duk?

6 Eta erran zezan Paulek, Anaieak, ez nakian Sakrifikadore subirano zela: ezen eskribatua da, Eure populuaren prinzeaz eztuk gaizki erranen.

6 Eta iakin zuenean Paulek ezen partida bata zela Saduzeuetarik, eta berzea Fariseuetarik, oihuz iar zedin konseilluan, Gizon anaieak, ni Fariseu naiz, Fariseu seme: hilen esperanzaz eta resurrektioneaz ni akusatzen naiz.

7 Eta haur erran zuenean, egin zedin seditio- ne Fariseuen eta Saduzeuen artean: eta zathi zedin biltzarrea.

8 Ezen Saduzeuek erraiten dute eztela resurrektionerik, ez Aingerurik ez espiriturik: baina Fariseuek bata eta berzea aithor dituzte.

9 Eta egin izan zen heiahora handi bat: orduan Fariseuen alde *ziraden Eskribak* iaikirik bazihardukaten, erraiten zutela, Eztugu deus gaitzik eriden gizon hunetan, baina baldin espi-ritu bat edo Aingeru bat minzatu bazaio ezgaite- zela lainkoaren kontra batailla.

10 Eta seditio handi egin izanik, Kapitainak beldurturik, hezaz Paul zathika ledin, mana zezan jendarmesak iauts litezen haien artetik haren harapatzera eta fortalezara eramaitera.

11 Eta ondoko gauean launak, hari presenta- tzen zaiola, erran ziezon, Paul, auk bihotz on: ezen nola testifikatu baituk nizaz Ierusalemen, hala behar duk Roman ere testifikatu.

12 Eta argitu zenean, luduetarik batzuk egi- nik biltzarre eta bot malediktionerekin, lioitela, ezlutela ianen ez edanen Paul hil lezaketeno.

13 Eta berrogei baino gehiago ziraden koniu- ratione haur egin zutenak.

14 Hek ethoririk Sakrifikadore prinzipaletara eta Anzianoetara, erran zezaten, Bot egin dugu malediktionerekin, deus eztugula dastaturen Paul hil dukeguno.

15 Orain bada zuek iakin erazi iezozue Kapitainari, konseilluaren borondatetik bihar hura erekar diezazuela, harzaz zerbait hobeki ezagutu nahi bazindute bezala: eta gu hura hurbil dadin baino lehen, prest gara haren hiltzera.

16 Baina Paulen arrebaren semea enzunik zelatak, ethor zedin, eta sarthurik fortalezara konta ziezon Pauli.

17 Eta Paulek Zenteneretarik bat beregana deithurik, erran ziezon, Gizon gazte haur eramak Kapitainagana, ezen badik zerbait hari erran beharrik.

18 Hark bada hura harturik eraman zezan Kapitainagana, eta erran zezan, Paul presonerak beregana deithurik othoitz egin dirautak, gizon gazte haur hiregana ekar nezan, zeinek baitu zerbait hiri erran beharrik.

19 Eta Kapitainak hura eskutik harturik, eta apart retiraturik galde egin ziezon, Zer duk niri erran beharrik?

20 Eta *hark* erran zezan, luduek ordenatu die hiri othoitz egitera, bihar Paul konseillura igorri dezan, hobekiago zerbaitez informatu nahi bali-rade bezala harzaz:

21 Baina hik eztiezeala akorda: ezen haien artekorik berrogei gizon baino gehiago haren zelata diaudek: bot eginik malediktioezko penan, eztutela ianen ez edanen hura hil dukeiteno: eta orain prest diaudek, hik zer prometaturen drauean begira.

22 Kapitainak bada igor zezan gizon gaztea, hari manaturik, nehoi ezlerron nola gauza hauk hari dklaratu zerauzkan.

23 Eta deithurik bi Zentener erran ziezen, Edukitzazue prest ber-ehun jendarmes Zesarea-rano ioaiteko, eta hirurogei eta hamar zamaldun, eta ber-ehun arxer, gauaren heren oreneko.

24 Eta den abre prestik, igan erazirik Paul salburik eraman dezatenzat Felix gobernadore handiagana.

25 Eta eskriba zietzon letra batzu tenor hune-takorik,

26 Klaude Lisiasek Felix gobernadore guzizko exzellentari, salutatione.

27 Gizon haur luduez hatzamana, eta ia hezaz hiltzeko zegoela, ethorririk garnizoinarekin edeki diraueat, ezaguturik ezen Romako *burjes* zela.

28 Eta iakin nahiz zer kausagatik akusatzen luten, eraman ukan diat haien konseillura.

29 Zein eriden baitut akusatzen zela beren Legeko kestionez, eta heriorik edo presoinik merezi luen hogenik batre etzuela.

30 Eta adbertitu izanik gizon huni luduez egi-ten zaizkan zelatez, bertan igorri ukan diat hire-gana: manamendu eginik akusazalei ere, hunen kontretako dituzten gauzak hire aitzinean erran ditzaten. Ungi aizela.

31 Jendarmesek bada haei manatu izan zaien bezala, Paul harturik eraman zezaten gauaz Antipatrisera.

32 Eta biharamunean utzirik zamaldunak harekin loazenzat, itzul zitezen fortalezara.

33 Eta hek Zesareara ethorririk eta Gobernadore handiari letrak emanik, Paul ere haren aitzinera presenta zezaten.

34 Eta irakurri zituenean Gobernadore handiak *letrak*, eta zer probinziatako zen hura interrogatu zuenean, eta ezaguturik ezen Ziliziako zela:

35 Enzunen aut dio, hire akusazaleak ere ethorri diratenean. Eta mana zezan Herodesen palatioan begira ledin.

KAP. XXIII.

3 Tertullek Paulen kontra rekesta egiten. 10 Paulek bere buruagatik ihardesten, 14 eta bere bizitzeaz eta fedeaz razoin emaiten. 24 Felix gratioso Paulgana. 25 Paulek Felixi eta haren emazteari Krist predikatzen. 28 Festus Felixen sukzesor.

1 Eta borz egunen buruan iauts zedin Ananias Sakrifikadore subiranoa Anzianoekin, eta Tertulle *deitzen zen* orator batekin: hek konpari zitezen Gobernadore handiaren aitzinean Paulen kontra.

2 Eta Paul deithu izanik, Tertulle has zedin akusatzen, zioela,

3 Felix guzizko ezellentea ezagutzen diagu esker guzirekin gauza guzietan eta leku guzietan, ezen guk ardietsi dugula bake handia hizaz, eta eure probidentiaz populu hunetan egin dituan ordenanza onez.

4 Baina luzakiago eduki ezezadan, othoitz egiten drauat enzun gaitzan guti bat eure ontasunagatik.

5 Ezen eriden diagu gizon pestilentioso haur seditone altxatzen drauela ludu guziei mundu orotan, eta Nazarenoren sektaren buru *dela*:

6 Zein tenplearen profanatzen ere enseiatu izan baita, eta hatzamanik nahi ukan diagu gure Legearen araez iujeatu.

7 Baina ethorririk Lisias kapitainak bortxa handirekin edeki ukan diraukuk gure eskuetarik.

8 Haren akusazaleak hiregana ethor litezen manaturik: beraganik eurorrek informatione eginik iakin ahal ditzakek gauza guziak, zeinezaz guk hori akusatzen baitugu.

9 Eta konsenti zezaten luduek ere, erraiten zutela, gauza hauk hala liradela.

10 Baina ihardets zezan Paulek, Gobernadore handiak minza ledin hari keinu eginik, Zeren bai-

takit anhitz urthe duela natione hunen iuje aize-
la, gogotikago neure buruaz ihardesten diat:

11 Ikusirik ezen hik ezagut ahal dekakeala
nola hamabi egun baino gehiago eztiraden, igan
minzenetik Ierusalemera, adoratzer.

12 Eta eznie tenplean eriden nehorekin dis-
putatzen ari naizela, edo jende biltzen, ez sina-
gogetan, ez hirian:

13 Eta ezin foroga zitzakee ni orain akusa-
tzen nauten gauzak.

14 Baina haur aithortzen drauat, ezen sekta
deitzen duten bide haren araez, hunela dudala
neure aiten lainkoa zerbitzatzen, sinhesten ditu-
dalarik Legean eta Profetetan eskribatuak dira-
den gauza guziak.

15 *Eta esperanza* dudalarik lainkoa baithan,
izanen dela hilen resurrekzionea, hanbat iustoe-
na nola iniustoena, zeinen begira berak ere bai-
taude.

16 Halakotz pena ere ezarten diat, konszien-
tia dudan lainkoagana eta gizonetara trebuku
gabe bethiere.

17 Eta anhitz urtheren buruan, ethorri izan nauk neure nationera elemosina eta oblatione egitera.

18 Ordu hartan eriden nie purifikatua tenplean, ez *ordea* jendetzerekin, ezeta tumulturekin, Asiako ludu batzuk.

19 Zeinek behar baitzuten hire aitzinean konparitu, eta ni akusatu, baldin deus ene kontra bazuten.

20 Edo hauk berok erran bezate baldin zer-bait gaixtakeria eriden badute nitan, ni konseilluan presentatu izan naizenean.

21 Haien artean nengoela oihu egin nueneko boz bakoitz haur baizen, Hilan resurrektioneaz ni akusatzan naiz egun zuezaz.

22 Gauza hauk enzunik, Felixek igor zitzan hek berze aldi batetarano, zioela, Sekta horrez zer den dilijentkiago ezagutu dukedanean, Lisias kapitaina iausti datenean, osoki ezaguturen duket zuen egitekoa.

23 Eta mana zezan Zentener bat, begira ledin Paul eta largoan ezar ledin, eta nehor ez lezan enpatxa haren ezagunetarik haren zerbitzatzetik edo harengana ioaitetik.

24 Eta zenbaitrabeit egunean buruan, Felixek ethorririk Drusilla bere emaztearekin, zein baitzen Iudaka, erekar zezan Paul, eta enzun zezan hura *minzutzen* Krist baithango fedez.

25 Eta nola hura disputatzen baitzen iustitiaz, eta tenperantiaz, eta izateko den iudizioaz, espantaturik Felixek ihardets zezan, Oraingotz habil, eta aizarik dudanean deithuren aut.

26 Berahala eskun gainean esperanza zuelarik ezen Paulek zerbait diru emanen zeraukala, larga lezanzat halakotz ere maiz erekartan zuen eta minzutzen zen harekin.

27 Eta bi urtheak konplitu ziradenean, har zezan sukzesor Felixek Porzius Festus: eta plazer egin nahiz Iuduei Felixek utzi zezan Paul presoner.

KAP. XXV.

2 Sakrifikadore subiranoa eta Iudu prinzipalak Paulen kontra fabore eskez egon. 10 Paulek bere burua Festusen aitzinean defendatzen, 11

*gero Zesargana apellatzen. 13
Festusek Agriparekin eta
Bernizerekin Paullen egitekoa
aipatzen. 24 Zergatik eztuen
Festusek Paul kondenatu.*

1 Festus bada probinzian sarthurik hirur egunen buruan ioan zedin Ierusalemara Zesarearik.

2 Eta konpari zitezzen haren aitzinean Sakrifikadore subiranoa eta Iuduen arteko prinzipaleak Paulen kontra, eta othoitz egiten zeraukaten.

3 Fabore eskez zeudela haren kontra, hura erekar lezanzat Ierusalemara: zelata zaizkolarik hura bidean hil lezatenzat.

4 Eta Festusek ihardets zezan, ungi begiratu izanen zela Paul Zesarean, eta bera sarri *harako* lizela.

5 Bada zuetarik (dio) ahal ditezenak, elkarrekin iauts bitez, eta baldin zenbeit hogen gizon haur baithan bada akusa bezate.

6 Eta hamar egun baizen haien artean egon gaberik, iauts zedin Zesareara: eta biharamu-

nean iarririk iudizioko alkiari, mana zezan Paul erekar ledin.

7 Hura hara ethorri zenean ingura zezaten Ierusalemetik iausti izan ziraden Iuduek akusatione anhitz eta pizurik ekarten zutela Paulen kontra, zein ezin foroga baitzitzakeizten:

8 Ihardesten zuelarik Paulek, ezen deusetan ezluela faltatu Iuduen Legearen kontra, ez templearen kontra, ez Zesaren kontra.

9 Baina Festusek atsegin egin nahiz Iuduei, ihardesten zeraukala Pauli, erran zezan, Nahi aiz Ierusalemera igan eta han gauza hauzaz iujeatu ene aitzinean?

10 Eta erran zezan Paulek Zesaren iudizioko alki aitzinean niagok, non behar bainaiz iujeatu. Iuduei deusetan eztiraueat iniuriarik egin, hik ere ungi dakian bezala.

11 Ezen baldin gaizkirik egin badut, edo deus herio merezi duenik akometitu badut, eztiat hiltzera refusatzen: baina baldin horiek akusatzen nautenatarik deus ezpada, nehork horiei ezin eman niezakeek: Zesargana apellatzen nauk.

12 Orduan Festusek konseilluarekin minzaturik, ihardets zezan, Zesargana apellatu aiz? Zesargana ioanen aiz.

13 Eta zenbeit egunen buruan Agripa regea eta Bernize iauts eitezen Zesareara Festusen salutatzer.

14 Eta anhitz egun han egonik Festusek Regeri aipa ziezon Paulen egitekoa, erraiten zuela, Gizon bat utzi izan duk Felixez presoner:

15 Zeinen kausaz, ethorri ninzenean Ierusalem, konpari baitzitezen Sakrifikadore prinzipalak eta Iuduen Anzianoak, haren kontra kondemnatione rekeritzen zutela.

16 Eta ihardetsi diraeat, eztutela Romanoek kostuma nehoren heriotara liuratzeko, akusatzan denak *bere* akusazaleak aitzinean ditukeeno, eta defendatzeko leku har dezakeeno hogez.

17 Bada huna ethorri ziradenean, luzamendurik batre gabe, biharamunean iudizioko alkiari iarririk, mana niezan ekar ledin gizona.

18 Haren akusazaleak han present ziradela, etzezatean hogonik batre ekar, nik uste nuenaren gainean.

19 Baina kestione batzu zitiztean haren kontra beren superstitioneaz, eta edozein Iesus hilik bizi lizela Paulek seguratzten zuen batez.

20 Eta nik, halako kestioneaz egitekotan izanez, erran niezoan, eia nahi lizenez Ierusalem-era ioan, eta han iujea ledin gauza hauzaz.

21 Baina zeren apella baitzedin reserba ledinzat Augustoren ezagutzera, mana niezan begira ledin hura igor nezakeno Zesargana.

22 Agripak orduan erran ziezon Festusi, Nahi nitek neurorrek ere gizona enzun. Eta hark, Bihar, dio, enzunen duk.

23 Bada biharamunean ethorri ziradenean Agripa eta Bernize ponpa handirekin, eta sarthu ziradenean audienzian kapitainekin eta hiriko jende autoritatezkoekin: Festusen manamenduz erekar zedin Paul.

24 Eta Festusek dio, Rege Agripa, eta hemen gurekin zareten guziak, badakusazue gizon haur, hunez luduen konpainia guzia minzatu izan zait hanbat Ierusalemen nola hemen, heiagoraz, hunek eztuela gehiagorik bizi behar.

25 Baina nik eriden dut, deus hunek eztuela egin herio merezi duenik: badarik ere bera

Augustogana apellatu denaz geroz, deliberatu dut harengana igortera.

26 Hunezaz zer segurik eskriba diezodan iau-nari eztut. Halakotz ekarri ukan dut zuetara, eta prinzipalki hiregana, rege Agripa, informatione eginik zer eskriba dudanzat.

27 Ezen eztela razoinik irudi daut, presoner baten igortea, eta haren kontratako hogenak eztitezen notifika.

KAP. XXVI.

2 Paulek bere bizitzeaz eta fedeaz razoin emaiten. 5 Fariseu dela erraiten. 8 Resurrektioea. 18 Bekatuen barkamendua. Penitentia, konbertitzea, obrak. 24 Festusek Paul sobera iakinez erho estimatzen.

1 Agripak orduan Pauli erran ziezon, Permetitzen zaik eure buruagatik minzatzea. Orduan Paul eskua hedaturik has zedin razoin emaiten, zioela,

2 Rege Agripa, dohatsu neure burua estima-tzen diat zeren egun hire aitzinean ihardetsi behar baitut, luduez akusatzen naizen gauka guziez

3 Prinzipalki zeren baitakit ezagutzen dituala luduen artean diraden kostuma eta kestione guziak: halakotz othoitz egiten drauat, patientki enzun nezan.

4 Bada ene bizitze gaztetasunetik eraman dudana den bezenbatean, eta zerik lehen hatsetik izan den ene nationean Ierusalemen, badakite ludu guziek:

5 Lehendanik ezagaturik (baldin testifikatu nahi badute) nola neure aitzinekoakdanik gure relijioneko sekta guzizko exzellentaren araez bizi izan naizen Fariseu.

6 Eta orain lainkoaz gure aitei egin izan zaien promeseko esperanzaren kausaz, iudizioan aku-saturik nago.

7 *Promes* hartara gure hamabi leinuek ardu-ra gau eta egun *lainkoa* zerbitzatzen dutela hel-duren diradela esperanza dute, zein esperanzaz (o Rege Agripa) luduek ni akusatzen bainaute.

8 Zer? sinhets ezin daitenetan dadukazue zuek baithan, lainkoak hilak resuszititzen dituela?

9 Eta nizaz den bezenbatean irudi izan zait ezen Iesus Nazarenoren izenaren kontra resistentia handi egin behar nuela:

10 Eta egin ere badut Ierusalemen: eta anhitz saildu nik presoindegietan enserratu ukan dut, Sakrifikadore prinzipaletarik bothere ukanik: eta nehork hiltzen zituenean *neure* sententia emaiten nuen.

11 Eta sinagoga guzietan maiz punitzen nituela bortxatzen nituen blasfematzera: eta sobera minthurik haien kontra, persekutatzen nituen hiri arrotzetarano.

12 Denbora hartan Damaszerat ere ioaiten ninzela Sakrifikadore prinzipalen botherearekin eta komisionearekin.

13 Egunaren erdian, o Rege, bidean ikus nieran zerutiko argi bat iguzkiarena baino klaroagorik, argitzen gentuela ni eta enekin bidean ioaiten ziradenak.

14 Eta gu guziak eroririk lurrera, enzun nieran boz bat niri minzo zaitadala, eta zioztala

Hebraikoen lengoajez, Saul, Saul, zergatik ni persekutatzen nauk? gogor duk hiretako akuloen kontra ostiko egitea.

15 Nik orduan erran niezan, Nor aiz launa? Eta hark erran ziezadan, Ni nauk Iesus hik persekututzen duana.

16 Baina iaiki adi, eta ago zutik eure oinen gainean: ezen hunegatik agertu natzaik, ordena enzadanzat ministre eta ikusi dituan eta agerturen natzaian gauzen testimonio:

17 Idokiten audalarik populu *horretarik* eta Jentiletarik, zeinetara orain igorten baihaut, 18 Ireki ditzanzat haien begiak, konberti ditezenzat ilhunbetik argira, eta Satanen botheretik lainkoagana, rezebi dezatenzat bekatuen barkamendua, eta zorthea sanktifikatuen artean, ni bait-hango fedez.

19 Hunegatik, o Rege Agripa, eznitzaiok desobedient izan zerutiko bisioneri.

20 Baina Damaszen ziradenei lehenik, eta Ierusalemen, eta Iudeako komarka guzian *ziradenei*, gero Jentilei ere predikatu diraueat emenda litezen eta konberti lainkoagana, obrak egiten lituztelarik emendamendutako digneak.

21 Kausa hunegatik luduak ni tenplean hatzamanik enseiatu izan dituk ene hiltzen:

22 Baina lainkoaren aiutaz aiutatu izanik iraun diat egungo egunerano, testifikatzen drauedala hanbat xipiei nola handiei, eta deus erraiten eznuela Profetek eta Moisesek ethorteko ziradela aitzinetik erran duten gauzarik bai-zen:

23 *Ezen* behar zela Kristek sufri lezan, eta hilen resurrekzioneko lehena lizen, zeinek populu huni eta Jentilei argia denuntiatu behar baitze-rauen.

24 Eta gauza hauk bere defensatan erraiten zituela Festusek ozengi erran zezan, Zoratu aiz Paul, letretako iakin handiak zoratzan au.

25 Eta Paulek, Eznauk zoratzan, dio, Festus guzizko exzellentea, baina egiazko eta adimendu onetako hitzak erraiten zitiat.

26 Ezen bazeakizkik gauza hauk Regek, zeinen aitzinean minzo ere bainaiz frangoki: zeren estimatzen baitut gauza hautarik eztela deus hark eztakianik: ezen gauza haur eztuk zokoan egin izan.

27 O rege Agripa, sinhesten dituk Profetak? bazeakiat ezen sinhesten dituala.

28 Eta Agripak erran ziezon Pauli, Hurrensu gogatzen nauk Kristino egin nadin.

29 Orduan Paulek erran zezan, lainkoa bait-han desir nitek bai hurrensu bai xoil, ez hi solament, baina ni egun enzuten nauten guziak ere egin zindeizten halako, nolako ni bainaiz, este-kaillu hauk salbu.

30 Eta gauza hauk *hark* erran zituenean, iaiki zedin Rege, eta Gobernadorea, eta Bernize, eta hekin iarri izan ziradenak.

31 Eta apartatu ziradenean bere artean minzo ziraden, zioitela, Deus herio edo presoin-degi merezi duen gauzarik eztu egiten gizon hunek.

32 Eta Agripak Festusi erran ziezon, Larga ahal zieitean gizon haur baldin apellatu izan ezpaliz Zesargana.

KAP. XXVII.

1 Paul Romara eramaiten, 22 Eta hark lainkoaren aiutaren begira egoitera bere lagunak exhortatzen.

25 Fedea. 33 Paulek refektione hartzera konpainia inzitatzen. 35 Eta lainkoa guzien aitzinean regratiaturik iaten. 41 Unzia eta goitiko gauzak desegiten dirade eta nehor ez galtzen.

1 Ordenatu izan zenean gu Italiarat enbarkaturen genela, eman zietzoten bai Paul bai berze presoner batzu Iulio deitzen zen Zentener Augustoren bandako bati.

2 Eta iganik Adramiteko unzi batetara, Asiako komarketara ioaitera parti gentezen, eta gurekin zen Aristarke Mazedo Thesalonizeanoa.

3 Eta ondoko egunean arriba gentezen Sidonera, eta luliok humanoki Paul traktaturik, permeti zezan adiskidetaratzat ioanik, hezaz trakta ledin.

4 Gero handik partiturik Zipre beherera io genezan, zeren haize kontreak baitziraden.

5 Eta Ziliziaren eta Panfiliaren aurkan den itsasora iraganik, ethor gentezen Mira Liziako hirira.

6 Eta han Zentenerak eridenik Alexandriako unzi Italiarat ioaiten zen bat, hartara sar erazi genzan

7 Eta anhitz egunez baratx ioaiten genela, eta nekez Gnidako aurkara heldurik, haizeak permetitzen etzeraukularik, iragan gentezen Kreta beherera Salmonen aurkan.

8 Eta nekez hura iragaiten genduela, ethor gentezen Portu-ederrak deitzen den leku batetara, zeinen aldean baitzen Laseako hiria.

9 Eta zeren anhitz denbora iragan baitzen, eta ia urean ioaitea perilos, zeren ia barura ere iragan baitzen, konseillatzen zituen Paulek,

10 Ziostela, Gizonak, badakusat ezen itsasosan ioaitea ez solament kargaren eta unziaren, baina gure bizien ere peril eta kalte handirekin izanen dela.

11 Baina Zentenerak sinhestenago zuen gobernazalea eta pilotua, ezen ez Paulek erraiten zituen gauzak.

12 Eta zeren portua ezpaitzen leku onean neguaren iragaiteko, gehiagoak opinionetako ziraden handik ere partitzera, neholere Fenizera arriba ahal litezkenez, han neguaren iragaiteko, zein baita Afrikako eta Koroko haizeari dagokan Kretako portu bat.

13 Orduan egu-erdi haizea emeki altxatzen hasirik, bere intentionearen konplimenduan ziradela ustez, partiturik, kostabazterka zezaten aldetsuaz Kreta.

14 Baina handik sarrisko altxa zedin harenganako aldetik haize tenpestatezu Euroklidon deitzen den bat.

15 Eta unzia haizeaz eramán izan zenean, hala non kontra ezin ioan baitzaiten, *haizeari unzia* abandonaturik eramaiten genen.

16 Eta Klauda deitzen den islato baten behe-
rera iragan genenean, nekez batelaren iabe izan ahal genen.

17 Hura tiraturik marinerek remedio guziak bilhatzen zituzten, unzia beheretik hersturik: eta

Sirtera eror beldurrez, belak erautsirik, berahala eramaiten ziraden.

18 Eta zeren tenpestate handiz tormentatzen baikenen biharamunean egoizte egin zezaten

19 Gero hereneko egunean geurok gure eskuz unziko aparailua egotz genezan.

20 Eta nola ez iguzkirik ez izarririk anhitz egunez ezpaitzekigun ager, eta tenpestate handiak hertsen baikentuen gehiagorik salba ahal gencezkelako esperanza guzia gal genezan.

21 Baina denbora luzez ian gaberik egon izan ziradenean, orduan zutik Paulek haien artean, erran zezan, O gizonak, behar zatekeen ni sinhetsirik Kretatik ezkinen partitu, eta ihes egin peril eta kalte huni.

22 Baina orain exhortatzen zaituztet zareten bihotz onetako, ezen zuetarik baten ere galtzerik ezta izanen, unziarenik baizen.

23 Ezen presentatu izan da ene aitzinean gau hunetan lainkoaren Aingerua, zeinena bainaiz ni, eta zein zerbitzatzen baitut,

24 Ziostala, Paul, eztuala beldurrik, Zesari presentatu behar atzaio: eta horra, eman drauzkik lainkoak hirekin unzian diraden guziak.

25 Hunetakotz bihotz on auzue, gizonak: ezen sinhesten dut lainkoa, nola niri erran izan baitzait hala izanen dela.

26 Baina zenbeit islatara egotzi behar gara.
27 Bada hamalaurgarren gaua ethor zedinean, hara huna erabilten genela *itsas* Adriatikoa, gauaren erditsuan, estima zezaten marinerek, ezen hurbiltzen litzeiela zenbeit komarka.

28 Baina plomua hundarrera egotzirik, eriden zezaten hogeitaz braza, eta handik apur bat gibeletaturik, eta berriz plomua hundarrera egotzirik, eriden zezaten hamaborz braza.

29 Eta beldurrez leku gaitzetara eror litezen laur angura unzi gibeletik egotzirik, desiratzen zuten eguna ethor ledin.

30 Eta marinerak unzitik ihes egin nahiz zabilzala, batela itsasora erautsirik, alegia hek angurak unzi aitzinetik hedaturen.

31 Erran ziezen Paulek Zentenerari eta jendarmesei, Baldin hauk unzian ezpadaude, zuek ezin salba zaitezket.

32 Orduan jendarmesek ebaki zitzaten bate-laren kordak, eta utzi zezaten beherera erortera.

33 Eta argiaren gainera exhortatzen zituen Paulek guziak, ian lezaten, zioela, Egun haur da hamalaurgarrena, barurik beha zaudetela *eta* deus hartu eztuzuela.

34 Hunegatik exhortatzen zaituztet har dezazuen iatera: zeren haur zuen enparatzeari apernitzen baitzaio: ezen zuetarik baten ere burutik bilo bat ezta galduren.

35 Eta gauza hauk erranik, *eta* ogia harturik gratiak renda zietzon lainkoari guzien aitzinean: *eta* hautsirik, has zedin iaten.

36 Eta guziek bihotz harturik, har zezaten hek ere iateko.

37 Eta baginen arima guziak unzian, berrehun *eta* hirurogei *eta* hamasei.

38 Eta biandaz resasiaturik, arind zezaten unzia, ogi-bihia itsasora egoizten lutela.

39 Eta eguna ethorri zenean, herria etzezatzen ezagut: baina portu itsas adar zuen bati ohart zekizkion, hartara, egin albalute, unzia egotzi aiher ziraden.

40 Eta angurak altxaturik itsasoari *unzia* abandona ziezoten, gobernailen iunktadurak

ere laxaturik, eta haizeari bela altxaturik, tiratzen ari ziraden kostara.

41 Baina eroririk bi *ur* lasterrek enkontru egiten zuten leku batetara, trebuka zekien unzia: eta unzi aitzinea landaturik tink zegoen: eta unzi gibela hausten zen bagen botherez.

42 Orduan jendarmesen konseillua zen presoneren hiltzera, beldurrez zenbeit igeri salbaturik itzur ledin.

43 Baina Zentenerak Paul enparatu nahiz, harzara zitzan konseillu hartarik, eta mana zezan igeri ahal laiditenak, bere buruak egotzirik lehenik, lurrera enpara litezen:

44 Eta berzeak, batzu taula gainetan, batzu unzi *zapoetan*: eta halatan egin zedin guziak salburik enpara baitzitezen lurrera.

KAP. XXVIII.

*3 Pauli bipera bat eskutik lotzen. 7
Malteko islan Publiusen aita eta
berze eririk Paulek sendatzen: 13
Eta Puzolen fideletarik batzu*

*erideiten. 14 Paul Romara
arribatzen. 16 Haren libertatea 17
Zergatik hara eraman izan den. 23
Han lainkoaren resuma
denuntiatzen. 28 Salbamendua
Jentilei igorri. 39 Bi urthe Paul
Roman egon.*

1 Eta salburik enparatu ziradenean, ezagut zezaten orduan ezen isla Malte deitzen zela.

2 Eta Barbaroek humanitate handi egin ziezaguten: ezen sua bizturik rezebi genzaten gu guziak, gaineanzen zaikun uriagatik, eta hotzagatik.

3 Bildu zuenean bada Paulek zenbeit sirmendu apur, eta ezarri zituenean sura, bipera bat beroaren kausaz ilkirik lot zekion eskutik.

4 Eta ikusi ukan zutenean Barbaroek dilindoka bestia haren eskutik, elkarri ziotsaten, Falta gabe gizon haur gizerhaile da, zein itsasotik, enparaturik mendekioak ezpaitu permetitzen bizi den.

5 Baina hark bestia sura iharrosirik etzezan minik har.

6 Eta hek beha zeuden noiz hant leiten, edo subitoki hilik eror leiten: baina luzaki beha egon izan ziradenean, eta zakusatenean kalterik batre etzaiola ethorten, proposa kanbiaturik erraiten zuten, lainko zela hura.

7 Eta ziraden leku hartan islako prinzipal Publio deitzen zenaren posesioneak, zeinek gu rezebiturik, hirur egunez benignoki lojea baikenzan.

8 Eta gertha zedin Publioren aita baitzatzan helgaitzek eta sabeldarzunak zadukatela: hura baithara Paul sar zedin, eta othoitz eginik, eta eskuak haren gainean ezarririk senda zezan.

9 Bada haur egin eta, islako berze eritasunik zutenak ere ethorten ziraden eta sendatzen.

10 Hek ere ohore handi egin ziezaguten, eta enbarkatzerakoan behar zenaz forni genzaten.

11 Eta hirur hilebetheren buruan enbarkagentezen Alexandriako unzi islan negua iragan zuen batetan, zeinek baitzituen enseignatzat Kastor eta Polluk.

12 Eta Sirakusara arribaturik, *han* egon gentezen hirur egun.

13 Handik inguru eginik arriba gentezen Rhejera: eta egun baten buruan egu-erdi haizea iai-kirik, bigarren egunean ethor gentezen Puzolera:

14 Han anaieak eridenik, othoiztu izan genen egoitera hekin zazpi egun: eta hala ethor gentezen Romara.

15 Handik anaieak gure berriak enzunik biderra ilki zekizkigun Apioren merkaturano, eta Hirur botigetarano: hek ikusi zituenean Paulek, lainkari eskerrak rendaturik kuraje har zezan.

16 Eta ethorri izan genenean Romara, Zentenerak eman zietzon kapitain jeneralari presone-rak: baina permeti zekion Pauli bere gain egoite-ra, hura begiratzan zuen jendarmesarekin.

17 Hirur egunen buruan dei zitzan Paulek ludu prinzipalak: eta bildu ziradenean erran ziezen, Gizon anaieak, nik deus egin ezpadut ere populuaren kontra edo aiten kostumen kontra, Ierusalemen presoner egin izanik liuratu izan naiz Romanoen eskuetara:

18 Zeinek examinatu nendutenean largatu nahi ukan bainenduten, zeren heriotako hogenik batre nitan etzen.

19 Baina luduak kontrastatzen ziradenaren gainean, ezin berzez Zesargana apellatu izan naiz: ez neure nationea zerzaz akusa dezadan dudalakotz.

20 Kausa hunegatik bada deithu zaituztet, ikus zinzatedan eta minza nengizuenzat: ezen Israeleko esperanzaren kausaz kadena hunez inguratua nago.

21 Eta hek erran ziezoten, Guk ez letrarik rezebitu diagu hizaz ludeatik: ez ethorririk anaie-tarik nehork denuntiatu dik edo erran deus hizaz gaizkirik.

22 Baina nahi diagu hireganik enzun zer irudi zeian: ezen sekta horrez den bezenbatean, bazeakiagu ezen leku guzietan nehor kontrastatzen zaiola.

23 Eta asignatu ukan zeraukatenean eguna, ethor zitezen harengana ostatura anhitz: eta testifikationerekin deklaritzen zerauen lainkoaren resuma, eta erakusten zerauzten lesusez diraden gauzak, hanbat Moisesen Legetik nola Profetarik goizetik arratserano.

24 Eta batzuk sinhesten zituzten erraiten ziraden gauzak, baina berzek etzituzten sinhesten.

25 Eta elkarren artean akord etziradenaren gainean, parti zitezenez, Paulek hitz haur erran eta, Segurki ungi Espiritu saindua minzatu izan zaie Esaias profetaz gure Aitei,

26 Zioela, Habil populu horrengana, eta errak, Enzutez enzunen duzue eta eztuzue adituraren: eta dakusazuela ikusiren duzue eta etzaizkiote oharturen.

27 Ezen gizendu da populu hunen bihotza, eta beharriez gothorki enzun ukan dute, eta bere begiak ertsi ukan dituzte: begiez ikus, eta beharriez enzun, eta bihotzez adi eztezatentzat, eta konberti eztitezen, eta senda eztitzadan.

28 Iakizue bada zuek ezen Jentilei igorri izan zaiela salbagarri haur, eta hek enzunen dutela.

29 Eta gauza hauk erran zituenean, ilki zitezenez luduak, bere artean disputa handi zutela.

30 Baina egon zedin Paul bi urthe konpliturik bere ostatu alokatuan: eta rezebitzen zituen harengana ethorten ziraden guziak:

31 Predikatzen zuela lainkoaren resuma, eta irakasten zituela Iesus Kristi launaz diraden gauzak, minzatzeko hardieza guzirekin, nehork enpatxurik egin gabe.

S. PAUL APOSTOLUAREN ROMANOETARATKO EPISTOLA

KAP. I.

*1 Ebanjelioa Apostolu izateko elejitu.
3 Krist. 8 Romanoen fedea. 11, 14
Guzietara zordun Paul. 16
Ebanjelioa. 18 Iainkoaren hira
infidelitatearen ganean. 21 Gizonen
Iainkoagana ingrat izatea. 23
Idolatria. 24 Iainkoaren egiaren
menosprezazalen punitionea. 26
Iainkoaz abandonatu izan diradenen
fruktuak.*

1 Paulek Iesus Kristen zerbitzariak Apostolu izatera deithuak, Iainkoaren Ebanjelioaren *predikatze*ko bereziak.

2 (Zein lehendanik bere Profetez Eskriptura sainduetan *Iainkoak* prometatu ukan baitzuen)

3 Bere Seme haragiaz den bezenbatean Dabid-en hazitik eginaz,

4 Sanktifikationetako Espirituaz den bezenbatean hiletariko resusztatzez lainkoaren Seme botheretsuki deklaratuaz, Iesus Krist gure launaz:

5 Zeinaganik rezebitu baitugu gratia eta Apostolutasuna fedea obedi dadinzat, Jentil guziak baithan haren izenean:

6 Zeinen artean zuek ere deithu izan baitzarete Iesus Kristgana.

7 Roman zareten guziei, lainkoaren onhetsiei, saindu izatera deithuei: Grazia *dela* zuekin eta bakea gure lainko Aitaganik, eta Iesus Krist launaganik.

8 Lehenik behinzat esker draukat neure lainkoari Iesus Kristez zuen guziokgatik, zeren zuen fedea famatzen baita mundu orotan.

9 Ezen lainkoa dut testimonio (zein zerbitzatzan baitut neure espirituan bere Semearen Ebanjelioan) ezen pausu gabe zuezaz memoria egiten dudala:

10 Bethiere neure orationetan othoitz eginez, baldin zerbait maneraz noizpait ere bide moldez-

korik eman badakit lainkoaren borondatez, zue-
tara ethor nadin.

11 Ezen zuen ikusteko desir handia dut, zen-
beit dohain espiritual parti diezazuedanzat, zuen
konfirmatzeko:

12 Erran nahi dut, zuen eta ene elkarrekilako
fedeaz konsola nadinzat.

13 Eztut bada nahi ignora dezazuen, anaieak,
ezen anhitzetan zuetara ethortera deliberatu
dudala (baina enpatxatu izan naiz oraindrano)
zenbeit fruktu nuenzat zuetan ere, berze Jentile-
tan ere bezala.

14 Zordun naiz hanbat Grekoetara nola Bar-
baroetara, hanbat zuhurretara nola ignoranteta-
ra.

15 Bada, nitan den bezenbatean prest naiz
zuei Roman zaretenoi ere ebanjelizatzeraz.

16 Ezen eznaiz ahalke Kristen Ebanjelioaz:
zeren lainkoaren botherea baita, sinhesten duen
guziaren salbamendutan, luduaren lehenik eta
gero Grekoaren.

17 Ezen lainkoaren iustitia hartan erakusten
da fedetik federa: eskribatua den bezala, lustoa
fedez biziko da.

18 Ezen lainkoaren hira klaroki erakusten da zerutik, egia iniustitiatan dadukaten gizonen infidelitate eta iniustitia ororen kontra:

19 Zeren lainkoaz ezagut ahal daitena manifest baita hetan: ezen lainkoak haei manifestatu ukan draue.

20 Ezen haren gauza inbisibleak (hala nola haren bothere eternala eta dibinitatea) munduaren kreationetik ikusten dirade, gauza kreatu hautarik konsideratzen diradenean: exkusa gabe diradenzat.

21 Zeren lainkoa ezagutu ukan dutenaren gainean, ezpaitute lainko bezala glorifikatu, ez regratiatu: baina bano egin izan dirade bere diskursuetan, eta haien bihotz adimendu gabea ilhunbez bethe izan da.

22 Bere buruak zuhur egiten zituztelarik erho egin izan dirade.

23 Ezen kanbiatu ukan dute lainko inkorrup-tiblearen gloria, gizon korruptiblearen imajinatarra, eta hegaztinen, eta laur oinetako bestien, eta herrestez ebiltzen diradenen *imajinatarra*.

24 Halakotz lainkoak ere abandonatu ukan ditu hekberen bihotzetako guthizietara, satsuta-

sunera, bere gorputz propioei itsusgoa egitera elkarren artean:

25 Nola lainkoaren egia gezurretara kanbiatu ukan baitute, eta adoratu baitituzte eta zerbitzatu kreaturak, utzirik Kreazalea zein baita eternal-ki benedikatua, Amen.

26 Halakotz bada abandonatu ukan ditu lainkoak itsusgoatako afektionetara: ezen haien emaztek ere kanbiatu ukan dute usanza naturala natura kontra denera:

27 Eta halaber arrak ere, utzirik emazten usanza naturala, berotu izan dirade bere guthizian bata berzeagana, arrak arrarekin infamiatako gauzak egiten zituztela, eta berak baithan rezebitzen lutela bere hogenaren rekompensa behar zen bezalakoa.

28 Eta nola ezpaitute konturik egin lainkoaren ezagutzetan edukitera: *hala* abandonatu ukan ditu lainkoak iujemendu guziren falta den espiritu batetara: bide eztiraden gauzen egitera:

29 Iniustitia guziaz betheak, paillardizaz, gaixtakeriaz, abaritiaz, malitiaz: inbidiaz betheak, gizerhaitekaz, guduz, enganioz, konditione gaixtoz:

30 Raportari, gaitzerraile, lainkoaren gaitzesle, iniuriazale, urgulutsu, bantari, gaitz-erideile, aitamena desobedient:

31 Adimendu gabe, paktoen hautsle, afektio-ne natural gabe, apazega ezin daitezken bezalako, miserikordia gabe.

32 Zeinek lainkoaren zuzena ezagutu badute ere (nola halako gauzak egiten dituztenek, herio merezi duten) eztituzte egiten solament, baina are *halakorik* egiten dutenak faboratzen dituzte.

KAP. II.

1 lainkoaren iujemendua hipokriten ganean. 4 lainkoaren benignitatea.

6 Obren araez batbederari rendaturen. 11 lainkoa baithan personen akzeptionerik ezta. 13 luduak eta Jentilak zergatik reprehenditzen diraden. 17 luduen urgulua. 25 Zirkonzisioea. 26 Preputioa.

1 Halakotz exkusa gabe aiz o gizona, nor ere baitaiz *berzeak* iujeatzen dituana: ezen hunez beraz zeren iujeatzen baituk berzea, eure burua kondemnatzen duk: ikusirik ezen iujeatzen ari aizenorrek, gauza berak egiten dituala.

2 Eta badakigu ezen lainkoaren iujemendua egiaren araura dela halako gauzak egiten dituztenen gainean.

3 Eta uste duk, o gizon halako gauzak egiten dituztenak iujeatzen dituana, eta *eurorrek* hek egiten, ezen hi itzuriren atzaiola lainkoaren iujemenduari?

4 Ala haren benignitatearen eta patientiaren eta igurikite luzearen abrasasuna menospreziatzen duk: ezagutzen eztualarik ezen lainkoaren benignitateak emendamendutara deitzen auela?

5 Baina eure gogortasunaren eta bihotz urrikimendu gabearen araura, hiraz thesaur egiten draukak eure buruari hiraren eta lainkoaren iujemendu iustoaren deklarationeko egunekotzat.

6 Zeinek rendaturen baitrauka, batbederari *zeini* bere obren araura:

7 Hala nola, ungi egitezko irauterekin gloria eta ohore eta inmortalitate bilhatzen dutenei, bizitze eternala:

8 Baina reboltari diradenei, eta egiari behatzen etzaizkonei, baina iniustitia obeditzen dutenei, *rendaturen zaie* indignatione eta hira.

9 Tribulatione eta herstura gaixtakeria egiten duen gizon guziaren arimaren gainera, luduarenera lehenik, gero Grekoarenera ere.

10 Baina gloria eta ohore eta bake ungi egiten duen guziari, luduari lehenik, gero Grekoari ere.

11 Ezen ezta personen akzeptationerik lainkoa baithan.

12 Ezen Legea gabe bekatu egin duten guziak, Legea gabe galduren ere dirade: eta Legean bekatu egin duten guziak, Legeaz iujeaturen dirade.

13 (Ezen eztirade Legea enzuten dutenak iusto lainkoa baithan: baina Legea egiten dutenak iustificaturen dirade.

14 Ezen ikusirik ezen Jentilek Legea eztutelarik, naturalki Legeari dagozkan gauzak egiten

dituztela, hek Legea ez tutelarik, bere buruenzat berak dirade Lege:

15 Zeinek erakusten baitute Legearen obra eskribatua bere bihotzetan, beren konszientiak halaber testimoniaje rendatzen drauelarik, eta haien pensamenduek elkar akusatzen dutelarik, edo exkusatzen ere.)

16 Iainkoak gizonen sekretuak iujeaturen dituen egunean, ene Ebanjelioaren araura, Iesus Kristez.

17 Huna, hi izen goitiko deitzen aiz ludu, eta reposatzen aiz Legean, eta gloriatzen aiz Iainko *launean*.

18 Eta ezagutzen duk *haren* borondatea, eta badakik kontrario denaren beretzen, Legeaz instruitu izanik.

19 Eta fida aiz itsuen gidari aizela, ilhunbean *diradenen* argi,

20 Ignoranten instruizale, haurren irakasle, zeren baituk ezagutzearen eta egiaren forma Legean.

21 Hik bada berzea irakasten duanorrek, eure burua eztuk irakasten: predikatzen baituk eztela ebatsi behar, ebaisten duk:

22 Erraiten baituk eztela adulteriorik iauki behar, adulterio iaukiten duk: idolak abominatio-netan baitadutzak, *eurorrek* sakrilejio egiten duk.

23 Eta Legean gloriatzen baitaiz, Legea hautsiz lainkoa desohoratzen duk.

24 Ezen lainkoaren izena zuen kausaz blasfematzen da Jentilen artean: eskribatua den bezala.

25 Ezen egia duk, zirkonzisionea probetxable dela, baldin Legea begira badezak: baina baldin Legearen hautsle bahaiz, hire zirkonzisionea preputio bilhatzen duk.

26 Bada baldin preputioak Legearen ordenanzak begira baditza, haren preputioa ezta zirkonzisionetan estimaturen?

27 Eta naturaz den preputioak baldin Legea begira badeza, ezau iujeaturen hi, letraz eta zirkonzisionez Legearen hautsle aizenor?

28 Ezen ezta hura ludu, gainetik dena: ezeta gainetik haragian egiten dena zirkonzisione.

29 Baina hura *da* ludu, barnetik dena: eta zirkonzisionea *da*, bihotzetik dena, espirituan ez

letran: zein *Iuduren* laudorioa *ezpaitatorke* gizonetarik baina *Iainkoaganik*.

KAP. III.

1 Iuduaren eta Jentilaren diferentia. 9, 22 Guziak bekatore. 20 Legeko obrek nehor ez iustificatzen, Legeak bekatua ezagut eraziten. 23 Kristez iustificatzen. 24 Bekatuen barkamendua. Fedea. 27 Fedez iustificatzen Legea gabe, 28 Iainkoa Iuduen eta Jentilen Iainko.

1 Zerik da bada Iuduaren abantailla, edo zerik *da* zirkonkzisionearen probetxua?

2 Handia manera orotara: eta guzien gainetik zeren Iainkoaren deklarationeak kargutan eman baitzaizte.

3 Ezen zer *da* baldin batzuk sinhetsi ezpadute? ala haien inkredulitateak Iainkoaren fedea ezdeusturen du?

4 Gertha ezadila: aitzitik biz lainkoa egiati, eta gizon guzia gezurti, eskribatua den bezala, Eure hitzetan iusto eriden adinzat, eta hizaz iujemendu egiten denean garaita duanzat.

5 Eta baldin gure iniustitiak lainkoaren iustitia lauda eraziten badu, zer erranen dugu? ala iniusto da lainkoa punitzen duenean? (gizon bezala minzo naiz)

6 Gertha ezadila: berzela, nola iujeaturen du lainkoak mundua?

7 Ezen baldin lainkoaren egia abundosago bada ene gezurraz haren gloriatan, zergatik ni goitirik bekatore bezala kondemnatzen naiz?

8 Eta (guzaz gaizki minzo diraden bezala, eta batzuk guk erraiten dugula dioiten bezala) zeren eztugu gaizki egiten, ungia ethor dadinzat? zeinen damnationea iusto baita.

9 Zer bada? exzellentago gara? Ezeinere maneraz: ezen aitzinetik razoinak emanik erakutsi dugu, ezen gizia hanbat luduak nola Grekoak, bekatuaren azpian diradela.

10 Eskribatua den bezala, Ezta iustorik, ezeta bakoitzik.

11 Ezta aditzen duenik ezta lainkoa bilhatzen duenik.

12 Guziak aldaratu izan dirade, eta guziak elkarrekin inutil egin izan dirade: ezta ontasunik egiten duenik, ez batetarano.

13 Sepulkre ireki bat *da* haien eztarria: bere mihiez enganiotara usatu ukan dute: suge aspik-aren pozoina *da* haien ezpainetan.

14 Haien ahoa malediktioenez eta karminduraz bethea da.

15 Arin *dirade* haien oinak odol isurtera.

16 Destruktione eta miseria haien bidetan.

17 Eta bide bakezkoa eztute ezagutu ukan.

18 Ezta lainkoaren beldurra haien begien aitzinean.

19 Eta badakigu ezen zerere Legeak erraiten baitu, Legean diradenei erraiten drauela: aho guzia boza dadinzat, eta mundu guzia hogendun denzat lainkoaren aitzinean.

20 Hunegatik Legearen obrez ezta iustificaturren haragirik batre haren aitzinean: ezen Legeaz da bekatuaren ezagutzea.

21 Baina orain Legeagabe lainkoaren iustitia manifestatu izan da, Legearen eta Profeten testimoniajea duela.

22 Bada lainkoaren iustitia, Iesus Kristen fedez sinhesten duten guzietara eta guzien gainera: ezen ezta diferentiarik batre: ikusirik ezen guziek bekatu egin dutela, eta lainkoaren gloria-ren falta diradela.

23 Eta iustificatzen dirade dohainik haren gratiaz, Iesus Krist *launean* egin izan den redentioneaz:

24 Zein ordenatu baitu lainkoak fedeazko apazegagarri haren odolean, bere iustitiaren deklaratzeko, aitzineko bekatuen barkamendua-gatik, lainkoaren patientiaz:

25 *Diot* bere iustitiaren deklaratzeko denbora hunetan: bera iusto denkat, eta Iesusen fedeko denaren iustificazale.

26 Non da beraz bantationea? iraitzi izan da. Zein legez? obrenaz? Ez: baina fedearen legeaz.

27 Konkluditzen dugu beraz, fedez iustificatzen dela gizona Legearen obrak gabe.

28 Ala Iuduen ber *da* lainkoa? ala ez Jentilen ere? gerthuki Jentilen ere.

29 Ezen bat *da* lainkoa, zeinek iustificaturen baitu zirkonzisionea fedetik, eta preputioa fedeaz.

30 Legea bada ez deus bilhatzen dugu fedeaz? Gertha ezadila: aitzitik Legea konfirmatzen dugu.

KAP. IIII.

3 Abraham fedez iustificatu. 4 Obrak. 5 Fedea 6 Gizonaren dohaintasuna. 9 Zirkonzisionea. 11 Abraham, sinhesten dutenen aita. 15 Legeak hira enjendratzen. 18 Abrahamen fedea. 25 Kristen herioa eta resurrektioea.

1 Zer beraz erranen dugu gure aita Abrahamek eriden duela haragiaren arauetz?

2 Ezen baldin Abraham obrez iustificatu izan bada, badu zerzaz gloria dadin, baina ez lainkoa baithan.

3 Baina zer dio Eskripturak? Sinhetsi ukan du Abrahamek lainkoa, eta inputatu izan zaio iustitiatara.

4 Baina obratzen duenari alokairua etzaio gratiatan kontatzen baina hartzetan:

5 Ordea obratzen eztuenari, baina gaixtoa iustifikatzen duena baithan sinhesten duenari, bere fedea iustitiatan kontatzen zaio.

6 Nola Dabidek ere deklaritzen baitu lainkoak obrak gabe iustitia inputatzen draukan gizonaren dohain-ontasuna, *dioela*,

7 Dohatsu *dirade* zeinen inikitateak kitatu izan baitirade eta zeinen bekatuak estali izan baitirade.

8 Dohatsu *da* launak bekatua inputatu eztraukeon gizona.

9 Bada dohain-ontasun haur, zirkonzisioan *da solament* ala *bai* preputioan ere? Ezen erraiten dugu inputatu izan zaiola Abrahami fedea iustitiatan.

10 Nola bada inputatu izan zaio? zirkonzisioan zela, ala preputioan? ez zirkonzisioan, baina preputioan.

11 Gero rezebi zezan zirkonzisionearen seignalea, fedea iustitiatako zigulutan zein baitzen preputioan: preputioan diradela sinhesten duten guzien aita lizenzat, haei ere iustitia inputa lekienzat:

12 Eta zirkonzisionearen aita, *erran nahi da*, ez zirkonzisionekoen solament, baina gure aita Abrahamen fede preputioan zuenaren hatzari darreizkonen ere.

13 Ezen promesa etzaio Legeaz *heldu izan* Abrahami, edo haren haziari, munduaren heredero izateko, baina fedeazko iustitiaz.

14 Ezen baldin Legetik *diradenak*, heredero badirade ezdeus bilhatu da fedea, eta iraungi da promesa.

15 Zeren Legeak hira enjendratzen baitu: ezen non ezpaita legerik, han ezta transgresio-nerik

16 Harren fedez *da heretajea*, gratiaz denzat, promesa hazi guziaren fermu denzat: ez Legetik *den haziaren* solament, baina Abrahamen fedetik denaren ere, zein baita gure guzion aita,

17 (Skribatua den bezala, Anhitz nationeren aita ordenatu ukan aut) lainkoaren aitzinean,

zein sinhetsi ukan baitu: zeinek hilei bizitze emaiten baitraue, eta deitzen baititu eztiraden gauzak balirade bezala.

18 Zeinek esperanzaren kontra esperanzaz sinhets baitzezan, anhitz nationeren aita izanen zela: erran izan zaionaren araura, Hala izanen duk hire hazia.

19 Eta fedean flaku ez izanez, etzezan beha bere gorputz ia hilera, ehun urtheren ingurua bazuen ere: ezeta Sararen umunzi ia hilera.

20 Eta lainkoaren promesaren gainean etzezan duda inkredulitatez: baina fortifika zedin fedez lainkoari gloria emanik:

21 Eta frangoki seguraturik, ezen *hari* promes egin zeraukana, botheretsu zela egiteko ere.

22 Halakotz *haur* ere iustitiatan inputatu izan zaio.

23 Eta ezta eskribatu izan harengatik solament, ezen *haur* iustitiatan inputatu izan zaiola:

24 Baina guregatik ere, zeini inputaturen baitzaiku, Iesus gure launa hiletarik resusztatua duena baithan sinhesten dugunoi,

25 Zein *heriotara* liuratu izan baita gure bekatuakgatik, eta resusztatatu gure iustificatio-neagatik.

KAP. V.

1 Fedea. Bakea. 2 Gratia. Gloria. 4 Patientia. Experientia. 5 Esperanza. Iainkoaren amorioa. 12 Adam eta Krist. 14, 17 Herioaren eta bizitzearen regnatzea. 18 Gure iustifikationea. 21 Bekatuaren eta Gratiaren regnatzea.

1 Iustificaturik bada Fedez, dugu bake lainkoa baithara Iesus Krist gure launaz.

2 Zeinez are ukan baitugu sartze haur fedez gratia hunetara, zeinetan fermu baikaude, eta gloriatzen baikara Iainkoaren gloriaren esperanzan.

3 Eta ez *haur* solament, baina are gloriatzen gara tribulationetan, dakigularik ezen tribulationeak patientia ekarten duela.

4 Eta patientiak experientia, eta experientiak esperanza.

5 Eta esperanzak eztu konfunditzen, zeren lainkoaren amorioa eraitsia baita gure bihotzetan eman izan zaikun Espiritu sainduaz.

6 Ezen Krist, oraino indar gabe ginela, bere denboran infidelakgatik hil izan da.

7 Ezen miraz iustoagatik nehor hiltzen da: baina agian norbeit bentura leite zenbeit ungiegilegatik hiltzera.

8 Baina zertifikatzen du bere karitatea gu baithara lainkoak, zeren oraino bekatutara abandonatuak ginela, Krist guregatik hil izan baita.

9 Anhitzez areago beraz orain haren odolaz iustifikaturik, harzaz salbu izanen gara hiratik.

10 Ezen baldin etsai ginela rekonziliatu izan bagara lainkoagana haren Semearen herioaz, anhitzez areago rekonziliaturik salbaturen gara haren biziaz.

11 Eta ez haur solament baina gloriatzen ere bagara lainkoa baithan Iesus Krist gure launaz, zeinez orain rekonziliatione rezebitu baitugu.

12 Halakotz, nola gizon batez bekatua munda sarthu izan baita, eta bekatuaz herioa: eta

halaz gizon guzietara herioa heldu izan da, zeren guziek bekatu egin baitute.

13 Ezen Legerano bekatua munduan zen, baina bekatua ezta inputatzen legerik eztenean

14 Baina regnatu ukan du herioak Adamganik Moisesganano, bekatu egin ez tutenen gainean ere Adamen transgresionearen fazoinera zein baita ethorteko zenaren figura.

15 Baina dohaina ezta ofensa bezala: ezen baldin baten ofensaz anhitz hil izan badirade, anhitzez areago lainkoaren gratia, eta gizon batez den gratiaren dohaina, *zein baita* Iesus Krist anhitzetara abondatu izan da.

16 Eta ezta dohaina bekatu egin duen batez *sarthu izan den gauka* bezala: ezen hogena *ofensa* batetarik *sarthu izan da* kondemnationetan: baina dohaina, *da* anhitz ofensatarik iustifikationetan.

17 Ezen baldin baten ofensaz herioak regnatu ukan badu, anhitzez areago iustitiazko gratiaren eta dohainaren abundantia rezebitzen dutenek bizitzetara regnaturen dute Iesus Krist batez.

18 Bada nola ofensa batez *hogena ethorri baita* gizon guzietara kondemnationetan: hala iustificatzen gaituen iustitia batez *ethorri da dohaina* ere gizon guzietara bizitzezko iustificationetan.

19 Ezen nola gizon baten desobedientiaz, bekatore anhitz egin izan baitirade, hala baten obedientiaz iusto anhitz egingen dirade.

20 Eta Legea berzalde sarthu izan da handi ledinzat ofensa: baina non handitu izan baita bekatua, *han* abundosago izan da *gratia*:

21 Nola regnatu baitu bekatuak heriotara, hala gratiak ere regna lezanzat iustitiaz bizitze eternaletara, Iesus Krist gure launaz.

KAP. VI.

Bekatua ez zerbitzatzeko. 3
Baptismoa. 4 *Resurrektioea.*
Bizitzearen berritzea. 6 *Gizon*
zaharra. 10 *Bekatuagana hiltzeko.*
Iainkoagana bizitzeko. 14 *Bekatua.*
Legea. Gratia. 16 *Obeditzen*

duenaren suiet nehor, bekatuaren edo iustitiaren. 21, 23 Bekatuaren gajeak. Bizitze eternala.

1 Zer erranen dugu beraz? egonen gara bekatutan, gratia abunda dadinzat?

2 Gertha eztadila. *Ezen* bekatuari hil izan gaizkionak, nola hartan oraino biziko gara?

3 Ala eztaizue ezen Iesus Krist *launean* batheiatu izan garen guziok, haren herioan batheiatu izan garela?

4 Ohortze izan gara bada harekin batean Baptismoaz haren herioan: nola resusztatut izan baita Krist hiletarik Aitaren gloriarez, hala gu ere bizitze berrian ebit gaitezenat.

5 Ezen baldin harekin xartatuak bagara haren hiltzearen konformitatez, *haren* resurrekzionearen *konformitatez* ere izanen gara.

6 Haur dakigularik ezen gure gizon zaharra harekin kruzifikatu izan dela, desegin dadinzat bekatuaren gorputza, gehiagorik bekatua zerbitza eztezagunzat.

7 Ezen hil dena libre da bekatutarik.

8 Eta baldin hil bagara Kristekin, sinhesten dugu biziko ere harekin garel:

9 Dakigularik ezen Krist hiletarik resusztatuarik, eztela gehiagorik hiltzen, herioak eztuela haren ganean gehiago dominationerik.

10 Ezen hil izan dena, bekatuari hil izan zaio behingotz: baina bizi dena, lainkoari bizi zaio.

11 Hala zuek ere estima ezazue bekatuari hil zaizkiotela, baina lainkoari bizi zaizkiotela Iesus Krist gure launaz.

12 Eztezala bada regna bekatuak zuen gorputz mortalean, haren guthizietan bekatua obedi dezazuenzat.

13 Eta eztietzozuela aplika zuen menbroak inikitatzeko harma izateko bekatuari: baina aplikatuzue zuen buruak lainkoari, hiletarik biztuz: eta zuen menbroak iustitiatako harma izateko lainkoari.

14 Ezen bekatuak ez zuen ganean dominationerik ukanen: ezen etzarete Legearen azpian, baina gratiaren azpian.

15 Zer bada? eginen dugu bekatu, zeren Legearen azpian ezgaren, baina gratiaren azpian? Gertha eztadila.

16 Ala eztakizue ezen noren ere obeditzera zerbitzari iarten baitzarete, obeditzen duzuenaren zerbitzari zaretela: edo bekatuaren heriotara, edo obediendiaren iustitiatara?

17 Bada esker lainkoari zeren bekatuaren zerbitzari izan baitzarete, baina bihotzetik obeditu baituzue doktrinaren forma, zeinetara eman izan baitzarete:

18 Eta bekatuaren azpitik ilkirik, iustitiaren zerbitzari egin izan baitzarete.

19 Gizonen anzora minzo naiz zuen haragiaren infirmitatearen kausaz. Bada nola aplikatu baitituzue zuen menbroak zerbitzatzeko satsutasunari eta inikitateari inikitate *egitera*: hala orain aplikaitzazue zuen menbroak zerbitzatzeko iustitziari saindutasunetara

20 Ezen bekatuaren zerbitzari zinetenean: libre zineten iustitiaz den bezenbatean.

21 Zer fruktu zenduten bada orduan orain ahalke zareten gauza hetarik? ezen haien fina, herioa *da*.

22 Baina orain bekatuaren azpitik libreturik, eta lainkoaren zerbitzari eginik, baduzue zuen

fruktua saindutasunetan: eta fina, bizitze eterna-
la.

23 Ezen bekatuaren gajeak, herioa: eta lain-
koaren dohaina *da* bizitze eternala Iesus Krist
gure launaz.

KAP. VII.

*1 Legearen dominationea. 4 Zertako
Legearen azpitik libre egin garen. 6
Espirituzko arrenberritzea. 7 Legeaz
bekatuaren ezagutzea. 22 Barneko
gizona. 24 Paulen desira. 25
Adimendua. Haragia.*

1 Ala eztakizue, anaieak, (ezen Legea ezagu-
tzen dutenei minzo natzaie) nola Legeak domi-
natione duen gizonaren gainean bizi den artean?

2 Ezen emazte ezkondua, senharra bizi
dueno obligatua da Legeaz: baina baldin senha-
rra hil badadi, libre da senharraren legetik.

3 Beraz senharra bizi deno adultera deithu-
ren da, berze senhar baten *emazte* egin badadi:

baina senharra hil badadi lege hartarik libre da: hala non ezpaitate adultera baldin berze senhar baten *emazte* egin badadi.

4 Bada, ene anaieak, zuek ere Legeari hil zaizkiote Kristen gorputzean: berze, hiletarik resusztatutako den baten zaretentzat: lainkoari fruktifika diezogunzat.

5 Ezen haragian ginenean, bekatuen afektio- ne Legeaz ziradenek indar zuten gure menbroetan, herioari fruktifikatzeko.

6 Baina orain Legetik libre gara, hari hil izan- nik zeinetan hatzamanak baikineunden: espi- rituzko berritasunetan zerbitza dezagunzat, eta ez letrazko zahartasunetan.

7 Zer erranen dugu beraz? Legea bekatu *da*? Gertha ezadila. Aitzitik bekatua ez tut ezagutu ukan Legeaz baizen. Ezen eznukeen ezagutu guthizia baldin legeak erran ezpalu, Eztuk guthi- ziaturen.

8 Baina bekatuak okasione harturik mana- menduaz enjendratu ukan du nitan guthizia guzia. Ezen Legea gabe, hila *da* bekatua.

9 Ezen ni bizi ninzen Legea gabe noizpait: baina manamendua ethorri denean, bekatua berriz bitzen hasi izan da.

10 Eta ni hil izan naiz: eta eriden izan da bizi-tzetako *ordenatu* zeitadan manamendua, herio-tara *itzultz*en zaitadala.

11 Ezen bekatuak okasione harturik, seduzitu nau manamenduaz eta harzaz hil ukan nau.

12 Bada Legeaz den bezenbatean hura saindu da, eta manamendua saindu eta iusto eta on.

13 Beraz on *den* gauza herio egin izan zait? Gertha eztadila: aitzitik bekatuak, bekatu *zela* ager ledinzat, on *den* gauzaz herioa enjendratu ukan draut, bekatua exzesiboki bekatore egin ledin manamenduaz.

14 Ezen badakigu Legea espiritual dela: baina ni karnal naiz, bekatuaren azpira saldua.

15 Ezen egiten dudana, etzait on: ezen eztut zer nahi baitut, hura egiten: baina zeri gaitz baitaritzat, hura egiten dut.

16 Bada baldin zer nahi ezpaitut, hura egiten badut, konsentitzen draukat Legeari, ezen ona *dela*.

17 Bada orain gehiagorik eznaiz ni hura egiten dudana, baina nitan habitatzen den bekatua.

18 Ezen badakit eztela habitatzen nitan (erran nahi baita, ene haragian) onik: ezen nahia bada nitan, baina onaren konplitzea, eztut erideiten.

19 Ezen nahi dudana ungia eztut egiten: baina nahi eztudan gaizkia egiten dut.

20 Bada baldin zer nik nahi ezpaitut hura egiten badut, eznaiz gehiagorik ni, hura egiten dudana, baina nitan habitatzen den bekatua.

21 Erideiten dut beraz lege haur nitan, ungia egin nahi dudanean, ezen gaizkia datxetala niri.

22 Ezen atsegin hartzen dut lainkoaren Legean barneko gizonaz den bezenbatean:

23 Baina badakusat berze lege bat neure menbroetan, ene adimenduko legearen kontra bataillatzen denik, eta ene menbroetan den bekatuaren legeari gathibatzen neraukonik.

24 Helas gizon miserablea ni, nork idokiren nau herio hunetako gorputzetik?

25 Eskerrak emaiten drautzat lainkoari Iesus Krist gure launaz. Bada nik neurorek adimen-

duaz zerbitzatu dut lainkoaren Legea, baina haragiaz bekatuaren legea.

KAP. VIII.

1 Fidelen libertatea. 5 Haragiaren afektioea eta espiutuarena. 9 Kristen Espiritua gutan. 15 Suiektioezko eta adoptioezko espiutua. 17 lainkoaren heredero. 18 Sufrimenduak. 20 Kreatura suiet banitatera. 18 Krist lehen sorthua deitzen. 29 Predestinationea, Bokationea. Iustifikationea. Glorifikationea. 31 Krist guregatik liuratu. 34, 37 Deusek ezin separa fidelak Kristen amoriotik. 35 Harakinzako ardiak.

1 Beraz orain ezta kondemnationerik batre Iesus Kristean diradenezat: *erran nahi da*, haragiaren araura ebiltzen ez tiradenen, baina espiutuaren araura.

2 Ezen Iesus Krist *launean* den bizitzetako Espirituaren Legeak libre egin nau bekatuaren eta herioaren legetik.

3 Ezen Legearen inpotentiak deus ezin zaidanean haragian, lainkoak igorri bere Seme propria bekatutako haragiaren forman, eta bekatuagatik, kondenatu ukan du bekatua haragian.

4 Legearen iustitia konpli dadinzat gutan, haragiaren araura ezgabiltzanotan, baina Espirituaren araura.

5 Ezen haragiaren araezko diradenak haragiaren gauzetara dirade afektionatu: baina Espirituaren araezkoak, Espirituaren gauzetara.

6 Eta haragiaren afektioea, herio da: baina Espirituaren afektioea, bizitze eta bake:

7 Zeren haragiaren afektioea etsaigoa *baita* lainkoaren kontra: ezen lainkoaren Legearen ezta suiet: eta ezin ere daite.

8 Beraz haragian diradenak, lainkoari plazent ezin dirateke.

9 Ordea zuek etzarete haragian, baina Espirituan: baldin behinzat lainkoaren Espiritua habi-

tatzen bada zuetan: baina baldin edozeinek Kristen Espiritua ezpadu, haina ezta haren.

10 Eta baldin Krist zuetan bada, gorputza behinzat hil *da* bekatuaren kausaz: baina Espiritua *da* bizitzea iustitiaren kausaz.

11 Bada baldin Iesus hiletarik resusztatut duenaren Espiritua habitatzen bada zuetan, Krist hiletarik resusztatut duenak, bibifikaturen dituzuen gorputz mortalak ere bere Espiritu zuetan habitatzen denaren kausaz.

12 Halakotz bada, anaieak, zordun gara, ez haragiagana, haragiaren araura bizitzeko, *baina Espirituagana*.

13 Ezen baldin haragiaren araura bizi bazarete, hilen zarete: baina baldin Espirituaz gorputzaren egitateak mortifikatzen badituzue, biziko zarete.

14 Ezen lainkoaren Espirituaz gobernatzen diraden guziak, lainkoaren haur dirade.

15 Ezen eztuzue suiekctionetako espiritu bat rezebitu, berriz beldurretan *izateko*: baina rezebitu duzue adoptionezko espiritua, zeinez oiher egiten baitugu Abba, *erran nahi baita*, Aita.

16 Espiritu hunek berak testifikatzen du gure espirituarekin batean, ezen lainkoaren haur garena.

17 Eta baldin haur *bagara*, baieta heredero: heredero, diot, lainkoaren, eta Kristen heredero-kide, baldin ordea *harekin* batean sufritzen badugu, *harekin* batean glorifika gaitezenezat.

18 Ezen estimatzen dut denbora hunetako sufrimenduak eztiradela konparatzeko ethorteko den gloria gutan manifestaturen denarekin.

19 Ezen kreaturak desir handiz begira daude noiz lainkoaren haurrak manifesta daitezkeen.

20 Ezen kreaturak banitatetara suiet dirade, ez bere nahiz, baina esperanzaren azpian suiektionetan ezarri dituenaren kausaz, hek ere delibraturen diradela korrupcionearen suiektionetik, lainkoaren haurren gloriaren libertatean *izateko*.

21 Ezen badakigu kreatura guziak suspirioz elkarrekin daudela, eta penatan diradela oraindrano.

22 Eta ez *hek* solament, baina gu ere Espirituaren primitiak ditugula, geurok gure baithan suspirioz gaude, adoptionearen begira gaudela, gure gorputzaren delibrantzaren *dio*t.

23 Ezen esperanzaz salbatu izan gara. Eta ikusten den esperanza, ezta esperanza: ezen nehork ikusten duena, zertako espera lezake?

24 Baina baldin ikusten eztugunaz esperanza badugu, patientiaz igurikiten dugu.

25 Eta halaber Espirituak ere arinzen ditugure infirmitateak, ezen zerzaz othoitz egin behar dugun bide bezala, eztakigu: baina Espiritua bera othoiztez dago guregatik erran ezin daitezkeen suspirioz.

26 Baina bihotzak examinatzen dituenak badaki, zerik den Espirituaren afektioea: ezen lainkoaren araura othoitz egiten du sainduakgatik.

27 Badakigu halaber ezen lainkoari on dartzotenei gauza guziak elkarrekin aiutatzen zaiztela onetara, *iakiteko da*, haren ordenanzaren araura deithu diradenei.

28 Ezen lehenetik zein ezagutu baititu *hek* predestinatu ere ditu bere Semearen imajinaren konforme izateko, hura denzat lehen iaioa anhitz anaieren artean.

29 Eta zein predestinatu baititu, *hek* deithu ere ditu: eta zein deithu baititu, *hek* iustificatu

ere ditu: eta zein iustificatu baititu hek glorifikatu ere ditu.

30 Zer bada erranen dugu gauza hautara? Baldin lainkoa gure alde bada, nor *izanen da* gure kontra?

31 Zeinek bere Seme propria ezpaitu gupida ukan, baina gure guziongatik eman ukan baitu, nola eztrauzkigu gauza guziak ere harekin emanen?

32 Nork produituren du akusationerik lainkoaren elejituen kontra? lainkoa *da* iustificatzen duena.

33 Nor da kondemnaturen duena? Krist *da* hil izan dena, baina are resuszitatu ere dena: lainkoaren eskuinean ere dena, eta guregatik othoitz egiten duena.

34 Nork separaturen gaitu gu Kristen amoriotik? *ala* tribulationek, ala hersturak, ala persekutionek, ala gosetek, ala billuzi izatek, ala perilek, ala ezpatak?

35 Eskribatua den bezala, Hire kausaz hiltzen gaituk egun oroz: estimatu izan gaituk harakin-zako ardien pare.

36 Baina gauza hautan guziotan biktorioso bainoago gara, gu onhetsi gaituenaren partez.

37 Ezen segur naiz ezen ez heriok, ez bizi-tzek, ez Aingeruek, ez prinzipaltasunek, ez bot-hererek, ez presenteko gauzek, ez ethortekoek:

38 Ez goratasunek, ez barnatasunek, ez berze kreaturak batek ere ezin separaturen gaituela lainkoaren amorio Iesus Krist gure launean ekarri draukunetik.

KAP. IX.

*2 Paulen Iuduetaratko afektioea. 5
Krist lainko. 8 Promesaren haurrak.
10 lainkoaren elektioea. 15, 18
lainkoak nahi duenari miserikordia
egiten eta nahi duena gogortzen. 22
Hirazko eta miserikordiazko unziak.
24 Jentilak deithu. 27 Iuduetarik
salbatzen diradenak guti.*

1 Egia diot Kristean, eztiot gezurrik, neure
konzientiak halaber testifikatzen drautalarik
Espiritu sainduaz,

2 Ezen tristitia handia, eta tormenta arduraz-
koa dudala neure bihotzean.

3 Ezen desir nuke ni neuror Kristganik sepa-
ratua ninzen neure anaieakgatik, zein baitirade
ene ahaide haragiaren araeuz:

4 Zein baitirade Israeltar: zeinena *baita* adop-
tionea, eta gloria, eta alianzak, eta Legearen
ordenanza, eta zerbitzu dibinoa eta promesak:

5 Zeinenak *baitirade* Aitak, eta hetarik da
Krist haragiaren araeuz, zein baita gauza guzien
gaineko lainko, eternalki benedikatua. Amen.

6 Badarik ere ezin date lainkoaren hitza erori
den: ezen eztirade Israeleko *diraden* guziak,
Israel.

7 Eta zeren Abrahamen hazi *diraden* eztirade
halakotz guziak haur, baina Isaaktan hazi deithu-
ren zaik hiri.

8 Erran nahi da, eztiradela haragiaren haur
diradenak, *halakotz* lainkoaren haur: baina pro-
mesaren haur *diradenak* estimatzen diradela
hazitan.

9 Ezen promesaren hitza haur da, Denbora hunetan ethorriren naiz, eta Sarak ukanen du seme bat.

10 Eta ez *haur* solament, baina Rebekak ere batganik konzebitu zuenean, *baitzen*, gure aita Isaakganik.

11 Ezen oraino haurrak sorthu gabe, eta *hek* unirik ez gaizkirik egin gabe (Iainkoaren ordenanza elektionearen araura legoenzat,

12 Ez obren baina deitzen duenaren partez) erran izan zaion hari, Gehienak zerbitzaturen din xipiena.

13 Eskribatua den bezala, Iakob onhetsi dut eta Esau gaitzetsi.

14 Zer beraz erranen dugu? Ala da iniustitiarik Iainkoa baithan? Gertha eztadila.

15 Ezen Moisesi erraiten drauka, Pietate ukanen diat pietate egin nahi ukanen draukadanaz, eta miserikordia eginen diarokat miserikordia egin nahi ukanen draukadanari.

16 Halakotz beraz *elektioea* ezta nahi duenaren, ez laster egiten duenaren, baina Iainko miserikordia egiten duenaren.

17 Ezen badiotsa Eskripturak Faraori, Hune-
takotz ber suszitu aut, erakuts dezadanzat
hitan neure botherea, eta denuntia dadinzat ene
izena lur guzian.

18 Beraz nahi duenari miseriordia egiten
drauka, eta nahi duena gogortzen du.

19 Erranen drautak bada niri, Zergatik oraino
arranguratzen da? ezen nor da haren boronda-
teari resisti ahal diezakeona?

20 Bainaitzitik, o gizona, hi nor aiz lainkoaren
kontra replikatzen duana? Ala erranen drauka
gauza moldatuak hura moldatu duenari, Zerga-
tik hunelako egin nauk?

21 Ala eztu lur-tupinagileak orhe ber bateta-
rik egiteko bothere, unzi bataren ohoretako, eta
berzearen desohoretako?

22 Eta *zer da*, baldin erakutsi nahiz lainkoak
hira, eta ezagut erazi nahiz bere botherea, sufri-
tu baditu patientia handitan hirazko unzi galtze-
kotzat aprestatuak?

23 Eta bere gloriako abrasasunen ezagut
eraziteko miseriordiazko unzi gloriatako apres-
tatu dituenetara?

24 Zein deithu ere baititu *diot* gu, ez solament lduetarik, baina Jentiletarik ere.

25 Nola Osea baithan ere erraiten baitu, Deithuren dut ene populu etzena, neure populu: eta *nizaz* onhetsi etzena, *neure* onhetsi.

26 Eta izanen da, erran izan zaien lekuan, Etzarete ene populu zuek, han deithuren baitirade lainko biziaren haur.

27 Esaias ere oihuz dago Israelen gainean, Israeleko haurren kontua itsasoko sablea bezala lizen orduan, restanzak dirade salbaturen

28 Ezen *launak* akabatzen eta laburtzen du beharkia iustitiarekin: zeren beharki laburtu bat eginen baitu launak lurraren gainean.

29 Eta lehen Esaiasek erran zuen bezala, Baldin armaden launak utzi ezpalerauku hazia, Sodoma bezalakatu ginatekeen, eta Gomorha irudi ukan gendukeen.

30 Zer beraz erranen dugu? Ezen Jentil iustitari etzarreitzanek, iustitia ardietsi ukan dutela: etare iustitia fedezkoa:

31 Baina Israel, iustitiazko Legeari zarreikalarik, iustitiazko Legera eztela heldu izan.

32 Zergatik? zeren ezpaita *haur izan* fedez, baina Legeko obrez bezala: ezen behaztopatu izan dirade behaztopagarriko harrian.

33 Eskribatua den bezala, Huna, ezarten dut Sionen behaztopagarriko harria, eta trebukagarriko harria: eta nor ere baita hura baithan sinhesten duena, ezta konfus izanen.

KAP. X.

*2 Eszientia gaberiko zeloa. 3
lainkoaren iustitia eta gizonena. 4
Legearen fina Krist. 5 Legezko eta
fedezko iustitia. 14 Inbokatzea.
Sinhestea. Enzutea. Predikatzea. 15
Hitzaren ministreak. 17 Fedea
enzutetik, eta enzutea lainkoaren
hizetik.*

1 Anaieak, ene bihotzeko afektione ona eta lainkoagana Israelgatik egiten dudan othoitza da salba ditezen.

2 Ezen testimoniaje ekarten drauet, nola lainkoaren zela baduten, baina ez eszientiaren araura.

3 Ezen lainkoaren iustitia ezagutzen eztutelarik, eta bere iustitia fundatu nahiz dabiltzalarik, lainkoaren iustitiari etzaizka susmetitu.

4 Ezen Legearen fina Krist *da*, sinhesten duen guziaren iustitiatan.

5 Ezen Moisesek ere eskribatzen du Legetik den iustitiaz, Ezen gauza hek eginen dituen gizona, hezaz biziko dela.

6 Baina fedez den iustitiak, hunela erraiten du, Ezterrala eure bihotzean, Nor iganen da zerura? hori duk Kristen garaitik erekarterea.

7 Edo, nor iautsiren da abismera? hori duk Kristen hiletarik harzara erekarterea.

8 Baina zer erraiten du? Hire hurbil duk hitza hire ahoan eta hire bihotzean. Haur da fedeazko hitz predikatzen duguna.

9 Ezen baldin konfesa badezak eure ahoz Iesus launa, eta eure bihotzean sinhets badezak, ezen lainkoak hura hiletarik resuszitate duela, salbaturen aiz.

10 Ezen bihotzez sinhesten da iustificatu izateko, eta ahoz konfesion egiten salbatu izateko.

11 Ezen erraiten du Eskripturak, Nor ere *baita* hura baithan sinhesten duena, ezta konfusi izanen.

12 Ezen ezta diferentiarik luduaren eta Grekoaren artean: ezen guzien laun bera da abrats, hura inbokatzen duten guzietara.

13 Ezen norere *baita* launaren izena inbokaturen duena, salbaturen da.

14 Nolatan bada inbokaturen dute hura baithan sinhetsi ukan ez tutenek: eta nolatan sinhetsiren dute harzaz enzun ukan ez tutenek? eta nolatan enzunen dute predikazalerik gabe?

15 Eta nolatan predikaturen dute baldin igor ezpaditez? eskribatua den bezala, O zein eder diraden bakea ebanjelizatzen dutenen oinak, gauza onak ebanjelizatzen dituztenenak!

16 Baina guziak etzaizkio behatu izan Ebanjelioari, ezen Esaiasek erraiten du, launa, nork sinhetsi du gure predikationea?

17 Beraz fedea enzutetik *da*: eta enzutea lainkoaren hitzaz.

18 Baina galdez nago, ala ez tute enzun ukan? Bainaitzitik lur orotara ilki izan da haien soinua, eta munduaren bazterretarano haien hitzak.

19 Baina galdez nago, ala Israelek ez tu *lainkoa* ezagutu ukan? Lehenik Moisesek erraiten du, Nik ielosgoatara probokaturen zaituztet jende jende-eztenaz, jende adimendu gabe batez aserre eraziren zaituztet.

20 Eta Esaiasek hardieza hartzen du, eta erraiten, Eriden izan naiz bilhatzen eznindutez, eta klaroki agertu izan natzaie ene galderik egiten etzutenei.

21 Baina Israelez den bezenbatean erraiten du, Egun guzian hedatu ukan ditut neure eskuak populu desobedientagana eta kontrastatzen denagana.

KAP. XI.

2 Iudu guziak ez iraitzi. 5 Gratia. 6 Obrak. 7 Elektioea. 8 Itsutasuna. 11 Iuduen erortea, Jentilen

*salbamendu. 15 Iuduen iraitzea. 22
lainkoaren benignitatea eta
seberitatea. 25 Iuduen itsutasuna,
Jentilen konplimendu. 29 lainkoaren
dohainak eta bokationea. 32 Ertsi
guziak desobedientiatan.*

1 Galdez nago bada, Ala iraitzi ukan du lainkoak bere populua? Gertha ezadila: ezen ni ere Israeltar naiz, Abrahamen hazitik, Beniaminen leinutik.

2 Eztu iraitzi lainkoak bere populu lehenetik ezagutua. Ala ezta kizue Eliasez zer erraiten duen Eskripturak? nola rekesta egiten draukan lainkoari Israelen kontra, dioela,

3 launa hire Profetak hil zitie, eta hire alda-reak desegin zitie, eta ni azkendu izan nauk neuror, eta ene arimaren ondoan diabiltzak.

4 Baina zer diotsa hari reposta dibinoak? Reserbatu zitiat neurorendako zazpi milla gizon belhaunik Baalen *imajinari* plegatu eztraukate-nik.

5 *Hala* bada denbora hunetan ere, reserbatzione gratiazko elektionearen arauetz egin izan da.

6 Eta baldin gratiaz, ez gehiagorik obrez: berzela gratia gehiagorik ezta gratia: baina baldin obrez *bada*, gehiagorik ezta gratia: berzela obra gehiagorik ezta obra.

7 Zer beraz? Bilhatzen zuena Israelek eztu ardietsi: eta elektioneak ardietsi ukan du, eta goitikoak gogortu izan dirade,

8 Eskribatua den bezala, Eman ukan draue lainkoak espiritu itho bat: *eta* begi, ikus eztezenzat: eta beharri, enzun eztezenzat egungo egunerano.

9 Eta Dabid-ek erraiten du, Beren mahaina arte bilha bekie, eta lazo eta trebukamendu, eta *haur* pagamendutan.

10 Ilhun bitez haien begiak, ikus eztezenzat: eta haien bizkarra bethiere makur ezak.

11 Galdez nago bada, ala trebukatu izan dirade eror litezenzat? Gertha eztadila: baina haien erortiaz salbamendua Jentiletara *ethorri izan da*, haei iarreikitera inzitatzeko.

12 Eta baldin haien erortea munduaren
abrastasun bada, eta haien diminutionea Jentilen
abrastasun: zenbatez areago haien abundan-
tia?

13 Ezen zuei Jentiloï diotsuet, ni Jentilen
Apostolu naizen bezenbatean, neure ministerioa
ohoratzen dut:

14 Eia nolazpait neure ahaideak ielos erazi
ahal ditzakedanez, eta hetarik batzu salba.

15 Ezen baldin haien iraitzea munduaren
rekonziliatione bada, zerik *izanen da* rezeptio-
nea, hiletarik bizitze baizen?

16 Eta baldin primitiak saildu badirade, baieta
orhea: eta baldin erroa saildu *bada*, baieta
adarrak.

17 Eta baldin adarretarik batzu hautsi izan
badirade, eta hi basa oliba inzelarik, xarthatu
izan bahaiz haien orde, eta oliba erroan eta uri-
nean partizipant egin bahaiz,

18 Ezadila gloria adarren kontra: eta baldin
gloriatzen bahaiz, eztuk hik erroa egarten, baina
erroak hi.

19 Erranen duk bada, Hautsi izan dirade ada-
rrak, ni xartha nendinat.

20 Ungi: hek infidelitatez hautsi izan dituk, eta hi fedez zutik ago: ezadila urguluz hant, baina aizen beldur.

21 Ezen baldin lainkoak adar naturalak gupida ukan ezpaditu, *begirauk* hi ere gupida ezauen.

22 Ikusak beraz lainkoaren benignitatea eta seberitatea: trebukatuetara, seberitatea: eta hiregana, benignitatea, baldin persebera badezak benignitatean: ezpere hi ere ebakiren aiz.

23 Eta hek ere baldin persebera ezpadezate infidelitatean, xarthaturen dituk, ezen lainkoa botheretsu duk harzara haien xarthatzeko.

24 Ezen baldin hi naturaz basa zen olibatik ebaki izan bahaiz, eta natura kontra oliba onean xarthatu bahaiz: zenbatez areago natural diradenak xarthaturen dirade bere oliba proprian ?

25 Ezen eztut nahi ignora dezazuen, anaieak, sekretu haur, (zeurok baithan arrogant etzarentzat) ezen gogortasuna parte Israeli ethorri izan zaiola, Jentilen konplimendua sar leiteno.

26 Eta hala Israel guzia salbaturen da, eskribatua den bezala, Ethorriren da Siondik liberaza-

lea, eta aldaraturen ditu infidelitateak lakobganik.

27 Eta alianza haur eneganik ukanen dute, Kendu ditukedanean haien bekatuak.

28 Ebanjelioaz den bezenbatean, bai etsai *dirade* zuen kausaz, baina elektioneaz den bezenbatean, onhetsiak, Aiten kausaz.

29 Ezen dolu gabe dirade lainkoaren dohai-nak eta bokationea.

30 Ezen nola zuek ere noizpait lainkoagana desobedient izan baitzarete: baina orain miseri-kordia ardietsi baituzue haien desobedient iza-nez:

31 Hala hauk ere orain eztute obeditu ukan, zuei egin zaizuen miseri-kordiaz hauk ere miseri-kordia ardiets dezatenzat.

32 Ezen lainkoak ertsi ukan ditu guziak deso-bedientiatan, guziei miseri-kordia legienzat.

33 O lainkoaren sapientiaren eta ezagutzea-ren abrastasunen barna! ala haren iujemenduak baitirade konprehendi ezin daitezkeen bezalako-ak, eta haren bideak erideiteko imposibleak!

34 Ezen nork ezagutu ukan du launaren gogoaz? edo nor izan da haren konseillari?

35 Edo nork lehenik eman drauka hari, eta rendaturen baitzaio?

36 Ezen harenganik, eta harzaz, eta harengatik *dirade* gauza guziak: hari gloria sekulakotz. Amen.

KAP. XII.

1 Iainkoaganako ofrenda. 3 Sobreki iakitera presumitzeko. 4 Kristinoak gorputz bat. 6 Dohainak diferent. 9 Dilektioea. 10 Kristinoaren eginbidea.

1 Othoitz egiten drauzuet bada, anaieak, Iainkoaren miseriakordien partez, ofrenda ditza-zuen zuen gorputzak sakrifizio bizitan, saindu-tan, Iainkoaren gogarakotan, *zein baita* zuen zer-bitzu razoinezkoa.

2 Eta etzakitzotela konforma mundu huni, baina transformata zaitezte zuen adimenduaren arranberritez, foroga dezazuenzat zerik den

lainkoaren borondate ona eta plazenta eta perfektoa.

3 Ezen niri eman izan zaitadan gratiaz, erraiten draukat zuen artekoetarik batbederari, eztezan presumi iakitera iakin behar den baino gehiago, baina den zuhur sobrietatera: lainkoak batbederari fedearen neurria repartitu draukan bezala.

4 Ezen nola gorputz batetan anhitz membro baitugu, eta membro guziek ezpaitute operatione bat bera:

5 Hala anhitz *garelarik* gorputz bat gara Krist baithan eta batbedera *gara* bata berzearen membro.

6 Eta ditugula dohain dibersak, eman izan zaikun gratiaren araura, edo profetia, *dezagun profetiza* fedearen proportionearen arauetz:

7 Edo ministerio, *garen* administrationean: edo irakasten ari dena, *den* instruktione *emaile*.

8 Edo exhortatzen ari denak, exhorta dezan: distribuitzen ari denak, *distribui dezan* sinplizitatean: presiditzen duenak *dagian* dilijentki: misericordia egiten duenak, *dagian* alegeraki.

9 Karitatea *den* fiktiono gabe: *zaretan* gaitzaren gaitzetsle, ungiari eratzekiak.

10 Anaietasunezko karitatez elkarren onhes-tera emanak: elkarri ohoratzera aitzinzen zaitzate-
tela.

11 Zerbitzu egitera ez nagi, espirituz ardent, launa zerbitzitzen duzuela.

12 Esperanzaz alegera zaretelarik, tribulatio-
nean patient, orationean perseberatzen duzuela.

13 Sainduen nezesitatetara komunikatzen
duzuela: hospitalitateari iarreikiten zaitzate-
tela.

14 Benedikaitzazue zuek persekutatzen zai-
tuztenak: benedikaitzazue, *diot*, eta ez maradi-
ka.

15 Alegera zaitezte alegera diradenekin, eta
nigar egizue nigarrez daudenekin.

16 Gogo batez bata berzeagana afektiona-
tuak zaretelarik: gauza gorak afektatzen ez-titu-
zuelarik, baina beheretara akomodatzen zarete-
larik. Etzaretela zuhur zeurok baithan.

17 Eztezozuela nehoi gaitza gaitzagatik
renda. Prokuraitzazue gauza honestak gizon
guzien aitzinean.

18 Egin albadadi, zuetan den bezenbatean, gizon guziekin bakea duzuen.

19 Etzaitezteela zeurok mendeka, *ene* mai-teak, baina leku emozue hirari: ezen eskribatua da, Niri mendekioa: nik dut rendaturen, dio launak.

20 Bada baldin gose bada hire etsaia, emok iatera: baldin egarri bada, emok edatera: ezen hala egiten duala suko ikatzak bere buru gainera bilduren drautzak.

21 Ezadila gaizkiaz garait, baina garait ezak ungiatz gaizkia.

KAP. XIII.

*1 Majistratuaganako obedientia. 6
Tributaren pagatzea. 8, 10 Legearen
konplimendua, karitatea. 11
Salbamendua hurbil. 12 Ilhunbearen
obrak. Argiari dagozkan
abillamenduak. 14 Kristez
beztitzeko.*

1 Persona guzia potestate goragoen suiet biz, ezen ezta potestaterik lainkoaganik baizen: eta diraden potestateak, lainkoaz ordenatuak dirade.

2 Halakotz, potestateari resistitzen draukanak, lainkoaren ordenanzari resistitzen drauka: eta resistitzen dutenek, bere buruen gainera damnatione erekarriren dute.

3 Ezen majistratuak eztirade izigarri, obra onakgatik, baina gaixtoagatik. Bada nahi duk potestatearen beldur ez izan? egik ungi, eta rezebituren duk laudorio harenganik.

4 Ezen lainkoaren zerbitzari duk hire onetakotz: baina gaizkirik badagik, aizen beldur: ezen eztik kausa gabe ezpata ekarten: ezen lainkoaren zerbitzari duk, mendekari hiratan, gaizki egiten duenaren gainean.

5 Harren behar da izan suiekt ez hiragatik solament, baina konszientiagatik ere.

6 Ezen halakotz tributak ere pagatzen dituzue: ezen lainkoaren ministre dirade, hunetara berera enplegatzen diradela.

7 Renda iezezue bada guziei zor drauezuena: nori tributa, tributa: nori peajea, peajea: nori beldurra, beldurra: nori ohorea, ohorea.

8 Etzaretela nehorengana deusez zordun: elkarri on daritzozuen baizen: ezen berzeri on daritzanak, Legea konplitu du.

9 Ezen haur,Ezaiz adultero izanen, Eztuk hilen, Eztuk ebatsiren, Eztuk falsu testimoniaj-erik erranen, Eztuk guthiziatoren: eta baldin zenbeit berze manamendurik *bada*, hitz hunetan somarioki konprehenditzen da, Onhetsiren duk eure hurkoa eure burua bezala.

10 Karitateak hurkoari gaizkirik eztrauka egi-ten. Beraz Legearen konplimendua, karitatea *da*.

11 Prinzipalki ikusirik sasoina, ezen ia ordu dela lotarik iratzar gaitezen: ezen orain hurbila-go dauku salbamendua, ezen ez sinhetsi ukan dugunean.

12 Gaua iragan da eta eguna hurbildu. Iraitz ditzagun bada ilhunbearen obrak, eta bezi gaitezen argiari dagokan abillamenduz.

13 Egunaz anko honestki ebil gaitezen: ez gormandizetan eta hordikerietan, ez ohatzetan eta insolentietan, ez gudutan eta inbidiatan.

14 Baina bezi zaitetz ez Jesus Krist launaz, eta haragiaz artharik eztuzuela *haren* guthizien konplitzeko.

KAP. XIII.

*1 Fedean infirmo diradenez. 8
launari hiltzea edo bizitzea. 10
Nehor ez iudikatzeko. 20
biandagatiko eskandaloa. 23 Fedetik
eztena bekatu.*

1 Eta fedez infirmo dena rezebi ezazue, *baina* ez disputationez ihardukitera.

2 Batak sinhesten du gauza guzietarik ian ahal dezakela: eta berze infirmo denak belhar iaten du.

3 Iaten duenak, iaten eztuena eztezan menosprezia: eta iaten eztuenak, iaten duena eztezan iudika. Ezen lainkoak hura bere rezebitu ukan du.

4 Hi nor aiz berzeren zerbitzaria iudikatzen duana? bere launari fermu egoiten edo erorten

ziaiok: baina fermaturen dik: ezen botheretsu duk lainkoa haren fermatzeko.

5 Batak estimatzen du egun bata berzea bainoago, eta berzeak estimatzen du *bardin* zein egun nahi den: batbedera biz segur bere konszientian.

6 Egunera behatzen duenak, launagana behatzen du: eta egunera behatzen eztuenak, launagana eztu behatzen. Iaten duenak, launari iaten du: ezen regratiatzen du lainkoa: eta iaten eztuenak, launari eztu iaten, eta regratiatzen du lainkoa.

7 Ezen ezta gutarik nehor bere buruari bizi, eta ezta nehor bere buruari hiltzen.

8 Ezen edo dela bizi garen, launari bizi gara: edo dela hiltzen garen, launari hiltzen gara. Beraz nahi bada bizi garen, nahi bada hiltzen garen, launaren gara

9 Ezen hunetakotzat Krist hil, eta resuszitu, eta bizitara itzuli izan da, hanbat hilen nola bizien gainean dominatione duenzat.

10 Baina hik zergatik iudikatzen duk eure anaiea? edo hik ere zergatik menospreziatzen

duk eure anaiea? Ezen guziak konparituren gara Kristen iudizioko throno aitzinean.

11 Ezen eskribatua da, Bizi naiz ni, dio launak, ezen niri gurthuren zait belhaun guzia: eta mihi orok laudorio emanen drauka lainkoari.

12 Bada segur gutarik batbederak bere buruaz kontu rendaturen drauka lainkoari.

13 Eztezagula beraz gehiagorik elkar iudika, bainaitzitik hunetan iujemenduz usat ezazue, behaztopagarririk batre edo trebukagarririk *zuen* anaieri ezar eztezozen.

14 Badakit, eta segur naiz Iesus launaren partez, eztela deus satsurik bere berez: salbu, zerbait satsu dela estimatzen duenaren, *hura* harendako satsu baita.

15 Baina baldin biandagatik hire anaiea trisetzen bada, ezabila ia karitatearen araura: eztezala eure biandagatik hura gal, zeinagatik Krist hil izan baita.

16 Eztadila beraz *zuen* ungia gaitz erran.

17 Ezen lainkoaren resuma ezta ianhari ez edari: baina iustitia eta bake eta bozkario Espiritu sainduaz.

18 Ezen gauza hautan Krist zerbitzatzen duena, lainkoaren gogarako da, eta laudatua da gizonez.

19 larreiki gakizten beraz bakeari dagozkan gauzei, eta elkarren edifikationetako diradenei.

20 Eztezala *hik biandaren* kausaz launaren obra desegin: egia duk gauza guziak xahu *diradela*, baina gaizkia *duk eskandalorekin* iaten duen gizonaren.

21 On duk haragirik ez iatea, eta mahatsarrik ez edatea, eta hire anaie behaztopatzen edo eskandalizatzen, edo infirmo egiten den gauzaren ez egitea.

22 Hik fede duk? auk euror baithan lainkoaren aitzinean. Dohatsu *da* bere burua iudikatzen eztuena laudatzen duen *gauzan*.

23 Baina eskrupulo egiten duena, baldin ian badeza, iudikatua da: ezen eztu fedez *iaten*: eta fedetik ezten guzia bekatu da.

KAP. XV.

*1 Infirmoen flakatasunak
suportatzeko. 7 Elkar rezebitzeko. 8
Promesak konfirmatu. 9 Misericordia
Jentilei. 16 Paul haien ministre. 26
Mazedoniakoen eta Akaiakoen
kontributionea. 27 On espiritualak
eta karnalak. 33 Bakezko lainkoa.*

1 Eta behar ditugu fermu garenok, infirmoen flakatasunak suportatu, eta ez gure buruei konplazitu.

2 *Bada* gutarik batbederak konplazi beza bere hurkoa ungira edifikationetan.

3 Ezen Kristek ere eztu bere burua konplazitu nahi ukan, baina, eskribatua den bezala, Hiri iniuria erraiten draueanen iniuriak ene gainera erori izan dituk.

4 Ezen aitzinetik eskribatu diraden gauza guziak, gure doktrinatan eskribatu izan dirade, Eskripturetako patientiaz eta konsolationez esperanza dugunzat.

5 Bada patientiatako eta konsolationetako lainkoak dizuela elkarren artean gauza ber baten pensatzeko *gratia* Iesus Kristen araura:

6 Gogo batez eta aho batez glorifika deza-zuenzat lainkoa, zein baita Iesus Krist gure launaren Aita.

7 Halakotz rezebi ezazue elkar, Kristek ere gu rezebitu gaituen bezala lainkoaren gloriatan.

8 Bada erraiten dut, Iesus Krist zirkonsionearen ministre izan dela, lainkoaren egiagatik, Aitei *egin zaizten* promesak konfirma litzanzat:

9 Eta Jentilek lainkoa *bere* miserikordiagatik glorifika dezaten: eskribatua den bezala, Halakotz laudorio emanen drauat hiri Jentilen artean, eta hire izenari kantaturen diarokat.

10 Eta berriz *dio*, Alegera zaiteztez Jentilak haren populuarekin.

11 Eta berriz, Lauda ezazue launa Jentil guziek eta elkarrekin lauda ezazue hura populu guziek.

12 Eta berriz Esaiasek erraiten du, Izanen da leserenik zain bat, eta, Jentilen gobernatzera altxaturen den bat: Jentilek hartan esperanza ukanen dute.

13 Esperanzazko lainkoak bada konpli zaitzate-
tela bozkario guziaz eta bakez sinhetsiz, espe-
ranzaz abundos zaretenzat Espiritu sainduaren
berthutez.

24 Bada segur naiz, ene anaieak, ni neuror-
ere zuezaz, ezen zuek kuerok ontasunez bet-
heak zaretela, ezagutze guziaz betherik: etare
elkar admonesta ahal baitezakezue.

15 Eta, anaieak, ausartkixiago eskribatu
drauzuet partez, zuek orhoit eraziten bazintuztet
bezala, lainkoaz niri eman izan zaitadan gratia-
gatik,

16 Iesus Kristen ministre naizenzat Jentilak
baithan, enplegatzen naizela lainkoaren Ebanje-
lio sainduan, Jentilen oblationea plazent denzat,
Espiritu sainduaz sanktifikaturik.

17 Badut beraz zerzaz gloria nadin Iesus Kris-
tez, lainkoazko gauzetan.

18 Ezen ez ninzande, Kristek nizaz egin
eztuen gauzaren erraitera ausart, Jentilen obe-
dientiatara *erekarteko*, hitzez eta eginez:

19 Signoen eta mirakuluen berthutez, lainko-
aren Espirituaren berthutez: hanbat non Ierusa-

lemetik eta aldirietarik Illirikerano abunda erazi ukan baitut Kristen Ebanjelioa:

20 Hala Ebanjelioaren predikatzen enseiatzen ninzela, ez Krist aipatu izan zen lekutan, berzeren fundament gainean edifika eznezanzat.

21 Baina eskribatua den bezala, Harzaz denuntiatu izan etzaienek, ilkusiren dute: eta enzun eztutenek, adituren dute.

22 Eta halakotz enpatxatu izan naiz anhitzetan ethortera zuetara.

23 Baina orain gehiago lekurik komarka hautan eztudanaz geroz, eta ia anhitz urthez geroztik zuetara ethortera desir dudanaren gainean:

24 Parti nadinean Espaigniarat, ethorriren naiz zuetara: ezen esperanza dut iragaitean ikusiren zaituztedala, eta zuezaz hara gidaturen naizela: baldin lehen zuekin izatez sasituxe banaiz.

25 Bada orain banoa Ierusalemerrat, sainduei administratzera.

26 Ezen Mazedoniakoen eta Akaiakoen plazeran izan da Ierusalemen diraden sainduetako paubrei zerbaiten partitzera.

27 Ezen hala plazer ukan dute, eta zordun ere badirade hetara: ezen baldin haien *on espi-
tualetan* partizipant izan badirade Jentilak, hek
ere karnalez den bezenbatean aiutatu behar
dituzte.

28 Bada *haur* akabatu dukedanean eta haei
fruktu haur konsignatu draukeedanean, Espai-
gniarat ioanen naizate zuek baitharik.

29 Eta badakit ezen zuetara ethor nadinean,
Kristen Ebanjelioko benediktionearen abundan-
tiarekin ethorriren naizela.

30 Halaber anaieak, othoitz egiten drauzuet
Jesus Krist gure launaz, eta Espirituaren karita-
teaz, enekin enplega zaitezten, enegatik lainko-
ari eginen drautzazuen othoitzez:

31 Iudean diraden desobedientetarik delibra
nadinzat, eta Ierusalemen egiteko dudan admi-
nistracione haur, sainduen gogarako denzat:

32 Lainkoaren borondatez zuetara bozkario-
rekin ethor nadinzat, eta zuekin batean rekrea
nadinzat.

33 Bada bakezko lainkoa dela zuekin guzio-
kin, Amen.

KAP. XVI.

1 Paulek Romako fidel guziak salutatzen. 16 Elkar salutatzeko. 17 Partialitatei eta eskandaloei ihes egiteko. 19 Romanoen obedientia. 25 Ebanjelioa sekretu estalia, 26 Haren manifestationea. Fedearen obedientia.

1 Gomendatzen drauzuet bada gure arreba Febe, Zenkreko Elizaren neskato dena:

2 Hura *gure* launean rezebi dezazuenzat sainduei dagoten bezala, eta asisti zakizkioten zuen behar izanen den gauza guzietan: ezen hura anhitzen ostatesa izan da, eta neurorren ere.

3 Salutaitzazue Priszilla eta Akila, ene aiutariak Iesus Krist *launean*.

4 Zeinek ene biziagatik bere lepoak susmetitu baitituzte: haei eztrauztet nik neurorrek eskerak emaiten, baina Jentilen Eliza guziek ere *bai*.

5 *Saluta ezazue* haien etxean den Eliza ere Saluta ezazue Epenet ene maitea, zein baita Akaiako primitia Kristean.

6 Saluta ezazue Maria guregana anhitz tra-
baillatua.

7 Salutaitzazue Andronik eta Iunia ene lehen gusuak, eta ene presonerkideak, Apostoluen artean notable diradenak, eta ni baino lehen izan diradenak Kristean.

8 Saluta ezazue Anplia ene maitea *gure* lau-
nean.

9 Saluta ezazue Urban, gure aiutaria Kristean eta Estakis ene maitea.

10 Saluta ezazue Apelles, Kristean aproba-
tua. Salutaitzazue Aristobulorenekoak.

11 Saluta ezazue Herodion ene lehen gusua. Salutaitzakue Narzise baithako *gure* launean diradenak.

12 Salutaitzazue Trifena eta Trifosa, *gure* lau-
nean traillaitzen diradenak. Saluta ezazue Per-
sida, nik maite dudana eta anhitz traillaitu
dena, *gure* launean.

13 Saluta ezazue Rufo berezia *gure* launean,
baieta haren eta ene ama.

14 Salutaitzazue Asinkrito, Flegon, Hermas, Patrobas, Hermes, eta hekin diraden anaieak.

15 Salutaitzazue Filologo, eta Iulia, Nereo, eta haren arreba, eta Olinpa, eta hekin diraden saildu guziak.

16 Saluta ezazue elkar pot egite saildu batez Kristen Elizek salututzen zaituztez.

17 Eta othoitz egiten drauzuet, anaieak, gogoia ditzazuen, zuek rezebitu duzuen doktrinaren kontra partialitateak eta eskandaloak egiten dituztenak: eta aparta zaitezten hetarik.

18 Ezen halakoek Iesus Krist gure launa ezte zerbitzitzen, baina bere sabela: eta hitz eztat eta lausenguzkoz sinplen bihotzak seduzitzen dituzte.

19 Ezen zuen obedientia batbederaz ezagutua da: Alegera naiz bada zuezaz *den bezenbatean*: baina nahi dut zuhur zareten onean eta sinple gaitzean.

20 Eta bakezko lainkoak deseginen du Satan zuen oinen azpian sarri. Iesus Krist gure launaren gratia *dela*, zuekin. Amen.

21 Salutatzen zaituztez Timotheo ene aiutariak, eta Luziok, eta Iasonek, eta Sosipaterek ene lehen gusuek.

22 Salutatzen zaituztet *gure* launean nik Ter-tiusek, epistola *haur eskribatu* dudanak.

23 Salutatzen zaituztez Gaius-ek, ene eta Eliza guziaren ostatuak. Salutatzen zaituztez Eraste hiriko prokuradoreak, eta Kart anaieak.

24 Iesus Krist *gure* launaren *gratia dela* zuekin guziokin. Amen.

25 Bada zuek konfirma ahal zaitzakeztenari, ene Ebanjelioaren eta Iesus Kristen predikationearen *araura*, hanbat denboraz geroztik misterio estalirik egon den rebelationearen *araura*:

26 Baina, orain manifestatu denaren, eta Profeten Eskripturez Iainko eternalaren manuz fedearen obedientiatan nazione guzietan deklaratu denaren *araura*:

27 Iainkoari, *bada*, zuhur bakoitzari *dela* gloria Iesus Kristez eternalki. Amen.

*Romanoetara eskribatu izan da
Korinthetik Febe
Zenkreko Elizaren
neskatoarekin.*

S. PAUL APOSTOLUAREN KORINTHIANOETARATKO EPISTOLA LEHENA

KAP. I.

4 Gratia Kristez. 9 Iainkoaren bokationea. 10 Konkordia. Korinthianoen artean targoa. 14 Paulen ministerioa. 18 Krutzezko hitza. 21 Iainkoaren sapientia, eta munduarena. 23, 30 Krist eskandalo eta erhogoa, sapientia eta iustitia. 26 Bokationea. Elektioena.

1 Paulek Iainkoaren borondatez Iesus Kristen Apostolu izatera deithuak, eta *gure* anaie Sosthenesek,

2 Iainkoaren Eliza Korinthen denari, Iesus Kristez sanktifikatuei, saindu *izatera* deithuei, Iesus Krist *gure* launaren izena leku orotan inbo-

katzen duten guziekin, *zein baita*, hanbat haien nola gure *laun*:

3 Gratia *dela* zuekin eta bakea gure lainko Aitaganik, eta Iesus Krist launaganik.

4 Eskerrak emaiten drauzkiot neure lainkoari bethi zuezaz, Iesus Krist *launean* zuei eman izan zaizuen lainkoaren gratiagatik:

5 Zeren gauza guzietan abastu izan baitzarete hartan, elokentia eta ezagutze guzian:

6 Iesus Kristen testimoniaje zuetan konfirmatu izan denaren araura:

7 Hala non ezpaitzarete falta ezeinere dohainen, Iesus Krist gure launaren rebelationearen begira zaudetela.

8 Zeinek konfirmaturen ere baitzaituztez finerano irreprensible *izateko* Iesus Krist gure launaren egunekotzat.

9 Fidel *da* lainkoa zeinez deithu izan baitzarete Iesus Krist haren Seme gure launaren komunionera.

10 Bada othoitz egiten drauzuet anaieak, Iesus Krist gure launaren izenaz, gauza ber bat erran dezazuen guziek, eta ezten zuen artean

targoarik: baina zareten iunktatuak adimendu batetan eta gogo batetan.

11 Ezen, ene anaieak, deklaratu draudate zuegaz Kloes baithakoek, ezen diskordiak diradela zuen artean.

12 Bada haur diot, ezen zuetarik batbederak erraiten duela, Ni behinzat Paulen naiz, eta ni Apolloren, eta ni Zefasen, eta ni Kristen.

13 *Ala* zathitua da Krist? Ala Paul kruzifikatu izan da zuengatik, edo Paulen izenean batheiatu izan zarete?

14 Eskerrak emaiten drauzkiot lainkoari zeren ezpaitut zuetarik nehor batheiatu, Krispo eta Gaio baizen:

15 Nehork erran eztezan ezen neure izenean batheiatzen arizan naizela.

16 Batheiatu ukan dut Estebenen familia ere: gainerakoz eztakit berzerik batre batheiatu ukan dudanez.

17 Ezen ez nau igorri Kristek batheiatzera, baina ebanjelizatzaera: ez hitzezko zuhurtzian, Kristen krutzea ezdeusetara eztadinzat.

18 Ezen krutzezko hitza, galtzen diradenei behinzat, erhogoa zaie: baina guri salbatzen garenoi, lainzoaren berthute da.

19 Ezen eskribatua da, Galduren dut zuhurren zuhurtzia, eta adituen adimendua kenduren dut.

20 Non *da* zuhurra? non *da Eskriba?* non *da* sekula hunetako disputaria? eztu erho egin lainkoak mundu hunetako sapientia?

21 Ezen lainkoaren sapientian munduak lainkoa ezagutu eztuenaz geroz *haren* sapientiatik, lainkoaren plazera izan da predikationearen erhogoz sinhesten dutenen salbatzera.

22 Ezen luduak ere signo eskez daude, eta Grekoek sapientia bilhatzen dute:

23 Baina guzaz den bezenbatean predikatzen dugu Krist kruzifikatua, luduei behinzat eskandalo, eta Grekoei erhogoa *zaiena*.

24 Baina deithu diradenei hanbat luduei nola Grekoei *predikatzen drauegu* Krist lainkoaren berthutea eta lainkoaren sapientia.

25 Ezen lainkoaren erhogoa gizonak baino zuhurrago da: eta lainkoaren flakeza gizonak baino borthitzago da.

26 Ezen badakusazue zuen bokationea, anaieak, ezen etzaretela zuhurak anhitz haragiaren araez, ez borthitzak anhitz, ez nobleak anhitz.

27 Baina munduko gauza erho *diradenak* elejitu ukan ditu lainkoak konfundi ditzanzat zuhurak: eta munduko gauza flaku *diradenak* elejitu ukan ditu lainkoak konfundi ditzanzat gauza borthitzak:

28 Eta munduko gauza noble eztiradenak, eta menospreziatuak elejitu ukan ditu lainkoak, eta gauza eztiradenak, *diradenak* desegin ditzanzat

29 Glorifika eztadinzat haragirik batre haren aitzinean.

30 Baina harenganik zuek zarete Iesus Kristean, zein egin izan baitzaiku lainkoaz sapientia eta iustitia eta sanktifikazione eta redentpione:

31 Eskribatua den bezala, Gloriatzen dena, launean gloria dadinzat.

KAP. II.

*1 Paul ez hitz goratako. 7.
lainkoaren sapientia predikatzean,
10. Paulen eta berze hura
bezalakoen doktora, lainkoaren
Espiritua.*

1 Eta ni ethorri izan naizenean zuetara, anaieak, eznaiz ethorri elokentiazko edo sapientiazko exzellentiarekin, lainkoaren testimoniajea denuntiatzen nerauzuela.

2 Ezen ez tut deliberatu ukan deus zuen artean iakitera, Iesus Krist baizen, hura ere kruzifikatua.

3 Eta ni infirmitaterekin eta beldurrekin eta ikara halldirekin izan naiz zuek baithan.

4 Eta ene minzatzea eta ene predikationea ezta izan sapientia humanoren hitz gogagarritan: baina espirituren eta berthuteren erakustetan.

5 Zuen fedea eztenzat gizonen sapientiatan, baina lainkoaren potentiatan.

6 Eta sapientia denuntiatzen dugu perfektoren artean: eta sapientia *diot* ez mundu hunena, ezeta mundu hunetako prinze deseginen diradennena:

7 Baina denuntiatzen dugu lainkoaren sapientia misteriotan *dena*, *diot* estalia, lainkoak ia denbora guzien aitzinetik gure gloriatan determinatu ukan zuena:

8 Zein mundu hunetako prinziatarik batek ere ezpaitu ezagutu ukan: ezen baldin ezagutu ukan balute, gloriazko launa etzuketzen kruzifikatu.

9 Baina *predikatzen ditugu*, *eskribatua* den bezala, Begik ikusi eztituen, eta beharrik enzun eztituen gauzak, eta gizonen bihotzetara igan izan eztiradenak, zein lainkoak hari on daritzotenei apaindu baitrauzte.

10 Baina guri lainkoak rebelatu ukan drauzki-gu bere Espirituaz: ezen Espirituak gauza guziak penetratzen ditu, *bai* lainkoaren gauza barnak ere.

11 Ezen gizonetarik zeinek dakizki gizonaren gauzak, gizonaren espiritu hura baithan denak baizen? Halaber lainkoaren gauzak ere ez ditu nehork ezagutu ukan, lainkoaren Espirituak baizen.

12 Bada guk eztugu munduaren espiritua rezebitu ukan: baina lainkoaganiko Espiritua: lainkoaz guri eman izan kaizkigun gauzak ezagut ditzagunzat:

13 Zein denuntiatzen ere baititugu, ez sapientia humanoak irakasten dituen hitzez, baina Espiritu sailduak irakasten dituen ez, gauza espiritualak espiritualetara apropiatuz.

14 Baina gizon naturalak ez ditu konprehenditzen lainkoaren Espirituaren gauzak: ezen erho-goa zaizkio, eta ezin adi ditzake, zeren espiritualki iujeatzen baitirade.

15 Baina *gizon* espiritualak iujeatzen ditu gauza guziak, eta bera ezta nehorzaz iujeatzen.

16 Ezen nork ezagutu du launaren intentio-nea, hura instrui dezan? baina guk Kristen intentionea badugu.

KAP. III.

*1 Espiritual. Karnal. 3 Kristen
ministre karnalak. 9 Iainkoaren
adifizioa. 11 Elizaren fundamenta.
16 Iainkoaren tenplea.*

1 Eta ni anaieak, ezin minzatu natzaizue zuei espiritualei anzo, baina karnalei anzo, *diot*, haurrei anzo Krist *launean*.

2 Ezne edatera emaitzez hazi zaituztet, eta ez biandaz, zeren oraino ezin baitzinezaketen, baina orain ere oraino ezin dezakezue: zeren oraino karnal baitzarete.

3 Ezen inbidia eta gudu eta targoa zuen artean *denean*, etzarete karnal, eta etzabiltzate gizonaren araura?

4 Ezen erraiten duenean batak, Ni Paulen naiz: eta berzeak, Ni Apolloren, etzarete karnal?

5 Nor da bada Paul, eta nor Apollo, zerbitzari baizen, zeinez sinthetsi ukan baituzue, eta bat-bederari launak eman draukan bezala?

6 Nik landatu ukan dut, Apolok arregatu: baina lainkoak eman du handitzea.

7 Halakotz beraz landatzen ari dena ezta deus, ezeta arregatzen ari dena: baina handitzea emaiten duen lainkoa.

8 Eta landatzen ari dena eta arregatzen ari dena, bat dirade: eta batbederak rezebituren du bere saria bere travailluaren araura.

9 Ezen *gu* lainkoarekin langile gara, *zuek* lainkoaren laboranza, lainkoaren edifizio zarete.

10 lainkoaren gratia niri eman zaitadanaren araura, nabusi iakinsu batek bezala fundamenta ezarri ukan dut, eta berze batek gainean edifikatzen du: baina batbederak bekusa nola gainean edifikatzen duen.

11 Ezen berze fundamentik nehork ezin ezar dezake ezarri denaz berzerik, zein baita Iesus Krist.

12 Eta baldin nehork edifikatzen badu fundament hunen gainean urhe, zilhar, harri preziatu, egur, belhar, lasto:

13 Batbederaren obra manifestaturen da: ezen egunak deklaraturen du: zeren suaz mani-

festaturen baita: eta batbederaren obra nolako daten, suak forogaturen du.

14 Baldin zenbeit gainean edifikatu duenen obra badago, sari rezebituren du.

15 Baldin zenbeiten obra erra badadi, galtze eginen du: baina bera salbaturen da, badarik ere suz bezala.

16 Eztakizue ezen lainkoaren tenple zaretela, eta lainkoaren Espiritua habitatzen dela zuetan?

17 Baldin norbeitek lainkoaren tenplea desegin badeza, deseginen du hura lainkoak: ezen lainkoaren tenplea saildu da, zein baitzarete zuek.

18 Eztezala nehork bere burua seduzi: baldin zenbeitek uste badu zuen artean zuhur dela mundu hunetan, erho egin bedi, zuhur dadinzat.

19 Ezen mundu hunetako zuhurtzia, erhogoa da lainkoaren aitzinean: ezen eskribatua da, Hatzamaiten ditu zuhurak haien finezian.

20 Eta berriz, launak ezagutzen du ezen zuhurren pensamenduak bano diradela.

21 Bada, ezadila nehor gloria gizonetan: ezen gauza guziak zuen dirade:

22 Bada Paul, bada Apollo, bada Zefas, bada mundua, bada bizitzea, bada herioa, bada presenteko gauzarik, bada ethorthekorik, guziak dirade zuen: eta zuek Kristen, eta Krist lainkoaren.

KAP. III.

1 Kristen ministre. 3 Iudikatzea. 8 Korinthianoak ingrat. 11 Paul bere eskuez travaillatu. 14

Reprehenditzeko moiena. 15 Krist predikatzen dutenak. 16 Paulek bere imitatzera exhortatzen. 20 Hitza. Berthutea.

1 Estima beza guzaz gizonak Kristen ministrez, eta lainkoaren sekretuen dispensazalez bezala.

2 Baina gainerakoaz, nezesario da dispensazaletan leial batbedera eriden dadin.

3 Nizaz den bezenbatean, ansia guti dut zue-
zaz edo iujemendu humanoz iudikatu izatearen:
are neure burua ere eztut iudikatzen.

4 Ezen deusetan eztut neure burua hogen-
dun senditzen: ordea hunezaz eznaiz iustificatu:
baina ni iudikatzen nauena, launa da.

5 Halakotz, eztezazuela denbora baino lehen
iudika, launa dathorreno, zeinek ilhunbeko
gauza estaliak ere argituren baititu, eta bihotze-
tako konseilluak manifestaturen: eta orduan lau-
dorio ukanen du batbederak lainkoaganik.

6 Bada anaiak, gauza hauk minzatzeko
manera batez itzuli ukan ditut neure eta Apollo-
ren gainera, zuen kausaz: gutan ikas dezazuen-
zat, eskribatua den baino gehiago ez presumi-
tzera: bata berzearen kontra hant etzaiteztenzat
berzeren kontra.

7 Ezen nork hi reputationetan ezarten au?
eta zer duk rezebitu ukan eztuanik? eta baldin
rezebitu ukan baduk, zergatik gloriatzen aiz
rezebitu ezpahu bezala?

8 Ia ase zarete, ia abrastu zarete, gu gabe
regetu zarete: eta aitzinezate regna, guk ere
zuekin batean regna dezagunzat.

9 Ezen badaritzat lainkoak gu monstrosan ezarri gaituela, *baikara*, azken Apostoluak, heriotara kondenatuak bezala: ezen *begietako* miragarri egin izan gaitzaizte munduari eta Aingeruei eta gizonei.

10 Gu erho Kristgatik, eta zuek zuhur Krist *launean*, gu flaku, eta zuek sendo: zuek noble, eta gu bilaun. Ordu hunetarano eta gose gara eta egarri gara, eta billuzi gara, eta bufetatzen gara, eta leku batetik berzera errebelatuak gabiltza:

11 Eta traillaizten gara, gure esku propioez lan eginez.

12 Iniuriatzen gara, eta ungi erraiten dugu: persekutatzen gara, eta sufritzen dugu:

13 Difamatzen gara, eta othoitz egiten dugu, munduko eskobakin bezala egin izan gara, eta guzien karrakakin bezala oraindrano.

14 Eztrauzkizuet gauza hauk eskribatzen ahalke zaitzatedanzat, baina neure haur maite anzo abisatzen zaituztet.

16 Ezen hamar milla pedagogo bazintuzte ere Kristean, ez ordea anhitz aita: ezen Iesus

Kristean, Ebanjelioaz nikenjendratu ukan zaituztet.

16 Othoitz egiten drauzuet bada, ene imitazale zareten.

17 Halakotz igorri drauzuet Timotheo, zein baita ene seme maitea eta fidela *gure* launean, hark orhoit eraziren drauzkizue zerik diraden ene bideak Kristean, leku guzietan Eliza orotan irakasten dudan bezala.

18 Ni zuetara ethorteko ezpaninz bezala, batzu hantuak izan dirade.

19 Baina ethorriren naiz sarri zuetara, baldin launak nahi badu: eta ezaguturen dut, ez hantu izan diraden horien hitza, baina berthutea.

20 Ezen lainkoaren resuma ezta hitzean, baina berthute *espiritualean*.

21 Zer nahi duzue? zihorrekin ethorriren naiz zuetara, ala karitaterekin eta emetasunezko espiturekin?

KAP. V.

*1 Korintheko paillarda. 3
Exkomunikationea. 6 Altxagarri
zaharraren purgatzea. 7 Krist gure
Bazkoa. 9 Zein diraden
exkomunikatzeko.*

1 Guziz enzuten da zuen artean paillardiza *badela*, eta halako paillardiza zein Jentilen artean aipatzen ere ezpaita: ezen zenbeitek bere aitaren emaztea entretentzen duela.

2 Eta zuek hantuak zarete, eta eztuzue nigar lehen egin, ken ledinzat zuen artetik egitate haur egin duena.

3 Nik behinzat gorputzez absent bezala, baina present espirituz, ia deliberatu dut present bezala, haur hala egin duenaren,

4 (Zuek eta ene espiritua Iesus Krist gure launaren izenean bildurrik, Iesus Krist gure launaren botherearekin.)

5 Halakoaren Satani liuratzera haragiaren destruktioetan, espiritua salbu denzat Iesus launaren egunean.

6 Zuen gloriatzea ezta ona: Eztakizue ezen altxagarri guti batek orhe guzia altxa eraziten duela?

7 Purga ezazue bada altxagarri zaharra, orhe berri zaretenzat, altxagarri gabe zareten bezala: ezen gure Bazkoa guregatik sakrifikatu izan da, *zein* baita Krist.

8 Bada egin dezagun besta, ez altxagarri zaharrez, ezeta malitiatako eta gaixtakeriatako altxagarriz, baina altxagarri gaberiko *ogiz*, *diot* puritatezkoz eta egiazkoz.

9 Eskribatu drauzuet epistolan, nahasta etzaitezten paillartekin:

10 Eta ez guziz mundu hunetako paillartekin, edo abaritosoekin, edo harrapariekin, edo idolatrekin: ezpere segur behar zendukete mundutik ilki.

11 Baina orain eskribatu drauzuet etzaitezten nahasta, baldin zenbeit anaie deitzen denik paillard bada, edo abaritoso, edo idolatre, edo gaitzerraile, edo hordi, edo harrapari: halakoarekin ian ere eztezazuen.

12 Ezen zer iudikatzeko dut nik kanpoko diradenez ere? eztuzue barneko diradenez zuek iudikatzen ?

13 Baina kanpokoak launak iudikatzen ditu. Ken ezazue bada gaixto hori zeuron artetik.

KAP. VI.

1 Auziez. 11 Ikuzi, sanktifikatu, iustificatu izatea. 13 Paillardizari ihes egiteko. 15 Kristen membro. 19 Espiritu sainduaren tenple.

1 Hauzu da zuetarik zenbeit, egitekorik duenean berze baten kontra, iujemendutara ioaitera iniustoen aitzinera, eta ez sainduen aitzinera?

2 Eztakizue ezen sainduiek mundua iujeaturen dutela? eta baldin zuegaz mundua iujeaturen bada, indigne zarete gauza xipienen iujeatzeko?

3 Eztakizue ezen Aingeruak iujeaturen ditugula? zenbatez areago bizitze hunetako gauzak?

4 Halakotz bada baldin bizitze hunetako gauzez gorteak badituzue, Elizan estima xipitakoen diradenak ezar itzazue iar-lekuan.

5 Zuen ahalketan, *haur* erraiten drauzuet. Horrela da zuen artean zuhurrik ezten, ez are bat, bere anaien artean iujea ahal dezakenik?

6 Baina anaieak anaiearen kontra auzi du, eta are infidelen aitzinean.

7 Ia segur guziz falta da zuetan, zeren auzi baituzue zeuron artean: zeren eztuzue lehen iniuria sufritzen? zeren eztuzue lehen kalte rezebitzen?

8 Baina zuek iniuria egiten duzue eta kalte: eta are anaiei.

9 Ala eztakizue ezen iniustoek eztutela lainkoaren resuma heretaturen?

10 Etzaitzela engana, ez paillartek, ez idolatrek, ez adulteroek, ez malguk, ez bugrek, ez ohoinek, ez abaritosoek, ez hordiek, ez gaitzerrailek, ez harrapariak, eztute lainkoaren resuma heretaturen.

11 Eta halako gauza zineten batzu: baina ikuzi zarete, baina sanktifikatu zarete, baina ius-

tifikatu zarete, Iesus launaren izenean, eta gure lainkoaren Espirituaz.

12 Gauza guziak permetitzen zaizkit, baina guziak eztirade probetxutako: gauza guziak permetitzen zaizkit, baina ni eznaiz deusen botherearen suiektionerako.

13 biandak sabelaren, eta sabela bianden: baina lainkoak haur eta hek deseginen ditu: baina gorputza ezta paillardizatako, baina launarendako, eta launa gorputzarendako.

14 Eta lainkoak *gure* launa ere resuszitatu du, *eta* gu ere resuszitaturen gaitu bere bothereaz.

15 Eztakizue ezen zuen gorputzak Kristen membro diradela? edekirik beraz Kristen membroak paillarda baten membro eginen ditut? Gertha eztatila.

16 Ala eztatizue ezen paillarda bati iunktatzzen zaiona, gorputz bat harekin egiten dela? Ezen eginen dirade, dio, biga haragi bat.

17 Baina launari iunktatzen zaiona, espiritu bat da.

18 Ihes egiozue paillardizari: ezen gizonak dagian bekatu guzia gorputzetik kanpoan da,

baina paillardiza egiten duenak, bere gorputz
propria bekatu egiten du.

19 Ala eztaizue ezen zuen gorputza tenple
dela zuetan den Espiritu sainduaren, zein baitu-
zue lainkoaganik, eta etzaretela zeuron buruen?

20 Ezen erosiak zarete prezioz: glorifika eza-
zue bada lainkoa zuen gorputzean, eta zuen
espirituan, zein baitirade lainkoarenak.

KAP. VII.

1 Ezkonduez. 8 Alhargunez. 12
Emazte infidelarekin ezkondua den
fidelaz. 17 Bere bokationean
batbedera ebiltako. 18
Zirkonzisioneak. Preputioa. 21
Zerbitzariez. 25 Birjinez.

1 Eta eskribatu drautazuen gauzez den
bezenbatean, on *da* gizonaren emazterik ez hun-
kitzea.

2 Baina paillardizari ihes egiteagatik, batbederak bere emaztea biu, eta batbederak bere senharra biu.

3 Emazteari senharrak zor draukan onheriztea renda biezoz: eta halaber emazteak ere senharrari.

4 Emazteak bere gorputza eztu *bere* bothereko: baina senharrak: eta halaber senharrak ere bere gorputza eztu *bere* bothereko, baina emazteak.

5 Eztezazuela defrauda batak berzea zenbeit denboratakotz konsentimendu batez ezpada, baruretan eta orationetan enplega zaiteztenzat: eta harzara elkargana itzul zaitezte, Satanek tenta etzaitzatenzat zuen inkontinentiagatik

6 Baina haur erraiten dut permisionez, ez manamenduz.

7 Ezen nahi nuke gizon guziak liraden ni bezala: baina batbederak bere dohain propria du lainkoaganik, batak hunela eta berzeak hala.

8 Bada erraiten drauet ezkondu-gabei eta alhargunei, on dela haienzat, baldin badaudez ni bezala.

9 Baina baldin kontinent ezpadirade, ezkon bitez: ezen hobe da ezkonzea ezen ez erre iza-tea.

10 Eta ezkonduen denuntiatzen drauet, ez nik baina launak, Emaztea senharraganik eztadin parti.

11 Eta baldin parti badadi bego ezkondu gabe, edo senharrari rekonzilia bekio: senharrak ere emaztea eztezala utzi.

12 Baina berzei nik erraiten drauet, ez lau-nak, Baldin zenbeit anaiek emazte infidela badu, eta emazteak konsentitzen badu harekin habitatzera, eztezan hura utzi.

13 Eta baldin zenbeit emaztek senhar infidela badu, eta senharrak konsentitzen badu harekin habitatzera, eztezan hura utzi.

14 Ezen sanktifikatu da senhar infidela emazteaz, eta sanktifikatu da emazte infidela senharrak: berzela zuen haurrak satsu lirateke: baina orain saildu dirade.

15 Eta baldin infidela partitzen bada, partidadin ezen ezta suiet anaiea edo arreba halako *gauzetan*: baina bakera deithu gaithu lainkoak.

16 Ezen zer dakin emaztea, eia senharra salbaturen dunanez? edo zer dakik senharra, eia emaztea salbaturen duanez?

17 Baina nola batbederari *dohaina* partitu baitrauka lainkoak, nola batbedera deithu baitu launak, hala ebil bedi: eta hunela Eliza guzietan ordenatzen dut.

18 Zirkoziditurik norbeit deithu izan da? ezterakarran *preputioa*: preputioan norbeit deithu izan da? eztadila zirkozidi.

19 Zirkozisioneoa ezta deus, eta preputioa ezta deus: baina lainkoaren manamenduen begiratzea.

20 Batbedera zer bokationetan deithu izan baita hartan bego.

21 Esklabo deithu aiz? eztuala arrangurarik: baina baldin are libre egin ahal bahadi, *harzaz* lehen usat ezak.

22 Ezen launean deithu izan den esklaboa, launaren libre da: eta halaber libre dethua, Kristen esklabo da.

23 Prezios erosiak zarete, etzaretela gizonen esklabo.

24 Batbedera zertan deithu izan baita, anaieak, hartan bego lainkoa baithan.

25 Eta birjinez den bezenbatean launaren manamendurik eztut: baina koseillu emaiten drauzuet, launaganik fidel izatera miserikordia ukan dudanak bezala.

26 Estimutzen dut bada haur on dela presenteko nezesitateagatik, ezen on *dela* gizonarendako hunela izatea.

27 Emazterekin lothua aiz? eztezala bilha separationerik: emazteaganik laxatu aiz? eztezala bilha emazterik.

28 Bada baldin ezkon bahadi ere, eztuk bekatu-rik egin: eta baldin ezkon badadi birjina, eztu bekatu-rik egin: baina halakoek tribulatione ukanen dute haragian: baina nik gupida zaituztet.

29 Baina haur erraiten drauzuet, anaieak, ezen denbora labur dela hemendik harat, emaztedunak ere, emazterik ezpalute bezala diraden:

30 Eta nigarrez daudenak, nigarrez ezpalau-
de bezala: eta alegera diradenak, alegera ezpa-
lirade bezala: eta erosten dutenak, poseditzen
ezpalute bezala:

31 Eta mundu hunez usatzen dutenak, usatzen ezpalute bezala: ezen mundu hunen figura iragan doa.

32 Eta nahi nuke zuek arrangura gabe zintzen. Emazte gabe denak, artha du launaren gauzez, nolatan launaren gogarako daten:

33 Baina emaztedunak, artha du munduko gauzez, nolatan emaztearen gogarako daten.

34 Dibers dirade emazte *ezkondua* eta birjina: *emazte* ezkondu gabeak, artha du launaren diraden gauzez, gorputzez eta espirituz saildatzen: baina *emazte* ezkonduak, artha du munduko gauzez, nolatan senharraren gogarako daten.

35 Eta haur zuen probetxutan erraiten dut, ez lazoa ezar diezazuedenat: baina karazki eta moldez launari iunkta zakizkiotenzat enpatxurik batre gabe.

36 Baina baldin edozeinek uste badu ezen desohore duela haren birjinak bere adin florea iragan dezan, eta hala egin behar dela: nahi duena begi, eztu bekaturik egiten: ezkon bitez.

37 Baina bere bihotzean fermu dagoenak, nezesitaterik eztuela, baina du bere borondate

propriaren ganean puisanza, eta haur deliberratu bere bihotzean, bere birjinaren begiratzera, ungi egiten du.

38 Bada, bere birjina ezkonzen duenak, ungi egiten du: baina ezkonzen ez-tuenak, hobeki egiten du.

39 Emaztea lothua da legeaz haren senharra bizi den denbora guzian: baina haren senharra hil badadi, libre da norekin nahi den ezkonzeko, solament *gure* launean.

40 Baina dohatsuago da baldin hala badago, ene konseilluaren araura: eta estimatzen dut nik ere lainkoaren Espiritua badudala.

KAP. VIII.

1 Idolei sakrifikatu izan diraden gauzez. Karitateaz. 4 lainko bat bera. 6 laun bat. 8, 10 biandezko eskandaloaz.

1 Eta idolei sakrifikatzeko diraden gauzez den bezenbatean, badakigu ezen guziek ezagutze

badugula: ezagutzeak hanzen du, baina karitateak edifikatzen.

2 Eta baldin edozeinek uste badu zer bait badakiala, eztu oraino ezagutu deus ezagutu behar den bezala.

3 Baina baldin zenbeitek lainkoari on badaritzatza, hura harzaz irakatsi izan da.

4 Bada idolei sakrifikatzen diraden gauzen iateaz den bezenbatean, badakigu ezen deus eztela idola munduan, eta eztela berze lainkorik bat baizen.

5 Ezen iainko deitzen diradenak badirade ere, bada zeruan bada lurrean (nola anhitz iainko baita, eta anhitz iaun)

6 Baina guk iainko Aita bat dugu, zeinaganik *baitirade* gauza guziak, eta gu hartan: eta laun bat, Iesus Krist, zeinez *baitirade* gauza guziak, eta gu harzaz.

7 Baina ezta guzietan ezagutzea, ezen batzuk idolaren konszientiarekin oraindrano, idolei sakrifikatutik bezala iaten dute: eta haien konszientia nola ezpaita fermu, satsutzen da.

8 Bada biandak ezgaitu lainkoaren gogarako-tzenago: ezen ian badezagu ere, ezgara ukan-suago: eta ian ezpadezagu ere, eztugu gutiago.

9 Baina begirauzue zuen puisanza hori infirmo diradenei nolazpait eskandalotan ezten.

10 Ezen baldin norbeitek ikus baheza hi eza-gutze duanor, iarririk agoela idolen tenpleko mahainean, infirmo denaren konszientia ezta instruituren idolari sakrifikatu diraden gauzetarik iatera?

11 Eta hire ezagutze horrezaz galduren da anaie infirmo dena, zeinagatik Krist hil izan baita?

12 Bada hunela anaien kontra bekatu egiten duzuenean, eta haien konszientia infirmoa zaur-tzen duzuenean, Kristen kontra bekatu egiten duzue.

13 Halakotz, baldin biandak ene anaiea eskandalizatzen badu, eztut ianen haragirik sekulan, neure anaiea eskandaliza eztezadan-zat.

KAP. IX.

1 Korinthianoak Paulen lana. 4 Ebanjelioa predikatzen dutenen entretenimenduaz. 12 Sari gabe zergatik Paulek predikatu duen. 19. Zergatik guzien suiet egin izan den. 24. Lasterreko prezioa.

1 Eznaiz Apostolu? eznaiz libre? eztut Iesus Krist gure launa ikusi? etzarete zuek ene lana *gure launean?*

2 Baldin berzen Apostolu ezpanaiz, zuen berere banaiz: ezen ene Apostolutasunaren zigulua zuek zarete *gure launean.*

3 Ene defenza examinatzen nautenak baithara, haur da:

4 Ala extugu bothere iateko eta edateko?

5 Ala eztugu bothere emazte arreba baten guzietan erabilteko, berze Apostoluek, eta launaren anaiek, eta Zefasek bezala?

6 Edo, nik neurorrek eta Barnabasek eztugu bothere lanik ez egiteko?

7 Nork gerlarik egiten du bere despendioz behinere? nork landatzen du mahasti, eta haren fruktutik eztu iaten? edo nork bazkatzen du art-haldea, eta arthaldearen eznetik eztu edaten ?

8 Ala gizonaren araez gauza hauk erraiten ditut? ala Legeak ere eztitu gauza hauk erraiten?

9 Ezen Moisesen Legean eskribatua da, Eztraukak ahoa lothuren idi bihitzen ari denari. Ala artha du idiez lainkoak?

10 Ala haur guziz guregatik erraiten du? segur *haur* guregatik eskribatua da: ezen esperanzatan behar du laboratzen duenak, laboratu: eta bihitzen duenak partizipant izateko esperanzatan.

11 Baldin guk zuei gauza espiritualak erein badrauzkizuegu, gauza handia da zuen karnalak biltzen baditugu?

12 Baldin berzeak bothere hunetan zuen artean partizipant badirade, *zeren* ez zinezago gu? baina eztugu bothere hunez usatu ukan: aitzitik gauza guziak sufritzen ditugu, Kristen Ebanjelioari enpatxurik batre eztemogunzat.

13 Eztakizue ezen sakrifizioak egiten dituztenek, gauza sakrifikatuetarik iaten dutela? *eta*

aldarean enplegatzen diradene, aldarearekin pertzipatzen dutela?

14 Hala gure launak ere ordenatu ukan draue Ebanjelioa predikatzen dutenei, Ebanjeliotik bizi diraden.

15 Badarik ere nik gauza hautarik batez ere eztat usatu ukan. Eta gauza hauk eztat eskribatu, hala niri egin dakidanzat: ezen hobe nuke hil nendin ezen ez nehork ene glorifikamendua ezdeusetara dezan.

16 Ezen Ebanjelizatzen badut ere, eztat zeren gloria nadin: ezen nezesitateak eragiten draut: eta malediktione niri-baldin ebanjeliza ezpadezat.

17 Ezen baldin gogotik haur egiten badut, sari dut: baina baldin gogoz garaitik egiten badut, dispensationea eman izan zait.

18 Zer sari dut beraz? Ebanjelioa predikatzen dudanean, Kristen Ebanjelioa deus hartu gabe predika dezadan, eztezadan gaizki usat neure bothereaz Ebanjelioan.

19 Ezen guzietarik libre banaiz ere, guzien suiektioneko neure burua egin ukan dut, jende gehiagorabaz dezadanzat.

20 Eta egin izan natzaie luduei ludu bezala, luduak irabaz ditzadanzat: Legearen azpiko diradenei, Legearen azpiko baninz bezala, Legearen azpian diradenak irabaz ditzadanzat.

21 Lege gabei Lege gabe baninz bezala, (Lege gabe ezpanaiz ere lainkoagana, baina Kristen Legearen azpiko) Lege gabeak irabaz ditzadanzat.

22 Egin izan natzaie infirmoei infirmo bezala, infirmoak irabaz ditzadanzat: guziei egin izan natzaie gauza guzia, guziz batzu salba ditzadanzat.

23 Eta haur egiten dut Ebanjelioagatik, zuekin batean partizipant hartan egin nadinzat.

24 Eztakizue ezen estadioan laster egiten dutenek, guziek laster egiten badutela, baina batek prezioa hartzen duela? hala laster egizue non har baitezakezue.

25 Eta konbatitzen den guzia, rejimenduz gauza guzietan bizi da: eta hek *egiten dute* koroa korrupituren den baten ukaiteagatik: baina guk korrupituren eztenagatik.

26 Nik bada hala laster egiten dut, ez eztakidala nola: hala bataillatzen naiz, ez aireari baneraunsa bezala.

27 Baina gaztigatzen dut neure gorputza, eta suiektionetara erekartan: ezeinere maneraz berzei, predikatu ondoan, neuror reprobatu eriden eznadinzat.

KAP. X.

*1 Aiten Baptismoa. 4. Krist harri
espiritual. 6. Guthizia. 7. Idolatria. 8.
Paillardika. 9. Kristen tentatzea. 10.
Murmuratzea. 13. Tentationea. 14
Idolatriari ihes egiteko. 25. bianden
usajea. 32. Eskandalizatzetik
begiratzeko.*

1 Nahi dut bada dakizuen anaieak, ezen gure Aitak oro hodei azpian izan diradela, eta guziak itsasoaz iragan izan diradela:

2 Eta guziak Moiestan batheiatu izan diradela hodeiean eta itsasoan.

3 Eta guziek bianda espiritual ber batetarik
ian dutela.

4 Eta guziek edari espiritual-ber batetarik
edan dutela: ezen edaten zuten iarreikiten zaien
Harri espiritualetik: eta Harria zen Krist.

5 Baina hetarik anhitzen gainean eztu plazer
hartu ukan lainkoak: ezen desegin izan dirade
desertuan.

6 Eta gauza hauk gure exenplutan izan dira-
de, guthizia eztitzagunzat gauza gaixtoak, nola
hek guthiziatu baitituzte.

7 Eta etzareten idolatre, hetarik batzu legez,
eskribatua den bezala, larri izan da populua iate-
ra eta edatera, eta iaiki izan dirade dostetara.

8 Eta eztezagun paillarda, hetarik batzuk pai-
llardatu ukan duten bezala, eta hil izan baitirade
egun batez hogeit eta hirur milla.

9 Eta eztezagun tenta Krist, hetarik batzuk
tentatu ukan duten bezala, eta sugez desegin
izan baitirade.

10 Eta eztezazuen murmura, hetarik batzuk
murmuratu ukan duten bezala, eta desegin izan
baitirade desegileaz.

11 Eta gauza hauk guziok exenplutan heltzen zaizten haer: eta eskribatu izan dirade gure admonitionetan, zeinetara denboren finak heldu izan baitirade.

12 Hunegatik bada zutik dagoela uste duenak, begira biu error eztadin.

13 Tentationek etzaituztez hartu humanok baizen: eta fidal *da* lainkoa, zeinek ezpaitu permituren tenta zaitezten egar ahal dezake zuen baino gehiagoz: baina emanen du tentationearekin batean ilkitbidea ere sustenga ahal deza-zuenzat.

14 Hunegatik, ene maiteak, ihes egizue idolatriatik.

15 Adituei bezala minzo natzaizue: zeurok iujea ezazue erraiten dudana.

16 Benediktioezko kopa benedikatzan duguna, ezta Kristen odolaren komunioea? *eta* hausten dugun ogia ezta Kristen gorputzaren komunioea?

17 Ezen *gu* baikara anhitz, ogi bat *gara eta* gorputz bat: zeren guziak ogi batetan partizipant baikara.

18 Ikusazue Israel haragiaren araez *dena*: sakrifizioak iaten dituztenak, eztirade aldarean partizipant?

19 Zer erraiten dut beraz? idola zerbait dela? edo idolari sakrifikatu zaiona, zerbait dela? ez.

20 Aitzitik *diot*, ezen Jentilek sakrifikatzen dituzten gauzak, deabruei sakrifikatzen drauztela, eta ez lainkoari: eztut bada nahi zuek partizipant zareten deabruen.

21 Ezin launaren kopa edan dezakezue, eta deabruaren kopa: ezin launaren mahainean partizipant zaratezte: eta deabruen mahainean.

22 Ala nahi dugu aserre erazi launa? ala hura baino borthitzago gara?

23 Gauza guziak permetitzen zaizkit, baina guziak eztirade probetxutako: gauza guziak permetitzen zaizkit, baina gauza guziek eztute edifikatzen.

24 Nehork eztezala bere propria bilha, baina batbederak berzerena.

25 Harakinzan saltzen den orotarik, ianagazue: deus galdegin gabe konszientiagatik.

26 Ezen launarena da lurra eta hartango konplimendua.

27 Eta baldin infideletarik zenbeitek gomitatzen bazaituztez, eta ioan nahi bazarete: aitzinera ezarten zaizuen orotarik ianagazue, deus galdegin gabe konszientiagatik.

28 Baina baldin zenbeitek erran badiezazue, Haur idolei sakrifikatua da, eztezazuela ian, abertitu zaituztenagatik, eta konszientiagatik: ezen launarena da lurra eta hartango konplimendua.

29 Baina konszientia erraiten diat, ez hirea, baina berzearena: ezen zergatik ene libertatea iudikatzen da berzeren konszientiaz?

30 Eta baldin nik gratiaz biandan partizipatzen badut, zergatik gaixto iudikatzen naiz nik eskerrak emaiten ditudan gauzagatik?

31 Bada, edo iaten baduzue, edo edaten baduzue. edo zerbait berzerik egiten baduzue, guzia lainkoaren gloriatan egizue.

32 Zareten eskandalo gabe eta lduetara eta Grekoetara eta lainkoaren Elizagana.

33 Ni ere gauza guzietan guzien gogarako naizen bezala, bilhatzen eztudala neure probetxu propria: baina anhitzena, salba ditezenzat.

KAP. XI.

1 Krist eta Apostoluak imitatzeko. 4. Nola nehor Elizan perportatzeko. 17. Nola biltzeko. 20 launaren Zenaz, eta nola Korinthianoek abusatzen zuten harzaz. 31. Nork bere burua iujeatzeko. 32. launaz iujeatu izatea.

1 Zareten ene imitazale, ni ere Kristen bezala.

2 Bada laudatzen zaituztet, anaieak, zeren ene gauza guzietz orhoit baitzarete, eta zeren eman drauzkizuedan bezala, ordenanzak edukiten baitituzue.

3 Baina nahi dut dakizuen, ezen gizon guziaren burua Krist dela: eta emaztearen burua, gizona: eta Kristen burua, lainkoa.

4 Gizon burua estalirik othoitz egiten, edo profetizatzen duen guziak, desohoratzen du bere burua.

5 Baina emazte burua estali gaberik othoitz egiten edo profetizatzen duen guziak, desohora-

tzen du bere burua: ezen hanbat da nola arradatu baliz.

6 Ezen baldin estaltzen ezpada emaztea, motz ere bedi: eta baldin deshonest bada emaztearen moztu edo arradatu izatea, estal bedi.

7 Ezen gizonak eztu estali behar burua, lainkoaren imajina eta gloria denaz geroz: baina emaztea, gizonaren gloria da.

8 Ezen gizona ezta emaztetik, baina emaztea gizonetik.

9 Ezen are ezta gizona kreatu izan emazteagatik, baina emaztea gizonagatik.

10 Hunegatik ukaiteko du emazteak buruan seignalea suiektionetan dela, Aingeruakgatik.

11 Guziagatik ere ez gizona emaztea gabe, ezeta emaztea gizona gabe, *gure* launean.

12 Ezen nola emaztea gizonetik, *baita*, hala gizona ere emazteaz: baina gauza guziak lainkoaganik.

13 Zeurok baithan iujea ezazue, Honest da emazteak estali gaberik lainkoari othoitz dagion?

14 Ala naturak berak ere etzaituztez irakasten ezen gizonak adatsdun izatea desohore duela?

15 Baina emazteari adatsdun izatea gloria zaiola? zeren adatsa estalgitzat eman izan baitzaio.

16 Eta baldin zenbeitek ihardukizale dela irudi badu, guk halako kostumarik eztugu, ez lainkoaren Elizek ere.

17 Bada haur *hala* deklaritzen drauzuet non ezpaitzaitzuet, laudatzen, zeren ezpaitzarete emendiotan biltzen, baina desemendiotan.

18 Ezen lehenik, biltzen zaretenean Elizan, enzuten dut dibisione dela zuen artean: eta parte sinhesten dut.

19 Ezen behar da heresiak ere zuen artean diraden, forogatuak manifest egin ditezenzat zuen artean.

20 Bada elkargana biltzen zaretenean, ezta *hori* launaren Zenaren iatea.

21 Ezen batbedera abanzatzen da bere afa-riaren hartzera iaterakoan: eta bata da gose, eta berzea da hordi.

22 Ala eztituzue etxeak *hetan* iateko eta edateko? ala lainkoaren Eliza menospreziatzen duzue, eta ahalketzen dituzue eztutenak? Zer

erranen drauzuet? Laudaturen zaituztet hune-
tan? etzaituztet laudatzen.

23 Ezen nik rezebitu ukan dut launaganik
eman ere drauzuedana: nola Iesus launak, tradi-
tu izan zen gauean, hartu zuen ogia:

24 Eta gratiak rendaturik, hauts zezan, eta
erran zezan, Har ezazue, ian ezazue: haur da
ene gorputza zuengatik hausten dena: haur egi-
zue ene memoriotan.

25 Halaber kopa ere *har zezan* afaldu
zenean, zioela, Kopa haur da Testamentu berria
ene odolean: haur egizue, noiz ere edanen baitu-
zue, ene memoriotan.

26 Ezen noiz ere ianen baituzue ogi haur, eta
kopa haur edanen, launaren herioa denuntiatu-
ren duzue, dathorreno.

27 Halakotz, nork ere ianen baitu ogi haur,
edo edanen launaren kopa indignoki, hogendun
izanen da launaren gorputzaren eta odolaren

28 Foroga beza bada batbederak bere burua,
eta hunela ogi hartarik ian beza, eta kopa harta-
rik edan.

29 Ezen iaten eta edaten duenak indignoki, bere kondemnationea iaten eta edaten du, diszernitzen eztuelarik launaren gorputza.

30 Halakotz *da* zuen artean anhitz infirmorik, eta eririk, eta lo daunza anhitz.

31 Ezen segur baldin gure buruak iujea baginza, ezgintezke puni.

32 Baina punitzen garenean, launaz instruitzen gara: munduarekin kondemna ezgaitezentzat.

33 Bada, ene anaieak, biltzen zaretenean iatera batak berzea iguriki ezazue.

34 Eta baldin nehor gose bada, etxean ian beza: kondemnationetan bil etzaiteztenzat. Eta garaitiko gauzez, nathorrenean ordonaturen duket.

KAP. XII.

*1 Dohain espiritualez. 12 Anhitz
menbro gorputz batetan. 27 Eliza,
Kristen gorputz.*

1 Dohain espiritualez den bezenbategan, anaieak, ez tut nahi ignora dezazuen.

2 Badakizue ezen Jentil izan zaretela, eta idola mutuen onduan gidatzen zineten bezala lasterka zinabiltzatela.

3 Halakotz iakin eraziten drauzuet, ezen lainkoaren Espirituaz minzo denek batek ere, ez tuela erraiten Iesus malediktione dela: eta nehork ezin derrakeela Iesus *dela* laun, Espiritu sainduaz baizen.

4 Eta dohainen diferentiak badirade, baina Espiritu ber bat *da*:

5 Administrationen diferentiak ere badirade: baina laun ber bat:

6 Operationen diferentiak ere badirade: baina lainko ber bat *da*, zeinek egiten baitu guzia guzietan.

7 Baina batbederari emaiten zaio espirituaren manifestacionea probetxatzeko.

8 Ezen batari espirituaz emaiten zaio sapientiatako hitza, eta berzeari ezagutzetako hitza, espirtu beraren araez:

9 Eta berzeari fedea, Espiritu harzaz beraz: eta berzeari sendatzeko dohainak Espiritu harzaz beraz.

10 Eta berzeari, berthuten operationeak: eta berzeari profetia: eta berzeari, espirituen diskre-tioneak: eta berzeari, lengoajen dibersitateak: eta berzeari, lengoajen interpretationea.

11 Baina gauza hauk guziak egiten ditu, Espiritu bat hark eta berak, distribuituz *hek* partiku-larki batbederari, nahi duen bezala.

12 Ezen gorputza bat den bezala, eta baitu anhitz membro, baina gorputz batetako membro guziak, anhitz diradelarik, gorputz bat dirade: hala *da* Krist ere.

13 Ezen Espiritu batez gu guziok batheiatu izan gara gorputz bat izateko, bada ludurik, bada Grekorik, bada esklaborik, bada librerik: eta guziak edaran izan gara Espiritu ber batez.

14 Ezen gorputza ere ezta membro bat, baina anhitz.

15 Baldin erran badeza oinak, Eznaiz eskua, eznaiz gorputzeko: ezta halakotz gorputzeko?

16 Eta baldin erran badeza beharriak, Eznaiz begia, eznaiz gorputzeko: ezta halakotz gorputzeko?

17 Baldin gorputz guzia begia *bada*, non *izanen da* enzutea? baldin guzia enzutea *bada*, non *izanen da* senditzea?

18 Baina orain ezarri ukan du lainkoak membrotarik batbedera gorputzean, nahi ukan duen bezala.

19 Ezen baldin guziak membro bat balirade non *lizateke* gorputza?

20 Baina orain anhitz dirade membroak, badarik ere gorputz bat.

21 Eta ezin begiak derrakeo eskuari, Hire beharrik eztiat: edo berriz buruak oinei, Zuen beharrik ez tut.

22 Baina are gehiago *dena* gorputzeko membro infirmoen irudi dutenak, nezesarioenak dirade.

23 Eta gorputzeko *menbro* deshonesten diradela uste dugunak, ohoratukienik estaltzen ditugu: eta gure *menbro* deshonestenek, ornamendu gehienik dute.

24 Eta gutan honest diraden partek *ornamendu* beharrik eztute: baina lainkoak moderatu ukan du gorputza batean, falta zuenari ohore gehienik emanetz:

25 Gorputzean dibisionerik eztenzat, baina menbroek batak berzeagatik ansia ber bat duten.

26 Eta den menbro batek zerbait sufritzen duen, menbro guziek harekin sufritzen dute: edo den menbro bat ohoratzen den, menbro guziak alegeratzen dirade elkarrekin.

27 Bada zuek zarete Kristen gorputz, eta menbro partez.

28 Eta batzu ezarri ukan ditu lainkoak Elizan, lehenik Apostoluak, gero Profetak, herenean Doktorak: eta gero berthuteak: gero sendatzeko dohainak, aiutak, gobernamentuak, lengoajen dibersitateak.

29 Ala guziak *dirade* Apostolu? ala guziak Profeta? ala guziak doktor? ala guziak berthutedun?

30 Ala guziek badute sendatzeko dohaina? ala guziak lengoaje dibersez minzo dirade? ala guziek interpretatzen dute?

31 Baina zareten dohain exzellentenen guthizioso: eta oraino bide exzellentago bat erakutsiren drauzuet.

KAP. XIII.

1 Karitatea gabe deus probetxurik ez. 4 Karitatearen fruktuak eta eginbidea. 11 Gizonaren eta haurraren iujemendua. 12 Ikustea mirailean, eta begithartez begitharte.

1 Baldin gizonen eta Aingeruen lengoajez minza banadi, eta karitaterik eztudan, egin naiz kobre soinu egiten duenaren, edo zinbala dindatzen duenaren *pare*.

2 Eta baldin banu profetiazko *dohaina*, eta nakizkian misterio guziak eta eszientia guzia: eta nuen fede guzia, hanbat non mendiak transporta nitzan, eta karitaterik eztudan, deus eznaiz.

3 Eta baldin distribui baditzat neure on guziak paubren hatzeko, eta baldin eman bade-

zat neure gorputza erre izateko, eta karitaterik eztudan, etzait deus probetxatzen.

4 Karitatea patient da, benigno da, karitatea ezta inbidioso: karitateak eztu insolentiarik, eta ezta hanzen:

5 Eztu deshonestaterik egiten, eztabila bere probetxuen ondoan, ezta despitatzen: eztu gaitzik pensatzen:

6 Ezta bidegabeaz alegeratzen, baina alegeratzen da egiaz.

7 Gauza guziak pairatzen ditu, gauza guziak sinhesten ditu, gauza guziak esperatzen ditu, gauza guziak sufritzen ditu.

8 Karitatea nehoiz ere ezta erorten: baina are profetiak abolituren dirade, eta lengoajek fin harturen dute, eta eszientia abolituren da.

9 Ezen partez ezagutzen dugu eta partez profetizatzen.

10 Eta perfektioea ethorri datenean, orduan partez dena abolituren date.

11 Haurra ninzenean, haur anzo minzo nintzen, haur anzo iujeatzen nuen, haur anzo pensatzen nuen: baina gizon egin naizenean, abolitukan ditut haurtasuneko manerak.

12 Ezen orain mirail batez ikusten dugu ilhunki: baina orduan begithartez begitharte ikusiren dugu: orain ezagutzen dut partez, baina orduan ezaguturen dut ezagutu ere naizen bezala.

13 Bada orain badaude hirur gauza hauk, fedea, esperanza, karitatea: baina hautariko handiena karitatea *da*.

KAP. XIII.

*1 Profetizatzea edifikationetako. 6
Rebelationea. Eszientia. Profetia.
Doktrina. 12 Dohainez Elizaren
edifikationetan usatzeko. 15
Espirituzko eta adimenduzko
othoitzak. 26 Elizan guzia
edifikationetan egiteko. 34
Emazteak Elizan ixilik egoiteko. 40
Honestatea eta ordenanza.*

1 Zarreitzate karitateari, eta zareten dohain espiritual guthizioso, baina gehienik profetiza dezazuen.

2 Ezen lengoaje *arrotzez* minzo dena etzaie gizonei minzo, baina lainkoari: ezen nehork eztu enzuten, eta espirituz misterioak erraiten ditu.

3 Baina profetizatzen duena, gizonei minzo zaie edifikationetan, eta exhortationetan, eta konsolationetan.

4 Lengoaje *arrotzez* minzo denak, bere burua edifikatzen du: baina profetizatzen duenak, Eliza edifikatzen du.

5 Nahi dut bada zuek guziok lengoaje *dibersez* minza zaitezten, baina nahiago profetiza dezazuen ezen handiago da profetizatzen duena ezen ez lengoaje *dibersez* minzo dena, baldin interpretatzen ezpadu, Elizak edifikazione har dezantat.

6 Bada orain, anaieak, baldin banathor zuetara lengoaje *arrotzez* minzo naizela, zer probetxu eginen drauzuet: baldin minza ezpanakizue edo rebelationez, edo eszientiaz, edo profetiaz, edo doktrinaz?

7 Eta gauza arima gabe soinu emaiten dutenek ere edo *den* xirula, edo harpa, baldin *zerbait* diferentia tonuz ezpademate, nolatan ezaguturren da xirulaz edo harpaz ioiten dena?

8 Ezen baldin soinu iakin bat eman ezpadeza tronpetak, nor preparaturen da bataillara?

9 Hala zuek ere baldin adi daitekeen hitza mihiaz pronuntia ezpadezazue, nolatan adituren da erraiten dena? ezen airera minzazale izanen zarete.

10 Hanbat (heltzen ohi den bezala) soinu mota da munduan, eta batre ezta muturik.

11 Beraz baldin ezpadakit bozaren berthutea, izanen natzaio minzo denari barbaro: eta minzo zaitadana barbaro izanen zait.

12 Hala zuek ere dohain espiritual guthizioso zaretenaz geroz, zarreitzate *hetan* abundoso izateari Elizaren edifikationetan.

13 Halakotz lengoaje arrotzez minzo denak othoitz begi interpreta ahal dezanzat.

14 Ezen baldin lengoaje *arrotzez* othoitz egiten badut, ene espirituak othoitz egiten du: baina ene adimendua fruktu gabe da.

15 Zer bada? othoitz eginen dut espirituz, baina othoitz eginen dut adimenduz ere: kantaturen dut espirituz, baina kantaturen dut adimenduz ere.

16 Berzela, baldin benedika badezak espirituz, ignorantaren lekua dadukanak nolatan erranen du Amen hire remerziamenduaren gainera? ezen *hik* zer erraiten duan etzeakik.

17 Ezen hik bai eskerrak emaiten dituk, baina berzea eztatek edifikatzen.

18 Eskerrak emaiten drauzkiot neure lainkori, zeren zuek guziok baino gehiago lengoajez minzo bainaiz.

19 Baina Elizan nahiago naiz borz hitz neure adimenduz minzatu, berzeak ere instrui ditza-danzat, ezen ez hamar milla hitz lengoaje *arro-tzez*.

20 Anaieak, etzaretela adimenduz haur: baina zareten malitiaz haur, eta adimenduz zareten gizon eginak.

21 Legean eskribatua da, Halakotz berze lengoajetako *jendez*, eta ezpain arrotzez minzaturen natzaio populu huni: eta are halatan eznaute enzunen, dio launak.

22 Bada lengoaje *arrotzak* dirade seignaletan, ez sinhesten dutenei, baina infidelei: baina profetia, ez infidelei, baina sinhesten dutenei.

23 Bada baldin Eliza guzia bil badadi batetara, eta guziak lengoaje *arrotzez* minza ditezen, eta ignorantak, edo infidelak sar ditezen: eztute erranen, ezen erhotzen zaretela?

24 Baina baldin guziek profetizatzen badute, eta sar dadin zenbeit infidel edo ignorant, benutzten da guziez, eta iujeatzen da guziez.

25 Eta halatan haren bihotzeko sekretuak manifestatzen dirade: eta hala ahoz beheraturik adoraturen du lainkoa, deklaratzan duela ezen lainkoa egiazki zuetan dela.

26 Zer da bada anaieak? biltzen zareten oroz, zuetarik batbederak psalmu du, doktrina du, rebelatione du, lengoaje du, interpretatione du, gauza guziak edifikationetan egin bitez.

27 Ezpa lengoaje *arrotzez* edozein minzo bada, bigez edo gorena hirurez *egin bedi*, eta aldizka: eta batek interpreta beza.

28 Eta baldin interpretazalerik ezpada, ixil bedi Elizan *lengoaje arrotzez minzo dena*, eta bere buruari minza bekio eta lainkoari.

29 Eta biga edo hirur Profeta minza bitez, eta berzek iujea bezate.

30 Eta baldin *zerbait* berze iarririk dagoen bati rebelatu izan bazaio, lehena ixil bedi.

31 Ezen guziek bata berzearen ondoan profetiza ahal dezakezue, guziek ikas dezatenzat, eta guziak konsola ditezenzat.

32 Eta Profeten espirituak Profeten suiet dirade.

33 Ezen lainkoa ezta konfusioezko *lainko*, baina bakezko, sainduen Eliza guzietan *ageriden* bezala.

34 Zuen emazteak Elizetan ixilik beude: ezen etzaie permetitzen minzatzera: baina bire suiet, Legeak ere erraiten duen bezala.

35 Eta baldin *zerbait* ikasi nahi badute, etxean bere senharrak interroga bitzate: ezen deshonest da emazten Elizan minzatzea.

36 Ala zuetarik lainkoaren hitza ilki izan da? ala zuetara beretara heldu izan da?

37 Baldin zenbeitek uste badu Profeta dela, edo espiritual, ezagut beza ezen eskribatzen drauzkizuedan gauzak lainkoaren manamendu diradela.

38 Eta ignorant dena, ignorant biz.

39 Halakotz, anaieak, zareten profetizatzeraguthizioso, eta lengoaje *arrotzez* minzatzea eztezazuela enpatxa.

40 Baina gauza guziak bidezki eta ordenantzaz egin bitez.

KAP. XV.

1 Paulek zer Ebanjelio predikatu. 3 Kristen herioa eta resurrektionea. 9 Paul persekutazale eta Apostolu. 22 Resurrektionea Kristez. 45 Adam lehena eta gerokoa. 56 Herioaz eztena. 57 Biktoria. 58 Fermetatea eta perseberanza.

1 Bada abisatzen zaituztet, anaieak, deklaratu drauzuedan Ebanjelioaz, zein rezebitu baituzue, zeinetan egoiten ere baitzarete.

2 Zeinez salbatzen ere baitzarete, baldin orhoit bazarete zer maneraz hura denuntiatu

drauzuedan: baldin alfer sinhetsi ukan ezpaduzue.

3 Ezen eman drauzuet rezebitu ere ukan nuena: nola Krist hil izan den gure bekatuakgatik, Eskripturen araura:

4 Eta nola ohortze eta resusztatatu izan den hereneko egunean, Eskripturen araura:

5 Eta nola ikusi izan den Zefasez, eta gero hamabiez.

6 Geroztik ikusi izan da borz ehun anaiez baina gehiagoz aldi batez: zeinetarik anhitz bizi baitirade oraindrano, eta batzu lokartu ere izan dirade:

7 Geroztik ikusi izan da lakesez: eta gero Apostolu guziez.

8 Eta guzietako azkenenik, aburtoin anzokoz ikusi izan da nizaz ere.

9 Ezen ni naiz Apostoluetako xipiena, Apostolu deithu izateko digne eznaizenor, zeren persekutatu ukan baitut lainkoaren Eliza.

10 Baina lainkoaren gratiaz naiz naizena: eta haren ni baitharako gratia, ezta bano izan, aitzitik hek guziak baino gehiago travaillatu izan

naiz: badarik ere ez ni, baina lainkoaren gratia enekin *dena*.

11 Beraz, bada nik, bada hek, hunela predikatzen dugu, eta hunela sinhetsi ukan duzue.

12 Eta baldin Krist predikatzen bada ezen hiletarik resuszitatu izan dela, nola erraiten dute batzuk zuen artean, ezen hilen resurrektionerik eztela?

13 Ezen baldin hilen resurrektionerik ezpada, Krist ere ezta resuszitatu izan.

14 Eta baldin Krist resuszitatu izan ezpada, beraz bano *da* gure predikationea, eta zuen fedea ere bano *da*.

15 Eta erideiten ere bagara lainkoaren testimonio falsu: ezen testifikatu ukan dugu lainkoaz, nola resuszitatu ukan duen Krist, zein ezpaitu resuszitatu, baldin hilak resuszitatzen ezpadirade.

16 Ezen baldin hilak resuszitatzen ezpadirade, Krist ere ezta resuszitatu izan.

17 Eta baldin Krist resuszitatu izan ezpada, bano *da* zuen fedea: oraino zuen bekatuetan zarete.

18 Beraz Kristan lokartu diradenak ere, galdu izan dirade.

19 Baldin bizitze hunetan solament Krist bait-han esperanza badugu, gizon guzietako misera-blenak gu gara.

20 Baina orain, Krist resuszitatu izan da hile-tarik: *eta* lokartu izan diradenen primitia egin izan da.

21 Ezen herioa gizon batez denaz geroz, hilen resurrekzionea ere gizon batez da.

22 Ezen nola guziak Adamtan hiltzen baitira-de, hala Kristan ere bibifikaturen dirade guziak.

23 Baina batbedera bere ordenanzan: primi-tia Krist, gero Kristen diradenak, haren adbeni-menduan.

24 Gero *izanen da* fina, eman draukeonean resuma lainko Aitari: abolitu dukeenean prinzi-paltasun guzia, eta puisanza eta bothere guzia.

25 Ezen behar du hark regnatu, etsai guziak bere oinen azpian ezarri ditukeeno.

26 Eta azken etsai deseginen dena herioa *da*.

27 Ezen gauza guziak suiet egin ukan ditu haren oinen azpiko (baina erraiten duenean, ezen gauza guziak haren suiet egin izan dirade-

la, ageria da ezen gauza guziak haren suiet egin dituenaren reserbatua dela.)

28 Eta gauza guziak hari suiet egin zaizkeonean, orduan Semea bera ere suiet eginen zaio gauza guziak hari suiet egin drauzkionari, lainkoa denzat guzia guzietan.

29 Berzela zer eginen dute hiltzat batheiatzen diradenean, baldin guziz hilak resusztatzen ezpadirade? eta zergatik batheiatzen dirade hiltzat?

30 Eta zergatik gu periletan gara ordu oroz?
31 Egunetik egunera hiltzen naiz, gure gloria Iesus Krist gure launean dudana.

32 Baldin gizonaren arauz bestien kontra bataillatu izan banaiz Efesen, zer probetxu dut, baldin hilak resusztatzen ezpadirade? Ian dezagun eta edan dezagun: ezen bihar hilen gara.

33 Etzaitezela seduzi. Propos gaixtoek korrumpitzen dituzte konditione onak.

34 Iratzar zaitezte iustoki *bizitzera*, eta bekaturik eztagizuela: ezen batzuk lainkoaren ezagutzea ez tute: *zuen* ahalketan erraiten drauzuet.

35 Baina erranen du zenbeitetik, Nola resusztatzen dirade hilak? eta nolako gorputzetan ethorriren dirade?

36 Erhoa, hik ereiten duana, eztuk bibifikatzen, baldin hil ezpadadi.

37 Eta ereiten duana, eztuk gorputz sorthuren dena ereiten, baina bihi hutsa, nola heltzen baita, ogiarena, edo zenbeit berze *bihirena*.

38 Baina lainkoak emaiten diraukak gorputza nahi duen bezala, eta hazietarik batbederari zeini bere gorputz propria.

39 Haragi guzia ezta haragi ber bat: baina berze da gizonen haragia, eta berze, abren haragia: eta berze arrainena: eta berze xoriena.

40 Eta *badirade* gorputz zerukoak, eta badirade gorputz lurrekoak: baina berze da zerukoen gloria, eta berze lurrekoena.

41 Berze *da* iguzkiaren gloria, eta berze ilhariaren gloria, eta berze izarren gloria: ezen izarra izarraganik diferent da gloriatan.

42 Halaizanen *da* hilen resurrektionea ere: *gorputza* ereiten da korrupcionetan, resusztatzen da inkorrupcionetan.

43 Ereiten da desohorezko, resusztatzen da glorioso: ereiten da infirmo, resusztatzen da botheretsu.

44 Ereiten da gorputz sensual, resusztatzen da gorputz espiritual: bada gorputz sensuala, eta bada gorputz espirituala.

45 Eskribatua ere den bezala, Egin izan da Adam lehen gizona arima bizitan: Adam gerokoa espirtu bibifikazalean.

46 Baina espiritual *dena* ezta lehen, baina sensual *dena*: gero espiritual *dena*.

47 Lehen gizona lurretik, lurreko: eta bigarren gizona, *zein baita* launa, zerutik.

48 Lurrekoa nolako, halako lurreko diradenak ere: eta zerukoak nolako, halako zerukoak ere.

49 Eta lurrekoaren imajina ekarri ukan dugun bezala, ekarriren dugu zerukoaren imajina ere.

50 Huna zer diodan, anaieak, ezen haragiak eta odolak lainkoaren resuma hereta ezin deza-ketela: eta korrupzioneak eztuela inkorrupzionea heretatzen.

51 Huna, misterio bat erraiten drauzuet, Guziak behinzat lokarturen ez gara, baina guziak bai muthaturen:

52 Moment batez *etabegi* keinu batez, azken tronpetan (ezen ioren du tronpetak) eta hilak resusztaturen dirade inkorruptible, eta gu mut-haturen gara.

53 Ezen behar da korruptible haur beztu dadin inkorruptioenez, eta mortal haur beztu dadin inmortalitatez.

54 Bada korruptible haur beztu datenean inkorruptioenez, eta mortal haur beztu datenean inmortalitatez, orduan egingen da eskribatu dena, Iretsi izan da herioa biktoriatara.

55 O herioa, non da hire biktoria? o sepul-krea, non da hire eztena?

56 Bada herioaren eztena, bekatua *da*: eta bekatuaren botherea, Legea.

57 Baina esker lainkoari, zeinek biktoria eman baitrauku Iesus Krist gure launaz.

58 Halakotz, ene anaie maiteak, zaretan fermu, konstant, abundoso launaren obran bet-hiere, dakizuelarik ezen zuen trabailua eztela bano *gure* launean.

KAP. XVI.

1 Paubren kollektez. 5 Mazedonia. 8 Mendekoste. 10 Timotheo. 12 Apollo. 13 Beillatzeko. Fedean egoiteko. 14 Karitatea. 19 Asiako Elizak.

1 Sainduendako egiten diraden kollektez den bezenbatean, nola Galatiako Elizei ordenatu baitrauet, hala zuek ere egizue.

2 Asteko lehen *egun* oroz zuetarik batbederak bere baithan ezar dezan apart, lainkoaren benignitatez ahal dezana gordatzen duela: nahorren orduan kollektak egin eztitezenzat.

3 Eta gero arriba nadinean, nor ere zuek letraz aprobaturen baitituzue, hek igorriren ditut zuen liberalitatearen eramaitera Ierusalemara.

4 Eta baldin premiarik bada neuror ere ioan nadin, enekin ioanen dirateke.

5 Ethorriren naiz bada zuetara, Mazedonia iragan dukedanean (ezen Mazedonian iraganen naiz.)

6 Eta zuek baithan agian egonen naiz, edo negua iraganen ere: zuek gida nezazuenzat norat ere ioanen bainaiz.

7 Ezen etzaituztet orain iragaitez ikusi nahi: baina esperanza dut zerbait denbora egonen naizela zuek baithan, baldin launak permeti badeza.

8 Baina egonen naiz Efesen Mendekoste arte-no.

9 Ezen bortha handi bat eta efikaziotako bat ireki izan zait, baina etsai anhitz.

10 Eta baldin ethor badadi Timotheo, gogozue segur den zuek baithan: ezen launaren obra obratzen du nik ere bezala.

11 Bada nehork eztezala hura menosprezia, baina gida ezazue bakerekin, dathorrenzat enegana, ezen haren begira nago anaiekin.

12 Eta anaie Apolloz den bezenbatean, anhitz othoitz egin draukat ioan ledin zuetara anaiekin: baina neholetan ere eztu ukan borondaterik orain ioaiteko: baina ethorriren da oportunitatea duenean.

13 Beilla ezazue, zaudete fedean fermu, Balentki perporta zaitetze, fortifika zaitetze.

14 Zuen egiteko guziak karitaterekin egin bitez.

15 Eta othoitz egiten drauzuet, anaieak, badakizue Estebenen familia Akaiako primitien artean dela, eta sailduen zerbitzura bere buruak eman dituztela:

16 Zuek ere zareten suiet halakoen, eta gurekin langiten eta traillaitzen ari den guziaren.

17 Boz naiz bada Estebenen eta fortunaten eta Akaikoren ethorteaz, zeren zuen absentia hek suplitu ukan baitute.

18 Ezen rekreatu ukan dituzte ene espiritua eta zuena. Ezagut itzazue bada halako diradenak.

19 Salutatzon zaituztez Asiako Elizek. Salutatzon zaituztez *gure* launean anhitz, Akilak eta Priszillak, bere etxeko Elizarekin.

20 Salutatzon zaituztez anaie guziek. Saluta ezazue elkar pot saildu batez.

21 Ene Paulen eskuazko salutationea.

22 Baldin zenbeit *bada* Iesus Krist launari on eztaritzanik, biz anathema, maran-atha.

23 Iesus Krist *gure* launaren gratia dela zuekin.

24 Ene karitatea zuekin guziokin Iesus Krist
launean, Amen.

*Korinthianoetaratko lehena eskribatu
izan da Filipestik Estebenekin
eta Fortunatekin eta
Akaikorekin eta
Timotheorekin.*

S. PAUL APOSTOLUAREN KORINTHIANOETARATKO EPISTOLA BIGARRENA

KAP. I.

1 Sainduak. 8 Paulen Asiako tribulationea. 11 Orationezko aiuta. 12 Paulek nola konbersatu. 14 Haren gloria. 15 Zergatik Korinthera ezten itzuli: 22 Espirituaren erresa.

1 Paulek Iesus Kristen Apostolu lainkoaren borondatez *denak*, eta Timotheo anaieak, lainkoaren Eliza Korinthen denari, Akaia guzian diraden saindu guziekin:

2 Gratia *dela* zuekin eta bakea lainko gure Aitaganik, eta Iesus Krist launaganik.

3 Laudatu *dela* lainkoa *zein baita* Iesus Krist gure launaren Aita, miseriakordien Aita eta konso-latione guziaren lainkoa,

4 Gure tribulazione guzian konsolatzen gaituena: konsola ahal ditzagunzat zer ere tribulationetan diradenak, geurok lainkoaz konsolatzen garen konsolacione beraz.

5 Ezen nola Kristen sufrimenduak gutan abundatzen baitirade, hala gure konsolacionea ere abundatzen da Kristez.

6 Eta edo aflijitzen bagara, zuen konsolacioneagatik *da*, eta guk ere sufritzen ditugun molde bereko sufrimenduen patientian egiten den salbamenduagatik: edo konsolatzen bagara, zuen konsolacioneagatik *da* eta salbamenduagatik.

7 Eta gure esperanza zuezaz *duguna* fermuda, dakigularik ezen nola sufrimenduetan partizipant baitzarete, hala konsolacionean ere *izanen zaretela*.

8 Ezen nahi dugu dakizuen, anaieak, gure afliktione Asian heldu izan zaikunaz, ezen kargatu izan garela exzesiboki ahalaz garaitik, hanbat non hersturatan izanez etsi baikenduen biziaz ere.

9 Baina geurok gure baithan heriotako sententia ukan dugu: gure baithan fida ezkentezen-

zat, baina hilak resusztatzen dituen lainkoa bait-
han:

10 Zeinek hain herio handitarik delibratu bai-
kaitu, eta delibratzen: zein baithan esperanza
baitugu ezen oraino ere delibraturen gaituela.

11 Zuek ere aiutatzen gaituzuelarik gurega-
tik *eginen duzuen* orationeaz: anhitz personaren
respektuz egin zaikun dohainaz, anhitzez gure-
gatik eskerrak renda ditezenzat.

12 Ezen gure gloriatzea haur da, gure kons-
zientiaren testimoniajea ezen lainkoaren sinplizi-
taterekin eta puritaterekin, ez haragiaren
sapientiarekin, baina lainkoaren gratiarekin kon-
bersatu ukan dugula munduan, eta prinzipalki
zuek baithan.

13 Ezen eskribatzen drauzkizuegun gauzak,
eztirade irakurtzen edo ezagutzen ere dituzue-
nez berze: eta esperanza dut finerano ere eza-
guturen dituzuela.

14 Nola ezagutu ere baikaituzue parte, ezen
zuen gloriatze garela, zuek ere gurea bezala
Iesus launaren egunekotzat.

15 Eta konfidanza hunetan nahi ninzen lehen
zuetara ethorri, gratia doblea zindutenzat:

16 Eta zuetarik Mazedoniarat iragan, eta harzara Mazedoniarik ethorri zuetara, eta zuezaz gida nendin ludeara.

17 Bada haur deliberatzen nuenean arintasunez usatu ukan dut? ala deliberatzen ditudan gauzak, haragiaren araez deliberatzen ditut, hala non ni baithan den Bai eta Ez?

18 Aitzitik lainko fidelak *badaki* ezen ene zue-taratko hitza eztela izan Bai eta Ez.

19 Ezen lainkoaren Seme Iesus Krist guzaz zuen artean predikatu izan dena, nizaz eta Siluanoz eta Timotheoz, ezta izan Bai eta Ez, baina Bai hartan izan da:

20 (Ezen lainkoaren promes guziak hartan Bai *dirade*, eta hartan *dirade* Amen) lainkoaren gloriatan guzaz.

21 Bada konfirmatzen gaituena zuekin Krist *launean* eta unktatu gaituena lainkoa *da*:

22 Zigilatu ere gaituena, eta Espirituaren erresak gure bihotzetan eman drauzkiguna.

23 Nik bada lainkoa dut testimonio deitzen neure arimaren gain, ezen zuen gupidaz, oraino eznaizela ethorri Korinthera.

24 Ez dominatzen dugulakotz zuen fedearen gainean, baina zuen bozkarioaren aiutazale garelakotz: ezen fedez zutik zaudete.

KAP. II.

*1 Exkomunikatu izan zen
Korinthianoaz. 11 Satanen
entrepresak. 12 Troas. 13 Tite. 16
Herio eta bizitze usain.*

1 Baina haur neuror baithan deliberatu ukan dut, zuetara tristitiarekin berriz ez ethortera.

2 Ezen baldin nik kontrista bazaitzatet, nor da ni alegera nenzakeenik, nizaz kontristatu lizatekeen bera baizen?

3 Eta haur bera eskribatu ukan drauzuet, ethor nadinean tristitiarik eztudanzat alegerratu behar ninzenetarik: zuezaz guziaz fidaz ezen ene alegranza, zuen guziona dela.

4 Ezen afliktione eta bihotz herstura handitan eskribatu drauzuet, anhitz nigar xortarekin: ez

kontrista zindeiztenzat, baina ezagut zinezaten-
zat zuetara dudan karitate guzizko abundanta.

5 Eta baldin norbeit tristitiaren kausa izan bada, eznau ni kontristatu, baina aldez (*hura* kargago eztezadan) zuek guziok.

6 Asko du hark anhitzez *egin izan zaion* reprotxu hunez.

7 Hala non kontrariora barka diekozuen aitzitik, eta konsola dezazuen, tristitiaren handiegiz irets eztadinzat hura.

8 Harren othoitz egiten drauzuet, konfirma dezazuen hura baithara karitatea.

9 Ezen fin hunetakotz eskribatu ere drauzuet, ezagut nezanat zuen experientia, *eia* gauza guzietara obedient zaretenez.

10 Eta zerbait barkatzen draukazuenari, nik ere *barkatzen draukat*: ezen nik ere baldin zerbait barkatu badut, barkatu draukadanari zuengatik *egin draukat* Kristen begitharte aitzinean, Satanez ardiets ezgaitezenzat.

11 Ezen haren entpresak badakizkigu.

12 Goitiko, ethorririk Troasera Kristen Ebanjelioagatik, bortha ireki bazaitadan ere launaz:

13 Eztut ukan pausurik neure espirituari, zeren ezpainezan eriden Tite neure anaia: baina hetarik konjiti harturik, ioan nendin Mazedoniarat.

14 Esker bada lainkoari bethi Kristean triunfa eraziten draukunari: eta bere ezagutzearen usaina ezagut eraziten draukunari leku guzietan.

15 Ezen Kristen usain ona gara lainkoagana, salbatzen diradenetan, eta galtzen diradenetan:

16 Iakiteko da, hautan, herio usain heriotarakotz: eta hetan, bizitze usain bizitzetarakotz: eta gauza hautakotzat nor *da* sufizientik?

17 Ezen eztugu, anhitzek bezala, trafikik egiten lainkoaren hitzaz, aitzitik integritatez bezala, aitzitik lainkoaganik bezala lainkoaren aitzinean, Kristez minzo gara.

KAP. III.

1, 3 Kristen eta Paulen epistola. 5. Pentsamendu onak lainkoaganik heldu. 6 Letra. Espiritua. 7 Legearen eta Ebanjelioaren gloria. 14 Iuduen

*itsutasuna. 17 launaren Espiritua.
Libertatea.*

1 Hatsen gara berriz gure buruen gomendatzen? ala behar dugu batzuk bezala, epistola gomendagarririk zuetara, edo zuetarik gomendagarririk?

2 Gure epistola zuek zarete, gure bihotzetan eskribatua, zein ezagutzen eta irakurtzen baita gizon guziez.

3 Ageri den bezenbatean ezen Kristen epistola guzaz administratua zaretela, eskribatua ez tintaz, baina lainko biziaren Espirituaz: ez harrizko tauletan, baina bihotzeko taula haragizkoetan.

4 Eta halako konfidanza dugu Kristez lainkoa baithan.

5 Ez sufizient garelakotz gure buruz zerbaiten pensatzeko, geurorganik bezala: baina gure sufizientia lainkoaganik *da*.

6 Zeinek Testamentu berriko ministre sufizient ere egin baikaitu, ez letraren, baina Espirituaren: ezen letrak hiltzen du, baina Espirituak bibifikatzen du.

7 Eta baldin heriotako ministerioa letraz harrietan moldatua izan bada glorioso, hanbat non Israeleko haurrek ezin beha baitzezaketen Moisesen begithartera, haren begitharteko gloria fin ukan behar zuenagatik:

8 Nolatan ezta Espirituaren ministerioa gloriosoago izanen?

9 Ezen baldin kondemnationetako ministerioa glorioso *izan bada*: iustitiatako ministerioak anhitzez iragaitenago du gloriaz.

10 Ezen glorifikatu izan dena ere, ezta glorifikatu izan respektu hunez, *erran nahi da*, excellentago den gloriaren kausaz.

11 Ezen baldin fin hartu behar zuena glorioso izan bada, ungiz gloriosoago da dagoena.

12 Beraz hunelako esperanza dugunaz geroz, minzatzeko libertate handiz usatzen dugu.

13 Eta ez *gara* Moisez bezala *zeinek* estalkia emaiten baitzuen bere begitharte gainean, Israeleko haurrek abolitu behar zenaren finera beha ezlezatzenzat.

14 Bada, haien adimenduak gogortu izan dirade: ezen egungo egunerano estalki bera

dago Testamentu zaharreko lekturan kendu gabea (zein Kristez kezten baita)

15 Baina egungo egun hunetarano Moises irakurtzen denean, estalkia haien bihotz gainean dago.

16 Baina launagana konbertitu datekeenean kenduren da estalkia.

17 Eta launa Espiritu da: eta launaren Espiritua non, libertatea han.

18 Bada gu guziok begithartea agerturik launaren glorian miratzen garela, imajina berera transformatzen gara gloriatarik gloriatara, launaren Espirituaz bezala.

KAP. III.

1 Paulen predikationea eta Ebanjelioa. 3 Ebanjelioa batzuetara estalia. 5 Paulek Krist predikatzen. 6 Ebanjelioaren ezagutzea nondik. 16 Kanpoko eta barneko gizona.

1 Halakotz, ministerio haur dugularik rezebitu dugun miserikordiaren arauetz, ezgara nagitzen.

2 Aitzitik iraitzi ditugu ahalkezko estalkiak, ebiltzen garela ez fineziarekin, eta ez lainkoaren hitza falsifikatzen dugula, baina egiaren deklarationez aproba eraziten ditugula gure buruak gizonen konszientia guzia baithan, lainkoaren aitzinean.

3 Eta baldin gure Ebanjelioa estalia bada, galitzen diradenen da estalia:

4 Zeinetan mundu hunetako iainkoak itsutu ukan baititu adimenduak, diot, infideletan, Krist lainkoaren imajina *denaren* gloriaren Ebanjelio-ko argiak haei argirik eztagienzat.

5 Ezen eztitugu gure buruak predikatzen, baina Iesus Krist launa: eta gu, zuen zerbitzari *garela* Iesusgatik.

6 Ezen argiak ilhunbetik argi legian erran duen lainkoak, argi egin du gure bihotzetan, Iesus Kristen begithartean lainkoaren gloriaren ezagutzera illuminatzeko.

7 Baina thesaur haur lurrezko unzietan dugu, berthute hunen exzellentia lainkoaren denzat, eta ez gutarik:

8 Guzietan aflijitzen gara, baina ez hertsen: behartzen gara, baina ez utziten:

9 Persekutatzen gara, baina ez abandona-tzen: iraizten gara, baina ez galtzen.

10 Leku guzietan bethiere Iesus launaren mortifikatonea gorputzean ekarten dugula Iesu-sen bizitza ere gure gorputzean manifesta dadinzat.

11 Ezen gu bizi garenok, bethi heriotara liura-tzen gara Iesusgatik, Iesusen bizitza ere gure haragi mortalean manifesta dadinzat.

12 Hunegatik herioak gutan lan egiten du, eta bizitzeak zuetan.

13 Eta zeren fedearen Espiritu ber bat baitu-gu, eskribatua den bezala, Sinhetsi ukan dut, eta halakotz minzatu izan naiz: guk ere sinhesten dugu, eta halakotz minzo gara.

14 Dakigularik ezen Iesus launa resusztatua duenak gu ere Iesusez resusztatua gaituela, eta ethor eraziren gaituela bere presentiarra kue-kin batean.

15 Ezen hauk guziok zuengatik *dirade*, gratia guzizko handi haur, anhitzen remerziamenduz redunda dadinzat lainkoaren gloriatan.

16 Halakotz, ezgara nagitzen: baina are baldin gure gizon kanpokoa korrumpitzen bada ere: barnekoa ordea arranberritzen da egunetik egu-nera.

17 Ezen gure afliktione arin artegutitakoak eragiten du gutan gloriatako pizu exzellent exze-llentki eternal bat.

18 Gauza bisibleak konsideratzen eztituguean, baina inbisibleak: ezen bisibleak denborat-akotz dirade: baina inbisibleak, sekulakotz.

KAP. V.

*1 Lurreko habitacionea, eta etxe
eternala. 4 Fidelen suspirioa. 7.*

*Fedez eбилtea. 10 Konparituren
guziek Kristen tribunal aitzinean. 14.
Kristen herioa. 15 Kristi bizitzeko. 18
Nola lainkoak berarekin rekonziliatu*

*gaituen. 21. Bekatua. Iainkoaren
iustitia.*

1 Ezen badakigu baldin gure lurreko habitacione hunetako tabernaklea desegin badadi, edizio bat lainkoaganik badugula, etxe eskuz egin ezten eternal bat zeruetan.

2 Ezen suspirioz ere halakotz gaude, gure habitacione zerutik denaz beztitu izatera desir dugula.

3 Badarik ere baldin beztituak ez billuziak eriden bagaitez.

4 Ezen tabernakle hunetan garenok, kargaturik suspirioz gaude: zeren desir baitugu ez billuzi izatera, baina arrebeztitu izatera, iretsi dadin-zat mortal dena bizitzeaz.

5 Eta hartara berera gu formatu gaituena lainkoa *da*, Espirituaren erresak eman ere drauzkiguna.

6 Konfidanza dugularik bada bethiere eta dakigularik ezen arrotz garela gorputz hunetan, absent gara launaganik.

7 (Ezen fedez gabilta ez ikustez)

8 Baina konfidanza dugu, eta nahiago gara gorputzetik ilki, eta launarekin habitatzera ioan.

9 Eta halakotz dugu desiratzen, bai present bagara, bai absent bagara, haren gogarako izatera.

10 Ezen guziek konparitu behar dugu Kristen tribunal aitzinean, batbederak gorputzean rezebi dezantat egin dukeenaren araura, edo ungi edo gaizki.

11 Dakigularik bada launazko iziapena *zer den* gizonak ditugu federa erekartan, eta lainkoagana manifestatuak gara: eta esporzu dut, zuen konszientietara ere manifestatuak garela.

12 Ezen eztrauzkizuegu gure buruak berriz laudatzen, baina okasione emaiten drauzuegu guzaz gloriatzeko: duzuenzat *zer ihardets* aparentiaz eta ez bihotzez gloriatzen diradenen kontra.

13 Ezen adimenduz erautzen bagara *lainkoari erautzen* gaizkio: edo adimendu onetako bagara, zuen *gara*.

14 Ezen Kristen karitateak hertsen gaitu: hunez gerthu garelarik, ezen baldin bat guziak-

gatik hil izan bada, beraz guziak hil izan diradela.

15 Eta *hura* guziakgatik hil izan da, bizi diradenak gehiagorik bere buruei bizi eztiradenzat, baina hekgatik hil eta resusztatuta izan denari.

16 Halakotz, guk hemendik harat nehor eztugu ezagutzen haragiaren araez: eta baldin Krist haragiaren araez ezagutu badugu ere, orain ordea eztugu gehiagorik ezagutzen.

17 Beraz baldin zenbeit, *bada* Krist *launean*, *biz* krearura berri: gauza zaharrak iragan dirade, huna, gauza guziak berri egin dirade.

18 Eta hauk guziok lainkoaganik dirade, zeinek rekonziliatu baikaitu berekin Iesus Kristez, eta eman baitrauku rekonziliationezko ministerioa:

19 Ezen lainkoa Kristean zen, mundua berekin rekonziliatzen zuela, haei inputatzen etzeraztela beren bekatuak: eta ezarri ukan du gutan rekonziliationezko hitza.

20 Harren, Kristen izenean enbaxadore gara, lainkoak guzaz othoitz egiten balerauzue bezala: othoitz egiten drauzuegu Kristen izenean, rekonzilia zakizkioten lainkoari.

21 Ezen bekatu rik ezagutu eztuena, gurega-
tik bekatu egin ukan du: hartan gu lainkoaren
iustitia egin gentezenzat.

KAP. VI.

*1 Ungi egitera ditu exhortatzen. 2
Denbora gogarakoa eta
salbamendutako eguna. 4 lainkoaren
zerbitzarien konbersationea. 14
Infidelekin ez uztartzeko. 16
lainkoaren tenplea.*

1 Bada *haren* langile garelarik, othoitz egiten
ere badrauzuegu, eztuzuen, alfer lainkoaren gra-
tia rezebitu.

2 Ezen dio *lainkoak*, Denbora gogarakoan
exaudit ukan aut, eta salbamendutako egu-
nean aiutatu ukan aut. Huna orain denbora
gogarakoa, huna orain salbamendutako eguna.

3 Eskandalorik batre deusetan emaiten eztu-
gularik, *gure* ministerioa bitupera eztadinzat:

4 Baina gauza guzietan aprobatu erakusten ditugularik gure buruak lainkoaren zerbitzari anzo, patientia handiz tribulationetan, nezesitateetan, hersturetan,

5 Zaurietan, presoindegietan, tumultuoetan, travailluetan, beillatzetan, baruretan.

6 Puritatez, ezagutzez, espiritu patientez, ontasunez, Espiritu sainduaz, hipokrisia gaberiko karitatez,

7 Egiatzko hitzez, lainkoaren botherez iustitiazko harma eskuinez eta ezkerrez.

8 Ohorez eta desohorez, fama gaitzez eta fama onez.

9 Seduzizale bezala, eta *alabaina* egiati: ez ezagunak bezala, eta *alabaina* ezagunak: hiltzen bagina bezala, eta huna bizi gara: gaztigatzen garenak bezala, eta *alabaina* ez hilak:

10 Triste bezala, baina bethi alegera: paubre bezala, baina anhitzen abratsale: deus gabe bezala, eta *alabaina* gauza guzien posedizale.

11 O Korinthianoak, gure ahoa irekia da zue-tara, gure bihotza largatua da.

12 Etzarete hersiki habitatzen gutan: baina enserratuak zarete zeuron halsarretan.

13 Bada neure haurrei anzo rekonpensa beraz minzo natzaizue: larga zaiteztez zuek ere.

14 Etzaitezteela infidelekin uztar: ezen zer partizipatione *du* iustitiak iniustitiarekin? eta zer komunikatione argiak ilhunbearekin.

15 Eta zer konkordia *du* Kristek Belialekin? eta zer parte fidelak infidelarekin?

16 Eta zer konsentimendu *du* lainkoaren tenpleak idolekin? ezen zuek lainko biziaren tenple zarete: lainkoak erran duen bezala Habitaturen naiz hetan eta ebiliren: eta izanen naiz haien lainko eta hek izanen dirade ene populu.

17 Harren, ilki zaiteztez haien artetik, eta separa zaiteztez, dio launak: eta gauza zithalik hunki eztezazuela, eta nik rezebituren zaituztet.

18 Eta izanen natzaizue zuei Aita, eta zuek izanen zaizkidate seme eta alaba, dio laun bot- here guzitakoak.

KAP. VII.

*1 Satsutasunetarik xahutzeko. 5
Pauli heldu izan zaizkan afliktioneak.*

8, 10. *Iainkoazko eta munduaren
arauezko tristitia. 11*
Emendamendutako frukuak 13 Tite
Korinthianoez rezebitu.

1 Beraz, *ene* maiteak, promesak ditugunaz geroz, haragiaren eta espirituaren satsutasun orotarik xahu ditzagun gure buruak: akabatzen dugularik sanktifikatonea, Iainkoaren beldurrekin.

2 Rezebi gaitzazue gu: nehor eztugu iniuriantu, nehor eztugu korrumpitu, nehor eztugu pillatu.

3 Eznaiz *zuen* kondemnationetan minzo: ezen lehen erran dut gure bihotzetan zaretela, elkarrekin hiltzeko eta elkarrekin bizitzeko.

4 Minzatzeko libertate handia dut zuek baithan: zuezaz gloriatzeko *materia* handia dut: konsolationez konplitu naiz, bozkarioz hanbat eta gehiago bethe naiz, gure tribulatione guzian.

5 Ezen Mazedoniara ethorri eta, eztu ukan gure haragiak pausurik batre, baina guzietan aflijitu izan gara: kanpotik bataillak, barnetik izidurak.

6 Baina abatituak konsolatzen dituen lainkoak konsolatu ukan gaitu Titeren ethortez.

7 Eta ez solament haren ethortez, baina hura zuezaz konsolatu izan den konsolationeaz ere, kontatzen zeraukunean zuen desir handia, zuen nigarra, zuen eneganako afektione handia, hala non alegeratuago izan bainaiz.

8 Ezen baldin tristetu bazaituztet ere epistolaz, eztut urriki, urrikitu izan bazaitadan ere, ezen badakusat epistola hark, denboratakotz badere, tristetu ukan zaituztela.

9 Orain alegera naiz, ez zeren tristetu izan zareten, baina zeren tristetu izan zareten penitentiatar: ezen tristetu izan zarete lainkoaren araura, hala non deusetan ezpaitzaizue kalterik egin izan gure aldetik.

10 Ezen lainkoaren araezko tristitiak, penitentia obratzen du, urrikimendu gaberiko salbamendutara: baina munduko tristitiak herioa obratzen du.

11 Ezen horra, lainkoaren araez tristetu izate horrek berak, zein artha handia zuetan obratu ukan du: aitzitik *zer* satisfaktionea, aitzitik indignationea, aitzitik beldurra, aitzitik desir

handia, aitzitik afektione handia, aitzitik mendekioa? gauza guzietan erakutsi izan zarete nola xahu zareten egiteko hunetan.

12 Bada baldin eskribatu badrauzuet ere, eztrauzuet eskribatu iniuria egin ukan duenaren kausaz, ezeta iniuriatu izan denaren kausaz, baina zuek baithan manifesta ledinzat *guk* zuezaz dugun artha lainkoaren aitzinean.

13 Kausa hunegatik konsolatu izan gara zuen konsolatu izanaz: baina hagitzez alegeratuago izan gara Titeren alegranzaz, zeren rekreatu izan baita haren espiritua zuezaz guziaz.

14 Eta baldin zerbaitetan zuezaz hura baitahan gloriatu izan banaiz, eztut ahalkerik rezebitu: baina nola gauza guziak egiaz erran baitrauzkizuegu, hala gure gloriatzea ere, *zeinez usatu ukan baitut* Tite baithara, egia *eriden* izan da.

15 Eta haren afektionea handiago da zuetara, orhoitzen denean zuen guzion obedientiaz, *eta* nola hura rezebitu ukan duzuen beldurrekin eta ikararekin

16 Alegera naiz bada zeren guza guzietan zuezaz aseguira ahal bainaite.

KAP. VIII.

*1 Elemosina egitera exhortatzen. 9
Krist paubre egin izan guregatik, 11
Elemosina nola lainkoaren gogarako.
16 Tite Korinthianoetara igorri.*

1 Iakin eraziten drauzuegu bada, anaieak, Mazedoniako Elizei eman izan zaien lainkoaren gratia:

2 Nola afliktionezko foroganza handitan haien alegranziatzko abundantia, eta haien paubrezia behera abundant izan den haien prontp izatearen abrasasunetan:

3 Ezen testifikatzen dut, ahalaren arauetz, eta ahalaz garaitik, gogatsu izan *diradela*:

4 Othoitz handirekin othoitz egiten zeraukutela, sainduei *egiten, zaien* aiutaren gratia eta komunikationea, rezebi genezan.

5 Eta eztute esperanza genduen bezala *egin*, baina bere buruak eman drautzate lehenik launari, eta *gero* guri, lainkoaren borondatez.

6 Tite exhorta genezantz, nola lehenetik hasi ukan baitu, hala akaba ere lezan zuek baituhan gratia haur ere.

7 Bada gauza guzietan abundos zareten bezala fedez, eta hitzez, eta ezagutzez, eta diligentia oroz, eta zuen gureganako karitatez, *egizue* gratia hunetan ere abundos zareten.

8 Eztut manamenduz erraiten, baina berzen dilijentiaz zuen karitateko leialtatearen ere forogatzegatik.

9 Ezen ezagutzen duzue Iesus Krist gure launaren gratia, nola zuengatik paubre egin izan den abrats zelarik: haren paubreziaz zuek abrats zindeiztenzat.

10 Eta gauza hunetan konseillu emaiten dut: ezen haur zuen probetxutako da, xazdanik hasi izan zinetenon, ez solament egiten, baina nahi ukaiten ere.

11 Orain bada egite bera ere akaba ezazue, nolako *izan baita* nahiaren gogo presta, halako biz akabatzea ere ukanaren araez.

12 Ezen baldin aitzinetik bada gogo prest izatea, nehor duenaren araez gogarako da, eta ez eztuenaren araez.

13 Ezen ezta *haur* berzek solajemendu dutenzat, eta zuek aurizki zaiteztenzat, baina egoalki denbora hunetan zuen abundantiak *supli beza* haien peitutasuna.

14 Haien abundantiak ere zuen peitutasuna *supli* dezanzat, egoaltasun egin dadinzat.

15 Eskribatua den bezala, Anhitz *bildu zue-nak*, eztu deus ukan soberaturik: eta guti *zue-nak*, eztu ukan gutiegi.

16 Eta esker lainkoari zeinek eman baitu artha bera zuezaz Titeren bihotzean.

17 Zeren *ene* exhortationea gogarako izan baitzaio, eta afektionatuago izanez bere buruz zuetara ethorri izan baita.

18 Eta igorri ukan-dugu harekin batean anaiea, zeinen laudorioa baita Ebanjelioan Eliza guzietan:

19 (Eta ez solament *laudatu*, baina elejitu ere izan da Elizez gure bidajeko lagun, guzaz administratzen den *gratia* hunekin laun beraren gloriatan eta zuen gogo prestaren *zerbitzutan*)

20 Ihes egiten draukagula huni, nehork bitu-pera ezgaitzan guzaz administratzen den abundantia hunetan:

21 Eta prokuratzen dugula on dena, ez launaren aitzinean solament, baina gizonen aitzinean ere.

22 Eta igorri dugu hekin gure anaiea, zein experimentatu baitugu anhitzetan anhitz gauzatan dilijent, eta orain ungiz dilijentago *zuetan* dudan konfidanza handiagatik.

23 Bada Titez den bezenbatean ene lagun da eta zuek baithan aiutazale: eta gure anaiez den bezenbatean, Elizen enbaxadore *dirade eta* Kristen gloria.

24 Bada, zuen karitatearen eta gure zuezazko gloriatzearen foroganza erakutsazue hetara Elizen aitzinean.

KAP. IX.

1 Eremosina egitera ditu exhortatzen. 5 Liberalitate elemosina deitzen. 6 Eta haziarekin konparatzen. 11 Eskerren lainkoari emaita. 14 Eremosina egiten dutenakgatik othoitz egiteaz.

1 Eta sainduei egiten zaien aiutaz den bezenbatean, zuei eskribatzea soberanzia zait.

2 Ezen badakit zuen gogo presta, zeinagatik zuezaz gloriatzen bainaiz Mazedoniakoak bait-han, ezen Akaia prest dela xazdanik: eta zuetarik *heldu den* zeloak anhitz *persona* inzitatatu ukan du.

3 Igorri ukan ditut bada anaie hauk, gure zuezazko gloriatzea alde hunez bano ezten: errandudan bezala, prest zaretenzat:

4 Baldin Mazedoniakoak enekin ethor badi-
tez, eta prestatu gabeak eriden bazaitzatez,
ahalke iragan eztezagun (ezterradaizat zuek)
zuezaz gloriatu gareneko seguranza hunetan.

5 Bada nezesario estimatu ukan dut othoitz egitera anaiei, lehenik zuetara datozen, eta lehen akaba dezaten zuen liberalitate aitzinetik deklaratu: hura prest denzat liberalitate anzo, eta ez zekentasun anzo.

6 Eta haur *erraiten dut*, Zekenki ereiten due-
nak zekenki bilduren ere du: eta liberalki ereiten
duenak, liberalki bilduren ere du.

7 Batbederak bere bihotzean proposatzen duen bezala, begi: ez tristitiarekin edo bortxaz: ezen alegeraki emaiten duenari on daritza lainkoak.

8 Eta botheretsu da lainkoa gratia guziaren zuetan abunda eraziteko: gauza guzietan bethiere sufizientia guzia duzuelarik, obra on orotara abundos zaretentzat:

9 Eskribatua den bezala, Distribuitu eta eman ukan draue paubrei: haren iustitia dago sekulakotz.

10 Bada hazia ereilleari fornitzen draukanak, ogi ere iateko dizuela, eta multiplika dezala zuen hazia, eta zuen iustitiaren fruktuak augmenta ditzala:

11 Gauza guzietan abrasturik *abundos zaretentzat* sinplizitate orotara, zeinek egiten baitu guzaz eskerrak eman dakizkion lainkoari.

12 Ezen oblatione hunen administrationeak eztu sainduen nezesitatea suplitzen solament, baina abundatzen ere badu anhitzek lainkoari eskerrak drauzkioten bezenbatean:

13 (Aiuta hunen foroganza hunez lainkoa glorifikatzen dutela zuen gogo batetako suiektio-

nearen gainean Kristen Ebanjeliora, eta *zuen* hetarako eta guzietarako komunikatione propertoaren gainean)

14 Eta zuengatik othoitz egiten duten bezenbategan *zuen* desira dutelarik, lainkoaren gratia zuetan abundatzen denagatik.

15 Esker bada lainkoari haren dohain erran ezin daitenaz.

KAP. X.

*1 Ebanjelioaren sinplizitatean
ebilteko. 4 Paulen harmadura, 8 eta
puisanza Korinthianoen
edifikationetan.*

1 Gainerokoaz, othoitz egiten drauzuet Kristen emetasunaz eta klementiaz, nik neurorrek Paulek, presentian *zuen* artean xipi, baina absentian zuetara hardit naizenak.

2 Othoitz egiten drauzuet bada present niza-tekeenean eznaizen hardit hardieza batez, zeinez deliberatzen baitut hardit izatera haragiaren

araura ebilten baginade bezala estimatzen gaituzten batzutara.

3 Ezen haragian ebilten garelarik, ez gara haragiaren araura bataillatzen:

4 (Ezen gure gerlako harmadurak eztirade karnal, baina botheretsu lainkoaz, fortalezen desegiteko.)

5 Desegiten ditugularik konseilluak, eta lainkoaren ezagutzearen kontra altxatzen den goratasun guzia: eta eramaiten dugularik kaptibo bezala adimendu guzia Kristen obediencia:

6 Eta prest dugu nondik mendeka gaitezen desobediencia oroz, zuen obediencia konplitu datekeenean.

7 Begien aitzinean dituzuen gauzetara beha zaudete? baldin edozeinek bere baithan konfidanza badu Kristena dela, aldiz pensa beza bere baithan, ezen hura Kristena *den* bezala, halaber gu ere Kristenak *garela*.

8 Ezen baldin are gehiago zerbait gloriatu nahi banaiz gure puisanzaz, zein launak eman baitrauku *zuen* edifikationetan, eta ez zuen destruktionetan, eznaiz ahalketuren:

9 Irudi eztudanzat epistolaz izitu nahi zaituztedala.

10 Ezen epistolak (dioite) graue dirade eta borthitz, baina gorputzaren presentia flaku, eta hitza gaixto.

11 Haur estima beza hainak, ezen nolako baikara hitzez epistoletan absentian, halako *izanen garela* presentian ere eginez.

12 Ezen ezgara benturatzen gure buruen bardin ezartera edo konparatzera bere buruak laudatzen dituzten batzuekin: baina eztute aditzen hek bere buruak bere buruekin neurtzen dituztela, eta bere buruak bere buruekin konparatzen dituztela.

13 Baina gu ezgara gloriaturen *gure* neurriko eztiraden gauzez: aitzitik lainkoak partitu draukun neurri reglatuaren araez, *gloriaturen gara* zuetarano ere heldu izan garela.

14 Ezen zuetarano heldu izan ezpagina beza-la, ezgara hedatzen behar den baino gehiago: ezen zuetarano ere heldu izan gara Kristen Ebanjelioan:

15 Ez *gure* neurriko etzen gauzaz gloriatzen ginadelarik, *erran nahi dut*, berzeren traillaue-

tan: baina esperanza dugularik ezen zuen fedea handi dadinean, *gu* ere frangoki handituren garela asignatu izan zaikun neurrian.

16 *Hala* non zuek baino aitzinago *diraden lekuetan* ebanjeliza dezadan *eta* ezgaitezen gloria berzeri asignatu izan zaion neurrian, *erran nahi dut*, gauza ia preparatuetan.

17 Baina gloriatzen dena launean gloria bedi.

18 Ezen berak bere burua prezatzen duena ezta aprobatua, baina launak prezatzen duena.

KAP. XI.

4, 7 Paulen predikationea eta humilitatea. 9 Paulek sari gabe predikatu. 13 Apostolu falsuak: 16 Haien kontra Paul gloriatzen. 24 Haren sufrimenduak Ebanjelioaren predikatzean.

1 Ainenzazue suporta apur bat neure erhogotan, baina aitzitik suporta nezazue.

2 Ezen ielosi naiz zueaz lainkoaren ielosgoaz: ezen preparatu zerauzkiotet senhar bati (birjina kasta bat *bezala*) Kristi, presenta zaitzatedanzat:

3 Baina beldur naiz nolazpait, nola sugeak Eba seduzitu ukan baitu bere fineziaz, hala zuen pensamenduak ere korrumpi eztitezen Kristean den sinplizitatetik.

4 Ezen baldin norbeit ethor baledi *guk* predikatu eztugun berze Iesus bat predika liezazuenik, edo *baldin* berze espiritu bat rezebitzen bazindute rezebitu eztuzuenik, edo berze Ebanjelio bat rezebitu eztuzuenik, *hura* ungi paira zinezakete.

5 Ezen badaritzat eznaizela deusetan Apostolu exzellentenak baino mendreago izan.

6 Eta baldin idiot banaiz ere minzoan, ez ordea ezagutzean: aitzitik guziz gauza guzietan manifestatu izan gara zuetara.

7 Ala falta egin dut neure buruaren beheartzean, zuek altxa zindeiztenzat? *eta* zeren dohanik lainkoaren Ebanjelioa predikatu baitrauzuet?

8 Berze Elizak billuzi ukan ditut, hetarik sari hartuz, zuek zerbitza zinzatedanzat.

9 Eta zuekin ninzanean, eta beharra nuenean eznaiz nagi izan egitekoan nehoren kaltetan: ezen ni falta ninzena suplitu ukan dute Mazedoniarik ethorri izan ziraden anaiek, eta begiratu izan naiz eta begiraturen deusetan ere zuen karga izatetik.

10 Kristen egia da nitan, ezen gloriatze haur eztela bozaturen enetzat Akaiako rejionetan.

11 Zergatik? ala zeren zuei on eztaritzuedan? lainkoak badaki.

12 Baina egiten dudana eginen ere badut: okasione bilha dabiltzanei okasionea trenka diezedanzat: gloriatzen diraden gauzan gu bai bezalako eriden ditezenzat.

13 Ezen halako apostolu falsuak, obrari sotil dirade, Kristen Apostolutara transformaturik.

14 Eta ezta miresteko, ezen Satan bera ere transformatzen da argiko Aingerutara.

15 Ezta beraz gauza handia baldin haren ministreak ere iustitiatako ministretara transformatzen badirade: zeinen fina haien obren araura izanen baita.

16 Berriz diot, nehork eztezan estima erhoa naizela: ezpere erho anzo ere rezebi nezazue, ni ere apur bat gloria nadinzat.

17 Erraiten dudana, eztut launaren arauez erraiten, baina erhogoaz bezala, gloriatzeko seguranza hunetan.

18 Haragiaren arauez anhitz gloriatzen diradenaz geroz, ni ere gloriaturen naiz.

19 Ezen gogotik sufritzen dituzue erhoak, zuhur zaretelarik.

20 Ezen sufritzen duzue baldin nehork suiek-tionetan ezarten bazaituztez, baldin nehork ires-ten bazaituztez, baldin nehork *zuen*a edekiten badrauzue, baldin nehor gaineenzen bada, baldin nehork begithartean ioiten bazaituztez.

21 Desohoreren araura diot, gu indar gabe izan baginade bezala, aitzitik zertan ere nehor hardit baina (erhoki minzo naiz) hardit naiz ni ere.

22 Hebraiko dirade? ni ere: Israeltar dirade? ni ere: Abrahamen hazi dirade? ni ere:

23 Kristen ministre dirade? (erho anzo minzo naiz) areago ni: neketan, gehiago: zauritan *hek*

baino gehiago: presoindegitan, gehiago: heriotan, anhitz aldiz.

24 Iduetarik rezebitu ukan dut borz aldiz berrogeira *kolpe*, bat guti *aldian*.

25 Hiruretan zihorrez azotatu izan naiz, behin lapidatu izan naiz: hiruretan naufragio egin ukan dut: gau eta egun itsas hundarrean izan naiz.

26 Bidetan anhitz aldiz, flubioen periletan, gaixtaginen periletan, *neure* nationekoetarik periletan, Jentiletarik periletan, hirian periletan, desertuan periletan, itsasoan periletan, anaie falsuen artean periletan.

27 Trabaillutan eta neketan, beillatzetan maiz, gosetan eta egarritan, baruretan maiz, hotzean eta billuzi izatean.

28 Kanpotiko gauzak daudela *bada* egun oroz asetatzen nauenik, *zein baita*, Eliza guziez dudan artha,

29 Nor aflijitzen da, eta ni eznaizen aflijitzen? nor eskandalizatzen da, eta ni eznaizen erratzetzen?

30 Baldin gloriatu behar bada, *neure* infirmitatezko gauzez gloriaturen naiz.

31 Iainkoak, *zein baita* Iesus Krist gure launaren Aita sekulakotz benedikatua, badaki ezen eztiotala gezurrik.

32 Damaseko hirian rege Aretasen izenean *zen* gobernadoreak, ezarri ukan zuen goaita Damasekoen hirian, ni hatzaman nahiz.

33 Baina leiho batetarik saskian erautsi izan nenzen murrutik: eta halatan haren eskuei itzur. nengien.

KAP. XII.

*1 Pauli egin izan zaizkan
rebelationez. 10 Paulek
infirmitatetan atsegin hartzen. 12
Haren Apostolutasunaren merkak.
13 Sari gabe predikatu. 21 Haren
nigararak.*

1 Segur ezta mengoa gloria nadin: ezen ethorriren naiz bisionetara eta launaren rebelationetara.

2 Badazagut gizon bat Krist *launean* hama-laur urthe baino lehen (ala gorputzetan, eztakit: ala gorputzetik lekora, eztakit: lainkoak daki) hirugarren zerurano harrapatu izan denik.

3 Eta badakit, halako gizona (ala gorputzetan, ala gorputzetik lekora, eztakit: lainkoak daki)

4 Ezen harrapatu izan dela Paradisura, eta enzun ukan dituela erran ezin daitezkeen hitzak, erraiteko gizonaren imposibleak.

5 Halakoaz gloriaturen naiz: baina neure buruaz eznaiz gloriaturen, neure infirmitatetan baizen.

6 Ezen baldin gloriatu nahi banaiz, eznaiz erhoa izanen, ezen egia erranen dut: baina iragaiten naiz, nehork nizaz estima eztezan nitan ikusten, edo eneganik enzuten duen baino gehiago.

7 Eta rebelationearen exzellentiagatik altxegi eznendinat, eman izan zait eskarda bat haragian, eta Satanen aingerua ene bufetatzeko, altxegi eznendinat.

8 Gauza hunen gainen hiruretan launari othoitz egin draukat *hura* eneganik parti ledin-zat.

9 Eta erran ukan draut, Asko duk ene gratiaz ezen ene puisanza infirmitatean akabatzen duk. Beraz guziz gogotik lehen gloriaturen naiz neure infirmitatetan, Kristen puisanza nitan habita dadinzat.

10 Halakotz dut atsegin hartzen infirmitate-tan, iniurietan, nezesitatetan, persekutionetan, Kristengatiko hersturetan: ezen noiz bainaiz inpotent, orduan naiz botheretsu.

11 Erho izan naiz *neure* gloriatzean: zuek bortxatu nauzue: ezen ni behar ninzen zuezaz laudatu, ikusirik ezen eznaizela deusetan Apostolu exzellentak baino mendreago izan, deus ezpanaiz ere.

12 Segur *ene* Apostolutasunaren seignaleak konplitu izan dirade zuetan patientia guzirekin eta signorekin eta mirakulurekin eta berthuterekin.

13 Ezen zertan berze Elizak baino mendrea-go izan zarete? ni neuror zuen kaltetan nagi izan

eznaizena baizen? bidegabe haur barka iezada-zue.

14 Huna, herenzi prest naiz zuetara ethortera: eta eznaiz zuen kaltetan nagi izanen: ezen eznabila zuen diraden gauzen ondoan, baina zeuron *ondoan*: ezen haurrek eztute aitendako thesaurizatu behar, baina aitek haurrendako.

15 Eta nizaz den bezenbatean guziz gogotik despendaturen dut eta despendaturen naiz zuen arimakgatik: zuek hanbat eta gehiago maite zaituztedalarik, gutiago onhetsia banaiz ere.

16 Baina biz, nik etzaituztedan kargatu ukan: ordea sotil izanez, fineziaz hartu ukan zaituztet.

17 Zuetara igorri ukan ditudanetarik batez ere pillatu ukan zaituztet?

18 Othoitz egin draukat Titeri, eta harekin igorri ukan dut anaie bat: ala pillatu ukan zaituztez Titek? ezgara Espiritu batez ebili ikan? ezgara hatz ber batez ebili izan?

19 Berriz uste duzue ezen gure buruak exkusatzen ditugula zuek baithara? lainkoaren aitzinean, Kristean minzo gara: baina gauza *hauk* guziok, guzizko maiteak, zuen edifikationeagatik.

20 Ezen beldur dut gertha eztadin, ethor nadinean, nahi etzintukeiztedan bezalako eriden etzaitzatedan, eta ni eriden eznotin zuezaz nahi eztuzuen bezalako: nolazpait eztiraden guduak, inbidiak, aserretasunak, liskarrak, gaizkierraitak, xuxurlak, urguluak, seditioeak:

21 Eta berriz nathorreanean abaxa eznezan neure lainkoak zuek baithan, eta nigar eztagidan lehen bekatu egin duten anhitzez, eta emendatu eztiradenez zithalkeriatarik, paillardizatarik eta egin ukan duten insolentiatik.

KAP. XIII.

1 Paulek Korinthianoak mehatxatzen emenda ezpaditez. 5 Bere buruaren forogatzea. 10 Paulen puisanza.

1 Haur da zuetara ethorten naizen heren aldia Biga edo hirur testimonioren ahoan fermu izanen da hitz guzia.

2 Aitzinetik erran ukan dut, eta berriz aitzinetik diot, present baninz bezala, eta absent naize-

larik orain eskribatzen drauet lehen bekatu egin dutenei, eta goitiko guziei, ezen berriz banathor eztudala *nehor* gupida ukanen.

3 Krist nitan minzo denaren experienciaren ondoan zabiltzatenaz geroz, zein ezpaita infirmo zuetara, baina da botheretsu zuetan.

4 Ezen kruzifikatu izan bada ere infirmitatez, alabaina bizi da lainkoaren berthutez: ezen gu ere infirmo gara harekin, baina bizi gara harekin lainkoaren berthutez zuek baithara.

5 Zuen buruak experimentaitzazue eia fedean zaretenez, zuen buruak forogaitzazue: ala eztituzue zuen buruak ezagutzen, ezen Iesus Krist zuetan dela? baldin reprobato ezpazarete.

6 Baina esperanza dut ezaguturen duzuela ezen gu ezgarela reprobato.

7 Eta othoitz egiten draukat lainkoari, deus gaizkirik egin eztezazuen: ez gu aprobatu eriden gaitezenzat, baina zuek ungi dagizuenzat, eta gu reprobato bezala garenzat.

8 Ezen deus ezin daidikegu egiaren kontra, baina egiaren alde.

9 Ezen alegeratzen gara gu flaku garen, eta zuek erskon zareten: eta haur ere desiratzen dugu, *diot*, zuen perfektionea.

10 Halakotz gauza hauk absent naizela eskribatzen ditut, present izanen naizenean seberitatez usat eztezadanzat, launak edifikationetakotz eta ez destruktionetakotz eman drautan botherearen araura.

11 Gainerakoaz, anaieak, alegera zaiteztez, abanza zaiteztez perfekt izatera, konsola zaiteztez, zareten konsentimendu batetako, zareten bizi bakean, eta karitatezko eta bakezko lainkoa izanen da zuekin.

12 Elkar saluta ezazue pot saildu batez. Salututzen zaituztez saildu guziek.

13 Iesus Krist launaren gratia, eta lainkoaren karitatea, eta Espiritu sailduaren komunikationea *dela* zuekin guziokin. Amen.

*Korinthianoetaratko bigarrena Filipes
Mazedoniakotik Titerekin
eta Luk-ekin eskribatua.*

S. PAUL APOSTOLUAREN GALATIANOETARATKO EPISTOLA

KAP. I.

1 Paul Apostolu ez gizonez ezeta gizonen partez. 4 Kristek bere burua guregatik eman. 6 Galatianoak fedetik erauzi. 8 Malediktione predikari falsuen ganean. 12 Paulen doktrina. 13 Haren konbersationea konberti zedin baino lehen.

1 Paul Apostoluak (ez gizonez ezeta gizonen partez, baina Iesus Kristen eta lainko Aita hura hiletarik resusztatutuenaren partez.)

2 Eta enekin diraden anaie guziek, Galatiako Elizei:

3 Gratia *dela* zuekin eta bakea lainko Aitagantik, eta Iesus Krist gure launaganik.

4 Zeinek bere burua eman ukan baitu gure bekatuakgatik, idoki genzanzat sekula gaixto hunetarik, gure lainko eta Aitaren borondatearen araura.

5 Hari *dela* gloria sekula sekulakotz. Amen.

6 Miraz nago nola horrein sarri, Kristen gratiara deithu ukan zenduztena utzirik transportatu izan zareten berze Ebanjeliotara:

7 Berzerik batre eztelarik: baina batzuk trublutzen zaituztez, eta nahi dute erauzi Kristen Ebanjelioa:

8 Baina baldin guk ere, edo Aingeru batek zerutik ebanjelizatzen badrauzue, ebanjelizatu drauzuegunaz berzerik, maradikatu biz.

9 Lehen erran dugun bezala, orain ere berriz diot, Baldin norbeitek ebanjelizatzen badrauzue rezebitu duzuenaz berzerik, maradikatu biz.

10 Ezen orain gizonez predikatzen dut ala lainkoaz? ala gizonen gogara egin nahiz nabila? Segur baldin oraino gizonen gogarako baninz, Kristen zerbitzari ezninzande.

11 Iakin eraziten drauzuet bada, anaieak, nizaz predikatu izan den Ebanjelioa, eztela gizonaren araura.

12 Ezen eztut hura gizonganik rezebitu ez ikasi: baina Iesus Kristen rebelationez.

13 Ezen enzun duzue nola konbersatu ukan dudan Iudaismoan, nola terribleki lainkoaren Eliza persekututzen eta desegiten nuen:

14 Eta *nola* probetxatzen ninzen Iudaismoan, ene kidetarik anhitz baino gehiago, neure nationean, neure aiten ordenanzetara afektione gehienduna ninzelarik.

15 Baina lainkoaren plazera izan denean (zeinek neure amaren sabeleandanik apartatu baininduen eta deithu bainau bere gratiaz)

16 Bere Semearen rebelatzera nitan, hura ebanjeliza nezanat Jentilen artean, eznaiz bertan konseillatu izan haragiarekin eta odolarekin:

17 Eta eznaiz Ierusalemera itzuli izan ni baino lehen Apostolu *ziradenetara*: baina ioan nendin Arabiara: eta harzara itzul nendin Damaszera.

18 Geroztik hirur urtheren buruan itzul nendin Ierusalemera Pierrisen bisitatzera: eta egon nendin harekin amorz egun.

19 Eta berze Apostoluetarik eznezan ikus lakes launaren anaiea baizen.

20 Baina zuei eskribatzen drauzkizuedan gauzetan, huna, *badiotsuet* launaren aitzinean, ezen eztiodala gezurrik.

21 Gero ethor nendin Siriako eta Ziliziako herrietara.

22 Eta ninzen begithartez ezagun gabea ludeako Eliza Kristean *ziradenei*:

23 Baina solament enzun ukan zuten *erraiten zela*, Gu berze orduz persekutatzen gentuenak, orain predikatzen du berze orduz desegiten zuen fedea.

24 Eta glorifikatzen zuten lainkoa nitan.

KAP. II.

3 Zergatik Tite ez zirkonziditu. 4 Libertatea. Suiektionea. 7 Paul Jentilen doktor. 8 Pierris Iuduen Apostolu. 9 Iakes eta Pierris habe estimatu. 16 Iustificazionea. Obrak. Fedea. 20 Fedez bizi izatea.

1 Gero hamalaur urtheren buruan, berriz igan nendin Ierusalem-era Barnabasekin, eta Tite ere harturik.

2 Eta igan nendin rebelationez, eta haei komunika niezen Jentilen artean predikatzen dudana Ebanjelioa, baina partikulariki estimatan diradenei, neholere alfer laster aznagian edo egin eznuen.

3 Baina Tite ere, zein baitzen enekin, Grek bazen ere, etzedin bortxa zirkoziditu izatera.

4 Anaie falsu *Elizan* bere buruz nahastekatuena kausaz, zein sar baitzitezene gure libertate Iesus Kristean dugunaren espia izatera, gu suiekzionetara erekar genzatenzat.

5 Eta suiekzionez ezkitzaizte susmetitu momentu bat ere, Ebanjelioko egiak zuetan iraun lezanzat.

6 Eta *eztut deus ikasi* zerbait diradela irudi dutenatarik (nolako noizpait izan diraden, etzait deus hunkitzen: ezen lainkoak ezte gizonaren kanpoko aparentia hartzen) ezen estimatan diradenek eztraudate deus gehiagorik komunikatu.

7 Baina kontrariora, ikusi ukan zutenean ezen Preputioko Ebanjelioaren *predikationea* niri

eman izan zaitadala, Zirkonzisionekoa Pierrisi bezala:

8 (Ezen Pierris baithan obratu ukan duenak Zirkonzisioneko Apostolutasunera, obratu ukan du ni baithan ere Jentiletara.)

9 Eta ezagutu zutenean niri eman izan zaitadan gratia, lakesek eta Zefasek eta Ioanesez (habe diradela estimatuek) lagunzazko eskuinak eman drauzkigute niri eta Barnabasi: gu Jentiletarat *gendoazenzat* eta hek Zirkonzisionekoetar:

10 Solament *abisatu gaituzte* paubrez orhoit gentezen: eta haren beraren egitera arthatsu izan naiz.

11 Eta ethorri, izan zenean Pierris Antiokera, bekokiz resisti niezon hari, zeren reprehenditzeko baitzen.

12 Ezen lakesganik batzu ethor zitezen baino lehen, Jentilekin batean iaten zuen: baina ethorri izan ziradenean, retina eta separa zedin hetarik Zirkonzisionekoen beldurrez.

13 Eta simulationez usatzen zuten harekin batean berze luduek ere: hala non Barnabas ere erekarri izan baitzen haien simulationera.

14 Baina ikusi ukan nuenean ezen etzabiltzala oin xuxenez, Ebanjelioko egiaren araura, erran niezon Pierrisi guzien aitzinean, Baldin hi ludu aizelarik Jentil anzo bizi bahaiz, eta ez ludu anzo, zergatik Jentilak bortxatzen dituk iudaizatzeraz?

15 Gu *baikara* naturaz ludu, eta ez Jentiletarik bekatore.

16 Dakigularik ezen eztela gizona iustifikatzen Legeko obrez, baina Iesus Kristen fedez: guk ere Iesus Krist baithan sinhetsi ukan dugu, iustifika gentezenzat Kristen fedez, eta ez Legeko obrez: zeren haragirik batre ezpaita iustifikaturen Legeko obrez,

17 Eta baldin Kristez iustifikatu nahiz gabiltzalarik, erideiten bagara geuror ere bekatore, Krist halakotz bekatuaren ministre da? Gertha eztadila.

18 Ezen baldin desegin ditudan gauzak harzara edifikatzen baditut, transgresor neure burua egiten dut.

19 Ezen ni Legeaz Legeari hil izan nazaio, lainkoari bizi nekionzat, Kristekin batean kruzifikatu izan naiz.

20 Bada bizi naiz, ez gehiagorik ni, baina bizi da nitan Krist eta orain haragian bizi naizen bizitzeaz lainkoaren Semearen fedeaz bizi naiz, zeinek onhetsi ukan bainau, eta eman ukan baitu bere burua enegatik.

21 Eztut abolitzen lainkoaren gratia: ezen baldin iustitia Legeaz bada, beraz Krist mengoa gabe hil izan da.

KAP. III.

1 Galatianoak reprotxatzen. 2. Espiritu saindua. 3, 5 Legeko obrak. 8 Fedeak iustifikatzen. 9 Benedikatuak edo maradikatuak zein. 16 Krist Abrahamen hazia, 19, 20. Eta gure arartekoa. 21 Legea. 22 Guzia bekatuaren azpian ertsi. 24 Legea pedagogo. 26 Fedeaz lainkoaren haur. 27 Kristen iaunztea.

1 O Galatiano zoroak, nork enkantatu zaituzte ez egia obedi eztezazuen? zeinei begien aitzi-

nean lehenetik representatu izan baitzaizue Jesus Krist, zuen artean kruzifikatua?

2 Haur solament iakin nahi dut zuetarik, Legeko obrez Espiritu *saindua* rezebitu ukan duzue, ala fedearen predikationeaz?

3 Hain zoro zarete, Espirituaz hasirik, orain haragiaz akaba dezazuen?

4 Alfer hanbat sufritu ukan duzue? baldin alfer ere *bada*.

5 Bada, Espiritua zuei fornitzen drauzuenak, eta berthuteak zuetan obratzen dituenak, Legeko obrez *egiten du*, ala fedearen predikationeaz?

6 *Baina aitzitik* Abrahamek nola lainkoa sinhe-tsi ukan baitu, eta hari iustitiatan inputatu izan baitzaio:

7 *Hala* badakizue ezen fedezkoak diradela Abrahamen haur.

8 Eta Eskripturak aitzinetik ikusirik ezen fedezkoak iustificatzen dituela Jentilak, aitzinetik ebanjelizatu ukan drauka Abrahami, *zioela*, Benedikatuak izanen dituk hitan Jende guziak.

9 Bada, fedezkoak benedikatzen dirade Abraham fidelarekin.

10 Ezen norere Legeko obretarik baitirade, malediktionearen azpian dirade: ezen eskribatua da, Maradikatua da norere ezpaita egonen Legeko liburan eskribatuak diraden gauza guzietan, hek egin ditzanzat.

11 Eta Legeaz nehor eztela iustifikatzen lainkoa baithan, gauza klaroa *da*: ezen iustoa fedez biziko da.

12 Eta Legea ezta fedetik: baina gauza hek eginen dituen gizona, biziko da hetan.

13 *Baina* Kristek redemitu ukan gaitu Legearen malediktionetik, *bera* guregatik malediktione egin izanik: (ezen eskribatua da, Maradikatua *da* zurean urkatua den guzia)

14 Abrahamen benediktionea Jentiletara hel ledinzat Iesus Kristez, *eta* Espirituaren promesa fedez rezebi dezagunzat.

15 Anaieak, gizonen anzora minzo naiz, Apointamendu bat gizon batena badere, autoritatez konfirmatua bada, nehork eztu hausten ez emendatzen.

16 Abrahami bada promesak erran izan zaizkio, *eta* haren haziari. Eztu erraiten, *Eta* haziei,

anhitzez *minzo* baliz bezala: baina batez bezala, Eta hire haziari, zein baita Krist.

17 Haur bada diot, lehenetik lainkoaz Kristen respektuz konfirmatu izan den alianza, laurhun eta hogeit eta hamar urtheren buruan ethorri izan den Legeak eztuela hausten, promesa aboli dezantat.

18 Ezen baldin heretajea Legetik bada, ez ia promesetik: baina Abrahami promesetik eman ukan drauka lainkoak.

19 Zertako da beraz Legea? Transgresionen kausaz eratxeki izan da, ethor leiteno hazi hura zeini promesa egin izan baitzaio, *eta Legea* ordenatu izan da Aingeruez, Ararteko baten eskuz.

20 Eta Arartekoa ezta batena: baina lainkoa bat da.

21 Legea beraz lainkoaren promesen kontra *eratxeki izan da?* Gertha eztadila. Ezen eman izan baliz Legea zeinek bibifika ahal lezan, segur Legetik lizate iustitia.

22 Baina ertsi ukan du Eskripturak guzia bekatuaren azpian, promesa Iesus Kristen fediaz eman lekientzat sinhesten dutenei.

23 Bada fedea ethor zedin baino lehen, Legearen azpian begiratzen ginen ertsiak rebelatzeke zen federa *heltzeko*.

24 Bada, Legea gure pedagogo izan da Kristgana, fedez iustificak gentezenzat.

25 Baina fedea ethorritz geroztik, ezgara gehiagorik pedagogoren azpian.

26 Ezen guziak lainkoaren haur zarete Iesus Krist baithango fedez.

27 Ezen batheiatu izan zareten guziek Krist iaunzi ukan duzue.

28 Ezta Iudurik ez Grekik, ezta esklaborik ez librerik, ezta arrik ez emerik: ezen zuek guziok bat zarete Iesus Kristean.

29 Eta baldin zuek Kristenak *bazarete*, beraz Abrahamen hazi zarete, eta promesaren arauetz heredero.

KAP. IIII.

1 Haur herederoa. 3, 9 Munduko elementak. 5. Gure adoptionea Kristez. 14 Paul nola Galatianoez

*rezebitu. 22 Abrahamen bi semeak. 24. Agar. 25 Sina. 26 Ierusalem. 28
Isaak. 30 Neskatoaren semeaz eta
librearenaz.*

1 Eta *haur* erraiten dut, Herederoa *haur* deno, ezta diferent deusetan zerbitzariaganik, gauza guzien iabe badere:

2 Baina tutoren eta kuratoren azpiko da aitaz ordenatu izan zaion denborarano

3 Hala gu ere *haurrak* ginenean munduko elementen azpiratuak ginen suiektionetan:

4 Baina ethorri izan denean denboraren konplimendua, igorri ukan du lainkoak bere Semea emaztetik egina, eta Legearen azpiko egina:

5 Legearen azpiko ziradenak redemi litzanzat, *haurren* adoptionea rezebi genezanzat.

6 Eta zeren *haur* baitzarete, igorri ukan du lainkoak zuen bihotzetara bere Semearen Espiritua, oihuz dagoela, Abba, *erran nahi baita*, Aita.

7 Bada gehiagorik ezaiz esklabo, baina seme: eta baldin seme *bahaiz*, lainkoaren heredero ere Kristez.

8 Baina lainkoa ezagutzen etzendutenean zerbitzatu zentuzten naturaz iainko ez tiradenak.

9 Baina orain lainkoa ezagutzen duzuenaz geroz, baina aitzitik lainkoaz ezagutu zaretenaz geroz, nola konbertitzen zarete harzara element infirmoetara eta paubretara, zein ohi bezala zerbitzatu nahi baitituzue?

10 Egunak begiratzen dituzue eta hilebetheak, eta denborak eta urtheak.

11 Beldurra dut zuezaz, alfer trabaillatu naizen zuek baithan.

12 Zareten ni bezala: ezen ni ere zuek bezala *naiz*: anaieak, othoitz egiten drauzuet: ni deusetan ez nauzue iniuriatu ukan.

13 Eta badakizue nola haragiaren infirmitateekin ebanjelizatu ukan drauzuedan lehen.

14 Eta nizaz ene haragian *egiten zen* experientia eztuzue menospreziatu ez arbuiatu ukan, aitzitik lainkoaren Aingeru bat bezala rezebitu ukan nauzue, *baieta* Iesus Krist bezala.

15 Zerik zen bada zuen dohainontasuna? ezen testifikatzen drauzuet, baldin posible izan

albaliz, zuen begiak idokirik eman zendrauzkedetela.

16 Etsai egin natzaizue egia erraiten drauzuedanean?

17 Zuegaz ielosi dirade, ez onetakotz baina aitzitik idoki nahi zaituztez berak desira ditza-zuenzat.

18 Baina on da anhitz onhestea gauza onean bethiere, eta ez solament zuek baithan present naizenean.

19 Neure haurtoak, zeinez berriz ertzeko penatan bainaiz, Krist forma daiteno zuetan.

20 Nahi nuke orain zuekin izan, eta kanbiatu neure boza: ezen dudatan naiz zuegaz.

21 Erradazue Legearen azpiko izan nahi zaretenek, Legea eztuzue enzuten?

21 Ezen eskribatua da Abrahamek bi seme ukan zituela: bat neskatoaganik, eta bat libreaganik.

23 Baina neskatoaganikoa haragiaren araez iaio izan zen, eta libreaganikoa, promesaren partez.

24 Gauza hau konparationez erraiten dirade. Ezen hau dirade bi alianzak, bata da Sina-

ko menditik Agar, suiektionetara enjendratzen duena:

25 (Ezen Sina mendi bat da Arabian Ierusalemeko oraingoari ihardesten draukanik) eta bere haurrekin zerbitzutan dena:

26 Baina Ierusalemeko gora, libre da, zein baita gure guziorama.

27 Ezen eskribatua da, Alegeradi esterilertzen ezaizena: dendadi eta heiagora eginertzeko penan ezaizena: ezen gehiago ditun utziaren haurrak ezen ez senhardunarenak.

28 Gu bada, anaieak, Isaak bezala promeseko haur gara.

29 Baina nola orduan haragiaren arauet sortuak persekutatzen baitzuen Espirituaren arauet *sorthua*, hala orain ere.

30 Baina zer dio Eskripturak? Egotzik kanpora neskatoa eta haren semea: ezen ezetik heretaturen neskatoaren semeak librearen semearekin.

31 Bada, anaieak, ezgara neskatoaren haur baina librearen.

KAP. V.

1, 13 Libertatea. Suiektionea. 2. Zirkonzisionea. 4 Fedeaz, iustitia. 14 Legearen somarioa. 15 Espirituaren araez eabiltea. 19 Haragiaren obrak. 22 Espirituaren fruktuak.

1 Beraz Kristek libre egin gaituen libertatean, zaudete fermu, eta berriz etzaitezela eduki suiektionezko uztarriaz.

2 Huna, nik Paulek erraiten drauzuet ezen baldin zirkonzidi bazaiteztez Krist etzaizuela deus probetxaturen.

3 Eta testifikatzen draukat berriz zirkonziditzen den gizon guziari, ezen hura Lege guziaren begiratzera zordun dela.

4 Kristez gabetu zarete Legeaz iustificatu nahi zareten guziok: eta gratiatik erori zarete.

5 Ezen gu fedetik *den Espirituaz* iustitiazko esperanzaren begira gaude:

6 Ezen Iesus Kristean ez zirkonzisioneak du deus balio, ezeta preputioak: baina karitatez obratzen duen fedeak.

7 Ungi laster egiten zenduten, nork enpatxatu zaituztez, egia obedi etzenezaten?

8 Persuasione hori ezta zuek deitzen zaituztenaganik.

9 Altxagarri apur batek orhe guzia minzen du

10 Ni segurutzen naiz zuek *gure* launean, ezen eztuzuela berze sendimendurik ukanen: baina zuek trublutzen zaituztenak, ekarriren du kondemnationea, norere baita hura.

11 Bada nizaz den bezenbatean, anaieak, baldin are zirkonzisionea predikatzen badut, zergatik are persekututzen naiz? beraz abolitu da krutzeazko eskandaloa.

12 Ailitez trenka zuek trublutzen zaituztenak.

13 Ezen, anaieak, zuek libertatera deithu izan zarete: solament *begirauzue*, libertatea ezten haragiari okasionetan: baina elkar karitatez zerbitza ezazue.

14 Ezen Lege guzia hitz batetan konplitzen da, *zein baita*, Onhetsiren duk eure hurkoa eure burua bezala.

15 Baldineta elkar ausikiten eta iresten baduzue: *begirauzue* bata berzeaz konsumi etzaitezten.

16 Eta *haur* erraiten drauzuet, Espirituaren araura ebil zaitezte: eta haragiaren guthiziak eztitzazuela konpli.

17 Ezen haragiak guthiziatzen du Espirituaren kontra, eta Espirituak haragiaren kontra: eta gauza hauk elkarren kontra dirade: hala non nahi dituzuen gauza guziak ezpaitituzue egiten.

18 Baldineta Espirituaz gidatzen bazarete, etzarete Legearen azpiko.

19 Bada, zogeriak dirade haragiaren obrak, zein baitirade, adulterioa, paillardiza, satsutasuna, insolentia,

20 Idolatria, pozoinkeria, etsaigoak, bekaizterriak, aserretasunak, liskarrak, dibisioneak, heresiak,

21 Inbidiak, giza-erhaitekak, hordikeriak, gormandizak, eta hauk irudiak, gauza hauk aitzinetik erraiten drauzkizuet, lehen ere erran dudan bezala: ezen halako gauzak egiten dituztenek lainkoaren resuma heretaturen eztutela.

22 Bailla Espirituaren fruktua da karitatea, alegranza, bakea, espiritu patienta, benignitatea, ontasuna, fedea, emetasuna, temperantia.

23 Hunelakoen kontra legerik ezta.

24 Ezen Kristen diradenek haragia kruzifikatu
dute afektioneekin eta guthiziekin.

25 Baldin bizi bagara Espirituz, Espirituz ebil
ere gaitezen.

26 Ezgaitezela bana-gloria guthizioso egin,
elkar tharritatuz, elkargana inbidia ukanez.

KAP. VI.

*1 Faltatan erorten diradenak nola
reprehenditzeko. 6. Ministren
entretenitzeaz. 10 Fedearen
domestikoak. 12 Zirkonzisioneak. 15
Kristinoen regla. 17 Iesus launaren
merkak.*

1 Anaieak, baldineta erori izan bada gizon
bat zenbeit faltatan, zuek espiritual zaretenok
goiti ezazue haina emetasunetako espiturekin:
konsideratzen dualarik eure burua, hi ere tenta
ezadin .

2 Elkarren kargak egar itzazue: eta halaz
konpli ezazue Kristen Legea.

3 Ezen baldin norbeitetik uste badu zerbait dela, deus eztegarik, hark bere fantasiaz bere burua enganatu du.

4 Bada bere obra esperimentatu beza batbederak: eta orduan bere baitan gloria ukatu du, eta ez berzerik baitan.

5 Ezen batbederak bere karga ekarri du.

6 Bada komunikatu biezko hitzean irakasten denak, bere irakasleari, on guzietarik.

7 Etzaitzela engana: lainkoa ezin eskaria daite: ezen zer ere errenten baitu gizonak, hura bilduren ere du.

8 Ezen bere haragiaren errenten duenak, haragitik bilduren du korruptio: baina Espirituaren errenten duenak, Espiritutik bilduren du bizitzea etengal.

9 Bada unguitez ezgaitzela enoia: ezen bere sasoinan bilduren dugu, baldin laxo bilha ezpagaitez.

10 Bada denbora duguno, dagiegun ungu guziei, baina prinzipalki fedeko domestikoei.

11 Badakusazue zein letra luzez eskribatu drauzuedan neure eskuz.

12 Nor ere nahi baitirade aparent erakutsi haragian, hek bortxatzen zaituztez zirkonziditu izatera: solament Kristen krutzeagatik persekutioerik sufri eztezenzat.

13 Ezen zirkonziditzen diradenek berek ere eztute Legea begiraten: baina nahi dute zuek zirkonzidi zaitezten, zuen haragian gloria diteztenkat.

14 Baina niri gertha eztakidala gloria nadin Iesus Krist gure launaren krutzean baizen: zeinez mundua niri kruzifikatu baitzait, eta ni munduari.

15 Ezen Iesus Kristean ez zirkonzisioneak du deusbalio, ez preputioak, baina kreatura berriak

16 Eta nor ere regla hunen araura ebilten baitirade, bakea *izanen da* haien gainean eta misericordia, eta lainkoaren Israelen gainean.

17 Hemendik harat nehork enoiurik eztidala: ezen nik Iesus launaren merkak dakazket neure gorputzean.

18 Anaieak, Iesus Krist gure launaren gratia *dela*, zuen espirituarekin. Amen.

Galatianoei Romarik eskribatua.

S. PAUL APOSTOLUAREN EFESIANOETARATKO EPISTOLA

KAP. I.

*3. 16 Jainkoa laudatzen eta
regratiatzen. 4 Elektioea eternal,
eta zertara elejitu. 5, 11
Predestinationea eta adoptionea. 7
Redentionea. 9 Jainkoaren sekretua
13 Ebanjelioa. 14 Erresa. 15
Efesianoen fedea eta karitatea. 17
Sapientiatako espiritua. 22 Krist
Elizaren buru.*

1 Paul Jainkoaren borondatez Jesus Kristen Apostoluak Jesus Krist *launean* Efesen diraden sailduei eta fidelei:

2 Gratia *dela* zuekin eta bakea Jainko gure Aitaganik, eta Jesus Krist launaganik.

3 Laudatu *dela* lainkoa zein baita Iesus Kristogure launaren Aita, zeinek benedikatu baikaitu benedizoin espiritual guzian, zeruetan Krist baitan:

4 Nola elejitu ukan baikaitu hartan mundua funda zedin baino lehen, saindu ginenzat eta irreprehensible haren aitzinean karitatez:

5 Zeinek predestinatu ukan baikaitu bere baitan adopta genzanzat Iesus Kristez, bere borondatearen plazer onaren araura,

6 Bere gratiazko gloriaren laudoriotan, zeinez bere gogarako egin baikaitu *bere* maitean.

7 Zeinetan baitugu redentionea haren odolaz, *zein baita* bekatuen barkamendua haren gratiazko abastasunaren araura:

8 Zeinetarik gaindi eragin baitu abundoski gure gainera sapientia eta intellijentia guzitan:

9 Guri ezagut erazirik bere borondatearen misterioa, bere plazer onaren araura, zein lehendantik ordenatu baitzuen bere baitan:

10 Denboren konplimenduaren dispensationean guzien elkargana biltzera Kristean, hanbat zeruetan diradenen nola lurrean, hura bera baitan:

11 Zeinetan egin ere baikara haren heretaje, predestinatu izanik, haren ordenanzaren araura, zeinek gauza guziak egiten baititu bere borondateko konseilluaren araura.

12 Haren gloriaren laudoriotako garenzat, lehenetarik Krist baithan esperanza ukan dugunok.

13 Zeinetan zuek ere *esperanza ukan baituzue* egiazko hitza enzun ukanik, *zein baita*, zuen salbamendutako Ebanjelioa: zeinetan sinhetsi ere ukanik, zigilatu izan baitzarete promesaren Espiritu sainduaz:

14 Zein baita gure heretajearen erresa, haren posesione konkestatuaren redentionerano haren gloriaren laudoriotan.

15 Halakotz ni ere enzunik Iesus launean duzuen fedea, eta saindu guzietarako karitatea,

16 Eznaiz gelditzen zuengatik gratien rendatzetik, mentione zuezaz egiten dudala neure othoitzetan.

17 Iesus Krist gure launaren lainkoak, Aita gloriakoak dizuenzat sapientiatako eta rebelationetako Espiritua, haren ezagutzearen ukaiteko:

18 Zuen adimenduko begiak illuminaturik: dakizuenzat zerik den haren bokationearen esperanza, eta zerik *den* haren heretajeko gloriaren abrasasuna sainduetan:

19 Eta zerik den haren botherearen handitasun exzellenta sinhesten dugunotara, haren bothere borthitzaren operationez,

20 Zein erakutsi ukan baitu Krist baithan, hura hiletarik resusztataturik eta iar erazirik bere eskuinean zeruetan,

21 Prinzipaltasun, eta puisanza, eta berthute, eta dominatione ororen garaian, eta ez solament sekula hunetan baina ethortekoan ere aipatzen den izen ororen *garaian*.

22 Eta gauza guziak haren oinen azpiko suiet egin ukan ditu, eta bera ezarri ukan du gauza ororen garaian Elizaren buru izateko:

23 Zein baita haren gorputz, eta gauza guziak guzietan konplitzen dituenaren konplimendu.

KAP. II.

1 Jentilen bekatuez. 4 Delibranza Kristez. 6 Resuszitate gaitu lainkoak eta iar erazi Kristekin. 8 Salbatu fedez. 17 Ebanjelizatu bakea Iuduei eta Jentilei. 19 Jentilak sailduen burjeskide. 21, 22 lainkoaren tenple eta tabernakle.

1 Eta zuek *bibifikatu* zaituzte hilak zinetelarik faltetan eta bekatuetan:

2 Zeinetan noizpait ebili izan baitzarete mundu hunen kursuaren araura, airearen bothereko prinzearen araura, zein baita desobedientiazko haurretan orain obratzen duen espiritua:

3 Zeinen artean guk guziek ere noizpait konbersatu ukan baitugu gure haragiaren guthizietan egiten gentuela, haragiaren eta gure pentsamenduen desirak: eta naturaz hiraren haur ginen berzeak ere bezala.

4 Baina lainko miseriakordiaz abratsak bere karitate handi gu onhetsi gaituenagatik,

5 Eta bekatuz hilak ginelarik, elkarrekin, Kristez bibifikatu ukan gaitu, *zeinen* gratiaz salbatu izan baitzarete:

6 Eta resusztatatu ukan gaitu elkarrekin eta iarerazi zeruetan Iesus Kristean.

7 Erakuts lezanzat ethorteko diraden sekuletan bere gratiaren abarastasun abundantan *bere* gureganako benignitateaz Iesus Kristean.

8 Ezen gratiaz salbatu izan zarete fedearen moienez: eta hori ez zuetarik: lainkoaren dohaina *da*:

9 Ezobrez, nehor gloria eztadinzat.

10 Ezen haren obra gara Iesus Kristean kreatuak obra onetara, zein preparatu baititu lainkoak hetan ebil gentezenzat.

11 Halakotz, orhoit zaitezte nola zuek noizpait Jentilak haragian, Preputio deitzen baitzineten, haragian Zirkonzisione deitzen denaz eta eskuz egiten denaz,

12 Baitzineten denbora hartan Krist gabe, Israeleko republikarekin deus komunik etzindutelarik, eta promesaren alianzetarik estranjer, esperanzarik etzindutelarik, eta lainko gabe munduan *zinetelarik*:

13 Baina orain Iesus Kristean, zuek noizpait baitzineten urrun, hurbildu izan zarete Kristen odolaz.

14 Ezen hura da gure bakea, biak bat egin dituen, eta bien arteko paretaren zerrailua hautsi duena:

15 Bere haragiaz aboliturik etsaigoa, *zein baita*, manamenduetako legea, ordenanzetan *konsistitzen dena*, biez bere baithan gizon berri bat egin lezanzat, bakea egiten luela.

16 Eta biak gorputz batetan rekonzilia lie-tzonzat, lainkoari krutzeaz, hartan etsaigoa deseginik.

17 Eta ethorririk ebanjelizatu ukan drauzue bakea, zuei urrungoei, eta haei hurbilekoei. 18 Ezen harzaz dugu biek Espiritu batetan sartze Aitagana.

19 Etzarete beraz gehiagorik estranjer eta kanpoko, baina sainduen burjeskide, eta lainko-aren domestiko:

20 Apostoluen eta Profeten fundament gainean edifikatuak, zeinen *har* kantoin prinzipala baita Iesus Krist bera:

21 Zeinetan edifizio guzia elkarri eratxekirik, handitzen baita, tenple saindu izateko launean:

22 Zeinetan zuek ere elkarrekin edifikatzen baitzarete lainkoaren tabernakle zaretentzat, Espirituaz.

KAP. III.

*1 Paul Jentiletara enbaxadore. 8
lainkoaren abrastasun Kristezkoaz. 9
lainkoaren misterioa eta sapientia.
12 Libertate eta konfidanza noren
moienez dugun. 13 Paulen othoitzza
Jentilakgatik. 20 Esker eta laudorio
emaite.*

1 Kausa hunegatik ni Paul Iesus Kristen pre-soner *naiz* zuengatik, *baitzarete* Jentil.

2 Baldin behinzat enzun ukan baduzue zuek baithara eman izan zaitadan lainkoaren gratia-
ren dispensationea.

3 Nola *lainkoak* rebelationez ezagut erazi drautan misterioa (lehen hitz gutitan eskribatu drauzuedan bezala:

4 Haren irakurtzetik ezagut ahal dezakezue zerik den ene ezagutzea Kristen misterioan.)

5 Zein ezpaita ezagutu izan gizonen semez iragan jenerationetan, orain rebelatu izan zaien bezala haren Apostolu eta Profeta sainduei Espirituaz:

6 *Ezen* Jentilak diradela herederokide eta gorputz batetako bereko eta haren promesean partizipant Kristean Ebanjelioaz.

7 Zeinen ministre egin izan bainaiz lainkoaren gratiaren dohainaren arauetz, zein eman izan baitzait haren botherearen operationearen arauetz.

8 Niri *bada* saindu guzietako xipienari eman izan zait gratia haur, Jentilen artean Kristen abrastasun konprehendi ezin daitenaren ebanjelizatzeke,

9 Eta guziei manifestatzeko zerik *den* misterio bethidanik lainkoa baithan estalia zenaren komunioea, zeinek gauza guziak kreatu baithitu Iesus Kristez:

10 Orain manifestat dakienzat Elizaz zeruetako prinzipaltasunei eta botherei lainkoaren sapientia anhitz maneraz dibersa:

11 Iesus Krist gure launean egin ukan duen ordenanza eternalaren araura:

12 Zeinez baitugu libertate eta sartze konfidanzarekin, hura baithan dugun fedez.

13 Halakotz, nago rekerimenduz etzaitezten enoia ene zuengatik afliktioneakgatik, zein baita zuen gloria.

14 Kausa hunegatik gurtzen ditut neure behaunak Iesus Krist gure launaren Aitagana,

15 Zeinaganik ahaidetasun guzia zeruetan eta lurrean deitzen baita,

16 Eman diezazuenzat, bere gloriaren abras-tasunaren araez, indarrez fortifika zaitezten haren Espirituaz barneko gizean:

17 Eta habita dadin Krist fedez zuen bihotzetan:

18 Karitatean erro eginik eta fundaturik, konprehendi ahal dezazuen saindu guziekin zeric den zabaltasuna eta luzetasuna, barnatasuna eta goratasuna:

19 Eta ezagut dezazuen Kristen amorio eza-
gutze guzia iragaiten duena: konpli zaiteztenzat
lainkoaren konplimendu guzian.

20 Bada gutan obratzen duen bothereaz
gauza guzien egitera, eskatzen garen edo pen-
satzen dugun baino abundantkiago botheretsu
denari,

21 *Dela* gloria Elizan Iesus Kristez, jeneratio-
ne guzietan sekula sekulakotz. Amen.

KAP. IIII.

*1, 17 Obra onetara exhortatzen. 4
Gorputz bat eta espiritu bat. 6 Bat
guzien Aita. 7 Dono dibersak eta
ministerioak Elizan, zein baita haren
gorputz. 22 Gizon zaharra eta berria.
25 Egia eta gezurra. 26 Aserretzea.
28 Ez ebaisteko, baina
trabailatzeko. 29 Hitz ona. 31
kristinoen bizitzea nolako izateko.*

1 Othoitz egiten drauzuet bada nik, bainaiz presoner *gure* launean, ebil zaitezten deithu izan zareten bokationeari dagokan bezala,

2 Humilitate eta emetasun guzirekin, espiritu patient batekin, elkar suportatzen duzuelarik karitatez:

3 Arthatsu zaretelarik Espirituaren unitatearen begiratzera bakezko lotgarriaz.

4 Gorputz bat *da* eta Espiritu bat, deithu ere izan zareten bezala zuen bokationearen esperanza batetara:

5 Iaun bat, Fede bat, Baptismo bat:

6 Guzien Iainko eta Aita bat, zein baita guzien gainean, eta guzien artean, eta zuetan guziotan.

7 Baina gutarik batbederari gratia eman izan zaio Kristen dohainaren neurriaren araura.

8 Halakotz dio, Goiti iganik kaptibo eramandu du kaptibitatea, eta eman drauzte dohainak gizonei.

9 Eta igaite hura zer da, lehen lurreko parte behera hautara iausti ere dela baizen?

10 Iautsi izan den hura bera da igan ere dena zeru guzien garaira, gauza guziak bethe litzan-zat.

11 Hark bada eman ditu batzu, Apostolu *izateko*: eta berzeak, Profeta: eta berzeak, Ebanjelista: eta berzeak, Pastor eta Doktor *izateko*,

12 Sainduen elkarganatzegatik, ministerioaren obrakotzat, Kristen gorputzaren edifikationetan.

13 Guziak renkontra gaitezkeno fedearen, eta lainkoaren Semearen ezagutzearen unitatean, gizon perfektotan, Kristen adin perfektoko neurrira:

14 Gehiagorik haur ezgarenzat balenzan ebilteko, eta doktrinatako haize oroz hara huna gizonen enganioz, eta haien finezia kauteloski enganagarritzkoz erabili izateko.

15 Baina egiari garreitzalarik karitatekin, guzietan handi gaitezen hartan, zein baita burua, Krist:

16 Zeinetarik gorputz guziak ungi iunktaturik, eta forniduraren iunktura guziez elkarrekin iosirik, menbroetarik batbederaren neurriko indarraren araura hartzen baitu gorputzeko hazitze, bere buruaren edifikationetan karitatez.

17 Haur bada erraiten dut, eta launaz rekeritzen zaituztet, gehiagorik etzaitezten ebil berze

Jentilak dabiltzan bezala beren adimenduko banitatean,

18 Adimenduz ilhunduak diradelarik eta lainkoaren bizitzetik apartatuak, hetan beren bihotzeko gogortasunetik den ignorantiaren kausaz:

19 Eta sendimendu gabeturik, bere buruak abandonatu ukan dituzte disolutionetara, zithal-keria ororen egitera, apetitu desordenaturekin.

20 Baina zuek eztuzue hala ikasi ukan Krist:

21 Baldin behinzat hura enzun ukan baduzue, eta harzaz irakatsiak bazarete, egia Iesus baithan den bezala:

22 Ken dezazuen leheneko konbersioneaz den bezenbatean gizon zaharra, enganagarritzko guthizien araura korrumpitzen dena:

23 Eta arranberri zaitezten zuen adimenduko espirituan:

24 Eta iaunz dezazuen gizon berria, zein lainkoaren araura kreatu izan baita iustitiatan eta egiazko saindutasunetan.

20 Halakotz, gezurra kendurik, minza zaitezte egiaz batbedera zein zuen hurkoarekin: ezen elkarren menbro gara.

26 Aserre zaitetz, eta bekaturik eztagizuela: iguzkia ezadila etzin zuen aserretasunaren gainean:

27 Eta lekurik eztemozuela deabruari.

28 Ebaisten zuenak eztezala gehiagorik ebats: baina aitzitik travailla bedi on daten gauzarik egiten duela, beharra duenari emaiteko duenzat.

29 Hitz korrumpiturik batre zuen ahotik ilki ezadila, baina zenbeit bada, edifikationearen usanzako on datenik, enzuten dutenei gratia eman diezenzat.

30 Eta eztezazuela kontrista lainkoaren Espiritu saindua, zeinez zigilatuak baitzarete redentioneko egunekotzat.

31 Samindura eta kolera, eta hira, eta oihu, eta gaitzerraite guzia zuetarik ken bedi, malitia guzirekin.

32 Baina zareten elkargana benigno, misericordioso eta elkarri barkazale, lainkoak Kristez barkatu ukan drauzuen bezala.

KAP. V.

*1 Kristen araura ebilteko. 3 Hitz
sainduz minzatzeko. 8 Argizko
obretara exhortatzen. 13
Ilhunbearnen manifestationea. 18 Ez
horditzeko. 19 Kantu eta laudorio
lainkoari. 21 Elkarren suiet izateko.
22, 25 Senhar emazten
instruktioea. 30 Kristen gorputzeko
menbro.*

1 Zareten bada lainkoaren imitazale haur maite anzo:

2 Eta ebil zaitezte karitatean Kristek ere onhetsi ukan gaituen bezala, eta liuratu ukan baitrauka bere burua guregatik oblatione eta sakrifizio lainkoari, usain onezko urrinetan

3 Bada, paillardiza eta zithalkeria guzia, edo abaritia aipa ere ezadila zuen artean, nola apartenitzen baitzaie sainduei:

4 Edo gauza deshonestik, edo hitz erhorik, edo burlakeriarik, baitirade gauza ungi eztaude-nak, baina aitzitik gratien rendatzerik.

5 Ezen badakizue haur, ezen ezain ere pailartek, edo zithalek, edo abaritosok, zein baita idolatre, eztuela heretajerik Kristen eta lainkoaren resuman.

6 Nehork etzaitzatela hitz banoz engana: ezen gauza haukgatik ethorten da lainkoaren hira desobedientiazko hurren gainera.

7 Etzaretela bada hekin parzoner.

8 Ezen noizpait ilhunbe zineten, baina orain argi zarete *gure* launean: argizko haur anzo ebil zaitezte:

9 (Ezen Espirituaren fruktua *konsistitzen da* ontasun eta iustitia eta egia guzitan)

10 Experimentatzen duzuelarik launari plazent zaiona zer den.

11 Eta eztezazuela komunika ilhunbearen obra fruktu gabetan, baina aitzitik reprehendi ere itzazue.

12 Ezen hezaz ixilik egiten diraden gauzen erraitea ere deshonestate da.

13 Baina gauza guziak, kanporatzen diradenean argiaz, manifestatzen dirade: ezen guzia manifestatzen duena, argia da.

14 Halakotz erraiten du, Iratzar adi lo atzana, eta iaiki adi hiletarik, eta argituren au Kristek.

15 Gogoauzue bada nola zuhurki ebil zaitezketen, ez erho anzo, baina zuhur anzo:

16 Rekrubatzen duzuelarik denbora: ezen egunak gaitz dirade.

17 Halakotz, etzaretela zuhurtzia gabe, baina aditzale zerik den launaren borondatea.

18 Eta etzaitezte hordi mahatsarnoz, zeinetan disolutione baita: baina bethe zaitezte Espirituaz:

19 Minzatzen zaretela zuen artean psalmuz, laudorioz eta kantu espiritualez: kantatzen eta resonatzen draukazuela launari zuen bihotzean.

20 Gratiak ere rendatzen drautzazuela bethiere gauza guziez, Iesus Krist gure launaren ize-nean, *gure* lainko eta Aitari:

21 Elkarren suiet zaretelarik lainkoaren bel-durrekin.

22 Emazteak, zuen senharren zaretan suiet, launaren bezala:

23 Ezen senharra da emaztearen buru, Krist ere Elizaren buru den bezala, eta hura da gorputzaren salbadorea.

24 Bada, nola Eliza baita Kristen suiet, hala emazteak ere *diraden* bere senharren *suiet* gauza guzietan.

25 Senharrak, zuen emaztei on eriztezue, Kristek ere Elizari on eritzi draukan bezala, eta bere burua eman ukan baitu harengatik:

26 Hura sanktifika lezanzat, purifikaturik urezko ikutzez hitzaz.

27 Hura beretako Eliza glorioso egin lezanzat, makularik ez zimurdurarik gabe, ez halako berze gauzarik: baina lizen saindu eta irreprehensible.

28 Hala senharrek on eritzi behar draueze bere emaztei nola bere gorputzei: bere emazteari on daritzanak, bere buruari on daritza.

29 Ezen nehork egundano bere haragiari eztrauka gaitz eritzi: baina hatzen eta entretenitzen du hura, launak ere bere Eliza bezala:

30 Ezen haren gorputzeko membro gara, haren haragitik eta haren hezurretarik.

31 Halakotz, utziren ditu gizonak aita eta ama eta iunktaturen zaio bere emazteari: eta biak haragi bat izanen dirade.

32 Misterio haur handia da: baina ni Kristez minzo naiz eta Elizaz.

33 Hunegatik, zuek ere *egizue* zuen aldetik batbederak hala on daritzon bere emazteari nola bere buruari: eta emaztea bere senharraren beldur biz.

KAP. VI.

1 Haurren instruktioea. 4 Aitez. 5 Zerbitzariez. 9 Nabusiez. 11 Iainkoaren harmez beztitzeko. 16 Fidelen harmadurak. 18 Ardura othoitz egiteko. 20 Paul presoner. 21 Tikike Efesianoetara igorri. 23 Bake, karitate eta fede Efesianoei desiratzen.

1 Haurrak, obeditzazue launean zuen aita eta ama: ezen haur gauza iustoa da.

2 Ohoraitzak eure aita eta eure ama (zein baita lehen manamendua promesekin)

3 Ungi hel dakianzat eta bizitze luzetako aizenzat lurraren gainean.

4 Eta zuek aitek ez titzazuela proboka despi-
tetara zuen haurrak, baina haz itzazue instruk-
tionetan eta launazko remonstrationetan.

5 Zerbitzariak, obeditzazue haragiaren
arauez *zuen* nabusi diradenak, beldurrekin eta
ikararekin, zuen bihotzeko sinplizitatekin, Krist
bezala.

6 Ez begikotzat zerbitzatzen dituzuela, gizo-
nen gogara egin nahi bazendute bezala, baina
Kristen zerbitzari bezala, egiten duzuelarik lain-
koaren borondatea gogotik.

7 Afektione onekin zerbitzatzen duzuelarik
launa, eta ez gizonak:

8 Dakizuelarik haur, ezen batbederak zerere
ungi egin baituke, hura rezebituren dukeela, ala
den esklabok ala librek.

9 Eta zuek nabusiek, hura bera egizue heta-
ra, utzirik mehatxuak: dakizuelarik ezen haien
eta zuen launa zeruetan dela, eta personen
akzeptionerik eztela hura baithan.

10 Gainerakoaz, ene anaieak, fortifika zaitzez-
te *gure* launean, eta haren indarraren bothe-
rean.

11 launz ezazue lainkoaren harmadura guzia, deabruaren zelaten kontra resisti ahal dezazuenzat.

12 Ezen eztugu borroka odolaren eta haragiaren kontra, baina prinzipaltasunen kontra, puisanzen kontra, munduko iaunen, sekula hunetako ilhunbearen *gobernadoren* kontra, leku zelestialetan *diraden* malitia espiritualen kontra.

13 Harren, har ezazue launaren harmadura guzia, resisti ahal dezazuenzat egun gaitzean, eta guziei garaithurik fermu zaudeten.

14 Zareten bada fermu, zuen gerrunzeak egiaz gerrikaturik, eta iustitiazko halakreta iaunzirik:

15 Oinetan iaunzirik bakezko Ebanjelioaren preparationea.

16 Guzien gainetik fedezko brokela harturik, zeinez Gaixtoaren gezi suz eraixeki guziak iraungi ahal ditzazuen.

17 Salbamendutako kasketa ere har ezazue, eta Espirituaren ezpata, zein baita lainkoaren hitza.

18 Oratione mota oroz eta suplikationez othoitz egiten duzuela denbora guzian espirituz, eta hartara iratzarri zaudetela perseberanza guzirekin eta suplikationerekin, saindu guziagatik,

19 Eta enegatik, minzatzea eman dakidanzat neure ahoaren irekitekoko libertaterekin, notifikat dezadanzat Ebanjelioaren misterioa,

20 Zeinen kausaz bainaiz enbaxadore kadenan, harzaz frangoki minza nadinzat, minzatu behar dudan bezala.

21 Eta dakizkizuenzat zuek ere ene egitekoak, *eta ni* zer ari naizen, Tikike gure anaie maitiak eta *gure* launean ministre fidelak, gauza guziak notifikaturen drauzkizue:

22 Zein harengatik beragatik igorri ukan baitut zuetara, iakin ditzazuenzat gure egitekoak, eta konsola ditzanzat zuen bihotzak.

23 Bakea *dela* anaieokin, eta karitatea federekin Iainko Aitaganik eta Iesus Krist launaganik.

24 Gratia *dela* Iesus Krist gure launari puritatetan on daritzaten guziekin.

*Efesianoetara eskribatua Romarik
Tikikerekin.*

S. PAUL APOSTOLUAREN FILIPIANOETARATKO EPISTOLA

KAP. I.

1 Eskerrak Paulek rendatzen. 8 Haren Filipianoetaratko afektioea. 12, 20 Haren enprisonamenduaz den fruktua. 14 Anhitz aldez Krist predikatzen. 21 Paulek Kristekin izatera desiratzen. 27 Ebanjelioaren araura bizitzera exhortatzen.

1 Paulek eta Timotheok Iesus Kristen zerbitzariak Iesus Krist *launean* Filipesen diraden saildu guzietan Ipizpikuekin batean eta Diakrekin,

2 Gratia *dela* zuekin eta bakea lainko Aitagarik, eta Iesus Krist launaganik.

3 Eskerrak emaiten drauzkiot neure lainkoari zuezazko orhoitzapen handirekin,

4 (Bethiere neure oratione guzietan zuen guziongatik bozkariorekin othoitze egiten dudala)

5 Zeren Ebanjelioren komuniora ethorri izan zareten, lehen egunetik oraindrano:

6 Hunezaz segurutzen naizela, ezen obra ona zuetan hasi ukan duenak akabaturen duela Iesus Kristen egunerano:

7 Nola razoina baita nik haur estima dezadan zuezaz guziaz, zeren bihotzean baitzadutzatet, eta ene estekaduretan, eta defensionean eta Ebanjelioren konfirmationean zuek guziok enekin baitzarete partizipant ene gratian.

8 Ezen lainkoa dut testimonio zein zinez desiratzen zaituztedan zuek guziok Iesus Kristen afektione kordialez:

9 Eta hunez othoiztez nago, zuen karitatea oraino gehiago eta gehiago abunda dadin ezagutzerekin eta iujemendu guzirekin:

10 Gauza kontrarioak diszerni ditzazuenzat: pur eta trebuku gabe zaretenzat Iesus Kristen egunerano:

11 Iesus Kristez lainkoaren gloriatan eta laudoriotan *diraden* fruktuz betheak zaretelarik.

12 Eta nahi dut dakizuen, anaieak, ezen niri *heldu zaizkidan* gauzak Ebanjelioaren abanzamendutarago ethorri izan diradela:

13 *Hanbat non* ene estekadurak famatu izan baitirade Krist *launean* Pretorio guzian eta berze *leku* guzietan:

14 Eta anaietarik anhitz *gure* launean ene estekadurez aseguratutik, ausartkiago hitzaz minzatzera hauzu baitirade.

15 Eta batzuk behinzat inbidiaz eta kontentionez, eta berzek borondate onez ere Krist predikatzen dute:

16 Batzuk, *diot*, kontentionez Krist denuntiatzen dute ez purki, ene estekadurak afliktionez emendatu ustez:

17 Baina berzek karitatez, dakitelarik ezen Ebanjelioaren defensionetan ezarri izan naizela.

18 Zer bada? nola ere baita, bada fiktionez, bada egiaz, Krist predikatzen da: eta hunetan alegeratzen naiz, eta alegeraturen ere.

19 Zeren baitakit, ezen haur ethorriren zaitadala salbamendutara zuen orationez, eta Iesus Kristen Espirituaren aiutaz,

20 Ene igurikite fermuaren eta esperanzaren araura, ezen deusetan eznaizela konfus izanen, aitzitik libertate guzirekin bethiere bezala, orain ere magnifikaturen dela Krist ene gorputzean, bizitzez bada hiltzez bada.

21 Ezen niri Krist irabaizte zait bizitzera eta hiltzera.

22 Ala haragian bizitzera probetxu dudanez, eta zer hauta dezakedan, eztakit.

23 Ezen hertsen naiz alde bietarik, desir dudalarik partitzera eta Kristekin izatera: ezen *haur* ungiz hobeago dut:

24 Baina haragian egon nadin nezesarioago *da* zuengatik.

25 Eta *haur* seguratuki badakit, ezen egonen naizela eta perseberaturen dudala zuekin guzio-kin zuen abanzamendutan, eta *zuen* fedearen bozkariotan.

26 Abunda dadinzat zuen gloriationea Iesus Kristean nizaz, ene berriz zuetarako ethortez.

27 Solament Kristen Ebanjelioari dagokan bezala konbersa ezazue, bada ethor nadin eta ikus zaitzatedan, bada absent naizen, adi deza-
dan zuen egitekoez, ezen perseberatzen duzue-

la espiritu batetan, gogo batez elkarrekin Ebanjelioaren fediaz konbatitzen zaretelarik, eta kontrastez deusetan izitzen etzaretelarik:

28 Zein baita haien perditionetako seignale, eta zuen salbamendutako, eta haur lainkoaganik.

29 Ezen zuei eman izan zaizue Kristgatik, ez solament hura baithan sinhestea, baina haren-gatik sufritzea ere:

30 Nitán ikusi duzuen, eta orain enzuten duzuen konbat bera duzuela.

KAP. II.

*1 unionera eta karitatera
exhortatzen, 12 Eta salbamenduan
enplegatzerá. 13 Borondatea eta
egitea lainkoaganik. 14
Murmurationei eta kestionei ihes
egiteko. 19 Timotheo hetara igorri
gogo. 25 Epafrodite Filipianoen
Apostolu.*

1 Bada baldin konsolationerik batre *bada* Kristean, baldin karitatezko solajeamendurik batre, baldin espirituzko komunioerik batre, baldin afektione kordialik eta miserikordiarik batre *bada*,

2 Konpli ezazue ene bozkarioa, sendimendu ber bat duzuelarik, karitate ber bat duzuelarik, gogo ber batetako eta konsentimendu ber bate-tako zaretelarik.

3 Deus eztadila kontentionez edo bana glori-az *egin*, baina bihotzetiko humilitatez batak berzea bere burua baino exzellentago estima beza.

4 Etzaudetela batbedera zein zuen komodita-tetara beha, baina berzerenetara ere.

5 Bada biz zuetan Iesus Krist baithan ere izan den afektionea.

6 Zeinek lainkoaren forman zelarik ezpaitu estimatu harrapatze lainkoaren bardin izatea: 7 Badarik ere bere burua ezdeustu ukan du, zerbi-tzari forma harturik, gizonen irudiko egin izanik, eta formaz eriden izanik gizon bezala:

8 Bere burua beheratu ukan du obedient egin izanik heriorano, are herio krutzekorano.

9 Halakotz lainkoak ere hura subiranoki goratu ukan du, eta izen bat eman ukan drauka izen guzien gaineko denik:

10 Iesusen izenean zeruetakoen eta lurrekoen eta lupekoen belhaun guzia gur dadinzat:

11 Eta mihi guziak konfesa dezan ezen laundela Iesus Krist, Iainko Aitaren glorian.

12 Hunegatik, ene maiteak, bethiere obeditu ukan duzuen bezala, ez ene presentian bezala solament, baina orain ungiz gehiago ene absentian, beldurrekin eta ikararekin enplega zaitezte zuen salbamenduan.

13 Ezen Iainkoa da egiten duena zuetan eta nahi ukaitea eta egitea, bere plazer onaren araura.

14 Gauza guziak egin itzazue murmuratzerik eta kestionerik gabe:

15 Zaretenzat reprotxu bagetako eta simple, Iainkoaren haur irreprensible, natione bihurriaren eta gaixtoaren artean, zeinen artean argi egizue torxoek bezala munduan, bizitzetako hitza aitzinera ekarten dutenen anzora:

16 Gloria ahal nadinizat Kristen egunean, ezen eztudala alfer laster egin, ez alfer lan egin:

17 Eta baldin zuen fedearen sakrifizio eta zerbitzu gainera sakrifika banadi ere, alegera naiz eta zuen guzion onaz alegera naiz.

18 Zuek ere halaber zareten alegera, eta alegera zaitezte ene onaz.

19 Eta esperanza dut Iesus launean, Timotheo sarri igorriren drauzuedala, nik ere gogo on dudanzat zuen egitekoak ezaguturik.

20 Ezen eztut nehor hain gogo bardinetakorik, egiaz zuen egitekoez arrangura dukeenik.

21 Ezen guziak bere gauzei iarreikiten zaizte, ez Iesus Kristenei.

22 Baina harzazko experientia ezagutzen duzue, nola, semeak aita *zerbitzatzan duen* bezala, enekin zerbizatzen ari izan den Ebanjelioan.

23 Hura bada esperanza dut igorriren drauzuedala, neure egitekoei drezu eman draukeedan sarrienaz.

24 Eta segurutzen naiz launean, ezen neuror ere sarri ethorriren naizela zuetara.

25 Baina nezesario zela estimatu ukan dut zuetara igortera Epafrodite anaiea eta aiutazalea eta gerlako neure laguna, zuen Apostolu ere

dena, eta nik behar ukan dudanaren administra-
zalea.

26 Ezen *hark* zuek guziok desiratzen zentuz-
ten, eta guziz desplazatzen zuten zeren eri izan zela
aditu ukan baitzenuen.

27 Eta segur eri izan da hiltzeko estatuan:
baina lainkoak miseriak egin ukan drauka,
eta ez hari solament baina niri ere, tristitia tristi-
tiaren gainera eznuenat.

28 Bada, *hanbat* afektione handizago hura
igorri ukan dut, hura ikusirik berriz alegera zai-
teztentzat, eta nik hanbat tristitia gutiago dudan-
zat.

29 Rezebi ezazue bada hura *gure* launean
bozkario guzirekin: eta halako diradenak estima-
tan edukitzazue.

30 Ezen Kristen obragatik heriorano hurbildu
izan da, *bere* bizia abandonaturik, supli lezantat
zuen ene baitharako zerbitzu peitua.

KAP. III.

*2 Iduuetarik begiratzera
exhortatzen. 9 Iainkoaren eta
Legearen iustitia. 11 Resurrektionera
heltzera Paulek desiratzen. 16 Gogo
batetako izatera exhortatzen. 18
Kristen krutzearen etsaiak. 20
Konbersationea zeruetan.*

1 Gainerakoaz den bezenbatean, ene anaieak, alegera zaitzte launean: Gauza beren zuei eskribatzera niri etzait herabe, eta zuen seguranza da.

2 Gogoia eiezue orei, gogoia eiezue obrero gaixtoei, gogoia emozue konzisioneari.

3 Ezen gu gara Zirkonzisionea, Iainkoa espirituz zerbitzatzeko dugunok, eta gloriatzeko gare-nok Iesus Kristean eta haragian konfidanzarik eztugunok:

4 Nik zerzaz haragian ere konfidanza dudan badut ere. Baldin zenbeit berzek uste badu konfidanzarik duela haragian, nik gehiago.

5 *Bainaiz* zortzi garreneko egunean zirkonziditua, *bainaiz* Israel arrazatik, Beniaminen leinutik, Hebraiko Hebraikoetarik, relijionez Fariseu:

6 Zelozen bezenbatean Elizaren persekutazale: Legean den iustitiaz den bezenbatean, estakuru gabe.

7 Baina irabazitan nadutzan gauzak, kaltetako estimatu ukan ditut Kristen amorekatik.

8 Baieta segur gauza guziak kalte diradela estimatzen dut Iesus Krist neure launaren ezagutzearen exzellentiagatik: zeinagatik gauza hauz guziaz neure burua billuzi ukan baitut, eta gorotz bezala edukiten ditut, Krist irabaz dezadanzat.

9 Eta eriden nadin hartan, ez neure iustitia Legez dena dudalarik, baina Kristen fedez dena, zein baita, lainkoaganik fedez den iustitia:

10 Eta ezagut dezadanzat, hura, eta haren resurrektionearen berthutea, eta haren afliktionen partizipationea, haren herioaren konforme egin izanik:

11 Eia zerbait maneraz hel ahal naitenez hilen resurrektionera:

12 Ez ia ardietsi dudalakotz, edo ia perfekt naizelakotz: baina banarreio, eia are ardiets ahal dezakedanez, eta kausa hunegatik ardietsi izan naiz Iesus Kristez.

13 Anaieak, nizaz den bezenbatean eztut neure buruaz estimatzen oraino ardietsi ukan dudala.

14 Baina gauza bat *egiten dut* gibeletik diraden gauzak ahanzten ditudala, eta aitzinetik diraden gauzetara abanzatzen naizela, xedeari narraio, Iainkoaren garaitiko bokationearen prezioari, Iesus Krist *launean*.

15 Bada, perfekt garen guziok dugun sendimendu haur: eta baldin zerbait berzela senditzen baduzue, hura ere Iainkoak rebelaturen drauzue.

16 Guziagatik ere zertara heldu izan baikara, *hartan* regla ber batez ebil gaitezen, eta garen sendimendu ber batetako.

17 Anaieak, zareten gogo batez ene imitazale, eta konsideraitzazue hala dabiltzanak, nola gu baikaituzue exenplutan.

18 Ezen anhitz dirade dabiltzanak zeinezaz anhitzetan erran ukan baitrauzuet, eta orain ere

nigarrez nagoela erraiten, Kristen krutzearen etsai *diradela*:

19 Zeinen fina *baita* perditionea, zeinen lainkoa, sabela, eta gloria haien konfusionerekin, pensatzen dutelarik lurreko gauzetan.

20 Baina gure konbersationea zeruetan da: nondik Salbadorearen ere begira baikaude, zein baita Iesus Krist launa,

21 Zeinek transformaturen baitu gure gorputz ezdeusa, haren gorputz gloriosoaren konforme egin dadinzat, gauza guziak ere bere suiet egin ahal ditzakeen berthutearen araura.

KAP. IIII.

1 Perseberatzera exhortatzen. 5 Modestia. 6 Othoitzza eta esker emaita. 7 Iainkoaren bakea. 8 Pensamendu sainduetan pensatzeko. 10 Paulen kontentamendua. 18 Elemosinak sakrifizio deitzen.

1 Halakotz, ene anaie maiteak, eta desiratuak *ene* bozkarioa eta koroa, hunela egon zaitzte *gure* launean, *ene* maiteak.

2 Euodiari othoiztez nagoka, eta Sintikeri othoiztez nagoka diraden afektione ber batetako launean.

3 Eta hiri ere othoitz egiten drauat, neure egiazko laguna, aiuta ditzan *emazte* enekin batean bataillatu diradenak Ebanjelioan, eta Klementekin eta ene berze aiutazalekin, zeinen izenak baitirade bizitzeko liburuan.

4 Alegera zaitzte launean bethiere: berriz diot, alegera zaitzte.

5 Zuen modestia ezagut bedi gizon guziez: launa hurbil da.

6 Eztuzuela deusez ansiarik: baina gauza orotan othoitzaz eta suplikationez esker emaiterekin zuen rekestak notifika bekizkio lainkoari.

7 Eta lainkoaren bake adimendu guzia iragaiten duenak begiraturen ditu zuen bihotzak eta zuen adimenduak Iesus Kristean.

8 Gainerakoaz, anaieak, gauza egiazko diraden guziak gauza honest guziak, iustoak, purak, amoriotakoak, izen onetakoak, baldin edozein

berthute *bada* eta edozein laudorio, gauza hautan pensa ezazue:

9 Zein ikasi ere baitituzue, eta rezebitu, eta enzun, eta ikusi ere nitan. Gauza hauk *bada* egin itzazue, eta bakezko lainkoa izanen da zuekin.

10 Alegeratu izan naiz launean hagitz, zeren ia azkenekotz arraferdatu zareten zuen nizazko ansian: hartan pensatzen ere bazenduten, baina komoditaterik etzinduten

11 Eznaiz minzo deusen peitu izanez: ezen nik ikasi dut erideiten naizenaren araura kontent izaten.

12 Eta badakit behera izaten, badakit abundant izaten ere: leku guzietan eta gauza guzietan ikasi dut ase izaten eta gose izaten, eta abundant izaten eta peitu izaten.

13 Gauza guziak ahal ditzaket Krist fortifikatzen nauenez:

14 Badarik ere ungi egin duzue zeren elkarrekin ene afliktionera komunikatu ukan baituzue.

15 Eta zuek ere badakizue, Filipianoak, ezen Ebanjelioaren *predikatione* hatsean, Mazedoniarik partitu nintzenean, ezeinere Elizak etzarauta-

la deus komunikatu har eta emaneko behar-
kian, zuek zeurok baizen.

16 Ezen Thesalonikan nintzenean, behin eta
berriz, behar nuena igorri ukan drautazue.

17 Ez emaitzeren galdez nagoelakotz: baina
galdegiten dut fruktua ezagut dakizuen kontura
zuen abantailletan.

18 Bada rezebitu ukan ditut gauza guziak,
eta abundantia dut: konplitu izan naizela, *diot*,
Epafroditeganik rezebiturik zuezaz *igorriak*, urrin
onetako usain anzo, lainkoaren gogarako eta
plazentiatako sakrifizio.

19 Ene lainkoak ere suplituren du behar uka-
nen duzuen guzia, bere abastasunaren araura
gloriarekin Iesus Kristean.

20 Bada gure lainko eta Aitari *dela* gloria
sekula sekulakotz. Amen.

21 Salutaitzazue saildu guziak Iesus Kristean
Salutatzen zaituztez enekin diraden anaiek.

22 Salutaten zaituztez saildu guziek, eta
prinzipalki Zesaren etxeok.

23 Iesus Krist gure launaren gratia *dela* zue-
kin guziokin. Amen.

*Filipianoetara Romarik eskribatua
Epafroditerekin.*

S. PAUL APOSTOLUAREN KOLOSIANOETARATKO EPISTOLA

KAP. I.

*4 Kolosianoen fedea. 7 Epafras
haien ministre. 3, 9 Hekgatik Paulek
othoitz egiten eta eskerrak emaiten.
14 Bekatuen barkamendua. 15 Krist
lainko Aitaren imajina, Elizaren buru.
20 Rekonziliationea Kristez. 24 Paul
tribulationetan alegeratzen.*

1 Paul lainkoaren borondatez Iesus Kristen
Apostoluak eta Timotheo *gure* anaieak,

2 Kolosen diraden saildu eta anaie fidelei
Kristean: Gratia *dela* zuekin eta bakea *gure* lain-
ko Aitaganik, eta Iesus Krist launaganik.

3 Eskerrak emaiten drautzagu lainkoari, *zein*
baita, Iesus Krist *gure* launaren Aita bethi zuen-
gatik othoitz egiten dugula,

4 Enzunik zuen fede Iesus Krist baithangoa eta saindu guzietara duzuen karitatea:

5 Zeruetan zuei begiratzen zaizuen esperanzagatik, zein Ebanjelioaren egiazko hitzaz lehen enzun ukan baituzue,

6 Zein heldu izan baita zuetara, mundu orotara ere bezala, eta fruktifikatzen baitu, zuek baithan ere bezala, lainkoaren gratia egiazki enzun eta ezagutu ukan duzuen egunaz geroztik.

7 Nola ikasi ere baituzue Epafras gure lagun maite eta zerbitzari-kideeganik, zein baita Kristen ministre fidel zuendako:

8 Zeinek deklaratu ere baitrauku zuen Espirituazko karitatea.

9 Halakotz gu ere *haur* enzun ukan genduen egunaz geroztik, ezgara baratzen zuengatik othoitz egitetik eta galdegitetik betha zaitezten haren borondatearen ezagutzeaz, sapientia eta adimendu espiritual guzirekin:

10 launari dagokan bezala ebil zaiteztenzat, gauza guzietan haren gogarako zaretentzat, obra on orotan fruktifikatzen duzuela, eta aitzinartzten zaretala lainkoaren ezagutzean.

11 Indar orotan fortifikaturik, haren gloriaren berthutearen arauetz, sufrimendu eta espirituzko patientia orotara bozkarioekin:

12 Eskerrak emaiten drautzazuela Aitari, zeinek sufizient egin baikaitu sainduen heretajearen partizipant izateko argian:

13 Zeinek delibratu baikaitu ilhunbearen bot-heretik eta eraman bere Seme maitearen resu-mara.

14 Zeinetan baitugu redentionea haren odol-laz, baita, bekatuen barkamendua.

15 Zein baita lainko inbisiblearen imajina, gauza kreatu guziak *baino* lehen iaioa.

16 Ezen hartan kreatu izan dirade zeruetan eta lurrean diraden gauza guziak, bisibleak eta inbisibleak, nahiz-biz Thronoak, nahiz Dominationeak, nahiz Prinzipaltasunak, nahiz Puisanzak, gauza guziak, *diot*, harzaz eta harengatik, kreatu izan dirade.

17 Eta bera gauza guziak baino lehen da, eta gauza guziak harzaz konsistitzen dirade.

18 Eta hura da Eliza gorputzaren burua, eta hatsea, eta hiletariko lehen iaioa: gauza guzie-tan lehen lekua eduki dezanzat.

19 Ezen *Aitaren* plazer ona izan da konplimendu guzia hartan habita ledin:

20 Eta harzaz rekonzilia litzan gauza guziak beregana, pazifikaturik haren krutzeko odolaz hanbat zeruan nola lurrean diraden gauzak.

21 Eta zuek noizpait harenganik urrunduk eta etsai zinetelarik, pensamenduz obra gaixotan:

22 Badarik ere orain rekonziliatu zaituzte bere haragiaren gorputzean, herioaz: zuek egin zintzatenzat saildu, eta atxakio gabe eta irreprensible bere aitzinean:

23 Bai baldin egoiten bazarete fedean fundatuak eta fermu, eta erautzen ezpazarete enzunkan duzuen Ebanjelioko esperanzatik, zein *Ebanjelio* zeruaren azpiko kreatura ororen artean predikatu izan baita, zeinetako ministre ni Paul egin izan bainaiz:

24 Orain alegeratzen naiz zuengatik sufritzen ditudan gauzez, eta Kristen afliktionen gainera-koak konplitzen ditut neure haragian, haren gorputzagatik, zein baita Eliza.

25 Zeinetako ministre egin izan bainaiz, lainkoaren dispensationez, zein eman izan baitzait zuek baithara, lainkoaren hitzaren konplitzeko:

26 *Zein baita*, sekula eta adin guzietz geroztik estalirik egon izan den misterioa, baina orain manifestatu izan zaie haren sainduei.

27 Zeinei lainkoak ezagut erazi nahi ukan baitraue, zerik den misterio hunetako gloriaren abastasuna Jentilen artean, zein baita Krist zue-tan, gloriatzko esperanza:

28 Zein guk predikatzen baitugu, admonestatzon dugularik gizon guzia, eta irakasten dugularik gizon guzia sapientia orotan: gizon guzia perfekt egin dezagunzat Iesus Krist *launean*.

29 Hartakotzat travaillatzen ere naiz, konbatitzen naizela haren operatione nitan bothere-tsuki obratzen duenaren araura.

KAP. II.

*2 Paulek fidelez duen artha. 3
Gizonen doktrinatik begiratzera
exhortatzen. 11 Zirkonziditu Kristez.*

*12 Ohortzi, resusztatuz, bibifikatuz
eta delibratuz Kristez. 16 Ordenanza
humanoetan ez fundatzeko.*

1 Ezen nahi dut dakizuen zein batailla handia dudan zuengatik eta Laodizeakoakgatik, eta haragian ene presentia ikusi ez tuten guziakgatik:

2 Konsola ditezenzat haien bihotzak, elkarrekin karitatez iunktaturik, eta adimendu gerthuki seguratuaren abarastan guzian, *gure* lainko eta Aitaren eta Kristen misterioaren ezagutzetan.

3 Zeinetan sapientiazko eta eszientiazko thesaur guziak gordeak baitirade.

4 Eta haur erraiten dut nehork goga eraziteko hitzez engana etzaitzatenzat.

5 Ezen gorputzez absent banaiz ere, espirituz ordea zuekin naiz, alegeratzen naizelarik eta ikusten dudalarik zuen regela, eta Krist baithan duzuen fedearen fermutasuna.

6 Beraz Iesus Krist launa rezebitu ukan duzuen bezala, hartan ebil zaitetzte:

7 Erro eginak eta edifikatuak zaretelarik hartan, eta fedean konfirmatuak, irakatsi izan zare-

ten bezala, abundos zaretelarik hartan remerzia-
mendurekin

8 Begirauzue nehork pilla etzaitzaten filoso-
fiaz eta enganio banoz, gizonen ordenanzen
araura, munduko rudimenten araura, eta ez Kris-
ten araura:

9 Ezen hartan habitatzen da dibinitatezko
bethetasun guzia korporalki.

10 Eta zarete hartan konplituak, zein baita
Prinzipaltasun eta Bothere guziaren burua.

11 Zeinetan zirkonziditu ere izan baitzarete,
eskurik gabe egiten den zirkonzisioenez, haragiko
bekatuen gorputzaz billuzirik, Kristen zirkonzisio-
neaz:

12 Harekin ohortze izanik Baptismoaz, zeinez
harekin batean resusztatatu ere baitzarete, lain-
koaren fede botheretsuki operatzen duenaz, zei-
nek hura hiletarik resusztatatu ukan baitu.

13 Eta zuek hilak zinetelarik bekatuetan eta
zuen haragiaren preputioan, harekin batean
bibifikatu ukan zaituzte, zuei bekatu guziak bar-
katurik,

14 *Eta* iraungirik ordenanzetan gure kontra
zen obliganza, zein baitzen gure kontrario, baina

hark kendu ukan du hura artetik, krutzeari era-
txekirik:

15 *Eta* billuzirik Prinzipaltasunak, eta Bothe-
reak monstranzatan eraman ukan ditu publikoki
hezaz hartan triunfaturik.

16 Nehork bada etzaitzatela kondemna
ianean, edo edanean, edo besta egunaren, edo
ilhargi berriaren, edo Sabbathoen respektuz:

17 Zein baitirade ethorteko ziraden gauzen
itzal, baina gorputza Kristena *da*.

18 Nehork eztezala zuen gainean seignoria
bere plazerera humilitatez, eta Aingeruen zerbi-
tzuz, ikusi eztituen gauzetara *bere* burua aban-
zatzuz, bere haragiaren adimenduz erhoki hantu-
rik:

19 *Eta* eztxekalarik buruari, zeinetarik gor-
putz guzia iunkturaz eta lothuraz furniturik eta
elkarrekin iunktaturik lainkoaren hazitzez hatzen
baita.

20 Bada baldin hil bazarete Kristekin mundu-
ko rudimentez den bezenbatean, zergatik
nehork ordenanzaz kargatzen zaituzte, mun-
duan bizi bazinete bezala?

21 *Hala nola*, Eztezala ian, Eztezala dasta, Eztezala hunki.

22 Gizonen manamenduen eta doktrinen arauetzko gauza hauk guziok usanza berez galdu doaza.

23 Badarik ere gauza hauk badute zerbait sapientia irudi bere borondatezko debotionean, eta espirituzko humilitatean, eta gorputza gupida eztuten bezenbatean: eztirade *ordea* ezeinere preziotako, *zeren* haragia resasiatzen duten gauzetara *beha baitaude*.

KAP. III.

1 Krist garaian bilhatzeko. 5

Bekatutako menbroak

mortifikatzeko. 8 Hira. Gaitzerraitea.

Gezurra. 9 Gizon zaharra eta berria.

12 Karitatea eta bakea. 18

*Instrukzione emazten, senharren,
haurren, aiten eta zerbitzarien.*

1 Bada baldin resusztatut izan bazarete Kristekin, garaian diraden gauzak bilhaitzazue, non baita Krist lainkoaren eskuinean iarria.

2 Garaiko gauzetan pensa ezazue, ez lurra-
ren gainekoetan.

3 Ezen hil izan zarete, eta zuen bizitzea gor-
dea da Kristekin lainkoa baithan.

4 Baina Krist ager dadinean *zein baita* gure
bizia, orduan zuek ere agerturen zarete gloria-
tan.

5 Mortifikaitzazue bada zuen menbro lurra-
ren gainekoak, paillardiza, zithalkeria, apetitu
desordenatua, guthizia gaixtoa, eta abaritia,
zein baita idolatria.

6 Gauza haukgatik ethorten da lainkoaren
hira desobedientiazko haurren gainera.

7 Zeinetan zuek ere ebili izan baitzarete noiz-
pait, hetan bizi zinetenean.

8 Baina orain ken itzazue zuek ere hek
guziak, hira, kolera, malitia, gaitzerraitea, min-
zatze deshonestu zuen ahotik apart.

9 Gezurrik ezterrazuela batak berzearen kon-
tra, eraunzirik gizon zaharra bere egitatekin,

10 Eta iaunzirik berria, zein arranberritzen baita ezagutzez, hura kreatu duenaren imajinaren araura.

11 Non ezpaita Grekik ez Iudurik, Zirkonzisionerik ez Preputiorik, Barbarorik ez Eszitherik, esklaborik ez librerik: baina guzia eta guzietan Krist.

12 bezi zaitezte bada lainkoaren elejitu, saindu eta maite anzo, miseriordiazko halsarez, benignitatez, humilitatez, emetasunez, espiritu patientez:

13 Suportatzen duzuelarik batak berzea, eta barkatzen draukazuelarik elkarri, baldin zenbeitak berzeren kontra kereillarik badu: nola Kristek ere barkatu ukan baitrauzue, hala zuek ere.

14 Eta hauen guzian gainera bezi *zaitezte* karitatez, zein baita perfektionezko lotgarria.

15 Eta lainkoaren bakeak regna beza zuen bihotzetan, zeinetara deithuak ere baitzarete gorputz batetan, eta zareten *gratioso*.

16 Kristen hitza habita bedi zuetan largoki sapientia guzirekin: irakasten eta admonestatzten duzuela elkar psalmuz, laudorioz, eta kantu

espiritualerik remerziatzen diren, kantatzen ditzazuela zuen bihotzean launari.

17 Eta zerere egin baitezazue hitzez edo obrak, Iesus launaren izenean *egizue*, eskerrak emaiten drautzazuela *gure* Jainko eta Aitari harzaz.

18 Emazteak, zareten suiet zuen senharretara, bide den bezala *gure* launean.

19 Senharrak, on eriztezue zuen emaztei, eta etzaitezela samint haien kontra.

20 Haurrak, obeditzazue aita eta ama guzietan: ezen haur launari plazent zaio.

21 Aitak, eztitzazuela tharrita zuen haurrak: gogoia gal eztezatentzat.

22 Zerbitzariak, obeditzazue gauza guzietan zuen nabusi karnalak, ez begiaren araura zerbitzatzeko dituzuela, gizonen gogara egin nahi bazindute bezala, baina bihotzeko sinplizitatekin, launaren beldur zaretelarik.

23 Eta zerere baitagizue, gogotik egizue launari anzo eta ez gizonei *anzo*.

24 Dakizuelarik ezen launaganik rezebituren ditzuela heretajeko alokairua, ezen Krist launa zerbitzatzeko ditzue.

25 Baina iniustoki egiten duenak, rezebituren du iniustoki egin dukeena: eta ezta personen akzeptionerik.

KAP. IIII.

1 Nabusien eginbidea. 2 Orationetan perseberatzeko. 6 Kristinoen minzatzea nolako izateko. 7 Thikike. 9 Onesimo. 10 Aristarke. 11 Iesus Iusto deitzen dena. 12 Epafras. 14. Luk medikua. 17 Arkipe.

1 Nabusiak egiezue zuzena eta eginbidea zerbitzariei, dakizuelarik ezen zuek ere baduzue-la laun bat zeruetan.

2 Orationetan persebera ezazue, hartan beilatzen duzuelarik remerziamendurekin.

3 Othoitz egiten duzuelarik elkarrekin guregatik ere hitzaren bortha lainkoak ireki diezagunzat, Kristen misterioaren denuntiatzeko, zeinagatik presoner ere bainaiz.

4 Hura manifesta dezadanzat, minzatu behar dudan bezala.

5 Zuhurki ebil zaitetze kanpokoetara, denbora rekrubatzan duzuelarik.

6 Zuen hitza bethiere *biz* gatzez konfitua gratiarekin, batbederari nola ihardetsi behar draukazuen dakizuenzat.

7 Ene ekiteko guziak notifikaturen drauzkizue Tikike *gure* anaie maiteak, eta ministre fidelak, eta *gure* launean ene zerbitzari kideak:

8 Zein igorri ukan baitut zuetara berariaz, ezagut ditzanzat zuen egitekoak, eta konsola ditzanzat zuen bihotzak,

9 Onesimo *gure* anaie fidelarekin eta maitearekin zein baita zuenetarik, *hek* alde hunetako egiteko guziez abertituren zaituztez.

10 Salututzen zaituztez Aristarke ene presoner kideak, eta Mark Barnabasen lehen gusuak (zeinez manamendu rezebitu baituzue, baldin zuetara ethor badadi, rezebi dezazuen)

11 Eta Iesus lusto deitzen denak, zein baitirade zirkonkisionetik, hauk solament *ditut* aiutazale lainkoaren resuman, eta ene solajeamendutako izan dirade.

12 Salutatzan zaituzte Epafra zuenak, Kristen zerbitzariak, bethiere bataillatzen delarik zuengatik othoitzetan, zaudetentzat perfekto eta konplitu lainkoaren borondate guzian:

13 Ezen haur harzaz testifikatzen dut, ezen zelo handia duela zuengatik eta Laodizean, eta Hierapolen diradenakgatik.

14 Salutatzan zaituztez Luk mediku maiteak, eta Demasek.

15 Salutaitzazue Laodizean diraden anaieak, eta Ninfa, eta haren etxean den Eliza.

16 Eta epistola haur zuek baithan irakurri datenean, egizue Laodizeakoen Elizan ere irakur dadin: eta Laodizeatik eskribatua, zuek ere irakur dezazuen.

17 Eta errozue Arkiperi, Gogoia ezak *gure* launean rezebitu ukan duan administrationea konplid ezanzat.

18 Salutationea, ene Paulen eskuz. Zareten orhoit ene estekadurez. *Gratia dela* zuekin. Amen.

*Romarik Kolosianoei eskribatua Tiki-
kerekina eta Onesimorekin.*

S. PAUL APOSTOLUAREN THESALONIZEANOETARATKO EPIST. LEHENA

KAP. I.

*2 Esker emaita eta othoitzza 4
Thesalonizeanoen elektioea. 5
Paulek haei efikaziorekin hitza
predikatu, 6 Haiek hura
tribulationerekin rezebitu 7 Haien
fedea eta konbersationea.*

1 Paulek eta Siluanok eta Timotheok Thesalonizeanoen Eliza, lainko Aitan eta Jesus Krist *gure* launean *denari*, *Gratia dela* zuekin eta bakea *gure* lainko Aitaganik, eta Jesus Krist launaganik.

2 Eskerrak emaiten drautzagu lainkoari behiere zuezaz guziaz, memorio zuezaz egiten dugula *gure* othoitzetan:

3 Pausu gabe orhoitzen garelarik zuen fedearen berthuteaz, eta *zuen* karitatearen trabai-

lluaz, eta *zuen* esperanzaren patientiaz Iesus Krist gure launean, gure lainko eta Aitaren aitzinean:

4 Dakigularik, anaie maiteak, zuek lainkoaz elejituak *zaretela*:

5 Ezen gure Ebanjelioa konsistitu izan da zuek baithan ez hitzean solament, baina berthutean ere, eta Espiritu sainduan, eta seguranza handitan, dakizuen bezala nolako izan garen zuen artean zuengatik.

6 Zuek ere gure imitazale egin izan zarete eta launaren, rezebiturik hitza anhitz tribulatio-nerekin, Espiritu sainduaren bozkariorekin:

7 Hala non Mazedonian eta Akaian sinhesten duten guzien exenplu izan baitzarete.

8 Ezen zuetarik soinu egin ukan du lainkoaren hitzak, ez solament Mazedonian eta Akaian, baina leku orotan ere zuen fede lainkoa baithangoa dibulgatu izan da, hala non ezpaitugu mengoa deus erran dezagun:

9 Ezen berek guzaz kontaktzen dute zer sartzea ukan dugun zuetara, eta nola konbertitu izan zareten lainkoagana idoletarik, zerbitza zinezatenzat lainko bizia eta egiazkoa:

10 Eta haren Seme Iesusen begira zinaude-
tenzat zeruetarik, zein resusztatatu ukan baitu
hiletarik, *zein baita*, gu ethorteko den hiratik
delibratzen gaituena.

KAP. II.

*1 Paulen Thesalonizeanoetarako
sartzea. 2, 10 Haren puritatea
ministerioan. 9 Predikatu langiten ari
zela. 14 Persekutione. 15 Iuduak
persekutazale.*

1 Ezen zeurok badakizue, anaieak, gure zuek
baitharako sartzea nola ezten bano izan:

2 Baina are, dakizuen bezala, lehenetik afliji-
tu eta iniuriatu izan baginen ere Filipesen, har-
dieza hartu ukan dugu gure lainkoan, zuei lain-
koaren Ebanjelioaren predikatzera konbat handi-
rekin.

3 Ezen gure exhortationea ezta abusioez, ez
bilentiaz, ez enganiorekin izan:

4 Baina nola lainkoaz aprobatu izan baikara Ebanjelioaren predikationea eman lekigun, hala minzaten gara, ez gizonen gogara egin nahi bagendu bezala, baina lainkoaren, zeinek gure bihotzak aprobatzen baititu.

5 Ezen behinere lausenguzko hitzez eztugu usatu ukan, dakizuen bezala: ezeta abaritiatako okasionez: lainkoa *da* testimonio.

6 Eta gizonetarik eztugu gloriarik bilhatu ukan, ezeta zuetarik, ez berzetarik, grabitate eduki ahal gendukeelarik, Kristen Apostolu bezala.

7 Baina izan gara eme zuen artean, unhide batek bere haurrak delikatuki hatzen balitu bezala.

8 Hunela zuetara afektionatuak ginelarik, desir genduen zuei partitzera ez solament lainkoaren Ebanjelioa, baina gure arima propioak ere, zeren guzaz onhetsiak baitzineten.

9 Ezen orhoit zarete, anaieak, gure trabailuaz eta nekeaz: ezen gau eta egun langiten ari ginela, zuetarik nehoren forogu ezginenzat, predikatu ukan dugu zuek baithan lainkoaren Ebanjelioa.

10 Zuek testimonio zarete eta lainkoa, nola sainduki eta iustoki, eta reprotxu gabe zuen, sinhetsi duzuenon artean konbersatu ukan dugun.

11 Dakizuen bezala, nola zuetarik batbedera, aitak bere haurrak bezala, abertitzen genduen.

12 Eta konsolatzen eta rekeritzen, ebil zindeizten bere resumara eta gloriara deitzen zaituzten lainkoari dagokan bezala.

13 Halakotz guk ere eskerrak emaiten drauzkiogu lainkoari pausurik gabe, zeren lainkoaren hitzaren predikationea gureganik rezebitu ukan duzuenean, rezebitu ukan baituzue, ez gizonen hitz bezala, baina (nola egiazki baita) lainkoaren hitz bezala, zeinek obratzen ere baitu zuetan sinhesten duzuenotan.

14 Ezen zuek, anaieak, imitazale egin izan zarete lainkoaren Eliza ludean diradenen Iesus Kristean, nola gauza berak sufritu ukan baituzue zuek ere zuen natione berekoetarik, hek ere luduetarik bezala:

15 Zeinek Iesus launa ere hil ukan baitute, eta beren Profeta propioak, gu ere persekutatu ukan gaituzte, eta eztirade lainkoaren gogarako, eta gizon guzien kontrario dirade:

16 Gu enpatxatzen gaituztelarik Jentilei minzatzetik salba ditezenzat, bethi konpli ditzatenzat bere bekatuak: ezen hetara heldu izan da hira finerano.

17 Eta gu, anaieak, zuetarik separaturik denbora apur batetakotz ikustez, ez bihotzez, hanbat zinezago enplegatu izan gara zuen begithartearen ikustera, desir handirekin.

18 Halakotz ethorri nahi izan gara zuetara (ni Paul behinzat) behin eta berriz, baina enpatxatu ukan gaitu Sataneke.

19 Ezen zerik da gure esperanza, edo bozkarioa, edo gloriagarriko koroa? ala ez kuek ere Iesus Krist gure launaren aitzinean haren adbenimenduan?

20 Segur zuek zarete gure gloria eta bozkarioa.

KAP. III.

1 Paul Athenesen. 3 Nola afliktione sufritzeko ordenatuak garen. 6 Thesalonizeanoen fedea. 12

*Karitatean abundos diraden Paulek
desiratzen.*

1 Halakotz gehiagorik ezin pairatuz, on irudi izan zaiku geurok Athenesen geldi gentezen.

2 Eta igorri ukan dugu Timotheo gure anaie eta lainkoaren ministrea eta Kristen Ebanjelioan gure aiutazalea, zuen konfirmatzera eta exhortatzera zuen fedearen gainean:

3 Nehor trubla eztadinzat afliktione hautan: ezen zeurok badakizue hartako ordenatuak garela.

4 Ezen zuek baithan ginenean aitzinetik erraiten gendrazuen ezen afliktione iragan behar ukanen genduela, heldu ere izan den bezala, eta badakizue.

5 Halakotz nik ere gehiagorik ezin pairatuz, *hura* igorri ukan dut zuen fedea ezagut nezanat, tentazaleak nolazpeit tentatu zentukezten beldurrez, eta ezdeustu ezlizen gure trailla.

6 Eta heuragirik eztuela ethorri zenean Timotheo zuetarik guregana, eta deklaratu zerauzkigunean zuen fedea eta karitatea, eta nola duzuen guzaz memoria ona bethiere, desi-

ratzen gaituzelarik ikustera, guk ere zuek bezala:

7 Halakotz izan gara konsolatu, anaieak, zue-tan, gure afliktione eta tribulatione orotan, zuen fedeez.

8 Ezen orain gara bizi, baldin zuek fermu bazaudete launean.

9 Ezen zer remerziamendu lainkoari renda ahal dezakeogu zueaz, gure lainkoaren aitzinean zuen kausaz alegeratzen garen alegranza guziagatik?

10 Gau eta egun abundantkiago othoitz egi-ten dugula ikus dezagunzat zuen begithartea, eta konpli dezagunzat zuen fedean peitu dena.

11 Bada, gure lainko eta Aitak, eta Iesus Krist gure launak xuxent dezala gure zuetaratko bidea.

12 Eta zuek launak multiplika eta abunda erazi zaitzatela elkarganako eta guzietarako karitatean, gu ere zuetara bezala:

13 Konfirma ditzanzat zuen bihotzak repro-txu gabe saindutasunean gure lainko eta Aitaren aitzinean, Iesus Krist gure launaren bere saindu guziekilako adbenimenduko.

KAP. IIII.

1 Perseberatzera exhortatzen. 3 Paillardizari ihes egiteko. 5 Jentilen guthizia. 6 lainkoa mendekios. 8 Ministreak ez menospreziatzeko. 9 Thesalonizeanoen karitatea. 12 Konbersatione honesta. 13, 17 Resurrektioea. 17 Kristen azken adbenimendua.

1 Gainerakoaz bada anaieak, othoizten zaituztegu, eta rekeritzen lesus launaz, gureganik rezebitu ukan duzuen bezala, nola ebili behar zareten eta lainkoaren gogarako izan, gerotik gerora abanzago zaitezten.

2 Ezen badakizue zer manamenduak eman drauzkizuegun lesus launaren partez.

3 Ezen haur da lainkoaren borondatea, zuen sanktifikatioea, paillardizatarik begira zaitezten:

4 *Eta* iakin dezan zuetarik batbederak bere unziaren poseditzen sanktifikationerekin eta ohorerekin:

5 Ez guthiziatako afektionerekin, Jentil lainkoa ezagutzen ez tutenen anzora.

6 Nehork eztezala aurizki edo engana bere anaiea ezeinere egitekotan: ezen launa gauza hauen guzien mendekazale da, nola lehen ere erran eta testifikatu baitrauzuegu.

7 Ezen ezgaitu deithu ukan lainkoak zithalke-riatara, baina sanktifikationetara.

8 Bada *gauza hauk* arbuiatzen dituenak, eztu gizon bat arbuiatzen, baina lainkoa, zeinek bere Espiritu saindua gutan ezarri ere ukan baitu.

9 Anaietasunezko karitateaz den bezenba-tean, eztuzue mengoarik eskriba diezazuedan ezen zeurok lainkoaz irakatsiak zarete, elkar onhets dezazuen.

10 Ezen egiten ere baduzue haur Maeedonia guzian diraden anaie orotara: baina othoizten zaituztegu, anaieak, gerotik gerora abanzago zaitetzten,

11 Eta pena ezar dezazuen bakez izatera, eta zuen egiteko proprien egitera, eta zuen esku propioez langitera, manatu zaituztegun bezala:

12 Kanpotik diradenetara honestki perporta zaitetzat, eta deusen beharrik eztuzenzat.

13 Eta eztut nahi zuek ignorant zareten, anaieak, lo dauzanez den bezenbatean, kontrista etzaitetzat, berze goitiko esperanzarik eztutenak ere bezala.

14 Ezen baldin sinhesten badugu Iesus hil eta resusztatuta dela, halaber Iesus *launean* lo dauzanak ere lainkoak erekarriren ditu harekin.

15 Ezen haur erraiten drauzuegu launaren hitzez ezen gu bizirik goitiko garatenok launaren adbenimenduan ezgaitzaiztela aitzinduren lo dauzatenei.

16 Ezen launa bera exhortationezko oihurekin, eta Arkanjelu bozekin, eta lainkoaren tronpetarekin iautsiren da zerutik: eta Kristean hilak resusztaturen dirade lehenik:

17 Gero gu bizirik goitiko garatenok, harrapaturen garate hekin batean hodeietan launaren aitzinera airetan: eta halaz bethi launarekin izanen gara.

KAP. V.

2 Kristen adbenimenduaz. 4 Argiko eta ilhunbeko hurrez. 6 Beillatzeko eta sobre izateko. 8 Fidelen harmak. 10 Kristekin bizitzeko. 11 Elkar exhortatzeko. 14 Obra karitatezkoak. 19 Espirituaren dohainak ez iraungiteko. 21 Gauza guziak experimentatzeko, on dena edukiteko.

1 Denborez eta momentez den bezenbatean, anaieak, ezta mengoarik eskriba diezazuedan.

2 Ezen zeurok badakizue ungi ezen launaren eguna ethorriren dela, ohoina gauaz bezala.

3 Ezen erran dezatenean, Bake eta seguranza: orduan gainera ethorriren zaie ustegaberiko destruktioea, izorra denari mina bezala, eta eztirade itzuriren.

4 Baina zuek, anaieak, etzarete ilhunbean, non egun hark, ohoinak *egiten duen* bezala, ardiets zaitzaten.

5 Zuek guziok argiaren haur zarete, eta egunaren haur: ezgara gauaren edo ilhunbearen *haur*.

6 Ezgaunzala bada lo berzeak bezala, baina gauden iratzarri eta garen sobre.

7 Ezen lo daunzanak, gauaz lo daunza: eta horditzen diradenak, gauaz dirade hordi.

8 Baina gu egunaren garenok, garen sobre, fedezko eta karitatezko halakretaz beztituak, eta kasket orde, salbamendutako esperanzaz.

9 Ezen ezgaitu ordenatu lainkoak hirakotzat, baina salbamenduaren ukaitekotzat Iesus Krist gure launaz,

10 Zein guregatik hil izan baita: bagaude iratzarririk, ala bagaunza lo, harekin batean bizi garen.

11 Harren, exhorta ezazue elkar, eta edifika ezazue batak berzea, egiten ere duzuen bezala.

12 Halaber othoizten zaituztegu, anaieak, ezagut ditzazuen zuen artean traillaitzen dira-

denak, eta zuen gaineko diradenak *gure* launean, eta zuen admonestazaleak:

13 Eta amorio handitan eduki ditzazuen, egiten duten obragatik. Auzue bake elkarren artean.

14 Halaber othoitz egiten drauzuegu, anaieak, admonesta ditzazuen bizitze desordenatutakoak, konsola ditzazuen gogo xipitakoak, sustenga ditzazuen flakuak, zareten espirituz patient guzietara.

15 Begirauzue nehork eztiezon gaitza gaitzagarik nehori renda: baina ungiari bethi zarreitazate, bata berzeagana eta guzietara.

16 Bethiere zareten alegera.

17 Pausu gabe othoitz egizue.

18 Gauza guzietan eskerrak emainzkizue: ezen haur da lainkoaren zuetarako borondatea Iesus Kristez.

19 Espiritua eztezazuela iraungi:

20 Profetiak eztizazuela menosprezia.

21 Gauza guziak experimentaitzazue: on denari zatxetzate:

22 Gaizkiaren irudi orotarik begira zaitezte.

23 Bada lainko bakezkoak osoki sanktifika zaitzatela: eta zuen espiritu guzia eta arima eta gorputza hogen gabe, Iesus Krist gure launaren adbenimenduko begira ditezela.

24 Fidel da zuek deithu zaituztena, eginen ere badu.

25 Anaieak, othoitz egizue guregatik.

26 Salutaitzazue anaie guziak pot saildurekin.

27 Rekeritzen zaituztet launaren partez irakur dakien epistola haur anaie saildu guziei.

28 Iesus Krist gure launaren gratia *dela* zuekin. Amen.

*Thesalonizeanoetarako lehena
Athenestik eskribatu.*

S. PAUL APOSTOLUAREN THESALONIZEANOETARATKO EPISTOLA BIGARRENA

KAP. I.

3 Thesalonizeanoen fedea eta karitatea. 5 Paulek hek konsolatzen. 8 launa infidelez mendekaturen. 11 Thesalonizeanoakgatik Paulek othoitz egiten.

1 Paulek eta Siluanok eta Timotheok gure lainko Aitan eta Iesus Krist *gure* launean Thesalonizeanoen *den* Elizari:

2 Gratia *dela* zuekin eta bakea gure lainko Aitaganik eta Iesus Krist launaganik.

3 Eskerrak eman behar drauzkiogu lainkoari bethiere zuengatik, anaieak, razoina den bezala, zeren hagitz handitzen den zuen fedea eta *zeren* abundatzen den zuen guziotarik batbederaren elkarganako karitatea:

4 Hala non geuror zuengatik gloriatzen baika-
ra lainkoaren Elizetan, zuen persekutione eta
iragaiten dituzuen afliktione guzietako patientiaz
eta fedez:

5 Zein baitirade lainkoaren iujemendu iusto-
aren seignale, lainkoaren resumaren digne egin
zaiteztenzat, zeinagatik sufritzen ere baituzue:

6 Ezen gauza iustoa da lainkoa baithan, zuek
aflijitzen zaituztenei, afliktione renda diezen

7 Eta zuei aflijitzen zaretenoi solajeamendu
gurekin, ager dadinean Iesus launa zerutik bere
puisanziako Aingeruekin,

8 Suzko garrekin, mendekatzen delarik lain-
koa ezagutzen ez tutenez, eta Iesus Krist gure
launaren Ebanjelioari behatzen etzaizkionez:

9 Zein punituren baitirade punitione eterna-
lez, *kondemnaturik* launaren presentiaz eta
haren botherearen gloriuz:

10 Dathorreanean glorifikatu denzat bere sain-
duetan, eta miragarri egin dadinzat sinhesten
duten guzietan (zeren gure zuek baitharako tes-
timoniajea sinhetsi izan baita) egun hartan:

11 Kausa hunegatik ere othoitz egiten dugu
bethiere zuengatik, zuek bokationearen digne

gure lainkoak egin zaitzatenzat, eta konpli dezan bere ontasunaren plazer on guzia, eta fedearen obra botheretsuki:

12 Glorifika dadinzat Iesus Krist gure launaren izena zuetan, eta zuek hartan, gure lainkoaren eta Iesus Krist launaren gratiaren araura.

KAP. II.

2 Perseberatzeko fedean. 4 Kristen adbenimenduaren signoak. 5 Antekristen deskriptionea. 10 Inkredulen kondemnationea. 13 Thesalonizeanoak salbamendutara elejitu.

1 Othoitz egiten drauzuegu bada, anaieak, Iesus Krist gure launaren adbenimenduz eta gure harenganako biltzarrez.

2 Etzaitetzen bertan adimenduz erauz, eta etzaitetzen trubla ez espirituz, ez hitzez, ez epistolaz, guzaz eskribatua baliz bezala, Kristen eguna bertan baliz bezala.

3 Nehork etzaitzate la seduzi ezeinere maneraz: ezen *egun hura ezta ethorriren* non reboltamendua lehen ethor eztadin, eta manifesta eztaadin bekatutako gizona, perditionezko semea,

4 Zein oposatzen eta alxatzen baita Iainko erraiten eta adoratzeko den guziren kontra: hala non hura Iainko bezala, Iainkoaren tenplean iartzen baita, bere burua erakusten duela ezen Iainko dela.

5 Ala etzarete orhoit ezen oraino zuekin ninezela, gauza hauk erraiten nerauzkizuela?

6 Eta orain zerk dadukan badakizue, hura manifesta dadinzat bere denboran.

7 Ezen ia egiten da inikitatezko misterioa: solament orain dadukanak, *edukiren du* ken daiteno artetik.

8 Eta orduan manifestaturen da gaixtoa, zein launak deseginen baitu bere ahoko Espirituaz, eta bere adbenimenduko klaretateaz abolituren.

9 *Hura diot* zeinen ethortea baita Satanen operationearen araura, puisanza guzirekin eta signorekin eta gezurrezko mirakulurekin:

10 Eta inikitatezko abusione guzirekin galtzen diradenetan, zeren egiaren amorioa ezpaitute rezebitu ukan salbatu izateko.

11 Eta halakotz igorriren draue lainkoak abusionezko operationea, gezurra sinhets dezatenzat:

12 Kondemna ditezenzat egia sinhetsi ukan eztuten guziak, baina inikitatean plazer hartu ukan dutenak.

13 Baina guk, launaz onhetsi anaieak, behar drauzkiogu bethi eskerrak eman lainkoari zue-zaz, zeren hatseandanik elejitu baitzaituzte lainkoak salbamendutara Espirituaren sanktifikazio-
nez, eta egiazko fedez:

14 Zeinetara deithu ukan baitzaituzte gure Ebanjelioaz Iesus Krist gure launaren gloriaren akisionetakotz.

15 Halakotz, anaieak, zaudete fermu eta edukazue ikasi duzuen doktrina, bada *gure* hitzez bada epistolaz.

16 Bada Iesus Krist gure laun berak, eta gure lainko eta Aita onhetsi gaituenak, eta eman kon-solatione eternala eta esperanza ona gratiaz,

17 Konsola ditzala zuen bihotzak, eta konfirma zaitzatela hitz eta obra on orotan.

KAP. III.

*1 Othoitz egiteko launaren hitzak
laster dagianzat. 2. Fedea. 6, 10
Trabaillatu nahi ez tiradenez. 8. Paul
langiten ari izan. 14
Exkomunikationea.*

1 Gainerakoaz, anaieak, othoitz egizue guregatik, launaren hitzak laster dagianzat, eta glori-fika dadin zuek baithan ere bezala:

2 Eta gu delibra gaitezen jende desordenatu eta gaixto hautarik: ezen fedea ezta guzien.

3 Baina fidel da launa, zeinek konfirmaturen baitzaituzte eta begiraturen gaixtoaganik.

4 Aseguratzen ere bagara launean zuegaz, ezen denuntiatzen drauzkizuegun gauzak egiten ere badituzuela eta eginen.

5 Bada launak xuxent ditzala zuen bihotzak lainkoaren amoriora, eta Kristen begira egoitera.

6 Anaieak, denuntiatzen drauzuegu halaber Iesus Krist gure launaren izenean, separa zaitezten anaie desordenatuki eta ez gureganik rezebitu duen doktrinaren araura ebilten den orotarik.

7 Ezen zeurok badakizue nola imitatu behar gaituzuen: ezen ezgara desordenatuki maneiatu izan zuen artean.

8 Eta eztugu nehoren ogia dohainik ian: baina traillairekin eta nekerekin gau eta egun langiten ari ginadela, zuetarik nehoren forogu ez ginadenzat.

9 Ez bothere eztugunez, baina gure buruen zuei exenplutan emaitteagatik, imita gaitzazuenzat.

10 Ezen zuekin ginadenean ere haur denuntiatzen gendrazuen, ezen baldin zenbeit traillaillatu nahi ezpada, ian ere eztezan.

11 Ezen enzuten dugu zuen artean badiradela batzu desordenatuki dabiltzanik, deus ari ezti-radelarik, baina kurioski bizi diradelarik.

12 Bada halako diradenei denuntiatzen drauegu, eta othoitz egiten Iesus Krist gure lau-

naz sosegurekin traillaizen ari diradela bere
ogia ian dezaten.

13 Eta zuek, anaieak, etzaitezela enoia ungi
egitez.

14 Eta baldin zenbeitek gure hitza obeditzen
ezpadu, epistolaz hura nota ezazue: eta ezteza-
zuela konbersa harekin, ahalke duenzat:

15 Guziagatik ere etsai bezala eztezazuela
eduki, baina admonesta ezazue anaie anzo.

16 Bada laun bakezkoak bethiere dizuela
bakea manera guzian. launa dela zuekin guzio-
kin.

17 Salutationea, ene Paulen eskuz, baita
seignale *ene* epistola guzietan: hunela eskriba-
tzen dut.

18 Iesus Krist gure launaren gratia *dela* zue-
kin.

Thesalonizeanoetarako bigarrena

Athenestik eskribatua.

S. PAUL APOSTOLUAREN TIMOTHEOGANATKO EPISTOLA LEHENA

KAP. I.

4 Jenealojiak. Kestioneak. Iainkoaren edifikationea. 5 Karitatea. 7 Legeko doktorak. 12 Paulek eskerrak Iainkoari emaiten. 15 Krist zertara ethorri mundura. 19 Fedea. Konzientia ona. 20 Himeneo eta Alexandre Satani liuratu.

1 Paulek, Iainko gure Salbadorearen eta gure esperanza Iesus Krist launaren manamenduz Iesus Kristen Apostolu denak,

2 Timotheo *neure* egiazko semeari fedean, Gratia *dela hirekin*, miserikordia eta bakea Iainko gure Aitaganik, eta Iesus Krist gure launaganik.

3 Othoitz egin drauadan bezala Efesen egon andin, Mazedoniarat ioaiten ninzenean, *egin ezak*, denuntia diezeanzat batzuei eztezaten berzelako doktrinarik irakats.

4 Eta eztitezen beha elhe zarretara eta jenea-lojia fin gabetara, zeinek lehen, kestioneak enjendratzen baitituzte ezen ez lainkoaren edifikatione fedez dena.

5 Bada manamenduaren fina duk karitate bihotz xahutik eta konszientia onetik *dena* eta fikzione gaberiko fedetik.

6 Gauza hautarik batzu erauzirik konbertitu izan dituk elhe banotara:

7 Legeko doktor izan nahi diradelarik eta aditzen eztituztelarik erraiten eta aseguratzen dituzten gauzak.

8 Eta bazeakiagu ezen ona dela Legea, baldin nehork harzaz bidezki usatzen badu.

9 Dakigularik ezen Legea eztela iustoagatik iarri, baina gaixtoakgatik eta desobedientakgatik: lainkoaren menospreziazaleakgatik eta bizitze gaixtotakoakgatik, relijionerik eztadukate-nakgatik eta profanoakgatik, aita-amen hiltzaleakgatik eta gizerhaileakgatik:

10 Paillartakgatik, bugreakgatik, giza ebats-leakgatik, gezurtiakgatik, desperiuruakgatik, eta baldin deus berzerik doktrina sanoaren kontratakorik bada.

11 *Zein doktrina baita* lainko benedikatuaren Ebanjelio gloriatzko niri kargutan eman izan zaitadanaren araura.

12 Eta esker emaiten diarokat ni fortifikatunauenari, *zein baita*, Iesus Krist gure launa: zeinek fidel estimatu ukan bainau, *bere* zerbitzuan ezarririk:

13 *Ni*, lehen baininzen blasfemazale eta persekutazale eta iniuriazale: baina miserikordia egin izan ziaitadak: ezen ignorantiaz egin ukan diat, fedea eznuelarik.

14 Baina garaithu izan duk gure launaren gratia federekin eta dilektionerekin *zein baita* Iesus Kristean.

15 *Haur duk* hitz segura, eta rezebi dezagun guziz dignea, ezen Iesus Krist ethorri izan dela mundura bekatoren salbatzera, zeinetariko lehen bainaiz ni.

16 Baina hunegatik miserikordia egin izan ziaitadak, nitan lehenik erakuts lezanzat Iesus

Kristek klementia guzia, exenplu ninzenzat hura baithan bizitze eternalerakotzat sinhetsiren zutenen.

17 Bada Rege eternalari, inmortalari, inbisi-bleari, lainko zuhur berari *dela* ohore eta gloria sekula sekulakotz. Amen.

18 Manamendu haur gomendatzen drauat, Timotheo *ene* seme, aitzinetik hizaz izan diraden profetien araura, hezaz bataillatze onez batailla adinzat:

19 Dualarik fede eta konszientia ona: hura batzuk iraitzirik, fedez galtze egin ukan die.

20 Zeinetarik baitirade Himeneo eta Alexander: hek Satani eman dirautzat, ikas dezatenkat *gehiagorik* ez blasfematzen.

KAP. II.

1 Gizon guziakgatik othoitz egiteko.

4 lainkoak nahi guziak salba ditezen

5. Ararteakoa Krist. 7. Paul Jentilen

Apostolu eta Doktor. 8 Leku

guzietan othoitz egiteko. 9 Emazten

abillamenduaz eta eginbideaz. 15
Nola hek salbatzen.

1 Exhortatzen aut bada gauza guzien aitzine-
tik egin ditezten rekestak, othoitzeak, suplikatio-
neak, *eta* remerziamenduak gizon guziakgatik:

2 Regeakgatik, *eta* dignitatetan diraden
guziakgatik, bizitze bakezkoa *eta* emea eraman
dezagunzat pietate *eta* honestate guzirekin.

3 Ezen haur gauza ona *eta* atseginetakoa duk
lainko gure Salbadorearen aitzinean,

4 Zeinek nahi baitu jende guziak salba dite-
zen, *eta* egiaren ezagutzera ethor ditezten.

5 Ezen lainko bat *duk* *eta* ararteko bat lainko-
aren *eta* gizonen artean, Iesus Krist gizon *eginik*:

6 Zeinek bere burua eman ukan baitu ranzoi-
netan guziakgatik: testimoniaje izateko bere
denboran:

7 Zeinen publikazale *eta* Apostolu ni ordena-
tu izan bainaiz (egia zioat Kristean etzioat gezu-
rrik) Jentilen Doktor federekin *eta* egiarekin.

8 Nahi diat bada gizonek othoitz dagiten leku
orotan eskuak xahurik altxatzen dituztelarik hira
eta kestione gaberik.

9 Halaber emazteak ere abillamendu honestez ahalkerekin eta modestiarekin akotra ditezzen, ez bilo izurtzez, edo urhez edo perlaz, edo abillamendu soberanziatakoz:

10 Baina (emazte lainkoaren zerbitzatzez profesione egiten dutenei dagoten bezala) obra onez.

11 Emazteak silentiorekin ikas beza suiektio-ne guzirekin.

12 Ezen emazteari irakastea, eztiarokat permititzen, ezeta gizonaren gainean autoritatez usatzea, baina den silentiotan.

13 Ezen Adam lehenik formatu izan duk, gero Eba.

14 Eta Adam eztuk seduzitu izan, baina emaztea reduzitu izanik, transgresionearen kausa izan duk.

15 Baina salbatua izanen duk haur enjendratzez, baldin egon badadi fedean, eta dilektio-nean, eta sanktifikationean modestiarekin.

KAP. III.

1 Ipizpikuen ofizioa. 11 Haien emaztez. 12 diakrez. 15 lainkoaren etxea. 16 Pietatearen misterioa.

1 Hitz segura *duk haur*, Baldin nehork, Ipizpiku izatera desiratzen badu, obra exzellent bat desiratzen dik:

2 Baina behar dik Ipizpikuak izan irreprehensible, emazte bakoitz baten senhar, bijilant, sobre, modest, estranjeren ostatur gogotik rezebizale, irakasteko karazko:

3 Ez mahatsarnoari emana, ez ukaldikari, ez irabaizte deshonestaren guthizioso, baina benigno, ez reboltari, ez abaritoso:

4 Bere familia honestki gobernatzen duelarik, bere haurrak suiektionetan edukiten dituelarik honestate guzirekin:

5 (Ezen baldin edozeinek bere etxearen gobernatzen ezpadaki, nolatan lainkoaren Elizari gogoia emanen drauka?)

6 Ez aprendiz berri, urguluz hanturik deabruaren kondemnationera eror eztadinzat.

7 Behar dik are hark duen testimoniaje ona kanpokoetarik ere: reprotxutara eta deabruen lazora eror eztadinzat.

8 Diakrek halaber *behar die izan* honest, ez bi hitzetako, ez mahatsarno anhitzari emanak, ez irabaizte deshonestaren guthizioso:

9 Edukiten dutelarik fedearen misterioa konszientia xahurekin.

10 Eta hek ere foroga ditezen lehen, gero zerbitza dezaten, baldin reprotxu gabetako badi-rade.

11 Halaber haien emazteak *diraden* honest, ez gaitzerraile, *baina* sobre, leial gauza guzietan.

12 Diakreak diraden emazte bederaren senhar, gobernatzan dituztelarik honestki *bere* haurrak eta bere etxeak.

13 Ezen ungi zerbitzatu dukeitenek grado ona akisitzen die beretzat, eta libertate handia lesus Krist baithango fedean.

14 Gauza hauk eskribatzen drauzkiat, esperanza dudalarik ezen sarri hiregana ethorriren naizela:

15 Eta baldin beranzen badut, dakianzat nola behar den lainkoaren etxean konbersatu, zein

baita lainko biziaren Eliza, egiaren habea eta sustengua.

16 Eta duda gabe, handi duk pietatearen misterioa: ezen lainkoa manifestatu izan dela haragian, iustificatu dela Espirituan, ikusi izan dela Aingeruez, predikatu izan zaiela Jentilei, sinhetsi izan dela munduan, goiti rezebitu izan dela gloriara.

KAP. IIII.

1 Azken denborez. 2 Deabruen doktrina. 3 Ezkonzaren eta bianden defendatzeaz. 7 Elhe profanoei ihes egiteko. 8 Pietatea. 10 Esperanza lainkoa baithan.

1 Bada Espirituak klaroki erraiten dik ezen azkeneko denboretan reboltaturen diradela batzu fedetik espiritu abusariei behatzen zaiztela, eta deabruen doktrinei,

2 Hipokrisiaz gezurrak irakasten dituztenen doktrinei, zeinen konszientia kauterizatua baita,

3 Defendatzen dutelarik ezkonzea *eta bian-*
detarik iatea, zein lainkoak kreatu baitrauzte
usatzeko remerziamendurekin fidelei, eta egia
ezagutu ukan dutenei.

4 Ezen lainkoaren kreatura guzia *duk* on, eta
deus ez irazitako, baldin remerziamendurekin
rezebitzen bada.

5 Ezen *kreatura* sanktifikatu dihoak lainko-
aren hitzaz eta orationez.

6 Gauza hauk baldin proposa badietzek
anaiei Iesus Kristen ministre on aizate, hazi iza-
nik fedearen, eta dilijentki iarreiki atzaion doktri-
na onaren hitzetan.

7 Baina irazkik fable profanoak eta atsoenak
irudiak: eta exerzi ezak eure burua pietatean.

8 Ezen exerzitatione korporala probetxu guti-
tako *duk*: baina pietatea gauza guzietara probe-
txutako *duk*, presenteko bizitzearen eta ethorte-
koaren promesa duelarik.

9 Hitz segura *duk* haur, eta guziz rezebi dadin
digne.

10 Ezen halakotz travaillatzen ere gaituk, eta
eskarniatzen, zeren esperanza baitugu lainko

bizian, zein baita gizon guzien Salbadore, *eta* prinzipalki fidelen.

11 Gauza hauk denuntiaitzak *eta* irakats.

12 Nehork hire gaztetasuna eztezala menosprezia: baina aizen fidelen exenplu hitzean, konbersionean, karitatean, espirituan, fedean, puritatean.

13 Ethor nadin artean, akio irakurtzeari, exhortatzeari, doktrinari.

14 Eztezala menosprezia hitan den dohaina, zein eman izan baitzaik profetiaz, Anzianoen konpainiaren eskuen inpositionearekin.

15 Gauza hauk pratikaitzak, *eta* aizen gauza hautan atento: hire abanzamendua ageri denzat guzien artean.

16 Gogoia emok eure buruari *eta* doktrinari: persebera ezak gauza hautan: ezen baldin haur badagik, eure burua duk salbaturen *eta* hiri behatzen zaizkianak.

KAP. V.

*1 Batbedera bere kalitatearen
araura reprehenditzeko eta
admonestatzeko. 3 Alhargunez. 17
Anzianoez. 24 Bekatuez. 25 Oبرا
onez.*

1 Gizon anzianoa eztezala dorpeki reprehendi, baina ezhorta ezak aita bezala: gazteak, anaieak bezala:

2 Emazte zaharrak, amak bezala: gazteak, arrebak bezala kastitate guzirekin.

3 *Emazte* alhargunak ohoraitzak, egiazki alhargun diradenak.

4 Baina baldin zenbeit *emazte* alhargunek haurrik, edo ilbasorik badu, ikas bezate lehenik *beren* etxe propria pietateren erakusten, eta burhasoetara ordainaren rendatzen: ezen haur *duk* on eta plazent lainkoaren aitzinean.

5 Bada egiazki alhargun denak eta bera azkendu izan denak esperanza dik lainkoa baithan, eta perseberatzen dik othoitzetan eta orationetan gau eta egun.

6 Baina delizioski bizi dena, bizirik hila duk. 7 Gauza hauk bada denuntiaitzak, irreprensible diradenzat.

8 Eta baldin edozeinek berez eta prinzipalki etxekoez artharik ezpadu, fedez ukatu dik, eta duk infidela baino gaixtoago.

9 *Emazte* alharguna hauta bedi ez hirurogei urthe baino guttiagotakoa, senhar baten emazte izana:

10 Obra onetan testimoniaje duena: eia haurrak hazi dituenz, eia estranjerak alojeatu dituenz, eia sainduen oinak ikuzi dituenz, eia aflijituak aiutatu dituenz, eia obra on orori ardurarri iarreiki izan zaionez.

11 Baina alhargun gazteagoak refusaitzak: ezen brida largatu dutenean Kristen kontra, ezkondu nahi dituk:

12 Bere kondemnationea dutelarik, zeren bere lehen fedea iraitzi ukan baitute.

13 Eta gehiago, alfer egoile ere diradelarik ikasten die ethez etxe ebiltan: eta eztituk solament alfer egoile, baina edasle ere, eta kurioso, behar ez tiraden gauzez dadasatelarik.

14 Nahi diat bada gazteak ezkon ditezen, haur dagiten, etxea goberna dezaten, okasionerik batre etsaiari eztemoten gaizki erraiteko.

15 Ezen ia baztu itzuli izan dituk Satanen ondoan.

16 Baldin edozein fidelek edo zenbeit fidelsak baditu *emazte* alhargunak, aiuta bitza hek, eta eztadin karga Eliza, egiazki alhargun diradenen asko denzat.

17 Ungi presiditzen duten Anzianoak ohore doblaren digne estima bitez: prinzipalki hitzean eta doktrinan travaillatzen diradenak.

18 Ezen Eskripturak erraiten dik, Idi bihitzen ari denari eztraukak ahoa lothuren. Eta, Langilea bere sariaren digne da.

19 Anzianoaren kontra akusationerik ezteza-la rezebi biga edo hirur testimonioren azpian bai-zen.

20 Bekatu egiten dutenak, guzien aitzinean reprehenditzak, berzeak ere baldur diradenzat.

21 Rekeritzen aut lainkoaren eta Iesus Krist launaren eta Aingeru elejituen aitzinean, gauza hauk begira ditzan, bata berzeari preferitu gabe: deus egiten eztuala alde batera makurtuz.

22 Eskuak ez tietzoala ne hori bertan ezar, eta eztezala komunika berzeren bekatuetan, eure burua pur begirezak.

23 Hemendik harat eztezala urik edan, baina mahatsarno guti batez usat ezak, eure estomakagatik, eta eure eritasun usuakgatik.

24 Gizon batzuen bekatuak aitzinean ageri dituk, eta aitzinean dihoazak kondemnationetan: eta batzuei ondoan ere iarreikiten ziaiztek.

25 Halaber obra onak ere aitzinean ageri dituk: eta berzelako diraden *obrak*, ezin estal daitezkek.

KAP. VI.

*1 Zerbitzariez. 4. 20 Kestione banoei
ihes egiteko. 6 Pietatea. 8
Kontentamendua. 10 Abaritia. 11
Perseberanza. 13 Kristen
adbenimendua. 17 Munduko
abratsak.*

1 Uztarriren azpian diraden zerbitzari guziek, bere nabusiak ohore ororen digne estima bitzate: lainkoaren izena eta doktrina blasfema ezitzezenat.

2 Eta nabusi fidelak dituztenek, eztitzatela menosprezia zeren anaie diraden: baina aitzitik zerbitza bitzate, zeren fidelak eta onhetsiak diraden, ontasunean partizipant diradelarik. Gauza hauk irakats itzak eta exhorta.

3 Baldin nehork berze doktrinarik irakasten badu, eta konsentitzen ezpadu Iesus Krist gure launaren hitz sanoetan, eta pietatearen arauetzko doktrinan,

4 *Hura* hantua duk, deus eztakialarik, baina erhotzen delarik kestionen eta hitzezko kontentionen ondoan, hetarik sortzen dituk inbidia, gudua, iniuriak, suspizione gaixtoak,

5 Gizon adimenduz korrumpituen eta egiatik pribatu diradenen disputatione banoak, estimatzen dutelarik pietatea irabazte dela: retiradi halakoetarik.

6 Segur, irabazte handia duk pietatea kontentamendurekin.

7 Ezen deus eztiagu ekarri mundura: segura duk eraman ere deus ezin dezakegula.

8 Baina bitanza dugularik eta zertzaz estal ahal gaitezen, hezaz kontent izanen gaituk.

9 Ezen abrastu nahi diradenak, erorten dituk tentationetara eta lazora, eta anhitz desir erhortara eta kaltetakotara, zeinek hundatzen baitituzte gizonak destruktionetara eta perditionetara.

10 Ezen gaitz guzien erroa abaritia duk, zein desiratzen dutelarik batzu erauzi izan baitirade fedetik, eta bere buruak anhitz doloretan nahaspilatu ukan baitituzte.

11 Baina hik, lainkoaren gizona, gauza haei ihes egiek, eta iarreiki akie iustitiari, pietateari, fedeari, karitateari, patientiari, emetasunari.

12 Fedearen konbat ona konbati ezak, lot akio bizitze eternalari, zeinetera deithu ere baitaiz, eta konfesione ona anhitz testimonioren aitzinean egin ukan duk.

13 Denuntiatzen drauat gauza guziak bibifikatzen dituen lainkoaren, eta Iesus Kristen aitzinean, zeinek testifikatu ukan baitu Pontio Pilate-ren azpian konfesione ona:

14 Manamendu haur begira dezan makula eta reprotxu gabe, Iesus Krist gure launaren adbenimendurano:

15 Zein erakutsiren baitu bere denboran Prinze benedikatuak eta bakoitzak, regen Regeak eta iaunen launak:

16 Zeinek berak baitu inmortalitate, nehor hurbil ezin daiten argian habitatzen delarik, zein ezpaitu gizonek batek ere ikusi, ez ezin ikus baitezake: zeini ohore eta indar sekulakotz. Amen.

17 Mundu hunetan abrats diradenei denuntia izek, eztiraden arrogant, eta eztezaten *bere esperanza* ezar fermutate gabeko abrastasunetan, baina lainko bizian, zeinek emaiten baitrauzkigu abundoski gauza guziak, usatzeko:

18 Ungi egin dezaten, obra onez abrats diraden, emaille on *eta* konpункkide onetako *diraden*.

19 Thesaurizatzen dutelarik beretako fundament on bat ethorkizunera, ardiets dezatenzat bizitze eternala.

20 O Timotheo, deposita begirezak, ihes egi ten drauealarik oihu banoei *eta* profanoei, *eta*

falsuki hala deitzen den eszientiako kontradiktio-
nei:

21 Zein eszientiaz profesione egiten zutelarik
batzu fedetik erauzi izan baitirade. Gratia *dela*
hirekin. Amen.

*Timotheoganatko lehena eskribatu
Laodizeatik, zein baita Frijia Pakatia-
noko hiri prinzipala.*

S. PAUL APOSTOLUAREN TIMOTHEOGANATKO EPISTOLA BIGARRENA

KAP. I.

1 Paulek Iesus Kristen Apostolu lainkoaren borondatez *denak*, Iesus Krist baithan den bizitzearen promesaren araura,

2 Timotheo *neure* seme maiteari: gratia, misericordia *eta* bakea Iainko Aitaganik, eta Iesus Krist gure launaganik.

3 Esker diarokat Iainkoari, zein zerbitzatzen baitut *neure* aitzinekoakdanik konszientia purekin, nola pausu gabe baitut memorio hizaz *neure* orationetan gau eta egun:

4 Hire ikusteko desir dudalarik, hire nigar xortez orhoitik, bozkarioz bethe nadinzat:

5 Orhoitzen naizela hitan den fikzione gabeko fedeaz, zein lehenik habitatu izan baita hire amaso Loida baithan, eta hire ama Eunika bait-

han: eta segur nauk ezen hi baithan ere *habita-
tzen dela*.

6 Kausa hunegatik abisatzen aut bitz dezan
ene eskuen inposicionez hitan den lainkoaren
dohaina.

7 Ezen eztiraukuk eman lainkoak iziapeneta-
ko espiritu bat, baina berthutetako, eta dilektio-
netako, eta adimendu sanotako *espiritu bat*.

8 Ezaizela bada ahalke gure launaren testi-
moniajeaz, ezeta nizaz, bainaiz haren presoner:
baina aizen partizipant Ebanjelioko afliktionetan,
lainkoaren puisanzaren araura:

9 Zeinek salbatu ukan baikaitu, eta *bere*
bokatione sainduaz deithu: ez gure obren kau-
saz, baina bere ordenanzaren eta denbora eter-
nalak baino lehen Iesus Krist baithan eman izan
zaikun gratiaren kausaz.

10 Eta manifestatu izan duk orain Iesus Krist
gure Salbadorearen ethorteaz, zeinek herioa ere
desegin ukan baitu, eta argira eman bizitzea eta
inmortalitatea Ebanjelioaz:

11 Zeinen publikazale ni ordenatu izan bai-
naiz, eta Apostolu eta Jentilen doktor.

12 Halakotz gauza hauk ere sufritzen zitiat: guziagatik ere ez nauk ahalke: ezen bazeakiat nor sinhetsi dudan: eta segur nauk ezen hura botheretsu dela ene depositaren begiratzeko egun hartarano.

13 Edukak eneganik enzun ukan dituan hitz sanoen egiazko forma, federekin eta Iesus Krist baithan den karitaterekin.

14 Deposit ona begirezak Espiritu sainduaz, zein habitatzen baita gutan.

15 Badakik haur, ezen aldaratu izan diradela eneganik Asian diraden guziak: zeinetarik baitirade Fijello eta Hermojenes.

16 Iaunak miseriakordia dagiola Onesiforen etxeari: ezen anhitzetan rekreatu ukan nik, eta ene kadenaz eztuk ahalketu izan:

17 Aitzitik Roman izan denean guziz afektio-natuki bilhatu ukan niauk eta eriden:

18 Demola hari *othoi* iaunak eriden dezan miseriakordia iauna baithan egun hartan: eta zenbat anhitz zerbitzu Efesen ere egin drautan, hik guziz ungi dakik.

KAP. II.

3 Kristen jendarmes. 9 Paulen estekaduren kausa. 16 Oihu banoei ihes egiteko. 20 Unzi ohoretakoak eta desohoretakoak. 23 Kestione erhoei ihes egiteko. 24 Ministrearen eginbidea.

1 Hi bada, ene seme, fortifikadi Iesus Krist baithan den gratian:

2 Eta anhitz testimonioren artean eneganik enzun dituan gauzak, irakats ietzek jende fidelei, zein berzen ere irakasteko sufizient izanen baitirade.

3 Hik bada trabailu sufri ezak Iesus Kristen jendarmes on anzo.

4 Eztuk nehor gerlan enpatxatzen bizitzeko egitekoez, gerla egiteko hautatu duenaren gogarako denzat.

5 Halaber baldin nehork konbatik egiten badu, eztuk koroatzen baldin bidezki konbatitu ezpada.

6 Laborariak trabaillatu behar dik frukturik rezebi dezan baino lehen.

7 Konsideraitzak erraiten ditudan gauzak: launak bada eman diezala adimendu gauza guzietan.

8 Aizen orhoit Iesus Krist resuszitatu izan dela hiletarik, Dabid-en hazitik *zelarik*, ene Ebanjelioaren araura:

9 Zeinetan, gaizkigile anzo, aflijitzen bainaiz estekailluetarano: baina launaren hitza eztuk estekatua.

10 Halakotz gauza guziak sufritzen zitiat elejituakgatik, hek ere obteni dezatenzat Iesus Krist *launean* den salbamendua, gloria eternalarekin.

11 Hitz segura *duk* haur: Ezen baldin harekin hil izan bagara, harekin biziko ere garela.

12 Baldin sufritzen badugu, regnaturen ere harekin diagu: baldin ukatzen badugu, hark ere gu ukaturen gaitik:

13 Baldin desleial bagara, hura *ordea* fidel diagok, uka bere burua ezin zezakek.

14 Arranberritzak gauza hauk, protestatzen dualarik launaren aitzinean eztezan nehork hitzez iharduki, *baita* probetxurik batre ekarten

eztuen gauza, *aitzitik* enzuleak erautzen ditue-
na.

15 Dilijentadi eure buruaren lainkoari aproba-
tu presentatzera, konfusione gabeko obrero,
artezki egiaren hitza ebakiten duala.

16 Oihu banoak eta profanoak reprimitzak:
zeren inpietate handiagotara abanzaturen baiti-
rade.

17 Eta haien hitza gangrena bezala alhako
duk, zeinetarik baitirade Himeneo eta Fileto:

18 Zein egiatik erauzi izan baitirade, erraiten
dutela ia resurrektionea egin izan dela, eta erau-
tzen die edozein batzuen fedea.

19 Alabaina lainkoaren fundamenta fermu
diagok, zigulu haur duelarik, Ezagutzen ditu lau-
nak zein diraden harenak: eta, Retira bedi inius-
titiatarik Kristen izena inbokatzen duen guzia.

20 Eta etxe handi batetan eztuk solament
urhezko eta zilharrezko unzirik, baina zurezkorik
eta lurrezkorik ere: eta batzu ohoretakotz, eta
berzeak desohoretakotz.

21 Bada nehork baldin bere burua hautarik
xahu badeza, izanen duk unzi ohoretakotz sank-

tifikatua, eta launaren usejetakotz karazkoa, eta launaren obra on orotara apaindua.

22 Gaztetasunaren guthiziei ere ihes egiek, eta iarreiki akio iustitiari, fedeari, karitateari, bakeari bihotz purez launa inbokatzen dutene-kin.

23 Eta kestione erhoak, eta instruktione gabetakoak iraizkik, dakialarik ezen hek gudu enjendratzen dutela.

24 Bada launaren zerbitzariak ezтик reboltari izan behar, baina eme guzietara, irakasteko karazko, patientki gaixtoak suportatzen dituelarik:

25 Emetasunekin irakasten dituelarik opinio-
ne kontrariotako diradenak: eia noizpait lainkoak urrikimendu eman diezakeenez egiaren ezagutze-ko,

26 Eta emenda ditezen, haren borondatearen egiteko, *itzuririk* deabruaren lazotik, zeinez hatzamanak baitaude.

KAP. III.

1 Azken denborez. 10 Paulen persekutionea. 14 Doktrinan perseberatzeko. 16 Eskripturez den probetxua.

1 Haur bada iakik, ezen azken egunetan izanen dela denbora perilosik.

2 Ezen izanen dituk gizonak bere buruentar, abaritoso, bantari, urgulutsu, disfamazale, aita-ametara desobedient, ingrat, lainkoaren menos-preziazale,

3 Afektione natural gabe, leialtate gabe, kalumniazale, moderamendu gabe, krudel, on diradenen gaitzetsle,

4 Traidore, temerario, hantuak, lainkoari baino boluptatei hobe erizle.

5 Pietatearen irudia dutelarik, baina haren berthutea ukatzen dutelarik: aparta adi bada hetarik.

6 Ezen hautarik dituk etxetara forratzen diradenak, eta gathibu dadutzatenak emazteto bekatuz kargatuak, guthizia dibersez erabiliak,

7 Bethiere ikasten dutelarik, eta behinere egiaren ezagutzera hel ezin daitezkelarik.

8 Eta hala nola lanesek eta lanbresek resistitu baitraukate Moisesi: halaber hauk ere egiari resistitzen diraukoe: gizon adimenduz korrupituak, fedez den bezenbatean reprobok.

9 Baina ez tie gehiagorik abanzaturen: ezen hauen erhogoa klaro izanen duk guzietara, haie-na ere izan den bezala.

10 Baina hik konplituki ezagutu ukan duk ene doktrina, gobernu, intentionea, fedea, emetatsuna, karitatea, patientia:

11 Persekutioneak, afliktioneak, zein niri heldu izan baitzaizkit Antiokian, Ikonian, Listrian: nolako persekutioneak sufritu ukan ditudan *zioat*, eta guzietarik idoki ukan niauk launak.

12 Eta lainkoaren beldurrean Iesus Kristean bizi nahi diraden guziek ere persekutione sufrituren die.

13 Baina gizon gaixtoak eta abusariak abanzaturen ditut gaizkiagora seduzitzen dutelarik eta seduzituak diradelarik.

14 Bada hi egon adi ikasi dituan eta eman izan zaizkian gauzetan, dakialarik norenganik ikasi ukan dituan:

15 Eta nola haurra-danik letra sainduak eza-gutu ukan dituan, zeinek zuhur ahal baihezakete salbamendutakotz Iesus Krist baithan den fedeaz.

16 Eskriptura guzia *duk* dibinoki inspiratua, eta probetxable doktrinatzeko, redargitzeko, korrejitzeko eta instruitzeko iustitiatan:

17 Konpli dadinzat lainkoaren gizona, obra on orotara konplituki instruiturik.

KAP. IIII.

1, 5 Paulek exhortatze, 6 Bere herioa aitzinetik erraiten. 8 Fidelen iustitiazko koroa. 16 Paul guziez abandonatu, 17 Eta lainkoaz aiutatu.

1 Rekeritzen aut bada nik lainkoaren eta Iesus Krist launaren aitzinean, zeinek bere adbe-

nimenduan eta resuman biziak eta hilak iujeatur-
ren baititu:

2 Predika ezak hitza, persebera ezak orduz
eta orduz lekora: ari adi redargitzen, mehatxa-
tzen, exhortatzen, emetasun eta doktrina guzire-
kin:

3 Ezen izanen duk denbora bat ezpaitute
doktrina sanoa sufrituren: baina beharri killiko-
rrak dituztelarik, berek bere desiren araezko
irakastunak bilduren baitituzte:

4 Eta egiatik beharriak itzuliren baitituzte,
eta fabletara emanak izanen baitirade.

5 Baina hik beilla ezak gauza guzietan, sufri-
tzak afliktioneak, egin ezak ebanjelistaren obra,
egik hire administrationea aprobatua den.

6 Ezen ni ia sakrifikatu izatera nihoak, eta
ene partitzeko denbora hurbil duk.

7 Konbat ona konbatitu diat, *neure* kursua
akabatu diat, fedea begiratu diat.

8 Gainerakoaz, begiratu diagotak iustitiazko
koroa, zein rendaturen baitraut launak egun har-
tan, iuje iusto hark: eta ez niri solament, baina
haren adbenimendua desiratu ukan dukeiten
guziei ere *bai*.

9 Dilijentadi enegana ethortera sarri.

10 Ezen Demasek abandonatu niauk, presenteko sekula haur onhetsirik, eta Thesalonizerat ioan izan duk: Kreszens Galatiarat, Tite Dalmatiarat.

11 Luk bera duk enekin. Mark harturik erekarak eurekin: ezen probetxable diat zerbitzukotz.

12 Tikike ere igorri diat Efesera.

13 Troasen Karpo baithan utzi ukan dudan mantelina, ethor adinean ekarrak eurekin, eta liburuak, *baina* prinzipalki pergamioak.

14 Alexandre kobre-arotzak anhitz gaitz egin dirautak: launak bere eginen araez renda diezola.

15 Harenganik hi ere begiradi: ezen hagitz gure hitzei resistitu ukan dirauek.

16 Nehor etziaitadak asistitu, neure lehen defensan, aitzitik guziek abandonatu ukan niaue: inputa eztakiela.

17 Baina launa asistitu izan ziaitadak, eta fortifikatu ukan niauk, nizaz predikationea konplidadinzat, eta hura enzun dezatenzat Jentil guziek: eta delibratu izan nauk lehoinaren ahotik.

18 Eta delibraturen niauk launak obra gaixto guzitarik eta enparaturen bere resuma zelestialeko: hari *dela* gloria sekula sekulakotz. Amen.

19 Salutaitzak Priska eta Akila, eta Onesifororen familia.

20 Erasto gelditu izan duk Korinthen: eta Trofimo Mileten utzi diat eria.

21 Dilijentadi negu aitzinean ethortera. Salutatzen aute Ebulok eta Pudensek eta Linok eta Klaudiak eta anaie guziek.

22 Iesus Krist launa *dela* hire espirituarekin. *Haren gratia dela* zuekin. Amen.

Timotheo Efeseko Elizako lehen Ipizpiku ordenatuaganatko bigarrena Romarik eskribatu, Paul berriz Zesar Neronen aitzinean presentatu izan zenean.

S. PAUL APOSTOLUAREN TITEGANATKO EPISTOLA

KAP. I.

1 Egiaren ezagutzea. 2 Esperanza. 3 Predikationea. 5 Tite zergatik Kretan utzi. 7 Ipizpiku egiazkoaren ofizioa.

10 Zirkonzisionekoez. 11

Irabaziagatik, behar eztiraden gauzak irakasten dituztenez. 15

Deus ez satsurik xahuendako. 16.

Obrak gaberiko fedea.

1 Paulek lainkoaren zerbitzari eta Iesus Kristen Apostolu *denak*, lainkoaren elejituen fedearen eta pietatearen tenorez den egiaren araura,

2 Bizitze eternalaren esperanzakotzat, zein prometatu ukan baitu Iainko gezurti eztenak denbora eternalen altzinetik, eta manifestatu bere denboretan:

3 *Diot* bere hitza, lainko *gure* Salbadorearen ordenanzaren tenorez niri kargutan eman izan zaitadan predikationeaz: Tite *neure* seme egiazkoari *gure artean* komun den fedearen arauetz.

4 *Gratia dela hirekin* miseriordia eta bakea lainko Aitaganik, eta Iesus Krist laun *gure* Salbadoreaganik.

5 Kausa hunegatik utzi ukan aut Kretan goitiko diraden gauzen korrijitzen kontinua dezanzat, eta ordena ditzan hiriz hiri Anzianoak, nik ordenatu drauadan bezala:

6 Baldin zenbeit bada irreprensiblerik emazte bakoitz baten senhar, haur fidelak dituelarik, ez disolutionez akusatuarik, edo ranjea ezin daitezkenak.

7 Ezen Ipizpikuak behar dik izan irreprensibile, lainkoaren etxearen gobernari anzo, ezten porfidioso, ez kolerik, ez mahatsarnoari emana, ez ukaldikari, ez irabazte deshonestaren guthizioso:

8 Baina estranjeren ostatus gogotik rezebizabile, onen onhetsle, zuhur, iusto, saildu, moderatu:

9 Instruktionearen araura den hitz fidelaren edukile, doktrina sanoz exhorta ere ahal dezanat, eta kontrastatzen diradenak benzut.

10 Ezen baduk anhitz ranjea ezin daitenik eta banoki minzazalerik, eta adimenduen seduzizal-erik, prinzipalki Zirkonzisionetik diradenak: haei ahoa bozatu behar ziaiek:

11 Hek etxeak osoki erautzen zitie, behar eztiraden gauzak irakasten dituztela irabazte deshonestaren kausaz.

12 Erran dik haien arteko zenbeitek, haien profeta propioak, Kretatarrak bethi gezurti, bestia gaitzak, sabel nagiak.

13 Testimoniaje haur egiazkoa duk: kausa hunegatik reprehenditzak hek biziki, fedean sano diradenzat:

14 Behatzen eztutelarik luduen fabletara, eta egiatik aldaratzen diraden gizonen manuetara.

15 Gauza guziak xahuendako xahu dituk baina satsuendako eta infidelendako eztuk deus, xahurik, aitzitik dituk satsu haien adimendua eta konszientia.

16 Profesione egiten die lainkoa ezagutzen dutela, baina obraz ukatzen die, abominable

diradelarik eta desobedient eta obra on orotara reprobatuak.

KAP. II.

*2 Zaharrez. 6 Gaztez. 7 Exenplu
ona. 9 Zerbitzariez. 11 lainkoaren
gratiaz. 13 Esperanzaz. 14 Zer
finetara Iesus Kristek guregatik bere
burua eman.*

1 Baina hik denuntiaitzak doktrina sainduari dagozkan gauzak.

2 Gizon zaharrak sobre diraden, graue, moderatu, sano fedean, karitatean eta patientian.

3 Emazte zaharrak halaber *diraden* saindutasunari dagokan kontinentiatako, ez gaitzerraile, ez mahatsarno anhitzari emanak, gauza honesten irakatsle:

4 Emazte gazteak instrui ditzatenzat moderatu izaten, bere senharren onhetsten, bere haurren maite ukaiten:

5 Zuhur izaten, xahu, etxean egoile, on, bere senharren suiet: lainkoaren hitza blasfema ezta-dinzat.

6 Gizon gazteak halaber exhortaitzak moderatu diraden.

7 Gauza guzietan erakusten dualarik eure burua obra onen exenplu, doktrinan *erakusten dualarik* integritate, grabitate,

8 Hitza sano, *eta* kondemna ezin daiten *beza-lako*: kontrastatzen dena konfundi dadinzat, zue-zaz gaizkirik zer erran ez ukanez.

9 Zerbitzariak bere nabusien suiet diraden, gauza guzietan haien gogara egiten dutelarik, kontradizale eztiradelarik:

10 Deus apartatzen eztutelarik, baina leialtate on guzia erakusten dutelarik, gauza guzietan lainko gure Salbadorearen doktrina orna dezentzat.

11 Ezen agertu izan ziaiek gizon guziei lainkoaren gratia salbagarria.

12 Irakasten gaituela, infidelitateaz eta munduko desirez renuntiatu, sobreki, iustoki, eta relijioski bizi garen presenteko sekula hunetan:

13 Dohain onetako esperanzaren eta gure lainko handi eta Salbadore Iesus Kristen gloriatako adbenimendu exzellentaren begira gaudelarik:

14 Zeinek eman baitu bere burua guregatik, gu redemi genzanzat inikitate guzitarik, eta purifika genzanzat bere populu partikular, obra onetara afektionatu izateko.

15 Gauza hauk denuntiaitzak, eta ari adi exhortatzen eta reprehenditzen autoritate guzirekin: nehork ezezala hi menosprezia.

KAP. III.

2 Prinziei eta gehientasuna dutenei obedientia ekarteko. 4, 5 lainkoaren miseriakordiaz salbatzen. 7. Gratiaz iustificatzen. 9 Kestionei ihes egiteko. 10 Heretiko denaz. 14 Obra onez.

1 Admonestaitzak Prinzipaltasunen eta Potestaten suiet diraden, Gobernadoreak obedi

ditzaten, obra on orotara prest diraden: 2 Nehoraz gaizkirik ezterraten, diraden gudu gabe, moderatu, emetasun guzia erakusten dutelarik gizon guzietara.

3 Ezen gu ere noizpait adimendu gabe gentuan, desobedient, abusatuak, anhitz moldetako desirak eta boluptateak zerbitzitzen gentuela, malitiatan eta inbidiatan bizi ginela, gaitzetsiak ginela: *eta* elkarri gaitz erizle.

4 Baina Iainko gure Salbadorearen benignitatea eta gizonetarako amorioa agertu izan denean,

5 Ez egin ukan ditugun obra iustoez, baina bere miseriak salbatu ukan gaitik rejeneratonezko garbitzez, eta Espiritu sainduazko arraberritez:

6 Zein eraitsi ukan baitu gutara abundoski Iesus Krist gure Salbadoreaz:

7 Haren gratiaz iustifikaturik heredero egin gentezenzat bizitze eternalerako esperanzaren araura.

8 Hitz segura *duk* haur, eta gauza hauk nahi diat afirma ditzan, artha dutenzat obra onen

entretenezera lainkoa sinhetsi dutenek: huna, gizonen on eta probetxutako *diraden* gauzak.

9 Baina kestione erhoak eta jenealojiak eta kontentioneak eta Legezko ihardukiteak enpatxaitzak: ezen probetxu gabetako dituk eta bano.

10 Gizon heretikoa behingo eta berrizko adbertimenduaren ondoan iraitzak:

11 Dakialarik ezen erauzia dela halakoa eta huts egiten duela, bere buru beraz kondemnatua delarik.

12 Igor dezadanean Artemas hiregana edo Tikike, dilijenta albeitendi enegana ethortera Nikapolisera: ezen han neguaren iragaitera deliberatu diat.

13 Zeno Legeko doktora eta Apollo dilijentki gidaitzak, deusen faltarik eztuten.

14 Bada ikas bezate gurek ere obre onetan enplegatzen nezesario diraden gauzetako, fruktu gabe eztiradenzat.

15 Salututzen aute enekin diraden guziek. Salutaitzak fedez on darizkutenak. *Iainkoaren gratia dela* zuekin guziokin, Amen.

*Tite Kretakoen Elizako lehen Ipizpiku
ordenatuagana Nikapolis Mazedonia-
kotik eskribatua.*

S. PAUL APOSTOLUAREN FILEMONGANATKO EPISTOLA

KAP. I.

1, 9 Paul presoner. 5 Filemonen fedea eta karitatea. 10 Onesimo Filemonen zerbitzaria Paulen moienez Kristinotu. 24 paulen aiutariak.

1 Paulek Iesus Kristen presonerak, eta anaie Timotheok, Filemon gure maiteari eta lagunari,

2 Eta Afia maiteari, eta Arkipe gure soldadokideari, eta hire etheko Elizari:

3 Gratia *dela* zuekin eta bakea gure lainko Aitaganik eta Iesus Krist launaganik.

4 Eskerrak emaiten dirautzat neure lainkoari, bethiere hizaz memorio egiten dudalarik neure orationetan,

5 Zeren baitantzut hire karitatea, eta fedea zein baituk Iesus launa baithara, eta saildu guziak baithara:

6 Hire fedearen komunikationea botheretsu denzat, ezagut dadinzat zuetan den on guzia Iesus Kristez.

7 Ezen bozkario handi diagu eta konsolatione hire karitateaz, zeren sailduen halsarrak hizaz rekreatu izen baitirade, anaie.

8 Halakotz, Iesus Kristean libertate handi badut ere hiri eginbide duanaren manatzeko:

9 *Badere* karitateagatik lehen othoitzez niagok, hunelako banaiz ere, bainaiz Paul anzianoa, eta orain presoner ere Iesus Kristegatik.

10 Othoitzen aut *bada* neure seme Onesimo estekailuetan enjendratu ukan dudanagatik:

11 Berze orduz ez hire probetxutako izan denagatik, baina orain hire eta ene probetxutako denagatik: zein igorten baitrauat.

12 Hik bada hori, erran nahi baita, ene halsarrak, rezebi ezak.

13 Zein nik nahi bainuen neurekin eduki, hire orde zerbitza nenzanzat Ebanjelioaren estekailuetan:

14 Baina hire borondatea gabe eztiat deus egin nahi ukan bortxaz bezala ezlizenzat hire ungia, baina gogo onezko.

15 Ezen agian halakotz hireganik partitu izan duk apur batetakotz, bethierekotz rezebi ezan-zat:

16 Ez engoitik esklabotan, baina esklabo baino konditione hobeagotan, anaie maitetan, prinzipalki ene: zenbatez bada gehiago eure, eta haragiaren araez eta launaren araez?

17 Bada baldin lagunetan banadukak, rezebi ezak ni bezala.

18 Eta baldin zerbait bidegabe egin badrauk, edo zor bahau, hura niri inputa iezadak.

19 Nik Paulek eskribatu diat *haur* neure eskuz, nik pagaturen diat: eztarradan ezen are eure burua ere niri zor drautadala.

20 Bai, anaie, plazer *haur* nik hireganik rezebi dezadan launean, rekreatzak ene halsarrak launean.

21 Hire obedientiaz segur izanez eskribatu drauat, dakidalarik ezen erraiten dudan baino gehiago ere eginen duala.

22 Baina are bertarik ostatu apain iezadak:
ezen esperanza diat zuen orationez emanen
natzaizuela:

23 Epafras ene presoner kideak Iesus Kris-
tean,

24 Mark-ek, Aristarkek, Demasek eta Luk-ek,
ene aiutariak, salututzen aute.

25 Iesus Krist gure launaren gratia *dela* zuen
espirituarekin. Amen.

*Filemongana Romarik Onesimo
esklaboarekin eskribatua.*

APOSTOLUAREN HEBRAIKOETARATKO EPISTOLA.

KAP. I.

*2 Iainkoa minzatu izan zaiku bere
Semeaz, zein baita haren herederoa,
3 Eta imajina, haren eskuinean
iarria, 4 Exzellentago Aingeruak
baino, zein baitirade Iainkoaren
ministre. 8 Krist Iainko.*

1 Anhitzetan eta anhitz maneraz lehenago Iainkoa minzaturik *gure* Aitei Profetez, azkeneko egun hautan minzatu izan zaiku *guri bere* Semeaz,

2 Zein ezarri ukan baitu gauza guzien heredero, zeinez mundua ere egin ukan baitu:

3 Zein, gloriaren klaretate eta haren personaren imajina propria delarik eta sustengatzen dituelarik gauza guziak bere hitz botheretsuaz,

gure bekatuen purgationea bere buruaz eginik, iarri izan baita haren maiestatearen eskuinean leku goretan.

4 Zenbatenaz Aingeruak baino exzellentago egin izan baita, hanbatenaz hek baino izen exzellentago bat akisitu ukan du hetarik abantail.

5 Ezen egundano Aigeruetarik zeini erran ukan drauka, Ene Semea aiz hi, nik egun enjendratu aut hi? Eta berriz, Ni izanen natzaio hari Aita, eta hura izanen zait niri Seme?

6 Eta berriz *bere* Seme lehen iaioa mundura aitzinaratzen duenean, dio Eta adora bezate hura lainkoaren Aingeru guziek.

7 Eta Aingeruez den bezenbatean dio, zeinek bere Aingeruak egiten baititu haize, eta bere ministreak, su flama:

8 Baina Semeaz den bezenbatean *dio* O lainkoa, hire thronoa sekula sekulakotz duk: eta hire Resumako eszeptrea *duk*, zuzenezko eszeptrea.

9 On eritzi draukak iustitiari, eta gaitz eritzi draukak inikitateari: halakotz unktatu ukan au lainkoak, eure lainkoak bozkariotako olio, eure lagunetarik abantail.

10 Eta, Hik hatseandanik, launa, lurra fundatu ukan duk, eta zeruak hire eskuen obrak dituk:

11 Hek deseginen dituk, bailla hi permanent aiz: eta guziak beztidura bezala zaharturen dituk:

12 Eta estalki baten anzora *hik* dituk hek biribilgaturen, eta muthatzeko diaudek: baina hi hura bera aiz, eta hire urtheak eztituk faltaturen.

13 Eta Aingeruetarik zeini erran ukan drauka egundano, lar adi ene eskuinean, ezar ditzakedano hire etsaiak hire oinen eskabella?

14 Eztirade guziak espiritu zerbitzu egiten dutenak, zerbitzuko igorten diradelarik salbamenduko heredero izanen diradenakgatik.

KAP. II.

1 Ebanjelioaren obedientian egoitea.

9 Iesus herioko pasioneagatik gloriatz

koroatu. 12 Kristen anaie. 14

Herioaren iaurgoa. 17 Krist

sakrifikadore subirano.

1 Halakotz behar dugu hobeki gogoan eman ezun ukan ditugun gauzetara, iragaitera utzi ez titzagunzat.

2 Ezen baldin Aingeruez erran izan zen hitza fermu izan bada, eta transgresione eta desobediencia guziak rekonpensa bidezkoa rezebitu ukan badu,

3 Nolatan gu itzuriren gizaizkio baldin hain salbamendu handiaz konturik ezpadagigu? zein lehenik launaz beraz deklaritzen hasirik, hura ezun ukan zutenez konfirmatu ikan baitzaiku:

4 Testimoniaje rendatzen zerauelarik lainkoak signoz eta mirakuluz, eta berthute dibersez, eta Espiritu sainduaren distributionez bere borondatearen araura,

5 Ezen ezto Aingeruen suiet egin ethorteko den mundua, zeinez minzo baikara:

6 Eta testifikatu ukan du nonbeit zenbeitek, dioela, Zer da gizona, harzaz orhoit aizen? edo zer da gizonaren semea, hura bisita dezan?

7 Egin ukan duk hura xipixiango Aingeruak baino: gloriatz eta ohoretz koroatu ukan duk hura, eta ordenatu ukan duk hura eure eskuezko obren gaineko.

8 Gauza guziak suiet egin ukan dituk haren oinen azpiko. Eta gauza guziak haren suiet egin dituenaz geroz, eztu deus utzi haren suiet ezten: baina eztakusagu oraino gauza guziak haren suiet diradela.

9 Baina Aingeruak baino xipixiago egin izan zena, ikusten dugu zein baita Iesus, *bere* herioko pasioneagatik, gloriáz eta ohorez koroatu izan dela: lainkoaren gratiaz guziakgatik herioa dasta lezanzat.

10 Ezen konbenable zen hark, zeinegatik *baitirade* gauza hauk guziok, eta zeinez *baitirade* gauza hauk guziok, anhitz haur gloriara eramaiten zuenaz geroz, haien salbamenduaren Printzea afliktionez konsekra lezan.

11 Ezen bai sanktifikazalea, bai sanktifikatzen diradenak, batganik dirade guziak, kausa hunegatik ezta ahalke haien anaie deitzera,

12 Dioela, Denuntiaturen diraueat hire izena neure anaiei, *eta* Elizaren erdian laudaturen aut hi.

13 Eta berriz, Ni fida izanen naiz hartan. Eta berriz, Huna ni eta lainkoak niri eman drauzkidan haurrak.

14 Zeren bada haurrak partizipant baitirade haragian eta odolean, hura ere halaber partizipant egin izan da hetan beretan, herioaz desegin lezantat herioaren iaurgoa zuena, zein baita deabrua:

15 Eta delibra litzantat herioaren beldurrez, bere bizi guzian esklabo izatera sует ziraden guziak.

16 Ezen segur eztitu Aingeruak hartu ukan, baina Abrahamen hazia hartu ukan du.

17 Halakotz behar zen gauza guzietan anaieak irudi lizen, miserikordioso lizentat eta Sakrifikadore subirano fidel lainkoa baitharatko gauzetan, populuaren bekatuen pagamendua-
ren egiteko.

18 Ezen sufritu ukan duenaren gainean tentatu izanik tentatzen diradenen ere aiutatzeke botheretsu da.

KAP. III.

*1 Krist Apostolu eta Sakrifikadore. 2
Fidel lainkoagana. 5 Moisez. 6*

*lainkoaren etxea. 7. Kristen fedean
egoitea. 19 Inkredulitatea.*

1 Bada, anaie sainduak, bokatione zelestia-
len partizipant zaretenak, konsidera ezazue gure
konfesionekeo Apostolua eta Sakrifikadore subira-
noa, *zein baita*, Iesus Krist,

2 Ordenatu ukan duenarenzat fidel dena:
Moises ere haren etxe guzian bezala.

3 Ezen *hanbatez* haur Moises baino gloria
handiagoren digne estimatu izan da, zenbatez
ohore handiagotan baita etxea edifizatu duena,
ezen ez etxea bera.

4 Ezen etxe oro norbeitez edifikatzen da: eta
gauza hauk guziak edifikatu dituena, lainkoa da.

5 Eta segur Moises fidel izan da haren etxe
guzian zerbitzari bezala, gero erraiteko ziraden
gauzen testifikatzeko:

6 Baina Krist seme bezala da bere etxean:
zeinen etxea baikara gu, baldin konfidanza eta
gloriatzen garen esperanza finerano fermu eduki
baditzagu.

7 Halakotz Espiritu sainduak erraiten duen bezala, Egun baldin haren boza enzun badezazue

8 Eztitzazuela gogor zuen bihotzak, tharritamenduan bezala, tentationeko egunean desertuan:

9 Non tentatu ukan bainaute zuen aitek, experimentatu ukan bainaute- eta ikusi baitituzte ene obrak berrogei urthez.

10 Halakotz enoiatu izan naiz jeneratione hunez, eta erran ukan dut, Bethiere huts egiten dute bihotzez, eta eztituzte ezagutu ukan ene bideak.

11 Bada zin egin ukan dut neure hiran, Baldin *sekulan* sarthuren badirade ene reposean

12 Gogoauzue, anaieak, zuetarik zenbeitetan ezten bihotz sinheste gabetako gaixtoa, lainko biziaganik reboltagarri:

13 Baina exhorta ezazue elkar egun oroz, egungo egun deitzen deno, zuetarik nehor gogor eztadinzat bekatuaren enganioz.

14 Ezen Kristen partizipant egin izan gara, bai baldin hatse hura, zeinez sustengatzen baikara, fermu eduki badezagu finerano.

15 Erraiten deno, Egun baldin haren boza enzun badezazue, eztitzazuela gogor zuen bihotzak tharritamenduan bezala.

16 Ezen batzuk enzun ukan zutenean, tharrita zezaten *launa*: baina ez Egiptetik Moisesez ilki izan ziraden guziek.

27 Baina zeinez enoiatu izan da berrogei urt-hez? ala ez bekatu egin ukan zutenez, zeinen gorputzak erori izan baitirade desertuan?

18 Eta zeini zin egin zerauen, haren reposean etziradela sarthuren, obeditu ukan etzutenei bai-zen?

19 Eta badakusagu inkredulitatearen kausaz ezin sarthu izan diradela.

KAP. IIII.

1 Hitza fede gabe alfer. 4, 9 Sabbath egiazkoa. 6 Inkredulitatea. 12 Hitzaren efikazioa. 14 Sakrifikadore handia, Iesus. 16 Gratiatzko thronoa.

1 Garen bada beldur gertha eztadin zuetarik zenbeit haren reposean sartzeko promesa utzi-rik, pribatua eriden eztadin.

2 Ezen guri ere ebanjelizatu izan zaiku haei ere bezala: baina etzaie deus probetxatu predikationeko hitza, zeren ezpaitzen fedearekin nahasia enzun ukan zutenetan.

3 Ezen sarthuren gara reposean gu, sinhetsi ukan dugunok, erran duen bezala, Bada zin egin ukan dut neure hiran, Baldin *sekulan* sarthuren badirade ene reposean: munduaren hatsean danik *haren* obrak akabatu izan baziraden ere.

4 Ezen nonbeit hunela erran ukan du zazpi- garren egunaz den bezenbatean, Eta reposa zedin lainkoa zazpigarren egunean bere obra guzietarik.

5 Eta hunetan berriz, Baldin *sekulan* sarthu- ren badirade ene reposean.

6 Ikusirik bada oraino batzu sartzen diradela hartan, eta lehenik denuntiatu izan zauenak ezti- radela sarthu izan *bere* inkredulitatearen kau- saz:

7 Berriz determinatzen du egun iakin bat, Egun, Dabid baithan erraiten duela hanbat den-

boraren buruan (nola erran izan baita) Egun baldin haren boza enzun badezazue, eztitzazuela gogor zuen bihotzak.

8 Ezen baldin losuek haei eman balaraue reposik, etzatekeen gehiagorik berze egunez minzatu.

9 Halakotz, gelditzen zaio sabbathgoa bat lainkoaren populuari.

10 Ezen lainkoaren reposean sarthu izan dena, reposatu izan da hura ere bere obretarik, lainkoa beretarik bezala.

11 Dagigun bada dilijentia repos hartan sartzera: nehor eztadin eror desobedientiazko exenplu berera.

12 Ezen lainkoaren hitza bizi *da* eta efikazio-tako, eta den ezpata bi ahotakorik baino penetrantago: eta ardiesten du arimaren eta espi-rituaren, baieta iunkturen eta hunen dibisionera-
no: eta da pensamenduen eta bihotzeko inten-
tionen iuje

13 Eta ezta kreaturarik batre haren aitzinean ageri eztenik: aitzitik gauza guziak dirade billu-
ziak eta irekiak haren begietan zeinekin baitugu
gure egitekoa.

14 Bada sakrifikadore subiranoa eta handia Iesus, Iainkoaren Semea, zeruak penetratu dituen dugunaz geroz, dadukagun konfesione *haur*.

15 Ezen eztugu Sakrifikadore subirano gure infirmitatez konpasionerik ezin dukeen bat, baina *dugu* manera berean gauza guzietan tentatu izan dena, salbu bekatuan.

16 Goazen bada segurantzarekin gratiazko thronora, miseriakordia ardiets eta gratia eriden dezagunzat aiuta behar denborako.

KAP. V.

1 Sakrifikadore handiaren ofizioa. 5 Krist Sakrifikadore, 9 Eta obeditzen dutenen salbamendu eternal. 12 Iainkoaren hitzaren elementak. 13 Eznea, eta bianda.

1 Ezen Sakrifikadore subirano guzia gizonetarik hartzen da, eta gizonengatik ordenatzen da

lainkoa baitharako gauzetan: ofrenda ditzanzat donoak eta sakrifizioak bekatuakgatik:

2 Zeinek behar den bezenbat ignorantez eta falta egiten dutenez pietate ahal baituke: zeren bera ere infirmitatez inguratua baita:

3 Eta *infirmitate* haren kausaz behar baitu nola populuagatik, hala bere buruagatik-erk ofrendatu *sakrifizio* bekatuakgatik.

4 Eta nehork eztrauka emaiten bere buruari ohore haur, baina lainkoaz deitzen denak, Aaron bezala.

5 Hala Kristek ere eztrauka bere buruari ohore haur eman ukan Sakrifikadore subirano egin ledin, baina hari erran ukan draukanak, Ene Semea aiz hi, nik egun enjendratu aut hi.

6 Berzetan ere erraiten duen bezala, Hi aiz Sakrifikadore eternalki Melkisedek-en fazoinera.

7 Zeinek bere haragiaren egunetan heriotarik enpara ahal zezakenari othoitzak eta suplikatio-neak oihu handirekin eta nigar urirekin ofrendatu zerautzanean, eta beldur zenetik enzun izan zenean,

8 Seme bazen ere ikasi ukan baitu obedientia sufritu ukan dituen gauzetarik:

9 Eta sanktifikatu izanik, egin izan zaie hura obeditzen duten guziei salbamendu eternalaren author:

10 Iainkoaz izendatu izanik Sakrifikadore subirano Melkisedek-en fazoinera.

11 Zeinez propos luzea baitugu erraiteko, eta deklaratzeko difizila: zeren enzutera nagitu izan baitzarete:

12 Zereneta denboraren arauetz irakatsle izan behar zinetelarik, berriz irakatsi behar baitzarete zer diraden Iainkoaren hitzetako lehen hatseko elementak: eta halako egin zarete non ezne behar baituzue, eta ez bianda zerraturik.

13 Ezen nork ere eznez usatzen baitu, hark iustitiazko hitzaren experientiarik ezto: ezen haur da:

14 Baina handituentzat da bianda zerratua, *hala nola* kostumatu izanez sensuak exerzituak dituztenen onaren eta gaitzaren beretzeko.

KAP. VI.

1 Perfektionetara abanzatzea. 7 Lur fruktu ekarten duena eta eztuena. 10 Fidelen obrak. 16 luramenduaren fina. 18 Esperanza fermua. 20 Krist Sakrifikadore subirano.

1 Bada, utzirik Kristez hatse emaiten duen hitza, abanza gaitezen perfektionera: berriz ezarten eztugularik obra hiletariko penitentia-
ren, eta lainkoa baitharako fedearen fundamen-
ta,

2 Baptismoen doktrinazko eta eskuen inposi-
tionezko, eta hilen resurrektionezko, eta iudizio
eternalezko *fundamenta*.

3 Eta haur eginen dugu baldin behinzat per-
meti badeza lainkoak.

4 Ezen ezta posible behin illuminatu izan
diradenak, eta dohain zelestiala dastatu ukan
dutenak, eta Espiritu sainduan partizipant egin
izan diradenak,

5 Eta dastatu ukan dutenak lainkoaren hitz
ona, eta ethorteko den sekularen berthuteak:

6 Baldin eror baditez, berriz arranberri ditzeten penitentiatar, ikusirik ezen lainkoaren Semea berriz kruzifikatzen dutela hetan den bezenbategan, eta eskarniotara emaiten dutela.

7 Ezen gainera ethorten zaion uria maiz edaten duen lurrak eta lanzen dutenei belhar sasoinzkorik ekarten drauenak, rezebitzen du benedikzione lainkoaganik:

8 Baina elhorri eta kardu ekarten duena, reprobata *da* eta maledikzionearen hurbil, zeinen fina erre izatera *beha baitago*.

9 Baina segurutzen gara zuegaz den bezenbategan, maiteak, gauza hobez, eta salbameduarekin egitenago denez: hunela minzo bagara ere.

10 Ezen lainkoa ezta iniusto, ahanz dakion zuen obra eta haren izenera erakutsi ukan duzuen traillaizko karitatea, sainduei aiuta egin eta egiten drauezuen bezenbategan.

11 Baina desir dugu zuetarik batbederak artha bera erakutsi dezan, esperanzaren seguranza bethekotzat finerano:

12 Notxalent egin etzaiteztenzat, baina fedez eta patientiaz promesak heretatzen dituztenen imitazale.

13 Ezen Abrahami promes egin zeraukanean lainkoak, zeren berze handiagoz ezin iura baitze-zakeen, iura zezan berarraz,

14 Ziola, Segur benedikatuz benedikaturen aut, eta multiplikatzuz multiplikaturen aut.

15 Eta hala patientki igurikirik rezebitu ukan du promesa.

16 Ezen gizonak berak baino handiagoz iurazten dute. eta konfirmationetako iuramendua, diferentia guziaren finetan edukiten dute.

17 Gauza hunetan lainkoak abundoskiago promeseko herederoei bere konseilluaren ferme-tate mutha ezin daitekena erakutsi nahiz, iuramenduz seguratu ukan du:

18 Bi gauza mutha ezin daitezkenez (zeinetan imposible baita lainkoak gezurrik erran duen) konsolatione segura dugunzat, rekursa dugunok proposatu izan zaikun esperanzaren ukaitera:

19 Zein baitadukagu arimaren angura segur bat eta fermu bat bezala, eta bela barnean diradenetarano sartzen den bat *bezala*.

20 Non Iesus aitzindari guregatik sarthu izan baita Melkisedek-en fazoinera Sakrifikadore subirano eternalki egin izanik.

KAP. VII.

1, 15 Melkisedek Kristen figura. 11, 18 sakrifikadoregoa Lebitikoa abolitu eta kendu. 21 Krist Sakrifikadore eta allianzaren fiadore. 24, 28 Eta ararteko fidelen salbatzeko.

1 Ezen Melkisedek haur zen Salengo rege, lainko subiranoaren Sakrifikadore, zein bidera ilki izan baitzaion Abrahami haur regen desegite-tik itzultzen zela, eta hark zezan benedikata:

2 Hari hamarrena ere gauza guzietarik partiziezon Abrahamek: eta lehenik *hura* da interpretatzen iustitiazko rege, eta gero Salengo rege ere: zein erran nahi baita bakezko rege:

3 Aita gabe, ama gabe, leinu gabe: eztuelarik egunen hatserik, ez bizitzearen finik: baina lain-

koaren Semearen irudiko egin izanik, dago Sakrifikadore eternalki.

4 Kontsidera ezazue bada zein handi egin izan den haur, zeini Abraham patriarkak despuilletako hamarrena ere eman baitzieron.

5 Eta Lebiren semetarik diradenek Sakrifikadoregoa dutelarik, manua badute populuaganik hamarrenaren hartzeko Legearen arauetz, erran nahi baita, bere anaietarik, Abrahamen gerrunzetik ilki izan badirade ere.

6 Baina hek *diraden* leinu bereko kontatzen eztenak, hamarrena hartu ukan du Abrahamganik, eta promesak zituena benedikatu ukan du.

7 Eta kontradiktionerik batre gabe xipien dena gehien denaz benedikatzen da.

8 Eta hemen hiltzen diraden gizonek hamarrenak hartzen dituzte: baina han bizi dela testimoniaje duenak *hartzen ditu*.

9 Eta (hunela minza nadin) Abrahamtan detxematu izan da Lebi bera ere, zeinek hamarrenak hartzen ohi baititu.

10 Ezen hura oraino *bere* aitaren gerrunzean zen, Melkisedek Abrahami bidera ilki izan zaionean.

11 Beraz baldin perfektionea Sakrifikadoregoa Lebitikoan izan baliz (ezen populuak Legea haren azpian rezebitu ukan du) zer behar zen goitirik berze Sakrifikadore bat Melkisedek-en fazoinera altxa ledin, eta ezladin Aaronen fazoinera erran?

12 Ezen Sakrifikadoregoaren ofizioa kanbiatu izanik, nezesario da Legearen kanbioa ere egin dadin.

13 Ezen gauza hauk norzaz erraiten baitirade *hura* berze leinuri apartenitzen zaio, zein *leinutarik* nehork ezpaitu aldarea zerbitzatu ukan.

14 Ezen klaro da Iudaren leinutik ilki izan dela gure launa, zein leinutan ezpaitu Moisesek Sakrifikadoregoaz deus erran.

15 Eta are *haur da* klaroago, zeren Melkisedek-en fazoinera ilkiten baita berze Sakrifikadore bat:

16 Zein ezpaita *Sakrifikadore* egin izan manamendu karnaleko Legearen araez, baina bizitze inmortalako puisanzaren araez.

17 Ezen testifikatzen du hunela, Hi *aiz* Sakrifikadore eternalki Melkisedek-en fazoinera.

18 Ezen aitzineko manamendua abolitzen da bere debilitateagatik eta probetxu gabeagatik.

19 Ezen eztu deus perfektionetara eraman ukan Legeak: baina *izan da esperanza* hobeagoren preparazione bat zeinez hurbiltzen baikara lainkoagana.

20 Eta iuramendu gabe *izan* ezten bezenbategan (ezen berzeak iuramendu gabe Sakrifikadore egin izan dirade.

21 Baina haur iuramendurekin, hari erran ukan draukanaz, luratu ukan dik launak, eta etziaiok doluturen, Hi *aiz* Sakrifikadore eternalki Melkisedek-en fazoinera)

22 Hanbatenaz allianza hobeagoren fiadore egin izan da Iesus.

23 Eta Sakrifikadoren den bezenbategan, anhitz egin izan dirade, zeren herioaz enpatxatzen baitziraden egoitera.

24 Baina hunek, zeren eternalki egoiten baita, Sakrifikadoregoa perpetual bat du.

25 Eta halakotz salba ere perfektoki ahal ditzake, harzaz lainkoagana hurbiltzen diradenak, bethi bizi delarik hekgatik ararteko izateko.

26 Ezen beharra genduen halako Sakrifikadore subirano bat genduen, saindua, inozenta, makularik gabea, bekatoretarik separatua, zeruak baino gorago altxatua:

27 Zeinek ezluen beharrik egun oroz, berze Sakrifikadore subiranoek bezala, lehenik bere bekatuakgatik sakrifiziorik ofrendatu, gero populuarenakgatik: ezen *haur* behingoaz egin ukan du bere burua ofrendaturik.

28 Ezen Legeak Sakrifikadore subirano ordenatzen ditu gizon infirmoak: baina iuramenduko hitz Legearen ondokoak, *ordenatzen du* Seme eternalki sanktifikatua.

KAP. VIII.

1 Krist Sakrifikadore subirano, 6 Ararteko. 8 Allianza berria. 10 Lege bihotzetan eskribatua. 12 Bekatuak edeki. 13 Allianza zaharra abolitu.

1 Bada erraiten ditugun gauzen somarioa *haur da*, Halako sakrifikadore subirano bat dugu-

la, zein iarria baita *lainkoaren* maiestateko thro-noaren eskuinean, zeruetan:

2 Sanktuarioko ministre eta egiazko Tabernakleko, zein finkatu baitu launak, eta ez gizonak.

3 Ezen Sakrifikadore subirano guzia donoen eta sakrifizioen ofrendatzeko ordenatzen da: bada, nezesario da hunek ere duen zerbait zer ofrenda.

4 Ezen baldin lurrean baliz, Sakrifikadore ere ezlizateke, Legearen arauetz donoak ofrendatzen dituzten Sakrifikadoreak irauten lukeiteno.

5 Zeinek gauza zelestialen patroina eta itzala zerbitzatzan baitute, Moisesi dibinoki ihardetsi izan zaion bezala Tabernaklea akabatu behar zuenean, Bada ikusak (dio) egin ditzan gauza guziak mendian erakutsi izan zaian patroinaren araura.

6 Baina orain *gure Sakrifikadore subiranoak* ministerio exzellentagoa obtenitu ukan du, zen-batenaz Allianza hobeago baten ararteko baita, zein promes hobeagoen gainean ordenatu izan baita.

7 Ezen baldin lehen hura deusen falta izan ezpaliz, bigarrenari etzaikeon bilhatu lekurik.

8 Ezen hek reprehenditzen dituelarik, dioste, Huna, ethorri dirade egunak, dio launak, konplituren baitut Allianza berri bat Israeleko etxearen gainean eta ludako etxearen gainean.

9 Ez haien aitekin egin ukan nuen Allianzaren araura, haien eskua hartu nuen egunean Egipteko lurretik idoki nitzanzat, zeren ezpaitirade hek ene Allianza egon, eta nik menospreziatu ukan ditut hek, dio launak.

10 Ezen haur da egun haien ondoan Israeleko etxearekin eginen dudan Allianza, dio launak, Ezarriren ditut neure Legeak haien adimenduan, eta haien bihotzean ditut eskribaturen: eta izanen naiz haien lainko, eta hek izanen dirade ene populu.

11 Eta eztu irakatsiren batbederak bere hurkoa, ez batbederak bere anaiea, dioela, Ezagut ezak launa: ezen ezaguturen naute xipienetik haien arteko handieneranoko guziek.

12 Ezen amatigatua izanen naiz haien inikitateara eta haien bekatuetara, eta eznaiz gehiagorik orhoit izanen haien inikitatez.

13 Berri bat erraiten duenean, zahartzen du lehena: eta zahartzen eta anzianotzen dena abolitu izateari hurbil dagoka.

KAP. IX.

1 Bi Tabernakle. 9 Legeko sakrifizioak denboratako. 12 Krist leku sainduetan behin sarthu. 14 Haren odolak xahutzen. 15 Krist Allianza berriaren arartekoa. 24 Hark launaren aitzinean guregatik konparitzen. 26 Krist behin ofrendatu.

1 Beraz bazituen lehen *Allianzak* ere zerbitzu dibinoaren ordenanzak, eta sanktuario munda-noa.

2 Ezen Tabernaklea edifikatu izan da, *diot*, lehena zeinetan *baitziraden* kandelera, eta mahaina, eta propositioneko ogiak, zein deitzen baita *Leku* sainduak.

3 Eta bigarren belaren ondoan *zen* Tabernaklea, Sainduen sainduak deitzen dena:

4 Urhezko enzener bat zuelarik, eta Allianzako Arka osoki urhez inguru estalia: zeinetan baitzen urhezko pegar bat, non baitzen Mana, eta Aaronen zihor lilitu izan zena: eta Allianzako Taulak.

5 Eta haren gainean gloriako Kerubinak *ziraden* Propitiatorioari itzal egiten zeraukatela, ezta gauza hauzaz orain partikularki minzatzeko mengoarik.

6 Eta gauza hauk hunela ordenatuak izanik, lehen Tabernaklean bethiere sartzen ziraden Sakrifikadoreak zerbitzuaren kolllplitzeagatik.

7 Baina bigarrenean, urthean behin Sakrifikadore subiranoa bera *sartzen zen*, ez odol gabarik, zein ofrendatzen baitzuen bere buruagatik eta populuaren faltakgatik:

8 Harzaz deklaritzen zuela Espiritu sainduak, oraino etzela ireki sanktuarioko bidea, lehen tabernaklea oraino zutik egoiten zeno, zein *baitzen* denbora present hartako figura:

9 Zeinetan donoak eta sakrifizioak ofrendatzen baitziraden, zerbitzua egiten zuenaren konszientia, ezin sanktifika zezaketelarik.

10 Solament ianharitan, eta edaritan, eta ikutze dibersetan, eta zeremonia karnaletan, haur korreji zaitekeen denborarano ordenatuak:

11 Baina Krist izateko ziraden onen Sakrifikadore subirano ethorririk, Tabernakle handiago eta perfektoago batez, ez eskuz eginaz, erran nahi baita, ez kreatione hunetakoz:

12 Eta ez aker edo aretze odolez, baina *bere* odol propriaz behin sarthu izan da *leku* sainduetan redentione eternala obteniturik.

13 Ezen baldin zezenen eta akerren odolak, eta bigaren hauts barreiatuak, satsuak sanktifikatzen baditu haragiaren puritateaz den bezenbategian:

14 Zenbatez areago Kristen odolak, zeinek Espiritu eternalaz bere burua makularik gabe lainkoari ofrendatu baitrauka, xahuturen du obra hiletarik zuen konszientia lainko biziaren zerbitzatzeko?

15 Eta halakotz da Testamentu berriaren ararteko, herioa artean iarririk, leheneko Testa-

mentuaren azpian ziraden transgresionen redentionetan, deithuek heretaje eternalako promesa rezebi dezatenzat.

16 Ezen testamenturik den lekuan, nezesario da testamentu egilearen herioa den.

17 Ezen testamentua hiletan konfirmatu da, ikusirik ezen oraino eztuela balio testamentu egilea bizi deno.

18 Bada, lehena ere ezta odolik gabe dedikatu izan.

19 Ezen irakurri zerautzanean manamendu guziak Legearen araez Moisesek populu guziari, harturik aretzen eta akerren odola urarekin, eta eskarlatan tintatu ilerekin eta hisoparekin bai liburua bai populu guzia ihizta zitzan:

20 Zioela, Haur da lainkoak zuei ordenatu drauzuen Testamentuko odola.

21 Gero Tabernaklea ere halaber, eta zerbitzuko unzi guziak, odolez ihizta zitzan.

22 Eta kuasi gauza guziak Legearen araez odolez purifikatzen dirade, eta odol isurtze gabe barkamendurik ezta egiten.

23 Behar izan da beraz zeruetan diraden gauzen figurak, hunelako gauza hauzaz purifika lite-

zen, baina zelestial berak *purifika ditezen* hauk diraden baino sakrifizio hobez.

24 Ezen Iesus ezta *leku* saindu eskuz eginetan sarthu, zein baitziraden egiazkoei ihardesten zerauezen figurak: baina zeruan berean, orain lainkoaren begitharte aitzinean guregatik konparitzeko.

25 Baina ez anhitzetan bere burua ofrenda dezantat, Sakrifikadore subiranoa *leku* sainduetan urthe guziaz berzeren odolekin sartzen zen bezala.

26 (Berzela sufritu behar ukan zukeen anhitzetan munduaren fundacioneaz geroztik) baina orain behin sekulen konsumationean, bekatuaren destruktioetan, bere buruazko sakrifizioaz konparitu izan da.

27 Eta hala nola ordenatu baitzaie gizonei behin hiltzera, eta gero iujemendua:

28 Halaber Krist ere behin ofrendatu izanik anhitzen bekatuak aboli litzantat, berrizko aldian bekatu gabe agerturen zaie haren begira daudenei salbamendutakotz.

KAP. X.

1 Legeak ez sanktifikatzen. 6 Iainkoa zeren eskez egon. 10 Sanktifikatzea. 12 Krist Iainkoaren eskuinean. 14 Oblatione bakoitz bat. 16 Alianza. 18 Bekatuen barkamendua. 22 Kristgana ioaitea. 23 Esperanzazko konfesioa. 24 Karitatea. 26 Espiritu sainduaren kontra den bekatua. 30 Mendekioa defendatzen. 32 Afliktioak. 36 Patientia. 38 Fedea.

1 Ezen Legeak ethorteko ziraden onen itzala zuelarik, ez gauzen imajina bizia, urthe oroz ardura ofrendatzen zituzten sakrifizio hezaz berez, ethorten ziradenak iagoitik ezin sanktifikatuzakeen.

2 Berzela ala etziratekeen gelditu ofrendatu izatetik, ikusirik ezen sakrifikatzen zutenek behin purifikatu izanik, bekatutako konszientiarik batre gehiagorik etzukeitela ukan?

3 Bada *sakrifizio* hetan bazen urthe oroz bekatuen konmemorazione arranberritu bat.

4 Ezen inposible zen zezenen eta akerren odolaz bekatuen kentzea.

5 Halakotz, munduan sartzean, dio, Sakrifiziorik ez ofrendarik eztuk nahi ukan, baina gorputz bat apropiatu ukan drautak niri.

6 Halaber holokaustak ez oblationea bekatuagatik etzaizkik plazent izan:

7 Orduan erran ukan dut, Huna, ethorten nauk (liburuaren hatsean eskribatua da nizaz) egin dezadan, o Iainkoa hire borondatea:

8 Lehen erran zuenaren gainean. Sakrifiziorik ez ofrendarik, ez holokaustik ez oblationerik bekatuagatik eztuk nahi ukan ez eztituk aprobatu: (zein Legearen arauetz ofrendatzen baitirade) orduan erran ukan du, Huna, ethorten nauk egin dezadan, o Iainkoa, hire borondatea.

9 Kentzen du *beraz* lehena, gerokoa ezar dezanzat.

10 Zein borondatez sanktifikatu izan baikara, Iesus Kristen gorputzaren behingo oblationeaz.

11 Sakrifikadore orok bada asistitzen zuen egun oroz administratzen eta maiz sakrifizio

berak ofrendatzen zituela, zeinek iagoitik bekatuak ezin ken baitzitzakeizten:

12 Baina haur sakrifizio bakoitz bat bekatuakgatik ofrendaturik, eternalki iarria da lainkoaren eskuinean.

13 Goitiko denaren begira dagoelarik, haren etsaiak haren oinen eskabella ezar diteno.

14 Ezen oblatione bakoitz batez konsekratu ukan ditu sekulakotz sanktifikatzen diradenak.

15 Eta testifikatzen drauku Espiritu sainduak berak ere: ezen aitzinetik erran duenaz geroz,

16 Haur da egun haien ondoan hekin eginen dudan allianza, dio launak, Emanen ditut neure Legeak haien bihotzetan, eta haien adimenduetan hek ditut eskribaturen:

17 Eta haien bekatuez eta inikitatez ez naiz gehiagorik orhoit izanen.

18 Bada gauza hauen barkamendua den lekuan, ezta gehiago oblationerik bekatuagatik.

19 Ikusirik bada, anaieak, badugula libertate leku sainduetan sartzeko Iesusen odolaz,

20 Deditatu draukun bide freskoan eta bizian gaindi, belaz, erran nahi baita, bere haragiaz:

21 Eta *badugula* Sakrifikadore handi bat lainkoaren etxearen kargua duenik:

22 Goazen egiazko bihotzekin eta fedezko segurantzarekin, konszientia gaixtotarik bihotzak xahaturik:

23 Eta ikuzirik gorputza ur xahuz, dadukagun *gure* esperanzaren konfesionea bariatu gabe (ezen fidel *da* prometatu duena)

24 Eta gogoia demogun elkarri karitatera eta obra onetara inzitatzeko:

25 Utziten eztugarik *gure* kongregationea, batzuk kostuma duten bezala, baina exhortatzen dugularik *elkar*: eta haur hanbatenaz gehiago zenbatenaz baitakusazue hurbiltzen dela egun hura.

26 Ezen baldin iakiara bekatu badagigu egia-
ren ezagutzea rezebituz geroztik, ezta gehiago sakrifiziorik bekatuakgatik gelditzen:

27 Baina iudizioaren begira egoite terrible bat, eta suaren furia adbersarioak iretsiren dituen bat.

28 Baldin zenbeitek menospreziatu balu Moisesen Legea, miserikordiarik batre gabe, bigen edo hiruren testimoniajetik hiltzen zen.

29 Zenbatez uste duzue tormenta borthitza-
goa merezitu dukeela, lainkoaren Semea oinen
azpian ezarri ukan dukeenak, eta alianzako
odola, zeinez sanktifikatu baitzen, profanotan
estimatu dukeenak: eta gratiazko Espirituari
iniuria egin draukeonak?

30 Ezen badazagugu erran duena, Ene da
mendekatzea, nik rendaturen dut, dio launak.
Eta berriz, launak iujeaturen du bere populua.

31 Gauza horriblea da lainko biziaren eskue-
tara erortea.

32 Orhoit zaitezte aitzineko egunez, zeinetan
illuminatu izan zinetenaz geroztik, afiktionezko
konbat handi sufritu ukan baituzue:

33 Alde batetik guzien monstanzatan eskar-
nioz eta tribulationez ezarri izan zarete: eta
berze aldetik estatu hartan erabilten ziradene-
nen lagun egin izan zaretenean.

34 Ezen ene estekaduretako afliktioean ere
partizipant egin izan zarete, eta zuen onen gal-
tzea bozkariorekin rezebitu ukan duzue: zinaki-
telarik zeurok baithan onhasun hobe bat duzue-
la zeruetan, eta permanent denik.

35 Eztezazuela bada iraitz zuen konfidanza, zeinek baitu rekonpensa handia.

36 Ezen patientia behar duzue, lainkoaren borondatea egin dukezuenean promesa rezebi dezazuenzat.

37 Ezen oraino denbora apurto apurto bat, eta ethorteko dena ethorriren da, eta eztu beranthuren .

38 Eta iustoa fedez biziko da: baina baldin *zenbeit* aparta badadi, eztu ene arimak hartan plazerik hartzen.

39 Baina gu ezgara perditionetara apartatzen garenak, baina fedeari iarreikiten giaizkionak arimaren salbamendutan.

KAP. XI.

2 Fedearen exzellentia eta fruktuak.

6 Fedea gabe ezin izan lainkoaren gogarako. 16 lainkoaren zibitatea.

Promesak Aitetarik ethorri.

1 Bada, fedea da nehor esperanzatan den gauzen fundamenta, eta ikusten ez tiraden gauzak erakusten dituena.

2 Ezen harraz aitzinekoek testimoniaje ukan dute.

3 Fedez aditzen dugu lainkoaren hitzaz mundua egin izan dela: gauza inbisiblen demonstratone egin ledinzat.

4 Abelek fedez Kainek baino sakrifizio exzellentagoa lainkoari ofrendatu ukan drauka: zein *fedez* testimoniaje obtenitu ukan baitu iusto zela, zeren lainkoak haren donoez testifikatzen baitzuen: eta oraino *fedea* harraz hil delarik minzo da.

5 Fedez Henok eraman izan da, herioa ikus ezlezanzat: eta ezta eriden izan, zeren eraman baitzuen lainkoak: ezen eraman zedin baino lehen, testimoniaje ukan zezan lainkoaren gogarako izan zela:

6 Bada imposible da fede gabe *haren* gogarako izatea: ezen lainkoagana ethorten denak, behar da sinhets dezan ezen *lainkoa* badela, eta hura bilhatzen dutenen rekompensazale dela.

7 Fedez Noek, dibinoki abertitu izanik oraino ikusten etziraden gauzez, beldurturik, apresta zezan arka bere familiaren salbatzeko: zein arkaz kondemna baitzezan mundua: eta egin zedin fedearen arauetz den iustitiaren heredero.

8 Fedez Abrahamek deithu zenean obedi zezan *lainkoa*, heretajetan hartu behar zuen lekura ioan ledinzat, eta parti zedin norat ioaiten zen etzakialarik.

9 Fedez egon zedin prometatu izan zaion lurrean berzerenean bezala, tabernakletan egoiten zela Isaak-ekin eta lakob-ekin promes beraren herederokidekin.

10 Ezen zibitate fundament-dunaren begira zegoen zeinen egilea eta fundazalea baita *lainkoa*.

11 Fedez Sarak ere haziaren konzebitzeko indarra rezebi zezan, eta adinetik lekora erdi zedin, zeren estima baitzezan hari promes egin zeraukana fidel zela.

12 Eta halakotz batetarik (etare ia hilaganik) sorthu izan da *jende handi* zeruko izarrak bezala, eta itsas kostako konta ezin daiten sablea bezala.

13 Fedean hauk guziok hil izan dirade promesak rezebitu gabe: baina urrundarik hek ikusirik eta sinhetsirik eta salutaturik, eta aithorturik ezen arrotz eta estranjer ziradela lurrean.

14 Ezen gauza hauk erraiten dituztenek, klaroki erakusten dute ezen *bere* herriaren ondoan dabilzala.

15 Eta segur, baldin harzaz orhoit izan balirade zeinetarik ilki izan baitziraden, itzultzeko denbora bazuten:

16 Baina orain hobeago bat desiratzen dute, erran nahi baita zelestiala: hunegatik lainkoari berari ere etzaio laido haien lainko deitzera, ezen preparatu zerauen zibitate bat.

17 Fedez ofrenda zezan Abrahamek Isaak, enseiatu izan zenean, eta seme bakoitza ofrenda zezan, promesak rezebitu ukan zituenak:

18 (Zeini erran izan baitzaion, Isaaktan deit-huren zaik hazia)

19 Estimaturik ezen lainkoak hiletarik ere resuszita ahal lezakela: nondik are hura konformitatez rekruba baitzezan.

20 Fedez, ethorteko ziraden gauzez benedikazitzan Isaak-ek lakob eta Esau.

21 Fedez, Iakob-ek hiltzean Iosefen semetarik batbedera benedikatu zezan: eta adora zezan bere makila buru gainean bermaturik.

22 Fedez, Iosefek hiltzean egin zezan mentione Israeleko haurren ilkitez: eta bere hezurrez manamendu eman zezan.

23 Fedez, Moises sorthu izan zenean, gorde izan zen bere ahaidez hirur hilebethez, zeren haur ederra baitzakusaten, eta ezpaitziraden beldur Regeren ordenanzaren.

24 Fedez, Moisesek ia handiturik refusa zezan Faraoren alabaren seme deithu izatera:

25 Hautatzenago zuela lainkoaren populua-rekin aflijitu izatera, ezen ez denbora guti bate-takotz bekatuzko atseginen ukaitera:

26 Abrastasun handiago estimaturik Kristen iniuria, ezen ez Egipten ziraden thesaurak, ezen rekompensara beha zegoen.

27 Fedez utzi zezan Egipte, Regeren hiraren beldurrik gabe: ezen inbisible dena ikusten balu bezala, fermu eduki zezan.

28 Fedez egin zitzaion Bazkoa eta odol isurtzea: lehen sorthuak desegiten zituenak, hek hunki ezlitzanzat.

29 Fedez iragan zezaten itsas gorria leihorrez bezala: zein gauza enseiaturik, Egiptianoak hundatu izan baitziraden.

30 Fedez lerikoko murrak eror zitezen, zazpi egunez inguratuak egonik.

31 Fedez, Rahab paillarda etzedin gal inkredulekin batean, espiak bakerekin *ostatus* rezebitu ukan zituenean.

32 Eta zer erranen dut gehiago? ezen denbora faltaturen zait, kontatu nahi badut Jedeonez, eta Barak-ez, eta Samsonez, eta Ieftez, eta Dabid-ez, eta Samuelez, eta Profetez:

33 Zeinek fedez konbatitu ukan baitituzte resumak, *fedez* egin ukan dute iustitia obtenitu ukan dituzte promesak, bozatu lehoinen ahoak,

34 Iraungi suaren indarra, itzuri izan zaizte ezpata ahoei, sendo egin izan dirade erietarik, borthitz egin izan dirade gerlan, estranjeren kanpoak ihesitan irion dituzte,

35 Emaztek rezebitu ukan dituzte resurrekzionez bere hilak: eta batzu hedatu izan dirade, delibratu izatera konturik egiten etzutelarik resurrekzione hobe bat obteni lezatenzat.

36 *Eta berzeak forogatu izan dirade eskarnioz eta ukaldiz, baieta gehiago estekaduraz eta presoindegiz:*

37 *Lapidatu izan dirade, segatu izan dirade, tentatu izan dirade, ezpata herioz hil izan dirade: hara huna ebili izan dirade ardi eta ahunz larruz beztiturik, abandonaturik, aflijiturik, tormentaturik.*

38 *Eta ezpaitzen mundua haien digne: desertuetan errebelatuak zabiltzala eta mendietan eta lezetan eta lur zulhoetan.*

39 *Eta hauk guziek fedez testimoniaje obteniturik, eztute rezebitu ukan promesa:*

40 *Iainkoak zerbait hoberik guretako probediturik, gu gabe perfektionetara ethor ezlitezentzat.*

KAP. XII.

1 Afliktione sufritzera exhortatzen. 2 Krist fedearen kapitaina. 9 Espirituen Aita. 14 Bakea. 22 Iainkoaren

zibitatea. 24 Iesus ararteko. 28
Reberentia eta beldurra.

1 Gu ere bada, hain testimoniozko hodei handiak inguratzen gaituenaz geroz, karga guzia, eta gu erraxki trabatzen gaituen bekatua egotzirik, konstantki garreitzan proposatu izan zaikun lasterrari:

2 Beha gaudelarik fedearen kapitainagana eta, konplizaleagana, Iesusgana: zeinek eskutan zuen bozkarioaren orde sufritu ukan baitu kruztea, ahalkea menospreziaturik, eta lainkoaren thronoaren eskuinean iarri izan da.

3 Kontsidera ezazue bada dilijentki nor den halako kontradiktioea bere buruaren kontra bekatoretarik sufritu ukan duena, *zuen* gogoetan faltaturik akit etzaiteztenzat.

4 Oraino eztuzue odolerano resistitu ukan, bekatuaren kontra konbatitzen zaretela:

5 Eta ahanzi zaizue exhortationea, zeinek zuei haurrei bezala erraiten baitrauzue, Ene haurra, eztezala menosprezia launaren gatzigua, eta eztakiala gogoa falta harzaz korrejitzen aizean.

6 Ezen maite duena launak gaztigitzen dik, eta rezebitzen duen haur guzia zehatzen dik.

7 Baldin gaztigamendurik sufritzen baduzue, lainkoa *bere* hurrei anzo presentatzen zaizue: ezen zein da haurra aitak gaztigitzen eztuena?

8 Bada baldin gaztigamendu gabe bazarete, zeinetan partizipant baitirade guziak, beraz bas-tard zarete eta ez seme.

9 Eta gure gorputzen aitak gaztigari ukan ditugu, eta reberentiatan eduki ditugu: ezgaitzaitza espirituen Aitari ungiz sуетago izanen, eta biziko baikara?

10 Ezen hek egun gutitakotz, berei irudi zaien bezala, gaztigitzen gentuzten: baina hunek gure probetxutan, haren saindutasunean partizipant garenzat.

11 Bada gaztigu guziak ordu berean eztirudi bozkariotako dela, aitzitik tristitiatako: baina gero iustitiazko fruktu bakezkoa rendatzen draue harzaz exerzitate diratenei.

12 Goititzazue bada *zuen* esku laxoak, eta *zuen* belhaun iunktura partituak xuxent itzazue:

13 Eta bideska xuxenak egin ietzezue zuen oinei: maingu *den* gauza bidetik aldara eztadin-zat, bainaitzik sendo dadin.

14 Bakeari zarreitzate guziekin, eta sainduta-sunari, zein gabe nehork ezpaitu launa ikusiren.

15 Gogoatzen duzuelarik nehor aldara ezta-din lainkoaren gratiatik: zenbeit erro karmin goiti ialgiten denek trubla etzaitzatenzat: eta anhitz harzaz satsu eztitezenzat.

16 Ezten nehor paillard edo profano, Esau bezala, zeinek bianda batetan sal baitzezan bere lehen sortzezko primeza.

17 Ezen badakizue are gero heretatzeko benediktionea desiratzen zuelarik, refusatu izan dela: ezen etzezan eriden penitentiatako lekurik, nigar urirekin *benediktionearen* eskatu izan bazen ere.

18 Ezen etzarete ethorri eskuz hunki ahal daitekeen mendi batetara, ez erratzen den sura, ez haize buhunbara, ez lanhora eta tenpestate-ra,

19 Eta tronpeta soinura eta hitzen bozera, zein enzun ukan zutenek, rekeri baitzezaten gehiagorik ezlakien dreza hitza.

20 (Ezen manatzen zena ezin sufri zezaketen, zein baitzen, Baldin abre batek ere mendia hunki badeza, lapidaturen da edo geziaz iraganen da.

21 Eta Moisesek (hanbat zen terrible erakusten zena) erran zezan, Izitu naiz eta ikaratu)

22 Baina ethorri izan zarete Siongo mendira, eta lainko biziaren zibitatera, Ierusalem zelestialera, eta Aingeruen anhitz millatako konpainiara,

23 Eta zeruetan eskribatuak diraden lehen sorthuen kongregationera, eta guzien iuje den lainkoagana, eta iusto sanktifikatuen espirituetara:

24 Eta Iesusgana alianza berriko Arartekoagana, eta Abelenak baino gauza hobek erraiten dituen odol isurira.

25 Begirauzue refusa eztezazuen minzodena: ezen baldin itzuri izan ezpadirade lainkoaren izenean minzo zena menospreziatzen zutenak lurrean, gu anhitzez gehiago punituren gara, baldin zerutik minzo denaganik erauz bagaitez.

26 Zeinen bozak orduan higi baitzezan lurra: baina orain denuntiatu ukan du, dioela, Oraino

behin nik higituren dut ez solament lurra, baina zerua ere.

27 Eta *hitz* hunek Oraino behin, deklaritzen du fermu eztiraden gauzen, hala nola eskuz egin diradenen desegitea: fermu diradenak daude-zenzat.

28 Hunegatik higi ezin daitekeen resuma hartzen dugularik, dadukagun gratia, zeinez hala zerbitza baitezakegu lainkoa non haren gogarako baikirate, reberentiarekin eta beldurrekin.

29 Ezen gure lainkoa su konsumitzen duen bat da.

KAP. XIII.

1 Karitatea, Hospitalitatea. 4 Ezkonza. 5 Abaritia gaberiko konditioneak. 8 Krist eternal. 9 Doktrina estranjerak. 13 Kristen ignominia. 15 lainkoaren gogarako sakrifizioak. 18 Orationea. 20 Krist pastor.

1 Karitate fraternala egon bedi.

2 Hospitalitatea eztakizuela ahanz: ezen har-
zaz batzuk etzakitelarik ostatus rezebitu ukan
dituzte Aingeruak.

3 Zareten orhoit presonerez, hekin presoner
bazinete bezala: aflijitzen diradenez, zeurok ere
gorputzez *aflijitzen* bazinete bezala.

4 Honorable *da* guzien artean ezkonza, eta
ohe makula gabea: baina paillartak eta adultero-
ak iujeaturen ditu lainkoak.

5 *Zuen* konditioneak bire abaritia gabe, *zare-
ten* kontent presentekoez: ezen erran ukan du
berak, Ezaut utziren, eta ezaut abandonaturen.

6 Hala non seguranzarekin erran ahal baite-
zakegu, launa ene aiutazale, eznaiz beldur iza-
nen gizonak ahal daididan gauzaren.

7 Zareten orhoit *zuen* gidazalez, lainkoaren
hitza deklaratu ukan drauzuenez, zeinen fedea
imitatzen baituzue, konsideratzen duzuelarik
zerik izan den haien konbersionearen fina.

8 Iesus Krist atzo *izan dena* eta egun, hura
bera *da* eternalki ere.

9 Doktrina dibersez eta estranjerez etzaitez-
tela hara huna erabil: ezen on da bihotza gratiaz

konfirma dadin, ez biandez, *zeinetan* ezpaitute probetxurik ukan aplikatu izan diradeneke.

10 Badugu aldare bat zeinetarik iateko zuzenik ezpaitute Tabernaklea zerbitzatzan dutenek.

11 Ezen abren gorputzak, zeinen odola ekartan baita bekatuagatik santuariora Sakrifikadore subiranoaz, erratzen dirade tendetarik lekora.

12 Halakotz lesusek ere, santifika lezanzat populua bere-odolaz, sufritu ukan du portaleaz kanpotik.

13 Ilki gaitezen bada harengana tendetarik lekora haren ignominia ekartan dugula.

14 Ezen eztugu hemen zibitate permanentik: baina ethorteko denaren ondoan gabilitza.

15 Harzaz bada ofrenda diezogun ardura lainkoari, laudoriozko sakrifizio, erran nahi baita, haren izena konfesatzen duten ezpainen fruktua.

16 Bada benefizientia eta komunikationea eztakizkizuela ahanz: ezen halako sakrifizioez plazer hartzen du lainkoak.

17 Obeditzazue zuen gidazaleak, eta susmeti zakiztez ezen hek beillatzen dute zuen arimagatik, kontu rendatu behar dutenek bezala: egi-ten dutena alegeraki egin dezatenzat, eta ez

gogoz garaitik: ezen hura ezlizateke zuen probe-
txutan.

18 Othoitz egizue guregatik: ezen asegura-
tzen gara konszientia ona dugula, desiratzen
dugularik gauza guzietan honestki konbersatze-
ra.

19 Eta hanbatez gehiago othoitz egiten drau-
zuet haur dagizuen, sarriago restitui nakizuen-
zat.

20 Iainko bakezkoak bada (zeinek hiletarik
itzul erazi baitu ardien Artzain handia allianza
eternalezko odolaz, Iesus Krist gure launa)

21 Konfirma zaitzatela obra on orotan, bere
borondatearen egitera, egiten duelarik zuetan
haren aitzinean plazent datenik, Iesus Kristez,
zeini gloria sekula sekulakotz. Amen.

22 Halaber othoitz egiten drauzuet, anaieak,
sufri ezazue exhortationetako hitza: ezen hitz
gutitan eskribatu drauzuet.

23 Iakizue *gure* anaie Timotheo largatu izan
dela, zeinekin (baldin sarri badator) ikusiren bai-
tzaituztet.

24 Salutaitzazue zuen gidazale guziak, eta
saindu guziak. Salututzen zaituztez Italiakoek.

25 Gratia *dela* zuekin guziokin. Amen.

*Hebraikoetara eskribatu izan da
Italiarik Timotheorekin.*

S. IAKES APOSTOLUAREN EPISTOLA KATHOLIKOA

KAP. I.

*2 Tentationea. 3 Patientia. 5
Sapientia. 8 Gogo doblea. 12
Bizitzeko koroa. 14 Guthizia. 18
Hitzaz enjendratu izan gara. 20
Iainkoaren iustitia. 22 Legearen
enzuleak. 26 Mihiaren bridatzea. 27
Relijione egiazkoa.*

1 Iakes Iainkoaren eta Iesus Krist launaren zerbitzariak, hamabi leinu barreiatuei, salutatio-
ne.

2 Ene anaieak, bozkario perfektotan edukatze tentatione dibersetara eror zaiteztenean:

3 Dakizuelarik ezen zuen fedearen forogantzak patientia enjendratzen duela.

4 Baina patientiak obra perfektoa biu, perfekt eta integro zaretenzat, deusen falta etzaretelarik.

5 Eta baldin zuetarik zenbeitek sapientia faltarik badu, eska bekio lainkoari, zeinek emaiten baitraue guziei benignoki, eta ez reprotxatzen: eta emanen zaio.

6 Baina federekin eska bedi, batre dudatzen eztuela: ezen dudatzen duena, haizeaz erabilten eta tormentatzen den itsas bagaren pare da.

7 Eztezala bada estima gizon hark deus launaganik rezebituren duela:

8 Gizon gogo doblatakoa, inkonstant da bere bide guzietan.

9 Gloria bedi bada anaie konditione baxotakoa bere goratasunean:

10 Baina abrats dena, *gloria bedi* bere baxotasunean: ezen belhar lilia bezala iraganen da.

11 Ezen *nola* iguzkia beroarekin goratu eta, erre baita belharra, eta haren lilia erori, eta haren irudi ederra galdu: hala abratsa ere bere bide guzietan ximalduren da.

12 Dahatsu *da* tentatione sufritzen duen gizona: ezen forogatu datenean rezebituren

duke, launak hura maite dutenei prometatuta drauen bizitzeko koroa.

13 Nehork, tentatzen denean, ezterrera lainkoaz tentatzen dela: ezen lainkoa ezin tenta daite gaizkiz, eta nehor ezta tentatzen.

14 Baina batbedera tentatzen da bere guthizia propioz tiratzen eta bazkatzen denean.

15 Gero guthizia, konzebitu duenean, ertzen da bekatur: eta bekatuak akabatu denean, herio enjendratzen du.

16 Etzaitezela abusa, ene anaie maiteak.

17 Donatone on oro, eta dohain perfekt oro garaitik da argien Aitaganik iausten dela, zein baithan ezpaita kanbiamendurik, ez aldizkazko itzalik.

18 *Hark* bere borondatez enjendratu ukan gaitu egiazko hitzaz, haren kreaturetako primitiak bezala ginenzat.

19 Halakotz, ene anaie maiteak, biz gizon guzia enzutera lehiati, berantkor minzatzera, eta berantkor aserretzera.

20 Ezen gizonaren aserreak lainkoaren iustitia ezta konplitzen.

21 Halakotz, iraitzirik zithalkeria guzia eta malitiazko superfluitatea, emetasunekin rezebi ezazue, *zuetan* landatu hitza, zeinek salba ahal baititzake zuen arimak.

22 Eta zareten hitzaren egile eta ez solament enzule, zeuron buruak enganatzen dituzuela.

23 Ezen baldin norbeit hitzaren enzule bada eta ez egile, hura mirailean bere begitharte naturala konsideratzen duen gizonaren pare da.

24 Ezen konsideratu ukan du bere burua, eta ioan izan da, eta bertan ahanze zaio nolako zen.

25 Baina miratu datena Lege perfektoan, *zein baita* libertatezkoa, eta hartan perseberatu dukeena, zeren ezpaitate enzule ahanzkor izan, baina obraren egile: hura dohatsu izanen da bere eginean.

26 Baldin zenbeitek uste badu relijioso dela zuen artean, bridatzen eztuelarik bere mihia, baina bere bihotza enganatzen duelarik, halakoren relijionea bano da.

27 Relijione pura eta makula gabea lainko eta Aita baithan, haur da, zurtzen eta *emazte* alhargunen bisitatzea bere tribulationetan: eta

makula gabe bere buruaren begiratzea mundu hunetarik.

KAP. II.

2, 9 Akzeptione pertonez egitea. 8 Legearen konpliztea. 13 Misericordia gaberiko kondemnationea. 14 Fedea obrak gabe ez deus. 17, 20 26. Hila.

1 Ene anaieak, eztuzuela Iesus Krist gure laun gloriakoaren fedea, pertonen akzeptionekin.

2 Ezen baldin sar badadi zuen kongregatione-ra gizon bat urhezko erhaztun bat duela, prezioski beztiturik: eta sar dadin halaber edozein paubre xarki beztiturik,

3 Eta ikartze duzuen prezioski beztitua denagana, eta erran diezozuen hari, Hi iar adi hemen honestki: eta paubreari derrozuen, Hi ago zutik han, edo iar adi hemen ene eskabella azpian:

4 Eztuzue diferentia egin ukan zeurok bait-
han, eta egin izan baitzarete pensamendu gaix-
toezko iuje?

5 Enzuzue, ene anaie maiteak, eztitu lainko-
ak elejitu mundu hunetako paubreak fedez
abrats *izateko*, eta hura maite dutenei prometa-
tu drauen resumako heredero?

6 Baina zuek desohoratu ukan duzue pau-
brea. Ala abratsek etzaituztez tiranizatzen, eta
etzaituztez gortetara erekartzen?

7 Eztute hek blasfematzen zuen gainean
inbokatu izan den Izen ona?

8 Badarik ere baldin Lege reala konplitzen
baduzue Eskripturaren araura, *zein baita*, On eri-
tziren draukak eure hurkoari eure buruari beza-
la, ungi egiten duzue:

9 Baina baldin personen akzeptionerik badu-
zue, bekatu egiten duzue, eta reprehenditzen
zarete Legeaz transgredizale bezala.

10 Ezen nork ere Lege guzia begiraturen
baitu, eta *puntu* batetan faltaturen, guzietan
hogendun da.

11 Ezen erran duenak, Eztuk adulteraturen,
erran du halaber, Eztuk hilen. Bada baldin adul-

teratzen ezpaduk, baina hiltzen bai, Legearen transgredizale egin aiz.

12 Hala minza zaitetze eta hala egizue nola libertatezko Legeaz iujeatu behar diradenek.

13 Ezen kondemnatione miserikordia gabe eginen zaio miserikordia egin eztukeenari: eta gloriatzen da miserikordia kondemnationearen kontra.

14 Ene anaieak, zer probetxu, baldin norbeitetik badarra fede baduela, eta obrak eztituen? ala fede hark hura salba ahal dezake?

15 Eta baldin anaiea edo arreba billuziak badirade, eta peitu eguneko bitanzaren:

16 Eta zuetarik zenbeitetik haei erran diezen, Zoazte bakerekin, bero zaitetze eta ase zaitetze: eta eztinguztezen gorputzaren nezesario diraden gauzak, zer probetxu dukeite?

17 Hala fedea ere, baldin obrak ezpaditu, hila da bere berez.

18 Baina are erranen du edozeinek, Hik fedea duk, eta nik obrak zitiat, erakuts iezadak eure fedea eure obrak gabe, eta nik erakutsiren drauat hiri neure obretarik neure fedea.

19 Hik sinhesten duk ezen lainko bat dela: ungi egiten duk: deabruék ere sinhesten die, eta ikara diabilzak.

20 Baina nahi duk iakin, o gizon banoa, ezen fedea obrak gabe hila dela?

21 Gure aita Abraham ezta obretarik iustifikatu izan, Isaak bere semea aldare gainean ofrendatu zuenean?

22 Badakusak nola fedea obratzen zuen haren obretan, eta obretarik fedea akabatu izan dela?

23 Eta konplitu izan dela Eskriptura dioela, Sinhetsi ukan du Abrahamek lainkoa, eta inputatu izan zaio iustitiatara, eta lainkoaren adiskide deithu izan da.

24 Badakusazue bada ezen obretarik iustifikatzen dela gizona, eta ez fedetik solament?

25 Halaber Rahab paillarda ere ala ezta obretarik iustifikatu izan, rezebitu zituenean mandatariak, eta berze bidez idoki zituenean?

26 Ezen nola gorputza espiritu gabe hila baita, hala fedea ere obrak gabe hila da.

KAP. III.

*3 Mihiaren deskriptioea. 13
Konbersatione ona. 14 Inbidia eta
tharritamendua. 15 Lurreko
sapientia eta garaikoa. 18 Iustitiazko
fruktua.*

1 Ene anaieak, etzaretela majistru anhitz: dakigularik ezen kondemnatione handiagoa rezebituren dugula.

2 Ezen anhitz gauzatan huts egiten dugu guziek Baldin zenbeitek hitzean huts egiten ezpadu, hura gizon perfektoa da, eta bridatan eduki ahal dezake gorputz guzia ere.

3 Huna, zamariei bridak ahoetara emaiten drauztegu obedi gaitzatenzat, eta haien gorputz guzia hara huna drabilagu:

4 Huna, barkak ere, hain handi diradelarik, eta haize borthitzez erabilten diradelarik, hara huna erabilten dirade gobernail xipito batez, norat ere gobernazalearen plazerak nahi baituke.

5 Hala mihia ere menbro tipito bat da, eta gauza handiz bantatzen da: huna, su xipito batek zein egurtze handia iraxekiten duen.

6 Mihia ere su bat *da*, eta inikitatezko mundu bat: hala *diot* mihia ezarria dela gure menbroen artean, zeinek makulatzen baitu gorputz guzia, eta iraxekiten gure naturaren kursua, eta iraxekia da gehennaz.

7 Ezen bestien, eta xorien, eta sugen, eta itsasoko arrainen natura guzia hetzen da, eta hezi izan da natura humanoaz:

8 Baina mihia ezeinere gizonak ezin hez dezake: zeba ezin daiten gaitz bat *da* pozoin mortalez bethea.

9 Harzaz benedikatzen dugu *gure* lainko eta Aita: eta harzaz maradikatzen ditugu lainkoaren irudira eginiko gizonak.

10 Aho ber batetarik ilkiten da benedikzione eta maledikzione: Ezta behar, ene anaieak, hauk hunela egin ditezen.

11 Ala ithurri batek zulho beretik emaiten du dulzea eta mina?

12 Ala fikotze batek olibarik ekar ahal dezake, edo aihenak fikorik? hala ezin ekar dezake ithurri batek ere ur gazi eta geza.

13 Nor *da* zuhur eta iakinsu zuen artean? erakuts bitza konbersatione onez bere obrak, zuhurtziazko emetasunekin.

14 Eta baldin inbidia saminik baduzue, eta tharritamendurik zuen bihotzetan, etzaitzeltela gloria, eta gezurrik ezterrazuela egiaren kontra.

15 *Ezen* zuhurtzia haur ezta garaitik iausten dena, baina *da* lurrekoa, sensuala eta deabruetzkoa.

16 Ezen non *baita* inbidiarik eta tharritamendurik, han nahastekamendu eta obra gaixto guzia.

17 Baina garaitiko zuhurtzia, lehenik da pur, gero bakezko, moderatu, maneioso, miserikor-diaz eta fruktu onez bethea, distinktionerik gabea, hipokrisia gabea.

18 Eta iustitiazko fruktua bakerekin ereiten zaie bakezkoei.

KAP. IIII.

1 Gerlak. 2 Guthiziak. 4 Munduko
adiskidetasuna. 6 lainkoak
resistitzen urgulutsuei. 10
Humilitatea. 11 Gaitzerraileak. 12
Lege ezarle bat. 16 Bantatzea ez on.

1 Nondik gerlak eta guduak zuen artean? eza hemendik, *diot*, zuen boluptate zuen menbroetan gerla egiten dutenetarik?

2 Desiratzen duzue eta eztuzue ukaiten, inbidioso zarete eta bekaitz, eta ezin ardiets dezakezue: konbatitzen zarete eta gerla egiten duzue, baina eztuzue *desiratzen duzuen*a, zeren ezpaitzarete eskatzen.

3 Eskatzen zarete eta eztuzue rezebitzen: zeren gaizki eskatzon baitzarete, zuen boluptatetan despenda dezazuenzat.

4 Adulteroak eta adulterak, eztakizue ezen munduaren adiskidetasuna, lainkoaren etsaitasun dela? nor ere bada nahi izanen baita munduarekin adiskide, lainkoaren etsai iartenda.

5 Ala uste duzue ezen Eskripturak alferretan erraiten duela, Inbidiatara aurthiten du zuetan habitatzen den espirituak?

6 Aitzitik du gratia handiagoa emaiten, halakotz dio, lainkoak urgulutsuei resistitzen draue, eta humilei gratia emaiten.

7 Zareten bada suiet lainkoaren, resisti iezozue deabruari, eta ihes eginen du zuetarik.

8 Hurbil zakitzate lainkoari, eta hurbilduren zaizue: garbitzazue eskuak, o bekatoreak, eta purifikaitzazue bihotzak, o gogo doblatakoak.

9 Afliji zaitezte eta egizue lamentatione eta nigar: zuen irria nigarretara konberti bedi, eta *zuen* alegranza tristitiatara.

10 Humilia zaitezte launaren aitzinean, eta goraturen zaituzte.

11 Elkarren kontra etzaitezteela gaizki minza, anaieak: anaiearen kontra minzo denak, eta bere anaiea kondemnatzen duenak, Legearen kontra gaizki erraiten du, eta Legea kondemnatzen du: eta baldin Legea kondemnatzen baduk, ezaiz Legearen egile, baina iuje.

12 Lege ezarlea bat da salba eta gal ahal dezakena: hi nor aiz berzea iujeatzen duana?

13 Eia orain erraiten duzuenak, Egun edo bihar ioanen gara hiri batetara, eta egonen gara han urthe bat, eta merkatalgoa eginen dugu, eta irabaziren dugu:

14 Eztakizuelarik biharamunean zer *izanen den*: ezen zer da zuen bizia? ezen apur batetakotz agertzen eta gero desegiten den bapore bat da.

15 Erran behar zindutenaren lekuan, Baldin launak nahi badu, eta bizi bagara, eginen dugu haur edo hura.

16 Baina orain gloriatzen zarete zuen bantetrietan: horlako gloriatze guzia gaixto da.

17 Bada ungi egiten dakianak eta ez egiten, bekatu egiten du.

KAP. V.

1 Abratsak adbertitzen zer egiteko duten. 7 Patientia. 10 Exenplu Profetetan hartzeko. 12 Ez iuratzeko. 13 Orationea. 14 Eriez. 16 Elkarganako rekonziliationea.

1 Eia orain abratsak, nigar egizue, urhubi egi-ten duzuela zuen miseria helduren zaizkizuenak-gatik.

2 Zuen abrastasunak usteldu dirade, zuen abillamenduak zerrenez betheak dirade.

3 Zuen urhea eta *zuen* zilharra herdoildu da, eta haien herdoildurak testifikaturen du zuen kontra, eta *hark* ditu ianen zuen haragiak suak bezala: thesaurizatu duzue azken egunetako.

4 Huna, zuen landak errekeitatu dituzten langilen alokairu zuezaz defraudatu izan dena, oihuz dago, eta errekeitazalen oihuak armaden launaren beharrietan sarthu dirade.

5 Deliziotan bizi izan zarete lurraren gainean eta zuen atseginak hartu ukan dituzue, eta zuen bihotzak resasiatu ukan dituzue sakrifiziotako egunean bezala.

6 Kondemnatu eta hil ukan duzue iustoa: eta eztrauzue resistitzen.

7 Zareten bada patient, anaieak, launaren adbenimendurano. Huna, laboraria lurreko fruktu preziosoaren begira egoiten da, patientki

haren begira dagoela goizeko eta arratseko uria rezebi dezakeno.

8 Zareten patient zuek ere eta konfirmaitzazue zuen bihotzak: ezen launaren adbenimendua hurbil da.

9 Etzaitezela arrangura elkarren kontra, anaieak, kondemna etzaiteztenzat: huna, iujea borthaitzinean dago.

10 Ene anaieak, har-itzazue afliktionetako eta patientiatako exenplutan Profetak, zein minzatu baitirade launaren izenean.

11 Huna, dohatsu edukiten ditugu *afliktione* sufritzen dutenak: lob-en patientia enzun ukan duzue, eta launaren fina ikusi duzue, nola guziz miserikordioso den launa eta gogabera.

21 Bada gauza ororen aitzinetik, ene anaieak, iura eztezazuela ez zeruaz, ez lurraz, ez edozein berze iuramenduz: baina biz zuen baia, Bai: eta zuen eza, Ez: kondemnationetara eror etzaiteztenzat.

13 Aflijitzen da zenbeit zuen artean? othoitz begi: bihotz alegeratako da zenbeit? kanta beza.

14 Eri da zenbeit zuen artean? erekar bitza Elizako anzianoak, eta othoitz begite harengatik, unktatzen dutela hura olio z launaren izenean.

15 Eta fedezko orationeak salbaturen du eria, eta eraikiren du hura launak: eta baldin bekatu-rik egin badu barkaturen zaizkio.

16 Konfesa ietozue batak berzeari zuen faltak, eta othoitz egizue batak berzeagatik, senda zaitetzat: ezen anhitz balio du iustoaren efikaziorekin *den* orationeak.

17 Elias zen gu bai pasionen suiektionetako gizona, eta othoiztez othoitz egin zezan, ezlagian uririk, eta etzezan egin uririk lurraren gainean hirur urthez eta sei hilebethez.

18 Eta berriz othoitz egin zezan, eta zeruak uri eman zezan, eta lurrak bere fruktua ekar zezan.

19 Anaieak, baldin zuetarik zenbeit egiatik errebela badadi, eta hura konberti badeza zenbeitek,

20 lakin beza ezen konberti erazi dukeenak bekatore bat bere bideko errebelamendutik, salbaturen dukeela arima bat heriotarik, eta bekatu mulzoa estaliren dukeela.

S. PIERRIS APOSTOLUAREN LEHEN EPISTOLA KATHOLIKOA

KAP. I.

*2 Iainkoaren elektioea. 3 Haren
miserikordia. 4 Heretaje
inkorruptiblea. 5 Salbamendua. 6
Bozkarioa. 7 Fedearen foroganza eta
fina. 10 Profetak. 12 Ebanjelioa. 14
Obedientia. 15 Konbersatione
saindua. 17 Personen akzeptionerik
ez Iainkoak. 19 Kristen odola, 20
Mundua baino lehen ordenatu. 21
Iainkoa baithango fedea eta
esperanza. 22 Karitate
anaietasunezkoa. 25 Iainaren hitz
bizia.*

1 Pierrisek, Iesus Kristen Apostoluak, Ponten, Galatian, Kapadozian, Asian, eta Bithinian gaindi barreiatuak zareten estranjerei.

2 Iainko Aitaren probidentiaren arauetz Espirituaren sanktifikationetan elejituei, obeditzeko eta Iesus Kristen odolaz ihiztatu izateko: Gratia eta bake multiplika dakizuela.

3 Laudatu *dela* Iainkoa *zein baita* Iesus Kristogure launaren Aita, zeinek bere miseriak handiaz rejeneratu ukan baikaitu esperanza bizitara, Iesus Kristen hiletariko resurrektioneaz,

4 Heretaje korrumpi ezin daitenera, ez makula, ez ximal, zeruetan zuenat konserbatura,

5 Iainkoaren berthutean fedez begiratzen zaretenozat, azken denboran rebelatu izateko prest den salbamendutakotz.

6 Zein gauzatan alegeratzen baitzarete, denbora apur bat orain (baldin behar bada) triste-tuak zaretelarik tentatione dibersetan:

7 Zuen fedearen foroganza ungiz preziosoagoa ezen ez urhearena (zein galtzen baita eta halere suz forogatzen) eriden dadinatzat, *zuen* laudoriotan eta gloriatan eta ohoretan *dela*, Iesus Krist ager dadinean:

8 Zein ikusi eztuzuelarik maite baituzue: zeinetan orain ikusten eztuzuelarik, baina sinhesten duzuelarik, alegranza erran ezin daitenez eta gloriosoz alegeratzen baitzarete.

9 Eramaiten duzuelarik zuen fedearen fina, *zein baita*, arimen salbamendua.

10 Salbamendu hunez informatu izan dirade, eta *haur* dilijentki bilhatu ukan dute, zuetara *ethorteko zen* gratiaz profetizatu ukan duten Profetek.

11 Informatzen ziradelarik noizko edo zer denboratako Kristen Espiritu profetiazko hetan zenak deklaritzen zituen Kristi *ethorteko zaizkan* sufranzak eta haien ondoko gloriak:

12 Eta rebelatu izan zaie, ez bere buruei, baina guri administratzen zerauzkigutela orain zuei denuntiatu izan zaizkizuen gauzak zuei Ebanjelioa predikatu drauzuezatenez, zerutik igorririko Espiritu sainduaz, zein gauzen kontenplatzeko desira baitute Aingeruek.

13 Halakotz zuen adimenduko gerrunzea gerrikaturik, sobrietaterekin, auzue perfektoki esperanza zuei presentatzen zaizuen gratian Iesus Krist ager daiteno.

14 Eta *haur*, *haur* obedientek bezala, *zuen* buruak konformatzen eztituzuelarik lehenago *zuen* ignorantian *zentuzten* desiretara:

15 Baina *zuek* deithu zaituztena *saindu* den bezala, *zuek* ere zareten *saindu* *zuen* konbersatione orotan.

16 Halakotz da eskribatua, Zareten *saindu*: ezen ni *saindu* naiz.

17 Eta baldin Aitatan inbokatzen baduzue, *personen* akzeptionerik gabe batbederaren obraren arauetz iujeatzen duena, beldurrekin konbersa zaitetze *zuen* egoitza hunetako denboran.

18 Dakizuelarik ezen redemitu izan zaretela *zuen* konbersatione bano aiten ordenanzetarik hartutik: ez gauza korruptiblez, nola baita, zilharrez edo urhez:

19 Baina Kristen odol preziosoaz, bildots makula eta satsutasun gabe batenaz bezala:

20 Ia munduaren fundacionea baino lehen ordenatuarenaz, baina azken denbora hautan manifestatuarenaz, zuengatik,

21 Eta harzaz sinhesten duzue hura hiletarik resusztatatu duen eta hari gloria eman draukan

lainkoa baithan, zuen fedea eta esperanza lainkoa baithan lizenzat.

22 *Bada* zuen arimak purifikatu izanik, obeditzen duzuela egia Espirituaz, anaietasunezko karitate fiktionerekin, bihotz xahuz elkarri on eritsozue afektionatuki:

23 Rejeneraturik ez hazi korruptibleaz, baina inkorruptibleaz, lainkoaren hitz biziaz, eta eternalki egoiten denaz.

24 Zeren haragi guzia *baita* belharra bezala, eta gizonaren gloria guzia belhar lilia bezala: eihartu da belharra, eta haren lilia erori:

25 Baina launaren hitza badago eternalki: eta haur da zuei ebanjelizatu izan zaizuen hitza.

KAP. II.

2 Adimenduzko eznea. 4, 6 Krist harri bizia. 5 Sakrifizio espiritualak. 8 Behaztopamendutako harria. 9 Sakrifikadoregoa reala. 11 Haragiaren guthiziak. 12 Konbersatione honesta. 13

*Majistratuei obedientia ekarteko. 16
Libertatea. 18 Zerbitzarien
eginbidea. 20 Afliktioez. 21 Krist
gure exenplu. 24 Kristek gure
bekatuak egari. 25 Arimen Artzaina
eta Ipizpikua Krist.*

1 Beraz utzirik malitia guzia, eta enganio guzia, eta hipokrisiak, eta inbidiak, eta gaitzerraite guziak,

2 Desira ezazue, haur heuragirik eztuela sort-huen anzora, adimenduzko eta enganio gabeko eznea, harzaz haz zaiteztenzat.

3 Baldin dastatu baduzue ezen benigno dela launa.

4 Harengana hurbiltzen zaretelarik zein baita harri bizia, gizonez arbuatua, baina lainkoa bait-han elejitua eta prezioso.

5 Zuek ere harri bizi anzo edifika zaitezte, etxe espiritual, Sakrifikadoregoa saindu, Iesus Kristez lainkoaren gogarako sakrifizio espiritual ofrendatzeko.

6 Halakotz kontenitzen ere da Eskripturan, Huna, ezarten dut Sionen, har kantoin prinzipala,

elejitua *eta* preziosoa: *eta* hartan sinhesten duena ezta konfus izanen.

7 Hura da bada ohore zuen sinhesten duzeon: baina sinhesten ez tutenen, harri edifikazalek arbuiatu ukan dutena kantoineko prinzipal egin izan da, *eta* behaztopamendutako harri, *eta* trebukamendutako harri.

8 Zein trebukatzen baitirade hitzaren kontra desobedient diradelarik: hartako ordenatu ere dirade.

9 Baina zuek *zarete* jeneratione elejitua, Sakrifikadoregoa reala, jende saildua, populu akisitua: ilhunbetik bere miragarritzko argira deit-hu ukan zaituztenaren berthuteak denuntia ditzazuenzat.

10 Noizpait zinetenak ez populu, orain *zarete* lainkoaren populu: zuek miserikordia obtenitu etzendutenok, orain miserikordia obtenitu ukan duzue.

11 Maiteak, othoitz egiten drauzuet, estranjerren *eta* bideazkoen anzora, begira zaitezten haragiaren guthizietarik, zeinek gerla egiten baitute arimen kontra:

12 Zuen konbersationea duzuelarik honest Jentillen artean zueaz gaizkigilez bezala minzo diraden gauzetan, ikusi ditukeizten obra onetarik glorifika dezatenzat lainkoa bisitationeko egunean.

13 Zareten bada suiet gobernamentu humano guziaren launagatik: edo regeren, superioraren bezala:

14 Edo gobernadoreen, haraz igorri izan diradenean bezala, gaizkigileen mendekiotan eta ungi-gileen laudoriotan.

15 Ezen hunela da lainkoaren borondatea, ungi egitez, gizon erhoen ignorantari ahoa boza diezozuen:

16 Libertatetan zaretenek bezala, eta ez libertatea malitiaren estalkitan bazendute bezala, aitzitik lainkoaren zerbitzariak bezala.

17 Guziak ohoraitzazue: anaietasunari on eritsozue. Zareten lainkoaren beldur. Rege ohora ezazue.

18 Zerbitzariak, zareten beldur guzirekin nabusien suiet, ez solament onen eta humano-en, baina dorpen ere.

19 Ezen haur da gogarako, baldin norbeitek lainkoaganako konszientiagatik faskeriarik sufritzen badu, iniustoki sufritzen duelarik:

20 Ezen zer laudorio da, baldin falta eginik bufetatzen zaretenean pairatzen baduzue? baina baldin ungi egiten duzuelarik eta aflijitzen zaretelarik pairatzen baduzue, haur da lainkoaren gogarako.

21 Ezen hunetakotzat deithu izan zarete: ezen Kristek ere sufritu ukan du guregatik, guri exenplu utziten draukula, haren oin hatzei iarreiki zakiztenzat:

22 Zeinek ezpaitu bekaturik egin ukan, eta ezeinere enganiorik ezta eriden izan haren ahoan.

23 Zeinek iniuriatzen zenean, ezpaitzuen iniuriatzen: gaizki egiten zeraukatenean, ezpaitzuen mehatxurik egiten: baina remetitzen zen iustoki iujeatzen duenagana.

24 Zeinek gure bekatuak ekarri ukan baititu bere gorputzean zur gainean: bekatuei hilik, iustitiari bizi giaizkionzat: zeinen ukalduraz sendatu izan baitzarete.

25 Ezen ardi errebelatuak bezala zineten, baina orain konbertitu izan zarete zuen arimen Artzainagana eta Ipizpikuagana.

KAP. III.

1 Emazten eginbidea. 7 Senharrena. 8 Guziak gogo batetako izateko. 9 Mendekioari eta gaitzerraiteari ihes egiteko. 14 Ungi egiteagatik sufritzea. 16 Konzientia ona. 18 Krist pasionaturik, 22 lainkoaren eskuinean.

1 Halaber emazteak suiet *diraden* bere senharren, baldineta batzu hitzaren desobedient badirade, emazten konbersationeaz hitza gabe irabaz ditezenzat,

2 Ikusi dukeitenean zuen konbersatione kaste beldurrekin dena:

3 Zeinen ornamendua ezten lekoreko bilo izurduratan, edo urhezko paramendutan, edo abillamenduetako habitutan:

4 Baina bihotzeko gizon gordea, espiritu eme eta sosegu batetako inkorrptionean konsistitzen dena, zein baita lainkoaren aitzinean prezioso.

5 Ezen hunela lehenago emazte sainda lainkoa baithan esperanza zutenak ere apainzen ziraden, suiet ziradelarik bere senharren:

6 Sarak Abraham obeditzen zuen bezala, hura iaun deitzen zuela, zeinen alaba egin izan baitzarete, ungi egiten duzuela, eta ezeinere iziapenen beldur etzaretela.

7 Senharrak, halaber konbersa ezazue hekin diskretki emazteko unzi frajilagoarekin bezala, ohore emaiten draukazuela, elkarrekin bizitzeko gratiaren heredero kide ere zaretenok bezala, zuen orationeak enpatxa eztitezenzat.

8 Eta finalki guziak *zaretan* konsentimendu batetako eta konpasionen batetako, fraternalki onhetsle zaretelarik miserikordioso, gratiozo:

9 Gaitza gaitzagatik rendatzen eztuzuela edo iniuria iniuriagatik, baina kontrariora, benedikatzten duzuela: dakizuelarik ezen hartara deithuak zaretela, benediktionezko heretajea posedi dezazuenzat.

10 Ezen nahi duenak onhetsi bizia, eta ikusi egun onak, begira beza bere mihia gaitzetarik, eta bere ezpainak enganioren pronuntiatzetik:

11 Itzul bedi gaizkitik, eta begi ungi: bilha beza bakea, eta iarreiki bekio hari.

12 Ezen launaren begiak iustoen gainera *beha daude*, eta haren beharriak haien othoitze-tara, eta launaren begithartea *da* gaizkiak egiten dituztenen ganean.

13 Eta nor da zuei kalterik eginen drauzuena, baldin ungiari bazarreitzate?

14 Baina baldin zerbait sufritzen baduzue ungi eginagatik, dohatsu *zarete*. Baina haien bel-durrez izit etzaitezela, ezeta trubla:

15 Aitzitik lainko launa sanktifika ezazue zuen bihotzetan: eta *zareten* bethi prest ihardes-tera zuetan den esperanzaz razoin galde egiten duen guziari, emetasunekin eta reberentiarekin,

16 Konzientia ona duzuelarik: zuen kontra gaizkigilez bezala minzo diraden gauzan, konfus diradenzat, zuen konbersatione Krist baithango ona kalumniatzen dutenak.

17 Ezen hobe *da* ungi egiten duzuela afliji zaitetzen, baldin lainkoaren borondateak hala nahi badu, ezen ez gaizki egiten duzuela.

18 Ezen Kristek ere behin bekatuagatik sufritu ukan du, iustoak iniustoakgatik: gu lainkoagana eraman genzanzat, haragiz mortifikaturik, baina bibifikaturik Espirituaz.

19 Zein Espirituz karzeleko espirituei ere partiturik predikatu ukan baitraue,

20 Lehenago desobedient ziradenei, behin beha zegoenean lainkoaren patientia Noeren egunetan, apainzen zenean arka: zeinetan gutiak, da iakiteko, zortzi arima salba baitzitezen urez:

21 Zeini orain ihardesten draukan baptismoaren figurak gu ere salbatzen gaitu: ez haragiko satsutasunak xahutzen dituenak, baina konszientia onaren atestationeak lainkoaren aitzinean Iesus Kristen resurrektioneaz:

22 Zein baita lainkoaren eskuinean, zerurat ioanik, zeini sriet egin baitzaitza Aingeruak, eta puisanzak eta berthuteak.

KAP. IIII.

2 Iainkoaren borondatearen araura bizitzeko. 6 Hilei ebanjelizatu. 7 Beillatzeko eta othoitz egiteko. 8 Karitate afektionezkoa. 9 Hospitalitatea. 10 Iainkoaren anhitz aldezko gratia. 12 Foroganza. 14 Gloriaren eta Iainkoaren Espiritua. 17 Iainkoaren etxea.

1 Bada Kristek guregatik sufritu ukan duenaz geroz haragian, zuek ere pensatze hunez beraz harma zaitetze, nola haragian sufritu duena bekatutarik zesatu den,

2 Gehiagorik ez gizonen guthizien araura, baina Iainkoaren borondatearen araura goitiko haragian den denboran bizi denzat.

3 Ezen asko izateko zaiku zeren *gure* biziko denbora iraganean Jentilen borondatea konplitu dugun, konbersatzen genduenean insolentietan, guthizietan, hordikerietan, gormandizetan, edatetan, eta idolatria abominabletan.

4 Halakotz bere buruak estranjer iruditzen zaizte disolutionezko insolentia berera hekin laster egiten eztuzuenean, zuek gaitzerraiten zaituztela.

5 Zeinek kontu rendaturen baitraukate bizien eta hilen iujeatzeko prest dagoenari.

6 Ezen hunetakotz hilei ere ebanjelizatu izan zaie: kondemna litezenzat gizonen araez, haragiz: eta bizi liraden lainkoaren araez espirituz.

7 Bada gauza guzien fina hurbiltzen da. Zareten beraz sobre eta iratzarri othoitz egitera:

8 Eta gauza guzien gaineratik zuen artean karitate afektionezkoa duzuelarik: ezen karitateak estaliren du bekatuen anhitzasuna.

9 Zareten elkarren ostatur ezerebizale, murmurationerik gabe.

10 Batbederak dohaina rezebitu duenaren araez berzei administra bieze, lainkoaren anhitz aldeko gratiaren dispensazale onek bezala.

11 Baldin norbeit minzo bada, *minza bedi* lainkoaren hitzez bezala: baldin norbeit administratzen ari bada, *administra beza* lainkoak administratzen duen puisanzaren araura: gauza

guzietan glorifika dadinzat lainkoa Iesus Kristez, zeini gloria eta indar sekula sekulakotz. Amen.

12 Guzizko maiteak, ezteazuela estranio eriden, labean bezala zaretenean zuen forogatzeagatik, zerbait gauza uste gaberik ethorten bali-tzeizue bezala:

13 Aitzitik Kristen afliktionetan komunikatzen duzuen bezenbatean, alegera zaitezte: haren gloriaren rebelationean ere, atsegin hartzen duzuela alegera zaiteztenzat.

14 Baldin Kristen izenean iniuriatzen bazarete, dohatsu *zarete* ezen zuen gainean reposatzen da gloriaren eta lainkoaren Espiritua, hezaz den bezenbatean blasfematzen dena, baina zuezaz den bezenbatean glorifikatzen dena.

15 Bada zuetarik nehor eztadila afliji gizerhaile, edo ohoin, edo gaizkigile, edo berzeren onen guthizioso bezala:

16 Baina baldin Kristino bezala *aflijitzen bada* etzaiola laido, aitzitik glorifika beza lainkoa alde harzaz.

17 Ezen ordu da has dadin iujemendua lainkoaren etxetik: eta baldin lehenik gureganik

hatsen bada, zeri izanen da lainkoaren Ebanjelioa obeditzen ez tutenen fina?

18 Eta baldin iustoa nekez salbatzen bada, infidela eta bekatorea non konparituen da?

19 Halakotz bada lainkoaren borondatez aflijitzen diradenek, krezale fidelari bezala bere arimak gomenda biezote ungi egingez.

KAP. V.

2 Ministreak bere eginbidearen egitera exhortatzen. 5 Gazteak instruitzen. 8 Sobre eta iratzarri izateko. 9 Fedearen fermetatea 19 Kristean deithuak. 12 lainkoaren gratia. 14 Karitatezko pota.

1 Zuen artean diraden Anzianoei othoitz egiten drauet nik, *bainaiz* haien Anzianokide: eta Kristen afliktionen testimonio, eta manifestatze-ko den glorian partizipant:

2 Bazka ezazue lainkoaren arthalde kargutan eman zaizuen, harzaz artha duzuelarik, ez

gogoz garaitik, baina gogotik: ez irabazte desho-
nestagatik, baina gogo prest batez.

3 Eta ez *launaren* heretajen gainean seignori-
riatzen bazendute bezala, baina arthaldearen
exenplu zaratezten bezala.

4 Eta ager dadinean Pastor prinzipala rezebi-
turen dukezue gloriatzko koroa inkorruptiblea.

5 Halaber gazteak, zareten zaharren suiet,
eta guziak zareten bata berzearen suiet: zareten
humilitatez barnetik apainduak: ezen lainkoak
urgulutsuei resistitzen draue, eta humilei gratia
egiten.

6 Humilia zaitezte bada lainkoaren esku bot-
heretsuaren azpian, ordu datenean goiti zaitza-
tenzat:

7 Zuen artha guzia haren gainera egoizten
duzuela: ezen hark artha du zuezaz.

8 Zareten sobre, eta beilla ezazue, ezen zuen
etsai deabrua, lehoin marrumalari bat bezala,
zuen inguru dabila, zein irets dezakeen bilha:

9 Resisti iezozue fedez fermu *zaretelarik*:
dakizuelarik ezen afliktione berak zuen anaien
konpainia mundukoan konplitzen diradela.

10 Baina gratia guziaren lainkoak, zeinek deithu baikaitu bere gloria eternalera Iesus Krist *launean*, apur bat sufritu dugunean, konpli konfirma, fortifika eta finka zaitzatela.

11 Hari gloria eta indar sekula sekulakotz. Amen.

12 Siluano *gure* anaie, uste dudan bezenbatean, fidelarekin, laburki eskribatu drauzuet: exhortatzen zaituztedalarik, eta testifikatzen dudalarik haur dela lainkoaren gratia egiazkoa, zeineten baitzaudete.

13 Salutitzen zaituzte Babiloneko *Eliza* zuekin batean elejituak, eta ene seme Mark-ek.

14 Saluta ezazue elkar karitatezko potez. Bakea *dela* zuekin guziokin, zein baitzarete Iesus Kristean, Amen.

S. PIERRIS APOSTOLUAREN BIGARREN EPISTOLA KATHOLIKOA

KAP. I.

*1 Iainkoaren iustitia eta ezagutzea.
4 Promesak. 5 Fedea. berthutea.
Eszientia. 6 Tenperantia. Patientia. 7
Iainkoaren beldurra. Karitatea. 10
bokationea eta elektioea. 11
Kristen resuma. 14 Aitzinetik
Pierrisek bere herioa ikusten. 19
Profeten hitzak. 21 Profetia.*

1 Simeon Pierrisek Iesus Kristen zerbitzari eta Apostoluak, prezio bereko fedea gure Iainkoaren eta Iesus Krist Salbadorearen iustitiaz gurekin obtenu dutenei:

2 Gratia eta bake multiplika dakizuela Iainkoaren eta Iesus gure launaren ezagutzeaz:

3 Nola haren puisanza dibinoak eman baitrauzkigu bizitzeko eta pietatezko *diraden* gauza guziak, gu bere gloriara eta berthutera deithu gaituenaren ezagutzeaz:

4 Zeinez promes handiak eta preziosoak eman izan baitzaizkigu, hezaz natura dibinoan partizipant egin zaiteztenzat, munduan guthiziamenduz den korrupcionetik.

5 *Zuek ere* bada hunetara berera dilijentia guzia ekarten duzuelarik eratxeki iezozue gainerra zuen fedeari berthute, eta berthuteari eszientia:

6 Eta eszientiari tenperantia, eta tenperantiari patientia, eta patientiari pietatea:

7 Eta pietateari anaietasunezko onheriztea, eta anaietasunezko onherizteari karitatea.

8 Ezen baldin gauza hauk zuetan badirade, eta abundatzen badirade etzaituzte laxo ez fruktu gabe utziren Iesus Krist gure launaren ezagutzean.

9 Baina gauza hauk eztituena itsu da, deus urrundarik eztakusalarik, ahanzirik bere bekatu zaharretarik purifikatu izan dela.

10 Halakotz, anaieak, enplega zaitezte afek-tionatuki zuen bokationearen eta elektionearen fermu egiten, ezen gauza hauk egiten dituzuela, etzarete nehoiz ere eroriren.

11 Ezen hunela Iesus Krist gure launaren eta Salbadorearen resuma eternaleratko sartzea abundoski administraturen zaizue.

12 Bada, eznaiz nagi izanen gauza hauzaz bethiere zuen orhoit erazitera, iakinsu eta konfir-matuak bazarete ere egia hunetan.

13 Ezen gauza iustoa estimatzen dut, tabernakle hunetan naizeno, adbertimenduz zuen iratzartzea:

14 Dakidalarik ezen ene tabernakle hunen utzitea sarri izanen dela, Iesus Krist gure launak deklaratu ere drautan bezala.

15 Baina pena ere ezarriren dut zuek ene parti ondoan gauza hauzaz mentione egin ahal dezazuen.

16 Ezen eztrauzuegu ezagutzera eman Iesus Krist gure launaren botherea eta adbenimendua, fable artez desgisatuei iarreikiz: baina gure begiez haren maiestatea ikusi dugunok bezala:

17 Ezen rezebitu ukan zuen lainko Aitaganik ohore eta gloria, hunelako boz bat hari igorri izanik gloria magnifikotik, Haur da ene Seme maittea, zeinetan neure atsegin ona hartzen baitut:

18 Eta guk boz zerutik igorri haur enzun ukan dugu, harekin batean ginadela mendi sainduan.

19 Eta badugu Profeten hitz guzizko fermua, zeini behatzeaz ungi egiten baituzue, leku ilhuetan argitzen duen kandela bati bezala, egunak argitzen has dezakeno, eta artizarra ilki daiteno zuen bihotzetan.

20 Baldin lehenik aditzen baduzue haur, ezen Eskripturako profetiarik batre eztela deklarati-one partikulareta korik.

21 Ezen profetia ezta gizonen borondatez ekarria izan lehenago: baina Espiritu sainduaz inspiraturik minzatu izan dirade lainkoaren gizon sainduak.

KAP. II.

1 Profeta falsuak. Perditionetako sektak. 2 Egiazko bidea

*blasfematzen. 5 Noe. 6 Sodoma eta
Gomorha. 7 Lot. 15 Balaam. 19
Libertatea. Suiektionea.*

1 Baina profeta falsuak ere izan dirade populuaren artean, zuen artean ere doktor falsuak izanen diraden bezala, zeinek sekretuki sar eraziren baitituzte perditionetako sektak: eta hek redemitu dituen launa ukaturen baitute, bere buruen gainera perditione lasterra erekarten dukeitelarik.

2 Eta anhitz iarreikiren zaie haien insolentiei: zeinezaz egiazko bidea blasfematuren baita.

3 Halako maneraz non abaritiaz enganiotako hitzez merkatalgoa zuegaz eginen baitukeite: zeinen gainera kondemnationeak ia aspaldidanik ezpaitu beranzen, eta zeinen perditionea ezpaitatza lo.

4 Ezen baldin lainkoak Aingeru bekatu egin ukan dutenak gupida ukan ezpaditu: baina ilhunduratako kadenez abismaturik liuratu ukan ditu, iudizioko reserbaturik.

5 Eta lehenagoko mundua eztu gupida ukan, baina Noe, iustitia tronpetaria bera zortzigarren

begiratu ukan du, dilubioa gaixtoen mundura erekarririk.

6 Eta Sodomako eta Gomorhako zibitateak ilhaundurik subuersionetara kondenatu ukan ditu, eta egin ukan du exenplu liraden gaixtoki bizi liradenen.

7 Eta Lot iustoa abominablen konbersatione disolutionezkoaz fatigatua delibratu ukan du.

8 (Ezen iusto hunek haien artean habitatzen zelarik ikustez eta enzutez egunetik egunera tormentatzen zuen *bere* bihotz iustoa, *haien* obra gaixtoen kausaz)

9 Badaki launak fidelen tentationetarik delibratzen: eta iniustoen iudizioko eguneko tormentatu diradenzat reserbatzen:

10 Eta prinzipalki haragiari darreitzala, guthizia satsutara erorten diradenen eta gehientasuna menospreziatzen dutenen: *hek* audazioso eta bere buruez pagu *izanez*, eztirade beldur dignitatez gaizki minzatzera.

11 Aingeruek, indarrez eta puisanzaz handiago badirade ere, eztute haien kontra launaren aitzinean gaitzerraitezko sententiarik emaiten.

12 Baina hauk, animal brutal bere sensualitateari darreitzanak bezala, hatzamaiteko eta desegiteko eginak dirade, aditzen eztituzten gauzak bituperatzen dituztela, bere korrupzione beraz deseginen dirade:

13 Rezebitzen dutela iniustitiazko saria, boluptatetan estimatzen dituztela egun orozko delizioak, thatxak eta makulak, dostatzen diradela bere enganioetan zuekin banketatuz.

14 Begiak adulterioz betheak dituztela, eta bekatu egitetik gelditzen eztakitela, arima inkonstantak bazkatzen dituztela, bihotza abaritiatara exerzitatua dutela, malediktionezko haur diradela:

15 Bide zuzena utzirik errebelatu izan dirade, Balaam Bosorensen *mearen* bideari iarreiki izanik, zeinek inikitatezko sariari on eritzi baitzaraukan: eta bere inikitateaz benzutu izan zen:

16 *Ezen* asto eme uztarriko batek boz humanoz minzaturik reprimi zezan Profetaren frenesia.

17 Hauk dirade ithurri ur gabeak, hodei haize buhunbaz erabiliak, eta ilhunbezko lanhoa sekulakotz begiratzen zaie.

18 Ezen banitatezko propos guziz arrogantak pronuntiatzen dituztela bazkatzen dituzte haragiaren guthiziez eta insolentiez, erroretan konbersatzen dutenatarik egiazki ihes egin zutenak:

19 Libertate haiei prometatuz berak korrup-tionearen esklabo diradelarik, ezen norzaz nehor benzutu izan baita, hura haren esklabo egin izan da.

20 Ezen baldin munduko satsutasunetarik retiratu diraden ondoan Iesus Krist launaren eta Salbadorearen ezagutzeaz, guziagatik ere berriz hetan nahasirik benzut baditez, haien azken konditionea lehena baino gaixtoago egin izan da.

21 Ezen hobe ukan zukeiten iustitiazko bidea ez luten ezagutu, ezen ez ezaguturik *hura*, eman izan zaien manamendu saindutik gibeleratzea:

22 Baina haiei heldu izan zaie proberbio egiazkoz erraiten ohi dena, Ora itzuli izan da bere isurtze propria: eta, Ahardi ikuziaitzuli izan da istilera iraulzkatzera.

KAP. III.

3 Azken denboretako trufariez. 7 Zeruak suko reserbatu. 9 launa patient. 12 Haren eguna. 13 Zeru berriak eta lur berria. 15 S. Paulen epistolez.

1 Maiteak, ia bigarren epistola haur eskribatzen drauzuet, zeinez iratzartzen baitut adbertimenduz zuen adimendu xahua.

2 Orhoit karetenkat Profeta sainduz aitzinetik erran izan diraden, hitzez, eta gure manamenduaz, zein baikara launaren eta Salbadorearen Apostolu.

3 Haur lehenik dakizuelarik: ezen ethorriren diradela azkeneko egunetan trufariak, bere gut hizia proprien araura ebiltzen diradela.

4 Eta dioitela, Non da haren adbenimenduko promesa? ezen Aitak lokartu izan diradenaz geroztik, gauza guziek hunela kontinuatzen dute kreationearen hatseandanik.

5 Ezen haur bere nahiz ignoratzen dute, nola zeruek lehenagodanik bere izatea ukan duten,

eta lurrak konsistitzen zelarik ur barnean eta ur artean, lainkoaren hitzaz.

6 Halakotz orduko mundua ur dilubio batez estali izanik galdu izan da.

7 Baina orain diraden zeruak eta lurra hitz beraz reserbaturik suko begiratzen dirade iudizioaren eta gizon gaixtoen destruktioaren eguneko.

8 Baina hunez etzaretela ignorant, maiteak, ezen egun bat launa beithan milla urthe bezala, eta milla urthe egun bat bezala *diradela*.

9 Eztu beranzen prometatu duen launak (batzuk beranze estimatzen duten bezala) baina patient da guregana, ez nahiz nehor gal dadin, baina guziak emendamendutara datozen.

10 Baina ethorriren da launaren eguna, ohoi-na gauaz bezala, zeinetan zeruak habarrotsekin iraganen baitirade: eta elementak beroz deseginen dirade, eta lurra, eta hartako obra guziak xoil erreren dirade.

11 Beraz gauza hauk guziak desegin behar diradenaren gainean, nolako behar duzue izan konbersatione saindutan eta pietatezko obra-tan?

12 Begira zaudetela, eta lehiatzen zaretela lainkoaren egunaren adbenimendura, zeinetan zeruak iraxekirik deseginen baitirade, eta elementak beroz urthuren?

13 Baina promesaren araura zero berrien eta lur berriaren begira gaude zeinetan iustitia habitatzen baita.

14 Halakotz, maiteak, gauza hauen begira zaudetela, dilijentia ezarzue makula gabe eta reprotxu gabe harzaz eriden zaitezten bakerekin.

15 Eta gure launaren patientia salbamendu estima ezazue: Paul gure anaie maiteak ere hari eman izan zaion sapientiaren araura eskribatu ukan drauzuen bezala:

16 Kuasi bere epistola guzietan nola puntu hauzaz minzo baita: zeinetan baitirade batzu aditzeko gaitzik, ignorantek eta fermetate gabek makurtzen dituztenik, berze Eskripturak ere bezala, bere buruen destruktionetan.

17 Zuek beraz, maiteak, engoitik adbertituak zaretenez geroztik, begirauzue abominablen enganioz berzekin eraman izanik, zuen fermetatetik eror etzaitezten.

18 Baina abanza zaitezte Iesus Krist gure launaren eta Salbadorearen gratian eta ezagutzean: zeini *de la* gloria orain eta eternitateko egunerano. Amen.

S. IOAN APOSTOLUAREN LEHEN EPISTOLA KATHOLIKOA

KAP. I.

*1 Bizitzeko hitza. 3 Komunione
lainkoarekin eta Iesus Kristekin. 7
Argian ebiltea. Kristen odola. 8
Guziak bekatore.*

1 Hatsean-danik zena, enzun ukan duguna, gure begiez ikusi ukan duguna, kontenplatu ukan duguna, eta gure eskuek hunki ukan dutena bizitzeko Hitzaz.

2 (Ezen bizitzea manifestatu izan da, eta ikusi ukan dugu, eta testifikatzen dugu eta denuntiatzen drauzuegu bizitze eternala, zein baitzen Aita baithan, eta agertu izan baitzaiku.)

3 Eta ikusi eta enzun ukan duguna, *diot*, denuntiatzen drauzuegula, kuek ere komunione

duzuenzat gurekin, eta gure komunionea *da* Aitarekin eta Iesus Krist haren Semearekin.

4 Eta gauza hauk eskribatzen drauzkizuegu zuen bozkarioa konpli dadinzat.

5 Haur da bada harenganik enzun ukan dugun mandatalgoa eta denuntiatzen drauzueguna, Ezen lainkoa dela argia, eta ilhunberik batre hura baithan eztela.

6 Baldin erran badezagu ezen komunione dugula harekin, eta ilhunbean bagabiltza, gezurra erraiten dugu, eta eztugu egiten egia.

7 Baina baldin argian bagabiltza, hura argian den bezala, komunione dugu elkarrekin harekin batean, eta Iesus Krist haren Semearen odolak purgatzan gaitu bekatu orotarik.

8 Baldin erran badezagu ezen bekatuak eztegu, gure buruak seduzitzen ditugu, eta egia gutan ezta.

9 Baldin konfesa baditzagu gure bekatuak, fidel da eta iusto, guri gure bekatuen barkatze-ko, eta inikitate orotarik gure purgatzeko.

10 Baldin erran badezagu ezen eztugula bekatuak egin: gezurti egiten dugu hura, eta haren hitza ezta gutan.

KAP. II.

1 Gure adbokata Krist. 3 Iainkoaren ezagutzea. 5 Haren hitzaren begiratzea. 7 Manamendu zaharra eta berria. 11 Bere anaieri gaitz eritzitea. 12 Bekatuak nola barkatzen. 15 Munduari ez on eritziteko. 16 Guthizia. 17 Iainkoaren borondatea. 18 Antekrist. 20 unktionea. 22 Gezurti nor. 23 Bizitze eternala. 29 Iainkoagatik iaioa zein.

1 Ene haurtoak, gauza hauk eskribatzen drauzkizuet, bekaturik eztagizuenzat: eta baldin zenbeitek egin badu bekaturik, badugu adbokat bat Aita baithara, Iesus Krist iustoa.

2 Eta hura da apointamendua gure bekatuakgatik, eta ez gureakgatik solament, baina mundu guziarenakgatik ere

3 Eta hunetan dakigu ezen hura ezagutu dugula, baldin haren manamenduak begira badi-tzagu.

4 Nork erraiten baitu, Ezagutu dut hura: eta haren manamenduak ezpaititu begiratzen, gezurti da, eta egia ezta hura baithan:

5 Baina nork begiratzen baitu haren hitza egiazki hura baithan lainkoaren amorioa konpli-tu da: hunezaz dakigu ezen hura baithan garella.

6 Nork erraiten baitu hura baithan dagoela, behar du, nola hura ebili baita, hala hainak ere ebili

7 Anaieak, eztrauzuet manamendu berri bat eskribatzen, baina manamendu zahar hatsean-danik ukan duzuen: manamendu zaharra hatseandanik enzun ukan duzuen hitza da.

8 Berzalde manamendu berri bat eskribatzen drauzuet, zein baita egiazko hartan eta zuetan: zeren ilhunbea iragan baita, eta egiazko argiak ia egiten baitu argi.

9 Nork erraiten baitu ezen argian dela, eta bere anaieri gaitz baitaritza hura ilhunbean da oraindrano .

10 Bere anaieri on daritzana argian dago, eta eskandalorik ezta hura baithan.

11 Baina bere anaieri gaitz daritzana, ilhunbean da, eta ilhunbean dabila, eta eztaki norat ioaiten den: ezen ilhunbeak haren begiak itsutu ukan ditu.

12 Eskribatzen drauzuet, haurtoak, zeren zuen bekatuak barkatu baitzaizkizue haren ize-nagatik.

13 Eskribatzen drauzuet, aitik, zeren ezagutu baituzue hatsean-danik dena. Eskribatzen drauzuet, gazteak, zeren gaixtoari garaithu baitzaizkiote. Eskribatzen drauzuet, haur xipiak, zeren ezagutu ukan baituzue Aita.

14 Eskribatu ukan drauzuet, aitik, zeren ezagutu baituzue hatsean-danik dena. Eskribatu drauzuet, gazteak, zeren borthitz baitzarete, eta lainkoaren hitza zuetan egoiten baita, eta gaixtoari garaithu baitzaizkiote.

15 Eztuzuela maite mundua, ez munduko gauzak: baldin zenbeitek maite badu mundua, ezta Aitaren amorioa hura baithan.

16 Ezen munduan den gauza guzia (*hala nola*, haragiaren guthizia, eta begien guthizia,

eta bizitzearen arrogantia) ezta Aitaganik baina da munduaganik.

17 Eta mundua iragaiten da, eta haren guthizia, baina lainkoaren borondatea egiten duena dago sekulakotz.

18 Haurtoak, azken denbora da: eta nola enzun ukan baituzue ezen Antekrist ethorteko dela, oraindanik ere Antekristak anhitz dirade: nondik baitakigu ezen azken denbora dela.

19 Gure artetik ilki izan dirade baina etzira-den gutarik: ezen baldin gutarik izan balirade, gurekin egon ziratekeen: baina *haur egin izan da* manifesta ledinzat ezen guziak eztiradela gutarik.

20 Baina zuek baduzue unktionea Sainduaganik, eta ezagutzen dituzue gauza guziak.

21 Eztrauzuet eskribatu ukan, egia ezagutzen eztuzuelakotz: aitzitik zeren hura ezagutzen duzuen, eta gezurrik batre ezpaita egiatik.

22 Nor da gezurti, Iesus dela Krist ukatzen duena baizen? hura da Antekrist, zeinek Aita eta Semea ukatzen baititu.

23 Nork ere ukatzen baitu Semea, hark Aita ere eztu: nork ere aithortzen baitu Semea, hark Aita ere badu.

24 Beraz hatsean-danik enzun ukan duzuen zuetan hego: ezen baldin zuetan badago hatseandantik enzun ukan duzuen, zuek ere Semea baithan eta Aita baithan egonen zarete.

25 Eta haur da berak guri prometatutik draukun promesa, *baita*, bizitze eternala.

26 Gauza hauk eskribatzen drauzkizuet, zuek seduzitzen zaituztenez.

27 Baina harengatik rezebitu ukan duzuen unktionea dago zuetan, eta eztuzue mengoarik nehork irakats zaitzaten: baina unktionek berak gauza guzietatik irakasten zaituzten bezala, eta egiati da, eta ezta gezurti: eta unktionek irakatsi zaituzten bezala, hartan egonen zarete.

28 Orain bada, *ene* haurtoak, zaudete hartan: ager dadinean aseguranza dugunzat, eta haren aitzinean konfus ezgarenzat haren adbenimenduan.

29 Baldin badakizue ezen hura iusto dela, iakizue ezen nork ere iustitia egiten baitu, *hura* harengatik iaio dela.

KAP. III.

*1, 16 Jainkoaren eta Kristen
karitatea. 2 Jainkoaren haur. 3
Esperanza duena. 4 Bekatua. Iusto
nor. 9 Jainkoaren hazia. 10
Deabruaren haurrak. 11 Elkarganako
amorioa. 12 Kain. 15 Gizerhaile nor.
17 Hurkoaganako amorioa. 19
Bihotzeko seguranza. 23 Jainkoaren
manamendua eta Espiritua.*

1 Ikusazue nolako karitatea guri eman draukun Aitak, *baita*, jainkoaren haur deitha gaitzen: halakotz munduak ezgaitu ezagutzen, zeren ezpaitu hura ezagutzen.

2 Maiteak, orain jainkoaren haur gara, baina oraino ezta agertu izanen garena: badakigu ordea ezen *hura* ager dadinean, hura irudiko dugula: ezen den bezala ikusiren dukegu hura.

3 Eta nork ere esperanza haur baitu hura baithan, purifikatzen du bere burua, hura ere pur den bezala.

4 Nork ere bekatu egiten baitu, Legearen kontra ere egiten du: eta bekatua da Legearen kontra dena.

5 Eta badakizue ezen hura agertu izan dela gure bekatuak ken litzanzat, eta bekaturik hura baithan ezteela.

6 Hura baithan egoiten denek ezte bekaturik egiten: nork ere bekatu egiten baitu, ezte ikusi hura, eta ezte ezagutu hura.

7 Haurtoak, nehork seduzi etzaitzatela: iustitia egiten duena, iusto da, hura iusto den bezala.

8 Bekatu egiten duena, deabruaganik da: ezen hatseandanik deabruak bekatu egiten du: hunetakotz agertu izan da lainkoaren Semea, desegin litzanzat deabruaren obrak.

9 Nor ere iaio izan baita lainkoaganik, *hark* bekaturik ezte egiten: ezen haren hazia haina baithan dago, eta ezin daidi bekaturik, zeren lainkoaganik iaio izan baita.

10 Hunetan ageri dirade lainkoaren haurrak eta deabruaren haurrak: nork ere iustitia ezpaitu egiten, eta ezpaitu bere anaia onhesten *hura* ezta lainkoaganik.

11 Ezen haur da hatseandanik enzun ukan duzuen mandatalgoa, Elkarri on eritzi diezogun.

12 Ez Kainek bezala, zein baitzen Gaixtoaganik, eta *zeinek* hil baitzuen bere anaia. Eta zergatik hil ukan zuen? zeren haren obrak gaixto baitziraden, eta haren anaiearenak iusto.

13 Ene anaieak, eztezazuela mirets baldin zuei gaitz badaritzue munduak.

14 Guk badakigu ezen iragan garela heriotik bizitzera, ezen on dariztegu anaiei: anaieari on eztaritzana, herioan dago.

15 Nork ere gaitz baitaritzza bere anaieri *hura* gizerhaile da: eta badakizue gizerhailek batek ere eztuela bizitze eternal bere baithan dagoena.

16 Hunetan ezagutu ukan dugu karitatea, zeren hark bere bizia guregatik ezarri ukan baitu, guk ere beraz *gure* biziak anaieakgatik ezarri behar ditugu.

17 Bada nork ukanen baituke munduko one-
tarik, eta ikusiren baituke haren anaieak nezesi-
tate dukeela eta ertsiren baitrautza bere halsa-
rrak, nolatan lainkoaren karitatea egoiten da
hura baithan?

18 Ene haurtoak, eztezagula on eritzi hitzez
ezeta mihiz, baina obraz eta egiaz:

19 Eta hunetan ezagutzen dugu ezen egiatik
garela, eta haren aitzinean seguraturen ditugu
gure bihotzak.

20 Ezen baldin kondemna bagitza gure biho-
tzak, handiago da lainkoa gure bihotza baino,
eta ezagutzen ditu gauza guziak.

21 Maiteak, baldin gure bihotzak kondemna-
tzen ezpagaitu, seguranza dugu lainkoa baithan.

22 Eta zeren ere eska bagaitz, rezebitzen
dugu harenganik: ezen haren manamenduak
begiratzen ditugu, eta haren aitzinean plazent
diraden gauzak egiten ditugu.

23 Eta haur da haren manamendua, Sinhets
dezagun Iesus Krist haren Semearen izenean,
eta elkarri on daritzogun, manamendu eman
drakun bezala.

24 Eta haren manamenduak begiratzen dituen, hura baithan egoiten da, eta hura haina baithan: eta hunezaz ezagutzen dugu ezen hura egoiten dela gutan, *da iakiteko*, eman ukan draukun Espirituaz.

KAP. III.

1 Espirituak nola ditugun forogatzeko. 2 Iainkoaren Espiritua, eta Antekristena: egiazkoa, eta errorezkoa. 10 Iainkoaren gureganako karitatea. 14 Krist munduaren Salbadore. 15 Iainkoaren Semea. 16 Iainkoa karitate. 20 Anaietasunezko onheriztea.

1 Maiteak, espiritu guzia eztezazuela sinhets, baina forogaitzazue espirituak eia Iainkoaganik diradenez: ezen anhitz profeta falsu ethorri izan dirade mundura.

2 Hunetan ezagut ezazue lainkoaren Espiritua. Iesus Krist haragitara ethorri dela konfesatzen duen espiritu guzia, lainkoaganik da.

3 Eta zein ere espirituk ezpaitu konfesatzen Iesus Krist haragitara ethorri izan dela *hura* ezta lainkoaganik: eta halako *espiritua* Antekristena da, zeinez minzaten enzun ukan baituzue, ezen ethorteko dela, eta ia orain munduan da.

4 Haurtoak, zuek lainkoaganik zarete, eta garaithu zaizte haiei: ezen handiago da zuetan dena, ezen ez munduan dena.

5 Hek mundutik dirade, halakotz munduaz minzo dirade, eta mundua haiei behatzen zaie.

6 Gu lainkoaganik gara: lainkoa ezagutzen duena, guri behatzen zaiku: lainkoaganik eztena guri etzaiku behatzen: hunetan ezagutzen dugu egiazko Espiritua, eta errorezko espirtua.

7 Maiteak, elkarri on eritzi diezogun: ezen karitatea lainkoaganik da: eta nork ere onhesten baitu, *hura* lainkoagaoik iaio da, eta ezagutzen du lainkoa.

8 Onhesten eztuenak, eztu ezagutzen lainkoa: ezen lainkoa karitate da.

9 Hunetan manifestatu izan da lainkoaren gureganako karitatea, zeren bere Seme bakoitza igorri ukan baitu lainkoak mundura, harzaz bizi garenzat.

10 Hunetan da karitatea, ez zeren guk onhetsi dugun lainkoa, baina zeren hark onhetsi baikaitu gu, eta igorri ukan baitu bere Semea gure bekatuakgatik apointkamendu lizenzat.

11 Maiteak, baldin hunela lainkoak onhetsi baikaitu, guk ere behar dugu elkar onhetsi.

12 lainkoa eztu nehork ikusi egundano: baldin elkar maite badugu lainkoa gutan dago, eta haren karitatea konplitu da gutan.

13 Hunetan ezagutzen dugu ezen hartan egoiten garela, eta hura gutan, zeren bere Espiritutik eman baitrauku.

14 Eta guk ikusi ukan dugu, eta testifikatzen dugu ezen Aitak igorri ukan duela Semea munduaren Salbadore *izateko*.

15 Nork ere konfesaturen baitu ezen Iesus dela lainkoaren Semea, lainkoa hura baithan dago, eta hura lainkoa baithan.

16 Eta guk ezagutu eta sinhetsi dugu lainkoak guregana duen karitatea. lainkoa karitate da:

eta karitatean egoiten dena, lainko baithan egoiten da, eta lainkoa hura baithan.

17 Hunezaz konplitu izan da karitatea guregana, iudizioko egunean seguranza dugunzat, zeren hura den bezalako baikara gu ere mundu hunetan.

18 Beldurrik ezta karitatean: aitzitik karitate perfektuak kanpora egoizten du beldurra: ezen beldurak tormenta du: eta beldur dena ezta konplitua karitatean.

19 Guk hari on daritzagu, zeren hark lehenik onhetsi baikaitu gu.

20 Baldin nehork erran badeza, Maite dut lainkoa: eta bere anaieari gaitz badaritza: gezurti da: ezen bere anaie dakusana maite eztuenak, ikusten eztuen lainkoa nola maite ahal duke?

21 Eta manamendu haur dugu harenganik, lainkoa maite duenak, maite duen bere anaiea ere.

KAP. V.

1 Iainkoaganik iaioa zein. 3 Iainkoaren manamenduak. 4 Biktoria. 5 Fedea. 7 Iainkoaren testifikationea eta gizonena. 10 Iainkoaren Semea baithan sinhestea. 11 Bizitze eternala Iainkoaren Semean. 14 Fedezko othoitza. 16 Heriotara den bekatua. 18 Bekaturik egiten eztuena zein. 20 Krist Iainko egiazko. 21 Idolak.

1 Nork ere sinhesten baitu ezen Iesus dela Krist *hura* Iainkoaganik iaioa da: eta nork ere on baitaritzaz enjendratu duenari, on daritzaz harenaganik enjendratu izan denari ere.

2 Hunetan ezagutzen dugu ezen on daritzegula Iainkoaren hurrei, Iainkoari on daritzagunean, eta haren manamenduak begiratzen ditugunean.

3 Ezen haur da Iainkoaren karitatea, haren manamenduak begira ditzagun, eta haren manamenduak gaitzak eztirade.

4 Ezen zer ere lainkoaganik iaio baita, garaitzen zaio munduari: eta haur da biktoria munduari garaithu zaiona, gure fedea.

5 Nor da munduari garaitzen zaiona, Iesus dela lainkoaren Semea sinhesten duena baizen?

6 Haur da Iesus Krist urez eta odolez ethorri izan dena: ez urez solalment, baina urez eta odolez: eta Espiritua da testifikatzen duena ezen Espiritua egia dela.

7 Ezen hirur dirade testifikatzen dutenak zeruan, Aita, Hitzia, eta Espiritu saindua: eta hauk hirurak bat dirade.

8 Eta hirur dirade testifikatzen dutenak lurrean, Espiritua eta ura eta odola: eta hirur hauk batetan dirade.

9 Baldin gizonen testifikatzea rezebitzen badugu lainkoaren testifikatzea handiago da: ezen haur da lainkoaren testifikatzea, zein testifikatu ukan baitu bere Semeaz.

10 lainkoaren Semea baithan sinhesten duenak, badu lainkoaren testifikatzea bere baitan: lainkoa sinhesten ez tuenak, gezurti egiten du hura: ezen ez tuz sinhesti ukan. lainkoak bere Semeaz testifikatu ukan duen testifikatzea.

11 Eta haur da testifikatonea, ezen bizitze eternala eman draukula lainkoak: eta bizitze haur haren Semean da.

12 Semea duenak, badu bizitzea: lainkoaren Semea eztuenak, eztu bizitzea.

13 Gauza hauk eskribatu ukan drauzkizuet zuei, lainkoaren Semearen izena baithan sinhesten duzuenoi: dakizuenzat ezen baduzuela bizitze eternala, eta sinhets dezazuenzat lainkoaren Semearen izena baithan.

14 Eta haur da lainkoa baithan dugun konfidanza, ezen baldin zerbait eska bagaitez haren borondatearen araura, enzuten gaituela.

15 Eta baldin badakigu ezen hark enzuten gaituela, zer ere eska bagaitez: badakigu ezen baditugula galdegiten drauzkiogun eskeak.

16 Baldin zenbeitek ikusten badu bere anaie bekatu egiten duela heriora ezten bekatuz, eskatoren zaio *lainkoari*, eta emanen drauka hari bizitze: bekatu egiten dutenei *diot* ez heriora. Bekatua denean heriora, eztiat erraiten harengatik othoitz dagian.

17 Inikitate guzia bekatu da: baina bada bekatu heriora eztenik.

18 Badakigu ezen nor ere lainkoaganik iaio baita, *hark* eztuela bekaturik egiten: baina lainkoaganik enjendratu izan denak, begiratzen du bere burua, eta Gaixtoak eztu hunkitzen hura.

19 Badakigu ezen lainkoaganik garela: eta mundu guzia gaixtoan datzala.

20 Baina badakigu ezen lainkoaren Semea ethorri izan dela, eta eman draukula adimendu egiati denaren ezagutzeko: eta gara egiatian, Iesus Krist haren Semean: haur da egiazko lainkoa, eta bizitze eternala.

21 Haurtoak, begira zaitetze idoletarik. Amen.

S. IOANEN

BIGARREN EPISTOLA

5 Elkarganako amorioa. 6 Iainkoaren manamendua. 7 Antekrist. 9 Kristen doktrina. 10 Heretikoekin ez komunizatzeko.

1 Anzianoak andre elejituari, eta haren haurrei, zein nik egiaz maite baititut, eta ez nik neurorrek *solament*, baina egia ezagutu ukan duten guziek ere:

2 Gutan dagoen eta sekulakotz gurekin izan den egiaren kausaz:

3 Gratia, miserikordia, bakea dela zuekin Iainko Aitaganik, eta Aitaren Seme Iesus Krist launaganik, egiarekin eta karitaterekin.

4 Alegeratu izan naun hagitz, zeren eriden dudan hire haurretarik egian dabilzala, manamendu rezebitu ukan dugun bezala Aitaganik.

5 Eta orain othoitz egiten draunat, andrea, ez manamendu berririk eskribatzen banaraun beza-

la, baina hatseandantik ukan duguna, elkarri on daritzogun.

6 Eta haur da karitatea, ebil gaitezen haren manamenduen araura: haur da manamendua hatseandantik enzun ukan duzuen bezala, hartan ebil zaitezten.

7 Ezen anhitz abusari sarthu izan da mundura, zeinek ezpaitute konfesatzen Iesus Krist haragitan ethorri izan dela: halakoa abusari da eta Antekrist.

8 Gogoauzue zuen buruetara, gal eztitzagun- kat egin ditugun gauzak, baina sari bethea reze- bi dezagunzat.

9 Nork ere iragaiten baitu, eta ezpaita egoi- ten Kristen doktrinan, lainkoa eztu: Kristen dok- trinan egoiten denak Aita eta Semea baditu.

10 Baldin zenbeit ethorten bada zuetara, eta doktrina haur ezpaitu ekarten, hura eztezazuela rezebi etxera, ezeta saluta.

11 Ezen hura salutatzan duenak komunika- tzen du haren obra gaixtoekin.

12 Anhitz gauza banuen ere zuei eskribatze- korik, eztitut paperez eta tintaz eskribatu nahi ukan, baina esperanza dut ethorriren naizela

zuetara eta ahoz aho minzaturen, gure bozkarioa konplitu denzat. 13 Hire ahizpa elejituaren haurrek salututzen aute.

S. IOANEN

HIRURGARREN EPISTOLA

*4 Integroki ebiltea. 8 Aflijituak
rezebitzeko. 9 Diotrefes. 11 Ungi
egiten duena lainkoaganik. 12
Demetrius.*

1 Anzianoak Gaio maite nik egiazki on dari-tzadanari.

2 Maitea, desiratzen diat gauza guzietan prospera dezan, eta sendo aizen, hire arima prospero den bezala.

3 Ezen alegeratu izan nauk hagitz ethorri izan diradenean anaieak eta testifikatu ukan dute-nean hire integritateaz, nola integroki ebiltzen baitaiz.

4 Haur baino bozkario handiagorik eztiat, *zein baita*, enzuten dudanean ene haurrak integroki dabiltzala.

5 Maitea, fidelki egiten duk zer ere egiten baituk anaietara eta estranjeretara.

6 Zeinek testifikatu ukan baitute hire karitateaz Elizaren presentian: hek baldin gida badi-tzak lainkoari dagokan bezala, ungi daidikek.

7 Ezen haren izenagatik partitu izan dituk, deus hartzen etzutela Jentiletarik.

8 Guk beraz behar zitiagu rezebitu halakoak, egia aiuta dezagunzat.

9 Eskribatu diarokat Elizari: baina haien artean lehen izan aiher denak, Diotrefesek ezgaitik rezebitzen.

10 Halakotz, baldin ethor banadi aipaturen zitiat hark egiten dituen obrak, elhe gaixtoz dadasala gure kontra: eta hauzaz ez kontentez, ezitik berak anaieak rezebitzen, eta *rezebitu* nahi dituztenak enpatxatzen zitik eta Elizatik egoizten.

11 Maitea, eztezala imita gaitza, baina ona: ungi egiten duena, lainkoaganik duk: baina gaizki egiten duenak ezтик ikusi lainkoa.

12 Demetrioiz guziek testifikatzen die, eta egiak berak ere: baina guk ere testifikatzen diagu, eta ezagutu ukan duzue ezen gure testifikationea egiazko dela.

13 Banian anhitz gauza eskribatzekorik, baina eztrauat tintaz eta hegatsez eskribatu nahi.

14 Baina esperanza diat sarri ikusiren auda-
la, eta ahoz aho minzaturen garela.

15 Bakea *dela* hirekin. Salututzen aute adis-
kidek. Salutaitzak adiskideak izengilatuki.

S. IUDA APOSTOLUAREN EPISTOLA KATHOLIKOA

*1 Sanktifikatuak lainko Aita launean.
3 Bihotz hartzeko fedeagatik. 4
lainkoa eta Krist renuntiatzen
dituztenak. 11 Kain, Balaam, Kore.
17 Apostoluen hitzez orhoit izateko.
20 fedea eta orationea. 23 Gaizki
doazenak harrapatzeko.*

1 Iuda Iesus Kristen zerbitzari eta lakesen anaieak, lainko Aitaz sanktifikatu, eta Iesus Kristez konserbatu diraden deithuei,

2 Misericordia eta bake eta karitate multiplika dakizuela.

3 Maiteak, artha handi dudalarik zuei eskribatzera salbamendu komunaz, nezesario izan zait zuei eskribatzera, exhorta zaitzatedanzat bihotz hartzera behin sainduei eman izan zaien fedeagatik.

4 Ezen ixilik sarthu izan dirade gizon batzu, lehen ia aspaldian damnatione hunetakotz enro-

latuak, jende lainkoaren beldur gabeak, gure lainkoaren gratia kanbiatzen dutela disolutionetara, eta lainko labe bakoitza, eta Iesus Krist gure launa renuntiatzen dituztela.

5 Bada *gauza hauk* aipatu nahi drauzkizuet, ikusirik ezen haur behin badakizuela, ezen launak populua Egiptetik delibratu zuenean, sinhetsi ukan etzutenak gero desegin ukan zituela.

6 Eta Aingeru bere hatsea begiratu ukan etzutenak, baina bere prinzipaltasuna utzi ukan zutenak, ilhunbe azpian sekulako estekaduretan egun handiko iudiziorano reserbatu ukan dituela.

7 Sodoma eta Gomorra, eta haien aldirietako hiri haien moldera paillardatu zutenak, eta berze haragiaren ondoan ioan ziradenak, exenplutan proposatu izan diraden bezala, su eternaleko pena sufritzen dutela.

8 Halaber ordea hauk ere lokarturik bere haragia satsutzen dute eta seignoria menospreziatzen eta dignitatez gaizki erraiten dute.

9 Guziagatik ere Mikel Arkanjelua, deabruaren kontra zihardukanean disputatzen zela Moisesen gorputzaz, etzedin bentura malediktionez-

ko sententiaren emaitera, baina erran zezan, launak mehatxazala.

10 Baina hauk, aditzen eztituzten gauza guzietan gaizki erraiten ari dirade, eta naturalki abre brutalek bezala ezagutzen dituzten gauza guzietan korrumpitzen dirade.

11 Malediktione haien gainean: ezen Kainen bideari iarreiki izan zaizkio, eta Balaam enganatu izan den alokairuaren enganioz abandonatu izan dirade, eta Kore eren kontradiktionearen araura desegin izan dirade

12 Hauk dirade zuen karitatezko othorenzetako makulak, zuekin banketatuz, nehoren beldur gabe bere buruak bazkatzen dituztela: hodei ur gabe haizez hara huna erabiliak: arbore zumel fruktu gabeak, bigetan hilak, erroetarik ilkiak:

13 Itsasoko baga dorpeak, bere bilenez hagun egiten dutela, izar errebelatuak, zeinei aprestatua baitaie tenebretako ilhumhea eternalki.

14 Eta profetizatu ukan du hauzaz ere Adamen ondoko zazpigarren gizonak, Enok-ek, zioela,

15 Huna, ethorri izan da launa bere millioenezko sailduekin, guzien kontra iujemendu emaitera, eta haien arteko gaixto guzien benutzerak obra gaixto gaixtoki egin dituzten guziez, eta bekatore gaixtoek haren kontra erran dituzten hitz gogor guziez.

16 Hauk dirade murmurazale, reboltari, bere guthizietan dabiltzanak, eta haien ahoa propos guzizko hantuz minzo da, personak admirationetan dituztela *bere* probetxuagatik.

17 Baina zuek, maiteak, zareten orhoit Iesus Krist gure launaren Apostoluez aitzinetik erran izan diraden hitzez:

18 Ezen erran ukan drauzuela, nola azken denboretan izanen diraden abusariak, *bere* gaixtakerietako guthizien araura eabiliren diradenak.

19 Hauk dirade bere buruak separatzen dituztenak, jende animalak, Espiritua ez tutenak.

20 Baina zuek, maiteak zuen fede guzizko sailduaren gainera zuen buruak edifikatzen dituzuela, eta Espiritu sailduaz othoitz egiten duzuela,

21 Elkar lainkoaren karitatean konserba ezazue, Iesus Krist gure launaren miseriardiaren begira zaudetela bizitze eternalekotzat.

22 Eta auzue batzuez pietate, diskretionez usatzen duzuela.

23 Eta berzeak iziduraz salbaitzazue, sutik arrapatzen dituzuela, haragiaz makulatu arropari ere gaitz daritzozuela.

24 Gainerakoaz, trebukatu gabe begira, eta bozkariorekin irreprensible bere gloria aitzinera eraman ahal zaitzaizketen lainko zuhur bakoitzari, *eta* gure Salbadoreari, *dela* gloria eta magnifientia eta indar eta puisanza, eta orain eta sekula guzietakotz. Amen.

IOANES THEOLOJIANOAREN APOKALIPSEA EDO REBELATIONEA

KAP. I.

*4 Ioanesez zazpi Elizei eskribatzen.
5, 8, 11, 17 Krist da hatsea eta fina.
16 Bi ahotako ezpata. 18 Ifernuaren
eta herioaren gakoak.*

1 Iesus Kristen Apokalipsea, zein eman ukan baitrauka hari lainkoak, deklaratu dietzenat bere zerbitzariari sarri egin behar diraden gauzak: eta *hark* bere Aingeruarekin igorriarik ioanes bere zerbitzariari signifikatu ukan drautza.

2 Zeinek testifikatu ukan baitu lainkoaren hitzak eta Iesus Kristen testimoniajeaz eta ikusi ukan dituen gauza guziez.

3 Dohatsu *da* irakurtzen duena, eta *dohatsu dirade* profetia hunetako hitzak enzuten, eta

hartan eskribatuak diraden gauzak begiratzen dituztenak: ezen denbora sarri da.

4 Ioanesez Asian diraden zazpi Elizei, Gratia *dela* eta bakea zuekin Denaren eta Zenaten eta Ethortekoaren partez: eta haren throno aitzinean diraden zazpi espirituen partez,

5 Eta Iesus Kristen partez, *zein* baita testimonio fidela, hiletariko lehen iaioa, eta lurreko regen Prinzea,

6 Zeinek onhetsi baikaitu eta ikuzi gure bekatuetarik bere odolaz: eta egin baikrauzkio Rege eta Sakrifikadore Iainko bere Aitari: hari *bada* dela gloria eta indar sekula sekulakotz. Amen.

7 Huna, ethorten da hodeiekin eta ikusiren du hura begi orok, hura zulhatu ukan dutenek ere: eta plagnituren dirade haren aitzinean lurreko leinu guziak: bai, Amen.

8 Ni naiz a eta w, *erran nahi baita*, hatsea eta fina, dio Iainak, Denak, eta Zenak, eta Ethorteko denak, *diot*, Bothere guzitakoak.

9 Ni Ioanes, eta Iesus Kristen afliktionean eta resuman eta patientian zuen anaiea eta laguna, Patmos deitzen den Islan ninzen, Iainkoaren hitzagatik, eta Iesus Kristen testimoniajeagatik:

10 Ninzen Espiritutan Igande egun batez, eta enzun nezan neure gibelean boz handi bat tron-peta batena bezala, zioela,

11 Ni nauk a eta w, lehena eta azkena, eta lkusten duana eskribezak liburu batetan, eta igor ezak Asian diraden zazpi Elizetara, *zein baitirade*, Efesen eta Esmirnen, eta Pergamen, eta Thiatiren, eta Sarden, eta Filadelfian eta Laodizean.

12 Orduan itzul nendin enekin minzatu izan zen bozaren ikustera: eta itzulirik ikus nitzan zazpi kandeler urhezkorik:

13 Eta zazpi urhezko kandelaren artean gizonaren Semea irudi zuen bat, *arropa* luze batez beztitua, eta urhezko gerriko batez ugatzen aldean gerrikatua.

14 Eta haren burua eta biloak *ziraden* xuri, ille xuria bezala, eta elhurra bezala: eta haren begiak suaren garra bezala:

15 Eta haren oinak kobre fina bezalako, labean bezala zaxetela: eta haren boza ur handien hotsa bezala.

16 Eta zituen bere esku eskuinean zazpi izar, eta haren ahotik bi ahotako ezpata zorrotz bat

ilkiten zen: eta haren begithartea *zen argi* iguzkiak bere indarrean argi egiten duen bezala.

17 Eta hura ikusi ukan nuenean, eror nendin haren oinetara hila bezala: eta ezar zezan bere esku eskuina ene gainean, zioztala, Eztuala beldurrik: ni nauk lehena eta azkena, eta bizi naizena:

18 Baina hil izan nauk, eta huna, bizi nauk sekula sekulakotz, Amen: eta zitiat ifernuaren eta herioaren gakoak.

19 Eskribaitzak ikusi ukan dituan gauzak, eta diradenak eta hauen ondoan egin behar diradenak:

20 Ene esku eskuinean ikusi ukan dituan zazpi izarren misterioa, eta zazpi kandeler urhezkoak. Zazpi izarrak, zazpi Elizetako Aingeruak dituk eta ikusi dituan zazpi kandelerak, zazpi Elizak dituk.

KAP. II.

2 Apostolu falsuak. 5 Penitentia. 6 Nikolaitak. 7 Bizitzeko arborea. 11

*Bigarren herioa. 13 Antipas. 14
Balaam. 16. Ezpata. 20 Iesabel. 28
Artizarra.*

1 Efesen *den* Elizako Aingeruari eskriba
iezok, Zazpi izarrak bere esku eskuinean dadu-
tzanak, zazpi kandeler urhezkoen artean dabila-
nak, gauza hauk erraiten zitik:

2 Bazeakizkiat hire obrak, eta hire trailla, eta
eta hire patientia eta nola gaixtoak ezin sufri
ditzakean, eta experimentatu dituan Apostolu
erraiten diradenak eta ezpaitirade: eta eriden
duk hek *diradela* gezurti.

3 Eta sufritu ukan duk, eta patientia duk, eta
trailla izan aiz ene izenagatik, eta ezaiz
enoiatu izan.

4 Baina badiat *zerbait* hire kontra, zeren eure
leheneko karitatea utzi ukan baituk.

5 Bada orhoit adi nondik erori aizen, eta dolu
bekik, eta leheneko obrak egin itzak: ezpere
ethorriren nauk hire kontra sarri, eta kenduren
diat hire kandelera bere lekutik, baldin dolu
ezpadakik.

6 Baina haur baduk, Nikolaiten obrei gaitz baitariztek, haei nik ere gaitz diarizteat.

7 Beharririk duenak enzun beza zer Espirituak erraiten drauen Elizei, Biktoriosoari emanen draukat iatera bizitzeko arboretik zein baita lainkoaren paradisoaren erdian.

8 Esmirnen *den* Elizako Aingeruari ere eskriba iezok, Lehenak eta azkenak, hil izan denak eta biztu izan denak, gauza hauk erraiten zitik:

9 Bazeakizkiat hire obrak, eta tribulationea, eta paubrezia (baina abrats aiz) eta bere buruak ludu egiten dituztenen blasfemia, eta ezpaitirade, baina *dituk* Satanen sinagoga.

10 Ezaizela sufritzeko dituan gauzen beldur: huna, deabruak zuetarik batzu presoinean ezarteko zitik foroga zaiteztenzat, eta ukanen duzue tribulatione hamar egunez: aizen fidel heriorano, eta emanen drauat bizitzeko koroa.

11 Beharririk duenak enzun beza zer Espirituak erraiten drauen Elizei, Biktoriosoari etzaio kalterik eginen bigarren herioaz.

12 Pergamen *den* Elizako Aingeruari ere eskriba iezok, Bi ahotako ezpata zorrotza duenak, gauza hauk erraiten zitik,

13 Bazeakizkiat hire obrak, eta non habitatzen aizen, Satanen thronoa den lekuan: eta ene izena badadukak, eztuk renuntiatu ukan ene fedea: Are Antipas ene martir fidela heriotara eman izan den egunean ere zuen artean, non habitatzen baita Satan.

14 Baina zerbait gauza apur badiat hire kontra, ezen baduala hor Balaamen doktrina edukiten dutenatarik, zeinek irakasten baitzuen Balak Israeleko haurren aitzinean eskandalo ezartera, idolei sakrifikatzen zaizten gauzatarik iatera, eta paillardatzera.

15 Halaber baduk *hik* Nikolaiten doktrina dadukatenatarik ere, zein baita nik gaitz daritzadana gauza.

16 Dolu bekik: ezpere, ethorriren nauk hire kontra sarri, eta bataillaturen nauk haien kontra neure ahoko ezpataz.

17 Beharririk duenak enzun beza zer Espirituak erraiten drauen Elizei, Biktoriosoari emanen draukat iatera gordea dagoen Mannatik, eta emanen draukat harri xuri bat: eta harrian izen berri bat eskribaturik, zein nehork ezpaitu eza gutzen, rezebitzen duenak baizen:

18 Thiatiren *den* Elizako Aingeruari ere eskriba iezok, lainkoaren Semeak, zeinek baititu begiak suaren garra bezala, eta zeinen oinek kobre fina irudi baitute, gauza hauk erraiten zitik,

19 Bazeakizkiat hire obrak eta hire karitatea eta zerbitzua eta fedea eta hire patientia eta hire obrak: eta hire azken obrak lehenak baino gehiago *dituk*.

20 Baina zerbait gauza apur badiat hire kontra: zeren permetitzen baituk lezabel emazteak (zeinek egiten baitu bere burua profetesak) irakats dezan, eta ene zerbitzariak seduzi ditzan, paillardatzera, eta idolei sakrifikatzen diradentarik iatera.

21 Eta eman diarokat denbora, bere paillardizatik emenda ledinzat: eta eztuk emendatu.

22 Huna, nik diat hura ezarten ohean: eta harekin adulteratzen dutenak guzizko tribulatio-ne handitan, baldin bere obretarik emenda ezpa-ditez.

23 Eta haren haurrak herioz hilen zitiat, eta iakinen die Eliza guziek ezen ni naizela gelzurrunak eta bihotzak examinatzen ditudana: eta zue-

tarik batbederari emanen diarokat bere obren araura.

24 Baina zuei goitiko Thiatiren zaretenoi erraiten drauzuet, Nor ere *baitirade* doktrina haur eztutenak, eta Satanen barnatasunak eza-gutu eztituztenak, dioiten bezala: eztut zuen gainera berze kargarik ezarriren.

25 Baina duzuen, edukazue ethor nadino.

26 Ezen biktoria ukan dukeenari, eta ene obrak finerano begiratu ditukeenari, emanen draukat bothere Jentilen gainean.

27 Eta gobernaturen dituke burdinazko zihorrez: eta xehekatoren dirade lurrezko unziak bezala, nik ere Aitaganik rezebitu ukan dudan bezala:

28 Eta emanen draukat hari artizarra.

29 Beharririk duenak, enzun beza zer Espirituak erraiten drauen Elizei.

KAP. III.

1 Iainkoaren zazpi espirituak. 5 Bizitzeko liburua. 7 Dabid-en gakoa.

12 Promesak. 15 Epel. 19 Iainkoaren
gaiztigamendua. 21 Krist Aitaren
Thronoan.

1 Sarden *den* Elizako Aingeruari ere eskribaiezok, Iainkoaren zazpi espirituak eta zazpi izarrak dituenak gauka hauk erraiten zitik. Bazeakizkiat hire obrak, ezen izena duk bizi aizela, eta hila baitaiz.

2 Aizen iratzarri eta konfirmaitzak goitiko hiltzera doazenak: ezen hire obrak eztiat perfekt eriden Iainkoaren aitzinean.

3 Aizen bada orhoit nola rezebitu eta enzukan duan: eta begirezak, eta dolu bekik. Bada baldin beilla ezpadezak ethorriren nauk hiregana ohoina bezala, eta eztuk iakinen zer orenez ethorriren naizen hiregana.

4 Zenbeit persona ere badituk *hik* Sarden bere abillamenduak satsutu eztituztenik, eta ebi-liren baitirade enekin abillamendu xuritan: ezen digne dituk.

5 Garaita ukanen duena hala beztituren datek abillamendu xuriz, eta eztiat haren izena iraungiren bizitzeko liburutik, eta aithorturen

diat haren izena neure Aitaren aitzinean, eta haren Aingeruen aitzinean.

6 Beharririk duenak enzun beza zer Espirituak

erraiten drauen Elizei.

7 Eta Filadelfian *den* Elizako Aingeruari eskriba iezok, Sainduak eta Egiatiak, zeinek baitu Dabid-en gakoa, zeinek irekiten baitu, eta nehork ez ersten: eta ersten baitu, eta nehork ez irekiten, gauza hauk erraiten zitik:

8 Bazeakizkiat hire obrak: huna, eman ukan drauat eure aitzinera bortha irekia, eta nehork ezin erts zezakek hura: zeren indar guti bat baituk *hik*, eta begiratu baituk ene hitza, eta ezpaituk renuntiatu ene izena.

9 Huna, ezarriren zitiat Satanen sinagogatik diradenak, bere buruak ludu egiten baitituzte eta ezpaitirade, aitzitik gezurra zioe: huna *bada*, eginen diat ethor ditezen, eta adora dezaten hire oinen aitzinean, eta ezagut dezaten, ezen nik maite audala:

10 Zeren *hik* begiratu ukan baituk ene patientiazko hitza, nik ere hi begiraturen aut ten-

tationeko oren mundu guziaren gainera ethorteko denetik, lurreko habitanten forogatzera.

11 Huna, baniatorkek sarri: edukak duana, nehork har eztezanat hire koroa.

12 Garaita ukanen duena, neure lainkoaren tenplean habe eginen diat, eta eztuk gehiagorik kanporat ilkiren, eta eskribaturen diat haren gainean neure lainkoaren izena, eta neure lainkoaren zibitatearen izena, *zein baita*, Ierusalem berria, ene lainkoaganik zerutik iaustsia, eta neure izen berria.

13 Beharririk duenak enzun beza zer Espirituak erraiten drauen Elizei.

14 Laodizean *den* Elizako Aingeruari ere eskriba iezok, Gauza hauk erraiten zitik Amenek, testimonio fidelak eta egiatiak, lainkoaren kreaturaren hatseak:

15 Bazeakizkiat hire obrak, ezen ezaizela ez hotz ez erakin: aihinz hotz edo erakin.

16 Baina zeren epel baitaiz, eta ezpaitaiz hotz ez erakin, bomituren aut neure ahotik.

17 Ezen badiok, Abrats naiz, eta abrastu naiz, eta eztut deusen beharririk: eta eztuk ezagutzen

ezen dohakabe eta gaixo eta paubre eta itsu eta billuzgorri aizela.

18 Konseillatzen aut eros dezan eneganik urhe suz forogatutik, abrats adinzat: eta abillamendu xurririk, bezti adinzat, aggeri eztenzat hire billuzgorritasunaren laidoa: eta kollirioz unkta ditzan eure begiak, ikus dezanzat.

19 Nik maite ditudan guziak reprehenditzen eta gaztigatzen zitiat: har ezak beraz zelo, eta dolu bekik.

20 Huna, borthan niagok, eta bulkatzen diat: baldin zenbeitek enzun badeza ene boza, eta bortha ireki badiezat, sarthuren nauk harengana eta afalduren nauk harekin eta hura enekin.

21 Garaita ukanen duena iar eraziren diat neurekin, neure thronoan: nola nik ere garaitu ukan baitut eta iarria bainago Aitarekin haren thronoan.

22 Beharririk duenak enzun beza zer Espirituak erraiten drauen Elizei.

KAP. IIII.

1 Bortha irekia zeruan. 2 Krist bere thronoan iarririk. 4 Hogeia eta laur Anziano. 6 Laur animal.

1 Gauza hauen buruan beha nezan, eta huna, bortha bat irekia zeruan: eta lehen enzun ukan nuen boza, *zen* enekin minzo lizaten tronpeta batena bezalako, zioela, Igan adi huna, eta era-kutsiren drauat zer gauza egin behar diraden hemendik harat:

2 Eta bertan ninzen espiritutan: eta huna, throno bat *zen* ezarria zeruan: eta *norbeit* throno gainean iarririk.

3 Eta iarririk zegoenak beth-ikartzez iaspe eta sardoin harria zirudien: eta *zen* thronoaren inguruan orzadarra esmarauda zirudiela.

4 Eta thronoaren inguruan ziraden hogeia eta laur alki: eta alki gainetan ikus nitzan hogeia eta laur Anziano iarririk abillamendu xuriz beztituak: eta zituztela bere buru gainetan urhezko koroak.

5 Eta thronotik ilkiten ziraden xistmistak: eta *ziraden* zazpi lanpa suz zaxetenik throno aitzinean, zein baitirade lainkoaren zazpi espirituak.

6 Eta zen throno aitzinean beirazko itsaso kristala irudi zuen bat: eta thronoaren erdian, eta thronoaren inguruan laur animal begiz betheak aitzinean eta gibelean.

7 Eta lehen animalak lehoina irudi zuen, eta bigarren animalak aretzea irudi zuen, eta hirugarren animalak, zuen gizonak bezalako begit-hartea, eta laugarren animala hegaldaz dabilan arranoa bezalako zen.

8 Eta laur animalek zuten batbederak zeinek bere alde seira hegal inguruan, eta barnean begiz betheak ziraden eta etzuten pausurik egun ez gau, zioitela, Saindu, saindu, saindu, lainko laun bothereguzitakoa, Zena, eta Dena, eta Ethorteko dena.

9 Eta animal hek emaiten zeraukatenean gloria eta ohore eta remerziamendu thronoan iarria zenari, sekula sekulakotz bizi denari:

10 Egoizten zituzten bere buruak hogei eta laur Anzianoek thronoan iarria zenaren aitzinera, eta adoratzen zuten bizi dena sekula sekulakotz,

eta ezarten zituzten bere koroak throno aitzi-
nean, erraiten zutela,

11 Digne aiz launa rezebi dekan gloria eta
ohore eta puisanza: ezen hik kreatu dituk gauza
guziak, eta hire borondateagatik dituk, eta krea-
tu izan dituk.

KAP. V.

*1 Liburu eskribatua. 5 Iudaren
leinutiko lehoia. 6 Bildotsa hil. 8
Sainduen orationeak. 9 Kantu berria.
12 Laudorio Kristi.*

1 Gero ikus nezan thronoan iarririk zegoena-
ren esku eskuinean liburu barnetik eta kanpotik
eskribatu bat, zazpi ziguluz zigilatua.

2 Eta ikus nezan Aingeru borthitz bat predika-
tzen zuela ozengi, Nor da digne ireki dezan libu-
rua, eta laxa ditzan haren ziguluak?

3 Eta nehork, ez zeruan, ez lurrian, ez lurra-
ren azpian ezin ireki zezakeen liburua, ezeta har-
tara beha.

4 Eta nik anhitz nigar egiten nuen, zeren ezpaitzen nehor dignerik eriden izan liburuaren irekitek, ez irakurtzeko, ez hartara behatzeko

5 Eta Anzianoetarik batek erran ziezadan, Eztagiala nigarrrik: huna, garaita dik ludaren leinutiko Lehoinak, Dabid-en zainak, liburuaren irekitek, eta haren zazpi ziguluen laxatzeko.

6 Eta beha nezan, eta huna thronoaren eta laur animalen artean, eta Anzianoen artean Bildots bat zegoela *nehork* hila bezala, zituela zazpi adar eta zazpi begi: zein baitirade lainkoaren zazpi espiritu lur guzira igorriak.

7 Eta ethor zedin eta har zezan liburua thronoan iarririk zegoenaren esku eskuinetik.

8 Eta liburua hartu zuenean, laur animalek eta hogei eta laur Anzianoek bere buruak egotz zitzaten Bildotsaren aitzinera, zituztela zeinek bere gitarrak eta urhezko anpolak perfumez betheak, zein baitirade sainduen orationeak:

9 Eta kantatzen zuten kantu berri bat, zioitela, Digne aiz liburuaren hartzeko, eta haren ziguluen irekitek: ezen sakrifikatu izan aiz, eta redemitu garauzkak lainkoari eure odolaz, leinu, eta mihi, eta populu, eta nazione orotarik.

10 Eta egin gerauzkak gure lainkoari rege eta sakrifikadore: eta regnaturen diagu lurraren gainean.

11 Orduan ikus nezan, eta enzun nezan thronoaren eta animalen eta Anzianoen inguruan, anhitz Aingeruren boza, eta zen haien kontua hamar millatan hamar milla, eta millatan milla:

12 Zioitela ozengi, Digne da sakrifikatu izan den Bildotsa har dezan puisanza, eta abrastason, eta sapientia, eta indar, eta ohore, eta gloria, eta laudorio.

13 Eta zeruan den kreatura guzia, eta lurraren gainean, eta lurraren azpian, eta itsasoan, eta hetan diraden gauza guziak enzun nitzan, erraiten zutela, Thronoan iarria denari eta Bildotsari laudorio, eta ohore, eta gloria, eta puisanza, sekula sekulakotz.

14 Eta laur animalek erraiten zuten, Amen: eta hogei eta laur Anzianoek egotz zitzaten bere buruak bere begitharten gainera, eta adora zezaten bizi dena sekula sekulakotz.

KAP. VI.

1 Ziguluetarik bat ireki. 2 Zaldi xuria. 4 Gorhatsa. 5 Beltza. 8 Ferdatsa. Herioa. 9 Martirioen arimak. 15 Lurreko regen iziapena.

1 Gero beha nezan, ireki ukan zuenean Bildotsak ziguluetarik lehena, eta enzun nezan laur animaletarik bat, zioela, igorziri boz anzo, Athor eta ikusak.

2 Eta beha nezan, eta huna, zaldi xuri bat: eta haren ganean iarririk zegoenak zuen fletxa bat, eta eman zekion hari koroa bat, eta ilki zedin garaitzen zuela, eta garaita luenzat.

3 Eta ireki ukan zuenean bigarren zigulua, enzun nezan bigarren animala, zioela, Athor eta ikusak.

4 Eta ilki zedin berze zaldi gorhats bat, eta haren ganean iarria zenari eman zekion lurretik bakea ken ahal lezan, eta elkar hil lezaten: eta eman zekion hari ezpata handi bat.

5 Eta ireki ukan zuenean hirugarren zigulua, enzun nezan hirugarren animala, zioela, Athor

eta ikusak. Eta beha nezan, eta huna, zaldi beltz bat: eta haren ganean iarririk zegoenak, zuen balenza bat bere eskuan.

6 Eta enzun nezan boz bat laur animalen artean, zioela, Xenika bat ogi bihi dinero batetan, eta hirur xenika garagar dinero batetan: eta mahatsarnoari eta olioari ez tiezeala kalterik egin.

7 Eta ireki ukan zuenean laurgarren zigulua, enzun nezan laurgarren animalaren boza, zioela, Athor eta ikusak.

8 Eta beha nezan, eta huna, zaldi ferdats bat, eta haren ganean iarririk zegoenaren izena zen Herioa: eta Ifernua zarraion hari, eta haei eman zekien bothere lurraren laurdenaren ganean, hiltzeko ezpataz, eta gosetez, eta heriotzez, eta lurreko basa bestiez.

9 Eta ireki ukan zuenean borzgarren zigulua, ikus nitzan aldare azpian, lainkoaren hitzagatik eta mantenitzen zuten testimoniajeagatik heriotara eman izan ziradenen arimak:

10 Eta zeuden oihuz ozengi, zioitela, Noiz artean, laun saindua eta egiatia, eztuk iujeatzen

eta mendekatzen gure odola lurrean habitatzen diradenetarik?

11 Eta eman zekizten batbederari arropa xuriak, eta erran zekien reposa litezen oraino denbora apur bat, haien zerbitzari kideak, eta haien anaie hek ere bezala heriotara eman behar ziradenak konpli litezkeno.

12 Gero beha nezan ireki ukan zuenean seigarren zigulua, eta huna, lur ikaratze handi bat egin zedin, eta iguzkia beltz zedin bilozko zaku bat bezala, eta ilhargi guzia odola bezalaka zedin.

13 Eta izarrak zerutik eror zitezen lurrera, fikitzeak bere fiko ximalak iraitzen dituen bezala haize handiz erabilten denean.

14 Eta zerua retira zedin liburu itzultzen den bat bezala: eta mendi eta isla guziak bere lekuetarik alda zitezen.

15 Eta lurreko regeak, eta prinzeak, eta abratsak, eta kapitainak, eta potentak, eta esklabo guziak, eta libre guziak gorde zitezen lezetan eta mendietako hartoketan:

16 Eta erraiten zerauezen mendiei eta harriei, Eror zaitezte gure gainera eta estal gai-

tzazue throno gainean iarria denaren begithartetik, eta Bildotsaren hiratik.

17 Ezen ethorri da haren hiraren egun handia: eta nor da igurikiren ahal duena?

KAP. VII.

*1 Aingeruek haizeak edukiten. 3
lainkoaren zerbitzariak signalatu.*

*14 Bildotsaren odolean arropen
ikutzea. 17 lainkoak bere haurren
nigarra ixukatzen.*

1 Eta gauza hauen ondoan ikus nitzan laur Aingeru zeudela lurraren laur korderetan, zadutzatela lurreko laur haizeak, haizerik ezlagianzat lurraren gainean, ez itsasoaren gainean, ez arborre baten ere gainean.

2 Gero ikus nezan berze Aingeru bat igaiten zela iguzki ialgitetik lainko biziaren zigulua zuela: eta oihu egin ziezen ozengi laur Aingeru lurrari eta itsasoari kalte egitea eman izan zaie-nei,

3 Zioela, Eztagiezuela kalterik lurrari, ez itsasoari, ez arborei, gure lainkoaren zerbitzariak bere belarretan seignala ditzakeguno.

4 Eta enzun nezan seignalatu izan ziradenen kontua, ehun berrogei *eta* laur milla seignalaturik Israeleko haurren leinu guzietarik:

5 Iudaren leinutik, hamabi milla seignalaturik: Rubenen leinutik, hamabi milla seignalaturik: Gad-en leinutik, hamabi milla seignalaturik:

6 Aser-en leinutik, hamabi milla seignalaturik: Nefthaliren leinutik, hamabi milla seignalaturik: Manaseren leinutik, hamabi milla seignalaturik:

7 Simeonen leinutik, hamabi milla seignalaturik: Lebiren leinutik, hamabi milla seignalaturik: Isakaren leinutik, hamabi milla seignalaturik:

8 Zabulon-en leinutik, hamabi milla seignalaturik: Iosef-en leinutik, hamabi milla seignalaturik: Beniaminen leinutik, hamabi milla seignalaturik:

9 Gauza hauen ondoan beha nezan, eta huna, tropela handi nehork konta ezin zezakeen bat, jende eta leinu eta populu eta mihi guzietarik, throno aitzinean eta Bildotsaren presentian

zeudela, arropa luze xuriz beztituak, eta palmak bere eskuetan:

10 Eta oihuz zeuden ozengi, zioitela, Salbamendua gure lainko throno gainean iarria denaganik eta Bildotsaganik.

11 Eta Aingeru guziek asistitzen zuten thronoaren, eta Anzianoen eta laur animalen inguruan: eta bere buruak egotz zitzaten throno aitzinera bere begitharten gainera, eta adora zezaten lainkoa,

12 Zioitela, Amen: laudorio, eta gloria, eta sapientia, eta esker, eta ohore, eta puisanza, eta indar gure lainkoari sekula sekulakotz. Amen.

13 Orduan har zezan hitza Anzianoetarik batek, zioistala, Arropa luze xuriz beztitu hauk nor dirade, eta nondik ethorri dirade?

14 Eta erran niezon, launa, hik badakik. Eta erran ziezadan, Hauk dituk afliktione handitarik ethorri izan diradenak: eta ikuzi ukan zitie bere arropa luzeak eta xuritu Bildotsaren odolean.

15 Halakotz dituk lainkoaren throno aitzinean, eta hura zerbitzatzen die egun eta gau haren tenplean: eta thronoan iarria dena habitaturen duk horiekin.

16 Eztituk goseturen ez egarrituren gehiagorik, ez horien gainera eztik ioren iguzkiak, ez berok batek ere.

17 Ezen thronoaren erdian den Bildotsak bazkaturen zitik eta gidaturen uretako ithurri bizietara: eta ixukaturen dik lainkoak nigar ur guzia horien begietarik.

KAP. VIII.

3 Sainduen orationeak. 6 Zazpi Aingeruek tronpetak ioiten.

1 Eta ireki ukan zuenean zazpigarren zigulua, silentio egin zedin zeruan oren erditsu bat.

2 Eta ikus nitzan zazpi Aingeru lainkoaren aitzinean asistitzen dutenak, eta eman zekizten zazpi tronpeta.

3 Eta berze Aingeru bat ethor zedin eta egon zedin aldare aitzinean, urhezko enzenser bat zuela: eta eman zekion anhitz perfum, Saindu guzien orationekin ofrenda litzanzat, throno aitzinean den aldare urhezkoaren gainean.

4 Eta igan zedin perfumen kea, Sainduen orationekin, Aingeruaren eskutik lainkoaren aitzinera.

5 Eta har zezan Aingeruak enzensera, eta bethe zezan hura aldareko sutik, eta egotz zezan lurrera: eta egin zitezen igorziriak eta bozak eta xistmistak eta lur ikaratze.

6 Eta zazpi tronpetak zituzten zazpi Aingeruak prepara zitezen tronpetaz ioitera.

7 Eta lehen Aingeruak io zezan tronpetaz, eta egin zezan babazuza eta su odol nahasteka, eta egotz zitezen lurrera, eta arboren heren partea, erre zedin, eta belhar ferde guzia erre zedin.

8 Eta bigarren Aingeruak io zezan tronpetaz, eta mendi handi suz erratzen zen bat bezala egotz zedin itsasora: eta itsasoaren heren partea odol egin zedin.

9 Eta hil zedin itsasoan ziraden kreatura bizitze zutenen heren partea: eta unzien heren partea desegin zedin.

10 Gero heren Aingeruak io zezan tronpetaz, eta eror zedin zerutik izar handi iraxeki bat, zuzi bat bezala, eta eror zedin flubioen heren parte-ra, eta ithur uretara.

11 Eta izarraren izena erraiten da, Absinthio: eta uren heren partea Absinthio bilha zedin: eta anhitz gizon hil zedin uretarik, zeren karmindu izan baitziraden *urak*.

12 Gero Laurgarren Aingeruak io zezan tronpetaz, eta io zedin iguzkiaren heren partea, eta ilhargiaren heren partea, eta izarren heren partea: hala non haien heren partea ilhun baitzedin, eta egunaren heren parteak etzuen argirik egiten, ez gauarenak halaber.

13 Orduan ikus eta enzun nezan Aingeru bat hegaldatzen zela zeruaren erdiaz, zioela ozengi, Malediktione, malediktione, malediktione lurreko habitantei, berze hirur Aingeruek ioren dituzten tronpeta soinuakgatik.

KAP. IX.

2 Abismeko putzua. 3 Othiak. 14 Aingeruak laxatu. 16 Zamaldunak gaixtoen punitzera igorri. 17 Zaldiak eta haien puisanza.

1 Orduan borzgarren Aingeruak tronpetaz io zezan, eta ikus nezan izar bat zerutik lurrera eroria, eta eman zekion abismeko putzuaren gakoa.

2 Eta ireki zezan abismeko putzua, eta altxa zedin putzuko kea, labe handi batetako kea bezala: eta ilhund zedin iguzkia eta airea putzuko ketik.

3 Eta ketik ilki zitezen othiak lurrera, eta bothere eman zekien lurreko eskorpionek duten bezalako botherea.

4 Eta erran zekien ezlagioten kalterik lurreko belharrari ez ezeinere ferderi, ez ezeinere arboreri: baina solament lainkoaren seignalea bere belarretan etzuten gizonei.

5 Eta eman zekien ez hek hil litzaten, baina tormenta litzaten borz hilebethez, eta haien tormenta *lizen* eskorpionezko tormenta gizona io dukeenekoa bezala.

6 Eta egun hetan gizonek herioa bilhaturen dute, eta eztute eridenen: eta desiraturen dute hiltzera, eta herioak ihes eginen du hetarik.

7 Eta othien forma *zen* zaldi bataillara aprestatuen irudiko, eta *ziraden* haien buru gainetan urhea ziruditen koroak bezalakoak: eta haien

begitharteak *ziraden* gizonen begitharteak bezala.

8 Eta zituzten biloak, emazten biloak bezala: eta haien hortzak ziraden lehoinenak bezala.

9 Eta zituzten halakretak burdin halakretak bezala: eta haien hegalen hotsa, anhitz, zaldik konbatera laster egiten duteneko karreta hotsa bezala.

10 Eta zituzten buztanak eskorpionenak irudi: eta zituzten eztenak bere buztanetan: eta haien botherea *zen* gizonei kalte egitea borz hilebethez.

11 Eta zuten bere gaineko regetzat abismeko Aingerua, zeinek baitu izen Hebraikoz, Abadon, eta Grek-ez Apollion *erran nahi baita desegilea*.

12 Malediktione bat iragan da, eta huna, ethorten dirade oraino bi malediktione gero.

13 Orduan seigarren Aingeruak io zezan tronpetaz, eta enzun nezan boz bat lainkoaren begien aitzinean den aldare urhezkoaren laur adarretarik *prozeditzen zenik*,

14 Ziotsala seigarren Aingeru tronpeta zue-nari, Lakaitzak laur Aingeru Eufrateko flubio handi gainean estekatuak diradenak.

15 Laxa zitezen bada laur Aingeruak, baitziranaden apainduak orenekotz eta egunekotz eta hilebethekotz eta urthekotz, hil dezatenzat gizonen heren partea.

16 Eta zaldizko armadaren kontua zen hogeimillatan hamar milla: eta enzun nezan haien kontua.

17 Eta hunela ikus nitzan zaldiak bisionean: eta haien gainetan iarriak ziradenek, zituztela suzko eta hiazinthezko eta sufrezko halakretak: eta zaldien buruak ziraden lehoinen buruak bezala: eta haien ahoetarik ilkiten zen su, eta ke eta sofre.

10 Eta hirur gauza hauzaz hil izan zen gizonen heren partea, *diot*, suaz, eta keaz, eta haien ahotik ilkiten zen sufrea.

19 Ezen haien botherea zen haien ahoan eta haien buztanetan: ezen haien buztanak sugeak irudi ziraden, zituztela buruak, zeinez kalte egingiten baitzuten.

20 Eta goitiko gizon plaga hauzaz hil etziranadenak bere eskuezko obretarik etzitezen emenda, adora ezlitzatenzat deabruak eta urhezko eta zilharrezko eta kobrezko eta harrizko eta

zurezko idolak, zeinek ezin ikus baitezakete ez enzun, eta ezin ebil baititezke:

21 Eta etzitezen emenda bere giza-erhaiteketarik, ez bere pozoinkerietarik, ez bere paillardizetarik, ez bere ohoinkerietarik.

KAP. X.

Ioanesek iretsi ukan zuen liburua zadukan Aingeruaz minzaturik, nola munduaren fina izanen den erakusten, eta nola zazpi igorzirien hotsak zigilatu izan diraden deklaritzen.

1 Orduan ikus nezan berze Aingeru borthitz bat zerutik iausten zela, hodei batez inguratua zeinen buruan baitzen orzadarra: eta haren begithartea zen iguzkia bezala, eta haren oinak suzko habeak bezala. Eta zuen bere eskuan liburutxo ireki bat: eta ezar zezan bere oin eskuina itsas gainean, eta ezkerra lur gainean.

2 Eta oihu egin zezan ozengi, lehoin batek orroa egiten duenean bezala: eta oihu egin ukan

zuenean, zazpi igorzirik bere bozak pronuntia zitzaten.

3 Eta zazpi igorzirik bere bozak pronuntiatu ukan zituztenean, nik nahi nituen eskribatu: baina enzun nezan boz bat zerutik zioztala, Seignalaitzak zazpi igorzirik pronuntiatu dituzten gauzak, eta hek eztitzala eskriba.

4 Eta itsasoaren gainean eta lurraren gainean zegoela ikusi ukan nuen Aingeruak, altxa zezan bere eskua zerura,

5 Eta iura zezan sekula sekulakotz bizi denaz, zeinek kreatu baititu zerua eta hartan diraden gauzak, eta lurra eta hartan diraden gauzak, eta itsasoa eta hartan diraden gauzak, ezen gehiago denborarik eztela izanen:

6 Baina zazpigarren Aingeruaren bozeko egunetan tronpetaz ioiten hasiren denean akabaturen datela lainkoaren misterioa, bere zerbitzari Profetei deklaratu ukan drauen bezala.

7 Eta zerutik enzun ukan nuen boza, berriz minza zedin enekin, eta erran zezan, Habil, eta har ezak itsasoaren gainean eta lurraren gainean dagoen Aingeruaren eskuko liburutxo irekia.

8 Eta ioan nendin Aingeruagana niotsala lidan liburutxoa. Eta erran ziezadan, Har ezak, eta irets ezak: eta hire sabela karminduren dik: baina hire ahoan ezti izanen duk ezti bezala.

9 Har nezan bada liburutxoa Aingeruaren eskutik, eta irets nezan: eta zen ene ahoan ezti bezala ezti: baina iretsi ukan nuenean, ene sabela karmin zedin.

10 Orduan erran ziezadan, Profetizatu behar drauek berriz anhitz populuri, eta jenderi, eta mihiri, eta regeri.

KAP. XI.

1, 19 Iainkoaren tenplea ireki. 3, 7 launarenik bi testimonio bestiak hil, 11 Gero resusztatuta izan dirade. 8 Sodoma eta Egipte. 12 Resumak Kristendu. 16 Anzianoek Iainkoa laudatzen.

1 Eta eman zekidan kanabera bat berga bat irudirik, eta presenta zedin Aingeru bat, zioztala,

laiki adi, eta neurt itzak lainkoaren tenplea eta aldarea, eta hartan adoratzan dutenak.

2 Baina iraitzak kanpora tenple lekoretik den sala, eta eztezala hura neurt: ezen eman izan ziaiek Jentilei, eta Zibitate saindua ohondikaturan die berrogei eta bi hilebethez.

3 Baina emanen diraueat hura neurerik bi testimoniari, zeinek, profetizaturen baitute milla eta ber-ehun eta hirurogei egunez, zakuz bezituak diradela.

4 Hauk dituk bi olibak eta bi kandeler lurreko launaren presentian daudenak.

5 Eta baldin nehork haei gaizkirik egin nahi badraue, sua ilkiten duk haien ahotik, eta iresten zitik haien etsaiak: ezen baldin nehork gaizkirik egin nahi badraue, hark hunela heriotara eman behar dik.

6 Hauk die bothere zeruaren ersteko, uririk eztagian haien profetiazko egunetan: eta die bothere uren gainean, haien odoletara konbertitzeko, eta lurraren azotatzeko plaga oroz noize-re nahi baitukeite.

7 Eta akabatu dukeitenean bere testimonia-
jea abismetik igaiten den bestiak, gerla eginen
dik haien kontra, eta garaithuren zitik eta hilen:

8 Eta haien gorputzak etzanen dituk Zibitate
handiko plazetan, zein deitzen baita espiritualki
Sodoma eta Egipte, non gure launa ere kruzifika-
tu izan baita.

9 Eta ikusiren zitie leinuetakoek, eta populue-
takoek, eta mihietakoek, eta nationetakoek,
haien gorputzak hirur egun eta erdiz, eta eztikee
permetituren haien gorputzak ezar ditezen
sepulturatan.

10 Eta lurreko habitantek bozkario ukanen
die haien gainean, eta atsegin harturen die: eta
presentak igorriren diraeuze elkarri: zeren bi
Profeta hauk tormentatu ditukeizten lurrean
habitant diradenak.

11 Baina hirur egun eta erdiren buruan bizi-
tzeko espirtu lainkoaganikoa hetara sarthuren
datek, eta egonen diratek bere oinen gainean,
eta iziapen handi eroriren datek hek ikusiren
ditukeiztenen gainera.

12 Gero enzun die boz handi bat zerutik, haei diostela, Igan zaitezte huna: eta igan dituk zerura hodei batetan: eta ikusi zitie bere etsaiek.

13 Eta oren hartan lur ikaratze handi egin izan duk: eta Zibitatearen hamargarren partea erori izan duk, eta hil izan dituk lur ikaratze hartan zazpi milla gizon, eta berzeak izitu izan dituk, eta eman diraukoe gloria zeruko lainkoari.

14 Bigarren malediktioea iragan izan da: eta huna hirugarren malediktioea ethorriren da sarri.

15 Eta zazpigarren Aingeruak io zezan tronpetaz, eta boz handiak egin zitezten zeruan, zioitela, Egin izan dirade mundu hunetako resumak, gure launaren eta Krist harenaren *resuma*, eta regnaturen du sekula sekulakotz.

16 Orduan hogei eta laur Anziano lainkoaren aitzinean bere alkietan iarririk zeudenek, egotz zitzaten bere buruak bere begitharten gainera, eta adora zezaten lainkoa,

17 Zioitela, Eskerrak drauzkiagu hiri lainko laun bothere-guzitakoa, Zein baitaiz, eta Baihinen, eta Ethorteko baitaiz, zeren hartu duan eure

puisanza handia, eta zeren hasi duan eure resuma:

18 Eta aserretu izan dituk Jentilak, eta ethorri izan duk hire hira, eta hilen denbora, iujea ditezenzat, eta eman diezeanzat saria eure zerbitzari Profetei, eta sainduei, eta hire izenaren beldur diraden xipiei eta handiei: eta desegin ditzanzat lurra desegiten dutenak.

19 Orduan ireki zedin lainkoaren tenplea zeruan, eta ikus zedin haren allianzazko Arka haren tenplean: eta egin zedin xistmist eta hots eta lur ikaratze, eta babazuza handi.

KAP. XII.

*Emazte ertzen zenaren zelatan
zegoen dragoinaren kontra Mikelek
biktoria irabazi fidelen probetxutan.*

1 Eta ikus zedin signo handi bat zeruan, Emazte iguzkiaz inguratu bat, zeinen oinen azpian baitzen ilhargia, eta buruan hamabi izarrezko koroa bat.

2 Eta izorra izanez heiagoraz zegoen erdi beharrezko minez, eta tormenta iragaiten zuen erdi zedinzat.

3 Ikus zedin berze signo bat ere zeruan, eta huna, dragoin gorharats handi bat, zazpi buru zituenik eta hamar adar: eta bere buruetan zazpi diadema.

4 Eta haren buztanak tiratzen zuen zeruko izarren heren partea, eta egotz zitzan hek lurre-ra: eta geldi zedin dragoina emazte erdi behar zuenaren aitzinean, erdi zatenean, haren haurra irets lezanzat.

5 Eta erd zedin seme ar batez zeinek gobernatu behar baitzituen nazione guziak burdinazko berga batez: eta harrapa zedin haren haurra lainkoagana eta haren thronora.

6 Eta emazteak ihes zegian desertu batetara, non baitu lekua lainkoaz apaindurik, han hura haz dezatenzat milla eta ber-ehun eta hirurogei egunez.

7 Eta egin zedin batailla bat zeruan: Mikele eta haren Aingeruak bataillatzen ziraden dragoinaren kontra, eta dragoina konbatitzen zen eta haren Aingeruak:

8 Baina etziraden borthitzenak izan, eta haien lekua etzedin gehiagorik eriden zeruan.

9 Eta iraitz zedin dragoin handia, suge zahar hura, Deabru eta Satan deitzen dena, zeinek mundu guzia seduzitzen baitu: iraitzi izan da *bada* lurrera, eta haren Aingeruak harekin iraitz zitezen.

10 Eta enzun nezan boz handi bat zioela zeruan, Orain egin da salbamendua, eta indarra, eta gure lainkoren resuma, eta Krist harenaren botherea: ezen gure anaien akusazalea iraitzi izan da, zeinek akusatzen baitzituen gure lainkoren aitzinean egun eta gau.

11 Baina hek garaithu izan zaizkio Bildotsaren odolaren kausaz eta bere testimoniajeko hitzaren kausaz, eta bere biziak eztituzte gupida ukan heriorano.

12 Halakotz zaitezte alegera, zeruak eta hetan habitatzen zaretenak. Malediktione lurreko eta itsasoko habitantei: ezen iausti da deabrua zuetara, hira handiz betherik, nola baitaki ezen denbora apur bat baduela.

13 Ikusi ukan zuenean bada dragoinak ezen iraitzi izan zela lurrera, persekuta zezan arraz erdi izan zen emaztea.

14 Baina eman izan zaizkan emazteari arrano handi batenik bi hegal, hegaldan ledinzat sugearen aitzinetik desertura, bere lekura, non hatzen baita denbora batetakotz eta denboretakotz eta denboraren erditakotz.

15 Eta iraitz zezan sugeak emaztearen ondoren bere ahotik ur flubio bat bezala, hura harrapa erazi lezanzat flubioaz.

16 Baina aiuta zezan lurrak emaztea, eta ireki zezan lurrak bere ahoa, eta hurrupa zezan dragoinak bere ahotik iraitzi ukan zuen flubioa

17 Orduan aserre zedin dragoina emaztearen kontra, eta ioan zedin gerla egitera haren haziko goitikoan, lainkoaren manamenduak begiratzen dituztenen eta Jesus Kristen testimoniajea dutenen kontra.

18 Eta geldi nendin itsasoko sable gainean.

KAP. XIII.

*1 Antekristen gehientasuna. 7 Baina
eztitu elejituak seduzituren. 13
Haren signoak eta autoritatea. 18
Gauza hauen deklarationea.*

1 Orduan ikus nezan bestia bat itsasotik igaiten zela, zazpi buru eta hamar adar zituenik, eta bere adar gainetan hamar diadema: eta bere buru gainetan basfemiotako izen bat.

2 Eta *nik* ikusi ukan nuen bestiak Leoparta irudi zuen, eta haren oinak *ziraden* hartzarenak bezalako: eta haren ahoa lehoinaren ahoa bezalako: eta eman ziezon hari dragoinak bere pui-sanza, eta thronoa, eta bothere handi.

3 Eta ikus nezan haren buruetarik bat heriotara zauria bezala, baina haren heriotarako zauria sendatu izan zen: eta mirakuluz zegoela lur guzia iarreiki zekion bestiari.

4 Eta adora zezaten, bestiari bothere eman zeraukan dragoina, eta adora zezaten bestia, zioitela, Nor da bestia irudi duenik? haren kontra nor konbati ahal daite?

5 Eta eman zekion aho gauza handiak eta blasfemioak pronuntiatzen zituena, eta eman zekion bothere berrogei eta bi hilebetheren konplitzeko.

6 Eta ireki zezan bere ahoa blasfematzera lainkoaren kontra, blasfema litzanzat haren izena, eta haren tabernaklea, eta zeruan diradenak.

7 Eta eman zekion sainduen kontra ere gerla egitea, eta haei garaitzea: eta eman zekion bothere leinu, eta mihi, eta natione ororen gainean.

8 Eta adoratzen zuten hura lurreko habitant guziek, zeinen izenak ezpaitirade eskribatuak, munduaren fundationetik hil izan den Bildotsaren bizitzeko liburuan

9 Baldin nehork beharririk badu, enzun beza.
10 Baldin nehork kaptibitatera eramaiten badu, kaptibitatera eramane da *bera*: baldin nehork ezpataz hil badeza, behar da hura ezpataz hil dadin: hemen da sainduen patientia eta fedea.

11 Gero ikus nezan, berze bestia bat igaiten zela lurretik, eta zituen bi adar Bildotsarenak irudi: baina dragoina bezala minzo zen.

12 Eta hark lehen bestiaren bothere guzia exerzitzen zuen haren presentian: eta egiten zuen, lurrak eta hartako habitantek adora lezaten leheneko bestia hura, zeinen heriotarako zauria sendatu izan baitzen.

13 Eta signo handiak egiten zituen, hanbat non sua zerutik lurrera eraits eraziten baitzuen gizonen aitzinean.

14 Eta seduzitzen zituen lurreko habitantak signoen kausaz, zeinen egitea eman izan baitzaion bestiaren aitzinean: zioztela lurreko habitantei, egin liezoten imajina bat bestia hari, zein ezpataz zauri izan baitzen, baina biztu izan da.

15 Eta hari eman zekion, bestiaren imajinari espiritu eman liezon, eta bestiaren imajina minza ledin, eta egin lezan, bestiaren imajina adoratzan ezluten guziak, hil litezen.

16 Eta egiten zuen, guziek, xipiek eta handiek, abratsek eta paubrek, librek eta esklaboek hartzen baitzuten merka bat bere esku eskuintean, edo bere belarretan.

17 Eta nehork ezin eros lezan edo sal merka luenek baizen, edo bestiaren izena, edo haren izenaren kontua.

18 Hemen da sapientia: adimendurik duenak kontu beza bestiaren izena: ezen kontua gizona-rena da, eta haren kontua, sei ehun eta hirurogei eta sei.

KAP. XIII.

3 Iainkoaren haurren konsolationea. 8 Babiloneren erortea. 9 Bestiaren bandakoen punitionea. 13 Fidelen herioa dohatsu. 15 Uzta errekeitatzea, eta mendematzea.

1 Orduan beha nezan, eta huna, Bildotsa zegoen Siongo mendi gainean, eta harekin ehun eta berrogei eta laur milla, zutela haren Aitaren izena eskribatua bere belarretan.

2 Eta enzun nezan boz bat zerutik ur handien hotsa bezala, eta igorziri handi baten hotsa bezala: eta enzun nezan bere gitarrak ioiten zituzten gitarrarien soinu bat:

3 Eta kantatzen zuten kuasi kantu berri bat throno aitzinean, eta laur animalen, eta Anziano-

en aitzinean: eta nehork ezin ikas zezakeen kantua ehun eta berrogei eta laur miliek baizen, zein baitirade lurretik erosiak:

4 Hauk dirade emaztekin satsutu eztirade-nak: ezen birjina dirade: hauk dirade Bildotsari darreitzanak norat ere ioan baitadi: hauk dirade gizonen artetik erosiak, primitia lainkoari eta Bildotsari *sanktifikatuak*.

5 Eta haien ahoan ezta eriden enganiorik: ezen makula gabe dirade lainkoaren throno aitzinean.

6 Gero ikus nezan berze Aingeru bat zerua-ren arteaz hegaldatzen zela, Ebanjelio eternala zuela, ebanjeliza liezenzat lurreko habitantei, eta nazione, eta leinu, eta mihi, eta populu guziari:

7 Zioela ozengi, Zareten beldur lainkoaren, eta hari gloria emozue: ezen ethorri da haren iujemenduaren ordua: eta adora ezazue zerua eta lurra eta itsasoa eta ur ithurriak egin ditue-na.

8 Eta berze Aingeru bat iarreiki zekion, zioela, Erori da erori Babilon, zibitate handi hura,

zeren bere paillardizaren hiratako mahatsarnoa
nazione guziak edaran ukan baititu.

9 Eta heren Aingerua iarreiki zekien, zioela
ozengi, Baldin nehork adora badeza bestia eta
haren imajina, eta har badeza haren merza bere
belarrean edo bere eskuan,

10 Hark ere edanen du lainkoaren hirako
mahatsarnotik, *bai*, mahatsarno pur haren hira-
ko kopara hustutik: eta tormentaturen da suz
eta sufrez Aingeru sainduen aitzinean eta Bildo-
tsaren aitzinean.

11 Eta haien tormentako kea altxaturen da
sekula sekulakotz: eta eztute ukanen pausurik
ez egun ez gau adoratzen dutenek bestia eta
haren imajina, eta baldin nehork har badeza
haren izenaren merka.

12 Hemen da sainduen patientia: hemen
dirade lainkoaren manamenduak eta Iesusen
fedea begiratzen dituztenak.

13 Orduan enzun nezan boz bat zerutik, zio-
tala, Eskriba ezak, Dohatsu *dirade* launean hil-
tzen diraden hilak hemendik harat. Bai, dio Espi-
rituak: ezen reposatzen dirade bere neketarik,
eta bere obrak iarreikiten zaizte.

14 Eta beha nezan, eta huna hodei xuri bat: eta hodei gainean *norbeit* zegoen iarririk gizona irudi zuenik, zuela bere buru gainean urhezko koroa bat, eta bere eskuan igitei zorrotz bat.

15 Eta berze Aingeru bat ilki zedin tenpletik, oihuz zaiola ozengi, hodei gainean iarririk zegoenari, Ezarrak eure igiteia, eta uzta errekeita ezak: ezen ethorri zaik errekeitatzeko ordua: ezen lurreko uzta zorhitu duk.

16 Orduan ezar zezan hodei gainean iarririk zegoenak, bere igiteia lurrera: eta errekeita zedin lurra.

17 Eta berze Aingeru bat ilki zedin zeruko tenpletik, zuela hark ere igitei zorrotz bat. 18 Eta berze Aingeru bat ilki zedin aldaretik, zuela bot-here suaren gainean, eta ozengi oihu egin ziezon igitei zorrotza zuenari, zioela, Ezarrak eure igitei zorrotza, eta mendemaitzak lurreko mahastiko mulkoak: ezen hartango mahatsak onthu dituk.

19 Eta ezar zezan Aingeruak bere igitei zorrotza lurrera, eta mendema zezan lurreko mahastia, eta igor zezan lainkoaren hiraren lako handira.

20 Eta lakoa aurizki zedin Zibitatetik kanpoan: eta ilki zedin odol lakotik zamarien bridetara-no, milla eta sei ehun estadiotan.

KAP. XV.

1 Iainkoaren hiraren plagak. 2 Bestiaren abominationetarik preserbatu izan diradenen esker emaita. 6 Zazpi Aingeru, zazpi plaga, zazpi anpola.

1 Gero ikus nezan berze signo bat zeruan handirik eta mirakuluzkorik, Zazpi Aingeru, zituztela azken zazpi plagak ezen hezaz da Iainkoaren hira konplitu.

2 Eta ikus nezan beirazko itsaso bat bezala suz nahastekatua: eta biktoria eraman ukan zutenak bestiaganik, eta haren imajinaganik, eta haren merkaganik, eta haren izenaren kontuaganik, zeudela itsaso beirazko *irudian*, eta zituztela Iainkoaren gitarrak:

3 Eta kantatzen zuten lainkoaren zerbitzari Moisesen kantikoa, eta Bildotsaren kantikoa, zioitela, Handi eta mirakuluzko dituk hire obrak, lainko laun bothere guzitakoa: iusto eta egiazko dituk hire bideak, sailduen Regea.

4 Nor ezta hire beldur izanen, launa, eta *nork* ezta glorifikaturen hire izena? ezen saildu bakoitz *aiz hi*: ezen jende guziak ethorriren dituk, eta adoraturen die hire aitzinean: zeren hire iujemenduak manifestatu izan baitirade.

5 Eta gauza hauen buruan beha nezan, eta huna, ireki zedin testimoniajeko Tabernaklearen tenplea zeruan.

6 Eta ilki zitezten tenpletik zazpi plagak zituzten zazpi Aingeruak, beztiturik liho purez eta xuriz, urhezko gerrikoez bulhar inguruetan gerrikatuak.

7 Eta laur animaletarik batek eman zietzen zazpi Aingeruei zazpi anpola urhezkorik, lainko sekula sekulakotz biziaren hiraz betheak.

8 Eta bethe zedin tenplea lainkoaren maies-tatetik: eta haren puisanzatik *ilkiten zen* keaz: eta nehor ezin sar zeiten tenplean zazpi Aingeruen zazpi plagak konpli litezkeno.

KAP. XVI.

2 Zazpi Aingeruak, eta lainkoaren hirazko zazpi anpolak. 5 lainkoaren haurren erhailen ganean lainkoaren iujemendua. 9 Infidelen blasfemia. 10 Bestiaren thronoa ilhundu. 13 Prinzeak seduzitzen dituzten espirituak. 17 Hirien eta herrien obstinationea eta sunsimendua. 18 Xistmist, igorziri, lur-ikaratze eta babazuza infidelen gainera, 19 Eta prinzipalki Babiloneren gainera mendekiorekin.

1 Orduan enzun nezan boz handi bat tenpletik, zioستela zazpi Aingeruei, Zoazte eta isuritza-zue lainkoaren hiraren zazpi anpolak.

2 Ioan zedin bada lehen *Aingerua*, eta isur zezan bere anpola lurrera, eta egin zedin plaga bat gaitzik eta damutakorik bestiaren merka

zuten gizonen kontra, eta haren imajina adorazten zutenen kontra.

3 Eta bigarren Aingeruak isur zezan bere anpola itsasora, eta sarraski baten odola bezalaka zedin eta itsasoko arima bizi guzia hil zedin.

4 Eta heren Aingeruak isur zezan bere anpola flubioetara eta ur ithurrietara, eta odol bilha zitezen.

5 Eta enzun nezan uretako Aingerua, zioela, lusto aiz launa, Aizena eta Inzena eta Saindua: zeren gauza hauk iujeatu baitituk:

6 Zeren Sainduen eta Profeten odola isuri ukan baitute, *hik ere* odol eman ukan drauek edatera: ezen digne dituk.

7 Eta enzun nezan berze bat Sainktuariotik, zioela, Segurki, lainko laun bothere guzitakoa, egiazko eta iusto dituk hire iujemenduak.

8 Gero laugarren Aingeruak isur zezan bere anpola iguzkira, eta hari eman zekion gizonen suz erratzea.

9 Eta erre zitezen gizonak bero handiz, eta blasfema zezaten, plaga hauen gainean bothere duen lainkoaren izena: eta etzitezen emenda hari gloria eman liezotenzat.

10 Gero borzgarren Aingeruak isur zezan bere anpola, bestiaren throno gainera: eta egin zedin haren resuma ilhunbezu: eta mastakatzen zituzten bere mihiak dolorearen handiz.

11 Eta blasfema zezaten lainko zerukoa bere doloreakgatik eta zauriakgatik: eta etzitezen emenda bere obretarik.

12 Gero seigarren Aingeruak isur zezan bere anpola Eufratesko flubio handira: eta agor zedin hartako ura, apain ledinzat iguzki ilkite aldeko Regen bidea.

13 Eta ikus nitzan *ilkiten* dragoinaren ahotik, eta bestiaren ahotik, eta profeta falsuen ahotik, hirur espiritu satsu igelen irudikorik:

14 Ezen badirade deabruen espiritu, signoak egiten ditzutenak, eta lurreko eta mundu orotako regetera ioaiten diradenak hek bil ditzatenkat lainko bothere guzitakoaren egun handi hartako bataillara.

15 (Huna, ethorten naiz ohoina bezala: dohatsu *da* iratzarri dagoena, eta bere abillamenduak begiratzen dituena, billuzgorririk ebil eztadinzat, eta nehork haren laidoa ikus eztezanat)

16 Eta bil zitzaten, Hebraikoz Arma-jedon deitzen den lekura.

17 Gero zazpigarren Aingeruak isur zezan bere anpola airera: eta ilki zedin boz handi bat zeruko tenpletik throno aldetik, zioela, Egin da.

18 Orduan egin zedin xistmist eta hots eta igorziri: eta lur ikaratze handia egin zedin, nolakorik ezpaita izan gizonak lurraren gainera diradenaz geroztik, lur ikaraterik *diot* hain handirik.

19 Eta egin zedin zibitate handi hura hirur partetara, eta Jentilen zibitateak eror zitezten, eta Babilon handia ethor zedin memoriotara lainkoaren aitzinean, hari bere hiraren indignationezko mahatsarno koparen emaiteko.

20 Eta isla orok ihes egin zezan, eta mendiak etzitezten gehiagorik eriden.

21 Eta harriabar handirik talent bat bezalakorik ia uts zedin zerutik gizonetara. eta blasfema zekaten lainkoa gikonek harriabarrezko plagaren kausaz: ezen hark egin zuen plaga guzizko handia izan da.

KAP. XVII.

1 Paillarda handiaren deskriptionea eta abominationea. 7 Haren deklarationea, eta nola desegin izan den. 13 Lurreko rege, hura abrastu, zutenez.

1 Orduan ethor zedin zazpi anpolak zituzten zazpi Aingeruetarik bat, eta minza zedin enekin, zioštala, Athor, erakutsiren drauat anhitz uren gainean iarririk dagoen paillarda handiaren damnationea:

2 Zeinekin paillardatu baitute lurreko regek, eta haren paillardizazko mahatsarnoaz horditu izan baitirade lurreko habitantak.

3 Eta espirituz desertu batetara eraman nenzan: eta ikus nezan emazte bat, bestia eskarlata koloretako, blasfemiotako izenez bethe, zazpi buru eta hamar adar zituen baten gainean iarria.

4 Eta emaztea *zen* abillatua purpraz eta eskarlataz, eta urhestatua urhez, eta *apaindua* harri preziatuz eta perlaz, kopa urhezko bat bere

paillardizako abominationez eta satsutasunez bethea bere eskuan zuela.

5 Eta bere belarrean izen bat eskribaturik, Misterio, Babilon handia, lurreko paillardizen eta abominationen ama.

6 Eta ikus nezan emaztea sainduen odolaz, eta Iesusen martiroen odolaz horditua, eta hura ikusirik, mireste handiz mirets nezan.

7 Eta erran ziezadan Aingeruak, Zergatik miresten duk? nik erranen drauat emaztearen, eta hura ekarten duen bestia zazpi burutakoaren eta hamar adarretakoaren misterioa.

8 Ikusi ukan duan bestia, izan duk, eta eztuk *gehiagorik*: eta igaiteko duk abismetik, eta perditionetara ioaiteko: eta miretsiren die lurreko habitantek (zeinen izenak ezpaitirade eskribatuak bizitzeko liburuan munduaren hatseandantik) dakusatenean bestia, zein baitzen, eta ezpaita, eta alabaina baita.

9 Hemen da adimendu sapientia duena. Zazpi buruak, zazpi mendiak dirade zeinen gainean emaztea iarria baita.

10 Eta regeak zazpi dirade: borzak erori dirade, eta bat bada, berzea ezta oraino ethorri: eta

dathorreanean behar du hark *denbora* apur bat egon.

11 Eta bestia zein baitzen, eta ezpaita, hura zortzigarren *regea* da, eta zazpietarik da, eta galtzera doa.

12 Eta hamar adar ikusi dituanak, hamar rege dituk zeinek resuma ezpaitute oraino hartu, baina bothere rege bezala oren batez harturen die bestiarekin.

113 Hauk konseillu ber bat die, eta bere pui-sanza eta authoritatea bestiari emanen diarokoe.

14 Hauk bildotsaren kontra konbatituren dituk, eta Bildotsa garaithuren ziaiek: ezen iau-nen laun duk, eta regen Rege: eta harekin diradenak dituk deithuak eta elejituak eta fidelak.

16 Gero erran ziezadan, Ikusi dituan urak, non paillarda iarria baita, dituk populuak, eta tropelak, eta jendeak, eta mihiak.

16 Eta bestian ikusi dituan hamar adarrak dituk paillardari gaitz eritziren draukatenak, eta hura desolaturen die eta haren haragia ianen eta bera, suan erreren die.

17 Ezen lainkoak ezarri dik haien bihotzetan, egin dezaten hark plazer duena, eta konsenti ditezen, eta eman diezoten bere resuma bestia-ri lainkoaren hitzak konpli daitezkeno.

18 Eta ikusi ukan duan emaztea duk Zibitate handi hura zeinek baitu bere resuma lurreko regen gainean.

KAP. XVIII.

2 Babiloneren erortea eta desegitea.

9 Infidelen harzazko urthueria, 15

Prinzipalki hark abrastu

ditukeenena. 20 Baina fidelak

alegeraturen dirate. 21 Haren

desegitea nolako izanen. 24 Hartan

eridenen heriotara eman diratenen

odola.

1 Eta gauza hauen ondoan ikus nezan berze Aingeru bat iausten zela zerutik, bothere handia zuela: eta argi zedin lurra haren gloriatz:

2 Eta oihuz iar zedin botheretsuki boz handiz, zioela, Erori da, erori da Babilon handi hura, eta egin izan da deabruen habitatione, eta espiritu satsu ororen eta hegaztina satsu eta exekrable ororen retiragune:

3 Ezen haren paillardizaren hirazko mahatsarnotik edan ukan dute jende guziek, eta lurreko regek harekin paillardatu ukan dute: eta lurreko merkatariak haren delizietako abrasasunetik abrastu izan dirade.

4 Eta enzun nezan berze boz bat zerutik, zioela, Ilki zaitezte hartarik ene populua, haren bekatuetan partizipant etzaretenzat, eta haren plagetarik rezebi eztezazuenzat.

5 Ezen haren bekatuak elkarri iarreiki izan zaizka zerurano, eta orhoit izan da lainkoa haren inikitategi.

6 Renda ieozue hark egin ukan drauzuen bezala: eta paga ieozue doblea bere obren araura: hark erautsi ukan drauzuen kopan eman ieozue doblea.

7 Zenbat bere burua glorifikatu ukan baitu, eta deliziotan izan baita, emozue hanbat tormenta eta nigar: ezen bere bihotzean erraiten

du, larria nago regina, eta eznaiz alhargun, eta urthueriarik eztakusket.

8 Halakotz egun batez ethorriren dirade haren plagak, herio eta urthueria eta gosete: eta suz erreren da: ezen lainko launa borthitz da, zeinek iujeaturen baitu hura.

9 Eta nigar eginen dute harzaz eta deithore haren gainean lurreko regek, harekin paillardatu dutenek eta delizioski bizi izan diradenek, dakuskeitenean haren erratzeko kea:

10 Urrun daudela haren tormentaren beldurrez, dioitela, Elas, elas, Babilon zibitate handia, zibitate borthitza nola hire kondemnationea oren batez ethorri izan den!

11 Lurreko merkatariak ere nigar eginen dute eta deithore haren gainean, zeren nehork ezpaitu haien marxandizatik erosten gehiagorik:

12 Marxandiza urhezkorik, eta zilharrezkorik, eta harri preziatuzkorik, eta perlazkorik, eta krespazkorik, eta purprezkorik, eta zetazkorik, eta eskarlatazkorik, eta usain onetako zur mota guzitakorik, eta iboirezko unzi guzitakorik, eta unzi guzizko zur preziatuzkorik, eta kobrezkorik, eta burdinazkorik, eta marbrezkorik:

13 Eta kanela, eta usain on, eta ungentu, eta enzensu, eta mahatsarno, eta olio, eta irin flore fin, eta ogi bihi, eta behor eta ardi, eta zaldi, eta karriot, eta esklabo, eta gizonen arima.

14 (Hire arimaren desirezko fruktuak ioan ditun hireganik, eta gauza delikatu eta exzellent guziak galdu izan zaizkin: eta eztitun gehiagorik gauza hek eridenen)

15 Gauza hauen merkatariak *bada* abrasu izanik urrun harenganik egonen dirate haren tormentaren beldurrez, nigarrez eta deithorez dau dela.

16 Eta dioitela, Elas, elas, Zibitate handia, zein baitzen krespaz beztitua, eta purpraz, eta eskarlataz, eta baitzen urhestatua urhez, eta apaindua harri preziatuz eta perlaz; nola oren batez desolatu izan dirade hain abراساتun handiak?

17 Unzi pilotu guziak ere, eta unzietako konpainia guzia, eta marinerak eta zenbatek ere itsasoan baitihardukate, urrun egonen dirade.

18 Eta haren erratzeko kea dakusatenean, heiagoraz iarriren dirate, dioitela, Zein *zibitate zen* zibitate handi hunen parerik?

19 Eta erhauts egotziren dukeite bere buru gainetara, eta heiagora eginen dukeite nigarrez eta deithorez daudela, eta dioitela, Elas, elas, zibitate handia, zeinetan abrastu izan baitziraden itsasoan unzirik zuten guziak, haren magnifizientia handitik, nola oren batez desegin izan den!

20 Alegeradi haren gainean zerua, eta *zuek* Apostolu eta Profeta sailduak: ezen lainkoak iujeatu ukan du zuen kausa, harzaz den bezenbatean.

21 Gero har zezan Aingeru borthitz batek harri bat, errota harri handi bat bezalakorik, eta iraitz zezan itsasora, zioela, Hunelako indarrez iraitziren da Babilone zibitate handia, eta ezta gehiagorik eridenen.

22 Eta gitarrarien, eta musizianoen, eta xirula, eta tronpeta soinularien bozik ezteak hitan gehiagorik enzunen: ez zer ere ofiziotako den ofizierik batre ezteak gehiagorik hitan eridenen: eta errota harriaren hotsa ezteak gehiagorik hitan enzunen:

23 Eta kandela argiak eztik argirik eginen hitan gehiagorik, eta esosoaren eta esposaren

boza eztuk hitan gehiagorik enzunen, zeren hire merkatariak lurreko prinze baitziraden, zeren hire pozoinkeriez seduzitu izan baitirade natione guziak.

24 Baina hartan Profeten eta Sainduen odola eriden izan da, eta lurraren gainean heriotara eman izan diraden guzienena.

KAP. XIX.

1 Laudorio lainkoari. 7 Elejituen bozkarioa eta dohainontasuna. 10 Aingeruak adoratu izatea refusatzen. 11 Kristen gloria eta maiestatea. 17 lainkoaren banket handiratko deia. 20 Bestiaren eta harenen desegitea.

1 Gauza hauen ondoan enzun nezan tropel anhitzen boz handi bat zeruan, zioela, Halleluia: salbatione, eta gloria, eta ohore, eta puisanza gure lainko launari dagoka.

2 Ezen egiazko dirade eta iusto haren iujemenduak: zeren bere paillardizaz lurra korrunpi-

tu ukan duen paillarda handiaz iustitia egin ukan baitu, eta bere zerbitzarien odola haren eskue-tan mendekatu ukan baitu.

3 Eta berriz erran zezaten Halleluia: eta haren kea igan zedin sekula sekulakotz.

4 Eta hogeï eta laur Anzianoek eta laur ani-malek egotz zitzaten bere buruak bere begithar-ten gainera, eta adora zezaten throno gainean iarririk dagoen lainkoa, zioitela, Amen, Halleluia.

5 Eta boz bat thronotik ilki zedin, zioela, Lauda ezazue gure lainkoa haren zerbitzari guziek, eta haren beldur zareten xipiek eta han-diek.

6 Gero enzun nezan tropel handi baten hotsa bezala, eta ur handien hotsa bezala, eta igorziri handien hotsa bezala, zioitela, Halleluia, ezen regnatu ukan du gure lainko laun bothere guzi-takoak.

7 Boz eta alegera gaitezen, eta demogun hari gloria: ezen ethorri dirade Bildotsaren ezteiak, eta haren emaztea apaindu da.

8 Eta eman izan zaio krespe purez eta argi-tzen duenez bezti ledin: ezen krespa, Sainduen iustificacioneak dirade.

9 Orduan erran ziezadan, Eskriba ezak, Dohatsu dirade Bildotsaren ezteietako afarira deit-huak. Erran ziezadan halaber, lainkoaren hitz haur egiazko dituk.

10 Eta egotz nezan neure burua haren oinen aitzinera hura adora nezanat: eta erran ziezadan, Begirauk eztagian: hire zerbitzari kide nauk, eta hire anaien, zeinek baitute Iesusen testimo-niajea. Iainkoa adora ezak: ezen Iesusen testi-moniajea duk profetiazko Espiritua.

11 Gero ikus nezan zerua irekirik, eta huna, zaldi xuri bat, eta haren gainean iarririk zegoena deitzen zen Fidela eta Egiatia, eta iustoki iudika-tzen duena eta konbatitzen dena.

12 Eta haren begiak *ziraden* su-garra bezala, eta haren buru gainean zen anhitz diadema, eta *zuen* eskribuz izena hark berak baizen ezagutu ukan eztuena:

13 Eta zen odolez tintatu arropa batez beztitua: eta haren izena deitzen da IAINKOAREN HITZA.

14 Eta zeruan diraden armadak iarreikiten zaizkion zaldi xuriz, beztiturik krespa xuriz eta purez.

15 Eta haren ahotik ilkiten zen ezpata zorrotz bat, harzaz io ditzanzat nationeak: ezen hark gobernaturen ditu hek burdin berga batez: eta hura da lainko bothere guzitakoaren hisizko eta hirazko mahatsarno lakoa aurizkiren duena.

16 Eta zuen bere beztiduran eta ixterrean eskribuz izen haur, REGEN REGEA, ETA IAUNEN IAUNA.

17 Gero ikus nezan Aingeru bat iguzkian barna zegoela, zeinek oihu egin baitzezan ozen-gi, zioztela zeruaren arteaz hegaldatzen ziraden xori guziei, Zatozte, eta bil zaitezte lainko handiaren afarira,

18 Ian dezazuenzat regen haragia, eta kapitainen haragia, eta borthitzen haragia, eta zaldien haragia, eta haien gainean iarririk daudene-na, eta libre eta esklabo, xipi eta handi guzien haragia,

19 Gero ikus nitzan bestia eta lurreko regeak eta haien armadak bildurik gerla egitera zaldi gainean iarririk zegoenaren kontra eta haren armadaren kontra.

20 Eta bestia hatzaman zedin, eta profeta falsu haren aitzinean signoak egin zituena hare-

kin, zeinez seduzitu baitzituen bestiaren merka hartu ukan zutenak, eta haren imajina adoratu ukan zutenak: bizirik iraitzi izan dirade bi hauk suzko estang sufrez zaxekan batetara:

21 Eta goitikoak hil izan ziraden zaldi gainean iarririk zegoenaren ahotik ilkiten zen ezpataz: eta xori guziak ase zitezen haien haragietarik.

KAP. XX.

*1 Satan estekatu. 7 Gero laxatu. 4
lainkoaren hitzagatik hil izan
diradenen arimak. 12 Bizitzeko
liburua. 13 Iudizioa.*

1 Gero ikus nezan Aingeru bat iausten zela zerutik abismeko gakoa zuela, eta kadena handi bat bere eskuan.

2 Eta hatzaman zezan dragoina, suge zaharra, zein baita deabrua eta Satan, eta esteka zezan hura milla urthetakotz.

3 Eta irion zezan hura abismera, eta erts zezan hura, eta zigila zezan haren gainean, jen-

deak gehiagorik seduzi eztitzanzat, milla urtheak konpli daitezkeno: eta gero behar da laxa dadin denbora guti batetakotz.

4 Gero ikus nitzan alkiak, eta iar zitezen haien gainetan *jendeak*, eta iujemendua eman zekien: eta lesusen testimoniajeagatik, eta lainkoaren hitzagatik buruak edeki izan zaiztenen arimak, eta zeinek ezpaitzuten adoratu bestia ez haren imajina, eta ezpaitzuten hartu ukan haren merka bere belarretan edo bere eskuetan, eta biziko dirade eta regnaturen dute Kristekin milla urthez.

5 Baina goitiko hilak eztirade resusziaturen milla urthe konpli daitezkeno: haur da lehen resurrektioea.

6 Dohatsu eta saindu da lehen resurrektio-
nean parte duena, haien gainean bigarren herio-
ak eztu bothererik: baina izanen dirade lainko-
aren eta Kristen sakrifikadore, eta regnaturen
dute harekin milla urthez.

7 Eta konplitu diratenean milla urtheak laxa-
turen date Satan bere presoindegitik.

8 Eta ilkiren date seduzi ditzanzat lurraren
laur koreretan diraden nazioneak, Gog eta

Magog, hek kongrega ditzanzat bataillara: zeinen kontua baita itsasoko sablea bezala.

9 Eta igan zitezen lurraren zabaltasunera, eta ingura zezaten Sainduen kanpoa, eta Zibitate maitea: baina ia uts zedin sua lainkoaganik zerutik, eta irets zitzan hek.

10 Eta hek seduzitzen zituen deabrua, iraitz zedin suzko eta sufrezko estagnera, non *baitirade* bestia eta profeta falsua: eta tormentaturen baitirade egun eta gau sekula sekulakotz.

11 Gero ikus nezan throno handi xuri bat, eta norbeit haren gainean iarria, zeinen aitzinetik ihes egin baitzezaten lurrak eta zeruak, eta etzedin haiendako lekuri eriden.

12 Eta ikus nitzan hilak xipiak eta handiak lainkoaren aitzinean zeudela, eta liburuak ireki zitezen: eta berze liburu bat ireki zedin, zein baita bizitzeko *liburua*: eta iujea zitezen hilak liburuetan eskribatuak ziraden gauzetarik, bere obren araura.

13 Eta renda zitzan itsasoak hartan ziraden hilak: herioak ere eta ifernuak renda zitzaten hetan ziraden hilak: eta iujemendua egin zedin batbederaren obren araura:

14 Eta ifernua eta herioa egotzi izan ziraden
suzko estagnera: haur da bigarren herioa.

15 Eta nor ere ezpaitzedin eriden bizitzeko
liburuan eskribaturik, suzko estagnera iraitz
zedin.

KAP. XXI.

*3 Salbatuen dohainontasuna. 7
Fidelei egiten zaizten promesak. 8
Gaixtoei egiten zaien mehatxua. 9
Bildotsaren esposa. 11, 16 Zibitate
sainduaren deskriptionea eta
neurria: 22 Hartako tenplea, argia,
gloria eta habitantak.*

1 Gero ikus nezan zero berri bat eta lur berri
bat: ezen lehen zerua eta lehen lurra ioan izan
zen: eta itsasoa etzen gehiagorik.

2 Eta nik Ioanesez ikus nezan Ierusalem
berriko Zibitate saindua iausten zela lainkoaga-
nik zerutik, apaindua esposa bere senharraren-
zat apaindu bat bezala.

3 Eta enzun nezan boz handi bat zerutik, zio-ela, Huna, lainkoaren tabernaklea gizonekin *da*, eta habitaturen da hekin, eta hek haren populu izanen dirade, eta lainkoa bera hekin izanen da haien lainko.

4 Eta ixukaturen du lainkoak nigar xorta guzia haien begietarik: eta herioa gehiagorik ezta izanen ez urthueriarik, ez heiagorarik, ez nekerik: ezen leheneko gauzak iragan dirade.

5 Eta erran zezan throno gainean iarria zenak, Huna, gauza guziak berri egiten ditut. Eta erran ziezadan, Eskriba ezak: ezen hitz haue fidelak dituk eta egiazkoak.

6 Eta erran ziezadan, Egin da: ni naiz a eta w, hatsea eta fina. Nik egarri denari emanen draukat bizitzeko ithur uretik, dohainik.

7 Garaithuren duenak, heretaturen ditu gauza guziak: eta izanen natzaio hari lainko, eta hura izanen zait niri seme.

8 Baina beldurtiei, eta inkredulei, eta exekra-blei, eta giza-erhailei, eta paillartei, eta pozoazalei, eta idolatrei, eta gezurti guziei partea *asignatua* dagote suz eta sufrez daxekan estagnean, zein baita bigarren herioa.

9 Orduan ethor zedin enegana zazpi anpola azken zazpi plagez betheak ukan zituzten zazpi Aingeruetarik bat, eta minza zedin enekin, zioela, Athor, erakutsiren drauat Bildotsaren emazte esposa.

10 Eta eraman nenzan espiritutan mendi handi eta gora batetara, eta erakuts ziezadan Ierusalemeko Zibitate saindu handia, iausten zela zerutik lainkoaganik:

11 Lainkoaren gloria zuela: eta haren argia zen harri guzizko preziatua irudi, iaspe harri kristalera tiratzen duena bezala.

12 Eta zuen murraila handi bat eta gora bat, zituela hamabi bortha, eta borthetan hamabi Aingeru: eta izenak eskribatuak: zein baitirade Israeleko hamabi leinuetako hurren izenak

13 Orient aldetik, hirur bortha: Akilonetik hirur bortha: Egu-erditik hirur boltha: eta Okzidentetik, hirur bortha.

14 Eta Zibitatearen muraillak zituen hamabi fundament, eta hetan Bildotsaren hamabi Apostoluen izenak.

15 Eta enekin minzo zenak zuen urhezko kanabera bat, Zibitatearen eta haren borthen eta haren murrailaren neurtzeko.

16 Eta Zibitate bera zen karratua, eta haren luzetasuna *zen* hanbat nola zabaltasuna: eta neurt zezan Zibitate *urhezko* kanaberaz, hama-bi milla estadiotako, eta ziraden haren luzetasuna, eta zabaltasuna eta goratasuna bardin.

17 Gero neurt zezan haren murraila ehun *eta* berrogei *eta* laur besotako, gizonaren neurritz, zein baita Aingeruarena.

18 Eta zen haren murrailako bastimendua iaspez: baina Zibitate bera zen urhe purez, beira pura irudi.

19 Eta Zibitatearen murrailako fundamentak ziraden harri preziatu guziaz ornatuak: lehen fundamenta *zen* iaspez: bigarrena, sapfirez: herena, xalzedonez: laurgarrena, esmaraudez:

20 Borzgarrena, sardonixez: seigarrena, sardoinez: zazpigarrena, krisolitez: zortzigarrena, berillez: bedratzigarrena, topazez: hamargarrena, krisoprabez: hamekagarrena, hiazinthez: hamabigarrena, amethistez.

21 Eta hamabi borthak *ziraden*, hamabi perla, batbederatan bat: eta borthetarik batbедера zen perla bederaz. Eta Zibitateko plaza zen urhe purez, beira guzizko argia bezala.

22 Eta eznezan tenplerik ikus hartan: ezen lainko laun bothere guzitakoa da hartako templea, eta Bildotsa.

23 Eta Zibitateak eztu iguzkiren edo ilhargiren beharrik, hartan argitzeko: ezen lainkoaren gloriak argitu du hura, eta haren argia da Bildotsa.

24 Eta salbatu izan diraten nazioneak haren argian ebiliren dirade: eta lurreko regek bere gloria eta ohorea hartara ekarriren dute.

25 Eta hartako borthak eztirade ertsiren egunaz: ezen ezta gabik han izanen.

26 Eta ekarriren da Jentilen gloria eta ohorea hartara.

27 Ezta sarthuren hartara gauza satsutzen duenik batre, edo abominationerik eta falseriarik egiten duenik: baina solament Bildotsaren bizitzeko liburuan eskribaturik daudenak.

KAP. XXII.

1 Ur bizizko flubioa. 2, 14 Bizitzeko arborea. 8 Aingeruak adoratu izatea refusatzen. 14 Fidelen dohainontasuna, eta infidelen ir aiztea. 18 Profetia huni deus eratxeki eztakion defendatzen.

1 Gero erakuts ziezadan ur bizizko flubio pur bat, kristalak bezala argitzen zuenik, lainkoaren eta Bildotsaren thronotik heldu zela.

2 Eta haren plazaren erdian eta flubioaren alde bietarik zen bizitzeko arborea ekarten zituela hamabi fruktu, hilebethe oroz emaiten zuela bere fruktua, eta arborearen hostoak Jentilen osasunetakotz.

3 Eta gauza maradikaturik batre ezta izanen gehiagorik: baina lainkoaren eta Bildotsaren thronoa hartan izanen da, eta bere zerbitzariak zerbitzaturen dute hura.

4 Eta ikusiren dute haren begithartea, eta haren izena haien belarretan *izanen da*.

5 Eta gabik han ezta izanen, eta kandela argiren, ez iguzki argiren beharrik eztute: ezen lainko launak argitzen ditu hek: eta regnaturen dute sekula sekulakotz.

6 Gero erran ziezadan, Hitz hauk fidelak *dituk* eta egiazkoak: eta Profeta sainduen lainko launak igorri ukan dik bere Aingerua, bere zerbitzariari erakuts dietzenzat sarri egin behar diraden gauzak.

7 Huna, heldu naiz sarri: dohatsu da liburu hunetako profetiazko hitzak begiratzen dituen.

8 Eta ni *naiz* loanes gauza hauk enzun eta ikusi ditudana. Eta enzun eta ikusi ondoan egotz nezan neure burua gauza hauk erakusten zerauzkidan Aingeruaren oinen aitzinera adora nezanat:

9 Eta erran ziezadan, Begirauk eztagian: ezen zerbitzarikide nauk hire, eta hire anaie Profeten, eta liburu hunetako hitzak begiratzen dituztenen: lainkoa adora ezak.

10 Gero erran ziezadan, Eztitzala zigila liburu hunetako profetiazko hitzak: ezen denbora hurbil duk.

11 Iniusto dena biz iniusto oraino: eta satsu dena satsu biz oraino: eta iusto dena iustifika bedi oraino: eta saindu dena sanktifika bedi oraino.

12 Eta huna, ethorten naiz sarri: eta ene alokairua enekin da, renda diezodanzat batbederari haren obra izanen den bezala.

13 Ni naiz a eta w, hatsea eta fina, lehena eta azkena,

14Dohatsu *dirade* haren manamenduak begiratzen dituztenak: zuzen dutenzat bizitzeko arborean, eta borthetarik sar ditezenzat Zibitate-ra.

15 Baina kanpoan *izanen dirade* orak, eta pozoazaleak, eta paillartak, eta giza-erhaileak, eta idolatreak, eta nork ere maite baitu eta egiten falseria.

16 Nik lesusek igorri ukan dut neure Aingerua gauza haur testifika lietazuenzat Elizetan. Ni naiz Dabid-en zaina eta jenerationea, Izar argitzen duena eta goizekoa.

17 Eta Espirituak eta Esposak erraiten dute, Athor. Eta enzuten duenak, erran beza, Athor.

Eta egarri dena, bethor: eta nahi duenak har beza, bizitzeko uretik dohainik.

18 Ezen protestatzen draukat liburu huneta-ko profetiaren hitzak enzuten dituen guziari, Baldin nehork gauza hauei eratzeki badieze, eratxekiren drautza hari lainkoak liburu hunetan eskribatuak diraden plagak.

19 Eta baldin nehork ken badeza *deus* profetia hunen liburuko hitzetarik, kenduren du lainkoak haren partea bizitzeko liburutik, eta Zibitate saindutik, eta liburu hunetan eskribatuak diraden gauzetarik.

20 Gauza hauzaz testifikatzen duenak dio, Segur banatorke sarri: Amen. Bai, athor Iesus launa.

21 Iesus Krist gure launaren gratia dela zuekin guziokin. Amen.

Testamentu berriaren fina.

TESTAMENTU BERRIAN

diraden izen propri Hebraiko eta Greko batzuen deklarationea

A

Aaron, *mendia, edo mendiko gizona.*

Abel, *he, duenean, Adamen semea, banitate.*

Abraham, *anhitzen aita.*

Adam, *gizona, edo lurrezkoa, edo kanabera.*

Agabus, *othia.*

Agar, *estranjer.*

Alexandre, *aiutazale, berthutetsu.*

Amen, *halabiz, den, edo egin dadila.*

Ananias, *launaren hodeia.*

Andriu, *guzizko borthitza.*

Ana, *gratiatsua, miserikordioso.*

Apostolua, *igorria, enbaxadorea.*

Areopajita, *mendiko dena, Marsen kosta.*

Athenes, *mola gabea.*

B

Baal, *Idola, seignoriazalea.*

Bar-iona, *kolunba-semea*.

Barnabas, *konsolationezko semea*.

Barsabas, *konbertimenduko semea*.

Bartholome, *urak hartzen dituenaren semea*.

Bartimeo, *seme itsua*.

Ben-iamin *eskuinaren semea*.

Beth-ania, *obedientiazko edo afliktionezko semea*.

Beth-lehem, *ogi-etxe*.

Beth-faje, *haran ahoko etxea*.

Beth-saida, *fruktu-etxea*.

Boanerjes, *igorziri semea*.

Booz, *indarrez*.

D

Dabid, *maitea*.

Deabrua, *hogen emailea, kalumniazalea*.

Dekapolis, *hamar hiritako frontera*.

E

Eba, *bizi dena*.

Egipte, *herstura, tribulatione*.

Eleazar, *lainkoaren aiuta*.

Elias, *lainkoa, launa*.

Elizabeth, *iuramenduzko lainkoa*.
Emmanuel, *lainkoa gurekin*
Emmaus, *konseillu beldur*.
Eneas, *laudatua*.
Enok, *jigant, kadena*.
Esau, *egilea, obrazalea*.
Esaie, *lainkoaren salbamendua*.
Esteben, *koroa*.

F

Fanuel, *lainkoaren ikuslea*.
Farao, *disipazalea*.
Fares, *dibisionea, ludako semea*.
Fariseuak, *zathituak*.
Filemon, *pot-gilea*.

G

Gabriel, *gizon lainkoa edo lainkoarena*.
Gad, *dohatsu, prest*.
Galatia, *eznezkoa*.
Galilea, *ingurazalea*.
Gehenna, *miseriazko harana*.
Gog, *atharbea*.
Golgota, *bur-hezur lekua*.

Gomorra, *populu desobedienta*.
Grekoak, *dezebizaleak*.

H

Hebraikoa, *iragaiten dena*.

I

Iakob, *enganadora*.

Iason, *sendazalea*.

Iekonias, *launaren preparationea*.

Ieriko, *ilhargia, hilebethea*.

Ierusalemeko, *bakezko bisioea, bisioe perfektua*.

Iese, *delarik izateko dena*.

Iesus, *Salbazalea*.

Ioaquim, *launaren preparationea*.

Ioaquim, *launaren resurrekzioea*.

Ioaquim, *gratiatsu, saildu, miseriakordioa*.

Ionas, *kolonba*.

Ioram, *altxatua*.

Iordana, *iujemenduzko flubioa*.

Iosef, *abanzamendua, augmentazioea*.

Isaak, *irria*.

Iskariot, *heriotako gizona*.

Israel, *lainkoak garaita*.
Iudas, *laudorio*.

K

Kana, *zelo, inbia*.
Kananeano, *kana Galilea hirikoa*.
Kapernaum, *penitentiazko landa*.
Kanaam, *marxand, trafikari*.
Kerubin, *kuasi nabusi*.
Kleofas, *gloria guzia*.
Kolosianoak, *herioaz punituak*.
Korazin, *huna misterioa*.

L

Lazaro, *lainkoaren aiuta*.
Lithostratos, *bide harriz pabatu*.

M

Madian, *iujemendua, debatizalea*.
Magdalena, *magnifikoa*.
Malkus, *rege*.
Mamona, *dirua, abastasuna*.
Maria, *exaltatua, karmintasunezko itsasoa*.
Martha, *inztatzailea, probokazalea*.

Mattheu, *emana*.

Melkisedek, *iustitiazko regea*.

Mesopotamia, *inguratua zeren hala inguratu-
tua baita Eufratesez eta Tigroaz*.

Moises, *retiratua uretarik*.

N

Nazareth, *sanktifikatua, separatua*.

Nazareno, *halaber*.

Neftali, *konparationea*.

Niniba, *ederra*.

O

Onesimo, *probetxutako*.

P

Palestina, *ereina, edo estalia hautsez*.

Pierris, *harria*.

Probatika, *ardi-plaza*.

R

Roma, *altxatua, gora*.

S

Salem, *bakea*.
Salmon, *bakezkoa*.
Salomon, *halaber*.
Samaria, *diamant, goarda*.
Sara, *andrea, Abrahamen emaztea*.
Satan, *adbersarioa*.
Saul, *galdegina, prestatua*
Simeon, *beha egoilea*.
Simon, *obedizalea*.

T

Tarse, *hegal edo luma-duna*.
Thabor, *elektioea, pura*.
Thadee, *laudazalea*.
Thamar, *palma, daktiera*.
Thomas, *abismea, biritxia*.
Timeo, *itsua edo itsutasuna*.
Timotheo, *lainkoaren ohorea*.
Tite, *honorablea*.

Z

Zabulon, *egoitza*.
Zakarias, *launaren memoria*.
Zakee, *pur*.

Zebedeo, *dotatua, dotea.*

Zedron, *beltztua, tristea.*

Zipre, *ederra.*

Zorobabel, *konfusioneari kontrastazalea.*

TESTAMENTU BERRIKO HITZ ETA MINZATZEKO MANERA

**difizil bakoitz batzu
bere deklarationekin.**

ADBERTIMENDUA

Zeren baitirade Testamentu berrian zenbeit hitz eta minzatzeko manera, usanzatan komunzki ez izanez, guziez adi ezlitakenik, hetango difizilenetarik batzu bildu ukan ditugu, eta hemen zein bere deklarationerekin ezarri: ez jende iakinsuen artean trakta ahal litezken punktuen goraki deklaratzeko, ez luzaki erran ahal litezken razoin guzien emaiteko intentionez: baina hek aditu faltaz irakurtzean enpatxu ahal lukeitenek adi ditzatenzat.

A

Abba, da hitz bat, Iesus Kristen denboran populu Hebraikoaren artean lengoaje komunean usanzatan zenik, eta heldu da Hebraikoen egiaz-

ko lengoajetik, zein erran nahi baita hanbat nola, Aita.

Adarra, hartzen da indarragatik eta berthuteagatik. Luk 1. 69.

Aingerua, erran nahi da hanbat nola, Mandataria: baina komunzki hartzen da espiritu zelesstialakgatik, zeinek lainkoa bere borondatearen egitera eta exekutatzera zerbitzatzen baitute.

Anaie, deitzen dirade Hebraikoz, ez haurride diradenak solament, baina ahaide guziak ere: eta jeneralki hartzen denean, erran nahi da hanbat anaie nola arreba, eta ez mundu hunetako, aita-amen respektuz, baina lainkoaren respektuz.

Anzianoa, zaharra erran nahi da, baina Anziano deitzen dirade Elizako administrationearen kargua dutenak. 1. Tim. 5. 17. eta berzetan ageriden bezala.

Ametsak, erran nahi dirade lainkoak bere Profetei eta berze plazer zuenei lo zeunzala egiten zerauzten rebelationeak. akt. 2. 17. eta berzetan.

Arima, hartzen da batzutan biziagatik, hala nola, math. 2. 20. ioan. 13. 37 eta 15.13. Batzuz

tan, hats hartzeagatik, hala nola. akt. 20. 10. Batzutan, gogoagatik edo afektioneagatik, hala nola, matth. 26. 38. mark. 14. 34. ioan. 12. 27. luk. 1. 46, eta. 2. 35. Batzutan, nehor bizi den espirituagatik, hala nola, mat. 10. 28. akt. 15. 24: 2. kor. 1. 23: 1 pier. 1. 9, 22. Batzutan, adi-menduarekin den borondateagatik eta orduan espirituaz signifikatzen eta deklaratzten da.

Arkanjelua, da hitz konpausatu bat, eta erran nahi da prinzipal, edo exzellent Aingeruen artean.

Arnoa, hartzen da hordi ahal dezaken edari guziagatik.

Augusto, hartzen da ez solament lehen enperadore hala deitzen zenagatik, baina haren ondoan enperadoregoan sukzeditu dutenakgatik ere bai. akt. 25 21.

B

Baptista da, batheiatzen ari denaren ofizioaren izena, eta atribuitzen zaio izen haur Zakaria-sen seme loanesi, zeren hura lehenik batheiatzen hasi izan baitzen.

Bazkoa da, hitz Hebraiko bat, eta erran nahi da pasajea edo iragaitzea: baina hartzen da hanbat Israeleko populuari lainkoak Egipteko kaptibatetik retiratuz egin ukan zeraukan delibrantzaren konmemorationetan iaten zen Bazko-bildotsagatik, nola urthe orozko besta solenellagatik.

Beelzebub Idola izen bat da, eta bere fundamenta ulietarik du, razoina zergatik, ezta orain zegai luzakiago hemen erran dadin. Baina zeren fama handitako idola bat baitzen, deabruagatik hartzen da idolazko hastioaren handiz.

Beilla, hartzen da kostuma anzianoaren araura: ezen lehenago, iguzkia sar zedinetik ilki arterano, gaua laur parte bardinetara partitzen zuten.

Bekatore, hitz hunen lekuan ezarri ukan dugu anhitzaten, bizitze gaixtotako, nehor engana eztadinzat, integroki iusto eztiradenakgatik hartuz: eta orduan hartzen da gaixtakeria orotara emanak diraden jendeakgatik.

Bekatua, signifikazione komunaz berzalde, hartzen da gizonaren naturan regnatzen duen gaixtakeriaren erroagatik: eta sensu hunetara

aditu behar da Rom. seigarrenean eta zazpigarrenean. Batzutan hartzen da halaber, bekatuaren satisfaktionetan ofrendatzen zen sakrifizioagatik, zeren lainkoaren iujemenduaren maledikzioa hartan ezarten baitzen, bekatorea xahu lizenzat. Eta halakotz Jesus Krist, zeren molde hartara guregatik ofrendatu izan baita, deitzen da bekatu. Rom. 8, 3: 2. kor. 5. 21.

Benedikatzea, erran nahi da laudatzea, hala nola erraiten dugunean, Benedika dezagun lainkoa. Batzutan, hartzen da esker eta remerziamentu emaiteagatik. Eta batzutan sanktifikatzeagatik edo konsekratzeagatik. 1. kor. 10. 16

Berthuteak edo *puisanzak*, mirakuluagatik hartzen dirade: zeren hezaz lainkoak extraordinarioki deklaratzeko baitu bere berthutea, ezen ez naturaren kursuaren araura egiten diraden gauzez: matt. 13. 58.

Bide Sabbathokoa, zen Sabbathoan ioaitera sori zen bezenbat, baitzen bi milla urhets, Frantziako lekoatxo bat baino gutxiago.

Blasfemia, da hitz Grek bat, eta erran nahi da, iniuria edo gaitzerraitea. Baina partikularki

hartzen da lainkoari egiten zaion iniuria eta oprobrioagatik.

Borthak, ifernuko borthak hartzen dirade fortalezakgatik edo munitioneakgatik: zeren hirietako fortaleza baita borthetan prinzipalki.

Bur-hezur edo *Kalbaria* hartzen da hilaren burhezur haragirik eztuenagatik. Eta halakotz leesus launaren kruzifika lekua deitzen zen burhezur, edo bur-hezur Kalbaria, edo Kalbaria, zeren hilen hezur anhitz baitzen leku hartan.

K

Krist, erran nahi da hanbat nola unktatua, baina haur da leesus Krist launaren titre propria, zeren unktione espiritualez, erran nahi baita, Espiritu sainduaren gratiaz konsekratu izan baita bere Aita lainko launaz, Sakrifikadore subirano, Rege, eta Profeta izateko.

Kolonia, akt. 16. 12. mentione egiten den bezala, lehenago deitzen zen hala zenbeit hiri konkestatu berririk, eta hartara igorten zen habitatzera, edozein hiri handitarik idokiriko jendaldebata, eta hek bethiere usatzen zuten bere lehen zeuden hiriko legez, zuzenez eta pribilejioez.

Komun, erran nahi da polluitua edo satsua, zeren satsutze baitzen luduen Jentilekin nahas-tekatzea eta hekin komunikatzea.

Kopa, hartzen da zer ere formatako nahi den edal unziagatik, zeren hitz Grekoek ezpaitute forma berezirik exprimitzen.

Batzutan hartzen da krutze edo tribulationea-gatik zeren lainkoak bere fidelei, zeini bere aflik-tione partea, edal unziaz bezala distribuitzen eta partitzen baitraue, behar dela dakusanaren araura.

D

Deskriptioea, hartzen da personen kontua-gatik, hala nola prinze batek bere suieten kontua iakin nahiz, hek enrolla eraziten balitu.

Dineroa zen moneda mota bat hamalaur ardit Franziakorik balio zituenik: baina batzutan hartzen da dinero tornes batagatik ere.

Drakma zen dineroak bezenbat balio zuen peza bat, eta *didrakmak*, doblea.

E

Ebanjelioa, hitz haur erran nahi da hanbat nola berri ona: baina espezialki hitz hunez signifikatzen da Jesus Kristez manifestatu izan zaikun gratiaren eta miseriardiaren predikationea.

Ebanjelioaren sakrifikatzea, da Ebanjelioaren predikationez sakrifizio egitea, arimak lainkoari ofrendatuz. Rom. 15. 16.

Eliza, hitzez hitz erran nahi da kongregationea, edo biltzarrea: baina Testamentu berrian hartzen da Jesus Kristen izenean, berak ordenatu duen ordenanzaren araura biltzen diraden fidelen konpainiagatik.

Erhia, lainkoaren erhia erran nahi da, lainkoaren berthutea zeinez obratzen baitu.

Eskandaloa, erran nahi da trebukamendua edo behaztopea, nehor bidean edo zerbait berze gauzatan trebukatzen baliz bezala.

Eskandalizatzea, erran nahi da trebukatze edo behaztobatzeko okasione norbeiti emaita. Eta zeren lainkoaren hitza bide bat bezala baita, eskandalizatze hitz haur hartzen da, hartan bide

bezala ioaitetik nehor enpatxa ahal lezakeen gauzaren ezarteagatik.

Eskarlata hitz haur batzutan hartzen da purprearen lekuan, zeren purprearen usajea gure artean ezpaita komun, batetik berzera diferentia handia bada ere.

Eskriba erran nahi da hanbat nola doktor, ezen hala deitzen ziraden luduen artean iakinsu estimatzen ziraden guziak.

Eskua, batzutan hitz haur hartzen da indarra-gatik: baina signifikatzen du halaber ministerioa eta zerbitzua, hala nola, erraiten denean ezen lainkoak delibratu duela bere populua, eta eman duela bere Legea Moisesen eskuz.

Espiritua, batzutan erran nahi da gizonaren arima, batzutan berze kreatura inbisiblerik eta gorputz gaberik, hala nola, Aingeruak, Deabruak. Batzutan esentia espirituala sinpleki, hala nola, ioan. 4. 24. Batzutan lainkoaren Espiritu saindua, zein baita lainkoaren berthute esentia-la, hura baithan residitzen delarik. Batzutan hartzen da harenganik prozeditzen diraden gratiak-gatik, eta espezialki fidelek rezebitzen duten rejenerationezko dohainagatik: eta manera

hunetan, espiritua haragiarekin konparatzen denean, gizonaren parte rejeneratuaz hartu behar da hala nola. rom. 7. 6: eta 8. 4 Gal. 5. 16. Batzutan adimenduagatik edo razoinagatik ere bai. 1. Thes: 5. 23.

Estadioa, zen espazio lasterkako xedatu bat: orain nehork barran artzeko egin baleza bezala: eta espazio hura zen luze seiogei eta borz urhets, baitirade 625 oin.

Exorzista, erran nahi da deabruen koniurazalea, nola lehenago baitzen hautarik populu ludaiakoan. akt. 19. 13.

F

Fedea, hartzen da ordinarioki, fidelek lainkoa baithan duten sinhesteagatik, edo haren miseri-kordiaz eta egiaz duten persuasioneagatik eta seguranzagatik: eta singulariki Ebanjelioko promesaren araura Kristinoek Iesus Kristen gratiaz eta egiaz behar duten seguranzagatik. lainkoaren fedea erraiten denean, batzutan erran nahi da egia bera, edo lainkoak bere erranen konplitez begiratzen duen fidelitatea, hala nola, Rom. 3. 3. Batzutan fedea hartzen da gaixtoek eta

menospreziazalek lainkoaz duten ezagutze arin batagatik. iak. 3. 17. Baieta mirakulu egiteko dohainagatik. 1. kor. 12. 9. eta 13. 2.

G

Gertha zedin, ezarri dugun lekuan, Grekak emaiten du, egin zedin: baina minzatzeko manera hunez usatu ukan dugu, ez hala erraiten dugunean, ignorantak minzo diraden bezala, benturazko edo tropuzko gauza dela erran nahi dugulakotz, baina lengoajean moldezkoago itzeukiz, eta Franzesari iarreikiz.

Gertha eztadila erraiten denean, hartzeko da, ez gauzak hala heltzeko perilik balu bezala, baina neholere ezin hel daitelako repostatan.

Gizona, Eskripturan hartzen da, gizon eta emazte, xipi eta handi guziakgatik.

Gizon zaharra, erran nahi da gutarik eta gure naturatik heldu den konditionea, zeren guk Adamganik dugun guzia korrupcionetara ari baita. Ezen arima kotsatu eta pozoatu izan da bekatu orijinalaz: eta halakotz da gorputza herioaren eta usteldu izatearen suiet. Eta kontrariora, *Gizon berria* erran nahi da, Espiritu sainduaren

gratiaz rejeneratu eta arranberritu dena. *Kanpo-ko gizona*, edo *exteriora* S. Paul baithan hartzen da munduari apertenitzen zaion gauza guziagatik, hala nola, ohore, osasun, abarastasun, kredit guziagatik. Eta *barneko gizona* edo *interiora*, erran nahi da, lainkoaren resuman sekulakotz bizitzeko guk dugun arranberrimendua: eta labur erraitera, arimari hunkitzen zaion gauza guzia.

Grek, bere gainekeo populu bat hala deitzen denik izanagatik, S. Paulen epistoletan hartzen da jeneralki Jentilakgatik, zeren natione haur baitzen famatuena luduen artean.

H

Hallelu-ia, bi hitz Hebraiko dirade, eta hanbat balio dute nola, Lauda ezazue lainkoa: berehala utzi ukan dugu kanbiatu gabe: zeren S. Ioanek Grekez eskribatu badu ere, hitz Hebraikoa expresuki eduki nahi ukan baitu.

Haragia, batzutan hartzen da sinpleki berze konsiderationerik gabe, gikonagatik. Batzutan, eta prinzipalki S. Paul baithan, guk gure lehen aitaganik dugun natura korrumpituagatik, eta

signifikazione hunetan gizona guzia konprehen-
ditzen da rejenera dadin baino lehen: baina reje-
neratu ondoan, haren natura karnalaren relikiak-
gatik hartzen da.

Heresia, erran nahi da sekta. Heretikoa da
sekta berezirik apart egiten duena ezpa daduka-
na, Kristinoen unionetik eta batasunetik lekora.

Hira, hartzen da, lainkoak bekatoreak puni-
tzen dituen iujemenduagatik eta mendekioaga-
tik: ez lainkoak hisirik ahal dukeelakotz, baina
zeren gizonak, zehatzen diradenean, aserre baliz
bezala hura senditzen baitute.

Holokausta zen, halako sakrifizio, non guzia
erratzen baitzen, eta handik du izena ere: baina
hartzen da berzen gaintetik exzellent eta singular
den sakrifizioagatik.

I

Idola, hanbat erran nahi da nola imajina, edo
zerbait representatzen duen figura: baina Eskrip-
turan hitz haur hartzen da, debotioez egin izan
den eta nehork saildu edukiten duen imajinaga-
tik. Idolatreak dirade, hek ohoratzen dituztenak.
Idolatria da nehork idoletara duen debotioea

eta reberentia. Eta idola hartzen den signifikatio-
ne berean, hartzen da imajina ere.

Ipizpikua, erran nahi da hanbat nola Survei-
llant, edo Superintendent: baina komuzki Eliza-
ren gobernatzeko ordenatzen den Pastoragatik
hartzen da.

Itsasoa, ezta bethi guk lengoaje komunean
hartzen dugun bezala hartzen baina ludeako
herrian zen Jenezaretheko lak-agatik ere bai.

Iustificatzea, komunzki hartzen da iustotzat
edukiteagatik: eta S. Paulek erraiten duenean,
iustificatzen dela gizona lainkoaren aitzinean,
manera hunetara aditzen du, ezen erran nahi da,
iusto estimatzen dela: eta erraiten duenean
ezen fedez gizona iustificatzen dela, erran nahi
da, ezen lainkoaren gogarako dela, ez bere iusti-
tia propriz, baina Iesus Kristen kausaz, zeinen
gratiaz bere bekatuen barkamendua fidelari egi-
ten baitzaio, iusto baliz bezala ezagut eta rezebi
dadinzat. lainkoaren, edo haren zuhurtziaren
iustificatzea da, haren aprobatzea eta laudatzea,
gloria eman dakionzat. matt. 11. 19. eta luk 7
29. Legearen iustificakioneak edo ordenanzak.
luk. 1. 6: dirade, hark eman dituen manamen-

duak: zeren hura baita iustitiazko regla egiazkoa. S. Paulek razoin beragatik Legearen iustifikatione deitzen ditu: zeren hartan irakasten baitzaiku iustoki eta sailduki bizitzeko forma zein den.

J

Jendarmeria. Zeruko jendarmeria, hartzen da Aingeruen konpaniagatik, zeren baitirade lainkoaren jendarmes bezala, eta haren puisanzaren ministre bezala. Baina akt. 7. 42. hartzen da zeruko iguzki, ilhargi eta izar guziakgatik: zeren baitirade armada ordenanza iarri bat bezala.

Jenerationea, signifikazione komunaz berzalde hartzen da, adinagatik eta mendeagatik. matth. 24. 34. Luk 1. 48.

L

Lejionea, zen jendarmesezko banda bat, ordinariki hamar milla oinezkoren eta borz ehun zamarizkoren kontukorik: eta batzutan gutiago edo gehiago: batzutan hartzen da, armada erraiten bagendu bezala.

Letra, hartzen da S. Paul baithan, bihotzera-
no hunkizten eztuen predikationeagatik, lainko-
ak hura bere espirituaz balia eraziten eztuenean.
2. kor. 3. 6. Edo Sakramenduetako signo exterior-
ragatik, egia signoarekin batean eztenean. rom.
2. 27. 29.

Lokartzea batzutan erran nahi da hiltzea: eta
lo daunzanak, hilak: baina haur gorputzaz aditu
behar da eta ez arimaz: zeren gorputz hil bat
baita higitzerik ez maneiurik batre gabe, lo
datzan bat bezala.

M

Mendekoste erran nahi da berrogei eta
hamargarrena, eta hura zen fruktuen primitien
ofrendatzeko besta bat, baieta Espiritu saildua
Apostoluen gainera iaitsi izan zen eguna.

Monument, hitz hunen signifikazionea aitzina-
nago latinaren araura hedatzen bada ere: sepul-
kreagatik hartzen da Eskripturan.

O

Ogi propositionekoak, ziraden, hamabi ogi
aste oroz tenplean hartakotzat ordenatu zen

taula gain batetara presentatzen ziradenik, eta han utziten ziraden ondoko astean nehork ezar lezakeno berzerik: nola baita eskribatua. Lebitik. 24. 5.

Orena ezta Eskripturan orain usatzen dugun manierara hartzen, ezen lehenago eguna luze bazen labur bazen, iguzkiaren ilkitetik sartzera-no partitzen zen hamabi orenetara, eta orenak luze-laburrean ziraden egunaren araura.

Osanna, edo (hobeki eskribatzera) *Hosiahna*, Hebraikozko sententia bat da, eta hanbat erran nahi da nola, Othoi, salba, begira eta mainteni ezak: eta othoitzte bat da. psal. 118 25 hartua, eta populuaz aplikatu izan zaio Iesus launari, bere azken Ierusalemen egin zuen sartzean, nola respektu hartara Dabid-ez egin ere izan baitzen.

P

Patriarka, erran nahi da, aiten artean prinzipal. Eta halakotz Iakob-en hamabi haurrak, (zein izan baitirade populuko hamabi ondoak ezpa erroak bezala) Patriarka deitzen dirade, eta prinzipalki Dabid.

Persona Eskripturan maiz erran nahi da, nehor munduaren arauetz ohora edo menosprezia eraziten duen kanpotiko aparentia, hala nola, abrats edo paubre: noble edo bilaun, nabusi edo muthil, ludu edo Jentil, edo zerbait berzerik izatea. ma. 22. 16: akt. 10. 34

Premitiak ziraden, hetarik ian gabe, lainkoari ofrendatzen zaizkion lehen fruktuak, eta hura zen sanktifikazione mota bat, geroko usajea saildu eta pur lizenzat. Hitz haur lehen hatseagatik ere hartzen da batzutan, hala nola. rom. 8. 22.

Preputioa da, Zirkonziditzean edekiten zen larru xapoa, baina hartzen da Zirkonzisionearen kontrarioagatik ere, hala nola erraiten denean ezen gizona preputioan dela, zirkonziditu gabea dela erran nahi da. Batzutan Jentilakgatik ere hartzen da, hala nola. rom. 2. 27.

Pretorioa, erran nahi zen lehenago, hanbat prinzearen edo Gobernadorearen palatioa, nola iudikatzeko lekua: eta Testamentu berrian hartzen da hanbat signifikazione batean nola berzean.

Profeta, da propriki hura, zeini lainkoak ethorteko diraden gauza estalien rebelationea deklaratzeko bothererekin eta kargurekin eman baitrauka: baina S. Paul baithan hartzen da berzetarik abantail laninkoaren borondatearen deklaratzeko dohain singulara duena: eta Profetia da hala egiteko gratia eta ofizioa.

Prokonsul, erran nahi da Probinziako gobernadore dignitate prinzipalean den bat, eta da Romako enparadoregoaren ordenanzatik eta kostumatik hartua den izen bat.

Propitiatorioa, Legean zen bi Kerubinen hegoaldez estalia zen arkaren baldia: eta zeren baitzen lainkoaren presentiaren signoa, propitio, amatigatu eta aserre gabe, bere populua baithara erakusteko, hura zen Iesus Kristen figura. Eta Hala-kotz deitzen da Propitiatorio. rom. 3. 25. zeinen amorekatik lainkoa amatigatu izan baita, eta fabore bere fidelei ekarten baitraue.

Proselitoa, hanbat erran nahi da nola nobitioa edo berrizki konpainia bati eratxekia: baina hartzen da luduen relijionera konbertitu berri zira-denakgatik.

R

Raka, da hitz bat signifikatone berezirik eztuenik faskeria edo menosprezio erakusteko baizen, nehor hurkoaren kontra despitatzen edo aserretzen denean.

Redemitzea erran nahi da ranzoinaren prezioz berzeren eskuan zenaren derdemiatzea, idokitea eta delibratzea.

Repos, ikus *Sabbathoa*

Resuma, Zeruetako resuma da lainkoak bere populuaren gainean duen gobernamentu espirituala, zeinez hatsen baita bizitze zelestiala Espiritu sainduaz arranberritu diradenetan. Eta zeren lainkoak bere Semearen personan regnatu nahi baitu, eta hura mundu hunetara igorri ukan baitu gauza guziak haren suiektioneko egin litezenzat: kausa hunegatik Iesus Kristen ethortea eta haren mundurako manifestationea deitzen da zeruetako Resuma. matt. 3. 2. Eta zeren Iesus Kristek bere Resuma dispausatzen eta gobernatzeko baitu bere Ebanjelioaren predikationearen moienez, maiz zeruetako resuma hartzen da Ebanjelioaren predikationeagatik. matt. 13. 24. Batzutan resurrektionen ondoan izanen den

Iainkoaren Resumaren konplimenduagatik eta perfektioneagatik. matt. 7. 21.

S

Sabbathoa, erran nahi da reposa, eta berehala hitz bera eduki ukan dugu, zeren Ebanjelistek Grekez eskribatzean, lengoaje hartako ezpazen ere ezpaitute kanbiatu uka. Eta hura zen asteko zazpigarren eta azken eguna, orain batek laranbate, berzek egiakoitz eta berzek nesken egun deitzen duguna: baina batzutan hartzen da aste guziagatik ere, eta halakotz erraiten da Sabbathoaren lehena, bigarrena, herena.

Saindu, erran nahi da Iainkoari dedikatua, konsekratua eta sakrifikatua: eta hunen kontrarioa da profano. Baina fidel guziak saindu deitzen dirade, zeren Iainkoak bere Espirituaz sanktifikatu baititu, mundu hunetako satsutasunetarik eta korrupzionetik retiratzeko. Iainkoa bera ere Saindu deitzen da baieta haren Aingeruak: eta erran nahi da Exzellent, guzizko estimatione handitan eduki behar den gauza bat bezala.

Sakrifikadorea, erran nahi da, Iainkoaren populuaren rekonziliagarri sakrifizio ofrendatze-

ko ofizioa. Eta ofizio haur zen populu Iudaikoan Iesus Krist ethor zedin baino lehen: baina hark ethorri izan denean fin eman ukan draue Moisesen Legeko figura guziei. Eta Sakrifikadoretan batetik berzera bazen diferentia, ezen batzu aldarera hurbiltzen ziraden Iainkoari ofrendatze-
ra, eta hek deitzen ziraden prinzipal, Lebiten respektuz: eta Lebitak ziraden mendreago eta zerbitzu beheragotara deithuak. Baina bazen guzien gaineko gehien bat, zein subirano deitzen baitzen, eta hunek representatzen zuen Iesus Krist berzek baino espezialkiago.

Sandaleak, ziraden abarka edo berze oinetako arin eta aisit batzu.

Semea, Gizonaren Semea hartzen da Kristgatik, haren natura humanoaren egia expresukiago erakuts dadinzat.

Signoak, hitz haur maiz hartzen da mirakuluakgatik, zeren hezaz erakusten baitu Iainkoak bere puisanza mirakuluzkoa, irakatsi nahi duenaren aditzera gizonak iratzar ditzanzat. Zenbeit orduz hartzen da zerbait signifikazione ekarten duen gauza usatu ezten batagatik ere.

Sinagoga erran nahi da hanbat nola kongregationea: baina hartzen da partikularki luduen konpainiagatik, guk Kristinoen artean Eliza hartzen dugun bezala.

T

Talenta, zen pizu mota bat, eta hirien eta lekuen araura anhitz moldetakorik zen, baina gehien balio zuena zen sei milla drakmatako, baitirade Franziako kontura hamekatan ehun liberaren ingurua.

Testamentua, komunzki hartzen da alianza solenelagatik, hala nola, lainkoak lehenik Abrahamekin eta gero Israeleko populuarekin egin zuenagatik, zein gero konfirmatu ukan baitu guregatik Iesus Krist gure launarekin. Baina zeren Alianza haur bethiere sakrifiziotako odolekin egin izan baita, Apostoluak erraiten du, ezen hura dela, egiten duenaren herioaz baizen ratifikatzen eta konfirmatzen ezten Testamentu bat. Heb. 9. 16.

Thesaureria, zen Ierusalemeko tenplean ofrendak egiten eta ezarten ziraden lekua, erra-

na zen usajeko begira litezenzat: komunzki deitzen da Elizako Tronkoa.

U

Ungentua, ezta erran nahi orain nehork unktatzeko usatzen duen ungentu mota: baina olio klaroa edo ur usain onetakoak: eta harienez anzianoki usatzen zuten, orain nehork perfumez edo ur usain onetakoaz usatzen balu bezala.

Unzia, ezta solament komunzki kostumatzen den bezala hartzen: baina nehor deusetan instrument bezala zerbitzatzten den guziagatik ere bai.

Z

Zesar, hartzen da enperadore Romano guziagatik, hala nola, akt. 25. 12, Klaudegatik, eta Filip. 4. 22. Nerongatik.

Zeta, hitz hunez usatu ukan dugu zenbeitorduz, Grek-ez *Bisos* erraiten denaren signifikatze-ko, zein erran nahi baita liho fin krespa irudi duen bat: eta harzaz usatzen zuten, orain tafetasaz usatzen den bezala.

Zigilatzea hartzen da aprobateagatik eta laudateagatik. ioan. 3. 33: eta 6. 27.

ZUBEROAKO HERRIAN USANZATAN EZTIRADEN

hitz bakoitz batzu hango anzora itzuliak

A

Abolitzea *kenzia*.

Arbuiatzea, *refusatzia*.

arraxki *ihiki*

artha, *ansia*, *axola*, *arrangura*.

aserretzea, *samurtzia*, *azkanzia*.

auhena, *marraska*,

aurkan, *artezean*, *heinean*, *eretzi*an.

azkendu, *zupertu*.

azpian, *pian*.

B

Behazuna, *gibelmina*.

babazuza, *xixerra*

behatzea, *so egitia*.

berariaz *expresuki*

E

Elemosina, *aumoina*.

errota, *eihera*.

eskobatzea *ekortzia*

eskobakinak, *ekorkinak*.

ei, *er*, datibo singularian *ari*, erraiten dena, Kuberoan eta aldirietan pluralean erraiten da, *er*, eta berzetan guzietan *ei*: hala nola batez minzatzera erraiten da heuskalerra guzian, gizonari, emazteari, haurrari: eta anhitzez minzatzera, Kuberoan eta aldirietan gizoner, emazter, haurer, eta berzetan, guk heuskarazko translatione hunetan usatu ukan dugun bezala gizonari, emazteari, haurrari, &k.

F

Fiadorea, *bermea*.

fitsa, *buska*.

florea, *lilia*.

G

Gaixtagina, *briganta*.

gakoa, *giltza*.

garastia, *kario*.

guthiziatzea, *desiratzea*.

H

Hagitz, *guziz, xit.*

haguna, *grama.*

harana, *sakana.*

hotsa, *azanza,*

hurbil, *hurren.*

hurkoa, *proximoa.*

I

laio, *sorthu.*

igorzeria, *durunda.*

iguzkia, *ekia.*

ihardukitea, *debatitzia.*

ilhargia, *argizagia.*

iraulzkatea, *itzulerauzkatzia.*

iraungitea, *erhaitia.*

ixterra, *azpia.*

K

Kadena, *kathina.*

karmin, *mingatz.*

kaltea, *damuia.*

L

Lazoa, *laxera*.

landa, *elgia*.

larraina, *ezkaratza*.

lekorea, *elgoria*.

libre, *franko*.

lotzea, *estekatzia*.

M

Maiz, *naharo*.

mendematzea, *berunatzia*.

mugarria, *zedarria*.

N

Neurria, *izaria*.

neurtzea, *izartzia*.

nokua, edo hebaina, *zenbeit menbroz. inpotenta*.

O

Ordaina, *ordaria*.

othoranza *apairuia*

P

Pedazua, *bethatxuia*.

peskadore, *arranzale*. Gehienzi lekuetan arranzale erraitenagatik, heuskaldun anhitzi, ma. 4. 19 eta mark, 1. 17. Nik eginen zaituztet giza peskadore hobeki itzeukiz, ezen-ez. Nik eginen zaituztet gizarranzale: hala usatu ukan dugu.

pitina, *ahugna*.

R

Resuma, *retatuia*.

reboltari, *kereillos*

U

Umunzia, *haurhoia*.

urriki, *dolu*.

X

Xarthatzea, *enpeldatzia*.

xistmista, *xasta*.

xittoa, *xitxa*.

Z

Zama, *karga*, *haxia*.

zerua, zeluia.

zigilatzea, sajeratzia.

zigulua, sajeta.

zikotza, xekena.

TESTAMENTU BERRIKO MATERIEN ERIDEITEKO TAULA

Lehen kontuak kapitulua
erakusten du, eta berzeak
berseta

A

Aaron Sakrifikadore izatera nola deithu. heb.
5. 4.

Abandonatzeko aita eta ama Kristgatik.
matth. 19. 29.

Abandonatzen ez lainkoak bereak. heb. 13. 5.

Abaritia gaitz guziaren erroa 1. tim. 6. 10, eta
aipatzeko ere eztena, ef. 5. 3

Abaritia idolatria, kolos. 3. 5

Abaritiari ihes egiteko, luk 12. 15: heb. 13. 5

Abba, aita. mark. 14. 36, rom. 8. 15: gal. 4, 6.

Abelek fedez ofrandatu sakrifizioa. heb. 11.
4.

Abiathar. mark. 2. 26.

Abillamendu zaharra. matth. 9. 16: mark. 2.
21: luk. 5. 36. Kristen abillamenduez.
mark. 15. 24, ioan, 19: 23.

Abominableak. 2. pier. 3. 17.

Abominatione desolationezkoa. matt. 14. 15.
mark 13. 14

Abortoin bat bezala Paul, 1. kor. 15. 8, eta
Apostoluetako mendrena, 1. kor. 15.
9: ef. 3. 8

Abraham deitzen sinhesten dutenen aita.
rom, 4, 11.

Abrahamek fedez Isaak ofrendatu. heb. 11.
17.

Abrahamen haur, zein. rom. 9, 7: gala. 3. 7

Abrastasunen enganioak lainkoaren hitza
ithotzen. matt 13. 22: mark 4. 19.

Abrastasunetan esperanzarik ez ezarteko. 1.
tim. 6. 17: iak. 5. 2.

Abrats gaixtoa ifernuan, luk 16. 23.

Abrats izatea lainkoa baithan luk. 12. 21.

Abratsa nekez Resuman sarthuren, matth.
19. 23.

Abratsak, nigar egizue. iak. 5. 1.

Abratsaren konparationea. luk. 12. 16: eta
16. 19.

Abratsei egiten zaien exhortationea. 1. tim.
6. 17,

Abratsei malediktione. luk 6. 24.

Absent haragiz, present espirituz. kol. 2. 5.

Absent launaganik. 2. kor. 5. 6.

Adam Kristen figura, rom. 5. 14.

Adam lehena, Adam azkena 1. kor. 15. 45.

Adam lehenik formatu, eta gero Eba, 1. tim.
2. 23.

Adam-etan guziak hiltzen, 1. kor. 15. 22.

Adar salbamendutakoa, luk. 1. 69.

Adarrak saindu, rom. 11. 16.

Adbenimendua azken iudiziora, matt. 24. 5:
mark. 13. 26 1. thes 5, 1: 2. pier. 3.
12.

Adbenimenduaren aitzineko signoak, luk- 21.
8. 25: 2. thes. 2. 3. 8.

Adbersarioa, Antekrist eta Deabrua, 2. thes.
2. 4: 1. pier 5. 8.

Adbokata eta Arartekoa, Iesus Krist, gala. 3.
19: 1. tim. 2. 5: heb, 7. 25, eta 8. 6:
1. ioan. 2. 1.

Adimendu ber-batetako izateko, 1. kor. 1, 10.

Adimendu gabe Krist bere ahaidek estima-
tzen, mark. 3. 21.

Adimendu reprobaturara abandonatuen merkak. rom 1. 28.

Adimenduaren irekitea. luk 24. 45.

Adimenduz ez haur izateko baina malitiaz, 1. kor. 14. 20.

Adiskidetasun mundukoa lainkoaren etsaitasun. iak 4. 4.

Administrationetako zorthea akt. 1. 25.

Adoptionea, rom. 8. 15: eta 9. 4. galat. 4. 5: efes 1. 5.

Adoratu Kuhurrek Krist. matth. 2. 11.

Adoratzeko eta zerbitzatzeko lainko bat bera, matth. 4 10: luk 4. 8: apok. 5.14: eta 14 7: eta 22. 9.

Adoratzeko manera, ioan. 4. 24: akt. 17. 24.

Adoratzeko nehor ez, lainkoa baizen, akt, 10. 26: apok. 9. 20.

Adulterioaz, matth. 5. 27, 28, 32: eta 19. 9: mark 10.19: rom 7. 3, eta 13. 9: heb. 13. 4: iak, 4. 4.

Afektione satsuak, rom, 1. 26. bekatutakoak, rom. 7. 5. haragiaren afektionea, herio: eta Espirituarena, bizitze, rom, 8. 6.

- Aflijituak garen ungi eginez. 1. pier. 3. 17, eta
Kristino bezala, 1. pier. 4. 15.
- Aflijituak othoitz begi, iak. 5. 13.
- Aflijituak rezebitzeko, 3. ioan. 1. 8.
- Aflijituei pausu asignatzen, 2. thes. 1. 7.
- Afliktione iragaiteko ordenatuak gara, 1.
thes. 3. 3, eta hartara exhortatzen,
heb. 12. 1.
- Afliktione ukanen afliktione emaiten dutenek,
2. thes. 1. 6.
- Afliktione ukanen munduan, ioan. 16. 33: 1
kor. 4. 11.
- Agabusek profetizatzen goseteaz, akt. 11.
28.
- Agar, galat. 4. 25.
- Ahaide egiazkoak nor Kristek, matt, 12. 48:
mark 3, 35: luk 8. 21.
- Ahaidei gibela emaiteko Kristgatik, luk 14.
26.
- Ahaidetasun guzia lainko Aitaganik, efes 3.
15.
- Ahalke ez izateko Ebanjelioaz, rom. 1. 16: 2.
tim. 1. 8.
- Ahalke izatea Kristez, mark 8. 38: luk 9 26.

Ahoa, luk 21. 15: tit. 1. 10: iak 3. 10.

Aingeru haurrenak, matth. 18. 10: Deabruenak, matth, 25. 41: apok. 12. 9.

Aingeru uztabiltzaleak, mat. 13. 39.

Aingerua ezta adoratu nahi, apok. 19. 10. eta 22. 9.

Aingeruak eta haien kreationea, kolos. 1. 16.

Aingeruak guk iujeaturen, 1. kor. 6. 3.

Aingeruak Krist konfortatzen, luk 22. 43.

Aingeruek zerbitzatu Krist, matt. 4. 11: mark 1. 13

Aingeruekin Krist ethorriren. mat. 16. 27, eta 25, 31.

Aita bat, mat. 23. 9.

Aita deitzen gure lehenagokoak, rom. 9. 5.

Aita familia Krist, mat. 10. 25

Aita Krist baithan eta Krist Aita baithan, ioan. 10. 38: Kristen Aita gure Aita, ioan. 20. 17

Aita saildua, lainko Aita, ioan 17. 11.

Aita, lainkoa, 1. kor. 8. 6: fidel guzien. 2. kor, 6. 18.

Aitafamiliaren konparationea, matt, 20. 1: luk 13, 25.

Aitak baizen Semea ez ezagutzen, matt. 11.

27: luk 10. 22

Aitaren probidentia, luk 12. 6. 24.

Aitek biltzen haurrendako, 2. kor. 12. 14.

Aithorturen edo ukaturen dutenek Krist, zer
ukanen, mat. 10. 32: luk 12. 8: filip,
2. 11

Aitzinaramendua lainkoaganik heldu, 1. kor.
3. 6

Aizkora arboren errora, mat. 3. 10: luk 3. 9

Aker deitzen gaixtoak, mat. 25. 32.

Akerrak ezkerreko aldean, eta ardiak esku-
nekoan, mat. 25. 33

Akisitione salbamendutakoa. 1. thes. 5. 9 glo-
riazkoa, 2. thes. 2.14.

Akuloaren kontra ostiko egitea gogor, akt. 9.
5

Akusazalea iraitzi. ap. 12. 10.

Akzeptione personezkorik ez lainkoa baithan.
akt. 10. 34: rom. 2. 11: galat. 2. 6: l.
pier. 1. 17.

Alaba. Siongo Alaba, mat. 21. 5. Abrahamen
alaba deitzen etxea luk 19, 9. Kana-
nearen alaba sendatu, matt. 15. 28.

mark. 7. 29. Sararen alabak zein eta
nola, 1. pier. 3. 6

Aldaratu eta alfertu guziak, rom. 3. 12.

Aldarea. Kristinoen aldarea Krist, heb. 13. 10.

Enzensamenduko aldarea, luk 1. 11

Aldarean partizipatzea, 1. kor 9. 13, eta 10.
18.

Alegera Apostoluak azotatu izanaz, akt. 5. 40

Alegera dena alegera ezpaliz bezala izateko,
1. kor. 7. 30

Alegera izateko esperanzaz, rom. 12. 12 :1.
thes 5. 16

Alegranza zeruan bekatore baten konberti-
tuaz, luk 15. 7

Alegurea izanen mundua lainkoaren haurren
tristitiaz, ioan. 16. 20

Alhargun delizioski bizi dena, bizi dela da
hila, 1. tim. 5. 6

Alhargun gazteak, 1. tim. 5. 11

Alhargun ohoratzekoak zein 1. tim. 5. 3

Alhargun paubreak gehiago emaiten, ezen ez
abratsek, luk. 21. 2

Alhargun Sarephakoa, luk 4. 26.

Alhargunaren semea resuszitatu, luk 7. 14

Allianza Zirkonzisionezkoa, akt, 3. 25, eta 7.
8. Iainkoaren alianza, luk 1. 72: rom.
11. 27.

Alokairu inikitatezkoa, akt, 1. 18

Alokairua da zor den gaukaz rom. 4, 4

Alokairua lanaren arauz, 1. kor. 3. 8

Alokairua mahastizainei emaiten, mat. 20. 8

Altxagarri guti batek orhe guzia korrumpitzen,
1. kor. 5. 6: galat. 5. 9

Altxagarri zaharra purgatu behar, 1. kor. 5. 7

Altxagarriaren konparationea, mat. 13. 33:
luk 13. 21

Amen, 1. kor. 14.16: 2. kor. 1. 20

Anaie falsuak, galat. 2. 4

Anaie gara guziak, mat. 23. 8

Anaieak anaiea tradituren, mat. 10. 21: mark
13. 12: luk 21. 16

Anaieari gaitz daritzana, gizerhaile, 1. ioan.
3. 15

Ananias diszipulua. akt. 9. 10.

Ananias eta Safira haren emaztea gezurragatik
subitoki hiltzen: akt. 5. 5. 10

Ananias sakrifikadorea, akt. 24. 1

Andriu Pierrisen anaie, matt. 4. 18, eta 10. 2

Ansia kenzeko, matth. 6. 25: luk 12. 22, eta
21. 34, eta lainkoa baithan ezarteko
eta humiliatzeko, 1. pier. 5. 6

Ansia mundukoak zer egiten, mat. 13. 22

Antekrist anhitz eta zein, 2. thes. 2. 3: 1.
ioan. 2. 18. 22, eta 4. 3

Antekrist eta seduzizale, 2. ioan. 1. 7

Anzianoak ordenatu Elizan. akt. 14. 23, eta
20. 17: 1. tim. 5. 17: tit. 1. 5

Anzianoek ez seignoriatzeko fidelen gainean,
1. pier. 5. 3

Anzianoek nolako izan behar duten, tit. 1. 6

Anzianoen eskuen inpositioneaz, 1. tim. 4. 14

Anzianoen kontretako akusationea. 1. tim. 5.
19

Apointamendua Krist, 1. ioan, 2. 2, eta 4. 10

Apointatzeko nor bere partidarekin, matth.
5. 24: luk 12. 58

Apostoluak Kristen testimonio, akt. 1. 8, eta
10, 42

Apostoluak zehatu izan eta azotatu, akt. 5.
40, eta 6. 22: 2. korin. 11. 25

Apostoluak, mat. 10. 2: luk 6. 13: 1. kor. 12.
28: efes. 4. 11, Krist gure konfesio-
nearen Apostolu, heb. 3. 1

Apostoluek iharduki zein gehien izanen den:
matth. 18. 1: mark 9. 33: luk 9. 46

Apostoluen eta Profeten fundamenta, ef. 2,
20

Apostoluen hitzez orhoit izateko, iud. 1. 17

Arartekoa bat, 1. tim. 2. 5

Ardi erauzia, mat, 18, 12

Ardi eroria, mat. 12. 11

Ardi harakinzakoen pare lainkoaren zerbitza-
riak, rom. 8. 35

Ardiak ezpa bildotsak otsoen artera bezala
igorri Apostoluak, matt. 10. 16; luk
10. 3

Ardien Artzaina Iesus Krist ioan. 10. 11. 14:
heb. 13. 20, eta haren ardiek haren
boza enzuten, ioan. 10. 27

Argi egiten dute fidelek kandelen anzora,
filip. 2. 15

Argi egiten lainkoak bihotzetan, 2. kor. 4. 6

Argi Jentilei emana Krist luk 2, 32: akt. 13. 47

- Argi munduarena Krist, ioan. 1. 5. 9, eta 8.12,
eta 9. 5 eta 12. 35. 46
- Argiaren haurrak, ioan. 12. 36
- Arima, Kristen arima triste, matt. 26. 38:
mark 14. 34. Nehorzaz hil izan dira-
denen arimak, apo. 6. 9, eta 20. 4
- Arka alianzazkoa, heb. 9 4: apok. 11. 19,
Noeren arka, heb. 11. 7.: 1. pier. 3.
20
- Armada zelestialak, luk 2. 13
- Armada zerukoen launa, rom. 9. 29: apok.
19. 14
- Arnegatu Pierrisek Kristez matth. 26. 70:
mark 14. 68: luk 22. 58: ioan. 8. 25
- Arranberritu behar gara Espirituaz, ef. 4. 23:
tit, 3. 5
- Arranoak gorputza izanen den lekura bildu-
ren, mat. 24. 28 luk 17. 37
- Arrogantiari ihes egiteko, rom. 12. 3: heb. 13,
2: 1. pier. 4. 9
- Artha du lainkoak guzaz, 1 pi. 5. 7
- Artharik eztuena bere familiaz, infidela baino
gaixtoago, 1. tim. 5. 8

Artharik haragiaren guthizietara ez ukaiteko,
rom. 13. 14

Artzain eta Ipizpiku gure arimen Krist, I. pier.
2. 25

Artzain ona, ioan. 10. 2: heb. 13 20: 1. pier.
2. 25, eta 5. 4

Artzainak Bethlemera. luk 2. 15

Aseak diradenei malediktio- luk 6. 25

Aserrea, Gizon aserrea, iak. 1. 20

Aserretu Krist, mark 3. 5

Aserretzea, matt. 5. 22

Aserretzeko bekaturik egin gabe, ef. 4. 26

Asmatzeko espiritua zuen neskatoa, akt. 16.
16

Astoa eta asto umea, mat, 21. 2: ioan. 12. 14

Atsegin bekatutakoez zein guti kontu egite-
ko, heb. 11. 25

Atzo eta egun zena da Krist eternalki, heb.
13. 8

Augmenta iezaguk fedea, luk 17. 5

Authoritate deabruen gainean Apostoluek,
mat. 10. 1. mark 3. 15: luk 9. 1

Authoritaterekin Kristek irakasten, mat: 7.
29: mark. 1. 22: luk: 4. 32.

Auzi egitea edo replikatzea lainkoaren kontra, rom, 9. 20

Auzirik ez ukaiteko fidelek, 1 kor. 6. 7

Azeri deitzen Kristek Herodes. luk. 13. 32.

Azeriek zulhuak ukan eta xoriek ohatzeak. matth. 8. 20: luk. 9. 58.

Azkenak lehen eta lehenak azken, mat. 19. 30, eta 20. 16: mark. 10. 31: luk 13. 30.

Azkeneko denborez, 1. tim. 4.1: 1 pier, 1. 5: 1. ioan. 2. 18: iud. 18.

Azotatu izanaz Apostoluak alegera. akt. 5. 40.

Azotatu Krist. matth. 27. 26: mark 15. 15: ioan. 19. 1.

B

Babiloneko Eliza, 1 pier. 5.

Babilonetik ilkitea, apok. 17: 5. eta 18. 4

Bai eta amen Kristez, 2. kor 1. 20

Bai, bai: ez, ez, mat. 5. 37

Bake eta seguranza dela erran dadinean, destruktione. heldu, 1. thes. 5. 3

Bake ukaiteko guziekin, rom. 12. 18

Bakea Elizetan, akt. 9. 31

Bakea Krist baithan, hura munduari garaithurik, ioan 16, 33

Bakea lurrekoei denuntiatzen, luk. 2. 14

Bakea, Krist, ef. 2. 14

Bakea. Apostoluen rezebizalen, mat. 10. 13

Bakeari iarreikiteko, rom. 12. 18: heb: 12. 14

Bakez izateko elkarrekin, mark 9. 50: 2. kor. 13. 11

Bakezkoak dohatsu, mat. 5. 9

Balaamen bidea, alokairua eta doktrina, 2 pier. 2. 15: iud. 11: apok. 2. 4

Banilatera kreatura suiet, rom. 8. 20

Banotu pensamenduetan, rom 1. 21: 1. kor. 3. 20

Bantatzea ez on, iak. 4. 16

Baptismo bat, ef. 4. 5: 1 pier 3. 21

Barabbas, matt. 27. 21: mark. 15 7: luk. 23. 18: ioan. 18, 40

Barkamendurik ez odol isurtze gabe, heb. 9. 22

Barkatzeko batak berzeari, matth. 6. 14: mark. 11. 25

Barkatzeko gogotik, matth. 18, 35: ef. 4. 32:
kolos. 3.13 eta zenbatetan, matth. 18
22. luk: 17. 4

Barkatzen Kristek bekatuak mat. 9. 2: mark.
2. 5: luk. 5. 20

Barnabas populuak deitzen lupiter, eta Paul
Merkurio, akt. 14. 12

Barne harrapakieriaz betheak. matth. 23. 25:
luk. 11. 39

Barur eta oratione, mat 17. 21 mar. 9. 29:
luk. 2. 37: akt. 13. 3. 1. kor. 7. 5

Barura: matth. 6. 16

Basa olibatzea, rom. 11. 24

Bastard, zein. heb. 12.8

Bat nola izateko garen, ef. 4. 3

Bataillatzea Ebanjelioan, filip. 4. 3: 2 tim. 4. 7

Batak berzea gogoatzeko obra onetara inzita-
tzeagatik heb. 10. 24

Batheiatu diradenak Kristen herioan, rom. 6.
3: Kristez beztitu: gala. 3. 27

Batheiatuak Moiestan, 1. kor 10. 2

Batheiatzea Iesusen izenean akt. 2. 38, eta.
8. 16, eta 19. 4.

Batheiatzen ari loanes penitentiatarra eta emendamentutara, mat. 3. 2: mark. 1. 4 luk. 3. 3: ioan. 1. 26: akt. 1. 5, eta 19. 3

Batheiatzen Iesus bera etzen ari, ioan. 4. 2.

Batheiatzen Kristek Espiritu sainduan eta suan, mat. 3 11: ioan. 1. 33: akt. 1. 5

Bazko, mat. 26. 2: mark. 14. 12 luk: 22. 7.

Beelzebub, mat. 10. 25, eta 12. 24: luk. 11. 15

Begi eskuinekoaren idokitea, mat. 5. 29

Begi ona edo gaixtoa, mat. 6. 22: luk. 11. 34

Begia gorputzaren argia, mat. 6. 22

Begithartez begitharte ikusiren, 1 kor. 13. 12

Beharrari aiuta egiten draukanak, Kristi egiten, mat. 25. 35, eta 36

Beharri enzute gabeak eta begi ikusten ezutenak, rom 11. 8

Beharri eta begi dohatsuak mat. 13. 16

Beharri killikorak, 2. tim. 4. 3

Beharriak prest launak iustoen othoitzetara, 1. pier. 3. 12

Behatzera Kristi manatuak gara, mat. 17. 5: mark. 9. 7: luk. 9. 35: akt. 3. 22

Beillatu Kistek gau guzian orationetan, luk 6.

12

Beillatzeko denbora guzian, luk. 21. 36: ef. 6.

18

Beillatzeko eta fedean fermu egoiteko, 1. kor.

16. 13

Beillatzeko eta othoitz egiteko, mat. 26. 41:

mark 13. 33 eta 14. 38: kolos. 4. 2: 1.

pier. 4. 7

Beillatzeko, ezen nehork eztaki eguna ez

orena, mat. 24. 42, eta 26. 13: 1.

pier. 5. 8

Bekatore gara guziak, 1. ioan. 1.8

Bekatore konbertitzen denaz zer bozkario

zeruan, luk. 15. 7

Bekatoreak kaptibo, rom. 7. 23

Bekatorek Krist enzuten, luk 15. 1

Bekatoren deitzera Krist ethorri, mat. 9. 13:

mark. 2. 17: luk. 5. 32, eta hek dei-

tzen Ebanjelioaz. 2. thes. 2. 14

Bekatu berzerenetan ez komunikatzeko, 1.

tim. 5. 22.

Bekatu da, fedez eztena, rom 14. 23

Bekatu egitea anaieren kontra, 1. kor. 8. 12

Bekatu egitea, iakiara, heb. 10. 26

Bekatu egiten duena deabruaganik da, 1.
ioan. 3. 8, eta bekatuaren esklabo,
ioan. 8. 34: rom. 6. 20: 2 pier. 2. 19

Bekatu gabe Krist, ioan. 8. 46 1. pier. 2. 22

Bekatua gizon batez, rom. 5 12.

Bekatua herioaren eztena, 1 kor: 15. 56

Bekatua Legeak ezagut eraziten, rom. 3. 20,
eta 7. 7

Bekatuak eztezan gutan regna, manua, rom.
6. 12: gure bekatuakgatik hil izan
Krist, rom. 4. 25

Bekatuaren azfian guziak, rom. 3. 9, 23: gala.
3. 22

Bekatuaren gainetik gratiak abondatu, rom.
5. 20

Bekatuen barkamendua Kristez, luk. 24. 47:
akt. 5. 31, eta 10. 43, eta 13. 38:
kolos. 1. 14

Bekatuen konfesatzea, matt. 3 6. mark. 1. 5:
akt. 9. 18: 1. ioan. 1. 9.

Bekatuen laxatzea eta lotzea, mat. 18. 18:
ioan. 20. 23

Bekatuen purgationea Kristez egin izan, heb.

1. 3

Bekatutako gizona, 2. thes. 2. 3.

Bekatutarik Kristek delibratu, luk. 1. 74

Bekatutarik retiratuaren konditionea, gaixto-
ago berriz eror badadi, 2. pier. 2. 20

Bela tenplekoa hautsi, matt. 27. 51: mark 15.
38: luk 23. 45.

Beldur izateko lainkoaren, mat. 10. 28 luk.
12. 5: 1. pier. 2. 17: apok. 14. 7

Beldurra ezta karitatean, 1. ioan. 4. 18

Belhaun guzia gurthuren, rom. 14. 11: filip. 2.
10

Belhaun iunktura partituak, heb. 12. 12

Belial, 2. kor. 6. 15

Benedikatuak edo maradikatuak zein, gala.
3. 9. 10

Benedikatuak gizonez diradenak, dirade
maradikatuak, luk. 6. 26

Benedikatuak hazian, akt. 3. 25

Benedikatuak, mat. 25. 34, ardi deitzen, mat.
25. 33

Benedikatzen eta maradikatzen mihi beraz,
iak. 3. 9

Benediktionearen heretajez poseditzera deit-
huak, 1. pier. 3. 9

Berriz erorten diradenak ezin arranberri, heb.
6. 4

Berroari suz iexeki, akt. 7. 30

Berthute espiritu sainduaganik, akt. 1. 8.

Berthute Kristen izenean, mark 9. 39: akt. 19.
11

Berthute Kristganik ilki, mark. 5. 30: luk. 6. 19,
eta 8. 46

Berthuteak Elizan, 1. kor. 12. 28

Bestia abismekoa, apo. 11. 7

Beztitu behar gara launaz, rom. 13. 14: gizon
berriaz, kolos. 3. 10: karitatez kolos.
3. 14: humilitatez, 1 pie. 5. 5

Bi gogotakoa, iak. 1. 8, eta 4. 8

Bianda bethi irauten duenari iarreikiteko,
ioan. 6. 27

Bianda espirituala, 1. kor. 10, 3

Bianda fermua perfektoendako, 1. kor. 3. 1:
heb. 5. 14.

Bianda. Kristen bianda zein, ioan. 4. 34

Biandak ezgaitu lainkoaren gogarakotzen, l.
kor. 8. 8

Bibifikatu izatekotz hil behar 1. kor. 15. 36

Bibifikaturen guziak Kristekin, 1. kor. 15. 22

Bibifikatzen lainkoak gauza guziak, 1. tim, 6.

13

Bide hersiak bizitzera eta zabalak perditione-
ra irioiten mat. 7. 13. 14

Bidea xuxen egiteko, ioan. 1. 23

Bidea, Egia, eta Bizitzea Krist, ioan. 14. 6:
lainkoaren bidea, mat. 22. 16: mark.
12. 14, preparatu behar, mat. 3. 3,
lainkoaren bideak erideiteko inposi-
ble, rom. 11. 33

Biga izanen haragi bat, 1. kor. 6. 16: ef. 5. 31

Bigek konsentitzen badute lurraren gainean,
lainkoak enzunen, mat. 18. 19

Bihi bide bazterrean ereina, mat. 13. 19

Bihiaren biltzea granerera, mat. 13. 30

Bihotz onetik gauza onak heldu eta gaixtotik
gaixtoak, mat. 12. 35: luk. 6. 45

Bihotz purifikatuak fedez, akt 15. 9

Bihotz xahuz eta afektionatuki elkarri on eri-
tziteko 1. pier. 1. 22

Bihotz ximiko hartzea, akt. 2. 37

Bihotzean dena launak ikusten, rom, 8. 27

- Bihotzetik heldu pensamendu gaixtoak, mat.
15. 19
- Bihotzez sinhesten eta ahoz aithortzen, rom
10.10
- Bihotzez xahu diradenak dohatsu, mat. 5. 8
Bildotsa. lainkoaren Bildotsa Iesus Krist. ioan.
1. 29, makula gabea. 1. pier. 1. 19
- Bilo burukoak kontatuak, mat 10. 30: luk. 12.
17, eta hetarik bat ez galduren, luk.
12. 18
- Binagrez eta behazunez Iesus Krist edaran,
matt. 27. 34
- Biperen jeneracione Fariseuak eta Sadu-
zeuak, matth. 3. 7, eta, 12. 34, eta
23. 33 luk. 3. 7
- Birjina kastea, 2. kor. 11. 2
- Birjinei konseillu emaiten Paulek, I. kor. 7. 25
- Birjinen konparationea, mat. 25. 1
- Bisione manifesta, akt, 10. 3
- Bisitationezko denbora ezagutu gabez Ieru-
saleme desegin, luk. 19. 44
- Bisitationezko eguna, 1. pier. 2. 12
- Bizi izatea eternalki, ioan. 6, 51: Bizi izatea
lainkoaren hitzetik, mat 4. 4: luk 4. 4.

Bizi izatea fedez, rom 1. 17: gal. 3. 11: bakez, 2. kor. 13. 11 Bizi izatea lainkoagana, rom. 6. 11, eta 14. 8: 2. kor. 5. 15: galat. 2. 19: Kristekin, rom. 6. 8: haragian, filip. 1. 22: haragiaren araura, rom. 8. 13

Bizitze bakezkoa, 1. tim. 2. 2

Bizitze eternala du lainkoaren Semea baithan sinhesten duenak, eta sinhesten ez-tuenak, kondemnationea, ioan. 3, 36: 1. ioan. 5. 10

Bizitze eternala Krist, ioan. 14. 6: kolos. 3. 4

Bizitze eternala zer, ioan. 17. 3.

Bizitze eternala, matth. 25. 46: luk 18. 30: ioan. 17. 2: rom. 2. 7

Bizitze eternaleko heredero, tit. 3. 7

Bizitze eternalekotzat ordenatuek sinhesten, akt. 13. 48

Bizitze Kristekin gordea lainko launean, kolos. 3. 3

Bizitzea eta hats hartzea lainkoaganik, akt. 17. 25

Bizitzaia prometatuta egundanoz geroztik, tit.

1. 2: gero manifestatu izan zaiku, 1.
ioan. 1. 2

Bizitzean sarthu nahi denak zer egiteko,
matt. 19. 17

Bizitzearen begiratzea edo galtzea, maite
edo hiragun ukaitea, matt. 10. 39,
eta 16. 25: mark 8. 39: luk 9. 24, eta
17. 33: ioan. 12. 25

Bizitzearen promesa Krist launean, 2. tim. 1.
1

Bizitzeko liburua, filip. 4. 3: apok. 20. 12

Blasfematzen Krist, mark. 15. 29

Blasfemazale izan Paul 1. tim. 1. 13

Blasfemio Espiritu sainduaren kontra denaz,
mat: 12. 31 mark. 3. 28. 29: luk. 12.
10: 1. ioan. 5. 16

Boanerjes deithu izan lakes eta loanes, eta
zer erran nahi den, mark. 3. 17

Bokatione espiritual lainkoazkoa, filip. 3. 14:
2. timot. 1. 9

Bokatione lainkoazkoaren digne, 2, thes. 1.
11

Bokationean batbedera egoiteko, 1. korinth.
7. 20: ef. 4. 1

Bokationearen eta elektionearen fermu egi-
tea, 2. pier. 1. 10

Borondatea eta egitea lainkoaganik, filip. 2.
13.

Borondatea. lainkoaren borondatea, rom. 12.
2: ef. 5. 17: 1. thesal. 4. 3. lainko
Aitaren borondatea eginen duena
haren resuman sarthuren, matth. 7.
21: rom. 2. 13: iak. 1. 22

Borroka dugu deabruaren prinzipaltasunen
eta botheren kontra, ef. 6. 12

Bortha hersiak bizitzera irioiten eta largoak
perditionera, mat. 7. 13: luk. 13. 24

Bortha ifernukoak, mat. 16. 18

Bortha, Iesus Krist, ioan. 10. 7. 9.

Borz ogiezko mirakulua, mat. 14. 17: mark. 6.
38: luk, 9. 13: ioan. 6. 9

Bothere guzia lainkoaganik, rom. 13. 1

Bothere guzia Kristi eman, mat. 28. 18

Botheretsua, luk. 1. 49

Boza zerutik Kristez, matth. 3. 17, eta 17. 5:
mark 9. 7: luk 9. 35: 2. pier. 1. 18.

Oihuz dagoenaren boza, matth. 3. 3:
mark. 1. 3: luk. 3. 4: ioan, I. 23. Espo-
saren boza, ioan, 3. 29. launaren
boza, akt. 7. 31. launaren boza egun-
dano ez enzun ez haren irudia ikurri,
ioan. 5. 37

Burjeskide sainduekin, ef. 2. 19

Burlakeriak ere defendatu, ef. 5. 4

Burua. Iainkoa, Kristen Buruz: Krist, gizona-
ren: gizona, emaztearen, 1. kor. 11.
3: Elizaren Burua, Krist ef. 5. 23

D

Dabid gure aita. mark. 11. 10

Deabrua aireko eta munduko prinze, ioan.
12. 31: ef. 2. 2: eta 6. 12: fidelen aku-
sazale, apok. 12. 10: gure kontrast
eta etsai, mat. 13. 39 :1. pier. 5. 8: ef.
6, 12

Deabrua gizerhaile eta gezurti, ioan. 8. 44: 1.
ioan. 3. 8

Deabrua luduen aita, ioan, 8. 44

Deabrua urdetara ere konjit gabe ezin ioan.
matt. 8. 31: mark. 5. 12. luk, 8. 32.

- Deabruak konfesatzen, ezagutzen dituela
Krist eta Paul. akt. 19. 15
- Deabruaren gezi enflamatuak nola iraungite-
ko, ef. 6. 16
- Deabruari lekurik ez emaiteko, ef. 4. 27
- Deabruak Krist ezagutzen, mat. 8. 29: mark.
1. 34, eta 5. 7 luk 4. 41: iak. 2. 19
- Deabruen lazoak eta latxerak, 1. tim. 3. 7: 2.
tim. 2. 26
- Deabruen prinzea, matt. 9. 34: mark. 3. 25:
luk. 11. 15
- Deithu gara saindu izatera, 1. kor, 1. 2: 1.
thes. 4. 7: heretajera, ef. 1. 11
- Deithuak anhitz, elejituak guti, mat. 20. 16,
eta 22. 14
- Deithuak Kristez, rom. 1. 6, eta 8. 28, 30: 1.
tim. 6. 12: 2. tim. 1, 9
- Delibranza Kristen odolaz, luk. 1. 68, eta 2.
38, eta 4. 19, eta 24. 21: kolos. 1.14:
1. thes 1. 10
- Demetriusek abaritiagatik idolatria sustenga-
tzen, akt. 19, 24
- Denbora atseginetakoa, 2. kor. 6. 2

Denbora azkenekoak, 1. tim. 4. 1: 1. pier. 1. 5:
1. ioan. 2. 18: iud. 18: Kristen denbo-
ra, ioan. 7. 6

Denbora determinatuak, akt. 17. 26

Denbora eternalak, rom. 16. 25: 2. tim. 1. 9:
tit. 1. 2

Denbora konplitu, mark. 1. 15: galat. 4. 4: ef.
1. 10

Denbora laburra, 1. kor. 7. 29

Denbora periloak, 2. tim. 3. 1

Denbora rekrubatzeko, ef. 5. 16: kolos. 4. 5

Denbora zerbitzatzeko, rom. 12. 11

Denboren finak, 1. kor. 10. 11.

Denis Areopajitak eta Damarisek sinhesten,
akt. 17. 34

Desertuan dela Krist erran badakigu, hara ez
ioaiteko, mat. 24. 26

Desertuan loanes, luk. 3. 2

Desertuan Krist, matth. 4, 1: mark. 1. 12: luk.
4. 1

Desir mundanoez renuntiatzeko, tit. 2. 12

Desordenatuki dabilzanetarik apartatzeko,
2. thes. 3. 6

Dispenser leiala, luk. 12. 42, eta desleiala,
luk. 16. 1

Dispenser onen anzora batbederak egiteko,
1. pier. 4. 10

Dibisione izanen etxekoen artean, luk. 12. 52

Dibisionean Korinthianoen artean, 1. kor. 11.
18

Digne lainkoaren resumako izateaz, 2. thes.
1. 5

Digne nor ezten Kristen, mat. 10. 37

Dilubioa gaixtoen mundura 2. pier. 2. 5

Disensione Fariseuen eta Saduzeuen artean,
akt. 23. 7

Disensione Kristgatik populuaren artean,
ioan. 7. 43

Dispensatione Pauli emana, ebanjelizatzea,
1. kor. 9. 17

Dispensazale fidela, 1. kor. 4. 2. lainkoaren
sekretuen dispensazale, 1. kor. 4. 1

Disputa Estebenekin, akt. 6. 9

Disputa eta seditione, akt, 15. 2

Disputatione banoak, 1. tim. 6. 5

Disputatione banoei ihes egiteko, tit. 3. 9

Diszipulu ixilezkoa ioan 19. 38

- Diszipulu Kristenak zertan ezagun, ioan. 8. 31, eta 13. 3
- Diszipulua nabusia bezala bada, asko, mat 10. 25: luk 6. 40
- Diszipuluak hamabi, mat. 10 1: luk 6. 13
- Dohain espiritualak, 1. kor. 12. 1
- Dohain lainkoaz emana, zeren salbatzen garen, ef. 2. 8: lainkoaren dohaina, ioan. 4. 10: 2. timot. 1. 6: haren dohainak eta bokationea urrikimendu gabe, rom. 11. 29
- Dohainak anhitz moldetako, rom. 12. 6: 1. kor. 12. 4
- Dohatsu aflijitzen diradenak iak. 5. 11
- Dohatsu lainkoaren gauzak aditzen eta egiten dituenak, ioan. 13. 17
- Dohatsu launean hiltzen diradenak, apok. 14. 13
- Dohatsu Kristen izenean iniuriatzen diradenak, 1. pier 4. 14
- Dohatsu Kristgatik iraitziak, luk. 6. 22: ioan. 16. 2
- Dohatsu nor, mat. 5. 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10: luk 6. 20, eta 11. 28

- Doktor falsuak izanen, 2. pier 2. 1: zertan eta nork ezagutzeko hek, matt. 7. 15. 16
- Doktor, Elizan, 1. kor. 12. 28: ef. 4. 11. Fide-len doktora Espiritu saindua, ioan. 14. 26
- Doktoren artean Iesus, luk. 2. 46
- Doktrina berria, mark. 1. 27: akt. 17. 19: Kristen doktrina ioan. 7. 16: gizonena, mark 7. 7, 13. Deabruena, 1. tim. 4. 1
- Doktrina dibersak eta estranjerak. heb. 13. 9
- Doktrina gaixtoa, 1. tim. 4. 2.
- Doktrina sanaa rezebituren ezten denborarik izanen, 2. tim. 4, 3
- Doktrina sanaa, 1. tim. 1. 10: tit 2. 1
- Domestiko lainkoaren, ef. 2 19, eta fedearen, galat. 6. 10
- Donoak eta sakrifizioak bekatuagatik, heb. 5. 1
- Dragoina, Suge zarra, Deabrua, Satan, apok. 20, 2
- Drakma galdua eriden, luk. 15. 8
- Duenak eztuenari demon, luk. 3. 11: iaq. 2. 15 : 1. ioan. 3. 17

Duenari emanen zaio, mat. 13. 12: eta 25.
29: mark. 4. 25: luk, 8. 18: eta 19. 26

E

Ebaisteko ez, baina travaillatzeko, rom, 13.
9: ef. 4, 28

Ebanjelioa galtzen diradenetara estalia, 2.
kor: 4. 3

Ebanjelioa lehendanik prometatu, rom. 1. 2
Ebanjelioa mihi guziei ebanjelizatzeko, apok.
14. 6

Ebanjelioa sinhesten eztatenez zer izanen
den, 2. thes. 2. 12: 1. pier: 4. 17

Ebanjelioa zer, rom. 1. 16. Resumako Ebanje-
lioia, mat. 9. 35: eta 24. 14: mark. 1.
14

Ebanjelioa zerbitzatzeko duenak Ebanjeliotik
bizi behar. I. kor. 9. 14

Ebanjelioa zerutik Espiritu sainduaz igorri, 1.
pier. 1. 12

Ebanjelioaren ezagutzea nondik, 2, kor. 4. 6
Ebanjelioaren obedientian egoiteko, heb. 2. 1
Ebanjelioaren predikationea munduaren fina
baino lehen izanen. mat. 24. 14

Ebanjelistak Elizan. ef. 4. 11

Ebiltea egunaz edo gauaz. ioan. 11. 9: rom.
13. 12

Ebilteko espirituaren araura gala. 5. 16: eta
launaren gogara, kolos. 1. 10

Edari espirituala, 1. kor. 10. 4

Edifikatuak eta erro eginak launean, kolos. 2,
7

Edifikatzea berzeren fundament gainean.
rom. 15. 20: 1. kor. 3. 10

Edifikatzea Krist launean, ef. 2. 22

Edifikatzeko elkar. 1. thes. 5. 11

Egarri Krist, ioan. 19. 28

Egarriak Kristek beregana edatera deitzen,
ioan. 7. 37. apok. 22. 17

Egia Iesus launean, ef. 4. 21

Egia sinhetsi nahi ukan eztukeiten guziak
kondemnaturen. 2. thes. 2. 12

Egiak libre nehor egiten, ioan. 8. 32

Egiaren egitea, ioan. 3. 21

Egiaren ezagutzea, ioan. 8. 32

Egiari resistitzen draukatenak. 2. tim. 3. 8

Egiati lainkoa, ioan. 3. 33

Egiatik nola anhitz aldaraturen eta elhe zarrei
behaturen. 2. tim. 4, 4

Egile izateko hitzaren, eta ez enzule sola-
ment, mat. 7. 21. rom. 2. 13: iaq. 1.
22

Egiteko nehork nehori berak nahi lukeen
bezala, mat. 7. 12: luk. 6. 31

Egiten duena hitza eta eztuena, luk. 6. 47

Egoiteko Krist launean eta zer moldez. ioan,
6. 56: eta 15. 4 : 1. ioan. 2. 24

Egoiten noiz lainkoa gutan, 1. ioan. 3. 24

Egoitza anhitz lainkoaren etxean. ioan. 14. 2

Egu erdi aldeko regina, luk. 11. 31

Egun azkenekoak, 2. tim. 3, 1 heb. 1. 2: 2,
pier. 3. 3: launaren eguna, akt. 2. 20:
1, kor, 1. 8, eta 5. 5: 2, thes. 1.7: 1.
tim. 4. 8 2. tim. 1. 12: Kristena, ioan.
8. 56. nolako izanen, luk: 7, 24

Egun bat launa baithan, milla urthe bezala,
eta milla urthe egun bat bezala, 2
pier. 3. 8.

Egun gaitzak, ef: 5. 16, eta 6. 13

Egunaren haurrak, 1. thes: 5, 5

Egunaz anzo eбилteko, rom. 13. 13

Egunen diferentiarik ez, rom. 14. 5

Egunen eta denboren obserbatzea, rom, 14.
6: gala. 4. 10

Ehunetan doblaturik rezebituren Kristgatik
onik utziren duenak, mat: 19. 29

Ekar dezan batbederak bere krutzea, mat.
10. 38, eta 16 24: mark. 8. 34, luk:
14. 27: ardura, luk, 9. 23

Elejituak guti, math, 20. 16, eta 22. 14

Elejituak nola bilduren, mat 24. 31: mark. 13.
27: 1 thes: 4. 14

Elejituak, mat. 24. 31: mark. 13 20, ioan, 13.
18, elejitu izan mundua fundatu
baino lehen eternalki, ef. 1. 4: 2 thes.
2, 13

Elektioea gratiaz lainkoaganik, rom. 9. 11,
eta 11, 5: 1. thes. 1. 4

Elementak deseginen eta urthuren 2. pier. 3.
10

Elemosina benedikzione deitzen, 2 kor. 9. 5

Elemosina egiteko eta nola matth. 6. 2: luk.
11. 41, eta 12. 33: akt. 2. 45: 2 kor.
8. 4

Elhe zarretan ez amusatzeko 1. tim. 1. 4, eta
4. 7: tit. 1. 14

Elias ethortekoa loanes ethori, mat. 11. 14:
eta 17. 11: mark. 9. 13

Elika Harriaren gainean fundatu, matt. 16.
18, eta Harria, Krist, 1. kor. 10. 4

Elimas enkantadorea. akt. 13. 8

Eliza Kristen gorputza ef. 1. 23, eta lainkoaren
etxea, 1. tim, 3.15: heb. 3. 6: 1,
pier. 2. 5, lainkoaren Eliza ezta kon-
tentionetako, 1. kor. 11. 16

Eliza nola Kristez sanktifikatu eta makula
gabetu, ef. 5. 25, 26, 27

Eliza odolez akisitu, akt. 2 28

Eliza, egiaren habea eta sustengua, 1. tim. 3.
15

Elizabeth Zakariasen emazte, luk. 1. 5

Elizaren fundamenta Krist, 1 kor. 3. 11

Elizari erraitea, mat. 18. 17

Elkar fikzione gabe onhesteko, ioan: 13. 34,
eta 15. 12: 1, thes. 4. 9: 1, pier. 1. 22:
I, ioan. 3. 11, eta 4. 20

Elkar gogoatzeko eta obra onetera inzitatzeko,
heb. 10, 24

Elkar irakasteko eta admonestatzeko, kolos,
3. 16: 1. the. 5. 11: 2, tim. 2. 2, eta 4.
2

Elkar karitatez zerbitzatzeko, gala. 5. 13

Elkar onhesteko, ioan: 13. 34, eta 15. 12: 1,
thes.: 4. 9

Elkarren kontra ez gaizki minzatzeko, iak: 4.
11, ezeta arranguratzeko, iak: 5. 9

Elkarren suiet izateko, I, pier 5, 5

Elkarri on badaritzagu lainkoa gurekin, 1.
ioan, 4. 12

Emaitea hartzea baino dohain hobetako, akt.
20. 35

Emaiteko alegeraki, 2 kor. 9. 7

Emaiteko eskatzen denari, mat 5. 42: luk. 6.
30

Emaiten duenari emanen zaio, luk. 6. 38

Emazte adulterioan hatzamana, ioan, 8. 4

Emazte bakoitz bati Kristek predikatu, ioan.
4. 7

Emazte bekatoresa, luk, 7, 37

Emazte diaerenak nolako behar diraden, 2.
tim 3. 11

Emazte kroatua sendatu, luk 13. 13

- Emazte odol iariatzez eri izana, matt. 9. 22:
mark 5. 24: luk, 8. 43
- Emazte zaharrak eta gazteak nolako izateko,
tit. 2. 3
- Emaztea gizonetik, eta gizonagatik, I. kor. 11.
8. 9: Batbederak bere emaztea biu
eta batbederak bere senharra, 1. kor.
7. 2
- Emaztea ixilik egoiteko Elizan, 1. kor. 14. 34:
baina suiektionetan ikasteko, 1. tim.
2. 11
- Emazteak senharren suiet izateko, ef. 5. 22:
kolos. 3.18: tit 2. 5: pier. 3. 1
- Emaztei Paulek predikatzen akt. 16. 13
- Emaztek Apostoluei lehen berriak Kristen
resurrektioneaz ekarten, luk 24. 9.
ioan. 20. 18
- Emaztek Kristi zerbitzu egiten, luk. 8. 3
- Emazten abillamenduaz eta senharretarako
eginbideaz, efes. 5. 22: kolos, 3 18:
1. tim. 2. 9: tit, 2. 4, 1, pier 3. 1
- Emendatzeko eta konbertitzeko, mark. 1. 15:
akt. 3. 19

Emendatzeko launaren gratian eta ezagutzean, kolos. 1, 10: 2. pier. 3. 18

Enbaxadore, predikariak, 2. kor. 5. 20

Enok fedez transportatu, heb, 11. 5

Enplagatzeko batbedera obra onetan, tit. 3. 14

Enzenser urhezkoa, heb. 9, 4: apok. 8. 3

Enzutea gogorki, akt. 28. 27

Enzutea lainkoaren hitzetik, rom. 10. 17

Enzuteaz Legeak ez iustificatzen, rom. 2. 13

Enzuteko Krist, matth. 17. 5: mark. 9. 7: luk 9. 35: akt. 3. 22

Enzuteko Moises eta Profetak, luk. 16. 29

Enzutekoago lainkoa ezen ez gizonak, akt. 4, 19

Enzuten eta begiratzen dutenak lainkoaren hitza, dohatsu. luk. 11. 28

Enzutera prest izateko, minzatzera eta aserretzera berantior, iak. 1. 19

Ereillearen konparationea, mat. 13, 3: mark. 4. 3: luk. 8. 5

Ereinen duguna bilduren ere, gala. 6. 7

Ereitea edo biltzea haragian edo espirituau, gala. 6. 8

Ereitea xekunki edo largoki, 2. kor. 9. 6

Erhautsaren oinetarik eragoiztea, mat. 10.

14: luk. 9, 5 eta, 10. 10

Erho eta itsu Eskribak eta Fariseuak. mat. 23.

17

Erho Kristgatik. 1. kor. 4. 10

Erho norbeiten deitzea. mat, 5. 22

Erhoak eta sinhestera berantiorrak, luk. 24.

25

Eriak bisitazen dituenak Krist bisitazen,
mat. 25. 36

Eriek Anzianoak nola deitzeko. iak. 5. 4. 14

Eritasunak gure bekatuakgatik, mat. 9. 2:

ioan. 5. 14: baieta lainkoaren obrak
manifesta ditezenzat. ioan. 9. 3

Erosten dutenak diraden poseditzen ezpalute
bezala, 1. kor. 7. 30

Eska bagaitz Jesus Kristen izenean, rezebi-
turen, ioan. 14. 13

Eskandalizatu hitzaz, ioan. 6. 60

Eskandalizaturen eztena Krist launean, doha-
tsu, mat. 11. 6

Eskandalo krutzeazkoa, galat. 5. 11.

Eskandaloa, mat. 18. 7: mark. 9. 42: luk. 17.

1

Eskandaloak bilduren, mat 13. 41

Eskandaloei ihes egiteko, rom. 14. 13: eta 16,
17: 1. kor. 8. 9

Eskatzen denak rezebitzen, mat. 7. 8: mark,
11. 24: luk. 11, 10 ioan. 14. 13: iaq.
1. 5

Eskriba bat Kristi iarreiki nahi, mat. 8. 19

Eskriba instruitua nolako, mat. 13. 52

Eskribak eta Fariseuak nolako, mat. 23. 6:
mark, 12. 38: luk. 11. 43, eta 20. 46

Eskribatzen Kristek erhiaz lurrean, ioan. 8. 6

Eskriptura saildua zertako on, 2. tim. 3. 16

Eskriptura sinhetsi diszipunuek, ioan. 2. 22

Eskripturak bilhatzeko, ioan. 5. 39

Eskripturak gure doktrinagarri, rom. 15. 4

Eskripturak konplitu, luk. 24. 44: ioan. 19. 28

Eskripturaren somarioa, mat, 7. 12: luk. 6. 31

Eskripturen aditzea lainkoaren dohain
emana, luk. 24. 45

Eskrupulu egiten duena, rom. 14. 23

Esku eiharduna sendatu mat. 12. 13, mark. 3.
5: luk. 6 10

Esku eskuina noiz nehork trenkatzeko, mat.

5. 30. eta 18. 8: mark. 9. 43

Esku lagunzazkoak, gala. 2. 9.

Esku laxoen goititzea, heb. 12. 12

Eskua goldean duela gibelerat begira dagoe-
na, luk. 9. 6 2

Eskuak ezarten Kristek haurren gainean.
matt. 19. 5. eta erien gainean, luk. 4.
40

Eskuen inpositionea, akt. 6. 6. eta 13. 3, eta
19. 6: 1. tim. 5. 22: 2, tim. 1. 6

Eskuina. lainkoaren eskuina, akt. 2. 33. lain-
koaren eskuinean Krist iarri, mark.
16. 19: rom. 8, 34: ef. 1. 20: heb. 1.
3. eta 8. 1, eta 12. 2: 1. pier 3. 22

Esperanza Israelekoa, akt. 28. 20

Esperanza Jentilena Krist, matt. 12. 21: rom.
15. 12

Esperanza ukaiteko perfektoki, 1. pier. 1. 13

Esperanzak ez konfunditzen, rom. 5. 5

Esperanzaz salbatu rom. 8. 24

Espiritu abusariak eta deabruen doktrinak
izanen, 1. tim. 4. 1: 2. tim. 3. 1: 2.
pier. 3. 3

Espiritu adoptioezkoa, rom. 8. 15

Espiritu egiatakoa, ioan. 14. 17, eta 15. 26

Espiritu gaixtoa eta satsua, matth. 12. 43:
mark 1. 23. 27: luk 11. 24

Espiritu guzia ez sinhesteko, baina forogatzeko,
1. ioan 4. 1

Espiritu lainkoa, ioan. 4. 24: 2. kor. 3. 17

Espiritu saindua Kristen gainera, mat. 3. 16:
luk 3. 22: ioan 1. 32

Espiritu sainduaren fruktuak, galat. 5. 22

Espiritu sanktifikatzailea, rom. 1. 4

Espiritu satsua hauraganik ilki, luk. 9. 42

Espiritu suiktionetakoak, rom. 8. 15: lainkoaren
Espiritua, matt. 12. 28

Espiritua ez iraungiteko, 1. thes. 5. 19

Espiritua ez kontristatzeko, ef. 4. 30

Espiritua lesusek nola rendatu, matt. 27. 50:
mark 15. 37: luk 23. 46: ioan 19. 30

Espirituak bibifikatzen, ioan. 6. 63: 2. kor. 3.
6

Espirituaren araura ebiltzeko, galat. 5. 16

Espirituen Aitaren suiet izateko, heb. 12. 9

Espirituz othoitz egitea, 1. kor 14. 15

Espirituz patient izateko guzietara, 1. thes. 5.

14

Estebenek hiltzerakoan lainkoari espiritua gomendatzen era etsaiakgatik othoitz egiten, akt. 7. 59. 60

Estebenekilako disputa, akt. 6. 9

Estekadurak eta tribulationeak Paulen begira egon, akt. 20. 23: filip. 1. 7: filem. 13

Estekatu Iesus, matth. 27. 2: mark. 15. 1

Estekatu Paul. baina ez hitza, kolos. 4. 3: 2. tim. 2. 9: filem 9

Estekatua Espirituz, akt. 20. 22

Etsaiakgatik othoitz egin Kristek, luk 23. 34:
Estebenek ere, akt. 7 60

Etsaiakgatik othoitz egiteko. mat. 5, 44

Etsaiei on eritziteko, eta ungi egiteko, matt. 5. 44: luk 6. 35: rom. 12. 20

Etxe eternala zeruetan, 2. kor. 5. 1: lainkoaren etxea luk 6. 4: 1. pier. 4. 17. Orationetako etxea, mat. 21. 13: mark. 11. 17: luk. 19. 46

Etxe zathitua, matth. 12. 25: mark. 3. 25. luk. 11. 17

- Etzetan ere Apostoluek irakatsi. akt. 5. 42,
eta 20. 20, eta 28. 23
- Eutixe predikuan eroririk hila, resusztatua,
akt, 20. 9
- Exauditu izatea denbora gogarakoan, 2. kor.
6. 2
- Exenplu eman guri Kristek ioan. 13. 15: 1.
pier. 2. 25
- Exenplutan Paul. filip. 3. 17: 2, thes. 3. 9: 1.
tim. 1. 16
- Exkomiku, Kristi on eztaritzatenak, 1. kor. 16.
22
- Exkomunikatione egiazkoa eta bidezkoa,
mat. 18. 17: 1. kor. 5. 4: 2. thes. 2.
12: 1. tim. 1. 20: iniustoa eta bidega-
bezkoa, ioan. 9. 22
- Experimentatzeko gauza guziak eta on dena-
ri iarreikiteko. 1. thes. 5. 20
- Experimentatzeko nor bere burua eia fedea
duenez. 2. kor. 13. 5
- Ez, ez: bai, bai, mat. 5. 37
- Ezagutzeak hanzen, 1. kor. 8. 1
- Ezagutzen ditu launak bereak, 2. tim. 2. 19

Ezkondua ezkondu ezpaliz bezala izateko, 1.
kor. 7. 29

Ezkonka defendatzen dutenak abusari, 1.
tim. 4. 3

Ezkonka honorable, heb. 13. 4

Ezkonza, 1. kor. 1. 7

Ezkonzeko da konteni ezin daitena, 1. kor. 7.
9

Ezne adimenduzkoa eta enganio gabetakoa
desiratzeko, 1. pier. 2. 2

Eznea haurren, 1. kor. 3. 2 heb. 5. 13

Ezpata bi, luk. 22. 38: Espirituaren espata, ef.
6. 17: majistratuarena, rom, 13. 4

Ezpataren lurrean ezartera Krist ethorri, mat.
10. 34

Ezpataz hiltzalea, espataz hiltzeko, mat. 26.
52. apok. 13. 10

Eztei egiten rege batek, mat. 22 2

Ezteiak Kanan-en, ioan. 2. 1

Ezteietako banketa, apok. 19. 9: 17

F

Fableak eta atsoen elhe irudiak iraitzeko, 1.
tim. 4. 7

Fariseu gloriosoa, luk. 18. 10

Fariseu Paul, akt. 23. 6: filip. 3. 5

Fariseuak eta Saduzeuak bipera jeneratione,
mat. 3, 7: Suge, matt. 23. 33: ohoin
eta gaixtagin, ioan. 10. 8

Fariseuek barur egiten. mat. 9. 14

Fariseuek emazte alhargunen etxeak iaten,
mat. 23. 14: mark. 12. 40: luk. 20. 47

Fede gabe lainkoaren gogarako ezin izan,
heb. 11. 6

Fede handia Kananeak, mat. 15. 28, eta Zen-
tenerak, mat. 8. 10: luk 7. 9

Fede karitatez obratzen duena, galat. 5. 6:
iak. 2. 17. 18

Fede xipitako, mat. 14. 31, eta 16. 8: luk. 12.
28

Fedea augmenta dakien Apostoluek othoitz
egiten, luk 17. 5

Fedea dudarik gabe izateko, mat. 21. 21

Fedea enzutetik, eta enzutea lainkoaren
hitzetik, rom. 10. 17

Fedea ez karitatea gabe, gala. 5. 6: 1. tim. 1.
5

Fedea ezta guzien, 2. thes. 3. 2

- Fedea lainkoaren dohain emana, mat. 16. 17:
filip. 1. 18: 2. pier 1. 3
- Fedea Iesus baithan, akt. 20. 21: eta 24. 25
- Fedea iustitiatan inputatzen eta kontatzen,
rom. 4. 22
- Fedea obrak gabe hila, iaq, 2. 17. tit. 1. 16
- Fedea zer, heb. 11. 1
- Fedeak sendatzen, luk. 8. 48: eta 17. 19: eta
18. 42
- Fedean perseberatzeko, kolos. 1. 23
- Fedean sano izateko, tit. 1. 13: eta 2. 2
- Fedearen berthutea, mat. 17. 20: luk. 17. 6
- Fedearen exzellentia, heb. 11. 2
- Fedearen fina arimen salbamendua, 1. pier.
1. 9
- Fedearen Kapitaina Krist, heb. 12. 2
- Fedeaz iustitia, rom. 3. 22: eta bakea, rom. 5.
1
- Fedeaz razoin emaiten iakin behar, 1. pier, 3.
15
- Fedeko domestikoak, gala. 6. 10
- Fedez bekatuen barkamendua Kristen ize-
nean, akt. 10. 43
- Fedez bihotzak purifikatzen, akt. 15. 9

Fedez deabruari resistitzeko, 1. pier. 5. 9

Fedez eztena bekatu da, rom 14. 23

Fedez fermu izatea, rom. 11. 20, eta 14. 4, 2.
kor. 2. 24: 1. pier. 5. 9

Fedez flaku diradenak suportatzeko, rom. 15.
1 :1. the 5. 14

Fedezko segurantzarekin lainkoagana retira-
tzeko, heh 10. 22

Festusek Paul sobera iakinez erho estima-
tzen, akt. 26. 24

Fidel da launa, 2. thes 3. 3: 2. tim. 2. 13

Fidel izan Abraham, gala. 3 9

Fidelak Abrahamen haur, rom. 9. 7, 8

Fidelak ez kondemnationetara ethorriko,
ioan. 5. 24

Fidelak fidelen exenplu eta patroin izateko, 1.
tim. 4. 12 tit. 2. 7

Fidelak gaitzetsiak eta persekutatuak izanen.
ioan, 5. 8: eta 15. 18: eta 16. 2: 2.
tim. 3. 12

Fidelak, lainkoaren populua, 1. pier. 2. 9

Fidelek mundua iujeaturen, 1. kor. 6. 2

Fidelen harmadurak, ef. 6. 16: 1. thes. 5. 8

Fidelen herioa dohain onezko apok. 14. 13

- Fidelen hiltzalek uste lainkoari zerbitzu egiten draukatela, ioan. 16. 2
- Fidelen konbersationea, 2. kor. 6. 4
- Fidelen libertatea. rom. 8. 1
- Fidelen minzatzea nolako izateko, kolos. 4. 6
- Fidelen obrak lainkoari ez ahanziren, heb, 6. 10
- Fikotze bat maradikatu Kristek, mat. 21. 19: mark, 11. 14
- Fikotzearen konparationea, mat. 24. 32: mark 13. 28
- Filosofia eta dezeptio banoa kolos. 2. 8
- Fineziaz ez eabilteko, 2. kor. 4. 2
- Fitsaren berzeren begitik kenztea, mat. 7. 5: luk. 6. 42
- Forogatzeko nor bere burua, 1. kor. 11. 28
- Fuktu ezpainezkoa, heb. 13. 15
- Fuktu ona edo gaixtoa, mat 7. 17: luk. 6. 43
- Fuktu penitentiaren digneak egiteko, mat. 3. 8: luk. 3. 8
- Fuktua bizitze eternaletan, ioan. 4. 36: Espirituaren fruktuak, gala. 5. 22: ef. 5. 9
- Fuktuak eginen dituenari lainkoaren Resuma emanen zaio, mat. 21. 43

Fruktutik arborea ezagutzen, mat. 7. 16

G

Gabriel, luk. 1. 19

Gadarenoek Krist refusatzen. luk. 8. 37

Gaitz eritzi munduak Kristi ioan. 7. 7, eta 15.
17

Gaitza gaitzagatik ez rendatzeko, mat. 5. 39:
rom. 12. 17: 1. thes. 5. 15: 1. pier. 3.
9

Gaitzerizterik duena gizerhaile, 1. ioan. 3. 15,
eta ilhunbean ebili, 1. ioan. 2. 11

Gaitzerrailek lainkoaren resuma ez heretatu-
ren, 1. kor. 6. 10

Gaitzerraiteko ez elkar, iak. 4. 11

Gaitzerraiten gaituztenez ungi mintzatzeko
eta hekgatik othoitz egiteko, mat. 5.
44. luk 6. 28: rom. 12. 14

Gaitzesteko aita eta ama baieta goitiko ahai-
deak Kristgatik, luk 14. 26

Gaitzetsiak izanen Kristekin eduki nahi dute-
nak. mat. 10. 22, eta 24. 9: mark 13
13: luk 6. 22, eta 21. 17

Gaixtagin batak krutzean Krist blasfematzen,
luk 23. 39. eta berzeak Krist baithan
bere konfidanza ezarten, luk 23. 42

Gaixto gara naturaz eta hiraren haur, mat. 7.
11: ef. 2. 3

Gaixtoa kendu behar berzen artetik, 1. kor. 5.
13

Gaixtoekin ez nahastekatzeko: 1. kor. 5. 11

Gaizki egile Krist estimatu, ioan. 18. 30

Gaizkia dirudienetik ere begiratzeko. 1. thes.
5 22

Gaizkiagatik ungi rendatzeko, mat. 5. 44:
rom. 12. 14

Gaizkiari gaitz eritziteko, rom. 12. 9

Gaizkirik nehorzaz ez erraiteko, tit. 3. 2

Gaizkitik itzulirik ungi egiteko, 1. pier. 3. 11

Gakoa. Ezagutzearen gakoa, luk 11. 52.
Resumaren gakoak mat. 16. 18. Ifer-
nuaren eta herioaren gakoak, apo. 1.
18

Galdu zenaren ondoan Krist ethorri, luk. 19.
10

Galileanoak, luk. 13. 1

Gamaliel doktoraren konseillua, akt. 5. 34

Gapirioa begian, matth. 7. 5: luk. 6. 41

Gaua iragan, rom. 13. 12

Gauaz lo etzatea, 1. thes. 5. 7

Gauza guzia egiteko launaren gloriatan, 1. kor. 10. 31, eta launaren izenean, kolos. 3. 17

Gauza guziaren fina hurbiltzen, 1. pier. 4. 7

Gazteak zaharren suiet izateko, 1. pier. 5. 5

Gazten eginbidea, tit. 2. 6

Gaztetasunaren guthiziei ihes egiteko, 2. tim. 2. 22

Gaztigamenduan guziak partizipant, heb. 12. 8

Gaztigatzen gaitu lainkoak haren saindutasunean partizipant garenkat, heb. 12. 10

Gaztigatzen lainkoak maite dituenak, heb. 12. 6: apok. 3. 19, eta hark gaztigatzen ezdituenak bastard, heb. 12. 8

Gehenna, mat. 5. 22. 29, eta 18. 9

Geltzurrunak eta bihotzak examinatzen dituenak, lainkoa, apok. 2. 23

Gerla eta seditioe izanen munduaren fine-
rat, baina halakotz ez izitzeko, luk 21.

9

Gerlak nondik heldu, iak, 4. 1

Gezurra kenzeko, eta egiaz minzatzeko, ep.
4. 25: kol, 3. 9

Gezurragatik Ananias eta Sapphira haren
emaztea subitoki hil, akt, 5. 5. 10

Gezuraren aita, deabrua, ioan. 8. 44

Gibel min karminduran izatea, akt. 8. 23

Gizon barnekoa, rom. 7. 22

Gizon bekatutakoa, 2. the. 2. 3

Gizon bi gogotakoa, inkonstant, iak. 1. 8

Gizon bihotzekoa. 1. pier. 3. 4

Gizon eta emazte gaztek nolako izan behar.
tti. 2. 6.

Gizon etsaia, mat. 13. 28

Gizon guziagatik othoitz egiteko, 1. tim. 2. 1

Gizon kanpokoa edo barnekoa, 2. kor. 4. 16

Gizon korrupituak, 2. tim. 3. 8

Gizon marxantaren konparationea, mat. 13.

44

Gizon naturalak ez ditu konprehenditzen lainkoaren Espirituaren gauzak, 1. kor. 2. 14.

Gizon perfektoa, ef. 4. 13

Gizon regearen konparationea, mat. 22. 2

Gizon tentatione iragaiten duena dohatsu, iak. 1. 12

Gizon zaharra eta berria, ef. 4. 22, 24: kol. 3. 9. 10

Gizon, gaixtaginen artera eroria, luk 10. 30

Gizona gezurti, rom. 3. 4

Gizona lainkoaren imajina eta gloria, 1. kor. 11. 7

Gizona satsutzen duten gauzak zein, mat. 15. 11: mark 7. 15, 21

Gizonak naturaz hiraren ume, efes. 2. 3

Gizonak nolako izanzen azkeneko denboretan, 2. tim. 3. 2

Gizonaren bizia lanho baizen ez, iak, 4. 1

Gizonen doktrinari ihes egiteko, kolos. 2. 8. 16

Gizonen gogarako ez izateko, galat. 1. 10

Gloria lainkoari Elizan, ef. 3. 21: Kristi, hebr. 13. 21: 2. pier. 3. 18: lainkoaren glo-

ria, ioan. 11. 4: rom. 1. 23: Krist bere
Aitaren glorian ethorriren, mat. 16.
27: Paulen gloria, 1. kor. 9, 15: Gizo-
nen gloria, florea bezala doa, 1. pier.
1. 24

Gloriatzea nor bere goratasunean edo behe-
ratasunean, iak 1. 9

Gloriatzea tribulationetan, rom. 5. 3: galat. 6.
14

Gloriatzeko ez nor bere berthutean, 1. kor. 4.
7

Glorifikatu lainko Aitaren izena, ioan. 12. 18

Glorifikatu lainkoa Krist launean, ioan. 13. 32,
eta 15. 18

Glorifikatzen Aita Semean, ioan. 14. 13

Glorifikatzen Aitak Krist, ioan. 8. 54, eta 11. 4

Glorifikatzen lainkoa, luk 7. 16, eta 17. 15,
eta 18. 43

Glorifikatzen Jentilek hitza. akt. 13. 48

Gobernamenduak Elikan, 1. kor. 12. 28

Gogo batez eta aho batez glorifikatzeko lain-
koa, rom. 15. 6

Gogo eta konsentimendu batetako izateko,
filip. 2. 16

- Gogoatzeko lainkoaren gratiatik nehor aldara
eztadin, heb. 12. 15
- Gogortzen lainkoak plazer duenaren bihotza,
rom: 9. 18
- Gogotik egiteko eginen dena launari anzo,
kol. 3. 23
- Gomitatuak ezteietara, matt. 22. 3
- Gorde Krist, ioan. 8. 59
- Gormandizari ihes egiteko, luk 21. 34: rom.
13. 13
- Gormant eta hordi Krist estimatu, mat. 11.
19: luk 7. 34
- Gorpurz sensuala, 1. kor. 15. 44
- Gorputz bat gara anhitz garelarik, eta bata
berzearen membro, rom. 12. 5: 1. kor.
12.12
- Gorputz bekatutakoa, rom. 6. 6.
- Gorputza. Iesus Kristen gorgutza, matt. 26.
26: mark 14. 22: luk 22. 19: 1. kor.
11. 24: Kristen gorputzaren komunio-
nea, 1. korin. 10. 16: Eliza Kristen
gorputz, ef. 1. 23, eta gure gorputzak
Kristen membro, 1 kor, 6. 15: Kristi

Konsekratuak, 1. kor. 6. 13, 19:

Lurrezko unzi, 2. kor. 4. 7

Gorputzak etxe deitzen, 2. kor. 5. 1

Gorputzaren suiektionetara, erekartea, 1.
kor. 9. 27

Gorputzez eta espirituz lainkoa glorifikatze-
ko. 1. kor. 6. 20

Gose eta egarri diradenak iustitiaz, dohatsu,
matth. 5. 6: luk 6. 21

Gose Iesus, matt, 4. 2, eta 21. 18, eta 25. 35:
luk 4. 2

Gose ziradenak konplitu lainkoak, luk. 1. 53

Gratia bekatua baino abondosago, rom. 5. 20

Gratia dohainaren neurriaren araura. ef. 4. 7

Gratia eta bake, rom. 1. 7: 1 kor. 1. 22: kor.
1. 2

Gratia eta egia Kristez, 1. ioan, 1. 17: 1. kor.
1. 4: lainkoaren gratia, luk. 2 40. akt.
11. 23 guziei agertu, tit. 2, 11

Gratiak eta eskerrak bethi rendatzeko, ef. 5,
20

Gratiatsu izateko, kol. 3. 15

Gratiaz salbatzen gara, ef. 2. 5

Gratien rendatzea, matt. 26. 27 luk. 17. 16:
ioan. 6, 11: rom. 1 8: ef. 5. 20: kolos
3. 17: 1. the 5. 18: 2. thes. I. 3

Guduak eta kestioneak ilhunbearen obra,
rom. 13. 12: 1 kor. I. 10: eta 11. 16

Guduei eta inbidiei ihes egiteko, rom. 13, 13

Gudurik ez ukaiteko, tit, 3. 2

Guthizia gaixtoek arimen kontra gerla egiten,
1. Pier. 2. 11

Guthizia, gaitz guziaren erroa, 1. tim. 6. 10

Guthiziatzea emaztez, matt 5. 28

Guthiziatzeko ez, rom. 13. 9: 1 kor. 10. 6

Guthun persekutionetakoak, akt. 9. 2

Guthun separationezkoa, mat 19. 7: mark 10.
4

Guziak ohoratzeko 2. pie. 2. 17

Guziei ungi egiteko, baina prinzipalki fedeko
domestikoei, gala. 6. 10

H

Haize doktrinatakoak, ep. 4. 14

Haizea eta itsasoa mehatxatzen Kristek, mat.
8. 26: luk 8. 24

Haizea kontra, mark 6. 48. Laur haizeak, mat.
24. 31

Haizek eta itsasoak Krist obeditzen, mat. 8.
27: luk 8. 25

Halakret iustitiazkoa, efe. 6. 14. Fedezkoa, 1.
thes. 5. 8

Hameka diszipuluak, matt. 28. 16: luk 24. 33

Handi nor lainkoaren resuman, mat. 18. 1

Handiena den xipien, matth. 20. 26: luk 22.
26

Haragi bekatutakoa, rom. 8. 3

Haragi guzia belharraren pare, 1. pier. 1. 24

Haragia eta odola, gizona erran nahi, matt.
16. 17: 1. kor. 15. 50: gal. 1.16. Kris-
ten haragia fedez iaten, ioan. 6. 54

Haragiak espirtuaren kontra desiratzen,
gala. 5. 17

Haragiaren afektioea, herio, rom. 8 6

Haragiaren araezkoak haragiaren gauzetara
afektionatu, rom. 8. 5

Haragiaren araura bizi diradenak, hilen, rom.
8. 13

Haragiaren desiretarik begiratzeko. rom. 13.
14: galat, 5. 17: 1. pier. 2. 11

Haragiaren obrak zerik, gal. 5. 19

Haragiaren satsutasunetarik xahutzeko, 2.
kor. 7. 1

Haragirik ez iatea, 1. kor. 8. 13

Harrapatzeko gaizki doazenak, iud. 1. 23

Harri arbuatua Krist, matt. 21. 42: mark 12.
10: 1. pi. 2. 4. 6

Harri bizia krist, 1. pier. 2. 4. 6

Haur izateko malitiaz eta ez adimenduz, 1.
kor. 14. 20. Iainkoaren haur izateko
moiena, Krist, ioan. 1. 12: Fedez, gal.
3. 26: zein diraden mat. 5. 9: ioan. 1.
12, eta 8. 42: rom. 8. 14, eta 9. 8: 1.
ioan, 3. 1 Deabruarenak, ioan. 8. 44:
1 ioan. 3. 8

Haurrak aitamen kontra altxaturen, matt. 10.
21; mark 13. 12

Haurrak Kristgana ekarten mat. 19. 13: mark.
10. 13: luk. 18. 15

Haurrak saindu aitama fidelenak, 1. kor. 7. 14

Hurrek obeditzeko aitamak ef. 6. 1: kolos. 3.
20

Hazi ona landan erein, matth. 13. 24, 37

- Hazia Isaak-etan, rom. 9. 7: Abrahamen
hazia, ioan. 8. 33: akt. 7. 6: rom. 9. 7
- Heredero bagara Aitaren, Kristen herederoki-
de, ro. 8. 17
- Heredero gauza guzien Krist heb. 1. 2
- Heretaje zelestiala promesaren kausaz emai-
ten, mat. 25. 34: gala. 3. 17: tit. 3. 7:
1.pier. 1. 3: lainkoaren heretajea
sainduetan, ef. 1. 18: kolos. 1. 12: 1,
pier. 1. 4
- Heretikoari nola ihes egiteko. tit. 3. 10
- Herioa iretsi izan Kristez, 1. kor. 15. 54: 2.
kor: 5. 4
- Herioan dago haurrideari on eztaritzana, 1.
ioan. 3. 14
- Herodes harabartu, akt. 12. 23
- Herodes loanesen beldur, mark. 6. 20
- Herodes Kristek azeri deitzen, luk. 13. 32
- Herodes rege. luk. 3. 1
- Herodesek bere iaia egunaz besta egiten,
mark, 6. 21
- Herodesek burua edeki erazi loanesi, mat.
14. 9: mark, 6. 27
- Herodesek lakes hil, akt 12. 2

- Herodesek Krist adoratu nahi duela irudi egi-
ten eta haurrak hiltzen, mat. 2. 3, 16
- Herodesek zer opinione Kristez, mat. 14. 1
- Hil bagaitz launarekin, biziko ere harekin. 2.
tim. 2. 11
- Hil behar behin, heb. 9. 27
- Hil gara Kristekin bekatuaz den bezenbatean,
rom. 6. 2, 8: kol. 2. 20: 2 tim. 2. 11: 1.
pier. 2. 24
- Hil izan da Iesus, ioan. 19. 33. gugatik, rom.
5. 6: 1. kor. 15. 3: 1. thes. 5. 10: heb.
2. 9
- Hilak resusztatzen, matth. 11. 5
- Hilitzera Paulek desiratzen, filip. 1. 23
- Hipokritak, mat. 23. 13: mark, 7 6: luk, 11. 44
- Hira ethortekoaz, mat, 3. 7: luk 3. 7: rom. 2.
5: 1.thes. 1. 10: lainkoaren hira, ioan,
3. 36
- Hirari leku emaitako. rom. 12 19: ef. 4. 31
- Hitz edifikazionezkoz minzatzeko, efes. 4. 29
- Hitz Espiritu sainduaren kontra dena, ez bar-
katuren, matt. 12. 32: mark, 3. 29:
luk, 12. 10: 1 ioan, 5. 16
- Hitz onak eta alferrak, mat. 12. 35, 36

Hitz salbamendutakoa, akt, 13. 26: eta gratiazkoa, akt, 14. 3: fedezkoa, rom. 10. 8: rekonziliationezkoa, 2. kor, 5. 19: krutzezkoa erhogoa zaie galtzen diradenei, 1. kor, 1. 18

Hitza enzun nahi eztutenak, ez lainkoazko: ioan, 8. 47: 1. ioan, 4. 6

Hitzak bere kursua duen othoitz egiteko, 2. thes. 3. 1

Hitzaren predikationea alfer fedea ezten lekuan, heb. 4. 2

Hitzari deus ez edekiteko ez eratxekiteko, mat. 28. 20: apok, 22. 18

Hodeiaren azpian izan dirade gure aitak, 1. kor. 10. 1

Hodeietan Krist ikusiren datorkela, mat. 24. 30

Hogenik ez Krist baithan erideiten Pilatek: luk. 23. 14

Hordikeriari ihes egiteko: luk, 21. 34: rom, 13. 13: ef. 5. 18

Hotz edo erakin izateko, eta ez epel, apok, 3. 15

Humiliatu ukan du Kristek bere burua filip. 2.

8

Humiliaturen dena, exaltaturen, mat. 23. 12:

luk 14. 11, eta 18.14: filip, 2. 8: iak.

4.10

Humilitatea, matth. 11. 29: luk, 14. 11: ef, 4.

2

Hurko da gure aiutaren behar den guzia, luk

10. 29

Hurkoa onhesteko, norik bere burua bezala,

matth. 22. 39: mark, 12. 31: rom. 13.

9: galat, 5. 14: iak, 2. 8

I

Iainko Aita ezagutzen, Krist ezagutzen due-

nak, ioan. 14 7

Iainko bat da eta Ararteko bat 1. tim. 2. 5

Iainko eta iaun anhitz, izenez, 1. kor. 8. 5

Iainkoa Espiritu, ioan. 4. 24

Iainkoa eta guzien Aita, bat, 1. kor. 8. 6: gala,

3. 20: 1. tim, 2. 5

Iainkoa eternal, rom, 16. 26, eta ezta habita-

tzen eskuz egin tenpletan, akt. 7. 48:

eta, 17. 24

lainkoa gurekin, mat. 1. 23

lainkoa inmortal, 1. tim. 1. 17

lainkoa nola onhesteko, mat. 22. 37: mark,
12. 30: luk, 10. 27: 1. kor. 8. 3

lainkoa sinhesten eztenak gezurri egiten
hura, 1. ioan 5. 10

lainkoa ungigile, guzietara akt. 14. 17

lainkoak ezte nehor egundano ikusi, ioan. 1.
18: 1. tim, 6. 16: 1. ioan, 4. 12

lainkoak nahi badu, erraiteko. akt, 18. 21: 1
kor. 4. 19: iak. 4. 15

lainkoak zer gureganik nahi: heb. 10. 8

lainkoaren borondatea, luk 2. 14

lainkoaren erhogoa gizonak baino zuhurrago,
1 kor. 1. 25

lainkoaren ielosgoa, 2. kor. 11. 2

lainkoaren igurikite luzea, rom. 2. 4: 2. pier.
3. 15

lainkoaz abandonatuen obrak rom. 1. 28

lainkoazkoek lainkoaren hitza enzuten, ioan.
8. 47: 1. ioan. 4. 6

laurus sinagogako nabusia Iesusgana ethor-
ten, mat. 9. 18: mark, 5. 22: luk, 8. 41

lakob Egipten. akt. 7. 15

lakob-i on eritzi lainkoak eta Esauri gaitz,
rom. 9. 13

lanesek eta lanbresek Moisesi resistitu, 2.
tim. 3. 8

lareikiteko Apostoluei, eta nola, 2. thes. 3. 7

larreikiteko Kristi, mat. 10. 38, eta 16. 24:
mark 8. 34: luk, 9. 23: eta 14. 27:
ioan, 8. 12: 1. pier 2. 21

larteko zergatik nehor azken lekuan, luk. 14.
10

latea edo ez iatea gure launean, rom. 14. 6

latea ogitik Resuman: luk 14. 15

lateko presentatzen denetik: luk, 10. 8

laterakoan guzien aitzinean Paulek othoitz
egin, akt. 27. 35

launa bat, Iesus Krist, ioan, 13. 13: 1. kor, 8.
6, eta 12. 3

launen laun eta regen Rege 1. tim. 6. 15:
apok. 17. 14: eta 19. 16: Dabid-en
laun, matt. 22 43: guzien laun, akt.
10. 36: eta du seignoria bizien eta
hilen gainean. rom, 14. 9

Idiot Apostoluak, akt. 4. 13

Idola ezta deus munduan, 1. kor. 8. 4

Idolatre luduak, akt. 7. 40

Idolatreak ez salbaturen, 1. kor. 6. 9

Idoletarik begiratzeko, 1. kor 10. 7: 1. ioan. 5.

21

Ierusalemeko berria, apok. 21. 2

Ierusalemeko gizerhaile, matt. 23, 37: luk. 13.

34

Ierusalemeko Rege handiaren zibitate, mat. 5.

35

Ierusalemeko zelestiala libertatetan, gal. 4. 26:

heb. 12. 22

Ierusalemeko sarthu Krist, mat. 21. 10. mark

11. 11: ioan. 12. 12

Ierusalemeko destruktioa, matt. 23. 36

Iesus deitzen Krist, matt. 1. 16, eta 27. 17:

akt. 2. 36: 1. ioan. 5. 1, eta hark sal-

baturen bere populua, mat. 1. 21:

lue. 1. 31: akt: 4. 10

Iesus ioanek batheiatzen, mat. 3. 13

Iesus Krist da gure Adbokata, 1. ioan. 2. 1

Iesus Kristez berze fundamentik nehork ezin

ezar, 1. kor. 3. 11

Iesus thustatzen eta bufetatzen, mat. 26. 67:

mark. 14. 65

Jesus, mat. 1. 21, 25: luk I. 31

lesusek aithortzen hura dela Krist matt. 26.
64: eta hura dela luduen rege, mark.
15. 2

Igan Jesus zerurat, eta nola, akt. 1. 10

Ignoranta ignorant biz, 1. kor 14. 38

Ignoranten ixiltzeko moiena ungi egitea, 1
pier. 2. 15

Ignorantiaz Krist heriotara eman luduek, akt.
3. 17

Igorri izan Apostoluak eta Profetak. luk, 11.
49. ioan. 20. 21

Igorriak Espiritu sainduaz, akt. 13. 4

Igorriak rezebitzeko, matt. 10 14: mark. 6.
11: luk. 9. 5

Iguzkia onen eta gaixtoen gainera. mat. 5, 45

Ihes egin Iosefek Egiptera Iesusekin, mat. 2.
13

Ihes egizue berze zibitatetara mat. 10. 23

Ihiztatu Kristen odolaz, 1, pier. 1. 2

Ihiztatzan Apollok, baina Iainkoak hazkurri
emaiten, 1 kor. 3. 6

Ikartzea gibelaratz, luk. 9. 62

Ikutze rejenerazionezkoa, tit. 3. 5

Ikutze urezkoa. ef. 5. 26.

Ikutzen Iesusek apostoluen oinak, ioan. 13. 5.

Ikutzen Pilatek eskuak, mat. 27. 24

Ikuzgarri Siloekoa, ioan. 5. 2, eta 9. 7

Ilhunbe genen noizpait, orain argi, ef. 5. 8

Ilhunbe munduko en rektorak zeim, ef. 6. 12

Ilhunbearen botherea. kol. 1. 13

Ilhunbeari hobe eritzi ukan gizonen ezen ez argiari. ioan. 3. 19

Imitatzeko Krist eta Apostoluak. 1. kor. 11. 1. 2 thes. 3, 9

Inbidia irazitako, gala, 5. 26

Inbidia Korinthianoen artean 1. kor, 3. 8

Inbokatu behar launaren izena, akt. 2. 21: rom. 10. 13

Inbokatzeko ez nehork nor baithan sinhesten baitu, hura baizen, rom: 10. 14

Infidelak egur eihar deitzen, luk 23. 31

Infidelekin fidelek partizipationerik ez ukaiteko, 2. kor. 6. 14

Infidelitateaz renuntiatzeko. tit. 2. 12

Infirmitateak suportatzeko, rom 15, 1

Inikitate egiten dutenak, mat 7, 23, eta 25. 41: luk 13. 27

Inikitatea abundaturen azkenzerat, eta kari-
tatea hozturen, mat. 24. 12

Inikitatean plazer hartzen dutenak konden-
naturen, 2. thes. 2. 12

Iniuria eta kalte sufritzeko, mat. 5. 39: 1. kor.
6. 7

Iniuriatu Krist, mat. 27. 39

Iniuriatzeko ez prinzipala, akt 23. 4

Iniustoek Resuma ez posedituren, 1. kor. 6. 9

Inkredulen gainean lainkoaren hira, kolos. 3.
6

Inkredulitatea, mat. 17. 17, 20: mark. 6. 6,
eta 16. 14: rom. 11. 20

Inkredulitatezko umeak, ef. 5. 6

Ioana Kuzen emaztea, luk 8. 3, eta 24. 10

Ioanes Baptista iaio, luk. 1, 57: haren izena,
luk 1. 60. ofizioa, luk, 1. 76

Ioanes Ebanjelista, lakesen anaie, mat. 10. 2

Ioanes presoinean, mat. 11. 2: luk. 3. 20

Ioanes profeta baino exzellentago, mat. 11. 9

Ioanes zergatik hatzaman eta hil, mat. 14. 3:
10

Ioanesek predikatzen, mat. 3. 1: luk, 3, 3

Ioanesen abillamendua, mat. 3. 4: mark. 1. 6

Ioanesen sepultura, mat. 14. 12
Ioitea borthan, luk. 11. 9
Ionasen signoa, mat. 12. 39
Iones dela Elias, mat. 11. 14: eta 17. 13
Iosef Arimathea, mat. 27. 57: ioan. 19. 38
Iosef Dabid-en reme, mat. 1. 20: Dabid-en
etxetik. luk. 1. 27
Ioses, Barnabas, akt. 4. 36
Ipizpikuak dirade bere buruak eta kargutako-
ak goberna ditzatenzat, akt. 20. 28:
1. pier. 5. 1
Ipizpikuaren ofizioaz, 1. tim. 3. 1: tit. 1. 7:
haien emaztez, 1. tim. 3. 11
Irabazi handia pietatea kontentamendurekin,
1. tim. 6. 6
Irabaziagatik irakastea, tit. 1, 11: 1. pier. 5. 2
Iragaita heriotarik bizitzetara, ioan. 5. 24
Iragaita mundu hunetarik, ioan. 13. 1
Irakasten Iesusek autoritaterekin, mat. 7.
29
Irakasten Iesusek sinagogetan, mat. 9. 35
Irakatsiak izanen Espiritu sainduaz, luk. 12.

Irakatsiak izanen lainkoaz, ioan. 16. 45: 1.
thes. 4. 9

Irria nigarretara eta alegranza tristitiatara
konbertitzeko, iaq. 4. 9

Irukasteko eta admonestatzeko batak ber-
zea, kolos. 3. 16: behatzen ez tirade-
nak ere, 2. tim. 2. 25

Isaak gure aita, rom, 9. 10

Israel exkusa gabe, rom, 10. 19

Israel haragiaren arauetz. rom. 9. 6: 1. kor.
10. 18

Israel salbatu, rom. 11. 26

Israelita egiazkoa, ioan. 1. 47

Itabaizte zaio Pauli Krist. filip. 1. 21

Itsu bi sendatu, mat. 9. 30. eta 20. 34

Itsu eta gor zena sendatu, mat. 12. 22

Itsu eta haztamuka dabilana zein, 2. pier. 1.
9

Itsu eta itsu gidari nor, mat. 15. 14: eta 23.
16: luk. 6. 39

Itsu iaioa sendatu, ioan. 9. 1

Itsutasuna Israelen, rom. 11. 25

Itsutu lainkoaz, ioan. 12. 40

Itsutu luduak lainkoaren borondatez. rom.

11. 8

Itzultzeko gaizkitik, eta ungi egiteko, 1. pier.

3. 11

Iudas Galileanoa seditioso, akt. 5. 37

Iudas Iskariot ohoan, ioan. 12. 6: Deabru,

ioan, 6. 70. traidore, ioan. 6. 71

Iudasek bere burua urkatu mat. 27, 5. akt. 1.

18

Iudasek Iesus traditu, mat. 26. 47. 48: ioan.

18. 2

Iudasek Iesusi pot egin, mat. 26. 49. mark.

14. 45: luk. 22. 47

Iudasek murmuratzen, ioan. 12. 5

Iudikatzeke ez nehor, mat. 7. 1. rom. 14. 4,

13: 1 kor. 4. 5

Iudizio ethortekoa, akt. 17. 31: eta 24. 15:

heb. 9. 27

Iudu egiazkoa zein, rom. 2. 29

Iudu naturazkoak, gala. 2. 15

Iuduak Moisesen diszipulu, ioan. 9. 28

Iuduaren eta Jentilaren diferentia, rom. 3. 1

Iuduek Krist lapidatu nahi, ioan. 8. 59: eta 10.

31

luduen erortea Jentilen salbamandu, rom. 11.

11

luje lainkoaren beldur gabea, luk. 18. 2

luje ordenatua lainkoaz, akt. 10. 42

lujeak Elizan diferentiakgatik, 1. kor. 6. 4

lujeaturen Kristek eta biziak eta hilak, 2. tim.

4. 1

lujeatzea haragiaren arauetz, ioan. 8. 15

lujeatzeko egiazki, 7. 24

lujeatzeko ez nehork nehor ianean edo eda-
nean bestan, kolos. 2. 16

lujeatzeko iustoki, luk. 12. 57: ioan. 7. 8

lujeatzeko nork bere burua, 1. kor. 11. 31

lujemendu eta miserikordia, mat. 23. 23:
lainkoaren iujemenduak inkonpre-
hensible, rom. 11. 33

lujemendu gehennakoa, mat. 23. 33

luramendua konfirmationetan egiten, heb. 6.
16: lainkoaren iuramendua konplitu,
luk. 1. 73

luramenduz usatu Paulek, 2. kor. 1. 23

luratzeko ez, mat, 5. 34: eta 23. 16: iak. 5. 12

luratzeko du lainkoak beraraz, heb. 6. 13

lustifikationea ezta obretarik, gala. 2. 16

lustifikatu izatea zer erran nahi den, akt. 13.

38: 2. tim. 1. 9: tit, 3. 5

lustifikaturen edo kondemnaturen batbedera
nor bere hitzetarik, mat. 12. 37

lustifikatzen Fariseuek bere, buruak, luk. 16.
15

lustifikatzen nehor ez Legeaz, rom. 3. 20

lustifikatzen sinhestez eta fedez, akt. 13. 39:
rom. 3. 28: gala. 2. 16: gratiaz, tit. 3.
7

lustitia, fedez, rom. 3. 22. gala. 5. 5: filip. 3.
9: heb. 11. 33: gure iustitia, Krist. 1.
kor. 1. 30: 2. kor. 5. 21: Eskriba eta
Fariseuen iustitia, mat. 5. 20

lusto kanpotik, mat. 23. 28

lustoia fedez bizi, rom. 1. 17: gala. 3. 11: heb.
10. 38

lustoaren orationea balios, iak. 5. 16

lustoek argi eginen dute, mat. 13. 43

lutorik bere ethortez ez batre, rom. 3. 10

lxilik egon Krist den ihardetsi gabe, mark 14.
61: ioan. 19. 9

lzarra Iesus Krist iaio zenean matt. 2. 2, 7, 9

Izen guzien gaineko izen bat du Kristek, 1.
filip. 2. 9: heb. 1. 4
Izidura izanen. luk 21. 11

J

Jendarmeria zerukoa, akt. 7. 42
Jendarmesak loanesgana ethorten, luk 3. 14
Jende fede xipitoak, mat. 8. 26, eta 16. 8
Jende saindua zein, 1. pier. 2. 9
Jenealojia fin gabeak, 1. tim. 1. 4: tit. 3. 9
Jeneratione elejitua, 1. pier. 2. 9
Jeneratione gaixtoa eta adulteroa, mat. 12.
39, eta 16. 4
Jentilak or Kristez deithu, matt. 15. 26: mark
7, 27
Jentilek iustitia ardiesten eta rezebitzen, akt.
10. 44: rom. 9. 30, eta 11. 11

K

Kahagi zarrez eta berriez, mat. 9. 17. mark.
2. 22. Luk. 5. 37.
Kaharrak nola gaztigatzeko eta admonesta-
tzeko. 1. tim, 5. 1: tit. 2. 2.

Kaifas eta haren eginak. mat. 26. 57. 63. 65:
ioan. 11. 49.

Kain maligno. 1. ioan. 3. 12: iud. 11.

Kanabera haizeak darabilana. mat. 11. 7.
Luk. 7. 24

Kanabera zarthatua. mat. 12. 20.

Kananea, mat. 15. 22

Kandela bitzen, kandelerean ezarteko. mat.
5. 15. luk. 11. 33.

Kandela iraxekia. ioan, 5. 35

Kanpokoetara nola nehor perportatzeko.
kolos. 4. 5. 1. thes. 4. 12.

Kantatzeko espirituz eta adimenduz. 1. Kor.
14. 15.

Kantatzeko eta laudorio emaitako lainkoari.
ef. 5. 19. kolos. 3. 16.

Kantikoa erran. mat. 26. 30.

Kapernaum altxatu zerurano, baina ifernura-
no beheraturen. mat. 11. 23.

Kaptibitatea Kristek eraman. ef. 4. 8.

Karga ekarteko batak berzearena. gala. 6. 2.
nork bere karga ekarriren. gala. 6. 5.

Karga ezin iasan daitezkenak emaiten Fari-
seuek. mat. 23. 4: luk. 11. 46.

Kargatuak Kristek arinzera deitzen mat. 11.
28. Kristen karga arin. mat. 11. 30.
Kargudunek gogoatzeko kontu rendatu behar
anzo. heb. 13. 17.
Karitate anaietasunezkoari fikzione gabe
iarreikiteko, rom. 12. 10: 1. pier. 1.
22: 1. pier. 2. 17
Karitate, lainkoa, 1. ioan. 4. 8: lainkoaren
gureganako karitatea, rom. 5. 8: 2.
kor. 13. 13
Karitatea ezta bekaitz, 1. kor. 13. 4
Karitatea gabe berthuterik batre ez probetxa-
tzen. 1. kor, 13. 1
Karitatea hozturen anhitz baithan, mat. 24.
12
Karitatea manamenduaren fina, 1. tim. 1. 5
Karitatea perfektionezko lotgarria kolos. 3.
14
Karnal, espiritual. rom. 7. 14: 1. kor. 3. 1.
Kasket salbamendutakoa. ef, 6. 17: 1. thesa.
5. 8
Kazpi ogiezeko mirakulua, mat. 15. 36: mark.
8. 1
Kerubin gloriatakoak, heb. 9. 5

- Kestione banoei eta erhoei ihes egiteko. 1. tim. 6. 4: 20: 2. tim. 2. 25: tit. 3. 9
- Kollektak paubrenzat nola egiteko, 1. kor. 16. 1
- Komisione lainkoazkoa. rom. 16. 26: 1. tim. 1. 1
- Komun eskuz edo gauzez izatea zer, mark. 7. 2: akt. 2. 44. eta 4. 32: eta 10. 14
- Komunikatzeko sailduei, rom. 12. 13: eta 15. 26: heb. 13. 16
- Komunikatzen dugunean Kristen afliktionetan, alegeratzeko, 1. pier. 4. 13
- Komunione lainkoaren Semearekin, 1. kor. 1. 9
- Komunionean eta ogiaren haustean eta othoitzan perseberatu Apostoluek, akt. 2. 42
- Konbersationeaz. Gure konbersationea zeruan, filip. 3. 20. Jentilena nolako, 1. pier. 4. 3
- Konbersatzeko bidezki Ebanjelioaren araura, filip. 1. 27 1. thes 4, 12
- Konbertitzea launagana, luk. 1.16: akt. 9. 35: eta 11. 21: eta 14. 15: eta 26. 20

Kondemnazione eternalaren hogendun nor,
mark. 3. 29

Kondemnationerik ezta Kristekin dadukate-
nen, rom. 8. 1

Kondemnatuak zein diraden eta zein ez, ioan.
3. 18

Konditione onak propos gaixtoek korrumpi-
tzen, 1. kor. 15. 33

Konfesatzea Iesus dela Krist, lainkoaren
dohain emana, mat. 16. 17

Konfesatzen bekatuak, mat. 3. 6: mark. 1. 5:
akt. 19. 18: 1. ioan. 1. 9

Konfesione esperanzazkoa bariatu gabe edu-
kiteko, heb. 4. 14: eta 10. 23

Konfidanza lainkoa baithan ukaiteko eta ez
geurok baithan. 2. kor. 1. 9

Konfidanzarik haragian ez ukaiteko, filip. 3. 3

Konfirmatzeko anaieak, luk. 22. 32: akt. 14.
22: eta 15. 41: eta 16. 5: kolos. 2. 7:
2. pier. 1. 12

Konfirmatzen launak hitza, mark, 16. 20

Konparazione gabe etzaion Iesus populuari
minzo, mat. 13. 34

- Konparituren guziek Kristen aitzinean, rom. 14. 10: 2. kor. 5. 10
- Konparitzen Kristek guregatik lainkoaren aitzinean, heb. 9. 24
- Konpasiune du Kristek gure infirmitatez. heb. 4. 15
- Konplitzen Paulek Kristen afliktioneak, haren menbro bezala, bere haragian. kolos. 1. 24
- Konseillu Kristen kontra, mat. 12. 14: eta 22. 15: eta 26. 4: eta 27. 1: mark, 15. 1: ioan. 11. 47
- Konsekratu sanktifikatuak, oblatione bakoitz batez, heb. 10. 14
- Konsentimendu batetako eta bakez izateko, 2. kor. 13. 11: 1. pier. 3. 8
- Konsolatiune Israelekoaren begira Simeon, luk. 2: 25
- Konsolatzeko elkar, 1. thes. 4. 18: eta 5. 14
- Konsolatzen lainkoak aflijituak, 2. kor. 1. 4: eta 7. 6
- Konsolazalea, ioan. 14. 16, eta 15. 26
- Konszientiak nehor akusatzen edo exkusatzen, rom, 2 15: 2. kor. 1. 12

- Kontent izateko gauza presentekoez, heb.
13. 5: filip. 4. 11
- Kontent izateko zenbatez, 1. tim. 6. 8
- Kontentione Apostoluen artean, luk. 22. 24:
akt. 15. 39
- Kontentione Korinthianoen artean, 1. kor. 1.
11
- Kontradiktione sufritu Kristek bere kontra,
heb. 12. 3
- Kontrastatzea Espiritu sainduari, akt. 7. 51
- Kontristatzeko ez lainkoaren Espiritua, ef. 4.
30
- Kontu rendaturen batbederak, mat, 12. 36 :
1. pier. 4. 5
- Konzebitu Krist Espiritu sainduaganik, mat. 1.
20
- Korboan, mark. 7. 11
- Kornelio zentenera, akt. 10. 1
- Korua inkorruptiblea rezebituren, 1. pier. 5. 4
- Korua iustitiazkoa, 2. tim. 4. 8 apok. 2. 10
- Koroatu Krist elhorriz pasionean, mat. 27. 29:
ioan. 19. 2: baina pasionatu ondoan
gloriaz eta ohorez, heb. 2. 9
- Kreatu gauza guziak Kristez kolos. 1. 16

- Kreatura berri gara Iesus Krist launean, 2. kor. 5, 17: gala. 6. 15
- Kreatura orori Ebanjelioa predikatu, kolos. 1. 23. lainkoaren kreatura guzia on, 1. tim, 4. 4
- Krist abandonatu bere Aitaz, mat. 27. 46
- Krist Abraham baino lehen ioan. 8. 58
- Krist Apostolu eta Sakrifikadore, heb. 3. 1
- Krist baithan sinhetsiz, bekatuak barkatzen, akt. 10. 43
- Krist dabid-en Seme, mat. 9. 27: eta, 12. 23: dabid-en eta Abrahamen, mat. 1. 1
- Krist ezagutzen duenak lainkoa ezagutzen ioan. 14. 7
- Krist falsuak. mat. 24. 24: mark. 13. 22: luk, 21. 8
- Krist gauza sainduen administrazale, heb. 8. 2
- Krist gure Bazkoa. 1. kor. 5. 7: eta gure alda-rea, heb 13. 10
- Krist heia gorarekin eta nigarrekin ofrendatu izan, heb. 5. 7
- Krist hersturatan izan, mark. 14. 33: luk. 22. 44

Krist lainko eternal, ioan. 1. 1, rom. 9, 5: eta
lainko egiazko, 1. ioan. 5. 20

Krist lainkoaren eskuinean iarria, mark.
16.19: heb. 1. 3: eta, 8. 1: eta. 12. 2

Krist lainkoaren puisanza eta sapientia, 1.
kor. 1. 14

Krist lainkoaren Seme, mat. 8. 29: eta 14. 33:
luk. 22. 70: ioan: 1.49: eta 10.36:
rom. 1. 4: Seme maitea, mat. 3. 17.
eta 17. 5: mark. 1. 11: eta 9. 7: 2.
pier. 1. 17: Seme lehen iaioa, heb. 1.
5

Krist ikusten duenak Aita ikusten, ioan, 14. 9

Krist luduen salbatzera igorri, mat. 15. 24

Krist iusto eta bekatu gabe, 1. pier. 2. 22

Krist Majistrua eta launa, ioan, 13. 13

Krist nor den, ioan. 8. 25

Krist zertara ethorri, mat. 18. 11: luk. 19. 10:
1. tim. 1. 15

Kristek bere ama loanesi gomendatu, ioan.
19. 27

Kristek bere burua ezdeus egin, filip: 2. 7

Kristek bere burua zergatik gure kausaz
eman, gala. 1. 4. tit. 2. 14

- Kristek igorten duena enzuten eta rezebitzen
duenak, Krist enzuten eta rezebitzen,
mat. 10. 40: luk. 10. 16. ioan. 13. 20
- Kristen adbenimendua eta ethortea iudiziora,
mat. 24. 3: luk. 21. 27: 1.kor.15. 23:
2. thes. 2. 8
- Kristen aithortzera ez ahalke izateko, 2. tim.
1, 8
- Kristen haragia, bianda, ioan. 6. 55.
- Kristen hitza ez faltaturen, mat. 24. 35: mark.
13. 31: luk. 21. 33
- Kristen izenean biltzeaz, 1. kor. 5. 3
- Kristen izenean eskatzeko, ioan. 14. 14: eta
16. 23
- Kristen izenean iniuriatzen dena dohatsu,
mat. 5, 10: 1. pier. 4. 14
- Kristen Resuma, luk. 1, 33: 1. kor. 15. 25
- Kristen suiet egin izan gauza guziak, 1. kor.
15. 27. ef. 1. 22: heb. 2. 8: 1. pier. 3.
22
- Kristez baizen nehor Aitagana ezin ioan, ioan.
14. 6
- Kristgana ioaitekotz zer konditioneak behar
ditugun, heb. 10. 22

- Kristi etzaio deus egin, lainkoak lehen determinatu zuen gauzarik baizen akt. 4. 28
- Kristino izena. akt. 11. 26: eta 26, 28: 1. pier, 4. 16
- Kristinoak gorputz bat eta bata berzearen menbro rom. 12. 5 : 1. kor. 12. 13. ef. 4. 4
- Kristinoak mundua fundatu baino lehen elejitu, ef. 1. 4: 1. pier. 1. 2
- Kristinoak munduaz gaitzetsiak izanen. mat. 10. 22: luk. 21. 17
- Kristinoaren eginbidea, rom. 12. 9: ef. 4. 31
- Kristinoen regla, gala. 6. 15: 16.
- Krutze gainean Kristen titulua, mat. 27. 37: mark. 15. 26: luk. 23. 38: ioan. 19. 19
- Krutzea hartzeko eta nork bere buruaz renuntiatzeko, Kristi iarreikitekotz, mat. 10. 38: eta 16. 24: mark. 8. 34: luk, 9. 23
- Krutzearen etsai nor, filip. 3, 18
- Kruzifikatu Krist, mat. 27. 35. mark. 15. 24: luk. 23. 33: ioan. 19. 18
- Kruzifikatzeko nork bere haragia bere guthiziekin, gala, 5. 24

Kruzifikatzen nork berriz lainkoaren Semea,
heb. 6. 6

Kuharotz Krist, mark. 6. 3

Kuhur eta simple izateko mat. 10. 16: rom. 16.
19

Kuhurki ebilteko, kolos. 4. 5

Kuhurrak bere finezian hatzamaiten, 1. kor.
3. 9

Kuhurrak Orientetik Kristen adoratzera, mat.
2. 1: 11

Kutik dagoena erortetik begira dadin, 1. kor.
10. 12

L

Laborarien edo mahastizainen konparatio-
nea, mat. 21. 33. mark 12. 1: luk. 20.
9

Landare Aitaz landatu eztena idokiren, mat.
15. 13: ioan. 5. 2

Landatu Paulek, 1. kor. 3. 6

Langilea digne bere biziaren, mat. 10. 10

Langilekide lainkoarekin, 1. kor. 3 9

Langilen alokairu defraudatua launari oihuz
euki, iak. 5. 4

Langiten eskuz artzeko eta travaillatzeko. 1. thes. 4. 11

Langiten eta eskuz travaillatzen ari izan Paul, akt. 20. 34: 1. kor. 4. 12: 1.thes. 2. 9: 2. thes. 3. 8

Lapidatu Esteben, akt. 7. 59

Lapidatu Paul, akt. 14. 19

Laudatzen lainkoa, luk, 2. 28: eta 19. 37

Laudorio lainkoari, luk. 18. 43: akt. 2. 47

Laur animal begiz betheak, apok. 4. 6

Lazaro Martharen anaiea eri, ioan. 11. I: hil. ioan. 11. 14: resusztatatu, ioan. 11. 44

Lazaro paubrea, luk. 16. 20

Lebi publikanoa deithu, mark 2. 14: luk. 5. 27

Lege fidelen adimenduan ezarria eta haien bihotzean eskribatua, heb. 8. 10

Lege guzia hitz batetan konplitzen. gal. 5. 14

Legea eta Profetak loanesganano, mat, 11. 13: luk. 11. 16

Legea eta Profetak, mat. 7. 12: eta 22. 40: mark. 12. 31: rom. 13. 9: gala. 5. 14: iak. 2. 8

Legea ez iustoagatik iarri baina iniustoagatik, 1. tim. 1. 9

Legea Moisesez eman, ioan. 1. 17: Aingeruen
dispositionez, akt. 7. 53. gala. 3. 19

Legea saindu eta espiritual, rom. 7. 12: 1.
tim. 1. 8

Legea uztarri deitzen, akt. 15. 10

Legeak ez iustificatzen, akt. 13. 38: ez eta
sanktifikatzen, heb. 10. 1

Legeak Kristgana bidaltzen, gala. 3. 24

Legean eskribatua den guzia begiratzen
eztuena maradikatu, gala. 3. 10

Legearen enzuteak ez iustificatzen, rom. 2.
13

Legearen fina eta perfektioea Krist, rom. 10.
4

Legearen iragaitez lainkoa desohoratzen,
rom. 2. 23

Legearen konplitzera Krist ethorri, mat. 5. 17

Legeaz bekatuaren ezagutzea, rom. 3. 20:
eta. 7. 7

Lehoina Iudaren leinutik, apok. 5. 5

Lehoinaganik Panl delibratu 2. tim. 4. 17

Lejione Aingeruezkoak, mat. 26. 53

Lejioea, mark. 5. 9: luk. 8. 30

Lengoaje arrotzez minzatzea, akt. 10. 46: 1.
kor, 12. 28: eta 14. 2

Lengoajen interpretationea, 1. kor. 12. 10

Letrak hiltzen, Espirituak bibifikatzen, 2. kor.
3. 6.

Libertate Krist launean dugunaz, gala. 2. 4

Libertate, Espiritua den lekuan, 2. kor. 3. 17

Libertatea haragiari okasionetan ez izateko,
gala. 5. 13

Libertatea, rom. 8. 21

Libertatezko Legea, iak. 1. 25: eta 2. 12

Libre egin bekatuaren azpitik. ioan, 8. 32:
rom. 6. 18: eta 8. 2: gala. 5. 1

Libre iustitiaz, rom. 6. 20

Libre izatea, ioan. 8. 34

Liburu bizitzekoa, filip. 4. 3: apok. 3. 5: eta
13. 8: eta 20. 12

Liburu bizitzekoan eskribatu izatea. filip. 4. 3

Liburu gaixtoak erre, akt, 19. 19

Lo daunzanak Iesus launean, 1. thes. 4. 14

Lo etzan Krist unzian, mark. 4. 38

Lo etzatea hil izateagatik, mat. 9. 24: mark.
5. 39: ioan. 11. 11: akt 7. 60: eta 13,
36: 1. thes. 4. 13

Lot iustoa delibrata. 2. pier. 2. 7
Lotarik engoitik iaikiteko rom. 13. 11
Loten egunak, luk. 17. 28
Loten emaztea, luk. 17 32
Lotgarri bakezkoa eta perfektionezkoa, ef. 4.
3: kolos. 3. 14
Lotzea eta laxatzea zeruetan, mat. 16. 19:
eta 18. 18: ioan. 20. 23
Luk mediku, kolos. 4. 14
Lunatikoa sendatu, mat. 4. 24: eta 17. 18
Lur benedikatua edo maradikatua, heb. 6. 7
Lur berria, 2. pier. 3. 13. apok. 21. 1
Lur saildua, akt. 7. 33
Lurra posedituren dutenak zein, mat. 5. 5
Lurra, launarena, 1. kor. 10. 26
Lurretiko gizona, 1. kor. 15. 47

M

Magnifikatzen lainkoa. luk. 1. 46. akt. 10. 46
Mahai lainkoarena eta deabruarena, 1. kor.
10. 21
Mahasti egiazkoa Krist ioan. 15. 1
Mahastiazko konparationea, matth. 20. 1: eta
21. 33: mark. 12: luk. 20. 9

Mahatsarno berria ez zahagi zarretan ezar-
ten, mat. 9. 17: mark. 2. 22: luk. 5. 37

Mahatsarno emaiten Kristi mirharekin, mark.
15. 23

Mahatsarnoz ez horditzeko, ef. 5. 18

Maiestate Kristena, luk. 9. 26

Mainguak ebilten, mat. 11. 5: akt. 3. 8

Maite nork Krist, ioan. 14. 21

Majistratua, rom. 13. 1.

Majistrua, Krist, mat. 23. 8: ioan. 13. 13

Malediktione Krist egin izan guregatik. gala.
3. 13

Malediktione malediktioneagatik ez renda-
tzeko, 1. pier 3. 9

Mana, ioan. 6. 31: heb. 9. 4

Manamendu berria, ioan. 13. 34: 1. ioan. 2. 7

Manamendu handia, mat. 22. 36: luk. 10. 27:
lainkoaren manamendua bizitze eter-
nal, ioan. 12. 50: Kristena, ioan. 15.
12: gikonen manamenduak, mat. 15.
9: tit. 1.14

Manamenduak begiratzen eztituenak lainkoa
ez ezagutzen, 1. ioan. 2. 3. 4. eta
lainkoari ez on eritzi, ioan. 14. 24

Manamenduen somarioa eta fina, rom. 13. 9:

1. tim. 1. 5.

Manifestaturen launak bihotzetako sekretuak, 1. kor. 4. 5

Maradikatu berze Ebanjeliorik denuntiatzen duena, gala. 1. 8

Maradikatu Legea konplitzen eztuena, gala. 3. 10

Maradikatu zurean urkatua, gal. 3. 13

Maradikatuak, mat, 25. 41

Maria Iesusen ama, haragiaz den bezenbatean, mat. 1. 16: luk. 1. 31

Maria Martharen ahizpaz, luk. 10. 39

Mark Barnabasen lehen gusu kolos. 4. 10

Marthak Krist rezebitzen, luk. 10. 38

Martxandiza egitea lainkoaren hitzaz, 2. kor. 2. 17: 2. pier. 2. 3

Martxantak Kristek tenpletik iraitzi, mat. 21. 12. mark. 11. 15. luk. 19. 45: ioan. 2. 15

Mattheu deithu, mat. 9. 9

Medikua eriakgatik, mat. 9. 12

Medikua, senda ezak eure burua, luk. 4. 23

Mehatxatzeko lainkoaren hitzaz. 2. tim. 4. 2

Melkisedek Kristen figura, heb. 7. 11. 14

Menbro gara batak berzen, rom. 12. 5: ef. 4. 25

Menbro gure gorputzak Kristen, 1. kor. 6. 15: eta 12 27: ef. 5. 30

Menbroak lainkoaren zerbitzuan enplegatze-ko ditugu, rom. 6. 19

Menbroak mortifikatu behar, kolos. 3. 5

Mendekaturen lainkoa Ebanjelioari behatzen etzaizkionez, 2. thes. 1. 8

Mendekaturen lainkoa elejituez, luk. 18. 7

Mendekatzea lainkoari eman, rom. 12. 19: heb. 10. 30: 1. pier. 2. 23

Mendekoste eguna, akt. 2. 1

Mendi saindua, 2. pier. 1. 18

Mendian lesusek irakasten, mat. 5. 1

Menospreziatzen dutenak lainkoa, 2. tim, 3. 2

Merzenario dena nolako, ioan 10. 12

Mesias Krist erran nahi, ioan. 1. 41, eta 4. 25

Mihia gaizkitarik begiratzeko, 1, pier. 3. 10: Mihiaz. iak. 3. 5

Mikel Aingeru prinzipal, iud. 9

Ministerioa, rom. 12. 7

Ministrationen diferentia, 1. kor. 12. 5

Ministratzeko nola, 1. pier. 4. 11

Ministre fidel, kolos. 1. 7: gure Ministrea Krist,
mat. 20. 28: heb. 8. 2

Ministre Paul Ebanjelioko, ef. 3. 7: kolos. 1.
23, 25, Ministre eta testimonio, akt.
26. 16

Ministre Satanenak, 2. kor. 11. 15

Ministre, behar eztiraden gauzak irakasten
dituztenak zein, 2. tim. 3. 6: eta 4. 3:
tit. 1. 10

Ministreak berzen exenplu izateko, tit. 2. 7

Ministrek entretenimendua behar, mat. 10.
10: rom. 15. 27: gala. 6. 6

Ministren eginbidea, akt. 20. 28: 1. pier. 3. 15

Mirailaz orain ikusten, 1. kor. 13 12

Mirakulu eginen Krist falsuek eta profeta fal-
suek, mark. 13. 22

Mirakulu eskez egon luduak mat. 12. 38

Miserikordia egiten duenak, alegeraki egite-
ko, rom. 12. 8

Miserikordia egiten eztuenari miserikordia
gabe kondemnatione eginen, iak. 2.
13

Miserikordia egiten zaie miserikordiosei,
mat. 5. 7

Miserikordia nahi lainkoak eta ez sakrifizio,
mat. 9. 13: eta 12. 7

Miserikordia, mat, 23. 23. luk. 1. 50, 72

Miserikordien Aita deitzen, lainkoa, 2. kor. 1.
3

Miserikordioso izateko. luk. 6. 36: 1. pier. 3. 8

Miserikordiosoak dohatsu, rnat. 5. 7

Miserziordia egiten lainkoak plazer duenari,
rom. 9. 15: tit. 3. 5: eta salbatzen
bere miserikordiaren araura, tit. 3. 4

Misteriotan lainkoaren sapientia, 1. kor. 2. 7

Modest izateko, filip, 4. 5: 1. pier. 3. 16

Moises eta Elias, mat. 17. 3. luk. 9. 30

Moisesek akusaturen luduak, ioan. 3. 45

Moisesek eskribatu Kristez ioan. 1. 45

Moisesen kadira, mat. 23. 2

Monumentean Krist, mark. 15. 46

Monumenten ornatzea, mat. 23. 29

Monumentetarik hilak ilki, mat. 27. 53

Mortifikazionea gorputzean ekarteko. 2. kor.
4. 10

Mortifikatzeko haragiaren egitateak, rom. 8.

13

Mortifikatzeko nork bere menbroak, kolos. 3.

5

Mulsa higatzen ez tiradenak egiteko, luk. 12.

33

Mundu anzianoa ez gupida ukan lainkoak. 2.

pier. 2. 5

Mundu hunen figura badoa, 1. kor. 7. 3: 1.

ioan, 2. 15

Mundu hunetako zuhurtzia, erhogoa lainkoaren aitzinean, 1. kor. 3. 19

Mundua ez onhesteko ez munduko gauzak, 1.

ioan. 2. 15

Mundua salbatzen Kristez, ioan. 3. 17: eta 12.

47: 1. ioan. 4. 14

Munduak lainkoa ez ezagutu, ioan. 17. 25

Munduarekin adiskide nahi dena lainkoarekin

etsai iarten, iak. 4. 4

Mundura eztugu deus ekarri ez mundutik eramanean, 1. tim. 6. 7

Murmuratzeko ez, 1. kor. 10. 10: filip. 2. 14:

1. pier. 4. 9

Mustarda bihia, mat, 13. 31

N

Naaman Sirianoa, luk, 4, 27

Nabusibi nehork ezin zerbitza, mat. 6. 24:
luk, 6. 13

Nabusien eginbidea, ef. 6. 9: kolos. 4. 1

Nahia eta egitea lainkoak gutan egiten, filip.
2. 13

Nahia ukanagatik ungiaren konplitzea ez
gure eskuan, rom. 7. 18

Nathanael, ioan. 1. 45

Natione gaixtoaren eta bihurriaren artean
reprotxu gabe izateko, filip. 2. 15

Nazareno deitzen Iesus, mat. 2. 23: eta 26.
71: mark. 1. 24: luk. 4. 34

Nazarenoen sekta, akt. 24. 5

Nazarethekoek Krist menospreziatzen, mat.
13. 54 eta mendia behera egotzi
nahi, luk. 4. 29

Nazarethen Krist hazi, mat 2. 23

Neurri egin dukeenaz batbederari neurthu-
ren, luk. 6. 38: fedearen neurria, rom.
12. 3: ef. 4 7

Nigar egin fidel batzuek Estebengatik, eta hura ohortze, akt. 8. 2

Nigar egin Kristek, luk. 19. 41. ioan. 11. 35

Nigar egin Paulgatik anaiek, akt. 20. 37

Nigar egin Pierrisek, mat. 26. 75: mark. 14, 72. luk. 22. 62

Nigar eginen eta tristitia ukanen diszipuluek, ioan. 16. 20

Nigar eta hortz garraskots izanen, mat, 8. 12: eta 13. 42, 50. eta 22. 13: eta 24. 51: eta 25. 30: luk. 13. 28

Nigarrez daudenak dohatsu, mat. 5. 4: luk. 6. 21

Nigarrez daudenekin nigar egiteko, rom. 12. 15

Nigarrez egon emazteak Kristen doluz, luk. 23. 27: eta Kristek hek beren eta bere haurren gainean nigar egitera manatzen, luk. 23. 28

Nikodemo gauaz Iesusgana ethorten, ioan. 3. 1. eta 19. 39.

Nikolaitak, apok. 2. 6

Ninibako gizonak, mat. 12. 41: luk, 11. 32

Noe, mat. 24. 48: heb. 11. 7: 2. pier: 2. 5

Nola nahi baitugu nehork egin diezagun halaguk ere berzeri egiteko, ma. 7. 12:
luk. 6. 31

O

Obedient izan Krist eta humiliatu heriorano,
filip. 2. 8

Obedientia, burhasoei. ef. 6. 1: kolos. 3. 20:
gubernadorei, rom. 13. 1: ti. 3. 1:
nabusiei ef. 6. 5: kolos. 3. 22: tit. 2. 9:
1. pier. 2. 18

Obeditzekoago lainkoa ezen ez gizonak, akt.
5. 29

Obeditzen fedea Sakrifikadore batzuk, akt. 6.
7

Oblatione Kristek egin bakoitz eta betango
batez sanktifikatzen gara, heb. 10.
10: 14

Oblationea eta sakrifizioa Krist, ef. 5. 2. eta
berze oblationerik ezta bekatuagatik,
heb. 10. 18: Jentilen oblationea, rom.
15. 16

Obliganza gure kontra zena, iraungi, kolos. 2.
14

- Obra alferretan ez partizipatzeko, baina hek
reprotxatzeko, ef. 5. 11
- Obra egin ditugunez ezgara salbatzen, tit. 3.
5: ef. 2. 8
- Obra ilhunbekoak, rom. 13. 12: haragiarenak,
gala. 5. 19
- Obra miserikordiazkoak, mat. 25. 35
- Obra on orotara prest izan behar, 2. tim. 3.
17
- Obra onetakotzat kreatuak gara, ef. 2. 10
- Obra onez abrats izan behar, 1. tim. 6. 18: tit.
3. 8. 14
- Obraren araez lainkoak iujeatzen, 1. pier. 1.
17
- Obrek testifikatzen fedeaz. mat. 12. 35:
filem, 1. 5. heb. 6. 10: 2. Pier. 1. 5
- Obren araez lainkoak rendaturen, mat. 16.
27: rom. 2. 6
- Odol eta ur Kristen seihetsetik ilki, ioan. 19.
34: Kristen odolaren edatea, ioan. 6.
53: komunionea, 1. kor, 10. 16: Kris-
ten odolak xahutzen gaitu bekatu
orotarik. heb. 9. 14: 1. ioan. 1. 7

Odol hogen gabea eta iustoa, mat. 23. 35:
eta 27. 4, 25

Odol testamentu berrikoa, mark. 14. 24

Odol xortaz izertu Krist. luk. 22. 44

Odola Pilatek sakrifizioekin nahastekatu, luk.
13. 1

Ofizioa ohoratzen Paulek, rom. 11. 13

Ofrenda zezan Abrahamek Isaak fedez, heb.
11. 17

Ofrendatu izan da behin Krist, guregatik, heb.
7. 27: eta 9. 25, 26. eta 10. 12

Ofrendatzeko nork bere burua sakrifiziotan,
rom. 12. 1

Ofrendatzen ditugu laudoriozko sakrifizioak
Kristez heb. 13. 15.

Ogi altxagarri gabeak. mat. 26. 17: mark. 14.
1: luk. 22. 1: 1. kor. 5. 8

Ogi bat eta gorputz bat gara guziak, 1. kor.
10. 17

Ogi berez ez bizi gizana, baina lainkoaganiko
hitzaz, mat. 4. 4

Ogi bihia granererako eta lastoa surako, mat.
3. 12

Ogi bizitzetakoak, Kristen haragia, ioan. 6. 51

- Ogi haurrentako dena orei ez emaitako, mat.
15. 26: mark. 7. 27
- Ogi propositionekoak, mat. 12. 4: mark. 2.
26: luk. 6. 4: heb. 9. 2
- Ogi Zenakoa Kristen gorputzaren komunione,
1. kor. 10. 16
- Ogiaren haustea, mat. 26. 27: luk. 24. 30:
akt. 20. 7
- Ohoina gauaz bezala launaren eguna ethorri-
ren, mat. 24. 44: 1. thes. 5. 2: 2. pier.
3. 10: apok. 3. 3: eta 16. 15
- Ohoratzeko aita eta ama, mat. 15. 4: eta 19.
19: mark. 7. 10: ef. 6. 2
- Ohoratzeko lainkoa gogo batez eta aho
batez, rom. 15. 6
- Ohoratzeko Semea Aita bezala, ioan. 5, 23
- Ohoratzen dutenak lainkoa ezpainez, mat.
15. 8: mark. 7. 6
- Ohore bide duenari ohore ekarteko, rom. 13.
7
- Ohore ekarteko guziei, 1. pier. 2. 17
- Ohortze gara Kristekin, rom. 6, 4: kolos. 2. 12
- Oihu eta edaste banoei ihes egiteko, ef. 4.
31: 2. tim. 2. 16

- Oinak Kristek Apostoluei ikuzi, ioan. 13. 5
- Oindogoraren altxatzea Kristen kontra, ioan.
13. 18
- Olibatzetako mendia, mat. 24. 3: eta 26. 30:
mark. 13. 3: luk. 22. 39: akt. 1. 12
- On eritzi behar batak berzeari, ioan. 13. 34:
rom. 12. 10: eta 13. 8: 1. ioan. 3 11:
1. thes. 4. 9: 1. pier. 1. 22
- On eritzi drauku lainkoak, guk hari baino
lehen, 1. ioan. 4. 10. 19: apok, 1. 5
- On eritziteko anaietasunari, 1. pier. 1. 22: eta
2. 17: eta 3. 8
- On eritziteko lainkoari, nola, mat, 22. 37:
mark. 12. 30: luk. 10. 27: 1. kor. 8. 6:
1. ioan. 4. 21
- On eritzitekoago Kristi ezen ez aitari eta
amari, mat 10. 37
- On espiritualak eta karnalak, rom. 15. 27
- Onherizte munduarena, etsaitasun lainko-
ren, iak. 4. 4
- Onheriztea fiktionerik gabe izateko, rom. 12.
9
- Onheriztea Legearen konplimeadua, rom. 13.
10

Onheriztean eabilteko eta kontinuatzeko. ef.

5. 2

Onheriztean eztabilanak lainkoa ez ezagutzen, 1. ioan. 4. 8

Onik eta gaixtorik ezteietan, mat. 22. 10

Onik ez bat baizen, mat. 19. 17

Operationen diferentia, 1. kor. 12. 6

Opinione dibersak Kristez. mat. 16. 14: mark. 6. 14. 15. eta 8. 28: Ink 9. 7: ioan. 7. 12

Opinione Saduzeuek zadukatena, mat. 22. 23: akt. 23. 8

Oratione fedezkoak eria sendaturen, iak. 5. 15

Oratione Pierrisgatik egiten Elizak, akt. 12. 5

Orationea eta barura, mat. 17. 21: mark. 9. 29: luk. 2. 37: akt. 13. 3: 1. kor. 7. 5

Orationeak eta elemosinak igan lainkoaren aitzinera. akt. 10. 4

Orationean sinhestea nezesario, mark. 11. 24

Orationetan perseberatzeko. kolos. 4. 2

Ordenanza aitzinekoenak eta Fariseuenak, mat. 15. 2, 5

- Ordenanza Apostoluek emanak begiratzeko,
2. thes. 2. 15
- Ordenanzaz eta honestoki gauza guziak egiteko, 1. kor. 14. 40
- Orhe berri egin behar gara, 1. kor. 5. 7
- Orient garaikoa, luk. 1. 78
- Orientetik eta Okzidentetik anhitz ethorriren,
mat. 8. 11
- Ostatuz beharrak rezebitzeko, rom. 12. 13:
heb. 13. 2: 1. pier. 4. 9
- Othoitz egitean hitz guti, mat. 6. 7
- Othoitz egitean Kristek begitharte gainera bere burua egotzi, begiak zerurat altxatu, belhaunak plegatu. mat. 26. 39: luk. 22. 41: ioan. 17. 1
- Othoitz egiteko batak berzeagatik, iak. 5. 16
- Othoitz egiteko bethiere eta leku guzietan,
luk. 18. 1. ef. 6. 18: kolos. 4. 2: 1. thes. 5. 17: 1. tim. 2. 8
- Othoitz egiteko forma, mat. 6. 9: luk. 11. 2
- Othoitz egiteko lainkoaren hitza abanza dadin. mat. 9. 38: 2. thes: 3. 1
- Othoitz egiteko persekutatzen gaituztenak-gatik, mat. 5. 44

Othoitz egiteko regeakgatik eta dignitatetan diradenakgatik, 1. tim. 2. 2

Othoitz egiten Espirituak guregatik, rom. 8. 26

Othoitz egiten Kristek baratzean, mat. 26. 39: mark. 14. 35: luk. 22. 42: desertuan, mark. 1. 35: luk. 5. 16: mendian, mat. 14. 23: gau guzian, luk. 6. 12: sinhesten dutenakgatik, ioan. 17. 9, 20: rom. 8. 34: heb. 7. 25: eta 9. 24: Pie-rrisgatik, luk. 22. 32: bere etsaiakgatik, luk. 23. 34

Othoitz egiten Paulek iaterakoan, akt. 27. 35

Othoitzak nolatan enzun daitezkeen, ioan. 15. 7

Otso harrapariak, mat, 7. 15: ioan. 10. 12: akt 20. 29.

P

Paganotan eta Publikanotan nor noiz edukiteko, mat. 18. 17

Paillardiza aipatzeko ere ez ef. 5. 3

Paillardizari ihes egiteko, 1. kor. 5. 9: eta 6. 18: eta 10. 8: 1. thes. 4. 3: heb. 12. 6.

Paradisoa, luk. 23. 43

Paralitikoa sendatu, mat. 9. 6: mark. 2, 11:
luk. 5. 24

Paret bien artekoa hautsi, ef. 2. 14

Paret xuritu, akt. 23. 3

Parra-xori bat ez erroriren, Aitaren borondat
tea gabe, mat. 10. 29

Partialitatei eta eskandaloei ihes egiteko,
rom. 16. 17: 1. kor. 1. 10

Partida kontrastarekin apointatzeko, mat, 5.
25: luk. 12. 58

Partizipatzea aldarean, 1. kor. 9. 13

Partizipatzea bokatione zelestialean, heb. 3.
1, 14

Partizipatzea natura dibinoan, 2. pier. 1. 4

Partizipatzeko Ebanjelioko afliktionetan, 2.
tim. 1. 8

Pasionaturen zela Kristek berak aitzinetik
erran, mat. 20. 18: mark. 10. 33: luk.
9 22: eta 18. 31

Pastorak eta doktorak Elikan. ef. 4. 11

Patient garen guzietara, 1. thes. 5. 14

Patient lainkoa, rom. 15. 5: iak. 5. 7

Patientia nezesario, heb. 10. 36: 2. thes. 1, 4

Patientia, luk. 21. 19: lainkoaren patientia,
rom. 2. 4: eta 9. 22: 1. pier. 3. 20

Patriarkak, akt. 2. 29: eta 7. 8

Patroin eta exenplu izateko fidelen, 1. tim. 4.
12

Paubre Krist, mat. 8. 20: luk. 9. 58. 2. kor. 8.
9

Paubreak dohatsu, luk. 6. 20

Paubrei emaiten edo egiten zaiena, Kristi egi-
ten, mat. 25 40

Paubrekin Ebanjelioa rezebitzen, mat. 11. 5

Paul Jentilen ministre eta doktor, rom. 15, 16:
gala. 1. 14: 1. tim. 2. 7: Kristen enba-
xadore, 2. kor. 5. 20: Fariseu, akt, 23.
6: Hebraiko, 2. kor. 11. 22: filip. 3. 5:
bizitez eta doktrinaz exenplu eta
patroin, filip. 3. 17: lapida ledin bel-
durrez, ihesi, ioan. akt. 14. 6: lapida-
tu, akt. 14. 19: murrailatik itzuri izan,
akt. 9. 25: azotatu, akt. 22. 24: zer
periletan izan, akt. 27. 14: 2. kor. 11.
26: bere eskuz travaillatu, akt. 18. 3:
eta 20. 34: 1. kor. 4 12: 1. thes. 2. 9:
2. thes.3. 8: ofizioz tabernaklegile

izan, akt. 18. 3: gaitzerraiten zutenez ungi erraile izan, 1. kor. 4. 12: ez bere gloriari ez gizonen gogara egiteari iarreiki, 1. thes. 2. 4: sari gabe predikatzen ari izan, 2. kor. 11. 9: Thesalonizeanoetara ioaitetik satanez enpatxatu izan, 1. thes. 2. 18: Neronen aitzinean lainkoaz aiutatu eta fortifikatu izan, 2. tim. 4. 16: konbertituz geroztik zer konbersationetako izan den, 1. kor. 1. 12: eta zer konbersationetako izan den, 1. kor. 1. 12: eta zer konbersationetako lehen. akt. 9. 1: gala. 1, 13: 1. tim. 1. 13: Paulek Kristekin izatera desiratzen, filip. 1. 23: haren partitzeko denbora. 2. tim. 4. 6

Pausatzea esperanzatan, akt. 2. 26

Pausu afljituen, 2. thes. 1. 7: heb. 4 3

Pausu eridenen arimendako Kristgana retiratzen diradenek, mat. 11. 29

Penitentia edo emendamendua, mat. 3, 2: 8. mark. 1. 15: eta 6. 12: luk. 3. 3: eta

24. 47: akt. 2. 38: eta 3. 19: eta 26.
20

Penitentia lainkoaz emaiten. akt. 5. 31: eta
11. 18

Penitentia zakutan eta hautsean, mat. 11. 21

Pensamendu onak lainkoaganik. 2. kor. 3, 5

Pensatzeko garaiko gauzetan ez lurrekoetan,
kolos. 3. 2

Pensatzeko zertan, filip. 4. 8

Perditione eternala inkredulen, 2. thes. 1. 9

Perditionetara preparatuak, rom. 9. 22

Perfekt izatea, mat. 19. 21

Perfekt izatera exhortatzen. heb. 6. 1

Perla preziosoa, mat. 13. 46

Perseberaturen dutenak salbaturen, mat. 10.
22: eta 24. 13

Perseberatzeko lainkoaren gratian, akt. 13.
43

Perseberatzeko orationetan, rom. 12. 12:
kolos. 4. 2

Perseberatzen dutenak lainkoaren hitzean,
Kristen egiazko diszipulu, ioan. 8. 31

Persekutatuak dohatsu, mat. 5. 10

- Persekutioa ukanen fidelki bizi nahi diraden
guziek, 2. tim. 3. 12
- Personen akzeptioerik ez lainkoa baithan,
akt. 10. 34: rom. 2. 11: gala. 2. 6: 1.
pier. 1. 17: ef. 6. 9: kolos. 3. 25
- Pierris eta ioanes gizon letragabeak eta idiotak,
akt, 4. 13
- Pierris presoinean, akt. 12. 4
- Pierris urgainez ebili, mat: 14. 29
- Pierrisek ukatzen Kristez, mat. 26. 70: mark.
14. 68: luk. 22. 57: ioan. 18. 25
- Pierrisen itzala, akt, 5. 15
- Pietatea kontentamendurekin irabazi handia.
1. tim. 6. 6
- Pietatearen sekretua. 1. tim. 3. 16
- Pilatek bere burua inozent egiten Kristen
odolean. mat. 27. 24
- Pilatek luduek baino hogen gutiago, ioan. 19.
11: akt. 3. 13
- Pilatek Krist kondemnatzen, eta Barabbas
largatzen, mat. 27. 26: mark. 15. 15:
luk. 23. 25
- Pilatez eta haren eginez. ioan. 18. 29

Posible gauza guziak lainkoaren, ma. 19. 26:
mark. 10. 27

Predestinationeaz ezta zegei nehork debati
dezan lainkoarekin, rom. 9. 20

Predestinatuak deithu, rom. 8. 30: lainkoaren
propos deliberatuaren araura. ef. 1.
11

Predika nehork ezin dezake igor ezpadadi,
rom. 10. 15

Predikariak langilekide lainkoarekin, 1. kor. 3.
9

Predikatu eta irakatsi Apostoluek etxetan
ere, akt. 5. 42 eta 20. 20: eta 28. 23

Predikatu eta irakatsi Kristek publikoki bet-
hiere. ioan. 18. 20

Predikatzeke lainkoaren. hitza, 2. tim. 4. 2: 1.
pier. 4. 10

Predikatzeke Kristen izenean. luk. 24. 47

Predikatzen Apostoluek penitentia, mark. 6.
12

Predikatzen hasi Paul Kristez, akt. 9. 20

Predikatzen populuari Kristek unzitik, mat.
13. 2

- Predikatza eta batheiatza Kristek diszipuluak igorri, mat. 28. 19: mark. 16. 15
- Predikatza Kristethorri, mark. 1. 14: eta predikatu Resumako Ebanjelioa, mat. 4. 23: eta 9. 35
- Preparatu behar Kristen bidea, mat. 3. 3: luk. 3. 4
- Preparatuak gloriakotzat, rom. 9. 23
- Preputioa, rom. 2. 26
- Presiditzeko dilijentiatan, rom. 12. 8
- Presoindegia, mat. 5. 25, eta 25. 36
- Presoindegian Apostoluak, akt. 4. 3. eta 5. 18
- Presoindegian Ioanes, mat. 14. 3
- Presoner Paul. akt. 23. 18: ef. 3, 1: 2. tim. 1. 8: filem. 1
- Presonerez orhoitzeko, heb. 13. 3
- Prest egoiteko, mat. 24. 44: luk. 12. 40
- Prestuz emaitako nehork deus urte eztuen lekura ere, luk. 6. 35
- Presumitzetik begiratzeko, 1. kor. 4. 6
- Prezioz erosiak gara, 1. kor. 6. 20: eta 7. 23: 1. pier. 1. 19
- Prinze mundukoa, ioan. 12. 31: eta 14. 30: eta 16. 11

Prinzea eta Salbadorea Krist akt. 3. 15: eta 5.

31

Prinzeak lainkoaren ministre, rom, 13. 4. 6

Prinzipaltasunak, kolos. 1. 16

Prinzipaltasunen suiet izateko, tit 3. 1

Prodigoa, luk. 15. 12

Profeta baten rezebitzea, mat. 10. 41

Profeta ez ohore gabe bere herrian baizen,
mat. 13. 57

Profeta falsuak, mat. 7. 15: eta 24. 24: 2.
pier. 2. 1: ioan, 4. 1: haien ezagutzea,
eta hetarik begiratzea populuari
eman, mat. 7. 15: 1. ioan. 4.1

Profeta, Krist, ioan. 6. 14

Profetak Elizan, akt. 13. 1: 1. kor. 12. 28: ef.
4. 11

Profetak eta Legea zer, mat, 7. 12

Profetak patientiatako exenplu, iak. 5. 10

Profetek Kristen ikustera desiratu, mat. 13.
17: luk. 10. 24

Profetia, rom. 12. 6: 1. kor. 12 10: lainkoaren
dohain emana, rom. 12. 6: desiratze-
ko. 1. kor. 14. 5

Promesak aitei egin izan, rom. 9. 4. 5

Promesak Kristez konfirmatu, rom. 15. 8
Promesaren haurrak, rom. 9. 8
Psalmuz lainkoaren laudoriotan minzatzeko,
ef. 5. 19
Publikanoak eta bekatoreak Kristekin, mat. 9.
10
Publikanoak lonesgana ethorten, luk. 3. 12
Publikanoek eta paillardak loanes sinhetsi,
mat. 21: 32: eta lainkoa laudatzen,
luk. 7. 29
Purgationezko egunak, luk. 2. 22
Purifikazionezko egunak, ioan, 3. 25: akt. 21.
26

R

Raka, mat. 5. 22
Ranzoinetan eman Kristek bere burua, mat.
20. 28: 1. tim. 2. 6
Redemitu gaitu Kristek, gala 3. 13: tit. 2.14:
1. pier. 1.18
Redenptionea gratiaz Kristen odolaz, ef. 1. 7:
1. pier. 1. 19: heb. 9. 14
Redenptioneko eguna, ef. 4. 30

- Redemptorea Krist, mark. 10. 45: 1. kor. 1. 30: heb. 9. 12
- Rege Israelekoa, ioan. 1. 49: eta 12. 13
- Rege Iuduena Krist, mat. 2. 2. eta 27. 11, 37: mark. 15. 2, 26: luk. 23. 3, 38: ioan. 18. 37: eta 19. 19
- Rege izateari Kristek ihes egin, ioan. 6. 15
- Regeakgatik othoitz egiteko, 1. tim. 2. 2
- Regen Regea, 1. tim. 6. 15
- Regeren eta gobernadore superioaren suiet izateko. 1. Pier. 2 13
- Regeren konparationea, mat. 25. 34
- Reglaren araura ebiltzen diradenak, gala. 6. 16
- Rejenerationea, mat. 19. 28: tit. 3. 5
- Rejeneratuak esperanza bizitan hitzaz, 1. pier. 1. 3, 23
- Rekeritzea lainkoaz, mat. 26. 63: edo lainkoaren aitzinean. 1. tim. 5. 23: eta 6. 13: 2. tim. 4. 1
- Rekesta eta oratione egiteko gizon guziakgatik, 1. tim. 2. 1
- Rekonziliationea nola egiteko, mat. 5. 23

- Rekonziliatu gaitu lainkoak berekin Kristez,
rom. 5. 11. 2: kor. 5. 18: 19
- Relijione pura. iak. 1. 27. Aingeruen religio-
nea, kolos. 2. 18
- Relijoski bizitzeko, tit. 2. 12
- Renuntiatzeko nork bere buruaz, mat. 16. 24:
mark. 8. 34: luk. 9. 23: eta 14. 33
- Reprehendituren zerzaz mundua, ioan. 16. 8
- Reprehenditzeo nor guzien aitzinean, 1. tim.
5. 20
- Reprehenditzeko biziki, tit, 1. 13: eta 2. 15
- Reprehenditzeko gaizki ari dena, mat. 18. 15:
luk. 17. 3: eta zergatik eta zer mol-
dez. 1. kor. 4. 14: gala. 6. 1
- Reprobatuak fedetik, nor, 2. tim. 3. 8
- Resistitu Paulek Pierrisi, gala. 2. 11
- Resistitzea odolerano, heb. 12. 4
- Resistitzeko fedez deabruari, iak. 4. 7: 1.
pier. 5. 9
- Resuma haurrendako, mat. 19. 14: mark. 10.
14: luk. 18. 16: lainkoaren resuma,
mat. 21. 43: mark 1. 14: eta 9. 1: luk.
4. 43: rom. 14, 17: lehenik bilhatze-
ko, mat. 6. 33, eta 7. 7: luk. 12. 31:

kolos. 3. 1: heb. 13. 14: Kristen resuma, luk. 23. 42: ioan.18. 36: 2. tim. 4. 1: zeruetako resuma hurbildu, mat. 3, 2: eta 4. 17, eta 10. 7: mark. 1. 15: luk. 21. 31

Resuma zathitua, mat. 12. 25

Resuma, lainkoaren benedikatuei aprestatua, mat. 25 34

Resumako semeak egotziren

Resumako semeak egotziren kanpora, mat. 8. 12

Resumaren erstea, mat, 23. 13

Resurrektioea Krist, ioan. 11. 25: 1. kor. 15. 21

Resurrektioea ukatzen dutenak, mat. 22. 23

Resurrektioea zer moldez izanen, 1. kor. 15. 23: 1. thes. 4. 15

Resurrektioeaz, mat. 22. 31: mark. 12. 26: luk. 20. 37: akt. 4. 2: eta 17. 18: eta 24. 15: 1. kor. 15. 12

Resusztatuta gara Kristekin, ef. 2. 6: kolos. 2. 12, 13

Resusztatutatu Krist, mat. 28. 6: rom. 8. 34: 1.
kor. 15. 4: gure iustifikationetan,
rom. 4. 25

Resusztatutaren guziak, I. kor. 15. 22, 51: 2.
kor. 4. 14

Resusztatutako bethi bizitze berritara, rom. 6.
4

Rezebitutaren batbederak egin dukeen ungia,
ef. 6. 8

Rezebitutako batak berzea, rom. 15. 7

Rezebitutako igorriak, mat. 10 14: mark. 6.
11: luk. 9. 5

Rezebituten nork Krist: mat. 10. 40: mark. 9.
37: luk. 9. 48: ioan. 13. 20

Romako burjesia, akt. 22. 28

Rudiment flakuetara ez itzultutako, gala. 4. 9

S

Sabbathoa gizonagatik, eta ez gizona Sab-
bathoagatik, mark. 2. 27

Saindu den gauka orei ez emaitako, mat. 7. 6

Saindu dena sanktifika bedi oraino, apok. 22.

- Saindu eta anaie fidelei, kolos. 1. 2: I. thes. 5. 27: heb. 3. 1
- Saindu Iesus Krist launean filip. 1. 1: lainkoaren sainduak, akt. 9, 13: 2. kor. 13. 12
- Saindu izatera deithu. 1. kor. 1. 2: ef. 1. 4: 1. pier. 1. 15
- Saindua eta iustoa Krist, mark. 1. 24: luk. 1. 35: eta 4. 34: akt. 3. 4
- Sainduek mundua iujeaturen. 1. kor. 6. 2
- Saindutasunik eztuenak lainkoa ez ikusiren. heb. 12. 14
- Sakrifikadore handia eta subiranoa Krist, heb. 2. 17: eta 4. 14: eta 6. 20: eta 8. 1
- Sakrifikadore handiaren ofizioa, heb. 5. 1
- Sakrifikadoregoa reala. 1. pier. 2. 9
- Sakrifikadorek Krist hil nahi, luk. 20. 19: baie-ta Lazaro, ioan. 12. 10
- Sakrifikatu behin Krist. 1. kor. 5. 7: heb. 9. 26
- Sakrifizio bizia, rom. 12. 1
- Sakrifizio espiritualak eta lainkoari plazentak. 1. pier. 2. 5
- Sakrifizio lainkoaren gogarakoak, heb. 13. 16

Sakrifizio Kristek egina bekatuaren destruktioetan, heb. 9. 26

Sakrifizio laudoriozkoa, heb. 13. 15

Salba ditezen guziak nahi lainkoak, I. tim. 2. 4: 2. pier. 3. 9

Salba lezanzat bekatutarik bere populua, Krist ethorri, mat. 1. 21: luk. 9. 50: ioan. 12. 47 eta galdu izana salba lezanzat, ma. 18. 11: luk. 19, 10

Salbadore lainkoa, luk. 1. 47: 1. tim. 4. 10:

Salbadore Krist. ioan. 4. 42: akt. 13 . 23

Salbamendua Iesus Krist launean, akt. 4. 12: eta 13. 47

Salbamendua lduetarik. ioan. 4. 22

Salbamendua, fedearen fina. 1. pier. 1. 9:

Salbamendurik ezta Iesus launean baizen. akt. 4. 12

Salbamendutako eguna. 2. kor. 6. 2

Salbamendutara elejitu. 2. thes. 2. 13

Salbatu eta deithu ez obrakgatik, 2. tim. 1. 9

Salbatu izateko moien bakoitz bat baizen ez izan, akt. 4. 12: eta 16. 31

Salbatzen esperanzaz, rom. 8. 23: Ebanjelioaz, 1. kor, 15. 2: miserikordiaz eta

gratiaz, akt. 15. 11, ef. 1. 5: tit. 3. 5:
fedeaz, ef. 2. 8

Salutationei merkatuetan nork on eritzi, mat.
23. 7: luk 20. 46

Salutzeko etxea, matth. 10. 12. elkar, 1.
kor. 16. 20: 2. kor. 13. 12: 1. pier. 5.
14

Salutatzen Eliza, akt. 18. 22: eta 21. 7

Samaritanaz, ioan, 4. 9

Samaritano luduek lesus deithu, ioan, 8. 48

Samaritano miseriakordiosoa luk. 10. 33

Samaritanoek Krist ez rezebitzen, luk. 9. 52,
53

Samaritanoek Kristi othoitz egiten hekin egon
ledin. ioan. 4. 40

Samaritanoen hirietan sartzea Apostoluei
Kristez defendatu, mat. 10, 5

Sanktifikatzea Krist, 1. kor. 1. 30

Sanktifikatzen deithu: 1. thes. 4. 7

Sanktifikatu behar dugu lainkoa gure biho-
tzetan, 1. pier, 3. 15

Sanktifikatzen Krist baitharako fedeaz, akt.
26. 18: 1. kor. 1. 2: unzi sanktifikatua
nola nehor daten, 2. tim. 2. 21

- Sanktifikatzen Kristek Elika, ef. 5. 26
- Sanktuario mundanoa, heb. 9. 1
- Sano fedean izateko, tit. 1. 13: eta 2. 2
- Sapientia bilha ebili Grekoak, 1. kor. 1. 22
- Sapientia eskatzeko, baina sinhesterekin,
iak. 1. 5
- Sapientia garaitik dena, iak. 3. 17: munda-
noa. iak, 3. 15
- Sapientia. Iainkoaren sapientia, luk. 11. 49:
misteriotan, 1. kor. 2. 7: zuhurren
sapientia reprobatu, 1. kor. 1. 19
- Saria Profetaren eta iustoaren saria rezebitu-
ren, mat. 10. 41: gure saria zeruetan
luk. 6. 23
- Saria trabailluaren araez rezebituren, 1. kor.
3. 8
- Sarthu Krist Ierusalem, mat. 21. 10: mark.
11. 11: ioan. 12. 12: eta sarthu
zeruan, heb. 4. 14: eta 9. 12
- Satan deithu Kristek Pierris, mat. 16. 23:
mark. 8. 33
- Satan transfiguratzen argizko Aingerutara, 2.
kor. 11. 14
- Satan zerutik erori, luk. 10. 18

Satanen boheretik eta menetik konbertitze-
ko, akt. 26. 18

Satani Apostoluak inbiatu, luk. 22. 31

Satani emaita, 1. kor. 5. 5: 1. tim. 1. 20

Satsu dena satsu biz oraino, apok. 22. 21

Saturik deus aipatzeko ere ez, ef. 5. 4

Satsutasun guzitarik xahutu behar, 1. kor. 7.

1

Seberitatea, rom. 11. 22

Seditione eta disputa, akt. 15. 2

Seduzizale Krist deithu, mat. 27. 63

Seduzizaleak, rom. 16. 18: tit. 1. 10: 2. ioan.

1. 7

Sekretu estaliaren rebelationea, rom. 16. 25

Sekretu guzia iakinen, mat. 10. 26: mark. 4.
22: luk. 8. 17: eta 12. 2

Sekretu Resumakoa, mark. 4. 11: Ebanjelio-
koa. ef. 6. 19: lainkoaren borondatea-
rena, ef. 1. 9: bethidanik estalirik
egona, kolos. 1, 26: eta 4. 3

Sekretuak iujeatuak izanen, rom. 2. 16

Sekta perditionetakoak, 2. pie. 2. 1

Sektak behar da diraden, 1. kor. 11. 19

- Sekula ethortekoa, mat. 12. 32: luk. 18. 80:
ef. 1. 21
- Sekuletako Regea, 1. tim. 1. 17
- Seme eginez obediencia, mat. 21. 29
- Seme hitzez obediencia, mat. 21. 30
- Senhar emazten instruktioea. 1. kor. 11. 3:
ef. 5. 22: kolos. 3. 18: 1. pier. 3. 1: 7
- Senharrek emazteak maite ukaiteko, ef. 5.
28: kolos. 3 19
- Separationeko letra, mat. 5. 31: eta 19. 7:
mark. 10. 4
- Separatzeko infideletarik, 2. kor. 6. 17: 2
thes. 3. 6: 1. tim 6. 5
- Sepulkre xurituak, 23. 27
- Sepulkrean Krist, luk. 23. 53
- Signo eta mirakulu Apostoluek egiten, akt. 2
43: eta 5. 12: eta 14. 3
- Signoak iarreikiren sinhesten dutenei, mark.
16, r7
- Simon enkantadorea, akt. 8. 9
- Simon Fariseua, luk. 7. 36
- Simon Pierris eta Andriu haren anaia lesu-
sek deithu, mat. 4. 18
- Simon sorhaioa, mat. 26. 6: mark. 14. 3

- Sinhestea duda gabe izateko, mat. 14. 31:
eta 21. 21
- Sinhestea lainkoaren dohain emana, mat. 13.
11: eta 16. 17: ioan. 6. 44
- Sinhesteko bihotzez, rom. 10. 10.
- Sinhesteko lainkoa baithan eta Iesus Krist
baithan, ioan. 11. 26, eta 12. 44, eta
14. 1: akt. 10. 43
- Sinhesten duena ez konfusi izaneren, rom. 10.
11.
- Sinhesten duena iustificatu, akt 13. 39: gal.
3. 6
- Sinhesten duenak Iesus Krist baithan, bizitze
eternala, ioan. 3. 15
- Sinhesten ezteua bere bekatuetan hilen,
ioan. 3. 18, eta 8. 24
- Sinhetsi behar, mark. 1. 15: eta 5. 36: luk 8.
50: ioan 4.9, eta 16. 31
- Sinple izateko gaitzean, rom. 16, 19
- Sinple izateko uso kolunbak bezala, mat. 10.
16
- Siongo alaba, mat. 21. 5

Soberatuak altxatzeko ian ondoan, matth.

14. 20: mark 6. 43: luk 9. 17: ioan. 6.
12

Sobreki eta iustoki bizi behar, tit. 2. 12

Sorhaio hamarrak sendatu, luk 17. 14

Sorhaioa sendatu, matth, 8. 3: mark 1. 41:
luk 5. 13

Sorthu luduen Regea, matt. 2. 2

Sorthu nola Krist, matth, 1. 18, 25, eta 2. 1:
Luk 2. 7: Dabid-en fruktua, akt, 2. 30

Sorthuak lainkoaganik zein, ioan. 1. 13: 1.
ioan. 2. 29

Sortzea urez eta Espirituz, ioan 3. 5

Su eternala deabruarendako eta haren ainge-
ruendako preparatua, mat. 25. 41

Su konsumitzen duena lainkoa da, heb. 12.
29

Su sekulan hiltzen eztena, matth. 3, 12:
mark, 9. 44: luk, 3. 17

Suak obra forogaturen. 1. kor. 3. 13

Suaren lurrean ezartera Krist ethorri, luk. 12.
49

Sufrimenduak. rom. 8. 18: kolos. I. 24

Sufritu Kristek guregatik, 1. pier. 2. 21: eta, 3.
18

Sufrituren zuela Kristek, Profeten ahoz lain-
koak aitzinetik erran, akt. 3. 18

Sufritzeko Kristekin, rom, 8. 17. lainkoagatik,
2. thes. 1. 5

Suiektionetan ikasteko emazteak, 1. tim. 2.
11

Suiet Eliza Kristen, efes. 5. 24

Suiet izan bere aitzinekoen Krist, luk, 2. 51

Suiet izateko batak berzen, ef. 5. 21: l. pier.
5. 5

Suiet izateko emazteak senharren. ef. 5. 22:
kolos. 3. 18: tit, 2. 5: 1. pier. 3. 1

Suportatzeko elkar, ef 4. 2. kolos. 3. 13

T

Tabernakle eternalak, luk. 16. 9

Tabernaklea gorputzagatik ere hartzen, 2.
pierr. 1. 13 lainkoaren tabernaklea,
fidelak, efes. 2. 22: testimoniajeko
tabernaklea, akt, 7. 44

Tabitha resusztatuta, aktu. 9. 36

Talentak eman zerbitzariei, mat 25. 15

Tenpestateak zesa eraziten Kristek, mat. 8.

26

Tenplea, Kristen gorputzagatik, ioan, 2. 21.

lainkoaren tenplea fidelak. 1. korinth.

3. 16: 2. korinth. 6. 6. fidelen gorpu-

tza Espiritu sainduaren tenple, 1.

korin. 6. 19

Tentatione humanoa. 1. kor. 10. 13

Tentationea bozkariotan estimatzeko, iak. 1.

2

Tentationetan sar ezgaitezen othoitz egiteko,

matth. 26. 41: mark, 14. 38: luk. 22.

40. 46

Tentationetarik fidelen delibratzen badaki

lainkoak, 2 pier. 2. 9.

Tentationezko denbora, luk, 8. 13: heb, 3. 8

Tentatu izan gure aitez lainkoa, heb. 3. 9

Tentatu izan Krist, matt. 4. 1: mark, 1. 3: luk,

4. 2: ioan, 8. 6: gauza guzietan, beka-

tuan salbu, heb. 4. 15

Tentatzeko ez lainkoa, matt. 4. 7: luk. 4. 12:

akt, 5. 9, eta 15. 10

Tentatzen Fariseuek Krist: mat. 9. 3, eta 22.

18

- Testamentu berria, Kopa, luk. 22. 20
- Testamentu berriko Arartekoa Krist, heb. 9. 15, eta 12. 14
- Testamentu berriko odola, mark. 14. 24
- Testamentu edo allianka bi, gala. 4. 24
- Testamentu edo Allianza berria, mat. 26. 28: 1. kor. 11. 25: heb. 8. 8
- Testimoniajea ez rezebitzen ioan. 3. 11: bigen edo hiruren testimoniajea sinhesteko matth. 18. 16: ioan. 8. 17: 1. korin. 13.1: heb. 10. 28. Kristen testimoniajea konfirmatu gutan, 1. korinth. 1. 6
- Testimonio falsuak, mat. 26. 60 akt. 6. 13
- Thesaur gordearen konparationea, mat. 13. 44.
- Thesaur lurrekoez, matth. 6. 19
- Thesaur sapientiazko guzia Krist launean, kolos. 2. 3
- Thesaurak nola zeruan egiteko, matt, 6. 20: mark 10. 2: luk 12. 33, eta 18. 22
- Theudas eta Iudas Galileanoa seditioso, akt. 5. 36, 37
- Thomas inkredul, ioan. 20. 25

- Thustatu eta bufetatu Krist, matt. 26. 67:
mark 14. 65
- Timotheo zirkonziditu, akt. 16 3.
- Tite zergatik ez zirkonziditu, gala. 2. 3
- Titulua Kristen krutze gainean, matth. 27. 37:
mark 15. 26: luk 23. 38: ioan. 19. 19
- Tormenta eternala, matth. 25. 46
- Trabaillatu nahi eztiradenez, 2. thes. 3. 6
- Trabaillatzeko eskuz, 1. thes. 4. 11
- Trabaillatzen eztenak ez iateko, 2. thes. 3. 10
- Traidore eta iustoaren erhaile, Iuduak, akt. 7.
52
- Transfiguratu Krist, matt. 17. 2: luk 9. 29
- Transfiguraturen Kristek gure gorputza, filip.
3. 21
- Transfiguratzen satan argizko Aingerutara, 2.
kor. 11. 14
- Transgresionerik ez, legerik ezten lekuan,
rom. 4. 15: gal. 3. 19
- Tribulatione anhitzez Resuman sarthu behar,
akt. 14. 22
- Tribulationeak patientia enjendratzen, rom.
5. 3: 2. thes. 1. 4

Tribulationez eta gaztigamenduez, rom. 8.
35: heb, 12. 6

Tributa Kristek pagatu, mat. 17. 27

Tributak pagatu behar, matth, 22. 17: mark
12. 14: rom, 13. 7.

Triste Krist, mat. 26. 38: mark 14. 34

Tristitia lainkoazkoa eta munduaren arauetz-
koa, 2. kor, 7. 10.

Tristitia sobera hilez ez hartzeko, 1. thes. 4.
13

Tronpeta soinua, matth. 24. 31: 1. kor. 15.
52: 1. thesal. 4. 16

Tropel xipia, luk 12. 32

Trublatu diszipuluak, matt. 14. 26: mark 6. 50

Trublatu Krist, ioan. 11. 33, eta 13. 2

Tutoren azpiko haurra, gala. 4. 2

U

Uka badezagu launa hark ere gu ukaturen,
matth. 10. 33: mark. 8. 38: 2. tim, 2.
12

Ungentu aromatikoak erosi emaztek, mark.
16. 1

Ungi eginez aflijitu izatea hobe gaizki eginez
baino, 1 pier. 3. 17

Ungi egiteko guziei. luk. 6. 35

Ungi egiten dakianaren, ez egitea bekatu,
iak. 4. 17

Ungi egiten duena, lainkoaganik, 1. ioan. 1.
11

Ungi egitez ez enoiazteko galat. 6. 9: 2. the-
sal. 3. 13

Unitate espirituzkoa, ef. 4. 3: Fedezkoa, ef. 4.
13

Unitate eta batasun, ioan, 17 11, 21: akt. 2.
44

Unktatu Iesus lainkoaz, luk. 4. 18: akt. 4. 27

Unktatuak Kristekin lainkoaz, 2. kor. 1. 21
unztatzen oinak Iesusi Mariak ioan.
12. 3

Unzi elejitua, Saul: akt. 9. 15

Unzi hiratakoak eta miserikordiatakoak, rom.
9. 22

Unzi ohoretakoa edo desohoretakoa, rom. 9.
a21: 2 tim. 2. 20

Unzi santifikatua nola nehor daten, 2. tim, 2.
21

Unzia gorputzagatik erraiten 1. thes. 4. 4

Ur biziaz Espiritu saindua aditzen, ioan. 4. 14.
eta 7. 38: apokal. 22. 17

Ur gainez Krist ebili, matth. 14. 25: mark. 6.
48: ioan. 6. 19

Ura mahatsarnotara muthatu, ioan. 2. 8

Urez populuak aditzen, apok. 17. 15

Urgulutsuei eta superboei lainkoak resis-
tzen eta humilei gratia emaiten, iak.
4, 6.: 1. pier. 5. 9

Utziteko guzia Kristgatik, matt. 19. 29: mark.
10. 29.

Uzta handi, baina langile guti, matth. 9. 37:
luk, 10. 2.

X

Xahu bihotzez, mat. 5. 8

Xahuen, xahu dirade gauza guziaz eta
satsuen satsu, rom. 14. 20: tit. 1. 15

Xahutzea Kristen odolaz da, 1. ioan. 1. 7:
heb. 9. 14

Xahutzeko nork bere burua haragiaren satsu-
tasunetarik, 2. kor. 7. 1: 2. tim, 2. 21

Xikiratuez. mat. 19. 12

Xipiena izanen gehien,. luk 9. 48

Xirmendua suko, ioan. 15. 6

Z

Zakarias Barakiaren semea, matth. 23. 35

Zakarias sakrifikadorea, luk. 1. 5: nola mutu
egin izan zen, sinhetsi ukan gabez,
luk, 1. 20

Zakeo publikanoa, luk. 19. 2.

Zebedeoren semen eta haien amaren rekes-
ta, mat. 20. 20: mark, 10. 35

Zedron, ioan. 18. 1

Zekengi ereiten duenak zekengi bilduren, eta
largoki ereiten duenak largoki bildu-
ren, 2. kor. 9. 6

Zelo eszientia gaberikoa: rom. 10. 2: lainkoo-
ren etxeazko Zeloa: ioan. 2. 17.
Legearen zeloa lduiek, akt. 21. 20.

Zena, mat. 26. 26: mark. 14. 22 1. Kor. 11.
20: Kristen memoriotan egiteko. luk.
22. 19: 1. Kor. 11. 24

Zenaren indignekei rezebitzea. 1.Kor. 11. 27:
29

Zentenerak lainkoa glorifikatzen, luk. 23. 47